

eman la zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko- diakronikorantz

Eneko Zuloaga San Román

Zuzendariak:

Joseba A. Lakarra Andrinua

Iñaki Camino Lertxundi

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2019

Lan honek honako hauen babesa izan du: MINECOk finantzaturako «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» [MINECO FFI2012-37696] eta «*Monumenta Linguae Vasconum* (V): periodización y cronología» [MINECO FFI2016-76032-P] ikerketa-proiektuak, eta Eusko Jaurlaritzaren «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada (HMLV-LHC)» [IT698-13] eta «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada (HMLV-LHC)» [IT1344-19] ikerketatalde kontsolidatuak.

Aurkibidea

1. Sarrera	25
1.1. Tesiaren helburuak eta aztergaiak	25
1.2. Oharra <i>mendebala</i> eta bestelako izendapenez	27
1.3. Kartografia.....	28
1.4. Tesiaren egituraz	31
2. Oinarri eta irizpide teoriko-metodologikoak.....	33
2.1. Dialektologiaz.....	34
2.1.1. Dialektologiaren ikergaiez eta izaeraz.....	34
2.1.2. Dialektoak ikertzeko arrazoiez	37
2.2. Dialektologia historikoaz.....	37
2.2.1. Dialektologia historikoa zer den.....	37
2.2.2. Sinkronia eta diakronia.....	39
2.3. Dialektologia eta historia.....	43
2.3.1. Dialektoen alderdi kronologikoaz	43
2.3.1.1. Dialektologia historikorantz.....	43
2.3.1.2. Isoglosa zaharrez eta berriez	45
2.3.1.3. Ikerketa diakronikoa: irizpideak eta arazoak.....	47
2.3.1.4. Dialektoen zatiketa bertikalaz: zuhaitzaren irudia	54
2.3.2. Ezaugarri linguistikoen alderdi kronologikoaz.....	61
2.3.2.1. Berrikuntzak	61
2.3.2.2. Arkaismoak	64
2.3.2.3. Hautuak	68
2.4. Dialektologia eta geografia.....	70
2.4.1. Espazioa agente aktibo	70
2.4.2. Geolinguistika zer den.....	73
2.4.3. Oinarrizko bi kontzeptu: <i>isoglosa</i> eta <i>dialekto</i>	74
2.4.3.1. Isoglosa	74
2.4.3.2. Dialektoa eta eremu dialektalak	75
2.4.4. Azalbideak ezaugarrien hedaduraz eta banaketaz	79
2.4.4.1. Uhin teория.....	79
2.4.4.2. Neolinguisten hatsarreak.....	81
2.4.4.3. Geolinguistikaren ekarpenak: difusio-eredu hierarkikoa	83
2.4.5. Genealogiaren eta geografiaren artean: “Raum/Zeit” eredu.....	88

2.5. Dialektologia historikoa: iturriak	89
2.5.1. Iturri nagusia: testuak	90
2.5.1.1. Testuen eta filologia zehatzaren garrantzia	90
2.5.1.2. Data eta jatorri ezagunik gabeko testuak.....	92
2.5.1.3. Testuen egiletza.....	92
2.5.1.4. Generoaren soziologia eta aipamen soziohistorikoak	94
2.5.1.5. Alderdi materiala eta datazioa.....	95
2.5.1.6. Testuak datatzeko argudio linguistikoak.....	96
2.5.1.7. Jatorri geografikoa.....	97
2.5.1.8. Fidagarritasunaren eta leialtasunaren auzia.....	100
2.5.1.8.1. Ahozkoa eta idatzia.....	100
2.5.1.8.2. Fidagarritasunaz eta leialtasunaz	102
2.5.1.8.3. Dialekto literario edo estandarrez	104
2.5.1.8.4. Aldakortasuna eta <i>mischsprache</i> -ak.....	106
2.5.2. Bigarren mailako iturriak.....	107
2.5.2.1. Toponimia	107
2.5.2.2. Substratua.....	111
2.5.2.3. Berba bi berreraiketaz	112
2.6. Euskal dialektologia historikoaren ibilbideaz	114
2.6.1. Mitxelena aurreko garaiaz	114
2.6.2. Mitxelenaren ekarpenez.....	117
2.6.3. Mitxelena ondoko garaiaz ikuspegi orokorra	120
2.6.4. Euskalkien zatiketa eta mendebaleko euskara.....	127
2.6.4.1. Zuazo (2010a, 2012)	127
2.6.4.2. Aldai (2014)	130
3. Corpora.....	133
3.1. Euskararen historia aztertzeke corpusaz ikuspegi orokorra	133
3.1.1. Ezaugarri orokorrak.....	133
3.1.2. Materialen egoeraz	136
3.1.3. Corpora ezagutzeko tresna lagungarriak	138
3.2. Mendebal zabaleko testuez ikuspegi orokorra	140
3.3. Bi hitz corpus-hizkuntzalaritzaz	141
3.4. Tesi honen testu-corpusaz	144
3.4.1. Aurkezpena.....	144
3.4.2. Testuak	146
3.4.2.1. Bizkaiko testuak.....	146
3.4.2.1.1. Euskara Arkaikoa.....	146
3.4.2.1.2. Euskara Zaharra	147
3.4.2.1.3. Lehenengo Euskara Modernoa.....	148
3.4.2.2. Arabako testuak.....	149
3.4.2.2.1. Euskara Arkaikoa.....	149
3.4.2.2.2. Euskara Zaharra	150
3.4.2.2.3. Lehenengo euskara modernoa.....	150
3.4.2.3. Gipuzkoako testuak	151
3.4.2.3.1. Euskara Arkaikoa.....	151
3.4.2.3.2. Euskara Zaharra	152

3.4.2.3.3. Lehenengo Euskara Modernoa.....	153
--	-----

4. Ezaugarrien azterketa: datuak.....155

4.1. Zenbait ezaugarri zahar: hasperenaren galera eta aldaera lexikoak (<i>barri</i> eta <i>baltz</i> , eta (<i>h</i>) <i>uri</i>).....	157
4.1.1. Sarrera.....	157
4.1.2. Hasperenaren galera	157
4.1.3. <i>Barri</i> & <i>berri</i> eta <i>baltz</i> & <i>beltz</i>	166
4.1.4. Hitz hasierako <i>u-</i> : <i>i-</i> (<i>huri</i> & <i>hiri</i>)	172
4.1.5. Laburpena	175
4.2. Txistukarien palatalizazioaz: $Vjz > V(j)x$ eta $Vjtz > V(j)tx$	178
4.2.1. Sarrera.....	178
4.2.2. Mendebaleko testuetako lekukotasunak	182
4.2.2.1. Zenbait muga.....	182
4.2.2.2. Aztertutako aldaerak	183
4.2.2.2.1. BAIZEN \rightarrow BA(I)XEN.....	183
4.2.2.2.2. ELEIZA \rightarrow ELE(I)XA.....	184
4.2.2.2.3. GOIZ \rightarrow GOX	187
4.2.2.2.4. (H)AIZE \rightarrow (H)AXE.....	187
4.2.2.2.5. NAIZ \rightarrow NAX	188
4.2.2.2.6. NOIZ \rightarrow NOX	189
4.2.2.2.7. INOIZ \rightarrow IÑOX	191
4.2.2.2.8. BAKOITZ \rightarrow BAKOTX	191
4.2.2.2.9. (H)AITZ \rightarrow (H)ATX.....	193
4.2.2.2.10. (H)ARE(I)TZ \rightarrow (H)ARETX.....	194
4.2.2.2.11. GAITZ \rightarrow GATX	194
4.2.2.2.12. EREITZI \rightarrow ERETXI	196
4.2.3. Laburpena.....	197
4.3. Bokal sudurkariak.....	202
4.3.1. Sarrera.....	202
4.3.2. Ezaugarriaren deskripzioa	203
4.3.3. Testuetako adibideak.....	204
4.3.4. Laburpena.....	211
4.4. $a + a > ea$ disimilazioa eta horrekin lotutako zenbait fenomeno	211
4.4.1. Sarrera.....	211
4.4.2. Ezaugarriaren deskripzioa	212
4.4.2.1. Deskripzio gramatikala	212
4.4.2.2. Erregelaren gorabeherak	216
4.4.2.2.1. Disimilaziorik gabeko kasuak.....	217
4.4.2.2.2. Disimilazioaren hipererabilerak.....	222
4.4.3. Ezaugarriaren hedadura geografikoaz	223
4.4.3.1. Gipuzkoako testuak	224
4.4.3.1.1. Iturri zaharrak eta kokapen ezagunik gabeak.....	224
4.4.3.1.2. Deba ibarrekoak	225
4.4.3.1.3. Urola aldekoak	228
4.4.3.1.4. Goierriko testuak.....	231
4.4.3.1.5. Ezaugarriaren muga Gipuzkoan: Beterri eta Tolosaldea	233

4.4.3.1.6. Idazle jantziak: Larramendi eta Arakistain	234
4.4.3.2. Arabako ekialdeko eta Sakanako testuak	240
4.4.3.2.1. Arabakoak: Albeniz eta Gamiz	240
4.4.3.2.2. Araba/Sakana aldekoak	240
4.4.4. $a + a > ea$ disimilazioari lotutako bestelako fenomeno eta erabilerak	241
4.4.4.1. Hedadura zabalekoak	241
4.4.4.1.1. Erreferente bakarreko izenak	241
4.4.4.1.2. Berreraiketa analogikoak ($-e > -a$)	246
4.4.4.2. Hedadura murriztekoak	250
4.4.4.2.1. $-ia + -a > -iea$	250
4.4.4.2.2. Lazarraga eskuizkribuko zenbait bilakabide	253
4.4.4.2.3. Beste berrikuntza bat: <i>hatan</i> > <i>-atan</i> gramatikalizazioaz	254
4.4.4.3. Adizkietako disimilazioak	254
4.4.4.3.1. Fenomenoaren ñabardurez	254
4.4.4.3.2. Bizkaiko testuak	255
4.4.4.3.3. Arabako eta Sakanako aldeko testuak	257
4.4.4.3.4. Gipuzkoako mendebaleko eta hegoaldeko testuak	258
4.4.5. Onomastikaz: Arabako eta Nafarroako toponimia	260
4.4.6. Laburpena	263
4.5. Eufoniak	266
4.5.1. Sarrera	266
4.5.2. Erdiko bokalak igotzea: $e \rightarrow i / _ V$ eta $o \rightarrow u / _ V$	268
4.5.2.1. Ezaugarriaren deskripzioa	268
4.5.2.2. $e \rightarrow i / _ V$: testuetako lekukotasunak	270
4.5.2.2.1. Mendebaleko lekukotasun zaharrena	270
4.5.2.2.2. Bizkaiko testuak	272
4.5.2.2.3. Arabako eta Sakanako testuak	278
4.5.2.2.4. Gipuzkoako mendebaleko testuak	279
4.5.2.2.5. Gipuzkoako erdi-ekialdeko testuak	282
4.5.2.2.6. Nafarroako lekukotasunez, labur	283
4.5.2.3. Erdiko bokalak igotzea: $o \rightarrow u / _ V$	284
4.5.2.3.1. Ezaugarriaren deskripzioa	284
4.5.2.3.2. Mendebaleko lehenengo lekukotasunak	285
4.5.2.3.3. Bizkaiko testuak	286
4.5.2.3.4. Arabako eta Sakanako testuak	289
4.5.2.3.5. Gipuzkoako testuak	290
4.5.2.4. Laburpena bokal-igotzeez	293
4.5.3. Kontsonante epentetikoak: $u + V > ubV$ eta $i + V > ijV$	296
4.5.3.1. Sarrera	296
4.5.3.2. $u + V > ubV$	296
4.5.3.2.1. Bizkaiko testuak	297
4.5.3.2.2. Arabako eta Sakanako aldeko testuak	301
4.5.3.2.3. Gipuzkoako testuak	302
4.5.3.2.4. Bi hitz Lapurdiko eta Nafarroako testuez	305
4.5.3.3. $i + V > ijV$	307
4.5.3.3.1. Bizkaiko testuak	307
4.5.3.3.2. Arabako eta Sakanako testuak	311
4.5.3.3.3. Gipuzkoako testuak	312
4.5.3.3.4. Are erdialderagokoak: Lapurdi eta Nafarroakoak	315
4.5.3.4. Laburpena kontsonante epentetikoez	316
4.5.4. Ereku txikiko zenbait berrikuntza	318

4.5.4.1. -obV epentesiaz	318
4.5.4.2. Orozko aldeko bi berrikuntza eskusibo	319
4.5.4.2.1. -u + aC > -ueC > -uiC	319
4.5.4.2.2. -io- > -(i)u-	320
4.6. Beheko bokalaren asimilazioa	321
4.6.1. Ezaugarriaren deskripzioa	321
4.6.2. Ezaugarriaren hedadura testuetan	322
4.6.2.1. Bizkaiko testuak	322
4.6.2.1.1. VJesus (ca. 1640)	322
4.6.2.1.2. OrozOtoi	326
4.6.2.1.3. Amorotoko armarriak (1754, 1784)	327
4.6.2.1.4. ZolloGald (1770)	328
4.6.2.1.5. XVIII. mendearen amaierako sermoiak: Sarria	329
4.6.2.1.6. Bulda	331
4.6.2.2. Arabako eta Sakanako testuak	333
4.6.2.3. Gipuzkoako testuak	335
4.6.2.3.1. 1708ko sermoiaz (SermDom): asimilaziorik ez	336
4.6.2.3.2. Gipuzkoako erdialdekoak: Urola, Goierri eta Tolosaldea	337
4.6.2.4. Hitz bi Nafarroako lekukotasunen kronologiaz	339
4.6.3. Laburpena beheko bokalaren asimilazioaz	339
4.7. Txistukarien neutralizazioa	342
4.7.1. Ezaugarriaren deskripzioa	342
4.7.2. Ozen ondoko txistukariez	346
4.7.3. Txistukarien neutralizazioa Bizkaiko testuetan	350
4.7.3.1. Euskara Arkaikoa	350
4.7.3.1.1. Bizkaiko 1600 aurreko testu laburrak	350
4.7.3.1.2. frJZum eta RS	354
4.7.3.1.3. IbarGC	356
4.7.3.2. Euskara Zaharra	359
4.7.3.3. Mikoletaren txistukarien auziaz	362
4.7.3.3.1. Erdi Aroko gaztelaniatik gaztelania modernora	364
4.7.3.3.2. Hego Euskal Herriko berrikuntza bat: euskal seseoa	368
4.7.3.3.3. Laburpen gisa, gaztelaniaren txistukarien sistemaz	371
4.7.3.3.4. Mikoletaren gaztelania: txistukariak	372
4.7.3.3.4.1. Gaztelaniazko /ts/ zaharraz	373
4.7.3.3.4.2. Frikari zaharrez	375
4.7.3.3.4.3. Seseoa Mikoletarenean	376
4.7.3.3.4.4. Ondorioak Mikoletaren erdal txistukariez	378
4.7.3.3.5. Mikoletaren euskara: txistukariak	380
4.7.3.3.5.1. Frikariak	380
4.7.3.3.5.2. Afrikatuak	383
4.7.3.3.6. Proposamena: Mikoletarenean badaude neutralizazio-zantzuak	384
4.7.3.4. Bizkai ekialdeko testuak (1650-1700)	388
4.7.3.4.1. Kapanaga	388
4.7.3.4.2. BertsBizk	390
4.7.3.4.3. Zubia	391
4.7.3.5. XVIII. mendeko testuak	391
4.7.3.5.1. 1700-1750 bitartekoak	391
4.7.3.5.2. 1750-1800 bitartekoak	394
4.7.4. Neutralizazioa Arabako testuetan	406
4.7.4.1. XVIII. mendea baino lehenagokoak	406

4.7.4.1.1. Testu laburrak	406
4.7.4.1.2. Landucci.....	409
4.7.4.1.3. Lazarraga.....	413
4.7.4.1.4. Betolatza	414
4.7.4.1.5. Martínez de Ochoaren Gabon-kanta	414
4.7.4.2. XVIII. mendeko lekukotasunak	414
4.7.5. Neutralizazioa Gipuzkoako testuetan	416
4.7.5.1. Gipuzkoako testu arkaiko eta zaharrak	416
4.7.5.2. Deba ibarreko testu arkaikoak.....	417
4.7.5.2.1. Testu laburrak	417
4.7.5.2.2. Garibai	419
4.7.5.3. Deba ibarreko testu zahar eta modernoak	419
4.7.5.3.1. Arrasatekoak	419
4.7.5.3.2. Eibarkoak	420
4.7.5.3.3. 1708ko sermoia (SermDom).....	421
4.7.5.3.4. Barrutia	422
4.7.5.3.5. IsSagEsp.....	422
4.7.5.4. Urolako testuak	423
4.7.5.5. Donostia aldeko testuak	426
4.7.5.5.1. Lubieta	426
4.7.5.5.2. Peperen eta Josefaren arteko gutuneria	429
4.7.5.6. Are erdialderago: berba bi Hondarribiaz eta Lapurdiko kostaldeaz.....	430
4.7.6. Laburpena txistukarien neutralizazioaz	432
4.8. Bokal bikoitzak.....	440
4.8.1. Ezaugarriaren deskripzioa	440
4.8.1.1. Orokortasunak	440
4.8.1.2. Bokal bikoitzen jatorria.....	441
4.8.2. Bizkaiko testuak	442
4.8.2.1. Euskara Arkaikoa	442
4.8.2.2. Euskara Zaharra.....	444
4.8.2.3. Lehenengo Euskara Modernoa.....	450
4.8.3. Eremu mugakideetako testuak: Araba eta Deba ibarra.....	459
4.8.4. Gipuzkoako mendebaleko testuak	462
4.8.4.1. Deba ibarrekoak	462
4.8.4.2. Urola ibarrekoak.....	466
4.8.4.3. Goierriko testuak	468
4.8.4.4. Mendebal zabalaz haragoko testuak.....	468
4.8.5. Laburpena bokal bikoitzez.....	469

5. Datuen irakurketa eta eztabaidarako gaiak473

5.1. Kronologia-gaiak	473
5.1.1. Sarrera.....	473
5.1.2. Erdi Aroko berrikuntzak: sortutakoak eta galdutakoak	474
5.1.2.1. Hasperenaren galeraz	474
5.1.2.2. Erdi Aroko onomastikaz: (<i>h</i>)uri & (<i>h</i>)iri, <i>barri</i> & <i>berri</i> , <i>baltz</i> & <i>beltz</i>	475
5.1.2.3. <i>a + a > ea</i> disimilazioaz	477
5.1.2.4. <i>Vjz > Vjx</i> eta <i>Vjtz > Vjtx</i> palatalizazioaz.....	481
5.1.3. Mendebaleko euskara Erdi Aroan	482
5.1.3.1. Erdi Aroko ezaugarrien balio sailkatzaileaz.....	482

5.1.3.2. Hasperenaren galera	483
5.1.3.3. (<i>h</i>)iri, <i>barri</i> eta <i>baltz</i> aldaerak	484
5.1.3.4. Disimilazio morfonologikoa	486
5.1.3.5. Bokalerdiak eragindako palatalizazioa.....	488
5.1.4. Mendebaleko Euskara Zaharrerantz	489
5.1.5. Garai historikoko ezaugarriak	495
5.1.5.1. Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera	495
5.1.5.1.1. Bokal sudurkarien galera	495
5.1.5.1.2. Ozen ondoko txistukariak	495
5.1.5.1.3. Txistukarien neutralizazioa	496
5.1.5.1.4. Bokal bikoitzen datazioaz	499
5.1.5.1.5. Beheko bokalaren asimilazioaren kronologiaz	501
5.1.5.1.6. Bokal eufonia nagusien kronologiaz.....	503
5.1.5.1.6.1. Berrikuntza bakoitzaren kronologiaz.....	503
5.1.5.1.6.2. Ikuspegi orokorragoa: joera bateratuak	508
5.1.5.1.6.3. Bilakabideen arteko kronologia erlatiboaz	509
5.1.6. Gehigarri bat eremu txikiko berrikuntza eskusiboez.....	512
5.1.7. Ezaugarrien kronologiaz eta Lakarraren periodizazioaz	515
5.1.8. Proposamena <i>Bulda</i> -ren datazioaz.....	521
5.2. Geografia-gaiak	527
5.2.1. Sarrera.....	527
5.2.2. Mendebaleko Euskara Zaharra: ezaugarrien sorlekuez eta difusio-ereduez.....	528
5.2.2.1. $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoa	528
5.2.2.1.1. Sorleku geografikoa	528
5.2.2.1.2. Difusio-ereduez.....	534
5.2.2.1.3. Gehiago difusio-ereduez: Errioxa, Burgos eta birkokatze linguistikoa	544
5.2.2.2. Foku berritzaileak zalantzapean	547
5.2.2.2.1. Gasteiz eta $-e > -a$ berranalisi.....	548
5.2.2.2.2. Iruñea eta $a + a > aa > a$	548
5.2.2.3. Lehenengo mailako beste ezaugarri bat: <i>egin</i> aditz laguntzaileaz.....	552
5.2.2.4. Bigarren mailako zenbait isoglosa: aldaera lexikoak	555
5.2.3. Mendebaleko Euskara Zaharretik Mendebal Muturreko Euskara Zaharrera.....	557
5.2.3.1. $a + a > ea$ disimilazioa adizkietan.....	558
5.2.3.2. Bokalerdiaren ondoko palatalizazioa	561
5.2.3.3. Gehigarri bat: <i>*edutsi</i> -ren hedaduraz	565
5.2.4. Garai historikoko berrikuntzak	568
5.2.4.1. Txistukarien neutralizazioa eta difusio-eredu hierarkikoa	568
5.2.4.1.1. Neutralizazioaren gertalekuak.....	568
5.2.4.1.1.1. Neutralizazioaren kokaguneak eta hedadura Euskara Arkaikoan.....	569
5.2.4.1.1.2. Arabako euskara	570
5.2.4.1.1.3. Bizkaiko euskara.....	570
5.2.4.1.1.4. Gipuzkoako euskara.....	572
5.2.4.1.2. Neutralizazioaren norabidea eta difusio-eredua.....	575
5.2.4.2. Beheko bokalaren asimilazioa eta hierarkiaren aurkako difusioa	586
5.2.4.3. Berrikuntza beregain paraleloez: bokal-eufoniak.....	593
5.2.5. Mendebaleko eremu linguistikoez eta aldaketen norabideez	601
5.2.5.1. Bilboko euskararen izaeraz eta Bizkaiko foku berritzaileez	601
5.2.5.2. Bilboko euskararen ustezko gordetzailetasunaz	605
5.2.5.3. Azken gogoetak difusioaz eta Bilboz.....	611
5.2.6. Gehiago mendebaleko eremu berritzaile eta gordetzailiez	613

5.2.6.1. Mendebalean gordetako ezaugarriez: bokal sudurkariak eta bikoitzak.....	613
5.2.7. Euskara Zaharreko eta Lehen Euskara Modernoko zatiketez.....	617
5.2.7.1. Txistukarien neutralizazioa eta beheko bokalaren asimilazioa	618
5.2.7.2. Eufoniak	620
5.3. Idazleen hautu eta joerez	624
5.3.1. Sarrera.....	624
5.3.2. Zenbait ezaugarri zehatz.....	625
5.3.2.1. Beheko bokalaren asimilazioa.....	625
5.3.2.2. Txistukarien neutralizazioa	629
5.3.2.3. Bokal eufoniak	634
5.3.2.3.1. Dotrinen lehenengo edizioak eta berrargitalpenak.....	635
5.3.2.3.1.1. Martin Arzadun: <i>Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera</i> (1731)	635
.....	635
5.3.2.3.1.2. Agustin Kardaberatz: <i>Doctrina cristiana edo cristinau doctrinea</i> (ca.	640
1762).....	640
5.3.2.3.1.3. Bartolome Olaetxea: <i>Doctrina cristianea</i> (1763)	647
5.3.2.3.2. Ikuspegi orokorra eufoniez	653
5.3.2.4. Oharra bokal bikoitzez	656
5.3.3. Ikuspegi orokorra XVIII. mendeaz: literatur bizkaieraren aitzindariak	658
5.3.3.1. Atarikoak.....	658
5.3.3.2. Lehen Euskara Modernoaren hastapenez.....	659
5.3.3.2.1. Hastapenez: Arzadun eta Urkizu.....	660
5.3.3.2.2. Hastapenetatik finkatzera: Kardaberatz eta Olaetxea	665
5.3.3.2.3. Predikazio-garaia eta “Markinako eskola”-ren eragina	669
5.3.3.2.3.1. Predikazio-garaiko gorabehera eta ereduez	669
5.3.3.2.3.2. “Markinako eskola”-ren hasieraz eta eraginez: B. Sarria	673
5.3.3.3. Bizkaiko eta Gipuzkoako XVIII. mendeko joera kontrajarriez	675
6. Ondorioak.....	679
6.1. Iturrien eta ezaugarrien azterketaz: Filologia.....	679
6.2. Ondorioak kronologiaz.....	683
6.2.1. Aztertutako ezaugarrien kronologiaz.....	683
6.3. Ondorioak geografiaz	692
6.3.1. Berrikuntzen sorguneez eta hartzaileez	692
6.3.2. Ezaugarrien difusio-ereduez.....	695
6.4. Erdi Aroko zatiketa eta banaketa dialektalez	699
6.4.1. Mendebaleko Euskara Zaharra	699
6.4.2. Mendebal Muturreko Euskara Zaharra.....	708
6.4.3. Erdi Arotik euskalki modernoetara.....	713
6.5. LEMaren hastapenez eta <i>literatur bizkaiera</i> -ren aurrekariak	715
6.6. Hemendik aurrerakoak	719
7. Erreferentziak	722
7.1. Laburdurak	722
7.2. Bibliografia.....	722

Taulen zerrenda

1. taula. Bokal bikoitzen kopurua (Sarria vs. Astigarraga)	456
2. taula. Genitiboko <i>-een</i> eta <i>-en</i> aldaerak <i>Dotrinazko sermoitegi</i> -an	461
3. taula. Zenbait toponimoren bilakabidea XI-XIV. mendeen artean.....	482
4. taula. Andramendiko idatziak (IbargC vs. Iturriza).....	509
5. taula. Eibarko kopia zaharrak eta udal-ordenantza.....	509
6. taula. Bokal-eufoniak Uribe Kosta eskualdean (<i>EI</i>).....	514
7. taula. Bokal-eufoniak Ondarroa eta Markina arteko herrietan (<i>EI</i>).	515
8. taula. Aditz laguntzaileen bilakabidea euskalki zahar eta modernoetan	565
9. taula. Bilboko euskararen gordetzailetasunaz, konparazio-taula	609
10. taula. Eufoniak Eibarren eta Bizkaiko ipar-sortaldean (XVIII-XIX).	622
11. taula. Arzadunen dotrinen argitalpenen konparazioa	636
12. taula. Kardaberatzen dotrinen argitalpenen konparazioa	643
13. taula. Olaetxearen dotrinen argitalpenen konparazioa	649
14. taula. Bizente Sarriaren euskara-ereduak: Nerbioi ibarrekoa eta Markinakoa.....	674
15. taula. Eufonien erabilera Gipuzkoako mendebaleko zenbait testu modernotan (1737- 1786).....	676
16. taula. Mendebaleko berrikuntzen joera kronologiko orokorrak	691

Irudien zerrenda

1. irudia. <i>Biscaia, Guipuscoa, Navarra et Asturias de Santillana</i> (Mercator-Hondius-Jansson (Amsterdam, ca. 1630, <i>apud</i> Esparza 2011: 44).....	28
2. irudia. <i>La Biscaye divisée en ses 4 principales parties et La Navarre, en ses Merindades</i> (Nicolás De Fer, Paris, 1707, <i>apud</i> Esparza 2011: 54).....	28
3. irudia. <i>Die Grenzen von Franckreich und Spanien an dem Oceano</i> (anonimoa, 1788, <i>apud</i> Esparza 2011: 68).	29
4. irudia. Charles Hubert Alexix Jaillot geografoak prestatuturiko mapa (Paris, xviii. mendea, <i>apud</i> Esparza 2011: 66).....	29
5. irudia. <i>Carte des sept provinces basques montrant la delimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés</i> (L. L. Bonaparte, Londres, 1863, <i>apud</i> Esparza 2011: 114-115).....	30
6. irudia. <i>Carte des sept provinces basques montrant la delimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés</i> (L. L. Bonaparte, Londres, 1863, <i>apud</i> Esparza 2011: 112-113).....	30
7. irudia. Mendebaleko Euskara Zaharraren balizko eta gutxi gorabeherako eremua (gris argiz) eta Mendebal Muturreko euskararen balizko eta gutxi gorabeherako eremua (gris ilunez).....	31
8. irudia. <i>Language extent</i> eta <i>spacetime</i> kontzeptuak konbinatzen dituen ikuspegia (Williamson 2004: 110).....	42
9. irudia. Indoeuroperatik ingeles modernora bitarteko adabegi eta eraginak azaltzeko bi eredu (Fox 2007 [1995]: 124).....	56
10. irudia. Kalyan & François (2018: 68)	59
11. irudia. Eredu hierarkikoa eskematikoki irudikatuta (Wolfram & Schilling-Estes 1998: 145).....	85
12. irudia. [R]-ren hedadura azaltzeko bi mapa-eredu (Trudgill 1974: 219-220).....	86
13. irudia. Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketak (Lakarra 2011: 213).....	123
14. irudia. Eredu dialektalak garai historikoan (Lakarra 2017: 61)	124
15. irudia. Akitanieraren bilakaera diakronikoa (Hualde 2015: 131).....	125
16. irudia. VIII-XVI. mendeen arteko zatiketa dialektalak (Abaitua 2019: 36)	126
17. irudia. Hasperenaren hedadura xi. mendean Reguero (2013: 435)-ren arabera	159
18. irudia. Hasperenaren eremua (laranjaz) eta hasperenaren galera (zuriz) XIII. mendean	165
19. irudia. Hasperenaren galera (zuriz)	165
20. irudia. <i>barri</i> eta <i>baltz</i> vs. <i>berri</i> & <i>beltz</i> Regueroren (2013: 432) arabera.....	169
21. irudia. Txistukarien neutralizazioa	343

22. irudia. Gaztelaniazko txistukarien bilakabidea.....	365
23. irudia. Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketak (Lakarra 2011: 213).....	490
24. irudia. Komunikazio-bideen bidezko difusioa (Bergs 2012: 27)	537
25. irudia. Hegoaldetiko sarbide nagusiak (Arizaga & Martínez 2006: 43)	539
26. irudia. Bizkaiko hiribilduen fundazio-datak (Arizaga & Martínez 2006: 23).....	541
27. irudia. Gipuzkoako hiribilduak eta bakoitzak jasotako forua (Arizaga 1994: 13)	544
28. irudia. Arabaren eragin-esparrua (Zuazo 2012: 43)	545
29. irudia. <i>Rui</i> arauaren eta beste eufonia batzuen arteko interakzioaren araberako eremuak	590
30. irudia. <i>EHHA</i> -ko 1040. mapa [-e + a (-e bukaera + absolutibo singularra)	594
31. irudia. <i>EHHA</i> -ko 1067. mapa [-o + a (-o bukaera + absolutibo singularra).....	600
32. irudia. Bokal sudurkarien lekukotzak XVI-XVIII. mendeen artean.....	615
33. irudia. Txistukarien neutralizazioa lekukotzen den hiribilduak	619
34. irudia. Nerbioi ibarra: Bizkai sartaldeko eremu berritzailea	621
35. irudia. Markina & Eibarren eta Aiara & Orozkoren lotura linguistikoak	623
36. irudia. Arzadunen dotrinatik (1731) Olaetxearen dotrina laburtura (1794)	655
37. irudia. Mendebaleko Euskara Zaharraren hedadura ustezkoa.....	707
38. irudia. Mendebal Muturreko euskararen hedadura ustezkoa.....	709

*Aitite Juan Migueli,
txikitako ibilerak gogoan;
gure lekuetan aurkitzen zaitut.*

Esker ematea

Masterreko lehenengo edo bigarren eskola-eguna izango zen eta eskolara gehienez ere esku-orri batekin etorri ohi zen irakasle batek arbelera atera gintuen *Refranes y sentencias*-eko errefraua iruzkintzera; Mitxelenaren *Fonética histórica vasca*-z haragoko malkar eta osinetan zehar ibilarazi gintuen, tarteka euskararen fragmentazio dialektala azaltzeko *Oceanic linguistics* irakurri beharra aldarrikatuz eta berdin bizkaiera zaharraz, austronesieraz, aitzinuralikoaren laringalez, kitxueraren dialektologia-gaiez zein txineraren silaba-egituraz arituz. Joseba A. Lakarra zen irakaslea, bistan denez, eta eskertzekoak dizkiot azken hamarkadan izandako eskuzabaltasuna eta emandako laguntza, bai eta tesi honen zuzendari legez azken hilabeteotan eginiko ahalegina ere.

Aste berean ezagutu genuen dialektologiako irakasle bat, zenbat euskalki zeuden ez omen zekiena: euskalkiaren beraren definizioa zehaztu behar zela zioskun, eta euskalkiak zeren arabera definitu behar ziren erabakitzeke hausnarketa eta ezagutza sakona behar zirela. Zalantza teoriko-metodologikoen hazia ereiten ari zen Iñaki Camino. Azalpenak hego-nafarreraren *continuum* lexikoen zein Gipuzkoa barneko isoglosen azterketarekin, Aezkoa, Zaraitzu, Txulapain, Esteribar, Eguesibar eta ikasleok “Iñakiren lurralde exotikoak” deitzen genituen beste leku batzuetako adibideekin osatu ohi zituen, eta “Dialektologiaren alderdi kronologikoz” artikulua gustuko nuen ikerbideari nondik eta nola heldu jakiteko itsasargi bikaina izan zen. Hurrekotasuna eta ikasleak bezainbeste zalantza egiteko prest egotea zor dizkiot Iñakiri, bai eta zalantza horiek argitzeko bidaide izateko prest egotea eta igorritako lan bakoitza zirujau-begiz irakurri izana ere.

Josebari eta Iñakiri ez ezik, unean uneko aholku onak, utzitako materialak eta bestelakoak eskertu nahi dizkiet *Monumenta Linguae Vasconum*-eko Blanca Urgell, Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Julen Manterola eta Céline Mounoleri. Inork irekitako bideetatik ibiltzea erosoagoa eta errazagoa da beti, eta tesi honek ez die gutxi zor euren eskola eta ekarpenei.

Eskerrik asko, halaber, masterrean irakasle izandako Jon Kortazar, Marijo Olaziregi, Patxi Salaberri Zaratiegi, Iñaki Aldekoa eta Koldo Zuazori, zeinek bere arloan irakatsitakoengatik eta transmititutako grinagatik, eta Xabier Artiagoitiari, doktorego-

programako arduradun legez egindako lanagatik eta izandako pazientzia eta begirune arretatsuagatik.

EHUra etorri baino lehen lau urte egin nituen Deustuko Unibertsitatean, han ikasi bainuen lizentziatura. Gogoan hartu nahi ditut hango irakasle Juan Manuel Etxebarria eta Itziar Túrrez hurreko eta eskuzabalak, Josu Bijuesca zehatza, Jabier Kaltzakorta jakintsu apala, Adolfo Arejita mogelzalea eta Jesús Urangaren gomendio zuhurrak. Gotzon Garate zenaren bisitak, opariak eta gogo optimista ere ezin ditzaket ahaztu.

EHUz kanpo, eskerrak eman nahi dizkiet Baionako IKER UMR5478 ikerketa-zentroko Beñat Oihartzabali eta Jasone Salaberriari, harreraren beroagatik eta Baionako zein Milafrangako otordu eta xokolotak gogoan, bai eta Montaigne - Bordeaux 3 Unibertsitateko Aurelia Arcocha-Scarcia (euskal) literaturaren kartografoari ere, sasoiari sasoiko goresmenengatik.

Etxekoen artean gurasoei zor diet ikasteko bultzada eta euskarria, gaztetarik eskatutako liburuak erosteko traba txikiena ere jarri ez izana eta oraindik tarteka etxera iristen diren liburuei jakin-minez begiratzea; eskerrik asko, ama, gauerdiaz harako jostorrazaren puntada bakoitzeko; eskerrik asko, aita, errelebokako txapa-metro bakoitzeko. Eskerrik asko, halaber, azken urteotan zuzenean edo zeharka tesiari sostengu eman dioten eta tesiaren inguruko interesa agertu duten aitite-amamei, eta arrebari.

Eskerrik asko bigarren eta hirugarren etxeetako ateak ireki dizkidanen: Esther eta Mariasuni, bai eta etxeon beroan ezagututakoei ere. Aparteko aipamena behar du Juan Mari Mendizabal entziklopedia ibiltariak, azalpen guztiengatik eta tesiaren inguruko interesagatik.

Mila esker, tesi hau zein bestelako ikerketa-lana egiteko emandako hamaika erraztasunengatik, Alberto Garai lagun eta *jefiari*, Edurne Sagastume lagun eta lankideari, eta Euskalgintza Bulegoa, SL itzulpen-enpresako lan-talde osoari.

Tesi, kongresu, artikulu, egonaldi eta bestelako kontuakaz ez zarienez lar aspertu, orain hau leidu beharko dozue goitik behera; eskerrik asko Jurgi Fuentes eta Joana Auzokoa, Asier Legarreta eta Ziortza Arrien, Unax Arrien eta Jone Onaindi, Lander Azaola eta Izaskun Aizpurua adiskideei. Eskerrik asko, halaber, Aitor Estebani, bederatzigarren solairuko kafeak gogoan.

Eskerrik asko eta goraintzi Jon Telletxea eta Nerea Irazabal, Janire Enzunza, Itxaso Rodríguez eta Fredi Paiari: zuon galderak hainbat kontu berrikusi eta ikasteko aitzakia bikaina izan dira sarri. Eskerrik asko eta goraintzi, halaber, Euskaltzaindiko

teknikari eta (oraindik) ikaskide Amaia Jauregizar eta Gorka Intxaurberi, arian-ariango animoengatik, eta Iban Auzokoari, Kafe Antzokiko bazkariak eta New Yorkeko bidaia hura gogoan.

Mil gracias y un saludo a Carmen Ballesterro (y a su adjunto Alberto Aguiño) y a Marta Espinosa, mis amigas en París.

Aziti Bihia elkarteko kideekin partekatutako elkarlanek, berbaldiek, sagardotegiek, ardandegiek, asteburu pasek eta 24-7-365 kontsultategiak nabarmen aberastu dute lan hau era batera edo bestera: eskerrik asko Udane Atutxa, Borja Ariztimuño, Sergio Monforte, Oxel Uribe-Etxebarria, Maitena Duhalde, Iker Salaberri, Urtzi Reguero eta Koldo Ulibarriri. Haragoko aipamena behar dute Ekaitz Santazilia filologo-turista, liburuzaharzale eta *fonteslari* eskuzabalak; Dorota Krajewskak, tesi honen hainbat korapilo buru argiz askatzeagatik eta tesia bera atontzen eta orrazten emandako laguntzagatik; eta Manuel Padilla-Moyanok, atzerriko hitzordu exotikoak eta Lesboseko bidezidorretako gau-ibilerak gogoan.

Eta eskerrik asko Miren Ibarluzeari. Batez ere Miren Ibarluzeari.

Basaurin, 2019ko abenduaren 2an

Egia da, seguru asko, Leslie P. Hartley idazleak bere nobela batean dioena, «*The past is a foreign country: they do things differently there*», alegia, iragana atzerria dela, beste modu batera egiten direla han gauzak. Horregatik, zernahiren aurrean, edozein gai hartzen dugularik, lehenengo galderak alde kronologikoari begiratu beharko lioke: noiz izan zen hori? Zer garaitan?

Bernardo Atxaga, *Muskerraren bidea* (2015)

1. Sarrera

1.1. Tesiaren helburuak eta aztergaiak

1.1.1. Azken urteotan nabarmen ugartu dira euskararen dialektologia-gaiei ikuspuntu historikotik heldu dieten lanak. Euskalki gehienak ikertzeko corpora inoiz baino zabalagoa da, eta azken hogeitaz urteotan aurkitutako testu garrantzitsuek, testu horien zein finkatu gabe zeuden bestelakoen edizio kritikoek eta testu batzuetan eta bestetzuetan agertzen diren hizkera eta ezaugarri linguistikoei buruzko ikerketek areagotu dituzte euskalkien historiaren gaineko ezagutza eta interesa. Mitxelenak orain dela ia berrogei urte proposatutako Euskara Batu Zaharraren inguruko ikerketak ere azken hamarkadan berrartu dira: interpretazioekin ados egon zein ez egon, hondarreko urteotan ikertu dira inoiz baino sakonago eta inoiz baino irizpide sendoagoz euskararen zatiketa dialektal zaharrak eta tokian tokiko zenbait hizkeraren eta dialektoren bilakabideak. Tesi honek, bada, joera horiekin egiten du bat.

1.1.2. Tesi hau dialektologia historikoaren esparruari dagokio, eta mendebaleko euskara du aztergai. *Mendebaleko euskara* izendapenaren azpian, ordea, hainbat garaitako eta izate oso ezberdineko unitate linguistikoak sailka litezke (begiratu §1.2 eta §2.3.1.3 atalak izendapen-gaiez), eta horietako bakoitza hezurramitzen duten ezaugarrien izaera linguistikoaren, hedadura geografikoaren, bilakabide historikoen eta iturrikako erabileren lerro nagusiak eta zirrikituak aztertzeak tesi hau baino askoz lan zabalagoa eskatuko luke. Mendebal zabaleko euskararen bilakabidearen eta zatiketen ikuspegi orokorragoa ematea da nire asmo orokorra, hemen fonologiaz esaten direnak morfologiaren eta sintaxiaren esparruetatik erauz daitezkeen ondorioekin batuta mendebaleko euskararen ikuspegi orokorragoa eta osoagoa ematea; egitasmo hori gauzatzeko eta burutzeko lanak, ordea, luzaz gaintzen ditu bai doktorego-tesi baten tamaina, bai epemugak. Hori dela eta, fonologiaren esparrura mugatu dut tesi hau; alde batetik, nonbaitetik hasi behar zelako eta

fonetika-fonologiaren esparrutik abiatu ohi delako azterketa linguistikoen eskema arrunta; beste alde batetik, mendebaleko euskarari buruz egin diren ikerketetan (cf. Lakarra 1986c, 1996) ezaugarri morfologikoak eta sintaktikoak gehiago landu izan direlako.

Honako lau puntu hauek laburbiltzen dituzte, bada, tesi honen helburu nagusiak:

(i) Euskal Herriko mendebal zabaleko euskararen dialektalizazio-prozesua hobeto ezagutzea eta, horrenbestez, euskararen beraren zatiketa dialektalen ezagutzan sakontzea.

(ii) Fonologiaren esparruko zenbait ezaugarri linguistiko esanguratsuren deskripzio ahalik eta zehatzena ematea, honako alderdi hauek ardatz hartuta:

- Ezaugarrien izaera
- Ezaugarrien antzinatasuna eta bilakaera kronologikoa
- Ezaugarrien hedadura eta bilakabide geografikoa
- Ezaugarrien erabilera estilistikoa, halakorik egin bada

(iii) Deskripziotik interpretaziorako jauzia egitea. Interpretazioak eta eztabaidagaiak proposatzea alderdi kronologikoz eta geografikoz, eta horietan oinarrituta dialektologia-gaiok lantzea:

- Euskal Herriko mendebalean Erdi Aroan gertatutako zatiketa eta banaketa dialektal nagusiak.
- Berrikuntzen sorlekuak eta difusio-ereduak.
- Berrikuntzen hedatze- eta finkatze-garaiak.

(iv) Bizkaiko XVIII. mendeko idazleen joerak eta hautuak azaltzea, literatur bizkaiera kanonikoaren aurrekariak berreraikitzeke.

1.1.3. Euskal Herriko mendebaleko euskara oso aztergai zabala da bere horretan: Erdi Aroko onomastikatik gaur egungo hizkeretara hainbat mendetako dokumentazioa metatzen da arian-arian. Hori dela eta, aztertutako hizkuntza-mailetan ez ezik, corpusa osatzean ere zenbait muga ezarri ditut.

Alde batetik, tesi honen oinarriak historikoak dira *stricto sensu*; hots, Euskara Arkaikoko eta Zaharreko, eta Lehen Euskara Modernoko Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako testuen azterketatik ateratako datuak ditut abiapuntu, nahiz eta Erdi Aroko onomastikan datu osagarriak edo argigarriak aurkitzean horiek ere erabili ditudan.

Beste alde batetik, Lehen Euskara Modernoaren barnean 1800. urtean muga kronologikoa ezarri dut eta urte horren inguruan eten dut azterketa; izan ere, ezagun da XIX. mendearen lehenengo erdian (eta, batez ere, lehenengo laurdenean) argitaratutako liburuek gorpuztu zituztela *literatur bizkaiera kanoniko*-aren hizkuntza-eredu estandarizatuak, eta orduko idazleen testuen arteko intra-bariazioak zein eraginak aparteko azterketak behar dituztela, hainbatetan erakutsi denez (begiratu Urgellen eta Altzibarren erreferentziak bibliografian, besteak beste).

1.2. Oharra *mendebala* eta bestelako izendapenez


Gaiarekin gerora ere (§3.2.1.3.9. eta §2.3.1.3.10) arduratuko banaiz ere, irakurlea nahastu ez dadin hasiera batetik utzi nahi dut argi tesi honetan *Euskal Herriko mendebala mendebala* edo *mendebal zabala* hutsean aipatzen ditudanean eremu geografikoez ariko naizela, ez entitate linguistikoez, halakorik beren-beregi aipatzen ez badut behintzat. Alegia, *mendebaleko euskara* izendapena darabildanean Euskal Herriko mendebal geografikoan erabiltzen den euskara izango dut hizpide, ez Zuazok 1998an deskribatutako euskalkia, ez aurretik *bizkaiera* deitutakoa.

Euskal Herriko mendebal geografikoaz aritzea muga lausoak diruen eremuaz aritzea da, berbagaia zein de; nolana ere den, halako izendapenek ez dute xehetasun-nahirik, gehiago dira eremu geografiko zabal bateko joera nagusiak zein diren deskribatzeko izendapenak. *Grosso modo*, (*Euskal Herriko*) *mendebala* bestelako zehaztapenik egin gabe erabiltzen dudanean, *mendebal zabala*-z ariko naiz; hots, Bizkaiaz, Gipuzkoako erdi-sartaldeaz eta Nafarroako mendebaleko ibarretatik (Sakana, Allin, Lana) ezker geratzen den eremuaz. Halaber, *erdialdea*-z edo *erdialde zabala*-z aritzean Gipuzkoako ekialdeaz, Lapurdiz, Nafarroa Behereko (hego-)mendebalaz eta Nafarroa Garai gehienaz arituko naiz. Azkenik, *ekialdea*-z edo *ekialde zabala*-z berba egitean Nafarroa Behereko iparraldea eta ekialdea, Zuberoa eta Nafarroa Garaiko Pirinioetako ibarrak izango ditut gogoan.

1.3. Kartografia




1. irudia. *Biscaia, Guipuscoa, Navarra et Asturias de Santillana* (Mercator-Hondius-Jansson (Amsterdam, ca. 1630, apud Esparza 2011: 44)




2. irudia. *La Biscaye divisée en ses 4 principales parties et La Navarre, en ses Merindades* (Nicolás De Fer, Paris, 1707, apud Esparza 2011: 54)




3. irudia. Die Grenzen von Franckreich und Spanien an dem Oceano (anonimoa, 1788, apud Esparza 2011: 68).




4. irudia. Charles Hubert Alexis Jaillot geografoak prestatuturiko mapa (Paris, xviii. mendea, apud Esparza 2011: 66)



5. irudia. *Carte des sept provinces basques montrant la delimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés* (L. L. Bonaparte, Londres, 1863, *apud* Esparza 2011: 114-115)



6. irudia. *Carte des sept provinces basques montrant la delimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés* (L. L. Bonaparte, Londres, 1863, *apud* Esparza 2011: 112-113)



7. irudia. Mendebaleko Euskara Zaharraren balizko eta gutxi gorabeherako eremua (gris argiz) eta Mendebal Muturreko euskararen balizko eta gutxi gorabeherako eremua (gris ilunez)

1.4. Tesiaren egituraz

Tesi honek zazpi atal nagusi ditu. Lehenengoan (§1) tesiaren beraren aurkezpen orokorra egin da, irakurleak hemengo aztergaien ikuspegi orokorra izan dezan. Bigarrenean (§2) tesiaren oinarri teoriko-metodologikoak aurkeztu dira, hau da, dialektologia (historikoa) nola ulertzen dudan azaltzen da, eta hala datuak erauzteko nola aztertzeke erabiliko diren irizpide eta gidalerro nagusiak aurkezten dira. Hirugarrenak (§3) tesian erabilitako corpusa zehazten eta deskribatzen du, corpusari berari dagozkion gorabeherak azaldu ondoren. Laugarren (§4) atala da tesiko zabalena, eta azterketarako aukeratutako ezaugarrien deskripzio xehea dakar; alegia, ezaugarri bakoitzak testuan testu duen lekua eta indarra deskribatzen da, kronologia- eta geografia-gaietan sakonduta. Bosgarren (§5) atala ere zabala da, datuen irakurketa egiten baitu dialektologia historikoaren ikuspegitik, arreta hiru alderdi nagusitan jarriz: kronologia-gaietan (§5.1), geografia-gaietan (§5.2) eta XVIII. mendeko idazleen hautu eta joera linguistikoetan (§5.3). Seigarren atalak (§6) landutako gaien inguruko ondorio eta hausnarketa orokorrak aurkezten ditu filologiaz (§6.1), aztertutako ezaugarri bakoitzaren kronologiaz (§6.2.1),

geografiaz (§6.3), mendebaleko euskararen zatiketa eta banaketa zaharrenez (§6.4) eta modernoagoz eta literatur bizkaieraren aitzindariez (§6.5).

2. Oinarri eta irizpide teoriko-metodologikoak

Tesi hau dialektologia historikoaren esparruan kokatzen da; beraz, ez da diziplina erabat autonomo eta beregain bati datzekion lana: eklektizismoz jokatuta hainbat diziplinatako ikermoldeak aintzat hartu eta bateratu behar izaten ditu dialektologialariak, errealitate linguistikoaren konplexutasuna hobeto harrapatu, ulertu eta azalduko badu. Dialektologia historikoak ezinbestean ezagutu eta erabili behar ditu hizkuntzalaritza historikoaren, geografia linguistikoaren, geolinguistikaren, soziolinguistikaren, filologiaren eta besteren ikuspuntu eta lanabesak: hainbat dira aldaketa linguistikoaren bilakabide historikoa, espaziala eta soziala azaltzeko aintzat hartu beharreko aldagaiak, eta horiek aztertzean dialektologialariak ezin du teoria linguistikoari muzin eginez eta adanismoz jokatu.

Arestiko diziplinen artean batzuk modernoak dira, XX. mendearen bigarren erdikoak edo azken hamarkadetakoak; baina, beste batzuen jatorria XIX. mendeko ikerketa-jardunean dago: sustrai sakoneko eta ibilbide luzeko diziplinak dira hizkuntzalaritza historikoa eta geografia linguistikoa, adibidez, eta ezagun da elkarrekiko harremana ez dela beti ona izan.

Batzuen eta bestetzuen ekarpen guztiak hona biltzeak luzeegi joko luke, eta momentu batetik aurrera ez lioke ekarpen handirik egingo tesiari berari: tesiaren aztergaiekin eta helburuekin lotura zuzena duten eta beren-beregi interesgarri diren gaiak besterik ez ditut hona ekarri. Atal honen helburua ez da hizkuntzalaritza historikoaren edo geolinguistikaren *status quaestionis* zabala aurkeztea: helburua gehiago da hizkuntzalariek hamarkadaz hamarkada egindako ekarpenen artean nire ikerketarako baliagarrien direnen berri ematea, eta nik horiek dialektologia egiteko lanabes gisa nola ulertzen ditudan hasieratik argitzea.

2.1. Dialektologiaz

2.1.1. Dialektologiaren ikergaiez eta izaeraz

2.1.1.1. Behin-behinean *dialektologia*-ren definizioa ematea ez da gaitza, eta erantzun estandarra izan ohi da dialektoak ikertzen dituen diziplina dela: “Dialectology, obviously, is the study of dialect and dialects” esaldiarekin hasten da Chambers & Trudgill (1988 [1980]: 3) esku-liburu ezaguna eta, ildo beretik, *The Study of Dialect. An Introduction to Dialectology* du izenburu Petyten (1980) esku-liburuak.¹

Dialektologiaren aztergaiez zehaztasun gehiago ere eman daiteke, eta zehaztasun horren bila aritzean konturatzen da ikertzailea hasiera batean uste zitekeena baino langintza konplexuagoa dela. Azal daiteke, aurreko definizioa osatze aldera, dialektoak hezuramaitzen dituzten ezaugarri linguistikoen banaketa geografikoa aztertzen duen diziplina dela dialektologia, eta hizkuntzan gertatutako aldaketek hartzen duten espazioa duela aztergai. Hori ere ikuspegi eta definizio zuzena da, baina ez da erabat osoa, ez baititu barne biltzen dialektologiaren esparruan ikertzen diren (edo ikertu beharko liratekeen) alderdi guztiak. Definizio beteagoa iruditzen zait Caminok emandako hau:

Baina dialektologiaren funtsezko ikerbidea, hizkeren ezaugarrien deskribapena oinarritzat –ez ordea helburutzat– harturik, hizkera edo *dialekto baten kokapenaz, sailkapenaz eta beste hizkerekiko alderaketaz jardutea* da, hizkera horrek beste hizkerekiko zein konbergentzia eta dibergentzia maila duen neurtzea hain zuzen ere; hizkerak beren artean nola egituratzen eta erlazionatzen diren jakitea da gure xedea. (Camino 1998: 112; letra etzana neurea da [EZ])

Dialektologiak deskripzio hutsetik harago jo behar du, beraz: tokiko hizkerei buruzko monografiak eta atlas linguistikoak (izan) dira dialektologiaren lanabes nagusietarik bat, eta badago arriskua horiek ez ikerketarako tresnatzat baina ikerketaren xede edo helmugatzat jotzeko.

Ondo egina bada, monografia dialektala da hizkera baten inguruan zehaztasun maila handiena lortzen duen lan-mota: hizkuntzaren alderdi guztiak aintzat hartu eta ahalik eta zehatzena deskribatzen dituen (Montes 1982: 62-63). Alabaina, monografiak ezin dira izan dialektologialarien jardunaren emaitza nagusia: monografia, datu-bilketa soil gisa ulertuta, ez da konparazioaren bidez egin beharreko ikerketa orokorragoetarako lehenengo pausua baizik. Egiazki dialektologia egingo bada, deskribapenetik harago joan behar da (Camino 2004a: 70).

¹ Bidezkoa da aipatzea, nolahi ere den, sarreran zehaztasun gehiago dakarrela: “But though there have been plenty of works on *dialects*, there is no readily available outline of *dialectology*, the systematic study of dialect, and its history, methods and concepts – as opposed to its findings about a particular dialect or the dialects of a particular language” (Petyt 1980: 7).

Atlas linguistikoak ere ezin dira azken helburu eta jomuga izan: atlasek lan izugarria eskatu ohi dute, baina argitaratzen diren datu eta mapak ez dute, euren horretan, ezaugarri edo aldaera jakin batzuen banaketa geografikoa azaltzen. Hizkuntzalariak ahalik eta tresna zorrotzenekin eta irizpide sendoekin gainditu behar du deskripzio hutsa, eta datuen interpretazioa eman behar du. Rona kexu zen 1958an dialektologia hispanoamerikarrean deskripziotik haragoko pausua eman gabe zegoelako,² eta horrek zer pentsa eman beharko luke Euskal Herrian azken hamarkadotan nagusi izan diren monografiez.

2.1.1.2. Dialektologia diziplina eklektikoa da: dialekto eta hizkeren deskripzioetatik haragoko azalpenak emateko hainbat alderdi hartu behar dira aintzat; izan ere, gertakizun linguistikoak ikuspegi bakar batetik azaltzea edo hizkuntza-aldakortasunari datxezkion funtsezko alderdiei ezikusiarrena eginda jardutea azalpenak hankamotz uztea da, delako gertakizunetarako bestelako azalbide posibleak, beharbada egokiago direnak, aintzat ez hartzea.

Dialektologia tradizionalaren esparruko ikerlan eta azalpenek geografia izan ohi dute abiapuntu: elementu edo ezaugarri jakin batzuen banaketa geografikoari begiratzen zaio, eta banaketa horren arabera egiten dira banaketa arealak eta sailkapen dialektalak, irudikatzen dira eragin-eremuak, bereizten dira foku berritzaileak eta eremu gordetzaileak... Ikuspuntu geografikoaren nagusitasuna nagusitasun, halere, geografiari bakarrik begiratzen dioten azalpenak ez dira osoak: askoz osoagoak dira hizkuntza-aldakortasunean eta -aldaketan eragina duten beste maila batzuk ere gehitzen badira; funtsean, alderdi historikoaz eta alderdi sozialaz ari naiz.

Aurreko ideiarekin bat, beraz, dialektologiak harreman sarria izan du beste zientzia eta diziplina batzuekin: hizkuntzalaritzaren adar gehienekin edo guztiekin, filologiarekin, historiarekin, geografiarekin, soziologiarekin, etnografiarekin zein antropologiarekin lotura estua izan du, garaia eta ikertzailea zein zen. Askotariko harreman horietatik sortutako ikuspuntuei buruzko kritika ugari ere bildu izan ditu dialektologiak, izan historizistegia zelako, izan sinkronikoegi bihurtua zelako, izan alderdi sozialari behar bezainbeste begiratzen ez ziolako, izan hizkuntzaren teoriari ekarpen xumeak besterik ez zizkiolako egiten... Azalpen konplexu eta orokorrak emateko eklektizismoz jardun beharrak tirabirak eragin ditu dialektologiaren eta aztergai bertsuak dituzten eta euren

² “La dialectología no ha pasado hasta ahora de su primera fase, la meramente descriptiva” (1958: 7).

burua beregaintzat jo izan duten diziplinen artean, eta ezin ukatuzkoa da tirabira horietako asko ikerketa-eremuak bereizi eta beregaintasuna bilatu nahi izatetik eratorriak direla.³

2.1.1.3. Dialektologiak, unean uneko ikergaiek horretarako bidea ematen dioten neurrian, bariazio diatopikoa, diakronikoa eta diastratikoa hartu behar ditu aintzat, ahal duen heinean, azalpen osoa(go)ak emateko: “Dialectology is the systematic study of variation in language – at any place or time” zioen Milroyk (1992b: 159), eta “Regional differences occur when changes over time are projected onto a geographical landscape” Laingek (2004: 49).

Aurreko ideiei loturik, sarri aipatu da garaiez, lekuez zein aldakiez orokortasunetik berba egiten denean garai, leku eta aldaki jakin bateko hitzunez eta horien erkidegoez jarduten dela. Aurreko ideiekin bat egiten du aipu honek:

Space is only one dimension of dialectology. Spatial distribution is normally a function of change over time projected on a geographical landscape. But change over time involves operations within speech communities; this introduces a third dimension – human interactions and the intricacies of language use. Dialectology therefore operates on three planes: space, time, and social milieu. (Laing & Lass 2006: 417)

Dialektologiaren ikerlanetan, beraz, *zer & non* binomioa osatu egin behar da: interpretazio geolinguistikoa sartu eta *nondik & norantz* galderak gehitu behar dira; ikuspuntu kronologikotik baitezpadakoa da *zer & noiz & noiztik / noiz arte* galdetzea; eta ikuspuntu soziolinguistikotik *nork & nori & zer* esan dion ikertu behar da. Horiei guztiei *zergatik* gehitu behar zaie azalpen are osoagoa lortzeko, eta galdera horien guztien erantzunak konbinatzen dituen azalpena betea izango da, geografiaren, kronologiaren eta dinamika sozialen arteko lotura eta elkarreraginak agerian utziko dituelako. Geografiaren, kronologiaren eta hitzunen/idazleen jokamoldeen azterketa uztartzen dituen dialektologiak errealitate linguistikoaren ikuspegi osoagoa erdiesten du, horretarako behar diren materialen bestelako zailtasunak zailtasun.

³ Begiratu, adibidez, soziolinguistikaren eta dialektologia tradizionalaren arteko tirabirak zirela-eta Trudgillek salatutako gehiegikeriak: “One of the things that dialectology does very well is to supply data, and it is regrettable that sociolinguists often ignore this data, or discover it themselves, with surprise, decades after dialectologists knew all about it (...) Sociolinguistics, then, owes a considerable debt to dialectology, and it is my contention that it could benefit from dialectology even more than it has done. However, it is also clear that the reverse also applies. Dialectology has already benefited from sociolinguistic concepts and methods, but it could, I would maintain, benefit even more” (Trudgill 1982: 238).

2.1.2. Dialektoak ikertzeko arrazoiez

Dialektologiaren helburuak zein diren edo zein izan daitezkeen luzaroan eztabaidatu da, besteak beste ikertzaile guztiek ez dituztelako helburu berberak izan dialektoak ikertzean. Horri loturik, Francisek (1983: 7 eta hurrengoak) dialektologian aritzeko lau arrazoi posible eman zituen: (i) jakin-mina; hots, hiztunek eurek atzematen dituzten ezberdintasunez gehiago jakin nahia; (ii) arrazoi antropologikoak; alegia, informazio gehiago lortzea gizarteaz, kulturaz, historiaz eta giza antolamenduaz; (iii) arrazoi linguistikoak; hau da, hizkuntza-egiturez eta hizkuntzaren historiaz gehiago jakin nahia; (iv) arrazoi praktikoak; esan nahi baita, dialektoa markatzaile sozial den gizarteetan, markatzaile horretatik askatzeko eta forma estandarra erabiltzeko behar besteko ezagutza lortzea.

Lau arrazoi horietatik bigarrena lotzen zaio, batez ere, tesi honen helburuari: oro har euskararen eta zehatzago Euskal Herriko mendebaleko euskararen bilakabidea hobeto ezagutu nahi da; irakurketa bat aurkeztu nahi da mendebal horretako hizkera hezurmamitu duten ezaugarri estruktural batzuez, horien historiaz eta hedaduraz, kronologian eta geografian gertatutako konbergentzietz eta dibergentzietz, idazleek ezaugarri horien inguruan izandako pertzepzioaz eta egindako hautuez, eta abarrez.

Lan hau nagusiki Francisek aipatutako bigarren arrazoiari lotzeak, dena den, ez ditu garaitikoak guztiz baztertzen: azkena (iv) geratzen da bazterrenen, baina (iii)-ri loturik, datuek hizkuntzaren barne historiaz eta hizkuntzalaritzaz gaindiko informazioa islatzen dute hiztun-erkidegoez eta giza harremanez, lurraldearen antolamendu demografikoaz eta politiko-administratiboaz, idazleen tradizioez eta hautuez, eta bestelakoez. (i)-ean aipatzen den jakin-minak ere goitik behera zeharkatzen du lan hau.

2.2. Dialektologia historikoaz

2.2.1. Dialektologia historikoa zer den

Williamsonek (2004: 100) oso modu argian azaltzen du zer den eta nondik edaten duen dialektologia historikoak. Lehenik, hizkuntzalaritza sinkronikoak ez ditu ez denbora, ez espazioa ikertzen. Bigarrenik, hizkuntzalaritza historikoak denbora du aztergai. Hirugarrenik, dialektologiak eta geografiak espazioa aztertzen dute. Laugarrenik, dialektologia historikoak bi ardatz horiek gurutzatzen ditu, eta denboraz eta espazioaz

arduratzten da: ardatz bertikala (kronologia) eta horizontala (geografia) gurutzatzen ditu. Antzeko ikuspegia eman zuten Laingek eta Lassek bi urteren buruan: “Historical dialectology is simply historical linguistics with a spatial emphasis; in the same sense, historical linguistics is simply linguistics with a temporal emphasis” (2006: 418).⁴

Dialektologia historikoaren esparruan,⁵ beraz, denbora ez da “beste” aldagai bat edo aldagai “erantsi” bat. Aztertzen den ezaugarri eta unitate linguistiko bakoitzaren berezko propietate bereiztezina da aldagai kronologikoa, eta hortik dator hizkuntzalari diakronisten artean pleonasmokutsua atzematea *dialektologia diakroniko* bezalako izendapenetan (cf. Lakarra 2011: 158).⁶

Dialektologia historikoaren helburua dela eta, arestian dialektologiaz aritzean esandakoa gogoratu behar da; hots, ezaugarri linguistikoek historikoki izan duten banaketa kronologikoa, geografikoa eta soziala deskribatze hutsa ez litzateke nahikotzat jo behar: “the data demand formulation of hypotheses about patterns of distribution and how they came about” (Williamson 2004: 105). Deskripziotik harago egin behar da eta banaketa horren sorrera-garaiak eta sorlekuak aztertu behar dira, banaketaren iraupena eta banaketa hori (eta ez beste bat) eragin duten faktoreak azaltzen saiatzearekin batera. Ikergaiak direla eta, hiru proposatu zituen Pilchek frantsez zaharra ikertzeko:

- (i) Look at the structure changes (in the time dimension) that make good not just the contemporary textbook language, but the empirical standard language, including its dialectal variability.
- (ii) Trace the spread of isoglosses in the time dimension, notably the rise and decline of specific focal areas and the corresponding relic areas.
- (iii) Reconstruct earlier historical stages from the comparative evidence of later dialectal variability. (1988: 423)

Dialektologiaren esparruan ideia bertsuak sustatu izan ditu Miekko Ogurak (1990), azken hamarkadotan, nahiz eta ideia lehenagokoa den:

A dynamic dialectology or geolinguistics making use of time-incorporating geographical diffusion models and sociolinguistic and geographical techniques that permit the handling of gradient

⁴ Definiziook ez dira askorik aldentzen aurretik ere eman izan direnetatik: cf. “Historical dialectology, then, focuses on the change or regional variation in the time dimension (...) An alternative definition would take historical dialectology as «the history of dialect communities»” (Pilch 1988: 418).

⁵ Egia esatera, gerora (§2.3.1) ere aipatuko dudanez, aldagai kronologikoa aintzat hartzea ezinbestekoa iruditzen zait dialektologia edozein ikuspuntutatik egiteko: “Dialektologiaz dihardugunean kronologiaz jardun behar dugu baitezpada” (Camino 2008a: 209) baieztapenak laburbiltzen du tesi honen hatsarre teoriko nagusia. Baieztapen horrek Euskal Dialektologian azken urteotan izandako arrakastaz, begiratu Ulibarri (2015: 67), Reguero (2015a: 588, 2017: iii), Hualde (2015: 126) zein Zuloaga (2017a: 4).

⁶ Beste esparruren batean ere ikusi da halakorik: “I have resisted the term *sociolinguistics* for many years, since it implies that there can be a successful linguistic theory or practice which is not social” (Labov 1972a: xiii).

phenomena, may be better able to describe and even explain some of the processes involved in the geographical diffusion of linguistic innovations (Trudgill 1983: 87)

Ogurak ideia berori bultzatu du azken urteotan; hots, ezaugarrien banaketa diatopikoari alderdi kronologikoa gehitzen dion dialektologia-moldea, eta horren bidez ikuspegi osoagoa lortu du hainbat alderdiz, hala nola difusio lexikoaz (begiratu Ogura & Wang 2004); begiratu, euskara dela eta, Hualde (2015) eta Camino (2016c).

2.2.2. Sinkronia eta diakronia

2.2.2.1. Saussureren *Cours de linguistique général* (1971 [1916]) lanean aurkezten diren dikotomia ezagunen artean dago hizkuntzalaritza sinkronikoaren eta diakronikoaren artekoa:

Para señalar mejor esta oposición y este cruzamiento de dos órdenes de fenómenos relativos al mismo objeto, preferimos hablar de lingüística *sincrónica* y de lingüística *diacrónica*. Es sincrónico todo lo que se refiere al aspecto estático de nuestra ciencia, y diacrónico todo lo que se relaciona con las evoluciones. Del mismo modo sincronía y diacronía designarán respectivamente un estado de lengua y una fase de evolución. (Saussure 1971 [1916]: 149)

Saussureren arabera, beraz, sinkronia estatikotasunari lotzen zaio, eta diakronia eboluzioari; lehenengoan sistema deskribatzen da bere horretan, iraganeko egoerak aintzat hartu gabe, eta bigarreanean hizkuntza garai bati edo batzuei lotuta ikertzen da, arorik aro gertatutako ezberdintasunak aztertzen dira (Jordan 1967: 512). Horrek ikuspuntu teorikotik aldentzen ditu sinkronia eta diakronia: neogramatikoen proposamenen aurkako erreakzioa izan zen Saussurerena, eta bi ikuspegien arteko bereizketa erabatekoa eta zirrikiturik gabea zela adierazi zuen (1971 [1916]: 151). Bestalde, bi ikuspegien artean sinkronikoa lehenetsi zuen, hori jo zuelako errealtzat hiztunentzat eta lehenbizi *hizkuntza-egoera* edo *état de langue* sinkronikoa deskribatu beharrekotzat zuelako. Alderantziz, ordea, ez omen da horrela gertatzen: “[Saussure] expressed the point of view that historical information was totally irrelevant in a synchronic analysis of a language” (Crowley 1992: 205).

2.2.2.2. Sinkroniaren eta diakroniaren arteko harremanak irudikatzeko hainbat metafora erabili dira. Saussurek (1971 [1916]: 158-160) xake-jokoarena nabarmendu zuen: jokaldi bakoitzean sistemaren antolakuntza ikusten da, baina ikuspegi hori unean unekoa besterik ez da, txandaz txanda aldatzen baita. Jokaldi bakoitzean pieza mugitzen da, osotasunaren zati diren elementu isolatuetan gertatzen dira aldaketak banan-banan eta aldaketa horiek sistema osoan dute eragina. Aitzitik, gertatutako aldaketek ez dute

garrantzirik Saussureren ustez: jokaldi bakoitzean xake-oholean dauden egoerak dira benetan garrantzitsuenak, ez egoera horietara iritsi aurretik zer gertatu den.

Aitzitik, diakronian aritu den edonork badakike, behin baino gehiagotan adierazi denez, ondoz ondoko irudiak zein ondoz ondoko deskripzio linguistikoak elkarren ondoan jartzea ez dela nahikoa bilakabide diakronikoa azaltzeko, hori egitean lortzen den emaitza ez dela erabat perfektua:

The representation of the evolution of a language as consisting in a succession of discrete states is no more a true reflection of the situation than is the representation of a circle by a number of straight lines connecting successive points around its circumference. For, however large a number of such points are taken the resulting figure will never be a genuine circle and, in the same way, however many language states are considered over a given period their succession will never provide a true picture of the unbroken *continuity* of a language in time. (Bynon 1979 [1977]: 2)

Speakers do not progress from synchronic state to synchronic state, they actively and interactively “synchronize” their complex and distinct systems of linguistic knowledge (their individual competencies). (Schmidt 2010: 212)

2.2.2.3. Aurreko ideiarri jarraituta eta dialektologiaren esparrura etorrira, tesi honen corpusaz aritzean (§3.4) aipatuko dudanez, hainbat garaitako testuen konparazioa da bilakabide diakronikoak irudikatzeko ikerbide nagusia; baina, konparazio horien emaitzak ez dira izaten garairik garaiko egokitzapen argiak.

Ondoz ondoko egoeren artean, beraz, jarraitutasuna eta egokitzapena ez da erabatekoa: garai batean hastapenetan zegoen bariazioa aldaketa hedatua eta egonkortua izan daiteke hurrengo garaian, garai batean egonkor zenaren inguruan bariazioa ager daiteke hurrengo garaian, aldaketa-zikloek ez diote zertan beti norabide berari jarraitu, eta abar. Halaber, deskripzio linguistiko orokorrek eskatzen duten abstrakzioak ikertzailearen ikusmiratik kanpo utz ditzake, are nahi gabe ere, ondoko garaietako aldaketak eta fenomenoak ulertzeko lagungarri izan daitezkeen datuak, XX. mendean ikuspegi sinkronikoa nagusi zenean hainbatetan gertatu legez (cf. Aitchison 2004 [1991]: 39 eta hurrengoak).


2.2.2.4. Saussureren bereizketa idealizatu eta zurrunari egin zaizkion kritika nagusien artean dago *état de langue* edo *hizkuntza-egoera* kontzeptuari dagokiona. Genevarrak [hizkuntza = hizkuntza-egoera = sinkronia] ekuazioa erabili zuen eta horren azpian hizkuntza sinkroniko-estatikoaren ideia zetzan (Cosériu 1973: 24-25); baina, arazoa da errealitatean ez dagoela Saussurek deskribatutakoaren pareko egoerarik: “In reality, given the dynamic nature of language, there are no real *états de langue*. A *état de langue* is a temporal abstraction just as the notion of ‘dialect’ is a spatial abstraction – a reification” (Williamson 2004: 107).

Bariazio eta aldaketa linguistikoaren esparruko ikerketek azken mendean behin eta berriz erakutsi dutenez, Saussurek idealizatutako hizkuntza-egoera edo unitate estatiko eta homogeenak ez dira inon existitzen: “There will always be found to be differences between speakers dependent upon geographical location and social class, and there are always variations in the speech of the individual speaker dependent upon the formality of the occasion” (Bynon 1979 [1977]: 3).

Izatekotan, euren lana arintzeko eta argiago jarduteko ikertzaileek sortutako idealizazioak dira hizkuntza-egoera erlatiboki homogeen edo estatikoak. Izan ere, hizkuntza-ikerketek idealizazioa eskatzen dute, are sinkronikoak direnean ere. Hizkuntza baten historia hainbat garaitan eta azpi-garaitan bereizteak nabarmen errazten du historia linguistikoaren narrazioa, baina horrek ez dakar (azpi)garai linguistiko bateko egoera linguistikoa estatikoa eta homogeenoa denik. Ezin pentsa daiteke halakorik, adibidez, Euskara Arkaikoaz edo Euskara Zaharraz aritzean: garai horiek hautaturiko irizpide jakin batzuen arabera defini daitezke, baina denbora-tarte luzeak dira, barnean hainbat hiztun-belaunaldi biltzen dituzte eta horietako bakoitzaren barnean agertzen diren egitura, lotura, eten, bariazio eta aldaketak dinamikoak eta konplexuak dira, oso.

Ikertzaileen idealizazio- eta abstrakzio-maila norainokoa den errazago egiazta daiteke hizkuntza darabilten hiztunak bizirik daudenean. Aldiz, Bynonek (1979 [1977]: 4) zioenez, idealizazioa bikoitza da iturri idatziekin lan egin behar denean; izan ere, arlo linguistikoaz arduratzen den ikertzailearen abstrakzioa baino lehen beste abstrakzio bat gertatu da: idazleak testua bera (ikertzailearen iturria) idatziz ematean egindakoa. Idealizazio eta abstrakzio horiek, bada, ez dituzte errealitate linguistikoaren ñabardurak harrapatzen: errealitate konplexuaren bertsio soildu eta arinduak dira: hurbilketa enpirikoa egin nahi bada, espazioa eta denbora aintzat hartu behar dira.

Aurreko ideiarri loturik, bi proposamen egin zituen Williamsonek (2004). Alde batetik, *état de langue*-ren ordez *language extent* kontzeptua erabiltzea. Beste alde batetik, *spacetime* izeneko ikuspegi integratzailea baliatzea. Zioenez, *language extent* egokiagoa da dialektologia diakronikoan aritzeko eta Saussureren ikuspegiak zekartzen homogeenotasunaren eta aldakortasun ezaren arazoak gainditzeko: errealitate linguistikoaren konplexutasuna zabalago barne biltzen du *language extent* delakoak, unitate dinamikotzat jotzen baita, ez estatikotzat, eta era berean, *spacetime*-ari loturik, ardatz kronologikoa eta diatopikoa irudikatzen dituelako. Hona hemen Williamsonek proposaturiko irudia:



8. irudia. *Language extent* eta *spacetime* kontzeptuak konbinatzen dituen ikuspegia (Williamson 2004: 110)

2.2.2.5. Aurreko lerroetan aipatutako kritikek Coseriuak aspaldi aipatutako arazoa azaleratzen dute: “la antinomia sincronía-diacronía no pertenece al plano del objeto sino al plano de la investigación” (Coseriu 1973: 14). Alegia, hizkuntzalaritzari edo hizkuntzalariaren ikuspegiari dagokio, ez hizkuntzari berari: “la distinción entre sincronía y diacronía no pertenece a la *teoría del lenguaje* (o de la lengua), sino a la *teoría de la lingüística*” (*idem*, 27).

Sinkroniaren ustezko beregaintasuna ideia jakin batekin lotu izan da: hiztunek ez dute darabilten hizkuntzaren dimentsio historikoaren ezagutzarik eta ez dute gaitasunik hizkuntza-bariazioaz eta aldaketez jabetzeko (Bynon (1979 [1977]: 1, Winter 1990: 12-13). Hartara, Saussureren ikuspegiaren arabera, hiztunek hizkuntza-egoera estatiko bat ezagutzen dute, eta hizkuntza-egoera horretan hiztunek ez dute ikusten bariazioaren eta aldaketaren zantzurik: ikuspegia okerra da, baina zenbait hamarkadaz indarrean egon bide zen, antzeko ideiak aurki baitaitezke Bloomfielden (1973 [1933]) eta Hocketten (1958) lan klasikoetan.

Saussurerena ez bestelako ikuspegi eta definizioek bariazioaren azterketarekin lotzen dute sinkroniaren ikerketa, ez estatikotasunarekin eta homogeneotasunarekin: “Linguistic change manifests itself synchronically as variation, which can be defined in a somewhat general way as a relationship between different ways of expressing the «same» thing” (Southworth 1990: 25). Halaber, “without synchronic variation no change would be

possible, and, in turn, without a diachronic perspective on variation, synchronic innovation and variability would not be understandable” (Giacalone Ramat *et al.* 2013: 4).⁷

État de langue kontzeptutik bereizita, beraz, *sinkronia* bestela uler daiteke eta ulertu behar da. Dialektologia historikoaren ikuspegitik enpirikoki bi eratara uler daiteke sinkronia Williamsonen ustez:

(1) the linguistic witnesses (speakers, writers) of the objects of study all co-exist(ed), i.e. all the witnesses are / were alive contemporaneously when they produce(d) the linguistic material which is to be the object of study; and

(2) periods before or after the time when the language which is to be the object of study is / was produced are to be disregarded. (2004: 108-109)

Bada, halaber, gogoratu beharreko funtsezko beste ideia bat: edozein egitura sinkronikok gordetzen du bere iraganari buruzko informazioa; alegia, edozein egitura sinkronikok ematen du bidea iragana berreraikitzeke, Mitxelenak aspaldi adierazitakoarekin bat:

Desde el punto de vista diacrónico [la lengua] constituye un sistema que retiene una cierta cantidad de información sobre su propio pasado, sobre sus fases anteriores. Digamos, para usar una metáfora que quizá en el fondo no lo sea, que todo estado de lengua es un sistema ordenado que por su misma ordenación conserva registrado un mensaje que el paso del tiempo vuelve borroso e ilegible. (1963: 7)

2.3. Dialektologia eta historia

2.3.1. Dialektoen alderdi kronologikoaz

2.3.1.1. Dialektologia historikorantz

Lehenago ere aipatu legez (begiratu 5. oin-oharra), “Dialektologiaz dihardugunean kronologiaz jardun behar dugu baitezpada” (Camino 2008a: 209) baieztapenak laburbiltzen du ondoen tesi honetan Euskal Herriko mendebaleko euskara aztertzeke darabilan ikuspuntua. Hemen aztergai izango ditudan garai eta ezaugarri linguistikoak ikertzean arestian aipatutako ikuspegi dinamikoa baliatuko dut, errealitate linguistiko konplexua zabalago ulertzeko bide egokiena delakoan.

Saussureren eta eskola estrukturalistaren eraginez XX. mendean zehar ikuspegi sinkronikoa izan zen nagusi dialektologiaren esparruan, ikerketa-tradizio batzuen eta

⁷ Dialektologiaren esparrutik harago, gramatika historikoak ikuspegi sinkronikoa eta diakronikoa uztartu ditu azken hamarkadotan, batez ere gramatikalizazio-prozesuen ikerketari loturik: “The strong interconnection of synchrony and diachrony is inherent in the notion of grammaticalization, since the theory of grammaticalization deals with diachronic processes of change which are conditioned by factors related to speakers, who necessarily operate at a synchronic level” (Giacalone Ramat *et al.* 2013: 4).

bestetzuen arteko aldeak alde. Garai batean, gainera, zurrun sinetsi zen dialektologia alderdi diakronikoa baztertuta egin zitekeela edo egin behar zela, sinkronia hutsean jardunda; aitzitik, XX. gizaldiaren bigarren erdian aurrerago, hainbatetan aldarrikatu zen alderdi kronologikoa aintzat hartu beharra: “Any synchronic comparison would involve diachronic features” zioen Kandori (1968: 52) japoniarrak, eta 1980ko hamarkadan baieztapen zorrotza dakar Petyten esku-liburuak: “Thus a basic factor in *dialectalization* is time: language is transmitted from one generation to the next, and in the course of time various innovations creep in” (1980: 30). Ildo beretik aritu zen urte batzuen buruan Pilch: “Everything in this world can be (and many things have been) talked about in some dialect that is subject to historical change. And, less sweepingly, all language data are, by definition, data in some dialect or other that is subject to historical change” (1988: 417). Begiratu, halaber, Deesen berbok: “One should be suspicious of any explanation of a linguistic change if the temporal and spatial contiguity of the cause and effect have not been carefully verified” (1988: 145).

Hizkuntzalaritza arealaren esparruan aritu izan diren ikertzaileek ere historiaren nahitaezkotasuna aldarrikatu izan dute (begiratu Hamp 1977: 279 eta Emeneau 1980 [1978]: 2, *apud* Campbell 1985: 33-34).

Azken batean, aldaketa linguistikoa errazago irudika daiteke iraganeko ebidentzien argitan (Rauch 1990: 39), halakoak eskura daudenean behintzat. Alderdi historikoa aintzat hartzea informazio eta ikuspegi osoagoa lortzeko lagungarri da, bai ezaugarri linguistikoaren sorreraz eta bilakaeraz, bai aldaketa linguistikoaren norabideaz: ikuspegi diakronikoak argitzen du zergatik ez dagoen $a + a > ea$ disimilaziorik absolutibo pluralean eta inesibo singularrean (begiratu Manterola 2015: 266-267 eta hemengo §4.4.2.1 atala), eta ikuspegi diakronikoak erakusten du $a + a > ea$ disimilazioak $a + a > a$ soiltzea baino modernoagoa izan behar duela eta, horrenbestez, Euskal Herriko mendebal zabala bereizteko berrikuntza zahar eta esanguratsua dela.

Argigarri ez ezik, interpretazio okerrak saihesteko lagungarri ere bada alderdi kronologikoa: ondare zaharreko eta maileguak banatzeko, hizkera batean baino gehiagotan agertzen diren ezaugarriak difusioaren ala bilakabide paralelo beregainen ondorio diren argitzeko, tokian toki hainbat aldaera izan dituzten formen aurrekariak berreraikitze, erabaki arealak hartzean berria eta arkaikoa bereizteko... balio du besteak beste.

2.3.1.2. Isoglosa zaharrez eta berriez

Ezagun da, gutxienez XIX. mendearen amaieraz geroztik, ezaugarri linguistiko bakoitzak isoglosa bat irudikatzen duela eta ikertzaileak eskura dituen isoglosa guztiak berdin erabiltzea nahasmen-iturri besterik ez dela, sarritan gainjartzen edo gurutzatzen baitira, eta oso zaila edo ezinezkoa baita halakoetatik mapa edo irudi argirik ateratzea. Ikuspegi kualitatiboa darabilen dialektologialariak, bada, isoglosa horien arteko bat edo batzuk hautatu behar ditu erabakiak hartzeko. Eztabaida zahar bezain mugagabea da zein eta zenbat isoglosa behar d(ir)en dialekto jakin bat definitzeko, baina galderak ez du erantzun objektibo, matematiko eta zehatzik: eskueran dauden datuak eta teoria linguistikoan oinarritutako irizpide ahalik eta zurrunenak baliatuz aritu behar du dialektologialariak erabakiak hartzeko.

Dialektologia historikoaren kasuan, isoglosen sakontasun kronologikoa aztertzea eta aintzat hartzea ezinbestekoa da; alegia, ezinbestean bereizi behar dira isoglosa zaharrak (eta, ahal dela, zaharrenak) eta berria(goa)k, lehenengoek informazio gehiago eta baliagarriagoa ematen baitute dialektalizazio-prozesuaz:

However, if we are to understand the nature of change, we want to know as much as possible about its actuation, implementation and diffusion; therefore, we want to explore the early stages if possible. (Milroy 1992b: 50-51)

Garrantzizkoa da jakitea sisteman noizkoak diren berrikuntza partekatuak, ezaugarri gorde partekatuak eta dibergentziak, noizkoak diren erregela horiek, nolako sakontasuna duten sisteman eta zer erlazio dagoen ezaugarrien sakontasun estrukturalaren eta antzinatasun kronologikoaren artean. (Camino 2009: 47)

Euskararen kasuan, ikustekoa litzateke zer A[itzin]E[uskara] modu berreraikiko genukeen, demagun, XXI. mendeko Altzürükü eta Arratzuko euskara soilean oinarriturik, eta ez (gutxienez) B[izkaiera] zaharrean eta Z[uberera] zaharrean edo, hobeki, aitzin-B[izkaiera]n eta aitzin Z[uberera]n. (Lakarra 2011: 173)

Euskal Herriko mendebaleko euskara dialektalki definitzeko, ikuspuntu diakronikotik balio nabarmen handiagoa du arestian aipatutako $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoak $e \rightarrow i$ bokal-igotzeak baino. Lehenengoa berrikuntza zaharragoa da (mendebaleko zaharrenetarikoa), sistematikoa eta eksklusiboa, eta bere muga zabalek aukera ematen dute gerora azpi-dialektotan zatitu den eremu dialektal zabal-zabala irudikatzeke; alegia, gerora *bizkaiera*, *arabera* eta *gipuzkera* deitu izan diren dialektoen eremua besarkatzen zuen unitate zabalago bat bereiz daiteke ezaugarri horren bidez (§5.1.3.4, §5.2.2.1 eta §6.4.3). Bigarren berrikuntzaren balio sailkatzailea nabarmen apalagoa da: XVIII. mendeaz geroztik ugaritzen da mendebalean, eta ezaugarri poligenetiko eta supradialektala da. Bere balio sailkatzailea beste ezaugarri batzuekiko konbinazio-

aukeren arabera da, eta gehienez ere azpi-dialekto modernoak edo ibar edo herri jakin bateko hizkera lokala ingurukoetatik bereizteko balio du.

Isoglosa zaharren benetako antzintasuna ezagutzea ez da erraza: dokumentazioak lehenengo datazioa noizkoa den zehazteko balio du, baina lehenengo datazio horrek ez du zertan bat etorri ezaugarria sortu zen garaiarekin: askoz berankorragoa izan daiteke.

Bestalde, ezaugarri jakin bat agertzen denean zer-nolako indarrarekin agertzen den aintzat hartu behar da:

The habit of proposing a point in time for dating linguistic changes has to be considered unrealistic and confusing. As it is usually the first appearance of the new category that is alleged to date the linguistic change, the risk is evident that is alleged to date the linguistic change will be considered as completed when only a beginning has as yet been observed. (Dees 1988: 144)

Behoko bokalaren asimilazioa *Viva Jesus*-en agertzen da lehenengoz, 1640 inguruan. Agertu orduko indartsu dagoela-eta Bizkaiko hego-mendebaleko edo Arabako ipar-mendebaleko hizkeraren batean bizi-bizirik zegoela pentsatzea da errazena, gerora izandako gorabehera historikoak gorabehera (§4.6.2.1.1 eta §5.3.2.1). Ezaugarri guztiakin ez da hori gertatzen, ordea. Aldaketa-prozesuak laburrak zein luzeak izan daitezke, eta ezaugarri linguistiko baten egiazko indarra zein den aztertzea ezinbestekoa da bere bilakabide historikoa aztertzeko:

The characterization of dialects or regions consists, in the traditional manuals of medieval dialectology, in enumerating the dialectal traits without any precise indication as to their frequencies. This type of characterization constitutes an essential weakness of traditional dialectology: a non-quantified enumeration of dialectal traits wrongly suggests that, ideally, a dialect should always appear with a maximum of regularity” (Dees 1988: 143).

Esate baterako, [erakuslea + izen-sintagma + artikulua] (*ha etxea* ‘etxe hura’) egitura XVIII. mendearen amaierakotzat jo behar dela dirudi, orduan lekutzen baita lehenengoz *Errosariyo santuba* liburuan eta mende amaierako sermoitegietan; aitzitik, XIX. mendea baino lehenagoko adibideak bakanak dira baita agertzen diren testuen barnean ere: XVIII. mendearen amaieran hedatuta zegoen ezaugarria, baina XIX. mendean indartu eta hedatu bide zen.

Bestela esanda, x ezaugarria bi lekutako testuetan agertzeak ez du zertan lurralde osorako egoera homogenea irudikarazi behar. Eremuen arteko lotura zer-nolakoa den ikertu behar da, ezaugarriaren indarrari eta sistematikotasunari begira, gerta baitaiteke eremuetako batean ezaugarria sistematikoa izatea eta bestean adibide gutxi batzuk egotea: Euskara Zaharrean txistukarien neutralizazioa aurreratuago zegoen Bizkai sartaldean

sortaldean baino, adibidez (§5.2.7.1), eta hori aintzat hartzea ezinbestekoa da ezaugarriaren bilakabidea irudikatzeko.

2.3.1.3. Ikerketa diakronikoa: irizpideak eta arazoak

2.3.1.3.1. Ikuspegi diakronikoak berez dakar zaharra eta berria bereizi beharra. *Zahar* eta *berri* adjektiboak esleitzeko, ordea, aztergai den garai historikoa aintzat hartzea ezinbestekoa da, bestela jardunda handia baita anakronismoetan sartzeko arriskua: oso arriskutsua da garai linguistikoak eta kronologia ezagutu gabe proposamenak egitea, aldaketa eta ezaugarri linguistikoak behar ez bezala interpretatu eta behar ez den garaietara eramatea gerta baitaiteke.

Soziolinguistek hedatutako *uniformitarian principle* delakoa sarri erabiltzen da, kontzienteki zein inkontzienteki, iragana ikertzean. Berez, geologiaren esparruko hatsarrea da, hizkuntzalaritzara XIX. mendean sartua (cf. Whitney 1867: 24, *apud* Bergs 2012: 81), nahiz eta gerora Labovek hauspotu zuen. Haren arabera, “the forces operating to produce linguistic change today are of the same kind and order of magnitude as those which operated five or ten thousand years ago” (1972a: 275).

Uniformitarian principle delakoaren arabera, beraz, iraganean eta gaur egun aldaketa linguistikoa eragiten duten indar eta aldagaiak berberak dira funtsean, eta, horregatik, gaur egungo egoera ikertzea lagungarri da iraganean gertatutakoa argitzeko eta azaltzeko. Hatsarrea baliagarria dela ez da zalantzarik, baina aitortzekoa da denboran atzerago egin ahala indarra galtzen duela, alderdi estralinguistikoari dagokionez behintzat: gaur egun erabiltzen diren kontzeptu eta ikuspegiak ezin aplikatu dakizkieke orain dela bost edo hamar mendeko egoera guztiei. Soziolinguistikak langai dituen aldagaien artean daude sexua, estratifikazio soziala zein gizarte-erkidegoak, baina denboran atzera egin ahala era horretako kontzepzioak erabiltzea arriskutsua ez ezik irrealia ere badela defendatu du Bergsek:⁸

These include the fact that language must always have been variable, that different social groups and genders had different ways of speaking, and that people have always been aware of these differences, though they may not have evaluated them as we do today. Beyond these very basic facts, however, it seems that every language period and every linguistic community must be investigated independently and in its own right (*pace* Jardin 2000). The actual concepts and functions of class, gender, networks and, most importantly, norms, standards, and prestige, differ radically in different communities. (2012: 96)

⁸ Aurretik ere aipatu izan dira antzeko anakronismoak beste tradizio batzuetan: cf. “As far as the period before 1300 is concerned, the supposition that the provincial copyist’s ambition was to imitate the dialect of the capital is a regrettable mistake, due to modern intuitions and to inadequacies of traditional descriptive strategy” (Dees 1988: 145).

Bergsek (2012: §3) bi anakronismo mota bereizi zituen. Alde batetik, gerta daiteke ezaugarri edo egitura linguistiko jakin bat proposatzea garai jakin baterako, baina ezaugarriaren edo egituraren benetako kronologia hori ez izatea: Euskal Herriko ekialdeko erakusleen hasierako herskariak (cf. Erronkaribarreko *kau*, *kori*, *kura* ezagunak) arazo- eta eztabaida-iturri izan dira inguru hartako euskara arkaikoa ikertzeko iturri gehiago agertu diren heinean, eta gaur-gaurkoz, inoiz pentsatu izan denaren aurka, badirudi ez direla Aitzineuskara Modernoarekin, Euskara Batu Zaharrarekin zein azken horren lehenengo zatiketekin lotu behar (Lakarra 2011: 210). Ezaugarri jakin bat(zuk) berrikuntza ala arkaismo d(ir)en erabakitzea ez da beti aise: Blustek (1999) austronesieraren berrikuntzat jotako zenbait ezaugarri linguistiko Sagartek (2015) arkaismotzat jo zituela aipatzen da Jacques & List (2019) lanean, adibidez.

2.3.1.3.2. Ezaugarri linguistikoei lotutako anakronia-arazoak saihesteko, garaian garaiko sistema linguistikoa ezagutu behar da: bai dialektoari dagokiona zehazki, bai hizkuntzari dagokiona oro har. Izan ere, ezaugarriak berrikuntzat edo arkaismotzat jotzeko, historiako garai zehatz bat hartu behar da erreferentziazat, eta gogoan hartu behar da sasoi batean arkaismo denak ez duela zertan arkaismo izan beste garai batean: Bizkai sartaldean XIX-XX. mendeetan bildutako aoristoaren arrastoak (Gaminde 1995b: §4, Aldai 2008) arkaismotzat jo daitezke, hala mendebaleko nola gainerako hizkeretan galdua zelako aoristoa sasoi hartan; aitzitik, *RS* bildumaz berba egitean aoristoa ez zen arkaismo: arauzko zen aoristoa Euskal Herri osoan XV. mendean.

2.3.1.3.3. Askotan, zatiketa eta banaketa dialektalak proposatzeko erabiltzen diren ezaugarriak oso berriak dira, eta halakoetan errazago ikusten da zein zen egoera zaharragoa (Campbell 1988: 86): Bizkaiko Uribe Kostako *semé* ‘semea’ edo *nó* ‘noa’ aldaera asimilaziodunak oso modernoak direla erraz da egiaztatzen (cf. §5.1.6), eta XIX. eta XX. mendeko datuen argitan ere erraz ikus daiteke Bizkaiko ipar-ekialdera oso berandu hedatu zela beheko bokalaren asimilazioa (cf. §4.6.3). Azterketarako iturriak eskasagoak direnean eta denboran atzera egin ahala, ordea, zailtasunak askoz handiagoak izan daitezke:

Dialektologiaren barrenean eztabaida ugari gertatu da azterketan baliatzen den ezaugarri bakoitza berrikuntza ala tasun zaharra den erabakitzean; bereizketa nagusi hau egoki egiten ez bada, analisiari eragin kaltegarriak etor dakizkioke; dena den, ez da pentsatu behar batzuk eta besteak bereiztea horren gauza erraza denik. (Camino 2008a: 212)

Interpretazio-zailtasun horrek erabakiak hartzeko behar beste datu ematen duten iturrien faltarekin ez ezik, datuen bikoiztasun kronologikoarekin ere badu lotura; izan ere,

inoiz berrikuntza izan zena arkaismo bihur zitekeen gerora, erabiltzen den ikuspegia eta tartean igarotako denbora zein den: bokal sudurkariak berrikuntza izan ziren aspaldi, bokal arteko kontsonante sudurkaria hasperen sudurkaritu bihurtu eta hasperen hura galdu zenean (cf. Egurtzegi 2014: 148 eta hemengo §4.3.2). Garai jakin batetik aurrera, ordea, erdialdeko eremu zabalean berrikuntzaren gaineko berrikuntza negatiboa gertatuta sudurkaritasuna galdu zen: bazterretan gorde ziren (dira) luzaroago bokal sudurkariak.

2.3.1.3.4. Garai zaharrenetako daturik ez dagoenean hedadura eta banaketa geografikoaren arabeko interpretazio kronologikoak egin izan dira, bai eta ezaugarriaren sistematikotasunaren arabekoak ere: neolinguisten laugarren hatsarreari jarraikiz (begiratu §2.4.4.2 atala), hedadura zabala duen ezaugarri batek aukera gehiago ditu hedadura txikia duena baino zaharragoa izateko, hain zuzen ere denbora-tarte bat behar izaten delako hedatzeko: “a linguistic change necessarily takes a certain time and it is inevitable for frequencies of occurrence to increase or decrease” (Dees 1988: 140). Horrenbestez, “ezaugarri bat lehen aldiz hizkuntza zatiturik dagoen garaian ageri baldin bada, ezaugarri hori ez bada hizkuntza batuago zegoen garaikoa, itxura dialektalizatua baldin badakar, berrikuntza da, berankorra, ez zaio antzinasunik aitortzen” (Camino 2009: 60).

Nolanahi ere den, neolinguistikoen hatsarreak ez dira arau (§2.4.4.2): behin-behinean *hauek* (abs. pl.) & *honek* (erg. sg.) erakusle-sistemak zaharragoa izan behar du *hone(e)k* (abs. pl.) & *hone(e)k* (erg. sg.) sistemak baino, azken hori mendebalean bakarrik erabiltzen delako. Historian sakonduta, gainera, hori bermatzen du plural hurbileko *-ok* markak, *hauek*-etik eratorria baita eta horrek *hauek* & *honek* sistemaren zahartasunaren alde egiten baitu (Manterola 2015: 350) baita Euskal Herriko mendebalean ere.

Hedadura zabala, nolanahi ere den, ez da automatikoki antzinasunarekin lotu behar, eta berriz ere azpimarratu behar da ezaugarri bakoitza garaian garai ikertzearen garrantzia.

2.3.1.3.5. Ezaugarriaren sistematikotasuna dela eta, berrikuntzak eta aldaketa linguistikoak hizkuntza-egituretan zein hiztunen artean arian-arian hedatzen direla gogoan hartuta, ezaugarri bat sistematikoa eta hizkuntza-egituretan sakon errotua denean zaharragozat jo ohi da: “Relative depth in the structure is an index of relative antiquity” (Watkins 1966: 31-32).

Hedadura zabalaren eta sistematikotasunaren irizpideak baliagarriak eta onartuak izan ohi dira oro har, baina inoiz kontrajarri ere egin daitezke. *Egin* aditz laguntzailearen

gramatikalizazioaren hedadurari begiratuz gero, zaharra edo oso zaharra dela pentsatzea bidezkoa da: Bizkaiko, Arabako zein Gipuzkoa gehieneko testuetan eta hizkeretan agertzen da, eta hedadura horrek batago egiten du *Mendebaleko Euskara Zaharra* (Lakarra 2011) deitutakoarekin beste ezerekin baino (§5.2.2.3). Alabaina, arreta sistematikotasunean jarriz gero, ezaugarria ez da $a + a > ea$ morfonologikoa bezain sistematikoa, eta *egin* lehian agertzen da **ezan*-ekin are Araban eta Bizkaian ere (cf. Aldai 2014: §2.4.4): gramatikalizazioaren jarraipena egin daiteke neurri batean dokumentazio historikoa arakatuta, Mounolek (2007, 2018 [2011]) erakutsi legez: haren ikerketen arabera, *egin*-en gramatikalizazioa aurreratuko agertzen da Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino, eta Gipuzkoa barnean ere zenbat eta Bizkaitik eta Arabatik hurbilago, orduan eta indar handiagoa du.

2.3.1.3.6. Bergsek (2012) bigarren anakronismo-mota bat ere aipatzen du, lotura handiagoa duena ikertzaileak datuak aztertzeke eta azaltzeke darabiltzan tresna eta ikuspegiekin: ideia, ikuspegi eta kontzeptuei dagokie. Esate baterako, ezaugarrien banaketa diatopikoa azaltzeke saiakeretan foku berritzaileak eta eremu gordetzaileak bereizi ohi dira, hiztunen topaguneez (bideak, merkatuak, mendialdea, itsasoa...) konbergentzia-prozesuetan duten eragina aipatu ohi da, hizkera zein ezaugarri jakin batzuen prestigioa aztertu ohi da eta ezaugarri linguistikoaren eta aldagai sozialen arteko loturarik dagoen begiratu ohi da, besteak beste. Horietako bakoitzaz gaur egungo jakintza-esparrutik dagoen ikuspegia, ordea, ezin da bere horretan eta pankronikoki beste edozein garaitara lekualdatu.

Garai bakoitzaren ikerketak berezko mugak ditu, baina historiaz aritzean behin eta berriz agertzen den muga da informazio falta: denboran atzerago egin ahala arazoa larritu egin ohi da, informazio gutxiago dagoelako eta dagoenaren inguruko ziurgabetasunak ugariagoak izan ohi direlako. Horri loturik, tesi honetan lantzen den garairik zaharrena Erdi Aroa da, Euskara Batuaren ondoko baina X. mende aurretikoko sasoia. Bada, gaur egun indarrean dauden difusio-eredu nagusiak erabiltzea oso zalantzazkoa iruditzen zait, adibidez, $a + a > ea$ -ren difusioa nolakoa izan zen azaltzeke. Alde batetik, uhinen teoriak, ohi den legez, emaitzaren irudi orokorra besterik ez du ematen (§2.4.4.1). Beste alde batetik, difusio hierarkikoa (§2.4.4.3) bezalakoetan pentsatzea ere gehiegikeria iruditzen zait. Azken urteotako aurrerapenak aurrerapen, gutxi ezagutzen da orduko indar demolinguistikoez, gizarte-ohiturez eta -antolamenduez (ezagutzen denean irudi lauso eta

orokorrak lortzen dira gehienbat), eta are gutxiago alderdi intralinguistikoaz zein soziolinguistikoaz zenbait zertzelada orokorrez harago.

Paisaia eta gizartea aldatzen diren legez aldatu izan dira hizkuntzak Mitxelenak (1977 [1969]: 42) zioenez, eta aldaketa-dinamika batzuk eta bestetzuk aztertu ezean anakronismo-arriskua handia da.

Erdi Aroan Arabatik hedatutako zenbait ezaugarriren hedadura zabala ikus daiteke Euskara Arkaikoko lekukotasunetan: $a + a > ea$ eta *egin* laguntzailea Arabaren ondoko ondoko lurralde mugakideetan agertzen direnez, Arabatik hedatutak jo izan dira (Zuazo 2010a, 2012, 2017, 2019; begiratu hemengo §2.6.4.1). Gaur egun Arabako lautada ezagutzen duen edonork irudika lezake zein bidetatik hedatu ziren Araban sortutakoak Bizkaira, Gipuzkoara eta Nafarroara: egun erabiltzen diren bideak historikotzat jo daitezke, menderik mende baliatu izan baitira gehiago edo gutxiago. Aitzitik, bada orain Arabatik Gipuzkoara joateko erabiltzen ez den bide bat, Erdi Aroan berebiziko garrantzia izan zuena: Aizkorri mendialdeko Lizarrate edo San Adriango tunel naturala. Egundak mendizaleek, arkeologoen eta artzaintzan dihardutenek jotzen dute Lizarrate aldera, baina XVI. mendera arte lurraldeen arteko igarobide arrunta izan zen: galtzada ez ezik, gaztelua eta bizitokiak ere bazeuden (§5.2.2.1.2), eta handiko joan-etorriei loturik erraz(ago) irudika daiteke ezaugarri berrien difusioa.

Erdi Aroko harremanak eta bidaiak aztertzean ezinbestean hartu behar dira aintzat bidaiatzeko moduak: oinez, zalgurdiz zein asto gainean egiten ziren bidaiak orduan. Gaur egungo dialektologo eta soziolinguistek, aldiz, arreta gehiago eman ohi diete errepide eta garraiobide motorizatuen sare nagusiei, institutu eta lantokien kokaguneei zein asteburuetakoa aisialdi-lekuei. Erdi Aroko zein XVII. mendeko distantziak ez dira XXI. mendeko distantziak: horiek ere nabarmen aldatu dira, eta distantziaren, distantziak ibiltzeko erraztasunaren eta hizkuntza-aldaketaren arteko korrelazioa ageriko egin dute azken urteotako ikerlanek (begiratu Gooskens 2005).

2.3.1.3.7. Orografia eta bizilekuak ez ezik, bizimoduak ere etengabe aldatu dira. Egundak dinamikek ez dute azaltzen zergatik egiten duten bat Zolloko hizkerak eta Nerbioi ibarraren iparraldekoak, Zollo ibarraren hegoaldean eta beste hizkera-eredu batez inguratua egonik; aitzitik, XX. mendearen erdialdeko industrializazioa baino lehenagoko dinamika sozioekonomikoen ezagutzak ematen du argirik gaiak: Ganekogorta mendiaren magalak Nerbioi ibarraren iparraldeko herrietako (Arrigorriaga, Basauri, are Bilbo ere) eta Laudioko zein Nerbioi ibarraren mendialdeko (Zollo, Markio, Abrisketa...) herri-

auzuneetako bizilagunen topagune izan dira: inguru hartan etengabe egiten zuten topo ikazkintzan, baso-langintzan zein artzaintzan zebiltzanek eta haiengana jotzen zutenek (Zuloaga 2018).

Egungo leku eta egoera soziolinguistikoek ere ez lukete iraganeko egoeren inguruko ikuspegia nahastu edo baldintzatu behar: Bilboko egoera soziolinguistiko modernoaz kritika eta trufa egin zuten Larramendik eta Mogelek XVIII-XIX. mendeetan (§5.2.5.3), eta orduz geroztik Bilboko euskara dialektal tradizionala galdu da. Horrek, halere, ez du inor eraman behar hiribilduko egoera soziolinguistiko modernoa pankroniko bihurtzera: euskara bizia zerabilen Mikoletak eta euskara bizia agertzen da, halaber, ZolloGald testuan (Zuloaga & Antequera 2019). Zerikusi gutxi zuten, zalantzarik gabe, XIX. mende hasierako Bilbok eta XV. mendeko Bilbok, adibidez: jaurreriko egitura geolinguistikoan gune gako izan behar zuen historikoki izandako loturen eta garrantzien argitan, eta gogoan hartu behar da euskararen mendebaleko muga Bilbotik ezker egon zela, inon egotekotan, Euskara Zaharrera bitartean behintzat (cf. Saiz & Ros 2001, Mounole & Lakarra 2018: 365 eta Mounole & Gómez 2018: 476).

2.3.1.3.8. Orain arte gutxi aipatu izan den beste arazo bat izendapenei dagokie. Izenak izana dakar, eta izendapen batzuk zuzenak izan arren, ez dira oso egokiak errealitate linguistikoaz aritzeko: “A crucial problem for Old English dialectology arises from persistent association of the traditional labels ‘Kentish’, ‘Mercian’, etc., with particular, but ill-delimited, geographical boundaries” (Colman 1988: 112). Izan ere, “the modern dialect of Kent hardly carries forward the 14th-century Kentish dialect” (Pilch 1988: 419).

Euskarara etorrita, euskalkiak eta lurralde historikoak izenetik behintzat lotzeko tradizioa⁹ gainditu izana eskertzekoa zaio Zuazori (1998), *bizkaiera* irakurtzen edo entzuten duen edonoren arreta Bizkaira baitoa nahi gabe ere; eibartarrarekin bat, egokiago iruditzen zait *mendebaleko euskalkia* izendapena.

Nahasteak saiheste horretan, bestalde, bada hainbestetan aintzat hartu izan ez den beste arazo bat, hizpide diren dialektoen sakontasun kronologikoaz berba egitean agertzen

⁹ Joera hori arrunta izan da atzerrian ere; besteak beste, horrekin lotzen ditu indoeuropearen inguruko zenbait ikuspegi-arazo Garrettek: “Our conception of Indo-European emerged from the analysis of national literatures and cultural traditions, and the canonical branches of the family emerged through the creation of national identities. On the view of Indo-European dialectology I have sketched, the existence of Greek is a by-product of the formation of what we may call Greek national identity. Through a series of mutual linguistic influences, this facilitated the dialectological coalescence of the set of Indo-European dialects we now call Greek. The ironic point, if I am right, is that the supraregionalizing force underlying the study of Indo-European is at the same time responsible for obscuring the true nature of its family tree” (1999: 154).

dena: egungo dialekto batez berba egiteko erabiltzen den izendapena (demagun, *mendebaleko euskalkia*) edozein garaitarako erabiltzea akatsa da.

Euskalki bat zein ezaugarriren bidez definitzen den, ezaugarri-sorta horri bakarrik lotu behar zaio euskalkiaren izendapena. Bestela esanda, euskalki jakin bat *a, b, c, d* eta *e* ezaugarrien bidez definituz gero, denboran atzera egin ahala *a, b, c, d* eta *e*-k noiz arte irauten duten aztertu behar da: *bizkaiera* edo *mendebaleko euskara* bezalako izendapenak erabili ohi dira erosotasunez, baina hobe da garaian garai aipatu nahi dena zehatz definitu eta aipatzea; alegia, *bizkaiera* baldin bada Bonapartek XIX. mendean zein Zuazok (1998, 2003, 2008, 2017) *mendebaleko euskara* deitutakoa, ez da zuzena *bizkaiera*-z berba egitea XVI., XIII. edo X. mendeetako dialektoez aritzean. Izan ere, *bizkaiera* edo *mendebaleko euskara* modernoa definitzeko aipatu izan diren ezaugarrietako asko sortu gabeak ziren garai horietan: Bizkaiko hiztunek ondo bereizten zituzten txistukari lepokari eta apikariak Euskara Zaharra baino lehen, adibidez, eta XIII. mendean *bizkaiera* definitzeko erabil daitezkeen ezaugarri esanguratsuetako batzuek besarkatzen duten eremua Araba, Bizkaia eta Deba ibarra batuta irudikatu ohi dena baino askozaz zabalagoa da: $a + a > ea$ disimilazioaren hedadurak gerora *arabera*, *bizkaiera* edo *gipuzkera* bihurtutakoen aurrekari den egoera linguistikoa islatzen du, eta horri ezin zaio *bizkaiera* deitu; izatekotan, Lakarraren (2011) izendapena erabiltzearen, *Mendebaleko Euskara Zaharra* deitu ahalko zaio: izan zen Euskal Herrian mendebal linguistiko bat *bizkaiera*-rik, *gipuzkera*-rik eta *arabera*-rik gabekoa, eta horiek sortu zirenean ere ikuspuntu diakronikotik behintzat ezin izan ziren aldi berean sortu (cf. Lakarra 2011: 70 eta hurrengoak, eta hemengo §2.3.1.4 eta §6.4.3 atalak).

Bizkaiera-z zein *mendebaleko euskara*-z pankronikoki hitz egitean nahastea besterik ez da sortzen, ematen baitu dialektoa betidanikoa dela, Euskal Herriko mendebaleko hiztunek betidanik neutralizatu dituztela txistukari frikari eta apikariak, betidanik erabili izan dela erro bera erakusle singular eta pluraletan edo betidanik erabili izan dutela **edutsi* laguntzailea adizki hirupertsonaletan.

Anakronia-arazoetan ez sartzeko, hobe da eremu lektalak garaian garaiko ezaugarrien arabera definitzen saiatzea, bide batez hizkuntzaren errealitate konplexuari eta historian zehar gertatzen diren konbergentzia- eta dibergentzia-prozesuei dagokien dinamikotasuna agerraraziz; hots, “honetatik eratortzen da ezin dela “*bizkaiera*” bezalako euskalkirik ezaugarritzatu diakroniatik, adibidez: aukeratutako ezaugarrien isoglosak

historian zehar aldatuz joango dira, hizkeren arteko eraginak aldatuko diren heinean” (Ulibarri 2015: 38).

2.3.1.3.9. Aurreko ikuspegiarekin eta sarreran (§1.2) aipatutakoarekin bat, tesi honetan *mendebala* edo *Euskal Herriko mendebala* aipatzen ditudanean mendebal geografikoaz ariko naiz, ez mendebal linguistikoaz; hots, kasuan kasu egin beharreko zehaztapenak zehaztaperen, Bizkaiaz, Arabaz eta Gipuzkoako erdi-mendebalaz. Halaber, saihestu egingo ditut *bizkaiera*, *gipuzkera* edo *goi-nafarrera* saileko izendapenak, anakronismorik gerta ez dadin: Bizkaiko, Deba ibarreko, Donostiako zein Lapurdiko kostaldeko euskara edo hizkerak izango ditut hizpide.

2.3.1.3.10. Tesi honetan izendapenei lotuta tarteka neure alde erabiliko dudana anakronismo kontziente bakarra lurraldeen izendapenari dagokio; izan ere, *Bizkaia* edo *jaurerria* aipatuko ditut aldaezinak izan balira bezala, nahiz eta ezagun den eta jakin badakidan VIII. mendean, adibidez, Bizkaia ez zela ez jaurerri, ez bestelako unitate politiko-administratibo. Halaber, jakin badakit egungo lurralde historikoen mugak ez direla beti berberak izan, eta lurralde bakoitzaren barnean oraintsu arte ere arrunt izan direla independentzia- zein batze-prozesuak. Hemen *Bizkaia*, *Araba* edo *Gipuzkoa* aipatzen ditudanean, ez naiz entitate politiko-administratiboez arituko: gaur egun hiru lurralde historiko horiek hartzen duten lurraldeez arituko naiz.

2.3.1.4. Dialektoen zatiketa bertikalaz: zuhaitzaren irudia

2.3.1.4.1. Oro har onartzen da hizkuntzalaritzak XIX. mendearen bigarren erdian¹⁰ lortu zuela aurretik ezagutu gabeko zientifikotasuna, ikertzaileek munduko zenbait hizkuntzaren arteko lotura genetikoak aurkitu zituztenean eta horiek azaltzeko *indoeuropea* izeneko aitzinhizkuntza proposatu zutenean (Hoenigswald 1966: 2, Haas 1969: 14, Fox 2007 [1995]: 19, Watkins 2001: 45). Indoeuropearen inguruko formulazioek eta horietara iristeko baliatutako berreraiketa-metodoek aparteko lekua behar dute, beraz, hala hizkuntzalaritzaren historiografian nola hizkuntzen ikerketan: “Work on relationships between Indo-European languages has –justly– been held up as a model of how to do things, and imitated by linguists working on languages from other parts of the world” (Aikhenvald & Dixon 2001: 6). Mundu osoko¹¹ hizkuntzen arteko filiazio

¹⁰ Aurrekari eta aitzindari esanguratsuez, begiratu Hock & Joseph (1996: §2.1. eta §2.2)

¹¹ Tarteka, nolana ere den, agertu da zalantzarik metodoaren baliagarritasunaz: nabarmenen artean daude Ozeaniako hizkuntzen sailkapenean metodo tradizionalak erabiltzeko aurkitutako zailtasunak; cf. Dixon (1997, 2001) eta Dench (2001), eta horiei emandako neurri bateko erantzuna Bowerman & Koch (2004: §2.1.2) lanean.

genetikoak aurkeztu ohi dituen *Stammbaum* edo zuhaitz genealogikoaren irudia ere hizkuntzalaritza indoeuroparrari zor zaio, Schleicherri (1853, 1861-1862): “The dominant motif in Indo-European studies is the family tree, although generally hedged by caveats and annotations” (Aikhenvald & Dixon, *idem*).

2.3.1.4.2. Hizkuntzen sailkapen kladistikoak kronologia erlatiboa du oinarri (Bowern & Koch 2004: 3). Izan ere, hizkuntza-familia bat berreraikitzekeo adarrak irudikatzen direnean eta azpi-taldeak sortzen direnean azpi-talde horien arteko kronologia erlatiboa ezartzen eta irudikatzen da: indoeuoperaren zuhaitzean anatoliera lotu izan da lehenengo adarreztatzearekin (cf. Luraghi 1995: §5, Ringe 2006: 5), aitzin-indoeuoperatik hurbilagokotzat jo izan delako. Era berean, zuhaitzeko adarrak adabegien bidez lotzen zaizkio enberrari, eta horrek jarraitutasuna onartzen edo proposatzen dela erakusten du; hots, talde germanikoa, italikoa zelta eta besteak, aitzin-indoeuoperak leku eta garai diferenteetan hartutako formak direla, funtsean (Fox 2007 [1995]: 127).

Hizkuntzen sailkapena berrikuntza partekatuen arabera egiteko irizpidea, *Leskieneen hatsarre* ere deitua (cf. Petit 2007: §II), zaharra, hedatua eta zabal onartua da, tarteka arkaismoak ere aintzat hartzearen aldeko aldarrikapenak aldarrikapen (cf. Watkins 1966 eta hemengo §2.3.2.2 atala). Beraz, zuhaitz genealogikoan etenak irudikatzekeo eta azpi-taldeak definitzekeo berrikuntzetan oinarritutako irizpide filogenetikoa erabili da: “a shared innovation is the result of a change which took place in a single daughter language which then subsequently diversified into daughters of its own, each of which inherits the results of the change” (Campbell 2004 [1998]: 190-191).


Zuhaitzaren irudia argigarria da filiazio linguistikoez aritzeko: lehen begi-kolpean ikusten dira argi hizkuntzen arteko hierarkia kronologiko erlatiboak eta lehenengo zein hurrengo mailetako sailkapenak; aitzitik, metodo konparatzailearen bidez berreraikitako aitzinhizkuntzei egotzi izan zaizkien ikuspegi-arazoak egotzi izan zaizkio: “such a tree model is a highly idealized representation of a far messier linguistic reality, since language varieties in close proximity, even those genetically dissimilar, often influence one another in profound ways” (Wolfram & Schilling-Estes 2003: 721).

1870eko hamarkadan (§2.4.4.1) kritika gogorak jaso zituen Schleicherren proposamenak, metodo konparatzailearen bidez berreraikitako loturen isla den heinean, bazter uzten dituelako hizkuntzen historian eta harremanen ikerketan berebiziko garrantzia


duten zenbait alderdi; funtsezkoena, hizkuntza-ukipenaren (edo hiztunen harremanen) bidez horizontalki gertatutako aldaketak ez biltzea edo irudikatzea:¹²

The basic criticism here, therefore, is that the Comparative Method is unable to deal with cases of language *mixture* and *convergence*. The tree is assumed to have only one root, from which all the branches ultimately derive, so that there can only be *divergence* of the branches, never *convergence*. (Fox 2007 [1995]: 125)

Kritika horren argigarri, bi zuhaitz aurkezten ditu Foxek, eta biek dute ingelesa ardatz. Hemen ezkerretara agertzen denak eredu klasikoari jarraitzen dio; eskuman dagoenak goitik beherako lotura eta transferentziak ez ezik, ukipenaren bidezko eragin horizontalak ere irudikatzen ditu:



(a)



9. irudia. Indoeuroperatik ingeles modernora bitarteko adabegi eta eraginak azaltzeko bi eredu (Fox 2007 [1995]: 124)

¹² Nolanahi ere den, zenbait lan aitzindaritan hizkuntza-ukipenaz eta jarautsitako eta mailegatutako material linguistikoak bereizi beharraz aritua zen Schleicher (1861: 6, 1848: 30, *apud* Jacques & List 2019: §2.1). Nabarmena da, halere, *pidgin* eta hizkuntza kreolen historiaren berreraiketa metodo konparatzailearen irismenetik kanpo daudela; begiratu Fox (2007 [1995]: 126 eta hurrengoak).

Aurreko kritiken ildotik eta zuhaitz genealogikoaren eredua osatze aldera, bestelako proposamenik ere zabaldu da azken hamarkadotan. Garrettek indoeuroperaren filogenia okerra zela baieztatu eta bestelako eredua defendatu izan du:

The familiar branches arose not by the differentiation of earlier higher-order subgroups –from ‘Italo-Celtic’ to Italic and Celtic, and so on– but by convergence among neighboring dialects in a continuum (...) The adjacent dialects from which new groups emerged may not have formed subgroups within an earlier continuum; dialects may even have shared innovations with neighbors that eventually fell into other linguistic groups. (Garrett 2006: 139)

Goitik behera jarauntsitako berrikuntzen orde, beraz, ondoz ondoko dialektoen arteko transferentzia horizontala proposatzen eta lehenesten du zenbait kasutan Garrettek, nahiz eta horrek ez duen zuhaitzaren eredua baztertzen, zenbait urte lehenago esana zuenez:

I am not rejecting the Stammbaum model in favor of the wave model, and I am not saying that Proto-Indo-European was a dialect continuum, or that Indo-European is the result of convergence, or anything along those lines. What I am saying is this: there is no clear evidence for a historical – that is to say, in the technical linguistic sense of the term, a generic– Celtic or Italic or Greek subgroup of Indo-European. These do not correspond to nodes on an Indo-European Stammbaum. On the contrary, sometime in the third or second millennium BCE, the Indo-European dialects of western and southern Europe formed a continuum. (Garrett 1999: 152)

Egia da adarkatze bitarren bidez irudikatzen diren loturek ez dituztela aintzat hartu izan dialekto edo hizkuntzen arteko konbergentzia horizontalaren eragina eta hortik sortutako egoera linguistikoak; halaber, egia da hizkuntzen bilakabidean etenak ez direla, zuhaitzek irudikatu ohi dutenaren aurka, bat-batekoak eta garbiak izaten (Winter 1973: 137). Zuhaitz genealogikoaren eredua eten eta lotura linguistiko nagusien laburpen eskematikoa da azken batean, ez hizkuntza jakin baten historian gertatutako aldaketa guztiak biltzeko asmoa duen irudia; cf. “[The family tree] is a graphical summary of the main lineages of genetically related languages; it provides a schematic representation of which sets of languages are distinguished from others by common innovation” (Bowern & Koch 2004: 9).

List (2014: 209) eta Jacques & List (2019: 135) lanetan esaten denarekin bat, hizkuntzalaritza historikoan areagotutako ikermolde kuantitatiboaren gurpilean zuhaitz genealogikoaren irudiari buruzko eztabaida (ber)piztu da XXI. mendearen hasieran:¹³ eredu kontrajarriztat jo dira (berriz ere) zuhaitz genealogikoa eta uhinen teoria, eta zuhaitz genealogiko tradizionala gainditzeko proposamenak egin dira, hala nola sare-itxurako irudikatzeak eta *Glottometria historiko* deitutako ikermoldea.

¹³ Azken ordukoen artean, begiratu bi ikertzaile horien lana jasotzen duen *Journal of Historical Linguistics* 9:1 (2019) ale berezia, zuhaitz genealogikoaren eredua ardatz duen monografikoa.

Lotura linguistikoak aztergai dituzten lanetan gero eta sarriago aurki daitezke biologiaren esparruko NeighborNet algoritmoan oinarritutako irudikatzeak, datu nahasiak antolatzeke aukera ematen baitu: “The NJ algorithm takes an arbitrary distance matrix and, using an agglomerative process, constructs a fully resolved (bifurcating) phylogenetic tree” (Bryant & Moulton 2004: 255). Algoritmoaren erabilera lotuta dago arestian aipatutako ikermolde kuantitatiboarekin eta hainbatetan erabili da azken urteotan, baina kritika sakonak ere egin zaizkio hala irudien interpretazio okerrengeatik nola kronologia aintzat ez hartzeagatik:


Unfortunately, many scholars have failed to understand that splits networks are merely a tool for data display (Morrison 2010) and not a tool that directly produces a phylogenetic analysis (...) For us, the crucial difference between data-display approaches and true phylogenetic accounts is the lack of or presence of an explicit time dimension displaying events of divergence (or recombination) of lineages. (Jacques & List 2019: 138-139)

Beste alde batetik, *Glottometria historiko*-ak zalantzan jartzen ditu tradizioz onartu izan diren zenbait ikuspegi, eta nabarmen hersten du zuhaitz genealogikoaren erabilgarritasna:

Contrary to widespread belief, there is no reason to think that language diversification typically follows a tree-like pattern, consisting of a nested series of neat splits with loss of contact. Except for the odd case of language isolation or swift migration and dispersal, the normal situation is for language change to involve multiple events of diffusion across mutually intelligible idiolects in a network, typically distributed into conflicting isoglosses. (François 2014: 25)

The tree model can represent such “genetic” (...) relations in just one type of case: when a language community has split into separate groups, each of which has latter gone through its own innovations. It cannot properly handle the frequent case where adjacent speech communities remain in contact even after undergoing innovations that differentiate them from each other. (Kalyan & François 2018: 60)

Metodologiari eta emaitzen aurkezpenari dagokionez, Glottometria historikoak metodo konparatzailean erabili ohi diren ezaugarriak (berrikuntza partekatua) hautatuta dialektologiaren eta dialektometriaren metodoak aplikatzen ditu, eta loturen sare-mapak irudikatu; (azpi)multzo linguistiko bat definitzeko ezaugarriak gehiago diren heinean, lodiagoa da (azpi)multzoa irudikatzen duen marra, honako adibide honetan legez:



10. irudia. Kalyan & François (2018: 68)

Azken urteotako bultzadak bultzada, Glotometria historikoak ere kritika gogorak jaso ditu. Jacques & List (2019: §3.3) lanean hiru aipatzen dira, eta hirurek islatzen dituzte arazo estrukturalak: (i) arestikoa bezalako mapak ezin dira analisi filogenetikotzat jo, ez baitute denboraren dimentsioa aintzat hartzen; (ii) *berrikuntza* kontzeptuaren erabilera arazotsua da, ez baitira berrikuntza partekatutako eskusiboak eta berrikuntza paralelo beregainak bereizten; (iii) lortzen diren ikuspegiak orokorrekiak dira: hizkuntzalaritza historikoak aldaki linguistikoek partekatutako ezaugarrien deskripzio hutsetik harago jo beharko luke.

Zuhaitz genealogikoak erabiltzearen onuren artean, bestalde, honako hauek aldarrikatzen dituzte Jacquesek eta Listek (*idem*, §5): (i) berrikuntza paraleloak zein horizontalki hedatutako ezaugarriak atzemateko baliagarri dira; (ii) *Ursprache*-arekin lotu beharreko berrikuntzak eta berrikuntza berankorrak bereizteko balio dute; (iii) aldaketa linguistikoaren norabidea argitzeko baliagarri dira; (iv) aldaketa linguistikoaren joera orokorrak irudikatzeko balio dute; (v) hiztunen historiaurreari buruzko informazioa lortzeko lagungarri dira.

Jacques & List (2019) lanari erantzuten dion lan batean, hala ñabartu dute Kalyanek eta Françoisen:

Our approach is actually meant as a critique of the tree model as traditionally understood, where an innovation must necessarily affect the *whole* of the population in which it occurs (...) the only difference in our argument is that we allow for “variation” in the proto-language that is not only morphological or sociolinguistic, but also areal (dialectal). Finally, glottometric diagrams, far from being “pure data display”, do in fact encode information about the order in which lineage splits most likely occurred. (Kalyan & François 2019: 174)

2.3.1.4.3. Hizkuntzalaritzaz gaindiko hizkuntza vs. dialekto dikotomia bazter utzita, zuhaitzaren eredua baliagarria da hizkuntza baten barneko dialektoen arteko kronologia erlatiboak irudikatzeko. Euskarara etorrira, lehen aipatu legez, izan zen inoiz

Euskal Herriko mendebalean *bizkaiera*, *arabera* eta *gipuzkera*-rik gabeko eremu dialektal zabala. Atzerrian estandar diren ikuspegi eta metodoak gurera ekarrita, beraz, egin beharreko galderak dira *noiz*, *nondik* eta *zeren* bidez bereizi zen eremu dialektal hori, eta *noiz* eta *nola* bereizi ziren gerora *bizkaiera*, *arabera* eta *gipuzkera* deitu izan direnak eremu dialektal hartatik.

Gaur egun egin daitezkeen banaketa dialektalak ezin izan ziren bat-batean eta aldi berean gertatu: Blažek (2007) lanean aurkezten diren Bigarren Mundu Gerraz geroztiko indoeuropar hizkuntzen sailkapen nagusiak eta austronesieraren, kartvelieraren eta bantuaren zuhaitz-ereduak aztertu ondoren, eredu orokorra banaketa bitarretan oinarritutakoa dela gogorarazi zuen Lakarrak (2011: §3.1), ikuspegi diakronikotik onartezina dela pentsatzea euskalki guztiak era batera eta adabegi beretik sortu zirenik (cf. Andersen 1975, 1989: §4.2.2). Horrenbestez, eredu bitarra jo zuen euskararako beharrezkotzat ere:

Orain arte esandakora bagoaz, bi dialektok (ezta bi euskalkik ere), halabeharrez ere ezin du data bera izan, askozaz zailago euskalki guztiek, edozein dela ere hartzen dugun sailkapena; zehazki, soilik adabegi batetik atera eta eskaileraren maila berean diren bik lukete data bera, data hori bata eta bestea sortzen dituen aldaketarena baita. (Lakarra 2011: 172)

Ikuspuntu diakronikotik, beraz, interesgarri da zer-nolako lotura zuen edo izan zezakeen Mendebaleko Euskara Zaharrak Euskara Batu Zaharrarekin, noiz, nondik eta nola zatitu zen menderik mende harik eta (ikertzaileen proposamenen arteko aldeak alde) gerora deskribatu izan diren *bizkaiera*, *arabera* eta *gipuzkera* sortu ziren arte. Horretarako bide artezena, ohi bezala, ikerketa-tradizio luze, onartu eta egonkorreko irizpideak baliatzea da, eta euskararen zuhaitz genealogikoaz egin diren proposamenen (cf. Lakarra 2011: §5) ikerketan sakontzea. Euskara Batu Zaharretik behera zein egungo euskalkietatik gora abiatu, Bower & Koch (2004: 11) lanean ezarritako irizpide estandarrak gogoratzea ez dago soberan:

Subgrouping must be phylogenetic (this is, based on common innovation) and must not rely simply on shared similarities. Evidence will ideally be taken from all areas of vocabulary and grammar.

To be diagnostic of a genetic subgroup in the traditional sense this evidence must further be established to have been a feature of the proto-language ancestral to the languages of the group, and not a) the result of inheritance from a more distant antecessor, or b) the result of diffusion into the group after the dissolution of pSG (proto-Subgroup).

In support of the claim that a given area is a *Sprachbund* it must be established that the feature(s) in question are not a) inherited from a common ancestor or b) innovated independently. This is another important point: drift, or independent parallel innovation, does not produce linguistic areas. (2004: 11)

2.3.2. Ezaugarri linguistikoaren alderdi kronologikoaz

Gerora aipatuko dudanez (§2.4.3.1), *isoglosa* kontzeptua ezaugarri linguistikoaren hedadurarekin eta banaketa geografikoarekin lotzen da nagusiki: eremu handiko eta eremu txikiko isoglosak bereizten dira, isoglosa isolatuak eta isoglosa-multzoak, isoglosa bateratzaileak eta isoglosa bereizleak, eta abar. Isoglosa bakoitzak hedadura jakin bat du, beraz; baina, hori baino gehiago ere badu: antzintasun jakin bat. Baztertu beharreko ikuspegi pankronikoa baztertuta, isoglosa edo ezaugarri linguistiko guztiak ez dira garaikide, eta batzuen eta bestetzuen kronologiaren araberrako izaera aintzat hartzea ezinbestekoa da interpretazio okerrak saihesteko.

Orain arteko azalpenetan behin baino gehiagotan aipatu ditut *berrikuntza* eta *arkaismo* kontzeptuak, eta merezi du apur bat gehiago sakontzea bai horien definizioan, bai sailkapen linguistikoak egitean batzuei eta bestetzuei eman beharreko balioaren inguruko hausnarketan.

2.3.2.1. Berrikuntzak

Izenak berak adierazten du zer den *berrikuntza* bat:

Hizkuntzaren ordura arteko egitura aitzindari batekiko edo egoera zaharrago batekiko, dialekto batean sumatzen den haustura da berrikuntza, hizkuntza forma batean sortu den aldaketa. Dialektoaz mintzatzeko baitezpadako dira berrikuntzak; ez baldin badago berrikuntzarik, ezin mintzatu gara dialektoaz: hizkuntzalari gehienen ustean, berrikuntzarik ez baldin badago, ez dago dialektorik. (Camino 2008a: 212)

Hala dialektologian nola hizkuntzalaritza historikoan funtsezko ezaugarriak dira aurreko egoeren aldean hausturak eragiten dituzten edo hausturak irudikatzeko lagungarri diren ezaugarri berriak. Berriz gogoratzekoa da berrikuntzak adabegietan kokatuta irudikatu izan direla hizkuntzen zuhaitz genealogikoetan, eta, horrenbestez, berrikuntza partekatuen bidez ezarri izan direla filiazio linguistikoak. *Leskien hatsarre* esaten zaio irizpideari, August Leskienek proposatu eta ezagutarazi baitzuen lehenengoz: “Die Kriterien einer engeren Gemeinschaft können nur in positiven Übereinstimmungen der betreffenden Sprachen, die zugleich Abweichungen von den übrigen sind, gefunden werden” (1876: vii); begiratu, halaber, Brugmann (1967 [1886]: 24).

Hatsarre orokorra eta zurruna da Leskienena baita gaur egun ere, baina lehenengoz azaldu zenetik kritikoki aztertu eta osatu da. XX. mende hasieran Meilletek onartu egin zuen berrikuntza partekatuen bidez definitzen direla filiazio linguistikoak, baina hertsatu egin zituen lotura horiek ezartzeko berrikuntzek bete beharreko baldintzak; zehazki, hiru irizpide gehitu zituen:

1° Les faits considérés doivent se rencontrer déjà, non seulement dans les plus anciennes langues attestées, mais dans les langues communes, connues par des systèmes de rapprochements entre langues attestées : on ne peut utiliser que des faits grecs communs, slaves communs, germaniques communs, etc. (...) Et encore faut-il que ces particularités n'apparaissent pas, dans les langues communes, comme des innovations récentes, reconnaissant des causes particulières à ces langues.

2° Les faits doivent avoir un caractère de singularité qui suppose l'action de causes identiques agissant dans une région déterminée, et qui rende peu probable un développement indépendant postérieur à la séparation. Tous les détails faciles à expliquer pas des tendances universelles du langage sont à écarter.

3° Les faits communs doivent se trouver dans des langues qui aient été voisines; il ne doit donc pas y avoir de chevauchements. La constatation des domaines dialectaux continus de l'indo-européen est facilitée par ceci que la séparation des langues indo-européennes ne semble pas avoir entraîné de dislocations. (Meillet 1908: 10-11)

Meilleten irizpide metodologikoek hertsatu eta zorroztu egin zuten Leskien hatsarrea: *berrikuntza* izateko baldintzak betetzen dituzten ezaugarrien artean ezberdintasunak daudela erakutsi zuen Meilletek, eta ildo beretik jarraitu izan dute XX. mendeko indoeuropeistek: *berrikuntza* partekatuak dira oraindik sailkapen genealogikoak egiteko ezinbesteko, baina *berrikuntza* guztiek ez dituzte ezaugarri berberak, eta horrek eragina du euren balio sailkatzailean. Hain zuzen ere, Petitek (2007: §III; cf., halaber, Lakarra 2011: §3.2, hark ekarri baitzituen Petitenak euskalaritzara) Leskien hatsarrearen zazpi muga aipatu zituen indoeuropeisten literaturan oinarrituta. Honako hauek dira:

(i) Leskienek *berrikuntza* positiboak izan zituen hizpide, alegia, forma edo kategoria berriak sortzea; aitzitik, beste bi eratakoak ere izan daitezke *berrikuntzak*: negatiboak (forma bat edo kategoria bat desagertzen denean) eta translatiboak (forma edo kategoria bat eraldatu egiten denean, bestelako forma edo kategoria bihurtuta). Watkinsek (1966: 31) *berrikuntza* negatiboak aintzat hartzearen aldeko aldarria egin zuen, baina irizpide ahula da:

La perte d'une forme ou d'une catégorie est en effet faiblement discriminante, car elle participe d'une sélection où seules deux options sont possibles: perte ou conservation (...) la création ou la transformation d'une forme ou d'une catégorie est nettement discriminante, car elle ne se résume pas 'a une sélection entre deux possibilités. (Petit 2007: 23)

(ii) Tradizioz fonologiaren, morfologiaren eta lexikoaren esparruko *berrikuntzak* erabili izan dira; baina, hiru hizkuntza-maila horiek ez daude parean azpi-sailkapenak egin behar direnean: lexikoa errazago aldatzen da ukipen-egoeretan (cf. Thomason & Kaufman 1988: 74 eta hurrengoak) eta, horrenbestez, arriskutsuagoa da lexikoa erabiltzea ahaidetasun dialektalak proposatzeko.

(iii) Talde linguitiko bakoitzaren berrikuntzak zuzen ebaluatu ahal izateko, garai bereko hizkuntzen deskripzioak behar dira, “idéalement à l’époque de leur différenciation initiale” (*idem*, 25), nahiz eta dokumentazioak ez duen beti horretarako aukerarik ematen.

Iruñeko euskara dialektala nolakoa zen berreraikitze saioa egin zuen Aitor Aranak (2006), eta horretarako XVI. mende hasieraz geroztiko iturrietako euskararen ezaugarriak baliatu zituen, ikuspegi pankronikoz, nahas-mahas erabilia, besteak beste, 1501eko hilabeteen zerrenda bat, Amenduxen eresia (1564), Iruñeko toponimia-bilduma (Jimeno & Salaberri Zaratiegi 1994) zein Itziar Araguesek (2003) bildutako Iruñeko hitzak. Beste lan batean genioenez, bada:

Ezin esan daiteke Aranak (2006: iii-iv) dioen bezala, «Iturri hauei esker, hiriburuko euskara jatorriz nolakoa zen ikus daiteke modu adierazgarrian». Liburuan jasotako ezaugarriak, han eta hemen, batek eta bestek, modu batera edo bestera emandako lekukotasunetatik atereak dira, eta ez dira Iruñean batera sekula gertatu, ziurrenik: garai, testuinguru eta eremu desberdinekoak dira. Hori horrela, Aranak Iruñeko euskara nolakoa zen deskribatzeko egiten duen saio laburrean, anakroniaren arazoa garbi dakusagu. (Santazilia & Zuloaga (2018: 494)

(iv) Meilletek aipatutako ondoz ondokotasunaren hertsapenaren arabera, bi hizkuntzaren jatorria aitzinhizkuntza komuna dela onartzeko, berrikuntza partekatzen duten hizkuntzek mugakide izan behar izan dute inoiz. Hala ez izatera, berrikuntza beregain paraleloak izateko aukerak ugaritzen dira, eta horrek zalantzapean jartzen ditu sailkapenak:

Elkarren ondoan dauden bi eremutan garai beretsuan hizkuntza-berrikuntza berdina agertzeak, halako “eragilea → ondorioa” egoera adieraziko luke, hizkuntza-ezaugarri berriaren transmisio edo kutsadura-gertakari bat gauzatu dela. Berrikuntza partekatuak, beren erkidego erabiltzaileen arteko batasun hertsia frogatzaile dira. (Camino 2008a: 214)

(v) Datuen erabilera atomista ez da lagungarri sailkapen linguistiko fidagarriak egiteko: Watkinsek (1966: 30) ikuspegi zabalagoa erabili beharra aldarrikatu zuen; zehazki, hizkuntza-sistema osoa aintzat hartu beharra eta konbergentzia-dinamikei ez ezik, dibergentzia-dinamikei ere begiratu beharra. Ezaugarrien garrantzi linguistikoa aztertu beharko litzateke, beraz, eta sistema osoa aintzat hartuta proposatu beharko lirateke batasunak eta etenak.

(vi) Aurrekoarekin zuzenean loturik, filiazioak proposatzeko eta frogatzeko dinamika bateratzaile eta konbergenteak erabili izan dira luzaroan, nahiz eta dibergentziak ere garrantzitsuak izan daitezkeen: “elles sont de nature à invalider la reconstruction d’un prototype commun” (Petit 2007: 26; cf. Watkins 1966: 31).

(vii) Berriz ere Watkinsi jarraikiz, “to consider common innovations alone in subgrouping, and to ignore common retentions, is possible only if we consider language as

a mechanical sum of linguistic features, some of which «change» and some of which not” (1966: 30); alegia, tradizioz berrikuntzei legez arkaismoei ere neurri bateko balio sailkatzailea aitortu zien Watkinsek; begiratu hemengo (§2.3.2.2) atala gaiaz.

Ikusten denez, aurreko puntuetan biltzen direnak Leskieneen hatsarre orokorra fintzeko irizpideak dira: ez dute berrikuntza partekatuak erabili behar direlako ideia deuseztatu edo errotik aldatu. Irizpide orokorra hobetzeko iragazkiak eta 1908ra, 1966ra zein 2007ra bitartean aintzat hartu gabeko eta aintzat hartu beharreko zenbait alderdi gehitzen dituzte puntuok.

Aurreko guztiak gogoan izanda, beraz, ondoz ondoko bi dialektotan fonologiaren edo morfologiaren esparruko berrikuntza berezia,¹⁴ positiboa, zaharra, bateratzailea, sistematikoa, eskusiboa eta hedadura zabalekoa aurkituz gero, tresna egokia izango da bi dialekto horiek lotzeko eta berrikuntza lehenagoko egoera linguistiko batetik eratorritzat jotzeko; berrikuntza hori kokatu ahalko da zuhaitzaren adabegian: iragazki horiek guztiak betetzen dituzten berrikuntzak aurkitzea gaitzagoa da, baina horietan oinarritutako proposamenak sendoagoak izan ohi dira.

2.3.2.2. Arkaismoak

2.3.2.2.1. Bi hizkuntza aurreko egoera linguistiko beretik eratorriak badira, aukera asko dituzte kategoria berberak izateko eta adierazten dituztenak forma berberen bidez adierazteko (Aikhenvald & Dixon 2001: 3). Halakoetan bi hizkuntzen artean dauden antzekotasunek erakutsi ohi dute aitzinhizkuntzan zegoen ezaugarri-sorta bat jarauntsi dutela (Dixon 2001: 66). Hainbatetan gertatu ohi da, ordea, bi hizkuntza horietako batean jarauntsitako ezaugarriak aldatzea, eta aldaketa (berrikuntza) horrek jarauntsitako ezaugarria desagerraraztea edo ordezkatzeta: hizkuntza batean jarauntsitako ezaugarria aldatu egiten bada eta bestean gorde, azken horretakoa arkaismotzat jo behar da; izan ere, egoera zaharrago baten arrastoa da, beste hizkera batzuen joera berritzailearen aurka gorde dena. Dialektologiaz denaz bezainbatean, zehaztapen hau egin zuen Caminok aurrekoaren

¹⁴ *Berezi* darabilt ‘ez hain arrunt’, ‘ez hain ohiko’ edo ‘ez hain natural’ esanahiarekin; cf. “Hau guztia dela-eta, hasierako egoera dialektala erakusteko “gutiago naturalak” diren bilakabideei gaitasun frogatzaile handiagoa aitortzen zaie; besterik da hizkuntzalaritzan nola definitzen den zer den zinez ezaugarri bat “gutiago naturala” izatea” (Camino 2008a: 22). Caminok dioenez, zer den naturala eta zer ez den naturala erabakitzea ez da erraza; behin-behinean, bi alderdiri begira dakieke. Alde batetik, delako aldaketak hizkuntza horretan duen lekuari; hots, ezaugarria dialektal eskusiboa ala supradialektal eta poligenetiko den: azken horiek errazago gertatzen dira hizkuntzan beregainki. Beste alde batetik, tipologia lagungarria da munduko hizkuntzetan zer den arrunt eta zer den ez hain arrunt bereizteko. Irizpide biak baliatu ditut nik neuk tesi honetan dardarkari aurreko $e > a$ aldaketa duten zenbait aldaera lexikoren balio sailkatzailea ahula edo ezdeusa dela defendatzeko (cf. §5.1.3.3).

ildotik: “hizkuntzaren geografia-eremu gehienetan aspaldi galdu den aldaera, ezaugarri edo egitura bat arkaismotzat jotzen da, nahiz eta zokoren batean oraindik ere bizirik dagoen eta baliatzen den eta gramatikan sistematikoki jokatzen duen” (2008a: 233).

Neurri batean, berrikuntza definitzeak arkaismoa definitzea dakar; alegia, ezaugarri bat berritatz jotzen bada, garai eta egoera batekiko izan behar du berri, eta garai eta egoera horretan (edo/eta hori baino lehen) ezaugarri berriaren orde bestea bat erabiltzen bazen, arkaismotzat jotzen da azken hori. Iraganean edo berrikuntza gertatu baino lehenagoko ezaugarri guztiek, ordea, ez dute zertan maila kronologiko berebean egon, eta ikertzailea eta tradizioa zein den, *arkaismo* kontzeptua definitzean ikuspegi eta ñabardura jakin batzuk nagusitu daitezke.

Dialektologiaren alderdi diakronikoari buruzko artikulu batean hango eta hemengo ikertzaileen proposamenak aintzat hartuta lau arkaismo-mota bereizi zituen Caminok (2008a: §5.1):

(i) Antzina edo egoera linguistiko zaharrago batean sistematiko ziren ezaugarriak hizkera batean edo batzuetan gorde direnean, eta beste batzuetan berri, arestiko(et)an arkaismoak daudela esaten da. Aurretik aipatutako ezaugarri bat aipatzearen, XXI. mende honetan arkaismo dira bokal sudurkariak euskaraz: Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan besterik ez dira gorde, nahiz eta jakin ez direla ekialdeko eskusiboak eta, are gehiago, garai bateko euskara osorako proposatu behar direla. Halaber, hasperena Ipar Euskal Herriko hizkeretan gorde da, inon gordetzekotan; zenbat eta ekialderago, indartsuago, azken hamarkadotako gorabeherak gorabehera (§4.3.1). Hasperena bizirik dagoen eremua bokal sudurkariena baino zabalagoa da gaur egun, baina kasu honetan ere inoiz orokor izandako ezaugarri bat eremu jakin batean besterik ez dago.

(ii) Ez da harrigarria inoiz berrikuntza izandako ezaugarri bat erabat garatu ez izana; alegia, sistematiko izatera iritsi ez eta forma edo aldaera jakin batzuetan ihartuta geratu izana. Caminok Ipar Euskal Herriko *haritu* eta *motzitia* eta mendebaleko *baltzitu* eta (*h*)*utsitu* erakoak ematen ditu adibidetzat: “garbi dago egitura beraren hiru adibide direla, egun emankor ez den joera baten arrasto zaharrak direla” (2008a: 233).

(iii) Hirugarren arkaismo-motak lotura handiagoa du ezaugarri zaharraren galeratik igaro den denborarekin: berriki galdu diren ezaugarriak arkaismotzat jo daitezke. Ikuspegi horren arabera, aurretik aipatutako *hori liburua* ‘liburu hori’ egitura berria XIX. mendean nagusitzeak aurreko egiturak zaharkitu zituen, gaur egungo bizkaitar gazteen artean

dirudienez Euskara Batuarekiko adbergentziaren ondorioz *bi etxe* sintaxia *etxe bi* sintaxiari nagusitzen ari zaion legez.

(iv) Caminok (2008a: 235) Zuazori (2006b: 106) jarraikiz bereizitako arkaismoen laugarren multzoa ezaugarri oso zaharrek osatzen dute: inoiz hizkuntza osoko izan ziren eta oraindik ere hedadura zabala dute; *gara* eta *zara* aldaerak aipatu zituen Zuazok Deba ibarreko hizkeraz aritzean: “alde batera utziko ditugu *izan*-en *gara*, *zara* eta *zar(i)e* adizkiak. Deba ibarrean eta Bizkaian adizki berberak erabiltzeak ez du frogatzen ezer; leku bietan egoera zaharrari eutsi zaiola besterik ez” (*idem*). Aspaldiko garaietan komun ziren ezaugarriok *arau*-tzat ere jo izan dira (cf. Meid 1975 eta §2.4.5).

2.3.2.2.2. Filiazio linguistikoak ezartzean ikuspegi orokorragoa erabiltzearen aldeko aldarria egin zuen Watkinsek, eta orain zenbait hamarkada arkaismoei ere lekua eman behar zaiela proposatu zuen:

For to consider common innovations alone in subgrouping, and to ignore common retentions, is possible only if we consider language as a mechanical sum of linguistic features, some of which “change” and some of which do not –the atomistic view of neogrammarians (...) At any given stage of a given language, retentions and innovations are part of the same synchronic structure. (1966: 30)

Dakidala, Watkinsen proposamenak ez du berebiziko arrakastarik izan, eta hizkuntzalariek nahiago izan dute, oro har, berrikuntza partekatuak erabiltzeko irizpidea baliatu, arkaismoen balio sailkatzailea oso egoera zehatzetan bakarrik jo baitaiteke segurutzat: “La conservación conjunta de un arcaísmo en dos o más variedades de una lengua no supone, por el hecho de tratarse de algo pasivo que se explica por simple inercia, ninguna relación especial entre ellas” zioen Mitxelenak (1964b: 51) aspaldi.

Hizkera bitan arkaismoak agertzeak ez dakar, hortaz, bien arteko konbergentzia eta horren ondoriozko elkarreragina egotea. Egokiagoa da (eta okerbidean sartzeko aukera gutxiago daude) pentsatzea ezaugarri jakin horretan hizkera biak gordetzaille izan direla, lehenagoko egoera linguistiko baten arrastoa gorde dutela. Eremuaren zabalera, nolahi ere den, izan dezake zerikusirik arkaismoek sala ditzaketan harremanak argitzeko: hizkeren eremua zenbat eta zabalagoa izan, orduan eta balio txikiagoa dute arkaismoek elkarreragina eta harreman interdialektala frogatzeko.

Sailkapen orokorrak egiteko arkaismoak baliatzea jokabide zeharo arriskutsua da. Mitxelenak berak erabilitako adibide ezaguna dakart hona: *iratzarri* eta *urt(h)arril* mendebaldeko eta ekialdeko hizkeretan erabiltzen dira, baina banaketa diatopiko horrek ez

du loturarik edo ukipen-egoera esturik frogatzen mendebaleko eta ekialdeko hiztun-komunitateen artean:

La manera más económica de explicar tales coincidencias entre áreas extremas, que siempre ha sorprendido a los observadores, es suponer que innovaciones iniciadas en zonas más centrales no han llegado hasta ellas. De ello se sigue naturalmente que el guip. *esnatu* ‘despertado’ o *ilbeltz* ‘enero’, p. ej., son más recientes con ese valor que las anteriores. (Mitzelena 1964b: 29)

Eman dezagun orain eremu zabal batean bost dialekto daudela, bost horietako bitan arkaismo-sorta bat agertzen dela eta arkaismo horiek beste hiru eremuetan gertatutako berrikuntza-sorta bati kontrajartzen zaizkiola. Pentsa liteke, Mitxelenaren arrazoibidearekin bat, berrikuntzek ez dutela lortu eremu linguistiko osora hedatzea eta bost dialektoetara hedatzea, adibidez berrikuntzen fokua arkaismo-sorta gorde duten bi eremuetatik urrun dagoelako edo/eta bitartean eten linguistikoa eragiten duen oztoporen bat dagoelako. Era horretako egoeretan balio sailkatzaile handiagoa aitortu zien arkaismoei Rodríguez Adrados helenistak, gerora Watkinsek egingo zuen legez:

El arcaísmo en cambio no puede probar de por sí más que la comunidad general antes de la formación de los dialectos que innovan; pero (...) una amplia serie de arcaísmos de un área bien delimitada, no puede dejar, a mi modo de ver, si se opone a otra serie de innovaciones en otra área también bien delimitada, de probar comunidad específica en fecha posterior al momento citado. (1997 [1952]: 17-18)

La seguridad sólo se alcanza mediante la suma de arcaísmos en un territorio común frente a la innovación única del resto. Fuera de este caso, sólo demuestra comunidad general, es decir, que del dialecto arcaizante se han ido desgajando las demás. (*idem*, 26).

Euskarara etorrita, **edun* aditz laguntzaile iragankorraren hirugarren pertsona pluraletan ergatiboak bi alomorfo ditu Bizkaiko euskararen, testu zaharretan zein gaur egungo hizkeretan: *-de* (*daude*) eta *-e* (*dabe*).¹⁵ Ematen du lehenengoa Bizkaiko sartaldean gordetako arkaismoa dela. Bi alomorfo horien eta Erdialde zabaleko hizkeretako *-te*-ren jatorriari dagokionez, alomorfoen historiarako gogoan hartzekoa da Traskek proposatutako (1995: 231) eta Lakarrak (2013b: 293) “Trasken lege” deitutako *-de/-te/-e < *-de* bilakabidea. Aipatutako hiru formen jatorria, beraz, berbera litzateke: **-de*. Nire ustez, Bizkaiko hizkerak sailkatzean ezin bazter daitekeen ezaugarria da *-de* alomorfoa. Izan ere, ezaugarri honek biltzen dituen nolakotasunak eta ñabardurak behar bestekoak dira, hala geografiaren eta kronologiaren nola sistematikotasunaren ikuspegitik, Bizkaiko hizkerak ezker/eskuin bereizteko (Zuloaga inprimategian-1). Azken lauhun urteotako Bizkaiko testuak begiratuta, ez dirudi *-de* & *-e* alomorfoen eremua asko mugitu denik,

¹⁵ **edun*-en adizkiez ari banaiz ere, aintzat hartzekoa da *-de* alomorfoa dela hemen aipatuko ditudanetan zaharrena eta inoiz Euskal Herri osoan orokor izandakoa; are gehiago, beste adizki batzuetako adibideak aurki daitezke Bizkaiko bertako testu arkaiko eta zaharretan; cf. Egriaren kantako *ecardeçan* (birritan).

nahiz eta Bizkaiko erdialdeko testu zahar gehiago izateak irudia zertxobait alda lezakeen. Funtsean, kokagune ezaguneko testu zaharrenetan alomorfoen banaketa berbera dago, eta *-de* & *-e* aldaerak erabakigarri izan dira azken hamarkadotan jatorri ezezaguneko mendebaleko testu zaharrak kokatzeko.

Idea horiek baliagarri dira Bizkaia sartalde/sortalde banatzen duen ezaugarri nagusiaren aurkezpen gisa: Bizkaiko sartaldeko hizkeretan **edun*-en adizkietako pluralgileetan *-de* gorde eta sortaldean *-de* > *-e* bihurtu da: arkaismoa ez ezik, ezaugarri eskusiboa ere bada. Jatorri ezezaguneko testuekin nahiz hiztunekin lan egitean, **edun*-en laguntzaile pluralatan *-de* edo *-e* agertzea nahiko da iturria eremu batekoa edo bestekoa diren jakiteko. Ezaugarriak, beraz, erabateko balioa du hizkerak sailkatzeko, eta hala erakutsi izan da azken urteotan jatorri ezezaguneko testuak kokatzeko lanetan.

2.3.2.3. Hautuak

Zenbait hizkuntzalariren ustez, berrikuntza/arkaismo bereizketa bitarra ez da nahikoa sistema linguistikoa osatzen duten elementuak sailkatzeko: Rodríguez Adradosok zioenez, *hautuak* ere aintzat hartu beharreko ezaugarriak dira, nahiz eta tradizioz irizpide hori ez den, ikertzailearen ustez, behar bezain aintzat hartu: “La lengua tiende a simplificar y a que en cada dialecto, al menos, cada necesidad tenga una sola solución; es una tendencia, digo, porque esto no se consigue nunca de un modo absoluto” (1997 [1952]: 27). Dialektoek bilatzen dituzten *irtenbide* horiek deitu izan dira *hautu* edo *dibergentzia* (cf. Watkins 1966: 31): “Sorburu-hizkuntzak zerbait adierazteko aukeran zituen posibilitateetarik dialekto jakin batek forma bat hartzeari eta hedatzeari «hautua» esaten zaio” (Camino 2008: 226).

Filiazio linguistikoak proposatzeko hautu linguistikoak gutxiago erabiltzea edo baztergarritzat jotzea ez bide da ausazko irizpidea: “Each dialect has chosen one member of each pair, and it seems reasonable to say that agreement in choice is in itself no reason to group two dialects together, but disagreement is a reason to separate them” (Cowgill 1966: 83).¹⁶ Hautuen balioa berrikuntzen eta arkaismoen erdibidekotzat jo izan da, bai eta berrikuntza txikitzat ere (Camino 2008a: 227); cf. “El guipuzcoano parece haber sido, junto con una parte del alto-navarro, *el primer dialecto que ha seleccionado, sin duda por una innovación*, estas formas tripersonales con exclusión de otras en el auxiliar transitivo” (Mitxelena 1960a: 698; letra etzana neurea da [EZ]).

¹⁶ Halere, greziera zaharraz ari dela hegoaldeko eremu osoan gertatutako hautuak aipatu zituen gerora (Cowgill 1966: 93).

Erabiltzekotan, hautuak behar bezala ulertu eta interpretatzeko gakoa kronologian dago: “lo decisivo es que ninguna [elección] sea base de la otra, sino independientes” (Rodríguez Adrados 1997 [1952]: 27). Hautuen definizioaz aritzean, halere, mugak agertzen dira aldagai kronologikoa erabiltzen denean: “berrikuntza txiki” izate horrek berrikuntzekin lotzen ditu gehiago hautuak eta balio gehixeago eman diezaieke sailkapenetan; baina, ez dute biderik ematen zaharra eta berria bereizteko, “sirve más para agrupar los dialectos y demostrar su comunidad en un período histórico que para establecer su genealogía” (*idem*, 28).

Ikuspuntu diakronikotik, hautuek aparteko interesa izan lezakete baldin eta garai batean hautu izan zena gerora berrikuntza bihurtu zela erakusterik badago (Lakarra 2011: 221, 163. oin-oharra). Euskalaritzan aipatu izan diren adibideen artean dago Euskal Herriko mendebaleko *-gaz* & *-kin* bikotea, adibidez: *-kin* orokorraren ordeaz, mendebaleko hizkera batzuetan *-gaz* posposizioa eredu eranslearen arabera gramatikalizatu zen soziatiborako (cf. Manterola 2015: 252), eta hori da euskara horren ezaugarri bereizgarrienetako bat izenaren morfologiaren esparruan.

Aldagai kronologikoa eta haututzat jotako formen historia berreraikitzen denean, ordea, ikuspegia guztiz alderantzizkoa izan daiteke, eta hautuen garrantzia apaldu edo desagertu egin daiteke, haututzat jotakoak egiazki berrikuntza edo berrikuntza-kate baten ondorio izan baitaitezke:

«Hautu» eta «hautapenaren» kontzeptuak zeharo ukronikoak edo funtsik gabeak dira diakronikoki: bi isoglosa ez badira inoiz zeharo garaikide, –norbaitek banaketa dialektal bakar horren hasieran kokatzeko ausardiarik ba ote luke– ze zentzu du alomorfia kasu apalenetarik landa, bederen «x-ek A» eta «y-k b hautatu dute» esateak, batez ere «hautu» horien artean mende osoak direnean eta hizkuntzaren alor ezberdinetako hainbat gertakari –«hautatutako» ezaugarriez eta, bereziki, «hautatu ez direnez»– estaltzea baino lortzen ez denean? Bestalde, «hautuak» baino lehen hizkuntzak ez ote zituen kategoria horiek? (Lakarra 2018: 210)

Arestian aipatutako Rodríguez Adradosen “la lengua tiende a simplificar y a que en cada dialecto, al menos, cada necesidad tenga una sola solución” esaldiak gakoa ematen du. Hautuez aritzean aipa litezke Euskal Herriko mendebaleko **edutsi*, erdialdeko **-i-* eta erdi-ekialdeko **eradun* NOR-NORI-NORK saileko adizkietan; aurreko aipuarekin bat, eremu horietako bakoitzean soiltzea gertatu da, eta aditz laguntzaile bat nagusitu. Testu zaharrak arakatu eta historian sakondu ahala, ordea, argi ikusten da *hautu*-a, izatekotan, berrikuntza-prozesu luze eta konplexu baten ostean sortutako egoera modernoagoa besterik ez dela, eta banaketa hori haututzat jotzea “ikuspegi sinpleegi eta

aktualista” (Lakarra 2011: 198) dela. Beste horrenbeste gertatzen da **ezan* eta *egin* laguntzaileen banaketa eta bilakabidea aztertzen direnean:

Kronologiaren aldetik *egin*/**ezan* ez da “hautapen ezberdin” bat izan B[izkaiera]n eta G[ipuzkera]n, hurrenez hurren, egungo eta lehenagoko datuek besterik baitioskute; hautapen hori duela mende asko B[izkaiera], A[rabera] eta G[ipuzkera]ren arbasoak (=aitzin-M[endebaleko] E[uskara] Z[aharra]k) egin berrikuntza baitzen, **ezan*-ez gainera *egin* hartzean. (Lakarra 2011: 197)

Azken azalpenekin ez dut ukatu edo baztertu nahi hautu edo dibergentziek dialektoen deskripzioetan eta definizioan izan dezaketen garrantzia: “nork uka lezake, Elgoibarko euskararen kokagunea zehazten dihardugunean, bertan Nor Nori Nork adizki laguntzaileak **-i-* erroaren bidez egiteak garrantzia hartzen duela?” (Camino 2008a: 228). Alabaina, tesi honetan darabildan ikuspegi diakronikotik ezinbestekoa eta are interesgarriagoa begitantzen zait egungo ikuspegitik haututzat jo daitezkeen edo jotzen diren banaketen iraganaren berreraiketa eta hautu ~ berrikuntza muga batzuetan modu lausoan gertatutako aldaketetan sakontzea.

2.4. Dialektologia eta geografia

2.4.1. Espazioa agente aktibo

2.4.1.1. Dialektologiaren eta hizkuntzalaritza arealaren esparruetako ikerketek eremu edo entitate geografikoak izan dituzte abiapuntu: hiri, ibar, eskualde, herrialde... jakin bateko/batzuetako ezaugarriak, dialektoa(k) zein hizkuntza(k) izan dira aztergai nagusi. Espazio geografikoaren inguruko pertzepzioa, ordea, ez da beti bat eta bera izan hizkuntzalarien artean:

Linguists concerned with variation and change have imagined our object of inquiry –language– in various ways, as structure or process; as relatively orderly and predictable or fundamentally stochastic and unpredictable; as autonomous or distributed; as a cognitive or social phenomenon. We have paid less and more belated attention to defining the variables we use to account for the distribution of linguistic forms across time and space. (Johnstone 2010: 1)

Azken hamarkadotan espazioaren ikuspegi estatikoa kritikatu izan da, eta fenomeno sozialen ikerketan ezinbestean aintzat hartu beharreko aldagaia dela defendatu da: “Space is not an empty dimension along which social groupings become structured, but has to be considered in terms of its involvement in the construction of systems of interaction” (Giddens 1984: 368); alegia, aintzat hartu behar da espazioak eragina duela giza taldeen egituraketan, interakzio-sistemen morfologian funtsezko eragina duen aldagaia dela, ez dela aldaketak gertatzen diren eszenario estatiko hutsa.

Britainek hiru espazio-mota bereizi ditu azterketa linguistikorako duten garrantzia aintzat hartuta:

- 1 Euclidean space –the objective, geometric, socially divorced space of mathematics and physics.
- 2 Social space –the space shaped by social organization and human agency, face-to-face interaction, by the creation of a built environment, and by the relationship of these to the way the state spatially organizes and controls at a political level.
- 3 Perceived space –how civil society perceives its immediate and not so immediate environments–important given the way people’s environmental perceptions and attitudes construct and are constructed by everyday practice. (2004 [2002]: 604)

Britainek dioenez, hiru horien konbinazioak sortzen du *espazialitatea*, eta hirurek dute elkarren beharizana:

Geometric space is appropriated and thus made social through human settlement, but social space can never been entirely free of the physical friction of distance. And our value systems associated with our surroundings, selves affect the way space is later appropriated and colonized. (*idem*)

Dialektologiaren esparruko ikerketek sarri erakutsi dute ez dagoela geografia fisikoak dialektoetan izandako eraginari lotutako arau unibertsalak ateratzerik, eremua eta hiztun-erkidegoa zein den, eragina ez baita beti berbera.

Lehen begi-kolpean pentsa liteke mendi jakin bat muga geografiko izan daitekeela eta horrek muga linguistikoa ekar dezakeela. Badago horren adibiderik Euskal Herriko mendebalean: Durango aldeko mendiek eten geografikoa eta linguistikoa eragiten dute Durango aldeko eta mendebaleragoko ibarren artean (Zuloaga inprimategian-1); halaber Oñatiko mendialdearen bestaldeko Brinkola auzoaren artean eten linguistikoa aipatu izan da aspaldirik (Mitxelena 1981a: 525). Alabaina, gorago aipatutako eta hurrengo atal batean (§5.2.2.1.2) zehatzago aztertuko dudan Aizkorri mendilerro garaia ez da muga geografiko izan historikoki, ez eta Arabaren eta Gipuzkoaren arteko muga linguistiko ere.

Aurreko eremuetan ez bezala, Lekeitio eta Ondarroa, eta Ondarroa eta Mutriku artean ez dago oztopo geografiko nabarmenik. Are gehiago, hiru hiribilduok itsasora begira bizi izan dira, eta itsasoa portuz portuko konbergentzia-eremu izan daiteke (cf. Kahane 1951 eta hemengo §5.2.4.1.2). Aitzitik, Ondarroan azken mendean sortutako zenbait berrikuntza, lurralde barnealdetik Markinaraino iritsi direnak edo iristen ari direnak, ez dira ezker-eskuin hedatu, Bizkai osoan arrunt den *Rui* araua Lekeitiora zabaldu ez den legez (ez, behintzat jaurerrian oro har duen indarrarekin). Ezagun da, bestalde, alde nabarmena dagoela Ondarroako euskararen eta Mutrikukoaren artean.

Aldaketa linguistikoa hedatzen hasten direnean distantziak higadura eragiten duela printzipio orokor eta onartua da: sorlekutik urrundu ahala ahuldu egiten da ezaugarri

berrien indarra, eta horregatik dira gordetzaileago bazter-eremuak erdiguneetan sortutako berrikuntzei dagokienez. Ikuspegi edo hatsarre orokor horrek badu logika ikuspuntu geolinguistikotik, baina ez du ezaugarrien hedadura osoa azaltzen: $a + a > ea$ disimilazio-erregela Gasteiztik hedatu zelako ideia zabal onartua da gaur egun (§2.6.3 eta §2.6.4), baina azaltzeke dago zergatik zabaldu zen disimilazio hori Bizkai osora, baina ez Debatik eskuin dagoen kostaldera edo Tolosara, adibidez (begiratu §5.2.2.1.2 atala).

2.4.1.2. Azpi-atal honen hasierako aipuekin bat etorritik, aurreko banaketak eta fenomenoak azaltzeko geografia fisikoaren inguruko ikuspuntu estatikoa eta pasiboa gainditu behar da. Hizkuntzari dagokionez, geografia sozialak eta pertsonen espazioaz duten pertzepzioak berebiziko eragina izan dezakete.

Gizarte tradizionalaz zein modernoaz berba egitean ezaugarri linguistikoen hedadura azaltzeko aipatzen diren lekuek (topalekuak –azokak, lantokiak, aisialdirako lekuak...–, komunikazio-bideak –ibar eta igarobide naturalak, galtzada eta bide nagusiak, trenbide eta errepideak...–, gizarte-antolamenduari lotutakoak –hiri eta hiribilduak, auzuneak...– eta abar) osatzen eta egituratzen dute geografia soziala: “los estudios sobre la movilidad espacial de la población pueden servirnos para determinar dónde, cómo, y por qué se desplazan las lenguas, y, más concretamente, la difusión de los cambios lingüísticos y las innovaciones tanto en el espacio como en el tiempo” (Hernández-Campoy 2001 [1999]: 129).

Soziolinguistikaren esparruan indarra hartu duen aztergai interesgarrienetarikoa da hiztun-erkidegoena. Milroyk (1980) Belfasteko hiztun-erkidegoen egiturak hizkuntzan zituen ondorioak ikertu zituenetik nabarmen sakondu da ikerketa-esparru horretan; bereziki, erkidegoko kideek erkidegoaren barnean duten lekuak eta harreman-sareek hizkuntzan duten eraginaren inguruko hipotesi esanguratsuak aurkeztu dira (cf. Milroy & Milroy 1985, Milroy 1992b, Milroy 2004 [2002], Bergs 2005 eta abar).

Berrikuntza linguitikoak ez berez baina hiztunen artean ahoz aho hedatzen direla onartuta, ezin ageriago geratzen da zein garrantzitsuak diren hiztun-erkidegoen dinamikotasuna eta mugikortasuna bezalako alderdiak berrikuntzen difusio-gaietarako (Chambers 2002: 117): bere baitan bildua bizi den eta beste hiztun-erkidego batzuekin harreman gutxi dituen mugikortasun gutxiko taldeak zailago izango du berrikuntzak inora hedatzea eta berrikuntzak inondik hartzea. Bestalde, eguneroko bizimoduko zereginetatik eratorritako errutinen garrantzia ere azpimarratu izan da; izan ere, errutinizazioak egitura

soziala mantentzen laguntzen du Giddensen (1984: 376) arabera, eta hori sistema linguistikoa mantenteko lagungarri da (Britain 2004 [2002]: 612).

Hiztunen pertzepzioak duen eragina dela eta, Britainek berak aztertutako kasu paradigmaticoa da Ingalaterrako The Fens edo Fenland eskualdekoa. Sortaldeko kostaldeko lautada zabala da, iparralderagoko eta hegoalderagoko zenbait ezaugarri fonologikoren arteko trantsizioa geratzen da bertan eta inondik eramandako ezaugarrien konbinazio nahasiak ezaugarritzen du tokiko ingelesa (Britain 1997: 15). Historikoki eremu uholdetsua izan da The Fens, antza denez halako beldur mitiko bat eragiten zuen eremuaren bakardadeak eta paisaiak hiztunen begietara, eta pertzepzio horrek muga linguistikoa eragin zuen (Britain 2010: §7): muga geografiko fisikorik ez zegoen eremuan muga linguistikoa sortu zen (Britain 2004 [2002]: 606).

Geografia soziala denboran aldakorra izateak aldaketak eragin izan ditu hizkuntzan: merkataritza-harremanen gurpilean leku jakin batera begira egon daitezke beste eremu batzuk, eta harreman horiek ahultzen direnean beste eremu batzuetara begira jar daitezke. Sasoi batean hirigune edo topagune jakin batera begira zeuden hiztunak beste batera edo batzuetara begira jar daitezke, bestelako interakzio linguistikoak eraginez.¹⁷ Halaber, hiztunek inguru jakin batez duten pertzepzioa aldatzeak aldaketa linguistikoa eragin dezake: “If we investigate the geographies of routines and social networks, we can see how spatiality (space in its physical, social, and perceptual guises) helps construct functional zones, and, in a very real sense, communities of practice” (Britain 2004 [2002]: 612).

2.4.2. Geolinguistika zer den

Geografia eta hizkuntzalaritza uztartzen dituzten hainbat lanetan sinonimoak balira bezala erabiltzen dira *dialektologia* eta *geografia linguistikoa* izendapenak, nahiz eta, berez, ezberdinak diren edo ezberdintzat ere jo izan diren. Coseriu (1991 [1977]: 103) zioenez, geografia linguistikoak metodo dialektologiko konparatzaile bat besterik ez du izendatzen, non forma linguistikoak mapa espazialean kokatzen diren edo, gutxienez,

¹⁷ Egungo gizarte moderno eta aurreratueta gertatutako aldaketek espazioa deskribatzeko eta ulertzeko bestelako ikuspegiak eskatzen dituzte, nolana ere den: “According to Giddens (1991), the dynamism of modern life has the effect of separating place from space, removing social relations from local contexts via «abstract systems» such as currency, therapy and technology (Giddens 1991: 14-21). Once social life becomes «disembedded» in this way, «place becomes phantasmagoric» (Giddens 1991: 146); an individual’s experiential world is no longer the physical world in which he or she moves” (Johnstone 2010: 11).

aintzat hartzen den zer-nolako banaketa duten forma horiek hizkuntzen, dialektoen edo hizkeren espazio geografikoan.

Ildo beretik, hizkuntza (edo dialektoa, edo hizkera) eta geografia (edo espazioa) funtsezko aztergai eta abiapuntu izan direnez, tarteka *dialektologia* eta *geolinguistika* berdintzen duenik ere egon da, nahiz eta geolinguistikan aritzen direnek diziplina beregaintzat jo izan duten: aldagai soziolinguistikoa lantzen edo lehenesten duten ikertzaileen lanetan errazago eta ugariago aipatzen da geolinguistika.

Hernández-Campoyk (2001 [1999]: 141-142) dioenez, geolinguistika askotariko diziplinak biltzen dituen ikerketa-esparru berri xamarra da, eta hizkuntzaren eta geografiaren arteko harremanak ditu aztergai. Hizkuntzaren azterketa espaziala egiten du, hizkuntza dagokion testuinguru geografiko, sozial eta kulturalen aztertzen du:

De este modo, se convierten en temas de especial interés para los geolingüistas cuestiones relativas a las características espaciales del lenguaje, en general, y de las lenguas, en particular: la organización espacial del lenguaje, la distribución e interacción de las lenguas, su estructura espacial, la localización espacial de las comunidades lingüísticas y su comportamiento, y todo tipo de regularidades lingüísticas sobre el espacio tanto físico como social y su posible covariación. (*idem*, 143)

Definizioan ikusten denez, dialektologiaren eta geolinguistikaren aztergaiak eta interesak berberak edo bertsuak dira neurri batean (begiratu, halaber, Williams 1988 eta Mackey 1988), nahiz eta geolinguistika espazioaren eraginaren ikerketan espezializatuagotzat jotzen den eta *espazio* kontzeptu horri loturik espazio sozialari berebiziko garrantzia ematen zaion.

2.4.3. Oinarrizko bi kontzeptu: *isoglosa* eta *dialekto*

2.4.3.1. Isoglosa

Zuhaitz genealogikoa hizkuntzalaritza konparatistaren ekarpen nagusia den legez, *isoglosa* da dialektologiaren ekarpen eta lan-tresna nagusia, “and perhaps the only one which is accepted by all practitioners” (Chambers & Trudgill 1988 [1980]: 125). *Isoglosa* izendapena Bielenstein dialektologialari lituanarriak erabili zuen lehenengoz 1892an, meteorologiako *isoterma* kontzeptua oinarri hartuta, ezaugarri dialektalen mugak zehazteaz ari zela. Izan ere, isoglosa bakoitza ezaugarri linguistiko bati dagokio: ezaugarri linguistiko horren hedadura geografikoa irudikatzen du, funtsean; ezaugarri jakin bat nondik eta noraino erabiltzen den adierazten du.

Dialektologia tradizionaletik hainbat diziplinatarazabalduko kontzeptua den arren, kritikak ere jaso ditu isoglosak konstrukto teoriko gisa: “Bundles cohere only

approximately, there are apparently no general principles for grading a set of isoglosses, and they correlate with other cultural features only roughly” (*idem*). Beste alde batetik, isoglosen zurruntasuna kritikatu duenik ere badago: muga zurrunegia irudikatzen dutela eta trantsizio linguistikoak marra batekin irudika daitekeena baino askozaz mailakatuagoak eta lausoagoak direla azpimarratu izan da.

Isoglosa kontzeptuak jaso dituen kritiken argitan, nago arazoa ez ote den ikertzailearen ikuspegi-kontua konstruktio teorikoarena baino gehiago. Alegia, nago batzuetan ez ote den isoglosetan bilatzen eremu zabal bat irudikatzean lortu ezin den edo lortu ohi ez den zehaztasuna, edo beste batzuetan ez ote den isoglosa zurrunegi hartzen. Tesi honetan isoglosez eta muga dialektalez berba egitean, ni neu ikuspegi malgutik arituko naiz. Eremu zabala(k) d(it)ut lan honetan aztergai, eta helburua ez da $a + a > ea$ disimilazioa zein auzotako zein etxetaraino hedatzen den adieraztea: ez dago halakorik egiteko informazio nahikorik testu zaharretan. Nire helburua, ahalik eta zehatzena aritu arren, gehiago da ezaugarri esanguratsu jakin batzuen gutxi gorabeherako mugak zehaztea: ezaugarriak eremu zabalekoak ala ez hain zabalekoak diren ikustea, barnean zein eskualde edo ibar hartzen duten eta eskualde edo ibarren artean etenik irudika daitekeen ikustea. Ikuspegi malgu eta irekia erabiliko dut, ez zurruna. Isoglosez aritzean batago egiten dut Atwoodek zein Francisek emandako ikuspegi malguarekin, eta horrela erabiliko dut kontzeptua tesi honetan:

An isogloss should never be regarded as a dividing line between two usages; rather it is an indication of the approximate outer limit of a single feature (Atwood 1986 [1963]: 75)

The isogloss, therefore, does not mark a sharp switch from one word to the other, but the centre of a transitional area where one comes to be somewhat favoured over the other. The isogloss (...) must always be viewed as an abstraction and not a clear line on the land which one might step across from one dialect area into another. (Francis (1983: 5)

2.4.3.2. Dialektoa eta eremu dialektalak

2.4.3.2.1. Dialektologia zer den azaltzean (§2.1.1) agertutako gorabehera bertsuak agertzen dira dialekto bat zer den azaldu nahi denean. Definizio arrunki estandarra izan daiteke hizkuntza jakin baten azpi-zatiketak direla dialektoak (Chambers & Trudgill 1988 [1980] 3), hizkuntza beraren aldakiak direla (Petyt 1980: 11) edo, apur bat zehatzago, hizkuntza jakin baten erabiltzaileen komunitate osoaren barneko komunitate txikiagoek darabiltzaten hizkuntza-aldakiak direla (Francis 1983: 1). Arazo zaharra da, ordea, nola definitu eta mugatu behar diren dialektoak: zer-nolako ezaugarriak eta horietako zenbat ezaugarri baliatu behar diren eztabaida zaharra bezain gorabeheratsua izan da oso

aspaldian, eta ez dago erantzun matematiko eta objektiborik ematerik; hortik etorri dira, besteak beste, dialektologiari hainbatetan darion arbitrariotasun-kutsuari lotutako kritikak (Ivić 1962: 34).

Ezaugarri linguistikoen hedadura isoglosek irudikatzen dute, baina isoglosa guztiek ez diete norabide eta eredu berberei jarraitzen: Wenkerrek Alemanian 1876an hasitako ikerketaz geroztik da ezagun isoglosa bakoitzak eremu jakin bat mugatu edo bereizi ohi duela eta eskueran dauden isoglosa guztiak erabiltzeak nahastea besterik ez duela eragiten, isoglosak gainjarri egiten baitira, elkarrekin gurutzatuz eta sare interpretaezinak eratuz: batzuk eremu txikikoak dira, beste batzuk eremu zabalekoak eta beste batzuk bitartekoak; batzuk bertikalak dira eta beste batzuk horizontalak edo transbertsalak; batzuek bat egiten dute geografia fisikoarekin edo/eta sozialarekin eta beste batzuek ez dute, itxuraz behintzat, lotura garbirik faktore estralinguistikoekiko: “It is perhaps not too much an over-simplification to characterize the major problem of dialectology in terms of the question «What is a dialect boundary?»” (Davis 1977: 24); isoglosen norabideez eta eratu ohi dituzten irudi nahasgarriez, begiratu Ivić (1962) lan klasikoa.

Isoglosek *continuum*-ak irudikatu ohi dituzte eremu linguistiko osoan. Aldaketa apurka-apurka egiten da gehienetan, tartean eten linguistiko saihestezinak eragiten dituzten gorabehera geografiko eta soziopolitikoak ez daudenean behintzat. *Continuum* horietan arian-arian metatzen dira aldaketa linguistikoak ardatz horizontalean, ardatz bertikalean eta sozialean gertatzen den legez. Leku jakin batetik urrunduta ahala ikusten da hiztunek partekatzen dituzten (oro har, zenbat eta hurrago, orduan eta gehiago) ezaugarriez gain partekatzen ez dituzten beste batzuk ere agertzen eta metatzen hasten direla, eta apurka-apurka abialekuan zeuden ezaugarriak aldatu edo ordeztu egiten direla: ezaguna da Frantziako iparraldetik Italiako hegoalderaino herriz herri aldaketa linguistikoaz (ia) ohartu gabe igaro zitekeelako baieztapen ia karikaturesko klasikoa (cf. Petyt 1980: 14).

Continuum linguistiko horietan, bada, batzuetan elkarrengandik hurrago agertzen dira isoglosa batzuk, metatu egiten dira eremu jakin batean. Isoglosak metatzen diren eremuetan, bada, eten lektalak daudela proposatu ohi da, eta muga horien bidez definitu ohi dira dialekto, azpi-dialekto, hizkera eta abarrak.

Bereizketa lektala errazago egin ohi da irudikatutako isoglosak ezaugarri eskusiboei dagozkienean: A eremuan hiru ezaugarri eskusibo badaude eta B eremuan horiek ez badaude edo horiei kontrajartzen zaizkien beste ezaugarri eskusibo batzuk

badaude, aiseago definitzen dira eremuak. Kasu horietan, beraz, ezaugarrien eskusibotasunak nabarmen errazten du hizkuntzalariaren lana, eta badago halako banaketa-proposamenetan ezaugarri eskusiboak bakarrik erabili behar direla defenatu duenik (cf. Senn 1966: 148). Proposatu diren banaketa guztietan, ordea, ezin izan da eskusibitatearen irizpidea baliatu, eta halakoetan ez ezaugarri jakin baten edo batzuen eskusibitateari, baina ezaugarri-sorta baten eskusibitateari erreparatu izan zaio: Ascolik (1876: 387) aipatutako *particolare combinazione*-aren eta *simultanea presenza*-ren irizpidea baliatu izan da; alegia, eremu eta garai jakin batean ezaugarrien konbinazio eskusibo bat egotea nahikotzat jo izan da eremu hori (azpi)dialektaltzat jotzeko. Adibidez, Hickeyk (1999) Irlandako banaketa linguistikoak aztertu zituenean ez zuen ezaugarri eskusiborik aurkitu uhartearen ekialdeko kostaldean; baina, zazpi ezaugarri fonologikoren konbinazio eskusiboa ikusita eremu dialektal bat bereizi zuen Dublindik hego-ekialdera.

2.4.3.2.2. Dialektoak mugatzearen eta definitzearen inguruko zalantza eta gorabeherak dialektoen euren izatearen inguruko zalantzetatik datoz: XIX. mende amaierako dialektologialarien artean galdera arrunta zen dialektoak benetan existitzen ote diren, eta XX. mendean emandako azalpenek aporia eragin dute (Montes 1982: 20). Erantzun horien artean ezagunena Coseriu emandakoa da:

En efecto, la existencia de los dialectos no implica la existencia de límites dialectales, así como negar estos límites no implica afirmar la no existencia de los dialectos. Los dialectos no existen *antes*, sino *después* de la comprobación de las áreas en las que se registran los fenómenos concretos del hablar; no son *cosas* sino *abstracciones*, sistemas de isoglosas que se establecen por encima de la multiformidad del habla. Y entre los dialectos puede haber, naturalmente, interferencias y características comunes; es decir, que ciertas isoglosas abarcan más de un dialecto: todo depende de las isoglosas que, por convención, se adopten como límites dialectales. (1957: 137)

Ikertzaileak isoglosa jakin batzuk hautatu eta dialektoak horien arabera definitzetik etorri zaio dialektologiari arbitrariotasun-kutsua:

There is no basis for determining the nature or the extent of similarity required for the delimitation of dialect areas. Now the well-quoted notion of “a major bundle of isoglosses” can be seen in perspective -the dialectologist, and not a general theory, determines what major means; and the dialectologist, while he recognizes that some isoglosses are more important than others, still operates on the highly unscientific principle of apparent similarity. (Davis 1977: 25)

Una classificació objectiva, exhaustiva, matemàtica, dels dialectes resulta pràcticament impossible per les variables que entren en joc (polimorfisme, diacronia en la sincronia, sinonímia, etc.) i, en general, per les ja sabudes misèries de la geolingüística, base d'aquestes divisions. (Veny 1985: 38)

Ikertzaileak bere ikergaira makurtu ohi ditu erabakiak hartzeko irizpide metodologikoak, beraz, baina horrek ez dakar edozer eta edonola egin daitekeenik, lanaren emaitzak fidagarriak izango badira behintzat. Dialektologiak baditu oinarritzko konstrukto

teoriko-metodologikoak, baina beste diziplina batzuetan sortutako eta findutako irizpideak ezinbestean hartu behar ditu aintzat: teoria linguistikoa bazter utzita diharduen dialektologialariaren jardunak, adibidez, aukera asko ditu *ad hoc* emandako azalpenez jositako irakurketa anabasatsuak sortzeko.

Tesi hau dialektologia historikoaren esparruan kokatzen da, eta ezinbesteko iritzi diot beste diziplina batzuetan sortu eta erabili diren ikuspegi eta irizpideak erabiltzeari: sarritan badirudi diziplinak zein bere aldetik dabilzala eta batean erabiltzen diren hatsarreak erabiliz gero ez dagoela beste bateko hatsarrerik erabiltzerik. Nik neuk eklektizismoz jokatu dut lan honetan, ikerketa dialektologikoek hala behar dutelakoan: hizkuntzalaritza historiko-konparatistak, geografiak, historiak, soziolinguistikak, tipologiak, geografia linguistikoa zein geolinguistikak emandako lanabesak baliatu ditut ezaugarri linguistikoa hautatzeko eta haztatzeko, eta horien araberrako erabakiak hartzeko.

Dialektoak bereizteko, funtsean gai horiei buruzko literaturan batzuetan zuzenean eta sarritan zeharka besterik azaltzen ez diren irizpideak baliatu ditut tesi honetan. Zehazki, ikuspegi kualitatiboa lehenetsi dut, era honetako ikerketetan eredu hori egokiagoa delakoan: hizkuntzalari estrukturalistek ikusi legez, isoglosa batzuk egiturazkoak dira, eta horiek zehatz ditzakete mugak (Ivić 1962: 34). Dialektologia kuantitatiboa eta Dialektometriaren aritzen direnek kantitatea lehenesten dutela ezagun da, baina hemen darabildan ikuspegitik ezin koka daitezke ezaugarri linguistiko guztiak maila berean; dialektologia tradizionalen zein hizkuntzalaritza historikoan dabilzanez gain, soziolinguista zenbaitek ere argi adierazi du isoglosa guztiak maila berean kokaezinak direlako ideia:

It is undeniable that some isoglosses are of greater significance than others, in the sense that some mark distinctions ‘felt’ to be culturally important while others do not, some persist while others are transitory, and the like. It is obvious that some bundles are more significant than others, in the same sense. (Chambers & Trudgill 1988 [1980]: 112)

Ikuspuntu kualitatiboa lehenetsita, beraz, lan honetan arreta berezia eman diet Caminok (2004a: §4) zerrendatutako zazpi irizpide metodologikoei: (i) ezaugarrien eskusibotasuna; (ii) geografiaren iragazkia edo ezaugarriak bateratzaile edo banatzaile diren; (iii) ezaugarrien hedadura; (iv) ezaugarrien izaera kronologikoa edo berrikuntza, arkaismo ala hautu diren; (v) kronologiaren baldintza edo datu garaikideak ala hainbat garaitakoak erabiltzen diren; (vi) ezaugarrien sistematikotasuna; (vii) ezaugarrien fidagarritasuna.

2.4.3.2.3. Muga dialektalak ezartzeko metodo kualitatiboa lehenesteak ez dakar kantitateari dagozkion irizpideak baztertzea; ez guztiz, behintzat. Venyk (1991: 214) zioenez, metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa elkarren osagarri izan daitezke, eta bietako bat hautatzea txanpon baten alderdietako bat erakustea da, eta bestea ostentzea. Ikuspegi kuantitatiboa dela eta, erabili beharreko ezaugarri-motarena bezain auzi zaharra da erabaki arealak hartzeko erabili beharreko ezaugarri-kopuruarena: “How many grains of sand does it take to make a heap? How many birds are needed to constitute a flock? How many students are required to make a class?” analogiak proposatu zituen Campbellek (1985: 29).

Arestian aipatutako baldintzak edo baldintza gehienak betetzen baditu, ezaugarri bakar bat nahikoa izan daiteke erabaki areal bat hartzeko: “The question of how many features are sufficient to delimit an area (...) relates to the weight of each individual feature” (Aikhenvald & Dixon 2001: 12). Nik neuk Bizkai sartaldeko eta sortaldeko euskara bereizteko nahikotzat jo nuen (Zuloaga inprimategian-1) **edun*-en adizkietako *-de* NOR pluralgilea, adibidez, eta *jakin & jagin* aditz laguntzailea Arabako euskararen besterik ez da lekutu (Lakarra 2011: 199, Ulibarri 2015: §4.2.3.14, Mounole inprimategian). Ezaugarri bat edo gutxi batzuk hartzea lagungarri da, halaber, ardatz bertikalari begira erabakiak hartzeko (cf. Bowern & Koch 2004: 3).

Aurrekoak esanda, nolana ere den, aitortzekoa da mugak ezartzeko ezaugarri bat baino gehiago erabiltzeak areago sendotzen duela ikertzailearen erabakia, are maila gramatikal ezberdinetako ezaugarriak badira.

2.4.4. Azalbideak ezaugarrien hedaduraz eta banaketaz

2.4.4.1. Uhinen teoria

Schleicherrek indoeuroperaren bilakabidea irudikatzeko *Stammbaum*-aren irudia proposatu eta gutxira entzun zituen lehenbiziko kritikak. Hain zuzen, Schmidtek eta Schuchardtek gogor kritikatu zuten aurrekoaren proposamena, errealitate linguistikoaren zenbait alderdi esanguratsu ez direlako islatzen zuhaitzaren sinpletasun eskematikoaren bidez. Zuhaitz genealogikoari egin izan zaizkion kritikak hiru multzo nagusitan sailkatu zituzten Geisler & List (2013: 118-120) ikertzaileek: arazo praktikoak (hizkuntza batzuetan aplikatzeko zailtasunak), justifikazio-arazoak (ereduaren errealismoa eta ereduak berak eragiten dituen sinplifikatzeak) eta egokitasun-arazoak (hizkuntzen historia deskribatzea).

XIX. mendearen bigarren erdian bertan proposatu zuen Schmidtek *Stammbaum*-ari kontrajartzen zaion *Wellentheorie* edo *uhinen teoria* ezaguna,¹⁸ nahiz eta ez zuen uhinak irudikatzen modu zehatza azaldu eta oraindik ere horrek izan beharreko itxuraren inguruko eztabaidarik baden (cf. Jacques & List 2019: §2.2).

Schleicherri eginiko kritikak eta *Stammbaum*-aren eta *Wellentheorie*-aren arteko aldea hizkuntzalaritza historiko-konparatistaren eta dialektologia tradizionalaren (sasoi bateko) tira-biren eta ikuspegi berezien adibide paradigmaticoa (izan) da. Adabegika zatitzen eta hazten den zuhaitzaren irudiak aldaketa linguistikoa azaltzeko funtsezko alderdi bat uzten du kanpoan: aldaketa guztiak ez dira goitik beherakoak, guztiak ez dira ardatz bertikalean gertatzen. Hiztun-erkidegoen harremanen artean ere konbergentzia-dinamikak sortzen dira espazioan, eta horien ondorioz gertatzen eta hedatzen diren aldaketa linguistikoek ez dute lekurik Schleicherren zuhaitzean: “Schmidt-en uhinen hipotesiaren onura izan zen, arbolaren irudiak zekarren hizkuntza-azpimultzoen hasierako nozio gorputzik gabekoari, egitura geografiko bat erantsi ziola” (Camino 2009: 52).

Uhinen teoriak uretara jaurtitako harri batek eragiten dituen uhinen irudierekin parekatu izan da: harria uretan sartzen den gunean sortzen dira uhinak, eta kontzentrikoki hedatzen dira erdigune edo *mittelpunkte* horretatik, inguru guztira zabalduaz baina, era berean, *mittelpunkte*-tik urrundu ahala indarra galduaz harik eta guztiz apaldu eta desagiten diren arte. Hizkuntzako berrikuntzekin berdina gertatzen da Schmidten ustez: gune jakin batean sortzen dira berrikuntzak (*gune fokal* deritza), eta handik hedatzen dira; zenbat eta gune fokal horretatik hurbilago, hainbat handiagoa izango da berrikuntzaren indarra auzotasun-efektu hutsez (Hernández-Campoy 2001 [1999]: 283); halaber, beraz, gune horretatik urrunago, berrikuntzak ahulago iristen dira edo, zuzenean, ez dira iristen: horrekin lotzen da eremu geolinguistikoki isolatueta eta sarbide zailekoetan arkaismo gehiago metatzeko joera. Azken batean, bi eremuren edo guneren artean dagoen distantzia geografikoak distantzia linguistikoan eragiten duela azaltzen du Schmidten proposamenak, Schleicherrenak legez hainbat kritika jaso baditu ere: “En dépit de ses limites, la théorie des vagues demeure néanmoins intéressant en ceci qu’à la différence du modèle généalogique, qui est de nature purement historique, elle place pour la première fois la question dialectale sur le terrain de la dispersion géographique” (Petit 2007: 31).

¹⁸ Cf. “Ich möchte an seine stelle das bild der welle setzen, welche sich in concentrischen mit der entfernung vom mittelpunkte immer schwächer werdenden ringen ausbreitet” (Schmidt 1872: 25).

Hala zuhaitzaren irudia nola erdigune batetik hedatzen diren uhinena azalpen-eredu mugatuak dira. Baten zein bestearen arazo nagusiak irudien soiltasunari dagozkie, soilegiak baitira hainbat eratako prozesuak konbinatzen dituzten egoera linguistikoak irudikatzeke: zuhaitz genealogikoa eta uhinen teoria ez dira nahiko hizkuntzen bilakabidearen funtsa azaltzeko (Birnbau 1985: 1). Eredu edo irudikatze biak dira baliagarriak bilakabide eta egoera linguistikoak irudikatzeke, eta, are gehiago, bateraezinak balira bezala begiratu edo ikusi beharrean elkarren osagarri izan daitezkeela pentsatuta ikertzaileak ez du zertan bietako bakar bat hautatu: errealitate linguistikoaren irudi osoagoa lor dezake.

2.4.4.2. Neolinguisten hatsarreak

XIX. mendearen amaieraz geroztik geografia linguistikoak piztutako interesak eta arlo horretan ari zirenek neogramatikoen arauak errefusatu eta bestelako azterbideak bilatzeak ekarri zuten 1920ko hamarkadan *neolinguistika* sortzea; zehazki, Bertoniren eta Bartoliren *Breviario de neolinguistica* (1925) eta (batez ere) azkenaren *Introduzione alla neolinguistica* (1925) jo izan dira diziplinaren oinarritzat, zenbait ideia goragotik zetozen arren;¹⁹ aurrekariez, lehenengo urteetako bilakabideaz eta harrera kritikoaz begiratu Jordan (1967: 493-503).

Lehenengo hamarkadetako dialektologiaren kutsu historizistaren gurgpilean, geografo linguistikoek aldaketa linguistikoaren jatorrian, difusioan eta ezaugarrien arteko kronologia erlatiboan jarri zuten arreta besteak beste (Chambers & Trudgill 1988 [1980]: 183). Bada, neolinguistek, Bartoli buru, ezaugarri linguistikoaren banaketa geografikoak ezaugarrien kronologiari, jatorri geografikoari eta ezaugarriak sortzeko arrazoiei buruzko informazioa eman zezakeela proposatu zuten; zehazki, neogramatikoek lege fonetikoak proposatu zituzten legez, geografia linguistikoari lotutako arauok proposatu zituen Bartolik (cf. Mańczak 1988: 349, Petit 2007: §IV, Camino 2009: 146-147):

I. Bi egoera linguistiko daudenean eta horietako bat bestea baino lehenago lekutzen denean, hori izan ohi da zaharrena.

II. Eremu geografiko isolatuek, komunikazio-bideetan oztupo gehiago dituztenek, arkaismo gehiago bildu ohi dituzte oztoporik gabeko komunikazio-bideak dituztenek baino.

III. Bazterretan (periferian) erdialdeko eremuetan baino arkaismo gehiago bildu ohi dira.

IV. Ezaugarriak zenbat eta hedatuago, hainbat eta zaharrago izan ohi dira.

¹⁹ Cf. “Certains de ces principes sont un écho avec les conceptions antérieures de Schmidt et de Meillet, en ce qu’ils soulignent l’archaïsme des zones périphériques et des zones isolées ainsi que les limites géographiques des innovations” (Petit 2007: 33).

V. Hizkuntzak hedatu diren lurralde berria(goa)k berritzaileago izan ohi dira.

VI. *Fase sparita*-n dauden ezaugarriek emankor direnek baino aukera gehiago dituzte arkaismo izateko.

Aurreko proposamenek arrakasa bezainbeste kritika bildu zituzten XX. mendean zehar: *Breviario*-ari eta *Introduzione*-ari buruzko iruzkin zein kritika andana egin zen 1925-1930 bitartean (cf. Jordan 1967: 501), Hallek (1946) *Language*-n argitaratutako kritika “eraso”-tzat jo zuen Bonfantek (1947) eta erantzun luzea eman zion neogramatikoen eta neolinguisten ikuspegiak berrogeita hamaika puntutan parez pare jarrita. Mendearen bigarren erdian ere kritika nabarmenak egin izan dira (cf. Chambers & Trudgill 1988 [1980]: §11.2, Mańczak 1988, Polomé 1990, Trudgill 1990 eta abar). Aitzitik, aurreko ideiak baino gehiago, ideia horiek zurruntzat edo sistematikotzat jotzea izan da kritika-gai; alegia, neolinguisten baieztapenak arautzat jo izana, eta ez joeratzat:

Son muy relativas, y, si exageramos su importancia o, sobre todo, si las declaramos infalibles, tal como Bartoli hizo en ocasiones, pierden su único valor incontestable: el de ser unos criterios prácticos con la ayuda de los cuales podemos distinguir y clasificar innovaciones lingüísticas. (Jordan 1967: 497, 403. oin-oharra)

Geografia oinarri duten proposamenak bakarrik hartuta, egia da edozein hizkuntzatan aurki daitezkeela Bartoliren proposamenak baieztatzen dituzten egoerak. Erdialdean sortutako berrikuntzetako batzuk bazterretaraino iritsi ez izana ez da harrigarria, adibidez; halaber, hedadura zabaleko ezaugarriak zaharrak izateko aukera asko edo gehiago dituztela onartua da oro har. Aitzitik, aurreko egoeren aurkako hainbat salbuespen biltzea ere ez da zaila. Bazterretan dauden ezaugarri guztiak ez dira arkaismo, bazterretan ere sortzen baitira berrikuntzak, eta erdigunean dauden ezaugarri guztiak ez dira berrikuntzak: arkaismoak ere izan daitezke. Esate baterako, badirudi txistukarien neutralizazioa Euskal Herriko mendebalaren mendebalean indartu zela inon baino lehenago, eta handik eskuin hedatu zela (§5.2.4.1.1.3); bestalde, $a + a > a$ soiltzea erdialde zabalean gertatu da, baina Gipuzkoako hizkera batzuetan nabarmen berandura arte (gaur egunera arte) iraun du *aa* bikoitzak (§5.2.2.2.2).

Beste alde batetik, eremu isolatuek eta bazter-eremuek zenbait ezaugarri parteka ditzaketen arren (nabarmenena, beste eremu batzuetan sortutako berrikuntzek zailtasun handiagoak izan ditzaketela horietaraino hedatzeko), bereizi egin behar dira: Gipuzkoako erdialdeko herri txikiak isolatuago egon zitezkeen historikoki Bizkaiko hego-mendebalekoak eta Aiara aldekoak baino, azken horietatik hegoaldeko merkataritza-bide

garrantzitsuak igaro baitira aspaldirik, eta horien bidez lotura izan baitute iparralderagoko zein hegoalderagoko lurrekin (§5.2.2.1.2).

Hockek (1991: §15.2.24) eremu fokalak, trantsizio-eremuak eta eremu gordetzaileak bereizi zituen geografia linguistikoaren esparruko literaturari jarraikiz; baina, ondo azpimarratu zuen hiru izendapen horiek erlatiboak direla, besteak beste dialektoak ez direlako aldagaitzak eta dinamika dialektalak, bestelakoak legez, etengabe aldatzen direlako: “For this reason it seems preferable to determine the focal, relic and transition areas for a given change on the basis of the specifically relevant evidence, rather than on the basis of preconceived notions as to what should be central or outlying/remote areas” (*idem*, 441).

Neolinguisten baieztapenak, beraz, urrun daude neogramatikoek arau fonetikoetarako proposatutako sistematikotasunetik eta zurruntasunetik: arazoa, hain zuzen ere, neolinguisten proposamenak arautzat jotzean edo itsu-itsuan eta automatikoki aplikatzean datza (begiratu hemengo §2.4.4.2 atala). Ezer egitekotan, joera orokortzat jo daitezke, baina banan-banan aztertu behar dira erabiltzen diren ezaugarriak, ondorio okerrak edo nahasiak saihestuko badira. Eremuak definitu eta kalifikatu baino lehen, ezaugarriak aztertzea da funtsezkoa; izan ere, “gordetzaileak eta berritzaileak hizkuntza-ezaugarriak dira gehiago dialektoak baino” (Camino 2009: 173).

2.4.4.3. Geolinguistikaren ekarpenak: difusio-eredu hierarkikoa

2.4.4.3.1. Uhinen teoriak arrakasta izan zuen hasiera batean, baina denborak aurrera egin ahala zuhaitzaren metaforari loturik aipatu izan diren gabezia bertsuak egotzi izan zaizkio: aise ikusteko moduan erakusten du zein izan bide den berrikuntza linguistikoaren sorlekua eta nola ahuldu den gune horretatik urrundu ahala. Alabaina, azaltzeke edo ikusteke uzten ditu zein izan diren difusioaren ezaugarriak eta egitura, nola eta non zehar heldu zen benetan berrikuntza gerora lekutatutako lekuetara. Uhinen teoriak difusio-prozesuaren emaitzak erakusten ditu ezer erakustekotan, ez difusio-prozesua nolakoa izan den: azken hori azaltzeko proposamen zehatzak geolinguistikaren eta soziolinguistikaren esparrutik heldu dira, batez ere, azken hamarkadotan.

2.4.4.3.2. Geolinguistek erabilitako eskemen arabera (Hernández-Campoy 2001 [1999]: IV.5.1.c atalari jarraitzen diot hemen; begiratu, halaber, Bergs 2006: §2.2), ezaugarri linguistikoak bi modutara heda daitezke: espantsio hutsez edo birkokatuta.

Espantsioa gertatzen denean, A eremuan dagoen ezaugarri bat B, C... eremuetara hedatzen da, Atik desagertu gabe (eta, askotan, are An gehiago indartuta): espantsio hori lineala izan daiteke, bai eta uhin kontzentrikoen bidezkoa edo irregularra ere. Bestalde, birkokatzea gertatzen denean, A eremuan dagoen ezaugarri bat B, C... eremuetara hedatzen da, baina Atik desagertuta: ezaugarria lekualdatu egiten da, jatorrizko lekutik desagertuta inora aldatzen da.

Beste alde batetik, difusioaren egiturari begiratu behar zaio, eta kasu honetan ere bi eratakoa izan daiteke: epidemikoa edo hierarkikoa.

Lehenengoa orain arte aipatutakoa da, funtsean: berrikuntzak sortu diren guneeetatik hurreko lurraldeetara hedatzen dira lehenbizi, eta ondoz ondoko ibar eta eskualdeetan gaindi hedatzen dira ondoren; erabat lotuta dago auzotasun-efektuarekin. Difusio hierarkikoa gertatzen denean, berriz, berrikuntza ez da hedatzen ondoz ondoko lurraldeetan barrena: demografikoki maila berean edo bertsuan dauden biztanleria-guneen artean hedatzen dira lehenbizi, eta hortik “jaitsi” egiten dira, ur-jauziaren irudiarekin bat, biztanle gutxiagoko guneeetara harik eta bizilagun gutxi edo/eta sakabanatuak bizi diren eremuetara iristen diren arte.²⁰

Hurrengo lerroetan, bada, difusio hierarkikoaren inguruko argibideak izango ditut ardatz, geolinguistikak ekarritako ikuspegi berri nabarmenenetako bat baita, azken urteotan eredu horrek ere kritikak jaso baditu ere.


2.4.4.3.3. XX. mendearen amaierara arte uhinen teoria orokorraren eta difusio epidemikoaren irudiaren bidez azaltzen ziren difusio-kasuetarik asko zehatz aztertu direnean ikusi da benetan difusio hierarkikoa gertatua zela.

1970eko hamarkadaren hasieran, Hägerstrand (1952, 1967, 1969) geografo suediarrek berrikuntza teknikoaren difusio soziokulturala azaltzeko baliatutako irizpideak ezagutu eta hizkuntzalaritzaren esparrura ekarri zituen Trudgillek: “I want to suggest that, if dialectologists adopt the descriptive methods of geographers and sociolinguists (...) they may be in a position to attempt to develop a similar geographical diffusion model for language” (1974: 232).

²⁰ Azken horri loturik, hemen *eredu hierarkiko* izendapena erabiliko dut, baina maila bereko biztanleria-guneen arteko interakzioaz berba egitean *grabitatie-eredua* aipatzea ere arrunta izan da: “la asunción es que el movimiento de personas, bienes o información entre dos ciudades depende del tamaño y la distancia entre las mismas” (Hernández-Campoy 2001 [1999]: 132); alegia, biztanle gehiago dauden hirietan handiagoa da indar grabitatorioa, eta horrek sinergia eta lotura handiagoak eragiten ditu eremu horren inguruan eta artean.

Difusio-eredu hierarkikoan berrikuntza sortu den gunearen eta gune edo eremu hartzaileen arteko distantzia fisikoa ez da hain garrantzitsua; garrantzitsuagoa da guneen dentsitate demografikoa:

The diffusion of innovations is a function, not only of the distance from one point to another, as with the wave model, but of the population density of areas which stand to be affected by a nearby change. Changes are most likely to begin in large, heavily populated cities which have historically been cultural centers. From there, they radiate outward, but not in a simple wave pattern. Rather, innovations first reach moderately sized cities which fall under the area of influence of some large, focal city, leaving nearby sparsely populated areas unaffected. Gradually, innovations filter down from more populous areas to those of lesser population, affecting rural areas last, even if such areas are quite close to the original focal area of the change. (Wolfram & Schilling-Estes 1998: 145)



11. irudia. Eredu hierarkikoa eskematikoki irudikatuta (Wolfram & Schilling-Estes 1998: 145)


Peter Trudgill izan zen hizkuntzalaritzaren esparruan berrikuntzen eredu hierarkikoa zabal azaltzeko eta defendatzeko lehenengo lan modernoaren egilea,²¹ eta [R] ubularra Europako mendebalean eta iparraldean hizkera zainduan nola hedatu zen azaltzen duen adibidea paradigmatico bihurtu da difusio-gaiei buruzko literaturan. Trudgillen (1974: 218 eta hurrengoak) arabera, ebakera ubularra Paristik hedatu zen beste herrialde batzuetako hirietara.²²

²¹ Aurrekariak aurki daitezke hainbat tradizioetan; Bach (1934) eta Grootaers (1942) aipatzen ditu Taeldmanek (2005: 265-266), eta euskarari dagokionez, antzekoak aipatu zituen, sakondu ez bazuen ere, Mitxelenak (FHV 231 & 1968: 345) txistukarien neutralizazioaren difusioaz aritzean.

²² Ondoko lanen batek zalantzapean jarri ditu Trudgillen irakurketa batzuk: Wieseren (2001) ustez, ebakeraren jatorria poligenetikoa izan zitekeen Alemanian.

The diffusion of this feature as an innovation has indeed taken place through gradual spread as far as large parts of France and adjacent areas of Belgium, Switzerland and south-west Germany are concerned, regardless of language frontiers. But it also indicates that, elsewhere, diffusion has taken the form of the jumpling of uvular r from one large urban centre to another, particularly The Hague, Cologne, Berlin, Copenhagen, Kristiansand and Bergen. (Trudgill 1974: 221)

Ikuspegi berriaren alde, gainera, bi mapa-ereduok kontrajarri zituen Trudgillek. Lehenengoan ebakeraren eremua adierazten da, baina ez dira jasotzen difusio-prozesua azaltzeko aldagai garrantzitsuak. Bigarrenak, aldiz, jaso egiten ditu:



12. irudia. [R]-ren hedadura azaltzeko bi mapa-eredu (Trudgill 1974: 219-220)

Trudgillek hautatutako ezaugarriaren difusioan bi geruza bereiz daitezke, beraz. Lehenik eta behin difusio hierarkikoa gertatu zen; hots, biztanle gehiago metatzen ziren hirien artean gertatu zen difusioa lehenbizi. Ondoren, difusio hori kutsadura bidezko difusio-prozesu batekin osatu zen. Hain zuzen ere, “the joint effect of the two diffusion patterns and the dominance of the hierarchical over the contagious pattern has been demonstrated again and again in the geolinguistic literature of the last decade” (Taeldman 2005: 264).

Difusio-eredu hierarkikoa difusio-prozesuei buruzko xehetasun ugariago eman izan ditu arrakastaz aplikatu izan denean: Trudgillen ondoko lanen ondoren hainbatetan aipatu dira Callaryk (1975) Illinoisen, eta Gerritsenek eta Jansenek (1980) Herbehereetan egindako ikerketak; halaber, gogoan hartzekoak dira Hernández-Campoyk (2003, 2004 besteak beste) Murtzian egindakoak.

2.4.4.3.4. Trudgillen 1974ko lanaz geroztik hainbat zale erakarri zituen eredu hierarkikoak difusioaren azalpen gisara, eta esparru horretan egindako ikerketek beste eredu bat ere bazela erakutsi dute: ezaugarri guztien difusio-ereduak ez dio jarraitzen goitik beherako hierarkiari; hierarkia horren aurka egiten duen difusio-eredurik ere badago (Bailey *et al.* 1993: 361). Bestela esanda, joera orokorraren aurka, batzuetan landa-eremuetatik eta herrietatik hirigune eta hirietara hedatzen dira berrikuntza linguistikoak: hori erakutsi zuten Baileyk eta bestek (1991), eta proposamen horren bidez errazago azaldu dut beheko bokalaren asimilazioaren hedadura modernoa tesi honetan (§5.2.4.2).

2.4.4.3.5. Geolinguistikan, soziolinguistika bariasionista modernoan legez, hiriek eta hirietako dialekto edo/eta soziolektoek berebiziko garrantzia izan dute, askotariko egoera linguistiko konplexuak sortzen baitira hirietan: dialektoen arteko ukipena eta orekatzea, berrikuntza prestigiotsuen sorrera eta hedatzea,²³ hiztun-erkidegoen auzokako egitura itxi eta irekiagoen konbinazioa, eta abar.

Taaldmanek (2005: §3) aldaketa linguistikoaren dinamiketan bi eratako funtzioak bereizi zituen hiriak zirela-eta: alde batetik, berrikuntza linguistikoaren sorgune izan daitezke; beste alde batetik, beste inon sortutako berrikuntzen hartzaile izan daitezke. Are gehiago sakonduta, *urban insularity* deitu zuenaren barnean hiru eredu bereizi zituen (*idem*, 269):

(i) Berrikuntza sortzen duen hiria foku berritzaile izan daiteke, eta dibergentzia linguistikoaren sorgune.

(ii) Berrikuntza inondik hartzen duen hiria foku berritzaile izan daiteke era berean, eta dibergentzia- zein konbergentzia-iturri.

(iii) Inondiko berrikuntza errefusatzen duen hiria gune gordetzailea da, eta dibergentzia eragiten du.

2.4.4.3.6. Aurreko azpi-ataletan erakutsitakorekin bat etorritik, ezaugarri linguistikoaren difusioa arrakastaz azaltzeko ezinbestekoa da eredu bat baino gehiago aintzat hartzea: eredu hierarkikoak ordeztu edo osatu egin zuen uhinen teoriaraino oinarritutako eredu epidemiko soilegia, baina hirien bizindar demografikoan oinarritutako ereduak ere jaso du

²³ Britainek gogorarazten duenez, soziolinguistikak hiriei emandako gehiegizko lehenetasuna lehenetasun, landa-eremuetan ere arrunki gertatzen dira aldaketak: “The outmoded methods of traditional dialectology possibly stigmatized research in rural communities and they so became avoided as a focus of analysis. This urbanism still prevades much of the discipline, however: the rural is still portrayed as the insular, the isolated, the static, as an idyll of peace and tranquility rather than as composed of heterogeneous communities, of contact, of change and progress, and of conflict (...) But language varies and changes in rural as well as urban communities” (Britain 2004 [2002]: 607-608).

kritikarik; izan ere, ez du bereziki aintzat hartzen ezaugarriak hedatzean garrantzitsutzat jo izan den alderdi sozio-psikologikoa.²⁴

Bada erantzun konplexuko galdera bat geolinguistikaren esparruan: zergatik hedatzen dira berrikuntza batzuk beste batzuk baino zabalago sorgunea berbera izan arren? Difusio epidemikoaren zein hierarkikoaren esparruko azalpenek ezinezko dute batzuetan horri erantzutea, eta halakoetan alderdi sozio-psikologikoan pentsatu behar da ezinbestean (Jahr 1988: 334, Taeldman 2005: 278), nahiz eta alderdi horren azterketa nabarmen zailtzen (edo, zuzenean, ezinezko bihurtzen) den denboran atzera egin ahala: informazio zehatza ematen duen azalpenak egon ezean, aieru hutsak izan ohi dira iraganeko komunitate linguistikoaren pertzepzioen inguruko iritziak, bai eta lehenago (§2.3.1.3) aipatutako anakronismoetan sartzeko zuzeneko bidea ere.

Hain zuzen ere, faktore psiko-sozialei eta intralinguistikoei gero eta garrantzi handiagoa ematea eredu hierarkikoen gainbehera eragiten ari da azken urteotan Taeldmanek (*idem*, 283) dioenez. Halaber, bizimodu-ohituretan gero eta azkarrago gertatzen ari diren aldaketek neurgaitzago bihurtu dituzte pertsonen arteko askotariko harremanak: maila guztietan komunikatzeko aukera eta lanabes berriek erabat eraldatu, erlatibizatu eta deuseztatu egin dituzte *distantzia* eta *hiztun-erkidegoa* bezalako kontzeptu oraintsu arte baliagarriak.

2.4.5. Genealogiaren eta geografiaren artean: “Raum/Zeit” eredua

Aurreko puntuetan azaldutakoarekin bat, hala zuhaitz genealogikoa nola uhinen teoria hankamotz geratzen dira zein bere aldetik erabiltzen badira: alderdi kronologikoa eta geografikoa bateratuta lortzen den eredu dinamikoak errealitate linguistiko konplexuaren irudi osoagoa eman ohi du, sailkapenak egitean eta azalpenak ematean irizpideei loturik ager daitezkeen arazoak arazo.

Indoeuoperaren zuhaitzaren berreraiketan agertzen diren zenbait arazori aurre egiteko, Meid alemaniarrek bestelako ikuspegia eman zuen. Aitzinhizkuntza berreraikiez aspaldirik eginiko kritika da hizkuntza-egoera homogenea irudikatzen dutela, barnebariaziorik gabekoa. Bada, Meidek ikuspegi hori aldatzea proposatu zuen, eta indoeuopera hizkuntza naturaltzat jotzea: “ein nach Raum un Zeit differenziertes Gebilde mi höchs unterschiedlicher Konsistenz” (1975: 210, *apud* Petit 2007: 41); alegia,

²⁴ Rogersek (1962) berrikuntzen (oro har, ez linguistikoak) difusioan eta transmisioan eragiten zuten bost faktore aipatu zituen: (i) fenomeno bera, (ii) komunikazio-bideak, (iii) distantzia, (iv) denbora eta (v) egitura soziala.

espazioan eta denboran ezberdintasunak dituen aldakortasun handiko konstruktotzat jotzea indoeuropea. Konstruktio horren ikerketan osatu egiten da *berrikuntza* vs. *arkaismo* dikotomia, eta *arauak* gehitzen dira, Petitek (*idem*) hizkuntzaren *sistema aktibo* deitzen dituenak; alegia, hizkuntzan komun diren ezaugarriak:

Meiden ustez, hizkuntza historikoen arteko ezberdintasun nagusiak hiru sail horietako ezaugarriek hizkuntza jakin batean izan duten konbinaketan bilakabideek zorki litzaizkioke: batek (H₁) arkaismoak eta normari dagozkionak galdu eta berrikuntzak garatu ditu; besteak (H₂) bai normarenak eta bai berrikuntzak gorde, arkaismoak galduaz; hirugarrenak (H₃) arkaismoak eta norma galdu eta berrikuntzak gorde eta garatu, eta azken batek (H₄) bai arkaismoak, normak zein berrikuntzak gorde. (Lakarra 2011: 175-176)²⁵

Meiden proposamenak dimentsio kronologikoa lehenesten du, eta indoeuropeatik sortutako hizkuntzen arteko ezberdintasunak ezberdintasun kronologikoekin lotzen du; alegia, hizkuntzak bereizi ziren garaian indoeuropearrek zuen egitura edo osaerarekin:

Cette distinction chronologique joue un rôle très important, car, à la date où chaque langue s'est séparée du tronc indo-européen, celui-ci avait une configuration différente. Par exemple, lors de la séparation de a_1 , certains traits linguistiques n'étaient encore que des tendances innovatives en indo-européen, alors que, lors de la séparation de a_2 , qui lui est postérieure, ils étaient déjà devenus la norme. Il en résulte une distorsion, que Meid représente comme suit:

a_1	a_2
_____ 1	
_____ 2	_____
_____ 3	_____
	4 _____

C'est-à-dire: ce que la langue a_1 , a reçu comme archaïsme a disparu de la langue a_2 ; ce qui, dans a_1 , représente la norme indo-européenne n'apparaît que comme archaïsme en a_2 ; la norme de a_2 remonte à des tendances innovatives anciennes encore reflétées comme telles en a_1 ; et, par ailleurs, a_2 a développé de nouvelles tendances innovatives, inconnues de a_1 . (Petit 2007: 43)

2.5. Dialektologia historikoa: iturriak

Bizirik dauden hiztunen hizkerak bildu eta aztertu nahi badira, nahiko izan ohi da inkesta-metodoa hautatzea eta berriemaileengana jotzea behar den materialaren bila. Ikergeraia aurreko mendeetako hizkera edo dialekto bat denean, ordea, bestelakoak dira informazio-iturriak eta arazoak, eta bestelakoak izan behar dute horiei guztiei aurre egiteko tresnek.

²⁵ Lakarrak berak ekarri zuen Meiden sistemaren aplikazio bat euskararen historiara; zehazki, **ero*, **ezan* eta *egin* laguntzaileen azterketara (begiratu Lakarra 2011: 176-177).

Funtsean, testuak dira iragana ikertzeko iturri nagusiak, eta horiek dute lehentasunaikerketa historikoetan (Crowley 1986: 101); beraz, hurrengo azpi-ataletan testuei lotutako gorabeherak izango ditut hizpide: testuei loturik ikertzaileak aurkitu ohi dituen arazoak eta arazo horiei aurre egiteko zein edozein ikerketa fidagarri estandar egiteko baliatu beharreko filologia zehatza. Testuekin batera, bestalde, badaude bestelako informazio-iturri batzuk, eta horiek eman dezaketen informazioaz ere arituko naiz, laburrago bada ere: onomastikaz, substratuaz eta berreraiketaz arituko naiz, zehazki, egungo dialektoak ere iragan iluna argitzeko lagungarri izan daitezkeela ahaztu gabe (Fisiak 1982: 118).

2.5.1. Iturri nagusia: testuak

2.5.1.1. Testuen eta filologia zehatzaren garrantzia

Lehenengo soinu-grabagailuak XIX. mendearen amaiera aldera sortu eta XX.aren lehenengo urteetan hedatu ziren;²⁶ horrenbestez, grabagailua erabiltzen hasi aurreko hizkuntza eta hizkerak aztertzeke, hizkuntza edo hizkera jakin bat galdu den eremu bat aztergai denean legez, erregistro idatziak dira lanabes nagusia (Meillet 2001 [1925]: 25). Claridgek corpus historikoei buruzko lan argigarri batean dioenez, “Historical corpora are of necessity written corpora” (2008: 243). Hots, “the «native speakers» of past stages of a language are writers and copying scribes” (Laing & Lass 2013: §1.1). Alde nabarmena dago, eskuragarri dauden iturriei dagokienez, gaur egun bildu edo entzun daitezkeen datuekin lan egitetik aurreko garaietako datuekin lan egitera. Izan ere, historia aztergai denean, corpora osatzen duten materialak mugatuak dira (Kytö 2011: 424), eta horiekin moldatu behar du ikertzaileak, nahitaez, material berriak aurkitu artean edo ezagunei beste ikuspegi batetik begiratu artean.

Mitxelenak hainbatetan (1954a: 372, 1961a: 57, 1961b: 86, 1964b: 254, 1978a: 590 eta 1982b: 472, besteak beste) azpimarratu zuen hizkuntzaren historiak testuen ezagutza izan behar duela oinarri:

La idea de que la historia propiamente dicha de una lengua, de la vasca como de cualquier otra, sólo puede edificarse sólidamente sobre documentos fechados y localizados con la mayor precisión posible, no ofrece ninguna novedad. A lo sumo, acaso no esté difundida entre nosotros cuanto fuera necesario. (1971a: 327)

²⁶ Inaxio Lopez de Aranak *Argia* (2015/12/22) aldizkarian kaleratu zuen artikulu baten arabera, euskarazko lehen soinu grabatuak 1900. urtearen ingurukoak dira. Lana Interneten kontsulta daiteke: <http://www.argia.eus/albistea/euskarazko-lehen-soinuak> [Azken kontsultaren data: 2016/03/02].

Hizkuntzaren historia gehienbat hizkuntza idatziaren historia den heinean (Lakarra 1997a: 473, Pons 2006: 9),²⁷ historia hezur-mamitzen duten testuak ezagutzeak hizkuntzaren historia ezagutzea dakar; horrenbestez, “the linguist scholar must also be closely concerned with scribal and textual matters” (Milroy 1992a: 168). Hizkuntzaren corpus historikoa osatzen duten materialen ezagutza ezak aurreiritziak, irudikatze faltsuak eta fantasiak nagusitzea besterik ez dakar: ikertzaileak buruan darabiltzan hainbat eta hainbat galderaren erantzunak testuetan dautza; “Beraz, historiaz arduratzen den hizkuntzalariak ezinbestekoa du filologia, eta hobe gainera zenbat eta filologia zehatzagoa, zehaztasun bakoitza hizkuntz historiagilearentzat urrats berri bat baita” (Lakarra 1997a: 467).

Meilletek aipatutako *philologie de précision* (2001 [1925]: 24) delakoak onurak besterik ez dakartza hala hemen nola atzerrian, baina hemen are premiazkoagoa dela esan daiteke, euskararen historia aztertzeke erabil daitekeen materialaren urritasuna (§3.1) eta testukritikaren hainbat arlotan dagoen atzerapena (§3.1.2) aintzat hartuta. Hau zioen Mitxelenak *FHV*-ren hitzaurrean: “A mi modo de ver, hoy puede avanzarse de dos maneras sobre los resultados anteriores: i) utilizando de una manera más exhaustiva los testimonios diponibles; y 2) aplicando más consecuentemente el metodo comparativo” (*FHV* 15).²⁸

Mitxelenak hizkuntzalari diakronistatzat zuen bere burua, ez filologotzat (cf. Lakarra 1997a: §3). Baina, euskararen historia ezagutzeko eta historiaurrea berreraikitzeke euskal testuen ezagutza ahalik eta zehatzena ezinbestekoa zenez, “el lingüísta hubo de devenir filólogo, con el fin de establecer por sí mismo esas bases firmes que hacían falta para cualquier investigación en torno al eusquera” (Lakarra 1990 [1989] 354).²⁹ Urgellek aipatu bezala (2013: 533-534), errenteriarrek ez zuen libururik editatu, baina hasiera batetik ikusi eta aldarrikatu zuen filologiaren beharra: gogoan hartzekoa da 1950eko hamarkadakoak direla, besteak beste, *Viva Jesus*-en, Betolatzaren eta Landucciren

²⁷ Eta, askotan, hizkuntza inprimatuena (Elspaß 2012: 156).

²⁸ Bide bertsutik, sasoi jakin batera arte ezagutzen ziren materialen berrinterpretazioa egitea proposatu zuen Haasek (1969: 46) berreraiketa-proposamenak berrikusteko arrazoiaren artean. Horrekin batera, hizkuntza ahaide berriak, mailegu zaharren ebidentziak eta aitzinhizkuntza baten eta bestearen arteko konparazioa aipatu zituen. Guztiak zaizkigu baliagarri hala historiaurre berreraikiatzeko nola historiaz dakiguna sendotzeko, zuzentzeko edo areagotzeko.

²⁹ Begiratu, bide bertsutik, Urgellen azalpenok: “hizkuntzari zegokion teori arazo larriei aurre egiterakoan ia oinarritzeko lan guztiak peitu zituelarik, halabeharrez –zioen berak– filologo ere bihurtu zitzaigun, berez –euskaraz atetiko alorretan ere ederki frogatu bezala– hizkuntzalari zena, euskarari buruzko ikerketei oinarri sendoak ematen hasi nahirik” (1987b: 133-134).

edizioak, eta, neurri batean, *FHV*-ren eta garaiko beste lan batzuen oinarrian zetzan corpustzat jo daitekeela *TAV* (Bilbao 2013: 717).

Hain zuzen, filologia zehatzaren bidetik etorri dira hondar urteotan ezagun ziren materialen inguruko zehaztapen eta ikuspegi berriak, hala testuak nola periodizazio-gaiak ukitzen dituztenak. Esan gabe doa filologia zehatz berbera aldarrikatu behar dela aurretik ezagutzen ez ziren iturri berriak lantzean: Lazarragaren edizio kritikoa (Bilbao *et al.* inprimategian) eta gramatika (Mounole inprimategian) edo Arabako ipar-mendebaleko *Dotrinazko sermoitegia* (Ulibarri 2015) nola landu diren ikustea besterik ez dago zehaztasunaren onurez jabetzeko.

Ez ditut hemen aipatuko testuekin lan egitean agertzen diren eta testukritikak luze aztertu izan dituen arazo orokor guztiak, ez eta erabiliko dudan testu bakoitzak lekukotasun beregain gisa dituenak ere. Interesgarri deritzot, ordea, testuak erabiliz dialektologia edo historia egitean ahalik eta ondoena argitu behar diren zenbait alderdiri buruzko azalpenak emateari.

2.5.1.2. Data eta jatorri ezagunik gabeko testuak

Dialektologia historikoan ari denaren nahi handienetako bat da pertsona batek ekoitzi duen eta leku eta sasoi jakin bateko hizkuntza ordezkatzan duen material idatzia erabili ahal izatea (Laing 2004: 73). Horrenbestez, inolako konparazio-lanetan hasi aurretik, ezinbestekoa da testu bakoitza aztertzea, eta historian eta geografian kokatzea.

Egoerarik idealenetan, erabili behar den testuaren egilea eta transmisioa ondo ezagutzen dira. Alabaina, egoera ideal hori ezohikoa da: batzuetan anonimoa da testua, beste batzuetan ez dago jakiterik noizkoa edo nongoa den, eta, txarrean, testuak ez dakar ez egilearen izenik, ez datarik, ez kontatzen dituenak eremu edo gertakizun batekin lotzeko aipamenik. Testu bakoitza bere errealitateak eta historiak bizi dute eta oro har datatze- eta kokatze-teknika estandar batzuk erabil badaitezke ere, komeni da ikertzailea iturri bakoitzaren berezitasunez jabetzea eta informazio linguistikoari lehentasuna ematea: “So if we as linguists want to place dialects we have to be sure we can do it by purely linguistic means” (Kitson 2004: 220).

2.5.1.3. Testuen egiletza

Testu bat nork idatzi zuen jakinda iturriaren jatorriari buruzko informazioa lortzen delako dira interesgarri egiletza-kontuak dialektologia diakronikoan, beste alor batzuetan ere (historia, literatura...) testuen egileak nor diren jakiteak dakartzan onurak gutxietsi

gabe. Egiletzari loturik, agerikoak dira testuetan aurki daitezkeen bi aukerak: egilearen izena agertzea edo ez agertzea.³⁰ Testu baten egilea nor den jakiteak bidea ematen du haren biografia arakatzeko eta argibideak lortzeko datazioaz, fidagarritasunaz, iturri eta eraginez, eta abarrez.³¹

Zenbat eta gehiago jakin egilearen biografiaz, hainbat eta errazago da testua datatzea: Bizente Sarria (1767-1835) etxebarriarraren sermoi gehienak XVIII. mendearen amaierakoak (eta, zehazki, 1804 baino lehenagokoak) direla ziurra da, urte hartan Ameriketara joan zelako eta orduz geroztiko predikazio-lana gaztelaniaz egin zuelako.

Egile ezagunik gabeko testuak ez dira gutxi, eta halakoetan filologia zehatzaren beharizana ezinbestekoa da beste behin ere; izan ere, argudio linguistikoak ezinbestekoak eta funtsezkoak dira testu anonimo bat beste lan batzuen bidez ezagutzen den idazleei egotzi ahal izateko: “hizkuntzazko frogak oso garrantzitsu ditugu beti, garrantzitsuenak *usus scribendi* delakoa ezagutzen dugun neurrian” (Lakarra 1997a: 489). Funtsean, argudio linguistikoei tiraka proposatu zuen Lakarrak “1737ko Azkoitiko” sermoia izenarekin ezagutzen den testua Larramendirena zela, eta Garibaik ez zuela RS prestatu (begiratu Lakarra 1985a eta 1986a, hurrenez hurren). Adibide berriagoetara etorrira, argudio linguistiko sendoek berretsi dituzte Lazarraga eskuizkribuan ikusten ziren esku ezberdinak, bai eta larrearrak eskuizkribuko testuetako batzuk beste iturri batzuetatik kopiatu zituela ere (begiratu Mounole inprimategian). Orobat, letrari eta hizkuntzari loturiko argudioen bidez ikusi du Ulibarrik (2015) Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibo Historikoan, Sancho el Sabio Fundazioan eta Bizkaiko Foru Liburutegian gordetzen diren sermoi-sortek elkarrekiko loturak dituztela, eta hirurak *Dotrinazko sermoitegia* izendatu duen lanaren ataltzat jo ditu.

³⁰ Jakina, ez du zertan izen osoa izan, eta izengoitia ere izan daiteke: Urkizu durangarraren 1737ko liburua “Durangoco Vrico Debotobatec” sinatu zuen, baina Ama Birjina Errosariokoari eginiko eskaintza “D.L.V.” siglekin: “Zerucò dá lurreco erreguina andia: yfinten da oin sagraduetan zeure esclaburic chicarrena. D. L. V.” (4. orrialdea). Beste literaturetan ere ez da ezohiko jokabidea, hainbat arrazoi tarteko, egiletza ezkutuan edo erdi-ekzutuan ematea: “Whether the anonymity of authors and participants really constitutes a problem depends on the research agenda: for many or even most linguistic questions it does not play a role, whereas it is inevitably a very relevant aspect for sociolinguistic and also for some pragmatic (e.g. politeness) research” (Claridge 2008: 249). Espainian, gogoangarria da *La Celestina* lanaren egilearen izena erdi-ekzutuan akrostikoen bidez eman izana edo Fernán Caballero gizon-izengoitiaren atzean zetzan emakumearen kasua; egile ezagunik gabekoen artean, *Lazarillo de Tormes* eleberraren ustezko egileaz ere ez da lan gutxi egin (Ricok –2014 [1987]: 32– dioenez, egokiago da apokrifoen artean sartzea, anonimoen artean baino).

³¹ Fidagarritasun-kontuak tentuz aztertzeak dira, dena den: gerora ere aipatuko dudanez, egilearen jaioterriaren eta erabili duen hizkeraren arteko loturak ez du zertan automatikoa izan, nahiz eta inertziak edo erosotasunez halako ekuazioak ia automatikoki egiten ditugun; esan nahi dut idazle baten hizkera idatziak ez duela zertan haren sorterriko hizkera ordezkatu, idazleak hala aitortu nahiz aitortu ez.

Bestelako argudio batzuk ere lagungarri izan daitezke, jakina: letra, lekukotasunaren historia edo gordailua, garaiko beste testu batzuen ezagutza... Sarriaren sermoi-bildumak 39 testu biltzen ditu, eta horietarik izenpetu gabeko 21 letragatik egotz dakizkioke Etxebarriko sermoilariari (Etxebarria 2009: 18-22).

2.5.1.4. Generoaren soziologia eta aipamen soziohistorikoak

Testuaren izaera eta edukia lagungarri dira, batzuetan, hala datazioa nola jatorri geografikoa bilatzean; hots, testua zein motatakoa den begiratzeak eta aipatzen dituen gertakizunak, izenak eta antzekoak lagungarri izan daitezke testua sortu zen testuinguruari, datari eta lekuari buruzko argibideak bilatzean. Esate baterako, *RS*-ren inguruko ikerketetan halako argudioak baliatu zituen, informazio linguistikoaren osagarri, Lakarrak (1996: §2.4). Alde batetik, generoaren soziologiaren esparruan aintzat hartu zuen zein girotan bildu izan diren errefrau-bildumak, eta hauxe ondorioztatu zuen: “Ez dirudi XVI. mendearen amaieran *RS* bezalako bildumarik espero genezakeenik Bizkaiko (edota Euskal Herri osoko) herrixkaren bateko ezain elizgizonengandik eta bai nolabaiteko kulturgunereren baten inguruan kokatzen zen laiko ikasiren batengandik” (1996: 135-136). Beste alde batetik, errefrauetan agertzen diren zenbait toponimok hori berresten dute, gehienak Bizkaiko ipar-mendebalekoak baitira: Butroe (92, 167, 404), Plentzia (167), Gorliz (334), Albia (387).³² Hain zuzen ere, Plentziako dorretxe batean aurkitutako armarriko hiru errefrauetatik bi *RS*-en agertzeak eta Butroeko gazteluan Plentziako dorretxeako armariaren parekoa zegoela jakiteak are gehiago sendotzen ditu Lakarrak errefrau-bildumaren jatorriaz esandakoak, eta ez da zorakeria pentsatzea errefrau-bilduma Butroe-Plentzia aldeko jauntxoren batek aginduta osatu zela (begiratu Zuloaga 2011b).

Nolanahi ere den, gogoan izan behar da halako datuak lagungarri direla, ez erabakigarri, eta kontuz atera behar direla ondorioak (McIntosh *et al.* 1986: §1.5.3), izen bat agertzeak ez baitakar testua nahitaez inguru horretakoa izatea. Arrasateko erreketaren kantuetan “Bergararroc” eta “Mondragoe” aipatzen dira, baina datu linguistikoek erakusten dute testua Bizkaiko ipar-mendebalean sortu zela, ez Gipuzkoako mendebalean (Zuloaga 2011b).

Datazioari dagokionez, esan gabe doa testuak euren lerroetan aipatzen diren data edo gertakizunen ondokoak izan behar dutela; hots, Arrasateko erreketaren kantuek 1448koaz geroztikoak izan behar dutela, orduan erre baitzen hiribildua. Halako aipamenak

³² Aramaio, Muxika... ere aipatzen dira (284), baina berehala ikusiko denez, izen horiek ez doaz hipotesiaren kontra, gehienak jauntxoen familia-izenak edo jauntxoen arteko gatazken gertalekuak baitira.

(izan data zehatzak, izan gertakizun historikoak), horrenbestez, erabakigarri dira *post quem* datak proposatzeko: Egiaren kantan derrigor izan behar du 1638 ostekoa, orduko gertakizunak aipatzen baitira bertso-lerroetan (begiratu Urgell 1986: 78-79, testuaren *post quem* eta *ante quem* daten berri izateko).

2.5.1.5. Alderdi materiala eta datazioa

Testuen datazioaren³³ auziari helduta, bi alderdi bereiz daitezke: hizkuntza barnekoak (edo hizkuntzaren muinari dagozkionak) eta hizkuntzaz kanpokoak (euskarriari dagozkionak).

Bigarrenekin hasita, behin baino gehiagotan erakutsi da euskarriek datarik gabeko testuak datatzeko informazio baliagarria eman dezaketela. Seguroak orain hamarkada eta erdi egindako lan ezagunaren ondotik, bestelako garrantzia eman zaie paperari eta ur-markei euskal testuak datatzean:

Papera une jakin batean egin zen, teknika batzuen arabera, garaiko lehengaiak erabiliz eta, bestalde, askotan seinale bat ere jarri zitzaion, bereizgarri edo marka bat. Marka honek lagunduko digu, hain zuzen ere, beste ezaugarriek baino zehatzago, paper hartan idatzitako testua noizkoa den jakiten (...) Ur marka motak eta erabiliak izan ziren urteak ongi ezagutzea lortzen bada, ez da dudarik aparteko laguntza izan daitekeela ikertzailearentzat. Izan ere, ur markaren bidez papera egin zen urtea jakin ahal izango da eta, hortaz, gutxi gorabehera bertan idatzia izan zenarena (Seguroa 2001: 215 eta 223).

Ulibarrik (2009) bibliografia materiala baliatu zuen *Viva Jesus* dotrinaren inprimatze-datara hurbiltzeko. Lanaren azterketa formala egin zuen, eta beste lan zaharrago batzuekin erkatu, harik eta *Viva Jesus*-eko marrazki batzuk Betolatzaren dotrinan ere ageri direla ikusi zuen arte: bazuen, beraz, 1596ko *post quem* data. Beste alde batetik, Betolatzaren lana Bilbon kaleratu zela jakinik, *Viva Jesus* Bilbon egin zela argitu zuen (zehazki, Pedro Cole de Ybarra inprimatzailearen edo haren ondorengoren baten etxean, *Viva Jesus*-eko tako xilografikoa eta Cole de Ybarraren inprentakoa berdinak baitziren). Ildo horretatik, dokumentazio historikoa arakatuta, 1689 alderako tipoak oso higiturik zeudela eta berriak egin behar zirela argitu zuen: horixe izango litzateke, beraz, *ante quem* data.

Euskarriek eman dezaketen informazioa informazio, ez da ahaztekoa gorabeherak eta irakurketa okerrak ere eragin ditzaketela, batez ere datu batzuk zurrunezi interpretatzen badira. Gerta daiteke, esate baterako, idazle batek beste sasoi bateko papera (zaharragoa)

³³ Oro har hitz eginda: "To date an object or an event means, in very general terms, to position it on a scale of temporal measurement" (Alinei 2004: § 2).

baliatzea edo ale batean ur marka ezberdinak dituzten materialak jostea (begiratu Segurola 2001: §4).

2.5.1.6. Testuak datatzeko argudio linguistikoak

Zenbat eta hizkuntzaren historiako zirrikituak hobeto ezagutu, orduan eta datu gehiago egongo dira testuak hizkuntza-ezaugarrien arabera sailkatzeko. *Kadet eta Bettiriño* testua XVIII. mendearen bigarren erdikoa dela pentsatzeko argudio argia da Larramendiren *Hiztegi hirukoitz*-eko berbak agertzea:

Neologismoen atzematea arras baliatu zaigu testuaren datatze egitekoetan, *post quem*-eko elementu segur bat eskaintzen baitigu (paperaren ekoizpena, jadanik ikusi den bezala, 1742 baino lehenagokoa da). Bi datu hauek, azkenean, bateragarri izateaz haratago, elkarri ematen diote indarra. (Padilla-Moyano 2011: 2)

Tamalez, beti ez dago halako egoera garbirik, eta denbora gehiago eman behar izaten da konparazio-lanean, konparazioa baita testua hizkuntza-ezaugarrien bidez historian zein geografian kokatzeko metodo segurua, nahiz eta gehienetan behin betiko emaitza ziurrik edo zehatzik ez lortu: “a precise dating is not always possible, particularly in the case of old manuscripts” (Claridge 2008: 244).

Datazio-gaietan aritzeko ezinbestekoa da hainbat garaitako testuak ezagutzea eta hizkuntzaren periodizazioa gogoan izatea. Izan ere, hizkuntza-ezaugarriek garairik garai izan duten bilakabidea ezagututa, ardatz kronologikoan etenak ezar daitezke. Forma linguistikoen hedadura kronologikoa ezagutzen denean, ezaugarri eta denbora-sakontasun horiek baliagarri dira datarik ez duten testuak ardatz kronologikoan kokatzeko. Balizko lekukotasunen bat aurreko mende batekoa izanik, begiratu egin behar da agertzen dituen forma eta aldaerak zein garaitakoekin lotzen diren ondoen: horrela, gutxi gorabeherako sasoi laburrago edo luzeago batean kokatu ahal izango da testua.

Euskaraz, Lakarraren (1997a: §7) periodizazioa zabal onartua da hizkuntzaren historialarien artean. Horri jarraikiz, beraz, eta adibide bat ematearren, badago argudio sendorik aoristoak sistematiko dituen testu bat Euskara Zaharra baino lehen datatzeko, eta zer esanik ez testu horretan, halaber, *-rean* ablatiboa eta *-ti* prosekutiboa bereizten badira, edota bokal sudurkariak adierazten badira (§5.1.7).³⁴

³⁴ Cf. “1600etik aurrera (salbuespenak salbuespen) ez da aoristorik, bokal sudurkariak ekialdetik landa ia desagertu dira, adizkietako kontrakzioak orduantxe hasten dira agertzen, sintetikoak ugari dira eta mendebalean oraindik *-rean* ablat. eta *-ti* prosekutiboa bereizteaz landa, hastapenetan dago txistukari neutralizazioa” (Lakarra 1997a: 516).

2.5.1.7. Jatorri geografikoa

Lehenago aipatu dudanez, ez da ezohikoa testu jakin bateko hizkera kronologian ez ezik geografian ere kokatu behar izatea. Testu bat datatu behar denean bezala, konparazioa izan da, tradizioz, lekukotasun bat geografian kokatzeko bide onena; hots, ardatz horizontalean koherentzia eta jarraitutasuna bilatzea testuetako ezaugarrien artean, kokatu nahi den testuaren eta kokapen ezaguna duten beste testu batzuen artean. Hizkuntza eta dialektoen arteko filiazioak ezartzeko erabiltzen den teknika bera da, azken finean neurri batean hori egiten baita: neurtu egiten da ezaugarri jakin batzuek nongo ezaugarriekin duten lotura estuagoa.

Esan bezala, konparazioan oinarritutako metodoa ohikoa izan da testuen kokapena eman behar denean, baina badirudi ingelesaren (eta, bereziki, Middle English deritzonaren) historialariek landu dutela metodo hori sakonago eta zabalago. McIntosh *et al.* (1986: §1.1.2) lanean esaten denez, Erdi Aroko Ingelesak ageri du beste edozein garaitako ingelesak baino aniztasun handiagoa; diotenez, ingelesaren historian Erdi Aroaren amaieran besterik ez dira islatzen tokiko hizkerak idatziz (Milroy 1992a: §3.1.1).

Bada, Erdi Aroaren amaierako testu horiek aztertuta sasoi hartako ingelesaren atlasa abiarazi zuen McIntoshek 1950eko hamarkadan, eta lana 1986an argitaratu zen, lau liburukitan, Samuels eta Benskin irakasleekin elkarlanean, eta Laingen eta Williamsonen laguntzaz.³⁵ Hain zuzen ere, lan horren lehenengo liburukiko §2.3 atalean azaltzen da testuak *fit technique* izeneko teknikaren bidez kokatzeko metodologia, hemen labur azalduko dudana.³⁶

Van Reenen *et al.* (2009: 21) lanean esaten denez, kokapen ezaguna duten testuek hizkuntzaz kanpoko elementuei zor diete kokapen ezagun hori (toki-izenak, ordezkaturako tokiko agintari eta biztanleen izenak, agintari edo biztanle hartzaileak eta tokiko gaiak aipatzen dituzte); aitzitik, kokapen ezagunik gabeko testuak ezin dira hizkuntzaz kanpoko argudioen bidez kokatu: “If all extralinguistic criteria in a charter point to the same settlement, we consider the language of that charter representing the dialect of that

³⁵ Interneten ikus daiteke lanaren azken bertsioa (2013):

<http://www.lel.ed.ac.uk/ihd/elalme/elalme.html> [Azken kontsultaren data: 2016/04/18].

³⁶ Euskal Herrian ere behin baino gehiagotan erabili da, aspaldirik, *fit technique* delakoa: maisutasunez baliatu zuen Mitxelenak Landucciren hiztegiko eskuak bereizteko eta Arabako euskara Bizkaikotik banatzeko, eta eredu bertsuari jarraikiz aritu izan dira azken bizpahiru hamarkadotan aurreko mendeetako testuak kokatzeaz arduratu diren ikertzaileak (Bizkai euskararako, begiratu Lakarra 1996). Ingeles ereduaren eta metodologiaren inguruko lehenengo hausnarketa teorikoa Ulibarriri (2013b) zor zaio euskalaritzan.

settlement (...) charters which are not localizable by means of extralinguistic criteria are texts to be localized” (Van Reenen *et al.* 2009: 21-22).

Hizkuntzaz gaindiko datuen bidez ziurtasunez kokatutako testuei “aingura-testu” esaten zaie (Ulibarri 2013b: 518), eta mugarri dira jatorri ezezaguneko testuak kokatzeko: “The scale of research will primarily depend on the number of MSS. whose localization is possible” (Fisiak 1982: 117).

McIntosh eta besteren (1986) arabera, eta euren ikerketa Erdi Aroko Ingelesari dagokiola ahaztu gabe, aingura-testuak tokiko dokumentuak izan ohi dira.³⁷ Jakina, tokiko dokumentazio horrek baditu bere mugak (ez daude herrialdeko leku guztietan, lexiko bertsua errepikatzen da eta abar), baina oso baliagarriak dira bestelako osagaiak dakartzaten eta jatorri ezagunik ez duten literatur testuak kokatzeko.

Kokapen ezaguneko testuetako ezaugarri bereizgarriei *locator* deritze, eta horien bidez neur daiteke testu bat nondik dagoen hurbilago edo non ezin den kokatu, oposizioetan oinarritutako erkaketaren bidez:

The dialect features we use as benchmarks in the charters and the texts are referred to as “locators”. A locator occurs in a “locator opposition”. A locator opposition is a variable which consists of two variants: locators and their opposites. A locator has at least one opposite. We refer to locators and their opposites as (dialect) forms. (Van Reenen *et al.* 2009: 22)

Zenbat eta *locator* gehiago erabiltzeko aukera, hainbat eta zehatzagoa izango da testuaren kokapena.

Bestalde, konparazio-gaiak hautatzean ezinbestekoa da hizkuntzaren periodizazioa aintzat hartzea: ahal dela, aro bereko testuak erkatu behar dira; izan ere, horrela egiten denean fidagarritasuna eta sendotasuna lortzen dira, errazagoa baita aro linguistiko berean eremu bateko hizkerek duten lekua ikustea. Garai bertsuko testuen konparazioak egitean, gainera, anakronia-arazoak saihesten dira: ikertzaileak ez du zuzenean jotzen aspaldiko forma jakin bat egungo batekin besterik gabe alderatzera. Tamalez, ordea, askotan ezinezkoa da garai eta eremu bertsuko testuak aurkitzea; horrenbestez, ezinezko gertatzen da epai sinkroniko baten arabera materialak besterik ez erabiltzea. Egoera horren aurrean, lagungarri izan daiteke konparazio-gaiak beste garai batean bilatzea: “Intelligent use of later dialect can increase precision.” (Kitson 2004: 227).

³⁷ “«Local documents» is, of course, merely a convenient label for a quantity of texts of very diverse origins, such as personal correspondence, the records of manors and municipalities, the records of courts, secular or ecclesiastical (though the latter are commonly in Latin), and legal instruments –depositions and indentures, conveyances and arbitrations. Most of these can be expected to contain indications of their local origins, and in general they can be trusted to attest a form of the written language, if not precisely of the stated place, then of somewhere near to it” (McIntosh *et al.* 1986: § 2.3.2).

Konparazio bidezko kokatze-teknika baliagarri askoa da, baina badu arazorik, metodologia guztiek bezala. Ezagun da denboran atzera egin ahala euskalkiak ez direla gaur egun bezain zatituta agertzen, edo zatiketa hori ez dela lekukotasunetan islatzen. Beste hizkuntza batzuetan ere gertatzen da halakorik: dialektoak, azpidialektoak edo hizkerak definitzeko baliagarri izan daitezkeen ezaugarriak urritu egiten dira, eta urritasun horrek zaildu egiten du konparazio-lana. Hori gertatzen da, esate baterako, Ingeles Zaharrean:

The dialect indications we can find in O[ld] E[n]glish texts are sporadic. That has several causes; let me mention a few. Sound-changes that have not fully happened yet, or not been fully absorbed by conservative spellers if they have happened, or whose boundaries are not the conventionally extrapolated political ones so we mistake evidence of absence for absence of evidence. (Kitson 2004: 225)

Gehienetan, urritasuna ez dagokie ezaugarriei bakarrik, lekukotasunei ere badagokie. Eremu gehienetan ez dago testuren bat baizik, eta testu horrek izan behar du ardatz, onerako nahiz txarrerako: “Ideally, a dialect area should not be investigated on the evidence of a single text; this method can be adopted as a least resort, that is, if there simply is no other surviving record of a given dialect at a given time” (Peters 1988: 408). Erdi Aroko Ingeles Goiztiarrean egoera hori dela azaltzen du Petersek, eta euskaraz ere hori da egoera XIX. mendera arte, oro har eta salbuespenak salbuespen eta *fit* teknikak zenbait hutsune betetzeko duen ahalmena ahalmen.

Aingura-testuen edo/eta hizkuntza-ezaugarrien urritasunak kokapenaren irudia lausotzen du. Alde batetik, dialekto edo eremu zabal batean testu bakan batzuk daudenean, aztergai den eremuaren inguruko irudia orokorra da: ez dago tokian tokiko ñabarduren eta aldakortasunaren berri, ez eta eremu horretan egon zitezkeen eten eta loturen berri ere; azken batean, isoglosak mugitu egin daitezkeela jakin arren, ez dago biderik isoglosa guztien garairik garaiko irudia lortzeko:

(...) of course, the dialectal provenance of a number of major texts has been known for a longtime, albeit, in many cases, only in terms such as “Norh-East Midland” or “South-West Midland”; sometimes texts can be more narrowly localized as to the country to which they belong. (Peters 1988: 397).

Beste alde batetik, testuak kokatzeari dagokionez, aintzat hartzekoa da jatorri ezezaguneko testuek ez dutela zertan erabat ondo egokitu aingura-testuen artean. Bat etortzea ez da erabatekoa izaten, eta askotan ez dago zalantza barik erabakitzerik testu bat aingura-testuen artean non kokatu. Izan ere, batean dauden edo falta diren ezaugarriak

(edo, egoera are konplexuagoak sortuz, ezaugarrien konbinazioak)³⁸ agertu ohi dira, eta halakoetan ahal bezainbeste findu behar da ezaugarrien neurketa, kopurua ez ezik, nolakotasuna eta aurretik irudikatutako isoglosen norabideak ere aintzat hartuta;³⁹ cf. gaiaren inguruko zenbait ilustrazio McIntosh *et al.* (1986: §2.3.4) lanean.

Azken batean, kokapen absolutua ezagutzen ez denean, lagungarri izan ohi da jatorri ezezaguneko iturri batek aingura-testuen artean duen kokapen erlatiboa ezagutzea: “In general, although absolute positions of texts may not always be located, relative positions can reasonably be located” (Milroy 1992a: 186).

2.5.1.8. Fidagarritasunaren eta leialtasunaren auzia

2.5.1.8.1. Ahozkoa eta idatzia

Saussurek (1971 [1915]: 72 eta hurrengoak) orain gizaldi bat aipatu zuenez, gogoan hartzekoa da ahozko jarduna idatziaren aitzindari dela. Hala adierazten zuen Paulek ere XIX. mendearen hondarrean: “No philologist should ever disregard the fact that what is written is not language itself; that speech rendered into writing always needs to be rendered back in speech before it can be dealt with” (Paul 1891: 433, *apud* Cable 1990: 97-98). Eta hala gogorarazi izan da gerora ere: “Speech is inseparable from our consciousness and it has fascinated human beings, elicited serious reflection about itself, from the very early stages of consciousness, long before writing came into existence” (Ong 2002 [1981]: 9).

Idatzia ahozkoaren irudikatze grafikoa dela onartzen bada ere, hizkuntzalaritzaren hainbat adarretan egindako ikerketek erakutsi dute ahozkoaren eta idatziaren arteko harremana lehen begi-kolpean pentsa zitekeena baino konplexuagoa dela. Schneiderrek (2004 [2002]: 67) dioenez, testuak hizkuntza mintzatuaren iragazkiak dira: ikertzaileak entzun nahiko lukeen hizkeraren errepresentazio grafikoa, nahiz eta errepresentazio hori zeharkakoa eta imperfektua izan, testua idatzi zeneko testuinguruak mugak ezartzen baitizkio: “We realise that these texts may not reflect the spoken language directly” (Van Reenen & Schosler 1988: 529).

Neurri batean, idatzia ahozkoa kodetzen duen sistema grafikoa da, baina hori baino gehiago ere bada: idatzia ahozkoaren erregistro gutxi gorabehera iraunkorragoa baino

³⁸ Zer esanik ez testuak “erlatiboki diatopiko”-tzat edo testuetako hizkera *Mischsprache*-tzat jo daitekeenean (begiratu §2.5.1.8.4 azpiatala).

³⁹ Honen inguruan adibide argigarriak dira Ulibarri (2011b: *Post scriptum*) eta (2013b: 520ko oin-oharra) lanetan azaldutako kasuak, non Portalen 1610eko testuaren eta *Viva Jesus* dotrinaren kokagunea den eztabaidagai.

gehiago da. Conde-Silvestrek (2007: 43-44) dioenez, ahozkoaren eta idatziaren arteko aldeak daude bai substantziari (fonikoa edo grafikoa), bai sistema bakoitzak komunikazio-beharrizanei erantzuteko duen moduari dagokienez. Lehenengoak direla eta, ahozko komunikazioa denboran mugatua, dinamikoa eta iragankorra da; gainera, aldiberekotasuna eskatzen du berbakideen artean. Beste alde batetik, komunikazio idatzia espazioan kokatzen da, eta estatikoa eta iragangaitza da; gainera, igorlea eta hartzailea ez ohi dira elkarrekin egoten. Gramatikaren eta lexikoaren ikuspegitik ere aldeak daude: ahozkoa bat-batekoa da, malguagoa eta testuinguruduna. Idatzia, aldiz, zainduagoa izan ohi da, formalagoa, eta estandarizazioaren eta preskripzio lexiko-gramatikalaren mendekoa.

Testuak sasoi jakin bateko hizkeraren lekukotasuntzat hartzeko, gogoan izan behar da XX. mendearen hasierako hizkuntzalari handiek nabarmendutako ideia, idatzia ahozkoa baino kontserbadoreagoa delakoa (Saussure 1971 [1915]: 76, Meillet 2001 [1925]: 21); hots, aldaketak ahozkoan gertatzen eta hedatzen direla lehenengo, eta jada onarpen-estatus finkoa lortzen dutenean hasten direla idatziz erabiltzen: “Linguistic change takes place in *spoken* language and the written language always lags far behind in recording this change” (Haas 1969: 31).

Ildo horretatik, gogoratzekoa da formula-kutsua duten izkribuetan eta zeremonietan erabiltzen direnetan (errefrauak, errezitatuak, kantak, otoitzak...) testuak idatzi edo argitaratu ziren garaia baino lehenagoko ezaugarri gehiago bildu ohi direla: Rita Barnetxearen 1783ko kantuko hainbat ezaugarri morfologiko arruntagoak ziren XVI. mendean XVIII.aren amaieran baino (Zuloaga 2013 [2018]). Bestalde, sarri ikusten da testu batzuetan ez zegoen aldaketa edo aldaera ondoko garai bateko testuetan agertzen dela, nahiz eta testu batzuen eta besteen artean denbora-tarte handirik egon ez (cf. Stein 1987: 412 eta hurrengoak). Halakoetan zalantza sortu ohi da, bat-bateko hausturak ez baitira hain arruntak hizkuntza mintzatuan, eta azalbidea testuen interpretazio zurrunean datzala pentsatu behar da; hots, testuek ez dutela islatu ahozkoan apurka-apurka gertatu den aldaketa-prozesuaren benetako erritmoa.

Aurrekoari loturik dago *ex silentio* argudiatzearen arazoa: corpus historiko batean ezaugarri bat ez egotea ezaugarri hori existitzen ez zela esateko aski ote den galdetzen du Hickeyk (2004: 214), eta horri loturik sentipen gazia sortu ohi da inguru batean espero zitekeen ezaugarri edo aldaera bat agertzen ez denean. Esate baterako, Aiara aldean eta Bizkaiko hego-mendebalean hurbiltze-adlatiboko *-rantx(a)* aldaera sabaikariduna ez sistematikoa, baina ohikoa da *Viva Jesus*-ez geroztik (begiratu Ulibarri 2010a: §3.2.5).

Ezaugarriaren eremu murrizta ezaguturik eta gaur egun aldaera horren adibideren bat bildu dudala aintzat hartuta, aldaeraren adibideak aurkitzea espero nuen Sarriaren eta Astigarragaren 1800 inguruko dozenaka sermoiak aztertzean; baina, ez nuen bakar bat ere harrapatu.⁴⁰ Ondoko hamarkadetako datuek erakusten dutenez, ordea, ezaugarriak bizirik egon behar zuen XVIII-XIX. mendeen artean, aurretik nahiz gerora azaldu baita inguru horretan. Azken batean, faktore askok eragin dezakete elementu jakin baten erabileran, eta guztiak ez daude alderdi geografiko “hutsari” lotuak (Carrillo Linares & Garrido Anes 2009: 151). Horrek guztiak lotura du, jakina, hizkuntzalaritza historikoan aski zabaldua egon arren agian behar bezain sarri gogoratzen ez den gaiarekin: hizkuntzen historia da historia hori berreraikitzeke gorde diren materialen historia.

2.5.1.8.2. Fidagarritasunaz eta leialtasunaz

Dialektologia diakronikoaren esparruan aritzean, nahitaez neurtu behar da testua idatzi zeneko testuinguruak noraino eragin duen testua den modukoa izatea. Orobat, lortuko diren emaitzak fidagarriak izango badira, beharrezkoa da jakitea zer neurritan ordezkatzan duten testuek egilearen ingurumariko hizkera, eta zer neurritan zen hori egilearen asmoa (Schneider 2004 [2002]: 67-68). Arazo-iturri besterik ez da testuetako hizkera “fidagarria” edo leiala den haztatu gabe jardutea: “Overall, assessing the reliability and validity of source texts as evidence of language use from the past periods is of prime importance to any historical corpus compilation project” (Kytö 2011: 431).

Haztatze-lan hori, halere, ez da beti erraza; izan ere, idazleek⁴¹ ez dute dialektologialarientzat edo hizkuntzaren historialarientzat idazten:

[Idazleak] darabilen helburua ez da egunen batean norbaitek idazki hori aurkitzean, bera baliaturik dialektologiako azterketa bat egiteko aukera izan dezan bermatzea, helburua ez da izkribu horretan idazlearen herrian erabiltzen ez den hizkuntza-aldaera bat bera ere ez agertzea, idazlea gehienetan ez da horretaz sobera kezkatzen; idazlea mezu bat argi eta xuxen transmititzeaz eta era errazean ulertarazteaz arduratzen da nagusiki. (Camino 2009: 313-314)

Beraz, hizkuntzalariak aztertu egin behar du, mugak muga eta aurreiritziak aurreiritzi, zer neurritan datorren bat testu bateko hizkera ustez leku edo eremu zehatz batean egiten zenarekin.

Testuekin lan egitean, beti gogoratu behar da “nongo idazlea, hango hizkera” ekuazioa okerra izan daitekeela, idazleek ez dutelako zertan euren sorterriko hizkerarekiko

⁴⁰ A. F. Iturriaga ugaotarraren sermoietan, aldiz, badaude *beraganancha*, *aldetarancha*, *alderancha*... lakoak (Ulbarrik utzitako transkripzio argitaragabea erabili dut; bihoazkio nire eskerrak).

⁴¹ Kasu honetan, “idazle” izendapena zabal ulertu behar da: idazletzat dut hala arrebari gutuna idazten diona nola euskara ikasteko metodo bat sortzen zein Biblia itzultzen duena.

leial jokatu; cf. Iruñerriko euskarari lotutako zenbait adibide Santazilia & Zuloaga (2018: §3.3.1) lanean. Materialak⁴² agertu ahala, idazleek badute nora begiratu eredu bila: euskararen historian Larramendiren eraginak aldaketa nabarmena dakar XVIII. mendearen erdialdean, eta orduz geroztik Hego Euskal Herrian ugaritutako sermoigintzak argi islatzen ditu zenbait hizkeraren eta egileren eraginak. Testuen baliagarritasuna, beraz, unean uneko eta tokian tokiko idazlearen ezagutzaren eta hautuen araberakoa da: idazleak ahozko hizkera testuratzeko duen borondatearen araberakoa eta hori egiteko duen gaitasunaren araberakoa.

Dialektologia egiteko bereziki interesgarriak dira testu informalak, eguneroko hizkeratik hurbil daudenak edo hizkuntzaren aldaera “ez estandarrik” ematen dituztenak (Kytö 2011: 422). Gutun pribatuak eta ahozko literaturatik hurbil dauden materialak izan ohi dira estandarizazio gutxien dutenak, eta horiek erabili dira azken bi hamarkadetan ere zenbait hizkuntzaren inguruko bestelako ikuspegiak, *azpitikoa*, emateko (cf. Elspaß 2005 eta 2012, Edlund *et al.* 2016; euskarari dagokionez, begiratu Padilla-Moyano 2015, eta Padilla-Moyano & Zuloaga 2018).

Nolanahi ere den, genero horiek ahozkotik hurbilago egon ohi diren arren, generokako sailkapena ezin da automatikoa izan. Ulsterreko emigranteen gutunak sakon aztertu zituen Montgomeryk, eta azaltzen zuenez, barne-faktoreek zehazten dute zein diren azterketa linguistikoa egiteko gutun aproposak; izan ere, egile bakoitzak, gutun pribatu bat idaztean ere, bere hizkera onena erabiltzeko joera agertu ohi du (Montgomery 1995: 33).

Soziolinguistika historikoan aritu diren askok onura bat ikusi izan dute testu zaharrekin lan egitean: ez dute “behatzailearen paradoxa”-ren (Labov 1972a: 43) arriskurik ikusten izan; alabaina, Tiekens-Boon van Ostadek (2000) hainbat argudio eman ditu, XVIII. mendeko ingelesezko gutunak eta eguneroko pribatuak aztertu ondoren, ikuspegi horren aurka: Montgomeryrekin bat etorriak erakusten duenez, testu pribatuenak ere ez daude hainbat parametro baldintzatzailetatik salbu. Euskal Herrira etorrita, agerikoa da Le Dauphin itsasontziko gutun guztien egileek ez zutela ezaugutza-maila bera, eta idazlari profesionalen eragina ere aintzat hartzekoa da; orain, begiratu Elosegia (2019). Antzeratsu gertatzen da administrazio-testuekin: Santaziliak dioenez (cf., halaber, Monteano 2017: 163 eta hurrengoak), Nafarroako hainbat auzibidetan jasotzen den euskarak eskribauen hautuak edo administrazio-hizkera prestigioduna isla ditzakete, ez

⁴² Funtsean, gramatikak eta hiztegiak, baina baita bestelako testuak ere, izan egilearen beraren ama-hizkuntzan daudenak, izan alfabetizazio- eta ikasketa-prozesuan beste hizkuntza batzuetan irakurri eta landutakoak.

tokian tokiko hizkera erabat dialektala (Santazilia 2017, 2019). Horrekin guztiarekin lotuta, interesgarria da Reguerok *dialektologo diakronistaren paradoxa* deitutakoa aztertzea: “alegia, ez dakigu behatzen ari garen testua orduko hizkuntza mintzatuaren eredu garbia den” (2017: 18).

Buruz ikasten eta ahoz transmititzen diren generoei begiratuta ere emaitza ez da beti nahi bezain garbia, eta testu guztiak ezin dira maila berean jarri; esate baterako, Akinnasok (1982: 27) erakutsi zuen erritualetan erabiltzen den hizkerak ezaugarri gehiago partekatzen dituela testu idatziekin, bat-bateko ahozko jardunarekin baino.

2.5.1.8.3. Dialekto literario edo estandarrez

Dialektologia-helburuetarako ahozko hizkeratik hurbilen dauden generoak interesgarrienak izateak ekarri izan du hainbat dialektologialarik literatur testuak eta itzulpenak baztertzea, hizkera literarioak edo estandarizatuak ez datozelako bat hizkera herrikoiekin:

Poems, novels, oral narratives, songs, and other literary texts are composed in language which may be different from ordinary language. The differences (...) include various rearrangements or alterations of words, sounds and syntax, often as the result of imposing external constraints such as metre or rhyme (...) Literary language is found in paradigmatically literary genres such as poetry, but also borderline literary genres such as oratory or other kinds of “heightened” discourse, such as advertising or certain genres of conversation. (Fabb 2010: 1219)

Idazle batek bere inguruko hizkera baino “goragokotzat” duen hizkera edo idazkera-eredu bat hautatzen duenean, bere inguruko nahiz beste leku batzuetako hizkera herrikoietan erabiltzen diren hainbat aldaeraren eta ñabarduraren erabilera itxuraldatzen ari da, hain zuzen ere, estandarizazioaren eta sistematizazioaren mesedetan: ezaugarriak baztertu edo indartu egin daitezke. Literatur bizkaieraren eredu nagusiak finkatu ziren garaian badaude jokamolde horien adibide argiak: alde batetik, Añibarroren *Escu-liburuaren* 1802ko eta 1821eko edizioen artean Urgellek (1985, 1987a) eginiko alderaketak agerian uzten ditu bi edizioen artean sartutako aldaketak; bestalde, ezagun da dagoeneko Mogelek bere hasierako lanetan baliatu ez zituen fonetismo batzuk sistematizatu egin zituela gerora (Altzibar 1991b).

Inoiz, idazleek eurek ematen dute idaztean erabiliko duten hizkera-ereduen berri: Materrak Saran ikasitako euskara erabili omen zuen (Mattera 1617: 14-15), Beriainek Iruñe aldekoa (1621: 14), Tartasek Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko formak nahastu omen zituen (Tartas 1666: 5) eta De la Quadrak Bermeo-Mundaka-Albonigako euskara testuratu nahi izan zuen (Bilbao 1997: 279). Halako azalpenak lagungarri izan

daitezke idazle horien testuak aztertzean; behin-behinekoan argibide horiekin fidatu beharko genuke eta aintzat hartu beharko genituzke, baina:

Nearly all examples of literary dialects are deliberately incomplete; the author is an artist, not a linguist or a sociologist, and his purpose is literary rather than scientific (...) each author has made his own deficion as to how many of peculiarities in his character's speech he can profitably represent; consequently, examples of literary dialect vary considerably in the extent to which they are «dialectal», and no very definite rules can be given regarding what to consider in that category. (Ives 1971: 147)⁴³

Schneiderren (2004 [2002]) ustez, *literatur dialekto* bezalako izendapenak topikoak dira: egia da halako testuek badituztela aintzat hartu beharreko mugak eta eztabaida-iturri etengabea direla, baina haztatze-lanak zuhur eginda, baliagarri izan daitezke.

Gai horri loturik dago *Garapenaren hipotesia* delakoa. Horren arabera, literatur hizkuntza, oro har, hizkera arruntaren garapena da;⁴⁴ hots, literatur hizkuntzak edo hizkuntza estandarrak hizkera arruntan elementuetatik edaten du, eta horiekin egiten du lan. Neurri batean, literatur testuak lagungarri dira, besteak beste, sasoi eta inguru jakin batean indartu eta baztertutako ezaugarri dialektalen estatusaren berri izateko. Adibidez, Nafarroa Behereko euskara zaharra aztertu zuenean, inguruko mintzoei begiratuta Caminok ez zituen Leizarraga eta Oihenart baztertu: irtenbide bat izan daiteke horiek ez erabiltzea inguru hartan testu dialektalagoak badaudelako, baina “morfosintaxiaren alorreko haien aldaerek interes dialektal handia dute, hizkuntzaren historiako garrantzi batekoak dira itzultzaile lapurtarraren eta handiki mauletar amikuztatuaren lanetan ageri diren hizkuntza-aldaerak” (Camino 2008b: 105).

Arestian esan bezala, idazteak hausnartzea eta hautatzea dakar: hizkera, estiloa eta erregistroa, besteak beste, idazleengan eragiten duten faktore pertsonalen eta ez pertsonalen arabera aldatzen dira. Soziolinguistika historikoaren bidez estiloa eta idazlearen testuinguru soziala lotzea lagungarri izan daiteke (Conde-Silvestre 2007: 53), baina gurean informazio eskasiak ez ohi digu horretarako bide handirik ematen.

Bellek (1984, 2001, 2014; begiratu, halaber, Hernández-Campoy 2012) erakutsi zuenez, solaskide eta entzuleek (ere) baldintzatzen dute igorlearen estilo-hautua:

⁴³ Egiazki, hizkuntza estandarrarekin batera forma dialektalak (adibidez, pertsonaien ahotan, elkarrizketei erreialismo handiagoa emateko) agertzen dituzten lanak ditu aztergai Ivesek.

⁴⁴ “The Development Hypothesis says that literary language is a development of ordinary language. The alternative is that literary language contains elements not found in ordinary language or is governed by rules or constraints which are not found in ordinary language. The Development Hypothesis is a formulation of a widely expressed view about the dependence of literary language on ordinary language.” (Fabb 2010: 1220). Hipotesi horren inguruko eztabaidak uste baino luzeagoak eta sakonagoak dira: cf. lan horretako (§ 5.1) atalean Fabbek azaldutako argudioak.

“Differences within the speech of a single speaker are accountable as the influence of the second person and some third persons, who together compose the audience to a speaker’s utterances” (Bell 1984: 159).⁴⁵

Belli jarraikiz, igorleak joera du, komunikazioa errazte aldera, hartzaillearen mailara egokitzeko, inoiz egokitzapen hori muturrera eramanda eta gehiegiko konbergentzia eraginda. Sermolariak direla eta, agerikoa da herri xeheari berba egiten ziotenean entzuleek ulertzeko moduan hitz egin behar zutela, baina horrek ere ez dakar estilo-erregistroak beti beheratu eta arindu zituztenik; izan ere, abade eta sermoilariak herri xehea baino gorago zeuden gizarte-eskalan, eta hizkuntza ere bazen distantzia hori nabarmentzeko tresna. Astigarraga basauriarraren sermoiak aztertuta, 1816an birritan aritu zen sorterri alboko Ugao-Miraballesen: han azaldutako sermoi bateko hizkera hurbil dago inguru hartako orduko euskaratik, baina bigarren sermoiko hainbat forma gehiago hurbiltzen dira Bizkaiko ipar-ekialdeko hautu eta erabilera linguistiko-estilistikoetara.

2.5.1.8.4. Aldakortasuna eta *mischsprache*-ak

Bestelako arazo batzuek ere zalantzak eragin ditzakete lekukotasun jakin baten baliagarritasunaren inguruan, eta horietako bat bariazioari eta (ustezko) hizkera-nahasteei lotzen zaie. Egia da hala egungo nola beste garai batzuetako lekukotasunak aztertzean ikertzaileari eroso zaiola unitate nolabait homogeneousekin eta erregularrekin lan egitea, homogeneousotasun horrek arazo gutxiago eragiten dituelako eta diskurtso koherentea eraikitzen laguntzen duelako; alabaina, “it would be unrealistic to demand absolute regularity either of an isolated text or of the whole collection of texts that represent a given dialect” (Dees 1988: 140).

Soziolinguistika historikoaren arloan dihardutenek behin eta berriz aldarrikatu dutenez (cf. Romaine 1982: 122, Drinka 1990: 120, Milroy 1992b: 1-2, Conde Silvestre 2007: 41), ez dago arrazoirik gaur egungo hizkeretan dagoen aldakortasuna aurreko garaietan ez zegoenik pentsatzeko, nahiz eta testuen literaturtasunak edo estandarizazioak aldakortasun hori murrizteko joera izan.

Testu zahar batean aldakortasun handia aurkitzean ziurgabetasuna jakin-nahia bezain handia izan ohi da. Izan ere, euskal testuez aritzean behintzat, ez ohi da informazio handirik egoten testua sortu zeneko testuinguru soziokulturalaz, eta horrek aldakortasunaren zergatiak eta norabideak argitzea eragozten du.

⁴⁵ Entzule edo hartzaillearen artean bereizketa sakonagoa egiten du orrialde horretan bertan, baina hemengo helburuetarako ez du merezi xehetasun horiekin hainbeste luzatzea.

Beste alde batetik, zalantzak sortzen dira testu batean jatorri ezberdina duten eta elkarrekin konbinatuta espero ez ziren formak agertzen direnean: “testu erlatiboki diatopiko” izendatu zituen halakoak Caminok (2003: 45 eta hurrengoak) hego-nafarrerako XVIII-XIX. mendeetako testuak ikertu zituenean, eta islatzen duten hizkerari *mischsprache* deritze.⁴⁶

Vossek (1988: 605) ezin hobeto deskribatzen du halakoek eragiten duten egoera: batzuetan, nahastea nabarmena da eta zenbait eremutako ezaugarri nahasiak asko dira; beste batzuetan, ematen du idazleak bere eskualdeko hizkera izan zuela oinarri, nahiz eta garaian garaiko ohituren arabera beste eremu batzuetako elementuak erantsi. Halakoetan, arrasto literario horiek salbu, idazkia funtsean dialekto baten ordezkari leiala da. Nahaste dialektala eta oinarri leiala duena absolutuki bereiztea ez da erraza izaten, ordea; gehiago izaten da mailakatze-arazoa.

Halako nahasteak dakartzaten testuen aurrean ez dakigu ziur “nahaste hutsak” diren ala idazleak bilatutako “eredu nahasia” duten, nahiz eta egile beraren beste lan batzuk hori argitzeko lagungarri izan daitezkeen: Astigarragak Zarauzko komentuan urte asko eman zituen eta ohitura handia zuen Gipuzkoa aldeko euskara erabiltzeko, baita bere buruarentzat hartzen zituen oharrak idaztean ere (cf. Etxebarria & Apraiz 2007); horrenbestez, badirudi zentzuzkoagoa dela pentsatzea haren sermoi batzuetan agertzen diren nahasteak “ihes egin” zioten interferentzia dialektalen ondorio direla.⁴⁷

Orain arte fidagarritasunari eta leialtasunari buruz esandakoak laburbilduz, beraz, aintzat hartzekoa da testu bakoitza bere ekoizlearen errealitateak eta transmisioaren historiak bizi duela. Fidagarritasuna eta leialtasuna egiaztatzeko hainbat hatsarre eta jokamolde orokor badaude ere, gogoan hartzekoak dira horietako bakoitzak dituen mugak eta ñabardura-beharrizanak.

2.5.2. Bigarren mailako iturriak

2.5.2.1. Toponimia

Crowleyk (1986: 101 eta hurrengoak) bi lekukotasun-mota bereizi zituen ingeles zaharraren dialektoak aztertzeko: testuak (glosak, poesia eta prosa) eta testu izatera heltzen

⁴⁶ “A text composed of more than one dialect represents a *Mischsprache*: an arbitrary mixture of different dialects” (Van Reenen *et al.* 2009: 22).

⁴⁷ Gipuzkoa aldeko euskara erabiltzeko ohituraren, idatzi artean arreta galdu izanaren edo aurreko bien ondorioz. Arreta dela eta, ahozkoaz ari bazen ere, estu lotu zituen Labovek (1972a: 208) hiztunen estiloa eta hitz egitean jartzen zuten arreta, nahiz eta gerora egin zaion zehaztapenik baieztapen horri (cf. Bell 1984).

ez direnak (txanponetako testuak, idazkunak eta toponimoak). Zioenez, testu-ebidentziek izan behar dute nagusi, eta gainerakoek osagarri: testuetan agertzen dena egiazta dezakete edo isoglosak aurkitzeko lagungarri izan daitezke, baina bigarrenek ezin dituzte lehenengoak ordezkatu.

Material osagarrien artean agerikoa da leku-izenen balioa eta fidagarritasuna handiagoa dela, leku finko bati lotuta daudelako.⁴⁸ Gainera, toponimoek isoglosak irudikatzeko balio dute, betiere kokapena egoki ezarri bada bai geografikoki, bai linguistikoki:

Middle English records of localisable place-names appear as a gift to the Old English dialectologist. So, theories (relating to both diatopic and diachronic variation) are sometimes constructed on the basis of name data alone: such theories are to be accepted with caution, ideally only in the light of other evidence. (Colman 1988: 124)

Badirudi izen hutsak ez direla guztiz nahikotzat jotzen Ingeles Zaharreko dialektoak mugatzeko; izan ere, izen gehienak Ingeles Zaharraren ostekoak dira. Colmanek dioenez, ingeles zaharreko izenek ez dute aldakortasun morfologiko diatopiko esanguratsurik islatzen: batez ere aldakortasun fonologiko diatopikoa agertzen dute (Colman 1988: 111 eta 133). Laburbilduz: “What is in a name lies in its potential interpretation as evidence for historical dialectology – but as corroborative evidence, and not sole evidence for drawing dialect maps, or positing inter-dialectal influence” (*idem*, 134).

Erdi Aroaz geroztik leonerak atzera egin du gaztelaniaren aurrean: orduz geroztik murriztu egin da toponimiak garai zaharragoetarako islatzen duen hedadura, eta gaztelania indarrez zabaldu da. Moralak dioenez (2009: 155), leoneraren isoglosa guztiak goitik behera irudikatu izan dira, baina toponimiaren bidez leonera zaharraren geografiaz argi gehiago bilatu nahian, gurago izan du Donejakue bide zaharraren inguruko toponimia aztertu, ekialdetik mendebalera (Burgos → Sahagún → Leon → Astorga → Ponferrada → Galiziako muga), bidearen iparraldean eta hegoaldean geratzen diren toponimoak erabilia. Ondorioak argigarriak dira: dialektologiako eskuliburuek leoneraren ezaugarriak ematen ez duten lekuetan toponimiak gorde egin ditu ezaugarri horietako batzuk, hala nola Sahagún eta Leon arteko eremuan (Morala 2009: 158).

⁴⁸ Cf. “El topónimo, aferrado al terreno al que da nombre y liberado de la obligación de estar integrado semánticamente en la lengua en la que se usa, mantiene mucho más fácilmente formas arcaizantes que delimitan de forma bien clara antiguas isoglosas que la progresiva evolución lingüística ha desdibujado cuando no borrado por completo” (Morala 2009: 170).

Mendebalerantz hurreratu ahala agertzen dira dialektologoen leonerari egotzi izan dizkieten isoglosak, nahiz eta eremu batzuetan agerikoa izan isoglosa horiek ahuldu edo ezkererantz mugitu direla: Astorgatik Ponferradara bitartean gorde dira ondoen leoneraren ezaugarriak bai tokiko hizkuntzan, bai toponimian, eta Bierzo aldera hurbildu ahala garbia da aldaketa toponimoetan, galizieraren ezaugarriak agertzen baitira (Morala 2009: 163 eta hurrengoak).

Euskal Herrira etorruta, euskara galdu den eremuetan aztergai garrantzitsua izan da toponimia (Salaberri Zaratiegi 1996: 223 eta 1998: 48). Onomastika baliagarri izan da, atzerrian legez, hala hizkuntzaren kanpoko nola barneko historiari begiratzeko, “leku-izenen azterketaren bidez lortzen den hizkuntzaren ezagutza murrizta dela ongi jakinagatik” (Salaberri Zaratiegi 1991: 620).

Hizkuntzaren kanpoko historiari dagokionez, aipagarri da Salaberri Zaratiegik bere doktorego-tesian (1994) eta ondoko lanetan onomastika erabiliz Nafarroako hegoaldean irudikatu duen muga linguistikoa: Ameskoatik ekialderantz, Pirinioetara bidean dauden ibarretako onomastika zehatz aztertutik erakutsi du ez zela eten zurrunik euskararen eta erromantzearen artean, eta Ameskoagainak eta Ameskoabarrenak euskaldun iraun zutela XIX. mendera arte, Allin haranak, Lanak eta Lizarra inguruko beste ibar batzuek bezala (Salaberri Zaratiegi 2012: 146).

Ekialderago, Lopez-Mugartzaren tesiak argia ekarri du egungo Euskal Herritik eskuin geratzen diren Pirinio aldeko ibarretan gordetako euskal toponimoez: Erronkaribarreko eta Ansoko (Aragoi) toponimoak aztertutik, eta Zuberoako eta Biarnoko datuak ere aintzat hartuta erakutsi du Anso iparraldean (batez ere Anso herrian bertan eta hortik iparralderago) badaudela euskal jatorriko toponimoak eta inguru hura euskaldun izan bide zela Behe Erdi Arora arte (2008: 345). Alabaina, ez du garbi esaterik Aragoiko euskararen azken lekukotasun horien eta Erronkaribarreko euskararen materialen artean loturarik dagoenik; ez du esaterik Erronkaribarreko eta Ansoko hizkerak bat zetozen, ez dagoelako hori baieztatzeko datu fidagarririk:

Beraz, Ansoko euskara eta ingurukoak morfologikoki (lexema autonomoz eta atzizkiez ari gara) antzekoak badira ere eta familia berekoak direla sumatzen bada ere, erabateko froga fonologikorik ez dago aldarrikatu ahal izateko Ansoko euskara zubereraren eta erronkarieraren senide hurbila dela, ez oraingo zubereraren eta duela gutxi hil den erronkarierarena behintzat (Lopez-Mugartza 2008: 348).⁴⁹

⁴⁹ Ez da baztertzekoa horren karietara Caminok proposatzen duen azterbidea: “Pentsa genezake, bestaldera, Huesca alderdi horretan euskaraz egiten zen garaian –egia esan ez dakigu noiz itzali zen–, Erronkarin ez izatea oraino bertako mintzoa berexi bihurtu duten hainbat eta hainbat berrikuntza, ezaugarri erronkariar

Ez da gai samurra euskarak Pirinioetan izan zuen hedadura datu fidagarriak eskuan baieztatzearena, Salaberri Zaratiegiren azken urteotako zuhurtzia-deiak lekuko: “Lehenik eta behin erran nahi dut zuhurtziaz ikusi eta ibili behar ditugula zenbait ikertzaile «baikorren» lanak” (2011: 1019).⁵⁰ Uxuekoak ez du ukatzen, Corominasez geroztik uste izan denez, euskararen arrastoak Andorrara bitarte aurki daitezkeenik, baina “iragazki tapituagoa” erabili beharra aldarrikatu izan du behin eta berriz, euskal toponimotzat jotakoak benetan hala diren ebazteko, ez baitakusa argitasun handirik Pirinioez hegoaldera dagoenaren edo egon denaren inguruan: “arrunt toponimo guti lot daitezke euskararekin, eta egiten diren horiek ez dira, guztiz gehienetan, batere seguruak” (Salaberri Zaratiegi 2012: 152).

Euskararen barneko historiari dagokionez, azken urteotan (ere) egin da aurrerapenik toponimia bitarte. Onomastikarekin (oro har) lan egitea ez da testuekin edo egungo hiztunekin lan egitea: iturri bakoitzak egokitzapen metodologiko bat eskatzen du, egiten den lanak berme zientzifikoa izango badu. Hori dela eta, aintzat hartu behar dira material bakoitzak dituen mugak eta arazoak, ahal den neurrian aurre egiteko. Toponimiari dagokionez, kronologiarekin lotutako arazoak ez dira gutxi.

Salaberri Zaratiegik esan zuenez, azterketa sinkronikoak ezin egin daitezke, eta toponimiak ez ditu berdin islatzen aztertu ohi diren hizkuntza-maila guztiak: ondorioztatu izan du toponimiaren emankortasun handiena fonetikan eta semantikan ageri direla, nahiz eta beste mailen inguruko (adibidez, eratorpen-atzizkiak morfologian, perpaus erlatiboak dituzten toponimoak sintaxian edo hizkuntza-galerari eta -aldaketari loturiko azentu-gaiak prosodian) argirik ere lor daitekeen (Salaberri Zaratiegi 1991: 620). Bestalde, oso gogoan hartu behar da arkaismorako joera (*idem*, 623). Joera horrek, ordea, ez dakar berrikuntza batzuen aurreko iragazgaiztasunik: Salaberri Zaratiegik berak dioenez, bere ikergaietan bokal-armonia agertzen ez bada, egiten ez zelako da (1994: 1001-1002).

Erdi Aroko euskara ikertzeko materialen eskasia ezaguna da: Akitaniako idazkunen ondoko hiatusaren ondoren, “casi no se puede recurrir más que a la onomástica en busca de los datos básicos durante el período que va, más o menos, del año 900 a 1500”

markatu horietarik hainbat eta hainbat oraino garatu gabeak izatea, Huescan euskara itzali ondoko berrikuntza berankoragoak izatea kallesenak” (2011: 96-97). Orain ezagun da Ros-Etxart gutunerian (1617-1617) ez direla agertzen gerora erronkarieraren ezaugarritzat jo diren hainbat forma: begiratu Lakarra (2011: 209 eta hurrengoak).

⁵⁰ Begiratu Salaberri Zaratiegik berak J. B. Orpustanen *La langue Basque au Moyen Âge* lanari eginiko kritika gogorra (*RIEV* 44:1, 205-209). Bide batez, aintzat hartzekoa da Salaberri Zaratiegi (2011) lanean onomastika ikertzeko proposatzen duen irizpide eta iragazki metodologikoen andana arrazoitua.

(Mitxelena 1971b: 275). Egoera horrek oztopatu egiten du Euskara Batu Zaharraren eta azken milurteko dialektalizazio-prozesuaren hastapenaren irudi zehatzagoa izatea, baina Euskara Batu Zaharraren fragmentazio-prozesuaren inguruko proposamen zehatzagoak ekarri dituzte Zuazok (2010, 2012, 2019), Lakarrak (2011), Caminok (2011), Reguerok (2013), Aldaik (2014) zein Abaituak (2019) hondar urteotan (begiratu §2.6.3 eta §2.6.4 atalak).

2.5.2.2. Substratua

Aurreko azpiatalarekin bat, hizkuntza bat beste baten menpe txikitzean edo galtzean uzten du arrastorik hizkuntza berrian: onomastikaz harago, “substratu” deitu ohi dena ere agertzen da; hots, hizkuntza galduak eguneroko bizimoduan nagusitutako hizkuntzan utzitako hondarrak, hala nola zenbait ahoskera edo item lexiko; cf., aurretik aipatutako leonera dela eta, honako aipu hau: “En el habla actual [...] el leonés se limita a teñir de tintes regionales una forma de expresión fundamentalmente castellana” (Borrego 1996: 15).

Sasoi batean bizi-bizirik egon ziren gaztelaniaren sorreran euskarak izan zitzakeen eraginei buruzko proposamen eta eztabaidak, baina badirudi gaur egun baretuta dagoela gaia eta azken aldian ez dela aurrerapen ikusgarriarik egin: Gorrotxategiren ustez (2012: 103), Lapesaren *Historia de la lengua española*-k laburbiltzen du gaiari buruzko iritzi onartuena eta autorizatuena.⁵¹

Egungo gaztelaniara eta euskarara etorrira, ezagun da asko direla bi hizkuntzen arteko maileguak: Zaratek 1970eko hamarkadan Txorierrin bildutako sorta luzea begiratzea besterik ez dago,⁵² ez bere sorterri inguruan bakarrik, baina Euskal Herriko beste hainbat lekutan (baita euskara aspaldi galdua den lurraldeetan ere) gaztelaniaz aritzean erabiltzen diren euskal jatorrizko hitzak aurkitzeko. Bizkai aldeari begiratuta, *ondakin* edo *zaborra* arruntak dira Barakaldoko jatorrizko erdal hiztunetan oraindik, eta nabarmentzekoa da Arriagak XIX. mendean osatutako hiztegia, hainbat gehiegikeria

⁵¹ Azken urteotan, Echeniquek eginiko hainbat lan argigarri dira euskararen eta erromantzeen arteko kontaktua aztertzeko, baina asko da oraindik ere egiteko dagoena: “Está aún por establecer (...) la cronología relativa de la fecha de entrada de latinismos y romanismos en vasco, así como de vasquismos en castellano, gascón o francés, tarea que va siendo cada vez más necesaria” (2004: 76, *apud* Gorrotxategi 2012: 104). Euskarara sartutako maileguen geruzak direla eta, ustiatu beharreko ikerbidea argitzen du Lakarra (2012: 48 eta hurrengoak) lanak.

⁵² Lezamarraren ustez, euskararen goitik beherako eragina omen zen Txorierriko gaztelaniaren ezaugarri nagusia: “La característica principal del habla castellana del Chorierrri es la influencia que el vascuence ejerce sobre ella, de tal modo que podemos afirmar que es un *renuevo vasco injerto en el casellano*, un renuevo de la lengua materna de los vascos actuales o de la lengua materna de sus antepasados” (Zarate 1976: 181).

etimologiko dituen baina Bilboko gaztelanian gordetako euskal hitz asko biltzen dituen: “Aquí puede afirmarse sin reticencias que su constante manejo es indispensable” idatzi zuen Mitxelenak lan horri buruz (1960b: 17).

Arabako ekialdeko eta Sakanako euskararen artean zer-nolako *continuum*-a dagoen aztertu zuen Erdoziak 2006ko saio batean. Eskura zituen material guztiak baliatu zituen lan hartan: Arabako testu zaharrak, toponimia eta López de Gereñuk *Voces alavesas* (1958) lanean bildutako hitzetatik Zuazok *Arabarrak euskararen herrian* lanean bereizitako batzuk;⁵³ zehazki, Zuazok Arabako ekialdean kokatutakoetako batzuk aztertu zituen Erdoziak. Lanaren emaitzetan hautaturiko itemetatik hirurogei bat ondo ezkontzen ziren Sakana aldeko euskararekin: lotura ageri zen maila horretan ere (Erdozia 2006: 253), halako lexikoiek hizkuntza galdu den eremuetan egiten zen euskararen iturri gisa duten balioa berretsiz.

2.5.2.3. Berba bi berreraiketaz

XX. mende hasierako europar hizkuntzalari handi zenbaitek pentsatu eta idatzi zuten euskarak, ahaide ezagunik gabeko hizkuntza genetikoki isolatua izanik, ez zuela historiarik. Ezagun da euskal diakronisten artean Meilleten aipu hau:

Metodo konparatzailea hizkuntzen historia egiteko metodo bakarra denez gero, hizkuntza bat bakartuta dagoen bitartean historia gabekoa da. XVI. mendeko euskara eta gaur egungoaren artean ezberdintasunak egon badaude; baina aldaketak ez dira oinarrizkoak; funtsean, hizkuntza oraindik bat bera da. Hortaz, euskara beste hizkuntza batekin parekatzeko modurik aurkituko ez balitz, ez legoke haren historia sekula egiteko inolako itxaropenik. (2001 [1925]: 25)

Testuak eduki ezean, antzinako hizkuntzetan gertakariak ezin aztertu zirela ere esana zuen frantziarrak (2001 [1925]: 23), baina orduz geroztik euskararen inguruan egin diren ikerketek besterik erakutsi dute: *FHV* bera bakarrik nahikoa ez balitz bezala, begiratu Meilleten pasarte horri berorri *Lenguas y protolenguas* lanean Mitxelenak eginiko iruzkina (1963: 9 eta hurrengoak).

Ahaide ezagunik gabeko hizkuntzen historiari buruz ikasteko bide eta lanabesen artean barne-berreraiketa aipatzen du Campbellek (2011: 34); are gehiago, hizkuntza isolatuak aztertzeke baliabide erabilienean izan dela gogoratzen du. Foxen azalpenei jarraikiz, Saussure jo daiteke barne-berreraiketaren aitzindaritzat, indo-europarraren

⁵³ Euskal hitz garbitzat jo zituenak hautatu zituen eibartarrak, baina baztertu egin zituen Arabako testu zaharretakoak eta Aramaiokoak; bestalde, López de Gereñuk bildutakoak zein herritan bildu ziren zehaztu zuen (Zuazo 1999: 83). Arabako euskarari buruzko lan berriago batean (Zuazo 2012), bereizita eman ditu Zuazok Arabako euskal testu zaharretan esanguratsutzat jotakoak eta, 1999ko lana tokian tokiko beste hiztegi batzuekin eta arabar berriemaileen datuekin osatuta, Arabako gaztelanian (Aramaiokoan eta Legutio aldekoan izan ezik) bizirik dirauten euskarazko hitzak bildu ditu.

sistema bokalikoaz gaztetan eginiko lana dela eta. Aitzitik, ordukoa ez bide zen metodologia hura garatzeko giro aproposena: egokiagoa suertatu zen 1940ko eta 1950eko hamarkadetako giroa, non hizkuntz aldaketaren interpretazio estrukturalista hedatu baitzen (Fox 2007 [1995]: 145-146).

Euskarari dagokionez, barne-berreraiketaren bidez historiaren mugak gainditu⁵⁴ eta historiaurrera iristeko modua dagoela erakutsi dute Mitxelenak eta haren ondoren metodoa ezagutzeaz eta zuhur aplikatzeaz arduratu direnek. Hain zuzen, lan horri esker hitz egin daiteke gaur egun Euskara Batu Zaharraz, Aitzineuskara Modernoaz eta Aitzineuskara Zaharraz, besteak beste. Euskararen historia konbentzioz XVI. mendean hasten delarik (Mitxelena 1963: 9), lehenengo testuetan bertan agertzen dira aro garaikidean irudikatu izan diren euskalkien aurrekariak (ezen ez gerora ezagutu diren euskalkiak eurak), aurreko atal batean aipatutako hutsune dokumentalak hutsune. Lehenengo testu luzexkak agertu orduko badaude, beraz, goragotik zetorren dialektalizazio-prozesu luzearen hainbat ondorio. Askotan, ordea, ez da erraza ezaugarri eta bilakabideak noiz sortu edo hedatu ziren zehaztea, nahiz eta aurreko ataletan aipatutako irizpideei jarraikiz hainbat auzi argi daitezkeen.

Mitxelena (1981a) lanaz geroztik badago arrazoi sendorik proposatzeko euskalkiak aurretik uste zena bezain zaharrak ez, baina Erdi Aroan (hain zuzen ere, Akitaniako idazkunez geroztiko *hiatus* luzean) sortu bide zen Euskara Batu Zaharrazaren ondoko dialektalizazio-prozesuaren ondorio direla.⁵⁵ Euskalkiak, beraz, ez datoz Aitzineuskara Modernotik zuzenean, ezpada Euskara Batu Zaharrazaren ondoko dialektalizazio-prozesutik.

Mitxelenak gogorarazi zuenez, aurreko garaiei buruzko informazioa gordetzen duen sistema da hizkuntza (1963: 7). Datuei teoria linguistikoa egoki aplikatuta informazio gehiago eskura daiteke aztergai diren ezaugarrien iraganaz, eta euskarari dagokionez, corpora txikia eta berankorra izanik, historiaurreaz jakiteko eta garai historikoko datuak zuzen interpretatzeko (cf., adibidez, *u-* : *i-* dela eta egin beharreko bereizketa etimologikoak §4.1.4 atalean) ezin lagungarriagoa da berreraiketa.

⁵⁴ Berreraiketa-gaiak hizpide ditugula gehienbat historiaurreari begira dihardugun arren, ez da ahaztu behar historia barneko dokumentazio gabeko txoko eta garaietan argi apur bat egiteko ere balio duela: “barneberreraiketa ezinbazerteruko lanabes dugu, are historia barneko lekukotasun gabeko garaietarako: zer egin, esaterako 1545az geroz urtetan lekukotasun haboro ez duen ekialdeko baxenafarrerarekin? Edota Amilletaren dotrinatik (1678) 1825ekora bitartean lekukotasunik ez duen Antzuolako hizkerarekin?” Lakarra (1997b: 547).

⁵⁵ “AE, berariaz berreraiki litekeen garairik zaharrena dugu, eskura diren lekukotasun eta lanabesek baimentzen diguten (ahalik) urrunena (...) EBZ, aldiz, dialektalizazio historikoaren aitzinxeko aldia dugu edo horrela nahi genuke, alegia, dialekto historikoak azaltzeko aukeratzen dugun lehen isoglosa sortu zenekoa, ez bost edo hamar mende lehenagokoa, AE bezala” (Lakarra 2011: 163).

Berreraiketaren bidez, Euskara Batu Zaharrari dagozkion zenbait alderdi argitu daitezke eskura dauden datuekin, hala nola dialektalizazio-prozesua azaltzeko hain garrantzitsu diren isoglosa zahar dialektal zein supradialektalekin, edo lekukotasun zaharrenek azaltzen dituzten filiazio linguistikoekin.

2.6. Euskal dialektologia historikoaren ibilbideaz

2.6.1. Mitxelena aurreko garaiaz

2.6.1.1. Idazle, gramatikolari eta hiztegi-gile zaharren aipamenak aipamen (begiratu Pagola 1991 eta Camino 2009: §29), XIX. mendearen bigarren erdian kokatu ohi da euskal dialektologiaren sorrera: L. L. Bonaparteren mapan islatzen da euskalkien lehenengo sailkapen zientifikotzat jo ohi dena, mapa horren bidez sintetizatu baitzituen printzeak zenbait urteko lan esker-garen bidez bildutako datu eta informazioak. XX. mendean egindako aldaketak aldaketa (cf. Azkue 1905-1906, Mitxelena 1958, *FHV*, 1964a), sailkapen estandarra izan zen Bonaparterena Zuazok (1998) sailkapen-proposamen eguneratua egin zuen arte.

XIX. mendearen azken hamarkadetatik 1950era bitartean euskalaritzan aurrerapen nabarmenak egin zirela ezin da ukatu. Azkueren, Campionen, Urkixoren zein Lafonen lanak berrikusi eta dagokien garai eta testuinguruan aztertzea besterik ez dago; ohiko izenak dira hainbat gairi buruzko bibliografietan, eta gerora egin diren lan bikain askok arestikoenak izan dituzte oinarri edo aurrekari.

Euskal dialektologiaren esparruan ere egin zen aurrerapenik aipatutako denbora-tartean, askotan lanen helburua bete-betean dialektologikoa izan ez arren: Azkueren hiztegian ematen den informazioa, *Erizkizundi irukoitz*-ean bildutako materialak, *Morfología vasca*-ko informazio zabala zein *Evolución de la lengua vasca* bezalako monografikoak nahitaez aipatu behar dira; halaber, gogoan hartzekoak dira Azkuek berak Bonaparteren lanez egindako iruzkin kritikoak (cf. Azkue 1926) eta, areago, erronkaria eta zuberera bereizi beharra eta iparraldeko eta hegoaldeko goi-nafarrerak eta mendebaleko eta ekialdeko behe-nafarrerak batu beharra ikusi izana:

En la clasificación de los dialectos he seguido casi á la letra la del príncipe Bonaparte (...) Las variantes introducidas por mí son: considerar el roncalés no como subdialecto suletino, sino dialecto, y ver un solo dialecto en el alto nabarro y uno también el bajo nabarro, teniendo por

simples subdialectos el septentrional y meridional del primero y el oriental y occidental del último. (Azkue 1905: vi-xxvii)

Euskal ikertzaileekin batera atzerriko zenbait euskalariren interesak ere izan zuen emaitza ereduarririk XX. mende hasieran: tesi honi dagokionez, Navarro Tomásék (1923) Gernikako euskarari eta Rollok (1925) Markinakoari buruz ematen dituzten xehetasunak ditut gogoan, besteak beste.

Euskalkien sailkapenari dagokionez, XX. mende hasieran Lacombe urrundu zen Bonapartek eta gutxixego edo gehixego haren jarraitzaileek ezarritako eta finkatutako eredutik, ezagun baita bestelako ikuspegia eman zuela; haren ustez, bizkaiera vs. gainerako euskalkiak zen euskaraz egin beharreko bereizketa dialektala:

Il suffirait peut-être de distinguer deux grands groupes dialectaux: le biscayen (que l'on pourrait appeler aussi basque occidental) d'un côté, et de l'autre côté tous les autres dialectes (...) Nous justifierons cette classification par la considération suivante: on passe par gradations insensibles d'un parler à l'autre parmi ceux qui constituent ce groupe, tandis que le saut est brusque lorsqu'on passe du guipuzcoan au biscayen. Ce dernier dialecte se distingue en effet, dans toute une partie de son verbe, par l'emploi d'auxiliaires qui lui sont propres, il offre des particularités qui n'appartiennent qu'à lui dans maints détails de la grammaire en plus grand nombre que les autres dialectes, et en fin son vocabulaire tranche aussi assez souvent sur celui de ces congénères. (Lacombe 1924: 260)

Caminok dioenez, bizkaieratik gipuzkerara jauzi handia zegoelako ideia, nolana ere den, “ez zen guttiz berria: Bonapartek, Duvoisinek, Campionek & Broussainek edo Urkixok aipatua zuten” (2009: 505).

Hain zuzen ere, Lacomberen proposamenari jarraikiz aritu zen Uhlenbeck, eta Lacomberen “bitasun sinkroniko horri erabateko sakontasun diakronikoa eman zion” (Lakarra 2011: 234):

Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l'impression qu'il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occidentaux anciens qui, pendant une certaine période, n'étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l'un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoire espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d'autres mots l'effacement graduel des limites indubitablement nettes autrefois, est un procès en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours. (Uhlenbeck 1947: 544)

Lacombe-Uhlenbecken proposamena da, hain zuzen, Mitxelena aurreko garaian euskalkien bilakabide historikoaz aurki daitekeen proposamen bakanetakoa.

2.6.1.2. Euskalki jakin bati edo batzuei buruzko ikerketez harago, XX. mende gehiengan lotu izan zen euskalkien jatorria aspaldiko garaiekin, izan erromatarren aurreko leinu zaharrekin, izan erromatarren osteko elizbarrutien banaketarekin. Mitxelenak (1981a; begiratu hemengo §2.6.2) Euskara Batu Zaharraz egindako proposamenak argudio

linguistikoen bidez gainditu zituen proposamen horiek, eta orduz geroztik apaldu egin da hipotesi eta ikuspegi zaharren indarra: arazorik gabe baieztatu daitezke euskal dialektologialari eta diakronista nagusiek (eta gehienek) Mitxelenaen proposamenari jarraitu diotela azken urteotan (§2.6.3),⁵⁶ salbuespen gutxi batzuk salbuespen (cf. Txillardeggi & Aurrekoetxea 1987, Pagola 1991, Arejita *et al.* 2007, Aznar 2017).

Euskal leinu zaharrak eta euskalkiak Oihenartek (1638) lotu zituen lehenbizi, baina hipotesia XX. mendean indartu eta zabaldu zen batez ere, nagusiki Euskal Herriko mendebaleko euskararen banaketa dela eta (begiratu Mujika 1914, Caro Baroja 1943, 1946, 1973 [1958] zein Allières 1981). Zuazok (2010a: 140 eta hurrengoak, 2019: §2) dioenez, badirudi Bonapartez geroztik *bizkaiera* deitu izan denaren eremuan datozela bat (edo inon baino batago) leinuen, elizbarruti zaharren eta Bonaparteren euskal dialektoen arteko mugak;⁵⁷ mendebaletik erdi-ekialderantz egin ahala, ordea, bat etortzeak bortxatuagoak dira edo, zuzenean, ez dago bat etortzerik:

También se cita a menudo el caso de las localidades guipuzcoanas de Oiartzun, Hondarribia e Irun, pero ahí tenemos ya una contradicción, pues si bien esa zona se supone que estuvo poblada por los vascones, y se ha considerado –aunque esto es discutible– de habla navarra, eclesiásticamente perteneció al obispado de Bayona, y no al de Pamplona, como en principio cabría esperar.

De todos modos, los desajustes son todavía mayores en otros lugares, por lo que habitualmente se silencian y se ocultan. Así, por ejemplo, el príncipe Bonaparte distinguió cuatro dialectos en el norte de Vasconia. Otros creemos que ese número es excesivo, pero en cualquier caso todos aceptamos que hay al menos dos dialectos: el suletino y el navarro-labortano. Pues bien, ese dialecto estuvo dividido en tres obispados –Bayona, Dax y Olorón– y, al decir de los historiadores, estuvo ocupado por una única tribu (...).

La relación ‘tribus-diócesis-dialectos’ tampoco se cumple en Guipúzcoa y Navarra. Eclesiásticamente, la mayor parte de esas dos provincias estuvo encuadrada en un único obispado, el de Pamplona. Sin embargo, los autores antes citados afirman que estuvieron pobladas por dos tribus diferentes, la de los vascones y la de los várdulos y, desde el punto de vista lingüístico, se hablan dos dialectos principales –el central y el navarro–, todo ello sin olvidarnos de las peculiares hablas de los valles navarros de Salazar y del Roncal. (Zuazo 2010a: 141)

Egungo dialektologialari eta diakronistek azaldu dutenez, leinuen, elizbarrutien eta dialektoen arteko ustezko loturak azalpen bakarra izan dezake (cf. Lakarra 2011: 165): hizkuntzaren (eta hizkuntza hezuramaitzen duten dialektoen) ikuspegi pankronikoa eta estatikoa; alegia, 1500 edo 2000 urtean dialektoak ezer gutxi aldatu direlako ustea, datu linguistikoek etengabe eta argiro erakusten dutenaren aurka:

⁵⁶ Historialarien ekarpenez, Barrena (1989) eta Jimeno (2003) aipatu izan ditu Zuazok (2007).

⁵⁷ Hain zuzen ere, izan da oraintsuago ere elizbarrutien eragina aintzat hartu beharrekotzat (gutxienez) jotzen duenik: “Los límites episcopales –y con ellos los dialectales– también tendrían alguna relación con ese fenómeno demográfico. En el caso del euskera occidental, la similitud de los límites eclesiásticos y dialectales se antoja excesiva para obedecer sólo a la casualidad” (González de Viñaspre 2011: xxxiii).

Antzinako leinuen banaketa eta Bonapartek proposatzen zuen euskalkien sailkapena uztartzekotan, erromatarrek etorri ziren garaiko leinuak eta XVI. mendeko edo Bonaparteren XIX. gizaldiko dialekto ezagunak banaka lotzekotan, iragan diren hemezortzi edo hogeita bat gizaldi luze horietan euskal mintzoen artean bereizketa eta zatiketa handiagoa espero beharko genuke, baina euskalkiek erakusten diguten zatiketa ez da horren handia. Ez ote da hau, esan ohi den baino, euskalkiak berriago diren adierazle? (Camino 2009: 475)

Esandakoa ezin hobeto islatzen du Caro Barojaren ondoko azalpenak:

En la parte meridional del país, en Alava, parece que durante la Edad Media y la Edad Moderna ha habido un dominio del vizcaíno, o si queréis una *vizcainización* progresiva, pues no deja de ser significativo que algunos nombres que, allá a comienzos del siglo XI aparecen en textos como la llamada reja de San Millán, con una fisonomía vasca central u oriental, luego surjan con un aspecto completamente vizcaíno, es decir, occidental. Así tenemos primero “Harizavalleta” y luego “Arechavaleta”, primero “narbaiza” y luego “narbaja”... (Caro Baroja 1973 [1958]: 293-294, *apud* Camino 2009: 474)

Baieztapenak funts bakarra izan dezake: dialektoen ikuspegi estatikoa, aldagaitza eta pankronikoa. Horren arabera, Bizkaiko euskarari “betidanik” egotzi behar zaio $Vj(t)z \rightarrow Vj(t)x$ palatalizazioa, horrela bakarrik azal baitaiteke *bizkaitartzea*. Datu linguistiko zaharrenak arakatuta, ordea, bestelako egoera azaltzen da: XI. mendean ez zegoen era horretako palatalizaziorik Bizkaian (§4.2.2.2.9) eta palatalizazioaren kronologia bera edo bertsua da jaurerrian eta Araban: gerora ere aipatuko dudanez (§5.2.3.2), ezin esan dezaket palatalizazioa Bizkaian edo Araban sortu zen, baina datu linguistikoen joerak islatzen du berrikuntza erlatiboki berankorra dela Erdi Aroaren barnean, ez onomastikan dokumentatutako zaharrenetarikoa (beraz, are gutxiago elizbarruti eta leinu zaharren garaikoa), ez gerora *bizkaiera* deitu izan den dialektoaren hedadurakoa.

2.6.2. Mitxelenaren ekarpenez

2.6.2.1. Hualdek dioenez, “Diakronikoki, euskal dialektologia Mitxelenak (1981) definitzen duen euskara batu zaharrarekin (EBZ) hasten da” (2015: 126). Data hori mugarri da euskal dialektoen eta euskararen historiaren ikerketarako, oro har, orduan argitaratu baitzen “Lengua común y dialectos vascos” lana. Nik neuk ere ez dut arazorik 1981ean mugarria ezartzeko, baina aintzat hartzekoa da garatu gabe geratutako artikulu hartan agertzen den diakronista-ikuspegia, Mitxelenak berezko zuena, askoz lehenago agertzen dela erreteriarren lanetan.

Mitxelenak euskal dialektologiari eginiko ekarpenen artean dago Aezkoako eta Zaraitzuko hizkerak euskalki beregaintzat jo izana, Azkuek mende hasieran Erronkaribarrekoarekin egin legez, eta, areago, Arabako edo “hegoaldeko” euskara arkaikoa gainerako euskalkietatik bereizi beharra aldarrikatu izana. Erabaki baten eta

bestearen azpian datuen azterketa xehea dago, eta auziok argitzeko ezinbestean erabili beharreko ikuspegi diakronikoa baliatu zuen.

Landucciren hiztegiaren hitzaurrean zein 1960ko “Guipuzcoano y vasco” artikuluan aditz laguntzaileen banaketaz ematen den informazioan aurki daitezke gerora *euskal dialektologia historiko, diakroniko* edo *dinamiko* deitu izan denaren zantzu eta adibide paregabeak. Beste hainbat gaitan legez, halere, *Sobre el pasado de la lengua vasca*-n sakondu zuen Mitxelenak dialektologiaren alderdi kronologikoan; han agertzen dira finkaturik euskal dialektologia diakronikorako oinarriak: ezberdintze-prozesuak (1964b: 9) eta konbergentzia- eta dibergentzia-dinamikak (*idem*, 11) aipatu zituen Mitxelenak besteak beste, bai eta pankronismoa saihesteko eta diakroniari dagokion ikuspegi dinamikoaren beharra ere: “y nunca habremos de olvidar que la distribución actual de los fenómenos lingüísticos suele ser distinta de la pasada, aunque aquella nos proporcione indicios y claves para reconstruir ésta” (*idem*, 23).

Nafarroako Pirinioetako ibarretako euskara aztertzean dialektologian funtsezko den konparazioa baliatu zuen Mitxelenak, eta erkagaiak Rodríguez Adradosen (1997 [1952]) *berrikuntza / arkaismo / hautu* sailkapenaren arabera haztatu zituen, ezaugarri linguistikoen aldagai kronologikoa eta kronologia erlatiboak eratzearen garrantzia erdigunean kokatuaz (1964b: 29 eta hurrengoak; orain, begiratu Camino 2008a).

Denboran atzera egin ahala euskalkiak batuago zeudelako ideia ere 1964ko lan ezagunean agertzen da, hain zuzen ere Mitxelenak arestian aipatutako Lacomberen eta Uhlenbecken proposamenari erantzun zienean:

¿Ha habido convergencia desde entonces o bien diferenciación y divergencia? La respuesta no es dudosa para quien conozca algo de los viejos textos y del vizcaíno actual: *aquél estaba más cercano al guipuzcoano y a los demás dialectos que su continuador en el día de hoy.* (1964b: 37-38; letra etzana neurea da [EZ])

Horren aldeko eta aurrekoen proposamenen aurkako argudio linguistikoen artean aipatu zituen Bizkaiko euskarak lexiko eskusibo gehiago zuela ezin frogatzea, eta aditz laguntzaileen banaketa; alegia, *egin* arrunt izan dela aspaldirik Bizkaian ez ezik baita Araban eta Gipuzkoan ere, eta hiru horietako testu arkaikoetan aurki daitezkeela **ezan* laguntzailearen adibideak:

(...) La historia prueba al parecer, en contra de la opinión popular, la antigüedad de las formas verbales vizcaínas comunes con los demás dialectos y niega este título a las formaciones que hoy se consideran específicamente vizcaínas, cuya aparición explica suficientemente la fuerza de la analogía que tiende a regularizar los paradigmas. (*idem*, 38)

2.6.2.2. Denboran atzerago egin ahala euskalkiak batuago zeudela zekusan Mitxelenak 1960ko hamarkadan, eta ikuspegi horrek izan zezakeen ondorio larriena agerikoa zen arren, inor ez zen jabetu edo inork ez zuen aipatu Mitxelenak 1979ko hitzaldi batean lehenbizi eta 1981eko artikulua entzutetsuan ondoren egoera linguistiko bateratuagoa, *euskaro*-a edo *Euskara Batu Zaharra*, proposatu zuen arte.

Maila linguistiko guztietako ezaugarri estrukturalak edo/eta horien osagaiak euskalki guztietan komunak zirela ikusi zuen Mitxelenak:⁵⁸ euskalki guztietan erakusle-, izenordain- eta kasu-sistema berbera zela zekusan, eta berbera ez izatera dialekto jakin batek osagai komunak baliatuz sortua zuela berrikuntza; halaber, konposizio lexikoko arau zaharrak euskalki guztietan partekatuak zirela ikusi zuen, aditz-sistema eta toponimia zaharreko osagai morfologiko esanguratsuenak ere berberak zirela (bide batez, baita *dauz* eta *gintzazan* bezalakoak azken orduko *hiperbizkaiera*-renak zirela ere) eta, kronologia-gaietarako are interesgarriago dena, Aitzineuskara Modernoaren osteko zenbait berrikuntza (maileguen egokitzapena, artikulua mugatua, plurala) eredu bertsuari jarraituta gauzatu edo egokitu zirela euskalki guztietan: “el postular un vasco común relativamente próximo en el tiempo parece punto menos que necesario en el orden de la realidad y no meramente como una exigencia teórica de los métodos de reconstrucción comparativa” (Mitxelena 1981a: 538).

Mitxelenaren proposamenarekin bat, beraz, Bonapartek, Azkuek, Mitxelenak berak zein Zuazok deskribatutako euskalkiak ez datoz aitzineuskaratik (ez modernotik ez, are gutxiago, zaharretik), ezpada Mitxelenak V-VI. mendeetan kokatutako egoera linguistiko bateratuago batetik:

Euskalki modernoak –zein ere diren– ez datoz zuzenean A[itzin] E[uskara]-ren zatiketarik (K. aurreko azken mendeetan, baizik eta *izatekotan* EBZ-ren zatiketarik, ia mila urte bat geroago. Tarte horretan gauzatu bide zen batasun prozesua, lehenagoko bereizkuntzak ematuaz eta berrikuntza komun garrantzitsuak jasoaz. (Lakarra 2011: 164)

Proposamenak erabat baztertu zituen, agerikoa denez, leinuak ↔ euskalkiak eta elizbarrutiak ↔ euskalkiak bat etortzeari lotutako ameskeria itxuraldatuak. Lehenagoko euskal hizkeren konbergentziatik sortu bide zen Euskara Batu Zaharra, eta horren zatiketarik sortu bide ziren gerora ezagutu eta deskribatu diren euskalkiak, nahiz eta ez guztiak batera.

⁵⁸ Ez ditut hemen guztiak zerrendatuko, hainbatetan aipatu baitira; Mitxelena (1981a) laneko bertako azalpenez gain, sintesiak aurki daitezke Zuazo (2010a, 2019) zein Lakarra (2011: §2) lanetan.

2.6.3. Mitxelena ondoko garaiaz ikuspegi orokorra

2.6.3.1. Mitxelenak ez zuen (edo ezin izan zuen) Euskara Batu Zaharraren inguruko proposamena aitzineuskararen berreraiketa bezainbat garatu, eta proposamen interesgarria eta funtsezkoa izan arren, ezin esan daiteke hala Euskara Batu Zaharrari nola euskal dialektologia diakronikoari lotutako gaiak euskal dialektologiaren jardunaren erdialdean egon direnik XXI. mendearen hasiera baino lehen.

1970eko hamarkadaren amaieran eta hurrengoaren hasieran euskal unibertsitateetan Euskal Filologiako ikasketa-planak ezarri ondoren lan nabarmen interesgarriak egin ziren euskalaritzaren hainbat arlotan, baina dialektologiari dagokionez egungo hizkerak biltzeari eta aztertzeari eman zitzaion lehentasuna oro har: 1983koa da *Euskal dialektologiaren hastapenak* (eta 1987koa haren edizio zuzendua eta hobetua) liburua, 1984an berrargitaratu zuen Echaidek Azkueren *Erizkizundi irukoitza*, 1987an hasi ziren gerora *Euskal Herri Hizkeren Atlas*a izan dena egiteko landa-lanak eta *Euskalerriko Atlas Etnolinguistiko*-arenak. Halaber, Allières eta Yrizar bezalako ibilbide luzeagoko ikertzaileei hainbat izen gehitu zitzaizkien: Artola, Camino, Etxebarria Ayesta, Gaminde, Pagola, Videgain, Zuazo eta besteren lehenengo hitzaldi, lan argitaratu eta, zenbait kasutan, doktorego-tesiak 1980ko hamarkadakoak dira. 1990eko hamarkadan ere emankor izan ziren arestiko proiektu eta ikertzaileak, eta hainbat doktoregaik eta ikertzailek jarraipena eman zieten aurreko hamarkadako joerei. Halaber, aipatzekoak dira 1991n euskal dialektologiaz Julio Urkixo mintegiak eta Euskaltzaindiak antolatutako biltzarrak, Bonaparte ondareko funtsak argitaratzeko Pagolaren gidaritzapeko proiektua, Etxebarria Ayestaren (1991) doktorego-tesia, “Deustuko eskolan” beste hainbat tesi eta tesinaren eredu izan zena, Aurrekoetxeak (1992, 1995) Dialektometria euskalaritzara ekartzeko saioak eta hamarkadaren amaieran hurrenez hurren Caminoren eta Zuazoren zuzendaritzapean argitaratutako *Nafarroako hizkerak* eta *Dialektologia gaiak* liburuak.

2.6.3.2. Aurretik aipatu bezala, beraz, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan egungo hizkeren deskripzioak eta azterketak hartu zuten dialektologiaren eremu gehiena, nahiz eta tarteka dialektologia diakronikoaren esparruan sartzeko moduko lanik aurki daitekeen. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan nabarmen handitu ziren hala euskal testuen corpusa (begiratu Lakarra 1990 [1989] eta 1997a) nola corpus horren ezagutza, eta hala alderdi filologikoan nola linguistikoan sakontzeak ekarri zuen emaitzarik dialektologiaren esparrura. 1980ko hamarkadaren erdialdean Lakarrak (1983a, 1984b, 1985c, 1986c)

bizkaiera zaharreko zenbait ezaugarri buruz egindako saioak, adibidez, erreferentziazko dira oraindik mendebaleko euskara ikertzeko.

Ezaugarri jakin batzuen gaineko monografikoez harago, bizkaiera zaharraren ikuspegi orokorragoa eman zuen Lakarrak (1986c) “Bizkaiera zaharra euskalkien artean” artikuluan. Lanaren hasieran Lacombe eta Uhlenbeckek (eta, neurri batean, haiei jarraikiz Lafonek eta Allièresek) proposatutakoak kritikoki berrikusi ondoren, hogeita bi ezaugarri morfosintaktikoren gorabehera gramatikal eta kronologikoak aztertu zituen, *bizkaiera zahar* deitutakoaren argazki orokorra eman zuen, argi gehiago eman zuen *hiperbizkaiera*-ren eta *erdigipuzkera*-ren ezaugarriez, eta aztertutako ezaugarriek zuten banaketa azpi-dialektalaz ere saiotxo aurkeztu zuen.

Beste alde batetik, 1980ko hamarkadaren amaieran Gipuzkoaren historia zaharra aztergai zuela, euskalkien sorlekuaz arduratu zen Barrena (1989); haren proposamenak Yrizarren ekarpenak ditu oinarri, eta mendialdean zekuskien euskalkien sorguneak: Gorbeia aldean, Bizkaia eta Araba artean; Aralarren, Gipuzkoa eta Nafarroa artean; eta Saioa mendialdean, Nafarroa Garaiaren iparraldean, Nafarroa Beheretik zein Lapurditik hur. Dakidala, hizkuntzalaritzan inork ez die Barrenaren proposamenei jarraitu; begiratu Zuazoren (2007, 2010a, 2019) lanetako kritika, euskalkien sorgunea ez mendialdeetan baina hiriguneetan bilatu beharra defedatzen duena.

2.6.3.3. Landucciren hiztegiaren edizioak Euskal Herriko mendebaleko banaketa dialektalak beste era batera ikustea ekarri zuen Mitxelenarentzat behintzat, eta Zuazok behin baino gehiagotan jarri zuen arreta Arabako euskararen 1990eko hamarkadan (begiratu Zuazo 1989, 1999 eta Knörr & Zuazo 1998). Dialektologia historikoaren (eta hizkuntzaren historiaren, oro har) aldetik, ordea, arreta Araban bete-betean jarri izana Lazarraga eskuizkribuaren aurkikuntzarekin lot daiteke; begiratu eskuizkribuaren aurkezpen-txostenean Lakarrak (2004) aipatzen dituen aurreikuspen eta zereginak.

Beharbada hala gertatuko zen bestela ere, baina Lazarraga eskuizkribuaren aurkikuntzaz geroztik argitaratu dira inoiz baino lan gehiago euskalkien historiaz, eta horietako batzuek bete-betean jo dituzte Euskal Herriko mendebaleko hizkera eta ezaugarriak.

Dakidala, ibar jakin bateko euskararen menderik mendeko bilakabidea aztertzen duen lehenengo lana Zuazok (2006a) egin zuen, Deba ibarreko testuak lanabes hartuta. Hain zuzen ere, Zuazok hainbatetan landu du azken urteotan euskalkien jatorriaren eta bilakabidea (mendebaleko euskaraz eginiko proposamenak direla eta, begiratu §2.6.4.1

atala): 2007az geroztik (gutxienez) gogorarazi eta dibulgatu izan du Mitxelenak euskalkien jatorriaz egindako proposamen orokorra (euskalkien sorrera ez aspaldiko leinu eta elizbarrutiek baina Erdi Aroko egoera linguistiko bateratuago baten zatiketarekin lotu beharra), eta orduz geroztik ere (cf. Zuazo 2007, 2010a, 2012, 2014, 2019) euskalki bakoitzaren ustezko sorguneak izan ditu mintzagai: Iruñearekin, Gasteizekin / Arabako lautadarekin, Bizkaiko erdialdearekin, Beterrirekin, Lapurdiko kostaldearekin eta Maule-Atharratzerekin zein ekialderagoko guneren batekin lotu du euskalkien sorrera.


2.6.3.4. Zuazok Deba ibarreko euskara zaharrari buruzko monografikoa argitaratu zuen urte berean ezaugarri jakin batzuen bilakaera historikoa aztertzeak dialektologia diakronikorako duen garrantzia erakutsi zuen Urgellek (2006a) aditz-izenari buruzko lan batean: gramatika historikoari lotutako oharrez gain, ezin utzizkoak dira alomorfoen bilakaeraz eta banaketa diatopikoaz egiten diren oharrak, bai eta besteak beste Gasteiz eta Bilbo berrikuntzen foku izan zirelako proposamenak ere. Bi urteren buruan argi gehiago ekarri zuen Urgellek & Lakarrak (2008) dialektologia diakronikoaz egindako hausnarketa-saioak.

Oro har gramatika historikoari lotuago badaude ere, Mounolek (2007, 2011, 2018 [2011]) aditz laguntzaileen eta perifrasiengramatikalizazio-prozesuez, kronologiaz eta banaketa espazialaz egindako azterketek nabarmen finkatu dituzte alde aurretiko zenbait ideia, eta ikuspegi berria eta azalpena eman diete aditzaren morfologiaren hainbat arazori, ikuspegi okerri eta alderdi iluni. Halaber esan daiteke Manterolak (2006, 2008, 2015) egindako lanez: gramatika historikoa eta gramatikalizazio-gaiak izan ditu ikergai, baina hainbat gairi buruz emandako argiak eta ikerketa zehatzaren bidez bahetuta edonoren eskura jarritako datu eta interpretazio andanak eman dute argirik hainbat ezaugarriren sorreraz eta aldaketa linguistikoaren datazioaz eta hedaduraz.

2008an bi lan gogoangarri argitaratu zituen Caminok: Nafarroa Behereko euskara zaharraren bilakabidea aztertzen duen lana (Camino 2008b) eta “Dialektologiaren alderdi kronologikoaz” (Camino 2008a) sintesi- eta hausnarketa-lan teoriko-metodologikoa; lau urte lehenago (Camino 2004a) (euskal) dialektologian aritzeko aztergai izandako irizpideetan sakondu zuen Caminok, eta gerora euskal dialektologia historikoan aritu direnentzat lan eredugarria eman zuen.


2.6.3.5. 2011ko ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Donostian egindako *Euskalkien jatorria eta bilakaera* udako ikastaroan eta haren ondoren Epeldek zuzendutako *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* liburuan ekarpen sakonak egin ziren.

Caminok eta Lakarrak egindako ekarpenak dira, hain zuzen, Euskara Batu Zaharraren lehenengo (zein hurrengo) zatiketez ordura arte egindako lan sakonenak: Euskal Herriko ekialdeko euskararen ezaugarrien historia, grabitazio-indarrak eta dibergentzia-prozesuak aztertu zituen Caminok; Lakarrak, bestalde, euskal dialektologia historikorako dozenaka gai interesgarri aipatu zituen: Mitxelenaren 1981eko artikulua ondoan (eta are gaur egunera arte) Euskara Batu Zaharraz eta haren azterketarako ikerbideez, irizpide teoriko-metodologikoez eta lanabesez egindako hausnarketa-saio luze eta sakonena da Lakarrarena; besteak beste, Euskara Batu Zaharretik euskalki modernoetara iristeko zatiketa- eta adarkatze-proposamenak jasotzen dira lan horretan:



13. irudia. Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketak (Lakarra 2011: 213)

Lakarrak berak 2017ko lan batean emandako mapak denbora eta espazioa konbinatzen ditu, eta garai historikoan euskalkiek izandako bilakabidea irudikatzen du:




14. irudia. Eremu dialektalak garai historikoan (Lakarra 2017: 61)

2.6.3.6. Koldo Mitxelena katedraren hirugarren biltzarren (2012) karietara egindako ekarpenek euskal dialektologia historikoa gora bidean zihoala erakutsi zuten: Caminok (2013) Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko euskararen arteko loturak izan zituen aztergai, Ulibarri (2013) dialektologia historikorako iturriez eta horien arazoez aritu zen, eta Reguerok (2013), Atutxak (2013) eta neronek (Zuloaga 2013) aurreko urteetan ondutako master-tesien inguruko lanetako zenbait ondorio aurkeztu genituen, Erdi Aroko dialektalizazio-prozesuez, txistukarien neutralizazioaren bilakaeraz eta Nerbioi ibarreko euskara zaharraz, hurrenez hurren. Regueroren (2013, 2015b) ustez, Erdi Aroko euskarari bi eremu dialektal zabal sortu ziren lehenengo, mendebal zabalekoa (Euskara Batu Zaharretik bereizten lehenengoa) eta erdi-ekialdekoa, nahiz eta Erdi Aroan bertan hirugarren eremu bat sortu zen erdialdean: eremu berritzailea litzateke, eta Gipuzkoa gehienak eta Nafarroako erdi-iparraldeak osatuko lukete.

2.6.3.7. Azken urteotan arian-arian ugaritu egin dira euskalkien historiari buruzko lanak eta gero eta zailagoa da denak besarkatzea. Guztiz zehatza izateko nahirik gabe, Aldaik (2014) mendebaleko euskararen zatiketaz egindako proposamena aipatzekoa da, eta Ariztimuñok (2015a, 2015b) zenbait testutako *Aita gure*-ak parez pare jarrita egindako konparazioak eta Lazarragaren adizkiez egindako azterketak ere eman du argirik dialektoen bilakaeraz eta idazleen arteko loturez.

Epeldek (2015) koordinatutako *Euskal hizkera eta dialektok gaur egun* lanak zenbait lan interesgarri dakartza, eta ikuspegi historikoari dagokionez bi dira nabarmentzekoak. Alde batetik, Salaberri Zaratiegik (2015) hausnarketa egin zuen onomastikaren datuak dialektologia-xedeetarako erabiltzeko metodologiaz. Beste alde batetik, Hualdek euskalaritzan dialektologia dinamikoaren ikuspegia txertatu beharra aldarrikatu zuen, eta Euskara Batu Zaharraren ondoko zenbait bilakaera fonologiko eta morfologiko aztertu zituen (begiratu, halaber, Hualde 2017). Euskara Batu Zaharra erromatarren garaiko akitanieraren ondorengoen artean kokatu zuen, nahiz eta aitortu du ez zuela argi erabakitzerik Euskara Batu Zaharra bateratze-prozesu baten ondorioz gertatu zen ala eremu edo gizatalde jakin baten hizkera nagusitu zen. Zenbait hausnarketaren ondoren, honako zuhaitz hau proposatu zuen Hualdek:




15. irudia. Akitanieraren bilakaera diakronikoa (Hualde 2015: 131)

Azken urteotan EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean defendatutako hiru tesi nabarmentzekoak dira, gutxienez: Reguerorena (2017), Nafarroa Garaiko testu arkaiko eta zaharren edizioa eta hizkuntza-azterketa dakartzana; Ulibarrirena (2015), Aiaraldeko bazter-euskara nolakoa zen erakusten duen sermoitegi mardula eta hizkuntza-azterketa zehatza biltzen dituen; eta Padilla-Moyanorena (2017), Zuberoko euskararen hainbat ezaugarriren bilakabide historikoa erakusten duena. Esan gabe doa atal honetan aipatutako ikertzaileek azken urteotan egindako lan txikiagoek ere ekarpen nabarmena egin diotela egoera dialektal zaharragoen ezagutzaren esparruari.

Azken orduko lan mamitsuen artean dago Abaituaren (2019) ekarpena. *EHHA*-ko mapak aztertuta lau eredu geolinguistiko nagusi bereizi ditu, eta horietako bakoitza garai historiko batekin lotu du. Lehenengoa *EHHA*-ko 535. mapak irudikatzen du, eta tradizioz

bizkaiera deitu izan den eremua (Bizkaia, Arabako iparraldea eta Debagoiena) vs. gainerakoak kontrajartzen ditu. Bigarrena 121. mapak irudikatzen du, eta Nafarroa Garaia bi zatitan aurkezten du, Iruñetik ezkerrekoa eta eskuinekoa. Hirugarrena 838. mapak irudikatzen du, eta funtsean Nafarroa/Gipuzkoa arteko mugarekin egiten du bat, hortik ezker eta eskuin geratzen diren eremuak bereiziz. Laugarrena 908. mapak irudikatzen du, eta kasu honetan Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko mugan agertzen da eten linguistikoa.

Eredu geolinguistikoak zehaztuta, horien kronologia absolutua eta zatiketa nagusien eskema ere proposatzen ditu Abaituak (2019: §5):



16. irudia. VIII-XVI. mendeen arteko zatiketa dialektalak (Abaitua 2019: 36)

Euskara Batu Zaharraren zatiketa eta banaketa zaharrez denaz bezainbatean, erreinuen antolamenduarekin eta lurralde historikoen garaian garaiko harremanekin lotzen du zatiketa dialektala Abaituak:

En el árbol solo se ha marcado con trazo fuerte la bipartición del patrón #1, que durante el periodo de los siglos VIII-IX fragmenta el VCA en dos ramas, la del vasco occidental medieval (VOcM), cuyo núcleo se situaría en la Llanada alavesa, y la del vasco oriental medieval (VOrM), con centro en Pamplona. El siguiente nodo del árbol se corresponde con un periodo de reconexión entre esos dos núcleos y se ha representado mediante un trazado de línea intermitente. Es el periodo en el que el emergente reino de Pamplona inicia una política de aproximación hacia el espacio occidental dominado por la corona de León y los condados de Álava y Castilla. En ese mismo periodo se detecta una leve ruptura, por el eje vertical de Pamplona, del todo el área central (vasco central medieval VCrM) y occidental (VOcM) respecto al oriental (VOrM), situación que refleja el patrón #2. Los patrones #3 y #4 representan sendas coyunturas históricas cuyo efecto ha perdurado hasta la actualidad. Son la frontera navarro-guipuzcoana que se traza tras la conquista castellana de Álava y Guipúzcoa en el siglo XIII y la frontera francoespañola que se consolida tras la conquista del reino de Navarra en el siglo XVI. (2019: 318)

2.6.4. Euskalkien zatiketa eta mendebaleko euskara

Azken atal honetan leku berezia eman nahi izan diet Euskal Herriko mendebaleko euskararen zatiketaz beren-beregi arduratu diren bi egileren proposamenei: Zuazok (2010a, 2012)⁵⁹ eta Aldaik (2014) proposatutakoak laburbilduko ditut hemen.

2.6.4.1. Zuazo (2010a, 2012)

2.6.4.1.1. Zuazoren ikuspegiari dagokionez, alde batetik eta Euskara Batu Zaharraren hipotesia onarturik, euskararen zatiketa eta banaketa dialektalaren sasoi gorena XI-XII. mendeak izan zitezkeela uste du eibartarrak (2010a: 163, 2019: 47), eta Nafarroako erreinuaren zatiketak euskararen dialektoen sorreran eragin zezakeela, nahiz eta, dioenez, mendebala urrundua bide zegoen VIII. menderako. Beste alde batetik, XVI. menderako Euskal Herriko hizkeren artean bi banaketa dialektal egin zitezkeelakoan dago: (i) Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako euskara vs. Nafarroakoa eta Ipar Euskal Herrikoa; eta (ii) Ipar Euskal Herrikoa vs. Hego Euskal Herrikoa.

Bereizketa horietan lehenengoa proposatzeko, honako ezaugarri hauek baliatu zituen Zuazo (2010a, 2019): (i) *-st-* vs. *-rtz-* kontsonante-multzoak; (ii) bizidunekin inesiboan *-gan* vs. *baitan*; (iii) nominalizazioetako osagarrian absolutiboa vs. genitiboa;⁶⁰ (iv) aditz-osagarri jokatugabeak inesiboan vs. adlatiboan; (v) *izan*-en hirugarren pertsonako adizkietan *-a-* erroa vs. *-e-* erroa; (vi) partizipio prospektiboan *-ko* vs. *-(r)en*; (vii) ekialdeko dialektoetan *-elarik* erabiltzea perpaus modal eta denborakoetan *-ela* orokorraz gain.⁶¹

Bigarrena, berriz, hauen arabera egin zuen: (i) hasperenaren galera Hego Euskal Herrian XVI. mendea baino lehen; (ii) sudurkari aurrean *o* → *u* bihurtzea Ipar Euskal Herrian; (iii) maileguak egokitzean apokopearen ondorioz galdutako *-e* bokala *-a* bokalaren bidez konpentsatzea Ipar Euskal Herrian; (iv) adlatiboko *-rat* marka Ipar Euskal

⁵⁹ Hala mendebaleko nola beste eremu batzuetako euskalkien sorlekuez eta sailkapenez aritu da azken hogei urteotako lan nagusi gehienetan Zuazo: langai zabala eta inor gutxik ibilia izan du, eta lan batzuetatik beste batzuetara badaude aldeak oinarritzko zenbait iritzitan (Arabako euskararen kokaguneari buruzkoan, adibidez) eta sasoi-sasoi aurkeztutako ezaugarrien zerrendetan. 2010eko eta 2012ko lanak erabiltzeari bidezkoagoa deritzot, ikuspegi eguneratuagoa aurkezten delako lan horietan (Zuazo 2014, 2017 eta 2019 lanetan berretsia, bide batez).

⁶⁰ “Salvo en algunos casos aislados” zehazten du, halere (Zuazo 2010: 160).

⁶¹ Ondoko lan batean (Zuazo 2012: 56-56), honako hauek gehitu zituen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoaren arteko batasunaz aritzean: (i) erdal **-one* amaiera *-oe/-oi* bihurtu izana erdi-mendebalean eta *-oin/-on/-ú* ekialdean; (ii) *eman*, *utzi*... aditzen aditz osagarria inesiboan erabiltzea erdi-mendebalean eta adlatiboan ekialdean; (iii) ekialdean *heldu* erabiltzea, eta erdi-mendebalean *etorri*; (iv) trinkoen iraganaldiko erroan *-e-* vs. *-a-*; (v) zenbait patronimiko eta toponimotan mendebalean eta erdialdean *-z* vs. ekialdean *-tz* & *-tze*; (vi) berba-sorta bat; eta (vii) aldaera lexikoen sorta bat.

Herrian (nahiz eta testu zaharretan ez den egun bezain sarri agertzen); (v) pertsona-izenordain indartuetan *zuhaur* sailekoak erabiltzea Ipar Euskal Herrian;⁶² eta (vi) partizipio hutsez osatutako erlatibozko perpausak Ipar Euskal Herrian XVI. mendear geroztik.

Horiek azalduta, XVIII-XIX-XX. mendeetan sortutako literatur euskalkiek zein Bonaparteren sailkapen zurrinak izandako eragin bereizlea ere aipatzen ditu Zuazok (2010a: 162-163, 2019: 46-47).

2.6.4.1.2. Euskal Herriko mendebaleko euskalkien sorrera dela eta, antzinateko hiri garrantzitsuenak hurrenez hurren Iruñea eta Gasteiz izan zirela azaltzen du (*idem*, 165), bai eta mendebaleko euskararen ardatza Gasteiz izan zela ere, handik abiatuta errazago azaltzen baita zenbait berrikuntzaren hedadura geografikoa.⁶³ Gasteiztik berrikuntzak direla eta, bi ezaugarri-sorta bereizten ditu Zuazok; alde batetik, geruza zaharrenean kokatu beharrekoak, Gasteiztik zabaldu eta hedadura zabala izan dutenak; beste alde batetik, Araban sortu arren eremu txikiagora zabaldu direnak, kasu batzuetan Bizkaian indartu edo areago garatu direla dirudien arren. Honako hauek dira sorta baterako eta besterako proposatutakoak, Zuazo (2010a, 2012, 2019) lanetan ematen diren zerrendak aintzat hartuta:

Ereku zabaleko ezaugarri zaharrak: (i) $a + a > ea$ disimilazioa; (ii) berba amaieran $-e > -a$ egiteko joera; (iii) *-rik* erabiltzea *etxerik etxe* bezalako esapideetan; (iv) *egin*-en gramatikalizazioa **ezan*-en orde; (v) *eduki* nagusitzea **edun*-en orde; (vi) partizipioa erabiltzea aditzoinaren orde; (vii) *irten* eta *igo(n)* aditzen erregimena;⁶⁴ (viii) perpaus osagarrietako *-(e)na* morfema; (ix) zenbait berba (*izara, lapiko, padura & madura*) ; (x) zenbait aldaera lexiko (*baltz, barri, eskutur, gaztai, huri, kerexa, narru* eta *txixa*).

Ereku txikiagoko ezaugarri zaharrak: (i) bokalerdiaren osteko txistukarien palatalizazioa; (ii) sozietiboko *-gaz* marka; (iii) hurbiltze-adlatiboko *-rutz* marka; (iv) ablatiboko *-rean* marka (eta *-reanik* pleonastikoa);⁶⁵ (v) mugimenduzko aditzen osagarrietan [aditz-izena + inesiboa] egitura; (vi) [*edo* + izenordain galdetzailea] egiturako izenordain zehaztugabeak; (vii) NOR-NORI saileko, *joan*-en iraganeko eta hitanoko

⁶² “Seguramente la excepción era la costa labortana, donde al menos en los textos del siglo XVII, encontramos formas del tipo *zerori*, como en la mayor parte de Guipúzcoa y Navarra” (*idem*, 162).

⁶³ Arabako euskararen inguruan Oihenartez geroztik azaldutako ikuspegi nagusiez eta egindako ikerketez, begiratu Zuazo (2015).

⁶⁴ Ezaugarria Zuazo (2010a: 175) lanean agertzen da, baina ez Zuazo (2012: 45-46) lanean. Gerora, aldiz, berreskuratu egin du: begiratu Zuazo (2019: 56).

⁶⁵ Galera ere lehenago gertatu omen zen Araban, Bizkaian eta Deba ibarrean baino (Zuazo 2012: 47).

adizkietan *j-*; (viii) **eutsi* erroko aditz laguntzailea; (ix) adizkietan *-z* pluralgilea nagusitzea; (x) gaztelaniatik mailegatutako partizipioetan *-adu* eta *-idu* aldaerak; (xi) aditz-izenetako *-etan*, *-ketan* eta *-zaiten* & *-zaen* formak; (xii) adberbioetako *-to* atzizkia, (xiii) adberbioetako *-la* atzizkiari *-n* gehitzeko joera; (xiv) kausa- eta helburu-perpauzetan *-t(z)earren* aldaera; (xv) hainbat berba; (xvi) hainbat aldaera lexiko.

Ezaugarri horien azterketan oinarrituta lau gertakari nabarmentzen ditu Zuazok:

- a) Arabako lekukotasunek mendebaleko euskaran egin diren berrikuntza zenbaiten eremua zehazteko balio izan dute, eta berrikuntza horietako askoren sorlekua Araban bertan eta, zehatzago esateko, Gasteizen egon daitekeela ematen du.
- b) XVI-XVII. mendeetarako, Bizkaia Arabatik bereizita zegoen, eta euskalki beregaina osatzen zuela esan daiteke.
- c) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hizkerak bat datoz gauza askotan, eta Nafarroatik eta Ipar Euskal Herritik bereizita agertzen dira XVI. menderako. Euskara, beraz, zati handi bitan banatuta zegoen orduko.
- d) Araba guztia ez zen hizkuntzaren aldetik homogenea. Hango izkribuetako hizkera ez da guztiz berbera. Arabako ekialdean Nafarroako *-Iruñekoa-* eragina nabari da. Baita, beharbada, Gipuzkoaren eragina ere, Arabako ipar-ekialdean. (2012: 41-42)

Bestalde, Araba osoko euskara bat eta bera ez zela erakutsia zuen aspaldi Zuazok (1989, 1999); zehazki, bi eremu irudikatu izan ditu, mendebalekoa eta ekialdekoa, eta bereizketa honako ezaugarri hauen bidez proposatu du Zuazo (2012: §3.3) lanean: (i) mendebalean *gain* > *gan*; (ii) mendebalean bokalerdiaren ondoko txistukarien palatalizazioa; (iii) mendebalean *padura* vs. ekialdean *madura* aldaerak; (iv) mendebalean *solo* vs. ekialdean *soro* aldaerak; (v) mendebalean *bular* vs. ekialdean *burar* aldaerak; (vi) mendebalean *zubi* vs. ekialdean *zufi* aldaerak; (vii) ekialdeko toponimian [hitza + *dana/dirana*] egitura indartsu agertzea. Arabako erdialdean, bestalde, tarteko hizkera dakusa, honako bi ezaugarri bereizgarri hauekin: (i) *a + a* > *ea* disimilazioak inon baino indar gehiago izatea *-aga*, *-eta* eta *-tza + a* bilkuretan; (ii) *errexal* hitza.

Arabako mendabalaren eta ekialdearen arteko aldea azaltzeko, bestalde, azken horretan Gasteizen eragina txikiagoa eta Iruñearena handiagoa izatea proposatu zuen, bai eta Arabako ipar-ekialdean Gipuzkoako euskararen eragina ikusi ere (Zuazo 2012: 61).

2.6.4.1.3. Zuazoren arabera, Gasteizko / Arabako lautadako euskara ez ezik, Bizkai erdialdeko (Oiz eta Sollube mendialdeen artekoa: Durango - Zornotza - Gernika - Bermeo aldea) eremu zabala ere izan zen berritzaile garai (berankor) batetik aurrera;⁶⁶ Bilbori, ordea, ez zion eragiteko ahalmen handirik aitortu: berandu hazitako hiritzat zuen alde

⁶⁶ Aurreko lan batean, Mungialdea, Busturialdea, Txorierrri eta Arratia aipatu zituen Zuazok; zehatzago, Bermeo, Gernika, Mungia, Zornotza, Derio, Igorre eta Areatza (2007).

batetik (XIV. mendean, mendebaleko euskara irudikatuta eta tinkotuta omen zegoenean), eta XVIII-XIX. mendeetarako erdaldundutakotzat, Larramendiren eta Mogelen aipuekin bat. Bilbotiko berrikuntzatzen zenbait berba eta aldaera lexiko besterik ez zituen eman: *aditu* ‘begiratu’, *aube*, *luki*, *putxa* eta *tornu*; eta *anajea*, *duzti*, *laso* eta *uzen*.

Bizkai barruan sortutako berrikuntzen artean ere bi geruza bereizten ditu Zuazok, hedatzen diren eremua zein den. Geruza zaharrenekotzat jotzen ditu hauek: (i) *-txu* aldaera; (ii) sudurkari berrezarria *-io-* aditzean; (iii) [*-tu* + *-ten*] egiturako aditz-izenak; eta (iv) [erakusle + izena] egitura. Bestalde, geruza berriago batekotzat jotzen ditu hauek: (i) *au* → *eu* bilakabidea; (ii) *i* bokalak eragindako *z*-ren palatalizazioa; (iii) [izenordain galdetzailea + *edo* + izenordain galdetzailea] egiturako izenordain zehaztugabeak; (iv) aditzetan *-z* pluralgileak gainerako aukera guztiak baztertu izana.

Bestalde, Araban sortutakoak izan daitezkeen baina Bizkaian indartu eta garatu bide diren berrikuntzak bereizten ditu Zuazok (2012: 55): (i) soziatiboko *-gaz* marka; (ii) mugimenduzko aditzen osagarri diren aditz-izenak inesiboan emateko joera; (iii) adberbioetan *-la* atzizkiari *-n* gehitzea; (iv) **edun*-en orainaldiko adizkietan *-o-* eta *-au-* erroak; (v) NOR-NORI-NORK saileko adizkietan *eutsi* besterik ez egotea, (vi) aditzetan *-z* pluralgilea ia guztiz nagusitu izana.

2.6.4.2. Aldai (2014)

Zenbait ezaugarri eta aldaera linguistiko esanguratsu aztertu ondoren, mendebaleko euskararen zatiketaren eta banaketaren periodizazio erlatiboa aurkeztu zuen Aldaik (2014). Zehazki, ezaugarri linguistikoen hedaduraren (zenbat eta hedatuago, hainbat eta zaharrago) eta aldakortasunaren (zenbat eta aldakortasun gutxiago, orduan eta zaharrago) irizpide estandarrei jarraikiz, lau garai ezberdindu zitezkeela proposatu zuen.

Geruzarik zaharrenean leudeke aldaera dokumentaturik gabeko formak; alegia, dokumentazioa dagoenetik mendebalean bakar eta sistematiko direnak: *-ak* ergatibo plurala, *izan*-en hirugarren pertsonako adizkietako *-a-* erroa, *-ai* datibo plurala eta partizipio prospektiboko *-ko* aipatzen ditu, eta berrikuntzatzen jo. Aldakortasun ezaz gain, lau ezaugarrien hedadura zabala ere nabarmentzen du Aldaik (2014: §3.1), Urumea eta Oiartzun ibaietarako iristen baitira: Gipuzkoa gehiena mendebaleko euskararen barnean geratuko litzateke, beraz. Hipotesiaren ahulgune bakarra (*h*)*uri*, *barri* eta *baltz* aldaera lexikoen hedaduran dakusa, arestiko ezaugarriek baino eremu nabarmen murriztagoan erabiltzen baitira.

Geruza berriago batean leudeke mendebalean historikoki aldakortasuna izan duten ezaugarriak, nahiz eta aldakortasun hori eskasa izan; Aldairen ustez (*idem*, §3.2), multzo honetan sartzekoak dira $a + a > ea$ disimilazioa, eta *-adu* eta *-idu* partizipioak; dioenez, Arabako lautadaren erdialdean sortutako berrikuntzak izan litezke.

Hirugarren geruza are berriago batean leudeke mendebaleko lehenengo testuetan beste ezaugarri batzuekin lehian agertzen diren formak: *egin* eta **edutsi* aditz laguntzaileak, bokalerdiaren ondoko palatalizazioa eta aditz-izenetako *-eta* marka aipatzen ditu Aldaik (*idem*, §3.3); berrikuntza berankorragoak izango lirateke, denak ere Arabatik zabalduak. Ezaugarri arazotsuena *egin*-en gramatikalizazioa bide da; izan ere, lehenengo testuetarik **ezan*-ekin lehian agertzen da are Bizkaian ere, baina hedadura oso zabala du, $a + a > ea$ -ren parekoa.

Azken geruzan hedadura murrizteneko ezaugarri eta aldaerek osatzen dute: Aldaik (*idem*, §3.4) aditz-izenetako *-keta* aldaera eta pluralaren eta objektu zuzenaren arteko komunztadura falta aipatzen ditu mendebalerako, eta **edun*-en adizkietan *-u-* eman duen monoptongazioa ekialderako. Halaber, bigarren pertsonako tratamenduen nahastea garai honetan has edo heda zitekeela uste du.

Arestiko sailkapena aurkeztu ondoren hiru garai nagusi bereizten ditu: garai zaharra, Erdiko garaia eta garai modernoagoa. Lehenengoari lotuta, azken urteotan Gasteizi eman izan zaion garrantzia berresten du Aldaik, eta ez du baztertzen are Gasteiz fundatu baino lehen ere Arabako lautadak berebiziko garrantzia izan izana berrikuntzen sorreran eta hedatzean. Bigarrena dela eta, “podríamos hablar del periodo alrededor del s. XIII (e.g. XII-XIV) como de una época de posible gran influencia del habla de Vitoria en la dialectalización del euskera occidental (*idem*, 239). Hirugarrena Gasteiztik abiatutako azken berrikuntzek hezurmamituko lukete, Gasteizen grabitazio-indarra ahultzen ari edo ahulduta zegoenekoak.

3. Corpora

3.1. Euskararen historia aztertzeke corpusaz ikuspegi orokorra

3.1.1. Ezaugarri orokorrak

3.1.1.1. Euskararen historia aztertzeke corpora, berankorra ez ezik, txikia, asimetrikoa eta homogeneoa ere izan da azken mendera arte (Mounole & Lakarra 2018: 358). Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*-ren argitaratze-datari loturik ezarri zuen Mitxelenak (1963: 9) euskararen historiaren hasiera, eta hala onartzen da oraindik ere, nahiz eta azken aldian eginiko proposamenek Euskara Arkaikoaren hasiera-data 1545. urtetik 1400. urtera leheneratu duten: aspaldi aipatu zuen Mitxelenak berak errefracuetan aurreko garaietako ezaugarriak gorde ohi direla (1964a: 6), eta, hizkuntza-ezaugarriak aztertuz, XVI. eta XVII. mendeetako historialarien lanetan agertzen diren kantu batzuk XV. mendean kokatzeko modukotzat jo dituzte berriki Lakarrak eta Mounolek (2018: §1.1); begiratu, halaber, Lakarra *et al.* (2019: §11.1).

Euskararen garai historikoan oso handiak dira erabilgarri dauden testuen arteko gorabeherak: urriak ez ezik, laburrak ere badira gehienak. Adibidez, aipatutako kantu gehienak eta *RS* bilduma, dirudienez, ez dira osorik gorde. Bestalde, hainbat testu galdu dira eta munduko artxiboetan hainbat dira oraindik ere aurkitu gabe dauden eskuizkribu nahiz ale inprimatuak; zorionez, *TAV*-en ondoren arian-arian agertu izan dira testu berriak; begiratu Sarasola (1983), Satrustegi (1987) eta Lakarra (1990 [1989], 1997 eta Lakarra *et al.* 2019: §10), besteak beste, azken hamarkada eta urteotan editatu eta aurreratu diren lanen berri izateko.

Azken urteotan agertutakoen artean aipatzekoak dira *Kadet eta Bettiriño* lapurtarra (Padilla-Moyano 2011), Le Dauphin itsasontziko gutuneria (Lamikiz, Padilla-Moyano & Videgain 2016), Pomier hiztegia (Zulaika 2015) eta Lubietaren hizkuntza-eskuliburua (Bilbao 2011), Materraren dotrinaren lehenengo edizioa (Krajewska *et al.*

2017) edo *Dotrinazko sermoitegia* (Ulibarri 2015).⁶⁷ Nolanahi ere den, XX. mendeko bigarren erdiko aurkikuntza handiena Lazarraga eskuizkribuarena izan da: Arabako euskaraz ez ezik, euskal dialekto zaharrez eta hainbat ezaugarritz eman dituen datu berriek ezin hobeto erakutsi dute zenbat dagoen oraindik ikasteko eta zer-nolako lurrikara ekar dezakeen halako testu bat agertzeak hain iturri gutxi dagoen garai (eta eremu) batean.

3.1.1.2. Asimetria dela eta, ez ditut testu guztiak euskalkiz euskalki aipatuko, zenbait zertzelada orokor nahiko baitira corpusa garairik garai eta eremuz eremu nola aldatzen den eta nolako gorabeherak dituen ikusteko. Zazpi euskal herrietan dago testuren bat XX. mendea baino lehen, baina guztiz eskas geratzen dira hainbat eremutako eta garaitako hizkerak aztertzeke.

1600-1745 arteko testu asko laburrak dira, Mitxelenak eta Sarasolak TAV-en eta ConTAV-en jasotakoen parekoak: errefraukak, zatika iritsi diren kantak, ezkontza-zinak, hiztegitxoak, otoitz laburrak eta erlijio-formulak, testuetan txertatutako euskal hitz eta esaldiak... Ezin uka daiteke halakoetatik informazio baliagarria atera daitekeenik, baina aitortzekoa da material horien fragmentarioritasunak eta laburtasunak arazoak eragin ohi dituztela.

Testu luzeagoei begira, leku batzuetako eta bestetuetako materialen arteko oreka eza agerikoa da: aipatu izan denez, Etxepareren ondoren Lopezena da Nafarroa Behereko hurrengo testu luzea (Camino 2008b: 104, 2014). Bolumenaz eta orekaz ari naizela, Leizarragaren itzulpenek gainerako dialektoetan idatzitako testuek baino askoz orrialde gehiago hartzen dituzte. Bestalde, euskal literaturaren historietan aipatu izan da XVI. eta XVII. mendeetan lanak argitaratu zituzten egile gehienak Ipar Euskal Herrikoak izan zirela; baina, horien artean ere ez dago orekarik: Nafarroa Behereko kontuak albo batera utzita, Zuberoako lehenengo liburu inprimatuak XVII. azken herenekoak dira, Materraren 1617ko lanetik urrutixe eta tartean Etxeberri, Harizmendi, Haranburu, Axular edo Pouvreaurik gabe. Bidasoaz hegoaldera, Beriainen lanak (1621, 1627) dira

⁶⁷ Testu laburragoen jariora ere etengabea izan da azken urteotan. Ez ditut guztiak aipatuko, baina tesi honetan hizpide dudan Euskal Herriko mendebal zabalean azken bospasei urteotan agertutakoen artean nabarmentzekoak dira Plentziako XVI. mendeko Aita gurea (Larrañaga 2018), Busturiko 1616ko testu laburra sorginkeria-gaiez (Reguera 2012), 1721eko Eibarko koplak (Kalzakorta 2010a), Angela Txakartegiren gutun laburra (Santazilia 2015), Urduñako hitz-zerrenda (Ros 2011), Sevillako bertsoak (Ulibarri 2011b), Sarasketa hiztegitxoak (Aginagalde & Urgell 2012) edo Bilbon zabaldu ziren gabonkanten bilduma (Zavala 2012). Bestalde, berriz editatuen artean daude *VJesus* dotrina (Ulibarri 2010a), Ulibarri okondoarraren egutegia (Ulibarri 2010b), Rita Barnetxearen euskal kanta (Zuloaga 2018 [2013]), Urkizu durangarraren 1740ko koplak (Zuloaga 2018 [2015]) eta Zolloko galdetegia (Zuloaga & Antequera 2019).

liburu eskuragarri zaharrenak Nafarroa Garaian, eta haren ondoren Elizalderena (1735) da hurrengoa. Hainbat dira Nafarroa Garaiko testu zahar laburrak, baina, hain lurralde zabala izanik nabarmenak dira garai eta eremu askotan dauden gabeziak. Ageriko hutsunea dago, adibidez, ipar-ekialdeko ibarretako testuei dagokienez: orain Ros-Etxart gutuneriak argi gehiago eman du Erronkaribarreko euskara zaharrari buruz, baina XVIII-XIX. mendeetara arte ez dago beste testurik Zaraitzun eta Erronkarin. Gipuzkoako testu luze zaharrenak ere nahiko modernoak dira: Otxoa Arinen dotrina (1713) edo Lubietaren eta Pomierren lanak aipa daitezke 1745 baino lehenagorako; gainerakoan, aurreko testuak laburrak dira, eta bakan agertzen dira han-hemen (Deba ibarrean ugarixeagoak dira): historialariek jasotako pasarteak eta kantu zatiak, zenbait bertso-sorta, ezkontza-zinak, administrazio-testu laburrak, gutunak...

3.1.1.3. Lan honetan gehien aztergai dudan eremuari dagokionez, zenbait historialari mendebalekoak izan izana lagungarri da, itxuraz euren inguruetako materialak bildu zituztelako: Garibaiz edo Ibarguen-Cachopinen kronikaz ari naiz, besteak beste. Testu laburrez gain, lan luzeagoak ere badaude XVI. mendean geroztik. Araban Landucciren hiztegia, Betolatzaren dotrina eta Lazarraga eskuizkribuak dira mende horren bigarren erdialdekoak; hurrengo mendeetan, ordea, materiala nabarmen eskasten da: XVIII. mendearen amaierako *Dotrinazko sermoitegia* da hurrengo testu luzea (eta, bide batez, Arabako lekukotasun historiko luzeena). Bizkaian bi eremutan daude testu luzeenak XVI-XVIII. mendeen artean: sartaldean eta (batez ere) Durango inguruan. Inguru horietakoak dira zenbait kantu eta bertso, Zumarragaren gutuna, *Refranes y sentencias*, Mikoleta, Kapanaga, Zubia, Arzadun eta Urkizu, besteak beste. Nolanahi ere den, hutsuneak nabarmenak dira: ezer gutxi edo ezer ez dago XVIII. mendearen bigarren erdialdea baino lehen hainbat eskualdetan. Gipuzkoako erdi-mendebaleko testu zaharren artean Barrutiaren antzerki-lana da luzeena 1745a baino lehen: aurretik Garibairen lanetan bildutako materialak, kantu eta koplak, erlijio-testu laburrak eta eta udal-agiriak besterik ez daude.

3.1.1.4. Homogeneotasuna dela eta, Sarasolak aspaldixe emandako datuen arabera (aspaldikoak izanagatik, azken hamarkadotako aurkikuntzek ez dituzte estatistikak gehiegi aldarazi), 1545-1876 tarteko euskal liburuen % 98 erlijio-gaien gainekoak dira. Erlijio-edukirik gabeko lanak hamabi baino ez ziren orduko datuen

arabera: lau literaturari lotuak, eta zortzi bestelako gaiei buruzkoak (Sarasola 1975: 108-109).⁶⁸

Erljio-liburuen artean zenbait mota bereizi daitezkeen arren (dotrina eta katiximak, aszetika-tratatuak, *ars moriendi*-ak, sermoitegiak...), lan gehienak gai baten ingurukoak izateak ageriko mugak dakartza, testu moten ugaritasunak dakarren aberastasuna oso mugatua delako. Nolanahi ere den, testu asko erlijioaren ingurukoak eta molde berekoak izateak badu abantailarik ere, testu paraleloen bidezko ikerketarako bidea ematen baitute, Ariztimuñok (2015a) erakutsi bezala.

3.1.2. Materialen egoeraz

3.1.2.1. Jada behin baino gehiagotan esan dudanez, hizkuntzen historia ezagutzen jarraitzeko beharrezkoa da hala testu berriak aurkitzea nola orain arte eskura zeudenak ahalik eta zehatzena ezagutzea. Jatorrizko iturriekin lan egitea da onena, baina askotan ez dago horretarako aukerarik: materiala urrutiko artxibo edo museoetan dagoelako, gordailuetako arduradunek sarbiderik ematen ez dutelako, kontserbazio-egoerak liburua erosotasunez erabiltzea ahalbidetzen ez duelako... Euskal testuez aritzean ere halakoxea da egoera hainbat kasutan; esate baterako, *unicum* asko daude Euskal Herritik kanpo: Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* Parisen, Garibairen errefrauen kopiak Madrilen eta Parisen, Materraren dotrinaren 1617ko edizioa Kopenhagenen eta 1623koa Oxforden, Mikoletaren eskuizkribua Londresen, Urkizuren 1737ko lana Chicagon... Halakoetarako sarbiderik izan ezean, badira testuak ezagutzeko beste bide batzuk, hala nola fotokopiak edo mikrofilmak eskatzea, edo edizioetara jotzea, halakorik dagoenean eta fidagarritzat jo daitezkeenean (Sáez Rivera 2006: 265-267).

3.1.2.2. Ez da erraza (ez eta hemengo helburua ere) euskal testukritika zein puntutan dagoen esatea: agerikoa da Mitxelenaz geroztik lan eta aurrerapen handiak egin direla, testuak (izan mikrofilmaturik, izan digitalizaturik, izan paperean argitaraturik) inoiz baino eskurago daudela, han-hemen agertzen diren arazoak arazo; baina, oraindik ere agerikoak dira historia-gaietan sartu orduko azaleratzen diren hutsune asko.

⁶⁸ XX. mendeak aurrera egin ahala balantzak beste muturrerantz nabarmen egin zuen arren, hasierako hamarkadetan egileen artean eliza-gizonak ziren nagusi: “Argi dago 1934-1935eko idazlegoa batez ere 35 urtetatik 50erakoez osatzen dela, hots, XIX. mendearen azken urteetan sortutakoez (...) Hauen artean gehiago dira apaizak, baina sekularren numeroa, lehen aldiz euskal literaturaren historian, nabarmena da” (Sarasola 1975: 70-71).

Mitxelenak testu laburrekin eginiko edizioak mugarriztat jo daitezke eta eredu izan dira ondorengo hainbat ikertzaileentzat; errenteriarak hasitako bideari jarraipen ona eman zaio batzuetan, baina oraindik ere fotokopien edo digitalizazioen bidez besterik ez dira ezagutzen hainbat testu zahar, hala nola XVII. mendeko lapurtar idazle gehienak edo Kapanaga eta Arzadun lako bizkaitar klasikoak.

Lan honetan ez dut euskal ediziozaren bilakabidea aztertuko,⁶⁹ baina aipatzekoa da edizio eredugarriez gain, Urgellek “Villasante paradigma”⁷⁰ deitutakoak indarrean jarraitzen duela zenbait egileren eta erakunderen gogoan, faksimilarekiko lilura ez dela erabat gainditu,⁷¹ “kritiko” izendapena askotan lotuago dagoela marketinarekin ediziozaren ikuspegi eta jardunbidearekin baino gehiago⁷² eta inoiz behar baino ausardia gehiagorekin heldu zaiela testuen edizioei, irakurleen kaltetan.⁷³

Testu editatuak arriskutsuak izan daitezke edizioa darabilena ez bada gai esku artean duen lanaren fidagarritasuna eta kalitatea neurtzeko “text editions come in varying quality and based on varying editorial policies. Careful attention needs to be

⁶⁹ Edizio batzuk lagintzat hartuta Urgellek landu du gaia behin baino gehiagotan: begiratu Urgell (2000a, 2000b eta 2013 lanak, besteak beste). Lakarra (1990 [1989]) eta (1997a) eta Lakarra *et al.* (2019: §10) lagungarri dira, halaber, data horietara bitartean agertutako hainbat testuren eta edizioen berri izateko.

⁷⁰ Alegia, “asmorik onenaz eta garaiko zailtasunengatik ere ahalegin handiak eginez, baina inolako prestakuntza kritiko eta metodologikorik gabe ari ziren euskaltzaleek egindako edizioak; bihotzez eskertzeoak, mesede izugarria egin dutenak, baino nahi baino gehiagotan akatsez, gaizkiulertuz eta irizpide okerreztatuak” (Urgell 2013: 533). Villasante paradigmako lanak, Mitxelenarenak eta bi eredu artean koka daitezkeenak (funtsean, Lafonenak eta Altunarenak) bereizi zituen Urgellek lan horretan.

⁷¹ Mitxelenak aspaldi esanak esan: “*fac-simile*-ak, nahiz berez eta bere arloan probetxugarriak izan, ez direla sekula izan ez izango edizio kritiko onaren ordain zuzen” (1981b: 333). Esate baterako, 2009an Leizarragaren *Kalendreraren* BnF-ko ale baten edizio faksimila kaleratu zuen Euskaltzaindiak, Kintanak prestatuak. Lanak sarrera interesgarria du (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) historian zehar Mendebalean sortu eta erabili izan diren egutegiei buruz, bai eta ohar argigarriak ere *Kalendreraz*; baina, testuari nagokiolaria, ez dakar berrikuntzarik: Linschmannek eta Schuchardtek 1900. urtean emandako faksimil bera da, Euskaltzaindiak berak berargitaratu zuena 1990. urtean.

Beste alde batetik, ikusitakoak ikusita, faksimilek nolakoak izan beharko luketeen (“reproducción total y exacta, fotográfica, de una edición anterior, con todas sus características tipográficas y a veces materiales (tipo de papel, encuadernación, etc.” –Sáez Rivera 2006: 269–) ez da beti aintzat hartu. Izan ere, gurean (ere) ez dira falta ale bateko (inoiz, edizio ezberdinetakoak) baino gehiagoko puskek hartuta sortutako ale berriak, hala nola Hordagok 1970eko hamarkadan atera zuen Añibarroren *Esku-liburua*-rena, non 1802ko eta 1821eko edizioak nahasten baitira, baten eta bestearen artean dauden aldeak aintzat hartu gabe, eta Materraren 1623ko edizioaren fotokopia eskuz “txukunduak” (Rementeria 2008).

⁷² “Oso testu gutxi dira filologi irizpideen arabera argitaratuak; zaharrenen artean Etxepare, Leizarraga, *Textos Arcaicos Vascos*-en eta «Contribución al estudio y edición de textos vascos»-en bilduak, Etxeberri Ziburukoaren liburuetarik baten zati bat, eta besteren batzu, gutxi halere. Egia da erruz ugaldutako direla azken urteotan «edizio kritikoak» ia-ia modatan ere jarriaz. Alabaina, hitz horren erabilera fetitxista baten aurrean gaude, faksimilaren fetitxetik oraindik ere atera gabe” (Lakarra 1997a: 449).

⁷³ Lazarraga eskuizkribua argitaratuta, hilabete gutxiren buruan atondu zuen Urkizuk testuaren edizio bat, gerora kritika gogorak jaso dituenak: “Halere, aurkezpenetik lau hilabete igaro baino lehen, salgai zen *Dianea eta Koplak. Joan Perez de Lazarraga Madrid 1567* deitu “edizio literario” bat (“transkripzio modernoan”, gainera), beharbada edozein euskal lekukotasunetik funtzionario publiko baten eskutan inoiz pairatu sarraskirik larrienera; testua hondatzeaz landa, hura ez argitu eta ez ulertu ere hainbat zatitan, eta inorentzat ez diren ohar inozoz (*amatzen* ‘maitatzen’, etab.) hornitu eta haren ezagutzan aitzinatzeo inongo urratsik eman ez zuena” (Mounole & Lakarra 2018: 393).

paid to the relationship of text editions to the original texts, and to keeping end-users aware of the value of the evidence drawn from them. (Kytö 2011: 431).

Lassen (2004: 22) ustez, testu editatuek ekar dezakete dialektologia historikorako aldarrikatzen duen “garbitasun forentse”-a orbaintzeko arrisku handiena. Lassek oso ikuspegi kontserbadorea du gai honetaz; bere ustez, testu editatuak informazio-iturri ustelak izan daitezke, eta arriskutsuak. Aitzitik, halako lanak fidagarriak edo fidagarriagoak izan daitezten, ez dut uste gakoa testuak ez editatzea denik, ezpada edizio-lana behar bezala egitea: “literatur edizioa izateak ez luke kendu behar aldeztetik egin beharreko lan kritikoa; alderantziz, nolabait esanda beharrezkoago bihurtu behar luke, testuan irakurketa onenak eskaini beharko bailituzke, aparatu kritikoan emandako azalpenak lagun” (Urgell 2013: 546).⁷⁴

3.1.3. Corpusa ezagutzeko tresna lagungarriak

Edizioez gain, azken hogeit hamar urteotan aurrerapen nabarmenak egin dira euskal testuen corpusa ezagutzeko baliabideen arloan. Iturriei dagokienez, *fontes criticae*-en inguruan dakusa Urgellek orain dugun oinarrizko hutsune handienetako bat (2013: 547 eta hurrengoak). Euskal Herriko mendebaleko testuei dagokienez, nahitaezko erreferentzia dira Altzibarrek bere tesian Bizkaiko egileez, liburuez, aleen kokalekuez, literatur ereduez eta eredu horiek gorpuztu bide zituzten ezaugarriez aipatutakoak. Oraindik ere ustiatzeko hainbat eta hainbat mea dituen meategia da Altzibarren lana, hainbat ikerketa-ildo iradokitzen eta noiz argitaratuko zain dauden hainbat testuren erreferentzia zehatzak biltzen dituen. Bestalde, eta eremu geografiko bertuan, Labayru Ikastegiak *Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)* kaleratu zuen, dozenaka frantziskotarren testuak identifikatu eta ordenatu dituen (Etxebarria 2005). Teknologia berrien bilakabideak, bestalde, beste arlo batzuetan bezainbesteko erraztasunak eta erosotasunak ekarri ditu filologiara: esku

⁷⁴ Cf.: “Algunos autores (...) expresan una postura muy negativa respecto a la regularización gráfica de los testimonios preservados en los manuscritos. Aunque no comparto su postura, que deslegitima y considera «acientífica» la labor crítica y filológica respaldada por cientos de años de trabajo y llega a calificar la práctica modernizadora como «práctica automática», provocada por el «imperativo comercial de no repeler a la clientela», considero con ellos que es gravísimo el hecho de que se realicen versiones modernizadas de textos de los que jamás se ha hecho transcripción paleográfica, una práctica absolutamente rechazable. Eso sí, ante su propuesta de editar todas las versiones conservadas de un texto, en una «edición polivalente» y «científica», no puedo más que sentir rechazo y hacer mía la crítica expuesta por Orduna (1990: 39-40), en el sentido de que ese planteamiento puede ser útil para el trabajo de los lingüistas, pero no plantea ninguna hipótesis científicamente fundada, cosa que el texto crítico sí hace” (Bédmar 2006: 128).

artean katalogo digitalik eduki ezean, gaitza izango zitekeen Materraren 1617ko edizioa aurkitzea, adibidez.

Gaur egun, testuen azterketa errazten duten tresna berrienen artean *Orotariko Euskal Hiztegia* da handiena eta lagungarriena: hain corpus zabala eskura eta sarean nonahi eta noiznahi kontsutaltu ahal izatea ezin lagungarriagoa da hizkuntzaren historialarientzat. Halaber, *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa-200* lanak sarrera bakoitzean dakartzan xehetasun, adibide eta azalpenek ez dute parekorik aldez aurreko bibliografian. Onomastikaz denaz bezainbatean, *Euskal Onomastika Datutegiak (EODA)* hainbat eta hainbat izenen bilakabide historikoa kontsultatzeko aukera emateak nabarmen errazten dio diakronistari bestelako iturri idatzirik ez dagoen sasoi-tako egoera linguistikoaren berri gehixeago lortzea.

Corpus berba aipatu dudalarik, derrigor aipatzekoa da Euskal Klasikoen Corpora (EKC) eta horrek biltzen duen “Corpus arakatzaillea” tresna. Erabilgarri dagoen corpus handiena da *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren ondotik, eta XX. mendera bitarteko testu klasiko ia guztiak biltzen ditu: 496 liburu eta 11,9 milioi hitz. Salaberri Muñok abiarazitako “Euskal Testuen Gordailua” du oinarri, eta ehunka testutan bilaketak egiteko aukera ematen du. Alabaina, corpora eratzeko erabilitako irizpideek (edo irizpide bateraturik ezak) hutsune nabarmenak dakarzkie hala bilatzaileari nola corpusari, esku askok parte hartu zutelako testuen transkripzio-lanetan, edizio- eta modernizazio-irizpide⁷⁵ bateraturik gabe jardun zelako,⁷⁶ zuzentze-lan sakonik egin ez zelako eta, askotan, jatorrizko iturrien gaineko kontrolik gabe lan egin zelako.⁷⁷ Orain, Etxepareren zuzendaritzapean hizkuntzalari- eta informatikari-talde batek eginbidean duen corpus historiko etiketatuaren *Basque in the Making* egitasmoak aurrekoa gainditzeko asmoa dakar.

⁷⁵ “A los lingüistas nos interesa la lengua de los textos, de manera que no podemos hacer un estudio sobre la fonética de una época o de una obra utilizando una edición modernizada, porque es posible que acabemos llegando a conclusiones erróneas acerca del sistema fonético-fonológico del momento o del sistema de la lengua en general que se manifiesta en ese documento” (Fernández Alcaide 2006: 181).

⁷⁶ “Arazoetako bat –tresna honek egiten digun mesedea sartu den altxorra bezain erraldoia edo areagokoa delarik– grafiak maiz automatikoki-edo gaurkotu izana da. Honek kontu eztabadagarri bat baino gehiago eragin ditu corpusean, eta inoizka hutsegite ederrak. Xumeenetatik hasita, gorde egin da Iparraldekoen (eta Kapanaga baten) ohitura /j/ hotsa <i> hizkiarekin adieraztea, nahiz gaurko <j> grafiak – Euskaltzaindiak hala erabakita– /j/ hotsa irudikatzen duen anbiguotasunik gabe (teorian behintzat)” (Urgell 2013: 553). Kapanagaren testuaz den bezainbatean, Mañarikoaren lanean bilaketak egin nahi dituenak aintzat hartu beharko du EKCn dagoen transkripzioa bigarren edizioarena (1893) dela, eta Dodgsonen egindako hutsak ez zuzentzeaz gain, transkribatzaileak beste batzuk gehitu zizkiola.

⁷⁷ Hurreko hizkuntzetako beste corpus handi batzuetan ere antzeko arazoak daude: gaztelaniaren CORDE corpusak hainbat arazo ditu, hala nola testuen heterogeneotasuna (Lucía Megías 2003: §3.1, *apud* Pons 2006: 103).

3.2. Mendebal zabaleko testuez ikuspegi orokorra

Eskuragarri dauden materialei dagokienez, Euskal Herriko mendebal zabalean (eta batez ere Bizkaian eta Gipuzkoako mendebalean) egoera beste leku batzuetan baino hobea da. Izan ere, hainbat eremutan daude euskal testuak Euskara Arkaikoaz geroztik. Halere, euskararen corpusaz oro har aipatutako urritasunaren, asimetriaren eta homogeneousunaren arazoak euren horretan agertzen dira eremu honetan ere.

Badaude hainbat testu interesgarri, baina *hiatus*-ak (hots, berandura arte testurik ez duten eremuak edo lekukotasun batetik hurrengora arteko denbora-tarte luzeak) ere hainbat dira: XVIII. mendera arte ezer gutxi dago Bizkaiko erdialde eta hegoalde zabalean, eta XIX. mendekoak dira Arratiako, Mundakatik eskuin geratzen den kostaldeko nahiz Lea eta Artibai ibaien inguruko lehenbiziko testu luzexkak. Halaber, testu gehiago nahi izango (ge)nituzke Bilbon zein Bizkaiko eskualde-buruetan, hala nola Plentzian, Mungian, Bermeon, Gernikan edo Markinan, bai eta material faltaren ondorioz isoglosa batzuen irudia lausotzen den eremuetan ere: Mungia eta Gernika arteko herrietan, Muxikan, Zornotzan eta Otxandion, besteak beste.

Bizkaiko lekukotasun arkaiko eta zahar gehienak sartaldean eta Durango aldean daude. Bizkaiko, eremu mugakideetan aipatzekoa da Gipuzkoako mendebalean badagoela testu nahikorik hizkuntza-ezaugarri batzuen menderik mendeko bilakabidea aztertzeko (cf. Zuazo 2006a).

Eskueran dauden testu gehienak laburrak dira: luzeenaren transkripzio arruntak ez ditu 30 orrialde baino gehiago hartzen. Bestalde, erlijio-testuak nagusi diren arren, aipatzekoa da badagoela beste euskalki batzuetan baino material ez-erlijioso gehiago: XVI. eta XVII. mendeetako handiki eta historialari zenbait mendebalekoak izateak ekarri die onurarik eremu horretako euskara aztergai izan dutenei, euren inguruan sortutako materialak bildu bide baitzituzten. Iburguen-Cachopinen kronikan edo Garibairen lanetan agertzen diren herri-literaturako materialekin batera, aipatzekoak dira Zumarragaren gutuna (1537), *Refranes y sentencias*, sorginei buruzko Busturiko testu laburra (1616), Bilbo aldeko maitasun-poemak (XVI-XVII. mendeak), Egiaren kanta (1638), Mikoletaren liburuxka (1653) edo hizkuntza-ezaugarri zaharrei eutsi dieten zenbait balada eta kanta herrikoi.

Bigarren mailako lekukotasunik ere badago Bizkai aldean, eta oso baliagarri dira bai tokian tokiko hizkeretan zer gordetzen zen ikusteko, bai itxuraz mendebalean beste leku batzuetan baino hobeto gorde diren erabileren berri izateko; adibidez, Arratiako

lehenengo testuak XVIII. mendeko sermolarien lanak diren arren, Madariaga kaligrafoak XVI. mendean bokal sudurkarietaz emandako argibideak oso lagungarri dira (begiratu §4.3.3). Orobat, historialari zahar batzuek euren lanetan onomastika zein lexiko arrunta iruzkintzean emandako itzulpen eta azalpenak baliagarri dira hizkuntza-ezaugarrien berri izateko: Iburguen-Cachopinen kronikako *beraza - él era* formak iraganaldiko *-n* morfemaren galeraren berri ematen du. Apokrifoez ere, ordezkatu nahi duten garaiko hizkuntza-egoera urrun egon arren, informazio baliagarria ematen dute sortu ziren sasoiko euskarari buruz.

Gipuzkoako mendebalean testu laburrak dira nagusi XVIII-XIX. mendeetara arte, baina aipatzekoa da testu labur horien artean ugaritasuna dagoela generoan: Garibaik bildutako erretrauz eta Erdi Aroko kutsua duten kantu-zatiez gain, aipatzekoak dira bertsotan idatzitako/jasotako testuak eta koplak-sortak, administrazio-testu laburren bat, gutunen bat eta Barrutiaren antzerki-lana. XVIII-XIX. mendeetan, aldiz, testu erlijiosoak dira luzeenak inguru horretan: Antzuola eta Bergara aldeko dotrinak, Oñatiko eskuizkribuak eta argitaragabe dautzan hainbat sermoi.

Araba aldeko lekukotasunak Bizkaikoak eta Gipuzkoa mendebalekoak baino urriagoak dira kopuruz, baina ez beti tamainaz, eta lan honetan behin eta berriz aldarrikatutako filologia zehatza aplikatu zaienean emaitza esanguratsu ikusgarriak lortu izan dira euskal dialektologiaren eta euskararen historiaren arloan. Euskal filologoen artean zabal onartua da Mitxelenak (1958) mugari nabarmena ezarri zuela Landucciren hiztegiaren edizioarekin: hiru esku bereizteaz gain, hiztegiak galdutako euskalki bateko hizkera jasotzen zuela proposatu zuen, eta hizkera hori Bizkaikotik bereizteko argudioak eman zituen, Arabako euskarari estatus beregaina emanez. Landucciren edizioak berrogeita hamar urte bete baino lehen, Arabatik etorri zen ezustekoa berriz ere: Lazarraga eskuizkribuak hala mendebaleko dialektoen nola euskararen historiako zenbait punturen inguruko ikuspegia aldarazi du (begiratu Bilbao *et al.* inrpimategian). XVIII. mendekoak dira, bestalde, Gamizen olerkiak eta Garcia Albenizen izkribua, eta *Dotrinazko sermoitegia* (Ulibarri 2015).

3.3. Bi hitz corpus-hizkuntzalaritzaz

Corpusen funtsezko helburua da ikertzaileari ahalbidetzea bere ikerketa-lanean behar dituen adibideak erraz eta eraginkortasunez aurkitu ahal izatea, eta adibideon bildumak sailkatzea eta antolatzea, irizpide zehatz batzuei jarraikiz (Rissanen 1992:

262). Hain zuzen ere, ikertzaileak bere ikergaiaren neurriko corpora eratu behar du, ahalik eta etekin handiena aterako badio. Corpus historikoei dagokienez, ez dute aparteko berezitasunik, ezpada iraganeko hizkuntza-egoerak edo hizkuntzaren bilakabidea aldatzea dutela xede:

Strictly speaking a «historical corpus» is one which is intentionally created to represent and investigate past stages of a language and/or to study language change. In all other respects, the defining characteristics of a corpus apply: it is a finite electronic collection of texts or parts of texts by various authors which is based on well-defined and linguistically relevant sampling criteria and aims for some degree of representativeness. (Claridge 2008: 242)

Azken batean, corpusen bidez testuingurua ematen zaie testuei ardatz horizontal (geografia) eta bertikal (kronologia) banatan kokaturik; horrela, testu zaharrek bizi ohi duten isolamendua gainditzen da, eta errazagoa izan ohi da testuen eta ezaugarrien arteko loturak ikustea eta irakurtzea.

Corpus fidagarri eta publikoak eskueran izan artean, ikertzaile bakoitzak bere helburu, gaitasun eta trebezien arabera moldatu ohi ditu bere datu-base eta corpusak, eta askotarikoak izan ohi dira formatu eta aukerak. Halere, azken urte eta hamarkadotan corpus digitalizatuekin lanean jardun duten adituek zenbait proposamen egin dituzte, batez ere corpus handiak eratu behar direnerako.

Roger Lassak bi atlas nagusi izan ditu langai azken hamarkadan: *Linguistic Atlas of Older Scots* eta *Linguistic Atlas of Late Mediaeval English*. Kronologiak geografiak besteko garrantzia du lan bietan, eta oinarrian lexiko- eta gramatika-etiketak dituzten testuak daude; bada, besteak beste lan horiekin lortutako esperientziatik ondorioztatu du Lassak (2004: 40) corpus historikoei funtsezko hiru ezaugarri izan behar dituztela: (i) *Maximal information preservation*; (ii) *No irreversible editorial intervention*; (iii) *Maximal flexibility*.

Metodologikoki, corpusek ez dituzte konpontzen hizkuntza-ebidentziak bilatzean sortzen diren arazo guztiak (hori ere ez dute helburu), baina, zalantzarik gabe, gaur egun hedaturik dauden corpus konputarizatuek asko errazten dute hala materialak metatzeko nola aztertzeko lana: luzamendutan ibili gabe azterketa linguistiko jakin batean zuzenean murgiltzeko aukera ematen dutela azaldu zuen Rissanenek aspaldixe (1992: 273), eta ikuspegi berori berretsi du azken urteotan ere, *corpus linguistics* delako metodologiak hainbat lekutan hartu duen indarra ikusirik: “The increasing use and obvious advantages of computerised corpora have led to the adoption of the term

«corpus linguistics» with reference to linguistic study based on corpora” (Rissanen 2008: 54).⁷⁸

Corpusak hainbat ikerketa-esparrutara hedatu dira, eta ez dago argi esaterik zein ikerketa-alorrekin duten lotura handiagoa: gogoratzekoa da hizkuntzen historiaren ikerketari ezinbestean loturik daudela, baina, Schneiderrek dioenez (2004 [2002]: 70), *corpus linguistics* delakoak paradigma bariasionistaren hainbat estimulu hartu ditu, eta hizkuntzalaritza historikoaren eta soziolinguistikaren arteko zubitzat hartzen da gaur egun.

Ondo definitu beharko litzateke zer den corpusean oinarritutako hizkuntzalaritza-ikerketa: ez da ahaztu behar corpusen erabileran oinarritutako ikerketa hurbiltze metodologikoa dela, ez hizkuntzalaritzaren adar independentea (Rissanen 2008: 54). Azken batean, asmakizun teknikoek eta garapen teknologikoek ez gaituzte itsutu behar: “The role of technological developments should, of course, not be over-emphasized: the core of historical language research lies, even today, in the analysis and interpretation of data” (Rissanen 1990: 459). Rissanenek berak gerora aldarrikatu izan duenez, “Research begins where counting ends” (2008: 66).

Corpusei loturik ageri den arazoetako bat larria da: ikerketa-metodo kuantitatiboak jatorrizko iturrietara joateko gogoia ken diezaioke ikertzaileari; hots, filologiari lotutako lana eskastea edo desagerraraztea ekar dezake, eta horrek hizkuntzaren historiaren inguruko ikerketa txirotzea ere badakar. Testuak ondo ezagutzea da hori saihesteko irtenbidea: “The best way to avoid this risk if impoverishment is constantly to remind ourselves and our students of the importance of reading the text which form the corpus” (Rissanen 1989: 16).

Corpusgintzan aritu ohi direnek ondo dakite corpusek ezin dituztela konpondu iturrien arazo guztiak; besteak beste, aintzat hartu behar dira corpusak besarkatzen dituen denbora-tartea eta geografia, egoera soziolinguistikoa eta erabilitako testuen generoa (Rissanen 1992: 265-266). Agerikoa da horiek aintzat hartuta eratutako corpusak osoagoak eta fidagarriagoak izango direla; aitzitik, hizkuntza gehienek kasuan, hala nola euskararenean, material-urritasunak ezinezko egiten du lau irizpide horien araberrako corpusak antolatzea. Idealegia da guretzat horrela jokatu ahal izatea. Beste

⁷⁸ Azken urteotan corpusak eratzeari eman zaion garrantziaren erakusgarri da Nicholas Ostler-en aipu hau: “As I remarked in 1998: The old quip attributed to [Max] Weinreich, that a language is a dialect with an army and a navy, is being replaced in these progressive days: a language is a dialect with a dictionary, grammar, parser and a multi-million-word corpus of texts, and they’d better all be computer tractable. When you’ve got all of those, get yourself a speech database, and your language will be poised to complete on terms of equality in the new Information Society” (Ostler 2008: 458).

alde batetik, corpus guztiei datxekien zenbait arazo ageri dira gurean ere. Tamainari dagokionez, “a corpus will never be the right size for showing what you are trying to show: either it will be a bit too small, or it will be too much data for easy analysis. The same corpus can be too small for some purposes and too large for other” (Bauer 1994: 51).

Ordezkarritasunaren eta tamainaren arazoa loturik daude:⁷⁹ zenbat eta corpusa testu gehiagoz hornitu, hainbat eta osoagoa izango da hizkuntza-errealitateaz lortzen den irudia. Datu edo iturri gutxi daudenean, datuak interpretatzean tentuz ibiltzea da zuhurrena. Ordezkarritasuna sarri aipatzen da corpusen kritika egitean: aipatu izan da testuek ez dutela hizkuntza bere osotasunean ordezkatzen. Rissanenek dioenez, halakoak kritika baliagarriak dira hasiberrientzat, baina azalekoegiak ere badira; izan ere, corpusak biltzen dituztenek ondo jakin ohi dute corpusek ezin dituztela konpondu ebidentzia linguistiko guztiei dagozkien arazoak. Proposatzen duenez, lau alderdi gogoratu behar dira corpus diakronikoak osatzean: (i) estaldura kronologikoa, (ii) estaldura geografikoa, (iii) estaldura soziolinguistikoa eta (iv) testu-generoen estaldura (Rissanen 1992: 265-266).

3.4. Tesi honen testu-corpusaz

3.4.1. Aurkezpena

Hurrengo azpiatalean emango ditut lan honetan erabilitako corpus nagusiaren inguruko zertzeladak: erabilitako testuak zerrendatu ditut, baliatutako aleak eta/edo edizioak zehaztuta. Lehenengo bereizketa testuei eurei dagokie, eta geografia politiko-administratiboaren arabera egin dut, Bizkaikoak, Arabakoak eta Gipuzkoakoak bereizita. Beste alde batetik, corpusa osatzen duten testuak aurkezteko irizpide nagusia ez da formala izan, ezpada kronologiaren eta geografiaren arabera, alderdi bi horiek lan honen gidalerro direnez gero.

Lekukotasunak kronologikoki aipatzeko, Lakarraren (1997a) periodizazioari jarraitu diot, Lehen Euskara Modernoaren data zertxobait aurreratuta (begiratu §5.1.7 eta §5.3.3.2.1 atalak); zehazki, Euskara Arkaikoko (1400-1600), Euskara Zaharreko

⁷⁹ “The most central and the most difficult problems in the compilation of general (multi-purpose) corpora are, indeed, the questions of size and representativeness. These two are interrelated: the larger the corpus, the better picture it will give of the reality of the language it is intended to represent” (Rissanen 1992: 264).

(1600-1730) eta Lehen Euskara Modernoko 1730-1800 denbora-tarteko testuak erabili ditut.

Bestalde, interesgarri iritzi diot jatorri geografikoa aipatzeari. Ez dut testu guztiak nongoak diren esaterik eta batzuetan eremu zabaletan besterik ezin ditut kokatu, baina arrazoi horiek tarteko ez dut testurik batzertu, ardatz kronologikorako informazio interesgarria dutelako. Halaber, ez dut testurik baztertu laburtasuna dela eta. Eskuratu ditudan testu guztiak aintzat hartzea materialaren urritasunak eragin du, hala jakatuta banaketaren eta hedaduren irudi hobea lortzen denez. Horrek, ordea, ez dakar ahaztea corpusek errealitate linguistikoaren irudi okerra eman dezaketela errealitate hori osorik islatzen dutela ulertzen bada (Rissanen 1989: 17).

Baztertutako testu bakarrak luzeraren eta idazleen *usus scribendi* konplexuaren ondorioz alboratu ditut, eta Lehen Euskara Modernoari dagozkio guztiak. Mogel, Añibarro, Astarloa, Frai Bartolome edo Juan Mateo Zabala aipatu ohi dira literatur bizkaiera kanonikoaz aritzean, eta idazle horiek aztergai nagusietatik kanpo utzi ditut: 1400-1800. urteen arteko testuen corpusa baliatu dut tesi honetan.

Hautu hori egiteko, besteak beste, gogoan izan dut ehunka orrialde ekoitzi zituztela (ez guztiak argitaratuak) eta hizkuntza-ereduen inguruko eztabaida eta hausnarketen ondorioz hainbat idazkera-irizpide aldatu zituztela urteak joan ahala (XVIII. mendearen amaieran ikusten diren joerez, begiratu, halere, §5.3.3.2.3 atala). Hain zuzen ere, literatur ereduak sortzeko bidean eginiko hautuek lausotu egiten dute tokiko hizkeren eta hizkera estandarizatuen arteko lotura. Nolanahi ere den, corpusean 1800 aldera hiatus bat sortzeak eta egile horien lanak aztergai nagusien artean (hots, sistematikoki goitik behera aztertutakoen artean) ez kokatzeak ez du esan nahi, ezaugarri batzuen bilakabidea irudikatzean, Añibarroren *Escu-liburua*-ri, Mogelen *Peru Abarca*-ri edo Frai Bartolomeren *Gatz-ozpinduba*-ri begiratu ez diedanik (cf. §5.3.2.1 atala *Rui* arauaz edo §5.3.3.2.3 literatur bizkaieraren aurrekariez).

Esan gabe doa ematen dudan corpusa tesi honen ardatza izan arren, ez dela erabili dudan material bakarra: lagungarri izan zaizkidanean beste leku eta garaietako iturrietara ere jo dut, izan testuak, izan gramatika- eta hiztegi-lanak.

3.4.2. Testuak

3.4.2.1. Bizkaiko testuak

3.4.2.1.1. Euskara Arkaikoa

3.4.2.1.1.1. Bizkai sartaldekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura ⁸⁰
Arrasateko erreketaren kantuak (“Gomizec asco lagunic” & Argui içarrac urten dau”) (ca. 1450) ⁸¹	Arriolabengoa (2008)	<i>ArrasErreki</i>
<i>Refranes y sentencias</i> (1596)	Lakarra (1996)	<i>RS</i>
Plentziako 3 errefrau zahar	Zuloaga (2011b)	<i>Plen1603</i>
Plentziako aita gurea	Larrañaga (2018)	<i>PlenAytaGurea</i>
<i>Enojaduric</i>	Arejita (1991)	<i>Enoj</i>
P. Madariaga: <i>Honra de escribanos</i> (1565)	Biblioteca Digital Hispánicako alea	<i>Honra</i>

3.4.2.1.1.1.2. Bizkai ekialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Zumarragaren gutuna (1537)	Padilla, Ulibarri & Urgell (prestatzen)	<i>frJZum</i>

3.4.2.1.1.1.3. Kokapen ezagunik/ziurrik gabeak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
San Frantziskoren 3. Ordena (<i>ante</i> 1521)	TAV (§3.2.2)	<i>FrantzOrd</i>	Durango aldekoa izan daiteke. ⁸²
Lope García de Salazar: <i>Bienandanças e fortunas</i> (ca. 1476)	TAV (§2.2.17)	<i>GSalazar</i>	
Martín Ibáñez Labierukoarena	TAV (§3.1.4)	<i>Labieru</i>	
Salinasko kondearen kantua	TAV (§3.1.11)	<i>SalKond</i>	
Diego L. Haroren eresia	TAV (§3.1.14)	<i>DiazAro</i>	
Perutxoren kanta	TAV (§3.1.15)	<i>Perutxo</i>	
Henaoren argibideak Bizkaiko elizkizunez	TAV (§3.3.1.16)	<i>Hena</i>	
Andramendiko idatziak	TAV (§3.2.9)	<i>Andram</i>	Bizkai erdialdekoak

⁸⁰ Laburdurak emateko, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologiko*-a (Lakarra *et al.* 2019) erabili dut ereduztat, bertan erabiltzen diren laburdurak *Orotariko Euskal Hiztegi*-koak baino osoagoak eta argiagoak baitira hainbatetan, eta horrek testuak errazago identifikatzea ahalbidetzen baitu.

⁸¹ Arrasateko erreketaren kantuak direla eta, orain urte batzuk egindako azterketaren arabera (Zuloaga 2011b: § 5), Arriolabengoa bildutako bost testuetarik bi nahiko ziur koka daitezke Bizkaiko ipar-mendebalean: “Gomizec asco lagunic” eta “Argui içarrac urten dau” hasierak dituztenak. Ibarquen-Cachopin kronikaren 43. koadernoko Butroeko andrearen eresia, aldiz, Bizkaiko ekialdean edo Gipuzkoako mendebalean kokatu beharko litzateke, eta ez dut datu nahikorik aurkitu gainerako zatiak (“Il didila...” eta “Gomez andia çanarren” hasiera dutenak) eremu batean edo bestean kokatzeko.

⁸² Ez dago hori defendatzeko argudio linguistiko garbirik, baina, testua, itxuraz, Zumarragak Durangoko klaratarrei oparitutako liburu batean dago eskuizkribatuta (Mixelena TAV 142).

			(Muxika/Zornotza) ditut.
“Bai, fedea”	TAV (§3.2.1)	<i>Bai fedea</i>	

3.4.2.1.1.1.4. Bestelakoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
Errefraua, dibisak eta antzekoak	TAV (§3.3.1.2, §3.3.1.3, §3.3.1.4, §3.3.1.7, §3.3.1.8, §3.3.1.10, §3.3.1.12, §3.3.1.13, §3.3.1.16)	Esaldia bera aipatuko dut	Dirudienez, honako hauek dira kokapenak: §3.3.1.2 Zehaztugabea, §3.3.1.3 Zehaztugabea, §3.3.1.4. Bizkaiko ipar-mendebala, §3.3.1.7. Bizkaiko hego-mendebala, §3.3.1.8. Mutriku, §3.3.1.10. Gipuzkoa mendebala, §3.3.1.12. Bizkaiko ipar-mendebala, §3.3.1.13. Zehaztugabea, §3.3.1.16. Zehaztugabea

3.4.2.1.2. Euskara Zaharra

3.4.2.1.2.1.1. Bizkai mendebalekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Mikoleta (1653)	Ariztimuño, Manterola & Zuloaga (prestatzen)	<i>Mikol</i>
Barakaldoko aienea (1712)	Saiz & Ros (2001)	<i>BarakAiene</i>
<i>Viva Jesus</i>	Ulibarri (2010a)	<i>VJesus</i>

3.4.2.1.2.1.2. Bizkai erdialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Sorginei buruzko Busturiako testu laburra (1616)	Reguera (2016)	<i>Sorg1616</i>

3.4.2.1.2.1.3. Bizkai ekialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
J. B. Alzola: <i>Egiaren kanta</i> (ca. 1638-1650)	Arejita (1983, 1988), Urgell (1986)	<i>EgiaKant</i> ⁸³
Kapanaga: <i>Exposición breve de la Doctrina christiana</i> (1656)	Ale mikrofilmata (Julio Urkixo funtsa)	<i>Kapan</i>
N. Zubiaren dotrina kristauaren zatiak (1699 [1691])	Ale mikrofilmata (Espainiako Biblioteka Nazionaleko alea)	<i>Zubia</i>
Elorrioko ziri-bertsuak (XVIII)	Arejita & Bidart (2011)	<i>ElorZiriBerts</i>

⁸³ Testuak baditu Durango aldean espero ez nituen zenbait elementu, hala nola sartalderagoko aldaera lexikoren bat (cf. 84 *guedar*). Aintzat hartzekoa da egileak, durangarra izan arren, hamarkada eta erdi eman zuela erretore Artean (Arratia), eta horrek izan zezakeela eraginik bere hizkeran eta/edo idazkeran. Halere, cf. 182-186 «*Eguntaño Vizcaicoac, orrelangoric / eztago eguin **dabela**, escribiduric. / Vizcayarrac, guilçac, Francesay emon / ez eta balira, gustioc, Sanson*» Urgellen (1986: 90) ediziotik. Antzeko egoera errepikatzen da mende eta erdiren buruan Olaetxearekin: Gerrikaitz aldekoa izan arren, Laukarizen egon zen 1751tik 1964ra, eta han prestatu zuen bere *Doctrina christiana* (1763).

3.4.2.1.2.1.4. Kokapen ezagunik/ziurrik gabeak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
<i>Ene veguiacaz</i> maitasun-kanta (1609)	TAV (§3.1.22)	<i>BizkKant</i>	Bizkai erdialde-ekialdeko zatituta.
<i>Catigatu ninduçun</i> maitasun-kanta (ca. 1650)	ConTAV (§5.1.4)	<i>BizkOlerk</i>	
Bertso bizkaitarrak	Lakarra (1984a, 1986b)	<i>BertsBizk</i>	Bizkai ekialdeko zatituta.
<i>Ibarguen-Cachopin</i> kronikako esarak, hiztegia eta bestelako material solteak (XVI- XVII)	Arriolabengoa (2008)	<i>IbargC</i>	Bizkaiko hainbat lekturako materiala biltzen duela ikus daiteke; bada Bizkaitik kanpoko ere.

3.4.2.1.3. Lehenengo Euskara Modernoa

3.4.2.1.3.1.1. Bizkai mendebalekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Orozko otoitzak (1739)	Garigorta & Gaminde (1986)	<i>OrozOtoi</i>
B. Sarriaren zenbait sermoi (1780-1804)	Etxebarria & Apraiz (2009)	<i>Sarria</i>
Zolloko galdetegia (1770)	Zuloaga & Antequera (2019)	<i>ZolloGald</i>

3.4.2.1.3.1.2. Bizkai erdialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
S. Gandararen Gabon-kantak (1757-1768)	Kaltzakorta (1999)	<i>Gandara</i>
B. Olaetxea: <i>Doctrina christiana</i> (1763)	Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako alea	<i>Olaetxea</i>
N. M. De la Quadraren lanak (1784)	Bilbao (1997 & 1998)	<i>De la Quadra</i>
<i>Errosariyo edo coroa</i> <i>Santuba</i> (1780) ⁸⁴	Ale mikrofilmata (Euskaltzaindia) & Gidor Bilbaoren transkripzioa	<i>Errosariyo</i>
Gernikako Gabon-kanta bat (1801)	Arejita (1993)	<i>GernikaGK</i>

3.4.2.1.3.1.3. Bizkai ekialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
M. Arzadunen <i>Doctrina</i> <i>christianeen explicacinoa</i> (1731)	Ale mikrofilmata (Julio Urkixo funtza)	<i>Arzadun</i>
D. L. Urkizu: <i>Liburu Virgina</i> <i>santissimien...</i> (1737)	Ale mikrofilmata (Chicagoko Newberry Library-ko alea)	<i>Urkizu</i>
D. L. Urkizu: 1740ko koplak	Zuloaga (2018 [2015])	<i>UrkizuKopl</i>
F. Apoita bolibartarraren nobena ⁸⁵	Altzibar (1992)	<i>Apoita</i>

⁸⁴ *Errosariyo edo coroa santuba*-ren edo "Bermeoko hirugarren eskuizkribua" deitu izan denaren edizioa eginbidean du Bilbaok, eta oraingoz ez du baztertzeko eskuizkribu hori ere De la Quadrarena izatea.

⁸⁵ Iturrizak 1778an eginiko kopia baten bidez gorde dira; begiratu kopiaren xehetasunak Altzibar (1992: 68) lanean.

Amorotoko armarriak	Argazkia	<i>Amoroto1754</i> eta <i>Amoroto1784</i>
Abadiñoako Gabon-kanta bat (1801)	Altzibar (1993a)	<i>AbadiñoGK</i>
Iturriza: Andramendiko idazkien bertsio berritua	Mitxelena (1954b)	<i>Iturriza</i>

3.4.2.1.3.1.4. Kokapen ezagunik/ziurrik gabeak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
Rita Barnetxearen euskal kanta (1783)	Zuloaga (2018 [2013])	<i>Barnetxea</i>	Bilbo aldekotzat dut.
Bulda bat (XVIII-XIX) ⁸⁶	Lakarra (1985b)	<i>Bulda</i>	Bizkaiko erdialdekotzat dut.

3.4.2.2. Arabako testuak

3.4.2.2.1. Euskara Arkaikoa

3.4.2.2.1.1. Mendebalekoak (Aiara aldea)

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
A. Poza: <i>De la Antigua Lengua de las Españas</i>	Gorrotxategi (1987)	<i>Poza</i>

3.4.2.2.1.1.2. Erdialdekoak (Gasteiz aldea)

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
N. Landucci: <i>Dictionarium Linguae Cantabrigiae</i> (1562)	Mitxelena & Agud (1958)	<i>Land</i>
Betolatza: <i>Doctrina Christiana</i> (1596)	Mitxelena (1955)	<i>Betol</i>
Fray Juan Victoriaren zina	Ibisate (1998)	<i>frJVict</i>

3.4.2.2.1.1.3. Barrundia aldekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
J. P. Lazarraga (ca. 1560-1605) ⁸⁷	Bilbao <i>et al.</i> (inprimategian)	<i>Lazarg</i>

3.4.2.2.1.1.4. Kokapen ezagunik/zehatzik gabekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Iacob Gebarakoaren hiletak	TAV (§3.2.3)	<i>IacobGeb</i>
Marineo Sículoren hiztegia	TAV (§3.2.4)	<i>MSiculo</i>
Errodrigo Zaratekoren eresia (1574)	Arriolabengoa (2008)	<i>ErrodZar</i>

⁸⁶ Buldaren datazioaz, begiratu §5.1.8 atala.

⁸⁷ Nahiz eta "Lazarraga eskuizkribu"-az aritu, eskuizkribuak hiru esku biltzen ditu, gutxienez: Lazarragarena ez ezik, Martín López de Bikuñarena eta Felipe Ruiz de Ibarretarena ere badaude, eta Lazarragak berak Estibaliz Sasiolakoari kopia omen zizkion testu batzuk. Eskuez, begiratu edizioan (Bilbao *et al.* inprimategian) eta gramatikan (Mounole inprimategian) emandako zehaztapenak.

3.4.2.2.2. Euskara Zaharra

3.4.2.2.2.1.1. Mendebalekoak (Aiara aldea)

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Mendietaren koadroko testua	<i>ConTAV</i> (§5.2.7)	<i>MendietaKoa</i>
Mendieta: <i>Abendaño</i> koaren heriotza	<i>TAV</i> (§3.1.6)	<i>Abendaño</i>
Mendieta: <i>Aerario de la hidalguía</i>	Ulibarri (2013a)	<i>MendietaAera</i>
Urduñako berba-zerrenda (XVII. mende amaierakoa) ⁸⁸	Ros (2011)	<i>UrduñHiz</i>

3.4.2.2.2.1.2. Ekialdekoak (Arabako ekialdea / Sakana ingurua)

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
M. Portalen poema (1610) ⁸⁹	<i>TAV</i> (§3.1.21) & Kerejeta (1991)	<i>Portal</i>
Sevillako bertsoak (1619)	Ulibarri (2011b)	<i>Sevilla1619</i>

3.4.2.2.2.1.3. Kokapen ezagunik/zehatzik gabekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
Fabri de Peyrasc-en laudorioa	<i>TAV</i> (§3.1.26)	<i>Peyrasc</i>	Arabakotzat edo Gipuzkoako hego-mendebalekotzat dut.
Martin Iturberen testua (1658)	<i>ETZBB</i>	<i>Iturbe</i>	Arabakotzat edo Gipuzkoako hego-mendebalekotzat dut.
Martínez de Ochoaren Gabon-kanta elebiduna (1695)	Knörr (1998)	<i>MOchoaGK</i>	Gasteizkoa izan daitekeela iradokitzen du edizilogileak.

3.4.2.2.3. Lehenengo euskara modernoa

3.4.2.2.3.1.1. Ipar-mendebalekoak (Aiara aldea)

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
<i>Dotrinazko sermoitegia</i> (ca. 1700-1800)	Ulibarri (2015)	<i>DotrSerm</i>

⁸⁸ Urduña Bizkaia da, jakina (Bizkaiko hiri bakarra, gainera), baina geografia fisikoaren irizpide hutsari jarraituta sartu dut XVII. mendeko lekukotasun hori Arabako testuen artean.

⁸⁹ Portalen hizkeraren jatorriaz izan da proposamen berririk azken urteotan: tradizioz testua Nafarroako mendebalean (Burundan edo Ameskoa inguruan) zein Arabako ekialdean kokatu izan den arren (cf. Mítxelena *TAV* 121), testua Gipuzkoako ipar-mendebalean ere koka daitekeela proposatu du Aldaik (2012). Bestalde, Ulibarrik Sevillan aurkitutako bertsoetako hizkera Portalen hizkeratik ei dago beste edozeinetatik baino hurbilago, eta urduñarrak metodologia-arazoak ikusten dizkio Aldairen proposamenari: “Aldairen konparaketan ezaugarri ezberdin bakoitzak duen pisua baloratzearen falta nabari dugu: adibidez, *egondu* (ez dugu uste lexikoari bakarrik dagokionik ezaugarri hau) edo *egin* transitiboko *irrealis* adizki bipertsonaletan erabiltzeak ezinezko begitantzen zaigu Gipuzkoako ipar-mendebalean XVIII. mende hasieran. Eta «XVII. mende hasiera» markatzea garrantzitsua da, datuen balorazio falta hau datuen ikuspegi kronologikoan nabaritzen baitugu gehienbat: esaterako, Muniberen testua erabili izana (XVIII. mende erdikoa) Portalek erakusten duen txistukarien neutralitze egoerarekin konparatzeko, arriskutsua bezain engainagarria iruditzen zaigu” (Ulibarri 2011b: 385). Gaiaren inguruko argi hoberik izan artean, hipotesi tradizionalari jarraituko diot lan honetan.

3.4.2.2.3.1.2. Ekialdekoak (Araia eta Sabando aldea)

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
J. García de Albeniz: <i>Acto contriciocoa</i> (1778)	Altuna (1995b)	<i>Albeniz</i>
J. B. Gamizen testuak (1770)	Goikoetxea (1982)	<i>Gamiz</i>

3.4.2.3. Gipuzkoako testuak

3.4.2.3.1. Euskara Arkaikoa

3.4.2.3.1.1.1. Deba ibarrekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Milia Lasturko	TAV (§3.1.5)	<i>MLastur</i>
Debako seroraren gutuna	ETZBB	<i>DebaSerGut</i>
Sasiolaren poemak	Bilbao <i>et al.</i> (inprimategian)	<i>Sasiola</i>
Rosabella komediako esaldiak (1550)	Ibisate (2001), Altuna (2001)	<i>Rosabella</i>
Sarasketa hiztegitxoa (XVI)	Aginagalde & Urgell (2012)	<i>SarasketaHiz</i>

3.4.2.3.1.1.2. Kokapen ezagunik/zehatzik gabeak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
Garibairen errefraukak	Zubiaur & Arzamendi (1976), Urkizu (1989), A eta B eskuizkribuen mikrofilmak	<i>Garibai</i>	Gipuzkoako mendebalekotzat ditut, baina A eskuizkribuaren kopiagilea gipuzkoarra zen eta aldea ikusten da A eta B bildumen hizkeren artean.
Arrasateko erreketaren kantuak (“Il didila” & “Gomez andia çanarren”)	Arriolabengoa (2008)	<i>ArrasErrekII</i>	Gipuzkoako mendebalekotzat ditut.
Akundiako guduaren kantuaren hasiera	TAV (§3.1.2)	<i>Akundia</i>	Gipuzkoako mendebalekotzat ditut.
Urrexolako guduaren kantua	TAV (§3.1.3)	<i>Urrexola</i>	Arabakotzat edo Gipuzkoako hego-mendebalekotzat ditut.
Olasoren kantua	TAV (§3.1.8)	<i>Olaso</i>	Gipuzkoako mendebalekotzat ditut.
Artazubiaga	TAV (§3.1.9)	<i>Artazub</i>	Gipuzkoako mendebalekotzat ditut.
Sandailia	TAV (§3.1.10)	<i>Sandailia</i>	Gipuzkoako mendebalekotzat ditut.
Salmo Misererea	Ale mikrofilmatua	<i>Miser</i>	Gipuzkoako mendebalekotzat edo hegoaldekotzat ditut.
Beotibarko kanta	TAV (§3.1.1)	<i>Beotib</i>	Gipuzkoako hegoaldekotzat ditut.
J. Lazkanoren kanta	TAV (§3.1.12)	<i>JLazkano</i>	
M. Xanfarronen kanta	TAV (§3.1.16)	<i>MosXanf</i>	

3.4.2.3.1.1.3. Urola aldekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
Azpeitiko 1560ko ezkontza-zina	Satrustegi (1992)	<i>Azp1560</i>	
B. Etxaberen “Ave María”	TAV (§3.2.10)	<i>EtxAveMaria</i>	Oikia aldekotzat dut.

3.4.2.3.2. Euskara Zaharra

3.4.2.3.2.1.1. Deba ibarrekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Domingo Irureren bertsoak (1677)	<i>ETZBB</i>	<i>Irure</i>
Amilletaren dotrina (1680)	Arejita & Alberdi (1985)	<i>Amilleta</i>
Arrasateko ahapaldia (1682)	Ozaeta (1992)	<i>ArrasAhap</i>
Eibarko kopla zaharrak (1685)	Lekuona <i>et al.</i> (1992)	<i>EibarKoplZah</i>
Arrasateko udal-bandoa (1705)	Ozaeta (1992)	<i>ArrasBand</i>
Bergara-Antzuola aldeko 1708ko sermoia	Etxebarria (2007)	<i>SermDom</i>
Barrutia: <i>Acto para la nochebuena</i> (ca. 1711-1720)	Lakarra (1983b), Latxaga (1983)	<i>Barrutia</i>
Eibarko kopla sorta (1721)	Kaltzakorta (2010)	<i>EibarKopl</i>

3.4.2.3.2.1.2. Urola aldekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
<i>Sumario breve-a</i> (1614)	Urkizu (2009)	<i>SumBrev</i>
M. Arzallus errezildarraren 1622ko gutunak	<i>ETZBB</i>	<i>ErrezilGut</i>
Altzaga familiaren gutunak (1740)	Madariaga <i>et al.</i> (2009)	<i>AzpGut1740</i>

3.4.2.3.2.1.3. Donostiakoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Lubieta	Bilbao (2011)	<i>Lubieta</i>

3.4.2.3.2.1.4. Goierrikoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Goierriko Gabon-kanta (1705)	Lekuona (1956)	<i>GoierriGK</i>
Otxoa Arin (1713)	Mikrofilma (Julio Urkixo funtsa)	<i>OArin</i>
Zegamako dotrina (1741)	Ondarra (1984)	<i>ZegDot</i>
Goierriko platika	Murugarren (1984)	<i>GoierriPlat</i>

3.4.2.3.2.1.5. Ipar-ekialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Isastiren <i>Salve-a</i>	TAV (§3.2.12)	<i>IsastiSalve</i>

3.4.2.3.2.1.6. Erdi-ekialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Irazutaren dotrina (1739)	Mikrofilma (Euskaltzaindiko Azkue bibliotekako alea)	<i>Iraz</i>

3.4.2.3.2.1.7. Kokapen ezagunik/ziurrik gabekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Elduaingo 1619ko bertsoak	<i>ETZBB</i>	<i>Elduain1619</i>
Isastiren errefraua	<i>TAV</i> (§3.3.3)	<i>Isasti</i>
Frantziskotarren predikua (1648)	<i>TAV</i> (§3.2.13)	<i>FrantzPred</i>
Lardizabalen gutunak (1655)	<i>ConTAV</i> (§5.2.9)	<i>LardizGut</i>
Bretainiako kantua	<i>ConTAV</i> (§5.1.1)	<i>BretKant</i>

3.4.2.3.3. Lehenengo Euskara Modernoa

3.4.2.3.3.1.1. Deba ibarrekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Eibarko udal-agindu bat (1754)	Zuloaga (2018)	<i>EibarAgin</i>
Angela Txakartegi mutrikuarraren gutuna (1775)	Santazilia (inprimategian)	<i>ATxakarGut</i>
Arakistain: <i>Hiztegi hirukoitzaren eranskina eta laukoak</i>	Ondarra & Unzueta (1997)	<i>Arakistain</i>
Itziarko andramariren bertsoak (Arakistain / Aldazabal)	Aldazabal (1767), <i>ConTAV</i> (§4.2.1), Zuloaga (prestatzen-1)	<i>ItziarBerts</i> ⁹⁰
Itziarko andramariren kanta (Arakistain / Aldazabal)	Aldazabal (1767), Zuloaga (prestatzen-1)	<i>ItziarKant</i>
Itziarko andramariren omenezko liburuko koplak (Aldazabal)	Aldazabal (1767), Zuloaga (prestatzen-1)	<i>ItziarKopl</i>
Itziarko andramariren omenezko bederatziruena (Aldazabal)	Aldazabal (1768), ⁹¹ Zuloaga (prestatzen-1)	<i>Aldazabal</i>

⁹⁰ Sarasolak *ConTAV* laneko oin-ohar batean emandako bertso-sorta da, alde zuzenetik *Euskal Erria* aldizkarian argitaratuak, 1887ko uztailera alean. Azken horretan (eta, horri jarraituz, *ConTAV*-en) XVII. mendeko bertsoak jotzen dira, baina errata delakoan nago eta egiazki XVIII.ekoak direla uste dut: P. J. Aldazabalen 1767ko liburu batean jasotzen da bertso zaharrago bat (bertso bata eta bestea ez datoz guztiz bat zenbait pasartetan), eta hala hizkuntza-ezaugarri (Beterriko hizkera-ereduari begira idatziak ematen dute) nola ezaugarri grafikoak (cf. <tz> zein <ts> lako digrafoen erabilera, adibidez) modernotasuna darie. Egiletza dela eta, Aldazabalen liburuak berak aipatzen du lanean bildutako materialak Arakistainen paperen arteak direla, eta hala gaien antzekotasunengatik nola ezaugarri linguistikoak aintzat hartuta, ez dut arazo handirik ikusten XVII. mendeko bertso-sorta egiazki Arakistainek prestatu zuela pentsatzeko; gai hauetaz guztiez, begiratu Zuloaga (prestatzen-1).

⁹¹ Liburuaren azalean bi data agertzen dira egiazki: *Don Pedro Joseph de Aldazaval y Murguia, Debaco beneficiado, len vicario izanac, ateratzen devana 1768 garren urtean* aipatzen da lehenbizi, eta *Bear dan bezala 1790 urtean* ondoren. Liburuaren amaieran aurreko urtean aipatutako historia-liburua aipatzen du Aldazabalek; hots, Itziarko andramariren bertsoak eta kanta biltzen dituen lana, *Breve historia de la aparicion del mas luminoso astro, y brillante estrella de la mar, la Milagrosa Imagen de Maria Santissima de Iziar...* izenekoak, 1767an argitaratua.

3.4.2.3.3.1.2. Urola aldekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Loiolako dotrina (XVIII)	Altuna (1995a)	<i>LoiolaDot</i>
J. Altzibar: <i>Grand tour</i> (1772)	Etxeberria <i>et al.</i> (2007)	<i>Gtour</i>
Azpeitiko udal-agindua (1786)	Madariaga <i>et al.</i> (2009)	<i>AzpAgin</i>
X. Munibe "Peñafloridako kondea": <i>Gabonsariac</i> (1762) & <i>El borracho burlado</i> (1764)	Altzibar (1991a)	<i>GavS & BorrB</i>
Oikiako dotrina	Lakarra (1987)	<i>OikiaDot</i>
Loiolako sermoi eskuizkribatuak	Segurola (2005)	<i>LoiolaSerm</i>

3.4.2.3.3.1.3. Donostia eta ipar-ekialdekoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Peperen eta Josefaren arteko gutuneria (1761)	<i>ETZBB</i> (§25)	<i>DonostiaGut</i>
Hondarribiko 1778ko platika	<i>ETZ</i> (§31)	<i>HondPlat</i>

3.4.2.3.3.1.4. Beterrikoak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura
Larramendiren euskal testuak	Altuna & Lakarra (1990)	Dagokion testuaren izen osoaipatuko da.

3.4.2.3.3.1.5. Kokapen ezagunik/zehatzik ez dutenak

Testua	Edizioa/alea	Laburdura	Oharrak
<i>Istoria sagraduco explicacino labor bat</i> (XVIII-XIX)	Ariztimuño & Uribe-Etxebarria (prestatzen)	<i>IsSagEsp</i>	Gipuzkoako medebalekotzat dut.
Felipe V.aren omenezko bertsoak	Ondarra (1993)	<i>FelipeV</i>	Gaztelan euskara ikasi ei zuen batek idatziak
Bergarako udal-agindua	Zumalde (1986)	<i>BergUdalAg</i>	Zuazoren (2006a) arabera, hizkera ez da Bergarakoa

4. Ezaugarrien azterketa: datuak

Lanerako hautatzen diren ezaugarriek eragin zuzena dute ikerketaren emaitzetan: ezaugarri jakin batzuk hautatzen eta beste batzuk baztertzen dituen momentutik bertatik ari ohi da ikertzailea bere ikerketa baldintzatzen, eta, horrenbestez, hautuak egiteko alde zuzeneko ezagutza eta hausnarketa ezinbestekoak ditu.

Tesi honetan Euskal Herriko mendebaleko euskara dut aztergai; funtsean, Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eremu zabaleko eta Araba/Gipuzkoa/Nafarroa eremu mugakideko iturriak dira hemen ikergai nagusi. Euskararen corpus historikoa erlatiboki txikia izan arren (§3.1), testu askotxo biltzen dira eremu horretan XV-XIX. mendeen artean, eta testuetan agertzen diren eta azter litezkeen ezaugarri linguistikoak ere hainbat dira: eremua, garaia eta corpora ez ezik, ezaugarriak neurri-kontuengatik ere mugatu eta aukeratu behar izan ditut.

Sarreran aipatutakoarekin bat (§1.1), ezaugarri fonologikoak hartu ditut lan honetan abiapuntu eta aztergai nagusi horietako bat morfonologiari gehiago badagokio ere. Zein ezaugarri hautatu eta zein baztertu erabakitzeke hiru irizpideok baliatu ditut, hurrenez hurren:

- (i) Aukeratutako corpora goitik behera irakurri dut, testuetan zer dagoen eta iturrien bidez benetan zer iker daitezkeen ikusteko.
- (ii) Gaur egungo euskalkietan zer-nolako ezaugarriak dauden hartu dut aintzat, egungo ikuspegitik interesgarritzat zein jotzen diren eta kronologiari begira interesgarriak zein izan daitezkeen ikusteko.
- (iii) XX. mendearen bigarren erdian eta batez ere azken urteotan *bizkaiera*-ri eta *mendebaleko euskara*-ri buruz egin diren ikerketa dialektologikoetan eta eremu horretako testuetako edizio kritikoetan aipatu eta erabili diren ezaugarriak hartu ditut aintzat, bai eta Gorrotxategi *et al.* (2018) liburuan garairik garai aipatzen direnak ere: Mitxelena (1958, *FHV*, 1964b, 1981a), Lakarra (1996, 1997a), Zuazo (1998, 1999, 2003, 2008, 2010a, 2012, 2014, 2017, 2019), Urgell

(2001b, 2018), Gaminde (2007), Ulibarri (2010a, 2015), Aldai (2014), Mounole (2016, inprimategian), Salaberri Zaratiegi (2018), Mounole & Lakarra (2018) eta Mounole & Gómez (2018).

Hiru pauso horiek eman ondoren zerrenda luzea aterata, hautu murriztagoa egin dut, eta tesian darabildan ikuspuntu diakronikoa lantzeko eredugarri iruditu zait Caminok (2008b: 101-102) Nafarroa Behereko euskara zaharra ikertzeko erabilitako irizpide-sorta; ehun eta hirurogeita hamazazpi ezaugarri aukeratu zituen ordukoan Caminok, eta horien interes-guneok aipatu:

- (i) Ezaugarri zahar bat galdu izana.
- (ii) Ezaugarri zahar baten izaera edo erabilera aldatu izana.
- (iii) Ezaugarri zahar batek luzaz iraun izana.
- (iv) Ezaugarri berri bat sortu izana.
- (v) Ezaugarri batek geografian gaindi desberdintasun diatopikoa agertzea.

Denboran eta espazioan zer-non-noiz galdu, berritu edo aldatu den, galerak zein berritzeak nondik, nora eta non zehar hedatu diren, eta zenbait idazlek baztertutako eta indartutako ezaugarriak zein diren aztertzea dira tesi honen ardura nagusiak; beraz, aurreko puntuak baliagarri askoak zaizkit. Ezer gehitzekotan, ezaugarriei baino gehiago metodologiari dagokion puntu bat gehituko nieke: hautatutako ezaugarriaren hedadura eta bilakabidea alde zaurretik ezarritako corpusaren bidez aztergarria izatea; alegia, ezaugarriei buruz berba egiteko datu dialektal nahiko egotea hizkuntzaren garai historikoan, hala garai horretaz nola lehenagokoez egiten ditudan proposamenek oinarri dokumental sendo(ago)a izan dezaten: “la prehistoria, el andamiaje más o menos inestable de hipótesis sobre lo no directamente conocido, sólo puede sostenerse sobre el fundamento de la historia, de los estados documentados de lengua” (Mitxelena 1963: 13). Irizpide eta iragazki horiek ezarrita, beraz, honako ezaugarri hauek azertzea erabaki dut:

- (i) Zenbait ezaugarri zahar: hasperenaren galera, *berri & barri*, *baltz & beltz*, *(h)uri & (h)iri*
- (ii) Txistukarien palatalizazioa bokalerdiaren ondoren
- (iii) Bokal sudurkariak
- (iv) $a + a > ea$ disimilazioa eta horrekin lotutako zenbait fenomeno
- (v) Eufoniak: erdiko bokalen igoerak eta *-ubV* eta *-ijV* epentesiak
- (vi) Beheko bokalaren asimilazioa

- (vii) Txistukarien neutralizazioa
- (viii) Bokal bikoitzak

4.1. Zenbait ezaugarri zahar: hasperenaren galera eta aldaera lexikoak (*barri* eta *baltz*, eta (*h*)uri)

4.1.1. Sarrera

Euskararen historia ikertzeko corpusaren modernotasun erlatiboak ezinbestean dakar lehenengo testu luzeak agertu aurreko garaiez informazio gutxi izatea, eta lehenengo testu horiek agertu orduko hainbat aldaketa linguistiko garrantzitsu sistematikoki eta hedaturik agertzea eremu batzuetan eta bestetuetan. Sarri aipatu izan da lehenengo testuak agertu orduko sortuta zeudela gerora deskribatu diren euskalkiak edo euskalki horietako batzuk, nahiz eta euskal diakronistek argitu beharreko auzia den egiazki zer-nolakoa eta norainokoa zen zatiketa dialektala XVI. mendean, zein neurritan egin daitekeen berba XVI. mendeko *bizkaiera-z*, *goi-nafarrera-z* edo *erronkarieta-z* anakronismoetan sartu barik.

Testu arkaikoak agertu baino lehenagoko datu linguistikoen artean bi multzo bereiz daitezke: berreraiki eta kronologia erlatiboen bidez besterik ordenatu ezin diren zenbait aldaketa esanguratsurena (begiratu Lakarra 2011: 219) eta Euskara Batu Zaharraz geroztik sortu eta garai historikoa iritsi orduko ondo finkatuta edo egonkortuta zeuden aldaketena. Batzuk eta bestetzuk ikertzeko metodoak eta iturriak ezin dira izan XVI-XIX. mendeetako testuak ikertzeko erabiltzen direnak: Euskara Arkaikoa baino lehen onomastika da euskararen historia ikertzeko datu-iturri nagusia, eta horren ikerketak ezagutza, corpus eta metodologia bereziak eskatzen ditu (§2.5.2.1). Bestalde, esan gabe doa denboran atzerago, berreraiketa beharrezkoago dela. Bada, bi esparru horiek (onomastika eta berreraiketa) ere tesi honen jomugetatik kanpo geratzen dira, baina ez ditut aipatzeke utzi nahi izan Erdi Aroan gertatutako eta egonkortutako zenbait aldaketa, mendebaleko euskararen dibergentzia-prozesu zaharrez aritzeko esanguratsutzat jo izan baitira.

4.1.2. Hasperenaren galera

Hasperenaz dauden datu historikoak gorabeheratsuak dira; oro har, Bonapartez (1991 [1869]) geroztiko hainbat lanetan aipatu izan da XIX. mendearen ondoren Espainia eta Frantzia arteko mugarekin bat etorri dela, gutxi gorabehera, hasperenaren

isoglosa; Bonapartek zioenez, Zugarramurdin eta Alkerdin,⁹² eta Luzaide aldean ahoskatzen zen,⁹³ eta indartsuago mantendu izan da Ipar Euskal Herriaren ekialdean: Lapurdiko kostaldean desagertze-bidean zegoen XIX. mendearen bigarren erdian (cf. Bonaparte 1991 [1869]: 243,⁹⁴ baina Hazparne aldean aurkitu du Epeldek (2003: 293-294) eta Baxenabarre osokotzat du Caminok (2004b: §7.8), azken hamarkadotan ahultzen ari dela atzeman badu ere (Camino 2016a: 426). Egun, Zuberoan du inon baino indar handiagoa hasperenak (Mounole 2004, Zuazo 2014: 151-152); Amikuzeko egoera gorabeheratsuz, begiratu (Camino 2016a: §7.3.1.4.1). Datu horiek guztiak berrestez gain, hiztun gazteen artean zaharren artean baino indar gutxiago duela azaldu dute Jauregik eta Epeldek (2013: 259).

Hego Euskal Herriaz denaz bezainbatean, egiteko dago hasperenaren galeraren azterketa zehatza, baina ikertzaileak bat etorri izan dira oro har: Arabako, Bizkaiko⁹⁵ eta Gipuzkoako testuak agertu orduko ez zen hasperen fonologikorik.⁹⁶ Nafarroari dagokionez, arestiko hiruretan baino lehenago galdu zela pentsatu izan da tradizioz (FHV 169, Mitxelena 1981a: 536 eta 1982a: 411, Reguero 2013: 434, Salaberri Zaratiegi 2018: 323 eta abar); zehazki, XI. mendea eta Aragoiko erromantzearekiko ukipenaren eragina aipatu zituen Mitxelenak (FHV 205-206), bai eta galera Nafarroako zenbait hirigunetatik hasi zela ere,⁹⁷ nahiz eta ondoko gizaldietan adibideak aurki daitezkeen.

⁹² Aldiz, XX. mendean zehar galdu egin da eremu horretan (cf. Montoya 2003: 55 eta hurrengoak).

⁹³ Zugarramurdin ez bezala, badirudi gehiago iraun duela Luzaiden (Salaberri Zaratiegi 2000: 234-235); Luzaideko toponimiari buruz, begiratu Salaberri Zaratiegi (2015a: 256).

⁹⁴ Galera ez bide zen oso aspaldi hasia, halere; cf. “La desaparición de *h* en la costa labortana debe ser reciente. En las obras de J. de Etcheberri de Ciboure, publicadas aproximadamente a partir de 1627, *h* es letra frecuente y su empleo absolutamente regular, tan regular como en las obras de Leizarraga. Para S. Juan de Luz tenemos el testimonio expreso de P. d’Urte, *Grammaire*, 9, a principios del siglo XVIII: «L’*H* on le met deuant et apres les voyelles, et on le prononce toujours avec aspiration. *hartça*, ours. *herioa*, la mort. *hiria*, ville. *sukhaldéa*, foyer. *olha*, forge. *ognh[a]çéa*, douleur qui regarde le corps...»” (FHV 168). Halaber, Kamusarri ziburutarren bertsoetan arrunt agertzen da <h> (cf. *doha*, *hala*, *banoha*, *hilen*, *herritarra*, *harcen*, *hala*, *herioac*, *ohean*, *gehiago* eta abar Baionako Euskal Museoko bibliotekako eskuizkribuko lehenengo bertso-sortan bertan). Egungo egoerari dagokionez, Epeldek (2011: 316) ez zuen hasperen bakar bat ere entzun.

⁹⁵ Inoiz zalantzarik egin bazitekeen ere, Mitxelenak (1979b) zehatz eta argi erakutsi zuen RS bildumako <h>-ak grafikoak direla, izan hitz hasierakoak bokalak direla adieraztekoak, izan hitz barnean hiatoak, eten silabikoak edo morfema-mugak markatzeko ezarriak.

⁹⁶ Bestalde, hasperenaz oro har aritzeko ohiturak ohitura, gogoratzekoa da eremu batzuen eta bestetzuen artean aldeak zeudela beronen distribuzioan: “The distribution of /H/ in the western documentation from the Middle Ages differs from that found in the eastern dialects in two points: First, laryngeals can appear after the second syllable and, second, a given word may contain more than one laryngeal” (Egurtzegi 2014: 74).

⁹⁷ Begiratu, halaber, Mitxelenak esana: “La aspiración se perdió en Navarra por Pamplona, Estella o Aoiz durante el largo hiato documental que va del siglo II al X, si se nos permite marcar estos jalones aproximados” (1981a: 536).

Regueroren (2013: 434) ustez, hasperena Nafarroa Garaiaren erdialdetik hasi zen galtzen, eta galera hori mendebalerantz hedatu zen. Eskema hori gogoan, Euskal Herrian hiru eremu linguistiko irudikatu zituen XI. menderako: mendebalekoa (gordetzailea), erdialdekoa (berritzailea) eta ekialdekoa (gordetzailea). Hona hemen hiru eremu horiekin proposatutako mapa:



17. irudia. Hasperenaren hedadura xi. mendean Reguero (2013: 435)-ren arabera

Halaber, datuen argitan Mitxelenak proposatutako data bi mendez atzeratzen badu ere, ikuspegi tradizionalarekin bat dator Salaberri Zaratiegi:

Ondoriotzat erran daitekeela uste dut, Mitxelenarekin batean, *h*-ren erabilera ez dela sistematikoa, eta bokal artean zalantza anitz daudela, baita hitz berean ere, itxuraz soinua galbidean zegokeelako, XIII. menderako. Nafarroa handia da bere txikian, eta neke ez ezik arriskutsua ere bada orokortzea, baina bistan da hamabi eta hamahirugarren mendeetan egoera Arabakoaz bestelakoa zela, hasperenari doakionez. (2018: 323-324)

Ikuspegi tradizional hori Manterolaren (2015: 300-301, 341 eta §7.3.1.2) ekarpenak aldarazi du neurri batean; izan ere, hasperenaren arrastoak aurkitu ditu Maiorak (2011) bildutako Nafarroako XVI. mendeko zenbait prozesutan⁹⁸ eta, hipotesi tradizionalaren argipean are harrigarriago dena, XVII. mendean ere aurkitu ditu hasperen morfologikotzat jo beharreko zenbait hatxe; zehazki, Beriainen *Tratado de como se debe oyr missa* (1621) lanean. Manterolaren ustez, hasperenaren isla dira *ohec*, *orihec* eta *ayhec* erakusleetan agertzen diren <h>-ak, eta horiek jotzen ditu hasperenaren

⁹⁸ Cf. *senarray porchara neurehan porchara eguyten deraut* (Gorriti, 1554), *eduiqui nahi dituc heure hiçac* (Eugi, 1565), *lehenere beguietan haducac eta guero vada lehen vada ene escuetaric joanen haiz* (Bakedao, 1566) eta *guycona charduc bufetabat emanagatic quexasen den ha* (Urroz, 1582).

adibide nabarmenentzat, horiekin batera aztertzekotzat joaz, halaber, deklinabide mugatu pluraleko atzizkietako <h>-ak: cf. 7 *Erregue Magohec*, 40v *onlacohec*, 59v *apetitu gaystohec*; 30v *gucihequi*, 40 *obligaciohequi*, 55 *demoniohequi*.

Euskal Herriko mendebalari dagokionez, zaila da hasperenaren bilakaeraren deskripzio zehatza egitea. Badirudi, nolani ere den, esparru honetan ere zenbait datu eta ikuspegirekiko adostasun zabala egon dela tradizioz: Araban indartsu iraun zuen (Nafarroa Garaian baino indartsuago, behintzat) XIV-XV. mendeetara arte, eta adibide argienak Donemiliagako Reja-ko toponimo ezagunak dira.⁹⁹ Horri loturik, hizkuntzaren historialariek segurtasun handiagoz hitz egin dute Arabako egoeraz: “Es difícil pronunciarse con respecto a Guipúzcoa y aun a Vizcaya, pero es segura, en cambio, su frecuente presencia en el vascuence alavés hasta dentro ya del siglo XIV” (Mitxelena 1981a: 534; begiratu, halaber, Salaberri Zaratiegi 2015a: 244-245). Hain zuzen ere, Arabako onomastikak ematen dituen “erraztasunak” baliatuz, hango toponimoen azterketa egin du berriki Salaberri Zaratiegik (2018: 319-321), eta hamahiru ondorio esanguratsu lortu ditu hasperenari loturik: (1) Arabako agirietan Reja-k ditu hasperen gehien; (2) Batzuetan badirudi <h>-k morfema-muga finkatzen duela; (3) Batzuetan <h> grafema *b*-tik ateratako **f*-ren aztarna izan daiteke; (4) Araba/Nafarroa mugan zenbaitetan *-b-* > *-f-* gertatu da; (5) Hasperena oinarrian edo osagaietan *h* duten toponimoetan ere agertzen da; (6) Inoiz <g> erabiltzen da <h>-ren partez; (7) Toki-izenen batean <k> dago lehenengo, eta <h> ondoren; (8) Hasperena ozen ondoren ere agertzen da, eta nagusiki albokariaren ondoren; (9) Kasuren batean, badirudi hitz baretik hitz hasierara lekualdatua dela, toponimoaren hasieran bokala dagoenean; (10) Reja-ko adibide batzuetan bi hasperen aurki daitezke toponimo berean; (11) Alabaina, Reja-ko toponimo bihasperendun horietako batzuetan hasperenetako bat galdua da; (12) Reja-ko zenbait <h> sudurkaritik eratorriak izan litezke, nahiz eta ez den segurua; (13) Hasperena Reja-n dago inon baino indartsuago Araban, baina zantzuak XV. mendera bitartean aurki daitezke (XV. mendea bera barne), nahiz eta mugak gehiago diren, eta indarra apalagoa.

⁹⁹ Bestalde, Arabarekin batera Errioxa eta are Burgos ere aipatu izan dira: “Se puede afirmar, además, con una verosimilitud que se acerca mucho a la certidumbre, que en territorio español extensas zonas de habla vasca, sobre todo de Álava y la Rioja, conocieron también la aspiración hasta el siglo XIII inclusive, por lo menos (...) Se diría, en resumen, que /h/, un día común a todas las variedades de la lengua, se ha conservado hasta bastante tarde en la parte occidental del país (Álava, Rioja, Vizcaya)” (FHV 169); “Que el vascuence alavés tuviera /h/ no constituye un hecho diferencial importante (...) Lo mismo ocurría, sin duda, en la Rioja y Burgos” (Mitxelena 1982a: 411).

Bizkaiari eta Gipuzkoari dagokienez, ziurgabetasunak askoz handiagoak dira: “no sabemos demasiado de la situación [de la aspiración] en Vizcaya y sabemos aún menos de la guipuzcoana” zioen Mitxelenak (1982a: 411). Antzera aritu da azken aldian Salaberri Zaratiegik: “Bizkaiko aspirazioa Erdi Aroan zertan zen ezin dut une honetan erran” (2018: 322) eta “Gipuzkoako Erdi Aroko egoera zehaztea ere ez da aise, datu anitz ikusi behar direlako eta eskribau bakoitzak darabilen sistema grafikoaren azterketa zehatza egin behar delako, ondorenetara igaro aitzinetik” (*idem*).

Salaberri Zaratiegiren ikerlanari jarraikiz, badirudi Bizkaiko lehenengo iturrietan Arabako Reja-ko egoera bera edo bertua islatzen dela, baina denborak aurrera egin ahala datuak nahasiak dira: hasperena ez da beti espero zitekeen kokaguneetan agertzen, eta espero ez zitekeenetan bada tarteka. Honako hauek dira Salaberri Zaratiegik berak bildutako adibideetako batzuk:

- (i) Reja-ren egoera gogorarazten dutenak: *Olabeeçahar*, *Olhabeeçahar*, *Cumelhegi* (Elorrio, 1039); *Muruheta* (1379), *Acoheta*, *Meçeheta* (1388) (baina *Arteeta*, 1399 eta *Arteta*, 1510).
- (ii) Hasperenaren zein bokalak bereizi nahi izanaren bidez azal litezkeenak: *Basauhury*, *Goycohesea*, *Harrçaha* (1456), *Berasarihaga*,¹⁰⁰ *Naharria* (1458).
- (iii) Hasperena espero zitekeen arren, halakorik ez dutenak: *Yurrao* (1388), *Axpee* (1388), *Aguirreveengoa* (1496), *Arriaran* (1376), *Olaaran*, *Pica-aran* (1388), *Aranguren* (1398), *Arnabar* (1398) eta abar.
- (iv) Hasperena espero ez zitekeen arren, hasperena dutenak: *Hegurrolaçarra*, *Herroytegui* (1388), *Herretolaça*, *Hurdaoxynaga*, *Hurquiaga* (1398), *Hechabarria*, *Helexalde* (1470).

Aurretik esan bezala, Gipuzkoako iturriek azterketa sakona behar dute oraindik, baina datuak erakuts lezakete hasperenak berandura arte iraun zuela Erdi Aroan. Berriz ere Salaberri Zaratiegik (2018) emandako datuetara eta kasuen sailkapenera joaz, hiru multzo nagusi bereizten dira:

- (i) Hasperena espero zitekeen lekuan dutenak: *Formaiçttegui* (1013), *Lohinaç* (1053), *Galharragua* (1140-1143), *Lehete* (1338, 1396, baina *Leete*, 1417), *Harriaga* (1305), *Hargarayn* (1349), *Harrieta* (1470, baina *Aldare Arria* ere bai), *Lohiola* (1380, baina *Loyola*, 1474) eta abar.

¹⁰⁰ Zenbait kasutan hatxea etimologikoa izan daiteke, *etse* **her* erroari lotuta (cf. Lakarra 2003: 329, 120. oin-oharra) eta *-tzaha*-ko eta *-haga*-ko *ha* artikularen forma zaharrak izanik (cf. Manterola 2015).

(ii) Bokalak bereizi nahiari lotutako hasperena: *Gomiç Sugaharra* (1074, baina *Lupe Sugar*, 1349); halere, beste batzuek ez dute hasperenik: cf. *Garcia Uicinaya de Oiquina* (1203), *Aurrgaste*, *Aurgaste* (1384 eta 1451).

(iii) Beste eskualde batzuetan bezala, *-eta* atzizkiaren,¹⁰¹ eta *eder* eta *ondo*-ren aurreko hasperena: *Iraheta* (1394), *Elgueheta* (1405, baina *Elgueta*, 1335), *Ocaheta*, *Oçaheeta* (1429), *Elcoheta* (1479), *Hetumeheta* (1510), baina *Heguiluzeeta* (1452)...; *Zelataheder* (1452), *Aztihederra*, *Olahondogoiena* (1479).

Aurreko baieztapen eta datuak dagokien arretarekin eta zuhurtziarekin osatu eta aztertu beharko dituzte etorkizuneko ikerlanek, baina badirudi hasperenaren ahultze- eta galera-prozesuarekin lotzekoak direla gutxienez XI. mendean geroztik hainbat toponimotan agertzen diren gorabeherak; halaber, aintzat hartu behar dira, ohi bezala, tradizio eta transmisio idatziak finka zitzakeen aldaera grafiko hutsak, eta eskribauek euren jakintzaren arabera emandakoak. Horrek guztiak ez dakar, jakina, hasperenak eremu batzuetan behintzat gehiago iraun ezin zezakeenik; Bizkaiko eta Gipuzkoako datu ziur bakanek erakusten dute XIII-XIV. mendeetara arte arrastoak aurki daitezkeela:¹⁰²

Hego Euskal Herriari dagokionez, luzaz erran dena baino gehiago iraun zuela dirudi. Mendebaldean, Euskara Arkaikoaren bezperan oraindik bizirik zatekeen (XVI. m.) eta G[oi]N[afarrera]z, haren erabileraren froga argiak ditugu XIV (Mirones 2009) eta XVI. mendeetan (Maiora 2011), eta azken arrastoak XVII.ean, Beriainen erakusleetan (*ohec*, *orihec*, *ayhec*) (Manterola 2015). (Mounole & Lakarra 2018: 417)

Hasperenaren galera dela eta, aurretik aipatu dut Mitxelenak (*FHV* 205-206) aragoiko erromantzearen eraginari egotzi ziola Nafarroan hasitako galera goiztiarra,¹⁰³ eta badirudi (bai kronologikoki bai geografikoki koherentea baita) hizkuntza-ukipenari lotutako ikuspegi bertsuak balio dezakeela Euskal Herriko erdi-mendebalean (Bizkaia,

¹⁰¹ Manterolari jarraituta, badirudi zerrendara gehitzekoak direla txistukari ondoren *-keta* atzizki-aldaera duten leku-izenak, hala nola Reja-ko *Andozketa* eta *EODA*-ren arabera Gipuzkoan XIV. mendean geroztik dokumentatutako *Amezqueta*. Zehazki, txandatzen diren aldaerak *-heta* eta *-keta* direla proposatu du, *azken*-eko *-ken* superlatiboko aldaera (vs. *-hen*) paralelotzat joaz (cf. Manterola 2015: §5.2.7.1 eta 289-290).

¹⁰² VJesus-eko, Sevilla1619-ko eta Kapanagaren dotrinako zenbait <h> ez hiatoen markatzaile eta ez kasualitatearen ondorio (cf. Ulibarri 2010a: 45), baina hasperenaren adierazpen izatea ez du bazterten Manterolak, nahiz eta aitortu hipotesiak arazo larriak dituela: “bitxia litzateke XVI. mendeko bizkaierazko testuetan hasperenik ez agertzea, eta XVII. mendeko *Viva Jesús*-en halakorik izatea (...) ustezko hasperena hirugarren silaban agertzeak (...) eta ***hardao* aldaerarik inon ez izateak ez du hipotesia sendotzen” (2015: 520-521, 535. oin-oharra).

¹⁰³ Izan ere, Nafarroako zein Aragoiko erromantzeetan ez zen hasperentzerik gertatu; cf. baterako nahiz besterako adibideak Enguita (2013 [2004]) lanean.

Araba eta Gipuzkoa) hasperena nola galdu zen azaltzeko; kasu honetan, ordea, arreta gaztelaniaren bilakabide fonologikoan jarri behar da.

Latinezko /f/-a ahostundu egin zen bokal artean gaztelaniaz, baina berba hasierakoa hasperendu egin zen (*filiiu* > *hijo* eta *facere* > *hacer*), hasperen hori gerora galdu egin bazen ere (Ariza 1989: 89).¹⁰⁴ Hasperen horren jatorriaz bi hipotesi aipatu izan dira: euskal substratu zaharrak Kantabriako latinean izandako eragina alde batetik (cf. Menéndez Pidal 1968 [1923-1926]: 198-233, Jungermann 1955: 381-382, Lapesa 2005 [1981]: §4.2), eta latinaren barne-bilakabideen bidezko (cf. Penny 2009 [1972], 1990, 1993: 89 eta hurrengoak): “Seguramente es ese uno de los fenómenos sobre los que más se ha trabajado, tanto para defender ardientemente su atribución al sustrato-adstrato vasco como para rechazar con no menor ardor tal asignación” (Echenique 2013 [2004]: 72-73). Igartuaren ustez, aldiz, bestelakoa izan daiteke azalpena:

En mi opinión, vincular las similitudes diacrónicas de la fonología de estas lenguas a la presencia de un área lingüística y no a la acción inductora de un sustrato es compatible con la constatación de las diferencias en la distribución de la aspiración que presentan castellano, gascón y euskera (por cierto, no solamente las lenguas romances con respecto al euskera, sino también el castellano con respecto al gascón): lo que tienen en común es el desarrollo de un fonema -además de otras características-, pero no comparten todos los detalles de su distribución. (2011: 914)

Ikuspuntu fonologikotik eginiko azken saiakerak azentu-gorabeherekin lotu du hasperenaren galera: “Si es cierto, como parece, que la aspiración presenta un vínculo estrecho (...) con la posición (y naturaleza) del acento (...) no está fuera de lugar pensar que una alteración en el acento pudo arrastrar consecuencias para la aspiración” (*idem*, 904).

Hemen, gaztelaniaren edo erromantzearen hasperenaren jatorri intra edo interlinguistikoa baino gehiago interesatzen zaizkit hasperen horren hedadura eta galera-prozesua, eskueran ditudan datuen arabera horrekin lotuta egon baitaiteke hasperenaren galera aipatutako euskal lurretan: “De manera inversa, la paulatina desaparición de la aspiración vasca en los territorios occidentales y parte de los orientales se ha achacado en ocasiones a la pérdida o bien ausencia (como en aragonés) de ese elemento en los

¹⁰⁴ Prozesu horiei lotuta, ezinbestekoa da grafia eta ahoskera ondo bereiztea: “en el estudio de la evolución de la F- latina hay que diferenciar entre pronunciación y grafía. Durante la Edad Media la grafía *f* puede representar bien /f/, bien <h>. Una grafía como *fablar*, puede ser leída –dependiendo del siglo y de la zona en que aparezca– como [fablar] o como [hablar]. En textos literarios puede aparecer esporádicamente la grafía *h* ya en el siglo XII, pero –insistimos– lo normal hasta finales del siglo XV es el mantenimiento de la grafía *f* (para una nueva interpretación de las grafías medievales, véase Blake, 1988)” (Ariza 1989: 102); begiratu, halaber, Sánchez Méndez (2013: §5.4.2).

sistemas romances aledaños (efecto del adstrato e incluso del superestrato)” (Igartua 2011: 896).

Arizak Menéndez-Pidalen (1964 [1923-1926]) laneko azterketa xeheari jarraikiz adierazi legez, hasiera batean Iberiar penintsularen iparraldeko muturrari loturik agertzen da hasperena: “la aspiración predominaba, en un principio, en Cantabria, Vizcaya, norte de Burgos y Rioja” (Ariza 1989: 102). Iparralde horretatik hegoalderantz hedatu bide zen hasperena gaztelaniaz, Errekonkistaren gurpilean: “A medida que Castilla se va extendiendo en los inicios de la Reconquista (siglos X-XIII), la [h] empieza a usarse en toda Castilla la Vieja, a invadir León y quizá pasa, incluso, al otro lado del Guadarrama” (Penny 1993: 91). Hedatze horrek ahoskeraren inguruko pertzepzioa aldarazi zuela dirudi, gainera:

Entre el siglo XIV y XV, el fenómeno perdió su carácter dialectal y vulgar, y en la lengua escrita la <f-> fue sustituida por la aspirada <h->. De esta forma, a fines del siglo XV, Nebrija ya adopta la aspirada [h-] como sonido general y corriente en la lengua “cultura”, mientras que en la escritura <f-> era considerada cada vez más un rasgo arcaizante, quedando relegada a unas cuantas palabras en la primera mitad del XVI” (Sánchez Méndez 2013: 581).

Hegoalderantz hedatzearekin batera, ordea, euskal datuak interpretatzean aintzat hartu beharreko beste prozesu bat gertatu zen Penintsularen iparraldean, hasperena galtzen hasi baitzen Erdi Aroaren azken mendeetan,¹⁰⁵ eta galera hori ere hegoalderantz hedatu baitzen:

Al mismo tiempo que se producía esta generalización, en Castilla la Vieja hacía ya tiempo que se había consumado la eliminación del sonido aspirado, que, como único foema aislado, no encajaba en el sistema fonológico, de manera que se pronunciaba *azer*, *arina*, *ermoso*, aunque se escribieran con <h>. Habrá que esperar hasta la segunda mitad del siglo XVI para que la desaparición vaya cundiendo por Castilla e invadiendo progresivamente la lengua escrita, hasta que, finalmente, se practique en ésta también la omisión de <h>. Ahora bien, la antigua espirada procedente de [f-] latina y de los arabismos se conservará en el este astur-leonés, puntos aislados de Castilla y en las hablas castellanas próximas al área leonesa, como Extremadura y Andalucía occidental (cfr. Lapesa, 1981: §92). (Sánchez Méndez 2013: 581-582)¹⁰⁶

En este sentido, es bien conocido el enfrentamiento que se produce en el siglo XVI entre la pronunciación de Burgos /ablár/ etc. Y la de Toledo /hablár/. Tras establecerse en Madrid la pronunciación norteña, sin /h/, en la década de 1560, este modelo se convierte en la norma y progresivamente es llevado a todas las áreas del habla castellana; la /h/ sobrevive sólo en las zonas rurales más remotas (occidente de Santander, este de Asturias, occidente de Salamanca, Extremadura, Andalucía occidental, zonas de América. (Penny 1993: 92)

Hain zuzen ere, *f*-aren eta *h*-aren banaketa bi mapa argigarriren bidez irudikatu zuten Menéndez Pidak (1964 [1923-1926]: 232); hona hemen XIII. mendeari

¹⁰⁵ Horri loturik, grafemak ez dira beti berdin interpretatu: cf. “Menéndez Pidal interpretaba los casos de grafía con *h* como ejemplos de pronunciación aspirada. Estas grafías mejor se interpretan como casos de pérdida de la consonante (véase Penny 1990), lo cual amplía en cierta medida la zona original de eliminación de /h/ (< f-).” Penny (2013 [2004]: 600, 4. oin-oharra).

¹⁰⁶ Begiratu, halaber, Menéndez Pidal 1968 [1923-1926]: §41, Penny 2013 [2004]: 600 eta Cano 2013 [2004]: 840)

dagokiona, non berdez adierazten baita *f* gordearen eremua, laranja hasperenarena eta zuriz hasperenaren galerarena:



18. irudia. Hasperenaren eremua (laranja) eta hasperenaren galera (zuriz) XIII. mendean

Beste honetan, berriz, XVI. mendearen hasierako egoera islatu zuen:



19. irudia. Hasperenaren galera (zuriz)

Aurreko prozesuen kronologia eta banaketa geografikoa gaztelaniari dagozkio, baina nabarmena da, aurretik aipatutako datuen argitan, Euskal Herriko erdi-

mendebalean (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan) hasperenaren galera-prozesuaz dauden datuekin ere bat datozela. Euskaraz hasperenaren galera ez zen bat-batekoa izan, ezpada lauzpabost mendetako prozesu luzea, non eremu berritzaileak eta gordetzaileak tarteka baitzitezkeen, Gaztela Zaharrean legez. Hain zuzen, galera-prozesu gorabeheratsu horrekin lot daitezke XI-XV. mendeen arteko agirietan agertzen diren adierazpen-arazoak (cf. Salaberri Zaratiegi 2018). Etorkizuneko azterlanek ekarriko dute zehaztasun handiagorik, baina hala kronologian nola geografian gertatzen den bat etortzearen argitan, egungo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan euskal hasperenaren galera-prozesua gaztelaniaz gertatzen ari zenarekin lot daiteke, eta horren eraginpean azaldu, Mitxelenak Nafarroako galera azaltzeko Aragoiko erromantzearekin egin legetxez.

4.1.3. *Barri & berri* eta *baltz & beltz*

Mitxelenak (FHV 48) azaldu zuenez, bokal artean zein kokapen inplosiboko dardarkari gogor baten aurrean ohikoa da bokalak irekitzea; zehatzago, gehienbat $e > a$ gertatu izan da ondoko silaban bokal itxi bat dagoenean eta boka irekia berba hasieran ez dagoenean (Mitxelena 1953: 71). Hortik sortu ziren, hain zuzen ere, zenbait hizkeratako *barri*, *garri*, *txarri*, *garnu* zein *bartzun* aldaerak, gainerako euskalkietan *e* zaharra gorde dutenak.

Beste alde batetik, badirudi hitz batzuetan pareko fenomeno eragin zuela *l* albokari inplosiboak, eta hortik sortua da Euskal Herriko mendebaleko *baltz* aldaera, kasu honetan ere erdialdeko aldaera zaharragoi kontrajartzen zaiena (FHV 50). Nolanahi ere den, ezin da ahaztu *bele* edo gehienez ere *bela* besterik ez dagoela Euskal Herriko mendebalean (azken hori baita gipuzkoar batzuen lanetan ere; cf. OEH s.v. *bele*), ez ***bale* edo ***bala*, eta konposizioan ere *-bel* besterik ez dela gorde (*arbel*, *gibel*, *orbel* eta abar).

Mendebaleko bi berrikuntza horiek ez dira bereziki bitxiak eta ez dute ondorio larririk hizkuntzaren egitura sakonetan, hain da arrunta dardarkari aurretik bokala irekitzea: urrunegi joan gabe, Iberiar penintsulako bost erromantzetan (gaztelania, aragoiera, leonera, judu-gaztelania eta katalana) deskribatu eta aztertu ditu Bradleyk (2011) /r/ aurreko /e/-ren irekitze-prozesuak zenbait testuinguru fonologikotan, eta European bertan pareko prozesuak deskribatu dira faroeraz (Árnason 1999), suedieraz (Riad 2014) zein Suitzako alemanieraz (Keel 1982), besteak beste: “Tampoco en lo fonológico, terreno que conozco sin remedio mejor que cualquier otro, poco hay en vizcaíno o, más en general en vasco occidental, que se salga de procesos banales, por el

estilo de *barri* por *berri* o *baltz* por *beltz*” zioen Mitxelenak (1981a: 531). Aitzitik, X-XI. mendez geroztik mendebalean eremu linguistiko bat bereizteko erabil daitezkeen ezaugarri eskasenetarikotzat jo zituen:

Hay un hecho que, desde los primeros testimonios medievales, se nos muestra con total claridad. Álava, en su conjunto, es sin duda una zona donde se dan como formas únicas (o, si se quiere, casi únicas) *barri* «nuevo» y *baltz* «negro». No es que esta isoglosa, en que *a* se opone a *e* de central y oriental *berri*, *beltz*, sea en sí misma de una importancia excepcional: lo que la hace excepcional es la transparencia que ofrece ya desde los siglos X-XI, circunstancia muy poco frecuente entre nosotros. (Mitxelena 1982a: 409)

Beraz, berrikuntzok interesa dute bai kronologiaren, bai geografiaren ikuspegitik, nahiz eta datuak zorrotz aztertu behar diren: X-XI. mendeko onomastikan *e* > *a* irekitzea gertatua zela ikus daiteke hainbat kasutan (cf. Donemiliagako agiritako *Balza* 984. urtean eta *Essavarri* 1025.ean), baina ez guztiz sistematikoki: *berri*-rekin lotuta egon zein ez egon,¹⁰⁷ bokala irekitzeko baldintzak bete arren ez dago halakorik Bizkaiko *Berriz* eta *Berriatua* izenetan: “Resulta curioso que los nombres de población vizcaínos, usados también como apellidos *Berriatua* y *Berriz*, tengan o no que ver con *barri*, *berri*, no hayan sufrido ese cambio” zioen Mitxelenak (1953: 71): cf., halaber, *Gerrikaitz*, ez ***Garrikaitz*, eta neurri batean *Gernika*: aldaera hori da zaharrena (cf. Reja-ko *Gernica*), baina *Garnika* ere tartekatzen da dokumentazio historikoan XIV. mendetik aurrera (1342, 1366, 1380, 1381, 1394, 1564, 1476, 1512, 1587; cf. Hidalgo de Cisneros *et al.* 1986: 39, 41, 44, 54, 55, 70-74, 155, 179-181 eta 329 besteak beste).¹⁰⁸

Barri-k hedadura zabala du, baina *e* > *a* aldaketaren menpeko aldaera lexiko guztien kronologia eta hedadura ez da bat eta bera,¹⁰⁹ eta hori aintzat hartzea ezinbestekoa da ezaugarriaren balio sailkatzailea haztatzeko (§5.1.3.3). Esate baterako, *bardin* aldaera arestian aipatutakoekin batera multzokatu izan da (cf. Zuazo 1988: 12), baina hedadura askoz zabalagoa du, nahiz eta *berdin* den forma zaharrena (*FHV* 49). Orobat, *garri* aldaera Bizkaian erabili izan da tradizioz, baina Bizkai sartaldearen sartaldeko ibarretan besterik ez da agertzen (*OEH*, s.v. *gerri*), *garnu* ‘gernu’ gaur-

¹⁰⁷ *Berriz*-en etimologiarako *Verrri(us)* +*-ici*: **Verric(i)* > *Berriz* proposatu da (Yarza 2015: 357).

¹⁰⁸ *Gernika* toponimoaren jatorria dela eta, *Cárnica* proposatu zuen Omaetxebarriak (1957: 132), eta Irigoienek (1986: 38-44) *Granius*-ekin (*Gránica*) lotu zuen; aitzitik, proposamen batak zein besteak arazoak dituzte: “Si de *Gernica* pasar a *Garnica* en euskera no sería tan difícil porque, como es bien sabido, la vibrante múltiple abre *e* en *a* (cf. *bazterra* > *baztarra*, *ederra* > *edarra*, *izterra* > *iztarra*...), el paso contrario de *Garnika* a *Gernika* creo que no está justificado. Por eso estimo que el antropónimo que está en la base de la *Gernika* alavesa y de la vizcaína es *Cernius* (Solin & Salomies, 1994: 53), es decir, tenemos que partir de **(t)erra, villa) cernica [kernika]* ‘la granja, la propiedad de Cernius’ de donde por sonorización de la velar sorda en inicio de palabra habrá salido *Gernika*” (Salaberri Zaratiegik 2011: 155).

¹⁰⁹ Begiratu Lakarra (2011: 161, 7. oin-oharra) laneko azalpenak *igarri* & *igerriz* eta besteak, eta Salaberri Zaratiegik (2015a: 245) emandakoak Nafarroako Oibar haraneko eta Uxue aldeko zenbait toponimoz.

gaurkoz behintzat Bizkaiko ipar-sortaldean besterik agertzen ez den legetxez (Zuazo & Goiti 2016: 96). Bada, bestalde, Gipuzkoan (ia) bakarrik erabiltzen den aldaerarik: *basarri* ‘baserri’ ez da Gipuzkoako hizkera guztietako aldaera, baina inon agertzekotan Gipuzkoako testu eta hizkeretan agertu da (OEH, s.v. *baserri* eta EHHA-ko 914. mapa).

Badirudi ezer izatekotan ez gune jakin batetik hedatutako bilakabidea, baina fenomeno poligenetikoa izan dela $e > a$: egia da Euskal Herriko mendebaleko (adibidez, Bizkaiko) hizkeretan metatzen direla aldaera horietariko asko edo gehienak (Zuazo 1989: 12-13), baina Bizkaia bakarrik aztergai hartuta ere ez dago eremu linguistikoki tinko bat irudikatzerik.

Aurreko kronologia- eta hedadura-gorabeherei loturik, berba amaierako *-er* hainbatetan bihutu da *-ar*, eta kasu honetan ere jatorri poligenetiko-unibertsalaren bidez azaltzen da errazen aldaeren sakabanaketa kronologikoa eta geografikoa. Izan ere, Mitxelenak bildutako datu-andanak oso bestelako kronologiak eta hedadurak islatzen ditu aldaeren artean:

En vez de *-er*, original como lo demuestran algunos préstamos y su mayor difusión y antigüedad, hay *-ar* en varios ejemplos no limitados al vizcaíno: *baztar* : com. *bazter* ‘orilla, rincón’, casi único en nombres de lugar; *bidar* ‘vez’ (vizc. común según Azkue, pero RS 342 *bider*) : com. *bider*; 5 *eskar* ‘gracia’ (sin localización en Azkue), vizc. *eskarga* ‘enorme’ : com. *esker*, guip. vizc. *eskerga* (‘difícil’ en RS 250); guip. vizc. *iztar* ‘muslo’ : com. *izter* (Leiz. *ixter*, en Dech. el compuesto *izterbegi* ‘enemigo’); a.-nav. b.-nav. guip. sal. *maister*, *maizter* (la última variante ya en documento navarro de 1167) ‘inquilino’ ‘mayoral’ : vizc. *maistar*, guip. Ataun, etc. *maiztar* < lat. *magister*; guip. vizc. *muskar* ‘lagarto’ : guip. lab. ronc. sal. vizc. *musker*, cf. sul. *süsker*, Pouv. *xuxquerrua* ‘lézard’, ronc. *Muskentra* ‘lagartija’; guip. vizc. *pipar* ‘pimiento’ ‘pimienta’ : com. *bipher*, *piper* (Land., Mic.), *phiper* < lat. *piper*; *pitxar*, *pitxarro* (ampliamente difundidos según Azkue) : *p(h)itxer*, *pitxel*, vid. Corominas, s.v. *pichel*. (FHV 49)

Ezin ukatuzkoa da *barri*-k X-XI. mendeetan zabala zuela, datuek hori erakusten baitute: lekukotasunak daude Bizkaian, Araban, Errioxa Garaian, Burgosko zenbait lurraldetan, Gipuzkoako mendebalean¹¹⁰ eta Nafarroa Garaiko mendebaleko zenbait eremutan. Hain zuzen ere, hasperenarekin egin legez, mapa baten bidez aurkeztu zuen Reguerok (2013: 432) eremuen banaketa, non kolore ilunagoz pintatu baitzuen toponimiako *barri* & *baltz* aldaeren hedadura:¹¹¹

¹¹⁰ “*Uribarriatucha*, *Olabarrieta*, *Echaurri* (Arrasate, 1411), baina *Olaberrieta* (Elgeta, 1511)” aipatzen ditu Reguerok (2013: 432).

¹¹¹ Nahiz eta atal honetan nahasmenduak saihesteko bereiz aipatuko dudana, mapa horrek (*h*)uri & (*h*)iri aldaeren banaketa ere irudikatzen du Regueroren (2013: 435) arabera.



20. irudia. *barri* eta *baltz* vs. *berri* & *beltz* Regueroren (2013: 432) arabera

Barri eta *baltz* aldaeren hegoaldeko hedadura dela eta, aspaldirik aipatu izan da ezaugarri horiek, *(h)uri* aldaeraren hedadurak bezala, Euskal Herriko mendebaleko euskararekin lotzen dituztela Errioxa Garaiko eta Burgos aldeko euskara (cf. Salaberri Zaratiegi 2015a: 244). Tradizioz, beste leku batzuetatik euskaldunen lekualdatzeen bidez azaldu izan da Arabatik hegoalderako euskararen presentzia, nahiz eta historialarien eta hizkuntzalarien iritziak ez diren beti bat etorri. García de Cortázarrek (1973) Nafarroako erreinuaren hedatze-beharrizaneekin lotu zituen migrazioak, baina ezaugarri linguistikoen hedadura aztertuta, migrazioak inondik gertatzekotan Ebro iparraldetik (Arabatik edo Euskal Herriko mendebaletik) gertatu behar zutela baieztatu zuen Mitxelenak:

La lengua meridional no coincide sólo con la alavesa, y con la de testimonios vizcaínos no demasiado copiosos, en la conservación de arcaísmos, que faltan en Navarra, pero no en la inscripción de Lerga, ya en la documentación medieval más antigua: la conservación de la aspiración y las consonantes (-ll-, -nn-) geminadas o fuertes, que en territorio navarro son excepcionales. También aquí, como en Álava y en Vizcaya, tenemos *huri* ‘villa’ o *baltz* ‘negro’, no *iri* o *beltz*. Esto es tan claro que no necesita ser subrayado (...) Pero estas gentes no eran en modo alguno navarras: se trataba de alaveses o, en todo caso, de vascos occidentales. (1976b: 373)

Bide beretik aritua zen Alarcos zenbait urte lehenago:

Vemos, en estos pocos datos, que el vasco de los repobladores de la Rioja, salvo en su parte oriental Igea de Cornago, territorio antiguo de los vascones, pertenecía al tipo occidental de Vizcaya y Álava y no al oriental de Guipúzcoa y Navarra. En efecto, estos compuestos con *barri* presentan siempre la vocal *a* frente a la *e* del *berri* típico de las zonas orientales. (1950b: 492).

Petersonek azken urteotan egindako ikerketek berretsi egin dute Alarcosek eta Mitxelenak Errioxako euskararen jatorriaz emandako ikuspegia, jatorria ez Nafarroan

baina Araban bilatu behar delakoa; halaber, baztertu egin dute euskara Errioxan erromatarren garaikoa edo are zaharragoa zela zioen ideia, argudio linguistikoak eta historikoak tartekatuz. Zehazki, bi migrazio-uholde nagusi bereizi izan ditu, lehenengoa VIII. mendearen bigarren erditik aurrera gertatua, eta bigarrena XI. mendeari dagokiona:

Paralelo a estas aportaciones histórico-lingüísticas, la ya mencionada distribución espacial castellana de la toponimia vasca al sur del Ebro apunta hacia una cronología ligeramente posterior al periodo arriba señalado [VI-VII. mendeak], pues una distribución que respeta la frontera del Pasillo y que mimetiza la distribución de otras manifestaciones lingüístico-culturales relacionadas con el nexo político altomedieval entre Álava y Castilla, será necesariamente posterior a la creación de esa frontera y ese nexo, y así apuntamos hacia la segunda mitad del siglo VIII para los orígenes de un proceso que se consolida a lo largo del siglo IX, está en vías de fosilización cuando se observa en el siglo X, y se reanuda con otra oleada inmigracional durante el siglo XI. (Peterson 2009: 364-365)

Ezaugarriaren ekialdeko muga dela eta, oraindik sakon arakatzeko dago Gipuzkoako toponimia, baina lehenengo testu arkaikoak agertu orduko lehia ikusten da Deba ibarraren inguruan eta Arabako zenbait testutan: Garibairen erretrauetan, adibidez, A58 *Eçe vere eçac gustiac, Maria gurearen verriac*, baina B9 *Maria gurea-ren barriac, ecervere eçeac gustiac*; A5 *Ogui erraverria, echa galçaigarria*, baina B2 *Ogui erra barria, esa galçay garria*.¹¹² Halaber, Antonio Araoz bergararrak edo oñatiarrak San Inazio Loiolakoari igorritako gutunean *gente verriac* esaten da,¹¹³ eta Sasiolaren B20:2 testuak *berria* du, Lazarg eskuizkribuko gainerako adibide guztien aurka (cf. Blanco & Krajewska inprimategian). Arean hegoalderago, Landucciren hiztegian ere bada *berri*-rik, batez ere B eskuari loturik: *pascua de nauidad* - (A) *pascoa jayaşçayan[a]*, (B) *eguberria* aipatu zuen Mitxelenak berak, eta B-ren hizkeraz ohar eman: “Prescindiendo de lo meramente gráfico, las formas dadas por B son en general o más orientales que las de A” (1958: 211). Horrekin bat egiten dute Gamiz-en “Beste tunucho berri bat” izenburuko aldaerak eta “Euscaraz gaiztoetan” sortako 13-2 *goazen verris aurrera*-k.

Aurreko guztiez landara, RS 121 *Ydi çarrari arran berri* eta 515 *Leloa berri dan artean ayta* ere badaude Mendebaleko euskara arkaikoan, baina batean nahiz bestean dauden ezaugarrien argitan ez da zertan pentsatu horiek ere Bizkai sartaldekoak direnik.¹¹⁴

¹¹² Ez da ahaztu behar, ordea, A eskuizkribuaren kopiagilea gipuzkoarra zela; cf. Lakarra (1986a: 47) laneko aldaera-zerrenda, Urkixorena (1919) osatzen duena.

¹¹³ Nolanahi ere den, ez da zertan baztertu igorleak hartzailearen hizkerara hurbildu edo egokitzeko erabili izana *berri* eta ez *barri*.

¹¹⁴ Azken ikerketen arabera, baliteke RS-ren originala Mares inprimatzaileak eraman izana Bilbotik Iruñera (Lakarra & Ulibarri 2019), eta horrek lehen baino errazago azal lezake bilduman Bizkaian arrunt ez diren zenbait ezaugarri linguistiko agertzea. 515 erretrauak, halere, ez luke zertan urrunekoa izan: badu *berri*, baina badu *aita* ere; azken hori ‘aipa(tu)’ izan daiteke, nahiz eta beharbada *aita izan* esapideari dagokion eta ez *aitatu*-ri (cf. EHHE, s.v. *aitatu*).

Nafarroa Garaia dela eta, Salaberri Zaratiegiren (1998: 54-55) arabera, *barri & berri* aurki daitezke Ameskoan, nahiz eta lehenengoa den arruntena eta ugariena, bai eta, zenbait kasutan, zaharrena ere. Tarteka oinarri bera agertzen da aldaera biek: *Lanbarri & Lanbarrieta* daude Eulaten 1687az geroztik, baina *Lanberrieta* herri berean 1655an; Zudairin *Bidebarria* da forma zaharrena, baina *Bidabérri* eta *Bidabárri* ere badaude, eta egun *Itxasibérri & Isasibérri* daude, nahiz eta 1550-1850 bitarteko agirietan *barri* besterik ez agertu. Lanan ere bizia da lehia: Gastiainen *Yturribarria* dago 1695ean eta 1698an, bai eta *Yturri barria* ere Narkuen 1689an; aldiz, leku berari buruz aritzean *Balsaberría & Balsabarría* aipatzen dira fazeria batean.¹¹⁵

Betiere Salaberri Zaratiegiren datu eta azalpenei jarraituta, Allin ibarrean *Etxabarri* dago, baina *barri & berri* txandaketa lehenengo testuetarik agertzen da. Azken horren parekoak direla eta, eta Lizarraldeko toponimiari loturik, Menéndez-Pidalel emandako zenbait daturi mesfidantzaz begiratu zien Mitxelenak:

En el mapa que ahí se incluye se atribuye posiblemente una extensión excesiva a *barri* en la merindad navarra de Estella. Ejemplos como *Echabarri* son muy poco concluyentes, porque la asimilación a la *a* precedente ha ocurrido también en nombres situados claramente dentro del área de *berri*. Un estudio minucioso de la toponimia mayor y menor indicaría probablemente que la extensión segura de *barri* en Navarra, como la de *uri* ‘villa’, se limita al valle de Lana. (*FHV* 48, 1. oin-oharra)

Beste alde batetik, *baltz* aldaerari loturik ez dut aurkitu *barri & berri* bikotearekin aurkitutako lehiarik Gipuzkoako sartaldeko eta Arabako testu arkaikoetan, oro har: Marineo Sículok *Negro - Belça* eta *RS-k 425 Erroyac miqueari vspelça* dute (kasu honetan ere Bizkaitik eskuin dagoen eremuren bateko aldaera izan liteke, zalantzarik gabe Bilbo aldekotzat jo daitekeen errefracaren batean *baltz* agertzen baita: cf. 45 *Guiçonoc oro buru balz, andra duztioç buru çuri*, Bizkai sartaldeko *duzti* aldaera eskusiboarekin). Horiez kanpo *bal(t)z* besterik ez dut aurkitu bai Bizkaian (cf. *RS 322 Obe da aurpegui gorri ce ez bioza balzqui*), Gipuzkoako mendebalean (Sarasketa *elorri balza*), zein Landucciren hiztegian (*alamo negro - errexal valça, aguila negra - aguila balça, ennegreçerse - balçitu, morena cosa - gauça balça* eta abar) eta Lazarg eskuizkribuan (*A27:25 & B22:6 balça, B1:2 & B1:5 balzeran*).¹¹⁶

¹¹⁵ Mendez mendeko lehia etengabea ondo islatzen da Ega ibarrean: egun *Mendilibarre* dena *Mendiliuerri, Mendiriberri, Mendirivarri* zen Erdi Aroan, baina *Mendiribarri* agertzen da 1571n eta *Mendilibarry & Mendilibarri* 1692an (Salaberri Zaratiegi 1998: 55).

¹¹⁶ Azken hori dela eta, cf. “agian Lazarg *doncella linda erana* eta, batez ere, <balaz eran>, editoreek *balzeran* zuzendua; baliteke *eran* lexikalizatua izatea, osaeraz *era* ‘modu’ + *-n*, eta ‘beltz itxuran, moduan’ litzateke hitz osoaren esanahi etimologikoa, gerora ‘beltz moduko, itxurako’ lexikalizatua. Asimilazioz genuke *-eran > -aran* (Lakarra *et al.* 2019: 102).

Nafarroako sartaldeko toponimian Salaberri Zaratiegiren (1998: 53-54, 2015a: 252) datu eta deskripzioek bi aldaeren arteko lehia zaharra islatzen dute bai Ameskoan, bai Lanan: Ekalan *Araiztubalza* eta eratorriak daude 1688az geroztik, baina 1689tik aurrera *Araiztubelza*, eta eratorriak ere badaude (gaur egun *Aristubélza* da); halaber, 1688an *Araiztubalza* zena *Araiztuvelza* zen 1790ean, eta *Aristubelza* 1855ean eta *Aristubélza* orain. Bestalde, Gastiainen *Loguibalza* dago 1685az geroztik (eta *maribalza* 1696an eta 1698an), baina Galbarran *Aranbelza* dago 1639an eta Lokizen *Aranbelz* 1824an (*Aranbél* da egun). Salaberri Zaratiegik Allin ibarrean bildutako datuek *beltz* besterik ez dute (*Olzabélza* egun Arteagan XIX. mendean ere *Olzabelza* zena), eta Lizarran *Arambelza* dago 1578az geroztik. Arean barnealderago ere aurkitu du alerik: *Urbalza* Deikaztelun 1620tik 1717ra bitartean, baina *Aranbelza* Arellanon 1616az geroztik.

4.1.4. Hitz hasierako *u-* : *i-* (*huri* & *hiri*)

Aurreko ezaugarriekin batera, (*h*)*uri* & (*h*)*iri* bikotea eta horietatik eratorritakoak aipatu ohi dira Erdi Aroko zatiketa eta banaketa linguistikoez aritzean; areago, aurreko *barri* & *berri* eta *baltz* & *berri* aldaerei baino garrantzi eta leku gehixeago eman izan zaio:

Es de mayor entidad la oposición occid. (*h*)*uri* / or. (*h*)*iri*, «*villa*», cuya razón de ser no está nada clara, a mi entender: en la zona que es después dialecto guipuzcoano, había sólo *iri*, a lo que parece, pero *huri-* cubría Álava, hasta su frontera oriental y aún más allá, ya que su área comprendía Arana, por ejemplo, y Val de Lana en Navarra. (Mitxelena 1981a: 536)

Adibidez, *i-* / *u-* edo *-er-* / *-ar-* dira bokalismoan diferentzia dialektal zaharrenetarikoa (cf. Mitxelena 1981a), baina Erdi Aroa arte ez dugu horrelakorik aurkitzen –egia da aurreko lekukotasun ia bakarrak Akitanian ditugula– eta gainera sistema zahar oso ezberdina berreraikitzeo aukerarik ez digute eskaintzen: *i-* / *u-* txandaketek ez dute bost bokal ezagunetako euskalkiek gorde ez duten ezeren lekukotasun erantsirik (...); *e > a* bilakatzea dardarkari baten aurrean hain da arrunta hainbat hizkuntzatan eta hizkuntzon garai ezberdinetan (baita euskal hizkeretan ere), non ezin balio lezakeen zatiketa dialektalari sakontasun diakroniko apartekorik aitortzeko. (Lakarra 2011: 161)

Egiazki, *barri* & *berri* bikoteaz aritzean askotan *e > a* duten beste hainbat aldaera aipatzen diren bezala aipatu ohi dira (*h*)*uri* & (*h*)*iri* aldaerei lotuta *u-* : *i-* duten beste aldaera batzuk, gutxienez Larramendiz geroztik: “La *i* del Guipuzcoano muchas veces se muda en *u*, como *irten*, *urten*, *salir*; *ilea*, *illea*, *ulea*, *lana*, *pelo*; *iria*, *uria*, *poblacion*; *uquitu*, *ucutu*, *tocar*; *lurrindu*, *lurrundu*, *perfumar*, y assi se mudan tambien otras letras” (1745: xxjx).

Horien guztien jatorria, aitzitik, ez da bera, eta aldaketen edo bilakabideen azken emaitzek ez dute interpretazio orokor okerrik eragin behar. Atal honetan (*h*)*uri* & (*h*)*iri-*

z ariko naiz, gehienbat horiek agertzen direlako Euskal Herriko mendebaleko¹¹⁷ Erdi Aroko eta ondoko toponimian; nolana ere den, ezagun da erdialdean eta ekialdean *i*-izan duten forma gehiagok ere *u*- dutela mendebaleko hizkeretan: *ule & ile, iltze & ultze, uger & igeri, urten & irten, uzan & (z)izain, uzen & izen, unsaur & untxaur & intxaur* aipatu zituen Mitxelenak, eta denek ez dutela azalpen bera azpimarratu zuen banakako azalpen-proposamenen bidez (FHV 59-62).

Lakarraren (2011: 189) arabera, forma horietako askoren oinarrian **eu < *e(C)u / *e(C)o* bilakaera dago, eta *eu* diptongoa Euskara Batu Zaharrekoa litzateke. Aitzitik, diptongo horrekin lotutako aldaera guztiek ezin dute kronologia eta hedadura berekoak izan, kasu batzuetan **eu > u* bilakaera orokorra delako: Lakarrak berak (*idem*, 190) aipatutako *unhain & ulhain*, edo *ugatz*-ri gehi dakieke *uda*, Mikoletaren 12v *verano - eudea, vdea*-ren argitan (< **eguda*; cf. EHHE, s.v. *uda*).

Horien ondotik sortuak izan behar dute *u* - *i*- txandatzea islatzen duten aldaera kontrajarriak, nahiz eta horien artean ere geruza bat baino gehiago bereizi behar den. Lehenik eta behin, Euskara Batu Zaharraren ondoren sortutako aldaera zaharrenak daude, eta zahartasuna besarkatzen duten eremu tinkotik inferitu behar da, hedadura zabal bateratutik. Zehazki, **eurten > urten : irten : erten* edo **eule > ule : ile : elle* bezalakoez ari naiz: ez dute *a + a > ea* disimilazioak bezainbesteko eremua hartzen, baina Euskal Herriko mendebaleko muturrean (Bizkaia, Arabako erdi-mendebala eta Gipuzkoako mendebaleko zenbait hizkera) agertzen dira. Bigarrenik, **eu* diptongotik eratorriak dira *ei : u*, eta kasu honetan banaketa ez da *u*- mendebal : *i*- erdi-ekialde, ezpada alderantzizkoa: cf. *itxi : utzi : eitzi & ützi*.

(*h*)uri & (*h*)iri bikotera itzulita, jatorria ez da aurreko aldaerena: Mitxelenak *Ili-*, *Ilun-* (*-ilon-*) lotu zituen *huri-* eta *-(h)uri-*rekin,¹¹⁸ baina azken urteotan bestelako

¹¹⁷ Nafarroa Garaian bada *Etxauri* ere, Iruñetik esker hamabost bat kilometrora; baina, Mitxelenak bestela azaldu zuen toponimoa, disimilazioz: “La situación de la población navarra de *Echauri* ofrece dificultades para ver en su terminación *uri* ‘villa’, pues se esperaría *-iri* (...) La frontera entre (*h*)uri e (*h*)iri es muy imprecisa, porque el término cayó muy pronto en desuso en Guipúzcoa y zonas navarras vecinas (...) Es, pues, improbable que (*h*)uri sea el segundo elemento de Echauri, ya *Etxauri* en el s. XI: acaso se trate de *etxa + zuri*, con disimilación anómala explicable porque la primera estaba protegida por la larga serie de nombres en *etsa-*, *etxa-*” (1953: 148).

¹¹⁸ Cf. “Aunque *Ili-*, *Ilun-* (*-ilon-*) se documenta cerca de un milenio antes que *huri-*, *-(h)uri-*, yo me he inclinado a dar prioridad, *faute de mieux*, a estas últimas formas en la idea de que el cambio de vocal posterior a anterior era más simple, y estaba mejor apoyado por paralelos, que el contrario” (1981a: 536); orain, begiratu De Hoz (2005) eta Lakarra (2010: 222, 105. oin-oharra), eta aintzat hartu Euskal Herrian ez dagoela, dakidala behintzat, (*H*)iliberrri bezalako aldaerarik.

proposamena egin du Lakarrak,¹¹⁹ *hiri* < **her-i*-tik eratorriz eta *huri* < *hiri* disimilazioaren bidez azalduz:

hiri ‘ciudad’: **her-i* ‘*cerrado’ (y, por disimilación, *hiri* > *huri*); cf. *etse* ‘casa’, *hesi* ‘cercado’, *herzte/heste* ‘intestino’ e *hirur* ‘tres’, *heren* ‘tercio’ para la raíz. El (*h*)*iri* ‘cerca, enseguida’ (históricamente primero espacial y luego temporal) conservado en hablas orientales, antes era general, como lo demuestran la toponimia y los compuestos antiguos. (Lakarra 2012: 696; cf., halaber, Lakarra 2010: §IX, 2018: 68, Lakarra *et al.* 2019: xxxvi-xxxvii)¹²⁰

(*h*)*uri*-dun toponimoen osaera dela eta, *Berantevilla*, *Elheni villa* eta *Lacervilla*-ren parekotzat aurkezten ditu Salaberri Zaratiegik, “bi multzoen artean antzekotasun nabarmena dagoelako, baita ordena eta hurrenkeran ere” (2015a: 244).

(*h*)*uri* aldaeraren erabilera-eremua dela eta, gutxi gorabehera bat dator *barri* eta *baltz* aldaerek hartzen dutenarekin. Euskal Herriko mendebalean eremu zabal bat dago, Bizkaia, Araba, Errioxa eta Burgos aldea, eta Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko mendebaleko zenbait ibar barne hartzen dituen, non (*h*)*uri* agertzen baita: *Sarricohuri*, *Huriarte* (Donemiliaga, 1025) eta *Ouecuri* (Burgos, 1332) aipatu zituen Reguerok (2013: 432-433) mendebalerako (*Ulibarrilior* ere badakar Donemiliagako kartularioak 952. urterako), eta interesgarriak dira alderdi kronologikotik Aldaik nabarmendutako datuak: are zaharragoak dira Burgosko *Margaluli* (867) zein *Nafarruri* (971). Errioxa

¹¹⁹ Ez dirudi, halere, ikertzaile guztiek azken urteotako proposamen berri izan dutenik: Aznar historialariak aurkako bilakabidea proposatzen du, Errioxako *Graccurri* toponimoan *-uri* osagaia dagoelakoan eta (*h*)*uri* ~ (*h*)*iri* aldaeren artean lehenengoa zaharragozat joaz: “Curiosamente, los mismos autores que han venido defendiendo la llegada del euskera a la Rioja desde Álava en base a estas características de la toponimia, no parecen haber tenido demasiado en consideración el hecho de que unos de los topónimos más antiguos del mundo riojano, *Graccur(r)i*, antecedente del actual *Alfaro*, porta tal vez el mismo elemento de aspecto dialectal «occidental», siglos antes de los supuestos movimientos de gentes alavesas. Tampoco deja de resultar llamativa la resistencia de algunos autores del mundo académico vasco a admitir la relación de *Graccur(r)i* con (*h*)*uri*, y más frente a las evidencias contundentes que nos indican que el topónimo alfañero fue un nombre creado expresamente para rendir homenaje a *Tiberio Sempronio Gracco*. Esta negativa se fundamenta sobre todo en base a que, según algunos patrones de reconstrucción del euskera, (*h*)*uri* sería supuestamente una forma moderna, y que en aquella época la forma vasca para ‘ciudad, villa’ debía de ser **ili*, tratándose de un préstamo del ibérico (...) resulta insólito que este supuesto **ili* pudiera evolucionar al *huri* vizcaíno on añadido de una *h*- inicial que el ibérico no tenía, a lo que se añade una improbable apertura vocálica *i* > *u*-, cuando lo lógico sería pensar que por el contrario *hiri* procede de *huri* en un cierre de vocal influido por un proceso de asimilación *-u*-*-i* > *-i*-*-i*-. Por tanto, no podemos dar en ningún caso por buenas las argumentaciones que asocian **ili* con (*h*)*iri*, y consideraremos a *huri* como antiguo y procedente un sustrato autóctono riojano” (Aznar 2017: 40). Azken puntu horretan batago egiten du, beraz, Caro Barojaren (1946: 217 eta hurrengoak) zein Merino-Urrutiaren (1962: 14) ikuspegiekin. Ez da ahaztekoa, hain zuzen ere, Aznarren ikuspegia urruti dagoela egun euskal hizkuntzalari diakronistek (eta are Peterson lako historialariek) darabilten paradigmatic: datu gutxi eta hainbatetan zalantza izan da erabilita ondorio larriak aurkezten ditu, hainbat sasoiak materialak eta ezaugarriak garaikide balira bezala darabiltza eta, gai orokorragoei dagokienez, besteak beste bariazio dialektal modernoan erromatarren aurreko leinuekin lotzen eta Euskara Batu Zaharraren existentzia (eta beraz berreraiki beharra) ukatzen du.

¹²⁰ Begiratu, halaber, Lakarrak (2019) *relational noun* deitutakoaren eta **her* berreraikitakoaren inguruan egindako proposamena.

Garaiko ipar-sartaldean, berriz, XI. mendeaz geroztikoa da dokumentazioa (Peterson 2011: 121, *apud* Aldai 2014: 224).

(*h*)uri aldaeraren sortaldeko muga ez da beti argia: “la frontera entre (*h*)uri e (*h*)iri es muy imprecisa porque el término cayó muy pronto en desuso en Gipuzkoa y zonas navarras vecinas. Hay *u* en Álava, Vizcaya (con inclusión de la zona de habla vizcaína en Guip.) y el valle navarro de Lana” azaldu zuen Mitxelenak (1953: 148). Bestalde, Aldairen (2014: 224-225) arabera, mendebaleko datuetan ez dago aldakortasunik (*h*)uri aldaeraren lehenengo bokalean (bai, ordea, hasierako eta bokal arteko kontsonanteetan: *h*- > \emptyset eta *r* - *R* > *r* - *l*, azken hori disimilazioz ondoren beste dardarkari bat dagoenean; cf. *FHV* §16.5),¹²¹ baina Aldaik berak (*idem*) Petersoni jarraituta aipatutako *Ulascori* (962) < *Blasco* + *uri* konposatuak *o* > *u* dakar: “En el mismo texto aparece también *Ulascori*, y la apertura vocálica es frecuente en esta toponimia” (Peterson 2009: 326).

(*H*)uri aldaera dela eta, bada ezin utzizko xehetasun bat: “-iri da (ez -uri) konposizioan bizkaieraz ere. Ohargarria da dialekto horretan ere *ageri*, *agiri* (eta *Agirre*) ditugula, ez ***aguri*, hots, arkaismo formal eta semantikoen gordeleku izan ohi diren konposatuetan ere” (Lakarra *et al.*, 2019: xxxvi, 47. oin-oharra); cf., halaber, Euskara Arkaikoko *RS 464 Erroyac miqueari vspelça*.

Nafarroa Garaiko mendebalari dagokionez, Salaberri Zaratiegik (1998: 76-77) emandako datu-andanaren argitan Lana ibarrean *Uribarri* & *Ulibarri* & *Iribarri* agertzen dira, bai eta *Yribartia* (1688, 1699) & *Ulibartia* (< 1686) ere; halaber, *Irigaina* (edo *Iragaina*) eta *Yribea* (1686, 1689) daude, besteak beste: “Hortaz, eta gure irudiz, ezin baieztatu daiteke ziurtasun osoz Lanan (*h*)uri edo (*h*)uli gnuela, *Ulibarri* herri izena bera ere *Iribarri* edo *Iribarri* itxurapean gehiagotan azaltzen baita, eta toponimia txikia gehienbat (*h*)iri-ren alde mintzo baita” (Salaberri Zaratiegi, *idem*). Ameskoan, bestalde, (*h*)iri besterik ez zuen aurkitu Salaberri Zaratiegik: “Eskualde honetan (*h*)iri-rekin lehian ari den izena ez da berez (*h*)uri, (*h*)uli, Nafarroan behinik behin gehienbat mendebalekotzat har daitekeen (*h*)erri baizik” (Salaberri Zaratiegi, *idem*).

4.1.5. Laburpena

4.1.5.1. Atal honetara ekarritako ezaugarri eta aldaera guztiek ez dute garrantzi bera ez hizkuntza-egiturei begira, ez tipologiari begira. Bakoitzari buruzko azalpenak emateko erabil daitekeen informazio ziurra eta fidagarria, gainera, ez dago maila berean.

¹²¹ Hortik, beraz, *Ulibarri* bezalako aldaerak egon arren ***Uligoien*-ik ez egotea.

Nolanahi ere den, Mitxelenak (1981a) adierazi eta Lakarrak (2011) berretsi bezala, fonologiaren esparruan ezaugarri gutxi erabil daitezke hauez landara Euskal Herrian x. mendearen inguruan eremu linguistiko zabalak bereizteko.

4.1.5.2. Hasperena dela eta, oraindik ere asko ikertu behar da Bizkaiko eta Gipuzkoako onomastikaz, toponimoak eta antroponimoak idatziz eman zituzten eskribaez eta haien idazkera-ohiturez (Salaberri Zaratiegi 2018: 322); nolanahi ere den, 1025. urteko Reja-k ondo islatzen du hasperenak indarra zuela Araban garai hartan. Ematen du Euskal Herriko mendebalean (gutxienez) XIV-XV. mendeetara arte iraun zuela hasperenak zenbait lekutan, baina galera askoz lehenago hasi bide zen, XI-XII. mendeetako lekukotasunez geroztik ugari baitira gorabeherak: gogoratzekoak dira, besteak beste, hasperenaren adierazpen grafikorik eza hasperena espero zitekeen forma batzuetan eta <h> agertzea espero ez den beste kokagune batzuetan. Galera eragin zezaketen faktoreen artean gaztelania edo erromantzearekiko ukipena aipatu dut: XI-XII. mendez geroztiko galera-prozesuaren kronologia bat dator gaztelaniaz edo erromantzez ere gertatutako galerarekin, eta Mitxelenak Nafarroako hasperenaren galerarako Aragoiko erromantzearekiko ukipena aipatu zuen ber proposa daiteke gaztelaniaren dinamiken eraginez gertatu zela galera Hego Euskal Herriko erdi-mendebalean.

Nafarroari dagokionez, Manterolaren (2015) proposamena onartuta berrikusi egin behar da, zati batean behintzat, hasperenak izandako iraupenaren kronologia eta hedadura. Azken urteotan Zuazok (2014: 209, 2019: 50-51) ez hasperenaz baina beste ezaugarri batzuez aritzean proposatutakoaren eta Reguerok (2017: §4.1.1) onartutakoaren arabera, Iruñea bera izango litzateke Erdi Aroan foku berritzaile nagusietarik bat. Orain, hasperenaren galeraren bilakabidea berreraikitzean aintzat hartu behar dira erakusleei lotutako XVII. mendeko adibideak, baina horien eta hasperen fonologikoaren arteko bereizketa egin behar da: galeraren kronologiak bestelakoa izan behar du kasu batean eta bestean, eta hala izanda azal daitezke, adibidez, Nafarroako erakusleen hasierako *g-* eta *k-* herskariak; cf. Lakarra (2011: 209-210), Camino (2013: 116), Manterola (2015: §5.5.1 eta §7.3.1.2) eta Hualde (2017a: §5).

4.1.5.3. Hainbatetan elkarrekin aurkeztu badira ere, egiazki bereizketak egin behar dira *u-* : *i-* oposaketa duten aldaera-bikoteen artean, guztien jatorria ez baita berbera eta guztiak ez baitira geruza berekoak.

Alde batetik, (*h*)*uri* & (*h*)*iri* bereizi egin behar dira *u-* : *i-* oposaketa duten beste aldaera batzuetatik, **her-i* > *hiri* > *huri* baita, ustez, mendebaleko aldaera eragin duen bilakabidea, ez oposaketaren erakusgarri eman ohi diren adibideen jatorrian dagoen **eu*

diptongo komuna; diptongo horri loturik, halaber, gutxienez hiru geruza kronologiko bereizi behar dira: (i) Euskara Batu Zaharrekoa, *u-* eman arren *i-* eman ez duena (cf. *urgatzi*); (ii) Mendebalekoa, aurrekoa baino berriagoa eta *u-* : *i-* oposaketa eremu bateratuen bidez irudikatzea ahalbidetzen duena (cf. *urten* : *irten* : *irten*); (iii) eremu txikiko edo ñabarreko aldaerena, aurreko biak baino nabarmen berriagoa eta **eu* > *ei/u* eman dezakeena, bide batez ez beti mendebalean *u-* utziz (cf. *itxi* : *utzi* : *eitzi* & *ützi* < **eutzi*).

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da dardarkari aurrean *e* > *a* irekitzea fenomeno arrunt askoa dela bai euskaraz, bai bestelako hizkuntzetan, eta jatorri poligenetiko-unibertsala bide duela. Aldaketa horri loturik *barri* bereizi beharko litzateke, ezein aldaera bereiztekotan, fenomeno beraren menpe lexikalizatutako berben artean; izan ere, horrek bakarrik ematen du aukera mendebalean eremu bateratu bat irudikatzeko.

(*h*)uri, *barri* eta *baltz* aldaeren hedadura ez da bera, baina bai bertsua: aldaera horien bidez eremu zabal bat bereiz daiteke Euskal Herriko mendebalean, eta barne hartzen ditu Bizkai osoa eta Gipuzkoako sartaldeko zenbait hizkera, Araba, Errioxa Garaiko eta Burgosko onomastika euskalduna, eta Nafarroa Garaiko sartaldeko zenbait ibar. Hain zuzen ere, Arabatiko (edo, gutxienez, Ebro ibaiaz iparraldetiko) euskaldunen migrazioekin lotu izan dira Errioxa Garaiko eta Burgosko euskararen ezaugarriak (Alarcos 1950: 492, Mitxelena 1976b: 373, Peterson 2009), eta hedadura-gorabeherak Gipuzkoako mendebalean eta Nafarroa Garaiko Ameskoetan, Lanan eta Allin aldean agertzen dira: inguru horietan lehian agertzen dira, toponimoa eta garaia zein den, bateko eta besteko formak. Azpimarratzekoa da, dena den, Euskal Herriko mendebaleko eremu zabal hori (*h*)uri, *barri* eta *baltz* aldaerek irudikatzen dutela, ez hasieran *u-* : *i-* duten zein dardarkari aurrean *e* > *a* duten forma guztiek; bi adibide ematearren, *uzen* & *izen* edo *garnu* & *gernu* bikoteak hedatzen diren eremuak bestelakoak dira: dakidala, *uzen* Bizkai sartaldeko ibarretan besterik ez da agertzen (baita egungo hizkeretan ere), eta *garnu* Bizkaiko ipar-sartaldeko aldaera da; eremu txikiagoko aldaerez, begiratu Zuazo (1989).

Aurreko forma guztiek ezaugarri kronologiko bat partekatzen dute: Euskal Herriko mendebalean lehenengo testu luzeak agertu orduko (hots, Euskara Arkaikora orduko), ondo finkaturik agertzen dira eremu zabal batean: XVI. mendearen ateetan galdua zen hasperena Mendebalean, eta XVI. mendea baino lehen hedatuak ziren *barri* eta *baltz* aldaerak, besteak beste, gerora ere ezagutu diren lekuetara; aintzat hartzekoa

da, dena den, Erdi Aroaz geroztik lurralde zabal askoa galdu duela euskarak hegoaldeetik iparralderantz.

4.2. Txistukarien palatalizazioaz: $Vjz > V(j)x$ eta $Vjtz > V(j)tx$

4.2.1. Sarrera

4.2.1.1. Palatalizazioa fenomeno hedatua eta ezaguna da euskaraz: *i* bokalaren zein *j* bokalerdiaren ahoskunea ondoko kontsonantera zabaltzea hainbat hizkeratan gertatu da, eta sarri aipatu izan da tokian tokiko euskaren deskripzioetan eta palatalizazioaz beren-beregi eginiko ikerlanetan; azken horien artean Oñederrarenak (1990) eredu izaten jarraitzen du, eta oro har horri jarraituko diot hemen.

Palatalizazio izendapenak arestian aipatutako prozesua deskribatzen du, baina palatalizazio-prozesuen azterketak hainbat tolestura eta ñabardura biltzen ditu barnean. Lehenik eta behin, bereiztekoak dira katea foniko zehatzetan gertatutako asimilazio-palatalizazioa eta semantikarekin lotutako palatalizazio adierazgarria; atal honetan lehenengoaz arituko naiz, beste euskalki batzuetan ez bezala Mendebaleko lehenengo testuak agertu orduko palatalizazio adierazgarria desagertua zela eta (Azkue 1935: 109, Lakarra 1996: 258, 29. oin-oharra).

Ingurune fonikoak baldintzatutako palatalizazio automatikoaren barnean bereiztekoak dira asimilazioaren eragileak eta asimilazio-gaiak, bai eta asimilazioaren norabidea eta asimilazioa gertatzea eragotz dezaketen baldintzak ere. Halaber, gogoan hartzekoak dira asimilazioen azterketan ikertzailea okerbidera eraman dezaketen bestelako prozesuak, hala nola despalatalizazioak, neutralizazioak, maileguren egokitzapen-moldeak eta ingurune fonikoaz gaindi eragina izan dezaketen bestelako alderdi batzuk. Iraganeko iturriak ikertzean, gainera, beste hots batzuen adierazpena aztertzean gertatu ohi den bezala, palatalizazioaren adierazpen grafikoa arazo-iturri izan daiteke euskal hotsak adierazteko erabiltzen den sistema grafikoa defektiboa denean.

4.2.1.2. Atal honetan ez naiz Bizkaiko edo mendebaleko palatalizazio-prozesu guztiez arituko: diptongoetako bokalerdiak eragindako txistukarien palatalizazioa izango dut aztergai; izan ere, prozesua ez da Euskal Herriko mendebaleko eskusiboa, baina badirudi eremu horretan inon baino berba gehiagotara hedatu dela, eta dialektologia-saioetan behin eta berriz aipatu izan da.

Kontsonante palatalizatuez ari zela, hau azaldu zuen Mitxelenak: “Es particularidad común al dialecto meridional y al vizcaíno (ya desde los primeros textos) la palatalización de *s* y *z* tras antiguo diptongo en *i*” (*FHV* 158); hots, / Vj / irristariaren ondoren $Vjz > V(j)x$ gertatu da frikarietan, eta $Vjtz > V(j)tx$ afrikatueta, txistukarien palatalizazioa ozenena bezain erraz gertatzen ez den arren (Egurtzegi 2013: 157).

Bizkaiko hainbat hizkeratan bokalerdiak ez ezik bokalak ere palatalizazio-prozesu bera eragin du, *gizon* → *gixon* bihurtuz, adibidez.¹²² Nolanahi ere den, bereiztekoak dira bokalerdiak eta bokal silabikoak eragindako palatalizazioak:

Ez da, ordea, berdina **i** eta **j**-ren indar eragilea. Hizkera batzuetan bokalerdiaren ondorioz bakarrik gerta daiteke asimilazioa (ik. VI.5 Baztango euskara, adib.). Oparoagoa da, nolabait esan, bokalerdiak eragindako bustidura (...) Hemen **j** bokalerdia **i** baino palatalagoa dela, edo **i** goikoa **e** baino palatalagoa dela esatean, beren indar eragilea haundiagoa dela esan nahi da. Bestela esan, **j**-ren ondoren **i**-ren ondoren baino maizago jazotzen dela asimilazioa eta **e**-ren ondoren, inoiz ez. (Oñederra 1990: 44-45)

Baztango euskara aipatu zuen Oñederrak bere azalpenen osagarri eta argigarri, eta Euskal Herriko mendebaleko testu zaharretan eta hizkera modernoetan gertatzen den banaketa bide beretik azaldu behar da: Bizkai osoan gertatu da palatalizazioa bokalerdiaren ondoren *hareitz*, *eleiza*, *haitz* eta *bakoitz* berbetan, baina hizkera batzuetan ez dago bokalaren ondoko palatalizaziorik: *mutile*, *aite*, *mine* ‘mina’ eta *gisona* dira arrunt Bizkai sartaldeko zenbait hizkeratan.

Bokalerdiak eragindako palatalizazioen sailean, nolahi ere den, afrikatueta frikarietan baino muga handiagoak deskribatu izan dira: “Bokalerdiak busti dezake, baina hitz azkenean (...): *bacóchac*, *bacóchai*. Hitz honen aldaera batean (*bacóch*) afrikatua hitz azkenean dago eta hortik zabaldu bide da bustidura bokalurreko formetara” zioen Oñederrak (1990: 49) Mitxelenaren (*FHV* 158) azalpenei jarraikiz.

4.2.1.3. Mendebaleko euskararen ezaugarrien artean hainbatetan aipatu izan da bokalerdiak eragindako txistukarien palatalizazio automatikoa: gerora ere ikusiko denez (§5.1.2.4), lehenengo testu arkaikoak agertu orduko fenomeno hedatuta zegoen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hizkera batzuetan. Aitzitik, ezaugarriaz egin diren deskripzioak irakurrita berehala ematen du arreta aldaketaren erakusgarri ematen diren berbak etengabe errepikatzeak.

Lau egileren lanak besterik ez aipatzearren, Larramendik (1745: xxjx) *acha*, *gacha* eta *ecacha* eman zituen. Mitxelenak (*FHV* §4.9c eta §10.9) *axe*, *elixa*, *kerexa*,

¹²² Bizkaian gero eta hedatuago dago, eta Zuazok (2014: 168 eta 2017: §2.3) euskalkiaren ezaugarri bereizgarri orokortzat jo du azken aldian. Bestalde, afrikatueta ere gertatu da: esate baterako, Bizkaiko hizkera batzuetan *itzeso* erabiltzen da gaur-gaurkoz, baina beste batzuetan *itxaso* & *itxeso* & *itxoso* aldaerak arrunt askoak dira (begiratu Zuloaga inprimategian-2).

nax eta *nox* aipatu zituen frikarietan, eta *aretx*, *atxur*, *bakotx*, *deretxo* eta *gatx* afrikatueta. Aldaik (2014: §2.4.3) *nax*, *go(i)x*,¹²³ *a(i)xe* eta *baxe* eman zituen frikarietan, eta zuzenean aipatu ez arren, Arabako toponimia zaharrea palatalizazioaren faltaz aritzean *haritz* eta *haitz* zerabiltzan buruan. Zuazok (2017: §2.2, 2019: 57) zerrenda luzeagoa eman du berriki: *axkora* (antzinako aldaera gisa), *elexa* & *elixa*, *go(i)x*, *a(i)xe*, *le(i)xar*, *nox* (antzinako aldaera gisa), eta *nax* eta *ax* (antzinako aldaera gisa) frikarietan; *atxiñe*, *ekatx*, *eretxi* & *eritxi*, *gatx*, *atx*, *aretx* & *aitx*, *urretx* & *urritx* afrikatueta. Horiez landara, *atxur*, *bakotx*, *kereixa* & *kerixa* & *keixa* ere aipatzen ditu, eta Mendebaletik harago ere erabiltzen direla zehazten du.

Adibidetegiotako item lexikoen arteko bat etortzea ez da ausazkoa: bokalerdiaren ondoko asimilazioaren adibideak berba jakin batzuetan lexikalizatu baitira. Bestalde, aldaera palatalizatu guztiak elkarrekin aurkeztu ohi dira, Euskal Herriko mendebaleko hainbat hizkeratan horrela agertzen direlako; baina, gogoan hartu behar dira zenbait ñabardura:

- (i) Alde batetik, arestiko berbetako batzuetan despalatalizazioa gertatu da palatalizazioaren ondoren: hala azaldu izan dira beste atal batean (§4.2.2.2.5) aipatutako *izan*-en adizkien aldaerak (*nax* & *nas* & *naz*, (*h*)*ax* & (*h*)*as* & (*h*)*az*) eta *nox* zaharrenekin batera Euskara Zaharraz geroztik agertzen diren *nos* & *noz* (eta *iños* & *iños*).
- (ii) Beste alde batetik, aldaera guztien hedadura ez da bat eta bera: egia da (*h*)*axe* eta *gatx*, adibidez, mendebaleko euskararen formak direla; aitzitik, Gipuzkoako testuetan *aitzur* & *atxur* agertzen dira (OEH, s.v. *aitzur*), eta EHHA-k (VII: 1652. mapa) ere Gipuzkoako ipar-ekialdean ez gainerako eskualdeetan ematen du gaur egun, bai eta Nafarroako eremu mugakideetan ere. Halaber, *ge(r)ixa* & *ke(r)(e)ixa* arrunt erabili izan dira Gipuzkoako testuetan (OEH, s.v. *gerezi*), eta hedadura hori islatzen du gaur egun EHHA-k (III: 527. mapa). Eremu askoz zabalagoa hartu izan dute historikoki *a(i)xkora* eta *bakotx* aldaerek: lehenengoa dela eta, bizkaitar idazleek ez dute palatalizazioa adierazten izan (cf. OEH, s.v. *aizkora*), baina EHHA-k Bizkai sortaldean eta Gipuzkoa sartaldean ez ezik, Gipuzkoako erdi-ekialdeko kostaldean eta Zuberoan ere ematen ditu

¹²³ Parentesi artean ematen dut bokalerdia, idazlea eta testua zein den, batzuetan erabili egiten delako eta bestetuetan ez: “Begibistakoa da, bestalde kontsonante palatal baten aurreko irristari palatala zaila dela entzuten (...) normala da palatalizazioarekin asimilazioaren iturburu den irristaria desagertzea” (Oñederra 1990: 46).

axkora & *axkoa*. Orobat, hedadura zabalekoa da *bakotx*: Iztueta gipuzkoarrak bazerabilen eta Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko eta Behereko testuetan ere agertzen da, bai eta Zuberoako zenbaitetan ere; are gehiago, XVIII. mendeaz geroztik *-otx* nagusitu zen zenbait hizkeratan (OEH, s.v. *bakoitz*).

Aurretik ere aipatu dut palatalizazioa gerora ere ezagutu den eremuetan agertzen dela lehenengo testuez geroztik: Erdi Aroan sortutako berrikuntza da, nahiz eta ez den erraza lehenengo lekukotasuna zein den ebaztea. Baliteke Reja-ko (1025) *Hassarte* (gaur egun *Axarte*) izatea aldaera palatalizatu zaharrrena, Martínez de Madinak (2012: 509) proposaturiko *haitz* + *arte*-ekin bat etorritz; aitzitik, Salaberri Zaratiegik (2015b: 114) proposamenaren arazo fonetikoak aipatu ditu, *hatx* palatalizazioduna egotekotan *Atxarte* espero baitzitekeen. Hurrengo mendeetan txandakatu egiten dira <ch>, <x> eta <j> duten aldaerak: *Fachart* 1257an, *Axarte* 1426an, *Acharte* 1678an eta *Ajarte* XVIII-XIX. mendeetan (Salaberri Zaratiegi 2015b: 113).¹²⁴ Nolanahi ere den, *Hassarte* litzateke Reja-ko adibide palatalizatu bakarra (cf. *Harizavalleta*, *Haiztara*, *Hazpurua*, *Haizcoeta* eta *Haizpileta*, *apud TAV* 32), eta horrek zailago egiten du *Hassarte*-n aldaera palatalizatua interpretatzea.¹²⁵

Auzi edo arazo berbera agertzen da, besteak beste, Aramaioko *Arexola* azaldu nahi delarik: Mitxelenak (1953: 59) *areitz* (*aretx*)-ekin lotu zuen, baina “Nosotros creemos que la evolución normal de *aretx* + *ola* habría sido **Aretxola*, y no vemos ninguna razón para que la africada se convirtiera en fricativa. Este problema es similar al que tenemos para explicar *Axarte* (Trebilño) partiendo de *haitz* > *hatx* + *arte*” (Salaberri Zaratiegi 2015b: 91).

Aurrekoen pareko aldaera arazotsuak alde batera utzita, zalantzarik gabea da ezaugarriaren izatea XIII-XIV. mendeaz geroztik. Are gehiago, ondoz ondoko garaietako lekukotasunak dauden eremuetan ondo ikusten da trantsizioa XI-XII. mendeen eta XIII-XIV. mendeen artean.¹²⁶ Esate baterako, Salaberri Zaratiegiri (2015b, s.v. *Aretxabaleta*) jarraikiz, Gasteizko *Aretxabaleta* toponimo modernoaren lehenengo aldaera Reja-n

¹²⁴ Salaberri Zaratiegiren (2015b) zalantzak aintzat hartuta ere, gogoratzekoa da *hats*-etik eratorria dela *hatsegin*, baina baita *haserre*, *asaldatu* eta *asi* ere (cf. EHHE, s.v. *hats*). Bestalde, Joseba A. Lakarrak aurrez aurrekoan gogorazten didanez, *haitz*-en eta *haritz*-en amaierako afrikatuak ez dira betidanikoak: cf., aurrekoari loturik, “**Has* berreraiki behar da; zenbait eratorritan gorde da jatorrizko igurzkaria (cf. *haserre*, *hasi*; berantiarraigoa datekeen *hats*-en gainean osatu dira *atseden*, *atsegin*, etab.)” (EHHE, *idem*).

¹²⁵ Ez dirudi Errioxako toponimiaren bidez ere kronologia goiztiarrik ezar daitekeenik: egungo *Ezcaray*, adibidez, *Haizcara* & *Hazcarahy* zen XII. mendean, *Becerro Galicano*-aren arabera.

¹²⁶ Orain, EHHE-ko *haitz* sarreran ematen diren forma historikoak begiratzea besterik ez dago hemengo kronologia-proposamena baieztatzeko: aldaera palatalizatuak XIII. mendeaz geroztikoak dira beti (cf. sarreran bertan aipatzen den *Ortun Hurtiz de Axpuru* (~1214)).

(1025) agertzen da: *Harizaualleta*. Forma bera zuen mende baten buruan (1135): *Harizaballeta*. Aitzitik, 1258an *Harechavaleta* agertzen da, 1352an *Arechavaleta* eta 1381ean *Harrachavaleta*: aldaera palatalizaziodunak besterik ez daude orduz geroztik. Eten kronologiko horrekin bat egiten dute, hain zuzen ere, Gipuzkoako egungo *Aretxabaleta* eta Bizkaiko egungo *Axpe* toponimoek. Lehenengoaren aldaera zaharrena *Harizabaleta* da (~1200-1300), eta 1310ean agertzen da lehenengoz *Arechavaleta* aldaera (*EODA*, s.v. *Aretxabaleta*). Bigarrenaren aldaera zaharrena 1051koa da (*TAV* 47), eta kasu honetan *Izpea* zen, baina 1388an *Axpee* agertzen da Bizkaian,¹²⁷ bai eta *Axcutia* (1379), *Axcana* (1398), *Axtarloa* (1388) eta *Arexcurenaga* (1419) ere –azken horren aldaera despaltalizatua egon daiteke *Arescurenaga*-n, 1476an– (Salaberri Zaratiegi 2018: 330); cf., halaber, Errioxako *Haizcara* eta *Hazcarahy* (egungo *Ezcaray*) XII. mendean.

4.2.2. Mendebaleko testuetako lekukotasunak

4.2.2.1. Zenbait muga

4.2.2.1.1. Oñederraren (1990: 21 eta hurrengoak) azalpenekin bat, zaharra da euskal idazleen artean palatalizazioaren inguruko ezagutza aktiboa, eta ahoskeraren eta adierazpen grafikoaren arteko lotura sarritan izan da berbagai: Axular, Oihenart, Urte, Larramendi, Añibarro, Astarloa, Mogel, Bonaparte, Azkue eta besteren aipua gogorarazi zituen Oñederrak (*idem*).

Hain zuzen ere, aurreko mendeetako iturriekin lan egitean egungo ikertzaileak aurkitzen duen arazoetako bat palatalizazioaren adierazpenarekin dago lotuta: “XVIII-XIX. mendeetan istilu gehien sortu zuen grafi-kontua dugu, askotan nork bere aterabidea asmatzeraino” (Urgell 1995: lx). Izan ere, oso berandura arte arau grafiko uniboko orokor eta onartuaren faltak gorabeherak eta poligrafia-kasu nahasgarriak eragin ditu hainbat egileren lanetan. Afrikatuak ez du arazo handirik eragin,¹²⁸ baina frikari sabaikaria adierazteko <x>, <ix>, <s>, <ś>, <is>, <(i)ss> <si>, <(i)sy>, <sh>, <hs>, <s + bokal tiletuna>, <ch>, <j>, <jf>, <ifs> <g> eta <j> erabili dira gutxienez Bizkaian eta Gipuzkoan (begiratu Urgell 1987a: 360 eta hurrengoak hala grafia zaharrez nola Larramendiren eta Larramendi ondoko zenbait idazleren hautu eta proposamenez;

¹²⁷ Bizkaikoa dela bai, baina Busturiako *Axpe*-ri dagokion ez du zehazten; aintzat hartu behar da jaurerrian badaudela Busturiaz gaundiko *Axpe*-ak (Lekeitio eta Durango aldean, adibidez), baina, nolahi ere den, hemen hizpide dudan alderdi kronologikoari dagokionez koherentea da proposamena.

¹²⁸ Oro har <ch> erabili izan dute Hego Euskal Herriko idazleek, nahiz eta besterik ere aurki daitekeen; Bizkaiko idazle batzuen artean <ts> eta <tch> ere aurki daitezke.

halaber, begiratu Urgell 2018: 608-609). Grafema batzuen edo bestetzuen erabilerak interpretazio-arazoak eragin ditzake zenbait kokagunetan: *gaisto* bezalako aldaera batean *gaisto* ala *gaixto* dagoen ziur erabakitzerik ez dago, eta zenbait hizkeratan *gaizto* → *gaisto* ala *gaizto* → *gaixto* → *gaisto* gertatu den ikustea ere ez.

4.2.2.1.2. Arazo grafikoez harago, euskararen corpus historikoak erlijio-gaien inguruan duen homogeneotasunak muga nabarmenak ezartzen dizkio palatalizazioaren ikerketari; izan ere, item lexiko jakin batzuk ugari agertzen diren arren (cf. *ele(x)a*, adibidez), beste batzuen ale gutxi batzuk besterik ezin dira bildu, eta gehienbat erlijioaren esparruaz gaindiko testuei esker (cf. *(h)axe* eta *aizkora*, adibidez) aurki daitezke.

4.2.2.2. Aztertutako aldaerak

Atal honetara ez ditut *Vjz/tz* → *Vjx/tx* aldaketa islatzen duten berba guztiak ekarri: zenbait aldaera baliatuko ditut lagin gisa, nahikoak direlakoan fenomenoak Euskal Herriko mendebalean historikoki izan dituen indarraren eta mugen berri izateko. Honako item hauek erabiliko ditut: *baizen*, *eleiza*, *goiz*, *haize* eta *nai*, *noiz* eta *inoiz* frikarietan, eta *bakoitz*, *gaitz*, *haitz*, *haritz* eta *iritzi* afrikatuetan.

4.2.2.2.1. BAIZEN → BA(I)XEN

Lafonekin (1999 [1957]: 656-657) eta Mitxelenarekin (*FHV* 101) bat, **bai-ez-en* forma legoke oinarrian, eta gerora metatesia gertatu bide zen, ohi bezala bokalerdiak bere izaera mantenduz (*FHV* 146, Oñederra 1990: 47). Euskal Herriko mendebalean, bestalde, *ba(i)xen*-ekin batera *-n*-rik gabeko aldaerak aurki daitezke, baita *baxin* eta *baizin* ere (cf. *OEH*, s.v. *baizen*). Euskara Arkaikoaz geroztik agertzen dira aldaera palatalizatuak mendebalean, nahiz eta sortalderantz egin ahala ahuldu egiten diren eta Arabako erdi-ekialdeko testuren batean forma palatalizatuak eta palatalizaziorikgabeak agertzen diren. Hona hemen adibide sorta bat:

- (i) Bizkaikoak: *RS* 281 *Ator[r]en baxen vr[r]ago narrua*; *SalKond* 3 *Calea bere burua bax[e]n daroa*; *VJesus* 4 *Bat bagen ez, jaune*, 5 *Iangoico bat bajen*, 7 *gure Iaun bat baxen*, 10 *eta sacrilegiocoa baxen*; *Mikol* 13r *Balio daue baxin gueyago*, 14v *ori es ta faltea, sobrea baxe*, 14v *Estago emen sorçi vaxe*; *Kapan* 36 *egungo oguien baxen?*; *BertsBizk* 15-3 *agaz baicin ezin ley*; *ElorZirBerts* 19 *emen baicen veste lequtan*; *Gandara* “Euscarichua” 1-4 *baice bai*, 6-3 *zeu basen samurric*; *De la Quadra* 22 *Jangoico bat baizen*, 23 *arima bat baizen*, 3 *ezta sagar bat baizen*, 24 *Ez, jauna, aita baizen*, 27 *Zegaitic bat baizen ez?*, 57

besteric eztaucala vera baizen, 88 beste peccaturic veniala baizen, 90 urte vetean edo vijan baizen euqui ez badau isilic, 96 esan dirianac baizen ez, 102 ascotan eztira venialac baizen; Errosariyo 30 penetan egotia vaizen.

(ii) Arabakoak: IacobGeb 1 *Bici bayce eztoc yl Don Iacob*; Lazarg A28:110 *ese bat baice besteric, B3:87 baice justo naxala escaetan, B15:35 baice au edo ori pensaetan, B15:83 ez gorri tantaric, baice çuria, B21:40 neurc baice sentiçacaric, B21:75-76 “Ongui etorri, çu jauna” baice / ez esan beste gauçaric, B20:60 amarez baize jarri igoalaz, AL1143r salvo bacoçhic egon baxe, AL:1153r solamente negar baje beste gauçaric eguite ez euela, AL:1144v aseguin eta descansu baxe, AL:1154r gach orrendaco remedio emayten baxe, A10:39 gabaz-egunaz servidu baxe, A16:20 çuregaz baxe conturic, B15:32 aleguere baxe secula triste, A4:8 ezcondu baxinbatean ez; Sevilla1619 81 *Guerran bayce ez daquie; DotrSerm 10-115 viosa euren esan bat bisen?, 14-52/53 esin recibidu lei bein bisen, 16-76 elesa sorueu bisen selai iminteco?, 16-77 Eta mille urteric milla urtera bisen espalidi limeu?, 24-103/104 Estago consideradu besen se andiye dan peccatueu, 40-167 leen besen leen...*¹²⁹*

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: Sasiola B27:3 3/4 *Avemaria asi baice, ecin oy det notatu; EibarKopl 4 Jaungoycuac baixeste estaqui; Amilleta 3 semea baicen aita eternoa nagusiago da?, 4 beste lecutan baicen gueiago, 4 jaiio baicen leenago, 4 Christo il baicen leenagoco santuac, 6 cegatic ez gueiago bat baicen?, 6 Antigoacoa oneec eliçabat baicen gueiago eztira?; SermDom 4r edaatecoagaz baize, enda mortificacinoacaz baize, 4r jatecoa leguez vaize, 4v trabaju enda mortificacinoacaz baize, 8v gauez baize irazeguiriq egotea; IsSagEsp 2r becatu eguin da guero baysen, 4r guisonac leen baysen gaistoagoac; Errezil1622 3 ynor daducan çuç bayce besteric; Grand tour 6r Tolosacua besin plaza politagoric; Otxoa Arin 41 aentzat baicen ez dago, 47 accidenteac baicen besteric, 140 beste peccaturic venialac baicen...*

4.2.2.2.2. ELEIZA → ELE(I)XA

Latindar *ecclesiam*-ekin lotura duela agerikoa bada ere, ez du ematen euskarara latinetik zuzenean sartutako mailegua denik. Badirudi *eleiza* forma zaharrena izan daitekeela, eta metatesia aipatu izan bada ere (cf. Oñederra 1990: 46-47), auzia ez dago argi:

¹²⁹ DotrSerm-eko *besen* aldaera dela eta, argigarriak dira Ulibarriren (2015: 221-222) oharrak: *besen*-en sei adibideetarik lau *lehen baizen lehen* esapideari dagozkio eta badirudi forma fosildua dela.

Diptongo hori (-ei-) azaltzeko bi modu daude: euskararen barreneko metatesis azal liteke, **elezia* > *eleiza* (cf. agian lat. *asciola* > **azkiora* > *aizkora*, ik. han); alabaina, aukera honek arazoa du halako metatesiak ez egotea batere ongi dokumentatuak. Horrela, aukera egokiagoa da aldaera erromantze batetik azaltzea, cf. okzit. zah. *gleiza*, *cleisa* ‘eliza’, gas. *gleiza* ‘elizara jarraituki joan’ aditza, etab. (EHHE, 196)

Diptongoaren jatorria jatorri, bokalardiak eragindako palatalizazioaren lehenengo adibide ziurra zaharra da, Euskara Arkaikoa baino lehenagokoa: *Ybannes de Elexalde* agertzen da 1381ean Leinzko artxiboan EHHE-ren arabera (s.v. *eliza*), eta Arabako toponimian *eleiz-* & *eleis-*, *elex-* eta *eliz-* daude.¹³⁰

Tesi honen corpusaren ardatza erlijio-testuak izanik, ugari dira *eliza* & *eleiza* & *ele(i)xa* aldaeren adibideak, eta kasu honetan argiago eta ziurrago irudika daitezke zenbait muga. Hona hemen aurkitutako adibide-andana bat:

(i) Bizkaikoak: frJZum 12 *Orco elexaen bere gomuta yçango gara*; Andram 1-1 *elexearen*; IbarGC II: 235 *eliça*, II: 241 *eliza*; RS 142 *Oñac oz elejaracoz, vero ezconçaracoz*; VJesus 3 *elexaan zarçayten gareanean*, 4 *Elexa Santacoac*, 8 *Elexa Santa Catoliquea*, 8 *Elexa Santa Catolique bat...*; Mikol 7r *iglesia - elejea*, 14r *Lelengo elexara*; Kapan <i> *Elexeetara*, 6 *Elexa santa catoliquea*, 12 *Mandamentu elexacoac*, 12 *elexa santearen Mandamentuac*, 26 *Ama elexa santeaganic*, 40 *escriptureenac, elexeenac, eta santuenac*, 48 *Christoc bere elexeagaz leguez...*; Zubia 425 *Elexa Santa Catholica bat*, 425 *Cegaz eguiten da Elexea*, 425 *Cergati da Elexea Santea?*, 425 *Cerda Elexea*, 425 *Cergaiti da Elexea bat?*, 425 *Elexati bacarric*; Bulda 24 *bost Elisetan*; Arzadun azala *Elexetaco Beneficiadu*, 14 *Elexa Santa Catholiquea*, 22 *Elexan sartuten garianean*, 36 *Elexaco bestac*, 46 *decenziagaz joan Elexara...*; Urkizu 34 *Eleja Santa Catholiquiari*, 64 *Eleja Santien consueloraco*; UrkizuKopl 17 *eleja ederr bat*, 49 *elejà onetan*; OrozOtoi 9 64 *zeure elaxa santara*; Iturriza 2-1 *Elexiaren*; ZolloGald 3r *elesatte*, 3v *elesa*; Kardaberatz 7 *Elessa Santa Catoliquea*, 18 *ta Elessaco beste oraciñoac*, 18 *Elessa Ama Santen mandamentuac*, 29 *Jangoicoac bere Elessari aguertu deutsan guztia...*; Olaetxea azala *bere elesatean*, 8 *elexa santa catoliquea*, 11 *Elexa santaco mandamentuac*, 28 *Sacramentu Elexacoac*, 73 *Elexa au componietan davenac...*; De la Quadra 6 *Bost Eleizaco aguindubac*, 6 *Eleiza Ama Santiac*, 10 *Eleizara sartutean*, 19 *saspi sacramentu Eleizacoac*, 31 *zein dan Eleizia...*; Errosariyo 4 *errezetan danian eleizan*, 5 *au eleizan*

¹³⁰ Bestalde, ez dirudi fenomeno horrekin lotzekoa denik Nafarroako ekialdeko 1057ko *Elessa*: “mendebaldekoa da *elexa* aldaera, eta mende batzuk geroagokoa” (EHHE 195).

errezaduten vada, 26 *Eleiza onen baquea*, 31 *eleizaco exerciyo edo coroyan*, 39 *nai eleizan dala nai echian*, 41 *Eleiza ama santiaren antorcha...*; Sarria 1 *Eleiza Santiari*, 2 *Jaungoicoaren leguiac eta Eleiza Santiac*, 3 *ambeste eleiza*, 3 *eleizan ce modutan egon biar dirian*, 12 *oraciñoee Elesacuac*, 34 *bost Elesacuetatic*, 37 *Elesien aguin duen poderes*, 8 *vere Eleziaga[z]*, 3 *Elezaco Apostolu batecgaitic dinoana...*; Apoita 2 *elasa guztico*, 5 *elisiaren importancijaraco*.

(ii) Arabakoak: Land *capilla de iglesia - elexaco capillea*, *cisma de iglesia - çismeaa elexeana*, *iglesia - elexea*, (B) *elicea*, *monazillo - elexaco mutila*, *raçion de iglesia - elexaco erraçioa*, *sacrilegio hurto - hostua elegaxacoa*, *sacrilego - elexa oscaria*; Lazarg B22:1 *elexa*; Betol 2v *Elexa Santeac*, 3v *Elexa Santa Catolican*, 6r *Elexa ama Santean*, 6r *Eleja Ama Santacoac*, 7r *Eleja Ama Santearen*; Portal 65 *Eliçaco doctoreac*; DotrSerm 10-50 *Alan contetan dau Elseac*, 11-15 *emaiten bere doea Eleseari*, 12-1/2 *Elesa Santa Catholiquea*, 12-15 *bata da Elesa Triunfantea*, 15-79 *datosala elasa onetara arime bi*, 18-21/22 *inquietauco badaude elesan sacerdotea eta beste mesa ensuten dagosanac...*

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: Garibai A46 *Aita gurea bein eliçara eta orduan nequez*, B11 *Ayta gurea vein elexara, eta orduan tormentuz*; Sasiola B27:1 *eliçara*; Amil 3 *eliza ama santeac*, 6 *cer da elicea?*, 6 *cembat eliça dira?*, 6 *Aranzazuco elizea*, 6 *oneec eliçabat baicen gueiago*, 6 *eliza au*, 6 *elizaco ondasunetan*, 6 *elizaan remedioac*; SermDom 2v *Eleja Ama Santeaq*, 2v (birritan) *Eleja Ama Santea*, 4v *S(an) Ambrosio Elejaco doctore Sagraduaq*; Barrutia 315 *Eleizaco*; BergUdalAg 4 *elizaco ministruen menpecua*, 7 *Elizac eracutsiric daucan moduban*, 8 *laguntceco Elizara*, 8 *Elizara laguntcia*, *baña bai Elizatic Echeracoa...*; Azpeitia1560 4 *elica sanduac*; SumBrev 12 *Eleiza santea*, 23 *Eliza santearen aumentua*; Peñafiorida *Gabonsariak azala Azcoytico Eleiza nagussian*, 6 *beste iñun diran Eleizaac*, 6 *Eleiza ederrean*; Grand tour 7r *beste amar eliza*, 7r *Hogei Colegioco eliza*, 7r *iru elizaco jurisdicio*; LoiolaDot 3 *eleizan sarcean*, 4 *Elizaco oracioac*, 5 *Elizaco zaspì sacramentuac*, 18 *Eleiza Ama Santeac...*; OArin 41 *Eleiza Ama santuaren semerican*, 42 *Cer da Baptisterio santutic Eliçara sartcea?*, 154 *cobratu Eleizeac cor citçaizcan calidadean...*

4.2.2.2.3. GOIZ → GOX

Berba arrunta izan arren, corpusaren monotematismoa dela-eta goiz-en agerraldiak ez dira ugari, eta batez ere erlijioaz kanpoko testuetan metatzen dira. Hona hemen sorta bat:

(i) Bizkaikoak: *RS 439 Arr ezac leyen ganeco lañoa ta doquec goxera gassoa*, 440 *Beluco esconçea deunga, goxeticoa ez oba, aldia gauzac daude, aroari jarrain gaquioza*, 450 *Zarren semea gojago zurz*, 475 *Zor çaarra goyz gayztoen beguira*, 517 *Eder elaea goxean cantazean, enearen canteac jo nau bioxean*, 437 *Luquiari trancart eguiteco gojtu bearco*; Mikol 7v *mañana - goxa*, 12r *goxa ta herloxua estabilsas batera*, 12r *Noraco aen goxetic*, 13r *aen goxeti*, 12r *goxeti xayguita*, 14r *goxetaraco*; Kapan 129 *Goxean leelengo iraçarri dinean*, 129 *obra egin dituçanac goxerean*; Kardaberatz 99 *Gossean oeti iaguita*, 102 *Gossean, eguerdian ta arratsean*; Olaetxea 17 *Goxean, eguerdian ta arratsean*, 21 *Goxean leguez*, 28 *Pazco goxean*, 97 *iru Ave Maria, goxean...*; Sarria 3 *gox edo berandu*, 9 *gossian, eguerdiyan eta gaubian*, 25 *bazandu cirian gosseti*, 23 *goizaldian*, 35 *gossian, arrazaldian eta eguerdian*.

(ii) Arabakoak: Landucci *manana del dia - guoxa, goxaldea*; Lazarg AL1142v *Biaramun goxean*, A6:9 *oy onezquero gox ocetan da*, A24:53 *Berandu ezin eta gox jagui*, B11:11 *edo berandu edo goxago*; DotrSerm 15-98 *Gosean topadu eudesan*, 23-137 *esan eusen gos baten*.

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: Garibai A3 *Goiz salsa osha, verandu varazcaria*, A51 *Goyztarra ni magaletan det aguiri*, B7 *Goz salsa osa, Verandu varazcaria*, B48 *Gox gorric euri daidi, Arras gorric eguzqui*, B48 *Gox gorri de Navarra; remojarte ha la çamarra*; Sasiola B33:2 *goiz*; EibarKoplZah 9 *aric zapatu goiseco*; Barrutia 244 *goizean goizean bearco yjoc entresilua capazu*, 332 *bihar goiseco beste alderuz izulico xoc aisiac*, 343 & 467 *goizean bein*; SumBrev 6 *egin begie konzienziako examiña goizean*; AzpeitiaUdalAg 17 *ez dezala iñorc jocatu goicetan*; Peñafiorida BorrB 3 *Beti goiz, ta gabeen*, 15 *goicean goiz bearrera*; Grand tour 5r *goizeraco vomitasen emen ditu*, 7r *goizeco irurac artian*.

4.2.2.2.4. (H)AIZE → (H)AXE

Aurreko berbaren kasuan legetxez berba arrunta izanagatik, gutxi dira (h)aize-ren agerraldiak corpusean; adibide banaka batzuk besterik ez ditut aurkitu, denak ere

erlijio-testuez gaindikoak. Adibideen urritasuna dela eta, lurraldekako bereizketarik egin gabe emango ditut: *RS 419 Perrau neuen gogoa, axeac bestera naroa*; *Land abrigo viento - axea*; *ayre elemento - axea*; *ayrosa cosa - gauça axez betea, calma de viento - axean calma*, *çierço - vengo axea, remolino de viento - axea vueltea, auentar el pan al viento - eraxo*, (B) *ayzarazea*; *Lazarg A17:110 axeac oy darabil beletea*; *DotrSerm 11-26 ase fuerte baten modure*, *23-46 aseac daroasan berbac direala?*, *43-49/50 se aseac seinbet altugo topetan daben ause daroa lasterrago*; *Garibai B62 Axea nora, capea ara*; *Barrutia 332 Biar goiseco beste alderuz izulico xoc aizeac*; *Grand tour 10r aiziaren osac*.

4.2.2.2.5. NAIZ → NAX

Txistukarien neutralizazioaz aritzean aipatuko dudanez (§4.7), *izan-en* adizkietako *nas* ‘naiz’ & *(h)as* ‘haiz’ aldaeretan arean konplexuagoa izan da aldaketa-prozesua, bokalardiaren osteko palatalizazio-prozesuaren ondoren despalatalizazioa gertatu baita. Aztertutako corpusean, bada, adibideak hiru multzotan bereiz daitezke: (i) adibide zaharrenak, aldaera palatalizatuak dituztenak; (ii) despalatalizazioa aurreratuta edo burututa erakusten duten adibideak; (iii) despalatalizazioaren ondoren <z> etimologikoa berreskuratzen duten idazleek emandako aldaerak. Hona hemen aurkitutako adibide sorta bat:

- (i) Bizkaikoak: *RS 57 Edo eguiatz nay guzurraz, elicatuco nayz*, 300 *Azo bardindu nax, nox dot vrtea?*; *EgiaKant 156 naxan artean munduan vici*; *Mikol 3v ni nax*, *3v ni ysan nax*, *3v ni ysan al nax*, *3v ni naxa*, *4r ni naxa*, *13v sarra naxala*, *14r xaquin eguisu naxala ni ordi ona*, *15r escatuco nax emondaguiala contua...*; *Kapan 23 Señaleetan naxala*, *118 naxala araco seme prodigoa*, *133 sartuco nax*, *155 nax çure criaturea, da nax çure elexaco miembrua, nax iauna obrea eguin cenduana*, *155 deunguea banax bere...*; *Arzadun 52 neu nasana*, *52 eldutenas*, *49 gueratu nasala...*; *Urkizu 3 deungagoa nasálaco*, *21 Elzenas*, *25 ez nasala*, *28 elzenas...*; *Kardaberatz 29 jaquinezza nassan oni*, *93 Jauna: ez nas ni diña*, *94 ni nasan*, *94 contentu nas*; *Olaetxea 35 joango nasala Cerura*, *141 ez nasala digno*, *143 bicico nas onic aurrera*; *Gandara “Ardoaren ganian”, 1-1 Ni nas*, *Gand1762 7-6 ausa banas aleguere*, *Gand1767 6-1 Enas ni yoango*; *De la Quadra 12 ez naz digno*, *112 Alan confieta naz*, *119 ez naz capaz*, *9 confietan nas*, *10 Sartungo nas*, *35 naiz jaquiturijabacoa*, *113 naiz pecatari andi bat*, *114 neurez naiz bapereza...*; *Errosariyo 7 vizi nasan arte*, *80 Ay ze ezquer*

gueistocoa nasan; Sarria 34 gaste nassan artian, 34 gastia nassan artian, 19 etorri naiz, 1 icaratuten naz, 1 ain zoroa izan naz?, 3 aurratuten naz, 6 egon naz...

(ii) Arabakoak: Land *auer gana de parir - erdi gura nax, auer gana de cagar - cacacurr nax, auer gana de çenar - afaldu gura nax;*¹³¹ Lazarg AL:1147v *orregaz egon nax ni, AL:1153v ni joango nax, A4:11 beste amore bilatuco nax, AL:1150v ni najala Marsellaco naturale, A2:16 oy ni naxala aspertu, A3:17 Ona etorri naxan azquero, A9:26 ez daquit neurau nor naxan, B1:1 Ez naiz çuri ederra, B1:5 balzeran banaiz vere, B8:1 Consolaytan naiz da, B18: ilgo naiçala...; Portal1610 13 Ni Iangoico naiz; Gamiz “Dabilenchoac” 2-3 *ifin naiz au eguiten, “Beste tunucho berri bat” 1-1/2 Mutil batec ezan dust / naiz[e]lla galanta; Albeniz 167 eldu naiz zugana, 167 zugana eldu naiz; DotrSerm 2-62 ni nas Jangoicoa, 2-62 ni nas Jangoicoen Semea, 2-63 ni nas Jesus, 33-98/99 urte gustitan confesadu nas, 33-130 Bada ni, sein nasan suen jueza, 46-150 condenadu nasala...**

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: Sasiola B27:1 *Eleiçara juen oy naiz, B27:5 liburuan bere jarri oi naiz, B28:19 ç]ure minez ilgo banaiz, B30:25 aren equzten etorrigo naiz, B28:7 Speranceaç bici oy n[aiç; Amilleta 2 naiz ceinacen, 2 jaguicen naiçanean; Barrutia: 12 naizan zeure esposea, 40 Ni naiz, 49 esclauca naiz ni, 96 xarten naiz bidean, 97 etorrigo naiz, 127 onetan oera naiz, da enaiz ondo berotu...; ATxakarGut 6 Egongo nais orren respuestiaren sain; AzpeitiaGut 1-5 Asco alegratu naiz, 2-3 i jaiquizen naiz egunoro; Peñafloreda GavS 6 vici banaiz, 6 valiatu naizan, 9 egon naiz ecin sinisturic..., BorrB 15 Nola naizan zapatari, 24 nor naiz ni?, 25 eztaquit, ez nor naizan, ez nola aurquitcen naizan...; Grand tour 5r gusto andijarequin egon naiz; LoiolaDot 13 cergatic naizan ignorantea; OArin 135 Acusatcen naiz seigarren mandamentuan, 137 Explicatcen naiz clarecia gueiagoraco...*

4.2.2.2.6. NOIZ → NOX

Izan-en adizkietan gertatutako fenomeno bera dagokie *nox* eta *nos* & *noz* aldaerei, eta azalpenetan ez naiz luzatuko: bokalerdiaren ondoren palatalizatu egin zen txistukari frikaria, eta ondoren despalatalizatu. Kasu honetan ere, garaia eta egilea zein

¹³¹ *auer gana de mear - chixacurric nago sarreran, nago-ren gainean nax idatzi zen gerora; cf. Mitxelena (1958: 252, 40. oin-oharra).*

den, aldaera palatalizatuak, despalatalizatuak eta idatziz <-z> etimologikoa berreskuratu dutenak bereiz daitezke adibideen artean:

- (i) Bizkaikoak: RS 300 *Azo bardindu nax, nox dot vrtea?*, 505 *Ayn da ona nojala çe ez daquit nox doqueda*; Mikol 6r *cuándo (pregunta) - nox*; Kapan 23 *Nox da*, 46 *nox da pecatu*, 63 *Nox obligueetan dabee*, 73 *caridadeen contra nox dira...*; BertsBizk 5-3 *noisbait Moretec dinoan legues*; Arzadun 46 *Nos eguin bear da penitencia?*, 46 *Nos aguietan daben Confessoreac*, 50 *Nos ifintenda Jesu-Christo, hostian, da calizan?*; Kardaberatz 27 *noss etorrigo da?*, 47 *noss obliguetan dabe?*, 56 *Noss dira?*, 16 *noz eguin behar dozu?...*; Olaetxea 27 *Nos concebido edo sortu zan*, 27 *Nos jaio zan*, 27 *Nos il zan*, 28 *Nos biztu edo erresucitadu zan...*; De la Quadra 7 *Nois zor dira pecatubean?*, 9 *Nois essan biar da?*, 9 *Eta nois guejago?*, 11 *nois eta selacoa izanga ete da*, 53 *nois artian*, 8 *Noiz au essan biar da?*, *Eta noiz guejago?*, 29 *Noiz etorrigo da jusguetan*, 52 *Noiz gurasoac socorridu biar dira?*, 68 *Noiz artian irauten dau obligacino onec?...*; Sarria 3 *Nosbaist icusi bada*, 13 *nosbait inoc zugaitic essan davela*.
- (ii) Arabakoak: Land *quando - nox, nunca - ezta nox bere, cuando quiera - que edonox*; Lazarg AL:1153v *nox Sirenac eta Silbiac il bear euen*, A26:69 *Oy nox cenbilcen*, B20:41 *Dichoso eguna nox galdu ninçan*, AL:1146r *noxbait-noxbait acorda çatez*, A17:88 *edo bestela noxbait il naguiçu*, B9:15 *noxpait irecaçu*, A8:6 *oy noxbayt galduco doçu*; DotrSerm 16-10 *Nos artean ireungo dau gloriye onec?*, 25-132 *Baye nos esan eusen au Christoc?*, 29-58 *Eta baquisu nos?*, 31-105 *Nos confesetan da?*, 31-125 *Nos doas elesara confesetan?*, 40-190 *nosic nosera*, 46-108 *Eta nosic nosera emongo deuse edaten...*
- (iii) Gipuzkoako mendebalekoak: Amilleta 2 *noiz eguin oidoçu curuce ori?*, 6 *noiz Juzgaduco gaitu?*; SermDom 6v *nos urteten dabeen esseriq*, 7r *nox veren esseetara vuurzen*; AzpGut1740 2-31/32 *noiz etorteco dan Caracastiq*; LoiolaDot 3 *Noiz edo cein demporatan*, 11 *Noiz etorrigo da illac eta viziac juzgacera?*, 26 *Noiz obligacen deue pecatu mortalaren azpian?*; OArin 54 *Noiz dago obligaturic*, 55 *Noiz gaude obligatuac*, 170 *jaquin noiz arquitcen dan barcacioa escatceraco obligacioa, eta noiz ez*.

4.2.2.2.7. INOIZ → IÑOX

Aurreko bi kasuetako azalpenek bete-betean balio dute *iñox* & *iños* & *iñoz* aldaerak azaltzeko; beraz, kasu honetan ere ez ditut errepikatuko. Hona hemen aurkitutako adibideak:

(i) Bizkaikoak: RS 331 *Equix nago guertuago ynox baño guduraco*; EgiaKant 74 *jagoten ynox bere Yçorra bagaric*, 144 *ez çugan here yñoç amessac onac*; Kapan 107 *iños damu içan daben*; Urkizu 3 *èz ze[u] iños ofendietaco*, 28 *ez zeuri iños quènzeco*, 33 *ez zeù iños ofendietea*; Gandara “Ama maitegarriari”: 4-1 *Ceure ideric inox*, “Euscarichua” 2-2 *iñoçco viciroen*; Kardaberatz 101 *ez iños bere ichi*; Olaetxea 49 *inos bere ez*, 51 *inos bere*, 80-81 *eztau inoz gauza añ ederric icusi*, 90 *eztave condenauac instante bateco gustoric inos euquico...*; Sarria 1 *baña eztau iñoç emon*, 1 *ezta iñoç gustiz vengadu*, 1 *padeciduco dituez iñoç padecidu leizen tormentu gustiyac*, 4 *ez deudianac inoz ondo examinetan euren concienciya*, 22 *ya ezcozuz iños secula icusico...*; GernikaGK 7-5 *bigarren ezta inoz*, 8-4 *inoç faltabaga*, 16-6 *inoç petardoric*.

(ii) Arabakoak: Lazarg A23:5-6 *Nic orain diot inox ez çala / ipuiçarric, guçurric*, B15:34 *Cegaiti monjea iñoç eztago*, B16:113 *inox dicharic eztudala*; DotrSerm 2-10 *iños es ecusiye*, 4-56 *estabenac iños consideretan?*, 5-24 *estaude iños ecusico*, 11-110 *esan iños eldu â biyer!*, 16-63 *egusqui bet iños sarsaiten estana...*

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: IsSagEsp 1r *es ziran inos ilgo*; Peñaflorida GavS 9 *ez da ez ain beste mirari ecussi inoz lurrean*, 13 *Yñoiz malcoac oi dira fara baño*, 29 *Emen cerutic iñoiz / alde eguin bagueric*, BorrB 3 *ecin inoz echera*, 14 *estubenac angairic / iñoç escuartean*; OArin 28 *ez ceban inoiz ere izan guizonan artetic inorequin ere parteric baterè*, 40 *inoiz erè andic irteteco*, 41 *inoiz ere galtceeco beldur bague*, 131 *inoiz eguiten baldin badeb...*

4.2.2.2.8. BAKOITZ → BAKOTX

Mitxelenak (FHV 158) eta Oñederrak (1990: 49) ikusi bezala, afrikatueta bokalerdiaren ondoko palatalizazioa amaieran agertzen da. *Bakoitz* aldaerak zaharrago izan behar badu ere (ez, nolahi ere den, *bada*-tik, *ezpada bat*-etik eratorria; cf. EHHE 89), *bakotx* palatalizatua ere zaharra da: EHHE-k (s.v. *bat*) *Amesbacochaga* jasotzen du 1347an (Lekeitioko artxiboko agiriak), eta *Areizbacochaga* 1452an (Elgoibarko artxiboko agiriak). Hona hemen hainbat adibide:

(i) Bizkaikoak: Andram 2-5/6 *darda bacoachac euren baçarrean*; RS 381 *Eun sauel bateco ta bacocho bere gogoco*; VJesus 7 *estago gustietan da bacochean Iangoico bat*, 16 *bacoachac bere debociñoecas*; Kapan <i> *bacoachac artuten dabela*, <i> *eduguico dau bacoachac bere ecsean*, 5 *Iesu Christo aren seme bacoachac gueure iaunagan*, 78 *Bacochari emaita çor jacana*, 122 *erioçea ezquero iatorcan bacochari iudicioco eguna...*; Bulda 51-52 *nori arcen dutzan bacoachac*, 59 *compondu leiteque bulda bacoachagas 2000 mr*, 66 *bijoc arcera obliguetan dau bacocho*, 67 *euquico dabe cuidadua bacoachac*; Urkizu 7 *bacochari misterio bat*, 9-10 *considerau edó meditadu amarreco bacochean*; Kardaberatz 37 *guizon bacoachac dau berea*, 105 *altara bacochean esazu*, 114 *baia bacoachac bere errico leguez*; Olaetxea 2 *enzuten dan bacochean*, 83 *bacochari berea emon*, 84 *bacochena*, 95 *peticiño bacochecho esplicacinoea*, 111 *bacochari berea biortuten...*; Iturriza 1-8 *erueban bacoachac bere caltezat*; Gandara1764 15 *Bacocharen aldian*, “Euscarichua” 2-1/2 *Angueru bacocho doa / iñoexo viciroen*; De la Quadra 10 *bacoitsian essango dira*, 11 *errezetan dan bacoitzian*, 11 *ile bacoitzian*, 20 *generalean eta bacoitza berez edo banaan*, 30 *Izan deinzat bacoitzen gorputza*, 77 *bacocharen erruz bada*, 89 *aste edo ilabete bacoichian*, 123 *erri bacoichendaco biarco lizate...*; Errosariyo 3 *garau bacoitza balasso bat*, 4 *errezetan daben bacoitzian irabasten dabe*, 9 *Ofrecimentu bacotcha amaitu ezquero*, 58 *Estaciño bacotchian dagoan versoa*, 60 *verso bacotchian considerau pusca bat*, 58 *Crucé edo pausu vacochian...*; Sarria 1 *arima bacoachac essan leiyo*, 1 *veneno andiya bacoachac dauquena*, 1 *pena bacoicharen miña*, 7 *pecatu bacoachagaz*, 8 *persona bacocho dala Jauna eta Jaungoicoa*, 12 *bacoachac beria artutarren...*; GernikaGK 3-5/6 *etsetzi bada guztiyoc / bacoachac bere lanari*, 24-5-6 *baña eguin esquero / bacoachac beria*.

(ii) Arabakoak: Lazarg AL:1143r *salvo bacoichic egon baxe*, AL:1143v *Silvero gueratu cidin bacoichic*, AL:1144r *Amaren seme bacocho naiz*, A16:73-74 *Tortolachoa ebilten da / bacoichic maiaz ilean*, B5:30 *erro bacoach bat jaiztea*, B16:46-47 *Ribera artan nesca oa / bacoichic necusenean*, B20:10 *bacoichic nenbilela illunetan*, B21:41-42 *Çu nundi çabilz, amoradua, / bacoachac desconsoladuric*; DotrSerm 1-86 *bacoachac dauco ar bat*, 4-115/116 *pecatu eguin senduin bacochean*, 6-88 *beguiretu begui bacoachac*, 7-89 *bacochen concenciye*, 20-90 *entendidu deiyesan moduin misteriyu bacocho banan-banan*,

25-111 *eta diru deunguero eroan bacoçagaitic disparetan deuso*, 38-12 *sentidu bacoçagas...*

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: Amil 4 *sinicen boçu aren seme bacoiz Jesuchristo gueure Jaunagan?*; EibarAgin 1r *berrogueta amarna ducac bacoçac*, 2r *amar ducaten penan bacoçac*; Grand tour 5v *bacoizac naiduban moduban*; LoiolaDot 19 *guizon bacoçac deu berea*; OArin 12 *Crutze bacoitcean cer esaten dezu?*, 62 *Mandamentu bacoitcean cer aguintcen zaion*, 133 *pecatu moeta bacoitcean*, 139 *bacoïçac eutzi ditçaqueanac...*

4.2.2.2.9. (H)AITZ → (H)ATX

Euskal Herriko mendebalean zabaldu askoak dira bai *(h)atx*, bai horren gainean eraikitako toponimoak; baina, tesi honetan aztertutako corpusean urriak dira adibideak. Are gehiago, agertzen direnetako batzuk toki-izenei loturik daude. *EHHE*-ren arabera, *(h)atx*-en adibide zaharrak daude Erdi Aroan: 1214koa da *Ortun Hurtiz de Axpuru*, eta Donemiliagako artxiboan agertzen da. 1025eko Reja-n Aldaik (2014: 232) ez zuen adibiderik ikusi: “Ejemplos como *Harizavalleta* (seguramente *Har(e)itzabaleta*; actual Aretxabaleta), *Haiztara*, *Narbaiza* (Narvaja), *Hazpurua* (seguramente *Ha(i)zpurua*); actual Axpuru) o *Haizpilleta* indican que el fenómeno a estudio no se había cumplido (no parece ni iniciado) para el siglo XI” (2014: 232); Reja-n bertan agertzen den *Hassarte*-ren arazoez, begiratu Salaberri Zaratiegi (2015b: 114) eta lehenago ere §5.1.2.4 atalean aipatuak.

Euskara Arkaikoaz geroztik, zenbait historialarik etimologia-proposamenak egitean islatzen duten informazioa interesgarria da ezagutzen zuten edo zituzten euskaretan ezaugarri jakin batzuk zeuden argitzeko. *(h)atx*-i dagokionez, halakotzat jo behar dira MendietaAera *Aerario*-ko *Atxasarri*, *Axquibel* eta *Axpe*; begiratu horien aipamen zehatza Ulibarri (2018: 760) lanean. Corpusean aurkitutako adibideak batera eta kronlogikoki ordenatuta emango ditut kasu honetan, hain dira gutxi: Lazarg A6:29 *Axparreneco larrosachoac*, A17:103-104 *Ascotan*, *çu bacina pedernala*, / *edo ni sufriceco baninz achez!*, B22:28 *gustietati florea dira / orduan Axpurucoac*; MendietaAera *Atxasarri*, *Axquibel*, *Axpe*; Mikol 8v *peña - acha*; Kapan <i> ach artean; BertsBizk 23-1 *Orduña aldeco acha*; DotrSerm 1-118 *iminten dau pausue cuidedus dagoanean ach artean*.

4.2.2.2.10. (H)ARE(I)TZ → (H)ARETX

Kasu honetan ere berba arrunt askoa da (*h*)*aretx*, baina corpusaren monotematismoak ez du tarte handirik uzten ager dadin. Esangura dela eta, gogoratzekoa da Euskal Herriko mendebalean ‘haritz’ ez ezik ‘zuhaitz’ ere esan nahi duela, eta *RS* bildumako zenbait adibidetan ‘ezkur’, gaur egun *sagarra* eta *madaria* fruitua zein zuhaitza diren era berean. (*h*)*atx* aldaerarekin gertatu bezala, historialari zaharrek toponimiaren inguruan emandako azalpen etimologikoak argigarri dira egileon euskararen zenbait ezaugarriren berri izateko. (*h*)*aretx*-i dagokionez, Mendieta *Arechondo* “fundación entre ro[bles]” eman zuen (Ulibarri 2018: 759), eta IbarGC kronikan besteak beste *Arexçabaleta* “robledal ancho” eta “término o monte lleno de robles” ematen da (II:410, *apud* Arriolabengoa 2008: 211).

Hona hemen corpusean aurkitutako adibideak, batera eta kronologikoki antolatuta emanak: Andram 2-2 *jaureguiaren aurreco arextian*; IbarGC *Arexçabaleta*, *ariza*, *ariça*; *RS* 37 *Caden charriac arech obea yrunsi*, 109 *Arech asco dan vrtea besteac baño ez obea*, 279 *Arecherean artera ecandu gaxtoa arçayten da*; Mikol 5v *árbol - arecha*; Iturriza 2-1 *Andramendico jauregui aurreco arextian*, 2-9 *Arizeta*; Sarria 1 *cenbat areche-orri*; Land *haya árbol - arecha*, *hayal*, *lugar dellos - arechteya*; Mendieta *Arechondo*, Mendieta *Aerario arecha - roble*; Mendieta *Koa arechen vean*.

4.2.2.2.11. GAITZ → GATX

Gatx aldaera ez da Euskal Herriko mendebaleko eskusiboa: gogoratzekoa da Mariano *Mendigatxa* bidankoztarraren deitura, bai eta Erronkaribarreko testuetan aldaera arrunta izan dela ere (*OEH*, s.v. *gaitz*). Are gehiago, *EHHE*-ko adibide zaharrena Euskal Herriko ekialdekoa da, ez mendebalekoa: *dompnus Sancius de Lop Gacha* agertzen da 1246an (*EHHE* 289), eta Bizkaiko adibide zaharrenak XIV-XV. mendeetakoak dira: *Johan Peres d’Iturgacha* (1138), *Diego Lopez de Largacha* (1415), *Pedro de Yturgacha* (1468), *heredades de Vasagach* (~1510) eta abar dakartza *EHHE*-k (*idem*). Hona hemen corpusean aurkitutako adibide-sorta bat:

- (i) Bizkaikoak: *Perutxo ordu gachez*; *RS* 144 *Ostenduco zara ta aldi ygaroa oraetan gajta*, 118 *Aldi joana bior[r]etan gasta*, 417 *Arozaren esea zozes, zozes vere gaiches*, 296 *Gach eguiten boc, aynbesteri ychadoc*, 312 *Gach çerexqueoc yñori, ta emac vere a edoçeyni*, 362 *Sayra noçu, asper[r]etan gach eztoçu*, 376 *Lenaengo Andrea da emazte, bigarrena seniquide, arena gach ta calte...*; Mikol 6v *difícil - gacha*, 7v *mal, achaque - gacha*, 10v *etorríco xasu /*

gacha bertati, 13r *Edan daysu ostera, se esteysu gachic*; Kapan 5 *Iauna gacherean libradu*, 36 *erremedioa gach gustiena*, 38 *Zein gacherean esaten doçu libradu gaguiçala gach gustietaric*, 51 *gach eguin ebanac*, 52 *laguneen gachic*, 99 *gach andiren bat*, 99 *eguiten deustela gachen bat...*; Zubia 419 *libradu gaiguzu gaiz gustietatic*; Arzadun 16 *Jauna gacherean*, 23 *jarraituten jacuzan gacheraco*, 34 *gach eguiten deuscuenai*, 35 *Jauna gacherean libradu*, 35 *Libradu gaguizala gach da pelliguru guztietaric*, 36 *Proximoari gach eguiten*; Kardaberatz 5 *libradu gaguizuz gacheric*, 33 *gach eguin deuscuenai*, 34 *gorputceco gach*, 41 *Iñori ez gachic eguitea*, 43 *iñoen gacha aguertuten dabenac...*; Olaetxea 3 *gach da confesetea*, 6 *Gorde naguizu gach guztietaric*, 7 *libradu gaguizuz gacheric*, 43 *Ceñ da gach guztietaric andiena?*, 44 *Inclinauac gachera...*; De la Quadra 5 *iñor ez iltea ez gacheric eguitea*, 6 *gach eguinac*, 41 *Ze gach modu dagoz?*, 42 *gach gustijen artian andijena*, 55 *vere burubari gach eguitea*, 72 *eguin al daguijon gacha...*; Errosariyo 11 *estura eta osteranzeco gach gustiyetan*, 14 *azoté, gach, afrenta eta castigubac*, 66 *pecatubac izan dira causia ain gach andiyena*, 76 *gueure gueizó da gach andiyen medicaya*; Sarria 1 *Gach dala essangozu*, 1 *euqui leizen gach gustiyac*, 1 *zabalduric egozan gach gustiac*, 3 *non gach gustienzat aurquituten zan osasungueiya*, 4 *bera dan baño gachago*, 9 *inori gachic eguin badeuzazu*.

(ii) Arabakoak: Land *a desoras - hordu gachean, tempora vaga*; Lazarg B1:3-4 *amorez gal dadila / gaiz deriztana*, A27:1-2 *Mari Lopezco atrebidea, / ez esan secular gaycic*, AL:1140v *Poeta gacha idoro doçu*, AL:1152v *oneinbat gach ire causaz etorri dan azquero*, AL:1153r *ni ez nator çuey gachic eguiten, daucaçun gach orrendaco remedio emayten baxe*, A1:45 *ceña dan utra librea gacha*, A11:26 *sospecha gachez beteric*, A24:73 *Pobreonençat oy gachic asco*, AL:1143v *Ai, ene desdichadua, / gaichez rodeadua!...*; Betol 2v *libradu guaiguiçuz gach gustiric*, 7v *proximoen gachac*; Iturbe 10-1 *Ascoren damu gaiza*; DotrSerm 2-55 *gure gachensat, balsamu saludablea*, 14-46 *acarreadu euscun gachic asco*, 22-3 *gueure proximui es gachic eitea*, 23-54 *dañu eta gach gravereen bat eiteco*, 27-114 *pecatu mortaleco gachean...*

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: ArrasErrekII 7 *soriac gach[...]* *Asteasun su eldu*; Amil 2 *Jaungoicoac libradu naguian pensamentu gaicetatic*, 2 *Jaungoicoac libradu naguian berba gaicetatic*, 2 *Jaungoicoac libradu naguian obra gaicetatic*; SumBrev 12 *juramentuen aztura gayza*; Peñaflorida GavS 32

Gorroto, errierta / auciac, ta guerra, / gaitzac, gosse, guezur, ta / intencio oquerrac; LoiolaDot 16 gaiz eguin diguenai, 17 animaco gaiz eta peligrugustietatic, 22 Ez gaicic eguitea, 23 ez adicea proximoaren gaizac, 25 flaquezac eta gaizac; OArin 98 inoren onaz gaitz arcea, 130 confessioa izateco gaitza, 141 accio ura gaitça içanagatican ere, 157 Bere proximoaren gaitz andiaz...

4.2.2.2.12. EREITZI → ERETXI

Mitxelenaren (FHV 87) arabera, *ei* diptongoa proposatu behar da *erexi* aldaera azaltzeko, eta hala jaso zuen Oñederrak (1990: 114) ere. Hain zuzen ere, zenbait urteren buruan hori berretsi du Lazarg eskuizkribuak (cf. Blanco & Krajewska inprimategian). Bere horretan zein *on erexi* bezalakoetan zabal dokumentatzen da corpusean, adibideok erakusten dutenez:

(i) Bizkaikoak: frJzum 9 *ene erechian oba da guarda ditean exilic*; RS 242 *Onerechien beguetan gauça ezayric eztan, 327 Onerechiac vrrutirean dacus; Enoj 14 ayn altu onerechia; Mikol 5r amar - on erechi, 10v Dempora baten on oy nerechu, 10v Alcarr on badereche, 10v nigasco on erechia, 12r Peru xauna derechan vategas, 12r bere adisquide derechala Joane xauna, 14v Ori eguinday gozo derechalaco ardaoac; Kapan 39 cer eztaucala derechanac, cer eguingodau, 47 iaquituneen erechian, 72 Zegaiti derecho pecatu veniala, 89 dericheen demporaren baten; Zubia 423 derechan Iesu Christo, 424 lecu oneri derecho Abraanen Senoa; BertsBizk 33-5 agaiti derichu zuri, 6-1 Gauza au ne[u]re yrichian; Arzadun 16 Celan dereche?, 28 ceini Guizon eguinic derechan Jesu-Christo; Urkizu 8 Misterioai derechè Dolorosoac, 9 dereche Gloriosoac, 12 derechè Dolorosoac; 7-1 Or dagoala, derichat; Gandara1764 15 Gustiac... Galanto, erechian; Kardaberatz 47 Guizon jaquitunen erechian, 24 guizon eguin ta derichan Jesu Christo, 26 Limboa derichan lecu, 52 Cegaiti dericho veniala?, 87 Confessiño generala derichan oraciñoa...; 24 Cegaiti dericho aitea lelengo personeari?, 45 Cegaiti dericho veniala?, 80 descansuco lecu, ceñi derichon Paradisua; De la Quadra 7 Guizon adituben erechijan, 24 Vigarrena, zeini derichan Jesucristo, 27 orregaitic pecatuari dericho mortala edo ilcorra, 89 Oneec erraz derichat diriala ecarten memorijara, 122 eranzun biar jacala derichat; Sarria 6 berari alan ezpaderecho vere, 6 Au derechat, guichi bet gorabera, 29 ez evan erechitan leenago icen zana, 39 lutze derechat verori artuteco ordubari, 39 O ze gozo derechedan, 2 Zaqueo erichan Evangeliyoco*

guizonac, 6 celan zeuboi gueiyago derichazuen, 24 ceini erichan Asclepiades, 30 Artuco leuquiala derichazue gueroco edo zarzaroco adisquidazat?, 34 Baderichazue au gauza gogorra dala.

(ii) Arabakoak: Lazarg A24: 119 *Oy oni luce derechanori*, A26:21-22 *banerexqueo / oy lequiola umilladu*, B3:41 *neuri baño oba derechudana*, AL:1151r *derechula utra on*, B11:7 *çuc bere niri derextaçula*, AL:1152r *cegayti nic ezterechut on çuri*, AL:1144v *ceñac utra on erechan Silverori*, AL:1145r *ceñari ereiçan Arcileo*, A7:73 *nola ereiçun ceure icenaz*, A11:3 *doncelleari Lora ereyçan*, AL:1144r *nic çuri on dereiçut*, A4:2 *on dereiztaçun ala ez*, B1:4 *gaiz deriztana*, C1179r-1 *donceleari Lora eriçan*; DotrSerm 1-138 *au desdichedue erechi arren, 3-14 seineri derechan Jesuchristo, 17-71 derecho dagoala seguru, 20-23 Derechasu asco?, 31-101 erechiric dagoala bere borondatean, 33-8 alan nerechan acabadu sala mundue...*

(iii) Gipuzkoako mendebalekoak: SermDom 4r *baderichot vere tempora onetan*, 7r *derichot guraso ascoq obligueetan dabela*, 8v *Dino Philon derichon autore bateq*; Errezil1622 3 *onegui derizu*; Grand tour 5r *ce badeizot eze gure Fraisco eluquiala*, 9v *bana badeizot eze Parisen golpe andia emango dutela*, 10r *bai Antoni ala deizot neri ere*; LoiolaDot 9 *guizon eguinic derizon Jesu Christo*, 26 *Cergati derizte misericordiacoc?*, 29 *Cergaric derizo mortala?*, 34 *Seme guizon eguinari nola derizo?*; OArin 37 *orregatic deritza egun ari Juyzioco eguna*, 71 *ceñari deritçan altaracoa*, 141 *eguiten badab gauçaren bat pecatu dalaco ustean edo iritcian*, 143 *orri deritzo eta damutasun moeta ori da acto contriciocoa...*

4.2.3. Laburpena

4.2.3.1. Atal honetara bildutako adibideek berretsi egiten dute Mitxelenak esana: eremuez eta egileen hautuez egin daitezkeen oharrak ohar, Bizkaiko eta Arabako testuetan arrunta izan da hainbat berbatan *j* bokalerdiak ondoko txistukariaren palatalizazioa eragitea. Testuetan Euskara Arkaikoaz geroztik sistematikoki agertzen da palatalizazioa, baina lehenago ere bazela erakusten dute *EHHE* lanean bildutako toponimo eta antroponimoek: aldaera palatalizatuak ez dira *uri* eta *barri* eredukoak bezain zaharrak (ez dira X. edo XI. mendeetakoak), baina badaude XIII. mendeaz geroztik; beraz, badirudi Erdi Aroaren azken mendeetako berrikuntza dela.

Euskal Herriko mendebalari dagokionez, aztertutako aldaera palatalizatuak Bizkai osoan agertzen dira, eta Arabako testuetan ere indar bizia dute: sistematikoak dira Arabako mendebaleko eta erdialdeko testuetan, baina ez erdi-ekialdekoetan. Badirudi etena Larreatik eta Gasteiztik eskuin irudika daitekeela: gogoan hartzekoa da Lazarraga eskuizkribuko polimorfismoa, Sasiolaren eta Bikuñaren testuak bazter utzita (horietan hizkera-eredua erdialderagokoa baita) ere agertzen dena. Alde batetik, *elexa*, *gox*, *nox*, *bakotx*, *(h)atx* eta *gatx*¹³² aldaerak besterik ez daude Lazarragaren beraren testuetan. Beste alde batetik, *baize* & *baxe*, *naiç* & *nax* eta *eretx*- & *ereitz*- bezalako bikoteak ere badaude. Euskara Arkaikoan ez dago bestelako testurik sortalderago, baina Landucciren hiztegiko B eskuaren, Portalen, Sevillako 1619ko bertsoen, Albenizen eta Gamizen testuetako aldaerak erdialderagokoak dira, ez mendebaleko euskararenak.

Bizkaia eta Gipuzkoa arteko muga zurrunagoa da: jaurreirian, Durangoko eta Markina aldeko testuetan sistematikoki agertzen da palatalizazioa; Gipuzkoako mendebalean, Deba ibarreko testu gehienek ez dute bat egiten Bizkaiko lekukotasunekin, ezta gaur egun ere: ez dago palatalizaziorik Oñatin, Bergaran, Antzuolan, Elgoibarren, Mendaron, Mutrikun eta Deban (Zuazo 2006a: 1009).

Testu arkaikoen artean Garibairen erretrauek bi eredu linguistiko islatzen dituzte ezaugarri honetan: B bildumako formetan palatalizazioa agertzen da, eta A bildumakoetan ez. Halaber, ArrasErrekII laburrean *gatx* agertzen da. Testu horiez geroztik ez dut palatalizazio-zantzurik aurkitu Sasiolaren olerkietan eta Amilletaren dotrinan, Barrutiaren antzerki-lanean eta Bergarako udal-aginduan. Inon agertzekotan, Eibar aldeko testuetan agertzen dira zenbait adibide: aldaera palatalizatutzat jo daiteke 1685eko 9 *aric zapatu goiseco*, 1721eko kopletan 4 *baixe* dago eta *bakotx* aldaera birritan agertzen da 1754ko udal-ordenantzian. Halaber, kokapen zehatzik gabeko 1708ko sermoian bietarik nahasten dira: *baize*-rekin batera *eleja*, *nos* & *nox* eta *deritxot* ereduko adizkiak. Deba ibarretik eskuin, Urolako testu guztien artean behin besterik ez dut aurkitu aldaera palatalizatu, *bakotx* Loiolako dotrinan, eta lehenago ere aipatua dut Mendebalaz gaindiko aldaera dela;¹³³ ez dut pareko aldaerarik aurkitu ez Donostia aldeko, ez Goierriko testuetan.

¹³² Azken hori dela eta, A27 olerkian *gaycic* ere agertzen da; baina, gogoratzekoa da testu hori beste esku batek sakon birmoldatu zuela, eta, hain zuzen ere, birmoldatutako pasartean dago *gaycic* hori; ezin zaio, beraz, Lazarragari berari egotzi (begiratu Bilbao *et al.* inprimategian).

¹³³ Altuna ediziozileak, dena den, bitxitzat jo zuen: “Gipuzkerazko testu batentzat arraroak egiten diren elementuak ere agertzen dira, gainera: *bacochac* ‘bakoitzak’ 1995b: 613; begiratu, halaber, 614. orrialdeko oharra.

4.2.3.2. Forma despalatalizatuen kronologia zehatza ematea zailagoa da, baina zenbait joera ikus daitezke; besterik da joera horiek grafiko hutsak diren ala benetan despalatalizazio-prozesua leialtasunez islatzen duten.

Testu arkaikoetan aldaera palatalizatuak dira arrunt (*nax*, *nox*), eta palatalizazioaren adierazpen zalantzarik gabeak XVII. mende osoan iraun zuen, oro har. XVIII. mendeko lehenengo hamarkadetatik aurrera, ordea, *nas* eta *nos* eredukoak agertzen dira: hala eman zituzten Arzadun eta Urkizu durangarrek, eta Olaetxeak eta Gandarak. Pentsa liteke, beraz, Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernora bitartean gertatu zela despalatalizazioa, eta Kardaberatzen <ff> kontu grafiko hutsa besterik ez dela, ziur asko testu zaharragoetan (hala nola Kapanagarenean) ikusiak eta ikasiak zituelako, beste grafia baten bidez adieraziak badira ere, aldaera sabaikaridunak. Halaber, grafiko hustzat ditut XVIII. mendearen hondarreko idazle batzuen <ss>-ak zein <z>-ak (cf. *nassan* & *naz* & *nas* Sarriaren sermoietan, adibidez) eta ikasizat *noiz* bezalakoak (De la Quadrarenean aurkitu ditut, besteak beste). Gorabehera grafikook ez ziren bateratu eta sistematizatu nabarmen beranduagora arte; Mitxelenak fenomeno bertsuak deskribatu zituen Añibarroz aritzean:

Ésta es la doctrina de Añibarro tratadista,¹³⁴ que no sé hasta qué punto se ajustaba a la práctica de Añibarro escritor. Por lo que se refiere a -x (al menos antigua) en posición final, parece vacilar bastante, ya que en la misma página (20) puede leerse *nax* 'soy', de acuerdo con lo que se encuentra en textos vizcaínos de los siglos XVI-XVII, pero también *naz* y, por otra parte, *nasala*, *banas*, *nasalaco*, *nasanean*, esta vez con *s*, tanto en final como en interior de palabra. (Mitxelena 1978b: 407)

4.2.3.3. Hemen aurkeztutako datuek erakusten dute Bizkaian lehenengo testuetarik zegoela indarrean bokalerdiaren osteko palatalizazioa aipatutako berbetan. Aitzitik, jaurreko testuen corpusean badaude aparteko aipamena eta azalpena behar duten kasu gutxi batzuk.

Alde batetik, *RS 57 Edo eguiaz nay guzurraz, elicatuco nayz* bakarra da bilduma osoan, eta *guzur* aldaerak ez du bide handirik uzten Mendebalaz kanpoko erretraua dela pentsatzeko, Bizkaiko eta Arabako euskarakoa baita (*OEH*, s.v. *gezur*). Hartara, azalbidea ez da erraza: izan liteke arkaismoa eta izan liteke oraindik palatalizazioa hedatu gabeko hizkera baten isla.

Beste alde batetik, IbarraC kronikako *eliça* & *eliza* eta *ariza* & *ariça* aldaerak errazago azaltzen dira, ezagun baita testuan Mendebalaz gaindiko hainbat berba bildu

¹³⁴ Añibarrok *Gramatica vascongada* lanean emandako azalpenaz ari da: "X. Algunas voces se escriben con X no gutural, sino a la latina [sic]: v.g. *orixe*, *auxe*, *orrexec*... En otras voces se puede suplir con G como en castellano: v.g. *egemplo*, *egercicio*... Otras se suplen con dos SS, como *maixua*, *maissua*; *gaixoa*, *gaissoa*; *elixa*, *elessa*, etc." (Villasante 1967: 168).

zituztela egileek (Arriolabengoa 2008: §11.1.1). Halaber, ez bide da kasualitatea Euskara Zaharreko palatalizaziorik gabeko adibide gehienak *Bertso bizkaitarrak* sortan (*baicin*, *noisbait*, azken horretan <is>-k sabaikaria adierazten ez badu) eta Zubiaren dotrinan (*gaiz*) metatzea, testu biak gipuzkoar kopiagile banaren eskuetatik igaro baitziren. Horiez landara azaltzeke geratzen den bakarra Elorrioko XVIII. mendeko ziri-bertsoetako *baice* da, eta Deba ibarreko hainbat eremuri buruz esandakoak aintzat hartuta pentsa liteke berba horretan palatalizaziorik ez zegoela; halere, XVIII. mendeko fogerazioetan aldaera palatalizatuak daude Elorrión: *Elexalde* (1704, 1745 eta 1796), *Arechandieta* (1704, 1745), *Arespacochaga* (1704, 1745, 1796).

4.2.3.4. Bizkaiko testuetan aldaera palatalizatuak sistematikoki agertzen direla esan dut, baina aitortzekoa da lehen begi-kolpean nahastu egin daitekeela irakurlea. Ikuspegi batetik paradoxikoa eman dezakeen arren, denboran aurrerago, nahaste grafiko ugariago aurkitu ditut /ʃ/-ren adierazpenari loturik; zehazki, 1750az geroztik hainbat hautu eta ildo aurki daitezke. Beste ikuspegi batetik, halere, erraz uler daiteke zeren zordun den egoera hori: Lehenengo Euskara Modernora ezkerro, handiagoa da idazleen kontzientzia linguistikoa eta hizkuntzaren ezagutza aktiboa, eta lan batzuetan idazkerari lotutako aholkuak eman nahi izateak hautuak egitera (eta euren lanetan erabiltzera) bultzatu zituen idazle modernoak.

Egia esatera, XVIII. mendearen hasierara bitarteko testu gehienetan ez dago aparteko arazorik /ʃ/-ren adierazpenari loturik: gaztelania zaharreko <x> erabiltzen da gehienbat, nahiz eta <j> eta <g> ere erabiltzen diren gaztelaniaz bereizketa galdu ondoren. Horrek azaltzen ditu, adibidez, testu arkaikoetako *bajen* & *baxen*, *gacha* baina *gajta* eta *elexa* & *eleja* bikoteak:

1450-1620 tartean kokatu ohi da /ʃ/-/ʒ/ bikotearen desagertzea, /x/ bilakatuta, gaztelaraz; alabaina, hots berriak lehengo grafia (<x> batetik eta <j, g> bestetik) luzaro mantendu zituen: legez, *Real Academia Española*ren 1815eko *Ortografía*n <x>ari bakarrik /ks/ taldea adierazteko betebeharra utzi zitzaion arte (cf. Lapesa 1984: 102, 421-424).

Bitarte honetan, badirudi Hegoaldeko euskal idazleek buruhauste franko izan zutela, gaztelarazko grafian haziak izaki eta hari begira nahi eta nahi ez, ez baitute nahiko genukeen bezain ondo <x> (= /ʃ/) eta <j, g> (= /x/) letren arteko bereizkuntza gordetzen (cf. Mitxelena 1978: 393). (Urgell 1987a: 360)

Euskara Arkaikotik Lehenengo Euskara Modernora bitarteko Bizkaiko eta Arabako erdi-mendebaleko testuetan ez dut aparteko arazo grafikorik aurkitu aurreko paragrafoetan aipatzen diren gorabeherez harago; aitzitik, esan bezala 1750az geroztik bestelakoa da egoera, idazle bakoitzaren sistema grafikoa edo ahaleginak ulertu arte behintzat. Bizkaiko testuei dagokienez (Larramendiren proposamenez, begiratu

Mitxelena 1978b: 404, Lakarra 1985a: 247, eta Urgell 1987a: 360-361 eta Urgell 2018: 608-609), 1750-1800 bitarteko idazleak bi multzotan bereiz daitezke: lehenengo multzo batean irizpide bat hautatu eta horri sistematikotasunez eusten dioten idazleak daude, nahiz eta irizpidea ezberdina izan; bigarren multzo batean daude palatalizazioa modu batera baino gehiagotara adierazi zuten idazleak: “Esta vacilación nada tiene de extraño, ya que no es sino el reflejo de una situación general, caracterizada más bien por el desconcierto que por la seguridad” zioen Mitxelenak (1978b: 407) Frai Bartolomeren grafia iruzkintzean, eta badirudi ikuspegi bera erabili behar dela XVIII. mendearen hondarreko hainbat idazleren sistema grafikoaz aritzeko.

Lehenengo multzoan garbiro sartu behar dira, gutxienez, Kardaberatz, Olaetxea, De la Quadra, *Errosariyo santuba* liburuaren egilea (De la Quadra ez bazen), Zolloko galdetegiaren prestatzailea eta *Dotrinazko sermoitegia*-ren egilea. Idazle batzuek eta bestetuek hautatutako grafemak ez dira berberak, baina oro har sistematikotasunez jokatu zuten /j/ adierazteko.

Labur azalduta, Kardaberatzek <ff> digrafoa¹³⁵ erabili zuen Bizkaiko euskaraz emandako dotrinan, nahiz eta urtebete lehenago *Eusqueraren berri onac* lanean hobetsiak zituen *aufe*, *orife*, *afea*, *Elefa* eta *gafoa* ereduak (Altuna & Zulaika 2004: 34; cf., halaber, Urgell 1987a: 361 eta 2018: 609). Olaetxeak ez zion Kardaberatzi jarraitu, eta <x> zaharrari eutsi zion, adibide bakanen batean izan ezik (cf. azala *elefate*). XVIII. mendearen amaierako Bermeo aldeko testuetan, bestalde, <iz> agertzen da hala De la Quadrarenean nola *Errosariyo santuba* lanean despalatalizaziorik gertatu ez den formetan (*baizen* edo *eleiza* daude bietan, beraz); despalatalizazioa gertatu den kasuetan, bestalde, poligrafia agertzen da, bai eta forma etimologikoen edo orokorragoen aldeko hautua ere: *nas*-ekin batera arrunt dira *naz* eta *naiz*, eta *nois*-ekin batera *noiz* ere badago. De la Quadrak sinatutako testuen eta *Errosariyo santuba* anonimoaren arteko bat etortzeak are argiagoak dira afrikatu palatalaren adierazpenean; izan ere, <ch> arruntarekin batera bietan aurki daiteke *bacoitzián* aldaera, bai eta <tch> trigrafoa ere (*bacotch*-). Hautu grafiko horiek indartu egiten dute, nire ustez, *Errosariyo santuba*-ren prestatzailea De la Quadra izan zitekeelako edo prestatzaileak De la Quadraren lana ezagutu zezakeelako ideia (cf. Bilbao 1997: 255 eta hemengo §4.8.2.3.10). Aurreko lanez kanpo, Zolloko galdetegiaren prestatzaileak <s>-ren bidez adierazi zituen txistukari lepokari eta afrikatuak oro, eta /j/ ere <s>-ren bidez adierazi

¹³⁵ Nik <ss> eman dut lan honetara bildutako adibideetan.

zuen (3r *elesate*, 4v *elasa*), *kaxa* berban izan ezik (<sh> digrafoa agertzen da birritan). Halaber gertatzen da *Dotrinazko sermoitegia*-n (cf. Ulibarri 2015: §4.2.1.4): <s>-ren bidez adierazten da /ʃ/ sistematikoki.

1750-1800 bitarteko idazleen artean bada bigarren multzo bat, non ez den aurreko lanetan bezainbesteko sistematikotasunik ikusten txistukarien adierazpenean. Badirudi idazle batzuek ez zutela lortu sistema grafiko tinko bat sistematizatzea, nahiz eta erabilitako aldaerek erakusten duten beste euskalki edo testu batzuk ezagutzen zituztela. Aintzat hartzekoa da, nolana ere den, kasu batzuetan hamar edo hogeituro urteko aldearekin idatzitako testuak direla, eta denbora-tarte horretan alda zitezkeela idazleen irizpide eta ohiturak. Gandararen testuak arakatuta, *baice* eta *basen* bezalako bikoteak aurki daitezke, adibidez; Sarriaren testuetan, bestalde, *eleiza* & *elasa* eta *naz* & *nassan* & *naiz* agertzen dira: bi idazleok beste testu eta euskalki batzuk ezagutzen zituzten, eta kasu batzuetan eredu linguistiko orokorragoetara jo zuten. Adibideak gutxi izanagatik, ildo beretik azal litezke Apoitaren *elasa* eta *eleisiaren*: idazle ikasiak dira denak ere, eta XVIII. mendearen amaieran Bizkai aldean hizkera literarioa sortzeko gorabeheren gorpulean ulertu behar dira poligrafismoa eta gorabeherok; aintzat hartzekoa da, arestian esandakoarekin bat, XIX. mendeko bizkaitar zein gipuzkoar idazle kanonikoen lanetan lortu gabea zela tinkotasuna eta adostasna: “Un siglo más tarde, no había todavía una fórmula que contara con un consenso suficiente” zioen Mitxelenak (1978b: 405) Agirre Asteasukoaren, Mogelen, Frai Bartolomereren eta Añibarroren hautuen berri eman aurretik.

4.3. Bokal sudurkariak

4.3.1. Sarrera

Atal honek laburra izan behar du, ezinbestean, tamalez informazio ziur gutxi erabil daitekeelako bokal sudurkariak Euskal Herriko mendebalean izandako bilakaera eta iraupen zehatza deskribatzeko. Funtsean, orain arte gaiaz arduratu diren ikertzaileen ideia nagusiak sintetizatu ditut, azken urteotan eginiko aurrerapenak jasoaz; ondotik, Euskara Arkaikoko zenbait gorabehera grafiko argitzen saiatu naiz eta, azkenik, azken hamarkadan agertutako datu berriak gehitu ditut.

4.3.2. Ezaugarriaren deskripzioa

4.3.2.1. Euskara Batu Zaharraz geroztik bokalismoaren esparruan gertatutako aldaketen artean dago bokal (eta diptongo) sudurkarien galera (ia) orokorra: ezagunenez, gaur-gaurkoz Zuberoan eta Amikuzen (Camino 2016a: §7.3.1.3.3.6 eta §7.3.1.3.3.7) besterik ez dira gordetzen, nahiz eta XX. mendean erronkariak eta XIX.ean ekialdeko behe-nafarrerak ere bazituzten (Bonaparte 1991 [1869], *FHV* §1.2).

4.3.2.2. Bokal sudurkarion jatorria dela eta, sudurkari *lenis*-a galdu aurretik alboko bokalak sudurkaritu zituela aipatu izan da: “la nasalidad de las vocales no es en la mayor parte del territorio más que un rasgo no pertinente, determinado automáticamente por el contacto con una consonante nasal” zioen Mitxelenak (*FHV* 38), eta hari jarraikiz aritu zen, besteak beste, Pagola (1998: 167). Hondar urteotan, aldiz, xehetasun gehiago eman ditu Egurtzegik sudurkaritzeaz euskararen barneko bilakaeratzat joaz:

Thus, nasalized vowels are not “created” after the loss of a nasal consonant, given that they were already nasalized prior to the consonant drop, at least phonetically (cf. Ohala 1993: 248). It is typically only after the loss of the nasal consonant that they become contrastive segments and an opposition between oral and nasalized vowels arises.

In Basque, contrastive nasalization arises in * V_nV sequences. First, all instances of intervocalic /n/ systematically became a nasalized aspirate / \tilde{h} / around the beginning of the Middle Ages (cf. Igartua 2008; §4.2.3). Later, after the loss of the aspirates /h/ and / \tilde{h} /, vowels surrounding the nasalized aspirate / \tilde{h} / became contrastively nasalized. (Egurtzegi 2014: 148)

Aldaketa fonetikoaren datazioa dela eta, Mitxelenak (*FHV* 247) akitanieraren ondokoa izan behar zuela ondorioztatu zuen, idazkунetan *Seni-* agertzen baita;¹³⁶ halaber, XI. menderako gauzatua zela azaldu zuen, besteak beste *Aceari* antroponimoa aipatuta. Are zehatzago, Lakarrak (2011: §4.4) Aitzineuskara Modernoaren eta Euskara Batu Zahararen artean kokatu zuen $n > \tilde{h}$. Horretarako, Chambonek eta Greubek (2002: 473, 477) aitzingaskoirako proposatutako $n > \emptyset$ aldaketa eta datazioa (511. urtea) hartu zituen gogoan, eta substratuaren eragina aipatu zuen: aldaketa hori euskal substratuaren eraginez gertatu bazen, aldaketak lehenago behar zuen gauzatua euskaraz.

4.3.2.3. Bokal sudurkari horiei loturik, bestalde, Euskal Herriko mendebaleko eta erdi-ekialdeko hainbat hizkeratan berrezartzeak gertatu ziren *i* bokalaren testuinguruan, eta hedatuena $-\tilde{V}\tilde{i}\#$ diptongo sudurkarietakoa da (Ulibarri 2015: 144). Hortik sortuak dira, hain zuzen ere, *sein*, *artzain* edo *usain* aldaerak, erdialdeko hizkera batzuetan *-n* berrezaririk ez dutenak, *sei*, *artzai* eta *usai* aldaera ezagunak emanez. Are gehiago, ezagun da Mendebalean beste berrezartze bat ere gertatu zela: “Mendebaleko

¹³⁶ *Seni* baina *lohi* irregulartasunaz, begiratu Ariztimuño (2018).

hizkeretan gainera, $i\tilde{V}$ hiatuetan sudurkaritasuna mantendu zen kontsonante sudurkari konpentsatorio bat gehituz eta $iV > i\tilde{n}V$ sortuz: $dîô > diño$, $sardîâ > sardiña$ edo $-zìone > -zìôê > -zìñoê$ adibide usuetan dugunez (cf. *FHV* §1.2)” (Ulibarri 2015: 145). Hain zuzen ere, *Dotrinazko sermoitegi*-ko adibideak aztertzean berrezartzearen faseak identifikatu zituen Ulibarrik (*idem*, 146): lehenbizi (\tilde{V}) $i+V$ hiatuetan gertatu zen (*seiña*), eta ondoren mugagabea (*seiñ*).

4.3.2.4. Websterrez geroztik behin baino gehiagotan aipatu da sudurkaritasunaren adierazpen grafiko zaharrena Aymeric Picauden hiztegitxoko *ardum* eta *ar[r]aign* berbetakoa dela (egiazki lehenengoa aipatu zuen Websterrek), horietan <m>-k eta <gn>-k sudurkaritasuna islatzen dutela zabal onartua baita (cf. Webser 1881: 125, *TAV* 52, Pagola 1998: 168, 18. oin-oharra, Egurtzegi 2014: 150, 104. oin-oharra). Halaber, Mitxelenaz (*FHV* 38) geroztik behin baino gehiagotan aipatu dira XVI. mendean Madariaga kaligrafoak eta Garibai historialariak emandako azalpen laburrak, Euskal Herriko mendebalean gizaldi hartan bokal sudurkariak zeudelako froga garbia baitira, eta horiekin hasiko dut hurrengo atala.¹³⁷

4.3.3. Testuetako adibideak

4.3.3.1. Madariaga bizkaitar kaligrafoak horrela deskribatu zuen sudurkaritasuna (letra etzanak neureak dira [EZ]): “La *N*, alguna vez se pronuncia escondida en las narizes, como en *oracio* \wedge , *Ardaoa*, y para de notar aquella *n*, se deve sobreponer una cifra desta manera a modo d nariz \wedge . Todas las otras letras guardan el mismo orden q las latinas y vulgares” (1565: 108). Madariagak berak, ordea, *Iaicoa* eman zuen bere liburuan bertan, eta horrek zalantzak eragin ditu, forma horretan sudurkariak ote dauden: “Honezkero ziurra ez dena bere ahoskera da: bere horretan irakurri zen, ala *Iãicoa*, bokal sudurkariz? Bizkaitarraren lekukotasunak bigarrena hobetsarazi behar, guk uste” (Ulibarri & Urgell 2019: 498).¹³⁸

Berriki argitaratutako lanean, hain zuzen ere, euskararen gramatizazioaren ikuspegitik Madariagari garrantzia handiagoa eman beharra aldarrikatu dute Ulibarrik

¹³⁷ Egurtzegiren arabera, ordea, banaketa-eredu ezberdinak egon dira Euskal Herrian; zehazki, bokal sudurkarien banaketa bera da Bizkaiko eta Erronkaribarreko euskararen, baina ez bi horien eta Zuberoako euskararen artean: “There are four main differences between the distribution of nasalized vowels in Archaic Bizkaian and Roncalese and that found in Zuberoan. First, the opposition does not need to be restricted to the stressed syllable. Second, nasalized vowels are common in the first syllable of the Word. Third, nasalized diphthongs are maintained. Fourth, the nasalized vowel inventory is different: /ĩ, ê, ã, õ, û/ in Archaic Bizkaian and Roncalese vs. /ĩ, ÿ, ã, û/ in Modern Zuberoan” (2014: 161).

¹³⁸ *Jaico* aldaera Lazarg eskuizkribuak ere badakar: AL:1153v & AL:1154v *jaicoac* eta AL:1151v *jaicoari* (cf. Blanco & Krajewska inprimategian, s.v. *Jaiko*).


eta Urgellek; are gehiago, arratiarraren eragina proposatu dute ondoko hamarkadetan bokal sudurkariak grafikoki bereizi zituzten Garibai eta Kapanagarengan:

Ildo beretik, filologian kasualitateak ez direnez existitzen, egiantzekoa da oso Garibaik ere *Honra de escribanos* ezagutzea, hogeita zazpiren bat urte geroago bokal sudurkariak deskribatu eta diakritikoarekin (*Milia Lasturko*-ren eskuizkribuan *makron* bat da, hots, marra luzea) markatu behar zirela erabaki baitzuen (cf. Lakarra 1996: 19-20). Eta jakina, ez dago azalpen hobegorik mende oso bat beranduago Kapanagaren *Exposición breve de la doctrina christiana...* dotrinan (Bilbo, 1656) bokal sudurkariak marka zitezen. (Ulibarri & Urgell 2019: 507)

4.3.3.2. Garibai historialariaren errefracuen B bilduman, halaber, bereizi egiten dira *miña* “lengua” eta *mina* “dolor y amargura”. Hala transkribatu zuten pasartea Zubiaurrek eta Arzamendik (1976: 67; letra etzanak neureak dira [EZ]):

‘Aguina’ llaman al diente, y ‘lataaguina’ á la muela. Aquella dición ‘*miña*’, que significa ‘lengua’, se ha de pronunciar algo con las narizes, supliendo la ‘n’ de la tilde con ellas, cosa muy usada en esta lengua en muchas diciones, porque si se escribiese con la ‘n’ diría ‘mina’, que es ‘dolor y amargura’.

Aitzitik, eskuizkribuak ez dio *miña* ‘lengua’. Hori ediziozileek berreraikitako forma da, ez eskuizkribuaren kopiagileak emandakoa. Eskuizkribuak <Mĩa> ematen du, Garibairen azalpenarekin bat (*supliendo la ‘n’ de la tilde con ellas*):




Bestalde, hala transkribatu zuten Zubiaurrek eta Arzamendik eurek (1976: 58) beste errefracu eta pasarte hauek (letra etzanak neureak dira [EZ]):


Sara-ac urr-ago, *Arrayn-ac* estu-ago.

Quiere dezir: Quanto mas se acercan las redes, tanto mas se afligen los peces. ‘*Arrayna*’ se ha de pronunciar con las narizes sonando la ‘n’ de la tilde, porque ‘arrania’ no quiere dezir nada, y ‘*arrayna*’ significa pescado en general, y á los peces pequeños llaman ‘eçcaluac’ en plural y ‘eçcalua’ en singular.

Aitzitik, kasu honetan ere eskuizkribuak ez dio *Arrayn-ac*, ez eta *Arrayna* ere. Eskuizkribuak <Arrāy ac> ematen du lehenengo kasuan, eta <Arrāyā> bigarreanean eta hirugarrenean, nahiz eta Garibaik berak aipatzen duen tileta (*sonando la ‘n’ de la tilde*):



Hirugarrenetik, B24 errefracuan *yguny* transkribatu zuten Zubiaurrek eta Arzamendik (1976: 71). Aitzitik, hirugarren kasu honetan ere testuak ez dio hori, ezpada <ygũy>:



Adibide honek ondorio larriagoak ditu. Izan ere, Irigoienek <yguny> transkripzioa baliatu zuen Garibairen *Compendio historial* (1571, 1628an berrarg.) liburuko *Enusquera* aldaeraren paralelotzat <n>-k sudurkaritasuna markatzen zuela defendatzeko: “Después de esto no podemos sustraernos a pensar que en lo que se refiere a la forma publicada por Garibay por dos veces consecutivas como *enusquera*, de cuya obra corrigió personalmente las pruebas de imprenta *in situ*, estamos con toda probabilidad ante otro caso de nasalidad vocálica” (1997 [1990]: 204).


Badirudi XIX. mendeaz geroztik beste ediziozile batzuen lanetatik ezinbestean¹³⁹ edan duten ediziozileek oharkabea eman izan dituztela aldaera <n>-dunak. Lakarrarekin bat (1986a: 36-37) Michelen testuari jarraikiz aritu zen Urkixo (1919: 15, 54 eta 71): Michelek (1847) dakartza erretrauok <n> eta guzti, nahiz eta jatorrizko eskuizkribuari buruzko zenbait oharretan ikus daitekeen eskuizkribuak besterik dakarrela: “*Miña*, qui, dans le manuscrit, est figuré *mña*, doit s’écrire *mihia* (...) *Arraynac* et *arrayna* sont écrits, dans l’original, *array ac*, *arraya*, avec une tilde au-dessus de l’y” (Michel 1847: 352); *yguny*-z, berriz, beste hau zioen: “A la place d’*yguny*, je préférerais *ygūn*, qui signifie *avoir en horreur* (*idem*, 351).

Beste alde batetik, Michelek eta Urkixok B eskuizkribuko formak emateko modua erreproduzitu besterik ez zuten egin Zubiaurrek eta Arzamendik, euren artikulua idatzi zen sasoian ezezaguna baitzen B eskuizkribua zein gordailutan zegoen; Urkizuk (1989) aurkitu eta argitaratu zuen, eta Urkizuk berak eskuizkribuaren kopia bat eskueran zuela aintzat hartuta ulergaitz egiten da nolatan ez zion eman Irigoieni Urkixoren eta eskuizkribuko testuen arteko ezberdintasunen berri; cf. “Poco después le llamé por teléfono [Urkizuri] preguntándole si podía decirme cómo estaba escrito *yguny* en el refrán a que nos hemos referido, y me respondió con toda amabilidad que se leía *yguny*, tal como Julio de Urquijo la editó, si bien llevaba un signo sobre la *-ñ-*” (Irigoien 1997 [1990]: 204).¹⁴⁰


¹³⁹ B eskuizkribua galduta egon zelako Urkizuk (1989) Parisen berraurkitu zuenera arte.

¹⁴⁰ Hain zuzen ere, Irigoienek aipu horri jarraikiz okerbidean sartu zen, ezustean eta nahi gabe, Pagola (Irigoien bera aipatzen du iturritzat); cf. “Azkenik, aurreko bi notazioak biltzen dituen lekukoa erretrau batetan agertzen den *ygūni* hitza izanzen litzateke, non *n*-az gain sudurkariaren zeinua ere ipintzen baita” (1998: 169).

Garibairen errefracuetatik kanpo, halaber, ziur asko ez eskuizkribua baina Guerraren edo Urkixoren edizioak baliatu zituelako, Mitxelena *ardao* eman zuen Milia Lasturkoren eresiaren edizioan (TAV 74), nahiz eta eskuizkribuak <ardão> dakarren.¹⁴¹ Hona hemen ateratako argazkia:



Aurreko adibide guztiek irizpide bateratu bat islatzen dute: Garibairen eskuizkribuen kopietan ez dago bokalen sudurkaritasuna adierazten duen <n>-rik *enusquera*-tik kanpo, ez eta Madariagak proposatutakoaren pareko zeinurik ere: nahiago izan bide zuen, dirudenez, bokal sudurkarien gainean marratxo bat erabili. Alabaina, markatze hori ez da sistematikoa, edo bada marrarik gabeko adibiderik ere; balirudike errefracu guztiak ez direla hizkera berekoak edo A eskuizkribuaren kopiagile gipuzkoarrak eragina izan zuela: A11 errefracuan *Arçaiac* (eta *gastac*, ez *gastaeac*) ematen da, A17-an *Arraiac* ematen da eta A53an *miia*, bokalen gainean sudurkaritasuna adierazten duen ikurrik gabe; aitzitik, A27 errefracuan markatu egiten da sudurkaritasuna *ardaõ* berban (horrela dakarte, bide batez, bai Urkixok –1919: 23–, bai Zubiaurrek eta Arzamendik –1976: 60–).¹⁴² Hona hemen adibide biak parez pare:



Aurreko egoerak (alegia, sudurkaritasuna markatzeko <n> erabiltzea XX. mendeko ediziotegileen edizio-irizpide besterik ez izateak), bestalde, ez du ukatzen *enusquera*-ko <n>-ak sudurkaritasuna markatzen zuenik; Garibairen *Compendio historial* lanaren bigarren edizioa (1628) kontsultatu dut eta hala dakar testuak birritan. Kasu honetan, baina, aintzat hartu behar da testu inprimatua dela, eta ziur asko

¹⁴¹ Garibaik bi *ardão* dituela aipatu zuen Pagolak (1998: 169), zehaztapen gehiagorik eman gabe; beraz, badirudi MLastur-en eskuizkribua ezagutzen zuela.

¹⁴² Beste berba batzuetan bestelakoa bide da azalpena: “Los dos manuscritos escriben de la misma manera dos palabras: *baya* «pero» (guip. etc. *baña*) y *burnia*- (vizc. *burdiña*, a. guip. *burnia*). En el segundo caso es probable que se hubiera perdido la nasalidad de *i* al ser transferida a la consonante anterior. En cuanto a *baya* es también de suponer lo mismo, en vista de que Cc 79 no escribe **bayna* o algo parecido, pero la prueba adicional que podría sacarse de la explicación que da sobre esa palabra no es concluyente. Dice así: «*Baya* es aquí adverbio, y en otras partes es nombre y significa *prenda*». En efecto, *bai* «prenda», en otros dialectos *bahi*, parece ser un postverbal de *ba(h)itu* < **banitu*, cf. rom. *banido*.” (Mitxelena 1958: 218, 22. oin-oharra).

inprentako gorabeheren edo eskura zeuden tipoen ondorio besterik ez da sudurkaritasuna adierazteko <n>-ren irtenbidea.

4.3.3.3. Madariagaren eta Garibairen erabilerez harago, oro har ez da bokal sudurkariak grafikoki markatzeko tradizioz egon (Pagola 1998: 169), eta horrek nabarmen zailtzen du ikerketa, askotan ezinezkoa baita ebidentzia negatiboaren zergatia argi ikustea; alegia, idazleen hizkeran existitzen ez zirelako edo idazleek bokal sudurkariak grafikoki adierazteko tresnarik/ohiturarik ez zutelako.

Grafiaz harago bokal sudurkarietaz gutxienezko segurtasunez hitz egiteko irizpide bakarra da ustez bokal sudurkaria duten forma zaharrek gerora zer-nolako forma hartu duten aztertzea; hots, *burdia* ‘burdina’ bezalako forma bat agertzen bada XVI. mendean eta *burdina* XVII.etik aurrera (RS-n eta Mikol-en gertatzen den legez, adibidez), pentsatzekoa da lekukotasun zaharrenean bokal sudurkariak daudela; irizpide hori baliatu izan da, hain zuzen ere, mendebaleko zenbait testutan sudurkaritasuna proposatzeko (cf. Mitxelena 1958: 219, Lakarra 1996, Aginagalde & Urgell 2012: 25, Mounole & Lakarra 2018: 417).

4.3.3.4. Euskara Arkaikoaz denaz bezainbatean, Madariagaren eta Garibairen testuetatik kanpo MSículo testuan *vino - ardáoa* dago behin, baina testuan arrunt dira tiletak eta *pescado - arraya* ere badago; beraz, ez dirudi sudurkaritasunaren markatze berezizat har daitekeenik. Hain zuzen ere, arestian esandakoarekin bat, markarik eza da arau 1600 aurreko testu laburretan, nahiz eta aipatutako irizpideari jarraikiz sudurkaritasuna proposa litekeen honako testu eta adibide hauetan: ArrasErreI 4 *trajioe baten azmaçean*, 5 *euroen artean dioela*, 6 *erre deçagu Mondragoe*; IacobGeb 2 & 4 *eguiia al dioc, Eneco*; ErrodZar 3 *çaratearrac galdu ei dabe Marquia-Çuya çeculaco*; FrantzOrd 4 *Sant Franciscuaren ordeacoa*; frJZum 9 *orco miiocayti*, 26 *yoen azpian* ‘inoren azpian’; SarasketaHiz *burdia* (Aginagalde & Urgell 2012: 25).

Horiez landara, lekukotasun garaikideetan agertzen diren markak direla-eta Sandailia-ko adibideak ere aipa litezke: 5-6 *Ardao zuri, ardao Madrigalga / Ardao zuria Mendoza gana doa*.

Testu laburrenietatik harago, RS bilduman arrunt eta ugari agertzen dira bokal sudurkariak:¹⁴³ 3 *Aberassoc jaya daude, chiro gajooc veti neque, auçooc vere yguy daude veti dabilena esque*, 15 *Balizco oleac burdiaric ez*, 28 *Daguenileco euria ardaoa*

¹⁴³ RS-ri loturik daude Plentziako Torrebarri dorretzeko armarriko hiru esaldietarik bi, eta horietako bat da *Muxica, arerioacaz aguica*. Azken berba horretan ‘haginka’ irakurri izan da (cf. Zuloaga 2011b: 59 eta hurrengoak) eta horrek bokal sudurkaria proposarazten du; aitzitik, baliteke *agica* hori *agiraka*-tik ‘zarataka, oihuka, errieta egiten, istiluka’ eratorria izatea.

ta ezta, 46 *Vstrall onac ardao ona*, 52 *Vnayoc arri citean*, *gastaeoc aguir citean*, 113 *Ama onac ez dio nazu*, 128 *Andrea ta sardia ausetan auspas*, 169 *Mi gestoa da minago mintea baño*, 242 *Onerechien beguietan gauça ezayric eztan*, 261 *Miyac çe bez buruen calte*, 340 *Gueyaco dio daquiana baño*, 386 *Arzayoc arri citea*, *gaztaeoc aguir citea*, 393 *Edoçeynec edatostean dio vere gardia*, 455 *Ez ardao vicshszdunic*, *ez andra bizarsuric*.

Arabako testu arkaikoez zaila da ezer ziurrik esatea. Hau zioen Mitxelenak Landucciren hiztegiatz:

En cuanto a la variedad que representa nuestro vocabulario, aunque por no haberse continuado *in situ* hasta nuestros días no podemos inferir nada con seguridad, parece por el contrario probable que la nasalidad subsiguiente a la desaparición de *n* intervocálica hubiera dejado de existir: resulta difícil de otro modo que al menos alguna vez no se intentara representarla en la escritura. (1958: 219)

Aitzitik, Bizkaiko eta Gipuzkoako mendebaleko iturrietan eta are Arabako ipar-sartaldeko XVIII. mende amaierako DotrSerm testuan adibideak daudela ikusita, Lazarragaren euskaran bokal sudurkariak baziratekeela proposatzen du Mounolek (inprimategian; begiratu, halaber, Mounole & Lakarra 2018: 417), nahiz eta Larreakoak ez zituen grafikoki adierazi. Zehazki, honako adibide hauek aipatzen ditu: AL1152r *ygui*, A10:7 *miiiau*, A27:41 *miiric*, A24:67 *ardao*, AL:1151v *baceequi*, A7:99 *ezpaceeguit*, A26:59 *ceeguidan*, B3:69 *beaça*, A14:95 *beaçatu*, AL:1151v & AL:1153v & A14:18 & A14:34 & A16:14 & A17:43 *catea*, B30:16 *doea*, A24:66 *faisaeçat*, A23:6 & B2:1 *ipui*, A6:31 & A11:3-4 & A19:37-38 *morroe*, AL:1146r & AL:1146v & AL:1147r & AL:1147v *arçai*, A25:53 *seychoa*, B3:13 & B21:62 *sei*, A23:6 *ipuiçarric*, A25:53 *array* eta B2:12 *arraitan*.

Beste alde batetik, Mendieta aiararraren *Aerario de hidalguia* lanean *ainsta* agertzen da, bokal berrezarriarekin:

Esta variante *ainsta*, por lo que conocemos, es el único testimonio con nasalidad que encontramos en el euskera occidental (cf. *OEH* s.v. *ahizpa*), pero es fácilmente explicable, ya que el étimo de la palabra es **anizpa*, en donde, por una evolución ampliamente documentada (*FHV* 247 y ss.), la *n* intervocálica dió paso a una aspiración, dejando la nasalidad en las vocales (en nuestro caso **âhîzpa*): así, en algunas ocasiones esa nasalidad se ha restablecido como en el salacenco *ainzpa* o en nuestro *ainsta*. Cf. *anztu* (*OEH*, s.v. *ahaztu*), que procede de **anaztu* > **âhâztu* > **ââztu* > *aaztu* o *anztu*. (Ulibarri 2013a: 182-183, 9. oin-oharra)

4.3.3.5. Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera bitarteko trantsizio-garaian bokal sudurkarien gainbehera etorri (edo ia erabat gauzatu) zen; dakidala, mendebaleko testuen artean Kapanagaren dotrinan besterik ez ziren adierazi bokal sudurkariak, eta ez sistematikoki: <ii> *erraçoëa* eta 99 *erraçoã бага* (baina 46 *errazoaric*, 82 *erraçoara*,

111 *erraçoa* eta 150 *ERRAZOAREN*), 87 *doeã* (baina 17 *Iaunaren doeac*, 17 *Doea sabiduriena*, 17 *Doea, entendimentuena*, 17 *Doea, consejuena*, 17 *Doea, zienziena*, 17 *Doea, fortaleceena*, 17 *Doea, piedadeena*, 17 *Doea, Iaungoicoaren vildurrena*), 134 *arançazco coroëa*, 139 *Coroëa buruan*, 139 *Coroëa arançazcoa* eta 97 *gaztaëa edo arrauçaac* ditu, eta hala aipatu izan dira behin baino gehiagotan (Mitzelena 1958: 219, Pagola 1998: 169, Mounole & Gómez 2018: 497).

VJesus-ez ari zela, Kapanaga garaikidearen sudurkariet zehaztapen gehiago eman zuen Ulibarrik: “[Kapanagak] *i* ondoan palataltze konpentsatorioa baitauka (*seña, erreguiña, diñogu*), bestelako testuinguruetan (*erraçoëa, coroëa, doëac*) bokal sudurkariak adierazita dauden bitartean” (2010a: 55-56, 18. oin-oharra). VJesus-i berari dagokionez, *i* ondoren garatua zen sudurkari berrezarria, baina badirudi Ulibarrik ez zuela guztiz baztertu bokal sudurkariak irakurri beharra bestelako zenbait adibidetan: “gauzak ez dira hain garbiak *i* testuingurutik kanpoko adibideetan, gaur egungo hizkeretan kontsonante sudurkaririk ez daukaten baina historikoki bokal sudurkaria behar duten hitzetan: *ardahoa, Capitaë, Ordeea...*” (2010a: 55).

Aurreko bien garaikide Mikoletaren eskuizkribuan lehen begi-kolpean zalantza eragin lezake hiztegiko *comadreja - oguigastáeá* sarrerak, <á> dela eta; nolana ere den, aintzat hartu behar da bokal sudurkaririk proposa ezin daitekeen kasuetan ere arrunt agertzen dela <á> hori: cf. 6v *artezá* edo 6v *chuá*. Bestalde, lehen aurreratu legez, RS-n edo Zumarragaren bokal sudurkariak bide zituzten formak <n>-z agertzen dira Mikoletarenean: 6v *hierro, metal - burdiña*, 6v *fea cosa - esaña*, 6v *fealdad - esaynyasuna*; 8r *nadie - esynior*. Bide batez, 14r (birritan) *launti* ere badakar Mikoletak <n> berrezarriarekin eta etimologiak eskatzen duen forma zaharragoaren (**lāu*) arabera deklinatuta, baina hiztegian 7v *llana cosa - laua* dakar (ez ***launa*) (cf. FHV 125 eta Ariztimuño 2018: 24).

3.1.5. DotrSerm aztertzen ari zela, aurkikuntza harrigarria egin zuen Ulibarrik (2015: §4.2.16): dioenez, *sei, oi, arrai, mi* eta *usei* berbetan txandakatu egiten dira <n> duten formak eta <n>-rik gabekoak; txandakatzea, ordea, ez da ausazkoa: ez dago <n>-rik hitzak mugagabeen ematen direnean edo ondotik hasieran kontsonante bat duten atzizki bat dagoenean, baina <n> dute ondoko atzizkiak hasieran bokala duenean: *seitasun*, baina *señe* eta *useire* baina *useiñe* agertzen dira, beraz. Ulibarrik (2015: 146) dioenez, ez dago argi esaterik Aiara aldeko euskaran mugagabeko formak sudurkari ziren ala alternantziak sudurkaritasuna gorde zen azken txandakatzea islatzen duen (kronologia dela-eta, bigarrenaren alde egiten du Ulibarrik berak). Batera nahiz bestera,

bokal sudurkarien arrastoa zalantzarik gabea da testuan: arkaismo gisa oraintsu arte ezagutu edo uste izan dena baino mende eta erdi edo bi mende gehiago iraun zuten bokal sudurkariet bazter-hizkera batean behintzat.

4.3.4. Laburpena

Aitzineuskara Modernotik Euskara Batu Zaharrera bitartean sortutakoak izan eta mendebalean ~1600-1650era arte (hots, hamar-hamaika mendez) iraun zuten arren, grafikoki hala adierazi zirelako egiazki bokal sudurkarizat jo daitezkeen adibideak eskasak dira: idatziz halakoak ez markatzeko ohiturak arestian ere aipatutako mugak ezartzen dizkio ikertzaileari, eta han-hemen idazle batek eta bestek idatzitakoak besterik ezin ditu erabili gehienez ere fenomenoaren hedadura geografikoaz ikuspegi zatikatua lortzeko.

Madariaga aitzindariaren eta Garibairen azalpenek bermatzen dute mendebalean bazeudela bokal sudurkariak 1600 baino lehen, baina Euskara Arkaikotik Euskara Zahar eta Klasikora bitartean ahuldu eta desagertu bide ziren hizkera batzuetan behintzat: *RS* eta Mikoleta parez pare jarrita eta inguru bertuko euskara islatzen dutela onartuta, aldea ikusten da batetik bestera, nahiz eta XVII. mendearen erdialdean Durango aldea gordetzaileago agertu, Kapanagaren adibide ugariagoek bermatzen dutenez; gordetzailetasun hori norainokoa zen, ordea, ezin zehatz daiteke, adibideak hain dira bakanak.

Eremu gordetzaile zalantzarik gabekoen artean dago Aiara aldea, bestalde. XVIII. mendearen amaieran eta Lehen Euskara Modernoaren dinamiken gurpilean bete-betean kokatu beharreko DotrSerm sermoi-bilduman Ulibarriren (2015) begi zorrotzek aurkitutako txandakatzeek argi islatzen dute orduan bazter-hizkera zen hartan sudurkaritasunaren adibideak daudela; hots, oraintsu arte ziurtasunez aipatu izan dena baino (ia) bi mende luzarago iraun zutela bokal sudurkariet bazter-eremu jakin batean behintzat.

4.4. $a + a > ea$ disimilazioa eta horrekin lotutako zenbait fenomeno

4.4.1. Sarrera

Mitxelenak (*FHV* 90) zioenez, tinbre bereko bokalak elkartzean elkartutakoak soiltzea da emaitza orokorra euskal hizkeretan, nahiz eta kokaguneak bereizi egin

behar diren. Badirudi berba barruan hiatoak hausteko irtenbide zaharrena dela bokal-soiltzea, irtenbide orokorra baita: cf. *ahate* > *aate* > *áte* edo *ahari* > *aari* > *ári* hasperena galdu den hizkeretan.¹⁴⁴ Are gehiago, soiltze hori berba barrutik hedatu eta morfemamugetan gertatu da hainbat hizkeratan, nahiz eta *a.a* zaharraren arastoek luzaroago iraun duten eremu batzuetan. Hain zuzen ere, amaieran *-a* duten berbei artikulua mugatua eranstea sortzen diren fenomenoek interes berezia dute bariazioaren ikerketarako, ez baitira eremu guztietan berberak: Erronkaribarren eta Zuberoan uzkurdua zaharra islatzen dute *alába* (mugagabea) & *alabá* (mugatua) eta *alhába* (mugagabea) & *alhabá* (mugatua) bikoteek. Zaraitzuko euskarak, bestalde, *alaba* (mugagabea) & *alabara* (mugatua) bereizten zituen (analogiaz, agian, Caminok –2008b: 159– proposatutakoaren arabera).¹⁴⁵ Mendebalean, aldiz, atal honetan aztergai izango dudana disimilazioa gertatu da historikoki: *a + a* > *ea* bihurtu izan da.

4.4.2. Ezaugarriaren deskripzioa

4.4.2.1. Deskripzio gramatikala

Bonapartez geroztiko dialektologia-saioetan hizpide dudana fenomenoari eman izan zaion garrantziaz jabetuta, Deba ibaitik ezker geratzen diren eremuetako bokal-interakzioen azterketa sinkronikoa egin zuen De Rijkek (1970), eta zenbait hamarkadaren buruan Hualde & Gaminde (1997) monografikoak zehaztaperen gehiago ekarri zituen gaiaren inguruan. Ikuspegi diakronikotik Mitxelenak (1981a) heldu zion lehenengoz, erregelak zituen mugak azaltzeko kronologia erlatibo bat eratu zuenean. Azken urteotan, aldiz, proposamen berriak ekarri dituzte hala Oñederrak (2005) nola Manterolak (2006, 2009, 2015). Batzuk eta bestetzuk laburbilduko ditut hemen, bilakaeraren hedadura- eta kronologia-gaietan sartu aurretik.

Arestian aipatu dudana bezala, Euskal Herriko mendebal zabalean /aa/ batzen direnean bi emaitza agertzen dira. Alde batetik, bilkura erroan gertatzen denean bakundu egiten da VV, beste euskalki batzuetan legez: disimilazioak eta VrV epentesia baino zaharragoa da erroko VV > V. Beste alde batetik, gainerako euskalkiek ez bezala

¹⁴⁴ Joseba A. Lakarrak aurrez aurrekoan esan didanez, bide batez, V.V > V soiltzea V.V > VgV kontsonante epentetikoa (cf. *ago* ‘aho’, adibidez) baino zaharragoa izatea koherentea da kronologikoki.

¹⁴⁵ Han-hemen ageri diren adibide bakan batzuek ezaugarriak bestelako hedadura izan zuela islatzen dute. Gehienak dira ezagun: Zaraitzuko bertako *peco landara* ‘beheko landa + *-a*’ 1610eko toponimoaz gain (Otsagabiakoa da, *apud* Salaberri Zaratiegi 1996: 225), begiratu Etxepareren IX:2 *egiara* ‘egia + *-a*’, eta Oihenarten 166. errefrauko *oinzolarra* ‘oin zola + *-a*’. Mendebalean ere bada halakorik: begiratu Landucciren *abejon - abejoera* sarrera eta IbarraC kronikako *solara* (*apud* Manterola 2015: 369). Lekukotasun garaikideetan, gogoratzekoa da Azkuek Mugerren (Lapurdi) jaso zituela *arrebata* eta *elizara* aldaerak (*MorfVasc* §661).

jokatzen du Mendebalak: beste euskalki batzuetan erroetan gertatutako bakuntzea kanpora atera da, era horretako legeetan arrunt denez (cf. Hyman 2002 eta 2008, besteak beste); baina, Euskal Herriko mendebal zabalean beheko bokaletan lehenengoa igo egiten da: /aa/ → [ea] edo /alaba + a/ → [alaβea]. Horrek, bada, Mendebaleko euskara urruntzen du bai erdi-ekialdekoe hizkeretatik, bai berauen historiatic.

Mitxelena (*FHV* 93-94) zioenez, batez ere bi testuingurutan gertatzen da /aa/ → [ea] igotzea: alde batetik, *-a* amaiera duten hitzei artikulua gehitzean; beste alde batetik, amaieran *-a* duten zenbait adizkiri hasieran *-a* duten morfemak (*-an*, *-ala*) gehitzean. Oraingoz lehenengoz arituko naiz, aditzetakoak geroko (§4.4.4.3) utzita.

Disimilazio-erregelak bi murriztapen nabarmen ditu:¹⁴⁶ alde batetik, gauzatzeko baldintza fonologikoak betetzen diren arren, ez da absolutibo pluralean gertatzen (abs. pl. *andrak*, baina ez ***andreak*, nahiz eta erg. sing. *andreak* den);¹⁴⁷ beste alde batetik, singularreko formen artean erregela ez da inesiboan betetzen: *aldapan*, baina ez ***aldapean*.¹⁴⁸

Hain zuzen ere, muga horiek azaldu nahian eman zuen Mitxelena bere azalbide diakronikoa. Erreteriarren ustez, erregela ez da pluraleko eta lokatibo singularreko formetan betetzen, kasu horiek sortu orduko ez zegoelako indarrean: “el plural, como el locativo sing., se formó en vasco en época ya tardía, cuando la ley que convertía a *-a* + *a* en *-ea*, etc. ya no era operante” (Mitxelena 1981a: 534).¹⁴⁹ Horrenbestez, izenetan

¹⁴⁶ Hirugarren muga bat ere aipatu zuen De Rijk-ek: “I have put an obligatory morpheme boundary (+) in the environment of rule *Raa*. This is to prevent it from applying to stems containing an *a + a* sequence. Such stems are extremely rare in Bizcayan. An example is *zaar* ‘old’, which may simplify to *zar*, but never turns into *zear*” (1970: 152). Julen Manterolak arau edo salbuespen hori hautsiko lukeen toponimo baten berri eman zidan: egungo *Leariza* (Nafarroako mendebalean, Lizarra eta Viana artean) besteak beste *Laharça* eta *Laharza* da Erdi Aroko dokumentazioan. Interesgarri litzateke, halaber, Lizarraldeko *Lerraga* aldaeraren (*Larraga*-tik eratorria) erregela agirien bidez jarraitu ahal izatea. Begiratu *EHHE*, s.v. *lahar*.

¹⁴⁷ Mikoleta bilbotarrak ikusi zuen jada emaitza ez zela bera kasu guztietan: “También se nota que en algunos nombres que se acaban en *ea*, v.g. *espatea*, *lançea*, en los plurales se come la *e*, como *espatac*, *lançac*, mas no en otros como *ajeac*, *queac*. Esto enséñalo el uso” (1653: 2v). Aipua, bestalde, informazio interesgarria ematen du *a + a > ea* disimilazioaren ondorioz sortutako *-e > -a* berreraiketaz; izan ere, singularreko formetarako ez du *-a* amaieradunik aipatzen (*aje*, *ke*).

¹⁴⁸ Manterolak (2015: 280, 340. oin-oharra) ondo dioenez, Mendebaleko egungo hiztun gazteen artean entzun daitezke abs. pl. *aldapeak* ‘aldapak’ eta ines. sing. *aldapean* ‘aldapan’ bezalakoak, nahiz eta ez diren ohikoenak (abs. pl. eta ines. sg.-etik kanpo ere entzun daitezke tarteka: *eukiten gendun goixea libre* ‘edukitzen genuen goiza libre’ jasoa dut Mungian). Ematen du hiztun horientzat *a + a > ea* erregelak utzi egin diola singularraren markatzaile izateari, eta disimilazioa historikoki mugatuta egon den kokagune horietara hedatu dela, analogiaz. Testu zaharretan ere badira antzeko kasuak (begiratu §4.4.2.2.2).

¹⁴⁹ Puntu horretan inesibo singularra eta absolutibo plurala elkarrekin doazen arren, ez da hala gertatzen hitzak kontsonantantz amaitzen direnean: “abs. sing. *lana* / ines. sing. *lanean* / abs. pl. (erg. ere bai, mendebalde-erdialdean) *lanak*; inesiboak jokatzen du bestela kasu honetan, ez baitu bat egiten pluraleko formarekin” (Manterola 2015: 46).

singularrak gramatikalizatu bide ziren lehenbizi, erregela indarrean zenean, eta pluralak gramatikalizatu orduko erregela ez bide zegoen indarrean.

Mitxelenaren proposamena baztertu gabe, fonologia naturalaren ildoko azalpena gehitu zion Oñederrak (2005), aipatutako erregelak egungo hizkeretan indarrean jarraitzen duela azpimarratuz eta, bide batez, morfonologiari dagokion lekua ematearen garrantzia aldarrikatuz. Oñederraren ustez, fenomenoak ez da bilakabide fonologiko hutsa, ezpada erregela morfonologikoa: “B[eheko] B[okala] I[igotzea] singularrean bakarrik gertatzen da” litzateke erregela (Oñederra 2005: 391). Horrenbestez, egia litzateke, Mitxelenak proposatu bezala, /aa/ → [ea] agortu egin zela, baina maila morfonologikoan indarrean jarraitu duela, hain zuzen ere, BBI erregela singularraren markatzaile delako.

Bilakabide fonologiko izatetik erregela morfonologiko izatera igarotzearen proposamenak baditu arazoak lehen begi-kolpean. Izan ere, $a + a > ea$ gertatzen ez den (eta, horrenbestez, espero ere ez den) hizkera batzuetan badaude aldaketa horren ondorioztat jo daitezkeen formak, hitz eta testuinguru jakin batzuetan bada ere. Mitxelenak (FHV 94) zioenez, Erreterria aldeko aldaera batzuek hizpide dudan fenomenoaren geografia zabalagoa isla lezakete: *azkuria* ‘azkura’ eta *minberia* ‘minbera’ aipatu zituen.¹⁵⁰ Hizpide dudan disimilazioa ez da ageri Gipuzkoako ipar-ekialdeko lekukotasun zahar nahiz moderno gehienetan (§4.4.3.1.5), baina bi hitz horien kasuan ez dakit dokumentaziorik gabeko garairen batean berrikuntzak izandako hedadura zabalagoaren arrastoak izan daitezkeen.

Beste alde batetik, egitura eta elementu jakin batzuk tartean daudela disimilazio bera gertatzen da: “En la misma localidad [Erreterria], los participios como *altxa* ‘levantado’ y *bota* ‘arrojado’ tienen el nom. sing. *altxia*, *botia*: cf. a.-nav. Baztán, lab. *ateraia* ‘lo sacado’ y *daia*, *dea* ‘¿es?’ de *da* más la partícula interrogativa *-a*” (FHV 94). [partizipio + artikulua] egiturako *altxia* eta *botia* horiek ere disimilazioaren balio morfologikoaren bidez azaltzen ditu Manterolak: “egitura erresultatiboetan, badirudi disimilazioa *-a* atzizkiaren balio morfologikoari estu lotzen zaiola edo beronek eragiten duela” (2015: 273). Ildo horretatik, fonologiara jo gabe azalbide bera proposa daiteke

¹⁵⁰ Horiez gain, Euskal Herriko erdialdeko hizkera batzuetako aldaera lexikoen zalantzak eragin ditzakete, ez dagoelako argi zer fenomenoren ondorio diren. Esate baterako, *ikara* & *ikare* bikotea dago Nafarroako zenbait hizkeratan. Bestalde, aintzat hartzeko da *-tza/-tze* aldaeren isoglosek, hizkera batzuetan berranalisi morfologikoaren ondorioz *-a* organikoa galtzen duten hitzek eta garai ezberdinetako maileguen formek nahasteak eragin ohi dituztela; cf. *bizitza* & *bizitze*, *heriotza* & *heriotze* & *heriotz*; *arnasa* & *arnase* & *arnas*; *kartzela* & *kartzela* & *kartzel*; *kutzara* & *kutzare*; *ostiral* & *ostirale* eta abar. Horiez gain, batzuetan testuingurua ez da lagungarri zenbait formatan mugatzailea (eta disimilazioa) edo aditz-izenaren atzizkia dagoen argitzeko: *bizitzea* edo *ezkontzea* bezalakoez ari naiz.

Ipar Euskal Herriko hizkeretako *-a* galdera-partikulak eragindako disimilaziorako. Aditzetarako, begiratu (§4.4.4.3) atala.

Inesibo singularreko murriztapenak ere eman du buruhausterik eta zenbait proposamen egiteko biderik. De Rijk-ek (1998 [1981]) bokalen bakuntzea baino lehenago kokatu zuen igotzea, eta, Jacobsenen (1977) proposamenari jarraituta,¹⁵¹ inesibo mugatu singularreko forma erregela horretatik “babesteko” argudio gisa azaldu zuen sakoneko egituran **Can* dagoela eta herskari ahostuna erraz galtzen dela bokal artean:

Zergatik *gonan* bizkaieraz? Honela: sakoneko forma *gona* + *gan* da. Gogora gaitezen orain arauak ordenatuak direla, eta egin dezagun *a + a > ea* bihurtzen duen arau zaharra *g*-ren kenketaren aurrean datorrela. Orduan, kenketa horren bidez lortzen dugun *gonaan* ezin da **gonean* bihurtu, pasa baita arau horren aldia. Gero, *gonaan* > *gonan* bihurtzen da bakunketa edo sinplifikazio-arau baten bidez. (De Rijk 1998 [1981]: 217)

Oñederrak ez dio aurka egiten De Rijken proposamenari, betiere diakronikoa edo berreraiketa bada (2005: 388). Aitzitik, besterik da ikuspegi sinkronikotik azalpenak dituen arazoak handiegiak ez ote diren. Oñederrak dioenez, lehenik eta behin, belar ahostunaren galera hautazkoa da, fonoestilistikoa eta soziofonologikoa, eta beste baldintza bat gehitu beharko litzaioke galerari: kenketak nahitaezko izan beharko luke bizigabeen deklinabideko leku-kasuetan; bigarrenik, izenordain eta erakusleek gorde egin dute, galtzeko ingurunea egokia izan arren; hirugarrenik, izen berezi eta bizidunetan ezingo litzateke belarra desagertu.

Berriki bestelako ikuspegia ekarri du Manterolak inesiboaren (eta deklinabide mugatuaren) berreraiketaz. Funtsean, ez du uste egoki denik eredu eranslea gogoan erabiltzea deklinabide mugatua berreraikitzeke; dioenez, eredu horrek bazterreko kasu (berankor) batzuk azal ditzake (esaterako, mendebaleko *-gaz* soziatiboa, absolutibo mugatuari erantsita eratzen dena: *gizonagaz* & *gizonakaz*), baina muineko kasu gramatikalak determinatzaile-elementuen gramatikalizazioaren bidez azaltzeko bidea aurkitu du.

¹⁵¹ Zehazki, De Rijkek bat egiten du inesiboaren sakoneko egituraren hasieran kontsonante bat dagoelako ikuspegiarekin; ez, ordea, inesibo-atzizkiaren beraren jatorrizko formari buruzkoarekin: Jacobsenek (1977: 165) bizidunen deklinabideko *gan* bera zela proposatu zuen, eta De Rijkek sinesgarriago zeritzon *ga* + *-n* zegoela pentsatzeari: “Nere aburuz, bada, lokatiboa *n* da, eta lokatibo mugatua *gan*, hau da *ga* + *n*” (1998 [1981]: 218). Bestalde, *ga* hori toki-izenetako *-aga*-rekin lotzen du orrialde berean. Traskek (2014 [1997]: 202-203) ere bat egin zuen *ga* + *n* berreraiketarekin. Hondar urteotan, Etxepare (2013) sintaxilariak ergatiboarekin lotu du *ga* (**ga* > *-k* berreraiki izan delako –cf. Lakarra 2005: 442-444–); beraz, hark ere ontzat eman du **Can* egiturako hasierako kontsonante ezezaguna *g* izan zitekeela.

Manterolaren hitzetan, inesiboa ez zen absolutibo singularraren gainean eratu; bestela, Mendebalean ***olean* modukoak leudeke.¹⁵² Bere ustez, arazoak gutxiago dira inesibo mugatu singularra D-elementuen gramatikalizazio-prozesuekin lotuta: erakusle → artikulua gramatikalizazioaren ondotik, inesibo singularreko *-a-* artikulua izanik eta **Can* bezalako egituran kontsonante ezezagun bat dagoela ikusirik, bidezkoena zaio pentsatzea **han* berreraiki behar dela: *mendi *han > mendihan > mendian* eta *mendi hetan > *mendihetan > mendietan* izango litzateke gramatikalizazio-prozesua singularrean eta pluralean, hurrenez hurren.¹⁵³

Deklinabide mugatua eratzean egiazki bi gramatikalizazio-prozesu gertatu zirela azaldu du Manterolak (*idem*, 266): alde batetik, singularreko kasuena; beste alde batetik, absolutibo pluralarena eta singularreko leku-kasuena, gramatikalizazioaren ikuspegitik hurbilago egon ohi baitira pluralen eta leku-kasuen gramatikalizazio-prozesuak (*ibidem*, 267).

Aldaketak horiek izanik (hots, bi gramatikalizazio-prozesurekin), Mitxelena (1981a)-tik datorren kronologia erlatiboaren inguruko proposamena gainditu egiten da. Halaber, *a + a > ea* disimilazioa ez litzateke fonologiko hutsa izango, ezta jatorrian ere, eta morfologia aintzat hartzea ezinbestekoa litzateke azalbide osoa eta egokia emateko (Manterola 2015: 272-273).¹⁵⁴

4.4.2.2. Erregelaren gorabeherak

Hizpide dudan berrikuntzak indar bizia izan du historikoki, eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere Euskal Herriko mendebaleko hizkeretan. Oro har, arazorik gabe esan daiteke, unean uneko salbuespenak salbuespen, erregela ia sistematikoa dela Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako zenbait eremutako lekukotasunetan; aitzitik, Deba eta Urola ibarretatik eta Araba erdialdetik eskuin, badirudi gorabeherak ugaritu egiten direla, eta beti ez dago argi azaltzerik zeren ondorio diren gorabeherok.

Funtsean, erregelaren gorabeheraz aritzean bi egoera ditut gogoan: alde batetik, erregela bete beharko litzatekeen kasuetan ez betetzea; beste alde batetik, erregelaren

¹⁵² Bi salbuespen izan daitezkeenak aurkitu ditu Manterolak berak (2015: 264) lekukotasun zaharretan: *Leherreaga* toponimoa (*Leher + aga*) eta Garibairen B bildumako *eçeac* ‘ezak’, A bilduman *eçac* dena. Bigarren horrek azalbidea izan lezake hala normalean deklinatzen ez den sintagma bat deklinatu delako nola *eze* ‘ez’ forma zaharra gorde delako (Manterola 2015: 264, 322. oin-oharra).

¹⁵³ Itxuraz, Nafarroa Garaiko *neurehan* formak (cf. *senarray porchara neurehan porchara eguyten deraut* –Gorriti, 1554–, *apud* Maiora 2011: 48) ere bermatuko luke Manterolak berreraikitakoa.

¹⁵⁴ Halere, ematen du fonetikoa besterik ez dela *La(h)artza > Leartza* toponimoko aldaketa (§4.4.2.1). Izen morfologiatik kanpo, badirudi *doean* edo *gareala* bezalako adizkietan dagoen disimilazioa ere fonetikoa besterik ez dela (§4.4.3.1).

deskripzio gramatikalaren arabera bete behar ez litzatekeen kasuetan betetzea. Kasu batzuk eta bestetzuk aipatuko ditut hemen.

4.4.2.2.1. Disimilaziorik gabeko kasuak

Hedatu den hizkeretan $a + a > ea$ erregela *ia* sistematikoa dela esan dut lehentxeago: *ia* zehaztu dut, salbuespenik izan badelako. Hona iritsita, komeni da geldialditxo bat egitea eta bi plano bereiztea. Izan ere, datozen lerrootan ikusiko denez, disimilazio horri lotutako hainbat salbuespen ez dagozkio erregela morfonologikoari berari, ezpada horren oinarrian datzan artikulua definituaren erabilerari / erabilera ezari.

Labur azalduta, ezagun da zenbait egituratan eta perpausetan euskarak (hizkeraz hizkerako barietateak gerora arituko naiz) ez duela artikulurik behar: Albeniz araiarraren testua iruzkintzean disimilaziorik gabeko formen artean bokatiokoak eta koordinazioetakoak aipatu zituen Altunak (1995b: 99). Berriki, Determinatzaile-elementuen hedapena neurtzeko hainbat testuinguru sintaktiko proposatu eta XVI. mendeko artikulua sintaxiaren deskripzio sinkronikoa eman du Manterolak (2015: §3.2.5.1 eta §Seigarren kapitulua, hurrenez hurren). Manterolaren ondorioei jarraikiz, nahiz eta XVI. mendean forma artikuludunak mendebalean beste inon baino ugariagoak izan, agerikoa da bokatiokoetan, perpaus existentzialetan eta perpaus predikatiboetan artikulurik gabekoak direla zaharrenak; subjektu posizioan dauden formetan, aldiz, artikuludunak dira nagusi.

Aurrekoari jarraikiz, funtsean bi maila bereizi nahi ditut: (i) artikulua definituaren erabilerari / erabilera ezari lotutako kasuak eta (ii) artikulua definituaren bidez mugatuta daudela onarturik, disimilaziorik ez duten kasuak (itxuraz, erregelaren benetako salbuespenak). Ezinbestekoa da bereizketa, (ii) multzokoak (i) multzokoen menpe daudelako. Badaude, jakina, bietarik izan ditzaketen erabilera eta testuinguru lausoagoak ere. Hona hemen salbuespenak multzokatzeko bidea ematen duten adibideak:

- (i) Koordinazioak. Oro har bi egoera bereiz daitezke. Alde batetik, gerta daiteke koordinazioko elementu guztiek izatea artikulua: *RS 274 Nesquea ta esquea, nequea ta caltea*, BertsBizk 7 *Valladilico salea / Guipuzcoar[ra]i berea / chinchurrac sarri gorde deuste / honrrea eta vizicea*. Beste alde batetik, gerta

daiteke koordinazioko elementu bakar batek izatea marka,¹⁵⁵ zehazki, bigarrenak izan ohi du (cf. Mikol *Naydau eroan capuza ta gorrea*, Urkizu 16 *icusiric Jaunonén grandeza dá poderioa*, UrkizuKop 63 *pena eta miseriaren*), baina, kasuren batean, koordinazioko lehenengo elementuak besterik ez du mugatzailea: *RS 11 Barazea ta vsategui, auerasgarri, 267 Eztia ta ozpin, goço ta on eguin*, Lazarg B3:38 *Bajoacen, bada, gau ullun baten / aytea ta seme, biac batera, / aytearen bioça coplacera* eta, akatsa ez bada, neurriaren aurka baitoa, BertsBizk 11-4 *arcabuza ta mosquete*.¹⁵⁶

(ii) Izen eta izenondo batzuk mugatzaileak gabe agertu ohi dira esapide jakin batzuetan, nahiz eta gaur egun mugatzaile eta guzti (ere) entzun daitezkeen: *meza entzun, limosna eman, burla egin, kausa izan, gaitz izan* bezalakoez ari naiz.¹⁵⁷ Mikoletaren hiztegiko adibideak argigarri dira, izenak ez direlako berdin ematen bakarrik daudenean eta esapide bateko osagai direnean: *mear - chija eguin, meados - chijea, plural chija, urina - chi,shea; beso - mochua, bessar - mochua eguin; cosquilla - quilia, cosquillas hazer - quili eguin; escupetina, saliu - chuá, escupir - chu eguin; habla, palabra - verbeá, hablar - verba eguin; pecado - pecatua, pecar - pecatu eguin; temor - bildurrá, temer - bildur ysan*. Antzeko egoera dago Landucciren hiztegian: izendatzean artikulua eta guzti ageri dira, baina predikatu direnean inoiz ez. Hona hemen Manterolak (2015: 370) bildutako adibideetarik batzuk: *garbia - enxuto; çurra, auarientoa - escasso auariento; ederra - hermoso; (B) moradua - morado; constante yçan - constante ser; ero yçatea - locura*. Hiztegietatik kanpo, begiratu Kapanagaren adibideok: 18 *meça enzuteagaz*, 94 *limosna emaiteco*, 101 *causa izan da*, 138 *burla eguiteco* eta abar.

(iii) Manterolak D-elementuen hedapena aztertzeke zerrendaturiko forma eta egituretan ez dago batasunik artikulua definituaren erabilerari dagokionez. *a + a > ea* erregelaren salbuespenak aurkitu ditut bokatioetan, perpaus predikatiboetan eta objektu-posizioan. Lehenengoei dagokienez, Manterolarekin bat (2015: 385

¹⁵⁵ Kasu batzuetan pentsa liteke mailegu izateak izan zezakeela eraginik, nahiz eta ez dirudien aparteko bereizketarik egin izan denik ondare zaharreko formen eta mailegu moderno eta are gordinen artean (bide batez, gaur egun legetxez: berdin dira *gonea* eta *korsea* '[Opel] Corsa, automobil-marka'.

¹⁵⁶ Esanguratsu izan daitezke, halaber, ErrodZar testuko 18 *oña chipi, orpo laster, Abendanochea pasartea*, eta, XVIII. mendean, Sermdom 295 *Zembat bider semea edo alaba essera datozenean gavaz enda veaz eztan orduan*, nahiz eta azken horretan bestelako arrazoiren batek (hala nola mendebaleragoko eta erdialderagoko formen eta pasarteen nahasteak) ere azal lezakeen *alaba* aldaera.

¹⁵⁷ Halaber, cf. oraindik entzun daitezkeen *arto jorratu & artojorra & artajorra, gari ereiten, indaba(k) batzen, egur egiten, esne batzen, piñu botaten...* bezalakoak.

eta hurrengoak), bokatiboetan ez dago alde handirik euskalkien artean: XVI. menderako izen- eta izenondo-sintagmetan artikulua definitua erabiltzeko joera zabaldua zen, erreferentia singularra zein plurala izan.¹⁵⁸

Perpauz predikatiboetan, bestalde, artikulurik gabeak dira forma zaharrenak, nahiz eta forma artikuludunak ere agertu, batez ere Euskal Herriko mendebalean (Manterola 2015: 411). Honako hauek izen predikatu artikulugabeen adibideak dira, Maria Artzallus errezildarraren testuetatik atereak: 1-3 *Monja da estadu andiena*, 3-11 *Esan dit gaztiga deguiçudala nayztebala monja çeran*. Artzallusen testuan bertan, ez dago *a + a > ea*-rik objektu-posizioan ageri diren hitz batzuetan: cf. 2-5 *Çure carta rrecibidu çebala*, 3-1 *carta bidaldu niçunnean*, 3-7/8 *erregen alaba, al baleu, edoçeynec nay leuqueala*.

(iv) Agerikoa da literatur molde jakin batzuek eragina dutela testuen hizkeran. Nagusiki, errefrau eta bertsoetan atzematen da eragin hori, adierazi nahi dena egitura finko eta neurtu batean eman behar delako, eta (bertsoen kasuan errefrauean baino sistematikoago) errima bilatzen delako.

Errefrauak direla eta, gogoan hartu behar da forma asko generikoak direla: Garibai B14 *Andra ederra, Ese-an gerra* ‘Muger hermosa, casa en guerra’ bezalako errefrau batean generikotasunak ez du biderik ematen mugatzailerik ezartzeko eta, bide batez, hori ondo datorkio bi zatien arteko errimari. RS 402 *Ardura, enoc yre gura* moduko batean bokatiboaren pertsonifikazioak (hots, *ardura* izen berezizat jotzeak) bidea ematen du mugatzailerik ez ezartzeko eta, bide batez, errima gordetzeko. Ikusten denez, arrazoi(bide) bat baino gehiago bil daiteke kasu bakoitzean, eta elkarren osagarri ere izan daitezke.

Kasurik muturrekoetan, errimak tokiko hizkeraren gramatika moldarazten du, Manterolak (2015: 385) iruzkindutako bokatibokoa adibide honetan legetxe: Lazarg B15: 15 *Conbento guztia generalm[en]te / saludacen dot nic agur eguinda; / belaurico, barriz, çu, ene lind[a]*. Lazarragaren hizkeran *lindea* espero den arren, *-a* dakar pasarte horrek, eskuizkribuko lau *ene lindea*-ren aurka.

Aurrekoari loturik, aintzat hartzekoa da silaba-kopuruak ere eragina duela. BertsBizk sortan hainbat adibide on aurkitu ditut, testuaren kopiagilea

¹⁵⁸ Bigarren pertsonari erreferentzia egiten dioten formak besterik ez ditu aintzat hartzen Manterolak, nahasteak saihesteko. Zehazki, ez ditu bokatiboekin batera aztertzen epitetoak eta antzekoak, harridura-perpauzetako formak eta izen bereziak. Bestalde, salbuespen gehienak errimetan, ahaidetasun-harremanak izendatzeko hitzetan, leku-genitiboetan eta atal honetako (a) puntuan aipatutako koordinazioetan aurkitu ditu.

gipuzkoarra zela eta zenbait kontutan testua “gipuzkoartu” zuela ahaztu gabe. 1688ko lan horretan ederto asko islatzen da *-a* edo *-ea* erabiltzeak neurri-kontueterako ematen duen jokoa: 8 *Ydiacaizco semea*, / *Ynsaustico ja[u]bea*, / *zeure pausoac estitues* / *estimadu sobrea* ahapaldian, esaterako, metrika bete beharraren ondorioztat jo zuen Mitxelenak (*apud* Lakarra 1984a: 146) *sobrea* forma. Bestalde, 19 *aurreronçean bearco docu* / *Viscayaren defenza*, *ezpa jua Errochela* pasartean nabarmendutako hitza *defenza* zuzendu zuen errenterriarrak mendebaleko euskararen gramatikak eskatzen duenari jarraikiz, baina puntuaren ikuspegitik hobeki doakio *-a*. 38 *urte ascotan zeuec dozu* / *osunaren faltea*, / *Jaunac disula euiltea* ere badakar eskuizkribuak, baina kasu honetan kopiagilearen gehiegikeria izan zelakoan nago, “*-ea*-ez bakarrik gramatikaren baina baita neurriaren (7 gehienbat) kontra bait doa” (Lakarra 1984a: 135). Hipererabilerez, begiratu (§4.4.2.2.2) azpiatala.

(v) Kasu batzuetan ez dut argitzerik zeren ondorio diren salbuespenak. Askotan mailegatutako hitzetan ageri direla eta, euskarazko testuetan erromantzeko formak zeuden-zeudenean txertatu zirela pentsa liteke, baina azalbide hori hankamotz gera daiteke kasu batzuetan, testuetako beste pasarte batzuetan disimilazio eta guzti ageri direlako. Kapanagaren dotrinan, esaterako, arrunt ageri dira *esperanza*, *esperanceac* (erg. sg.) edo *esperanceagaz* moduko aldaera disimilaziodunak, baina zerrenda batean disimilaziorik gabe agertzen da hitz berori: 16 *Virtute theologalac dira yru. 1. Fedea. 2. Da esperançã. 3 Da charidadea*. Adibidea zerrenda batean agertzeari egotz lekieke salbuespena, baina zerrendako gainerako hitzak artikulua definitu eta guzti ageri dira.¹⁵⁹

Hiztegiatako euskal ordain batzuek ere azalbidearen inguruko zalantza eragiten dute. Hiztegi zaharretan euskal hitzak mugatzailez ematea da joera nagusia. Amaieran berezko *-a* duten euskal ordain edo sarrerek *-ea* izan ohi dute, baina Manterolak (2015: 373) salbuespen-sorta bat bildu berri du IbarGC kronikako hiztegian eta Landucciren lanean: (*B*) *malua - malua, yerua; aguinçala, aguinquetã deuenã - mandon; masç parra - parra, o vid* ageri dira, esate baterako, italiarraren hiztegian.

¹⁵⁹ Otxoa Arinen lanean ere ez dago *-ea*-rik *esperantza* berban, nahiz eta zerrendako gainerako elementuak artikuludunak izan eta baten batean disimilazio-araua bete: 101 *Virtute Theologalac dirade iru. 1. Fedea. 2. Esperantza. 3. Caridadea. Virtute Cardinalac dirade lau. 1. Prudentia. 2. Justicia. 3. Fortalezeta. 4. Templantcea*. Nolanahi ere den, aintzat hartu behar da testu horretan disimilazioa duten formak ez dutenak baino askoz gutxiago direla.

XVI-XVIII. mendeetako testuetan badaude, aipaturiko testuinguruetatik kanpo, zalantza eragiten duten edo/eta arazoak dituzten beste erabilera batzuk. Horien artean daude genitibo singularrean *-aen* hiatoa gorde duten formak. Hona hemen Durango aldeko bi kasu: frJZum *Orayn bada, ene arrebea, fraydeon ostatuori çure alabaen ese jauxioRi vrgaçi vear deusagu: eregui bear dogu çuc eta nic, neba-arrebaoc. Jauxiric dago, çure alabea da orren çimienturic onaena*; Kapan 55 *Esazuz Elexa santaen mandamentuac* zein 60 *Esazuz ama elexa santaen Sacramentuac*.

Analogikotzat jo zituen halakoak Castañosek, nahiz eta bestelako azalpenik ez baztertu: “Estas formas parecen ser analógicas, formadas a semejanza de los indefinidos en *-i, -o, -u*, cuyo gen. parece formado sobre el indefinido con adición de la desinencia *-en*” (1957: 63). Orain, Manterolak eginiko proposamenaren ondoren, analogiak ez du zertan mugagabearekikoa izan; genitibo pluralean hizkera batzuetan hedatzen ari zen marka berriarekiko analogiaz edo horiekin nahastuta ere sor zitezkeen.

Deklinabide mugatua D-elementuen gramatikalizazioaren ikuspegitik berreraikitzean, Manterolak *hen > -en* bilakabidea dakusa; hots, *mendi hen > mendihen > mendien* (2015: 295), non genitibo pluraleko forma zaharrena *-en* bera baita, ez segurutik *-ag + -en* eskema klasikoari jarraikiz Castañosek (1957: 65) Mendebaleko testuetarako proposatutako *-aen*. Azken horri dagokionez, *-aen* duten aldaerak berrikuntzat jotzen ditu Manterolak, berriz ere erakusleen gramatikalizazioaren ildotik: “*aen* da gramatikalizatu den erakuslea, eta forma horrek azaltzen du deklinabide mugatuan *-a-* agertzea (...) Mendebaldeko berrikuntza bat deskribatzen da honela, *aen* erakusle eraberritua hasi baitzen erabiltzen deklinabide mugatuko genitibo plurala osatzeko, *en* zaharragoaren partez” (2015: 301).

Beharbada aurrekoekin batera sailkatu behar da RS 44 *Loyçaen ganeco leya, euria* errefrauko *Loyçaen*, aintzat harturik gainerako elementuek ez dutela esaeraren jatorria Mendebalek kanpo bilatzeko arrazoirik ematen (cf. 358. *Ausa zala euriaz loyza çidi*, nahiz eta hor izen predikatua izan). Nolanahi ere den, izen mugatua eta aditz-izena bereizte nahiak ere azal lezake *lo(h)itzea* bezalako aldaerarik eza kasu horretan.

Errefrauen jatorria aipatu dudala, besterik da bilduma bereko 25 *Arloteari emayoc ar[r]auça, escatuco dyc zoça*, non disimilaziorik gabeko *arrautza*-k ez ezik, adizkiek ere Mendebalaz kanpoko jatorria iradokitzen baitute: gutxienez, Euskal Herriko erdialdekoa (cf. 401. oin-oharra).

XVII-XVIII. mendeetako testu erlijiosoetan aurkitutako salbuespen batzuen azalpena ez da beti erraza. Zubiaren dotrinakoak pasarte bertsuan daude, eta

kopiagilearen eskuari egotz dakizkioke: 423 C. *Virgina Santissimeac bere Seme Iesusa jaiotean galdu beeban Donzella izaitea? P. Ez Iauna, bidrieratic iragoten dana leguez Eguzquia aussu bagaric bidrioa; jaiozan Iesusa Virgina Santissima ganic, galdubagaric Doncella izaitea, 424 C. Iesusen gorpuça jassi bazan limbura? P. Ez jauna, ezpada bere arima; eze gorpuza gueratu çan sepulturan.*

Mitxelenak Zubiaren Aita gureaz ari zela azaldu zuenez, baten batek moldatu bide zuen testua:

Al final, el texto está sin duda alterado: *tencionen* es muy raro (se espera *-ciñoan*, como en Betolaza y Capanaga, o *-ciñoan*), *iaustitem* debe de estar por *jautsiten* (o *jausten*?) y, finalmente, se ha copiado *gaiguzu* por *gaguizu(z)*. *Parcatu eiguzu* no lleva pluralizador de «objeto directo»: cf. *parcatu eguiguçuz* en Betolaza y Capanaga. Tampoco *gaiz*, por *gach*, es vizcaíno. (TAV 155)

Bada, 423 eta 424 pasarteetako salbuespenak moldaketen zerrenda horretara gehi daitezkeelakoan nago.

XVIII. mendearen hasieran, Barrutia 201 *Publica uidi gerra cruela, gerra mundu gustiti* perpauseko bigarren *gerra* generikoa izan daiteke, edo lehenengoaren analogiaz emana. Antzerki-lan horretan bertan 216 *Salsa xaiten iru motrallu pedazadu nituan dago*, non *saltsa jo* esapide izateak azal lezakeen *salsea* ez agertzea.

4.4.2.2.2. Disimilazioaren hipererabilerak

Hipererabilera esango diet, beste kasu batzuetan egin ohi den bezala, dagokion deskripzio gramatikal orokorraren arabera erregela betetzea espero ez den arren disimilazioa gauzaturik duten kasuei. Egia esatera, testu zaharretan bakanak dira halakoak, baina egon badaude. Inesiboan, begiratu cf. Landucciren *vrquean ifini* eta *ynolaco temporeã*,¹⁶⁰ eta VJesus-eko 2 *dagozalaco encerraduric eta sinifiqeduric Cruze Santean* adibideak. Absolutibo pluralean ere adibideren bat harrapatu dut: Sevilla1619 57-58 *Elorrion eguiten / millares lanceac* ageri da.

Aurrekoez kanpo, ErrodZar testuak 6 *deiean* eta 21 *contrean* dakartza. Lehenengoa dela eta, ez hipererabilerak baina diptongoko bokalerdiari kontsonante-balioa eman izanak eragin zezakeen. Bigarrena dela eta, aintzat hartuta *kontre* aldaera (OEH, s.v. *kontra*) Ipar Euskal Herriko idazleen lanetan besterik ez dela agertzen, uste dut kasu honetan errazagoa dela inesiboko kasu hau aurrekoekin batera multzokatzea. Aintzat hartzekoa da, halaber, kasu batean zein bestean errimatu beharrak eragina duela.

¹⁶⁰ *encarçelarse - carçelean* ere badakar testuak: OEH-ren (s.v. *kartzela*) arabera, *kar(t)zela* da aldaera nagusia Bizkai-Gipuzkoetan, baina Araban bertan *kartzel* aldaera dute Lazarragak (1181v *carcel*) eta Gamizek (203 *carcelbaga*); beraz, ez dago zertan hiperzuzenketa-kasu batean pentsatu.

Esanguratsua da adibideok, bakanak izan arren, Arabako edo Arabatik gertuko testuetakoak izatea. Mendebaletik kanpo (baina ez, egia esatera, Mendebal zabaletik urruti) Lasarteko 1716ko bertsoetako 11 *esquadrian* gogoratu behar da.

4.4.3. Ezaugarriaren hedadura geografikoaz

Arestian aipatutakoarekin bat, (§4.4.2.2.1) atalean aipatutako salbuespenez landara $a + a > ea$ disimilazioa sistematikoa da Bizkaiko eta Arabako mendebaleko eta erdialdeko testuetan; beraz, ezaugarriaren hedaduraz aritzean ez du merezi bi eremu horietako testuetako adibide guztiak hona ekartzea: adibide-andana biltzeak luzeegi joko luke eta ekarpena txikia litzateke. Hona hemen Bizkaiko zenbait garai eta eremutako adibide batzuk, halere: frJZum 3 *taçea*, 13 *biciçea*, 19 *ardurea*, 19 *errentea*; RS 48 *esagunçea*, 60 *gauçea*, 137 *heriocea*, 176 *oquelea*, 195 *nesquea*; Enoj 9 *causea*; BizkKant 4 *causea*, 11 *culpea*; BizkOlerk 13 *penea* ‘pena’; EgiaKant 22 *placea*, 77 *gañibitea*, 76 *Verbea*, 157 *anagea*; VJesus 2 *obrea*, 2 *arnea*, 4 *Reguinea*, 6 *Personea*, 8 *Catoliquea*, 11 *formea*; Mikol 2v *espatea*, 5r *errotea*, 5r *uriolea*, 5r *gomea*, 5r *oriojarrea*, 5r *arnasea*; Kapan 15 *largueçea*, 16 *Fortaleçea*, 17 *verbea*, 22 *figurea*, 39 *confianzea*, 41 *imaginea*; BertsBizk 1-1 *altiuzeza*, 7-1 *salea*, 7-4 *honrrea*, 8-7 *frutea*; Zubia 423 *Virginea*, 423 (birritan) *eriocea*, 424 *arimea*; Urkizu 34 *Santissimea*, 34 *Erreguinea*, 34 *piadosea*, 55 *flaquezea*, 80 *dichea*; Arzadun 13 *vicicea*, 16 *Bedencatea*, 37 *haziendea*, 39 *Mezea*, 47 *examinea*; OrozOtoi 3 *dulzurea*, 5 *esperanzea*, 10 *abogadea*, 22 *Santea*; Gandara1757 5-5 *bervea*; Olaetxea 6 *bicitcea*, 6 *Santissimea*, 7 *bedeñcatea*, 8 *Virginea*; Errosariyo 7 *vizitzia*, 13 *honria*, 13 *desconsoladia*, 34 *erregaladia*, 34 *dichosia*; GernikaGK 15-5 *vitzicia*, 24-8 *maletia*, 25-6 *gauzia* eta abar.

Bizkaiko eta Araba gehieneko testuetan erregela sistematikoa dela baieztatuta, esan gabe doa Euskal Herriko erdialdeko lekukotasunek interes handiagoa dutela, bestelako gorabeherak agertzen direlako eta berrikuntzak mendebaletik erdialdera bitarteko *continuum* linguistikoan izandako indarra eta hedadura irudikatzeko balio dutelako.

Hori dela eta, banan-banan arakatu ditut Gipuzkoako 1745era bitarteko testuak, eta beste horrenbeste egin dut Arabako ekialdekoekin eta Sakanakoekin.

4.4.3.1. Gipuzkoako testuak

4.4.3.1.1. Iturri zaharrak eta kokapen ezagunik gabeak

Gipuzkoan kokatu izan diren testu arkaiko eta zahar gehienetan ez dut disimilazioa agertzeko testuinguru aproposik aurkitu Beotibarko guduaren kantuan (1571), Tolosako (1557) ezkontza-zinean, Juan Lazkanoren eta Xanfarron jaunaren kantuetan (1571), Frantziskotarrek sorginkerien aurka eginiko predikuetan (1648, 1686), Frai Domingo Lardizabalen gutunean (1655) eta Gaztelan euskara ikasi omen zuen baten batek Felipe V.aren omenez 1747an eginiko bertsoetan (Ondarra 1993). Halaber, ez dago alerik Britainiako kantu apokrifoan.

Miserere arkaikoak, aldiz, baditu disimilazioaren adibideak: 9 *badaçagut Jauna nere culpea*, 92 *Bis gloria aytearequin semearençat*. Hain zuzen ere, testu horretako forma disimilaziodunak hizpide zituela, bi horiez gaindiko salbuespenak aipatu zituen Manterolak (2015: 254 eta 401. oin-oharra): jatorriz *-ia* duten hitzak eta 66. eta 69. bertso-lerroetako *altura*.¹⁶¹ *-ia* duten formez gerora ere arituko naiz (§4.4.4.2.1), baina ez da hain harrigarria halakorik ez agertzea. *Altura*-ri dagokionez, bestelako irakurketek azal dezakete. Alde batetik, 66. bertso-lerrokoa *altu* + *-ra* (hots, adlatiboa) ere irakur daiteke, Manterolak berak iradokitzen duenez. Bestalde, Akesoloren edizioiko 69. bertso-lerroko *altura*-ren ordez (disimilazio-erregela beteko balitz *alturea* beharko litzateke), *altara* argi irakurtzen da eskuizkribuan (*Çure altara santuaren*),¹⁶² non, gainera, *-e > -a* berreraiketa analogikoa baitago.


Lekukotza modernoagoen artean, Gipuzkoan zein Araban kokatu izan diren Martin Iturberen 1658ko lauho txikiak ere badute disimilazioa ager zitekeen testuinguru bakarrean, lehenengo ahapaldian bertan: 1-4 *Famea igaro da / mundu guztian, / Prospero Iaio dala / Madrilco vrian*.

Segurolak aurkitutako XVIII. mendeko sermoi argitaragabe batzuetan ere badaude forma disimilaziodunak, nahiz eta nagusi ez izan:

Derradan, azkenik, *A* bokalari *a* gehitzean ere *a/ea* bikoteak ageri direla baina *a* da nagusi: *santac* (9) / *santeac* (1), *criaturac* (2) / *criatureac* (8), *Honrrea* (1, 3) / *honrra* (6, 8), *honrran* (9), *arimari* (1, 3) / *arimeari* (2, 3, 6); baina: *Aita* (*bat*), *Ama* (*bat* 1), *Aitare*n (1, 2, 8), *dembora* (8, 9), *doctrina* (1, 2, 8), *fortaleza*, *fortalezaren* (9), *ezpata*, *ezpatarequin* (1), *gauza*, *gauzaren*

¹⁶¹ Akesoloren (1982) edizioari jarraituta aipatzen du testua Manterolak.

¹⁶² Hona hemen eskuizkribuaren irudia:



(1), *catholicarenac* (1), *eriozaren*, *erioza* (1), *culpa* (1), *eliza* (1), *elizaren* (2), *balanza* (7), *señora* (1, 8), *templanza* (9), *Virgina* (8) etab. (Segurola 2005: 259)

Bestalde, Zumaldek (1986) Bergarako Udal Artxiboan aurkitutako testuak zalantzak eragin izan ditu: “izkribu horretako hizkera ez da inondik inora Bergarakoa. Hitz zenbait eta beste zertzelada banaka batzuk baizik ez dira hangoak” idatzi zuen Zuazok (2006a: 1006). Atal honetako aztergaiari dagokionez, disimilazioak egon badaude (1 & 108 & 119 *dudia*, 11 & 54 *dudea*, 43 *multia*, 56 *mecia*), baina salbuespenak ere ez dira falta (89-90 *Entierroa eguitea Elizac eracutsiric daucan moduban* –beharbada izen berezitzat jo zelako–, 107 *Dueloco personari*, 132-134 *eliza, eguna eta orduba oficio oyec celebratu beardutenecoa* eta abar).

4.4.3.1.2. Deba ibarrekoak

Deba ibarreko euskara zaharra mintzagai zuela, hau azaldu zuen Zuazok: “-a amaierako hitzei artikulua eransterakoan, -a + a → -ea disimilazioa gertatu ohi da mendebalean. Bertako lekuko denetan, eta zaharrenetarik hasita, ageri da” (2006a: 1007). Deba ibarreko lekukotasun zaharrak arakatuta zuzena da baieztapena, baina badago xehetasun gehiago ematerik.

Zuazorekin bat etorritz, lehenengo testuetarik ageri da disimilazioa Deba inguruan, baina gorabeherak daude testu batzuetatik beste batzuetara, guztietan ez baita erabat sistematikoa: MLastur 7 *Ama andreac apaynquetan obia* –erg. sg.–,¹⁶³ 11 *Edegui dio almeneari erdia*, 28 *Jo dau Lastur-co torre gorea*, 31 *Bidaldu dogu ceruetara cartea*; DebaSerGut 5 *daducat espera[n]cea yça[n]go dala* (baina 1 *Çure mesedeorrec bida[l]du cjdan cartaren herrepustaric...* objektu-posizioan); Sasiola¹⁶⁴ B27:12 *amore lindeaz oroitu*, B27:21 *Es bisteaç consolatu*, B28:7 *Speranceaç bici oy n[ai]z*, B28:9 *sperancea galdu oy det*, B30:12 *Virginearen mecea*, B30:13-14 *Madalena santea da / ene abogadea*; ATxakarGut 6 *Egongo nais orren respuestiaren sain*.

Ibarraren erdialdeko testuetan ere indar bizia du erregelak: SarasketaHiz *maquilea, anezquea, chir[r]iquea, enasquea*; Irure 5 *Eztet atribuicen dala burlea*, 6 *besterena içan çan aren culpea* (baina 4 *esperançagaz nago consoladuric*); EibarKoplZah 4 *Ugarteç orain ateraco dau, salsea bere gainean*, 17 & 22 *meriendea formadu*; EibarKopl 1 & 9 *Guitarria ta biolinchua*, 11 *Caballeria ta perruquia*;


¹⁶³ MLastur testuan *andra* da oinarria beti.

¹⁶⁴ Urkizu (2005) eta Aldai (2013) lanetako hipotesia, olerkiok egiazki Estibaliz Sasiola debarrak idatzi eta Lazarragak kopiatu zituelakoa, behin-behinean onartuta kokatu ditut Sasiolaren testuak Deba ingurukoekin batera, Lazarraga eskuizkribuaren editoreek zein gramatikaren egileen zalantzak ere aintzat hartuta.


EibarAgin 8 *multia*, 70 *multtiaren*, 83 *cazia* ‘ehiza’, 83 *Pesquia* ‘arrantza’; Amil 1 *eriocea*, 1 *sepultureagatic*, 4 *echurea*, 4 *personea*, 4 *ezpatea*, 6 *romanea* ‘erromatarra, fem.’, 6 *vicicea*. IsSagEsp testuan ere sistematikoa da erregela: 1r *arimia*, 1r & 2r & 2v *anrria* ‘andrea’ (oinarria *anra* da testuan; cf. 1r *anrra* bat, 1r *anrra oni* eta abar), 2r *anrriagañic*, 2r *eriyozitari* eta abar.

1708ko sermoian ere arrunta da disimilazioa (33 *descubridu eban Apostolu sagraduoneq vere euzan desconfianzea*, 92 *gustia izan bedi fiestea ta regozijoa!*, 95 *aimbeste alegria enda fiesta euqui vear dan temporea?*, 214 *ezpateagaz*, 307 *culpea*),¹⁶⁵ baina pasarteren bat arazotsua da. Esate baterako, 290-316 lerroen arteko pasartean seme-alabak dira mintzagai, batzuetan pluralean eta beste batzuetan singularrean, eta kasu batzuek zalantza eragiten dute. Testuan *-aak* plural bokal bikoitzak gordetzen dira, baina ez sistematikoki (178 *riquezaaq*, 179 *alegriaaq* eta 231 *penaaq*, baina 2r *graciaq*, 2r *alabanzaq* eta 2v *penaq* ere badaude). Hori dela eta, ez dago erabat argi esaterik 302-304 *seme edo alabagaitiq etorten vajate veren echeetara pesadumbre edo desgraciaren bat* edo 307-309 *noq dauca culpea desgracia edo pesadumbreorrena, zueq ala zuen semeaq edo alabaq* bezalako esaldietan singularra edo plurala dagoen. Lehenengoa dela eta, motibatibo-markako *-g-k* singularraren alde egiten du, ahoskabea ageri baita pluralatan: 13 *andiac qaiti*, 130 *pecatuaacaiti*;¹⁶⁶ horrenbestez, disimilazioaren beste salbuespen bat legoke esaldi horretan. Bigarrenari dagokionez, disimilazioa ez betetzeak eta berez *-aak* sistematiko ez izateak pluralaren alde egitera naramate. Azkenik, 100 *alegriaaq peneaaquin* horretan espero ez den testuinguru batean ageri da disimilazioa: soziatibo plural baten aurretik, hitza *penea* balitz bezala. Testu guztiko adibide bakarra dela eta 170 *pena vagariq* zein besteak beste 119 *penaq* & 125 *penaaq* arrunt ageri direla aintzat hartuta, egilearen akatsa delakoan nago; hots, *peneaaquin* beharko lukeela testuak.

¹⁶⁵ Ustez (edizioak hala zekarrelako) arauaren salbuespen ziren adibide batzuk eskuizkribuan egiaztatzean ezustekoa hartu dut, ez arauaren salbuespena baina transkripzio-akatsak zirelako. Esate baterako, 407-410 *Au da, acaso, gurasoaq emon vear dabeen exemploa ta doctrina, au da veren umeai eracusi bear deusteen zeruco videa?* esaldian *doctrinea* ezarri behar da:



¹⁶⁶ Motibatiboa dela eta, 232 *zelan desterraturiq gagozan gueure culpaagaiti zeruco ondasun, gloria enda conbite soberato atariq* esaldian *culpaagaiti* ere transkripzio-akatsa da; *culpaaq gaiti* ezarri behar da:



Hala Arrasaten ziur koka daitezkeen nola Arrasate inguruko euskara isla dezaketen testuetan sistematikoa da erregela lehenengo testuetarik: ArrasBand 14 *causea* dago eta Barrutiarenean ere indar bizia du erregelak: 9 *venturosea*, 12 *esposea*, 36 *culpea*, 41 *embajadea*, 49 *esclaua*, 56 *causia*, 68 *penea*, 79 *volsea*, 86 *danzea*, 224 *pusquea*, 324 *ynsaur salsea*, 338 *vistea*, 357 *cumearen* ‘kumaren, sehaskaren’, 419 *lapurretea* eta abar.

Deba ibarreko erretrauei helduta, gutxi gorabehera erretrau-bilduma guztiek duten arazoa ageri da Garibairenak aztertzean: askoren edo gehienen artean batasun linguistikoa aurki daitekeen arren, batasun hori hausten duten aleak ere badaude. Arrasatekoaren bildumei dagokienez, gehienetan ageri da disimilazioa: Garibai A33 *Villareal de Vrrechu, veti guerrea darraiçu* = B58 *Villa real de Urrechu, veti guerrea darrai-çu*, A36 *Valizco oleac, burniaric eguin eçtaroa* = B30 *Valiz-co ole-ac burniaric eguin eçtaroa*, A43 *Idi vereari goldea*, A45 *Tresnea jabea dirudi* = B19 *Tresne-ac jabea dirudi*, A56 *Andrea vgaría eta gorularia*,¹⁶⁷ B16 *Aoa veroa, bolsea oç*, B62 *Axea nora, capea ara*.

Bestalde, A7 *Guinda gozo dala min da* ‘la guinda’ itzulpenarekin = B41 *Guinda goço dala, min da* erretrauetan disimilaziorik ez agertzeko zenbait arrazoibide posible daude: errimak behartutako formak izatea, erromantzetik hala mailegatu eta disimilazio-erregelaren pean sartu gabeko aldaerak izatea, erretrauen jatorria mendebal zabalaz kanpokoa izatea edo kopiagile gipuzkoarrak testuak moldatu izana. Aintzat hartzekoa da, halaber, IbarGC kronikako materialen artean *ginga* aldaera mugatzailerik gabe ageri dela. Ematen du Gipuzkoako aldaera dela, aro garaikidean behintzat (*OEH*, s.v. *ginga*).

Deba ibarraren barnean Deba aldeko bertako testuen artean XVIII. mendearen bigarren erdian Itziarko Ama Birjinari eskainitako lan-sorta salbuespen da *a + a > ea* disimilazioari dagokionez (cf. §4.4.3.1.6 atala Arakistain dela eta): Aldazabalen 1768ko liburuan zein Ama Birjinaren omenezko bertso eta kantetan (ItziarBerts, ItziarKant) ez da erregela betetzen, dirudienetz testu batzuk eta bestetzuk erdialderagoko (Beterriko) euskarara begira idatzi zirelako, ez Itziarren/Deban erregelarik ez zelako; alabaina, Aldazabalek berak 1767ko lan batean bildutako koplak badakar: *Sagarra eder guezatea / guerrian ere ezpatea / Domenjon andia / Guipuzcoaco erreguea*¹⁶⁸ dio.

¹⁶⁷ Mendebaleko hizkerekin bat etorrira, *andra* aldaera zen mugagabe Garibairentzat: A14 *Andra ederra, Ese-an guerra*.

¹⁶⁸ Kopla ezaguna zen, izatez, Iztuetak (1847: 494) ere jaso zuelako tokiko zenbait fonetismorekin (*Sagarra eder, guezatía / Guerriyan ere ezpatía / Domenjon de Andía / Guipuzcoaco Erreguia*);

4.4.3.1.3. Urola aldekoak

Gaur egun $a + a > ea$ disimilazioa ageri da Azpeitia eta Azkoitia aldean, eta Gipuzkoako kostaldean badirudi muga Debatik eskuin dagoela.

Azpeitiko 1560ko ezkontza-zinean (Satrustegi 1992: §4) ez dago disimilazioa gertatzeko ingurune aproposik, Azkoitiko *Sumario breve*-an 12 *Birjiñeagana*, 46 *espozea eleiza santea*, 47 *doktrinea*, 60 *kausea*, 61 *kulpea*, 76 *arimea gatik* zein 108 *Eliza santearen* daude, baina disimilaziorik gabeko kasuak beste horrenbeste dira, nahiz eta batzuk lehen aipatutako arrazoen bidez azal daitezkeen: 5 *Ama Birjiñarekin*, 7 & 31-32 *Ama Birjiñaren*, 24 *Egunero eguin begie konzienziako examiña* (objektu-posizioan); 30 & 31 & 40 & 77 *meza* (lauretan *meza entzun* esapidean), 77 *euren kapilla bizitazeaz* (objektu-posizioan).

Inguru hartako lekukotasun modernoak baliatzean, ezin da ahaztu kasu batzuetan egileak gizarteko goi-mailako kideak zirela, eta beste kasu batzuetan ez dagoela egileari buruzko informaziorik. Maria Josefa Alzaga azpeitiarrak 1740 inguruan bere koinatu Josef Jerobi donostiarrari igorritako gutunetan ez da disimilaziorik ageri. Egoera harrigarria da testu-generoaren eta Azpeitia aldeko 1740 aurreko zein osteko materialen argitan, eta are harrigarriagoa kontuan hartuta gutunetako batean (lehenbizikoan) *azucra* ‘azukre’ aldaera ageri dela (§4.4.4.1.2). Lehenengo gutunak 4 *aren erioza* (objektu-posizioan), 5 *daucaen pena* (objektu-posizioan), 23 *zure arreba* (sinaduran) eta 6 *meza enzun ez* (esapidean) dakartza. Bigarrenak, bestalde, 7 *etorri da carta* (objektu-posizioan), 14 *letra librazen danean* (*letra libratu* esapidean), 17 *cartaren zai* (objektu-posizioan), 25 *letra libratuco digot* (*letra libratu* esapidean), 25 *carta biraldua* (objektu-posizioan), 32 *zure arreba* (sinaduran) eta 34 *Domeca* (sinaduran) ditu. Azalpen intralinguistikoak (gehienak ageri dira objektu-posizioan edo mugatzailearen erabilera baldintza dezaketen kokaguneetan, izan esapideetan, izan gutunen sinaduran; halaber, hitz gehienak dira mailegu) izan ditzaketen aurreko kasu guztiei 27 *Mila carino damari* gehitu behar zaie.

Gutunotan disimilazioaren adibide bakar bat ere ez egoteak arreta ematen du egilea nongoa zen aintzat hartuta. Egia da aipatutako arrazoi intralinguistikoen bidez azal litezkeela kasu gehienak beharbada, baina arrazoitzea ez da biribila, kasuren bat azaltzeke geratzen baita.

lexikoaren ikuspegitik interesgarri da *guezatea*, *OEH*-k (s.v. *gezate*), hain zuzen, Iztuetaren adibidea besterik ez dakarrelako tradizio guztian.

Gutunok idatzi ziren sasoia eta egilea Alzaga handiki-familiako kide zela aintzat harturik, pentsa liteke idazleak bazukeela prestakuntzarik hizkuntza-gaietan eta hautuak egin zitzakeela; baina, gutunetan ageri diren zenbait ezaugarri (hitzen banaketa, ezelako sistematikotasun grafikoa...; cf. Zuloaga 2017b) hurbilago daude jende iletratuaren testuetan ageri direnetatik, idazle jantzienetatik baino.

Bestalde, disimilazio bakar bat ere ez agertzeak ezaugarriaren hedadura geografikoarekin izan zezakeen lotura: Alzaga familiaren etxea ez dago Azpeitia herrigunean bertan, ezpada hegoalderago, Urrestillara bidean, Elosiaga auzoan. Beharbada herrigunera zabalduko disimilazioa, 1614ko testuan ez sistematikoki baina zortzitan ageri dena, iritsi gabea zen hegoalderagoko eta ekialderagoko auzo batzuetara.

Lehen begi-kolpean pentsa liteke horren aurka egiten duela testuetako 13 *azucra* aldaerak, *-e > -a* berranalisia duela interpreta bailiteke; aitzitik, *azukar > azukra* metatesia gertatu delakoan nago (cf. lat. *tercu > terko* baina *treko & treku* eta gazt. *turco > turko* baina *trukku & truku*, *apud* Egurtzegi 2011: 26); beraz, ez legoke disimilaziorik (ez eta berranalisirik ere) Alzagak 1740an igorritako gutunetan.

1740 inguruko gutuneria hirugarren testu batek osatzen du: Alzaga familiaren zerbitzari eta ondasunen administratzaile Ignazio Bertizek idatzitakoa. Haren gutun laburrak aurreko biek baino kutsu landuagoa du, eta amaieran 20 *Domequea* dakar (*vs* 1-2 *Berorren carta*, objektu-posizioan). Zerbitzaria Zumaian bizi zen (Madariaga *et al.* 2009: 10-11), baina ez dago haren jaiolekuari buruzko informaziorik.

Altunak (1995a) editatutako *Loiolako dotrina*-n (*ca.* 1768) bestelako indarra dute disimilazioek. Ez da ezagun nor idatzi zuen, baina, hizkerak iradokitzen duenez, egilea Urolakoa bide zen edo Urolako euskara ondo menderatzen zuen (Altuna 1995a: §0.2.2). Disimilazioari dagokionez, ondo egokitzen zaio Loiola ingururako espero zitekeen egoerari, disimilazioak ugari baitira: 1 *cartilleac*, 3 *Christianearen*, 5 *Doctrinearen*, 6 *Eliza Ama Santeac*, 7 *asierea*, 10 *Ama Virgineagandic*, 11 *Animearequin*, 12 *Elicea*, 12 *juntea*, 13 *Elizeari*, 18 *imaginea*... Salbuespenak oso gutxi dira: 4 *eriozarequin*¹⁶⁹ eta 17 *Ama Virginari* salbu, gainerakoak ezaugarri honetan bestelako murriztapenak dituzten hitzetan ageri dira (ahaidetasun-izendapenak eta aditzak).

¹⁶⁹ Oinarria (*h*)eriotz aldaera bada, ez dago disimilazio-arauaren albuespenik hitz horretan.

Grand tour (1772) antzerki-lanean ere betetzen da disimilazio-erregela: 2r *andria*,¹⁷⁰ 2v *andriac*, 2v *echeco andria*, 4r *cartia*, 4r *oquelia*, 5r *gauzia* eta abar. Salbuespen bat aurkitu dut, *errespuesta eman* esapidean: 2v *errespuesta eman ciran*.

Azpeitiko udal-aginduan izen bakar batean bete zitekeen erregela, eta ez da betetzen, ziur asko hitza (mailegu modernoa, bidez batez) esapide batean ageri delako: *causazen debenac bulla*.

Urola aldeko eta zehatzago Azkoitiko euskara hizpide hartuta, berehala datoz gogora Muniberen lanak. Kultura-gizon ilustratua zen Peñafloidako kondea, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko sortzaileetako bat, “Euskal Ilustrazioko pertsonaia historiko nabarmenena” eta “Borbondarren eraberrikuntzari jarraiki Euskal Herria eraldatzeari ekin zion gutxiengo ilustratu bateko entzutetsuena” Altzibarren (1991a: 29 eta 30) esanetan. Euskarari dagokionez, aztergai ditudan hizkuntza-ezaugarrien inguruan egin zituen hautuengatik eta horiek literatur gipuzkeraren eraikuntzaren inguruan ematen duten informazioagatik da interesgarriago, inongo hizkera herrikoa baliatu izanagatik baino gehiago: “nahiz eta ez diren, ez gutxiago ere, Azkoitiko beren garaiko hizkeraren isladapen hertsia eta bai Larramendiren eraginez mende horren bigarren zatian sortzen ari den literatur gipuzkeraren lekuko” (Lakarra 1985a: 230).

El borracho burlado-n euskaraz tartekatutako pasarteak aztertuta, ez dirudi leku jakin bateko hizkera herrikoa erabili zuenik, ezpada sasoi, giro eta idazle ilustratu baten eskutik espero zitekeen eredu landuagoa. Ez dago disimilazioaren adibiderik Peñafloidako kondearen antzerki-lanean. Halaber, landu-kutsua darie *Gabonsariac* lanean bildutako testuei. Tartean, halere, aldaera eta zantzu herrikoia aurki daitezke, batez ere sarreratxoan. Disimilazioez ari naizela, disimilaziorik gabeko aldaerak baliatu zituen (170 *seculaco bizitza*, 174 *bullia*, 175 *Aita*, 182 *Nik gaur bear det / cantatu / bere etorrera*, 186 *non ta azquenic bizitza costaco zaitzula* eta abar),¹⁷¹ baina sarreran eta azpi-izenburuan ageri da disimilaziodun bakanik: 172 *Soñua edo koplea ez da nerea*, 173 *Tonadillea*.

Lakarrak (1987) *Oikiako dotrina* argitaratu eta ia hogeita hamar urtera lanaren beste ale baten berri eman du Seguiolak (2013). Are gehiago, papera aztertuz argitu ahal izan duenez, Urkixori (1905, 1906) jarraikiz 1759kotzat jo izan dena ez da egiazki ordukoa, ezpada 1784 ingurukoa; horrenbestez, 1759an eginiko bertsio baten kopia izango litzateke. Seguiolak aurkitutako bigarren alea 1774. urtekoa litzateke, gutxienez.

¹⁷⁰ Testuak berak bermatzen du oinarrian -a dagoela: 3r (birritan) *andra*.

¹⁷¹ Orrialde-zenbakiak eta adibideak Altzibarren (1991a) edizioari dagozkie, ez jatorrizko testuari.

Beste alde batetik, dotrinaren egilea, Frantzisko Antonio Agirre jaiotzez eskoriatzarra zela argitu du; horrenbestez, testuari darion literaturtasunak ez ezik,¹⁷² idazlearen biografiak ere ez du biderik ematen testuko hizkeraz fidagarritasun osoz aritzeko.

Disimilazioak direla eta, testuak bakarra dakar: 3 *Jauna da zurequin, bedecatez zera zu andre gucien artean*. Adibide bakarra izanik eta Agirrerren bizitzaren gorabeherak hobeto ezaguturik, uste dut errazagoa dela forma hori egileari egozte, ez hizkerari: ez dakit Eskoriatzan erabiltzen zen formak ihes egin zion edo femeninoa bereizi nahiak hara eraman zuen (*bedecatua* bost aldiz dakar testuak), baina 45 *edo utci dedan eguin-bague beardana, ateraaz contuac* pasartean ez dago disimilaziorik. Horri loturik, Etxabe oikiarrak idatziz eman zuen “Ave Maria”-n ez da femeninorik erabiltzen (2 *vedecatua cera* dio, Ama Birjinaz ari dela), eta 4 *Sancta Maria, Jaun goicoaren amà, erregu eçaçu gugatic* zatian ez dago disimilaziorik *ama* forman, nahiz eta senidetasun-hitzek bestela joka dezaketen (§4.4.4.1.1) eta kasu honetan bokati boan ageri den.

4.4.3.1.4. Goierriko testuak

Goierriko testu zaharrenak Urola aldekoak baino berriagoak dira: Segurako baserri-ganbara batean gordetako Gabon-kantua da zaharrena (*ca.* 1705, *apud* Lekuona 1956), eta hizpide dudan erregela betetzen da bete zitekeen testuinguru bakarrean: 30 *koznea* ‘gosna’.

Testu luzeagoei helduta, Otxoa Arinen *Doctrina christianaren explicacioa* (1713) da Goierriko lekukotasun zaharretan luzeena. Idazleak Ordiziako euskara erabili zuela azaldu zuen,¹⁷³ baina kasu honetan ere landua da testua. *a + a > ea* disimilazioa dela eta, gehien-gehienetan ez da erregela betetzen: 1 *Doctrina Christianaren textoa*, 4 *Jaungoicoaren honrari*, 12 *Crutzearen figura, edo ichura eguinic*, 17 *padecitu cebala bere vorondatez eriotza*, 34 *Christoren etorrerari ichedeten*, 41 *Eleizaren miembro*, 54 *Fedearen, edo Esperantzaren, edo Caridadearen contra*, 98 *Gularen contra* bezalakoak dira arruntak. Halere, Goierriko euskaran erabiltzen bide ziren forma disimilaziodunak ere badaude Otxoa Arinenean noizean behin, asko izan ez arren: 7 *Yrugarrena, sinistea*

¹⁷² Cf.: “Delako euskalki edo hizkera baten ordezkari den aldetiko garrantziaz landa (ez dira Nafarroa aldekoak deskribakizun bakarrak) hizkuntzaren historiari hobe, literatur hizkuntzaren historiari datorrena, du dotrina honek” (Lakarra 1987: 516). Begiratu, halaber, lan horretako 8. oin-oharra.

¹⁷³ Azalean bertan adierazten da, izenburu nagusiaren jarraipen gisa: *Doctrina Christianaren explicacioa Villafranca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguiten dan moduan. Erri noble onen instanciaz escrititu ceban beraren vicario eta capellau D. Joseph Ochoa de Arinec, pueblo onetaco aurray iracasteco. Dedicatcen dio erri illustre oni cartilla au. Eta Villafrancaco erriac consagratcen dio bere patrona soberana Maria santissima Assumpciocoari. Urte 1713. Donostian, Pedro de Ugarteren echean.*

*Christoc recebitu cebana eriotcea,*¹⁷⁴ 19 *egunic bere Eleiza Esposa santeari eutzi ciozcan sacramentuac ondo jaquinaz; 37 graciaco estaduan eriotceac mundu onetan arquite cituan aec; 38 pecatu mortaleco estaduan eriotceac mundu onetan arquite cituan aec; 39 Graciaco estaduan eriotceac arquite dituan aentzat baldinbadago Ceruco gloria; 61 izango da vastante pecatu ori bacarric animea condenatceco?; 68 izanic Jaungoicoaren Leguac aguintcen debanaren contraco gauzea; 101 Virtute Cardinalac dirade lau. 1. Prudentcia, 2. Justicia, 3. Fortalezeta, 4. Templantea; 102 Bienaventuraduac pobrecea escogitcen debeanac; 146 Doctrina Christianea jaquiteraco obligaciara etorri çan temporan; 148 Neure viciagatic: Neure animeagatic; 154 nola beraren causas ez cituan cobratu Eleizeac zor citçaizcan calidadean, eta cantidadean; 162 Bere criatureaz cuidatu bague eutci ote deban; 163 Ynori lagundu ote digon napurretea eguiten; 164 haciendearen proporciotic aurrerago passatcen danic.*

Egoera bestelakoa da Zegamako dotrinan (1741), disimilazioa sarri agertzen baita: 3v-4r *Lenengo irurac pertentcicen zaizca Jaungoicoaren honreari; 6v eta gaiztoahi seculaco penea; 7v Amarrenac, eta Primiciae Jaungoicoaren Eleiceari ondo eguitea; 10v odol preciosissimoaren, eta eriotcearen merecimentuac gatic; 15r Cergaitic Christoc cruce santuan vencidu izan cituan vere eriotcearequin; 26v juntatu eta vnituz cizateala Trinidadeco bigarren Personea; 29r Noiz atsi çan Christoren Animea gloriac gotzatcen; 37v Cer etsan nahi deub, catholiqueac; 50r fedea, esperancea, eta charidadea; 52r Christoren eriotcearequin, beste bague, salvatu baliteque?; 54r Cerda peccatuan examinea eguitea, eta abar. Nolanahi ere den, salbuespenak ez dira falta: 6r Santa Maria Virgina gandic; 17r Doctrina Christianaren leenengo parte; 26r Virgina Santissimaren entraña garbietan, gure naturaleza artuaz; 37r cergatic eleiza santa catholica gobernatcen deban burua.*

XVIII. mendekotzat jo izan da Lazkaoko parrokiaren agertu eta Murugarrenek (1984) argitaratutako Goierriko platika; alabaina, ez da ezagun nori prestatu zuen (Kardaberatz eta Mendiburu aipatzen ditu Murugarrenek berak, nahiz eta letrakera idazle horiena ez bezalakoa izan) eta hizkera-ezaugarri batzuk ez datoz bat Goierriko beste testu batzuetan agertzen direnekin, beharbada testuko hizkera gehiago lerratu nahi izan zelako Beterri aldekoarekin. Testuak ez dakar $a + a > ea$ disimilaziorik.

Goierriko testuek islatzen dute disimilazioak zenbait mende egin dituela, gutxienez, egun ere baliatzen den eremuan; halere, aipagarria da XVIII. mendean

¹⁷⁴ Otxoa Arinek *eriotza* idatzi zuen sistematikoki mugatzaile gabeko formetan: cf. 74 *Eriotçaco*.

Zegamako dotrinaren eta Otxoa Arinen testuen artean ageri den bikoiztasuna: Otxoa Arinek bestelako hizkera-eredu bat hautatu izanari egotz dakioke, baina uste dut kasu honetan horrek ez duela zertan azalbide bakarra izan. Hurrengo atalean (§4.4.3.1.5) aipatuko dudanez, $a + a > ea$ disimilazioa ez da gauzatzen Goieritik eskuin, eta ziur asko berrikuntzaren isoglosaren gorabeherak izango zuten eraginik Otxoa Arinen erabileretan. Argigarria da egun ere Ordizian dagoen polimorfismoa: “Bilakaera hau emankorra da Ordiziako euskarari, baina ez Goierriko beste herri batzuetan bezain sistematikoa. Horregatik, hitz asko bi modutara agertzen dira, alegia, hiatoarekin eta hiatorik gabe” (Garmendia & Etxabe 2004: 54). Zegamako euskarari, aldiz, indar bete du: begiratu Arin & Arruabarrena (1989: 30-31), Azurmendi (1996: 68) eta (1998: 30) lanetako adibideak, hurrenez hurren. Badirudi, horrenbestez, XVIII. mendean Zegamako euskaratik Ordiziakora ezaugarri honetan zegoen aldea bere horretan mantendu dela gaur egunera arte.

4.4.3.1.5. Ezaugarriaren muga Gipuzkoan: Beterri eta Tolosaldea

Jatorri ezaguneko lekukotasun zaharrenetatik hasita, Errezilgo hiztun batzuek gaur egun forma disimilaziodunak (ere) darabiltzaten arren,¹⁷⁵ ez dago halakorik Maria Artzallus errejildarrak 1622an ekoiztako gutunetan: 1-3 *Monja da estadu andiena*, 2-5 *Çure carta rrecibidu çebala*, 3-1 *carta bidaldu niçunean*, 3-7/8 *erregen alaba, al baleu, edoçeynec nay leuqueala*, 3-8 *Esan dit çuc decula berac culpa*, 3-11 *Esan dit gaztiga deguiçudala nayztebala monja çeran*. Ikusten denez, Artzallusen gutunetan testuinguru guztiak salbuespenak agertzeko aproposak dira, izan izen predikatuak, izan objektu-posizioan dauden hitzak, eta horrek azal lezake disimilaziorik eza.

Tolosa aldeko (eta Tolosatik eskuin dauden herrietako) testu zaharretan ere ez da disimilaziorik ageri: *Consolatu oy da Profetissarequin* dakarte, esate baterako, Elduaingo 1619ko ziri-bertsoek, eta *Azariet arrapaceco errezeta zein quenceco husaia edo portaleza ez dezan manteca penetratu* bezalakoak dakartza azeriak harrapatzeko Berastegiko 1763ko errezeta batek.

Donostiako testu gehienak modernoak dira, XVIII. mendeaz geroztikoak, eta disimilazioa ez bide zen egungo hiriburuaren ingururaino iritsi, ez baitut adibiderik aurkitu Lubietaren hiztegiaren lagin argitaratuan (1728) eta Peperen eta Josefaren arteko gutunerian (1761).

¹⁷⁵ Ahotsak.com webguneko grabazioak arakatuta entzun daitezke, adibidez, *kana* ‘kana’ (neurri-mota bat) bezalakoak Errezilgo hiztunen ahotan: <https://ahotsak.eus/errezil/pasarteak/erz-008-001/> [Azken kontsultaren data: 2019/07/04]

Donostiatik hurbil, aparteko aipua merezi dute Lasarteko 1716ko bertsoek, gainerako materialen argitan espero ez zen disimilazioa baitute: 31-32 *Medizinori eman etta lendabisico berbea / Ay sen galanqui emandidasun Juanes nere Jabea*. Horrekin batera 11 *esquadrian* (disimilazioa inesibo singularrean ageri duela) eta 27 *mesorquillea* ere badaude. Lasarteko bertsoez denaz bezainbatean, bere sasoiko auziak argitu ez zuen egiletza argitzea zailagoa da gaur egun, baina esango nuke egilea ez zela Lasartekoa edo beste leku bateko hizkera-eredua baliatu zuela, besteak beste *berbea* formak morfologia ez ezik, *berba* hitzaren hedadura ere ukitzen duelako.¹⁷⁶ *Berbea*-ri, *esquadrian*-i eta *mesorquillea*-ri 29 *bere chuparen besoac* (ez *chupearen*) kontrajartzen zaie sorta horretan bertan.

Donostiatik eskuin, Isastiren errefracuetan badago disimilazio bat: 52 *Illunbeco jostea, arguitaco lotsea* “Lo cosido a oscuras, a la luz confundido”, eta bi azalpen izan ditzake: (i) Isastik $a + a > ea$ disimilazioa arrunt zen Gipuzkoako eremuren batean jaso izana errefracua, edo (ii) Isastiren errefracuetan bi geruza kronologikotako materialak nahastea; hots, *aa* gorde dutenena eta *ea* disimilaziodunena. Gainerako adibideetan *aa* dago bilduma berean: 12 *Balizco olaac, burnia guichi* eta 67 *Olaa olaguiizonenzat, eta barca barca maisuarenzat, non olaa* ‘la ferrería’ itzultzen baita, vs mendebaleko RS 15 *Balizco oleac burdiaric ez* eta Garibai A36 = B30 *Valizco oleac, burniaric egin eçtaroa*. Halaber, Isastik emandako Salveak ez dakar disimilaziorik: 4 *Ea, bada, gure Abogada, zure begui urricarizti oriec iraulitzazu gugana* eta 6-8 *Erregu ezazu gugatic, Jaungoicoaren Ama, diñu garaden Christoren prometimentuen* esaldietan, nahiz eta biak bokatihoan daudela aintzat hartu behar den.

Ez dago disimilaziorik Gipuzkoako ipar-ekialdeko gainerako lekukotasunetan, ez eta Irazuaren liburuan ere.

4.4.3.1.6. Idazle jantziak: Larramendi eta Arakistain

4.4.3.1.6.1. XVIII. mendean Lehen Euskara Modernoa gorputzeak ekarritako kontzientzia eta aldaketek leialtasun- eta fidagarritasun-arazoak eransten dizkie hainbat testuri, Sarasolak (1986: 213) aldarrikatu bezala euskalkia edo hizkera ez ezik, testuen literaturtasun-maila are kontuanago hartu behar delako. Agerikoa da Larramendi euskararen historiako aro berri horren mugari nabarmenena izanik haren testuak ez direla Andoaingo/Hernaniko hizkera aztertzeke egokienak, nahiz eta beste arlo batzuetarako (hala nola soziolinguistika historikorako) interesgarriak izan. Arazo eta

¹⁷⁶ “Aparece un sorprendente *berbea* en los versos de Lasarte de 1716” dio OEH-k (s.v. *berba*).

arrazoi horiek direla-eta Larramendiz geroztiko gipuzkoar egileen testuak ez arakatzea erabaki badut ere (Ubillos, Kardaberatz, Mendiburu, Iztueta edo Agirre Asteasukoaz ari naiz, adibidez), bi egile zehatz aztertu nahi izan ditut, aztergai dudan disimilazioak agertzeko aukerak zituztelako: Larramendi bera (Azkoitiko sermoia, Gandarari bidalitako gutuna eta *HH*), eta Arakistain (*HH*-rako eginiko eranskina eta bertsoak).

4.4.3.1.6.2. Aurreko azpiatal batean (§4.4.3.1.5) Gipuzkoako erdialdeko gorabeherez aritu naiz $a + a > ea$ disimilazioa zela eta. Esan dudanez, Azpeitiko 1614ko lekukotasun batean ez sistematikoa da, baina egon badago eta gaur egungo hiztunek ere badarabilte. 1614tik gaur egunera bitarteko testu guztietan ez da lekutzen, baina Larramendik *Corografía*-ko “De los dialectos del vascuence y del particular de Guipúzcoa” atalean azaldutakoek zalantza egiteko tarte gutxi uzten dute:

En Azpeitia *ondo diala, bici ondo*, y las vecindades, y también *barruan, barruna, eman eguidazu, esan eguidazu*, por *indazu, emadazu, esadazu*; aunque en Azpeitia y Tolosa se entienden bien los diversos modos de hablar, también *aitea, amea, damea, señoraea*, por *aita, ama, dama, señora*. (1882 [1754]: 269)

Obra zabala ekoitzi zuen arren, gutxi dira Larramendiren euskarazko testuak: ehun bat orrialdetan bildu zituzten Altunak eta Lakarrak (1990). Horiek arakatuta ez dut disimilaziorik aurkitu, bi testutan izan ezik: Gandara bizkaitarrari Gabon-kanten inguruan igorritako gutunean eta *Azkoitiko sermoia*-n (1737).

Lakarrak (1985a) Azkoitiko sermoiarene egiletza argitu zuelarik, interesgarri da ikustea nola lerratu zuen Larramendik bere hizkera Azkoitikora zenbait ezaugarritan: “Sermoi honetan nabari da nola darabilen Larramendik ibar hartako zenbait forma berezi: *ceuala* (zuela), *santea* (gaur *santie*), (*icusi*) *deguigun* (eta ez *dezagun*), *bage*-... Aurrerago eta gehiago” (Altuna & Lakarra 1990: 45, 3. oin-oharra). Disimilazioei dagokienez, 1737ko sermoian disimilaziorik gabeko formak dira nagusi (*Virgiñaren, vicitza, balanzaren, eleizac* –erg. sg.–, *elizarequin, bi auco ezpata*...), baina disimilaziodunak ere badaude. Azkoitiaren kokapen geografikoa eta Larramendik berak *Corografía*-n emandako argibideak aintzat hartuta, agerikoa da andoaindarraren hautua izan zela forma disimilaziodunak tartekatzea, ziur asko hurbiltasuna bilatzeko, nahiz eta ezaugarri honetan ekialderagoko eredua nagusi izan (Lakarra 1985a: 250). Aurkitu ditudan forma disimilaziodunak zerrendatuta (hogei bat dira orotara), aipatzekoa da forma femeninoetan ageri direla, hori markatu nahi izan balu bezala (gehienak *santa* hitzari dagozkio): *Virgiña guciz santea* (lautan), *ama santea, Eleiza ama santeac, Escritura santeac, legue santea*; hitz horretaz landa *biotzecoa dezun esposea, christoren eriotzea* eta *gueure lotsea* ere badaude.

Gandarari igorritako gutunean antzekoa da egoera: disimilaziorik gabeko aldaerak dira erabat nagusi (*gure hizkuntza*, *nere antza*, *Virgiñari* eta abar), baina *euzquerearen* (nahiz eta beherago *eusqueraren* erabili) eta *verbeagaz* ere badaude, bai eta *agura* ‘agure’ ere, nahiz eta aurreko lerroan *agure* erabili; cf. Altuna & Lakarra (1990: 40, 11. oin-oharra).

HH-ri dagokionez, ezer gutxi gehi diezaieket Urgellek (2000c, 2001a, 2002) eginiko ikerketei. Hiztegia begiratzearekin batera erraz ikusten da Larramendik ez zituela baztertu aldaera dialektalak: horren lekuko dira, aldaera lexiko-semantikoez gain, *-ea/-a*, *-iya*, *-uba* edo *-uia* bezalakoak. Urgellek (2001a: 170) dioenez, halako formak *HH*-an jaso izana egilearen euskararen irekitasunaren ondorio da.¹⁷⁷

Larramendik berak hiztegiaren hitzaurrean azaltzen duenarekin bat, tokian tokiko hitzunei ahoz bildutako informazioa (1745: lii-liii) eta euskal literatura idatzia (begiratu Urgell 2005) izan zituen iturri, baina entzundako nahiz hustutako formen lekuko baino gehiago ere izan zen andoaindarra: “batzuetan lekuko huts izango dugu, eta bestetan materiala lantzen ere jakin zuen hizkuntzalari modura azalduko zaigu” (Urgell 2001a: 163).

Atal honetan aztergai dudana ezaugarriari dagokionez, disimilazioa duten formak ugariagoak dira bestelako fonetismoak dituztenak baino. Urgelli (2001a: 167 eta hurrengoak) jarraikiz, lehenengo bulkada halakoak Loiolaldeko hizkerari egozte da, are gehiago aintzat hartuta hiztegia amaitu aurreko urteak inguru hartan igaro zituela. Urgellek dioenez, galdeketa gehienak 1734-1744 artean egin zituen Larramendik, eta “bistan da galdeketa-lekurik errazenak inguruetako herriak izan zitezkeela, atera eta oinez-edo egin zitzakeenak” (Urgell 2000c: 927).¹⁷⁸ Nolanahi ere den, hiatoen bilakabideari lotutako gertakari bat baino gehiago dago. Zehazki, bost bereizi zituen Urgellek (2001a: 167 eta hurrengoak): 1) Agerraldi guztietan (sarritan bakarrean) *-ea* duten hitzak; 2) Agerraldi berean bata bestearen ondoan bi formak dauzkatenak, nahiz eta, bestetan agertzera, normalean *-a* forma erabiltzen duen; 3) Agerraldiren batean

¹⁷⁷ “Larramendik oro har mendebaldeko iturrietan ageri diren ‘*a + a*’ bokal topaketaren ondoriozko *-ea* bukaerak bere hartan gorde zituen (...) Behin bakarrik aurkitu dut *-ea > -a* aldaketa: *azarcunzeac* (*RS*) > *azarcunza* (78)-n, zalantzarik gabe atzizkia ongi identifikatzeaz gain argi islatu nahi izan zuelako. Eta, azkenik, *-a > -ea* aldaketa bat egon liteke: *cihorra* (*Ht*) > *ciorrea* (662), baldin eta iturria ondo asmatuta badago” (Urgell 2002: 56).

¹⁷⁸ Cf. orobat “Azken honek [*a + a > ea* erregelak] hiztegi lanetan gehien aritu zen urteetako inguruetatik datorrelako itxura osoa dauka: Loiolako inguruetatik eta, zehazkiago, Azpeitialeko azpieuskalkitik” (Urgell 2001a: 180). Bestalde: “Gainera, Loiola bi euskalkien arteko ia mugan egonik, nago ez ote den *RS*-ren zati galduaren eragina larregi baloratu, Larramendik bere bizilekutik oso gertu entzun zezakeen hizkera baten kaltetan” (Urgell 2002: 38).

bakarrik *-ea* dutenak; 4) Agerraldiren batean bakarrik *-a* dutenak; eta 5) Berreraiketa analogikoak.

Azkoitiko sermoian erakutsia zuenez, Larramendik ondo menperatzen zuen hizpide dudan ezaugarria, nahiz eta bildutako materiala “lantzeak” nahasteak edo irakurbide okerrak eragin zizkion, berreraiketa analogikoak aztertzean ikusten denez. Hori dela eta, ezin da ahaztu andoaindarraren materialak hizkuntzaren ezagutza sakona duen hiztegiaren eskuetatik igaroak zirela. Urgellek (2001a: 180) dioenez, Larramendik dakarren guztia ezin da gipuzkera arruntzat jo, eta guri dagokigu *HH*-ko materialak zeren arabera interpretatu behar diren erabakitzea. *-ea* aldaeradunetz arituta, hiru iturburu bereizi zituen Urgellek:

(a) Adibide “kanonikoak”, *a + a > -a* eta *-ea* bikoteak; (b) *-ea* bilakaera bakarrik duten hitzak, Larramendik iragaitzaz bezala jasoak eta berak ere batzuetan gaizki ulertuak, beharbada *a + a > ea > ia* bilakaera jasan duten gauzak, eta beharbada *e + a > ia* bilakaera jasan dutenak bezalaxe; eta (c) Larramendiren hiperzuzenketak, hots, *-e* bukaera duten hitzetan *-a* bukaera ere berreraikitzea. (2001a: 180)

Laburbilduz, Larramendiren hiztegia baliagarri da *-ea* disimilazioak lekutzen dituen iturri gisa; are gehiago, nahiz eta andoaindarrak materialak “landu” zituelako frogak agerikoak izan, zentzuzkoena da proposatzea forma horietako asko Loiola inguruan bildu zituela, bat etorri *Corografía*-n azaldutakoarekin, eta Azpeitia eta Azkoitia aldeko beste lekukotasun batzuekin.

4.4.3.1.6.3. Mitxelenaren arabera (1970: 172), euskal lexikografiaren historian ez dago Arakistainek Larramendiren *HH*-aren osagarri prestatu zituen gehigarriak¹⁷⁹ bezalako lanaren parekorik ugaritasunari, zehaztasunari eta aniztasunari dagokienez. *HH*-a osatu eta hobetze aldera han-hemen entzun eta irakurri zituen hitz, adizki, errefracu eta bestelakoak zerrendatu zituen Arakistainek 1746an, eta Larramendiri igorri zizkion, nahiz eta andoaindarrak ez zuen hiztegiaren bigarren ediziorik atondu: Fitak kaleratu zituen Arakistainen gehigarriak, eta Azkuek Fitaren edizioa baliatu zuen bere hiztegirako, inoiz zuzenketak eginik, inoiz zuzendu beharrekoak atzeman gabe.

Gipuzkoako hitz eta aldaerez denaz bezainbatean, Arakistainek emandako azalpenek halako bermaleku bat ematen dute zalantzarik gabe baieztatzeko hitz edo/eta aldaera batzuk bere sorterrian ikasiak eta erabiliak zirela: “Tambien me hê acordado de algunos terminos usados en Guipuzcoa en las cercanias de Iziar donde yo me crie, y los

¹⁷⁹ Ondarra & Unzueta (1997) lanetik aipatuko ditut hemen Arakistainenak, Mitxelenak (1970) eginiko zuzenketak eta *OEH*-ko azalpen eta argibideak aintzat harturik.

hê querido poner advirtiéndolo, que puede ser, que en alguno me equivoque, por haver pasado mucho tiempo” (Ondarra & Unzueta 1997: 287).

Ia aurrekoa bezain argigarri dira ahaztuxe zituen hitzen inguruan emandako zehaztapenak: “No se el correspondiente de las siguientes voces bascongadas (...) Los inquilinos de Lastur demostraran a Vma. estos objetos, y también diran lo q. es *elutsa* q. ya no me acuerdo” (Ondarra & Unzueta 1997: 294).

Arakistainek Gipuzkoakotzat markatutako hitzen artean ugari dira Deba ingururako edo Gipuzkoako mendebal zabalerako zein Goierri alderako espero zitekeen aldaera disimilazioduna dutenak, baina disimilaziorik gabeak ez dira gutxi eta zalantza eragiten duten formak ere badaude. Gipuzkoakotzat markatutako formak dira interesgarrienak hemen. Nahasteak eragin ditzaketenak eta berreraiketa analogikoak albo batera utzita, hiru multzo nagusi bereiz daitezke:

(i) *-ea* besterik ez dutenak:

70 Acelga, *beletea*, Guip.; 75 Cebo para pescar, *garnatea*, Bizcaya, Guip.; 113 Camisa gruesa de hombre, *orberea*, Guip.; 129 Majuela, frutilla colorada del espino, *elosiquea*, Guip.;¹⁸⁰ 135 Barro, *basea*, Guip.; 137 El monton que assi se quema, *erreturea*, err[...], Guip.; 162 Pala, *parea*, Guip.; 163 Palmo, *arraea*, Guip.;¹⁸¹ 179 Rebuzno, *arrantzea*. Rebuznar, *arrantzatu*, Guip.; 192 Tres en una pieza, como tres nueces, avellanas etc. *irustea*, Guip.; 196 Zorra del atun, *mendresquea*, Guip.; 211 Muedrago, assi llaman en algunos lugares de Castilla a la mata verde que se cria en los manzanos, y espinos, *migurea*, Guip.; 223 Gregorillo de muger, *lepestalquia*, *idunecoa*, *gironea*, Guip.; 229 Almilla, *jaquetea*, Guip.; 315 Orquilla, ô tenacilla de palo con que se desgrana el erizo de castaña, *mochardea*, *mordazea*, N. G.;¹⁸² 715 Caloca, [h]acia las Encartaciones la camisa del maíz, *maizgonea*, *artagonea*, G.; *maizgona*, *artagona*.; “Algunos refranes” ataleko 3. *Illbeltza ill zuri*, *babea betez itzuli*, G.; 839 Araña, *barasmea*, G.; 847 Toba, piedra, *tosquea*, G.; 854 Cuna, *cumea*, G.; 855 Trabuquillo de sabuco ô de otro arbol con q. los mu[cha]chos se tiran unas bolitas de estopa, *poloquea*, G.; 859 Grama, *muguitea*, G.;[9]; 861 Cieno, *erdoquea*; cenagal, *erdocadia*, G.; 864 Vencejo, *arranerea*.

(ii) *-a* eta *-ea* aldaerak dituztenak:

74 Tropa de gente, ganado, etc., *aldra*, *aldrea*; 138 Cabezuela, de que se hacen las escobas, *inarra*, *inarrea*, Guip.; 152 Macolla, *escutea*, *escuta*, Guip.; 173 Picacho, *armoca*, *armoquea*, Guip.; 202 Parage ô sitio alto, adonde de noche se recogen las gallinas, *ota*, *otea*, Guip.; 210 Ramusca, *chára*, *chárea*, con acento breve ó diferencia de *chareá*, *chará*, q. significa jaral, Guip.; 233 Carrera en la espiga, *malla*, *mallea*: *malla bacoitzean sei ale*, Guip.; 297 Pesebre, cuezo, *asquea*, *asca*, G.; 398 Chapa ô plancha larga de hierro para unir algunas piezas, *lamea*, *llama*, G.; 427 Requemado de la leche, arroz, y otras cosas en el suelo del caldero, ô cazo, *errauca*, *arrauca*, G.; *querra*, N. & 429 Humillo, o resabido, que assi toman, *errauquea*, *arrauca-usaiña*. G. *errequerua*, N.

(iii) *-a* besterik ez dutenak:

¹⁸⁰ Gipuzkoako Goierriin *elosike* ere badagoela eta (OEH, s.v. *elosika*), zalantza egin daiteke.

¹⁸¹ Cf. “La var. más usual es *arra*. Las formas como *arrae*, etc. tienen su origen en el caso absoluto sing. determinado *arraea*, de *arraa* + *a*, por el cambio occidental *-a* + *-a* > *-ea*” (OEH, s.v. *arra*).

¹⁸² Gerora ere ikusiko denez, *a* + *a* > *ea* disimilazioa Nafarroako mendebaleko hizkera batzuetan besterik ez dago lekututa. Arakistainek aldaera disimilaziodunak Gipuzkoan ez ezik Nafarroan ere kokatzen dituenak ez dakit mendebal horretako hiztunei zehazki edo Iruñean bertan mendebal horretako hiztunekiko hartu-emanetan jasotako formak diren. Cf. orobat 482 Canal, *tellartequea*, N. eta 483 Medio corto entre dos cossas, *artequea*, N.; 1086 Aulaga, *otaea*, N. edo 1121 Bozal de bestias, *morrailea*, N.

79 El propietario, q. no la habita, *ugazaua*,¹⁸³ Guip.; Agujon (...) la agunja de punta, *caña*, Guip.; 125 Legia, *poiata*, Oñate;¹⁸⁴ 144 Congrio, *itsasanguira*, Guip. Bizc.; 181 Tragineria, *azoca*, Guip.; 188 Pitarra ô aguapie, *miñacha*, Guip.; 200 Recivimiento, admissiion, *artzaiera*, Guip.; 341 Pescozon, *zaplacoa*, *zartada*, G.; 358 Garrapata, quando es pequeña se llama, *acaiña*, *aqueña*, y despues de crecida, *bacasta*, G.; 369 Grossor, *lodiera*, G.; 371 Batida de agua, *zaparrada*, *chaparrada*, G.; 375 Renuevo, que sale no del tronzo ô pieza principal, sino de su raiz, *aldaca*, G.; 393 Lenguaje, *hitzquera*, G.; 394 Modo de hablar, *hitzqueta*, G.; 421 Huebo, *arrautza*, N. G.; 485 Abono para la tierra, hecho de la broza, que juntan las aguas en parajes pantanosos, *locarda*, G.; el lugar se llama *locatza*; 493 Carrera, *lastercada*, G.; 510 Pedazo de cadena gruessa con su herron en la lanza, que sirve para acarrear maderos, *nardaya*, *chirrita*, G.; 538 Chorrotada de agua vg: *cirristada*, *chirristada*, G.; 667 Palo menor del trillo, con que se apalean y desgranar los trigos, q. regularmente es de acebo, *chibita*, G.; 668 Geringuilla, con q. los muchachos se tiran el agua unos â otros, *bisustura*, G.; 699 Taravilla del molino, clasca, *maratilla*, G. N.; 701 Bordon, ô hembra donde se mete dho exe, *gorrona* N.; *changa*, G.; al quicio de la puerta se llama tambien *changa*, G.; 717 Casco de longaniza asada, *chistorra*, N. G.; 740 Saetin, *ûasca*, *asca*, N. G.; 770 Muesca, rosca, *cosca*, *osca*, N. G.; 994 Agujeta, *abixeta*, *asubeta*, *aixubeta*, N. G.; 1218 Crujido, *carranca*, *carrasca*, N. G.; 1340 Guacharrada, *blastada*, *palastada*, *plastada*, N. G.

Arestian esan bezala, ez dago jakiterik (i) eta (ii) multzoetako hitz guztiak Arakistainek berak aipatutako Itziar (eta Lastur) ingurukoak diren, Gipuzkoa erdialderagokoak eta hegoalderagokoak ere izan baitzitezkeen; nolahi ere den, uste dut nabarmentzekoa dela, Larramendik *HH*-an egin bezala (eta, beharbada, horregatik ere), Arakistainek horiei lekua egin izana, Gipuzkoan gutxienez *Imposible vencido*-az geroztik bultzatutako hizkera kultuaren erdua beste bat izanik. Urgellek Larramendirengan atzemandako irekitasuna dago Arakistainen proposamenetan ere. Bestalde, (iii). atalekoei dagokienez, Gipuzkoako kostaldeko, Beterriko nahiz Tolosaldeko formak izan zitezkeen, jakina, baina aintzat hartzekoa da sail horretako hitz ugari Gipuzkoakotzat eta Nafarroakotzat ematen direla zerrendan, eta ez litzateke baztertu behar, hitzok Nafarroako hizkeretan ere lekututa, Gipuzkoako alderdi zabal (eta hizkera prestigiotsu) batean ere disimilaziorik gabeko aldaerak baliatzen zirelako jakitun, Arakistainek disimilaziorik gabeko formen alde lerratu izana hitz-sarrerak.

Arakistainek euskaraz sortutako beste lanetan (Larramendiri igorritako gutuna eta lauко txikien bi sortak) ez dut disimilaziorik aurkitu: Larramendiri igorritako gutunean, esaterako, 3 & 21 *eusqueraren* eta 22 *eusquerari* daude, eta lauко txikien lehenengo sortaren izenburuan *eusqueraren* eta zortzigarren ahapaldian “Gure eusquera diote dala / Orañagoco berriia” dakar.¹⁸⁵ Bigarren sortak ez dakar disimilazioa agertzeko testuinguru aproposik adizkietatik kanpo, eta horietan ere ez dago disimilaziorik (15

¹⁸³ Jokamolde bereziko hitza da, halere; begiratu (§4.4.4.1.1) atala.

¹⁸⁴ Kasu honetan, aldaera Oñatikoa izanik, forma mugatua *poiatea* edo *poiatia* izatea espero nuen (cf. Landucciren *coladero* - *puyatea*).

¹⁸⁵ Halere, azken ahapaldian *-le* > *-la* berreraiketa analogikoa dago: *Esquerric asco*, *gueure betico* / *Onguieguilla andiia*.

Biurcen diran). Nolanahi ere den, agerikoa da Arakistainek testu horietan ez zuela hizkera herrikoirik baliatu, ezpada molde landuagoa eta orokorragoa.

4.4.3.2. Arabako ekialdeko eta Sakanako testuak

4.4.3.2.1. Arabakoak: Albeniz eta Gamiz

Arabako mendebaleko (Aiaraldeko testu zaharrak, DotrSerm) eta erdialdeko (Land, Betol, Lazarg) testuetan $a + a > ea$ betetzea arau bada ere, ekialdeko testu batzuetan mendebalerago hain ohiko ez diren salbuespenak ugariagoak dira.

Arabako (ipar-)ekialdeko testuei dagokienez, Albenizen *Acto cotricioco-an* (1778) badago forma disimilaziodunik (171 *neure arimearen jueza*, 173 *neure arimea despedietan doa* eta 173 *entregaiten dot neure arimea*), baina salbuespenak ere ez dira falta: 172 *neure arima eta neure viciza baño gueiago* da deigarriena; izan ere, gainerako salbuespenak testuinguru jakin batzuetan daude, Altunak (1995b: 99) ikusi zuenez: bokatioetan¹⁸⁶ edo koordinazioetako lehen osagaietan (baina bigarren osagaiak mugatzailea duela, 172. orrialdeko adibidean legez).

Hegoalderago, Gamizen olerkietan badago disimilazioa: 10-3/4 *naibaduzu vizia edo eriotzea*, 22-5 *errespuestea*, baina salbuespenak ere ez dira falta; zehazki, zenbait esapidetan (*lotsa izan, fortuna edun*) eta objektu-posizioako *carta* hitzari loturik agertzen dira: 1-4 *eztut nic lotza*, 4-4 *fortuna duzu*, 26-2 *biraldur eiazu carta*.

4.4.3.2.2. Araba/Sakana aldekoak

Sakanan ziurtasunez koka daitezkeen testuak gutxi eta modernoak dira. Lekukotasun zaharrenei dagokienez, Portalen hizkera jo izan da inguru hartakotzat, Nafarroako mendebaleko beste eremu batzuk guztiz baztertu gabe (cf. TAV 115). Portalen lana aingura-testutzat erabilita, bestalde, inguru bertsuan kokatu zuen Ulibarrik (2011b) Sevilla1619 testuko hizkera.

Portalen testuan bete egiten da disimilazioa, baina salbuespenak daude soziatibo eta genitiboetan: 35 *Essayas propheteac* (erg. sg.), baina 75 *pobreçea penarequin*; 21 *Eta çure arimarençat*, 62 *Virginaen choruan*.¹⁸⁷ Sevilla1619 bertsoetan ez dut salbuespenik harrapatu: 13-16 *Aytea ona debe / ala doctrinea / maestru onarequin / ango escolea*, 18 *gauçea*, 30 *Noeren arqueac* (erg. sg.), 48 *Bilbaoco espateac* (erg. sg.),

¹⁸⁶ Hala nola 170 *O Jeschrishto, neure viciza!* Nolanahi ere den, beste bokatio batzuetan mugatzailea ageri da. Cf. honako hauek, besteak beste: 167 *Ea Jesus, izan zadiz neurezat, Jesus neurea! Ea neure Jauna eta Jaungoicoa, ya eldu da orduba...*; 168 *Ea neure angueru guardacoa*; 171 *Ezteutzut, neure Jaungoicoa, ezcatcen parcatu naizula...*; 173 *Misericordia, neure Jaungoicoa, eta piedadea*.

¹⁸⁷ Lehenago Zumarragaren eta Kapanagaren itxura bereko formez eta Castañosi (1957) jarraituta, analogikotzat ere jo liteke azken adibide hori.

89 *Virginea*. Are gehiago, 57-60 bertso-lerroak biltzen dituen ahapaldian espero ez nuen (absolutibo plurala baita) disimilazioa ageri da, Ulibarrik (2011b: 374) dioenez errimak behartuta-edo: *Elorrion eguiten / millares lanceaq, / punta sorrotsarequin / guessiaq, ascoeaq* ‘azkonak’. Datuok ikusita, beraz, ematen du disimilazioa indartsuago dagoela Sevillako bertsoetan Portalen testuan baino.

Sakanako lekukotasun modernoagoetan disimilazioaren hedadurak bat egiten du egun ezagutzen den egoerarekin (cf. *ETZ* 186, 229 eta hurrengoak).

Ikusten denez, Arabako ekialdeko eta Sakana aldeko testuetan Gipuzkoa erdialdeko egoeraren parekoa ageri da: disimilazio-erregelak indarra du, baina salbuespenak ere badaude eta salbuespen horiek, oro har, kokagune jakin batzuetan agertzen dira; halere, kokagune horietatik kanpo geratzen den kasu gutxi batzuk ere badaude.

4.4.4. *a + a > ea* disimilazioari lotutako bestelako fenomeno eta erabilerak

4.4.4.1. Hedadura zabalekoak

4.4.4.1.1. Erreferente bakarreko izenak

Oro har, euskaraz hala izen bereziek nola erreferente bakarreko izenek ez dute artikulurik hartzen. Erreferente bakarra duten edo izan dezaketen elementuei dagokienez, aurreko baieztapenaren ondorio da *errege, ama, aita* edo *ugazaba* bezalako hitzek artikulurik behar ez izatea, betiere izen horien bidez aipatzen dena bat eta bakarra bada; hots, herrialde edo erreinu jakin bateko erregea, pertsona jakin baten ama edo aita, eta abar.

Halaber gertatzen da berez izen arrunt izan arren sintagma jakin batzuetan izen berezi gisa erabiltzen diren hitzekin: Lazarragarenean A16:81 *Unicornio, animal fortiz / animal oen artean* ematen da (cf. Manterola 2015: 438), eta ZolloGald testuan sistematikoki da mugagabe *emazte* hitza (Zuloaga & Antequera 2019). Bada, Bizkaiko testu zaharren artean beste horrenbeste gertatzen da *RS 402 Ardura, enoc yre gura* errefrauan, eta horregatik ez du disimilaziorik.

Euskal testuen tradizioan bietariko formak aurki daitezke, artikulurik gabeak eta artikuludunak, erreferentea(k) zein(tzuk) d(ir)en. Atal honetan *a + a > ea* disimilazioaz eta horri lotutako fenomenoez ari naizenez, amaieran *-a* duten eta erreferente bakarra

izan dezaketen bi hitz besterik ez ditut hemen aztertuko; zehazki, ahaidetasun-harremanei lotutako *aita* eta *ama*.¹⁸⁸

Ahaidetasun-harremanen esparru semantikoko hitzei helduta, arestian aipatutakoarekin bat, pertsona jakin baten *ama* eta *aita* (hezur-haragizkoak eta odolekoak, biologikoak) aipatzen direnean, artikulurik gabe eman ohi dira, honako adibide hauetan argi ikusten denez: *RS 451 Ene alabea ax on, ama, marcaac dabilz ysasoan*, Mikol *de mi padre - aytaganic*, Olaetxea 150 *ecin ezcondu leite nescatilla, edo andra onen amagaz, ez aizteagaz, ez alabeagaz, ez lengusineagaz, ez icecoagaz, eta ez lobeagaz bere*.

Aurrekoaren haritik, erreferente zehatzik ez dagoenean, artikulua eta guzti agertu ohi dira ahaidetasun-harremanei lotutako izenak. Hiztegietan argi ikus daitezke halakoak: *madre - améa* eta *padre - aytéa* dakartza Marineo Sículok; *comadre (C) - pilaco amea, madre - amea* eta *padre - aytea* Landuccik (halere, *consuegro - (B) ayta guiarrau* eta *consuegra - (B) ama guiarrau* ere baditu).

Dena den, egile guztien jokabidea ez da sistematikoa: Mikoletaren hiztegiko sarrera gehienek artikulua definitua duten arren *madre - ama, padraastro - vgas-ayta* eta *padre - ayta* ageri dira; beraz, ematen du bilbotarrak erreferente bakarra adierazten duten aldaerak hautatu zituela. Zenbait errefrau zaharretan ere agerikoa da izenen generikotasuna: *RS 35 Celangoa baysta amea alangoa oy da alabea*.

Halaber gertatzen da erlijioaren esparruan: izendapena metaforikoa edo irudikatua (hots, *aita* Jaungoikoaz eta *ama* Ama Birjinaz aritzeko erabiltzen denean), artikulua hartu ohi dute izenek; hezur-haragizko gizakiez eta odoleko loturez (Jesusez eta Mariaz, adibidez) aritzean, ez. Barrutiaren bertso-lerrook ondo islatzen dute banaketa:

<39-42> Ave mila vider Virgíña Maria

ni naiz ceru altuco mandataria

cerureaniq dacart embajadea

zeu zarala yzango Jaunaren amea.

(...)

<368-373> Sartu zan infante au amaren sauelean,

Adanen becatuti ez ebela arean,

¹⁸⁸ *OEH*-k (s.v. *ama*) *EAEL*-tik (42) jasotzen duen adibidearen arabera *ámara* ‘ama’ jaso zuten Zaraitzun. Adibide bakarra da, baina lekukotasun ziburra bada, ahaidetasun-harremanen eremu semantikoa mugatzailea erabiltzeko aukera Mendebalaz kanpoko ere izan zela pentsatu behar da.

berau da Xangoikoa, ama dau Virjinea,
 ori da marauilla andi pareuagea.
 Josephe dichosoa, amaren esposoa,
 ezta Jesusen aita, baña bay ordecoa.

Trinitate santuaz aritzean eta “Aitareen egin” esapidean arruntena da *aita* artikulua eta guzti agertzea: VJesus 5 *Aytea, eta Semea, eta Espiritu Santu Iaune*; Kapan 3 *Iauna Aitearen, eta semearen eta espiritu santuen icenean*; ZubLez 421 *Iaungoicoa bera, Aitea, Semea dà Espiritu Santua*; Amilleta 2 *Aitearen, semearen, da espiritu santuaren icenean*; Arzadun 22 *esaten dala becoquian, Aitien; bularrean, da Semien; da ezquerreco solbardaric escumacora, da Espiritu Santuen icenean, Amen Jesus*; OrozOtoi 30-31 *Gloria Aytteari, tta Semeari / ta espiritu Santuari*; Olaetxea 4 *Aiteaen, ta semeaen, ta Espiritu Santuaen icenean*; De la Quadra 15 *Aitiaren (becoquijan) da Semiaren (garrijan) eta Espiritu (esquerreco sorbaldan) santuben izenian (escumacoan)*. Halere, bada salbuespenik, hala nola aipatutako Arzadunen beraren dotrinan: 26 *Aita, Semea, da Espiritu Santua*.

Aurreko guztiak esanda, aitortzekoa da erreferentea eta aldaeren arteko banaketa ez dela beti nahi bezain garbia, eta kasu batzuen lausotasunak zalantza eragin dezakeela. 1708ko sermoian, esate baterako, 6 *Ysaac Patriarca santuaren ameaq Ysmaelen ameari emon eusson sententia* ageri da, artikulua eta guzti. Pentsa liteke idazleak ez zituela buruan hezur-haragizko bi emakume, ezpada bi pertsonaia bibliko irudikatu; baina, beharaxeago, izen eta guzti aipatzean, hala dakar testu berberak: 6 *baya Agar Ysmaelen amaq zergaitiq urtengo dau pecaturiq eguin ezpadau?*

Urkizu durangarraren 1737ko lanean 4 *baia icusiric zariala becatarien amea* esaten da Ama Birjinaz aritzean. Zenbait orrialde igarota, ordea, Ama Birjinaz aritzean 25 *aguèrtu jacan becatarien ama* dago, agertutakoa hezur-haragizkoa zelako edo.

Euskararen corpusak erlijio-gaien inguruan duen homogeneousotasunak badu abantailarik ikerketarako: testu paraleloak erkatzea eta aztertzea ahalbidetzen du, eta idazleen arteko lotura eta gorabeherak azalerazte. Hemen hizpide dudak ezaugarriari dagokionez, fedeko artikuluen azalpenetan mugatzaile eta guzti agertu ohi da *aita* hitza Mendebaleko testuetan; cf. Betol 7 *Bigarrena sinistetea dala Aytea*; Kapan 10 *Bigarrena sinistu dala aitea*; ZubLez 421 *Bigarrena sinistu dala Aitea*. Arzadunen dotrinan, aitzitik, bietara erabiltzen da: 14 *Bigarrena sinistu dala Aytea* lehenengo,

baina 16 *Bigarrena sinistu dala Aita* ondoren. De la Quadrak artikulurik gabeko forma dakar esapide horretan: 3 *Vigarrena, sinistu dala aita*.

Salve-an XVIII. mendea baino lehen ageri dira gorabeherak:¹⁸⁹ Betol 6 *Salve Regina, misericordiasco amea, vicizea eta dulçura*; baina VJesus *Salve Regine, misericordiesco Ama; vicice dulcea, salbe esperanza gueurea*; Olaetxea 9 *Salve Erreguiña, misericordiaen Ama, bicitcea, ta dulzurea*; De la Quadra 2 *Salve Erreguina, misericordiaren ama, vizitza eta dulzura esperanza gueuria, salve*.

Credo-an ere bereiz agertzen da Betolatza gainerako lekukotasunen aldean: 5 *Sinistetandot Iaungoyco Aytagan, gustiz poderosoa, Ceruaren, da lurraren Criadoregan* dakar arabarrak, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako beste egile batzuek bestelako egitura dakarten lekuan; Arzadun 13 *Sinistetandot Jaungoyco Ayta guztiz poderossoagan*; Olaetxea 8 *Sinisetandot Aita Jangoico guztiz poderoso, Ceruaen, ta Lurraen Criadoreagan*; De la Quadra 3 *Sinistuten dot Jangoico Aita guztiz poderosoagan*.

Kapanagarenean, halere, hezur-haragizkoa balitz bezala aipatzen da Jainkoa: 35 *P. Paternosterra esaten doçunean, nogaz berba eguiten doçu. R. Iaungoico omnipotente gueure aitagaz. P. Nun dago Iaun goico gure aitea. R. Lecu gustietan, içaiteagaz, egoteagaz, eta podereagaz. Berba egitean entzuten duena aita da; leku guztietan dagoena, izatez, egotez eta boterez, aitea*.

Mendebaleko testuetan XIX. mendera arte iraun zuten (*OEH*, s.v. *ama* eta *aita*, adibidez) hemen iruzkindutako bereizketak eta *amea* edo *aitea* moduko aldaerek. Ematen du XIX. mendean zehar ihartu (beharbada aurretik zetorren ihartzea, eta hortik XVIII. mendearen amaierako lan batzuetan ageri diren gorabeherak) eta eremu semantiko batean gorde zirela halakoak, oro har. Ezagun dira Azkuek gai honen inguruan emandako azalpenak:¹⁹⁰

Nosotros no aplicamos el artículo por antonomasia a: 1.º ni a nombres propios como los citados; 2.º ni a nombres circunstancialmente propios: *Aita* padre, *Ama* madre, *Erege* rey, *Eregina* reina, *Aitaita* abuelo, *Amama* abuela, *ugazaba* ama, *aña* niñera, *tata* niñera en lenguaje infantil, y en algunas comarcas tampoco a *osaba* tío, *izeba* (izeko) tía, y algún otro. (*MorfVasc* §448)

¹⁸⁹ Kapanagaren eta Arzadunen lanek ez dute hemen balio, bestelako sintaxi batekin eman baitzuten pasartea: Kapan 7 *Salve Regina. Erreguiña, eta ama misericordiazcoa viçiçea, eta dulçurea*; Arzadun 17 *Salve Erreguina, Erreguina, da Ama misericordiazcoa, vicicea, da dulzurea*.

¹⁹⁰ Azkueren beraren hiztegian (s.v. *ama*), *amea* txorien amaz aritzean baliatzen dela azaltzen da. *Euskalzale* aldizkarian RS iruzkintzean, Orozko aldean erabilera zaharragoaren aleak aurki zitezkeela azaldu zuen Azkuek: “Orozko-aldean esaten dabe *Aitea* ta *Amea*, *Aita* ta *Amagaitik*. Beste erri askotan *Aitea* ta *Amea* txorikumeen gurasokaitik esaten da; baina gizakumeakaitik ez” (*apud* Lakarra 1996: 121). Hona hemen nik neuk hamarkada honetan Arrigorriagako Brisketa auzoan jasotako adibidea: *Abidxie? bat arra bakarrik, gero amie umakas beste bat* ‘Habia? Bat arra bakarrik, gero ama kumeekin beste bat’.

Orain arteko adibideetan Bizkaiko eta Arabako kasuak besterik ez ditut eman, baina fenomenoa ezaguna da Gipuzkoako erdialdeko eta hegoaldeko, eta Araba/Sakana aldeko testu zaharretan, gorabeherak gorabehera. Gipuzkoako testu zaharrenen artean, Miserereak 92-93 *Bis gloria aytearequin semearençat / Vis gloria spiritu santuarençat* dakar, baita 18 *concebitu ninduum amac culpaetan* ere. Bigarren horretan *amac* ergatiboa izan arren, ez da zertan *ameac* espero, hitz egiten duenak bere ama bazuen gogoan.

Urolako testuen artean aipatzekoa da Azkoitiko *Sumario breve*-an ez dagoela forma disimilaziodunik: *ama* eta *aita* besterik ez dira agertzen, eta *aita* gehienek kongregazioko aita dute erreferentea. Mende baten buruan, ordea, arrunt ageri dira hala *aitea* nola *amea* Loiolako dotrinan, baina erabilera ez da sistematikoa: 3 *Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santu Jaunaren izenean* ageri da behin, baina 33 *P. Cein dirade? R. Aita, Semea eta Espiritu Santua* eta 34 *Aita, Semea eta Espiritu Santua* ere badaude esapide horretan.

Mende berean oso ugariak dira *aitea* eta *amea* aldaerak Zegamako dotrinan (1741), Loiolakoan baino ugariagoak eta sistematikoak trinitatea aipatzeko esapidean. Otxoa Arinen lanean, aitzitik, ez dut *aitea*-rik edo *amea*-rik aurkitu.

Sakana aldeko eta Araba ekialdeko testuetan ere ageri da disimilazioa *aita* eta *ama* aldaeretan. Hau dakar Portalen olerkiak: 29-32 *Probeen aytea da / Guiçonen abogadua / Flacoarençat gaztelua, / Ogui consagrata*. Sevilla1619 testuan ere birritan dago *aitea* aldaera: 13-16 *Aytea ona debe, / ala doctrinea, / maestru onarequin / ango escolea* eta 93-96 *An egondu san / santuen santua / Aytea ycusten deu / Espiritu Santua*. Gamizen “Beste tunucho berri bat” testuak ez dakar disimilaziorik *aita* eta *ama* hitzetan, baina beharrik ere ez dago, gurasoak biologikoak direla ulertzen baita: *Mutil batec ezan dust / naiz[e]la galanta / badaquit ori / carricatic noanean / jantziric ongui agradatzeço / ezancio Alcateari / ene biiotzeço / farala ralarequi / ezandio Aytari ta / dio viurtu bedi / Amari ezan ta dio / ycuzco dugu / errespuestea esta gaizto / bodac daucagu / vda irago baño len beardegu ezcondu*. Albeniz araiarraren testuetan ere ez dago disimilaziorik hitz jakin horietan: 170 *O Jesuchristo, neure viciza, nor ofendidu deut neure pecatuaquin? Neure Jaungoicoa, neure aita eta Jauna!*, 171 *Ezarri eguidazu, neure aita, zeure bendicio santuba*, 172 *neure Jaungoicoa, neure ayta eta redemptorea*.

4.4.4.1.2. Berreraiketa analogikoak (-e > -a)

4.4.4.1.2.1. Mitxelenak zioenez, “en posición final absoluta el vizc. tiene a menudo -a por -e en los demás dialectos: vizc. *baga* ‘sin, falta, carente’, *bela* ‘cuervo’, *laba* ‘horno’, *oba* ‘mejor’: com. *bage* (*gabe*), *bele*, *labe*, (*h*)*obe*” (FHV 105). $a + a > ea$ erregela gertatu den kasuetan ez dago biderik oinarrian zer dagoen argi ikusteko, eta Mendebal zabaleko hiztun eta idazleek -a berreraiki izan dute, analogiaz, lehenago -e zena eta Mendebalaz kanpo oraindik ere -e dena.

Mendebaleko lekukotasunek argi erakusten dute Erdi Arotik datorrela $a + a > ea$ disimilazioak lausotutako oinarria -e > -a berreraikitze joera: aldaketa sistematikoa da hitz jakin batzuetan Arabako eta Bizkaiko lehenengo testuak agertu orduko (cf. *Andre Ansa de Çeberyo* baina *Andrransa de Çeberyo* Bizkaian 1464an (Salaberri Zaratiegi 2018: 314).

Datuak astiro aztertuta, ematen du berreraiketa analogikoaren indarra eta ugaritasuna egile bakoitzak elementu linguistikoez egindako irakurketaren arabera dela: berreraiketa ez dago berdin hedatuta hitz eta morfema guztietan. Ondoren erakutsiko dudanez, batzuetan sistematikoa da (*andra*, *deunga* & *donga* zein *lora* aldaeretan, adibidez), beste batzuetan gorabeherak daude testu bakar batean (*baga* & *bage* edo (*h*)*oba* & (*h*)*obe* daude, esaterako) eta beste batzuetan berreraiketa analogikoa agertu ere ez da egiten, inguru bereko beste iturri batzuetan agertu arren. Aurrekoek erakusten dutenez, hala hitz arruntak nola posposizioak uki ditzake berreraiketak.

Berreraiketaren ibilbide diakronikoaz argi gehiago lortzeko, ez ditut mendebal zabaleko testu guztiak aztertu: luzeegi joko luke eta ez dut uste emaitza lagin batekin lan eginda baino ikusgarriagoa izango litzatekeenik. Alde batetik, Bizkaiko eta Arabako erdialdeko testu zaharrak aztertu ditut; zehazki, XVI. mendeko guztiak eta XVIII. mendearen amaierako zenbait: Bizkaian, Olaetxearen dotrina eta De la Quadraren *Doctrina christinaubarena* (Bilbao 1997); Araban, *Dotrinazko sermoitegia*-ren “Credo en expliqueciñoa” ataleko lehenengo lau kapituluak. Beste alde batetik, Gipuzkoako testuak (XVI-XVIII. mendeen arteko guztiak, sartalderagokoak bezain ugariak ez direlako) eta Arabako ekialdekoak eta Sakana inguruan kokatu izan direnak aztertu ditut.

Lagina eratzeko, baztertu egin ditut nahastea eragin dezaketen kasuak edo ez berreraiketa analogikoaren baina bestelako fenomenoen ondorio izan daitezkeenak; labur azalduta, artikulatu definiturik gabeko deklinabide-markak eta bestelako morfemak hartzen dituzten elementuak erabili ditut, eta konposizioari lotuta ager zitezkeen

aldaketak baztertu (*FHV* 103-104); cf. Gar. A5 *Ogui erraverria, echagalçaigarria* = B2 *Ogui erra barria, Esa galçay garria*; A9 *Norc vere gozoç echa guinean* = B 33 *Noc vere gozo-az esa guinen*.¹⁹¹

Sortutako laginak aztertuta, aurreikusitako zenbait ondorio berretsi ditut, eta corpusaren izaerari lotutako beste batzuk lortu.

4.4.4.1.2.2. Bizkaiko eta Arabako testuei dagokienez, berreraiketa analogikoa sistematikoa da hitz batzuetan lehenengo testuetarik eta XVIII. mendearen amaierara arte, gutxienez: esate baterako, *agura, altara, andra, auma, deunga, dolara, laba, lora, mizca* besterik ez daude Mendebaleko testu zaharretan.¹⁹² Bestalde, *atsekabe & atsekaba* bikoteak bidea ematen du kronologian eten bat irudikatzeko; izan ere, bigarrena nagusi da XIX. mendera bitarteko sartaldeko testuetan (cf. Andram 2-9 *achacaba*, Lazarg A7:104 *ez artu asebaric*), eta, orduz geroztik erabili bazuten ere, bizkaitar idazleen testuetan orduan hasten da ugaritzen *atsekabe* (*OEH*, s.v. *atsekabe*).

Hitz arruntetatik harago, *bage & бага* postposizioaren (eta eratorrien) aldaeren artean ez dago sistematikotasunik. Bigarrena Euskal Herriko mendebalekoa da, baina ez bakar, *bage* ere ezaguna baita; nolana ere den, Lazarragarenean *бага* aldaera erabat nagusi izan arren (baina kasu honetan ere bakar izan gabe), ematen du testuak zenbat eta erdialderagokoak izan, hainbat eta gehiago ugaritzen dela *bage* aldaera. Hona hemen XVI. eta XVIII. mendeetako zenbait adibide: *RS* 146. *Hodolac su бага diraqui*, Betol 9 *necessidade бага, 12 ceinzuc bagaric ezin / yñor salvadu leytequean*, Lazarg AL:1154v *negar eguin бага egoten*, BertsBizk 23-2 *bego yregui бага*, Arzadun 59 *peccatu mortal бага joan comulguetan*; baina, ArrasErreI (“Gomizec asco lagunic”) 8 *ospe bagueric*, ArrasErreII 10 *viola tronpeta bague*, Lazarg AL:1145v *aseguin bague*, Amil 3 *oneec Jaquin Bague*, Gamiz 2-7 *lotzaric bague*.

Postposizio horri loturiko *-ga & -ge & -tzaka & -tzake* aldaeren artean berreraiketa analogikodunak dira nagusi XVIII. mendearen amaierara arte: *RS* 250

¹⁹¹ Bada multzo batean edo bestean argiro ikusten ez dudak kasuren bat, baina horiek ere bazter utzi ditut, lagina “garbiagoa” izan dadin. Esate baterako, *RS* 510 *Adisquide bar[r]iagayti zar[r]a vcatu validi, edo len edo guero calta artu leydi-ko kalta hori kalte-ren mende jarri zuen Soto-Mitxelena, baina sarrera beregaina eman zion Lakarrak (1996: 215) erretra-bildumako lexikoa jasotzen duen hiztegiaren.*

¹⁹² *Bela* ‘bele’ aldaera ere aipatu izan da inoiz (cf. *FHV* 105). Halere, Pozaren lanetatik euskal hitzak erauzi zituenean, *bele* eman zuen Gorrotxategik (1987: 679), Pozaren *Belon* (< *Bele on*) formatik. Hain zuzen ere, nahiz eta Pozarenean *andra*, *Arevacos* ‘are bako + gazt. pl. -s’ edo *baraça* bezalako aldaerak dauden, Pozaren beraren hitzek bidea ematen dute *bele* berreraikitzeko: “Belon es el rio que ahora llamamos Guadalete, y significa cueruo bueno en el qual sentido vuo otro rio en la Grecia, llamado Corax, que quiere dezir cueruo, y aun el vocablo Belasco, linage de los Condestables de Castilla, de aqui segun algunos, es deriuado Veleasco o Velasco abreuiado, que significa en Bascuence, lugar de muchos cueruos” (1587: 18).

esquerga, 263 *lotsaga*, 394 *afalzaga*, 430 *afalçaga*, Lazarg A28:109 *enparaçaca*, A9:15 *beguiraçaca*, B21:40 *sentiçacaric*, A14:84 *tentaçacaric*, De la Quadra 66 *confessatzaga*, 94 *cumplitzaga*. Nolanahi ere den, aipatutako testuetan beste batzuetan baino sarriago ageri dira atzizki horiek, eta horrek ez du eremu osoaren irudia desitxuratu behar.

(*H*)*obe* & (*h*)*oba* izenondoaren aldaeren artean ere ez dago sistematikotasunik. Kasu honetan ere bigarrena mendebalekoa da, baina ez bakar, eta (*h*)*obe*-ren lekukotasunak daude lehenengo testuetarik, adibideotan ikus daitekeenez: RS 293 *Ecachac dacar aro ona*, *gaxtoa vaynazate oba* edo 432 *Oba chori bat escuan ce ez bost ezcurrean*, baina 29 *Aldi chaburra lasterra vada egun astia baño obe da* eta 30 *Adinona larra baño obe da*;¹⁹³ frJZum 6 *ebeco gauçaez obetuco ta ondraduco dogu*, baina 9 *Eta ene erechian oba da guarda ditean exilic*. Halaber XVIII. mendean: Urkizu 7 *dá obeto entendidu daizun*, baina UrkizuKopl 78 *prenda obaric*.

Atzizkietan, egiletza adierazten duten *-tzaila*, *-la* eta *-gila* dira ohiko aldaerak Mendebaleko testu zaharretan: RS 38 & 446 *ençula*, 80 *vrçaçalla*, 285 *hullerçalla*, Lazarg B15:67 *achurçala*, Land *mandon - aguiñçala*,¹⁹⁴ De la Quadra 23 *glorija emaila*, 34 *glorija emaila*, 57 *josla*, 59 *dendari eta joslachubac*, 64 *legue emaila*, 108 *baque eguillac*, 114 & 120 *onguilla*. Halere, salbuespenen bat ere badago, hala nola Landucciren hiztegiko hauek: Land *açotador - (C) açotadorea, açotea emalle, aya que cria - (C) aya criança emalle*.

Gipuzkoako eta Nafarroako mendebaleko testuetan ez dut aurkitu ezaugarriaren hedadura zabalagoa isla lezakeen berreraiketa analogikorik $a + a > ea$ disimilazioa gertatzen den eremuetatik kanpo (toponimiaz, begiratu §4.4.5).

Gipuzkoako mendebaleko eta Azpeitia eta Azkoitia aldeko testu zaharren egoerak bat egiten du Arabako eta Bizkaiko testu zaharretan dagoenarekin: arestian aipatutako aldaeretan sistematikoa da *-a*-ren aldeko berreraiketa (cf., adibidez, MLastur 1 & 13 & 15 & 21 & 25 & 35 & 36 & 37 *andra*, 7 *andreac* –erg. sg.–, 20 *andrarioc*, 34 *andraoc*), eta gorabeherak daude *baga* & *bage* eta (*h*)*oba* & *hobe* aldaeren artean. Esate baterako, Azkoitiko *Sumario breve*-ak *Andrane* dakar izenburuan, baina 13 *lizenzia bage* eta 21 *deskubridu bage* daude ondotik. Aurretik ere aipatu legez Miserere

¹⁹³ Lakarrak (1996: 218) emaniko hiztegiaren arabera, RS bilduman hirutan dago *oba* (293, 432, 440), behin *obago* (321), behin *obatu* (365, non *-tu* gehitzeak eragin bide duen bokal-irekitzea; cf. *bete - betatu*), bost aldiz *obe* (29, 30, 320, 322, 473), zortzitan *obea* (37, 109, 154, 288, 427, 508, 531, 542) eta hirutan *obeago* (2, 278, 388).

¹⁹⁴ *hazedora - andra eguiçalea* dakar hiztegiak, baina kasu Mitxelenak eginiko oharrari: “Se escribió primero *-çala*” (1958: 312, 133. oin-oharra).

zaharrean *altara* agertzen da, ez Akesolok (1982) irakurri eta transkribatu zuen *altura*; aitzitik, *malicia bagueac* absolutibo pluralak *bage* oinarria islatzen du testu horretan bertan.

Azpeitiko 1740ko lehenengo gutunean ez dago *a + a > ea*-rik (halere, cf. *azucra*, nahiz eta metatesiz azal litekeen (§4.4.3.1.3), eta Azpeitiko 1786ko udal-aginduan ez dago disimilazioa gertatzeko ingurunerik. Zenbait urteren buruan, *Grand tour* antzerkilean beste testu batzuetako bikoiztasuna errepikatzen da: 3r (birritan) *andra* aldaera da sistematikoa, baina 2v & 3r & 5r *obeto*, 9v *obe* eta 3v (birritan) & 4r (birritan) & 5v *bage* besterik ez daude. Sasoi bertsuan Munibek erdialde-ekialderagoko hizkerekin egin zuen bat bai *Gabonsariac* lanean (11 *andre eder au*, 12 *Ama andre izanic*, 13 *Andre onen*; 13 *mancha bague*, 30 *bagueric*; cf. 13 *agurecho...*), bai *El borracho burlado*-n (35 *andrechoa*, 36 *Andreric*, 8 *ardura bagueric*, 13 *ots bagueric...*); baina, ematen du hitzen batek ihes egin ziola: 33 *Burdiñara* (< *burdina are*), ziur asko amaierako *-a*-ren jatorria lausoagoa delako.

Erdialderagoko 1745 baino lehenagoko testuak arakatuta eta ezaugarriaren mugei nagokiela, ez dago berreraiketarik Etxaberen “Ave Maria”-n (1 *andre*), Isastiren erretrauetan (4 *obe*, 13 *Bearguille*, 25 *Bagueric*, 66 *Bague*, 77 *Pagatzalle*) eta Elduaingo 1619ko bertso-sortan (8 *anreoi*, 19 *anreac* –abs. pl.–, 24 *andre ederroc*, 25 *andre ederrac*). Halaber, Oikiako dotrinan ez dago berreraiketa analogikorik (3 *andre gucien artean*, 6 *bidebaguecoric*, 7 *Bidebaguecoac*, 7 *oec bague*, 8 *neurribaguecoan*, 9 *eguin bague*, 14 & 22 *aldareco*, 15 *erremediatzalle*, 33 *aldare*, 49 *aldareco* –lautan–eta abar), Goierriko XVIII. mende hasierako Gabon-kantan 3 *obe* dago, eta Otxoa Arinen lanean ere mendebalaz kanpoko formak besterik ez daude (cf. 2 *andre*, 6 *altareco*, 8 *bucatu bague*, 39 *adisquide*, 131 *obeto...*). Beste horrenbeste gertatzen da Irazuhtaren lanean eta XVIII. mendearen bigarren erdiko eta XIX. mendeko Donostia aldeko eta Gipuzkoako ipar-ekialdeko testuetan.

Mendearen erdialdeko eta azken hamarkadetako gipuzkoar idazle ikasien artean Larramendi da interesgarriena, lehen ere (§4.4.3.1.6) ikusi bezala, hango eta hemengo ezaugarriak baliatzeko jakintza eta trebetasuna erakutsi baitzituen andoaindarrak, eta ezaugarri horien artean daudelako hizpide ditudan disimilazioak eta berreraiketa analogikoak. Hain zuzen ere, berreraiketez ari naizela, Urgellen (2001a: 168-172) azalpenek ederto laburbiltzen dute *HH*-ko egoera. Zehazki, Mendebaleko berreraiketa analogikoak gogorarazten duten *-a* bukaeradun forma ezezagunak ageri dira Larramendiren hiztegian. Amaieran *-a* ezarrita berreraikitako formekin batera, nolana

ere den, badira erdialderagoko edo ekialderagoko ereduari jarraikiz *-e* dutenak (bide batez, multzo horretan daude *-tzaile / -le* eta *-gile*, eta *-bage* eta *-ge*; begiratu Urgell 2001a: 169) eta iturri-hizkeren arabera banaketa ageri dutenak (hots, *-e*-rekin zein *-a*-rekin emandakoak).

Larramendiren euskal lanak arakatuta, berreraiketa analogikoak bakanak dira eta espero zitekeen lekuetan ageri dira. Alde batetik, Gandara bizkaitarrari igorritako gutunean *agura* dago behin; beste alde batetik, Azkoitiko sermoian 11 *andreric eder preciatuena* ageri da, nahiz eta 13 *andre doloretaco orrec* eta 13 *Andre hori* ere agertu, eta *-e*-dunak ia bakar izan: 2 *pecatu bagueco*, 3 *ezaguera bagueco*, 5 *neurri baguecoac*, 5 *neurric baguecoa*, 6 *pecatu bague*, 6-7 *semeric gaitzbagueena*, 7 *bicirican bague*, 7 *argui bague*, 9 *buru-baguetuac*, 9 *ezaguera baguecoac*, 12 *beazunic baguecoa*, 15 *escuelara bague*, 15 *ardura bague*, 17 *ardura bagueac* (abs. pl.), 19 *legue bague*; 2 *atsecabez*; 7 *onguille*; 8 *altareac* (abs. pl.); 10 *adisquide* eta abar.

Arakistainek mugaturik eman zituen eranskinean zerrendatutako hitz gehienak, eta horrek ez du biderik ematen berreraiketa askorik atzemateko), baina lau txiki lehenengo sortaren azken ahapaldian *-le > -la* aldaketa islatzen duen adibidea dago azken bi bertso-lerroetan: *¡Esquerric asco, gueure betico / Ongueguilla andia!*

Arabako ekialdeko egileei dagokienez, Albenizek 172-173 *movimentu bagaric dakar*, eta Gamizenean *obequi, ene adisquide* zein *lotzaric bague* ageri diren arren, *prisione bage* eta *carcelbaga* ere badaude. Arabako ekialdean zein Sakana aldean kokatu izan diren Sevilla 1619 bertsoek, bestalde, 74 *curuça* eta 79 *curuçan* dakartzate.

4.4.4.2. Hedadura murriztekoak

4.4.4.2.1. *-ia + -a > -iea*

Lehenengo begi-kolpean eta XVI-XIX. mendeen arteko lekukotasun gehien arabera, amaieran *-ia* eta **-ina* (*-ña* garai zaharrea) duten hitzetan ez dago disimilaziorik (FHV 93). Halere, testu gutxi batzuetan bada bestelako emaitzarik: Lazarragak gerora berretsi duenez, FHV-ko orrialde horretan bertan oin-ohar batean emandako azalpenak zuzena dirudi: “Claro que el vizc. ant. *-ia < -ia + -a* ha podido resultar de **-iea* por mediación de *-iia*. En VJ se hallan grafías como *graciiie* ‘la gracia’, *Hostiie* ‘la hostia’ y *eguiija* ‘la verdad’ es normal en Fr. Bartolomé” (FHV 93, 12. oin-oharra). Horren arabera, beraz, *-ia* (edo *-ña*) + *-a > -iea > -iia* legoke, eta hortik VJesus-eko *-iie* eta testu gehienetako *-ia*, tinbre bereko bokalak soiltzean sortua. Gaur-gaurkoz,

-*iaa* & -*īaa* izan ezik, bilakabidearen gainerako egoera guztiak dokumentaturik daude testu batzuetan edo bestetzuetan.¹⁹⁵

-*iea* Arabako XVI. mendeko lekukotasun bitan dago: Landucciren hiztegian eta Lazarraga eskuizkribuan. Egiazki, italiarraren hiztegian hitz bakar batean ageri da: *novia* - *nouiea*. Horren aurrean eta iturria hiztegi bat izanik zalantza sor daiteke euskal ordainak artikuluz eman ote zituen Landuccik. Halere, ez -*ia* baina -*a* amaiera duten hitzetan -*ea* ageri da hiztegi horretan bertan:

Nire ustez, ezin da ziurtasun osoz esan hitz hauetan ez dagoela artikulurik: pentsa daiteke izaera jakin bateko maileguk, -*ia* zutenek, ez zutela jokatzeko bilakera morfonologiko orokorren araberak; beharbada hizkuntzaren ezaugarri fonotaktikoek galarazten zuten -*iea* triptongoa. (Manterola 2015: 371-372)

Lazarraga eskuizkribuari dagokionez, Landuccirenean baino -*iea* gehiago daude: AL:1138v *historieac*, AL:1153v *Narbaezec aen contra emun eben sententiaea*, A6:30 *esaten iracastaçu*; / *Axparreneco larrosachoac*, *gueraciaea indaçu*, A10:19 *licenciaea*, *arren*, *indaçu*. Halere, salbuespenak ez dira falta, baita mugatzailea nahitaezko ez duten esapideetatik¹⁹⁶ eta beharbada errimari egotz dakizkiokeen¹⁹⁷ kasuetatik kanpo ere. Sasiolarenak dira hauek: B26:1-10 *Lecu on bat da Escocia*, / *obeago da Venescia*; / *ene aldeco lagunoni* / *elçaen çaco flauecia*; / *nay deban orduetaco* / *andia dacar fantasia*; / *bosteun ducata jaca* / *baroeoni balentia*, / *Emperadore jaunaganic* / *ecarricea licencia* eta B29:1-6 *Amore linda galant bata* / *ene amore berria*; *hura dacustan ordu orotan* / *orcean ur det irria*; / *hu]ra estaqustanean*, / *aldean malenconia*. Egia esatera errimak baldintzatuak izan litezke, baina Deba aldeko lekukotasun modernoagoak ikusita, ez da zertan -*iea*-rik espero inguru hartan: ematen du lehenengo testuak agertu orduko -*ia* bihurtua zela.

Bestelakoa da B15:43-45 *Cilegui dauela euren senarraz* / *iragaiten gustosoro bicia*, / *nic ez "bay" esateco licencia esaldia*, *licenciaea* espero baikenukeen testuaren gramatikaren argitan (cf. Bilbao *et al.* inprimategian: 45. oin-oharra eta Manterola 2015: 372).

¹⁹⁵ Azken urteotan Arrietako euskara darabilen Joana Auzokoa adiskideari entzunak dizkiot *giie* 'gida' eta *tranbiie* bezalako aldaerak, biak ere gaztelaniatiko maileguetan; bokala ez da luzea, espada bikoitza.

¹⁹⁶ Cf. Lizentzia eskatu: AL:1146r *bere ugaçabari licencia escatu jaca*, AL:1146r *bere ugaçabari licencia escatu equionean*, AL:1147r *Silvero бага bici içaaten* / *oy ecin eben sufridu*; / *aren acean joateco* / *da licencia escatu*; Erreberentzia jagin: B12:15 *reberencia jaguiteco*; B16:69 *neurau nengoan leurean* / *reberencia jaguinic*. Konpainia egin: AL:1142v *eguion erregutu leguola conpañia Silvero egoan aposentura joaten*; Penitentzia egin: A26:127-128 *oy eguin бага* / *penitencia munduan*; B22:7-8 *Eguiten daue utra santaro* / *barruan penitencia*.

¹⁹⁷ B22:7-8 *Eguiten daue utra santaro* / *barruan penitencia*; / *Jaun Cerucoac emunic daue* / *particulare gracia*: / *eurac daquie curaetan* / *min oria ta gorria (...)* *Galay galantoc ara doaz eguiten erromeria*.

Hala Landuccik nola Lazarraga eskuizkribuak dakartzaten *-iea* guztiak erromantzeko maileguei lotuak dira, eta beste horrenbeste gertatzen da VJesus-en: 9 (birritan) & 13 & 16 *gracii*, 11 *hostiie* (baina 10 & 11 *hostie*), 14 *Ave Marije*¹⁹⁸ (baina 4 *Ave Marie* eta 5 & 6 –birritan– & 8 & 14 –lautan– & 15 *Marie*). Bide batez, VJesus-en ezohiko beste aldaera bat dago, non ikusten baita *-eea* (< *-ea* + *a*) disimilazioa posible zela mugagabeen, ez bakarrik *-ia* baina baita *-ea* zuten hitzei artikulua definitua ezartzean ere: 11 *ordeea*.¹⁹⁹

-iea duten hitz gehienak maileguak badira ere, lekukotasun zaharren artean fenomeno honetaz aritzean aipatu izan ez den beste(lako) adibide bat ere badago; zehazki, Araban koka daitekeen Iacob Gebarakoaren hiletei buruzko pasarteetan, *egia* hitzari loturik: 2 [...] *eguiia al dioc, Eneco* eta 4 *eguiia eguiia al dioc, Eneco*.²⁰⁰ Euskal ondare zaharreko hitzetan ez dut beste *-iea* edo *-ia*-rik aurkitu XIX. mendera arte (cf. §4.4.4.2.1).²⁰¹

XIX. mendera etorrira eta adibide legez *-ii(j)a* duten berbak hartuta, egia da hala Frai Bartolomek nola mogeldarrek halakoak dituztela, baina erabilera ez da sistematikoa eta behin baino gehiagotan agertzen da zalantza:

Praktikan, ordea, 1807ko eskuizkribuan bitu gabe eta *-Olqueeta*-ko zalantzen ondoren *Icasiquizunac* I.lean bitzeko joera erakusten badu [Fraibartolomek], *Icasiquizunac* III.lean, ordea, zalantzak egon arren (318 *eguiija eguijazcua*) askozaz gehiago dira bitu gabeak. Juan Jose Mogeli dagokionez, hasierako sermoietan (1809, 1813, 1814) eta *Baseerritaar* 1816koan bitutakoa nagusi agertu arren, *eguiazco* eta beronetarikoak idazten ditu batzutan, azkenean bitu gabekoak nagusitzen direlarik (*Basserritaar* 1845). Bizenta Mogelgan ere *eguijaz* eta honetarikoak maiztxoago agertzen dira. (Altzibar 1992: 446-447)

Altzibarrek berak (1992: 447) biltzen dituen adibide gehienak *egia* hitzari dagozkio; ez dago halakorik amaieran *-ia* duten maileguetan. Bestalde, ez nago ziur *gustiiija, erriijetan* zein *eguiizu* bezalako ale bakanak azaltzeko analogiatik kanpo jotzea ez ote den gehiegi.

¹⁹⁸ <ij> dela eta, hau proposatu zuen Ulibarrik: “proposa dezakegu inprentara eramandako eskuizkribuan (edo Vinsonek eta Urquijok suposatzen duten aurreko argitalpenean; Mitxelena 1954a: 85) izenburu hau letra larriz zegokeela (*MARIIE*) eta inprentakoek letra xehez idazterakoan *II > ij* aldatu zutela, ohitura zen bezala” (2010a: 48).

¹⁹⁹ Urduñako XVII. mendeko hitz-zerrendan ere bada *-eea* bat (*erleea*), baina beste azalbideren bat behar duela dirudi, oinarria ez baita *-ea*, ezpada *-e* edo, berreraiketa analogikoz, *-a* (*erle* edo *erla*, alegia). Testuaren ediziozile Rosek baztertu egiten du zerrendagilearen akatsa izatea, lehenengoz *erleea* idatzi eta tatxatu ondoren berdin idatzi zuelako atzera ere. Nik neuk ez nuke baztertuko *-e > -a* berreraiketa analogikoak eragindako nahastea edo akatsa izatea, eta aintzat hartu behar da, halaber, *erla-* dutela forma konposatu ugari (cf. *erlauntz, erlategi, erlamando, erlatxori* eta abar).

²⁰⁰ 4. lerroko errepikapena dela eta, begiratu Mitxelenaren azalpenok: “su repetición en la l. 4 puede ser un lapsus o bien una reduplicación expresiva que ya figuraba en el ms. original” (*TAV* 137).

²⁰¹ Barrutiaren antzerki-lanean 71-74 *Virginiea gainic* agertzen da, baina errata-itxura du (cf. Lakarra 1981: 130, 26. oin-oharra): hor *-iea* agertzeko aukera bakarria *Virginia* izen propioari artikulua definitua ezartzea litzateke.

Horiek guztiak gogoan hartuta, estiloari eta hizkera-hautuei lotuago ikusten ditut Frai Bartolomeren, Mogelen eta beste idazle garaikide “hizkeraz markinar” batzuen *eguiija* modukoak, tokiko hizkeraren ezaugarriei baino gehiago. Ez dut <ii>-rik aurkitu Apoitaren bederatiurrenetan, ez eta Eibarko 1754ko udal-aginduan ere.

4.4.4.2.2. Lazarraga eskuizkribuko zenbait bilakabide

Erakusle → artikulua definitu gramatikalizazio-prozesuak ez du indar bera garai eta hizkera guztietan. Mendebal zabaleko testuetara joaz, sarri ageri dira *artikulu zahar* deitu ohi direnak izenari edo izenondoari itsatsirik, baina zalantzak eta irakurketa-arazoak sortu ohi dira artikulua benetan itsatsia den erabaki behar denean. Esate baterako, Mikoletak *guelau & guela au* ditu. Ematen du lehenengoan soildu egin direla izenaren amaierako *-a* eta lehenengo graduko erakuslearen hasierakoa, baina bigarreanean bereizi egiten dira: badirudi lehenengoan artikulua dagoela eta bigarreanean erakuslea. Mikoletaren garaikide Kapanagak ere antzeko arazoak ditu: 56 *ofrendahau*, 110 *deungau* zein 152 *arimau* dakartza. Lehenengoan, ematen du <h>-a kontu grafiko hutsa izanik hiatoa markatzen duela; bigarreanean bokal bikoitzak mantendu dira, eta ez dakit zergatik eman ziren horrela, benetan bi bokal (edo bokal luzea) ahoskatzen zirelako edo, lerroa aski beterik egonik, inprentan hutsunerik utzi gabe jarri zirelako tipoak; hirugarrena, aldiz, Mikoletaren *guelau*-ren parekoa da, eta artikulua irakurri beharko litzateke.

Testu bakan batzuetan bestelakoa da joera: aipaturiko gramatikalizazio-prozesuak aldaketa fonologikoak eragin ditu, eta horiek bidea ematen dute (ustez) erakusle direnak (ustez) mugatzaile hurbil gisa gramatikalizaturik daudenetatik bereizteko. Lazarraga eskuizkribua agertu aurretik ezagun ziren halakoak: cf., esaterako, Buldako *buldiau* (< *buldeau* < *buldaau* < *bulda au*), nahiz eta testu horretan bertan birritan ageri den *buldau* aldaera, De la Quadraren 4 & 22 *semiau*, *Errosariyo*-ko 86 *acabadu vedi zeure vizitzeagaz gueuriau* edo Sarriaren 8 *garvitazuneco edo castidadeco virtutiau*.

Lazarragaren testuak arreta handiagoa eskatzen du gai honetan. Alde batetik, badaude inolako hots-aldaketarik azaltzen ez duten adibideak, baina nabarmentzekoa da ugari direla, beste testu batzuekin alderatuta, lehenengo graduko artikuluari loturiko disimilazioak: AL:1144v *dagueau*, AL:1144v *cantaeteau*, AL:1144v *musiqueau*, AL:1152r & A7:57 *peneau*, A17:38 *llagueau*, A25:39, *desdichadeau*.

Lazarragaz ari naizela, $a + a > ea$ erregelak haren euskaran zuen indarraren erakusgarri aparta da, halaber, eratorbideko AL:1144v *gurearren* (< *gura arren*), ez baitut beste inon aurkitu; nolana ere den, AL:1152v *gurago* ere badago, ez ***gureago* < *gura + -ago*, beharbada azentuerari loturik: cf. *gureárren*, baina *gúrago*.

Beste alde batetik, $-a + o- > -eo-$ aldaketa $a + a > ea$ disimilazioaren analogiaz gertatutzat jo izan da:

Ohargarria da *a* bokalaz bukaturiko izenek *eo* bukaera dutela *o* bokalaz hasiriko lehen graduko zein bigarren graduko artikuluen deklinabide-atzizkiak erantsiz geroz ($a + o > eo$): *flaquezeonec* (A28: 29), *doncelleoni* (A21: 35), *flaquezeonen* (A6: 25), *gabineteoy* (A29: 82), *doncelleorrec* (A2: 6), *denporeorrec* (A14: 83), *alabeorrec* (A24: 102), *doncelleorri* (A2: 5, 12). (Mounole inprimategian)

Halere, berranalisi baten ondorioz sortutako formak ere izan daitezke, adibidez *doncellea* > *doncelle* berranalisiaren bidez eta horri (*h*)*onek* eta (*h*)*orrek* gehituaz: *doncelleonec* eta *doncelleorrec*.

4.4.4.2.3. Beste berrikuntza bat: *hatan* > *-atan* gramatikalizazioaz

DotrSerm-eko 2-96 *arboleatan*, 38-82 *aflicciñoatan*, 7-11 & 7-171 & 15-30 *egunatan*, 38-136 *estucuseatan* zein 13-19 *meseatan* aldaerak aztergai zituela, “*atan* erakusle urrunaren inesiboa hizkera honetan [DotrSerm-ekoan] artikulua urrunaren (*-an*) ordeztu erabiltzen hasia zela” azaldu zuen Ulibarrik (2015: 170); alegia, aipatutako aldaeretan *-atan* artikulua definituaren parekotzat jo zela, eta horri loturik agertu ohi den disimilazioa hortikoa dela, *-an* atzizkiarekin geratzen diren bilakaera morfonologikoak gaudituta (Manterola 2015: 255, 307. oin-oharra).

Jokabide hori duten aldaerak ez dira asko: DotrSerm-eko adibideez landara, hemen erabilitako corpusean Zolloko galdetegian besterik ez dut aurkitu pareko formarik: 4r *ausiyatan* ‘auzian’, nahiz eta hor ez dagoen disimilazioa gertatzeko testuinguru aproposik.

4.4.4.3. Adizkietako disimilazioak

4.4.4.3.1. Fenomenoaren ñabardurez

Azkueren (1935: 85) eta Irigoienen (1998 [1958]) bidetik, Mitxelenak bi kokagunetan deskribatu zuen $a + a > ea$ disimilazioa: alde batetik, orain arte aipatutako ingurunean, izenaren morfologiari loturik, non disimilazioa bera fenomeno morfonologikoa baita; beste alde batetik, adizki batzuetan ere gertatzen zela azaldu zuen: “En formas verbales personales al añadirse el suf. *-an* a raíces acabadas en *-a*: *doa*

‘va’, pero *doean* ‘que va’ en *RS*, *daroa*, ‘lo lleva’, pero *daroaenean* ‘cuando lo lleva’ en *VJ*. Land. tiene *aurrera doana* ‘antecedente, sin diferenciación’ (*FHV* 94).

Emaitza berdina izan arren, *izan*, *joan* eta *eroan* aditzetako²⁰² disimilazioak izenetan gauzatzen direnetatik bereizi behar dira. Adizki horietan jatorriz **ae* hiato zahar bat zegoela (*FHV* 95, Trask 1997: 212-213, Aldai 2014: §2.2.3; halaber, erlatiboko atzizkiaren jatorriaz, begiratu, De Rijk –1998 [1981]: 219-220–) eta Mendebalean oro har **ae* > *a* gertatu dela onartuta, ez dirudi disimilazioak balio morfologikorik izan duenik (XVI. mendean geroztik behintzat): disimilazioa agertuta zein ez agertuta, ez dago esanahi-aldaketarik; beraz, *alabea*-n, *botea*-n eta *dea*-n ez bezala, *direan*, *doean* eta *daroan* aditzetan balio fonetiko hutsa besterik ez luke disimilazioak.

Kronologiari dagokionez, zaharrak dira *izan*, *joan* eta *eroan* aditzetako disimilazioak: Mendebaleko lehenengo testuak agertu orduko agertzen dira. Halere, aipatzekoa da ustez balio fonetiko hutsa duten disimilazioek balio morfonologikoa dutenek baino eremu txikiagoa hartzen dutela, eta horrek kronologiarekin bide du lotura, aditzetako disimilazioak berriagotzat jotzen badira. Zehazki, Bizkaia eta Araba osoko, eta Gipuzkoako mendebaleko eta Goierriko XVI-XVIII bitarteko lekukotasunak aztertuko ditut atal honetan.

4.4.4.3.2. Bizkaiko testuak

Testu arkaikoen artean Bizkai sartaldekuan lehenengo testuetarik da arrunta disimilazioa *izan*, *joan* eta *eroan* aditzetan, nahiz eta testu berak ez dituen beti hirurak. *RS* da hiruren formak biltzen dituen testu zaharrena: *RS* 125 *garea*,²⁰³ 315 *direanac*, 315 *direaneguino*; 36 *hoeanean*, 223 *doean*; 221 *daroanic*, 468 *daroan*. ArrasErreki-ek, bestalde, *izan*-ena dakar: 9 *çirean*.

Jaurerriaren erdialdeko eta sortaldeko iturri batzuetan ere badaude disimilazioak. IbarGC kronikak *joan* eta *eroan* aditzetakoak ditu (testuinguru aproposik ez dago *izan*-en formetan ere betetzen den ikusteko): *noean* eta *eroan* (birritan) (Arriolabengoa 2008: 290). Zumarragak, bestalde, *izan*-en forma disimilaziodun bat du: 11 *eztirean*.

XVII. mendean lehenengo hamarkadetan, 2 *direan* dago Sorg1616-n, 13 *çinean* eta 19 *cirea* BizkKant testuan eta 68 *cireanac*, 195 *cinean*, 211 *direan* EgiaKant-an; horietan ez dut aurkitu disimilazioa *joan* eta *eroan* aditzetan betetzen zenetz ikusteko

²⁰² **edun*-en eta *egon*-en adizkietan ere aurkitu ditut disimilazioak, gerora aipatuko dudanez; halere, oraingoz hiru horiek besterik ez ditut aipatuko, ohikoenak direlako.

²⁰³ Amaierako *-n* gerora galdu zela onartuta, Mikoletarenean eta Uribe Kostako egungo euskararen tarteka gertatzen den bezala (cf. Gaminde 1992: §2).

ingurune aproposik. Nolanahi ere den, mendearen erdialdeko lekukotasun luzeagoek disimilazioak Bizkai sartaldean eta sortaldean indar bizia zuela islatzen dute. Sartaldean, cf. VJesus 10-17 & 11-11 *direanac*, 10-16 *direanay*, 3-16 & 3-17 & 3-18 (birritan) *gareanean*, 15-16 *zarealaco*; 3-18 *goaçanean*, 10-6 *doeana*; 11-4 & 11-5 *daroeanean*... Sortaldean, cf. Kapan <i> *cireanac*, 18 (birritan) *direanac*, 33 *direala*, 47 *direanetan*; 87 (lautan) *doean*, 131 (birritan) *doeanean*; <i> *daroeala*, 109 *daroeala*...²⁰⁴

1650 inguruan interesa dute Bilbo aldeko testuek; izan ere, orain arte aipatutako hiru adizkietan ez ezik, *egon*-en eta *edun*-en forma jokatueta ere ageri dira disimilazioak. Mikoleta hartuta, esan bezala “ohiko” disimilazioak daude (kontuan hartu amaierako *-n* falta dela, besteak beste RS 125 *garea* adizkian bezala): 3v *tú seas - sarea*, *nosotros seamos - garea*, 13r *sirea*, 13v *direanic*, 13v *direala*; 12v *joeala*; 13r *eroeala* eta abar.

Joan-i loturik, bide batez, 3v *goasean* ‘goazen’ aldaera ere badago, garai bertsuko eta ondoko testuetan ez bezala (cf. VJesus 3 *goaçanean*), eta *-za* + *-an* bilkuratik sortu bide da. Hain zuzen ere, zentzuzkoena da jatorri bera proposatzea Mikoletaren beraren 4r *Nosotros estamos - gu gagosea* azaltzeko. Adibide bakana izanagatik interesgarria da, *Enoj 7 egoceana* adibidearekin bat egiten baitu.²⁰⁵ Gauzak horrela, Bilbo aldeko euskarak XVI-XVII. mendeetan beste inon lekutu ez diren aldaera zahar disimilaziodunak zituela proposa daiteke.

Mikoletaren eskuizkribuaren hasieran datozen aditz-paradigmei begiratuta, lehenaldiko formetan arreta ematen dute **edun*-i dagozkion adibideek: 2v *Aquel hazía - ac eguiten euea* eta 3r *Aquel huviera hecho - ac eguingo evea* bezalakoez ari naiz. Azalpen hobeen faltan, *eudea(n)* bezalakoekin nahastuta sortutako aldaerak direla proposatzea besterik ez daukat; cf. Mikoletaren beraren 3r *Aquellos havían de aver hecho - aec eguingo eudea* zein *Enoj 7-8 ce enojaduriq egoceana / nigas aguiri eudea*.

Disimilazioari loturik zalantzak eragiten dituen azken adizkia Mikol 12r *conta ninçean* da. Nahiz eta *kontatu*-k besterik eskatu, lehen azalbidea *izan* aditzaren lehenaldiko forma bat proposatzea da; aitzitik, Borja Ariztimuñok diostanez (ahozko komunikazioa), **ezan* aditza ere izan daiteke, objektu pluralaz eta hizpide dudan asimilazioarekin.

²⁰⁴ 93 *daroe* ere badago, baina lerrokada estu baten amaieran agertuta, hain bakana izanik eta *-an* / *-en* aldaeren banaketa orokorra aintzat hartuta, errata izan daitekeelakoan nago.

²⁰⁵ Uste dut azalpen hori errazagoa dela Arejitak *Enojaduric* testuaren edizioan proposatutakoa baino: “Adizki honen bitxitasuna, *egozana* barik *egozeana* forma izatean datza. Iraganeko *-n* atzizkiaren galera eta bokale sudurkaria suposa daikegu, *egoza*, holan *-a* + *-a* > *-ea* eginaz” (Arejita 1991: 19).

XVII. mendearen amaierako testuetan ez dago aparteko gorabeherarik; oro har, sarriago erabiltzen den aditza dela eta, *izan*-en adizkietan agertzen da disimilazioa (ez dago *joan* eta *eroan*-en testuinguru egokirik disimilazioa ager dadin): Zubia 422 *direanai*, 423 *direanetan*, 424 *cirean...*, BertsBizk 2-7 *gareala*, 6-3 *garean*.

XVIII. mende osoan ere bera da joera: testuak Bizkai sartaldekoak, erdialdekoak zein sartaldekoak izan, disimilazioak agertzen dira *izan*, *joan* eta *eroan*-en formetan, eta *izan*-enak dira nabarmen ugariagoak, sarriago erabiltzen den aditza delako. Hona hemen zenbait egileren adibide sorta bat:

- (i) *Izan*: Bulda 15 *dirian*; Arzadun 22 (hirutan) *garianean*, 27 *dirianai*, 35 *dirianac*; Urkizu 15 *dirianian*, 43 *zinianean*, 17 *zirian*; UrkizuKopl 57 *zariana*; Olaetxea 16 *zareana zarealaco*, 25 *direala*, 42 *garealaco*; Gandara 1764 6-1 *direanac*, “Ama maitegarriari, zortzico” 1-1 *zarean*, 2-4 *cinianic*; ZolloGald 2v *dirian*, 4r *siriala*; Barnetxea 3 *sirian*, Apoita 7 *cinianian*; GernikaGK 17-7 *dirianian*, 25-3 *dirianac*, 20-3 *dirialaco*; Kardaberatz 23 *direan*.
- (ii) *Joan*: Olaetxea 19 (birritan) *noean*, 133 *doanean*; Apoita 6 *joian*.
- (iii) *Eroan*: Apoita 6 *eroian*.

XVIII. mendeko idazleen artean De la Quadrak apur bat ezberdin jokatu zuen; izan ere, *izan*-en adizkietan disimilazioak agertu arren (7 *dirianian*, 8 *zariana*, 9 *dirianen*, 14 *dirian*, 17 *garianoc*, 58 *zarialaco*, 122 *eztiriala...*), 58 (birritan) & 66 & 91 & 99 *doan* aurkitu dut bere lanetan. *Eroan*-i dagokionez, 78 *darohana* aurkitu dut, nahiz eta 99 *daroyalaco* ere badagoen.

4.4.4.3.3. Arabako eta Sakana aldeko testuak

Arabako testu zaharrenetan *izan*, *joan* eta *eroan*-en adizki disimilaziodunak daude, baina ematen du testu edo hizkera batzuetatik beste batzuetara aldea zegoela ezaugarri honi dagokionez.

FHV-ko bertako adibideekin hasita, Landucciren hiztegian *antecedente* - *aurrera doana* eta *carretero* - *gurdiakin doana* agertzen dira, disimilaziorik gabe.²⁰⁶ Betolatzaren dotrian ez dut disimilazioa gertatzeko ingurune egokirik aurkitu, baina ErrodZar kantari 16 *eroean* eta 20 *noean* daude, eta Abendañoren aienean 1 *joala*. Arabako testu arkaikoen artean Lazarraga eskuizkribuak dakartza hiru testuinguruetako

²⁰⁶ Blanca Urgellen ustez (komunikazio pertsonala), *antecedente* - *aurrera doana* A eskuarena izango litzateke, baina *carretero* - *gurdiakin doana* sarrera C eskuarena izan daiteke.

adibideak, eta bakanak ere ez dira. Hona hemen adibide sorta bat, Sasiolarenak Deba ibarrekoekin batera aztertzeko utzita:

- (i) *Izan*: AL:1142v, AL:1144r, AL:1144r, AL:1144r, AL:1146v, AL:1152r, AL:1153v, AL:1153v, AL:1154r, A11:13, A11:17, A11:25, A26:120, A28:100, C1179r-1B *cirean*; AL:1145r *cireala*; AL:1152v, A9:3, A9:11, A9:19, A9:27, A12:16, A17:111, B3:65, B16:31, B16:44, B20:19, C1180r-1B *çarean*; A17:28, B5:91 *çareana*; AL:1153r *direala*; AL:1147v, AL:1152r, A1:15, B15:62 *direan*; A26:94, A26:156, A27a:13, A27b_E:13 *cinéan*; A28:141 *garean*; A7:8, B16:86 *guinean*; B5:55 *cinéala*;
- (ii) *Joan*: AL:1147r, AL:1147r *joéala*; AL:1138v *joéan*; B21:9 *nioéan*, B21:15 *niñoéala*.
- (iii) *Eroan*: A29:74 *eroéanari*, B12:1 & B16:14 *baneroéan*, B12:7 *neroéan*, B16:16 & B21:11 *neroéala*.

XVIII. mendeko testuetan bikoiztasuna dago Arabako testuetan. Alde batetik, DotrSerm berankorrean orain arte aipatutako hiru aditzetan daude disimilazioak: 2 *direan*, 36 *escareala*, 37 *garean...*; 66 *doéala*, 215 *yoeanean*, 282 *yoeala...*; 61 *daroeanac*, 384 *daroeala*, 354 *eroéan...* Halaber, *-io- errokoetan aurki daiteke: 11 *Eta alan, segun diñoéan San Bernardoc*; 381 *consideradu eguisu San Gregoriuc diñoéana*.

Bestalde, Arabako ekialdean eta/edo Araba/Nafarroa eremu mugakidean kokatu izan diren testuetan ez dut disimilaziorik aurkitu ez testu zaharretan, ez modernoetan. Hona hemen disimilaziorik gabeko adibideak: Portal *ciran*, Sevilla1619 5 *siran*; Albeniz 170 *zaran*, 171 *cerala*, 172 *zeralaco zerana*; Gamiz “Dabilenchoac” 5-3 *zerala*, “Beste tunucho berri bat” *noanean*.

4.4.4.3.4. Gipuzkoako mendebaleko eta hegoaldeko testuak

4.4.4.3.4.1. Gipuzkoako mendebaleko ibarretan Bizkaian baino gutxiago eta mugatuago agertzen da disimilazioa adizkiotan. Alde batetik, inguru jakin batzuetako testuetan besterik ez da agertzen. Beste alde batetik, Irigoienek (1998 [1958]: 45) adierazitakoarekin bat etorritik, disimilazioa adizki batzuetan dagoen arren, beste batzuetan ez da agertzen. Zehazki, Barrutiarenean *joan*-en formetan besterik ez zegoela ikusi zuen Irigoienek, eta egoera bera deskribatu zuen Lakarrak Amilletaren dotrinan: “2 *noeaneanen* alboan 5 *cirala*, 5, 6(2) *ciranac*, 3, 6(2) *dirala*, 3, 6(2) *diran*, 6(3) *diranac*, 3, 6 *diranai*, 5(2) *guinala* ditugu” (1984a: 140).

Deba ibarreko egile zaharrenen testuetan oso gutxitan agertzen da disimilazioa, hala gertatzeko ingurune aproposik ez dagoelako (MLastur, DebaSerGut, Irure, ArrasAhap, EibarKopl...), nola disimilaziorik gauzatzen ez delako: Rosabella *etorri cinan*. Garibairen errefrauetan A23 *Garean gareana leguez* (cf. TAV 157-ko bertsioa: *Garean, garean leguez*) eta A39 *Onac on direala, obeac obe* agertzen dira, *izan*-en disimilazio eta guzti; aitzitik, lehenengoaren kasuan behintzat jatorria ez Deba ibarrekoa baina Bizkaikoa izan daiteke (cf. TAV 157).

Deba inguruan Sasiolak B28S:15 *dirian*, B30s:6 *joean* B30s:10 *banijoean* dakartza, baina *izan*-i loturik B30s:28 *garan* ere badago.

Ibarraren erdialdean XVII. mendearen amaieran EibarKoplZah sortan 8 *direan* dago, baina hiribildu bereko 1754ko udal-aginduan 7 *diranian* eta 15 *diran* besterik ez daude. Arrasateko udal-bandoan 3 *sirean* eta 10 *direanaquin* daude.

Kokapen zehatz ezagunik gabeko Deba ibarreko bi testutan indartsua da disimilazioa *izan*-en adizkietan; alde batetik, Antzuola/Bergara aldekotzat jo izan den 1708ko sermoian *izan*-en hainbat disimilazio daude: 2r *zireanaq*, 2v *direan*, 2v *garean*, 4v *eztireala*, 6v *zirean*, 6v *zarean* eta abar (aurka dute, halere, 7r *direnean*). Beste alde batetik, IsSagEsp testuan forma disimilaziodunak eta disimilaziorik gabeak nahasten dira: 1r & 2r (hirutan) *cirian*, 1v *dirian*, 1v *ciriala*, baina 1v *ziran*, 2r (birritan) *ciran*, 2r *diran*.

Ez dago disimilazioa gertatzeko ingurune aproposik ATxakarGut testuan, eta Arakistainen zortzikoetan asimilaziorik gabeak dira bakar.

4.4.4.3.4.2. Adizkietako disimilazioei dagokienez, Urola eta Goierriko testuak ez dira batere emankorrak: inguru horietako iturriak arakatu eta ez dut disimilaziorik aurkitu, izan berrikuntza ez zelako inguru horietara zabaldu, izan aditz-moldeak bestelakoak direlako. Hona hemen hainbat testutako adibide sorta bat (ez ditut testuetako adibide guztiak emango, behar baino gehiago ez luzatzeko):

- (i) Urolakoak: SumBrev: 9 & 12 *diran*, 13 *diranen*; AzpGut1740: 2-13 & 2-30 *diran* & 3-11 *diran*; AzpAgin: 9 *diranac*, 10 *dirala*, 14 *diranetic*, 17 *direanetan*; Peñafiorida GavS: 7 & 10 & 23 & 31 *diranac*, 18 *ceranac*, 23 & 27 *zerala*; Peñafiorida BorrB: 16 *baciran*, 16 *çarela*, 17 (birritan) & 18 *dijoan*; Grand tour: 2 *estiranac*, 3 *diranac*, 7 *dirala*, 7 *diranian*; LoiolaDot 5 & 8 & 9 *diran*, 6 *diranac*, 11 *ziraden* eta abar.

(ii) Goierrikoak: OArin: 6 *diraden*, 16 *diradela*, 23 *ciraden*, 51 *diran*, 135 *ciranac*; ZegDot (1740): 6v *diranetan*, 9v *diran*, 14v *dijoa*, 16v *diraden*, 28v *ezciran* eta abar.

4.4.5. Onomastikaz: Arabako eta Nafarroako toponimia

Nahiz eta testuak izan tesi honen ardatz eta aztergai, ez ditut bazter utzi nahi izan corpusaz aritzean aipatutako beste iturri batzuk, testuetan agertzen den informazioa osatzeko eta ezaugarri jakin baten edo batzuen hedaduraz (hala hizkuntzaren gramatika nola geografia fisikoan) informazio gehiago izateko balio duten heinean. Hori dela eta, lerro gutxi batzuetan laburbilduko dut azken hamarkadetan labur baina behin baino gehiagotan aipatu izan den gaia: $a + a > ea$ disimilazioa eta horrek eragindako $-e > -a$ berreraiketa analogikoa Arabako eta Nafarroako mendebaleko toponimoetan ere agertzen dira, eta toponimo horiek ematen duten informazioa testuek ematen dutenarekin batuta emaitza interesgarri askoak ateratzen dira ezaugarriaren nondik norakoez.

Arabako datuei dagokienez, honako hauek zerrendatu zituen Zuazok, López de Guereñuren *Toponimia alavesa* eta Knörr (1985) lanak iturri gisa erabilia:²⁰⁷

aldapea-ren konposatuak (Langara-Ganboa); *calzadea*-renak (Arkaia, Eztarrona, Lubiano, Urbina); *errequea*-ren ugariak (Abetxuko, Arangiz, Arroiabe, Artatza, Durana, Goiain, Gopegi, Mendoza, Ulibarri Dibina...); *erripea*-renak (Aramaio, Burgelu, Uribarri-Jauregi); *landea*-renak (Arriaga, Kontrasta, Elorriaga, Gereña, Matauku, Mendibil, Oreitia, Zurbao...); *madurea* / *padurea*-renak (Aberasturi, Arkaia, Uribarri Arratzu, Gamiz, Langara-Ganboa, Ihurre, Jungitu, Marieta, Saseta, Zurbao). (Zuazo 1989: 24)

Mitxelenak ikusi zuenez, ordea, aurrekoak baino ezohikoagoak dira *-aga* eta *-eta* duten toponimoei *-a* mugatzailea ezartzean sortzen diren *-agea* eta *-etea* disimilaziodunak:

No faltan en Álava, ni mucho menos, muestras de *-agea*, *-etea*, de *-aga*, *-eta* más el artículo *-a*. Se diría que son más bien recientes, como también *-ea- < -aa-*, en junción, en el tipo vizcaíno *Olea*, *Oleaga* (*Olaga* en Iranzu), *Ansoleaga*, etc., pero *Capanaga*. *Elhorzahea*, 1025, mod. *Elorza* (cf. nav. *Elorçe ibar* en 1095), está demasiado aislado para excluir la posibilidad de un error o errata. *Padura* será indeterminado, al igual que rom. *Padul*, ambos también en 1025. (1971: 282)

Manterolak (2015: 642-643) berriki bildu ditu *-agea* eta *-etea* duten Arabako leku-izenak, eta osatutako zerrendako datuek informazio interesgarria ematen dute

²⁰⁷ Zuazok (1999: 175) *errotea*, *eskinea* eta *estradea* gehitu zituen zerrendara, baina toponimoak eurak eman barik.

forma horien kronologiaz eta geografiaz.²⁰⁸ *-agea* dutenei dagokienez, lekukotasun zaharrena XVI. mendekoa da, Lopidanako *Zubiaguea* (1531), eta toponimo gehienak Araba erdialdekoak (eta, zehazki, Gasteizkoak edo Gasteiz ingurukoak) dira. *-etea* dutenei dagokienez, ekialderago ageri da zaharrena, Aguraingo *Galarrete*a (1457), eta *-agea*-dunak ageri diren eremu bertsuan ageri dira, oro har.

Arestian aipatu bezala, zalantzak agertu zituen Mitxelenak *Elhorzahea* (1025) toponimoaren inguruan, eta ez zuen baztertu akatsa izatea. Zuazok (1991: 24) *-agea* eta *-etea* duten toponimoekin batera multzokatu zuen,²⁰⁹ Manterolak (2008: 374-376, 2015: 196-197) horren aldeko zenbait argudio eman ditu hondar urteotan, eta 1089ko *Garcia Monnioz de Havaunzia* horretan ere *Habaunza* + *-a* > *Habaunzea* > *Habaunzia* proposatu du.²¹⁰ Agerikoa da hala *Elhorzahea* nola *Habaunzia* toponimoek zenbait mendez aurreratzen dutela Erdi Aroan *-ea* duten formen agerrera. Azken aldian, gainera, Errioxako garai bertsuko beste adibideren bat jaso da: *Garci Olhea* (1156) aipatzen du Salaberri Zaratiegik (2018: 312). Nolanahi ere den, Arabako toponimia zaharrean aurki daitezke *aa* bikoitzak, eta zalantzak eragin ditzakete:

²⁰⁸ Oin-ohar gisa dakartzat hona toponimoak, dagozkien data eta kokalekua adierazita (iturrien eta beste garai batzuetako aldaeren berri izateko, begiratu Manterolaren beraren lana –§II.7 eranskina–):

-agea: *Zubiaguea* (Lopidana, 1531), *Mendiaguea* (Ilarratza, 1608), *Urrechaguea* (Argandoña, 1678), *Cazaguea* (Gamarra Gutxia, 1693), *Arrizuriaguea* (Matauko, 1695), *Isinaguea* (Matauko, 1695), *Osinaguea* (Betoño, 1695), *Estarronaguea* (Gobeo, XVIII), *Obiaguea* (Otazu, 1704), *Urrachaguea* (Gamarra Nagusia, 1714), *Lazaguea* (Gamarra Gutxia, 1715), *Icinaguea* (Lubiano, 1722), *Lasaguea* (Durana, 1723), *Iraguea* (Andollu, 1728), *Mauraguea* (Lopidana, 1728), *Urechaguea* (Zerio, 1728), *Sagarraguea* (Estarrona, 1729), *Suloaguea* (Durana-Zurbano, 1735), *Boriñaguea* (Arriaga, 1736), *Urruchaguea* (Gamarra Nagusia, 1760), *Icinaguea* (Matauko, 1760), *Sagarraguea* (Gereña, 1786), *Ichinaguea* (Matauko, 1797), *Estarrenaguea* (Gasteiz, 1533), *Urruchaguea* (Gasteiz, 1572), *Oleaguea* (Gasteiz, 1578), *Lasaguea* (Gasteiz, 1580), *Millaguea* (Gasteiz, 1582), *Zeremaguea* (Gasteiz, 1595), *Laçaguea* (Gasteiz, 1608), *Borinaguea* (Gasteiz, 1621), *Caramaguea* (Gasteiz, 1667), *Buruchaguea* (Gasteiz, 1675), *Rio Zramaguea* (Gasteiz, 1794), *Zaramaguea* (Gasteiz, 1733), *Osinaguea* (Gasteiz, 1744).

-etea: *Galarrete*a (Agurain, 1457), *Esalettea* (Arkauti, 1657), *Ormetea* (Gereña, 1696), *Uletea* (Armentia, 1704), *Echaurrete*a (Arkauti, 1706), *Erresalettea* (Ilarratza, 1706), *Estreesetea* (Amarita, 1706), *Crucetea* (Estarrona, 1707), *Ramutea* (Estarrona, 1707), *Surgueretea* (Estarrona, 1707), *Aldabetea* (Betoño, 1711), *Urete*a (Azua, 1716), *Bidetea* (Villafranca, 1719), *Landetea* (Villafranca, 1719), *Zabaletea* (Kontrasta, 1719), *Becolandetea* (Estarrona, 1721), *Echarrete*a (Arkauti, 1722), *Aguirrecorroetea* (Zigoitia, 1724), *Arechetea* (Aberasturi, 1737), *Aranetea* (Bolibar, 1753), *Zarasquetea* (Estarrona, 1760), *Estrasetea* (Amarita, 1768), *Zaraasquetea* (Estarrona, 1760), *Estrasetea* (Amarita, 1768), *Suyandetea* (Estarrona, 1796), *Acurcetea* (Andetxa, 1803), *Inchaurrete*a (Elorriaga, 1817), *Çiletea* (Gasteiz, 1599), *Uletea* (Gasteiz, 1704), *Queresetea* (Gasteiz, 1769), *Gemelutea* (Gasteiz, 1592), *Soycetea* (Gasteiz, 1584), *Madalenysagurretea* (Gasteiz, 1607), *Estrasetea* (Gasteiz, 1597), *Marranzetea* (Gasteiz, 1666), *Echeerretea* (Gasteiz, 1693).

²⁰⁹ Bide batez, iritzi tradizionalarekin bat, *-tzaha* horretan ikusten zuen eibartarrak gaur egun Oñati aldean, Leintz bailaran eta Otxandion entzuten den *-tzaia* (cf. Land *jayasçaya*); aitzitik, Manterolak (2015: 202) bestelako ikuspegia ekarri du: aldaeren inguruko gorabeherak aztertuta, *-tzaia* bezalakoak berrikuntzat jo ditu behin-behinean.

²¹⁰ Gerora aipatuko dudanez, *ea* > *ia* aldaketaren kronologia hori ezohikoa eta arazotsua bezain interesgarria da mendebaleko lekukotasunen artean (begiratu §4.5.2.2.1 atala).

Elhorzahea-k erakusten du XI. menderako *-a + a > -ea* egiten zela edo egin zitekeela, erran bezala. Orduan, galdegiten diot nik neure buruari, zergatik ditugu, adibidez, *Artaçaa* (1257, 1295), *Ahbaunçaa* (1066), *Illarraçaa* (1295), *Unçaa* eta *Velunçaa* (1257) eta ez, espero izatekoa zen bezala, **Artaçea*, **Ahbaunçea* edo **Habaunçea*, **Illarraçea*, **Unçea* eta **Velunçea*? Erantzunak bi izan daitezke: 1) disimilazioa lehen urratsetan zegoen eta bakarrik toponimo gutxi batzuk ukitzen zituen, alegia, ez zen ezinbestekoa, 2) *Artazaha*, *Habauzaha*,²¹¹ *Hillarrazaha*, **Unçaha* eta **Velunçaha*-n iturburu zu(ke)ten toponimoak mugagabeak ziren, ez zuen artikulurik, eta *-aa* segida horiek aspirazioa galtzearen ondorio ziren. (Salaberri Zaratiegi 2018: 329)

Eztabaidaren muina, agerikoa denez, *-tzaha*-ren osagai-kopurua da; hots, *-tzaha* osagai bakarrekoa den ala egitura *-tza + ha* (artikulua) den. Lakarrak (2006: 605, 111. oin-oharra) eta batez ere Manterolak (2015: 4.4.2.1) egituraz eta aldaeren azalbideez emandako datuek azken horrekin bat eginarazten didate, nahiz eta horrek ez dituen aldaera bokal bikoiztunak azaltzen: Salaberri Zaratiegik berak aipatzen duen lehenengo aukerari loturik egon litezke salbuespenak edo, toponimiak izan ohi duen / izan dezakeen gordetzailetasunarekin bat, eguneroko hizkeran arrunt zen ezaugarri (mor)fonologikoa toponimian zabaldu ez izanarekin.

Hizkuntzen historia aztertzeko iturriez aritu naizenean esan dudanez, tokiko hizkera edo hizkuntza galdu den lekuetan toponimia lagungarri izan dakiguke, arazoak arazo eta mugak muga. *a + a > ea* disimilazioaren hedadura zaharra aztertzean horren adibide garbia dago, toponimiak erakusten baitu Nafarroako mendebalera ere iritsi zela berrikuntza. Hona hemen Salaberri Zaratiegik (1998: 52-53) aurkeztutako datuak:

Ditugun lekukotasunak, erran bezala, bakanak dira: *Errubico esquinia* (Larragoa, 1688; *errioco esquina* urte berean, *erroycoesquina* 1825ean, *Rekoskína* egun), *Sarrico perrea* (Larragoa, 1634, 1691, 1693, *Sanikopérra* edo *Salikopérra* orain), *Bustico errequia*, *Bustico errequea* (Eulate, 1687, *Busticoerreca* 1716an eta *Busticorreca* 1892an), *Yaongosendea* (San Martin, 1688), *Picotea* (< *picota* + *-a?*. Galbarra, 1689, Bitoria, 1696, *Picotea*, 1705ean, *El alto de Picotea* 1713an, Galbarran) eta agian *Ripa beguea* (Murieta, 1692), *erripa* eta *bega* (< *vega*)-ren elkarketaren fruitu bada, eta ez, konparaziorako, *erripa* eta *begia*-rena. San Martinen *Ardanzea* nahasgarria dugu 1688an, eta nahasgarria diogu *ardantze* + *a* nahiz *ardanza* + *a* izan dezakegulako horren oinarrian. Guztiaz ere, gaurko *Ardánza* biziak dokumentazioko *Ardanzea* horretan *ardantza* + *-a* ikustera bultzatzen gaitu, hau ezinbestekoa ez bada ere.

Adibide bakanak dira, baina forma disimilaziodunak Nafarroako mendebalean daudela aipatzen du Salaberri Zaratiegik (*idem*); zehazki, Ameskoagoienen eta Ameskoabarrenen, Lanan eta, agian, Allingo eta Ega ibarreko herri batzuetan.

Disimilazio-fenomenoa dago, halaber, nahiz eta hitzaren erroan agertu (cf. De Rijkek –1970: 41– *Raa* deituriko erregelaz aritzean aipatutako mugak) eta itxuraz bilakabide foniko hutsa izan, Lizarraldeko *Leartza* toponimoan: Erdi Aroko agiritan *Laharca* & *Laharça* & *Laarça* bezalako aldaerak ditu eta *aa > ea* bilakabidea pairatu du (*EHHE*, s.v. *lahar*). Bide batez, ematen du bide beretik azal daitekeela 1107. eta 1109.

²¹¹ Gogoratu, halere, Manterolak aipatutako *Becerro Galicano*-ko *Garcia Monnioz de Havaunzia* (1089).

urteetan dokumentaturiko *Lerraga*: Manterolak aurrez aurrekoanziostanez, errazagoa da *lahar* oinarritik abiatuta azaltzea.

$a + a > ea$ disimilazioari loturik daude, halaber, Salaberri Zaratiegik (1998: 53) Lapuente (1975) lanetik edanda aurkeztutako toponimoetako $-e > -a$ berreraiketa analogikoak: *Ynchaur landara* (Gastiain, 1686, 1686), *Udaragogorra* (Gastiain, 1686tik aitzina), *Udara Macurra* (Muneta, 1668) eta *Udaraquiçuna* (Eultz, 1574). Salaberri Zaratiegik zalantzak agertu zituen, aitzitik, honako hauekin: egungo *Bi(d)akrúza* (1867 *Vidacruza*, 1687 *Bidacruzea*), *Alcorta* (Ekala, 1687), *Cortacoa* (1707), *Corta* (San Martin, 1627) eta *Udaragorri* (Legaria).

4.4.6. Laburpena

4.4.6.1. Mendebaleko euskararen ezaugarriei buruz berba egitean $a + a > ea$ disimilazioa eremuaren ezaugarri eksklusibotzat jo ohi da, eta erdialderagoko zein ekialderagoko emaitzekin kontrajarri ohi da; besteak beste, $a + a > a$ soiltzearekin. Ikuspegia zuzena da, baina neurri batean bakarrik, gogoan hartzekoa baita $a + a > a$ soiltzea mendebalean ere badagoela eta, are gehiago, $a + a > ea$ baino zaharragoa dela: berba barruan aurki daiteke, hiatoen hausle, non ea -k ez baitu lekurik.

4.4.6.2. Tradizioz $a + a > ea$ formularen bidez irudikatu izan den disimilazioa lehen begi-kolpean eman zezakeena baino konplexuagoa da; izan ere, horren barnean bi disimilazio bereizi behar dira: alde batetik, $a + a > ea$ morfologikoa edo morfonologikoa; beste alde batetik, $a + a > ea$ fonetikoa. Bereizketa egitea ezinbestekoa da, baten eta bestearen funtzioak, kronologia eta hedadura ez baitira berberak.

4.4.6.3. Funtzioez denaz bezainbatean, Oñederra (2005) eta Manterola (2015) lanekin bat etorrira, Mendebalean artikulua definitua erantsi ondoren sortutako disimilazioak funtzio morfologikoa du; izan ere, beheko bokalaren igoerak singularra adierazten du (Oñederra 2005: 391).²¹² Azalpen horrek irtenbidea ematen die, gainera, disimilazio-erregelak dituen mugei: ez da absolutibo pluralean erabiltzen singularraren markatzaile delako, eta ez da kasu lokatiboetan erabiltzen kasu horien gramatikalizazio-prozesua hurrago dagoelako pluraleko kasuetatik (Manterola 2015: 272-273).

4.4.6.4. Kronologiaz denaz bezainbatean, disimilazio morfonologikoa artikulua mugatua sartu ondokoa izan behar du nahitaez, eta mendebaleko lehenengo lekukotasunak Arabakoak eta XI. mendekoak dira; cf. *Elhorzahea* (1025) eta parekoak

²¹² Halaber, *aterea* eta *dea* ‘al da’ bezalakoetan argiagoa da balio morfologikoa, disimilazioa egon ala ez egon esanahia aldatzen baita.

Manterolaren (2008: 374-376, 2015: 196-197) interpretazioaren arabera. Hurrengo mendean, bestalde, *Garci Olhea* dago Errioxan (Salaberri Zaratiegi 2018: 312).

Beste alde batetik, arestian aipatutakoarekin bat, disimilazio fonetikoak berriagoa izan behar du, hitz amaieraz gaindiko kokaguneetan Euskal Herriko mendebalean ere soildu egin baitira tinbre bereko bokalak: *ári* < *aari* < *ahari* aipatzen du Lakarrak (2011: 210, 143. oin-oharra), eta De Rijk (1970: 41) ere konturatua zen disimilazioaren faltaz hitz-erroetan (*zar* ‘zahar’ dago, baina ez ***zear*).

Aditzez denaz bezainbatean, gehienbat *izan*, *joan* eta *eroan*-en forma jokatuetako disimilazioek berriagoak izan behar dutela dirudi. Geografia-gaiez aritzean esandakoekin bat, disimilazio morfonologikoak baino eremu txikiagoa hartzen dute, eta, gainera, gertakari fonetiko hutsa dute: *dirala* zein *direala* eman, esangura ez da aldatzen. Nolanahi ere den, xv. mendea baino lehen sortua zen eremu batzuetan adizkietako disimilazioa, Euskal Herriko mendebaleko lehenengo testuak agertu orduko han-hemen agertzen baita.

Bestalde, adizkietatik kanpoko disimilazio fonetiko baten berri eman zidan Manterolak: Lizarraldean *Leartza* toponimoa dago, nahiz eta Erdi Aroko agirietan *Laharca* & *Laharça* eta *Laarça* agertzen diren (orain, begiratu *EHHE*, s.v. *lahar*); salbuespen bakana da, baina urratu egiten du bere bakantasunean De Rijkkek erroetako disimilaziorik ezaz emandako araua.

4.4.6.5. Badirudi $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoaren hedadura egonkor mantendu dela azken mendeotan. Gainera, Mendebaleko Euskara Zaharra gainerako euskalkietatik bereizteko ezaugarritzat jo izan da, eta nik neuk ere *Mendebal zabal* deitutako eremu linguistiko zaharra definitzeko nahikotzat jo dut tesi honetan: “M[endebaleko] E[uskara] Z[aharra]-ren berrikuntza zahar ezagun bi bururatzen zaizkit, $a + a > ea$ eta *egin* laguntzailea (bigarren hau ez hain aspaldikoa, segurki). Biek hartzen dituzte oso-osorik B[izkaia] eta A[raba] eta baita G[ipuzkoa]-ren zatirik handiena ere” (Lakarra 2011: 210).

Mugak direla eta, neurri batean aurreko atalean iruzkindutako ezaugarriekin egiten du bat, batez ere Nafarroako mendebalean, Ameskoa eta Lana aldeko toponimoetan ere aurki daitekeelako; aitzitik, disimilazioa *uri*, *barri* edo *baltz* baino nabarmen hedatuago agertzen da Gipuzkoan: hala kostaldeko testuetan nola egungo hizkeretan ez da ageri, baina lurlean barrurago Deba eta Urola inguruetan ez ezik Goierrin ere erabiltzen da, eta Mitxelenak aipatutako Errenteriako *azkuria* eta *minberia*

bezalakoek inoiz Gipuzkoan are sortalderago ere iristen zela erakuts lezakete (gogoratu, halaber, Isastiren errefracuetako *lotsea*).

Goierriko egoera esanguratsua da erregelaren mugen egonkortasunaz hitz egiteko; izan ere, Otxoa Arinen testuko eta Ordiziako egungo hizkeran pareko egoera aurkitu dut: erregela ez da sistematikoa hizkera horretan, lehian baitago $a + a > a$ soiltzearekin; hala gertatzen da Otxoa Arinenean, eta hala gertatzen da gaur egun ere (Garmendia & Etxabe 2004: 54). Halaber, badirudi Arabako erdialdetik eskuin egin ahala ahuldu egiten dela disimilazioaren beharizana garai batean behintzat (XVIII. mendearen amaiera), eta horrek eragiten bide ditu Arabako ekialdeko edo Sakana aldeko zenbait salbuespen. Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian ohiko den $a + a > a$ soiltzearekiko lehiaren gurpilean azaltzekoak izan daitezke disimilaziorik ez duten kasu horiek.

Adizkietako disimilaziora etorrira, bestelakoak dira datuak eskuan irudika daitezkeen eremuak. Lehenik eta behin, disimilazioa *izan*, *joan* eta *eroan*-en forma jokatueta agertzen da, baina hizkera zein den, disimilazioa aditz horietako batean edo batzuetan bakarrik gertatzen da. Hain zuzen ere, Bizkaian agertzen dira disimilaziorik inon baino indartsuago jaurerri osoan lehenengo testuetarik, bai eta, beharbada, beste aditzen batean ere (*egon* eta **edun* Mikoletarenean, bilbotarraren lekukotza kontuz erabiltzekoa bada ere).

Badirudi Arabako iparraldeko hizkerak hurbilago zeudela Bizkaiko egoeratik Gasteizkoa baino: ErrodZar testuan eta Abendañoren aienean badaude disimilazioak *joan*-en forma jokatueta, baina Landuccirenean ez; aldiz, Lazarragak aditzetan baditu.

Gipuzkoari dagokionez, are gutxiago dira disimilazioak, eta ematen du inoiz ez direla han egonkortu; izan ere, leku bereko edo bertuko baina garai ezberdineko testuetan agertu eta desagertu egiten dira: Eibarko 1685eko kopletan *izan*-en adizki disimilaziodun bat dago, baina herri bereko 1745eko udal-ordenantza luzeagoan ez dago bat ere; halaber, IsSagEsp-ek batzuk eta bestetzuk tartekatzen ditu. Bestalde, Amilleta eta Barrutia zaharretan badaude zenbait disimilazio *joan*-en eta *eroan*-en adizkietan, baina ez *izan*-i loturik (Irigoiñen 1998 [1958] eta Lakarra 1984a). Deba ibarretik eskuin eginda, gainera, eten garbia ikusten da: ez dut disimilaziorik aurkitu eremu horretatik sortaldera.

Ezberdintasun kronologiko eta geografiko horiek guztiek lotura bide dute disimilazio baten eta bestearen hedatze-ereduekin: (§5.2.2.1.2 eta §5.2.3.1) atalean jaso ditut batzuk eta bestetzuk azaltzeko proposamen bana.

4.4.6.6. $a + a > ea$ disimilazioa aztertu ahala, arian-arian agertzen dira bestelako edo bigarren mailako zenbait fenomeno eta kasu berezi, eta horietako batzuek arituko naiz labur.

Lehenik eta behin, arreta ematen du hipererabilera arkaiko eta zahar gehienak eremu jakin batean metatzeak: Araban (gogoratu Landucciren disimilazioak inesibo singularrean, adibidez) edo Arabatik hur kokatu izan diren testuetan (Sevilla1619 eta VJesus, esate baterako). Halaber, fenomeno batzuk Arabako edo handik hurbileko hizkeretan besterik ez dira agertzen XIX. mendea baino lehen: *gura arren > gurearren* bezalakoez ari naiz (Lazarg eskuizkribuan besterik ez dago, eta Mendebaleko gainerako adibideei kontrajartzen zaizkie halakoak; cf. Mikol 13r *guelau*), bai eta amaieran *-ia* duten berbei artikulua gehitzean *-iea* sortzeaz ere (Lazarg, VJesus; XIX. mendean, bestalde, badago halakorik Markinako eskolako idazleen lanetan, eta egun ere entzuna diot Arrietako hitzun bati; cf. §4.4.4.2.1 atala).

Bestalde, $-e > -a$ berranalisia ere Erdi Arokoa da, lehenengo testuak agertu orduko han-hemen agertzen baita; disimilazio morfologikoa sortu ondokoa izan behar du nahitaez, horrek eragiten duelako berranalisia. Indar- eta hedadura-gaiei dagokienez, gorabeheratsua da. Lehenik eta behin, gogoan hartzekoa da erabilitako corpusaren homogeneousunak ez duela aukerarik ematen hitz asko aztertu eta erkatzeko: ohiko hitz eta postposizioetatik harago (*andra, бага...*) gutxitan agertzen dira bestelako hitzak; corpusak ez du islatzen noizkoa den egun Mungia aldean behintzat entzuten den *tomata* ‘tomate’ bezalako aldaera bat. Bigarrenik, aldaketaren azpian berranalisia egonik, badirudi berranalisia egiteko “aukera” idazleen arabera aldatzen zela edo alda zitekeela, eta hortik bide datoz testuen artean dauden aldeak. Hirugarrenik, badirudi zenbat eta mendebalerago, hainbat eta indar handiagoa duela berranalisiak. Adibidez, *andre* beti da *andra* Bizkaiko testuetan, nahiz eta *bagá & bage* txandakatu egiten diren; aitzitik, Otxoa Arinek *andre* besterik ez dakar, haren hizkeran eta Goierri aldekoan, Ordiziako gorabeherak gorabehera, disimilazioa ezagun zen arren.

4.5. Eufoniak

4.5.1. Sarrera

Bizkaiko zein Bonpartek *bizkaiera* deitutako euskarari buruzko azterlanak irakurrita, erraz ikusten da zer-nolako garrantzia eman izan eta ematen zaien tinbre

bereko zein ezberdineko bokalak hiatoan elkartzean sortzen diren aldaketa eta bilbilakaerei. Gutxienez XIX. mendez geroztik *eufonia* deitu diren fenomenoek arreta eman izan diete tokian tokiko hizkerak aztertu eta bereizi nahi izan dituztenei: Bonapartek baino lehen, XIX. mende hasierako bizkaitar idazle kanonikoek (Pablo P. Astarloa, Mogel, Añibarro) eta haien adiskide atzerritarrek (cf. Humboldt 1925 [1801]) aipatu edo deskribatu zituzten, baita eztabaidatu ere (cf. Altzibar 1992: 475 eta hurrengoak). Halaber, Zabalak (1848) Bizkaiko hizkerak bereizteko baliatu zituten, eta Bonaparte printzeak berak, Zabalaren lanetik edanda, oso gogoan izan zituen: Elorduiren (1995) arabera, funtsezko bilakabideak izan ziren *Langue basque et langues finnoises* (1862) eta *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes* (1868) lanetan Bizkaiko hizkerak banatzeko.²¹³

Azken hamarkadetan fenomenoaren azterketa zehatz eta sistematikoagoak eman dituzte lan batzuek: De Rijk (1970) monografiko klasikoa, Hualdek Fonologia Lexikoaren arloan eginiko lanak (Hualde 1991a tesitik hasita), Hualde & Gaminde (1997) zehatza eta Gamindek (2007) Bizkaiko ikuspegi orokorrak emandako liburua ditut gogoan; halaber, gogoratzekoak dira hala tokian tokiko hizkerari buruzko monografikoak, fenomeno bokalikoak azaltzen hasi ohi direnak, nola arian-arian argitaratze-bidean dagoen *EHHA*-k islatzen duen informazio aberatsa.

Diakronisten artean, hiatoei lotutako fenomenoek ez dute hainbeste lekurik hartu, oro har modernotzat jo izan direlako eta ez dutelako historiaurrean sakontzeko aukerarik ematen. Hala zioen Mitxelenak:

No es propio de este lugar, sino más bien de una dialectología vasca, el estudio detenido de las muy diferentes maneras en que se han resuelto los hiatos en la conjugación y sobre todo en la declinación, por lo que sólo mencionaremos los hechos más salientes. Se trata de fenómenos recientes por lo general y de poca trascendencia, por lo tanto, para la reconstrucción comparativa. No falta información acerca de ellos, porque el príncipe Bonaparte les concedió siempre una extraordinaria importancia. (*FHV* 89)

Atal zabal honetan bost berrikuntza izango ditut aztergai nagusi. Zehazki, erdiko bokalen igotzeen ($e \rightarrow i / _ V$ eta $o \rightarrow u / _ V$), bokal arteko kontsonante epentetikoaren ($i + V \rightarrow ijV$ eta $u + V \rightarrow -ubV$) eta beheko bokalaren asimilazioaren bilakabidea aztertuko ditut; alegia, De Rijk (1970) monografikoan *Rea* eta *Roa*, *Ryi* eta *Rwu*, eta *Rui* izendatzen diren araez ariko naiz.

Nire aztergai nagusia Bizkaia den arren, berrikuntza supradialektalak dira aipatutakoak, eta, horregatik, Bizkaitik kanpoko erkagaiak hautatzean oso zabal jokatu

²¹³ *Le verbe basque en tableaux* (1991 [1869]) lanean ere aintzat hartu zituen, baina ordurako konturatua bide zen bestelako ezaugarri batzuk erabiltzea ere garrantzitsua zela.

dut: Arabako, Gipuzkoako mendebaleko eta Sakana aldeko lekukotasunez gain, Gipuzkoako erdi-ekialdekoak ere begiratu ditut, bai eta Lapurdiko kostaldeko eta Nafarroa Garaiko zenbait ere, fenomenoon agerrera-joeretan (izan kronologian, izan geografian) ondorio garbiagoak lor zitezkeelakoan. Halere, erkagaien azterketa ez da, halaber, aztergai nagusiarena bezain zehatza, eta Euskal Herriko erdialdeko testuen azterketa sistematikoago batek ekar lezake argi gehiagorik hemen emandako datuez.

Azken atal batean eremu txikiagoko zenbait berrikuntza ikertu ditut: herri, ibar edo eskualde jakin batzuetan besterik ez dira agertzen gaur egun edo XIX-XX. mendeaz geroztik, baina toki horietako hizkeren ezaugarri *salient*-ak dira; oro har, gutxi hedatutako berrikuntza eskusiboak dira.

Hiatoetako fenomenoez eta Bizkaiko testuez aritzean, berehala datozkigu gogora *literatur bizkaiera*, *Añibarroren eredia*, *Markinako eredia* eta beste zenbait kontzeptu eta konstrukto. Lantzean behin azalpenen lagungarri egin ditzakedan oharra ohar, argi utzi nahi dut, berriz ere, tesi honen aztergaien muga kronologikoa ~1800. urtean ezarri dudala; alegia, hemen ez dudala Añibarro, Astarloa, Frai Bartolome edo Mogelen erabileren deskripzio zehatzik emango: Bizkaiko euskara bestelako estandarizazio-maila batera iritsi zen liburu inprimatuaren bidez 1800 ondoko urte eta hamarkadetan, eta garaiak merezi duen arreta erdibideko gera ez dakidan, tesiko corpusetik kanpo utzi ditut egileon testu, hautu eta ibilbideen azterketa. Gainera, badago lan sakonik gaiaz: begiratu Urgell (1985) eta Altzibar (1992). Horrenbestez, idazle horiek aipatzekotan, XVIII. mendearen amaieraz geroztik atzematen den estandarizazio-nahi eta -prozesuez aritzean aipatuko ditut (§5.3.2.3, §5.3.3.2.3 eta §5.3.3.3).

4.5.2. Erdiko bokalak igotzea: $e \rightarrow i / _ V$ eta $o \rightarrow u / _ V$

4.5.2.1. Ezaugarriaren deskripzioa

Euskaraz fenomeno arrunta da hiatoan dauden erdiko bokalak igotzea: gaur egun Bizkaitik Zuberoara bitarteko hainbat hizkeratan aurki daiteke aldaketa hitz-erroetan, morfema-mugetan eta, kasu batzuetan, klitikoetan, baina ez ondoz ondoko hitzen artean (cf. *EHHA* V: 1040. mapa).

Neurri batean, $e \rightarrow i / _ V$ eta $o \rightarrow u / _ V$ bilakabideak elkarrekin azal daitezke, parekoak baitira. Halere, ezberdintasunak agertzen dira arauon bilakaera diakronikoa ikertzean.

Arauen arteko harremanari dagokionez, hizkera batean igotzeetako bat gertatzeak ez dakar besteak ere gertatu behar duenik: Bizkaian, esate baterako, mendebaleko eta erdialdeko hizkera batzuetan $e \rightarrow i / _V$ gertatzen da, baina ez $o \rightarrow u / _V$; Basaurin eta Gernikan, kasurako, *semie* ‘semea’ darabilte, baina *goikoa* (ez *goikua* edo *goikue*).

Aitzitik, $o \rightarrow u / _V$ gertatzen den hizkeretan (hala nola Bermeotik eskuin dagoen kostaldean eta ekialdeko eskualdeetan) sistematikoki betetzen da $e \rightarrow i / _V$ erregela: *goikua* eta *semia* entzuten da Lekeitioko hiztunei galdetuz gero, adibidez. Halaber, aipatzekoa da mendebaleko hizkeretan <e> bigarrenkari izateak (<-a + a bilkuran disimilazioz sortua) ez duela erregelaren aplikazioa eragozten: berdin erabiltzen dira arestian aipatutako *semie* eta *tabernie*.

Kronologiari eta geografiari helduta, arauok ez dira beti garai eta leku beretan agertzen: Nafarroa Behereko eta Zuberoako hizkeretan, esate baterako, lehenengo testuez geroztik daude $e \rightarrow i / _V$ eta $o \rightarrow u / _V$ idazle batzuen lanetan, ñabardurak ñabardura.²¹⁴ Mendebalean (eta Erdialdean, gerora erakutsiko dudanez), aldiz, bilakabide horiek berandu ugaritzen dira testuetan: XVIII. mendean.

Atal honetan bereiz emango ditut bi bokal-igotze horien inguruko azalpenak, bakoitzaren berezitasunak eta elkarrekiko ezberdintasunak argiago ikusiko direlakoan. Bestalde, berrikuntzok menderik mende hedatu zirela eta ezaugarri supradialektalak direla ahaztuko ez dudan arren, mendebal zabaleko lekukotasunak aztertuko ditut zehatzago (eta Bizkaikoak zehazten, tesi honen helburuei jarraikiz), eta *mendebal zabal-*tzat dut, orain arte ikusitakoaren arabera, artikulu definituari loturik historikoki $a + a > ea$ disimilazioa sortu den lurraldea. Hortik eskuin geratzen diren erdialdeko eta ekialdeko lekukotasunak kronologia- eta hedadura-gaiak argitzeko lagungarri izan dakizkidakeen neurrian izango ditut erkagai.

²¹⁴ Cf. “Hiatusen kokatutako erdiko bokalen hersketa ere hasirik dago XVI. menderako; Leizarraga eta Oihenart honetan gordetzaila dira, ez baitute disimilazioaren adibiderik. Erdiko bi bokalen artean e da hersteke joera gehien duena. Adibideak ugari dira; Etxepare: *berian* (7), *vrthia* (10), *ezagutzia* (19), *gaynian* (54), *neuria* (181) adibide palataletan; belarretan, berriz, disimilatu gabeak dira *bessoan* (146), *gogoa* (148), *Iangoycoa* (110) eta *gaixtoa* (170), baina bilakabidea izan dute *Iangoycua* (10) edo *Ieyncuaz* (198) adibideek. Leizarraga: *artean*, *diradenean* / *ahakoa*, *itsusgoa*, *Iaincoaren*. B. Etxauz: *gabiaz*, *zurian*, *8garrenian*. 1651ko pregariak: *batassunean* (sarrera), *aitcinean* (24), *denean* (24), *egoquitassunean* (25) / *orhoitçapenian* (1), *creaçalian* (4), *partaletarçunian* (5), *batarçunian* (10); belarretan, berriz: *Iangoicuac* (22). Tartas: *izatia*, *hatsarria*, *etxia*; bokal belarrean ez dirudi Tartasek hersten duenik, -oa darabil. Belapeire: *gouria*, *gutianian* ‘gaituenean’ / *gincoaren*, *gincoa*; cf. Agirre (2001: 695-697). Lopez: *basterrian* (355), *ičaithiagatic* (355), *uzthia* (355) / *ixassuan* (355), *ourçuaç* (357), *onduan* (212), *halakuer* (276). Laneufville: *curutciaren* (5), *dituztenian* (20) edo mugatzailea galdurik duen *acabatein* (59); belarretan: *gaiñecoua* (6), *Gincouaren* (5), *giristinoua* (5)” (Camino 2008b: 129).

4.5.2.2. $e \rightarrow i / _V$: testuetako lekukotasunak

4.5.2.2.1. Mendebaleko lekukotasun zaharrena

Ez dut erabat ziur esaterik zein den $e \rightarrow i / _V$ erregelaren lehenengo lekukotasuna mendebalean: dokumentazioa ez da beti nahi bezain argia, eta argi ez dauden elementuak era batera edo bestera irakurtzeak baieztapena zuzena edo okerra izatea ekar lezake.

Arestian esan dudanez, hizpide dudan bilakabidea ez da modernoenetariko euskaraz, baina Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketei ere ez bide dagokie, nahiz eta ekialdeko lekukotasunek erakusten duten eremu batzuetan berrikuntzak bazuela indarra lehenengo testu arkaikoak agertu orduko.

Lehenengo testu luzeak agertu baino hainbat lehenago, Picauden hiztegian *er[r]reguia* agertzen da. Ez dakit zehatz non bildu zituen frantziar erromesak idatziz jasotako hitzak, baina *eliçara* ‘eliza’-ren argitan pentsatu izan da Zaraitzu inguruan bil zitzakeela, inguru hartan arrunta izan baita *-ara* aldaera, nahiz eta ez den baztertu oker hartutako oharra izatea eta egiazki *eliçara* adlatiboa izatea; izan ere, *uric* ere badago, partitibo-markarekin (cf. TAV 52). *eliçara*-n adlatiboa izatera, zailagoa izango litzateke testuko hizkeraren jatorria proposatzea, ezagun denez XII. mendeko testuetan euskararen dialektalizazio-prozesua ez baitzegoen gerora bezain aurreratua, eta eskasak baitira azpi-hizkerak bereizteko erabil daitezkeen ezaugarri linguistikoak.

Bada, Picauden testuan hiatoetako bokalen interakzioen azterketa argigarri izan daitekeelakoan nago. *eliçara*-z gaindiko hitzen artean *er[r]reguia* ere badago, *e.a > i.a* aldaketarekin, eta gaur egun badakigu erdiko bokalaren igotzea modernoa dela Nafarroa Garai gehiengan; zehazki, XVII. mendearen amaieraz geroztikoa (Reguero 2017: 549). Kronologia hori aintzat hartuta, kasu honetan *e.a > i.a* aldaketa argigarria dela uste dut, eta Picauden euskara Pirinio alderdikoa dela pentsatu behar dela (beraz, *eliçara*-n absolutibo singularra legoke, ez adlatiboa); izan ere, inguru hartan bakarrik aurki daiteke, antza denez, abs. sg. *-ara* eta *e.a > i.a* ezaugarrien konbinazioa: gogoratzekoa da azken hori lehenengo testuetarik agertzen dela mugaren iparraldean lehenengo testuetarik.

er[r]regia ‘erregea’ ez irakurtzeko bide bakarra ‘erregin’-en aldaeratzat jotzea da, grafikoki adierazi gabeko bokal sudurkariarekin: *OEH*-k (s.v. *erregin*) Lazarraga, Beriain, XVI. mende amaierako goi-nafarrerazko salbe bat eta Lapurdiko garai bertsuko gutun batzuetan lekutzen du *erregia* ‘erregina’ aldaera, eta Landuccik ere hala dakar: *rey - erreguea* eta *reina - erreguia*. Nolanahi ere den, proposamenari garestiegi deritzot;

izan ere, Picaudek berak *regem* dakar latinezko ordain gisa, eta XII. mendean García Ramírez “Errestauratzailea”, Antso VI “Jakintsua” eta Antso VII “Indartsua” izan ziren Nafarroako erreinuko monarka.

Euskal Herriko mendebalaz denaz bezainbatean, argi dago $e \rightarrow i / _V$ bilakabidea $a + a > ea$ disimilazioaren ondotik gertatu dela, eta Bizkaian Lehenengo Euskara Modernoaren garaira arte itxaron behar da ezaugarria Etxeparerenean edo XVII. mendeko zenbait zuberotar idazlerengan bezain indartsu ikusteko.

Orain arte eskuratu ahal izan ditudan datuen arabera, Donemiliagako *Becerro Galicano* delakoan jasotako eta aurreko atal batean (§4.5.2.2.1) aipatutako *Garcia Monnioz de Havaunzia* (1089) izenean egon liteke $e \rightarrow i / _V$ erregelaren lehenengo lekukotasuna Euskal Herriko mendebalean (eta, bide batez, Euskal Herriko zaharrena litzateke, XI. mendekoa izaki). Manterolaren (2015: 199) azalpena egokia bada, *Reja*-ko (1025) *Habaunza* toponimoari artikulua definitua erantsi ondotik sortutako *Habaunzearen* ondorengo litzateke *Habaunzia*. Proposamenak ez du arazo formalik, baina kronologiaren aldetik bai, arazotsua da, $e \rightarrow i$ bokal-igotzearen hurrengo adibide arabarrak XVII. mendekoak baitira. Salaberri Zaratiegik ematen dituen Erdi Aroko toponimoen artean *eja* ere badago, eta beharbada $ea > eja > ia$ bezalako aldaketa-kate batekin lot liteke; cf. *Faranlucea* (Burgos, 947), *Haraluzeia* (1068), *Faranluceia* (1077), *Franlucea* (1176) (2018: 314).²¹⁵

Beste alde batetik, Arrasateko erreketaren lehenengo kantaren 19. bertso-lerroan *oyñ arroc çian* dakusa Arriolabengoak (2008: 97), ‘oin(ekin) harrotzean’ edo ‘inarrostean’ dela eta ondoren ez *luma*, ezpada *lurra* jartzen duela defendatuz. Mitxelenak (TAV 61) beste irakurketa bat egin zuen: *Oyñ arroc ç[itu]an*, eta Bidegainek (1967: 184) *Oyñ<ezt>arroc ci(re)an luma* berreraiki zuen. Ezaugarriaren kronologia eta

²¹⁵ Aznarrek (2017) Errioxako hainbat toponimotan dakuski $e + a > ea > ia$ zein $a + a > ea > ia$ bilakabideak; areago, amaieran *-ia* duten toponimo gehienak interpretatzen ditu arestiko bilakabideen arabera: *Sumicia* (< *sumitz* + *tza* + *a*), *Aldabia* (< *alde* + *behe* + *a*), *Garattia* (< *garate* + *a*), *Landabia* (< *landa* + *behe* + *a*), *Tocaldia* (< *troka* ~ *torka* + *alde* + *a*), *Amecia* (< *ametz* + *tza* + *a*), *Garastia* (< *garasta* + *a*), *Almigia* (< *almitz* ~ *albitz* + *tza* + *a*), *Lortia* (< **elor-arte-a*), *Lucia* (< *luze* + *a*), *Espelcia* (< *ezpel* + *tza* + *a*), *Laicia* (< **alaitza* + *a*), *Urrecia* (< *urretx* + *tza* + *a*), *Arricia* (< *harri* + *tza* + *a*) eta abar.

Aznarrek berak arruntzat jotzen du $e \rightarrow i / _V$ bokal-igoera (baita, tarteka, $o \rightarrow u / _V$ ere), baina proposamena arazotsua da, halakoak Hego Euskal Herriko testuetan behintzat ez baitira (hain) ohikoak XVII. mendearen amaiera / XVIII.aren hasiera baino lehen (eta, XVI.lean, oso bakanak dira adibideak), eta toponimian ere ez baitira arrunt (ez dut adibierik aurkitu, adibidez, Salaberri Zaratiegik –2018: 313-314– Erdi Aroko toponimoen ezuagarri fonetiko-fonologikoez emandako zehaztapenetan). Tamalez, Aznarrek aipatzen dituen toponimo gehienak datarik eta informazio historikorik gabe agertzen dira, eta irakurleak ez daki noizkoak diren eta zer-nolako aldaerak izan dituzten. Beraz, gehienetan dokumentazio historikoaren bidez egiaztatu beharko litzateke batzuetan forma kontrajarriak dituzten toponimoak zenbat geruza kronologikotakoak diren (orobat darabiltzan oso kronologia diferenteko ustezko paraleloei dagokienez), egiazki aipatutako bilakaerak islatzen dituzten eta, areago, egiazki euskal toponimoak ote diren,

geografía aintzat harturik, arazoak ikusten dizkiot Arriolabengoaren proposamenari; izan ere, testua Bizkaikoa dela onarturik (horretarako argudioez, begiratu Zuloaga 2011b: §5), jaurreriko adibide bakarra izango litzateke, eta, testu berean *e.a* hiatoa agertzen da sistematikoki; cf. 2 *ostançean*, 4 *azmaçean*, 5 *artean*, 9 *Aen*, 9 *çirean*, 16 *caltean*, 20 *gazteac*, 23 *bereac*, 24 *semea* eta abar.

Beranduxeago, Mitxelenak (*FHV* 90) *mia* ‘mehea’ ikusi zuen Mikoletaren eskuizkribuan, baina *delgado - mea* dio testuak, bokal igotzerik gabe.²¹⁶


Esan bezala, beraz, akatsa edo *eia* > *ia* aldaketarekin lotua ez bada, bokal-igotzearen lehenengo agerrera XI. mendekoa izango litzateke mendebalean, eta haren ondoko lekukotasunak (testuetan, bederen) sei-zazpi mende geroagokoak dira inguru hartan.

4.5.2.2.2. Bizkaiko testuak


Bizkaiko testuak gordetzaile dira ezaugarri honi dagokionez; zehazki, berrikuntzaren adibide ziurrak Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernora bitarteko trantsizio-garaian hasten dira ugaritzen. Ez dut bilakabidearen adibide bakar bat ere aurkitu jaurreriko XVI. eta XVII. mendeetako testu luzeenetan: VJesus, Mikol, EgiaKant, Kapan,²¹⁷ BertsBizk, Zubia... Hizkera herrikoiagoa azaldu ohi duten iturrietan ere ez dago. Horren lekuko dira kantu epikoak eta maitasunezkoak (ArrasErreI, *Enoj*, BizkKant, BizkOlerk), errefrauak (*RS*, Plen1603) eta Zumarragaren gutuna.

Inon egotekotan, XVII. mendean IbarGC kronikara gehitutako esaera batean dago. Esaera Getxoko Sarria etxeari dagokio, eta hau dio: *Sarria, sarri, gabyan argi*. Halere, bi ohar egin behar zaizkio esaerari: alde batetik, kronikak berak esaldi beraren beste aldaera bat duela, non *gabean* ageri baita (Arriolabengoa 2008: 123-124; cf., halaber, *TAV* 159); beste alde batetik, bokal-igotzea egileen hizkerari egotzi beharko litzaiokeela, ez Getxoko (zein Uribe Kostako) euskarari, inguru hartako material zahar garaikideek (ArrasErreI, *RS*, Plen1603) ez dakartelako adibiderik (ArrasErreI-en

²¹⁶ Argia da irakurketa eskuizkribuan:



²¹⁷ Labayruk (Arejita 2008) argitaratutako faksimilean 125 *iuramenturic ez eguitia* irakurtzen da garbi. Ezustekoaren aurrean Urkixo ondareko alea kontsultatuta egiaztatu dut Labayruren aleko kasua eskuz osatutako hitz bati dagokiola; alegia, letrak ikusten ez ziren pasarteetan baten batek eskuz idatzi zuela <i>. Urkixo funtseko aletik ateratako argazkia da hau:



kasuan, ez adibide ziurrik behintzat), eta fenomenoa gerora ere ez delako agertu inguru hartan, asimilazioa gertatu baita: *seme* + *-a* > *seme* > *semé* (cf. Zuazo & Goiti 2016: 17 eta hurrengoak eta §5.1.6).

IbargC kronikan bertan *silia* (eusk) - *silla* (gazt.) agertzen dira (Arriolabengoa 2008: 142), baina euskarazko forman ez da zertan bokal-igotzea ikusi (*silia* < *silea* < *sila* + *a*): uste dut egokiagoa dela horrek bustidura adierazten duela proposatzea. Halaber, *yzia* - *clabo* ageri da: jatorrian *iltze* badago (cf. Nafarroako *itze* aldaera, *iltze*-rekin batera; *OEH*, s.v. *iltze*), eta ez *ziri*-ren aldaeraren bat, bokal-igotzearen beste adibide bat genuke, baina Erdialdeko edo Ekialdeko aldaera dela proposatu behar dut, ez Mendebalekoa; izan ere, *OEH*-k ematen dituen datuez gain, aintzat hartu behar da Mendebalean bokal-igotzearen kronologia hori arazotsua dela eta hitz hasieran *u*- espero zitekeela, ez *i*- (*FHV* 60).

IbargC kronikako zenbait azalpen etimologikok *ea/ia*-ren arteko muga lausoa islatzen dute kasu batzuetan. Besterik da zehaztea, jakina, erdiko eta goiko bokalaren arteko muga lausoa ahoskera-tinbrearen ondorio den ala kronikaren egileek egiazki garbia zen ezberdintasun fonetikoaren paronimiaz “lausotu” zuten, euren azalpenen lagungarri(ago) izan zedin. Esate baterako, Zeltiberiako *Varia* herriaren izena azaltzean, hau esaten da kronikako bigarren liburuan: “que agora es un lugar pequeño que se llama Varea, media legua más abaxo de la çiudad de Logroño, en el camino como vamos a Calahorra. *Varea* en bascuence quiere dezir ‘limaco’ y también ‘baço’” (Arriolabengoa 2008: 194).

Bizkaian Lehen Euskara Modernokoak dira $e \rightarrow i$ igotzearen lehenengo adibide ziur eta ugariak. Behin XVIII. mendera ezkerreko, gero eta zailagoa da hizpide dudaren fenomenoa Bizkaiko testuetan ez aurkitzea, nahiz eta egoera ez bide zen bera hamarkada eta eremu guztietan: zauritu ondoren eta hil aurretik hirutan esan ei zuen Ay *ene desdichadea!* Barakaldoko hamalau urteko neskato batek 1712ko prozesu baten arabera; beraz, adibidearen laburtasuna laburtasun, pentsa daiteke berrikuntza ez zela ohikoa Barakaldon.

1730eko hamarkadan berrikuntza agertzen da Arzadun eta Urkizu durangarren lanetan, baina bilakabideak ez du indar bera bi testuetan; Urkizurekin alderatuta, Arzadunen testua gordetzailleagoa da, bilakabidea bi inguruetan besterik ez baita

gertatzen: hitzei genitibo singularraren marka gehitzean (hiatoa *e.e* delarik)²¹⁸ eta *izan*-en adizki disimilaziodunetan. Aipatzekoa da, beraz, *e* biak direla bigarrenkari; lehenengo sailean, asimilazioz sortuak; bigarrenean, disimilazioz. Hona hemen sail bakoitzeko adibide sorta bat:

- (i) Genitibo singularrari lotutakoak: 13 & 22 *Aytien*, 13 & 22 *semien*, 37 *jaubien*, 37 *vorondatien*, 43 & 46 (birritan) *obrien*, 48 *Confessorien*.
- (ii) *Izan*-en adizki disimilaziodunetakoak: 22 & 43 *diriala*, 22 (hirutan) *garianean*, 27 *dirianai*, 32 (birritan) *dirian*, 32 (birritan) & 35 & 41 *dirianac*, 44 *diriana*.

Salbuespenak gutxi dira bi kokagune horietan: alde batetik, *izan*-en adizkietan bokal-igotzerik gabekoak daude (44 *eguin direan*, 52 & 55 *zareana*); beste alde batetik, bokala ez da igo 13 & 24 & 43 *christianeen* eta 21 & 22 *santeen* aldaeretan. Bestelako kokalekuetan ez dago igotzerik: 13 *vicicea*, 14 *santeari*, 15 *semea*, 20 *señaleau*, 26 *Aiteagañic*, 36 *obreagaz* eta abar.

Urkizuren liburuan ugariagoak dira *-ea* gordetzen duten formak *-ia* dutenak baino, baina erdiko bokalaren igotzea Arzadunen lanean baino sarriago agertzen da.

Alde batetik, berrikuntza sistematikoa da Arzadunez aritzean aipatutako bi inguruneetan: bai genitibo singularrari lotutakoetan (1 & 7 & 8 & 9 & 10 & 15 & 23 & 27 & 39 & 43 & 65 & 67 & 87 *santissimien*, 1 & 8 *virginien*, 3 *bestiena*, 7 *personien*, 8 & 17 & 28 & 37 & 41 & 42 & 45 & 52 *semien*, 19 *santissimienzat*, 29 *arimien*, 41 *jaiaquèriena*, 43 *conzienzien*, 56 *dolorien*, 60 *eriozien*, 61 & 65 *igaitiena*, 63 *etorrerriena*, 64 *santien*, 65 *amorien*, 60 *santissimiena*, 83 –birritan– *peniaren*, 87 *glorien*), bai *izan*-en adizki disimilaziodunetan (3 *zariala*, 5 & 6 & 12 & 19 & 23 & 26 & 27 & 30 & 31 & 85 & 88 *dirian*, 11 *garian*, 14 *gariala*, 15 & 72 & 74 & 76 *dirianian*, 17 –birritan– *zirian*, 32 *zariana*, 39 & 43 & 65 & 66 *zinianian*, 42 *ziniala*, 72 *zinian*).

Beste alde batetik, berrikuntzak indar bizia du gertatzeko baldintza egokiak betetzen diren kasu batzuetan. Zehazki, ingurune hauetan sortzen dira: (a) $a + a > ea$ disimilazioa sortu den hitzetan eta (b) erroaren amaieran berezko *-e* dutenei zein tradizioz epentetikotzat jo den arren Lakarrak berriki (2017: §4.4.5.1. eta 4.4.5.2) **her* errotik eratorritzat jo duen *-e* bokala dutenei hasieran *-a* duen morfemaren bat

²¹⁸ Honetan Arzadun bat dator zenbait hamarkadaren buruan idatzitako *Dotrinazko sermoitegi*-ko egoerarekin, sermoi-bilduma horretan erdiko bokalaren igoerak genitibo-kasuan lekutzen baitira nagusiki; cf. Ulibarri (2015: 150-151 eta 162).

gehitzean: 8 *jayáqueria*, 9 *etorreria*, 18 *santia*, 33 *apartetia*, 53 *coroia*, 59 *betia*, 66 *asaieria*, 78 *lencusinia*, 81 *penia*, 81 *artian*, 82 *doian*, 83 *dolorosia*, 85 *esposia*; 17 *laugarrenian*, 18 *bostgarrenian*, 25 *aurreranzian*, 76 *dirianian*.

Nolanahi ere den, Urkizuren liburuan aurrekoak baino gehiago dira *-ea* gorde duten aldaerak: ia berrehun zenbatu ditut.

Urkizuren beraren 1740ko koplak oso interesgarriak dira arau honi dagokionez. Alde batetik, bokal-igotzea duten eta ez duten aldaeren arteko proportzioa 1737ko lanekoaren antzekoa da: hirutan betetzen da (1 *biar*, 6 *eiquian*, 57 *zariana*) eta hamaika alditan ez (8 & 14 *artean*, 16 *borondatean*, 24 *debotea*, 25 & 56 *lurrean*, 31 *jaubea*, 38 *nobleac*, 45 *andrea*, 54 *aurrean*, 55 *maytea*). Egoerak ez du harridura sortzen lehen begi-kolpean, baina errimek badute nabarmendu beharreko gorabehera bat: *eiquian - artean* (6. eta 8. bertso-lerroak) eta *nobleac - guztia* (38. eta 40. bertso-lerroak) oinek errimatuko badute, inprimaturik *eak* agertu arren *iak* ahoskatzen bide zen (begiratu Zuloaga 2018 [2015]: 4-5); horrenbestez, *eak* horiek idatziz gordetako forma zaharragoak besterik ez lirakeke izango.²¹⁹ Jokabide hori ez da ezezaguna euskal testuen historian: mendebalean bertan halakoak ageri dira XVII. mendearen amaierako eta XVIII.aren hasierako testu banatan (BertsBizk eta Barrutia).

Mendeak aurrera egin ahala bi joera ageri dira: alde batetik, berrikuntza islatzen duten testuak daude; beste alde batetik, aldaera zaharra azaltzen dutenak.

Testu labur batzuetan eta hizkera herrikoitik hurrago daudenetan bilakabidea agertzen da: 24 *vilvorianic* ‘Bilboreanik’ dakar Elorrioko ziri-bertsoetako azken lerroak, baina 2 *adorea*, 13 & 14 *artean*, 16 *lonbreac*, 18 *librea*, 18 *erreal* eta 18 *errealean* ere badaude. 1750etik aurrera, Amorotoko 1754ko armarriak *bier[r]a* ‘beharra, lana’ dakar, eta idazkun beraren 1784ko aldaerak *biar[r]a*; gogoan hartzekoa da, horietan [ja] goranzko diptongoa egon daitekeela.

²¹⁹ Errimak eta bestelako baliabide poetikoak baliatu izan dira beste hizkuntza batzuetan ere ahoskerari buruzko informazioa ondorioztatzeko: “In the best cases, we may have descriptions or commentaries about the pronunciation at the time, and these can be immensely helpful. In most situations, however, we are not so fortunate as to have worthwhile, readily interpretable phonetic descriptions from the past. Other valuable sources of phonetic information include rhymes, metre, occasional spellings, transliterations of forms from other languages whose phonology is better known, aid from translations from texts known in other languages, and clues from related languages and dialects” (Campbell 2004 [1998]: 335).

Ingeleseaz, esaterako, Shakespeareren testuetan halakoen bidez argitu izan dira grafiak lausotzen zituen ahoskerak: argigarri da Kökeritz-ek aspaldi (1953) eginiko monografikoa eta gerora hizkuntzalaritza historikoko hainbat esku-liburutan emandako adibideak.

Geografian eta kronologian are urrunago, txinera zaharren fonologia berreraikitze lanetan berebiziko garrantzia izan du errimen ikerketak: “Apart from the internal structure of Chinese characters, rhyme evidence plays a crucial role in the reconstruction of OldChinese phonology” (List *et al.* 2017: 1); begiratu, halaber eta besteak beste, Baxter (1992) eta Baxter & Sagart (2014).

Bizkai erdialdean, De la Quadraren lanetan arruntak dira *-iV* dutenak, nahiz eta bakarrak ez izan: sarri aurki daitezke bietariko adibideak orrialde berean. Hona hemen “Doctrina christinaubarena”-ko lehenengo hiru orrialdeetatik ateratako adibideak:

(i) Bilakabidea dutenak: 1 *criaturia*, 1 *fedia*, 1 *esperanzia*, 1 (hirutan) *Aitiaren*, 1 & 2 (birritan) *gueuria*, 1 *Semiaren*, 1 *izenian*, 2 & 3 *egunian*, 2 *betia*, 2 *bedeincatia*, 2 *artian*, 2 *santia*, 3 *virginiaganic*, 3 *Catoliquia*.

(ii) Bilakabidea ez dutenak: 1 *Jaquinvidea*, 1 *emacumea*, 1 *caridadea*, 1 *señaleagaitic*, 2 *vorondatea*, 2 *lurrean*, 2 *ea*, 2 *alcanzautea*, 2 *cri[a]doreagan*, 3 *bean*.

Lagin labur hori nahikoa da bokal-igotzea duten formak ugariagoak (16~17/10) direla ikusteko, eta De la Quadraren lanetako bestelako adibide batzuk ere bilakabideak haren hizkera-ereduan indar bizia zuela erakusten dute: arestian ageri diren testuinguruez gain, cf. 4 *semiau* ‘seme hau’.

Hain zuzen ere, *Errosariyo santuba* liburuko hizkerak bat egiten du honetan De la Quadrarenarekin: *e* → *i* igotzea ugari agertzen da (1 *dirian*, 3 *errezetia*, 3 *santissimiaren*, 4 *bacoitizian*, 4 *osterancian*, 5 *astelenian*, 6 *santiaren*, 6 *neuria...*), nahiz eta forma zaharragoari eutsi dioten formak ere badauden: 3 *jaquitea*, 4 *echean*, 4 *lizatean*, 6 *señaleagaitic*, 7 *eguitea*, 9 *icustea*, 12 *prestau gaitean*, 13 *aurrean* eta abar.

Gernika aldeari begira, Gandararen Gabon-kantuetan gehienetan *-eV* gordetzen da, baina *-iV* duten formak ere badaude: 1757ko testuko 11-3 *esposiagas*, 1762ko kantako *lioi* ‘lehoi’ eta “Ardaoaren ganian” sortako izenburuko *ganian*, 1-3 *bizi dirian* eta 2-5 *estanian*. Ez da ahaztekoa sasoi hartan idazleen hizkera-hautuak kontzientziagoak edo nabarmenagoak zirela; are Gandararen kasuan: Bizkaiko euskara ez ezik, beste eremu batzuetakoa ere ezagutzen zuela erakusten dute bere testuek. Nolanahi ere den, berrikuntza iritsia eta zabaldua zen Gernika aldeko euskarara. Hala bermatzen du hamarkada gutxiren buruan ia sistematikoa izateak 1801eko Gabon-kantan: berrogei bat hitzek dute *-ia* (*behar* hitzaren adibideak kenduta, goranzko diptongoa egon daitekeelako, cf. 10-7 *onrria*, 11-6 *suabia*, 13-5 *pobrezia*, 15-3 *baquia*, 15-5 *vitzitcia*, 18-5 & 25-3 *gauzia* eta abar), eta 12 *-ea* kontrajartzen zaizkie (2-1 *maitea*, 4-1 -birritan- *Ea*, 5-6 *deadar*, 6-2 *gavean*, 6-3 *baquea*, 6-4 *batean*, 7-3 *amistadea*, 8-5 *laugarrenean*, 9-6 *semeac*, 9-8 *cateac*, 26-1 *gentec*).

Markina inguruko XVIII. mendearen amaiera aldeko testuetan sistematikoki dago bilakabidea. Ez dut bokal-igotzerik gabeko aldaerarik aurkitu Apoitaren

bederatziurrenetan: 1-6 *Virginidadiaren*, 1-9 & 2-6 *dichia*, 2-3 *importantiac*, 2-6 *euquitia*, 2-8 *Santissimiaren*, 2-9 *laguncia*, 2-11 *aurrerancian*, 2-12 *izan ditian* eta abar.

Iturrizak Andramendiko idazkiez emandako bertsio modernizatuan sarri agertzen dira aldaketaren adibideak (1-1 *egungarrenian*, 1-2 *laugarrenian*, 1-3 *semiac*, 1-6 *amorian*, 1-7 *beian*, 2-1 *elexiaren...*), nahiz eta aldaera zaharrago batzuk ere badauden (1-4 *artean*, 1-7 *baquea*, 2-1 *aurrean...*). Bestalde, Abadiñoako 1804ko Gabon-kantak *-ia* du kasu batean ez beste guztietan: 1-1 & 8-1 *jentiac*, 2-1 & 8-5 *Olgau gaitian*, 4-4 *artian*, 6-3 *portalian*, baina 8-1 *Ea*.

Bizkaiko mendebaleko hizkera gehienak gordetzaile ageri dira $e \rightarrow i / _V$ berrikuntzaren aurrean: gaur egun ere badira berrikuntza hartu ez duten hizkerak Mungialdean, Txorierrin, Arratian, Orozkon²²⁰ eta Nerbioi ibarraren hegoaldean. Hori dela eta, ez da harrizkoa Orozkoko 1739ko otoitzek bokal-igotzearen adibiderik ez izatea.

Bizkai sartaldearen barnean Nerbioi ibarreko euskarak hausten du gordetzailetasun hori, nolabaiteko uhartetxoak sortuz. Hizpide dudan ezaugarriari dagokionez, indar bizia du ibarraren iparraldeko hizkeretan XVIII. mendearen hondarrean; ia sistematikoa da Sarriaren bizkaierazko sermoietan: 1 *biar* eta 22 *veriala* bezalakoetan [ja] egon daiteke, baina 2 *gausia*, 2 *sospechiagas*, 3 *guerizia*, 13 *honria*, 14 *erropia*, 18 *dulzuria*, 19 *penia* eta abar daude morfema-mugan, eta 3 *humiau*, 18 *virtutiau* zein 30 *seguridadiau* klitikoetan sortutako triptongoetan. Halere, sermoitegi horretan berrikuntzak baditu zenbait salbuespen, non *-ea* zaharragoa gorde baita: 7 *quea*, 19 *comutea*, 19 *obrea*, 20 *piedadearen* 25 *esperanzea*, 30 *eriyotzea*, 30 *señorea*, 37 *necesidadea*. Halakoak oso bakanak dira.

Bilbo aldean interesgarri da Zollo1700 galdetegia, arau honi dagokionez testua linguistikoki hurbilago baitago Nerbioi ibarraren iparraldetik inguruko hizkera gordetzailetatik baino. Hain zuzen ere, testuan aldaera zaharrak nagusi badira ere (3r *aurrean*, 3r & 3v *echea*, 3r *escondi sanean*, 3v *urttean*, 3v *echean*, 3v & 4r *birritan-poderean*, 4r *semeari*, 4r & 4v *parttea*, 4r *ostean*, 4r *bereac*), egun Bilboko euskara dialektalean sistematikoki betetzen den $e \rightarrow i / _V$ berrikuntzaren adibide batzuk ere badaude: 3r *dirian*, 3v *oiacas*, 4r *erein siriala*, 4r *ensutia*.

²²⁰ Orozko aldeko egungo hizkeran ere *ea* gorde ohi da hiatoetan, aurretik *i(C)* eta *u(C)* daudenean izan ezik (*-ia* ematen dute halakoek egun): *etzea* eta *andrea*, baina *iluntzia* eta *kinpullia* ‘tipula’.

Bizkaiko mendebaleko mende amaierako egileei dagokienez, Barnetxeak *Catalin* antzerki-lanean txertatutako euskal kantak 3 *Il sirian* dakar (Zuloaga 2018 [2013]).

Arestiko testu guztiez landara, aipatzekoa da 1760ko hamarkadan Bizkaiko euskaran idatzitako liburu inprimatu garrantzitsuenetarik bi eredu zaharrari edo kontserbatzaileari atxiki zitzaizkiola: ez dago $e \rightarrow i / _V$ bilakabiderik Kardaberatzen eta Olaetxearen dotrinen lehenengo edizioetan, nahiz eta besterik den hurrengoetan (§5.3.2.3.1).

Lehenengo Euskara Modernokotzat (§5.1.8) jotako Bulda-n indar bizia du ezaugarriak; zehazki, ia sistematikoa da: 1-2 (birritan) & 22 *urtian*, 3 *Erregiai*, 5 *confesoriac*, 6 & 28 *bestia*, 9 *confesetia*, 9 *buldian*, 11 *peliatan*, 13 *Domequia*, 15 *dirian*, 21 *vaquaiatic*, 26 *artian*, 26 & 50 *arimia*, 27 *egunian*, 28 *arimia[c]*, 34 *absolviduco leuquian*, 1 & 38 & 63 *buldia*, 39 *oquelia*, 46 *esatia*, 52 *arimien*, 56 *jaubiec*, 61 *jabia* eta 63 *paguetia* aurkitu ditut morfema-mugan, eta 16 & 29 & 43 *buldiau* ‘bulda hau’ klitizazioaren ondorioz sortutako triptongoan. Horiekin batera, 8 & 36 & 46 & 60 & 61 *biar* ‘behar’ eta 13 *biarra* ‘beharra’ ere badaude, baina kasu horietan ez hiatoa baina goranzko diptongoa egon liteke [bjar].

Salbuespen bakarra aurkitu dut Bulda-n, eta mailegu moderno batean dago: 60 *erreal* ‘moneta-mota bat’.

Berrikuntzak Bulda-n duen sistematikotasunak berresten du Lehen Euskara Modernoan aurrera egin ahala bilakabideak indar bizia hartua zuela Bizkaiko erdi-ekialdeko hizkeraren batean.

4.5.2.2.3. Arabako eta Sakanako testuak

4.5.2.2.3.1. Atal honen sarreran aipatutako *Havaunzia* toponimo zaharraren argitan espero nuen hizpide dudan berrikuntzaren adibideren bat agertzea Arabako testu zaharrenetan, baina Arabako XVI. mendeko iturri nagusiek ez dute aldaketaren adibiderik: ez dut alerik aurkitu ez 1600 aurreko testu arkaiko laburretan, ez Landucciren hiztegian, ez Betolatzaren dotrinan, ez Lazarragari egotzitako testuetan (Sasiolaren poemetan ageri da adibide bakanen bat, baina Deba ibarreko lekukotasunekin batera aztertuko dut; §4.5.2.2.4).

Lekukotasun laburragoa da Mendietak jasotako Abendañoakoaren aienea, eta hasierak izan lezake interesik ezaugarri honen historia irudikatzeko: 1 *Yzarragati gora*

elcian joeala. Pasartearen irakurketa ziurra bada ere, *elcian* horren esangura ez da batere argia, eta ezin da erabili datu ziurra balitz bezala:

Si *-ian* es ahí una variante moderna de *-ean*, resultado de una acomodación de vocales en hiato (como lo es sin duda *ditubala*, de *dituala*, «teniéndolos [por compañeros suyos]»), se podría pensar acaso en un sustantivo verbal, en inesivo, que significara «apellido» (o «alcance»?). (TAV 78)

XVII. mendean, Urduñako hitz-zerrendan behin agertzen da berrikuntza: *bejiga - pujiguia*. Rosen (2011: 397) irakurketa zuzena da eskuizkribuaren argitan, eta Urduñako iturria berritzaile ageri da aipatutako lekukotasun zaharragoen aldean: cf. Land *bexiga - vexigüea*. Martínez de Ochoaren 1695eko Gabon-kantan, halere, 51 *ea* dago.

Arabako XVIII. mendeko testuen artean bikoiztasuna dago berrikuntza azaltzen duten testuen eta azaltzen ez dutenen artean; zehazki, ez dut adibiderik aurkitu Gamizen testuetan, baina Albenizek *biar* dakar hirutan eta Aiarako DotrSerm delakoan badaude adibideak, oro har kokagune jakin batean biltzen badira ere: Ulibarrik (2015: 150) dioenez, *ea* hiatoa bere horretan gordetzen da sermoitegian; aitzitik, hiatoa *e.e* denean joera nagusia bakuntzea bada ere, genitiboan sortzen denean *e.e* > *i.e* bihurtzen da tarteka (bide batez, arestian Arzadunetz aritzean aipatu bezala): *gentilien*, *orrein*, *virginiena* eta *guliyen* ematen ditu Ulibarrik (*idem*, 151) bilakabide horren adibidetzat.

DotrSerm ezkerre, XIX. mendekoak dira bilakabidearen hurrengo lekukotasunak Araban, eta guztiak daude nola edo hala Laudio aldeko euskarari lotuak, hango dotrinetan, Ruthen liburuan eta Uriartek itzulitako *Bula ineffabilis*-ean baitaude (begiratu Urkijo 1994: 33 eta hurrengoak, eta Knörr 1985).

4.5.2.2.3.2. Araba/Nafarroa mugako egileei dagokienez, hizpide dudak aldaketa ez da betetzen Iturberen testuan, Portalen olerkian (1610) eta Sevilla1619 sortan, baina badago testu berankorra goetan, hala nola Lakuntzako 1838ko predikuan (3 *guria*, 4 *borondatia*, 16 *Gurutzián* eta abar) eta Aralarko testuetan (1833): 1 *ondorian*, 3 *generalian* eta abar. Datu apurron arabera, beraz, inguru horretan ere berankorra dirudi aldaketak.

4.5.2.2.4. Gipuzkoako mendebaleko testuak

4.5.2.2.4.1. Araban gertatzen denaren antzeko egoera aurkitu dut Deba ibarreko testuetan; alegia, testu zahar nagusiek ez dakarte berrikuntza honen adibiderik, baina lekukotasun zaharren artean badaude adibide gutxi batzuk.

XVI. mendeko testuen artean irakurketa ziurra du Lazarraga eskuizkribuko B28:15 *munduan dirian podere oro* pasarteko adizkiak. Sasiolaren poemetako batean

agertzen da, eta $e \rightarrow i / _V$ berrikuntza duen kasu bakarra da testu osoan.²²¹ Deba ingurukoa omen zen Sasiola, eta Debako Ana Urrutiren gutuneko (1596) adizki batean ere ageri da hizpide dudan aldaketa (aurreko bokal itxiak eragindako analogia baztertzen bada, jakina): *5 betico segituaç ar[r]ya conujrtju liquiala*.

Ibarraren hegoaldean, Garibairen errefracuetan A39 *Onac on direala, obiac obe* ‘Los buenos siendo buenos los mejores son mejores’ transkribatu zuten Zubiaurrek eta Arzamendik (1976: 64). Eskuizkribua begiratuta egia da <i> irakur daitekeela, baina uste dut <e> irakurri behar dela, besteak beste Garibairen errefracuetan badaudelako <i>-rekin nahas daitezkeen <e> batzuk.²²² A39 horretako ustezko <i>-ak puntua falta du. Gainera, eta aldaketaren adibide bakarra litzateke testu osoan (cf. A50 *Larrea Burgos bano obea Toledorem idea*).²²³


Aipatutako kasuez kanpo 1600 aurretik ez dut bestelako bokal-igotzerik aurkitu corpusean. Aurrekoez geroztik, Deba ibarreko euskara zaharrea (1600-1745) oso berankorrek dira lehenengo lekukotasunak, denak ere XVIII. mendearen hasierakoak. Ez dut alerik aurkitu XVII. mendearen amaierako testuetan (Irure, Amil, EibarKoplZah, ArrasAhap).

XVIII. mendeko testuetako lehenengo adibideak Barrutiaren antzerki-lanean (56 *causia*, 63 *xuatia*, 228 *obia*, 229 *eracustia*, 322 *daquionian*) eta EibarKopl sortan (1 & 9 *Guitarria*, 11 *perruquia*, 15 *esconsaquia*) aurkitu ditut. Barrutiari nagokiolarik, aipatzekoa da zerrendatutako aldaera horiek baino askoz arruntagoak direla aldaera zaharrari eusten diotenak. Eibarko 1721eko koplei helduta, aldaerok informazio esanguratsua ematen dute, berrikuntza sistematikoki betetzen baita (salbuespen bakar bat ere ez dago).

XVIII. mendearen hasieran berrikuntza ez da agertzen Arrasateko 1705eko bandoan eta 1708ko sermoian. Mende erdialdean, Arakistainen eranskinean ez dut

²²¹ A4:19ko *amorantian lequidanari* bertso-lerroan zalantza egin daiteke, baina oinarria *amorantia* da, ez *amorante* (cf. Bilbao *et al.* inprimategian eta OEH, s.v. *amorantia*).

²²² Begiratu, adibidez, lehenebiziko hitzeko *Garean*:



²²³ Ulibarrik, halere, Garibairen aipu interesgarri baten berri eman dit: “tambiê entre los curiosos hay discimen sobre la denominación de fidalguia, diciendo diversas opiniones, pero la cierta y verdadera es, que su origen, como el resto de la lègua castellana, es de la latina, en la qual al leal llaman *fidelis*, y de *fidelitas* se dixo *fidalguia*, que quiere dezir cosa de fidelidad, como de *monge* dezimos *mongia*” (cf. Zubiaur 1990: 112; letra etzanak nireak dira). Ulibarrik berak (2018: 758) dioen bezala, balirudike *monge* baina *mongia* horrek $e \rightarrow i$ igotzea islatzen duela, baina efektu paronimiko hutsa izan daiteke, eta adibidearen izaera eta bakantasuna ikusita, hala dela uste dut.

aldaketaren adibiderik aurkitu Gipuzkoakotzat markatutako hitzetan, baina Larramendiri 1746an igorritako gutunean badago adibide bakanik (cf. 23. lerroko *icasliac*). Halaber, eredu zahar eta supradialektalarekin egiten dute bat Itziarko Ama Birjinaren omenezko testuek; cf. ItziarBerts 2-2 *deadar tristeac*, 2-4 *semeac*, 3-1 & 3-2 *artean*, 7-2 *maitea*, 7-3 *Berealatic...*; ItziarKant 3-3 *baquea*, 4-2 *Cortean*, 4-4 *lurrean*, 12-2 *Semeari*; ItziarKopl 1 *guezatea*, 2 *ezpatea*, 4 *erreguea*; Aldazabal 2 *Adisquidea*, 2 *vorondatea*, 3 *torpeari*, 3 *deseatzen*, 3 *favoreac*, 3 *viotcean...*

Bizkaian legez, gutxi gorabehera 1750az geroztiko testuetan ugaritzen dira adibideak Deba ibarrean, eta zailagoa da berrikuntza ez dakarten testuak aurkitzea orduz geroztik: Itziarko Ama Birjinaren omenezko testuetan bestelako hizkera-eredua hautatu izanak eragin bide zuen forma zahar eta orokorragoak agertzea.

Eibar aldean 1754ko udal-aginduan sistematikoa da bilakabidea; beraz, testuak erakusten du hiribildu bereko 1721eko kopletan agertzen ziren lehenengo zantzuak indartu egin zirela hamarkada gutxiren buruan: 1 *maggestariaren*, 1 *multia*, 2 *alcatia*, 2 *eguitia*, 2 *dattozarian*, 2 *leguia*, 3 *ilten danian* eta 3 *acabau deinian* dakartza testuak, besteak beste.

Kokaleku eta data zehatzik gabeko IsSagEsp testuan ere indar bizia du aldaketak (1r *gaynian*, 1r *egunian*, 1r *saspigarrenian*, 1r *magestadiac*, 1r *vici cirian*, 1r *frutias*, 1r *ostian*, 1r *ciriala*, 1v *arimia* eta abar), eta besteak beste berrikuntza hau hain indartsu agertzeak pentsarazten dit testua 1750az geroztikoa dela. Hori berresten dute Txakartegi mutrikuarraren datuek: 4 *beriala*; 1 *bidian*, 2 *trabajacia*, 5 *respuestiaren*.

Zumaldek argitaratutako Bergarako mende amaierako udal-aginduan ere sistematikoa da aldaketa, nahiz eta kokapenaren aldetik arazotsutzat jo izan den (Zuazo 2006a: 1006).

4.5.2.2.4.2. Urola ibaiaren inguruetan berantiarak dira $e \rightarrow i / _V$ bilakabidearen lehenengo lekukotasunak; zehazki, ez dut adibiderik aurkitu testu labur arkaikoetan, 1614ko *Sumario breve*-an, Errezilgo 1622ko gutunetan eta Azpeitiko 1740ko gutunetan. Testu landuagoen artean ere ez dago: beharbada ez zen guztiz hedatua eta zabaldua, baina sinesgarriagoa begitantzen zait pentsatzea orduko idazleek (batzuek behintzat) forma zaharragoaren alde egin zutela. Batera nahiz bestera, ez dut adibiderik aurkitu Larramendiren Azkoitiko sermoian (-ia emaitzak *HH*-an dituen gorabeheraz, begiratu Urgell 2000a: §8.5.2.1), Loiolako dotrinan eta Oikiakoan.

Peñafloridaren lanen eta *Grand tour* antzerki-piezaren artean bi hizkera-eredu bereizten dira, alde handia baitago idazle batek eta besteak egindako hautuen artean,

nahiz eta biak leku berekoak izan. Hain zuzen ere, testu bi horien eta besteren baten (cf. Azpeitiko 1786ko udal-ordenantza) artean dagoen aldea idazleek unean-unean egindako hautuen zordun bide dira, eta horrekin lotu behar da Urola aldeko 1750az geroztiko idazle batzuen testuetan $e \rightarrow i / _V$ berrikuntza ez agertzea. Peñafloredaren lanei dagokienez, *ea* gisako hiatoak dira arruntenak, baina inoiz edo behin bestelako aldaeraren batek “ihes egin” zion idazleari; cf. *El borracho burlado*-ko 17 *bearrian* ‘beharrean, lanean’.

Esan legez, Peñafloredak bere obrak eman zituen garai bertsean idatzi zen *Grand tour* obra, eta horretan indar bizia du berrikuntzak, beste erregela fonologiko batzuek bezala. Hona hemen lehenengo bi orrialdeetako adibide sorta bat: 2r *andria*, *semien*, *abadiarequin*, *bitartian*; 2v *icustia*, *andriac*, *igozia*, *andria*.

Mendearen akaburantz, Azpeitiko 1786ko udal-aginduak berresten du aldaketaren indarra inguru hartan, gerora ezagutu denarekin bat: 1 *bostian*, 10 *igandiac*, 13 & 54 *bitartian*, 15 & 18 & 55 *artian*, 43 *sucedicen danian*, 43 *corpuzian*, 49 *atian* (aparte aipatzekoa da 6 & 59 *biar*, goranzko diptongoa egon daitekeelako).

4.5.2.2.4.3. Goierriko testuek (1705eko Gabon-kanta, Otxoa Arinen liburua eta Zegamako dotrina begiratu ditut) ez dakarte erdiko bokalaren igotzearen adibiderik, inguru hartan gerora ere $-eV$ zaharragoari eutsi zaiola aintzat hartuta espero zitekeenarekin bat.

4.5.2.2.5. Gipuzkoako erdi-ekialdeko testuak

Nahiz eta XIX. mendeko antzerkilari eta bertseolarien testuetan ohikoa izan, $e \rightarrow i / _V$ berrikuntza ez da ohikoa Donostia aldeko XVIII. mendeko testuetan. Ez dut adibiderik aurkitu ez Lubietaren lanean (1728), ez Pepe donostiarraren eta Josefa altzarraren arteko gutunerian (1761). Donostiatik ezker, aldiz, Lasarteko 1716ko bertso-sortak 11 *esquadrian* eta 16 & 39 *sucaldian* dakartza. Beterri eta Tolosaldeako iturri kopuruz eskasek aldaera zaharra besterik ez dakarte: Larramendiren euskarazko izkribuek, Irazutaren 1739ko liburuak eta Berastegiko 1763ko errezetak. Aitzitik, Etxegarai donostiarraren bertso-sortetan (1813-1855; cf. Zavala 1964) arrunki agertzen da aldaketa: *fuertiagoric*, *zutenian*, *batian*, *lanian*, *dutenian*, *geranian* eta abar. Mendearen bigarren erdiko bertso-sorta bi aipatzearen, *batian*, *giñanian*, *coloriac* agertzen dira Bilintxen “Ja-jai!”-n, eta *biyotzian*, *tristiago*, *biar* ‘behar’, *nerian*, aurrian *nay bagia zein detanian* “Biyotz erituba”-n.

Gipuzkoako ipar-ekialdeko testu zaharren artean (1750era artekoetan) ez dut berrikuntzaren alerik aurkitu. XVI-XVII. mendeetako testuetan, Isastiren 45 *Ychian oguia ezin jan, eta Arangurenen artoa* errefracuan ikus liteke bokal-igotzerik, baina hitzaren hasierako *e > i* itxiduraren ondotik asimilazioa gertatu zela ere proposa daiteke. Aitzitik, Gipuzkoako mendebaleko ibarretan gertatzen denaren antzeratsu, ipar-ekialdean ezaugarria arrunt xamarra da XVIII. mendearen azken hamarkadetako testuetan. Hondarribiko 1778ko prediku batean (Letamendia & Sagarzazu 1992: 503) agertzen da, baita Irungo XIX. mende hasierako platiketan ere (Ondarra 1987: 290), nahiz eta Irungo 1854ko erlijio-testu batean (*ETZ* 240) *-ea* eta *-ia* tartekatzen diren.

Lapurdiko kostaldean XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik lekutzen da hizpide dudan ezaugarria; besteak beste, Donibane Lohizuneko alkatearen gutun batean (*ETZ* 168) zein Le Dauphin itsasontziko gutunerian (Padilla-Moyano 2015: 168), baina ez Urruña eta Hondarribia arteko gutun zaharragoetan (*ConTAV* 168).

4.5.2.2.6. Nafarroako lekukotasunez, labur

Sakana aldeko testu zaharrenetan (XVII. mendearen hasiera) berrikuntzaren alerik ez dagoen arren, ematen du Nafarroako beste hizkeraren bat(zuk) berritzaileagoa(k) z(ir)ela; izan ere, Elizalderen eta haren izebaren arteko gutunetan (XVII. mendearen amaiera) *beriala* eta *ateriala* bezalakoak daude, *bereala* aldaera zaharragoa ere dokumentatu arren (Reguero 2017: 549). Ezagutzen diren Nafarroako gainerako lekukotasunak 1750az geroztikoak dira, eta horien artean interes berezia du, nire ustez, Urritzolako olerkiak. Izan ere, Reguerok (*idem*, 755) ikusi bezala, zenbaitetan (zehazki, lehenengo eta zortzigarren ahapaldietan) *-ea-k* eta *-ia-k* puntua egiten dute. Honako hauek dira lehenengo ahapaldikoak (letra etzana nirea da [EZ]):

Norc siñesta lezaque,

ezpaliz *fedea*,

gaurco misterio

marabilles *betea?*

Jaune, zu izanic

guzion *javia*,

zaude orrela umillaturic

Beste hauek zortzigarren ahapaldikoak dira (letra etzana nirea da [EZ]):

Au bai pasioa

dolores *vetea*

bañe cariñoa

gaiñiquen *gavia!*

Zure oficioa

da ongui *eguitia*

Jesus gure amantia.

4.5.2.3. Erdiko bokalak igotzea: $o \rightarrow u / _V$

4.5.2.3.1. Ezaugarriaren deskripzioa

Mitxelenak zioenez (*FHV* 107), lurralde batzuetan ohikoa da amaieran *-o* eta *-u* duten hitzen deklinabide mugatua nahastea, *bero* & *berua* eta *zeru* & *zerua* bikoteek erakusten dutenez. Horrekin lotuta dago, gainera, mailegu erromanikoen azken bokala euskaraz *-o* edo *-u* izan ahal izatea, hitza noiz mailegatu zen: oro har onartzen da zaharrenek *-u* dutela, eta berriagoek *-o* (Mitxelena 1974: 314; cf. orobat Lakarra 2012: 51 eta, Bizkai sartaldeko aldaerez, Irigoien 1984).

Nahaste edo gorabehera horiek irakurketa okerrak eragin ditzakete testuetan $o \rightarrow u / _ V$ bilakabidearen inguruko bilaketak egitean: inork arau hori ikus lezake, lehen begi-kolpean, Lazarragaren A1:10 *canpuaren* irakurtzean, nahiz eta amaieran *-u*-rekin egokitutako mailegua den, ez bokal-igotzearen ondorio (*OEH*, s.v. *kanpo*).²²⁴ Horiek aintzat hartuta, hona ekarritako adibideetan saihestu egingo ditut zalantza eragin dezaketen maileguak. Zehazki, testu batean bilakabidea betetzen dela baieztatzeko, zurrun jokatuko dut, iragazki edo baldintza legez jarrita berrikuntza ondare zaharreko hitzetan eta euskal morfemetan betetzea, eta ez mailegu modernoetan bakarrik.

Bestalde, ezaugarri honi dagokionez hainbatetan egiten ez den bereizketa bat egin behar da, ikuspegi diakronikotik bederen: testu edo hizkera jakin batean $o \rightarrow u / _ V$ bilakabidea deskribatzean, oso ohikoa da morfema-mugan (eta, gehien-gehienetan, erroei artikulua definitua eranstea) agertzen diren adibideak aipatzea (*astoa* \rightarrow *astua*, *basoa* \rightarrow *basua* eta abar) eta horiekin batera nahasirik ematea adizkiei dagozkien

²²⁴ Toponimian ere antzeko kasuak aurki daitezke, nahiz eta latinetikoak ez izan zuzenean: “Latinetik atera izan balitz *portelu(a)* izanen litzateke; *cfr.* Iruña Okako *Portelu* (1574, Fernandez de Palomares, 2007: 191). Egia da *-oa* > *-ua* gertatu zela pentsa daitekeela, baina datuak ikusirik ez zait iruditzen hala den. Uxuetik irten gabe, *Castillu* dugu zenbait aldiz, bestetako eta egugo *Castillo*-ren partes, behin *Gaztelu* gisa ere ageri dena (*Gazteluondoa*, *Gaztelondoa* alderditik urrun dago *Castillo* - *Castillu* - *Gaztelu* hau).

Arabako hegoaldeko muga (Salaberri, 1998), Ameskoa - Lana - Allin aldean ere bada: *Goico portillua* (Biloria, 1686), *Bidarmingo portillua* (*Bidarmin* aurkintza, San Martin Ameskoa, 1688), *Portilua* eta *Portillua* (Galbarra, 1689 eta 1693), *Portilua* (Lokiz, 1694), *Errecara portillua* (Eultz, 1726)... Aintzat har bedi, baita ere, beste alderdi batzuetan *portillo* dagoela” (Salaberri Zaratiegi 2018: 246).

adibideak (*joan* → *juan*, *eroan* → *eruan*). Lehen begi-kolpean emaitza berdina da, baina jatorria eta bilakabidea ez dira berberak, testuek eurek erakusten dutenez.

Jauregiren (2007: 278) azalpenei jarraituta, adizki horietan erdiko atzeko bokalak, silabagiletasuna galdua, irristari bihurtzen dira, jatorrian hiatoan zeuden bi bokalak silaba bakarrean ahoskatuta (beraz, ez dugu *jo.an* edo *ju.an*, ezpada *jwan*). Goranzko diptongoek euskaraz dituzten mugez aritzean, Erreterian adizki hori eta *eguerdi* eta *eguberri* hitzak aipatu zituen Mitxelenak: “En Rentería, p. ej., se dice usualmente *suerte y entiarro*, pero *egwardi* ‘mediodía’, *egwarri* ‘navidad’, de *eguerdi*, *-berri*; en la conjugación del verbo ‘ir’ (*jwan* o *jun*), (*ba*)*guaz* ‘(ya) vamos’, pero *gwazen* ‘vayamos, vámonos’ (FHV 137-138).

Ikuspegi historikotik eta fenomeno bakoitzaren kronologia fidagarria lortzeko ezinbestekoa da bereizketa horiek egitea. Emaitza berdina sortzen duten baina jatorri bereko ez diren bi bilakabideak nahasten badira, esate baterako, Euskal Herriko mendebalean bilakabidearen XVI. mendeko adibideak izango genituzke: cf. Sasiolaren B27:1 *Eliçara juen oy naiz* zein Landucciren hiztegiko *anteçeder - aurrera juan*; aitzitik, gerora aipatuko dudanez, hiatoetako $o \rightarrow u / _ V$ bilakabidea ez da XVIII. mendera arte ugaritzen Mendebalean. Antzeko arazoa/egoera aurkitu dut Nafarroako testuetan: Arreko kopletan (1612) dakusa Reguerok (2017: 229) *oa > ua* formulatzen duen bilakabidearen lekukotasun zaharrena (*duaye* aipatuta) eta, horri loturik, zenbait hamarkada geroagoko (mende amaierako?) Elizalderen eta haren izebaren arteko gutunetako *arzequa*, *preziyua* eta *astuaren* aipatzen ditu. Aitzitik, esandakoari jarraikiz, batzuk eta bestetzuk ez dira fenomeno beraren ondorio.

Ikuspegi honen sendogarri da, halaber eta batez ere Mendebalaz ari naizela, Bizkai osoan edo gehienez *egon*-en adizkietan bokal arteko kontsonantea galdu ondoren sortu diren formak, hala nola *dawela* ‘dagoela’. Izan ere, Bizkai osoan erabiltzen da, baita hiatoan $o \rightarrow u / _ V$ gertatu ez den hizkeretan ere.

4.5.2.3.2. Mendebaleko lehenengo lekukotasunak

Mendebaleko testu zaharrenen artean *Perutxoren kanta* delakoan adibide bat aurkitu dut hiatoan. Zehazki, honako hau dio lehenengo ahapaldiak: 1-6 *Lelo lirelo çarayleroba / yaçoeguiá ninçan / aurten erua / ay joat gauiraya / astor vsua / lelo lirelo çarayleroba*. Irakurketa ziurra da eta pentsa liteke *erua* - *vsua* errimak baldintza zezakeela *erua* hori, baina, nahiz eta mendebaleko garai hartako adibide bakarra izango

litzatekeen, hizpide dudan berrikuntzaren lehenengo adibidea izan daiteke Euskal Herriko sartaldean.

Kantabriarren kanta gorabeheratsuaz emandako ikuspegiak ez datoz beti bat. Mitxelenak *-oa/-ua* errima ikusi zuen: “*guexoa* se ajusta a la cuenta excepcionalmente, pero viene luego un *galdua* transparente que no se ajusta a la rima” (1986: 238). Aitzitik, Arriolabengoak *-oa/-oa* ematen du, zalantzarik gabe:

Errimari erreparatuta, Mitxelenak eta bestek *-ua* eta *-oa* tartekatzen zirela uste izan bazuten ere, gu ziur gaude egileak beti eutsi ziola *-oa* errimari, batzuetan ulergarritasunaren kaltetan eta hizkuntza forma zuzenak desitxuratuta, baina horrek ez zion egileari axola, are gehiago, zenbat eta desitxuratuago hainbat hobe, zahar itxura handiagoa hartuko baitzuen. (Arriolabengoa 2008: 66)

4.5.2.3.3. Bizkaiko testuak

Bizkaiko testuei helduta, XVII. mendearen amaieran BertsBizk sortan <oa> gordetzen da hiato gehienetan (3-6 *gurasoari*, 4-4 *versoan*, 5-3 *dinoan*, 5-6 *decretoa*);²²⁵ aitzitik, hogeita hamabigarren ahapaldiak ahoskerari eta idazkera-hautuei buruzko informazio interesgarria ematen du:

Al fin placentinoa
Lequeitioco astoa
zegaiti deusazu eguin
ain pasage gueistoa?
Ez eroan ac gañean
Balan profeta falsua
espa lebaz frescoa.

Lakarrak (1984a: 133-134) ez zuen *-ua/-oa* puntua zuzendu, eta horren kariatara gogorarazi zuen puntu horiek ez direla ezezagunak euskal testuetan, Barrutiak ere badituelako, *-ea / -ia* bikotea duen era berean eta Urkizuren 1740ko kopletan gertatzen den legez. BertsBizk sortako ahapaldi horretako puntuek erakutsiko lukete, beraz, idazleak (edo kopiagileak) gehienetan idatzitako *-oa* egiazki *-ua* ahoskatzen zela Bizkai sartaldeko hizkeraren batean XVII. mendearen amaieran, eta kasu honetan ere argi ikusten da idazkera gordetzaileago ageri dela ahozko jarduna baino.

²²⁵ Adizkietan, bestalde, BertsBizk 19-7 *juan* eta 24-6 *juaterren* agertzen dira, 26-5 *joango*-rekin batera (*eroan*-en adizkietan ez dago [wa]-rik: 28-1 *eroateco*). Aurretik azaldu bezala, dena den, beste fenomeno bat dago forma horietan.

XVIII. mendean aurrera egin ahala $o \rightarrow u / _ V$ berrikuntzaren adibideak ez dira beste fenomeno batzuenak bezain ugariak Bizkaian, nahiz eta han-hemenka banaka batzuk agertu.

Arzadunen testua gordetzaile da: adibide bakar bat ere ez dakar. Halaber, haren garaikide Urkizu durangarraren 1737ko liburuan, adizkietako goranzko diptongotzat jo daitekeenez gain (8 & 55 *eruan*, 16 *dagualaco*, 24 & 40 & 44 *juan*, 25 *zinuazán*, 54 *eruan ebanena*, 55) 81 *dolorosuac* besterik ez dut aurkitu: pentsa liteke, bere bakantasunean, maileguaren egokitzapenaren ondorio dela, baina liburuan sistematikoki (5 aldiz) aurkitu dut *doloroso*, eta aintzat hartzekoa da 81 *dolorosuac* hori liburuaren amaierako kopletan ageri dela, non fonetismo batzuek liburuko aurreko ataletan ez duten lekua baitute. Adibidea bakana da, baina ez da akatsa: Urkizuk erabaki zuen hor ematea.

Urkizuren beraren 1740ko kopletan ez dago hizpide dudan ezaugarriaren adibide bakar bat ere: 5 *devociñoac*, 46 *devoziñoa*, 48 *peticiñoa*, 64 *consueloa*. Neurri batean espero izatekoa zen, beste zenbait ezaugarri aztertzean ikus daitekenez koplak sorta horretako hizkera-eredua jasoagoa edo orokorragoa baita.

Durango aldetik irten barik, Elorrioko ziri-bertsoetan ez dago igotzerik hiatuetan: 1 *nua* eta 14 *enua* daude adizkietan, eta 11 *errazua* ere badago, baina Mendebaleko aldaera lexiko modernoa da (Oñatiko eskuizkribuan, fr. Bartolomeren eta Astarloaren lanetan lekutzen du *OEH*-k; s.v. *arrazoi*).

XIX. mendea baino lehen, Bizkaiko ipar-ekialdean ageri da berrikuntza inon baino indartsuago; zehazki, Apoitaren bederatziruarenean araua urratzen duen salbuespen bakarra aurkitu dut (6-8 *osoagaz*; aurka ditu gainerakoak, beraz: 1 *Jaungoicua*, 1 *Aingueruzcua*, 5 *Ceruracua*, 8 *andicua* eta abar).

Hego-ekialdean, Iturrizak moldatutako Andramendiko idazkietan ere badago adibide bakanen bat, hala nola 2-2 *Jaungoicuaren*. Abadiñoako 1804ko Gabon-kantan parekoa da egoera: testuinguru aproposak urriak izan arren, 3-2 *ozuaren*, 3-6 *gozuetan* agertzen dira.

Mundakako itsasadarretik hurbileko herrietan zer gertatu zen ikustea interesgarri litzateke fenomenoaren hedatze-prozesua hobeto ezagutzeko, baina iturri zahar gutxi daude eremu hori aztertzeko. Aurretik esan bezala, ez dago $o \rightarrow u / _ V$ bilakabiderik XVII. mendeko testuetan (Sorg1616 eta Andram), eta XVIII.ean Gandarak *o*-ri eutsi zion 1768ra arteko lanetan. “Ardaoaren ganian” izeneko sortan eta 1768ko bertako zortzikoan *-o* besterik ez dago, baina azken testu horretan 5-2 *igelescua* irakurri zuen

Ensunzak (2013: 11). Are gehiago, irakurketa hori oinarri hartuta, ezaugarria Gernika abiapuntu harturik birkokatu zela iradoki zuen (hots, Gernikan zegoena beste norabait hedatu eta Gernikan bertan desagertu egin zela). Aitzitik, irakurketa-akatsa da Ensunzarena, hala Kaltzakortaren edizioak (1999: 152) nola Gandararen eskuizkribuak²²⁶ *igues lecu*a baitakarte, ez *igelescua*. Bestalde, testu bereko *anparua o.a > u.a* aldaketaren barnean aipatzen du Ensunzak, baina amaierako bokala maileguaren egokitzapenaren ondorio bide da. GernikaGK-k, Gernika aldeko gaur egungo euskarak legetxez, *-oV* besterik ez du.

Apur bat iparralderago, De la Quadrak *-oV*-ri eutsi zion sistematikoki aditzez kanpoko hiatoetan (Bilbao 1997: 256), hala nola amaieran *-o* duten hitzei mugatzaile definitua eranstea (1 *cerucoa*, 2 *tentacinoan*, 2 *Jangoicoaren*, 2 *Cristoaren*, 3 *poderosoagan* eta abar).²²⁷

Errosariyo santuba liburuan parekoa da egoera; zehazki, *eroan > eruan* sistematikoa dela ematen du (29 & 38 & 61 & 64 & 75 & 78 *eruan*, 46 & 55 *eruatena*, 62 & 72 *eruateco* eta abar). Testuinguru horretatik kanpo *o.a* mantentzen da: 1 *Coroa*, 1 *misterioac*, 1 *dolorosoac*, 1 *gozozoac*, 1 *gloriosoac*, 1 *caridadecoac*, 3 *andicoa* eta abar.

Orain arte aipatzeke utzi ditut Bizkaiko mendebaleko lekukotasunak, gerora ezagutu dudana egoeraren arabera berrikuntza ez delako hara zabaldu (Zuloaga inprimategian-1). Hain zuzen ere, ez dago alerik VJesus eta Mikol zaharretan, ez eta OrozOtoi eta ZolloGald modernoagoetan ere.

Sarriaren sermoi batzuetan badago bokal-igotzea, baina egoerak badu bestelako azalbiderik eta ez zaio Etxebarriko euskarari egotzi behar. Etxebarrikoak *-o* gorde zuen sorterriko hizkeratik hurbileko hizkera-ereduan aritu zenean (18 *contracoa*, 18 *estaducoa*, 18 *salescoac*, 18 *Florenciacoac*, 18 *charrecoac*, 18 *osoac*, 18 *besoac* eta abar); aitzitik, sermoi batzuetan gutxitan, baina beste batzuetan ia sistematikoki betetzen

²²⁶ Hona hemen Kaltzakortaren (1999: 186) lanetik ateratako irudia:



²²⁷ Aditzetan, berriz, *o.a* gorde duten eta itxuraz [wa] izan dezaketen formak txandakatzen dira. Hona hemen “Doctrina christinaubarena” ataletik bildutakoak, aditzen arabera eta dagozkien salbuespenekin batera aurkeztuta (“ohiko” *joan*-ez eta *eroan*-ez gain, *egon*-enak ere ematen ditut, hain dira ugariak):

Eroan: 6 *eruatia*, 10 & 15 & 108 *eruan*, 12 *eruanac*, 16 *eruatian*; baina 56 (birritan) *eroatia*, 78 *daroana*.
Joan: 9 & 77 & 80 & 90 & 99 & 118 *juan*, 9 & 18 18 *guazanian*, 28 *juaten*, 32 *guazan*, 77 *duaz*; baina 58 (birritan) & 66 & 91 *doan*.

Egon: 12 & 13 *daguan*, 12 & 77 *daguan*, 28 *eguan*, 51 (birritan) *eztaguan*, 78 *daguala*; baina 4 & 29 & 37 & 64 & 97 *dagoala*, 20 & 33 & 96 & 108 *dagoalaco*, 31 & 34 & 45 (birritan) & 67 & 68 & 76 *dagoana*, 45 *dagoanen*, 45 *dagoanagaz*, 37 *egoanian*, 37 & 50 *egoan*, 64 *dagoanian*, 78 & 85 & 95 & 104 *dagoan*, 91 *dagoanac*, 99 *doan*, 109 *nagoala*, 112 *dagoanari*, 113 *dagoana*.

da aztergai dudan aldaketa: 25 *benetacuac*, 29 *asmuen*, 34 *Jangoicua*, 34 *lenengua*, 35 *beinguan*, 35 *anchinacua*. Halakoetan Astarloaren irizpideei jarraikiz aritu zela proposatu izan dut azken urteotan (Zuloaga 2010: 432, 2016 eta hemengo §5.3.3.2.3.2). Beste alde batetik, adizkiei dagokienez, interesgarri da aipatzea [wa] diptongoa ugaritu egiten dela Sarria Etxebarriko euskaratik urruntzen den heinean, 29 *juango*, 34 *eguan*, 34 *zuaze* eta bestelakoak erabiliaz. Joera interesgarria dela diot, Nerbioi ibarraren iparraldean *yoan* & *dxoan* gorde direlako, lehenbiziko bokala irristari bihurtu gabe, nahiz eta *egon*-en adizkietan [aw] aurkitu.

Bulda-n indartsu agertzen da $o \rightarrow u / _ V$ bilakabidea (hamalau aldiz *ua* eta bi aldiz *oa*):²²⁸

- (i) Hiatoetakoak: 1 *Erromacuac*, 4 *lenengua*, 5 *espacijuan*, 13 *precetocua*, 17 *parcacinua*, 19 *obligacinocuac*, 20 *catolicuen*, 35 *jurisdicinocuac*, 49 *purgatorijuan*, 54 *compocizinocua*, 64 *ostuscuagas*.
- (ii) Salbuespenak: 13 *mi[ni]sterijoan*, 19 *Jaungoicoari*.

4.5.2.3.4. Arabako eta Sakanako testuak

Arabako XVI-XVIII. mendeen arteko testuen artean Landucciren hiztegiko hitz gutxi batzuetan besterik ez ditut aurkitu bestelako azalpenik ezean $o \rightarrow u / _ V$ bilakabidearen adibidetzat jo litezkeenak, baina banan-banan aztertuta, bestelako azalpena dutelakoan nago: Land *boca* - *agua*, *boca de estomago* - *vrdbilan agua* eta *boquear* - *agua yregui* daude *aho*-ri lotuta, baina horietan ere goranzko diptongoa dagoela pentsa daiteke, gaur egungo hizkera batzuetan deskribatu denarekin bat: cf. “[ágwa, ágwak]; oa / ua dira errealizazio arruntenak eremu osoan. Ultzaman goranzko diptongoa [wa] egiteko joera nabarmena da azentu paroxitonoa nagusia izanik” (Ibarra 1995: 579). Bestalde, *lino* - *liua* ziur asko mailegu-egokitzapenaren ondorio besterik ez da (cf. *OEH*, s.v. *liho*), nahiz eta $-(i)o- > -(i)u-$ asimilazioaren ondorio ere izan litekeen (begiratu Ulibarri 2008: §3.2.3). Aurrekoen landara Land *conçejo* - *conçejua*, (B) *auçua* geratzen da; baina, hain kasu bakana izanik, uste dut egokiagoa dela aurreko bokal itxiak eragindako asimilazioa dela pentsatzea; hartara, ez legoke $o \rightarrow u / _ V$ -ren adibiderik Landuccirenean.

Bestalde, bereiz sailkatzeak dira adizkietan hiato \rightarrow goranzko diptongo bihurtutako kasuak, nahiz eta ugariak ez izan. Landucciren hiztegiko *juan* & *juen* adizkiez landara, Martínez de Ochoaren Gabon-kantan (cf. 13 *Xaun Goicoa* eta 46

²²⁸ Berriz ere, bereiztekoak dira adizkietakoak: 11 *duasan*, 11 *duazan*, 55 *eruanac*

mandoa, baina 16 *guacen*) Arabako ekialdeko XVIII. mendeko testuetan aurkitu dituzten horien parekoak: Gamizen “Euscaraz gaiztoetan” testuko 14-2 *juango* (baina 8-1 *joango*) eta Garcia Albenizen 168 *nua*.

Ez dut bokal-igotzerik ikusi Poza, Betol, IacobGeb, MSiculo, Mendieta zein UrduñHiz testu zaharretan, ez eta DotrSerm modernoagoan eta XIX. mendeko Laudioko dotrinetan ere.

Nafarroa/Araba arteko mugan kokatu izan diren testuei dagokienez, lekukotasun zahar luzeenetan (Portal, Sevilla1619, Iturbe) ez dut berrikuntzaren adibiderik aurkitu, baina Sakanako lekukotasun modernoagoetan badaude hiatoetako adibideak; esate baterako, Aralarko sermoietan (1833) arrunt dira 1 *Jaungoicua*, 4 *Jaungoicuaren*, 5 *Jaungoicuarequin*, 25 *cualidadetacua* eta 26 *nola naiscua* bezalakoak.

4.5.2.3.5. Gipuzkoako testuak

4.5.2.3.5.1. Bizkaitik eskuin, Deba ibarreko testu gutxitan agertzen da $o \rightarrow u / _V$ berrikuntza XVIII. mendea baino lehen: forma zaharra agertzen da Garibairen erretrauetan eta historia-lanetan bildutako kantuetan, eta Debako Ana Urrutiren gutunean. Arrasateko 1682ko ahapaldian eta Irure elgoibartarraren bertsoetan ez dago testuinguru aproposik aldaketa gertatua zenetz ikusteko. Halaber, XVII. mendearen bigarren erdikoa edo amaierakoa da Amilletaren dotrina, eta behin ere ez dago bokal-igotzea.

Oro har, erdiko bokalari eusteko joera horrek bere horretan jarraitzen du XVIII. mendearen hasierako testuetan: hala ageri da Arrasateko bandoan eta 1708ko sermoian. Orduko testuen artean, aldiz, berritzaile ageri da Barrutia: nahiz eta 65 bat adibidetan erdiko bokala mantendu, kasuren batean bete egiten da berrikuntza hiatoan: 18 *zerucua*, 184 *munducua*, 185 *santuagua*, 342 *linduan*.²²⁹

Aramaioarraren testua interesgarria da ezaugarri hau ikertzeko, adibideak gutxi izan arren errimek ahoskeraren eta idazkeraren arteko ezberdintasuna islatzen dutelako; funtsean, honako adibide hauetan ikus daitekeenez, *-oa* eta *-ua* puntuak loturik ageri dira, eta, *Bertso bizkaitar*-ez zein Urkizuren 1740ko sortez aritzean esandakoaren bidetik, kasu horretan ere idazkera kontserbatzaile ageri delakoan nago; hots, benetan *-ua* ahoskatzen zena idatziz *-oa* eman zelakoan. Hona hemen adibideok (184-185 eta 313-314 bertso-lerroak dagozkie hurrenez hurren): 184-185 *An dago agura bat ez munducua*, / *gura neuquean baño santuagoa* / *ay ni mila uider desdichadua*; 313-314

²²⁹ Horiez kanpo, adizkietako formak daude: 63 *juatia*, 98 *xuatea*, 154 *guazen* (92 –birritan– *goazen*), 231 & 319 *juango*; 182 *daguala* (baina 222 *ezegoala*, 336 *ezaodela*); 437 *eruan* (baina 248 *eroan*).

Cantore asco arquizen dira Jerusalengo templuan, / musica dulzeagoa dago angeru onen aoan (Lakarra 1984a: 133-134ko oharra aintzat hartuta).

Deba ibarreko 1750az geroztiko testuren batean bestelako indarra du berrikuntzak. Eibarko 1685eko eta 1721eko koplak-sortetan ez dut bokal-igotzearen adibiderik aurkitu, baina mendearen erdialdeko udal-aginduak araurik gabeko salbuespen bakarra du (13 *camaracoaren*) hainbat adibideren aurka: 1 *ydalgua*, 2 *jurisdiccinuan*, 3 *ordinarichua*, 4 *elecinoa*, 11 *tabacuac*, 12 *tabacua*, 12 *Franciacua*, 13 *municipalettacua* eta abar.

IsSagEsp testuak ez dauka data zehatzik eta XVIII-XIX. mendeetakotzat jo dut corpusaz aritzean (§3.4.2.3.3), baina hizpide dudan berrikuntzari dagokionez gordetzaile agertzen da: hogeita hamazazpi aldiz aurkitu dut erdiko bokala aldatzeke, eta honako hauek aldaketarekin: 2r *eternua*, 2v *demoniuac*, 1r *matrimonyua*. Horiez landara, 2v *garuacen* ‘garamatzen’ adizkia dago.

Txakartegi mutrikuarraren XVIII. mendeko gutuntxoak 3 *correoan* ematen du hiatoan eta 3 *juan* adizkia du lerro berean. Arakistainen eranskinean, Larramendiri igorritako gutunetan eta lauko sortetan, bestalde, ez dago berrikuntzaren adibiderik, eta Itziarko Ama Birjinaren omenezko testuetan ere ez da arrunt: ez dut adibiderik aurkitu ItziarBerts, ItziarKant eta ItziarKopl sortetan, eta Aldazabalen liburutxoan ere ez dira arrunt, nahiz eta adibide bakanen batek ihes egin ziola dirudien: Aldazabal azala *Yciarcuaren* (baina 3 –birritan– *Yziarcoaren*, 3 *gustocoa*, 5 –birritan– *Jaingoicoaren*, 6 *Coroacioan*, 6 *Devotoen* eta abar).

4.5.2.3.5.2. Deba ibarretik eskuin, XVIII. mendera bitarteko testuetan ez dut bilakabidearen adibiderik aurkitu hiatoetan, eta kasu honetan ere adizkiek ez gintuzkete nahastu behar. Zehazki, *jo.an* > *jwan* aldaketa Gipuzkoa erdialdean aspaldi lekutzen da: *juango* dakar Errezilgo 1622ko hirugarren gutunak, eta *juan* Azpeitiko 1614ko *Sumario breve*-ak eta Lardizabalen 1655eko gutunak. Ekialderago, Elduaingo 1619ko bertsoetan eta Isastiren erretrauetan *joan*, *joanac*, *joanari* eta *joanda* besterik ez daude.

Urolako lekukotasun modernoago gehienetan ere ez dago berrikuntzaren adibiderik, ahozkotik hurbilago (Azpeitiko 1740ko gutunak, adibidez) zein urrunago (Loiolako eta Oikiako dotrinak, Azkoitiko sermoia) dauden testuak izan.

Ematen du garaiko idazle ezagunenek forma zaharragoa erabiltzearen aldeko hautua egin zutela. Larramendiz²³⁰ eta Peñafloidako kondeaz ari naiz bereziki; izan ere,

²³⁰ Urgellek zioenez, “inolako dudarik gabe Larramendik *-oa* / *-ua* baliokideak izan zitezkeela bazekiela, baita gazt. *-o-ri* eusk. *-u* egoki dakiokela ere, etimologietan erakusten duen bezala” (2001a: 173).

erdiko bokala gordetzen duten aldaerak erabat nagusi dira baten nahiz bestearen euskal testuetan, baina badirudi lantzean behin ihes egiten zietela tokiko hizkeran erabiltzen ziren bokal-igotzeek.

Peñafloridako kondearen *El borracho burlado*-n 35 *onduan* eta 24 *passiua* aurkitu ditut (13 *juan*, 31 *juaten* adizkiak bazter utzita). Bestalde, *Gabonsariac* lanean 17 *avan* ‘ahoa’ ageri da, baina kasu honetan ere uste dut egokiagoa dela *a.o* > *aw* proposatzea; “Copla jostalluac” atalean 32 *juanic* eta 34 *juan* adizkiak daude.

Aurrekoei *Grand tour* antzerki-lana kontrajartzen zaie, bilakabideak indar bizia baitu, XVIII. mendearen bigarren erdian Urola aldean berrikuntza indartsu zela berretsiz: 2v *onduan*, 2v *numguac*, 2v *numgua*, 3r *satisfaziua*, 3r *relaciua*, 3r *ymperijuaren* (cf. apur bat beheraxeago 3r *ymperijo*, aldaketa bermatuz), 3r *andijagua*, 3r *conversasiuac*, 3v *saviuac* eta abar. Aditzei begirata, sistematikoki aldatzen da *joan* > *jwan*, eta beste horrenbeste gertatzen da *egon*-en adizkiei *-ala* zein *-an* morfemak gehitzean (aitzitik, *eroan*-en adizki bakarrak ez du halako aldaketarik).

Azpeitiko 1786ko udal-aginduak bat egiten du *Grand tour* lanarekin, sistematikoa baita berrikuntza: 5 *onetacua*, 15-16 *devociuac*, 16 *errosarijua*, 31 *divinuac*, 31 *publicuac*, 33 *jornalecua*, 40 *Ave Mariacuac* eta abar.

Goierriko testu zaharretan ez dut berrikuntzaren alerik aurkitu hiatoetan. Aitzitik, hiato zirenak goranzko diptongo bihurtuta ageri dira *joan*-en adizkietan; cf. Otxoa Arinen (1713) [viii] *juateco*, 38 *juango*, 41 *juan*, 100 *juatea*... (baina, 66 *joan*, 72 *dijoan*, 98 *dijoaz*, 100 *djoanari*, 134 *djoacan* eta abar) eta Zegamako dotrinako (1741) 32v *juaten diradena*, 33r *juaten diradena* eta 33r *juan ciradena* (baina 14v *djoanean* eta 66r *dixoaz*).

4.5.2.3.5.3. Donostiako XVIII. mendeko testuetan Goierriko egoera bera ageri da; alegia, adizkietako hiato → goranzko diptongo bilakabidea besterik ez dut aurkitu (eta, kasu honetan ere, *joan*-i loturik): Lubietaren lanean (1728) *guacen*, *guacenean* eta *juan* daude, baina ugariagoak dira itxuraz behintzat jatorrizko hiatoari eutsi diotenak: *dixoa*, *noa*, *banoa*, *joatea*, *dixoasenean*, *joango*, *joan* eta abar.

Pepe eta Josefaren arteko gutunerian (1761) ere sistematikoki ageri da goranzko diptongoa *joan*-en adizkietan (2 & 5 *juateco*, 2 *juango*, 3 *juatea*, 4 & 6 & 8 –birritan– *juan*), eta goranzko diptongoaren “aldeko” azalpenak berdin balio du 6 *Juaquiñec* izen propioa azaltzeko.

Horrekin loturik, begiratu *OEH*-k alde batetik (s.v. *aizto*) eta Urgellek berak (2001a: 174) beste alde batetik *HH*-ko *aiztua*-ren oinarriaz egiten duten irakurketa (*aiztu* vs *aizto*, hurrenez hurren).

Donostiatik hur, Lasarteko 1716ko bertso idatzietan ez dago $o \rightarrow u / _ V$ -ren adibiderik, eta Larramendiren euskal lanetan adizkietako goranzko diptongoan ageri dira, hala nola San Agustin eguneko sermoiaren bigarren zatiko *juango*. Nago sermoi horren lehenbiziko zatiko *eguaren* ‘hego haizearen’ ere ez ote den [egwaren] irakurri behar.

Hegoalderago, Irazustaren dotrinak (1739) eta Berastegiko errezetak (1763) ez dute bokal-igotzerik, ezta $o.a > wa$ bilakabidearen adibiderik ere.

Donostia zein Beterri aldean berrikuntzaren adibiderik ez aurkitzeak berrikuntza inguru hartako testuetan berankorra izan zela erakusten du; gutxienez, XVIII. mendearen bigarren erdiaz geroztikoa, Donostia aldeko XIX. mendeko antzerkigileen lanetan zein bertso idatzietan indar bizia baitzuen bilakabideak: *bueltakuan*, *amoriyuaz*, *mayorazkua*, *adoraziyua*, *txalekua*, *ortztxuak* eta beste hainbat adibide aurkitu ditut Etxegarairen 1813-1855 bitarteko bertsoetan (Zabala 1964). Hamarkada gutxiren buruan, halaber, sistematikoki agertzen dira: Bilintxen “Izazu nitaz kupira” sortakoak dira *onduan*, *neguen*, *Amoriyuac*, *dijua* zein *sumua*, adibidez.

4.5.2.3.5.4. Donostia, Beterri eta Tolosatik eskuin geratzen den Erdialde zabaleko eremu batzuetan arruntak dira bokal-igotzeak 1750az geroztik; esate baterako, Gipuzkoako ipar-ekialdea eta Lapurdiko kostaldeko idazki ez literarioak lotzen ditu hizpide dudan berrikuntzak (Zuloaga & Duhalde 2019): Hondarribiko 1778ko predikuan erabat nagusi dira bilakabidea duten aldaerak (% 86,6 vs % 13,4 *apud* Letamendia & Sagarzazu 1992: 507). Le Dauphin itsasontziko gutunerian (Padilla-Moyano 2015: 176) eta Donibane Lohizunetik 1788an igorritakoan (*ETZ* 168), nahiz eta Urruña eta Hondarribia arteko 1680ko gutunetan alerik ez agertu (*ConTAV* 132).

Nafarroa dela eta, atal honen sarreran goranzko diptongoez azaldutakoak azalduta, ez dut uste hiatotako $o \rightarrow u / _ V$ bilakabidearen lehenbiziko adibideak Reguerok (2017: 549) aipatutako Arreko 1612ko kopletaoak direnik (*duaye* agertzen da; bide batez, koplén beste bertsio batek *doaye* dakar). Reguerok orrialde horretan bertan aipatzen dituen XVII. mendearen amaierako Miguel Elizalderen eta bere izebaren arteko gutunetako *arzequa*, *preziyua* eta *astuaren* dira lehenbizikoak.

4.5.2.4. Laburpena bokal-igotzeez

4.5.2.4.1. Erdiko bokalaren igoeren lehenengo lekukotasunak bakan, isolatuta eta aldaketa indartsu agertzen den testu eta garaietatik urrun agertzen dira Euskal

Herriko mendebalean. Gainera, hedatzen eta ugaritzen diren sasoian, agerikoa da zenbait idazlek aldaketa ostentzeko eginiko ahalegina.

Bi bokal igotzeen artean $e \rightarrow i$ -ren lehenengo lekukotasuna zein den argitzea da gaitzena: Manterolaren (2015: 199) irakurketarekin bat, Erdi Aroko *Havaunzia* litzateke lehenengoa, baina kronologiaren ikuspegitik arazotsua da, oso, zaila baita azaltzen nolatan ez den pareko bokal-igotzerik agertzen Arabako XVI. mendeko testuetan, adibidez; hots, nolatan dagoen sei mendeko *hiatus* bat Erdi Aroko aldaera horretatik Arabako testuetako hurrengo lekukotasunetara. Beharbada ez litzateke baztertu behar akatsa izatea, edo $ea > eja$ -rekin lotura izatea.

Aurrekoa ez da kronologikoki isolatuta agertzen den adibide bakarra mendebalean: Euskara Arkaikoan gogoratzekoak dira Sasiolaren *dirian* eta IbarGC kronikako *gabyan*, egiazki ‘gauean’ esan nahi badu (ez dut besterik aurkitu 1600 aurreko testuetan), nahiz eta horien eta hurrengo lekukotasunen artean ez dagoen mende bat baino gehiago.

$o \rightarrow u$ aldaketaren ustezko lehenengo adibidea ere arazotsua da: *Perutxoren kanta*-n agertzen da, eta puntuari dago loturik: *Lelo lirelo çarayleroba / yaçoeguia ninçan / aurten erua / ay joat gauiraya / astor vsua / lelo lirelo çarayleroba*. Aurretik esan bezala, irakurketa ziurra da eta errimak baldintza zezakeen *erua*; baina, azalpena ez da aieru bat baino.

4.5.2.4.2. Lehenengo lekukotasunez harago, bada joera kronologiko argi bat: erdiko bokalen igotzeak XVIII. mendearen erdialdera hurreratu ahala agertzen dira zabalago bai Bizkaian, bai Araban, bai Gipuzkoan eta Nafarroan.

XVII. mendearen amaieran aurki daitezke $o \rightarrow u$ aldaketaren lehenengo zantzu eta adibideak mendebaleko euskaran, eta XVIII.aren hasieran $e \rightarrow i$ -renak, nahiz eta idazle guztiek ez zituzten bata eta bestea islatu. Arzadunen lanean, adibidez, ez dut $o \rightarrow u$ -rik aurkitu, eta Urkizuren 1737ko liburuan ere ez dago, amaierako kopletan izan ezik: generoa ahozkotik hurbilago dagoelako-edo, kopletan hitz lauz emandako testuan baino malguago jokatu zuen zenbait fonetismorekin. Halaber, XVIII. mendean $e \rightarrow i$ aldaketaren adibideak aurki daitezke Bizkai sortaldean eta Gipuzkoako mendebalean (cf. Barrutia), nahiz eta idazle guztiek ez islatu: Arzadun eta Urkizu durangarren 1731ko eta 1737ko liburuetan badaude, baina Urkizuren beraren 1740ko koplak landuetan *-ea/-ia* puntua dago, idazlearen hautu kontserbatzaileagoa islatuz. Hain zuzen ere, jokaera bera aurkitu zuen Lakarrak berrogeita hamar urte lehenago BertsBizk sortan, *-oa/-ua* puntuak agertzen baitira.

1750-1800 bitarteko testuetan are errazago aurkitzen dira bokal-igotzeak mendebal eta erdialde zabaletako testuetan; zehazki, gerora ere agertu izan den lekuetako testuetan arrunt aurki daiteke Bizkaian: Bilbon, Nerbioi ibarraren iparraldean, Bermeo eta Gernika aldean eta sortalde osoan, baina ez Orozkon eta eredu jasoago edo orokorrago bat erabili zuten idazleen liburuetan (Kardaberatz, Olaetxea).

Bizkaitik kanpo bertsuak dira kronologia eta idazleen hautuen araberako gorabeherak: alde batetik, denboran aurrerago, ezaugarria indartsuago (Eibarko 1721eko koplak eta 1754ko udal-ordenantzak alderatzea besterik ez dago); beste alde batetik, idazlea jantziagoa edo testua landuagoa, ezaugarria ahulago: Peñafloidako kondearen lanetako eredu linguistikoa (ihesaldi txikiak ihesaldi) *Grand tour* antzerki-laneko hizkerarekin alderatzea besterik ez dago *eredu jaso* vs. *eredu herrikoa* dikotomia ezaugarritzen duten hainbat ezaugarri argiro ikusteko.

4.5.2.4.3. Bokal-igotzeen hedadura dela eta, Euskal Herrian bi eremu bereizi behar dira gutxienez: alde batetik, eremu zabal bat ekialdean, non lehenengo testuak agertu orduko $e \rightarrow i$ gertatua baitzen (gogoratu, gainera, Picauden $e[r]$ reguia askozaz ere zaharragoa); beste alde batetik Hego Euskal Herriko erdialdea eta mendebala, non bokal igotzeak ($e \rightarrow i$ zein $o \rightarrow u$) XVII. mendearen azken urteetan edo XVIII.aren lehenengo hamarkadetan ugaritzen diren, eta 1750era (eta zer esanik ez 1800era) hurbildu ahala indartzen, ugaritzen eta zabaltzen.

Hego Euskal Herriko erdialdeari eta mendebalari dagokienez, gaur egun arrunt askoak dira bi bokal-igotzeak hainbat eta hainbat hizkeratan (cf. *EHHA*, V: 1040. eta 1067. mapak, adibidez), baina fenomenoek azterketa diakronikoak islatzen du hedadura zabal hori ez zela gune bakar batetik abiatu: hurrengo atal batean (§5.2.4.3) azalduko dudanez, euskaraz hain arruntak izanik, hainbat lekutan beregainki sortutako berrikuntzak gertatu ziren hasiera batean, eta gerora hiztun-erkidegoen arteko hartu-emanek lotu dituzte gune berritzaile horiek, eremu handiagoak sortuz.

Beste alde batetik, aipatzekoa da hala Bizkaian nola Gipuzkoan badaudela *e.a* zaharrari eusten dioten eremuak: jaurren *e.a* arrunt da sartaldeko hainbat ibarretan, hala nola Arratian, Galdakaon, Zeberion, Txorierriko zenbait herritan, Mungiako zenbait auzotan eta Nerbioi ibarraren hegoaldean; bestalde, *o.a* besterik ez dago Getxotik Bermeora (ez Bermeon) eta Bilbotik Mendexara bitartean, bai eta Mungialdean, Txorierrin, Arratian, Galdakaon, Zeberion, Orozkon eta Nerbioi ibarraren hegoaldean ere (cf. Zuloaga inprimategian-1).

4.5.3. Kontsonante epentetikoak: $u + V > ubV$ eta $i + V > ijV$

4.5.3.1. Sarrera

Atal honen izenak iragartzen duenez, hiatoetan /i/ eta /u/ goiko bokalen (edo horien kide irristarien $-[w]$ & $[j]-$) ondotik /a/, /e/ edo /o/ bokalak daudenean, hizkera batzuetan segmentu kontsonantiko bat sortzen da geminazio-prozesu baten ondoren: “The insertion of these segments can be understood as a sort of gemination process in which skeletal slot is inserted in an empty onset position after a high vowel and associated with the features of the high vowel to its left” (Hualde 1991a: 49). Kontsonantea berdin ager daiteke hitz-erroan zein morfema-mugan (are klitikoetan sortutako bokal-bilkuretan ere), baina ez hitz konposatuetan eta eratorpen-atzizkiak eranstea.

De Rijk-ek (1970) bere monografiko ezagunean egin bezala, ohikoa da /i/ eta /u/ osteko kontsonante epentetikoez aldi berean hitz egitea: arestiko azalbideak berdin balio du berrikuntza baterako nahiz besterako, baina kronologiaz eta hedaduraz hitz egiteko aintzat hartu behar da bakoitza garai eta eremu batzuetan agertzen dela. Aurrekoaren ildotik, aipatzekoa da hizkera batean bi kontsonanteetako bat agertzeak ez dakarrela haren kideak ere agertu behar duenik, iraganeko eta egungo lekukotasunek erakusten dutenez.

/i/ eta /u/ ondoko kontsonante epentetikoaren eremua oso zabala izan da historikoki: Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait hizkeratan, eta Lapurdiko kostaldean lekutu izan dira. Halere, baten eta bestearen antzinatasuna, indarra eta iraupena ez da bera izan eremu horietan guztietan; beraz, nahiz eta funtsean antzeko prozesu baten bidez sortu diren, atal banatan aztertuko ditut hemen.

4.5.3.2. $u + V > ubV$

Epentesi kontsonantikoei buruzko atal honetan hizpide izango ditudan bi epentesietan zaharrena da $-ubV$ hala Mendebalean nola Erdialdean, nahiz eta gaur egun erdialdeko hizkera batzuetan eta batez ere adin jakin batetik gorako hiztunen ahotan besterik ez den entzuten. Testuetan agertzen lehenengo epentesia da, beraz, baina mendez mende atzera egin du eta desagertzera iritsi da.

4.5.3.2.1. Bizkaiko testuak

Bizkaian ez dut epentesiaren adibiderik aurkitu XVIII. mendea baino lehen:²³¹ hain zuzen ere, mendean aurrera egin ahala bestelakoa da egoera, batez ere 1750era hurbildu ahala. Zehazki, hizpide dudan epentesia Durango aldeko testuetan besterik ez dago sasoi hartan, eta ez sistematikoki: XVIII. mendean datatutako Elorrioko ziri-bertsuetan, esaterako, ez daude kontrako adibideak baino (12 *atreuiduac*, 13 *varberuaq*, 16 *dituazenaq*). Halaber, Arzadunen lanaren lehenengo edizioan (1731) ez dago epentesirik, baina Urkizuren *Virgina santissimien...* (1737) lanean badaude adibideak, bai erroetan, bai morfema-mugetan: 8 *Egubenétan*, 9 *Egubastèn*; 4 *zeinzubenzat*, 4 *zaituben*, 4 *zaitubenzat*, 5 *socorruba*, 17 *zerubetara*, 21 *zeuben*, 25 *estubacáz*, 81 *acabuban*, 82 *inguiratuba*, 83 *sagradubac*, 84 *acabuban*. Nolanahi ere den, epentesirik gabeko formak ugariagoak dira: 1 *Santuena*, 3 *Liburua*, 4 *sagraduetan*, 6 *santua*, 28 *contua*, 33 *pecatuen*, 34 *Aumentua*, 35 *orduan*, 38 *sosiegua*, 57 *aziertua*, 65 *Zeruetara*, 67 *Angueruèn*, 87 *anparua* eta abar. Urkizuren beraren kopletan (1740) birritan ageri da epentesia (13 *gustubá*, 46 *deusuben*), baina 18 *cerúetaco*-k ez du halakorik.

Arzadunen eta Urkizuren testuak alderatzea interesgarria da berriz ere; izan ere, biak durangarrak eta garaikideak izanda idaztean ezinbestean egin beharreko hautuei egotzi behar zaie hain denbora-tarte laburrean (1731koa da Arzadunen lana, eta 1737koa Urkizurena) idazle batek adibide bakar bat ere ez izatea, eta bestearenean arestian zerrendatutakoak agertzea. Egoera azaltzeko bi proposamen bururatzen zaizkit:

- (i) Arzadunek gordetzaile jokatu zuen, Durango aldeko euskaran egon bazegoen ezaugarri bat ostenduta (besterik ez da zenbateko indarra zuen zehaztu ahal izatea).
- (ii) Urkizuk Durango aldeko euskaran ez zegoen ezaugarri bat baliatu zuen, baliabide estilistiko bezala.

Bietan lehenengoa iruditzen zait sinesgarriagoa, 1700etik aldendu eta 1750era (eta zer esanik ez 1800era) hurbildu ahala ugaritu egiten baitira *-ubV* epentesiaren adibideak Bizkaiko testuetan. Gainera, Urkizuren hautua estilistikoa izan balitz, sistematikotasun handiagoa espero zitekeen erabileran (eta ez, bide batez, ahozkotik

²³¹ Altzibarrek VJesus-en bazela aipatu zuen: “Bokal arteko *b*, zehatzago, *u* eta *a*, *e* bokalen arteko *b* da lehenik agertzen dena (*ubV^(a, e)*): Viva Jesus deitu dotrinan” (1992: 476). Aitzitik, ez dut ezaugarriaren adibiderik aurkitu ez Mitxelenaen (1955) edizioan, ez Ulibarriren (2010a) edizio kritikoan, ez eta azken edizio horrek eranskin gisa dakarren faksimilean ere.

hurbilago dauden genero batean, liburuaren amaierako kopletan, metatzea adibide gehienak).

XVIII. mendearen erdialdea ezkerre ez dago batasunik Bizkaiko egileen artean: nabaria da hizkuntzaren inguruko bestelako kontzientzia, eta nabariak dira, halaber, idazleen bestelako ezagutza eta horren arabera eginiko hautuak.

Bizkai erdialdeko testuei dagokienez, ez dago *-ubV* epentesirik Olaetxearen lanean eta Gandararen Gabon-kantetan (ezta, bide batez, Kardaberatzen dotrinan ere). De la Quadrak, aitzitik, sarri baliatu zuen bere testuetan, baina ez sistematikoki; hots, ez erabil zezakeen kasu guztietan (Bilbao 1997: 256). Hona hemen adibide sorta bat, lehenengo orrialdeetatik aterea:

(i) Epentesidunak: 1 *Cristinaubaren*, 1 *erreinuba*, 2 *ceruban*, 2 *bedeincatuba*, 2 *frutuba*, 2 *orduban*, 3 *crucificaduba*, 3 *enterraduba*, 3 *Santubagan*, 3 *Articulubac*, 4 *zitubala*, 10 *batuba*, 13 *erpurubagaz*, 15 *diabrubac*; 2 *desterrubau*.

(ii) Epentesirik gabeak: 6 *Espiritualac*, 52 *espiritualean*, 54 *espirituala*; 7 *cautibuac*, 20 *ciertuagoac*, 27 *pecatuari*, 45 *orduatan*, 51 *motibua*, 55 *proximuari*; 41 *merituau*, 97 *Espilluau*.

Kasu guztiak zenbatu gabe ere adibideok orrialdeetan duten banaketa begiratzea nahiko iradokigarria da epentesiak De la Quadraren euskaran izan zezakeen indarrak jabetzeko (ahaztu gabe De la Quadrak Bermeo aldeko euskara imitatu zuela, baina hizkerari landu-kutsu nabarmena dariola): aldaera epentesidunak elkarren atzean metatuta aurki daitezke orrialde bakar batean, baina epentesirik gabekoen dentsitatea ez da hain handia. Bestalde, nabarmentzekoa da ohiko morfema-mugetan ez ezik, lehenengo graduko artikuluan ere badaudela halakoak, hala nola 2 *desterrubau* bezalakoetan.

Salbuespenak direla eta, arestian Bulda-z esandakoak (alegia, kasu batzuetan hiatuak goranzko diptongo bihurtzeak eragotz zezakeela epentesia) balio lezake De la Quadraren kasu batzuk azaltzeko: cf. 6 *Espiritualac*, 52 *espiritualean*, 54 *espirituala*).

Errosariyo santuba liburuko hizkera apur bat aldentzen da De la Quadrarenetik ezaugarri honetan; izan ere, ia sistematikoki baliatzen da epentesia: 1 *Santuban*, 1 *moduban*, 1 *sagraduba*, 1 *pausuben*, 3 *ciertuba*, 3 *diabruben*, 4 *lecubetan*, 5 *egubengan*, 5 *egubastengan*, 5 *sapatuban*, 6 *adventuban* eta abar; aurkako adibideak gutxi dira, hala nola 1 *Imprimidua* eta 13 *exempluac*.

Gandarak adibiderik ekarri ez arren, Gernikako Gabon-kantan (1801) sistematikoa da berrikuntza: 1-1 *ejercitubac*, 2-3 & 5-3 *munduban*, 3-3 *anguerubac*, 5-5 *pecatubac*, 6-1 *Abenduben*, 8-8 *amaubagaz*, 11-4 *proximuba*, 11-8 *ceruban*, 12-6 *Egiptuban*, 12-8 *Mediterranuban*, 13-2 *betatubac*, 13-4 *usteldubac*, 16-1 *ditubez*, 17-2 *luditubac*, 17-4 *asetubac*, 19-1 *porrubac*, 23-4 *pensamentubagas*, 25-5 *dirauzubet*, 26-2 *desengañuba*, 26-4 *munduba*, 26-8 *erregalubetan*. Epentesirik gabeko adibide bakarra 10-7 *proximuari* da.

XVIII. mendearen azken urteak interesgarriak dira ezaugarri honi eta hiatotako bestelako fenomenoei dagokienez, ordurako hasiak edo areagotuak baitziren gerora finkatutako literatur ereduen inguruko eztabaidak (§5.3.3.2.3). Euren lanak 1800-1820 tartean idatzi eta argitaratu zituzten egileen erabileretan sartu gabe, 1750-1800 bitarteko “bigarren mailako” zenbait testu arakatu ditut, aintzat hartuta Bizkai sortaldeko idazle batzuek *-ubV* indartzearen alde egin zutela.

Bizkai sartaldean Sarriaren sermoiak sasoi hartako joera eta ziurgabetasunen erakusgarri on dira. *-ubV* epentesiari dagokionez, *-u* amaieradun hitzei mugatzailea ezartzean bi emaitza ageri ditu Sarriak: *-uV* (gehienetan dokumentatzen dena) eta *-ubV* (nahiz *-uvV* aldaera grafikoa). Hona hemen azken horren zenbait adibide: 1 *pensamentuba*, 3 *euvan*, 6 *barauba*, 7 *Christinaubac*, 7 *zubec*, 7 *ceuben*, 7 *consagraduba*, 7 *gustuban*, 7 *errubagaitic*, 7 *munduban*, 11 *badeuzazube*, 11 *mandamentubac*, 13 *badaquizube*, 13 *zabaldubagaz*, 14 *deguizubela*, 19 *lecuban*, 19 *estuba*, 20 *socorrubac*, 19 *vasuban*, 19 *baraubac*, 20 *tormentuba*, 20 *infernuba*, 20 *lecuba*, 20 *buruban*, 34 *pecatuben*, 34 *maesuba*, 35 *medicuba*, 37 *sortuba*, 39 *bautismuba*.

Ezaugarria interesgarria da, ezagun baita Markina aldeko XIX. mendeko idazle klasikoek epentesiaren alde egin zutela, eta Sarriak XVIII.aren azken hamarkadetan jada Markinakoekiko atxikimendua azaltzen duela hautu linguistiko batzuetan: Sarriaren sermoitegian epentesi hau nabarmen ugaritzen da halakoetan, baina Bizkai sartaldeko euskaratik hurbilagoko eredu linguistikoan idazten duenean ere erabili zuen noizean behin.

Literatur moda edo ereduak eta tokian tokiko hizkerak aurrez aurre jarrita, ez da aise ezer argirik erabakitzea, baina inguruetako (batez ere hegoaldeko) bestelako lekukotasunak aintzat hartuta, uste dut arazo handirik gabe proposa daitekeela Nerbioi ibarraren iparraldean ere bizirik egon zela epentesia sasoi batean. Inguruko lekukotasunei dagokienez, OrozOtoi otoiak eta Zolloko galdetegiak ez dute *-ubV*-rik,

baina Orozko eta Baranbio aldeko lekukotasun moderno batzuek (cf. Azkuek Orozkon bildutako aditz-paradigmak, *apud* Gaminde 1983) zein Barakaldoko toponimia modernoak²³² eta Astigarraga basauriarraren sermoi batzuek epentesia bazegoelako ikuspegia berrets lezakete.

Literatur joerak, egile ikasiak eta idazleen hautuak behin baino gehiagotan aipatu ditudan honetan, ez dira ahaztekoak Larramendik Bizkaiko euskarari buruz jardutean aipatutako formak: “En el Bizcaíno, *ecárte-déuvat*, *ecárten déuze*, *ecárten-déuvagu*, *ecárten-déuve*” (1728: 121).²³³ Larramendiren baieztapena orokorra da eta Bizkai osoaz ari dela ematen du, nahiz eta andoaindarra ez zen xehetasunetan sartu.

Larramendiren ondotik, haren jarraitzaile Kardaberatzek pasarte interesgarria eman zuen *Eusqueraren berri onac* lanean (Altuna & Zulaika 2004 [1761]: 44); zehazki, “Andre elorriarraren Erretorica” izenekoa, non Bizkaiko (zehazki, Elorrioko) andre baten hizkera imitatu baitzuen. Pasarte horretan hirutan ageri da *cituban* adizkia, eta *segurubagoric* ere badago, baina testuari landu-kutsua dario, espero zitekeenez.²³⁴ Jakina, Kardaberatzen pasarte urrun dago Elorrioko berbetaren transkripzioa izatetik (hori ere ez zuen helburu, jakina) eta, lehenago esan bezala, Kardaberatzek Bizkaiko euskaran idatzitako dotrinan ez dago *-ubV* epentesirik.

Mende amaierako zein 1800 inguruko beste testu labur batzuetan arrunta da epentesia.

Bizkaiko ipar-ekialdean, Apoita bolibartarraren nobenetan sistematikoa da epentesia: 1 *ainguerubaquin*, 1 & 7 & 8 & 9 *cenduban*, 1 & 2 & 6 & 7 & 8 *mercimentubac*, 1 *justubaren*, 2 *altuba*, 2 *espíritu santubac*, 2 *ceinzubei*, 3 *gubernubac*, 3 *cendubana*, 3 *aingurubai*, 3 *Arcanjelubai*, 3 *aguindubaren*, 3 *Cumplimentuba*, 3 *gubernuba*, 4 *eztitube*, 3 *lecubetan* eta abar. Epentesirik gabeko forma bakarrak jatorriz *-o* duten edo izan dezaketen formetan daude: 1 *Jaungoicua*, 1 *Aingueruzcua*, 2 *misterijua*, 3 *oficijua*, 6 *poderosua* eta abar.

²³² Saiz & Ros (2001: §1.4) lanean aipatzen diren *Mucusúluba* eta *Subichubeta* toponimoez ari naiz. Nolanahi ere den, gogoan hartu behar da oso berantiarrek direla, XIX. mendearen amaierakoak. Dokumentazioa aztertu beharko litzateke toponimo horien ibilbide osoagoaren berri izateko, eta bilakaeraren gorabehera zehatzen berri izateko: Salaberri Zaratiegik esan zidanez (begiratu Zuloaga 2013: 607), Nafarroako erdialdeko hainbat toponimotan *-ua* eta *-oa* zirenak *-uba* eta *-oba* bihurtu dira gerora euskara galdu den eremuetan; esate baterako, *Zerkondoa* zena *Cercondoba* bihurtu da Artaxoan, eta *Bideondoa* eta *Andua* zirenak *Biandoba* eta *Anduba* bihurtu dira Lergan.

²³³ Zehazki, hartzaile maskulinoak duten aditzez ari zen Larramendi forma horiek ematean; femeninoak aipatzean, honako hauek eman zituen: “En el segundo [Bizkaiko euskaran] *ecárten-déumat*, *ecárten déun*, *ecárten-déumagu*, *ecárten-déune*, *déume*” (1728: 121). Bide batez, Altzibarrek (1992: 476, 614. oinoharra) gogorarazten duenez, Larramendik berak Gandara gernikarrari igorritako gutunean (1763) *Orra*, *bucatu dot cutun necagarri hau zeuven escaraco verbeagaz* ziotson.

²³⁴ Aurretik aipatua dut Elorrioko XVIII. mendeko ziri-bertsoetan ez dagoela epentesiaren adibiderik.

Iturrizak Andramendiko idazkiez emaniko bertsioan ere ageri dira adibideak (1-3 & 2-4 *buruba*, 2-5 *escubetan*, 2-6 *ditubeela*), eta Abadiñoako Gabon-kantan (1804) sistematikoa da epentesia: 4 *situben*, 17 *suben*, 22 *cerubac*, 34 *Aingueruben*, 43 *dozube*, 45 *Ainguerubacandi*, 48 *gaitubana*.

Bulda-n epentesia ez da sistematikoa, baina agertu agertzen da:

(i) Epentesidunak: 2 *Erreiñuboi*, 3 *buruba*, 23 *zeinzubetan*, 17 *barauba*, 23 *visitaubagas*, 6 & 32 *peligruban*, 34-35 *errese[r]badubac*, 36 & 64 *dirubagas*, 41-42 *baricuba*, 45 *baricubetan*, 50-51 *cerubetaco*; 41 *Egubena*.

(ii) Epentesirik gabeak: 1 *Erromacuac*, 4 *lenengua*, 8 *damuarijagas*, 10 & 42 *santua*, 11 *duasan*, 30 *absolvidua*, 40 *Barijecuac*, 55 *eruanac*, 59 *lecuca*, 62 *diruas*, 48 *espiritualagas*, 65 *apelidua*, 68 *cuidadua*.

Salbuespenak direla eta, kasu batzuetan goranzko diptongoen agerrerak eragin zitezkeen: 11 *duasan* eta 55 *eruanac* adizkietan errazen, bai eta, beharbada, 8 *damuarijagas* eta 48 *espiritualagas* kasuetan ere (halere, goranzko diptongoa gerta zitezkeen arren, ez da halakorik ageri 41 *Egubena* berban). Bestalde, epentesirik eza goiko bokala bigarrenkari izatearen ondorio bide da 1 *Erromacuac* eta 4 *lenengua* berbetan.

Aldaera epentesidunen eta epentesirik gabekoen arteko lehia dela eta, ez da erraza erabakitzea zeren ondorio den testuan ageri den egoera, zenbait aldaera azaltzeke geratu baitira. Berrikuntzen difusio lexikoaren ildotik, pentsa liteke epentesia ez zela sistematikoa hitz guztietan, baina 45 *baricubetan* & 40 *Barijecuac* bikoteak ez du horretan laguntzen. Halaber, idazlearentzat *-ubV* epentesia estilo edo hizkera jakin baten markatzaile eta bereizgarri bazen (eta ez dirudi hala zenik), ez da guztiz ulergarria egileak bi aldaerak erabili izana.

4.5.3.2.2. Arabako eta Sakana aldeko testuak

Nire corpusaren arabera, Arabako ipar-mendebalean ageri dira $u + V > ubV$ epentesiaren lekukotasun zaharrenak Euskal Herriko mendebalean, eta XVII. mendekoak dira biak. Alde batetik, Mendietaren *Quarta parte de los Annales de Vizcaya* lanean ageri da epentesia, Pedro Abendañoaren aienea jasotzen duen pasartean: 7-8 *Mendiola, yl deustac Gasto Apala / Bere lagunzat beste asco ditubala*. Aitzitik, ez da epentesirik ageri Mendietaren beste lan batzuetan: *MendietaKoa* 4 *foruac*, *MendietaAera ibitua*, *mendua*. Beste alde batetik, Urduña aldeko hitz-zerrendan ager zitezkeen bi hitzetan ageri da *-ubV*: *açero - calcaiduba* eta *brevas - ustapicuba*.

Hain zuzen ere, Araban iparraldeko eskualdeetan besterik ez da lekutu *-ubV* epentesia. Arestian aipatutako bi kasu goiztiarrez landara (Mendietarena eta Urduñako hiztegitxokoa), ez dut beste adibiderik aurkitu XVIII. mendera arte, ez kokapen ziurra(goa) duten testu zaharretan (Land, Betol, Lazarg), ez Araia/Sakana artean kokatu izan direnetan (Iturbe, Portal, Sevilla1619).

Iturri modernoagoen artean, Albenizen lanak baditu aldaera epentesidunak (167 & 168 & 172 *orduba*, 167 & 172 *santuba*, 167 *bienaventuradubac*, 170 *orduban*, 172 *deseaduba*, 173 *santuban*), baina epentesirik gabeak ere badaude: 167 *afligidua*, 169 & 170 *becatuac*, 170 *pecatuaquin*, 170 *ninduanari*, 171 *pecatuagaitic*, 171 *ofendiduagaitic*, 172 (birritan) *ofendidua*. Jatorrian *-o* duten edo izan dezaketen formak baztertuta, epentesidunen eta epentesirik gabekoen arteko kopurua nahikoa orekatua da Albenizenean. Arabako ekialdetik irten barik, ez dut epentesirik aurkitu Gamizen olerkietan.

Aiara aldeko testu modernoetan ere ez dut epentesirik aurkitu: ez DotrSerm mardulean (Ulibarri 2015: 259), ez Laudioko XIX. mendeko lanetan (Urkijo 1994: 34), ez *Bula ineffabilis*-aren itzulpenean (Knörr 1983).

4.5.3.2.3. Gipuzkoako testuak

4.5.3.2.3.1. Deba ibarreko testu arkaiko eta zaharretan (MLastur, DebaSerGut, Rosabella, SarasketaHiz, Gar, ArrasErrekII, Akundia, Urrexola, Olaso, Artazub, Sandailia, Irure, Amil) ez dago *-ubV* epentesirik. Lekukotasun berankorragoen artean, Arrasateko 1682ko ahapaldian ez dago epentesia agertzeko testuinguru aproposik, baina 1705eko bandoan 9 *sittuben* dago (aurka ditu 6 & 11 *barruan* eta 22 *buruaq*), eta Barrutiak adibide bakarra dakar: 294 *Lastasacuba*. Itziarko Ama Birjinaren omenezko XVIII. mendearen bigarren erdiko testuetan, aldiz, adibide bakar bat ere ez dut harrapatu.

Eibarko testuek interes berezia dute ezaugarri honi dagokionez; izan ere, berrikuntzaren bilakaera kronologikoa irudikatzeko aukera ematen dute. Eibarko kopia zaharretan (1685) ez dago epentesi bakar bat ere (9 *Variacua*, 23 *Zua*, 25 *Contuac*, 26 *Cantuac*). 1721eko sortan, ordea, 15 *esconduba* agertzen da, nahiz eta epentesirik gabeko forma bat birritan errepikatu: 1 & 9 *biolinchua*, ziur asko jatorrizko *-txo* dela eta. 1754ko udal-aginduan, berriz, arau da epentesia erabiltzea: 1 *atrebiduba*, 1 *adelantauba*, 1 *onrauba*, 1 *Abonauba*, 1 *errejimentuban*, 2 *examinaubas*, 3 *Escribauba*, 4 *sindicubac*, 4 *baditube*, 4 & 5 & 8 *Conttuban*, 5 *amenzebaubac*, 5 *Castigaubac*, 5 *desterraubac*, 7 *graduban*, 7 *multauba*, 9 *rejimenttubac*, 9

Consejubaren, 9 sindicubaren, 10 Errejimenttubac, 10 Aita santubac, 11 Castigubac, 12 desterraubac, 13 escubetara, 13 Castiguba, 14 & 15 autuba, 15 Capittulubequin, 15 probeiduba; 2 instrumentubones. Salbuespen bakarrak jatorrian -o duten formetan daude, euskal ondare zaharrekoak zein maileguak izan: 1 *ydalgua*, 2 *jurisdiccinuan*, 2 *fueruac*, 3 *ordinarichua*, 3 *gustietacuac*, 5 *Jangoicuan* eta abar.

Deba ibarraren inguruetan koka daitekeen testu bakar batean aurkitu dut epentesia Eibarko testuetan bezain indartsu: IsSagrEspl delakoan, non sistematikoki betetzen baita. Ez ditut adibide guztiak ekarriko hainbat errepikatu egiten direlako, baina hona hemen sortatxo bat: 1r *capituluba*, 1r *munduba*, 1v *situban*, 1v *paraysuba*, 2r *Ainguerubac*, 2r *frutuba*, 2v *gaituban*, 2v *becatuban*, 3r *orduban*, 3r *buruba*.

Bestalde, ez dut ale bakar bat ere aurkitu 1708ko sermoian, Txakartegi nutrikuarraren gutunean, Arakistainen eranskinean, Aldazabalen liburuan eta Itziarko Ama Birjinaren omenezko bertso-sortetan (ItziarBerts, ItziarKant, ItziarKopl). Bergarako udal-agindu arazotsuan txandakatu egiten dira epentesia duten formak eta epentesirik gabeak: *difuntu* hitza lagintzat harturik, bost aldiz ageri da epentesirik gabe, eta lautan epentesiarekin.

Oñatiko eskuizkribuetan sistematikoa da epentesia, baina testuak beste garai linguistiko batekoak dira jada.²³⁵ Hona hemen Elortzaren (1977) transkripzioaren lehenengo orrialdeetatik ateratako zenbait adibide: 1 *santubaren*, 2 *batzube*, 2 *izan dituban*, 3 *buruban*, 3 *Christaubarentzat*, 4 *cuidaduba*, 4 *zube*, 4 *eguin daizubengan*, 4 *aguindu iatzuben*, 4 *esan eguizube*, 5 *Zerubetaco*, 5 *Puntubac*, 5 *Capituluban*.

4.5.3.2.3.2. Mendebal zabaleko beste testu batzuk begiratuta, Deba ibarretik eskuin aurkitu ditut -ubV epentesiaren adibideak, eta, oro har, kronologian bat datoz Bizkai aldean eta Deba ibarrean ikusitako egoerarekin; alegia, 1750az geroztik agertzen dira.

Urola ibaiaren inguruetan ez dago epentesirik Etxaberen *Ave María*-n (1607), Azkoitiko *Sumario breve*-an (1614), Artzallus errezildarraren gutunetan (1622) zein Azpeitiko gutunetan (1740). Azpeitiko 1786ko gobernu onerako adiminzazio-agirian, berriz, aldaera epentesidunak agertzea da arau: 34 *juban* ‘joan’ (bide batez, kasu honetan goiko bokala bigarrenkari dela); 24 *conventubetaco*, 24 *porticubetan*, 25 *permitituba*, 27 & 42-43 *castigatubac*, 35 *señalatubetan*, 47 *señalatuba*, 62 *autuba*. Salbuespena du 36 *mandatuetan* hitzak.

²³⁵ Eskuizkribuaz gain, Palacios oñatiar frantziskotarraren lan batean ere badagoela dio Altzibarrek (1992: 475).

Halaber, aldaera epentesidunak aurki daitezke XVIII. mendearen bigarren erdiko antzerki-lanetan. Alde batetik, Muniberen *El borracho burlado*-n ez dira sistematikoak, baina batzuk badaude, batez ere obraren lehen hogeita bost orrialdeetan: 8 *sacristauba*, 14 *estubenac*, 16 *zubeac*, 18 (birritan) *zuben*, 24 *escuba*, 24 *apainduba*, 24 *adobatuba*, 25 *zorotuba*, 25 *gatutuba*, 36 *edate eztubenic*. Muniberen beraren *Gabonsariac* lanean ere aurki daiteke aldaera epentesidunen bat; zehazki, “Copla jostalluac” izeneko sortan, non 35 *gastelaubarequin* baitago.

Beste alde batetik epentesia oso arrunta da *Grand tour* lanean (1772): 2r *altuva*, 2r *aubetatic*, 2v *aubec*, 2v (birritan) *subec*, 2v *lecuban*, 2v *auvetan*, 3r *instruituva*, 3r *buruba*, 3r *ditubana*, 3v *Gastelaubac*, 3v *aubequin*, 4v *barruban*, 4v *ditube*... Halere, goiko bokala bigarrenkaria denean ez da epentesirik ageri: 2v *legua*, 3v *exemplua*, 4r *temporachuac*, 4r *luzechuan*, 4r *flojochuagua*, 4r *Consuelua*.

Egile ikasien / testu landuenen artean, Peñafloredaz gaindi ez dut epentesirik aurkitu (zehazki, Loiolako eta Oikiako dotrinetan, eta Larramendiren Azkoitiko sermoian).

4.5.3.2.3.3. Goierriko testuetan bestelakoa da egoera eta nahasteak sor litezke, inguru hartan [aw] eta [ew] diptongoetan idatziz *-a(u)b* eta *-e(u)b* sistematikoki eman direlako. Hori dela eta, Zegamako dotrinako (1741) nahiz Otxoa Arinen laneko (1713) *christauba* bezalako forma batean epentesia dagoela pentsa liteke (cf. Altzibar 1992: 472, 613. oin-oharra),²³⁶ baina aintzat hartu behar da, alde batetik, bi testu horietan *kristau* berban besterik ez dela ageri *-ubV*, eta, beste alde batetik, Zegamako dotrinan (ez Otxoa Arinenean) *kristaub* aldaera zela oinarria: cf. 36v *Nor da christaub fiel gutcien munduonetaco burua*; 36v *Christaub fiel gutcien congregacioa, edo vnioa*; 37v *Eliza Santa onetan beti diraden christaub asco*; eta abar.

4.5.3.2.3.4. Gipuzkoako kostaldeko, barnealdeko eta Beterri aldeko testu zahar gutxietan ez dago epentesirik XVIII. mendea baino lehen.

Beterrin, Larramendik San Agustin eguneko sermoian (1738) baino ez zuen erabili epentesia, eta sermoi horretan ere hirutan besterik ez dut aurkitu: *zeruba*, *Santubaren* eta *famatubac* hitzetan (cf. *bacandua*, *biribillatua*, *munduaren*, *aingueruac*, *contuac*... sermoi horretan bertan). Hernialdeko Irazuaren lan garaikidean (1739) ere ez dago epentesirik.

²³⁶ Mende baten buruan ba omen zegoen: “*Ezazube* por Goyeri está bien, aunque no agrada a los guipuzcoanos, por cuanto se ha escrito poco con eufónicas” ziotson Uriartek Bonaparteri 1858/04/03an igorritako gutun batean (Ruiz de Larrinaga 1954: 74).

Lubieta (1728) donostiarraren lagin argitaratuak (Bilbao 2011) ez dakar epentesirik, *christaubac* hitzean izan ezik, baina gogoratzekoa da arestian Goierriko testuez esandakoa, azalpen berberak balio bailezake. Bestelako adibiderik ez dagoela eta, pentsa liteke adibide horretan hemen hizpide dudan epentesia ageri dela, nahiz eta aintzat hartzekoa den Pepe donostiarraren eta Josefa altzarraren arteko gutunerian (1761) ere ez dela epentesirik ageri. Nolanahi ere den, Donostia aldeko XIX. mendeko antzerkilari eta bertsolarien lanetan ugari ageri dira epentesiak.²³⁷ Jose Bizente Etxegarairen *Festara* bertso-liburuan (Zavala 1964), adibidez, 1813-1855 bitarteko bertso idatzietan *-uba* epentesiaren dozenaka adibide agertzen dira: cf. *mundubac*, *estaduban*, *paguba*, *orduban*, *juban*, *aliyatubakin*, *Gazteluba*, *kontuban*, *portuban* eta abar 1813ko bertako bertso-sorta batean. Mendearen amaierarantz, bestalde, Bilintxen (ia) edozein bertso-sorta har daiteke epentesiak aurkitzeko: *Partiduba*, *zubela*, *nuben* zein *zuben* dakartza, esate baterako, “Apaizaren cantac” sortak. Hain zuzen ere, eta bokal arteko kontsonantearen arrastoak gaur egunera arte iritsi dira (begiratu Camino 2000: 67). Donostiatik ezker, ez dago epentesiaren adibiderik Lasarteko 1716ko bertsoetan.

Gipuzkoako ipar-ekialdeko XVIII. mendeko zenbait testu begiratuta, Hondarribiko prediku batean (1778) ageri dira, nahiz eta ez sistematikoki: *5 ereguiñ niñ hubenian*, *27 & 59 & 64 & 80 ezaten duben*, *48 bazubequiñ*, *56 eguin zuben*, *83 botatu zubenian*, *91 subec* eta abar. Halaber, Irungo XVIII. mendeko platiketan lekutzen da epentesia, betiere ondoko bokala *e* denean (bide batez, Ondarrak 1997 argitaratutako bi sermoiek ez dute egoera bera islatzen: lehenengoan gehiago dira epentesirik gabeko formak, epentesidunak baino). Irungo bertako 1854ko erlijio-testu batean ere (*ETZ* §41) epentesia ez da sistematikoa.

4.5.3.2.4. Bi hitz Lapurdiko eta Nafarroako testuez

Gipuzkoako kostaldetik eskuin, Ipar Euskal Herrian Lapurdiko kostaldean besterik ez da ageri *-ubV*, eta hango lekukotasunak ere interesgarriak dira, besteak beste, adibide zaharrenak ez XVIII. mendekoak baina XVII.ekoak direlako.

Voltoireren *L'interprect*-ean (~1620) aurkituak dira *5 buruban*, *81 souba* ‘sua’ eta *89 lacouba* ‘lakua’ (cf. Lakarra 1997c), eta Etxeberri Dorreren laneko (1677) azalekoak eta lehenengo orrialdeetakoak dira adibideok: *1 abançatuba*, *3 atheratuba*, *3 seindubaren*, *3 contubac*, *3 Ternubacoac*, *3 iscribatubac*, *3 maistrubençat edo*

²³⁷ Letamendia & Sagarzazu (1992: 510) lanean esaten denez, fenomenook ugariagoak dira bertsolarien eskuizkribuetan, inprentatik igarotako bertso-paper orraztuetan baino.

Pillotubentçat, 3 ditubella. Azken horren garaikidea da Urruña eta Hondarribia arteko gutuneria (1680), non bilakabidea azaltzen baita; zehazki, urruñarren lehenengo gutunean dago: 1 & 2 & 12 & 15 & 16 & 31 *zuben*, 13 *zubey*, 19 *dusubela*, 20 *estatuban*, 34 *juratubak* (*ConTAV* 132).

Lapurdiko kostaldeko XVIII. mendeko bizilagunen gutunetan ere ohikoa da epentesia: Donibane Lohizuneko alkate Tausinek Berara igorritakoetan (1788) ez ezik, Le Dauphin itsasontzikoetan ere agertzen da, XVII-XVIII. mendeetako lapurtar obra inprimatu gehienetan ez bezala: “The study of two types of epenthesis after high vowel –almost unknown in historical Labourdin– places the origin of this phenomenon in the coastal area. Moreover, it illustrates the distance between the language attested in the letters and that reflected in contemporary printed works” (Padilla-Moyano 2015: 180). Bonaparteren [BDV m/s Bv75] eskuizkribuko datuek berresten dute Donibane Lohizunen ugari zerabilteela epentesia, bai eta Ziburun, Azkainen eta Biriatur ere (Duhalde 2019: 154). Epentesiak, hain zuzen, oraintsu arte iraun du bizirik Lapurdiko kostaldean hiztun zaharrenen ahotan (Epelde 2011: 313).

Nafarroako testuetan antzekoa da epentesiaren egoera: ez da lurralde guztiko testuetan ageri (esate baterako, ez dago *-ubV*-rik Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkaribarren, ez eta Bonapartek *hego-nafarrera* deitutakoak besarkatzen duen eremuan ere; cf. Camino 2003). Gainera, agertzen den testuetan ez da sistematikoa. Dena den, fenomenoaren lehenengo lekukotasunak zaharrak dira Nafarroan: XVII. mendekoak. Zehazki, Elizalde Mexikotik idatzitako bigarren gutunean (1699; begiratu Mitxelena 1964d: 351) ageri da aleren bat (cf. 2-5 *zubeç*), eta ezaugarriak indarrean jarraitzen zuen Etxalarren 1749an, Sanzberroren testuaren arabera (5 & 7 *auban*, 16 *padecitu zuben* eta abar). Bortzirietan bertan, Berako olagizonaren hirugarren gutunak (1676, *apud* Urrizola 2006) 9-10 *contuban* eta 12-13 *ecarcen duben* dakartza, eta iturri berantiarragoek ere bat egiten dute ezaugarriaren erabilera ez sistematikoarekin: cf. Berako XIX. mende hasierako udal-ordenantzak (1-4 *erregimentubac*, 2-2 *castigatubac*, 2-2 *erregimentubaren*, 3-1 *zarracubac* eta abar, Idoate & Villanuevaren –1981– edizioari jarraikiz) eta Lesakako XIX. mendeko predikuak (1 *Apostolubey*, 3 *eracutsizazube*, 4 *instruitatzube*, 4 *batayatzzen ttuzubelariq* eta abar, Satrustegiren edizioaren arabera –*ETZ* §43–).

Hegoalderagoko ibar eta eskualdeetan XVIII. mendekoak edo orduz geroztikoak dira *-ubV*-ren lekukotasunak, hala nola Aralarko predikukoak eta Lakuntzako

dotrinakoak (*ETZ* §37 eta §49). Orduz geroztik Sakana aldean iraun du ezaugarriak inon baino indartsuago; begiratu Zuazo (2010b: 46-47).

4.5.3.3. *i + V > ijV*

Aurretik aipatu dudanez, *i* ondoko epentesiaren sorrera-prozesua *u* ondokoaren antzekoa da, baina bien arteko aldeak daude kronologian eta geografian. Oro har, esan daiteke *-ijV* epentesiaren eremua oso zabala dela Euskal Herrian, tokian toki dituen ahoskerak ahoskera (*EHHA* V: 1053. mapa).

Ebakerari dagokionez kasuren batean zalantza sor daitekeen arren (adibidez, <ii> grafiaren bidez adierazten denean), badakigu epentesia kontsonantikoa dela, baina besterik da zein zen kontsonante horren ahoskera zehatza hizkera bakoitzean: oro har <j> eta <y> grafemak baliatzen dira (ezohikoagoak dira <ii> eta <ch>, esate baterako), baina horrek ez du islatzen zein zen artikulazio-gune zehatza (begiratu Altzibar 1992: 477 eta Egurtzegi 2013: 157-158).²³⁸ XIX. mendeko zenbait idazlek, nolana ere den, <j> latindarraren parekotzat jo zuten: “En estos casos además del artículo se añade una *j* á la *i*, y se pronuncia, no como los castellanos, sino como los latinos, franceses y casi todos los demás extranjeros, *arguija*, *oguija*” (Mogel 1881 [ca. 1802]: 18).²³⁹ XX. mendearen hasieran, nolana ere den, [š] ebakitzen zen kontsonante epentetiko hori (Rollo 1925: 4).

-ijV Hego Euskal Herriko lurralde guztietan eta Lapurdiko kostaldean lekutu da historikoki, eta gaur egun ere oso eremu zabalean dirau bizirik. Are gehiago, erabiltzen duten hiztunek sistematikoki erabili ohi dute.

Datazioari dagokionez, *-ijV* epentesiaren lehenengo adibideak ez dira *-ubV*-renak bezain zaharrak, ez Euskal Herriko mendebalean, ez erdialdean.

4.5.3.3.1. Bizkaiko testuak

Bizkaian ez dago *-ijV*-rik XV-XVI. mendeetako testuetan, ezta gerora ezaugarria erabili den eremuetako XVII. mendeko testu gehienetan ere: ez dago alerik Mikoletaren lanean eta Bilbo aldeko maitasun-poemetan, Busturiko 1616ko testutxoan eta Durango aldeko 1730era bitarteko testuetan, testuen tipologia edozein delarik.²⁴⁰

²³⁸ Urgellek (2018: 613, 22. oin-oharra) azaltzen duenez, Donostiako eskolako XIX. mendeko idazle batzuen lanetan dauden grafia-aldaketek erakusten dute <j>-k eta <y>-k hiatoa hausteko kontsonantea irudikatzen dutela, ez Markinako eskolako idazleek islatutakoa ez bezalako ebakera fonetikoa.

²³⁹ Begiratu Mendebaleko XVIII-XIX. mendeetako idazle eta testu batzuei buruzko zehaztapen gehiago Altzibar (1992: 477, 616. orrialdea) lanean.

²⁴⁰ VJesus-eko 14 *Marije* ‘Maria’ adibideak zalantza eragin dezake, baina sendoa da hor epentetiko ez ikusteko Ulibarrak tipografiaz emandako azalpena: “Hala ere, salbuespen hau otoitzaren izenburuan dugu

Hain zuzen, Bizkaian Durango aldeko 1730eko hamarkadaren amaierako testuetan epentesizat jo litezkeen zenbait adibide daude: ez dago alerik Arzadunen liburuaren lehenengo edizioan (1731) eta Elorrioko ziri-bertsuetan, baina Urkizu durangarrak badakartza. Nolanahi ere den, Urkizuren erabilerari buruzko baieztapen horrek zehaztapenak behar ditu.

-*ubV* epentesiaz aritzean azaldu dudanez, durangarraren testuan ugaritu egiten da epentesi hori, eta liburu osoko zein 1740ko kopletako adibideak eman ditut, azalpenaren erakusgarri. -*ijV* epentesia ere, inon agertzekotan, Urkizuren 1737ko lanean agertzen da, baina aintzat hartzekoa da ez dela obra osoan ageri, ezpada liburuaren amaierako kopletan, eta ez sistematikoki: 78 *Amudiiòac*, 79 & 81 *andiiá*, 80 *zinaiio*, 80 *andiiâgoric*, 81 *icaragarriá*.

Ikusten denez, epentesia egotekotan <iiV> grafiak adieraziko luke adibide eskas horietan: pentsa liteke bigarren <i> hori ez zela kontsonantikoa eta kontsonante bihurtu aurreko bokal-luzatzea dagoela, edo neurri-kontuengatik idazleak hiatoa markatu nahi izan zuela.

Ezaugarriak obran izango lukeen banaketa ez da ausazkoa, jakina: ematen du liburuaren amaieran txertatutako koplei kutsu herrikoiagoa emateko-edo baliatu zuela Urkizuk epentesia. 1740ko kopletan, aitzitik, ez dago -*ijV*-rik: 3 & 11 & 19 & 27 & 35 & 43 & 51 & 59 & 67 *lirio*, 40 *guztiaç*, 54 *beguien*, 63 *miseriaren*. Beharbada 1740ko koplek zenbait alderditan kutsu landuagoa izateari egotz dakioke epentesi horren erabilerarik eza, -*ubV*-ren bat badagoen arren.

XVIII. mendearen erdialdeko Kardaberatzen eta Olaetxearen lehenengo edizioek ez dakarte epentesirik, eta Gandara garaikidearen Gabon-kantuetan eten bat ikusi zuen Ensunzak (2013), besteak beste -*ijV*-z ari zela. Zehazki, 1768an ezarri zuen etena gernikarrak. Epentesiari dagokionez, ez dago alerik 1757ko, 1762ko eta 1764ko lanetan, baina 1768koetan badago. Ensunzak dioenez, orduz geroztik “Gernikako gaur egungo hizkerarantz doazen aldaketak antzeman daitezke” (2013: 10).

Ensunzaren baieztapena zuzena izan arren, testuak arreta handiagoz aztertzeak gertakizunen irudi zehatzagoa ematen du: egia da hala “Ama maitegarriari, zortzico” nola “Amaita maitegarriari bere jaiotzan” testuetan -*ijV* epentesia ageri dela, baina behin

eta, beraz, azalpena tipografikoa izan daitekeelakoan gaude: -*ii*- sekuentzietako bigarren *i* hori luze idazteko (hau da, <ij> idazteko) ohitura antzinatek zetorren eta (Sánchez-Prieto 1998: 115); honela, proposa dezakegu inprentara eramandako eskuizkribuan (edo Vinsonek eta Urquijok suposatzen duten aurreko argitalpenean; cf. Mitxelena 1954a: 85) izenburu hau letra larriz zegokeela (*MARIE*) eta inprentakoek letra xehez idazterakoan *II* > *ij* aldatu zutela, ohitura zen bezala” (Ulibarri 2010a: 48).

bestarik ez dago, eta, bide batez, hitz berberean: 2-5 eta 3-4 *eguiya*, hurrenez hurren. Salbuespenak askoz ugariagoak dira: lehenengoan hamar bat daude, eta bigarrenean zazpi bat, izenburuetatik bertatik hasita. Gandararen “Ardaoaren ganian” sortatxo datagabeen ez dago epentesirik (3-2 *anaiac*, 3-5 *gustiac*), baina Ensunzak dakusan joera sartzen edo sartua bide zen Gernikara XVIII. mendearen erdialdean, 1800ko muga igaro eta jarraian sistematikoa baita aldaketa Gernikako Gabon-kantan (ez dut salbuespenik aurkitu): 1-4 & 4-2 *guztiyac*, 3-5 *guztiyoc*, 6-6 *Mariya*, 6-7 *Ydiyagaz*, 6-8 *Nausiya*, 8-3 *jaiyac*, 10-4 *biyortu*, 11-1 *Gueiyen*, 12-3 *provinciyac*, 16-7 *eguiya* eta abar.

Bermeo aldean De la Quadraren lanetan indar bizia du epentesiak: Bilbaok (1997: 256) markatu bezala, De la Quadrak ondo zekien berrikuntza bereizten, nahiz eta ez den gauzatzen gauza zitekeen kasu guztietan (1 *gustija*, 2 *araguijen*, 3 *eguijascoaren*, 4 *erijotzia*, 6 *primizijac* eta abar). Kasuren batean ez dut argi zer adierazten duen <j>-k (inoiz <y> da), diptongoko bokalerdia zein bokalerdia irentsi duen epentesia izan baitaiteke: *euqui dajenian*, 74 *zarzajeria*, 89 *guejenian*, 93 *al dajanian*, 106 *dojagaitic*, 120 *ezin leyanagaitic* eta abar.

Ez ditut salbuespen guztiak zerrendatuko, baina hona hemen “Doctrina christinaubarena” pasartetik ateratako sorta bat, erroetakoak eta morfema-mugan daudenak bereizita: 2 *Ave Maria*, 2 *misericordiaren*, 11 *indulgencia*, 18 *demonioa*, 23 *potencia*, 26 *criadu*, 29 *zorioneco*, 19 *Biortuco*, 47 *eguiasco*, 51 *lizenzia*, 51 *conciencian*, 56 *circunstancia*, 60 *juicio*, 65 *asieraric*, 81 *penitencia*, 83 *advertencia*, 98 *sacrilegio*; 9 *gustietaric*, 10 *eroan gaiezala*, 67 *guichiago*, 72 *eguingo baleusquio*, 76 *barriendaco*, 90 *beguietati*.

Testuko salbuespenen zerrenda osoa begiratuta, agerikoa da gehienak mailegu modernoetan ageri direla eta sarri errepikatzen direla: *graziak*, *indulgencia*, *konfiantza*, *kontzientzia*, *kriadore*, *kriadu*, *kriatura*, *lizentzia*, *miserikordia*, *penitentzia*, *zirkunstantzia*... *Maria* hitza bost aldiz ageri da *Marija* bihurtuta, baina berrogeita hamabitan epentesirik gabe. Beste alde batetik, ez guztiak baina ondare zaharreko hitzetako salbuespen gehienak berba gutxi batzuetan biltzen dira: *bihurtu*, *gutxi*, *guzti*, *amodio* eta *zorion* aipa daitezke.

Errosariyo santuba liburuari dagokionez, nabarmen ugariagoak dira forma epentesidunak bai morfema-mugan, bai hitz-erroan (1 *gustiyac*, 3 *Advertenciya*, 3 *icaragarriya*, 3 *andiyac*; 3 *indulgenciya*, 6 *eguiyascoa*, 8 *memoriya* eta abar); halere, salbuespenak ere badaude, batez ere *Maria* izenari (3 *Maria*, adibidez) eta *grazia* hitzari loturik (6 *graciac*, 9 *graciaren* eta abar). Badago, halaber, batzuetan epentesiarekin eta

beste batzuetan epentesirik gabe agertzen den berbaren bat: cf. 7 *misericordiya*, baina 9 *misericordiascoa*.

Bizkaiko sartalde gehiena gordetzaile da epentesi honi dagokionez. Nerbioi ibarreko testuak dira salbuespen: OrozOtoi otoitzek ez dute epentesirik (hala espero zitekeen, gerora ere berrikuntza ez delako hara zabaldu), baina Zolloko galdetegian (1770) badaude eta, hain zuzen ere, inguru hartako zaharrenak dira: 4r *ausiyatan*, 4r *erdiya*, 4v *echiyac*, 4v (birritan) *gustiya*. Halere, gehiago dira salbuespenak: 3r *gusttiyai*, 3r *ausia* (eta 3r *ausiau*), 3r *viac*, 3r & 4r *gusttiac*, 3r *libreu daiensatt*, 3r & 3v (birritan) & 4r (lautan) & 4v *Badaquie*, 3v *erdiac*, 3v *gusttioc*, 3v *ynbentarioric*, 4r *gustien*, 4r *ttresneriagas*, 4r *urdaia*, 4v *balietao*, 4v *daquien*, 4v *daquianay*, 4v *naguseian*, 4v *balio*, 4v *obligacio*, 4v *ichiac*.

Nerbioi ibarreko hurrengo lekukotasunak Sarria etxebarriarraren sermoietan agertzen dira, eta <y> eta <j> grafemekin ematen dira, hala hitz-erroetan nola morfemamuetan. Hona hemen adibide andana bat, bi ingurune horiek eta artikulua hurbilen ondorioz sortutako kasuak berezita: 1 *Greciya*, 1 *biyar* ‘bihar’, 1 *poderiyo*, 2 *meriyendataraco*, 2 *Inocenciyo*, 3 *ubijentu*, 13 *urliyagaitic*, 14 *valijo*, 18 *uriyola*, 22 *bijeramunian*, 23 *fiyesta*; 1 *eguiya*, 1 *andiya*, 2 *sarriyago*, 7 *biyac*, 12 *ichumendija*, 15 *historiyan*, 18 *janariya*, 29 *goiyan*, 35 *adoragarrijac*; 6 *guztiyau*.

Adibideok erakusten dute zer-nolako indarra zuen bilakabideak XVIII. mendearen amaieran, besteak beste hitz erroan eta izen propioetan ere betetzen zelako. Halere, aitortzekoa da Sarriaren sermoietan ez dela bilakabide guztiz sistematikoa, lantzean behin salbuespenik aurki daitekeelako. Euskal ondare zaharreko hitzetan salbuespen gehienak *bihotz* eta *gehiago* hitzei lotutakoak dira (1 *gueiago eta gueiago*, 4 *ardura gueiagogaz*, *contu gueiyagogaz*, 15 *vioza*, 18 *gueiyago eta gueiago*), baina besterik ere bada: 1 *loiac*, 3 *gustiecaz*, 20 *zoriona*, 29 *andienian*.

Jaurerriaren beste muturrera joaz, ipar-ekialdeko testuetan indar biziz agertzen da epentesia garai bertsuan. Apoitaren bederatziurrenean, adibidez, ia ehun aldiz azaltzen da epentesia, eta salbuespen gutxi aurkitu ditut: 2-9 *Maria*, 6-2 *guztiac*, 6-8 *gracia*.

Hego-sortaldean, Iturrizaren Andramendiko eskrituren bertsoan 2-2/3 *Jaijatzaric*, 2-6 *guztijoc*, 2-7 *barrijacaz*, 2-8 *andijac* eta 2-11 *guztijac* daude (salbuespen dira, halere, 1-6 & 2-4 *guztien*). Abadiñoako Gabon-kantan ere sistematikoa da <ijV>: 2-3 *daijogun*, 2-5 *eraguijoc*, 3-1 *gueijago*, 3-5 *Bialdu eijen*, 4-2 *gaberdijan*, 4-7 & 7-5 *Marija*, 5-2 & 5-6 *barrijau*, 5-7 & 7-1 *jaijo*, 6-5 *jaijaquera*, 7-3 *gustijoc*.

Bulda-n indar bizia du bilakabideak. Erroko eta morfema-mugako adibideak bereizita ematen ditut hemen: 5 *aplicadu leijo*, 5 *espacijuan*, 6 *erijotceco*, 6 *Plenarija*, 12 *eguin leije*, 13 *mi[ni]sterijoan*, 14 *jaijeguna*, 20 *vitorijaitic*, 36 *cedutzelaco balijoco*, 40 *Barijecuac*, 47 *medijoric*, 49 *Purgatorijuan*, 56-57 *estaquiyela*, 61 *balijo izateco*, 65 *esteutza balijoco*; 7 *gustijana*, 8 *damuarijagas*, 11 *gustijai*, 18 *gueijago*, 34 *gustijatic*, 56 *charquerije*, 66 *bijoc*.

Buldan <j> grafema agertzen da gehienetan bokal arteko kontsonante epentetikoa adierazteko, baina behin <y> ere badago. Halaber, 52 *sufragiioraco* eta 63 *sucediduco balliquiio* adibideetan epentesia egon liteke, nahiz eta 33 *elegiudu* ere badagoen eta horkoa ezin den epentesia izan.

Epentesidunekin batera, Bulda-n epentesirik gabeko adibideak ere badaude: 1 *pribilegio*, 2 *Señorio*, 4 *privilegio*, 8 *viotzeco*, 9 *viotzetic*, 25 *Mariagas*, 27 *purgatorio[co]*, 31-32 *eriotzaco*, 45 *medio*; 10 & 12 *gustiac*, 30 *bitzian*, 25 & 43 *gustien*, 30 *gustietaric*, 40 *gustian*; 50 *sufragionen*.

Ikusten denez, salbuespenak azpi-multzoetan sailka daitezke: alde batetik, lehenengo graduko erakusleetan ez da epentesirik sortzen; beste alde batetik, *guzti* eta *bihotz* hitzetan biltzen dira salbuespenetako batzuk (*guzti*-ri lotuta daude sei, eta *bihotz*-i hogeitik hiru). Horiez gain, nahikoa da bi zerrendak alderatzea epentesirik gabe ageri den formaren bat beste batzuetan epentesi eta guzti agertzen dela ikusteko (*guztiV* ~ *guztijV*-rekin berarekin batera, begiratu *purgatorio* ~ *purgatorijo*). Hiatoko bokalei dagokienez, salbuespenetatik bederatzi *i + o* bilkuran daude.

4.5.3.3.2. Arabako eta Sakanako testuak

Bizkaiaren lurralde mugakideei helduta, Arabako testu arkaiko labur zein luzeek ez dute epentesi bakar bat, eta zahar eta modernoetan ere ez da ohikoa: Urduñako hitz-zerrendak eta Albenizek, esate baterako, badute *-ubV*, baina ez *-ijV*. Gamizenean ez dago ez bateko, ez besteko epentesirik.

Arabian 1800 aurretik testu bakar batean ageri da azken epentesi hori, Aiarako DotrSerm delakoan, eta edizioegilearen arabera ezaugarriaren agerrera lotura izan dezake literatur hizkerarekin:

(...) ezin dugu jakin eufonia hau hizkeratik edo literaturatik datorren, baina aipagarria da *i + o* testuinguruan epentesidun *-iyo* (*areriyoen*, *oriyoa*, *deiyogun*, *auxiliyo*...) eta *-iu-* izatea (*biutaric*, *viciu*, *deguiula*...). Inoiz hitz berean emaitza biak ager daitezke: *viciyo / viciu*, *demoniyo / demoniu*... (ik. §4.2.1.8), baina ez da **-iyu* bezalako edo antzeko tartekorik. Bi emaitzen elkarbizitza baztertzan ez badugu ere, beste aukera bat litzateke bere idazmoldean *i + o* testuinguruan *iyo* eta *iu* lehian egotea: lehenengoa garaiko literatur giroaren eraginez eta bigarrena bere herriko hizkeraren eraginez. Hipotesi hau indartuko luke *guliyen* (46-14) adibidea,

non epentesia *i* ez etimologiko batean agertzen den (*guleen* > *gulien* > *guliyen*), eta beraz, hiperkarakterizazio bat izatea (dakigularik, ez da euskara guztian ***etxiya* lakorik aurkitzen), egilearen hizkeran guztiz ezaguna ez zen ezaugarria zelako, nonbait. (Ulibarri 2015: 259)

Ondotik, Laudioko 1828ko dotrinak badu epentesi hori, baina ez 1858koak eta Ruth-en liburuaren aleek (Urkijo 1994: 33 eta hurrengoak). Bestalde, Uriartek itzulitako *Bula ineffabilis*-ean (1864; begiratu Knörr 1985) badago:²⁴¹ 1 *serbitzariyen serbitzariyac*, 1 *erruquiya eta eguiya*, 1 (birritan) *guztiya*, 1 *yaquituriya*...

Sakana inguruan kokatu izan diren lekukotasun zaharrenetan (Portal, Iturbe, Sevilla1619) ez dago adibide bakar bat. Oso modernoa bide da epentesia inguru hartan: Aralarko sermoietan (1833) agertzen da (5 *gueiyen*, 8 *aldiyontan*, 9 *viyotzac*, 11 *ezaguperiyac*, 14 *sabiyo*, 16 *serviciyo*...), baina Lakuntzako dotrinan (1838) ez dago.

4.5.3.3.3. Gipuzkoako testuak

4.5.3.3.3.1. Gipuzkoako testuetan Bizkaikoaren parekoa da egoera: XVIII. eta XIX. mendeetako iturrietan ageri da epentesia. Hain zuzen ere, gerora ezaugarria deskribatu den eremuetako lekukotasunetan. Deba ibarrean ez dut epentesiaren adibide bakar bat ere aurkitu XVI. eta XVII. mendeetako testuetan.

XVIII. mendekoen artean, Eibarko testuek aparte jokutzen dute 1750era hurreratu ahala. Izan ere, ez dut *-ijV*-rik aurkitu XVII. mendearen amaiera-amaierako eta XVIII.aren hasiera-hasierako Bergara, Antzuola eta Arrasate aldeko testuetan (Amil, ArrasAhap, ArrasBand, SermDom, Barrutia). Halaber, ez dago halako epentisirik Deba aldeko testuetan.

Eibarko testuei dagokienez, 1685eko eta 1721eko kopletan ez dago adibiderik (EibarKoplZah 5 *Vicario* & 10 *Vicarioaren* & 19 *Vicarioa*, 6 *gustioc*, 7 *Amodioa*, 9 *Variacua*, 10 *ordubietan*, 17 & 22 *meriendea*, 25 *Palaciooac*; EibarKopl 10 *achaquiazat*, 18 *Lecaytioriq*), baina 1754ko udal-agindua epentesiz josirik dago (<ch> grafiarekin adieraziak).²⁴² Hona hemen adibide sorta bat, ohi bezala erroetakoak, morfema-mugetakoak eta klitizazioaren ondorioz sortutakoak bereizita: 3

²⁴¹ Ez dago oso argi nongo euskarara itzuli zuen zehazki Uriartek, baina ematen du Laudioko euskarara hurbildu nahi izan zuela (egia esan, XIX. mendearen amaieran ez zuen hautatzeko hizkuntza-eredu askoz gehiagorik Araban): “La impresión que se saca de una comparación morfológica es que el autor, ducho en traducciones religiosas, entre ellas de catecismos a diversas variedades de Vizcaya, tomó como modelo el conocido catecismo de Astete en el habla de Llodio, que tantas ediciones tuvo. La semejanza es casi total. Sin embargo, Uriarte parece haber preferido, en esta oportunidad, eliminar formas que él sabía eran entonces muy locales” (Knörr 1985: 281).

²⁴² Ebakera dela eta, Eibarko udal-ordenantzotako <ch>-k [ʃ] ahoskera islatzen duelakoan nago (Zuloaga 2018: 923; cf., halaber, Altzibar 1992: 477), gaur egun bezala (Zuazo 2006b: 58), nahiz eta bitxia den <ch> digrafoa erabiltzea gaztelaniaz (eta gaztelaniatik hartua euskaraz) txetxekaria adierazten zuela jakinik. Beharbada [ʃ] ahoskera bereizteko baliatu zuen mendebaleko testuetan ohikoago ziren <y> eta <j>-ren ordez.

Ordinarichuac, 3 *Imbentaricho*, 13 *Gracicha*; 1 *eztaquichanic*, 2 *esttaichala*, 3 *barricha*, 3 *Numerichan*, 3 *gusttichena*, 3 *bialdu daichala*, 4 *gustichac*, 4 *Errichac*, 5 & 8 *gusticha*, 5 *daichela*, 6 *Ydalguicha*, 9 *errichan*, 11 *Justticichac*, 11 & 14 *procurau daichala*, 11 *andicharequin*, 11 *andichac*, 12 *azpichan*, 13 *bialdu daichela*, 14 *andichen*; 3 *imbenttarichuau*.

Salbuespenak gutxiago dira, eta oro har mailegu moderno jakin batzuetan metatzen dira: 2 & 13 & 14 *Provinciaco*, 6 *Provincian*, 9 *urgenciaric*, 11 & 12 *Provinciac*, 11 *Provinciacuan*, 14 *Justticiac*; 4 & 6 *gustiac*, 15 *gusttian*. Ondare zaharreko hitzetan *guzti* ageri da salbuespenen artean, baina epentesiarekin ere ageri da.

IsSagEsp testuan ere indar bizia du bilakabideak: 1r *poderiyoagas*, 1r *eguiyan*, 1r *matrimoniyya*, 1v *eficaciyas*, 1v *materiya*, 1v *gloriyaraco*, 2r *baliyadu*, 2v *amoriyo propiyoari*, 2v *criyadoriagañic*, 2v *descendenciya*, 3r *Miseriyas*, 3r *amoriyo*, 3v *dilubiyo*, 4r *animaliya*; 2r *biyac*, 2r *ofendidu daguiyen*, 3v *eguin eguiyala*, 4r *gustiyac*, 4r *egusquiya*, 4v *Gueiyenac*, 4v *familiyagas* eta abar. Halere, salbuespenak ez dira falta hala maileguetan nola ondare zaharreko hitz jakin batzuetan: 1r *delicias*, 1v *abundancias*, 1v *gustietatic*, 2v *ignorancia*, 2v *gustiai*, 3r *Ignorancia*, , 3v *gustioc*, 4r *gustietati*, 4r *gueienac*; 2r *demonioren*, 2v *eriozara*, 3r (birritan) *erioza*, 4r *criatura*, 4r *erracioren*, 4r *erioza* eta abar.

Testu jasoagoen artean, Arakistainen *HH*-aren eranskinean Gipuzkoakotzat markatutako hitzetan ez dut epentesirik aurkitu, baina lauko txikien sortetako batean²⁴³ <ii> bikoteak epentesia isla lezakeelakoan nago (halakotzat jo ditut Urkizu durangarraren kopletaoak). Zehazki, ahapaldi guztietan ageri da <ii> Arakistainenean, bigarren eta laugarren bertso-lerroetan puntua eginez: 2 *mendiic* - 4 *andiiic*; 6 *naguiic* - 8 *erraiic*; 10 *garbiic* - 12 *sustraiic*; 14 *echaiic* - 16 *zemaiic* eta abar. Itziariko Ama Birjinaren omenezko testu-sortan (Aldazabal, ItziarBerts, ItziarKant, ItziarKopl) ez dut *-ijV*-ren adibiderik ikusi.

4.5.3.3.3.2. Urolako testuei dagokienez, ez dago epentesirik ez Oikia aldeko testuetan, ez 1750 aurreko Azpeitia, Azkoitia eta Errezilgoetan, ez Azkoitiko sermoian, ez eta 1750az geroztiko idazle ikasienetan ere (LoiolaDot, OikiaDot, Larramendik Gandarari igorritako gutuna, Peñafloida). Inguru hartako epentesiaren lehenengo adibideak *Grand tour* (1772) lanekoak dira, baina antzerki-lan horretan gehiago dira

²⁴³ Zehazki, “Euscaldun batec eusqueraren aitari vialcen diozcan esqueremañac” izenekoa (Ondarra & Unzueta 1997: 279 eta hurrengoak).

epentesirik gabeko aldaerak, epentesidunak baino. Hona hemen lehenengo hiru orrialdeetatik ateratako bi adibide sorta:

(i) Epentesidunak: 2v *Ymperijuaren*, 3r *Ymperijo*; 3r *andijarequin*, 3r *Animalijen*, 3r *Nagucija*, 3r *andijagua*, 3r *aldija*, 3r *andijac*, 3r *bijon*, 3v *daquijan*, 3v *ematen dijuen*, 3v *chiquija*.

(ii) Epentesirikgabeak: 2r *Veneziar*, 2v (birritan) & 3r *Alemaniaco*, 2v (birritan) *animalia*,²⁴⁴ 2v *animaliac*, 3r *satisfaziua*, 3r *satisfacioa*, 3r *Ynvidia*, 3r *Relaciua*, 3r *Azcoitian*, 3r *Alemania*, 3r *Donostia*, 3r *Ungriaco*, 3r *Bohemiaco*, 3r *Conversasiuac*, 3r *eguiac*, 3v *Saviuac*, 3v *noticiac*; 2r *gustia*, 2r *mendia*, 2v *andia*, 2v *enion* ‘ez nion’, 2v (birritan) & 3r & 3v *gustiac*, 3r *daquienua*, 3r *andia*, 3r *ezan ziona*, 3r *gustiatetic*.

Ikusten denez, ugariagoak dira epentesirik gabeko formak epentesidunak baino, hitzaren historia eta izaera edozein dela.

Egoera bestelakoa da Azpeitiko udal-aginduan (1786), non *-ijV* ia sistematikoa baita bai ondare zaharreko elementuetan, bai maileguetan: 5 *ordinarijo*, 12 *Parroquijaco*, 16 *errosarijua*, 23 *Parroquijaco*, 24 *atrijo*, 26 *proporcijoz*, 30 *oficijo*, 31 *devocijo*, 44 *ocupacijo*, 48 *negocijuetaco*, 49 *leijo*, 52 *erremeriujac*, 53 *oficijuc*, 55 *Errosarijua*, 66 *noticijara*; 8 *providencijs*, 12 & 52 *ichijac*, 19 *nagusija*, 21 *guichijaco*, 27 *gueijagorequin*, 32 *Errementarijac*, 57 *iriguijac*.

Testu horretan salbuespenak dira bakan: 2 *jaijo*, 3 *Ignacio*, 40 *Ave Mariacuac*, 58 *obligaciozcua*; 1 *errian*, 10 & 16 *Jaiegun*, 48 *gucietaco*.

4.5.3.3.3. Arestiko testuez landara, Gipuzkoako gainerako lurraldeetako testuetako *-ijV*-ak ere XVIII-XIX mendeetakoak dira: ez dago alerik 1750 aurreko Tolosa aldeko testu laburretan, ez Goierrikoetan, ezta Irazuaren liburutxoan (1739) ere. Larramendiren euskal lanetan, aldiz, San Agustin eguneko sermoian aurkitu ditut *arestiyan*, (birritan) *herejiya*, *iyunzi* ‘Lar. iuntzi’ (cf. *OEH*, s.v. *iuntzi*) eta *iyorinaia* ‘Lar. liberalitate’ (cf. *OEH*, s.v. *jorinahi*).

Donostia aldeko euskararen lekukotasun zaharrena Lubietaren testua (1728) da, eta ez dakar adibiderik. Aitzitik, 1761eko maitaleen arteko gutunerian, Pepe

²⁴⁴ Kasu batzuetan erabakitzen zaila da amaierako *-a* berezkoa den eta artikulua mugatua erdialdeko hizkeretako ohiko bakuntzea ($a + a > -a$) gertatu den ala hitzak hizkera horretan berranalisiz *-a* galdu ondotik artikulua hartu duen; hots, hizpide dudan ezaugarriari eta kideei dagokienez, *animalia* ~ *animali* bezalako aldaerak daudenean (Azpeitiko euskararen ohikoa da bigarrena, *OEH*, s.v. *animalia*) ez da aise ikusten epentesia edo epentesirik eza non gertatzen den, erroan edo morfema-mugan. Begiratu, zerrenda horretan bertan, *animalia*, *notizia* eta *egia* hitzen jokabidea. Erroko fenomenoei lotutako multzoan sartu ditut halakoak, nahiz eta morfema-mugako fenomenoei lotutakoetan ere koka zitezkeen.

donostiarraren gutunetan epentesirik gabeko formak dira ia bakar (66 *bioceco*, 66 *biozaren*, 66 *consola garria*, 83 *bioc*, 85 *giago*, 87 *egusquia*, 91 *esaziozu*), baina 126 *guiyagoan* ere badago. Bestalde, Josefa altzarrarenean epentesidunak dira arrunt: 1 *Justiya*, 5 *zeriyo*, 11 *estaquiyela*, 13-14 *demostraciyoric andiyena*, 15 *graziyac*; 5 *geniyoa*, 31 *asiyendac* eta abar. Are gehiago, bi hitzen artean ere ageri da *-ijV* behin: 20 *niyere*.

Donostialdeko gainerako adibideak XIX. mendekoak dira (ez dago adibiderik Lasarteko 1716ko bertso-sortan), eta *-ubV* ageri den testu bertsetan ageri dira: Jose Bizente Etxegarairen *Festara* bertso-bilduman (Zavala 1964) *aliyatubakin*, *sitiyadoreak*, *erriyan*, *biyan*, *guardiyan*, *biyak*, *pikardiya*, *Donostiya*, *ordiyak*... irakur daitezke, adibidez eta beste hainbaten artean, lehenengo bertso-sortan (1813). Mendearen bigarren erdiko testuek ere epentesiaren indarra bermatzen dute; orduko antzerki-egileen lanetan (Soroaren lan batzuen izenburuak begiratzea besterik ez dago: *Iriyarena*, ca. 1876; *Alcate berriya*, 1885) eta bertsolariak idatziz utzitako testuetan, hala nola Bilintxenetan. Begiratu, halaber, Hernaniko 1847ko bertso-sorta bateko puntua: 2 *jarriya* - 4 *egarriya*, 6 *larriya* - 8 *garbiya* - 10 *ycaragarriya* (ETZ 235).

Gipuzkoako ipar-ekialdean, “Epentesiez ari garelarik harrigarria da *u* duten hiaotetan ezpainkaria ezartzen duen bezala *i* dutenetan yod sapaikaria ez tartekatzea Hondarribiko mintzairan bestea baino askoz erabiliagoa izaki” zioten Letamendiak eta Sagarzazuk (1992: 511) Hondarribiko 1778ko predikuaz. Garai bertsuko Irungo sermoietan ere ez dago epentesi hori (Ondarra 1987: 297), baina 1854ko testu batean badaude adibideak, erabilera sistematikoa izan ez arren: 33 *gloriya*; 74 *guciyac*, 60 *bestiya*, 81 *pistiyac*, 107 *nagusiya*, 113 *egusquiya*, 189 *urrutiyan*, 190 *eguiya* eta abar.

4.5.3.3.4. Are erdialderagokoak: Lapurdi eta Nafarroakoak

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Jean de Perusquiren inguruko prozesuan (1664; begiratu ETZ 47 eta hurrengoak) ageri da epentesia: 1 *Maiyazaren*, 1 *erriyan*, 24 *egiyazco*, 25 *beguiyen*, 27 *berriyac*, 30 *çerbiçariya* (halere, salbuespenak ere badaude: 12 *gustiacy*, 25 *biossean*, 27 *gustias*). Bestalde, pentsa daiteke Urruñatik Hondarribira igorritako lehenengo gutuneko (1680) *propioan* aldaerak ere epentesia daukala, baina adibide bakarra da hiru gutunetan (gogoratu *-ubV* ere lehenengo gutunean besterik ez dela agertzen). Etxeberri Dorreren liburuan adibide bakanak aurkitu ditut: 101 *mendijac*, 145 *hogoiyeen*, 145 *hogoi eta biyeen*. Hain zuzen ere, Padilla-Moyano (2015: 178-179)-ri jarraikiz, Lapurdiko XVII. eta XVIII. mendeetako testu inprimatu kanonikoetan oso

bakanak dira *-ijV*-ren adibideak: % 0,003 eta % 0,005 hurrenez hurren, eta Etxeberri Dorrreren eta Mihuraren lanetan metatzen dira.

XVIII. mendean Donibane Lohizunetik Berara igorritako gutunek ez dakarte epentesirik, baina Le Dauphin itsasontziko gutuneriak bermatzen du Lapurdiko kostaldeko bizilagunek bazerabilteela: “the phenomenon was most probably perceived as a vernacular feature, set apart from prestigious uses of the language, which might explain why it does not appear in literary texts” (Padilla-Moyano 2015: 180).

Nafarroan, *i* ondoko epentesiaren adibide zaharrenak XVII. mendean amaierakoak dira, Miguel Elizalderen eta bere izebaren arteko gutunetakoak (*diyo*, *baliyo*, *preziyuan*, *guziyei* aipatzen ditu Reguerok 2017: 549), eta, testuen argitan, ez du ematen orduz geroztik berehala edo/eta hainbat eremutan hedatutako berrikuntza denik (zehazki, zabalago ageri da *-ubV* epentesia): Bortzirietan ez dago *i* ondoko epentesirik 1693ko eta 1699ko gutunetan, ezta 1749ko otoitzetan ere. Halaber, ez da ageri Berako olagizonaren gutunetan (1674-1676), baina udalerrri horretako XIX. mendeko udal-ordenantzetan badago: 1-1 *erriyaren*, 1-2 *ebaquiyac*, 1-2 *guciyeq*, 1-4 *providenciya* eta abar.

4.5.3.4. Laburpena kontsonante epentetikoez

4.5.3.4.1. Hein batean, erdiko bokalen igotzeen bilakabide kronologikoaz eta hedadura geografikoaz esandakoak hiatoetan sortutako kontsonante epentetikoetarako ere balio du, nahiz eta kasu honetan ez den hain gaitza Mendebaleko lehenengo lekukotasunak zein diren zehaztea: *-ubV* da bi epentesietan zaharrena, eta Arabako ipar-sartaldean agertzen da lehenengoz, Abendañoren aienean (*ditubala*) eta Urduñako XVII. mendeko hiztegitxoan (*calcaiduba*, *ustapicuba*). Bestalde, *-ijV* epentesiaren lehenengo adibideak XVIII. mendekoak dira Mendebalean, aurrekoarenak baino berankorragoak, nahiz eta bigarren epentesiak lehenengoak baino luzaroago iraun duen.

4.5.3.4.2. *-ubV*-ren lehenengo adibideak Bizkaian Arabakoak baino berriagoak dira, beraz: Arzadunen eta Urkizuren lanen artean dagoen aldeak islatzen du jada 1730eko hamarkadan idazleek hautuak egiten zituztela ezaugarri honen inguruan. Arzadunek ez dakar adibiderik, baina Urkizuren 1737ko liburuan zein 1740ko kopletan aruntak dira; 1737ko liburuan, gainera, amaierako kopletan ez ezik, hitz lauzko pasarteetan ere agertzen dira. Aurrekoaren ildotik, hala Kardaberatzek nola Olaetxeak ez zuten *-ubV*-rik eman, nahiz eta Larramendik (1728: 121) eta Kardaberatzek berak

(Altuna & Zulaika 2004 [1761]: 44) ezaugarri hori aipatu edo erabili Bizkaiko euskara ezaugarritzeko.

1750az geroztik hedatuta agertzen da *-ubV* jaurrerian: Gandarak ez du adibiderik, baina Bermeo aldeko testuetan badago, eta Bizkai sortaldekoetan (Markina zein Durango aldekoetan) ere bai; halaber, epentesiak indar bizia du XIX. mende hasiera-hasierako Gernikako eta Abadiñoko Gabon-kanta banatan. Garaia zein den aintzat hartuta, pentsatzen dut zenbait kasutan behintzat *-ubV*-ren erabilera ez tokiko hizkeraren, ezpada sasoiko literatur moden ondorio dela. Hain zuzen ere, Astarloaren eraginaz aritu naiz (§5.3.3.2.3.2) Bizkai sartaldeko Sarriaren zenbait erabilera azaltzeko, nahiz eta horrek ez dakarren jaurreriaren mendebalean *-ubV* egon ez izana: Orozkoko 1739ko otoitzek eta Zolloko 1770eko galdetegiak ez dakarte adibiderik, baina XIX-XX. mendeetako datuek erakusten dute Bizkaiko hego-mendebalean existitu zela (Zuloaga 2013: 606). Bulda-n ere indartsu agertzen da epentesia.

Bizkaitik kanpo, *-ubV* ezohikoa da Arabako testu gehienetan, baina Albenizek baditu adibideak.

Gipuzkoan bestelakoa da egoera, XVIII. mendeaz geroztik agertzen baita inguru batzuetan: Arrasate aldea eta Eibar berritzaile dira, mende hasierako testuez geroztik agertzen baita epentesia, Amilletaren dotrinan eta Eibarko bertako 1685eko kopletan ez bezala; gainera, badirudi denboran aurrerago, epentesia indartsuago zegoela Eibarren: 1721eko koplak eta 1754ko udal-agindua erkatzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Halaber, epentesiak indar bizia du IsSagEsp anonimoan.

Deba ibarretik ezker, Urola aldeko testu erlijiosoek ez dute *-ubV*-rik, baina kasu honetan ez da bokal-igotzeen bidez egin zitekeen bereizketarik egiterik idazle jantziagoen eta testu herrikoiagoen artean: Peñafloidako kondearen testuetan zein *Grand tour* antzerki-lanean aurki daitezke adibideak, besteak beste.

4.5.3.4.3. *-ijV* epentesiaren ibilbideak bestelako ñabardurak ditu. Lehen esan bezala, Mendebalean ez da *-ubV* bezain zaharra, baina denboran aurrera egin ahala hedatuago eta indartsuago agertzen da: aintzat hartzekoa da *-ubV* desagertua dela gaur egun Mendebal eta Erdialde gehiengan, baina *-ijV* dagoen hizkeretan sistematikoa dela.

Bizkaiko lehenengo adibideak XVIII. mendekoak dira, eta sortaldeko testuetan agertzen dira: Arzadunen eta Urkizuren 1737ko lanen artean ohiko banaketa dago; hots, Arzadunek gordetzaile jokatu zuen, eta ez zuen epentesirik eman. Urkizuk, bestalde, 1737ko liburuaren amaierako kopletan erabili zituen, berriz ere koploi kutsu herrikoiagoa emateko-edo. Urkizuk berak, ordea, baztertu egin zuen epentesi hau

1740ko koplak landuagoetan, Olaetxeak eta Kardaberatzek hogeita hamar urteren buruan euren dotrinetan egin bezala. 1750az geroztik oso zabal agertzen da epentesia jaurrean: badirudi hedatua zela, gaur egun bezala, erdialde (Bermeo, Gernika) eta sortalde (Markina, Durango) osoan. Bestalde, Bizkai sartaldea gordetzailerik da oro har, baina Bilboko eta Nerbioi ibarraren iparraldeko testuetan badago *-ijV*, gaur egun legetxez.

Ez dirudi *-ijV* epentesiak Araban indar handirik izan duenik: XVIII. mendeko testuen artean DotrSerm mardulak besterik ez dauka, eta Ulibarrik (2015: 151-152) ez du baztertzen idazlearen estilo-hautua izatea.

Gipuzkoan, Bizkaian legez, ezaugarria XVIII. mendean agertzen da, baina berankorragoa da: Eibarko 1754ko udal-ordenantzan aurkitu ditut lehenengo adibideak, eta indar bizia du testu horretan; harez geroztik, IsSagEsp testuan ere adibide ugari daude, eta Arakistainen laukoetako <ii>-ak ere halakotzat jo litezke. Deba ibarretik eskuin are berankorragoa da epentesia: ez dago adibiderik Azpeitiko 1740ko gutunetan, baina udalerri bereko 1786ko udal-ordenantzan indar bizia du, *Grand tour* antzerkian legetxez. Urola aldeko erlijio-testu luzeek eta 1750az geroztiko idazle ikasiek idatzitakoek, aldiz, ez dakarte *-ijV* epentesirik.

4.5.4. Eremu txikiko zenbait berrikuntza

Besteak beste, hizkuntza-egituren barnean berrikuntzak gertatzeko erraztasun edo arruntasun linguistikoak eta berrikuntzak sortzen eta hedatzen dituzten gune edo fokuen unean uneko indarrak baldintzatu ohi dute norainokoa den ezaugarri berri baten hedadura; alegia, noraino hedatzen den hiri, ibar edo eskualde batetik hiztun-erkidegoen arteko harremanen bidez. Bada, kasu batzuetan berrikuntza horiek ez dira askorik hedatzen: ez dira herri/hiri, ibar edo eskualde batetik harago zabaltzen, baina, ihartu gabe biziraunez gero, eremu horien ezaugarri eskusibo eta/edo bereizgarri bihurtu daitezke. Hain zuzen ere, era horretako zenbait aipatuko ditut atal honetan.

4.5.4.1. *-obV* epentesiaz

Aurretik aipatutako bi epentesiez gain, eremu jakin batzuetan epentesia kontsonantikoa sortu zen /o/ erdiko bokalaren ondotik. Juan Mateo Zabalak hala deskribatu zuen fenomenoak, Orozko aldeko euskaraz ari zela: “cuando la *o* roza con la *a* les hacen mediar una *b*, diciendo v.g. ‘doba’ por ‘doa’” (1848: 55). Garai bertsuan, Uriarteren lagun Oarabeitiak Bonaparteri jakinarazi zion Orozko/Baranbio aldean *aoba*, *artoba*, *otzoba* eta *ardaoba* bezalakoetan epentesia oso leun ahoskatzen zela, eta hiztun

“zahar eta traketsek” -*omV* aldaera ere bazerabiltela (Ruiz de Larrinaga 1957: 432). Bonapartek, halaber, Orozko aldeko euskararekin lotu zuen -*obV* epentesia.²⁴⁵

XIX. mendea baino lehenagoko testuak arakatuta, corpuseko testu bakar batean aurkitu ditut -*obV* epentesiaren zenbait adibide ziur:²⁴⁶ Nerbioi ibarraren iparraldean, Sarriaren sermoietan 11 *picaroba*, 20 *amodiyobagaitic*, 34 *acaveravacoba*, 39 *gaistoba* eta 39 *nengoban* bezalakoak daude, asko izan ez arren. Aitzitik, hegoalderagoko XVIII. mendeko testuetan ez dut adibiderik aurkitu (OrozOtoi, ZolloGald, DotrSerm).

Onomastikaz bi hitz esatearren, aipa dezadan Barakaldoko *Garamilloba* eta *Espinóbeta* toponimo berantiarretan ere ageri dela (Saiz & Ros 2001: 69-70), baina aintzat hartu behar dira erdaldundutako eremuetan ageri diren era horretako aldaerez esandakoak. Euskaldun iraun duten eremuetan (zehazki, Arratia ibarrean) ere badago arretaz aztertzeko kasu bat: Madariaga kaligrafoak aipatutako (1565: 108) *Oa* toponimoa epentesi eta guzti ageri da garai modernoagoetan: *Oba*. Mitxelenak (1966: 125) ikusi zuenez, XVII. mendean *Oa* ahoskatzen zen oraindik. Hain zuzen ere, aldaera hori aurkitu dut Dimako 1705eko fogeraioetan, baina hamarkada gutxiren buruan aldaera epentesiduna agertzen da: *Oba* (eta *Oba Ortuondo* eta *Oba echabarría*) daude 1745eko fogeraioan, eta *Oba* besterik ez 1796koan.

Kronologikoki ez ezik, geografikoki ere interesgarri da azken toponimo hori, eremu euskaldunean sortu delako eta beste puntu bat gehitzen diolako berrikuntzaren mapari: XIX. mendeko ikertzaileek aipatutako Orozko eta Baranbio aldean ez ezik, ibar mugakideetan ere lekutzen dira; zehazki, Nerbioi ibarrean eta Arratian.

4.5.4.2. Orozko aldeko bi berrikuntza eskusibo

4.5.4.2.1. -*u* + *aC* > -*ueC* > -*uiC*

/u/ bokal itxiaren ondotik asimilazio-katea gertatzen da Orozko aldeko euskaran, eta hori da inguru hartako hizkeraren bereizgarri handienetako bat, berrikuntza eskusiboa baita (Zabala 1848: 55, Uriarte, *apud* Ruiz de Larrinaga 1958: 430, Ulibarri 2008: 199).²⁴⁷ Iragarritako bilakabideari jarraikiz, *orduan* > *orduen* > *orduin* (eta, *ordin*,

²⁴⁵ XIX. mende amaierako zein XX.aren hasierako lekukotasunez, begiratu Ulibarri (2008: §3.2.1) arakatzeko zehatza. XX. mende hondarreko dagokienez, bestalde, Baranbio Goikoako Pilar Isasi elkarrizketatu zuen Federico Barrenengoak 1974an, eta elkarrizketan *doba* ‘do’a’ dioen arren, *artoa*, *Garrastatxukoa* (top.) eta *noa* ere badarabiltza. Grabazioa Interneten entzun daiteke: <http://ahotsak.eus/amurrio/hizlariak/pilar-isasi/> [Azken kontsultaren data: 2017/02/28].

²⁴⁶ Inork ikus lezake epentesia *Perutxoren kanta*-ko (1539 [1536]) 6 & & 13 *Lelo lirelo çarayleroba* errepikako azken hitz horretan; aitzitik, esanahirik gabeko apain-lerroa izanik, ez dut lekukotasun ziurtzat jo.

²⁴⁷ Berrikuntza ez da Nerbioi, Zeberio eta Arratia mugakideetara hedatu, baina Nerbioi ibarraren iparraldean *zurok* ‘zuek’ aldaerarekin batera *zuik* ere badago. Behin-behinean, berrikuntza beregaintzat

hiztunaren eta hizketa-abiadaren arabera)²⁴⁸ edo *doskuez* > *doskuiz* ‘deuskuez, dizkigute’ gertatzen dira, Orozkoren ibar mugakideetan ez bezala.

Kronologiari dagokionez, ematen du bilakabidea oso modernoa dela, XVIII. mendearren bigarren erdikoa edo; izan ere, OrozOtoi-n *Rui*-ren zenbait adibide dauden arren (§4.6.2.1.2), ez da ageri bestelako aurrerapausorik bilakabidean. XIX. mendeko gramatikari eta ikertzaile bizkaitarrek arauaren berri eman aurretik, DotrSerm mardulean aurkitu zuen Ulibarrik asimilazio-katea proposarazten duen emaitza, baina *Rui*-k ez dituen zenbait murriztapen ditu testu horretan: “(1) deklinabide kasuek edo aditzen atzizkiek eragindako bokal bilkurekin baino ez da gertatzen, (2) ezin da kontsonanterik izan u/i eta bokalaren artean eta, dirudienez, (3) ezin da amaiera absolutuan gertatu (i.e. ***burui*, ***maisui* bezalakorik ez” (Ulibarri 2015: 148).

Aurreko datuek informazio interesgarria ematen dute berrikuntzaren difusio-eremuez; izan ere, Orozko Arabako ipar-ekialdearekin (Baranbio eta Aiara aldea) lotzen du, berrikuntza Orozkotik hara edo handik Orozkora hedatu izan balitz bezala, Bizkaiko hego-mendebaleko (Nerbioi ibarreko eta Arratiako) hizkeretatik berezita.

4.5.4.2.2. *-io-* > *-(i)u-*

Orozkoko eta Aiarako hizkerarekin lotu zuen Zabalak *egin*-en adizkietako asimilazio bat, *egiozu* > *eguzu*, *dagiodan* > *dagudan* bezalakoak eragiten dituen.²⁴⁹ Bonapartek ez zuen horren berri eman *Langue basque et langues finnoises* lanean, eta hori ohartarazi zuen Azkuek printzearen lanari eginiko oharretan:

Se observa en la misma comarca bizkaina con la vocal dura o convertida en *u* por influencia de su compañera *i* también precedente: en vez de *Baranbion* y *biok* dicen siempre los orozkoanos *Baranbiun* y *biuk*.

Estando redactando esta cuartilla se me ocurre que años enteros se me han pasado sin poder explicar la coexistencia de *dut*, *duk*, *dun* y *duzu* con *dot*, *dok*, *don* y *dozu* en Baranbio, aldea alabesa conante con Orozko; y únicamente por la existencia de *Baranbiun* y *biuk* puedo explicarme por qué el auxiliar transitivo tiene o en sus flexiones tras algunos infinitivos y *u* tras varios otros. Después de *esan*, *il* e *irato*, por ejemplo, dicen los barambieses *esan dot*, *il dogu*, *irato dozu*; pero después de verbos terminados en *i* surge el fenómeno de *biuk* y *Baranbiun* en *ekosi ut*, *ekari ugu*, *eusi uzu*. (Azkue 1926: 22)

daukat azken aldaera hori; izan ere, Gaminderen datuen arabera (2007: 101), bigarren pertsona pluraleko izenordainak forma bakarra du Orozkon: *surok*.

²⁴⁸ Nolanahi ere den, ez du ematen hitz horretatik harago hedatu denik; begiratu Ulibarri (2008: 199, 11. oin-oharra).

²⁴⁹ “Mas no quiero pasar en silencio por su singularidad, el modo que tienen en Orozco, Barambio, Llodio y Luyando de caracterizar de recipiente a los artículos de 3.a persona de la radical *egin*. En estos pues quitan a dicha radical la *i*, y en vez de la caracterfstica *o* ponen despues de la *g* blanda una *u*, diciendo «eg'-u-zu, dag'-u-dan, neng'-u-n, guen'-u-n por egui-o-zu, dagui-o-dan, nengui-o-n, guengui-o-n»” (Zabala 1848: 46).

Ulibarrik (2008: 199) lege fonetiko bat dakusa bilakabide horri loturik. Antzinasunari dagokionez, OrozOtoiko otoitzetako 19 *erruquiurra* eta 62 *biurtu* aipatzen ditu, zalantzati, *uR ~ oR* txandaketaren ohikotasuna eta bestelako adibiderik eza direla eta (*FHV* 50). Nolanahi ere den, DotrSerm testuan argiak dira adibideak: *biutaric*, *viciu*, *deguiula* eta *demoniu* aipatzen ditu Ulibarrik (2015: 152).

4.6. Beheko bokalaren asimilazioa

4.6.1. Ezaugarriaren deskripzioa

Mitxelenak azaldu zuenez, “En zonas muy distintas del país se observa el cierre de *a* en *e* detrás de *i* y *u* en la sílaba anterior:²⁵⁰ más precisamente, la pronunciación de /a/ se ha ido apartando de la normal hasta llegar a ser una variante de /e/ (...) Naturalmente el cierre se produce solamente cuando ambas vocales se encuentran en sílabas estrechamente unidas en la pronunciación” (*FHV* 51).

Mitxelenaz geroztik, De Rijk (1970)-ek landu zituen asimilazio honen gorabeherak, eta bilakabideari *Rui* deitu zion. Haren ondotik, *low vowel assimilation* edo *beheko bokalaren asimilazio* ere esan izan zaio (Hualde 1991a eta 1999; Hualde & Gaminde 1997; Gaminde 2002 eta 2007; Hualde & Ortiz de Urbina 2003, Zuloaga 2017a), eta atal honetan era batera nahiz bestera aipatuko dut.

Bilakabidearen izaeraz denaz bezainbatean, oso gorabeheratsua da: gaur egun ez ditu indar eta murriztapen berberak hizkera guztietan (Hualde 1991a: §2, Gaminde 2007: 27), baina asimilazioa eragiten duen hotsaren kokagunea (erroaren amaiera) eta asimilazioaren direkzionalitatea (errotik eskuin) komunak dira hizkera guztietan; cf. Hymanen (2002 edo 2008) deskripzio eta proposamen argigarriak eragileez eta direkzionalitate-gaiez, egiazki bokal-harmoniaz ari bada ere.

Geografiari nagokiolarik, aipatzekoa da Hego Euskal Herrian ezaugarri argiro supradialektala izan arren, ez dela Ipar Euskal Herriko hizkeretara zabaldu.

Berrikuntzak tesi honetan aztergai den Euskal Herriko Mendebalean (eta, bereziki, Bizkaian) dauka inon baino indar biziagoa hala egungo hizkeretan nola aurreko garaietako testuetan; halere, gaitza da lekukotasunen artean garaikako zein eremukako jarraitutasun garbirik irudikatzea, isolatu-antzean ageri baita. Hori dela eta,

²⁵⁰ Cf.: “In the concept of vowel we must include glides, since glides will also trigger the process. Glides are never underlyingly distinct from vowels and can be assumed to be created by a later rule” (Hualde 1991a: 23).

hemen aztergaia lekutzen duten testuak besterik ez ditut aipatuko, banan-banan; ondotik, orokorrago jardungo dut Bizkaitik kanpoko testuetako lekukotasunez eta hutsunez.

Zehazki, Hualdek (1991a), Urgellek (2001b) eta Ulibarrik (2010a) bereizitako kokagune edo testuinguruak aztertuko ditut testuz testu: hitzen erroa, inflexioa (artikulu definitu singularra eta plurala, artikulu mugatuari erantsitako deklinabide-atzizkiak eta artikulurik hartzen ez dutenak), eratorpen-atzizkiak, adizkiak (eransten zaizkien atzizkiak eta adizki jokatuetoako morfemak) eta klitikoak. Ez dago asimilaziorik hitz konposatuetoako osagaietan eta [izen + adjektibo] egiturako sintagmetan, Hualderen (1991a, 1999) lanak aintzat hartuta espero zitekeenarekin bat etorritz (begiratu, halaber, Gaminde 2002: §3.5).

4.6.2. Ezaugarriaren hedadura testuetan

4.6.2.1. Bizkaiko testuak

Lehenengo testuetatik XVIII. mendearen amaiera artekoetara mendebaleko zazpi iturritan aurkitu ditut berrikuntzaren adibideak. Zaharrenak VJesus testukoak dira, Mitxelenak (*FHV* 51) berak aipatutakoak. Ondotik daude jatorri ezagunik gabeko Orozkoko 1739ko otoitzak, Amorotoko 1754ko armarria, Zolloko 1770eko galdetegia, hamarkada bereko *Dotrinazko sermoitegia*, Bizente Sarria etxebarritarraren sermoiak eta Bulda. Antzuola/Bergara aldekotzat jo izan den 1708k sermoian ere deskribatu izan da *Rui* (Etxebarria 2007: §2.1.1 eta, hari jarraikiz, Zuloaga 2017a: §4.3), baina eskuizkribua zehatz aztertuta, halakorik ez dagoela erakutsiko dut (§4.6.2.3.1).

4.6.2.1.1. VJesus (ca. 1640)

Hainbat alderditatik da interesgarri *Viva Jesus* esapidearekin hasten den katixima, testuaz nahi baino gutxiago ezagutzen den arren: anonimoa da, ez du datarik eta hizkeraren jatorria ere ez da guztiz argia. Nolanahi ere den, hizkuntza-ezaugarriei dagokienez, ezer gutxi gehi dakieke Ulibarrik (2010a) emandako azalpenei; beraz, hark esandakoak hartuko ditut hemen oinarri, zenbait kasutan adibide gehiagorekin osatuta.

Hualdek (1991a) bereizitako testuinguruetoatik bostetan aurki daiteke beheko bokalaren asimilazioa VJesus-en; zehazki, (i) erroan, (ii) artikulu mugatuan eta deklinabide-atzizkietan, (iii) eratorpen-atzizkiren batean, (iv) adizkietako atzizki eta morfemetan, eta (v) klitikoetan. Hona hemen bost testuinguru horiei dagozkien adibideak:

(i) Testua idatzi zen sasoian indar bizia zuen erroan. Alde batetik, ondare zaharreko hitzetan eta zenbait mailegu zaharretan agertzen da: 2 & 6 & 8 & 16 *hicen* ‘izan’, 3 *bulerrean*, 3 (lautan) & 6 & 14 *libredu*, 4 & 5 (lautan) & 9 (birritan) & 12 & 13 *dire*, 4 & 7 (birritan) *irecasten*, 4 *iteundu* & *Yteundu*, 5 & 7 & 14 *baye* ‘baina’, 6 & 7 (birritan) & 8 & 13 & 15 (birritan) *Ayte*, 4 & 12 & 13 *gauce*, 8 *seculeco*, 8 (seitan) & 9 (birritan) *gure* ‘gura’. Halaber, erlijioari lotutako eta tradizioz ondo finkatutako hitz eta izen propioetan dago asimilazioa: 8 *Piletosen* (baina 2 *Pilatosen*), 3 & 6 & 8 *Trinidede* (baina 2 *Trinidadecoa*)²⁵¹ edo 5 & 6 (birritan) & 8 & 14 (lautan) & 15 *Marie*. Beste alde batetik, mailegu modernoagoetan ere arrunt ageri da berrikuntza: 2 *sinifiqueduric*, 3 *acostumbredu*, 3 & 11 & 15 *confianza*, 4 *ordineriemte*, 5 *sabidurie*, 5 *distinte*, 5 *diferencieric*, 6 *milegrosamente*, 7 *Esquiriture*, 8 *Criedoreagan*, 8 & 13 & 15 *obligueduric*, 10 *circunstancie*, 11 *penitencie*, 15 *obligeziño*, 15 (birritan) *Espirituelorri* eta abar.

Salbuespenen sortan, 12 & 15 *gauza* dago ondare zaharreko hitzetan. Gainerako salbuespenak, Ulibarrik (2010a: 56) adierazi bezala, gutxi dira eta mailegu modernoetan daude: 2 *crucificadue*, 12 *juramentu* eta 15 *criadorea*.

Berrikuntzaren indarraren erakusgarri da aldaera asimilaziodunak sistematikoki agertzea arestian aipaturiko hitz batzuen erroetan. Behin bakarrik eta asimilazioarekin agertzen direnen artean aipa daitezke *akostunbredu*, *baie*, *distinte*, *erresuzitedu*, *eskiriture*, *espirituel*, *exsaminedu*, *fundedu*, *inbidiedu*, *irekatsi*, *kapazidede*, *katolike*, *konfianza*, *libredu*, *memorie*, *milegrosamente*, *miserikordie*, *obligeziño*, *obligedu*, *ordineriemte*, *persinedu*, *sabidurie*, *santifikedu*, *sekuleko*, *sinifikedu* eta *zirkunstanzie*. Behin baino gehiagotan eta asimilazioaz sistematikoki agertzen dira, besteak beste, *aite*, *bedeinketu*, *birjine*, *bizitze*, *buler*, *eguzeri*, *iteundu*, *kristineu*, *Marie*, *ostie*, *penitenzie*, *santiguedu* eta *santisime*.

Bestalde, *deunge* aldaera besterik ez dago testu osoan hitzak artikulua definitua hartzen ez duenean. Hitzak mendebal zabalean duen tradizioa ezagututa, kasu horretan ere beheko bokala (jatorriz *-e* izanda berreraiketa analogikoz *-a*

²⁵¹ Lat. *-tas*, *-tatis* eta gazt. *-dad* duten formetan ia sistematikoa da *-dede* VJesus-eko euskal hitzetan: aipatutako 3 & 6 & 8 *Trinidede*-z gain, cf. 4 *capazidede*, 7 *Caridedegaz*, 12 *Caridedecoa* & *Caridedea*, 13 *caridedean*, 15 *Caridedecoa*. Salbuespen bakarra arestiko 2 *Trinidadecoa* da.

berranalizatu bide zena; cf. *eskerge* ~ *eskerge*) asimilatu zelakoan nago; hots, *deunge* > *deunga* > *deunge* bezalako prozesu bat gertatu zelakoan.

(ii) Eman dezake beheko bokalaren asimilazioa artikulatu mugatua dabilela inon baino indartsuago; baina, kontuan hartu behar da maiztasunak ere baduela eraginik, kokagune horretan baitaude bilakabidearen adibide gehienak. Hona hemen zenbait adibide, artikulatu definitua eta artikulatuaren gainean eraturako deklinabide-atzizkiak dituzten hitzak bereizita:

(a) -a & -ak: 2 *cumplimentue*, 3 *Mundue*, *Demoniñoa ta arague*, 4 *jaune*, 4 *Cerue*, 4 *lurre*, 5 *Espiritu Santue*, 6 *verdaderue*, 8 *crucifiquedue*, 8 & 9 *burue*, 9 *Bautismue*, 9 *graciie*, 10 *conciencie*, 10 *propositue*, 10 *gorpuce*, 11 *hostie*, 14 *ogie*, 14 *frutue*, 15 *andie*, 16 *anguerkue...*; 5 *irurec*, 8 *viciec eta hilec*, 9 & 10 & 14 *pecatuec*, 12 *zaspirec*, 13 *hondasunec*, 13 *fundeduc*, 16 *trabajuec...*

Halaber ageri da asimilazioa lehenengo graduko artikulatu zaharretan: 9 (birritan) *santueu*, 14 *betacarieu*, 14 *destierruheu*.

(b) Artikuluaren gainean erantsitako markak: 2 *orduen*, 3 *becoquien*, 9 *Bautismuen*, 11 *horduen*; 3 *andiegas*, 15 *Pensamientuegas*, 16 *graciegas*; 14 *zorduney*, 15 *gustiei*; 11 *mercimentuec gaiti*, 15 (birritan) *erruegaiti*, 15 *andiegaiti*, 16 *mercimentuec gaitic...*

(c) Oinarrian artikulatu ez duten deklinabide-kasuetan ere badago asimilazioa: 6 *gugueitic*; 14 *guguena*, 14 *gueuguena*; 6 *moduten*; 13 *biten*; 14 *zuges*.²⁵²

Ulibarrik (2010a: 56) zerrendaturako salbuespen berberak aurkitu ditut (b) atal honetakoei dagokienez: alde batetik, 2 *gustia* eta 11 *ciertua* absolutibo singularrak, 4 *seiñay* datibo plurala, eta 3 *gustian* eta 8 & 16 *gracian* inesibo singularrak; bestalde, 2 *mundura* adlatiboa eta 15 *nigaiti* motibatiboa.

(iii) Eratorpen-atzizkiren batek du beheko bokala asimilaturik: *-tza* atzizkian ageri da asimilazioa (2 *vicice*), baina ez dago *-gerren-ik* (12 *Bigarrenac*, 12 *Yrugarrenac*, 12 *Laugarrenac*, 12 *Seigarrenac*, 12 *Zazpigarrenac*, 13 *Zorcigarrenac*, 13 *Bederacigarrenac*), Mitxelena (*FHV* 51) aipatu bezala. VJesus-en ez dut aurkitu *i* edo *u* bokalen ondoko *-tasun*, *-garri* edo *-kada-rik*.

²⁵² Aintzat hartzekoa da Ulibarriren oin-ohar hau: “Aipagarria da bizidunen *-ga-* atzizkian *u-*dun formetan bakarrik aurkitu dugula *Rui* erregela, eta ez *i-*dunetan. Berdin gertatzen da datibo markekin: *u-*dun adibidean bai (*zorduney*), baina *i-*dun adibidean ez (*seiñay*). Esanguratsua izan liteke, tamalez adibide gutxitxo izan arren” (2010a: 56 20. oin-oharra).

Beste alde batetik, *-ago* graduatzaileaz ari zela, hau baieztatu zuen Gamindek: “[beheko bokalaren asimilazioa] *-AGO* graduatzailearekin ez da sekula aplikatzen; *andiago* (***andiego*)” (2002: 8). Beharbada Bizkaiko egungo hizkera batzuk edo gehienak deskribatzeko balio du baieztapenak, baina ez iraganerako: VJesus-en behin ageri da 10 *gueiago*, baina asimilaziodunak dira nagusi: 12 & 16 *gueiego*, 5 (birritan) & 10 & 12 *gueyego*. Ematen du Bizkaiko hegomendebalean XIX. mendera arte iraun zuela asimilazioak *-ago* atzizkian: Astigarraga sermolari basauriarrak, Laudioko 1858ko dotrinak, Arrigorriagako dotrinak eta Arratiako dotrinak badakarte, nahiz eta Orozkokoan *-ago* besterik ez agertu²⁵³ (Zuloaga 2013: 606).

(iv) Adizkietako atzizki eta morfemetan sistematikoa da beheko bokalaren asimilazioa (salbuespen bakarra 2 *etorri cidina legues* da). Ulibarrirekin (2010a: 57) bat, honako hauetan ageri da:

– Erlatibozko perpausetako artikulua: 7 *ecusi eztogune*, 11 *esan dogune*, 16 *hicen didineri*.

– *-(a)la* menderagailua: 3 (birritan) *esaten dogule*, 3 *guei eguiten deucegule*, 13 (lautan) *ce didile*, 16 *emongo deustezule*.

– Subjuntiboko adizkiei gehitutako *-tzat* atzizkia: 16 *icen didincet*.

– *-da-* eta *-a-* datibo-markak: 15 *ameetan zaytudelaco*, 16 *ofendidu ciñeydezan*, 16 *ofrecietan deuzudes*; 4 *Eranzuten deucet*, 15 *erregüetan deuzet*, 16 *parcatuco deustezucela*, 16 *alcanzaduco leucela*.

– *-(a)n* menderagailua (erlatiboarena, lehenaldikoa zein subjuntibokoa izan): 9 *parcaetan ditucen*, 9 *eguiten gatucena*, 10 *eguin ditucen*; 2 *esan situcen*, 2 *eguin situcen*, 7 *eguin guenducen*, 7 *Cetaraco senguisen*, 9 *artu guenduen*; 3 (hirutan) *libredu gaguicenzat*.

– *eduki* ~ *edugi*-ren adizkietako *-ka-* osagaia: 6 *beuqué*, 13 *dauquezalaco*, 16 *Deuquet*.

(v) Asimilazioak ez du hainbesteko indarrik ondoz ondoko hitzen artean, oro har lehenengoaren amaierako bokal itxiek ez baitute hurrengoaren hasierako bokal irekia asimilatzen. Esate baterako, ez dago $\{i/u\} + bat > \{i/u\} bet$ edo $\{i/u\}$

²⁵³ Halere, gaur egun *andigo* bezalako forma asimilaziodunak erabiltzen dira Bizkaiko hegomendebalean, eta badirudi horra iristeko *-iago* > *-iego* > *-iigo* > *-igo* proposatzea dela errazena; cf., halaber, *andiegoanean*, Etxebarriak (2016: 319) Zeberioko hitzun bati jaso.

+ (e)ta > {ⁱ/u} (e)te²⁵⁴ bezalakorik, gerora lekututako hainbat hizkeratan ez bezala. Egia da 9 *ceimbet* agertzen dela behin (4 & 5 & 10 *ceimbat*-en aurka, bide batez), baina hor lexikalizatutako forma dago.

Arestian aipatutako -u + (h)au > -ueu bezalako formez landara, VJesus-eko klitiko asimilaziodun bakanak adizkietan ageri dira. Alde batetik, *izan*-en orainaldiko zein lehenaldiko 3. pertsona singularretan: 8 *concebidu sen*, 8 *erresucitedu cen*; 5 & 8 *cein den*, 12 *au de* (baina 10 *au da*). Halere, ez dirudi aldaketak indar handirik zuenik kokapen horretan: 8ko bi *zen* horiei dozena bat *zan* kontrajartzen zaizkie, eta orainaldiko formak azalpenak emateko egituretan (*au da* eta *zein den* ‘alegia’ adierazteko) besterik ez dira ageri, Ulibarrik (2010a: 57) aipatu bezala. Aurrekoez gain, 4 *iteundu dequionean* eta 15 *ecin belidi* besterik ez daude ondoz ondoko hitzen artean.

4.6.2.1.2. OrozOtoi

OrozOtoi testuko otoitzak dira halako ziurtasun batekin Orozko aldean koka daitezkeen lekukotasun zaharrenak, eta testuan hogeita bost hitzetan aurkitu dut $a \rightarrow e / \{^i/u\}$ (C)_ asimilazioa; aldiz, berrikuntza izan zezaketen hitzetatik hogeita bitan ez da ageri. Sail batean nahiz bestean hitz batzuk errepikatzen direla aintzat hartuta (hala nola *Maria* hamaika aldiz asimilaziobakoen artean), forma asimilaziodunak gehiago dira guztira. Hona hemen adibideak:

(i) Hitz-erro hauetan agertzen da *Rui*: 2 & 43 *Misericordiecoa*, 15 *vedeínquetua* & 81 *B[e]deynquetu*, 23 *ícen* & 82 *Yzen* ‘izan’, 33 *baitte* & 50 *bayte*, 42 *graciecoa* & 65 *graciera*, 55 *bulerreco*, 59 *Yregaro*, 65 *alavie*,²⁵⁵ 68 *gauce*, 84 *Virgine*, 84 *Originelen*. Aitzitik, ez dago asimilaziorik 1 *Regina*, 19 *Piadosa*, 20 & 36 & 42 & 71 & 72 & 74 & 76 & 78 & 80 & 84 & 86 *Maria*, 47 *Gloria*, 76 *Santíssima* eta 76 *Trinidad*e mailegu gordinetan.

(ii) Artikulu mugatuari eta horren gainean erantsitako deklinabide-markei lotuak dira beste hauek: 64 *pecatarieci*, 68 *gustieci*; 45 *horduen*; 49 *santuari*. Salbuespen dira, bestalde, 18 *biguna*, 31 *santtuari*, 59 *graciac* eta 67 *Arimaac*. Oinarrian artikulurik ez duten deklinabide-atzizkietan ere ez dago asimilaziorik: 7 *Zeugan*, 11 *gueugananch*, 21 *gugatic*.

(iii) Testua ez da aberatsa konposizioaren eta eratorpenaren esparruan, eta forma bakanen batean zalantza egin daiteke asimilazioa ote dagoen: 25 *aguinze*

²⁵⁴ *Eta* konjuzioak hasierako bokala galdu ohi du klitiko bihurtzen denean (begiratu Hualde 1991a: 30).

²⁵⁵ *alavie* pro *alavie* dagoela ulertuta (65-67 *alavie daguizuzela eureen peneetic Purgatorioco Arimaac* dio jatorrizkoak).

hitza, esate baterako, *agintza*-ren aldaeratzat jo daiteke, baina Hego Euskal Herriko aldaera ere bada *agintze* (OEH, s.v. *agintza & agintze*).

(iv) Atzizkietan honako morfema asimilaziodun hauek aurkitu ditut, denak ere aurretik agertu diren testuinguruetan: 57-58 *artu zenguizenac* (erlatiboa); 61 *esqueetan deusegu* (dat. sg.); 59-60 *Yregaro zenguizelaco*, 61-62 *parcatu daguicela* eta 62-63 *bíurtu daguizucela* *-(a)la* menderagailua, lehenengoa kausari lotua eta garaitiko biak subjuntiboko perpaus osagarrietakoak).

(v) Klitikoetan ez dut asimilaziorik aurkitu, nahiz eta horretarako testuinguru egokiak agertu, *eta* juntagailua tarteko. Testuko puntuazio-markek eurek islatzen duten etenaren ondorio ere izan daiteke halakoetan asimilaziorik ez agertzea: 30 *Gloria aytteari, tta Semeari*; 37 *San Joaquin, ta Santta Ana*; 41 *gorpuz, ta Arimea*; 81 *B[e]deynquetu, eta alabadu*. 48-49 lerroen artean ez dago komarrik, baina lerroa bera aldatzen da: *Semeari / ta espiritu Santtuari*. Testu honetan, Bulda-n legez, *bai eta > baita > baitte* lexikalizatuan ageri da *Rui* (gogoratu aurretik aipatutako 33 *baitte* & 50 *bayte*).

4.6.2.1.3. Amorotoko armarriak (1754, 1784)

Gerrak Amorotoko herri-guneko Iturraranbekoa etxearen aurrealdeko armarriaren eta bertan zizelkatutako euskal idazkun baten berri eman zion Dodgsoni. Hau dio armarriak, zehazki (puntuazio-markak eta letra larri eta xeheak neuk eguneratu ditut): *Eguiten badoc bihar[r]a, jango doc oguia. Esta obra hicieron Santiago Yturan beiti y su hijo Juan de Bengo Olabarra. Año 1784*. Beste alde batetik, herrigunetik aldentuta eta isolatuta dagoen Ibarreta²⁵⁶ baserrian aurrekoaren aldaera zaharra dirudiena ageri da (kasu honetan ere, puntuazio-markak eta letra larri eta xeheak neuk eguneratu ditut): *Obra hav eguin eban Juane Coscarraza eta Yrarretacoc. Egviten badoc bierra, jango doc ogia. Año 1754*.

Hemen aztergai dudan ezaugarriko idazkun zaharrena da interesgarria, *bierra* hitzak beheko bokalaren asimilazioa baitu erroan eta erdiko bokala igo ondotik (*bierra* < *biarra* < *bearra*; beraz, kasu honetan *Rea Rui* baino lehenagokoa izango litzateke), nahiz eta amaierako *ogia*-ko artikulua mugatua asimilaziorik gabe agertu. Dakidala, berrikuntzaren lekukotasun zaharrena da Bizkaiko ipar-ekialdeko eremu horretan eta, hain laburra izanik, ez du ezer sendorik ondorioztatzeko aukerarik ematen, baina ematen du ez dela betetzen -V# kokagunean; bai, ordea, erro barruan eta -VC dagoenean.

²⁵⁶ Egia esatera, izenaren lau aldaera entzun omen zituen Dodgsonek berak (1907: 226) bi orduko tartean: *Ibarreta, Idarreta, Igarrerreta* eta *Irarreta*.

Idazkunaren bi aldaerak erkatzean ere interesgarria da emaitza: esakuneari dagokionez ezer gutxi aldatzen da, baina 1784ko armarrarian ez dago *Rui* araurik ez *ogia*-n, ez *bihar[r]a*-n. Ematen du bigarren armarrria egin orduko baten batek forma hori aldatzea erabaki edo agindu zuela, Bizkaiko ipar-sortaldeko idazle batzuek handik gutxira egingo zutenarekin bat etorritz (cf. Zuloaga 2017a: §6).

4.6.2.1.4. ZolloGald (1770)

Zolloko Etxatxu baserriaren libramenduaren inguruko autuetan tokiko lekukoentzat euskaraz prestatutako galdetegia ezohiko lekukotasun-mota da euskararen historia ikertzeko iturrien artean, halakoak hain dira urri; gainera, Bilboko euskara islatzen bide du testuak (Zuloaga & Antequera 2019). *Rui*-ri dagokionez, honako testuinguru hauetan aurkitu dut:

(i) Hitz-erroan oso bakanak dira forma asimilaziodunak; zehazki, 3r *libreu* eta 4v *facultederic* aurkitu ditut. Gainerako hitzen erroetan beheko bokala ez da ixten: 3r *Dirause*, 3r *obispadu*, 3r & 4v *pregunta*, 3v *isan*, 3v *esttimasiño*, 3v *sugateco*, 4r *gurasoac*, 4r *ajustau*, 4v *libradu*, 4v *censura*. *iz* > (i)x palatalizazioaren ondotik ere ez da asimilaziorik ageri: 3r *elesatte*.

(ii) Izenaren inflexioan ez dut *-a* artikulua definitu mugatu asimilaziodun bakar bat ere aurkitu ez hitz amaieran, ez beste bokal baten aurretik, bokal itxia jatorrizkoa zein erdiko bokala igo ondoren sortua izan: 3r *ausia*, 3r *articuladua*, 4r *costura*, 4r *gasstua*, 4r *urdaia*, 4r *ensutia*, 4r *erdiya*, 4v *gustiya*; 3r *gustiai*, 4r *eurai*. Pluraleko *-ak* edo beste deklinabide-marka baten hasierako kontsonantea dagoen gehienetan ere ez da asimilaziorik ageri: 3r *viac*, 3r & 3v *gusttiac*, 3v *erdiac*, 4v *gustiyac*, 4v *echiyac*, 4v *ichiac*; 3r *gausaric*; 3r *contrattuan*, 3v *abustuan* 4r *ausiyatan*; 3v *oiacas*, 3v *ttresneriagas*, 4r *cesinuagas*. Behin aurkitu dut artikulua asimilaziodunen bat, absolutibo pluralean eta inesiboan: 3v *cumpliduec*, 3v *aprobechaminttuen*. 4r *Goirigas* sozietibo singularrean ez da disimilaziorik ageri. Bestalde, bakarra izanagatik, interesgarri da 4v *eta alan prebenietan yaque daquianay*, hiperzuzenketa gisa irakur daitekeelako.

(iii) Adizkietan ageri da inon baino sarriago *Rui*; zehazki, honako elementu hauetan ageri da: erlatiboko menderagailua (3r *eguin deusen*), *-(a)la* menderagailua (3v *gosadu eula*,²⁵⁷ 3v *isan sittusela*, 4r *egon siriela*, 4r *gubernau*

²⁵⁷ Adibide honetan *euala* > *euela* > *euula* > *eula* bezalako asimilazio-kate bat proposatuta.

diriela,²⁵⁸ 4v *erresibidu situsela*, 4v *bereac balisela*, 4v *saldu eudesela*) eta *eduki* ~ *edugi*-ko *-ka-* elementua: 3v *dauquesala*. Dena den, adizkietan asimilaziorik gabekoak dira adibide gehienak: 3r (birritan) *daucala*, 3v *daucasala*, 3v *echi sittusala*, 4r *daucala*, 4r *erein siriala*; 3r *eguin dittusanacas*, 3r *seinsuc dirian*, 4r *eche sittusanacas*, 4r *aguindu eusasan*; 4r *eucan*.

Analogiaz sortua edo *-an* ~ *-en* aldaeren lehiaren ondorioz idatzia bide da 3r *señetan dagosen* erlatiboko menderagailuko aldaera, adizki horretan ez baitago beheko bokala asimilatzeko ingurune egokirik.

(iv) Eratorpen-atzizkiak eskasak dira eta ez dute asimilaziorik: 3v *bigarrenagas*, 3v *amasorcigarreneguino*, 4r *laugarren*, 4v *adisquide*.

(v) Ondo ondoko hitzen artean eta klitikoetan asimilaziorik gabeko aldaerak daude, baita lexikalizatutako formetan ere: 3v & 3r *baitta*, 4v *baíta*; 3v & 4r *sein dan*, 3v *bisi san*, 4 *sein san*; 3r *libreu daiensatt*; 3r *au*, *ausiau*.

4.6.2.1.5. XVIII. mendearen amaierako sermoiak: Sarria

Garai hartako testu gehiago ezagutu arren, Sarria sermolariaren lanak izango ditut hemen berba-gai, sorterriko hizkeratik hur idatzitakoak direla eta. Jakina, ez ditut lan horietako asimilazio-kasu guztiak hona ekarriko: sermoi-bildumaren tamainak berak behar baino gehiago luzatuko luke atal hau eta irakurlea adibide-jario amaigabea gogaituko litzateke. Funtsean, egokiago iritzi diot nik neuk lehenengo testuan aurreko lan batean (Zuloaga 2010) azaldutakoak berrikusteari.

XVIII. mendearen azken bi hamarkadetakoak dira Sarriaren sermoiak; hots, literatur bizkaieraren eredu inguruko hausnarketak abiarazita zeuden sasoikoak. *Rui*-ri dagokionez, honako kokagune hauetan aurkitu dut Sarriaren sermoietan:

(i) Hitz erroetan oso indartsu ageri da: 1 *izen* ‘izan’, 1 *chinguer*, 1 *quisqueldutia*, 1 *bulerretic*, 1 *iqueza*, 2 *guressoen*, 2 *uguezabac*, 3 *bedequetuac*, 3 *inder*, 3 *bitertecoz*, 7 *aitetu* ‘aipatu’, 19 *uquetu*, 20 *apliquedu* eta abar. Hitz horietako asko ez dira sarri agertzen Sarriaren sermoietan, baina aldaera asimilaziodunen eta asimilaziobakoen arteko lehia ikusten da kasu batzuetan. Esate baterako, *aitetu* besterik ez dut aurkitu, baina *uquetu* bakarria harrapatu dut hamar bat *ucatu*-ren aldean. Hainbat aldiz ageri diren hitzei

²⁵⁸ Bi kasu horietan bigarren mailakoa da asimilazioa eragin duen kontsonantea (*ie < ia < ea < aa*). Ingurune berebean beste horrenbeste gertatzen da asimilaziorik gabeko 4r *erein siriala* eta 3r *seinsuc dirian* formekin.

erreparatuta, ematen du asimilaziobakoak gehiago direla; adibidez, *izen* ‘izan’ aurkitu dut hirurogeita zazpi aldiz, baina *izan* hirurehun eta laurogeita bitan.

(ii) Izen-inflexioan, artikularen ondotik kontsonanterik ez duten hitzetan ez da batere ohikoa beheko bokala asimilatzea: 1 *mundua*, 1 *Ynfernua*, 1 *castigua*, 1 *tormentua*, 1 *andia*, 1 *erria*; 1 *fedia*, 1 *gosia*, 2 *gausia*, 2 *vidia*, 3 *querizia*.

Beraz, esan daiteke oro har ez dela asimilaziorik -V# kokagunean, baina hutsunea ez da sistematikoa, *i + a* testuinguruan aurkitu baitut aldaera asimilaziodunen bat: 20 *miseriye* eta 30 *memoriye* tartean kontsonante epentetikoa dutela, eta 15 *uzeine*, kontsonante sudurkariaren ondotik.

Artikulu ondoko kontsonantea artikuluari erantsitako deklinabide-marka batena izan daiteke, aurreko testuetan ikusi legez, eta halakoetan ugariagoak dira asimilazioak. Hona hemen zenbait adibide, berriz ere jatorrizko bokal itxiek eta erdiko bokalak igo ondotik eragindakoak bereizita: 18 *andiyeganic*, 20 *andiegaz*, 35 *cirujeueri*; 1 *escu-escueriegaz*, 14 *gueijenien*, 24 *arrain-gausiegaz*, 27 *confesoriegana*, 36 *aurrien*...

Artikularik gabeko formetan ez da ohikoa asimilazioa deklinabide-atzizkian agertzea, nahiz eta adibiderik egon badagoen: 36 *pensamentuguez*; 3 *biten*, 6 *birriten*. Ez dut -ge(i)tik motibatiborik edo -re adlatiborik harrapatu.

(iii) Eratorpen-atzizkietara ere hedaturik dago asimilazioa, baina ez atzizki guztietara; zehazki, -kuntza (6 *erracunze*, 30 *azeracunze*...), -tza (29 *au vicitze laburrau*) eta -kada (1 *usiquedaca*, 11 *arriqueda*) atzizkietan ikusi dut, baina ez dut -ke, -gerri edo -tesun aldaerarik aurkitu. Halaber, -ago graduatzailea bere horretan gordetzen da Sarriaren sermoietan.

(iv) Aditzei eransten zaizkien morfemetan eta aditz jokatueta osagaietan bestelako indarra du berrikuntzak, nahiz eta hainbat elementutan ez agertu. Alde batetik, asimilazioa ez da ohikoa aditzei eransten zaizkien atzizki batzuetan, hala nola -(a)la konpletiboan, -a zein -ta modaletan, erlatiboko menderagailuaren ondoko artikuluan eta helburua adierazteko subjuntiboari gehitzen zaion -tzat atzizkian, nahiz eta lehenengoaren adibide bakanak egon badauden (21 *euqui daguizule*, 21 *artu deguizule*). Bestelakoa da egoera 3. eta 1. pertsonen datibo-marketan (1 *subari emon deuzen virtute eta poderiyoa*, 1 *Job Santuac, pecatuari deuzen gorroto gustiaren*, 20 *iracut[z]ico deuzudena*; 1 *Esan eguidezu*, 22 *emon eguidezue*), erlatiboko menderagailuetan (1 *sufridu cituzen gachac*, 3 *gentiac deuzen devocinoen testimonio*), lehenaldiko markan (3 *nora gueitu euzen*

Jaungoic[oac], 6 *icusi nenduzen gustiz gorrotagarrisco gausa asco*, 3 *guero alcanzaduco even santidadiaren*), subjuntibokoan (19 *uquetu ez leguizen testimoniño egusquiya leguez arguiyac*, 18 *leguez euqui daizuzen*) eta *eduki ~ edugi-ren -ka-* osagaian (1 *oficiyoa dauquen batec*, 2 *inoen gausia orain dauquela batec oztu davelaco*, 2 *dauquedan oficiyoac*).

Bestalde, 7 *garvitu ceitecela* bezalako adibideak analogiaz sor zitezkeen, Urgellek (2001b: lxxviii) Añibarroren zenbait kasu azaltzeko argudiatu bezala, *-ela & -ala* aldaeren arteko lehia ere baztertu ezin den arren.

(v) Ondo ondoko hitzen artean, lehenengo graduko artikuluan ez da beste testu batzuetan (eta mende eta erdi lehenago VJesus-en) ageri zen $-{\frac{i}{u}}eu$ bezalakorik, ezpada $aa > ea > ia$ gertatu ondoko 18 *au virtutiau*, 23 *au doiau* edo 38 *au charidadiu* bezalakoak. Halaber, *bat* eta *batzuk* adibide gutxitan bihurtzen dira *bet* edo *betzuk* (6 *guichi bet*, 18 *laurechu bet*; 14 *lagun bezuc*), eta *zenbat* eta (*h*)*ainbat* aldaerak ohikoagoak dira *zenbet* eta (*h*)*ainbet* baino, nahiz eta azken horiek ere egon badauden: 2 *cembet guichiyago*, 21 *cembeteri falta yaquien*, 2 *ainbet gueiyago*. *Izan*-en adizkietan eta *eta* juntagailuan ez dut aldaera asimilaziodunik aurkitu.

Besterik gertatzen da aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean, hainbatetan zalantza sor baitaiteke: 19 *ichi deudien* edo 3 *icasi deiyen* bezalakoek ari naiz. **edutsi*-koei dagokienez, gogoan hartzekoa da $au > eu$ diptongo-aldaketa ez dela arrotza, *Rui* araura jotzeko beharrik gabe; gainera, 2 *eroan deudialaco* bezalakoak ere badaude. Bigarren kasua dela eta, gogoratzekoa da *egin*-en adizkietan *-a/-e-* bereizketa (bipertsonal eta hirupertsonalak, hurrenez hurren; cf. *MorfVasc* §604-605 eta Lakarra 1996: 165-166), nahiz eta Sarriaren garaian eta hizkeran galduta bide zegoen bereizkuntza; begiratu Zuloaga (2010a: 419).

4.6.2.1.6. Bulda

Bulda-n fonologiaren esparruko beste fenomeno batzuek indar bizia badute ere, beheko bokalaren asimilazioak ez dauka indar handirik: askoz ere indar biziagoa du VJesus-en, adibidez, mende bat edo mende eta erdi lehenagoko lekukotasuna izan arren. Hona hemen Buldako aldaera asimilaziodunen inguruko iruzkina:

(i) Hitz-erroan daude Buldako asimilazio-kasu gehienak: 11 *baite*, 18 & 30 *izen*, 34 *izenic*, 38 *bulde*, 40 *Barijecuac*. Halere, adibideak gutxi dira; askoz ugariagoak dira asimilaziorik gabeak: 1 *Ayta*, 5 *aplicadu*, 36 *biar* ‘behar’, 39-40

Garisimaco, 48 *espiritualagas*, 58 *baña*,²⁵⁹ 62 *gauza* eta abar. Gainera, asimilazioa duten formen aldaera asimilaziorik gabeak ere badaude (11 & 26 & 29 & 32 *baita*, 14 *izan* eta abar). Salbuespena *bariku* da: ez da goiko 40 *Barijecuac* horri kontrajartzen zaion *bari(j)aku* aldaerarik, baina bai 41-42 *baricuba*.

(ii) Artikulu mugaturen batek ere badu asimilazioa; zehazki, singularreko bat eta pluraleko beste bat aurkitu ditut: 56 *charquerije* eta 56 *jaubiec* (alegia, araua betetzen da amaieran -V# zein -VC egon). Arau fonologikoen interakzioari dagokionez, aintzat hartzekoa da azken adibide horretako bokal itxia erdiko bokalaren igoerak eragin duela (*jaubiec* < *jaubiak* < *jaubeak*); horrenbestez, De Rijk (1970) laneko izendapenak erabilita, *Rea Rui* baino zaharragoa litzateke testu honetan.²⁶⁰

Artikulurik gabeko kasuei loturik 56 *moduteco* mugagabea besterik ez dut ikusi. Buldan nabarmena da artikuluan asimilaziorik ez erabiltzeko joera, bokal itxia jatorrizkoa zein erdiko bokala igo ondokoa izan: 3 *buruba*, 6 *bestia*, 41-42 *baricuba*, 61 *jabia*; 10 & 12 *gustiac*, 5 *confesoriac*; 3 *Erregiai*; 5 *espacijuan*, 6 *vicitzan*; 8 *damuarijagas*; 20 *vitorijaitic*, 20 *Vaquiaitic*; 51 *descansura*.

(iii) Eratorpen-atzizkietan eta deklinabideaz kanpokoetan ez dago asimilazio bakar bat ere: 6 *vicitzan* & 31 *vitzizan*; 62 *bigarren*, 31 *bigarrengo*, 64-65 *irugarrena*; 18 *gueijago*.

(iv) Adizkiei loturiko bi morfematan aurkitu dut asimilazioa. Alde batetik, datibo singularreko -a- morfeman: 36 *cedutzelaco balijoco paguetan badau inoenas*;²⁶¹ bestalde, -ta atzizkian: 56 *ostute*.

Buldako adizkiek badute alderdi interesgarri bat beheko bokalaren asimilazioari loturik. Lakarrarekin (1985a: 1053) bat, ematen du egileak herri-hizkeran

²⁵⁹ Kasu honetan palatalizazioak oztopa dezake *Rui* betetzea: “Since the glide that triggers Palatalization is also a potential trigger of Low Vowel Assimilation, the absorption of the glide would bleed the application of this rule” (Hualde 1991a: 37). Nolanahi ere den, hizkera batzuetan palatalizazioa ez da asimilaziorako oztopo (Baztangoa aipatzen du Hualdek berak).

²⁶⁰ “If *Rea* applies before *Rui*, we get *begie* ‘the eye’, from *begi* + *a* and *semie* ‘the son’, from *seme* + *a*” (De Rijk 1970: 46). Nolanahi ere den, aldaketa ostentzeko nahiak lausotu egiten ditu halako ideiak, zalantza egin baitaiteke aldaera batzuk eta bestetzuk azaltzean. Interakzioaz, begiratu (§5.1.5.1.6.3) atala.

²⁶¹ Bide beretik interpreta daiteke 43 *avertietan deutzet*, nahiz eta ez dudan erabat argi ikusten singularra edo plurala den, *dau* baina *dab*- kontsonantizazioa dela eta. Halaber, lehen begi-kolpean 16 *arcen dabenai concedietan deutza* horretan antzeko fenomenoak ikus liteke, baina testuko beste adibide batzuen argitan ikusten da **edun*-en 3. pertsona singularrean kontsonantizazioa gertatzen dela *dau*-ri bestelako morfemak eranstea (cf. 29-30 *Baita Buldau arcen dabena izan leiteque absolvidua bere pecatu gustietaric*, 35-36 *Eta au buldau arcen dabenac pagadu biar dau*); alegia, 16. lerroko adibidearen oinarrian *dau* ulertu behar da, ez *dabe*.

baliatzen bide ziren forma asimilaziodunak ostentzeko edo baztertzeko ahalegina egin zuela: 1-2 *urtian concedietan deutzana onei Erreiñuboi* esaldiaz ari naiz, non pluraleko *-e-* espero baitzen (*deutsena*) testuan ageri den *-a-*ren orde: hiperzuzenketa bide da. Aditz-morfologiatik kanpo, 65 *izana ta apeliua* ere badago hiperzuzenketarekin.

(v) Klitikoetan ez dut asimilaziorik aurkitu ager zitekeen testuinguruetan: 16 & 29 & 43 *buldiau*,²⁶² 41 *izentadu batzuc*.

4.6.2.2. Arabako eta Sakanako testuak

Arabako eta Sakanako lekukotasunetan ezin bakanagoa da berrikuntzaren presentzia 1800 baino lehen, egungo hizkera dialektalez kanpo DotrSerm sermoi-bilduman besterik ez baitut aurkitu: ez dut alerik harrapatu ez Gasteiz aldeko testu zaharrenetan, ez Lazarraga eskuizkribuan, ez Portalen olerkian, ez Sevilla1619 testuan, ez Gamizen olerkietan,²⁶³ ez Albenizen idazkian. Sakanan, Lakuntzako XIX. mendeko testuetan (*ETZ* §39 eta §49) aurkitu ditut beheko bokalaren asimilazio-adibideak, baina ez da sistematikoa.

Aiara aldean, eta Ulibarriri (2015: 147 eta hurrengoak) jarraikiz, DotrSerm lanean *Rui* ez da sistematikoa ager daitekeen testuinguru guztietan, nahiz eta oso indartsu agertu. Hain zuzen ere, DotrSerm eta VJesus dira berrikuntza bizien azaltzen duten XIX. mendea baino lehenagoko testuak. Aiara aldeko sermoitegiari dagokionez:

(i) Hitz-erroetan arrunta da asimilazioa, hala ondare zaharreko hitzetan nola mailegu modernoagoetan: 1-2 *principelac*, 1-20 *baye*, 1-162 *arimeraco*, 13-50 *aite*, 15-35 *gause*, 23-85 *pisque*; 4-18 *vinegreea*, 26-100 *Murmuredoreac*, 28-58 *comulgueduric*, 28-95 *criyetur*, 29-102 *christiñeu*, 33-122 *examinedu*. Hitz-erroetako salbuespenez aritzean, hauek aipatzen ditu Ulibarririk berak (*idem*, 148), salbuespen gehienak mailegu gordinetakoak direla azpimarratuta: 44-16 *prodigalidadea*, 46-51 *abundanciye*, 89-20 *incurablea*, 97-8 *naturalezeac*.

(ii) Artikulu definitua gehien-gehienetan ageri da asimilaturik, hala ondotik bestelako elementurik ez duenean nola kontsonante aurrean: 7-83 *pacienciye*, 7-100 *arpeguiye*, 10-15 *Santue*, 10-21 *Dibinue*, 10-42 *infinitue*, 11-47

²⁶² Izan lezake eraginik <i> hori aldaketa-kate bateko hirugarren emaitza izateak (*bulda au > buldeau > buldiau*), nahiz eta aurretik aipatu dudan kasuren batean erdiko bokala igo ondoko <i> bigarrenkariak eragin duen beheko bokalaren asimilazioa (cf. 56 *jaubiec*).

²⁶³ Gamizen “Euscaraz gaiztoetan” sortan 6-4 *arime bat* ageri da behin, baina aintzat hartu behar da Nafarroa mendebaleko aldaera dela *arime* (*OEH*, s.v. *arima*) arabera.

entendimintue, 11-68 *menoscabue*, 12-60 *contue*, 25-58 *avariciye*, 27-88 *damue*, 27-112 *soberanue*; 4-98 *arriyec*, 6-57 *beguiyec*, 6-103 *luxuriyec*, 7-14 *angueruec*, 7-122 *escogiduec*. Absolutibo pluralean eta inesibo singularrean metatzen dira salbuespen gehienak, Ulibarrik (*idem*, 147) ikusi bezala: 7-123 *graciac*, 45-158 *ynjuriac*, 1-63 *graciyen*, 4-95 *innocenciyan*. Ematen du kasu horietan lehenago zeuden bokal bikoitz edo luzeen tinbreak iraun izanak dakarrela araua ez betetzea:

A systematic exception to Low Vowel Assimilation is presented by items with a long low vowel (...). A set of systematic exceptions to the rule of Low Vowel Assimilation is constituted by instances where the possible target low vowel is long. Long or geminated /aa/ fails to undergo Low Vowel Assimilation both morpheme-internally, and in inflectional morphology. (Hualde 1991a: 44)

Absolutibo plurala eta inesibo singularra ez bestelako deklinabide-atzizkiak eranstea, artikulua espero zitekeen asimilazioa pairatzen du oro har. Hona hemen soziatiboko marken sorta bat: 1-24 *essenciye gas*, 1-31 *providenciye gas*, 14-67 *musturrecas*, 15-6 *gorpusecas*. Halaber betetzen da araua artikulurik gabeko formetan: 32-17 *arguire*, 43-16 *Ynfernure*, 43-112 *modure*; 16-41 *sugues*, 16-42 *nigues*, 22-36 *guichigues*; 7-131 *niguenic*; 3-65 *gugueitic*, 22-94 *sugueitic* eta abar.

Lehenengo graduko artikuluan ere ohikoa da asimilazioa: 2-28 *au usen altueu*, 5-58 *au garau dibinueu*, 13-89 *assumptueu* eta abar.

(iii) Eratorpen-atzizki batzuek ia sistematikoki dute asimilazioa, baina besteren batean ez dago kasu bakar bat ere: *-kada* (23-66 *paluquedac*), *-tza* (38-60 *visise*), *-ari* (18-1 *eguseri*) eta *-tasun* (43-2 *naguitasun[e]*) aipatzen ditu Ulibarrik (*idem*, 148) multzo batean eta bestean, eta kronologiari egozten dio bitasun hori; esaten duenez, testuaren egileak ez zituen lehenengo multzokoak atzizkitzat jotzen, lexikalizaturik zeudelako.

-ago graduatzailean ere asimilazioa ageri da: 17-47 *gueyiego*, 27-104 *garbiyegoac*, 38-108 *chiquirregoa*...

(iv) Adizkietan, atzizkiak eta aditz jokatuetoak morfemak bereizi behar dira (Ulibarri 2015: 149). Lehenengo artean *-tarren* eta *-itan* atzizkiek ez dute asimilaziorik, oinarrian dauden bilakabide fonologikoak direla eta (*-tearren* > *-tarren* eta *i + -etan* > *-itan*), baina bikoiztasuna dago *-tzagarik* atzizkian, birritan baitago asimilazioarekin hitz bakarrean (23-33 *sentisegaric*), eta behin asimilaziorik gabe (26-168 *entendisagaric*). Aditz nagusiei gehitutako

artikuluetara zabaldu da berrikuntza: 2-12 *bada san eguine bere virtute dibinuigas*, 10-105 *Gause yaquine da*.

Aditz jokatuerei dagokienez, asimilazioak indar handia du eta zenbait bereizketa morfologiko neutralizatzen ditu. *Rui* ageri da datiboko pertsona-marketan (29-49/50 *Esango deustesu*, 33-121 *noc aborrecidu deusen deveras vere pecatuic*), lehenaldiko *-(a)n* markan (37-66 *urten guenduin mundure*, 45-81 *ofendidu nenduin*),²⁶⁴ erlatibokoan (45-110 *eiten ditusen dañuic*, 45-110 *onec dire esan esin leiseen quaine*),²⁶⁵ *-(a)la* menderagailuan, izan agintera-subjuntibokoa (46-130/131 *yan daguisela capoeac*), izan kausazkoa (45-138 *eguin satuselaco orlangoa*); halaber *eduki ~ edugi-ren -ka-* elementuan (43-135 *dauquesu*, 46-127 *badauque*).

(v) Ondo ondoko hitzen artean ere betetzen da *Rui*. Alde batetik, aditzetan: 12-106 *Yarri sera*, 45-133 *esin eguin deudela*,²⁶⁶ 2-60 *ni nes*, 16-43 *visi nes*, 19-70 *Au de*, 26-34 *aguiri de*, 33-6 *Visi de*, 16-142 *asi sen*, 27-38 *eguin sen*. Beste alde batetik, *bat & batzuk* zenbatzaileetan: 27-127 *andi bet*, 28-16 *dibinu bet*; 11-29 *mi besuc*, 26-133 *santu besuc*.

Arauk gorabehera handiagoak ditu *eta* juntagailuan: “*ta*-ren lau adibide baino ez ditugu eta horietako batean bakarrik jasotzen da (*usu te costumbre*); bestalde, behin ere ez dugu ***de-rik*, *da* juntagailuaren 35 bat adibide baditugun arren” (Ulibarri 2015: 150).

4.6.2.3. Gipuzkoako testuak

Behin baino gehiagotan aipatu dudanez, mendebal zabalaren barruan tradizioz *bizkaiera* eta *arabera* deitu izan diren euskalkietako testuak hartu ditut tesi honetan erkagai. Erdialderagoko lekukotasunek (Beterrikoak, Tolosaldeakoak, Nafarroakoak eta Lapurdiren eremu mugakideetakoak, adibidez) arakatzelari sistematikoa eskatzen dute,

²⁶⁴ Orozko aldeko euskarak asimilazioan pausu bat harago emana zuen ordurako: *-ia > -ie > -ii > -i* (*buruin* ‘buruan’); begiratu Ulibarri (2008: 199).

²⁶⁵ “Mendebalean espero den erlatiboen *-an* atzizkia (*dan, dagoan...*), dena dela, *-en* formapean dugu RUIk azaltzen ez dituen testuinguruetan ere (*dagoena, doasenen, dagoen...*) dio Ulibarri (2015: 149), eta analogiari egotzen dio (begiratu orrialde bereko 128. oin-oharra). Analogiaren argudioa baztertzeko ez dudanez legetzez, kasu honetan morfemen aldaeren arteko lehia ere ez nuke baztertzeko; bide batez, kasu orotan azalbidea analogia balitz, inplikazioak sakonagoak lirateke *Rui*-ren kronologiari, hedaturari zein prestigioari dagokionez, Mikoleta besteak beste VJesus-etik bereizten duen asimilazio-arauarekiko analogia aipatzeko aukera bailegoke Mikoletaren *eguna den ecussu* azaltzeko; hots, pentsatu beharko genuke araua (edo arauarekiko forma analogikoak) Bilboko euskarara zabaldua zela.

²⁶⁶ [*-tu da-*] testuingurutik kanpo ere badaude forma asimilaziodunak (22-75 *lagun eiten deudenac*), aldaketa adizki horietan egonkortu zelako erakusgarri.

eta hemen zenbait ohar labur besterik ez ditut egingo, zehaztasunak eta ziurtasunak azterlan zehatzagoetatik etorriko direla jakinda.

Lehen begi-kolpean ez dirudi Euskal Herriaren erdialdean asimilazioa mendebalean bezain zaharra denik, eta berandu (1750az osteko lekukotasunak) agertzen dira berrikuntzaren adibideak zenbait testuingurutan.

4.6.2.3.1. 1708ko sermoiaz (SermDom): asimilaziorik ez

Deba ibarrean aparteko interesa izan zezakeen 1708ko sermoiak, adibide bakanak ikusi izan baitira (Etxebarria 2007: §2.1.1 eta Zuloaga 2017a: §4.3), inguru hartako aingura-testuetan eta egungo hizkeretan gertatzen denaren aurka: pasarte batzuetan zenbait lekutako hizkerak nahasten direla ematen du, eta pentsa liteke egileak leku ezberdinetako hizkerak nahastu zituela, beharbada beste egile batzuen lanak eredu izan zituelako.


Testuko ustezko adibide bakanak dira 6v *aiteren*, erroan; eta 4r *convideetan zituzen*, adizkien sailean. Horiez gain, testuaren edizilogileak (Etxebarria 2007: 69) 8v *gorpuzegaz* ere aipatzen du, baina eskuizkribuaren faksimilean *gorpuzagaz* irakurtzen da, lerro-aldaketa tarteko.²⁶⁷

Adibideak bakanak dira, eta are gehiago bakandu daitezkeelakoan nago, baldin eta aipatutako adizkiaren lehenaldiko morfeman ikusi izan den *Rui*-ren aurka (cf. Zuloaga 2017a: §4.3.d) *-an* & *-en* aldaeren lehiaren ondorioak edo, are mendebaleragoko beste testu batzuetan bezala, analogiarenak proposatzen badira. Azken proposamen horrek ez du ezelako arazorik garaiko (eta lehenagoko) testuen argitan, eta aintzat hartzekoa da aurkako adibideak (hots, asimilaziobakoak) hainbat gehiago direla hala lehenaldiko markan nola beste batzuetan: 4 *ifini evala ateetan aingueru bat susco ezpata bategaz goardadu eguizan paraisuco ateaq* (subjuntiboa), 2r *obreetan zituzan* (lehenaldia), 8v *emoten deusczuzan ondasunaq* (erlatiboa), 2v *emoten deusanean* (datiboa), 2v *daucazen* (*eduki* ~ *edugi* aditzaren *-ka-* elementua), 2v *falteetan ezteuscula* (*-(a)la* menderagailua), 8r *alde batera ichita* (*-ta* atzizki modala).²⁶⁸

²⁶⁷ Hona hemen lerroaren amaieraren eta hurrengoaren hasieraren irudiak, ondoz ondo:



²⁶⁸ Egiazki, eskuizkribura joz gero, ez dut garbi esaterik testuak *zituzan* edo *zituzen* esaten duen, aurreko lerroko <g> baten behealdeak bokala estaltzen baitu:



Ez litzateke Deba ibarreko kasu bakarra non *-en* aldaera agertzen baita; lekukotasun zaharretara joaz, cf. ArrasErrekII *parte dabela* ‘parte duela’, askoz lehenagokoa (onartuta beheko bokalaren asimilazioa ez zela *dau-* > *dab-* kontsonantizazioa baino lehenago gertatu, jakina, kronologikoki berrikuntzaren lehenengo lekukotasuna bi mendez aurreratuko bailuke fenomeno oro har gerora lekutu ez den eremu batean).


Hartara, 1708ko sermoian 6v *aiteren* besterik ez litzateke geratuko, ustez, *Rui-*ren menpe. Egia esatera, zalantza egin liteke ez ote dagoen *aitearen* > *aiteeren* > *aiteren* bezalako bilakabiderik, baina ez dirudi horretarako baldintzak egokienak direnik, aita biologiko batez ari baita testuaren idazlea, hurrengo lerroan 6v *galdetu eusteela veren aitaq* (erg. sg.) baitakar eta ez baitut *aitea*-rik aurkitu sermoi osoan (halere, 6v *amea* badago). Kasu honetan, eskuizkribura jo ondotik, hau ere akatsa dela egiaztatu dut, testuak ez baitakar Etxebarriak (2007: 72 eta 78) transkribatutako (edo ezer aipatu gabe zuzendutako) *aiteren*, ezpada *aiteran*;²⁶⁹ horrenbestez, SerDem-eko ustezko asimilazio-kasuetatik batean ere ez litzateke beteko *Rui*.

4.6.2.3.2. Gipuzkoako erdialdekoak: Urola, Goierri eta Tolosaldea

Urola aldeko testuetan oso berankorra da beheko bokalaren asimilazioa: XVIII. mendearen azken hamarkadetakoa. *Grand tour* obran eta Azpeitiko udal-aginduan hizkera herrikoiarekin lotutako zenbait arau fonologiko (erdiko bokalen igotzeak, epentesi kontsonantikoak, etab.) ageri dira, baina beheko bokalaren asimilazioak ez du indar handirik: 1772ko antzerki-lanean oso bakanak dira berrikuntza horri garbiro egotzi ahal zaizkion aldaerak (3r *eztituren* ‘ez ditudan’, 5v *gauzeric*, 6v *ordue*), eta 1786ko udal-aginduan ez dut adibiderik harrapatu.

Morfema batzuen arteko lehiak edo analogiak eragin dezaketen ziurgabetasun-arazoa ugari agertzen da Gipuzkoako testuetan.²⁷⁰ Eremu batzuetan, eta bereziki Bizkaitik eskuin egin ahala, *Rui*-k ez ezik, *-an* & *-en* eta *-ala* & *-ela* aldaeren hedadurak eta egileen hautuek (izan beste eremu batzuetako hizkeraren eraginpean jardutea, izan

²⁶⁹ Hona hemen irudia:



²⁷⁰ Egia esatera, Bizkaiko testu zahar batzuetan ere ageri dira, betiere aipatutako inguruneetan eta aipatutako elementuei loturik: cf. jada aipatutako Mikoletaren 12r *eguna den ecussu* (ez da baztertzekoa Mikoletarena ez beste esku batek egin izana ezagutzen dugun eskuizkribuaren kopia) edo Kapanagaren 45 *badaqui iuramentu eguiten dauela*. Halakoek azterketa bereizia eta sakonagoa behar dute, eta ez litzateke erabat baztertu behar kasu batzuetan pluraleko formekiko zein kontsonante ondoko bokal epentetikoarekiko jokamolde analogikoak egotea tartean.

tokiko hizkera erabili arren arau hori baztertua) ere eragin zitzaketen gorabehera eta polimorfismo horiek. Aintzat hartzekoa da aldaera horiek adizkiei eransten zaizkien morfemetan daudela, ez bestelako testuinguruetan (hitz-erroa, artikulua mugatua, bestelako deklinabide-markak eta eratorpen-atzizkiak...); beraz, zalantza eragiten duten kasuak aipatutako bi aldaerak ager daitezkeen lekuetan besterik ez daudenean (alegia, testu berean beste inon ageri ez direnean), <e>-ak ez ditut <a> asimilatutzat joko.

Gerora *Rui* lekutu den eremuetako (funtsean, Azpeitia eta Azkoitia ingurua, Goierri eta Tolosaldeko zenbait herri) hainbat testutan errepikatzen da egoera (alegia, *Rui* araurik egon ez arren, menderagailuen *-en* eta *-ela* aldaerak agertzen direla-eta nahasteak sortzea), XVIII. mendekoak zein lehenagokoak izan; Gipuzkoan bertan, cf. Azkoitiko *Sumario breve*-ko (1614) 1 *escojizen dituela* eta 22 *egiten dituen*, baina 20 *edificazen dituala* eta *Rui*-ri egotzi ezin zaizkion 1 *diratela*, 14 *escusa ditezen* edo 17 *erreguzen digoela*. Azpeitia/Azkoitia inguruan bertan, *Grand tour*-eko 9r *abiyatu gaitzen* adizkiaren forma ezin zaio bokal itxiek eragindako asimilazioari egotzi, eta beste horrenbeste gertatzen da Azpeitiko 1786ko udal-aginduan, non 10 & 42 *dirala* agertzen den, esate baterako, baina *ditezela* sistematikoa den.

Goierri aldera joaz, Otxoa Arinen (1713) pasarte honetan ere bi aldaera nahasten dira: 133 *Erraçago oroitceco bat bere vici gucian eguin dituan pecatuaz, asico dà pensatcen çazpi urte cituanetic amavi urte cituaneraño, eta amabi urte aetatican oguei urte cituaneraño, eta oguei urte aetatican oguei ta amar urte cituaneraño, eta oguei urte aetatican oguei ta amar urte citueneraño*. Zegamako dotrinan (1741) 8v *daucanari* eta 35r *daucala* agertzen dira, baina 13r *fede vra dauquen guizona* eta 17r *Christaubac dauquegun fedeaub* ere badaude, besteak beste.

Ez naiz Gipuzkoako testuetako gorabehera horiekin konturatzeko lehena, Lakarrak ere ikusi baitzituen Larramendiren Azkoitiko sermoia aztergai zuela:

Aditz erroa eta atzizkia lotzen dituen bokalea gehienbat *a* da: *etzeuala* 1, *ceuala* 1, *dagoala* 1, *cegoan* 1, *cituan* 2, *cenduan* 5, etab.; alabaina badira *e* dutenak ere: (hark) *guenduela* 1, *deuen* 5, *cituenta* 7, *ceuen* 7, *cenduen* 10, *cinduena* 13, *zaituena* 13, *dirudien* 15. Ezin baiezta dezaket, daitekeena den arren, honen arrazoi bakarra sermoiarene egilearentzat, ekialderagokoa izaki, ezinezkoa zela gogoan bide zeukan paradigma (*zuen/zuten*) ahaztea entzuleen (sing. *-a*/plur. *-e*) sistimara makurtuaz: gaurko Azpeitia eta Azkoitia aldeko *a* → *e* {*i/u*} (C)₋ erregelak eta O[txoa]A[rin]en (hark) *debela* 68, 134, 164, *deben* 164, eta besteren batek ez digute azalpen hori nahi-eta nahiezko egiten. (Lakarra 1985a: 253)

Tolosaldean, Berastegiko 1763ko errezetan (*ETZ* 128) araua ez da sistematikoa, aldaera ugarik eusten baitiote beheko bokalari asimilatzeke, baina zenbait testuingurutan aurki daiteke berrikuntza: 1 *Azariec*, 2 *modue*, 3 *Huquendue*, 4 *berrie*; 9 *moduerequin*,

12 *orduen*; 32 *geiego*; 15 *botiqueco*, 56 *birique*. Adizkietan ez da beti aise erabakitzea zer fenomeno datzan testuan ageri diren formen azpian: pentsa liteke beste leku batzuetan bezala Berastegiko 31 *dituen*, 38-39 *sorzen dituenac*, 45 *duen*, 59 *eguiten duen* edo 67 *diren* formetan *Rui* dagoela (azken hori ziurragoa izan daiteke, 43 *bear dire* ere badagoelako), baina adibideok kontuz erabiltzekoak dira, *Rui*-ren zordun ez ezik, *-an* & *-en* eta *-ala* & *-ela* atzizkien aldaeren hedaduraren eta/edo lehiaren ondorio ere izan daitezkeelako.

Ez dut adibiderik aurkitu Gipuzkoako kostaldeko eta Beterriko testuetan, baina Gipuzkoako edo Euskal Herriko erdialde zabaleko euskara zaharraren eta modernoaren azterketa zehatz eta sistematikoak emango du datu eta argi gehiagorik gai honetaz.

4.6.2.4. Hitz bi Nafarroako lekukotasunen kronologiaz

Nafarroari dagokionez, Satrustegik (*ETZ* 50) XVII. mendearen bigarren erdikotzat jotako Urritzolako olerkian badaude hizpide dudan asimilazioaren lehenbiziko adibideak: 4 *marabilles*, 5 *Jaune*, 10 *ostie*, 12 *azpien*... Aitzitik, Reguerok (2015: 596, 10. oin-oharra) bestelako ikuspegia ekarri du iturriaren datazioaz: testua XVIII. mendearen amaierakotzat jo du. Bide batez, beheko bokalaren asimilazioari dagokionez, 1750. urtearen inguruan eten garbia dakusa Reguerok:²⁷¹

Besteak beste, goi-nafarrerazko hizkera batzuetan ohikoa den $u_a > u_e$ eta $i_a > i_e$ bilakabideak ez dira gertatu 1750 aurreko testuetan eta hau lagungarri izan liteke urte jakinik gabeko testuak datatzeko; ondoko urteetan, ordea, maiz agertzen da eta aski modu sistematikoan. (Reguero 2015: 596)

Satrustegik *ETZ* bilduman emandako 1750az geroztiko zenbait testutan ez ezik (Ororbia, 1758; Etxarri, 1762; Intza, 1772 eta 1801; Luzuriaga langarikarrarena, XVIII; Goldaraz, 1833; Gerendain, 1888), Caminok (2003) hego-nafarrera aztergai zuenean emandako laginetako askotan ere aurki daiteke berrikuntza, hala nola Muzkiko predikuetan (1787), Utergako kristau-ikasbidean (XVIII), Ibero munarriztarraren testuan (1766), Goñerriko predikuetan (XVIII-XIX), Goñi herriko ebanjelioetan (XVIII-XIX), Iberoko gurutze-bidean (1807-1831) eta Erroko predikuan (XIX).

4.6.3. Laburpena beheko bokalaren asimilazioaz

4.6.3.1. Beheko bokalaren asimilazioak badu berezitasunik *eufonia* izendapenaren barnean aipatu ohi diren beste berrikuntza batzuen aldean. Izan ere,

²⁷¹ Ideia hori berretsi du goi-nafarrera arkaiko eta zaharreko testuen edizioa finkatu ondotik: “hemen aipa liteke, besteak beste, goi-nafarrerazko hizkera batzuetan ohikoa den $u_a > u_e$ bilakabidea ez dela gertatu 1745 baino lehenagoko testuetan” (Reguero 2017: 39).

erlatiboki zaharra izan arren, zaila da ezaugarriaren ibilbidearen jarraipen zehatza egitea: testu gutxik islatzen dute, eta islatzen dutenetako batzuek idazleak ezaugarria ostentzeko egindako ahalegina ere erakusten dute; badago, beraz, halako tentsio bat tokiko hizkera batzuetan arrunt bide zen bilakabidearen eta hori zuzentzen saiatu ziren idazleen artean.

4.6.3.2. Beheko bokalaren asimilazioa zaharra da zentzu hertsian; hots, Euskara Zaharrea sortutako ezaugarria. VJesus (*ca.* 1640, *apud* Ulibarri 2009) testuan agertzen da lehenengoz, bai indartsu agertu ere: XIX. mendera arte itxaron behar da, gutxienez, asimilazioa hainbeste kokagunetan eta hainbesteko sistematikotasunez aurkitzeko; gogoan izatekoa da asimilazioak bereizketa morfologikoak neutralizatzen dituela VJesus-en dagoeneko. Horren argitan, pentsatzekoa da Bizkaiko hego-mendebalean / Arabako ipar-mendebalean indartsu zegoela ezaugarria, eta, hain zuzen ere, inguru hartan beste inon baino jarraitutasun handiagoa eta sendoagoa ikusten da ondoko mendeetako testuekin: XVII-XVIII. mendeetan Bizkaiko (hego)sartaldekoak dira berrikuntza islatzen duten testu gehienak, hala nola Orozkoko 1739ko otoitzak, Zolloko 1770eko galdetegia eta Sarriaren sermoiak. Eremu horretatik kanpo, XVIII. mendean daude Bulda eta Amorotoko 1754ko armarria, eta XIX. mendeko gramatikari, idazle eta dialektologoek emandako datuek ondo islatzen dute ezaugarria orduan hasia zela iristen Bizkaiko ipar-sartaldera (cf. Zuloaga 2017a: §6); beraz, badirudi gutxienez bi mendez alde nabarmenak egon zirela, ezaugarri honi dagokionez, Bizkai sartaldeko eta sortaldeko eremu batzuen artean. Funtsean, egun ezagutzen dugun egoera, non tokian tokiko ñabardurak ñabardura (cf. Hualde 1991a) *Rui* indartsu baita Bizkai osoan, XIX. mendearen bigarren erdian sortuta da, ez lehenago.

4.6.3.3. Geografiari dagokionez, esan bezala, badirudi historikoki Bizkaiko hego-mendebalean egon dela inon baino indartsuago: De Rijkek (1970: 48) aspaldi aipatu zuen hegoaldetik iparralderantz eta mendebaletik ekialderantz hedatzen zela *Rui*, eta egun ere Bizkai sartaldean sortaldean baino indartsuagoa ei da (Zuazo 2014: 182). Ikuspegi horiek ukatu gabe, kontu handiz egin behar dira *Rui*-ren bilakabide historikoari buruzko baieztapenak. Izan ere, ezaugarriaren bilakabidea oso fragmentarioa da sortze-eta hedatze-guneez ondorio sendorik lortzeko.

Arestikoari loturik, interesgarri izango litzateke mendebaleko testu batzuetan espero ez diren baina agertu agertzen diren *-en* eta *-ela* aldaeren jatorria ezagutzea: aurretik bokal itxiak daudenean, *Rui* izan da azalbide; aitzitik, beste batzuetan ez dago bokal itxirik aurretik, eta analogiara jo izan da horiek azaltzeko (cf. Urgell 2001b:

lxxviii, Añibarrorenak azaltzeko adierazitakoak). Bada, halakoetan egiazki analogia badago eta ez *-an & -en* eta *-ala & -ela* aldaeren arteko lehia, besteak beste Bilboko (Mikol) eta Durango aldeko (Kapan) hizkeretan ere beheko bokalaren asimilazioa zegoela pentsatu beharko genuke, testu batean nahiz bestean bakan baina halakoak ageri direlako.

Arabako iturriek ez dute datu handirik ematen beheko bokalaren asimilazioaren bilakaera berreraikitzeko: aipatu bezala, *Dotrinazko sermoiegi* mardulean besterik ez dago, eta aintzat hartzekoa da testuak Aiara aldeko euskararekin duela beste inongoarekin baino lotura hertsia, eta Aiara aldearen ipar-ekialdean daudela Orozko eta Nerbioi ibarra (mendebalean geratzen dira Gordexola eta Okondo ibarrak); hots, *Rui*-ren Bizkaiko lekukotasun gehienak biltzen dituen ingurua (VJesus, OrozOtoi, ZolloGald eta Sarria). Testuak garai batekoak baino gehiagokoak izan arren (kronologikoki, VJesus urruntzen da gehien *DotrSerm*-etik), eremu bateratu bat ageri da Bizkaiko hego-mendebaleko eta Aiara aldeko hizkeren artean hizpide dudana ezaugarriari dagokionez.

Euskal Herriko erdialdeko lekukotasunak mendebalekoak baino nabarmen berankorragoak dira, oro har. Arestian aipatutako *-an & -en* eta *-ala & -ela* aldaeren arteko lehia Bizkaiko testuetan baino ugariago agertzen da Gipuzkoakoetan, eta horrek egiten diren deskripzioak eta proposamenak lausotu ditzake. Ziurgabetasuna edo zalantza dakarten kasuak baztertuta, XVIII. mendearen amaierakoak dira Gipuzkoan aurkitu ditudan adibide zaharrenak. Zehazki, Etxebarriak (2007) *SermDom* testuan emandako transkripzioak zuzendu ondoren, ez dut *Rui*-ren adibiderik harrapatu Deba ibarreko eta Urola aldeko testu zaharretan; Deba ibarrean ezaugarri berria da (Zuazo 2006b: 57), eta Urolako lehenengo lekukotasunak *Grand tour*-ekoak dira (1772). Erdialderago, ez dut adibiderik aurkitu Zegamako dotrinan eta Otxoa Arinenean, baina Berastegiko 1763ko errezeta batean badaude adibide batzuk; halaber, kronologia bertsua dute Nafarroako testuek: Reguerok (2015: 596) 1750ean dakusa etena, aurretik ez baitu alerik aurkitu eta orduz geroztik agertzen eta ugaritzen baitira adibideak.

4.6.3.4. Gerora arean gehiago sakonduko dudana arren (§5.3.2.1), hemen ere aipatzekoa da ikuspegi soziohistorikotik ezaugarriaz erdiets daitekeen ondorio nagusia interesgarri askoa dela: ematen du araua “korrupzio linguistiko”-tzat jo izan dela historikoki, eta horrek ebidentzia negatiboaren arazoa azaleratzen du. Izan ere, eskueran dauden datuekin ezin da jakin zergatik ez den beheko bokalaren asimilaziorik testu batzuetan: (a) egilearen hizkeran ez zegoelako edo (b) egilearen hizkeran egon arren,

hain zuen egileak baztertzeko moduko erabileratzat jo eta ez islatzea erabaki zuelako. Gaitzeste historiko hori bermatzen dute, hain zuzen ere, zenbait testutan agertzen diren hiperzuzenketek, besteak beste.

4.7. Txistukarien neutralizazioa


4.7.1. Ezaugarriaren deskripzioa

Bizkaiko euskararen sistema fonologikoz aritzean (baina ez Bizkaikoaz bakarrik) ezinbestean aipatu behar dira txistukari frikari eta afrikatuen sailetan lepokariaren eta apikariaren artean gertatutako neutralizazioak, nahiz eta bi sailak bereiz aztertzekoak diren, neutralizazio-prozesua ez baita bera izan batean eta bestean.

Hainbat ikertzailek aspaldirik aipatu izan dutenarekin bat etorriz, galdu egin da lepokariaren eta apikariaren arteko oposizioa: frikariaren sailean apikariaren alde gertatu da neutralizazioa, eta afrikatuen sailean lepokariaren alde.

Ezagun denez, euskaraz txistukarilepokariez ([s], [ts]) eta apikariez ([ś], [tś]) gain, [ʃ] eta [tʃ] sabaiaurrekoak ere badaude. Bada, euskal txistukarien azterketa akustikoez erakutsi dutenez (Hualde 2010), apikariak hurbilago daude sabaiaurrekoetatik lepokarietatik baino, nahiz eta neutralizazioa lepokariaren eta apikariaren artean gauzatu den. Halaber, euskara garaikidean hiztun batzuen ahotan gertatu da [ś] > [s], [tś] > [tʃ], [ts] > [tʃ] zein [tʃ] > [ts] bezalako neutralizaziorik, baina ematen du “azken orduko” prozesuak direla: XX. mendekotzat jotzen ditu Hualdek (2000, 2010).

Euskal Herriko mendebalean gehien hedatu den neutralizazioa lepokariaren eta apikariaren artekoa izanik, atal honetan horrekin arduratuko naiz, beste lan baterako utzita sabaikariaren adierazpen grafikoaren eta azken hamarkadotan zabaldu diren bestelako neutralizazioen azterketa. Eskema honek laburbiltzen ditu aztergai ditudan neutralizazio-prozesuak, egungo grafian adierazita:



21. irudia. Txistukarien neutralizazioa

Txistukarien neutralizazioa gertatzen den ingurune fonologikoak direla eta, frikariak eta afrikatuak bereizi behar dira. Alde batetik, bi sailetan neutralizazioa ez da txistukari beraren alde gertatu. Beste alde batetik, oposizioaren galera ez da erritmo berean gertatu frikarietan eta afrikatuetan, eta azken horiek aparteko arazoak dituzte: Hego Euskal Herrian, Larramendi baino lehen, oro har eta atal honetan aipatuko ditudan salbuespenak salbuespen, frikariak eta afrikatuak ez dira grafikoki bereizten (Lakarra 1985a, Urgell 1987a: 359 eta 2018: 608). Besterik dira [ʃ] eta [tʃ], salbuespenak salbuespen ondo bereizi izan baitira gehienetan.

Frikarien neutralizazioari dagokionez, lau ingurune bereizi izan dira gaiaren inguruko literaturan, eta bereizketa hori ezinbestekoa da ezaugarriaren indarra eta zabalkundea neurtzeko: (a) herskari aurrekoa, (b) hitz amaierakoa, (c) hitz hasierakoa eta (d) bokal artekoa. Ingurune horien ordena ez da nolnahi emandakoa, jakina: Mitxelenak (*FHV* §14.2) ikusi zuenez, lehenengo bietan gertatu ohi da neutralizazioa errazen, eta azken bietan ondotik. Horiekin batera ozen ondoko kokagunea ere badago, baina arazo-iturri izan ohi da, Lehenengo Euskara Modernora bitartean (eta, geroko adibideek erakutsiko dutenez, ez beti) grafema berberen bidez adierazi izan baitira frikariak eta afrikatuak, kokagune horretan egiazki zer ebakera zegoen ikustea eragotziz.

Afrikatuei dagokienez, testuinguru ziurretako adibideak aztertuko ditut hemen; hots, hitz amaierakoak eta bokal artekoak, gehienetan ez baitago argi ozen ondoko txistukaria frikaria ala afrikatua den (begiratu §4.7.2 atala).

Txistukari frikarien eta afrikatuen sailetan gertatutako oposizioaren galeraren hedadurari dagokionez, ezaugarria Mendebaleko euskararekin (eta, bereziki, Bizkaikoarekin edo *bizkaiera* deitu izan denarekin) lotu izan da, baina hala beste lurralde batzuetan gaur egun egindako ikerlanek nola Euskal Herriko Erdialdeko aurreko mendeetako testuen azterketak erakusten dute ezaugarria supradialektala dela, bai eta Bizkaian edo Mendebalean ez ezik, Erdialdeko beste hainbat hizkeratan ere aurki daitekeela, hala nola Gipuzkoako iparraldean (kostaldean, Urola ibaiaren inguruko hainbat herritan eta Lapurdirekin muga egiten duten udalerrietan) eta Lapurdiko kostaldean (Sagarzazu 2005: 67, Zuloaga & Duhalde 2019).

Mendebaletik kanpo, zenbait hizkeratan ingurune jakin batzuetan besterik ez da gertatu neutralizazioa, eta bereizketaren galera ez da orokortu. Mitxelenari (*FHV* 233) jarraikiz, berariazko azalpenak behar dituzten kasuak sartzen dira multzo horretan; esate baterako, Nafarroako hizkera batzuetan instrumentala apikari izatea (*FHV* 232, Reguero 2015: §3.2.1.10) edo Ipar Euskal Herriko testu batzuetan herskari aurrean apikariaren alde neutralizatutako lepokariak (Mujika 2002: 200). Atal honen ondorioetan aztertuko dut zer-nolako lotura kronologiko-geografikoa egon litekeen Mendebaleko eta Erdialdeko bereizketen galeren artean.

Txistukariaren neutralizazioaren azterketak ezinbestean eskatzen du testuetako sistema grafikoaren azterketa zehatza; izan ere, ahoskera ez da ortografia ezartzeko irizpide bakarra (Martínez Alcaide 2010: 14), nahiz eta sistema fonikoa ezagutzea berebizikoa den grafiak zer islatzen duen edo isla dezakeen argitzeko. Sistema grafikoaren eta fonikoaren arteko lotura ia bereiztezintzat jo izan da,²⁷² baina lehenengoaren ezagutza lehenetsi beharra aldarrikatu dute hispanistek aspaldirik (cf. Alarcos 1965: 15), “pues este último [grafikoa] se constituye en toda lengua, en definitiva, como ajuste y reflejo de una realidad dada” (cf. Echenique 2013: 54).

Arazoak handiagoak izan daitezke ortografia arautu aurreko testuak aztertzean, eta ezagun da zer-nolako lausotasun edo/eta oztopoak eragin ditzakeen beste hizkuntza

²⁷² Cf. “la relación entre ortografía y pronunciación es, en buena medida, indisoluble (...) ambas constituyen campos que deben ser convenientemente deslindados (...) El conocimiento de las grafías y el de los componentes fónicos de la lengua atienden de distinta forma a una realidad que es, en esencia, doble, a saber, la del sistema fónico de la lengua y la de su sistema gráfico, que son dos sistemas independientes” (Echenique 2012: 100).

bateko sistema grafikoa norberak funtsean ezagutzen duen hizkuntzara makurtzen saiatzeak. Euskaraz hainbat dira horren adibideak: arau ortografiko ezarrien faltaren ondorioz, atal honetan ikusiko denez, alde handia dago egile batzuen eta bestetzuen artean. Arazoa larriagoa da txistukarien sailean; izan ere, txistukarien sistema erlatiboki konplexua izanik (cf. Igartua 2012: 10-11), tipologikoki euskara inguruko hizkuntzetatik gehien bereizten duen ezaugarrietako bat da (Jurado 2011: 82).²⁷³ Aurreko guztia dela eta, berebizikoa da iturri bakoitzaren azterketa grafematikoa egitea, bai eta idazleen artean errepikatzen diren ezaugarri eta joerak aintzat hartzea ere.

Tesi honetan aztertutako egileek sasoiari sasoi erromantzeen sistema grafikoak baliatu behar izan zituzten gehienetan,²⁷⁴ eta euskal txistukariak adierazteko grafia defektiboak zalantza eta ziurgabetasunak eragin zizkien. Halere, idazleek irizpide bati jarraikiz sistematikotasunez jokatu zutenean bestelako ondorioak atera daitezke: “En vascuence no existía ninguna norma ortográfica a que atenerse, por lo que una distinción gráfica suficientemente consistente, aunque haya algún desvío, debe tomarse como reflejo de un contraste fonológico” (Hualde 2010: 105). Irizpide hori erabat arrazoizkoa delakoan nago, nahiz eta (batez ere) adibideak urriak direnean zailagoa den *suficientemente consistente* horri muga ematea; hemen, nolahi ere den, aztergai dudan testu batean oro har bereizketa grafikoa agertzen denean neutralizazioa gauzatu edo islatu gabetzat joko dut, batez ere testua arkaikoa bada.²⁷⁵

Metodologikoki interesgarria iruditzen zait Hualdek *RS*-ko gaztelaniari buruz ari zela (zehazki, *seseo* deritzan fenomenoaz) erabilitako arrazoibidea: “Para el castellano sí existía esta norma (...) El número de errores gráficos, sin embargo, nos permite concluir que esta distinción no existía ya para el autor del texto” (2010: 105). Logika hori aplikatuz, beraz, euskal testu batean bereizketa orokorra bada baina bereizketa horri ingurune jakin batean edo batzuetan behin baino gehiagotan edo behin eta berriz kontraizartzen zaizkion adibideak badaude (areago ingurune horietan neutralizazioa

²⁷³ Inguruko hizkuntzak direla eta, nolahi ere den, gogoan hartzekoa da menderik mende aldaketa sakonak gertatu direla; esate baterako, gaztelaniaren sistema fonologiko zaharraren eta modernoaren arteko aldeak aztertzea besterik ez dago, hispanisten artean ziurgabetasun eta bibliografía gehien eragin duen gaietako bat izanik.

²⁷⁴ Cf. “La lengua vasca no ha contado nunca con un sistema de escritura propio. Hasta el siglo XVI podemos seguir su rastro en textos escritos en otras lenguas, principalmente románicas. Cuando comienza a ser escrita ya con regularidad, se utiliza para ello la *scripta románica*” (Echenique 2013 [2004]: 71).

²⁷⁵ Nabarmendu egin nahi dut *gauzatu*-ren eta *islatu*-ren arteko aldea, aztergaietako bat izango delako, batez ere testu eta garai jakin batzuetara heldu ezker, egile batzuek zer neurritan islatu edo ostendu zuten tokian tokiko hizkeran burututa zegokeen neutralizazio-prozesua; cf. “los autores que escriben en vizcaíno en el siglo XIX o XX están reflejando sus conocimientos ortográficos al distinguir ese de zeta” (Hualde 2010: 107).

errazago gerta badaiteke), ingurune horietan neutralizazioa gertatu dela proposatuko dut. Halaber, testu batean adibideak eskasak izan arren neutralizazio-kasutzat jo daitezkeen kasuak bereizketaren galera errazen gertatzen den testuinguruetan agertzen badira, neutralizazioaren adibidetzat joko ditut. Hego Euskal Herrian gaztelaniaz idatzitako testuetan *seseo*-a identifikatzeko erabili izan den argudio bera da, azken batean: “El fundamento para sostener la existencia de una neutralización de órdenes –de lo que venimos denominando «seseo»– no reside sólo en la mera presencia accidental del fenómeno, sino en su reiteración” (Isasi 1999: 231).

4.7.2. Ozen ondoko txistukariez

Aspaldirik eta hainbatetan aipatu izan dira euskal txistukari guztiak bereizten dituen sistema grafiko tinko baten faltak berez dakartzan muga eta arazoak (*FHV* §14.6). Hain zuzen, idazle gutxi batzuen ahaleginak ahalegin, Hego Euskal Herriko testuetan berankorra izan da txistukari frikarien eta afrikatuen bereizketa grafikoa, Larramendik ekarria baina, halere, XVIII. mendeko hainbat idazlek aplikatu ez zutena; cf. Lakarra (1985a), Urgell (1987a: 359 eta 2018: 608).

Zalantzarik gabe, frikari eta afrikatuen sailak grafema edo digrafo berberen bidez emateak ostentzen duen ezaugarri nabarmenena da ozen ondoko frikari/afrikatu bereizketaren neutralizazioa. Hala zioen Mitxelenak: “Detrás de *l*, *n* y en menor grado de *r* la oposición se neutraliza, aunque las realizaciones de los archifonemas son africadas en unas partes y fricativas en otras” (*FHV* 238). XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako testuei dagokienez, askotan (Mendebalean, gehienetan) ez dago jakiterik nola irakurri behar diren ozen ondoko txistukariak; aitzitik, hala mendebaleko nola erdialdeko eta ekialdeko idazle batzuek eginiko bereizketa grafikoak egoera linguistikoak berreraikitze baliatu izan dira. Zehazki, bi argudio eman izan dira ozen ondoko txistukaria frikaria ala afrikatua zen proposatzeko:

- (i) Frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizi zituzten egileen lanetan, gainerako inguruneetan frikariak adierazten dituzten grafemak ozen ondoren agertzen direnean, frikariaren aldeko neutralizazioa proposatu izan da.

Mendebalean, Landucciren hiztegiko sistema grafikoa aipatu ohi da Euskara Arkaikoaren sasoian ozen ondoren txistukariak frikari ebakitzen zirela defendatzeko:

Hay que señalar que detrás de *l*, *n*, *r* A escribe ç, no sç, incluso en final de palabra: çamalçaya «mulatero», olçac çuritu «blanquear pared», ençun «oyr», erançun «responder», onçea

«amistad», *arça* «osso animal», *arç emea* «ossa», etc. El contraste es claro en *işçaya* «boyero» / *arçaya* «ouejero», *çorçi* «ocho» / *bederasçi* «nuebe». Recordando que también Leizarraga escribe con *s* y *ç* tras nasal morfemas que tras vocal tienen *ts* y *tz*, habrá que concluir que en las sibilantes, no en las chicheantes, la oposición *fricativa* / *africada* se neutralizaba en esas posiciones realizándose el archifonema como fricativa. (Mixelena 1958: 212)

(ii) Sistematikoki ez bada ere, egile batzuek frikariak eta afrikatuak bereizteko ahalegina islatzen dute, eta testuetan afrikatuak adierazteko ezohiko digrafoak edo multzo grafikoak ematen dituzte, adibidez. Bada, testu batean halakoak daudenean baina ozen ondoren halakorik ez dagoenean, ozen ondoren frikariaren aldeko neutralizazioa proposatu izan da.

Mendebalean arrazoibide hori erabili zuen Lakarrak, besteak beste, *RS* bilduman ozen ondoko txistukariak frikari emateko:

RS-en frikari / afrikatu bereizkuntza bokal artean ere modu biunibokoan inolaz ere ez lortu arren (...) bizkarkariarekin aurkitzen ez diren saioak ditugu apikariaren kasuan: <s(s)> nagusi, baina baita <sh>, <ts>, <csh>, <shs>, etab. ere. Bada, esanguratsu iruditzen zait honelako alerik ez izatea *l*, *n* edo *r* ondoren, gerta zitekeen kontsonante multzo grafikoa bezain konplikatua dagoeneko lekutuak direlarik testuan. (1996: 247)

Mendebaletik kanpo Leizarragaren bereizketa tinkoa aipatu izan da, eta Landucci eta Leizarraga bera jo izan dira, bata mendebalekoa eta bestea erdi-ekialdekoa izanik, Euskara Arkaikoan ozen ondoren frikariaren aldeko neutralizazioa orokorra zela proposatzeko: “Ororen buru, lekukotasun horiek gogoan, pentsa liteke euskalki arkaikoetan txistukari bizkarkari eta apikariak frikariaren alde neutralizatzen zirela *n* eta *l* ondoan” (Mounole & Lakarra 2018: 418).

Egia esatera, zaila da Lehen Euskara Modernora bitarteko hainbat testuren irakurketa ziurra egitea. Testu arkaikoen artean, esaterako, Zumarragaren gutunak ematen du eztabaidagaririk; izan ere, XVI. mendearen lehenengo erdikoa izanik eta arestian aipatutakoak aipatuta, frikaria espero zitekeen ozen ondotik, baina 1 *deuncsua* agertzen da behin: lehen begi-kolpean afrikatutzat jo daiteke (areago 23 & 27 *bioçz*-en argitan), baina 8 *deunsu* eta 7 *Munçarasco*, 24 & 28 *Munsarasco* ere badaude. Gainera, garai hartan gaztelaniaz ere frikari/afrikatu oposizioa bazegokeela gogoratu behar da (§4.7.3.3.1), bai eta bi ahoskerak fonema beraren alofonotzat jo zitezkeela eta nahaste grafikoak sor zitezkeela ere; beraz, 1 *deuncsua* adibide bakanegia iruditzen zait Durango aldean XVI. mendearen lehen erdian ozen ondotik afrikatua gauzatzen zela proposatzeko.

Lakarrak *RS*-n ozen ondoren frikariak proposatzeko baliatutako irizpideari jarraikiz, interesgarri da gogoratzea mendebaleko beste testu batzuetan ere multzo grafiko jakin batzuk afrikatuetan agertzen direla, baina inoiz ez ozen ondoren.

Zaharrenetarik hasita, Garibairen errefracuetan afrikatu apikaria bereizteko ahalegina islatzen du <sh> digrafoak (A3 *osha* ‘hotsa’, A10 & A21 & A35 *ush* ‘huts’, B13 *oshoac* ‘otsoac’), nahiz eta <s> ere badagoen (B21 *us* ‘hus’, A21 *usean...*); aitzitik, ez dago <sh>-rik ozen ondotik, eta errefracuetako euskaran ere ez zegoela pentsatzea da errazena.

Euskara Zaharraren garaian, Mikoletaren eskuizkribuan afrikatu apikarian besterik ez dira agertzen <ts>, <sz> eta <zs>; bestalde, <tç>-k afrikatu lepokaria besterik ez bide du adierazten. Ozen ondotik, ordea, <s>, <z> eta <c> baino ez daude. Hartara, RS-rako aipatutako argudiaketa proposa daiteke; alegia, XVII. mendeko Bilbon frikari ahoskatzen zirela ozen ondoko txistukariak. Mikoletaren garaikide Kapanagak ere afrikatuetan besterik ez zituen erabili zenbait digrafo; zehazki, <cʃ> afrikatu apikaria adierazteko agertzen da, eta <cz> eta <zc> afrikatu lepokariaren lekuan. Ozen ondoren <ʃ>, <ʃʃ>, <c>, <ç> eta <z> besterik ez ditu.

Aurreko testuekin batera, XVIII. mendean badira frikariak eta afrikatuak bereizteko ahalegina edo hautua islatzen duten testuak: Lehenengo Euskara Modernora hurbildu ahala ugaritzen dira halakoak,²⁷⁶ eta sail bien arteko bereizketak aukera ematen du ozen ondoren frikari ebakera proposatzeko. Esate baterako, Olaetxearen dotrinako sistema grafikoak ondo bereizten ditu frikariak eta afrikatuak: hain zuzen ere, <ts> eta <tʃ> daude afrikatu apikariaren lekuan, eta <tc> eta <tz> afrikatu lepokariarenean. Ozen ondotik, aldiz, <ʃ>, <c> eta <z> besterik ez daude. Halaber, De la Quadrarenean <ts>-k eta <tz>-k adierazten dituzte afrikatu biak, baina ozen ondoren <s>, <z> eta <c> besterik ez daude. Halaber, *Errosariyo* lanean arrunta da afrikatuak <tz>-z ematea (apikariaren kasuan neutralizazioa tarteko), baina ozen ondoren frikariak adierazteko erabilitako grafia baliatu zuen gehienetan egileak: 16 *aranzascoa*, 19 *unzé* ‘iltze’, 28 *eranzungo*; 25 *dulzea*; 3 *dacarzan*, 8 *sorzigarren* eta abar (aurka dute, halere, 15 *jantzi* bezalako formaren bat).

Orobat, *Dotrinazko sermoitegi* arabarrean <ts> grafia ikasia afrikatu apikari etimologikoaren lekuan besterik ez dago.²⁷⁷

Nolanahi ere den, XVIII. mendearen amaiera hurreratu ahala agertu egiten dira ozen ondoren afrikatu irakur daitezkeen adibideak. De la Quadrak, esate baterako, <tz>

²⁷⁶ Larramendik (1745: xxjx) *enzuzu* ‘entzun egizu’ aipatu zuen Bizkaiko euskararen uzkurduz ari zela, ozen ondokoa frikari-grafiaz emanik.

²⁷⁷ Sasoi bertsuari, Barnetxea bilbotarraren kantu laburrean ere bereizi egiten dira frikariak eta afrikatuak; zehazki, frikari guztiak <s> dira, eta afrikatuetan <cs> dago (etimologikoki apikaria zein lepokaria izan). Kantak 3 *ilsirian* dakar behin, baina ez da adibide egokiena ozen ondokoez aritzeko, ez baitago jakiterik aditz nagusia eta laguntzailea idazleak berak eman zituen loturik (Zuloaga 2018 [2013]).

darabil afrikatu lepokaria adierazteko (6 *erijotzaco*, 10 *vizitza*; 8 *vijotz*, 10 *gorputz* eta abar) eta gehienetan <z> eta <s> ematen ditu ozen ondoren (1 *eranzuten*, 7 *zeinzuc*, 60 *ensuten*, 99 *sensun*; 68 *dabilzanac*; 134 *sarzayera*, 18 *Norzuc*, 60 *sorsigarren* eta abar); alabaina, 90 *ossazuntzuba* ere badakar behin, eta kasu horretan lepokariaren aldeko neutralizazioa ere islatzen da.

Sarriaren sermoietan antzekoa da egoera: etxebarritarrek ez zuen lortu sistema grafiko tinko bat eratu eta sistematizatzea, baina <tz>, <ts> zein <tç> digrafoak baliatu zituen. Bada, ozen ondoan aurreko sailletakoak zein bestelakoak aurki daitezke (1 *deigunzat*, 1 *erracunza*, 1 *zeinzubec*, 1 *zarzaieria* eta abar, baina 20 *erantzunic*, 32 *bestientzat*, 37 *berarentzat*, 37 *itzaltzua* eta abar). Gerora ere aipatuko dudanez, Sarriarenean grafemen arteko banaketa nahasgarria izan daiteke, baina ozen ondoko grafema soil batzuek ere afrikatua adierazten dutela pentsatuz hobeto azaltzen dira: 1 *indarzu* ‘indartsu’ edo 37 *alzu* ‘ahaltsu’ bezalakoak erraz(ago) azaltzen dira txistukaria afrikatua dela proposatuaz, sail horretan lepokarien alde gertatu baita neutralizazioa.

Gandara gernikarraren Gabon-kantuek ez dute zalantzarako tarterik uzten, <tz> digrafoa hainbatetan ematen baita ozen ondoren, baita izen berezietan ere: Gandara1762 2-5 *dabiltz*, 3-6 *altzoan*, 4-6 *eurtzean*, 5-5 *artzazu*, 6-5 *intza*, 6-6 *Gaintza*, Gandara1764 3-7 *Zuentzat*, 12-1 *Apaintzalleari*, 12-3 *Baltzolari*; GandaraAmaMait izenburua *Zorzico*, 5-8 *galtzen*. Halere, kasu batzuetan <z> ere aurki daiteke: Gandara1757 5-7 *osteranzeco*, 9-6 *enzuna*, GandaraAmaMait 2-8 *Cugañanz*, Gandara1768 1-8 *humeenzat*, 4-2 *berenzat*; Gandara1757 1-8 *dabilz*; Gandara1757 2-6 *Arzainxheoc*, 2-8 *Erurzailleac*; Gandara1757 7-2 *arzazu*. GernikaGK berankorrakoak, berriz, ez du digraforik afrikatuak adierazteko: 2-5 *enzunic*, 6-5 *componzalle*, 12-7 *onziric*; 4-6 *alzoa*, 23-2 *alzo betiagaz*; 15-4 *baricu arsaldian*, 19-6 *zarsian dira*.

Apoitaren bederatziurrenetan 1 *pentamentubeetan* eta 6 *quentcen* aurkitu ditut, baina 2 *ceinzubei*, 7 *Ceizuquim* eta 9 *Ceinzuc* ere badaude.

AbadiñoGK-n ere bietarik nahasten dira ozen ondoren, digrafoak eta soilak: 5-6 *entzunic*, baina 3-6 *Irins gozuetan*, 5-3 *Arzainetara*, 6-1 *Arzaiñac*, 7-8 *Arzaiñai*.

Aurreko guztiak kontuan hartuta, argi dago askotan ezinezko eta beste askotan gaitza dela ozen ondoko txistukarien gauzatze fonetikoa zein izan den zehaztea. Aitzitik, Euskal Herriko mendebalari nagokiolarik, Larramendiz geroztik frikari/afrikatu bereizi zuten hainbat idazlek (nahiz eta bereizketa sistematikotasunik urrun egon) ez zituzten afrikatuak adierazteko sortutako digrafo edo multzo kontsonantikoak erabili kontsonante ozenen ondotik. Kasu batzuetan (frJZum, Barnetxea...) testua laburregia

izan daiteke, eta/edo adibideak urriegiak; nolana ere den, arestian aipatutako testuetan joera bera da: beste kokagune batzuetan frikaria adierazten duten grafemak agertzen dira gehienbat ozen ondotik Lehen Euskara Modernoa baino lehen.

4.7.3. Txistukarien neutralizazioa Bizkaiko testuetan

Hualdek (2010) abiatutako bidetik erakutsi zuen Atutxak (2011, 2013) euskararen corpus historikoa agertu orduko txistukarien neutralizazio-zantzuak aurki zitezkeela kokagune jakin batzuetan; besterik da norainokoa zen bereizketaren galera idazle horien hizkeran eta nondik nora aldatu den, arian-arian, indar hori: “Las preguntas que debemos hacernos son, pues, dónde y cuándo se origina la pérdida de distinción entre la ese y la zeta vascas y cuál es la extensión de este fenómeno de neutralización en distintas épocas” (Hualde 2010: 90).

4.7.3.1. Euskara Arkaikoa

4.7.3.1.1. Bizkaiko 1600 aurreko testu laburrak

Bizkaiko 1600 aurreko testuetan eskasak dira neutralizazioa hasita zegoela islatzen duten zantzuak, eta gehienetan herskari aurretik agertzen dira. Testu arkaiko labur guztietan egoera ez da bat eta bera, baina esan daiteke, iturrien laburtasunak ezer baieztatzea ahalbidetzen duen neurrian, lepokari eta apikariak oro har ondo bereizten zirela. Horrek ez dakar, halere, bereizketaren galeraren hasikintzat jo daitekeen kasurik ez egotea.

4.7.3.1.1.1. FrantzOrd testuan herskari aurretik eta *guzti* hitzari loturik ageri da <s>: 1 *gustirean* eta 3 *custiaj*. Gainerako inguruneetan, aldiz, ondo gordetzen da bereizketa frikarien nahiz afrikatuen sailean: 3 *ceruan*, 3 *çuri*; 5 *biçi*, 5 *izaiteco*, 6 *pobreçan*, 7 *badaquiçu*; 6 *obedençian*; 7 *deusut*.

4.7.3.1.1.2. ArrasErreki kantuan ere ondo mantentzen da bereizketa bai frikarietan, bai afrikatuetan: 13 *oñeztar*, 20 *gazteac*; 10 *armacaz*, 10 *legez*, 12 *onegaz*, 15 *Gomiz*, 16 *beragaz*, 22 *uraz*; 2 *çeruan*, 9 *çirean*, 14 *çein*, 14 *citeçan*, 15 *çan*, 24 *çer*, 25 *çaurietan*; 1 *içarrac*, 6 *deçagu*, 9 *bizarac*, 10 *ezin*, 10 *eçer*, 14 *citeçan*, 20 *Oçæetaco*, 26 *nagoçu*, *axeyçat*; 2 *ostançean*. Bestalde, baliteke 15 *Gonsaluh*-n lepokaria ahoskatu beharra: “No es muy segura la pronunciación de la silbante, porque el ms. Confunde s con ç” (Mitxelena 1953: 131) eta “donde acaso haya que leer ç en vez de s por la frecuente confusión de ambas letra sen el ms. (...) En el cantar de la quema de

Mondragón que procede también de Ib.-Cach., dice, sin embargo, *Gomiç Gonçaleç* (*Gomiç* está repetido en caso activo: *Gomiçec*)” (Mitxelena 1958: 417).

Halaber, bereizketa ondo islatzen da esku berak idatzitako “Gomizec asco lagunic” testuan: 4 *bizcaytar*; 3 *guipuz*, 6 *daz*, 7 *Juanicotegaz*; 1 *çabal*, 6 *çe*; 5 *diaço*.

ArrasErreI-eko beste aldaera batzuek berariazko azalpena behar dute. Bertso-lerroen ordenari jarraikiz, 4 *azmaçean*-eko ozen aurreko <z> ez da zaila azaltzen kokapen horretan deskribatu izan diren txandakatzeekin (adibide klasikoa da *ezne* ~ *esne*; cf. *FHV* 232). Bestalde, 8 *çarçayqueran* azaltzeko asimilazioan pentsa liteke, baina adibide bitxia izango litzateke (lepokariaren aldeko asimilazio erregresiboa litzateke, txistukari afrikatuak frikarian eragindakoa); horrenbestez, kontu grafiko hutsa izan daitekeelakoa daukat (cf. 7 *sar gaitęca*, 24 *semea çer doc*).

4.7.3.1.1.3. Neutralizazio-zantzua ikus liteke ArrasErreII-ko 4 *sumy asalac* azaltzeko (cf., halere, ArrasErreIII-ko 3 *erre açala* eta 4 *sumi[aça]la*), baina bere bakantasunean ez dut gorabehera grafikoa izatea baztertzen, ildo beretik interpreta litezke 5 *suecgayti* eta 7 *soriac*.²⁷⁸ ArrasErreII testuan ondo gordetzen da bereizketa gainerako kasuetan (2 *çaldibarepere*, 5 *çaldun*; 1 *[Un]çueta*, 6 *nançuçu*); beraz, txistukarien kokagunea eta adibidearen bakantasuna kontuan hartuta, kontu grafikotzat besterik ez ditut aurreko <s>-ak.

4.7.3.1.1.4. ArrasErreIII-ri dagokionez, oposizioa ondo gordetzen da ingurune guztietan.

4.7.3.1.1.5. Andramendiko idatziek aparteko iruzkina behar dute; izan ere, lehen begi-kolpean arestiko testu guztietan baino neutralizazio-kasu gehiago daudela pentsa liteke, nahiz eta egiazki ondoko mendeetako beste testu batzuetan aurki daitekeen sistema grafikoa agertzen den: <s> grafema kokagune guztietan agertzen da jatorriz lepokaria zein apikaria egon bai frikarietan, bai afrikatuetan.

Frikarietako adibideak dira hauek: 1-4 *escutari*, 1-6 *gustioen...*; 1-4 *ascogas*, 2-7 *barriacas...*; 2-3 *saspi*, 2-6 *san...*; 1-3 *isanic*, 2-9 *ysan...* Aurrekoen argitan, pentsa liteke neutralizazioa (ia) burututa zegoela, baina adibide jakin batzuen azterketak besterik islatzen du: 2-3 *sazpi* bezalako adibide batean harrigarria litzateke, neutralizazioa islatzekotan, hitz hasieran <s> egonik herskari ahoskabearen aurretik <z> mantentzea; halaber, 2-7 *naguçi* eta 11 *naguçiar*i hiperzuzenketatzat jo litezke

²⁷⁸ Bide batez, IbarGC-en Espainiako *Soria* toponimoa *zori* euskal hitzarekin lotzen da (I: 484): “Soria, ciudad que se llamó antes Numancia, es nombre bascongado que significa en castellano tanto como si dixésemos ‘aguero’ o ‘bentura’, buena o mala, según su suceso” (IbarGC I: 484, *apud* Arriolabengoa 2008: 276).

hasiera batean, baina horrek bereizketaren galera oso aurreratuta egotea eskatuko luke berriz ere, bai eta idazleak gainerako testuinguruetan aplikatu ez zuen kontzientzia linguistikoa erabili izana ere: kontu grafikoa direla uste dut; alegia, IbarGC kronikako hiztegian legez (edo antzera), <s> & <ç> arteko poligrafia-kasua dela aurrekoa.

Aurrekoez landara 1-8 *caltesat*-ek ematen duelakoan nago: kontu grafiko hutsa bide da afrikatu bizkarkaria <s>-ren bidez ematea (cf. 1-1 *emireçi*, 2-2 *jayaçea*, 2-6 *baçarrean*, 2-7 *gueçi*, 2-7 *eçe* eta 2-10 *bereçat* testu berean),²⁷⁹ eta gainerako kasuak ere hautu edo ohitura grafikoen arabera azaltzekoak direla uste dut (1-3 *Onsalu Onsaluch*, 1-3 *Onsalu*, 2-4 *Onsaluch*, 2-5 *Onsalu* eta 2-11 *Onsaluch* aldaerak direla eta, begiratu gorago ArrasErreKI testuan aritzean esandakoa), areago testua XVI. mendearen erdialdekoa dela kontuan harturik (Arriolabengoa 2008: 9 eta hurrengoak). Ez litzateke ahaztu behar, gainera, testua birritan kopia zela gutxienez: lehenik Cachopín semeak aitarenetik, eta bigarrenik Ibarguenek Cachopín semearenetik (Arriolabengoa, *idem*).

Aurrekoak aintzat hartuta, ez dut uste Andramendiko idatzietan lepokariaren lekuan dauden <s>-ek apikaria adierazi behar dutenik nahitaez: testua prestatu zuen idazlearen hautu grafikoa delakoan nago, IbarGC kronikako beste pasarte batzuetan eta mendebaleko zein erdialdeko beste testu batzuetan legez (cf. §4.7.6)

Hurrengo testuari ekin aurretik, aipa dezadan Andramendiko idazkietan afrikatu apikaria behin baino gehiagotan adierazten dela <ch> digrafoaren bidez: 1-7 *egorrochi* (cf. *OEH*, s.v. *egorrotxi*), 2-8 *achacaba* eta 2-11 *acheguin*.

4.7.3.1.1.6. GSalazar-ek euskaraz dakarren pasarte zailean herskari aurrean <s> eta apikariaren aldeko neutralizazio-zantzutzat jo daiteke, *onestarra* ‘oinaztarra’ (*TAV* 62); gainerako kokapenetan lepokaria dago (*Ceruarri* ‘zer berri’, *çaldia*).

4.7.3.1.1.7. SalKond interesgarria da Bilbon kantatutako kanta baten transkripzioa bide delako (*TAV* 94), baina arazo-iturri ere bada. Alde batetik, testuaren irakurketa ez da erabat ziurra. Beste alde batetik, hasierako leloak esanahi zehatzik ez duenez, ezin daiteke erabili ezertarako oinarri sendo gisa. Hitz hasieran 4 *Ser* agertzen da behin, baina adibideak erkagairik ez izateak ez du biderik ematen ezer ziurtatzeko.²⁸⁰

4.7.3.1.1.8. Perutxoren kantak arazo bertsuak ditu: irakurketa guztiak ez dira ziurrak eta lehenengo bertso-lerroak ez du esanahi zehatzik (halere, SalKond-ek ez

²⁷⁹ Gainera, ez dut aurkitu bokal arteko afrikatuen neutralizazioaren adibide ziurrik Euskara Zaharrera arte.

²⁸⁰ Leloa (1 *Lelorilelo sara y leloa*) dela eta, ahalegin handia eginez aipa liteke 1 *sara*, egileak leloaren barnean *izan*-en adizkia ikusi izan balu, Perutxoren kantako 1 *çarayleroba* paraleloaren aurka. Grafiaren ikuspegitik, nolana ere den, ezin atera daiteke horri lotutako ondorio sendorik, testua hain da laburra.

bezala, <ç> du hasieran: 1 & 6 & 13 *çarayleroba*). Frikarietan 5 *astor* dago herskari aurrean, eta 11 *penas* hitz amaieran, beharbada gaztelaniaren eraginez. Oposizioa ondo gordetzen bide zen bokal artean (9 *esso*, baina 11 *naçala*) eta ozen ondotik (2 *ninçan*). Azkenik, 8 *aztobicarra* forma jo zuen Mitxelenak testuaren *crux*-tzat:

Se ha pensado en *Ast- / Aztobiçarra* ‘astobizano, de Astobiza’ y en *Astobiçara* ‘(vétème) a Astobiza, pueblo de Álava, donde residiría la amada. Parece preferible ver, con M. de Lecuona, en los vv. 7-8, una expresión paralela a la que hallamos en los vv. 4-5 *aztor(e)* ‘azor’, más un adjetivo (*acarra, bizcorra?*?). (TAV 100)

4.7.3.1.1.9. TAV-eko §3.3.1 atalean jasotako dibisa, errefrau eta abarren artean hitz amaieran aurkitu dut <s> 1600 aurretik oro har <z> dagoen lekuan: Mallabiko Mallea etxeko *Malleagas forua gaitic* esaeran, hain zuzen ere. Garaitikoetan bereizketa islatzen da: cf. *Galdua çure arpeyco narrua; Garean, garean leguez; Caltea daguiñanac bizarra lepoan; Fray Vicentec esala, / Fedea cina liçala; Çara baya (...) Çeren bay?*

Neutralizazioaren zantzurik ez dakarten testuak dira Labieru (1 *çalduna*, 2 *Vizcayco*, 2 *çençuna*, 3 *çan*, 3 *çuri*, 3 *losa*, 3 *ygorrosi*, 3 *eguiçuna*), DiazAro (2 *Cald[...]*, 3 *Eçec eçer ecieguion*) eta Henao (*Galdu ahiz*).

4.7.3.1.1.10. Madariaga kaligrafo arratiarraren lanean argi geratzen da afrikatu apikariaren ahoskera gordetzen zela, eta grafikoki bereizi behar zela (begiratu *RS*-ko grafiaz beherago esandakoak): “la S, muchas vezes se pronuncia apretando bien la lengua al paladar de arriba en medio de dicion como, *essea, casa; ossoa, lobo; assoa, muger vieja*; y por esso se pone doblada para denotar aquella espessura de la pronunciacion” (1565: 108).

Madariagak ez zuen halako bereizketarik egin lepokari frikari eta afrikatuen artean, baina Hualdek (2010: 104) dioenez, izan liteke ahoskera biak (frikaria eta afrikatua) sasoi hartako gaztelaniaren aldaera alofonikoak izatea. Azalpen bertsua proposatua zuen Mitxelenak (1954c: 172-173), eta horrekin bat egin dute berriki Ulibarrik eta Urgellek:

Da la impresión de que lo que en castellano se escribía ç (c) o z estaba, en zonas vecinas, a medio camino, por decirlo así, entre vasc. z y tz o, acaso mejor, podía conocer variantes contextuales próximas bien a uno bien al otro sonido vasco: me estoy refiriendo en particular al castellano de entre 1550 y 1650. (Mitxelena 1954c: 172-173)

Une hartan tokiaren arabera frikari zein afrikatu ahoskatzen ziren <c>, <ç> eta <z>-z idazten ziren txistukariak, /ts/ ahoskabea baino ez zegoen, gainera (...) pentsatzekoa da egoera horrexen berri ematen dutela hala Madariagaren isiltasunak nola <ç>, <c> eta <z> grafemekin hots lepokari biak adierazten zituzten gainerako euskal idazleek. (Ulibarri & Urgell 2019: 505)

Hau dio, zehazki, Madariagak: “la çamach los latinos no la tienen sino en S, pero los Vizcaynos tenemosla en la misma C: porque dezimos con los Hebreos *Meçea* por

Missa, y assi otras letras y vocablos” (1565: 107). Horrenbestez, bereizi egiten ditu gaztelaniazko *missa*-ko eta euskal *meça*-ko txistukarien ebakerak.

4.7.3.1.2. frJZum eta RS

4.7.3.1.2.1. Zumarragaren gutuna dela eta, “el texto no parece presentar ninguna confusión entre las series ápico- y dorso-alveolar” baieztatu zuen Sarasolak (1983: 234). Halere, 4 *erestun*-ek neutralizazioa islatzen bide du herskari aurrean.

Bestalde, 7 *Munçarasco* eta 24 & 28 *Munsarasco* aldaerek azalpena behar dute: egun *Muntsaratz* idazten da toponimoa euskaraz, eta *Muncharaz* & *Muncharas* izan dira gaztelaniazko forma tradizionalak xv. mendetik (Zenbait egile 2011). Ematen du, Atutxa (2011: 12)-ren bidetik, Zumarragak dakarren bigarren aldaeran lepokaria apikari bihurtu zela; beraz, durangarrarenean beste neutralizazio bat legoke (birritan) herskari aurrean. Gutuneko gainerako adibideetan bereizi egiten dira lepokaria eta apikaria herskari aurrean: 7 aldiz aurkitu dut <zt>, 1 aldiz <zp> eta 1 aldiz <zc>; hartara, neutralizazioa egotekotan, hasikinak besterik ez leudeke.

Beste alde batetik, zehatz aztertu beharko litzateke nola agertzen den onimoa sasoirik sasoi, baina izen horren aldaeretan ozen ondotik dagoen bariazioak bidea ematen du grafia-gorabeheraz aritzeko. Lehenengo aldaera dela eta, *Munç[h]arasco* proposatzen du Sarasolak (*ConTAV* 232), eta erdal ahoskeraren eta/edo grafiaren eraginak azal lezake kasu bakan hori. Hartara, *Munsarasco*-k afrikatu apikaria islatuko luke; hots, euskal ahoskera, akustikoki sabai-aurreko afrikatutik urrun ere ez dagoena (*FHV* 165; Hualde 2010: §2).

Horrez gain, ozen ondoko grafemek interpretazio-zailtasunak eragiten dituzte *deuntsu* berbaren aldaeretan.

Alde batetik, 1 *deunczua* aldaera azaltzeko zailtasunez jabetu zen Sarasola bera (*ConTAV* 234). Izan ere, <cz> horretatik <çz> dago hurbilen, eta azken horrek afrikatu lepokaria adierazten du testu bereko 23 & 27 *bioçz* berban. Pentsa liteke kasu horretan ozenaren ondotik afrikatu apikaria lepokariaren alde neutralizatu zela, baina testuan 8 *deunsu* ere badago; beraz, ez dut argi erabakitzerik beharbada erabat zabaldurik ez zegoen neutralizazioaren arrastoa edo nahaste grafiko baten ondorio den, nahiz eta kronologiak bigarren horren alde egiten duen, ez baitut afrikatuen neutralizazioaren adibide ziurrik aurkitu 1600 aurreko testuetan.

Aipagarri da, azkenik, *jauxi* ‘jausi’ aldaera: hala agertzen da sistematikoki Zumarragarenean (14 *jauxiori*, 15 *jauxiric*, 26 *jauxico*), baina ez dut argi esaterik kontu

grafiko hutsa edo ahoskeraren isla den, aintzat hartuta *RS*-n ere 198 *iauxi*, 211 *iausxten* eta 456 *jauxten* daudela (*RS*-n edizioan kontu grafiko hustzat jo zituen halakoak Lakarrak –1996: 298–, 556 *jausico* ere agertzen dela eta).

4.7.3.1.2.2. *RS* bilduman ez dira frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizten (Lakarra 1996: 247), baina lepokariak eta apikariak bereizteko ahalegina agerikoa da, batez ere egileak idazten zailak zitzaizkion hotsak adierazi nahi izan zituenean: gogoratzekoak dira bokal arteko apikari afrikatua adierazteko ezohiko multzo grafiko “ultrapoloniarrak” (Azkue 1935: 115).

Neutralizazioari dagokionez, Hualdek (2010: 104) eta Atutxak (2011: 21) herskari aurreko kasuez aritzean aipatutako adibideei (43 *gustico* & 135 *gustiz* & 326 *gustiac* & 469 *gustia*, 52 *gastaeoc*, 110 *escondua* & 440 *esconçea*, 166 & 384 *esta* & 287 *estan* & 302 *estau* & 481 *estoa*, 238 *escarazean* eta 559 *egusquia*) besteren bat gehi dakieke, hala nola 128 *auspas*, 387 *dustien* eta 553 *garrastu*.

RS 555 *Gastelauna*-k mailegu zaharraren itxura du eta pentsa liteke herskari aurreko <s>-a neutralizazioaren ondorio dela, baina grafia mailegatua ere izan daiteke. Bestalde, proposatzen den etimologia zein den, multzo berean sar litezke 20 *vaysta* (<*bai ez da edo *bai ez eta?; cf. Etxepare 2001: 16. oin-oharra eta Krajewska 2017: 408-409) eta, beharbada, 201 *Iusturiaen* eta 549 *gastigaturic* (*iuzturi* eta *gazitigatu* aldaerak ere badaude; cf. *OEH*, s.v. *justuri* eta *gazitigatu*).²⁸¹

RS-n herskari aurrean metatzen dira neutralizazio-kasutzat jo daitezkeen adibide gehienak, baina bilduma bere osotasunean aztertuta gutxiengoa dira halakoak. Aurreko adibideak aintzat hartuta eta proportzioaren argigarri, <zt> multzoa 78 aldiz aurkitu dut, <zp> 7 aldiz, <zq> 17 aldiz eta <zc> 32 aldiz.

Herskari aurreko kokagunetik kanpo, 363 *samarien* aurkitu dut hitz hasieran, 98 *sar esac* bokal artean (azken kasu horretan aditz nagusiaren hasierako apikariak eragin zezakeen asimilazioa; cf. Mitxelena *FHV* §14.3) eta 252 *asedenas* (behabada hori ere asimilazioz), 320 *es* eta 417 *zozes* hitz amaieran.

Sabaikariei loturik, kasuren batean ikusi dut <s> herskari aurretik. Alde batetik, 118 *gasta* ‘gatx da’ dago, baina kontu grafiko hutsa bide da; izan ere, sabaikariei loturik ageri ohi den <j>-k hots bera islatzen du (cf. Ulibarri & Urgell 2019: 506-507): 144 *gajta* (bestela, *gach* hamazazpi aldiz dago, eta *gax*-en zein *gaich*-en adibide bana).

²⁸¹ Azken horri dagokionez, Hego Euskal Herriko idazle batzuek *gazitigatu* ‘galdetu’ eta *gastigatu* ‘zigortu’ bereizi izan dituzte, baina *gastigatu* ‘zigortu’ erabili izan dutenak ere badaude: Mendebalean Lazarg eta Garibai aipatzen ditu *OEH*-k (s.v. *gazitigatu*).

Beste alde batetik, *gaizto* ~ *ga(i)xto* ~ *ge(i)xto* aldaeren arteko bariazioa zalantza-iturri izan ohi da, testu batzuetan oso zaila baita egiazki txistukari palatalizatua dagoen ebaztea.²⁸² *RS*-ri dagokionez, 151 & 169 & 363 *gestoa* ageri da, baina aurka ditu *gaxto*- (7 aldiz), *gassto* (1 aldiz) eta *gexto*- (15 aldiz), eta baliteke despalatalizazioa hasita egotea.

Gogoratzekoa da, azkenik, Mitxelenak (*FHV* 233) aipatutako *RS* 271 *çe bez* (< **bes*). Nahaste grafikoa gertatu ez bada, bizkar-hobietakoaren aldeko neutralizazioa legoke, Bizkaian ohiko (izan) denaren aurka.

4.7.3.1.3. IbarGC²⁸³

IbarGC kronikan bildutako materialak ugari eta askotarikoak izateak zaildu egiten du zenbait ezaugarriren inguruko hausnarketa; halaber, aintzat hartzekoa da material guztien jatorria ez dela bat eta bera, eta kronika idatzi ondotik ere zuzenketak egin zitzaizkiola. Hori dela eta, IbarGC-ko materialak obra berean agertu arren, ezin har daiteke testu osoa unitate bakar eta homogeneotzat.

Txistukarien neutralizazioari berari helduta, testuen laburtasunak eta bakantasunak (esaldi solteak, hitz isolatuak, etab.) ez du bide errazik ematen kasu batzuetan bereizketa galdua zen edo egileen hautu grafikoen ondorio den erabakitzeke.

Kronikan bildutako esaeretan kokagune guztietan ageri da <s> lepokariaren lekuan: 2 *Bost guison ta Larrea, aldean darabilde guerrea*; 3 *Careaga Careaga sanean, es san leguiçamondarric es artunduagarric arean*; 4 *Gaçean, gaçean, baya es Ibarguengorean*; 5 *Guerrea espa baquea, gustia da enea*. Zenbaitetan <ç> ere badagoenez, pentsa liteke neutralizazioa gauzatua zegoela <s> ageri den kasuetan (hala nola 3. eta 4. esaeretan), baina erkaketarako bikoteak urriegiak eta zatikatuegiak dira ondorio sendorik ateratzeko; gainera, Legizamon handiki-familia baten izen propioa da, ez hitz arrunta, eta halakoen idazkeran tradizio grafikoak ere eragina izan ohi du.

²⁸² Egia esatera, ez dirudi *gexto* aldaera Mendebalean oso zabaldua egon denik (cf. *OEH*, s.v. *gaizto*), baina *RS*-ko adibideei Landuccirenak gehitu behar zaizkio: Land *heder* - *vsay gayxtoa euqui, vsa eguin; hedionda cosa* - *vsay gayxtoa daucan gaçea; hedor* - *vsay gayxtoa; indigesto* - *ydigerietan gayxtoa; peor* - *gayxtoao; empeorar* - *gayxtoao eguin; fama mala tener* - *fama gayxtoa euqui*. Halere, ez da aldaera bakarra: *angel malo* - *angueru gaystoa; empeoramiento* - *gaystoaora joatea; mal o malamente* - *gaystotoro; mal punto, interie* - *puntu gaystoa; malestar* - *gaystoto eguon; maldezir* - *gaystoto essan; maldiziente* - *gaysto essaten deuena; pesquisar lo malo* - *gauça gaysto[a...* Gogoan hartu behar da, *RS*-ri zein Landucciren hiztegiari dagokienez, biltzen dituzten materialen iturriak ez direla bat eta bakarra, eta horrek ere eragina bide duela testu bakar baten barruan hala ezaugarri honetan nola beste batzuetan ageri den bariazioan. Tesi honetan, nolana ere den, ustezko neutralizazioa *gexto* ~ *gesto* bezalako aldaeretan bakarrik agertzen denean adibideak ez ditut erabiliko neutralizazioa dagoenez ebazteko argudio erabakigarri gisa.

²⁸³ IbarGC kronikak biltzen dituen kantal zein bere aldetik ikertu ditut, ustez dagokien kronologiaren eta jatorriaren arabera, horiek zehaztea posible izan zaidan kasuetan.

Esaldi solteetan ere hainbatetan agertzen da <s> lepokariaren lekuan, baina esaldi berean lepokaririk (edo beste txistukaririk) ez dagoen kasuetan ezinezkoa da ezer sendorik ondorioztatzea, neutralizaziotzat jo daitezkeenak kontu grafiko huts izan baitaitezke. Hona hemen zenbait adibide: 3 *Aita bichia, se bichiac dira onec?*, 7 *Ara, ara, andrasco mendia*, 12 *Ene semac, saguyteas eury!*, 27 *Osatu nosu eta ysan dot gau on*; 28 *Sein Çallo, sein Mallo*.

Garaiko bestelako lekukotasunen argitan neutralizazioa inorako proposatzekotan herskari aurrean <s> agertzen den kasuetarako proposa liteke, baldin eta gainerako kokaguneetan bereizketa egiten bada: Gizaburuagako 9 *Becoac goicoa escondu leydi, ta cheac andia bençi liri asmuz ta jaquitez* esaeran, esate baterako.

Kasuren batean polimorfismoa ageri da berba berean: alde batetik, 23 *Onez doa, ondo dagos* dago; beste alde batetik, kronikak 13 *Eztu nigaz* dakar behin (IbargC II: 108), baina *suc estu nigas* ere badago (IbargC III: 56); bide batez, horri lotzen dio kronikagileak *Estuniga* izenaren etimologia. Ozen ondoren ere badago <s>-dun kasurik: cf. 17 *Jaunsat ac bioça, ac dau bioça, ac bioça dau*.

IbargC kronikari XVII. mendearen hasieran gehitutako hiztegitxoek (IbargC II: 235-238 eta IbargC II: 239-244) informazio interesgarria ematen dute, baina ez dira iturri erabat fidagarriak Bizkaiko euskara ikertzeko, Bizkaiko berbez gain erdialderagoko hitzak ere agertzen direlako (aintzat hartu behar da, halere, gerora Bizkaian erabili ez diren berba edo aldaera batzuk garai zaharragoetan ondo lekututa daudela).²⁸⁴

Txistukariei dagokienez, <s> ageri da zenbaitetan lepokariaren lekuan, baina <ç> ere badago apikaria espero zitezkeen kasuetan.

Hona hemen lehenengo hiztegitxoko frikarien adibide sorta bat (Bizkaitik kanpoko hitzak direnean, *OEH*-k egozten dien euskalkia adieraziko dut):

Frikari lepokariaren lekuan <s>: *a las uñas - ascaçalah* (G, GN, L), *bermejuelas - escalua* (G, GN).

²⁸⁴ Cf. "Aski urruti dago hiztegiñoa bizkaierazko lana izatetik, bai badira bizkaieraz arrotz gertatzen diren hainbat forma (*burnia, yllea, gereçia...* eta bereziki *orçac/aguinac* bereizketa semantikoa). Gure kontuen arabera, hiztegian jasotako 151 hitzetatik (horietako asko birritan emanak) hedadura orokor edota zabaleko hitzak 92 dira. *Hapax*-ak 5 (*anci, becaray(c)ac, criscua, pagoloa, pindolea*). Bizkaierazko 4 hitz ageri dira (*cirarra, arranña -gipuzkeraz* ohikoago da *arrai-*, *plumagea, lora*) eta bizkaiera/gipuzkera aldaerak erakusten dituzten 3 (*barri/berri, perregilla/perrexilla, jaqueal/jaca*). Gipuzkerazko hitz kontsidera daitezkeenak 7 dira (*españna, andrea, burnia, burunçia, içoquia, guilsurinah, guinga*). Oro har, mendebaldean hedatutakoak, bizkaieraz eta gipuzkeraz bereziki, 14 hitz dira. Azkenik, bizkaieraz ez, baina gipuzkeraz eta oro har ekialdeko beste euskalkietan aurki litezkeen formak 22 dira." (Arriolabengoa 2008: 145).

Apikariaren lekuan <ç>: *a la barriga - çauela, a la espada - espata, al candill - criçellua* (G, GN, L), *fuego - çua, manzana - çagarra, besugo - eroçela, [ç]erraja - Çarralla*.

Afrikatu lepokariaren lekuan <s>: *carbón - ycasa, rinñones - guilsurinah* (G, GN).

Afrikatu apikariaren lekuan <ç>: *polvo - auça, cordero - bildoça*.

Bigarren hiztegitxokoak dira beste hauek:

(i) Frikari lepokariaren lekuan <s>: *ascaçalah - uñas, espatea - espada, escalua - bermejuelas*.

(ii) Apikariaren lekuan <z>, <c> edo <ç>: *coñecoac - vestidos, cricella - candil, erocela - besugo, zabela - barriga, zua - fuego, zagarra - mançana, zarrallea - cerraja*.

(iii) Afrikatu lepokariaren lekuan <s>: ez dago.

(iv) Afrikatu apikariaren lekuan <z> edo <ç>: *auza - polvo, bildoza - cordero*.

Agerikoa denez, hitzak berberak izanik ortografia modernizaturik ageri da bigarren hiztegitxoan, <z> grafema erantsita, bai eta aldaeraren bat aldatuta edo zuzenduta ere (*guilzurrinah - riñones* eta *ycazà - carbón* dakartza bigarren hiztegiak). Bestalde, esanguratsua da eskuren batek apikariaren lekuan <z> zegoen hainbat kasutan <s> aldatu izana (begiratu Arriolabengoa 2008: 137-143ko oin-oharrak) eta horrek, hain zuzen ere, berriz ere poligrafiari begira jartzen nau ni neu, polifoniari baino gehiago: balirudike idazleen nahi edo tradizio grafiko ezberdinak nahasten direla, eta <s> zein <z> baliokide zirela aipatutako adibideetan.

Esaera eta hiztegitxoetako materialez gain, kronika barnean agertzen diren hitz solteetan ere arestian aipatutako bi joeren adibideak daude; alde batetik, badaude lepokari etimologikoaren lekuan <s> duten formak (*biscaitar, escutariac, urgaspide...*); beste alde batetik, apikari etimologikoaren lekuan <ç> dutenak agertzen dira (*hereçiac, naguçia*). Kasuren batean batera nahiz bestera agertzen dira hitzak; cf. *çançuac & sansoac* eta *çuçia & suçiiac*.

IbargC-ek dakartzan pertsona-izen eta goitzenetan ez dut <ç>-rik aurkitu apikari etimologikoaren lekuan, baina <s> badago lepokariarenean: *Artes, Asal Çuria, Asalgorri, Esquerria, Ospaña & Oztina, Puenbaster*. Bestalde, kronikan proposatzen diren etimologiak ez ditut iturri fidagarri gisa erabiliko, askotan, sasoiko ereduari jarraikiz, antzekotasun formal hutsa kronikagileek nahikotzat jo baitzuten euskal hitz

edo aldaera bat izen bati lotzeko. Nolanahi ere den, etimologietan ez da jada deskribatu ez den fenomenorik agertzen (begiratu Arriolabengoa 2008: §10).

4.7.3.2. Euskara Zaharra

XVII. mendeko testuetan handiagoak eta ugariagoak dira gorabeherak, alde handia baitago eremu batzuetako eta bestetzuetako testuen artean: Mikoletaren (1653) eta Kapanagaren (1656) testuak alderatzea besterik ez dago garai bertsuari idatzitako bi testuren arteko aldeak argi ikusteko, bata eskuizkribua eta bestea obra inprimatua direla gogoratu behar den arren.

4.7.3.2.1. Bizkaiko maitasun-kanta zaharren artean, Bilbo aldean kokatu izan da *Enojaduric* berbarekin hasitakoa. Bada, txistukariei dagokienez, <s> sistematikoki agertzen da herskari aurrean eta hitz amaieran: 2 [*est*]a*quidala*, 9 *estaquit*, 11 *estaucat*, 12 *gustia*; 3 *aditu jatas*, 5 *guichigas*, 8 *nigas* eta 13 *yminiagas*. Hitz hasieran, aldiz, <c> baino ez dago (2 *cegayti*, 6 *bior citean*, 7 *ce*, 9 *cer*), eta bokal artean ere <c> eta <z> ageri dira, izan ondare zaharreko hitzak, izan maileguak: 7 *egoceana*, 12 *mercedua*, 12 *licencia*, 13 *mereciçaga*, 19 *cirea*. Banaketa horren argitan, bada, herskari aurreko eta hitz amaierako frikarietan oposizioa galdua zelakoan nago.

4.7.3.2.2. BizkKant testuan ondo bereizten dira txistukariak, *onireitzi* ~ *oneretxi* aditzari aditz-izenetako *-te* gehitzean izan ezik, herskari aurrean testuan <s> ageri baita: 3 *Onerestea*, 12 *onnerestea* (baina 11 *egozten*). Nolanahi ere den, kasu honetan ez dago zertan <z>/<s> neutralizazioan pentsatu, *eretxi* < **ereitxi* < *ereitzi* aldaera txetxekariduna arrunta baita mendebalean lehenengo testuetarik (*OEH*, s.v. *iritzi* & *oneritzi*).

4.7.3.2.3. Egoera bestelakoa da Sorg1616 testu laburrean, nahastea lau testuingurutan ageri baita, nahiz eta ez sistematikoki: herskari aurrean (*gaisto*, baina *iragazten*), hitz amaieran (*es*, nahiz eta asimilazioa ezin den baztertu, hurrengo hitza *sinistu* izanda; cf. beheragoko *eçaytu* ‘ez zaituzte’, kontsonante-bilkuratik sortutako afrikatua islatzen ez badu), bokal artean (*gausaac*, baina *eguięçu*, *gauçay*) eta hitz hasieran (*seuren*, *suec*, baina *ceren*, *ceruetara*, *çu*). Bestalde, afrikatu guztiak ematen dira <c>-z: *deuncun* ‘deutsuen, dizuen’, *eceetan* ‘etxeetan’, *ececoay* ‘etxekoei’ eta *ece* ‘etxe’ ageri baitira.

4.7.3.2.4. BizkOlerk testuan bi kokagunetan erabiltzen da <s> lepokariaren lekuan: <t> herskariaren aurrean (ez dago adibiderik gainerako herskari ahoskabeen aurrean) eta hitz amaieran. Lehenengo sailean daude 9 (birritan) *lastana* eta 17

gustiau; bigarrean daude ahapaldi bakoitzaren amaieran (beraz, lautan guztira) errepikatzen diren 2 *niças* eta 2 *eras*. Gainerako adibideetan <z> eta <ç> daude: 3 *çurea*, 4 *çuc*, 11 *çure*, 16 *çacusquidan çu*; 1 *ninduçun*, 2 & 6 & 10 & 14 & 18 *niças*, 2 *daiçu*, 2 *doçuna*, 3 *içanagas*, 4 *viçi*, 4 *badoçu*, 8 *noçu*, 9 *indaçu*, 15 *doçu*, 17 *vaquiçu*, 17 *naçana*; 1 *ninçana*, 7 *Ausençia*.

4.7.3.2.5. Egiaren kantaz hau baieztatu zuen Atutxak: “Testu laburra bada ere, apikari eta lepokarien arteko bereizketa kontsonante herskari aurreko posizioan ez da ondo gordetzen” (2013: 67). Baieztapenarekin ados egon arren, zenbait datu osagarri eman daitezke.

Lehenik eta behin, egia da neutralizazio-adibidetzat jo daitezkeen kasu guztiak herskari aurrean daudela. Gainera, nabarmentzekoa da adibide gehienak <t> aurretik daudela eta *guzti* hitzari dagozkiola; zehazki, hamasei aldiz aurkitu dut *gusti* aldaera, eta behin ere ez *guzti*. Horrez gain, adibide bakan hauek ageri dira: 133 *gastelu* eta 177 *Gasteluen*, 206 *gasteac*, 209 *guestoac*. *Gaztela* eta *gaztelau* hitzetan ere <st> ageri da sistematikoki: 59 & 119 *Gastelaco*, 38 & 131 *castillau*.

<p> aurretik behin aurkitu dut <s> (192 *bespera*), eta <c> aurretik 209 *pascoa* dago. Azken horiek gaztelaniako *víspera* eta *pascua* mailegatuen bidez azal litezke beharbada, baina testu honetan behintzat aintzat hartzekoa da *pazko* aldaera birritan agertzen dela.

<t>, <p> zein <c> aurrean arrunt da <z>; zehazki, <zt> gorde dute honako hauek: 8 *yrabazteco*, 65 *eztot*, 73 *eztaquien*, 126 *laztan*, 138 & 183 *eztago*, 208 *Eztauqueçanac* (horrenbestez, 24 <st> vs 7 <zt> daude testuan). <zc> sariago ageri da, baina aintzat hartzekoa da adibide gehienak (hamahirutik zortzi) *Bizkaia* izenari dagozkiola: 16 *pazcoac*, 51 *pazcoen*, 103 *onezcoac*, 109 *granazcoac*, 113 *vrrezco*, 7 *vizcaytar*, 12 *Vizcaico*, 16 *Vizcayac*, 142 & 160 *Vizcayari*, 169 & 182 *Vizcaycoac*, 171 *Vizcayco*, 180 *vizcaytarren*, 184 *Vizcaytarrac*, 194 *Vizcaycoari*. <zp> dago, bestalde, 76 *ezpaleguie*, 195 *ezpa* eta 198 *çazpigarren* hitzetan.

Datu horiek guztiak aintzat hartuta, neutralizazioa inon egotekotan, herskari aurrean besterik ez dago *Egiaren kanta*-n.

4.7.3.2.6. Txistukarien neutralizazioaz eta mendebaleko testuez aritzean, Mikoleta eta VJesus aipatu zituen Mitxelenak (*FHV* 232), eta testu horien argitan Bizkaiko mendebalean XVII. menderako prozesua burutua zela azaldu zuen.

VJesus-i helduta, hala zioen Lakarrak: “Nabarmena da txistukarien neutralizazioa aurreratua dela (...) Halere, gehiago dira halakorik ez dutenak, eta gutxi

hiperzuzenketak” (1996: 132). Halaber, Ulibarrik (2010a: §3.1.4) zehatz xehakatu zituen testuko neutralizazio-kasu guztiak, arestian aipatutako kokaguneen arabera sailkatuta. Hark esandakoak laburbilduko ditut hemen.

Ulibarrik dioenez, neutralizazioa erabatekoa da herskari aurretik: *guzti*-k eta *-zko* atzizkiak beti dute <s> herskari aurretik, eta bestelako hitzetan salbuespenak daudenean ugariagoa da salbuespenik gabekoen kopurua: esate baterako, *zazpi* zenbatzailean bederatzi aldiz ageri da neutralizazioa, eta behin baino ez <zp>. Halaber gertatzen da beste aldaera batzuen arteko lehia dagoenean (*azquero* ~ *asquero*, *escoa* ~ *ezcoa*) eta [*ez* + aditz laguntzailea] egituran, non 7 *eztogune* eta 12 *ezpadago*-ri kontrajartzen baitzaizkie 4 *estacusgucen*, 5 *estabena*, 7 *estago*, 11 *esta* eta 11 *estala*, muga morfologikoa gaindituz.

Hitz amaieran parekoa da egoera, oro har apikariaren aldeko neutralizazioa baitago arestiko proportzio bertsuetan: hogeita bi *-s* eta zero *-z* zenbatzen ditu Ulibarrik (2010a: 58) soziatiboan, eta hamazazpi *-s* eta *-z* bakarra²⁸⁵ instrumentalean. Halabertsu, *legez* partikularen aldaeren arteko lehiari apikaridunak dira nagusi: 8 vs 5. Bestalde, Ulibarrik *-z* pluralgileaz egiten duen azterketa zuhurrak argi uzten du nola baldintzatzen duten kokaguneez neutralizazioaren agerrera: pluralgilea amaieran agertzen delarik, neutralizazioa da nagusi (bederatzi *-s* vs hiru *-z*); pluralgilea bokal artean dagoenean, aldiz, lepokaria da erabat nagusi: hogeita bat *-z* vs bi *-s*).

Garaitiko bi kokaguneetan (hitz hasieran eta bokal artean) oposizioa mantentzen da, nahiz eta bi sailetan egon neutralizazioaren zantzuak. Funtsean, aurreko kokaguneetako egoeraren aurkakoa dago: neutralizazioa duten aldaerak egon badaude, baina horiei kontrajartzen zaizkien adibideak hainbat gehiago dira.

Hitz hasierakoen sailean 16 *Segaitic* eta 9 *seinzuc* aipatzen ditu Ulibarrik (*idem*, 59), baita horiei kontrajartzen zaizkien bost *cegaitic* eta bi *ceinzuc* ere. Hitz bakar batean da nagusi apikariaren grafema hitz hasieran, eta aldea ez da handia: “Leku berezi bat merezi du *ze* galdetzaileak, neutralduriko forma baita erabiliena: *se* (lau aldiz) vs. *ce* (hirutan) baino ez duen bitartean” (*idem*).²⁸⁶ Hasieran *z*- duten aditz laguntzaileetan ere gutxiengoa dira apikariduna dutenak (zortzi, hogeita zazpi lepokaridunen aurka). Atal honetan aipatzekoa da 3-18 *zarçaiten* ‘sartzen’, non hiperzuzenketak dagoela proposa baitaiteke, asimilazioak eragindako forma ere izan daitekeen arren.

²⁸⁵ “Bakar hau, gainera, *gichienaz* (16) dugu, baina *gichienas* biren aldean (4, 10)” (Ulibarri 2010a: 58).

²⁸⁶ Gaztelaniazko *se* partikulari ere egotz dakiokela dio Ulibarrik (2010a: 59, 24. oin-oharra).

Bokal artean oposizioa mantentzen da oro har, eta neutralizazioa duten formen proportzioa ez dutenena baino txikiagoa da: 7 *gause* eta 9 *esin* aldaerei zortzi *gauza* eta lau *ezin* kontrajartzen zaizkie. Atal honetan *mesa* ‘meza’ hitzak <s> du beti, eta edizilogileak gaztelaniazko *misa*-ren eragina ez ote dagoen galdetzen du (*ibidem*). Antzera gertatzen da *ese* ‘eze’ aldaerarekin, sistematikoki (sei aldiz) agertzen baita apikariarekin bere horretan, eta behin *esebere esean* esapidean. Kasu honetan ere Ulibarrik ez du baztertzen gaztelaniazko *ese*-ren eragina.

Txistukari afrikatuen sailean, eta testuinguru ziurrei bakarrik helduta, “dagoeneko neutraltzea beterik zegoen bokal artean, frikarietan ez bezala: *ezerean* (3) ‘etxetik’, *locearren* (10) ‘lotsearren’ ‘lotsagatik’, *iaci* ‘jatsi’” (Ulibarri 2010a: 59). Adibide horiekin batera **edun* aditzaren 3. pertsonari dagokion datibo-markan neutralizazioak agertzen dira: 3-13 *deucegule*, 4-14 *deucet*, 15-5 *deuzet*. Azkenik, 9 *gorpus*-en hiperzuzenketa ikus liteke, baina Ulibarrik proposatutakoarekin bat, izan liteke erdarazko *corpus* formak eragin izana.

4.7.3.3. Mikoletaren txistukarien auziaz

Txistukarien neutralizazioaren historiaz aritzean Mikoletak aparteko atala behar du; izan ere, bere eskuizkribuan euskal txistukariak adierazteko eginiko hautu grafikoak ez dira beti lagungarri azpian zetzan sistema fonologikoa azaleratzeko. Tradizioz, Mikoletaren eskuizkribuan <s>-ren bidez edozein kokagunetako lepokariak (frikari zein afrikatuak) eta apikariak (frikari zein afrikatuak) adierazteko joera, eta poligrafia- eta polifonia-kasuak²⁸⁷ agertzea neutralizazioa gauzaturik egoteari egotzi izan zaio. Ideia Mitxelenarengandik dator, edo haren lanaz geroztik zabaldu da gehien:

En vizcaíno del siglo XVII la confusión es ya completa en textos como Mic. y VJ. Micoleta era bilbaíno y VJ procede también de la variedad occidental del vizcaíno. La confluencia de /s/ y /s/, /ç/ y /c/ empezó, pues, en el extremo occidental del país y ha venido propagándose de poniente a oriente. (FHV 232)

[El manuscrito de Micoleta] se caracteriza por una confusión total de las sibilantes, reflejo sin duda de la pronunciación. (TAV 126)

Mitxelenaren baieztapenei jarraituta, XVII. mendeko Bizkaiko mendebaleko testuak/eremuak bereizi zituen Lakarrak (1996: 145-146), iparraldekoak (*RS* eta Mikol) eta hegoaldekoak (*VJesus* eta *OrozOtoi*) banatu beharra aldarrikatuz. Halaber, zenbait urteren buruan Mikoletaren sistema grafikoa eta hizkera aztertzean Mitxelenaren bide bertsutik jo zuen Pagolak (2002: 204):

²⁸⁷ Hurrenez hurren, hots bakar bat adierazteko grafia bat baino gehiago erabiltzeaz eta zenbait hots adierazteko grafia bakarra erabiltzeaz ari naiz (cf. Oyosa 2013: 287).

Kontsonantismo mailan xistukarien grafien eta ahoskeraren nahasketak dira aipagarrienak eta, azken honen ondorio bezala, jarrai daitezkeen desfonologizazioak eta, azkenik, sistema murritzeta. Fenomeno hau bizkaieran hasten da eta, dirudienez, mendebaldean; Micoleta bera litzateke horren lekuko erakusgarriena, grafien nahasketari dagokionez batez ere. XVIII. mendean Larramendik ere gauza bera egiaztatu zuen Bilboko euskararen ahoskera txarra zela-eta, xistukariena batez ere. Esan daiteke, beraz, eta ezagutzen dugun euskarazko literaturak agertzen duenez, XVII. mendean hasiko zirela nahasteak, bereziki Bilbon eta inguruetan, lehenbizi ahoskeran, noski, gero literaturan agertuko zirenak.

Orobat Hualdek (2010: 108-110):

El examen de los textos parece indicar, pues, que la neutralización de sibilantes vascas tiene su origen en la zona de Bilbao en el siglo XVII. La expansión por la zona de dialecto occidental o vizcaíno a partir de este foco debió de ser bastante rápida.

(...)

Lo que la preponderancia de la evidencia nos muestra es que la neutralización de sibilantes vascas en inicio de sílaba es un fenómeno que comienza en la época y lugar de nacimiento de Micoleta, es decir en el siglo XVII y en el habla de Bilbao, para de allí extenderse progresivamente por toda la zona de dialecto vizcaíno, incluyendo el occidente de Gipuzkoa.

Eta Atutxak & Zuloagak (2014: 25):

A la vista de los datos aportados por Atutxa (2011, 2013), creemos que el proceso de extensión del fenómeno aquí tratado es, como suele ser habitual, algo más complejo que una propagación por contagio, si bien reconocemos el papel fundamental de Bilbao y aceptamos una dirección oeste > este en la evolución del fenómeno.

(...)

Retomando el fenómeno vasco y teniendo en cuenta lo dicho hasta ahora, deberíamos pensar en centros urbanos occidentales como Bilbao o Vitoria-Gasteiz, entre otros, como primeros centros de difusión de la neutralización de las sibilantes.

(...)

A favor de nuestra propuesta hallamos ejemplos similares a la relación establecida entre París y Burdeos: contamos con Bilbao como un lugar en el que ya en el siglo XVII la neutralización se muestra en todas las posiciones posibles (ante oclusiva, a inicio y final de palabra, entre vocales y tras sonante).

Aitzitik, orokortasunak baztertu eta gaia bestelako zehaztasunez ikertu behar dela erakutsi dute azken urteotan Ulibarrik (2015) eta Ulibarrik eta Urgellek (2018). *Dotrinazko sermoitegi*-ko txistukariak aztertzean, Mikoletarenean agertzen den egoera bertsua aurkitu zuen Ulibarrik, ñabardurak ñabardura: <s> erabiltzeko joera edozein kokagunetako (ia) edozein txistukari adierazteko. Horren kariatara, bi testu horietan azalpen fonetikoaren ordeaz azalpen grafiko hutsa proposatu zuen, garaian garaiko gaztelaniaren sistema fonologikoa eta grafikoa aintzat hartuz:

Garai hartako gaztelaniak dagoeneko txistukari bat baino ez zuen, alegia, /s/ (<s, ss> grafiaz): lehenagoko /s/ eta /ts/ XVII. mende hasierarako jada /θ/ bilakaturik ziren eta, hortaz, hots berri hori islatzen zuten <z, ç, c> grafiek (cf. Cano 2008a: 843). Hala Mikoletarenean nola sermoitegian kausitzen dugun <s>aren erabilera orokorra, bada, alde honetatik uler liteke: XVII-XVIII. mendeetako euskal egileontzat grafia bakarra bide zegoen eskura txistukariak adierazteko, <s> alegia, eta honek euskal txistukariak oro (/t/) izan ezik, esan bezala, zirenak

zirela, letra horren bidez adieraztera eraman zituen. Azalpen honen ondorio da kolokan jartzea orain artean mendebaldeko neutraltzearen historiaz esan izan direnak. (2015: 137)

[DotrSerm-ko] Sermoigile anonimoak <s> grafia darabil euskal txistukari gehienak (egungo s, z, x, ts eta tz) islatzeko, lehenago Mikoletak bezala (...) Suposatu dugu biek txistukari grafia bakarra zeukatela eskura, <s> alegia, gaztelania zaharreko <x>, <z> eta <ç> txistukari grafiek jada beste hots batzuk (/x/ eta /θ/) adierazten zituztelako. Hipotesi honek, tamalez, kolokan jartzen ditu orain artean mendebaldeko neutraltzearen historiaz esan izan direnak oro, eta nahikoa zailtzen du hemendik aurrera historia hori egiten lagun dezaketen lekukotasunak aurkitzea. (2015: 315)

Hipotesi ausarta da Ulibarrirena, eta arretaz aztertzea merezi du, arrazoi izanez gero hainbat testutako txistukariez eginiko iruzkinak berrikusi beharko lirakeelako. Atal honetan, bada, Mikoletaren testua izango dut aztergai, eta Mikoleta abiapuntu hartuta hiru gaitan sakonduko dut. Lehenik eta behin, gaztelaniaz XVI-XVII-XVIII. mendeetan gertatutako aldaketak aipatuko ditut, horien izaera, kronologia eta hedadura ezagutzea ezinbestekoa baita Mikoletaren beraren gaztelaniaz gehiago jakiteko eta hautu grafikoak hobeto ulertzeko. Bigarrenik, Mikoletaren beraren erdal txistukarien sistema izango dut aztergai, Bilbo aldeko gaztelanian aldaketa horiek zuten lekua eta indarra zehazten saiatzeko, eta egilearen hautu grafikoek hizkuntzaz zein hautu grafikoen norabideaz eman dezaketen informazioa azalerazteko. Hirugarrenik, Mikoletaren euskal txistukariak aztertuko ditut: sistema grafikoa, lehenengo, eta sistema grafikoa oinarri hartuta txistukarien neutralizazioaz zer-nolakoak eta norainokoak esan daitezkeen argitzeko.


4.7.3.3.1. Erdi Aroko gaztelaniatik gaztelania modernora

Tradizioz, Erdi Aroko sistema fonologikotik sistema fonologiko modernora bitarteko trantsizioa izan da gaztelaniaren historiaren barnean interes gehien eragin duen gaitako bat (Oyosa 2007: 25), eta horregatik, beharbada, eztabaida gehien eragin dituenen artean ere badago: Malkielek (1971: 1) zioenez, zenbait alderdi argitzea besterik ez da lortu. Zehazki, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako aldaketa fonologikoez ari naiz, Erdi Aroaren eta gaztelania modernoaren arteko trantsizioa irudikatzean hispanistek “erreboluzio fonologiko” deitu izan dutenaz.

Hispanisten artean ezagun da Erdi Aroan gaztelaniaren txistukarien sistema ondoren ezagutu duguna baino konplexuagoa zela. Erdi Aroan fonema txistukari ahostun eta ahoskabeak zeuden, baita frikari eta afrikatuak ere. Erdi Aroaren amaieraz geroztik, berriz, hiru prozesu gertatu ziren: alde batetik, ahostunen eta ahoskabeen arteko oposizioa galdu zen, ahoskabeen alde; beste alde batetik, hots afrikatuak ahuldu eta frikari bihurtu ziren; ondotik, lepokari ahoskabearen artikulazio-gunea aurreratu eta

[θ] sortu zen, eta sabaiaurreko frikari ahoskabearen artikulazio-gunea atzeratuta [x].²⁸⁸

Hona hemen prozesua laburtzen duen eskema, Blancori (2006: 45-46) jarraikiz emana:



22. irudia. Gaztelaniazko txistukarien bilakabidea

Esan gabe doa aurreko eskemak laburbiltzen dituen prozesuen (ahoskabetzea, afrikatuak frikari bihurtzea eta ebakera fonetiko berriak sortzea) kronologia ahalik eta zehatzena ezagutzea funtsezkoa dela gertakizunen irudi egokia izateko; aitzitik, gaia oso konplexua da, eta ikertzaile hispanistek hainbat ziurgabetasun, lausotasun eta arazo aipatu dituzte:

La revolución fonética y fonológica del siglo XVI es un hecho constantemente estudiado por los investigadores de la lingüística histórica, pero no por ello totalmente clarificado. Los puntos oscuros son muy abundantes y más numerosos cuanto más avanza la investigación. Los cambios fonéticos que provocaron la revolución del sistema fonológico del castellano se produjeron con distinta intensidad y en fechas diferentes en las diversas comarcas castellanohablantes; de modo que generalizar y dar una única respuesta para explicar estos hechos no será más que una simplificación de la cuestión con la consiguiente imprecisión y falta de rigor científico. El conocimiento total y verdadero de este problema lo obtendremos sólo cuando dispongamos de

²⁸⁸ Hispanista guztiak ez datoz bat prozesuen arteko kronologia erlatiboa ezartzean: “La relación cronológica entre fricativización y ensordamiento en estas sibilantes dentales resulta casi imposible de definir: la fechación tardía del ensordamiento, al modo de A. Alonso, hacía suponer anterior la fricativización. Hoy, al haber adelantado el inicio del ensordamiento, la situación se presenta mucho menos clara. Quizá, como señala Ariza (1994: 225) «en unas zonas fuese antes la fricativización y en otras el ensordamiento». De todos modos, ambos fenómenos no se necesitan mutuamente para producirse” (Cano 2013 [2004]: 838). Esandakoak esanda, badirudi fonologia naturalaren ikuspegitik errazago azalduko litzatekeela (1) frikativizazioa > (2) ahoskabetzea hurrenkera, Alonsorekin bat eta Pensadok (1983) prozesu fonologikoen hurrenkeraz eginiko lanari jarraikiz; cf., halaber, Echenique & Pla (2013) lana, Pensadoren ikuspuntua berresten duena.

suficientes estudios parciales que saquen a la luz cómo se produjeron estos cambios en los distintos lugares del dominio hispánico. (Satorre, 1989: 267)

Oro har berregituratzea XVI. eta XVII. mendei lotuta aipatu ohi da, baina lauso besterik ez da ikusten aldaketa-prozesuak abiarazita (ezen ez egonkortuta) zeudela leku batzuetan: “De modo que debiero coexistir, en el período que consideramos, los usos nuevos y los hábitos fónicos antiguos, e incluso otros que no prosperaron” (Alarcos 1990: 53); “los siglos XVI y XVII marcarían la transición entre distintas situaciones de variación, las típicamente medievales y las modernas, más que la consecución de una situación de estabilidad y «fijación» del sistema” (Cano 2013 [2004]: 825). Aldaketa-prozesuon deskripzioa oinarri hartuta ere, agirien ikerketak etengabe islatzen du errealitate konplexua, heterogeneoa eta anitza, orokortasunei heldu aurretik testuz testuko arakatzeko-lana eta ikerketa eskatzen dituen. Filologoak ahalik eta zehaztasun handienarekin egin behar du lan testuetan lekututako bariazio grafofonologikoa azertzeko, eta, hala eta guztiz ere, askotan alboratzen zailak dira zenbait datuekiko zehazgabetasun-sentsazioa eta irakurketekiko segurtasun falta.

Erreboluzio fonologiko modernoari buruzko ikerketa-lanak bat datoz: aldaketen sorrerari eta hedaturari buruzko lekukotasun fidagarrienak sasoian sasoiko gramatikarien lanetatik erauzitakoak dira, nahiz eta datuak ez diren beti egungo ikertzaileak nahiko lukeen bezain argiak. [θ]-ri dagokionez, XVI. mendearen amaierako gramatikariren batek aipatzen du, baina ez dirudi laster zabaldutako berrikuntza izan zenik, XVII. mendean gutxi batzuek aipatu baitzuten:²⁸⁹

Los testimonios de los gramáticos nos permiten concluir que el paso del «siseo» primitivo (fricación alargada y acanalada) al «ciceo» posterior (fricación plena transversal), aunque iniciado hacia finales del siglo XVI, no se cumplió rápidamente después, y en el siglo XVII era aún un fenómeno poco extendido y estaba todavía lejos del ceceo pleno moderno. (Blanco 2006: 84)

²⁸⁹ Blancok (2006: 60) aztertutako XV., XVI. eta XVII. mendeetako hemeretzi gramatikariren artean bik besterik ez dute [θ] argi edo argixe deskribatzen (Cuestak 1589an eta Bonetek 1620an). Canok (2014 [2004]: 843) hots berriaren deskripzio fidagarritzat ditu, aurrekoenak ez ezik, Corrorena (1560), López de Velascoarena (1578) eta Oudinena (1619). Ikuspegi orokorraren aurka hortzartekotzea zabalago zebilela proposatu duenik ere bada; cf. Guitarte (1992a, 1992b). Madariagak, bestalde, grekerako zetatik bereizteko jo zuen: “Esta letra es griega y nuestra, y no entra en diciones latinas. Pero digan lo que quisieren los antiguos, que en nuestro castellano deue tener otra consideracion su origen desta letra que en griego. Porque no es otra cosa que vna c, comedia y mas blanda en la pronunciacion, y aun la misma c, doblada en la figura (...) De la z y de la c, no se puede dar regla mas cierta de las que se pueden entender de lo dicho, es a saber. Que siempre que pronunciaremos la c, en toda su fuerça y rigor se pone c, como çabala, çigueña y cuando la c no trae su entero sonido, sino que viene con mayor suavidad y dulçura, entonces echaremos z, como zagal, zelo, azibar. Deue se pues tener mucha cuenta en que lengua y pluma ygualen a la sutileza del oydo” (1565: 101r-101v). Ulibarririk eta Urgellek markatu legez, “Ez dago pasarte honetan /s/ eta /ts/-ren arteko oposaketaren aztarrenik ere, antza denez: Alonsoren arabera (1955: 433), <c>-ren «indarrak eta gogortasunak» /s/ ahoskabea adierazten du eta <z>-ren «leuntasunak eta goxotasunak» /z/ ahostuna” (2019: 505; begiratu, halaber, orrialde bereko 13. oin-oharra, Madariagak emandako çabala-ri buruzkoa).

Respecto a los procesos de interdentalización y velarización experimentados por las antiguas sibilantes, los datos que arroja nuestro *corpus* confirman la visión de los hechos defendida desde la tradición hispana, que define uno y otro fenómeno como procesos tardíos que no se generalizaron hasta la segunda mitad del siglo XVII o incluso más tarde. De acuerdo con nuestros datos, parece que dichos fenómenos debieron de iniciarse hacia finales del siglo XVI y que su generalización no se consumó hasta bien entrado el siglo XVII. (Blanco 2006: 110)

“Tradizio hispaniarra” aipatzean, XX. mendeko hispanista nagusiek emandako iritziak ditu gogoan Blancok:

Por lo que se refiere al fenómeno de interdentalización, Lapesa (1942, §924) sostiene, a la luz de los testimonios de los tratadistas, que ya en la segunda mitad del siglo XVI la articulación interdental era practicada por los hablantes del área septentrional, mientras que en Toledo y en otras zonas la igualación de /θ/ de las antiguas africadas no fue completa hasta el primer tercio del siglo XVII. A. Alonso (1955: 336 y 337), ante la falta de testimonios suficientes, sólo se atreve a conjeturar que el ciceo completo se debió de generalizar en castellano hacia la mitad del siglo XVIII, aunque ya desde mediados del siglo XVI se pueden rastrear los primeros indicios de un ciceo incipiente. Para Alarcos (1950: 272-73) la interdentalización de /ʃ/ fue un proceso definitivamente cumplido muy tarde, aproximadamente hacia la segunda mitad entrada del siglo XVII. De modo similar, Lloyd (1987: 531-43) señala que, aunque desde los primeros años del siglo XVI hay ya indicios de una incipiente pronunciación interdental del sonido escrito con <ç>, tal y como se desprende de las descripciones articulatorias de algunos gramáticos, la generalización de este proceso llevó tiempo y no se consolidó hasta bastante tarde, probablemente a principios del siglo XVIII. También Cano (1988: 240) apunta que, aunque los primeros datos de la interdentalización de /ʃ/ son de la segunda mitad del siglo XVI, el fenómeno no debió de consolidarse hasta finales del siglo XVII, o incluso principios del XVIII”. (Blanco, 2006: 110-111)

Beste alde batetik, fenomenoen banaketa soziala eta geografikoa ere erabili izan da gaiari buruzko ikerketetan:

Para la correspondencia entre la variación lingüística (distinguir vs no distinguir estos fonemas) y la «externa», existen dos indicios: uno, la defensa de la distinción [sorda/sonora], incluso cuando ya no era viva y sólo se aplicaba a la escritura, muestra que esta era la variante «cultura», sociolingüísticamente «alta»; pero la indistinción no llega a calificarse de «baja» o «inculta». El otro es la ubicación geográfica de una y otra normas que la Lingüística histórica hispánica ha venido repartiendo, la igualación para Castilla la Vieja (posible área inicial), Aragón y, más dudosamente, León; y la distinción para Toledo, guía del idioma en la época, y con ella el sur peninsular, en especial Andalucía. (Cano 2013 [2004]: 835-836)

Banaketa geografikoari dagokionez, beraz, horizontala izan da sasoi batean Penintsulako iparraldearen (gune berritzailea barne zuena) eta hegoaldearen (gordetzaileagoa) arteko bereizketa. Aurreko aipuak azaltzen duenez, “Gaztela Zaharra” jo izan da gune berritzailetzat,²⁹⁰ Aragoirekin²⁹¹ (eta, beharbada, Leonekin) batera; tamalez, ez da erraza zehaztea noraino iristen zen “Gaztela Zahar linguistikoa”, ez eta

²⁹⁰ Garai historikoa zein den, aldatu egiten dira Gaztela Zaharraren muga politiko-administratiboak, eta batzuetan irudipena dut ez ote den izendapena era anakronikoan erabiltzen Gaztelako erreinuaz, koroaren mendeko lurraldeez zein 1833az geroztiko banaketa administratiboaz aritzeko. Besterik da, gainera, Gaztela Zaharra unitate linguistikotzat har daitekeen (eta hala bada, unitate horren batasuna azter daitekeen ondoz ondoko garai historikoetan).

²⁹¹ Líbanok (1998: 141 eta 148) ezberdintasun nabarmenak aipatu izan ditu Aragoiko eta Nafarroako amanuenseen lekukotasunen artean.

euskal lurrek, periferian egonik, Gaztela Zaharrarekin zuten lotura linguistikoa neurtzea ere.²⁹²

Zentzuzkoa da pentsatzea Bilbo aldeko gaztelania hurbilago zegoela Gaztela Zaharrekotik Toledokotik baino.²⁹³ Halere, zehazteke daude hala “Gaztela Zahar linguistikoa”-ren mugak (kontuan hartzekoa da Canok berak –2013 [2004]: 834– “Cantabria, Vasconia, Castilla la Vieja” bereiz aipatzen dituela) nola hortzartekotze-fenomenoaren hedadura XVI-XVII. mendeetan, aintzat hartuta sorgunetzat jotzen den eremuaren barnean azpi-eremu gordetzaileak ere bazeudela: Salamancako eta Asturiasko mendebala, Sanabria eta Cáceres aipatzen ditu Canok (2013 [2004]: 836, 21. oin-oharra).

Ezer ziurrik baieztatu aurretik, hobeto ezagutu beharko lirateke hala Bilboko gaztelaniaren nola Penintsularen iparraldeko txistukarien sistema; hori lortu artean, arestian azaldutako gramatikariaren aipu eta azalpen laburrak, eta joera nagusien irudi orokorrak besterik ezin dira erabili. Hego Euskal Herriari dagokionez, “los datos sobre el castellano de área vasca occidental siguen siendo una ausencia notable en las reconstrucciones diacrónicas del complejo castellano” (Isasi 2006a: 531).

4.7.3.3.2. Hego Euskal Herriko berrikuntza bat: euskal seseoa

Aurreko fenomenoei beste bat gehitu behar zaie Bizkaiko (baina ez bakarrik Bizkaiko): testuetan agertzen diren <s>, <ss>, <ç> eta <z>-ren arteko “truke”-ez ari naiz, eta bi norabidetan gertatzen dira: <ç>, <z> → <s>, <ss> eta <s>, <ss> → <ç>, <z> (Isasi, Iribar & Túrrez 2012: 175). Inoiz zalantza egin bada ere,²⁹⁴ zabal onartzen da halakoak ez XVI-XVII. mendeetatik, baina goragotik (Erdi Aroaren amaieratik) datozela, agiri zaharrek erakusten dutenez: “Se comprueba la existencia continuada de testimonios seseantes desde la Edad Media hasta el s. XVIII” (Iribar & Isasi 2008; halaber, begiratu Isasi, Iribar & Túrrez 2012: 175). Are gehiago: “El seseo se revela como la peculiaridad gráfica más significativa de estos documentos” (Iribar & Isasi 2008: 256). Halere, badirudi eremuen arteko aldeak zeudela; izan ere, Madariaga

²⁹² Proposamen orokorrak proposamen, Fragok (1977, 1981, 1985) behin baino gehiagotan ukatu du iparraldea → hegoaldea norabide bakarreko hedatzea; izan ere, iparraldekotzat jo izan diren fenomenoak aurkitu izan ditu Andaluziako agirietan.

²⁹³ XVI. mendeko testuak begiratura, ahostunen eta ahoskabeen arteko bereizketa neutralizaturik dakusa Hualdek zenbait euskal testuren (adibidez, *RS* eta Lazarg) erdal pasarteetan (begiratu Hualde 2010: 102 eta hurrengoak).

²⁹⁴ Cf. “no se puede negar con rotundidad que las cacografías vizcaínas puedan ser un mero reflejo de la variación del castellano en su tránsito al sistema consonántico moderno (...). El argumento parece aplicable, en especial, a la inseguridad del escribano ante formas de aparición poco frecuente (...) Pero no parece que este sea el caso de otros muchos testimonios” (Isasi 2006a: 534). Begiratu, halaber, Isasi (1999: 230-231)-ko zalantzak.

kaligrafoak Valentzian eta Katalunian deskribatu zuen fenomenoa, baina ez Euskal Herrian (letra etzanak nireak dira): “en Valencia y Cataluña dicen *haser, dise, vesar*, por *hazer, dize, vezar*” (1565: 101).

Seseoaren jatorriari loturik eta grafiaz harago, euskara-gaztelania ukipenaren eragina aipatu izan da: “concebido el seseo como una interferencia derivada del contacto con la lengua vasca, parece obligado ahondar en la relación del fenómeno con el propio sistema de sibilantes del euskera y en la relevancia que este pueda tener como clave para su comprensión histórica o presente” (Isasi, Iribar & Túrrez 2012: 175). Aitzitik, gaiarekin arduratu diren zenbait ikertzailek ez dute argi zehazterik izan zein norabidetan gertatu zen eragina; hots, euskal txistukarien neutralizazioak eragin zuen gaztelaniaz seseoa agertzea, alderantziz gertatu zen ala eragina bi norabidekoa izan zen:

No parece sencillo determinar en cuál de las dos lenguas de esta comunidad bilingüe empezó la neutralización. ¿Encontramos seseo en el castellano de Micoleta por influencia del vascuence de Bilbao, donde se habían neutralizado las sibilantes con anterioridad o se neutralizan las sibilantes en dialecto vasco local porque el castellano usado en Bilbao había adoptado una norma seseante? (Hualde 2010: 113)

Hizkuntza-ukipenaren ustezko eragina aztertzeko, aintzat hartu behar da Euskal Herrian (eta, batez ere, hirigune eta hirietatik kanpo) gaztelania ez dela historikoki gerora bezain zabaldua egon ez geografikoki, ez sozialki: “it is the social context, not the structure of languages involved, that determines the direction and the degree of interference” (Thomason & Kaufmann 1988: 19). Tradizioz onartu izan da ukipen bidezko eragin linguistikoak errazago gertatzen direla biztanleria gehien biltzen duten guneeetan, ukipena bera sarriagoa eta sakonagoa baita: “The more intense the contact situation is, the more likely it is that extensive structural borrowing will occur” (*idem*, 67).

Bizkaiaz denaz bezainbatean, ez da ahaztekoa IbarGC kronikan elebiduntzat jotzen zirela Bilbo eta Barakaldo (Arriolabengoa 2008: 40). Hori dela eta, gaztelaniaren eragina ikusi izan da euskal txistukarien neutralizazioan: “en esta parte occidental del país, el abandono de la distinción va de par con la romanización, y por ello, no parece fuera de lugar el recordar aquí el seseo característico del castellano de Bilbao” zioen Mitxelenak (1968: 345). Halaber Hualdek: “Paradójicamente, el hecho de que la neutralización de punto de articulación en lengua vasca comience en la zona de Bilbao nos lleva a pensar en la influencia de la lengua castellana sobre la vasca en este sentido” (2010: 113).

Azken aldiko ikerketek, bestalde, hiri eta hiribilduetatik kanpo ere deskribatu dute *seseo*-a gaztelaniaz idatzitako agirietan:

Hay seseo en todos los tres territorios [Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa], por lo que la relación específica con las variantes dialectales de la lengua vasca puede ser condicionante de las realizaciones del seseo, pero no del origen del fenómeno, cuya relación con la presencia de la lengua vasca se revela más global. Es decir, en lo histórico, sesearon tanto los territorios que mantenían la distinción entre ese apical y la predorsal como aquellos otros que han evolucionado hacia su confusión, si bien es cierto que ha sido más fácil identificar ocurrencias seseantes en archivos vizcaínos y guipuzcoanos que se corresponden con áreas de mayor permanencia y vitalidad del euskera. (Isasi, Iribar & Túrrez 2012: 177)

Azken baieztapen horren argitan, euskal txistukarien neutralizazioa ez litzateke beharrezkoa gaztelaniaz *seseo*-a eragiteko, neutralizaziorik gabeko lurraldeetan ere badagoelako; zehazki, euskararen eta erromantzearen arteko ukipena egon den eremu osoan, nahiz eta horrek ez duen esan nahi eragina bat eta bera izan denik sasoi eta lurralde guztietan.

Kronologia absolutuak ere ikuspegi bera ematen du: mendebaleko euskal testu zaharrenek lepokari frikarien neutralizazioa hasita zegoela islatzen badute ere, bereizketa orokor eta nagusi zen. Are gehiago, neutralizazio-kasuak inon agertzekotan, herskari aurreko frikari lepokarian agertzen dira, eta afrikatuen neutralizaziotzat jo daitezkeen kasu garbiak ez dira XVII. mendera arte agertzen.²⁹⁵ Hartara, sail batean eta bestean XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan hedatu bide zen neutralizazioa, dirudienez eta gerora (§5.2.4.1) zehatzago erakusten saiatuko naizenez, eredu hierarkiko bati jarraikiz: hiri eta herrigune handienetan edo demografikoki garrantzitsuenetan lehenengo eta txikiagoetan eta biztanleria sakabanatuagoetan gerora (cf. *FHV* 231 eta Atutxa & Zuloaga 2014).

Kronologia horren aurrean, bada, gogoratzekoa da Euskal Herriko gaztelanian seseoa Erdi Aroaren amaieraz geroztik agertzen dela agirietan.

Seseoaren ebakera ere ez da kontu ziurra. Hego Euskal Herrian gaur egun seseoa darabilten erdal hiztunen artean banaketa ageri da (Isasi, Iribar & Moral del Hoyo 2009: 233): alde batetik, seseoa apikariaren bidez gauzatzen dutenak daude; beste alde batetik, lepokariaren bidez gauzatzen dutenak. Banaketak, gainera, badu interesik euskarari dagokionez; izan ere, lehenengo hiztunak Euskal Herriko mendebalekoak dira (alegia, txistukari frikarien neutralizazioa hedatuen eta sistematizatuen dagoen eremukoak), eta bigarrenak euskaraz bereizketa gorde den eremu zabalekoak. Hartara, ukipen bidezko eraginak direla eta, ezin proposa daiteke gaztelaniazko seseoa euskararen eraginez

²⁹⁵ Corpusaren muga ezagunek eta euskal txistukarien sistema islatzeko sistema grafiko defektibo batekin lan egin behar izateak eragina izan dezakete, nolana ere den, aurreko puntu horri dagokionez.

gertatu zenik, baina ditugun datu modernoan arabera hipotesi bezala proposa daiteke ez sorreran baina geroko bilakaeran euskarak izan duela eraginik seseoak eremu batzuetan eta bestetuetan izan dituen ebakeretan.

Mikoletaren garaiak denaz bezainbatean, ez dago euskal seseoaren ebakera zehatzaren inguruko berririk, baina hispanista klasikoek seseoaren eta zizeoaren arteko ebakera proposatu izan dute XVII-XVIII. mendeetarako:

Gracias a A. Alonso sabemos que lo peregrino del timbre de la ç y la z españolas era una mezcla de siseo-ciceo. Esta mezcla de siseo y ciceo subsistió en Castilla y Toledo hasta muy avanzado el siglo XVII y sólo a finales de él o ya en el siglo XVIII se impuso la articulación ciceante pura /θ/. R. Lapesa utiliza para transcribir este sonido, mezcla de siseo y ciceo, el signo [θ⁰]. (Satorre 1989: 286)

Horren arabera, bitarteko [θ⁰ s] izango genuke denbora-tarte erlatiboki luze batean, eta horretatik ez /θ/ berankorragoa, ezpada [s̺] sortu bide zen Euskal Herriko erdal hitzunen artean hasiera batean.²⁹⁶

4.7.3.3.3. Laburpen gisa, gaztelaniaren txistukarien sistemaz

Aurreko azalpenek luze jo dute, baina Mikoletaren beraren testuari heldu aurretik beharrezkoak direla uste dut, bilbotarrak bizi izan zuen sasoi linguistikoaren gorabeherak eta konplexutasunaa agerian gera daitezten. Laburbilduz, honako datu hauek jo daitezke ziurrentzat, eta horiekin egingo dut lan ezinbestean:

- (i) Penintsularen iparraldeko (zehazki, Gaztela Zaharreko) zenbait eremu berritzaile izan ziren XVI-XVII-XVIII. mendeetan hasitako eta hedatutako aldaketa-prozesuetan.
- (ii) Penintsularen iparraldea berritzaile izanik ere, aldaketen erritmoa ez zen bat eta bera izan eremu guztietan: prozesu batzuen kronologia eta, batez ere, hortzartekotzearen egonkortzearena eta orokortzearena, berankorra izan zen.
- (iii) Geografia linguistikoari dagokionez, Penintsularen iparralde linguistikoa definitzeke edo mugatzeke dago, eta aztertzeke dago zer leku zuten Hego Euskal Herriko lurrik iparralde horretako egitura geolinguistikoa.
- (iv) Aurrekoarekin bat, zaila da zehaztea noiz hasi, hedatu eta orokortu ziren gaztelaniazko txistukarien frikatizazio- eta ahoskabetze-prozesuak; halaber, zaila da ziurtasunez jakitea zenbaterainoko hedadura izan duen [θ] hortzartekoak Bilbon azken mendeotan.

²⁹⁶ Badirudi hortzartekoaren kronologia atzeratzea onartu dutela Ulibarrik eta Urgellek: “Uler bedi [XVI. mendean] oraindik ez zegoela /θ/ horzkaririk espainolez, ezta XVII. mendean ere (Alonso 1955: 405-409)” (2019: 505).

(v) Nolanahi ere den, lehenenik eta behin iturriz iturriko azterketa grafematikoa egin behar da, ondoren grafemen, bariazio grafikoaren eta idazkeraz harago dagoen eta beharbada bariazio grafiko hori azal lezakeen sistema fonologikoaren arteko harremana argitzeko.

(vi) Euskal eremuko testuekin lan egitean, aintzat hartu behar da seseoa; izan ere, seseoa darabilten hiztunek ez dute [θ] hortzartekoa ahoskatzen.

(vii) Hego Euskal Herrian seseoaren lekukotasunak daude Erdi Aroaz geroztik, eta ez dago arrazoi sendorik euskal txistukarien neutralizazioak hizkuntza-ukipenaren bidez eragindakotzat jotzeko; izan ere, gaztelaniazko seseoa agertzen da euskal txistukarien arteko bereizketak gorde diren eremuetan. Kronologia absolutuari begira ere, lehenago adierazi dudanez, gaztelaniazko seseoa euskarazko neutralizazioak baino zaharragoa da.

(viii) Gaur egun euskal seseoa bi ebakerari (apikaria eta lepokaria, eremua zein den) lotuta agertzen bada ere, ez dago argi esaterik zein zatekeen ebakera Mikoletaren garaian; aukerak bi dira: edo Lapesak [^θ_s] irudikatutakoa (Lapesak berak aipatutako kronologiaren arabera, hau espero beharko litzateke), edo gerora Mendebalean ezagutu dena [ś].

(ix) Hizkuntza-ukipenaren bidezko transferentzia linguistikoen eremuan, kontuan hartuta seseoa apikari dela euskaraz apikariaren aldeko neutralizazioa gertatu den eremuan eta lepokari dela euskaraz bereizketa gorde den eremuetan, pentsa liteke ez seseoaren beraren sorreran, baina gerora sortutako ebakeren banaketan euskarazko txistukarien ebakerak izan zezakeela eraginik; aitzitik, hori egiazki gertatu denetz eta, gertatu bada, non eta noiz gertatu den, XVII. mendeaz geroztiko gaztelaniazko agirien azterketak baieztatu edo gaitzetsi beharko du.

4.7.3.3.4. Mikoletaren gaztelania: txistukariak

Atal honen helburua da Mikoletaren eskuizkribuko gaztelaniazko txistukarien adierazpenaren deskripzioa ematea, eta sistema grafikoa oinarritzat hartuta, ustez azpian zeutzan ebakera fonetikoez eta sistema fonologikoaz argibideak ematea. Horretarako, Hualdek (2010: §5.1) *RS* bilduma elebiduneko gaztelania ikertzeko baliatu zituen irizpideei jarraituko diet. Zeregin honetarako ez dut Mikoletaren eskuizkribu osoa erabili: nahikotzat jo dut euskara/gaztelania hiztegian (5r-9v) agertzen diren formak

aztertzea, nahiz eta datu gehiagoren falta nabaritu dudanean eskuizkribuko beste atalen batean agertzen diren formak ere aipatu ditudan.

4.7.3.3.4.1. Gaztelaniazko /ts/ zaharraz

4.7.3.3.4.1.1. <c> eta <ç> vs <z> oposizio grafikoari dagokionez, /ts/ afrikatu hobikari lepokari ahoskabe zaharra <ç>-ren bidez adierazten da oro har hala bokal artean nola kontsonante ozenen ondoren: 5r *aguçar*, 5v *braço*, 6r *conoçer*, 6r *conoçimiento*, 6r *coraçon*, 6r *creçer*, 6v *difiçil*, 6v *emblanqueçer*, 6v *enloqueçer*, 6v *espaçio*, 6v *façil*, 8r *moço*, 8r *naçer*, 8r *naçido*, 8r *paçífico* eta abar; 5r *adulçar*, 5r *alçar*, 5v *calçar*, 5v *calçones*, 6v *dulçe*, 6r *començar*, 6v *ençender*, 6v *ençerrar*, 6v *ençima*, 6v *ençino*, 7r *françes*, 7v *mançebo*, 9r *silençio*, 7v *março* (baina 14v *marzo*), 7v *merçed*, 8r *morçilla*, 9v *terçer*, 9v *torçer* eta abar.

Halaber, <c> ez da agertzen <e>-ren eta <i>-ren aurretik; kokapen horretan ere <ç> besterik ez dago: 6r *çebolla*, 6r *çer[r]ar*, 6r *çerro*, 6r *çevada*, 6r *çiego*, 6r *çielo* eta abar. Izan ere, hitz hasieran eta bokal artean <c>-k herskari belar ahoskabea adierazten du <a>-ren eta <o>-ren aurretik: 6r *casa*, 6r *carne*, 6r *codo*, 6r *cuerno*; 5r *acompañar*, 5v *blancura*, 6r *clueca*, 6v *ducado*, 7v *loco*, 8v *pecado* eta abar.²⁹⁷

Adibide isolaturen batean <c> agertzen da bokal artean (6v *empear*, *vea comencar*), eta berba bera <c>-rekin zein <ç>-rekin ager daiteke, hala nola 6v *endurecer* baina 6v *endureçerse*. Nolanahi ere den, adibideak oso urriak dira eta hutsegite arruntak izan daitezke.

Aurreko datuen argitan, Mikoletaren eskuizkribuak erakusten du egileak <ç> hautatu zuela oro har hitz hasierarako, bokal arterako eta ozen ondoko kokagunerako; bestalde, <c> gorde zuen, inoiz <qu->-rekin batera, herskari belar ahoskabea adierazteko.

Arestian aipatutako <c> eta <ç> vs <ç> oposizioa dela eta, <z> agertzen da etimologikoki ahoskabea zegoen testuinguruetan, eta adibide gehienak bokal artekoak dira:²⁹⁸ 5r *adelgazar*, 5v *caueza* (baina 5v & 9r *caveça* eta 13 *cabecera*), 9v *tizon*, 9v *tozino* eta abar. Aztertutako laginean <z-> bakar bat dago hitz hasieran: 9v *zorrra* hitzari dagokio, eta <z-> hori tradizio ortografikoaren ondorio besterik ez da (Satorre, 1989: 275).

²⁹⁷ <qu-> ere badago <e>-ren eta <i>-ren aurretik (8v *quemar*, 8v *quitar*), bai eta <o>-ren aurretik ere, 6v *liquor* aldaera latindarrean.

²⁹⁸ Bazter utzi ditut arabismoak (5r *azafrán*, 5r *azucar* eta abar).

4.7.3.3.4.1.2. /dz/ ahostun zaharra hainbatetan ematen da <z>-ren bidez bokal artean eta ozen ondoren, Erdi Aroko testuetan legetxez: 5v *avezes*, 6r *hazer*, 6v *deshazer*, 6v *doze*, 7r *granizo*, 7r *hezes*, 9r *rezar*, 9v *naturaleza*, 9v *vezino*; 6r *catorze*, 8r *onze*, 8v *quinze*. Beste kasu batzuetan, aldiz, eta aurreko puntuan azalduetakoa aintzat hartuta espero zitekeenez, <ç> ere badago bi kokaguneetan:²⁹⁹ 5v *ançuelo* (port. *anzol*), 5v *bendeçir* (port. *bendizer*), 6v *deçir* (port. *dizer*), 6v *doçientos* (port. *duzentos*), 7r *çoçina* (port. *cozinha*) eta abar.

Aurreko puntuan azaldu denez, <z> ezohiko da hitz hasieran. Bada, kasu honetan aurkako egoera aurkitu dut: ez dut <-c>-rik zein <-ç>-rik aurkitu hitz amaieran. Hitz amaierako adibideak ez dira oso ugariak erabilitako laginean, baina <-z> tradiziozkoa dute sistematikoki: 6r *vez*, 6r *diez*, 7r *luz*, 7v *lombriz*, 8r *nariz*, 8v *paz* eta abar. Hitz-amaierako <-z>-k ahostun ala ahoskabe diren luze eztabaidatu zen hispanisten artean (cf. Alonso 1955: 158 eta hurrengoak, Guitarte 1983: 78 eta hurrengoak), eta hemen aztertutako corpuseko kasuren batek pentsaraz liezakeguke <-z>-ren bidez txistukari ahostuna adierazten dela grafikoki: *vez* berbaz eta hortik eratorriez ari naiz; izan ere, bokal artean <-z> mantentzen dute sistematikoki (6r & 8r & 9v *vez*; 5v & 6r & 8r & 9r *vezes*). Nolanahi ere den, aintzat hartzekoa da bokal amaierako zetek iturri bat baino gehiago izan dezaketela, eta batzuetan <-z> erabili zela kontsonantea ahoskabea izan arren. Badirudi hori proposatzea dela errazena Mikol 6r *coz* eta 8v *pez* hitzetarako:

En alguna ocasión esta dental africada final no tenía este origen, sino que debería ser sorda por proceder de C agrupada con otra consonante: por ejemplo, PISCE > *pez*, CALCE > *coz*, etc. Sin embargo, la <-z> fue siempre la grafía utilizada para su representación gráfica. (Satorre, 1989: 276)

4.7.3.3.4.1.3. Aurreko datuen azterketak erakusten du Mikoletak <ç> zein <z> erabili zituela bokal artean eta ozenen ondoren Erdi Aroko afrikatu hobikari lepokari ahoskabea eta ahostuna adierazteko; beraz, horren argitan errazena da pentsatzea afrikatu ahoskabe eta ahostunen arteko oposizioa lehenago galdua zela. Hori bermatzen dute bai kokagune berberetan grafema batzuk eta bestetzuk agertzeak, bai berba jakin bat grafia batekin nahiz bestearekin emateak (cf. 5v *caueza*, baina 9r *caueza* eta 13v *cabecera*, azken hori Minsheurengandik hartua).

²⁹⁹ Hualdek (2010) egin bezala, kasu honetan portugesezko formak emango ditut Mikoletak emandakoen alboan; izan ere, portugesak gorde egin ditu gaztelaniak galdutako bereizketak, eta konparaziorako argigarri da forma zaharra eta berria parez pare jartzea.

Afrikatu hobikari lepokari zaharren arteko bereizketa bakarrak hitz hasieran eta amaieran agertzen dira: Mikoletak, oro har, <ç> gorde zuen hitz hasierarako, eta <-z> hitz amaierarako. Horren argitan pentsa liteke neutralizazioa deskribatutako kokaguneetan bakarrik gertatua zela, baina ez dirudi proposamen egokia; izan ere, “cualquier fonema consonántico castellano en posición final tiende a neutralizar la oposición sorda/sonora” (Satorre 1989: 276).

4.7.3.3.4.2. Frikari zaharrez

4.7.3.3.4.2.1. Frikari hobikari apikari ahoskabe eta ahostunen atalean ez dut aurkitu kasurik non ahostun zaharra islatzen zuen <-s->-k <-ss-> ahoskabe etimologikoa adierazten duen. Aurkitutako adibideek <-ss-> digrafoa dute bokal artean: 5r *abadessa*, 5r *amassar*, 5v *apriessa*, 5v *assentarse*, 5v *assador*, 5v *assí*, 5v *assomar*, 5v *assar*, 7r *gruesso*, 7r *passado*, 7r *huesso*, 7v *massa*, 8r *missa*, 8r *neçessaria*, 8v *passa*, 8v *passar*, 8v *passo*, 9r *siesso* eta abar. Egoera deigarria da neurri batean; izan ere, *RS* bildumako erdal itzulpenetan badaude <-ss->-ren ordezeko <-s->-en adibideak: *RS* 32 *pasado*, 99 *vasura*, 173 *pasito* eta 409 *dieseys* aipatzen ditu Hualdek (2010: 102); baina, ematen du Mikoletak gordetzaileago jokatu zuela (cf. 7r *passado*, 8v *passar*, 8v *passo* eta abar).

Hemen aztertutako laginetik harago, <-ss->-ren ordezeko <-s->-ren adibideren bat aurkitu dut Minsheuren lanetik hartutako elkarrizketetan: 13v *aseo* (cf. port. *asseio*).

4.7.3.3.4.2.2. Frikari hobikari apikari ahostun zaharra <-s->-ren bidez adierazten da oro har; hots, grafia zaharraren bidez: 5r *cosa*, 6r *casamiento*, 7r *hermosa*, 7r *huso*, 7r *husada*, 7v *losa*, 7v *mensagero*, 7v *mentiroso*, 8r *meson*, 8r *mesonero*, 8r *posada*, 8v *pesada*, 8v *pisar*, 9v *raposo*, 9v *seso*, 9r *trasera*. Hala ere, aurreko adibide-sortarekin batera, zenbait adibidetan <-ss-> digrafoa agertzen da <-s->-ren ordezk: 6r *cassarse*, 8v *peppo*, 12v *peppa* eta abar. Gainera, hitz batzuetan grafia biak aurki daitezke: 6r *casa* (baina 12v & 13r & 13v –birritan– & 14r *cassa*); 7v *mesa* baina (12v & 13v *mesa*); 11r *camisa*, baina 6r *camissa* (port. *camisa*).

Ez dut <s>-ren ordezeko <ss>-rik aurkitu bokal arteko kokapenez kanpo.

4.7.3.3.4.2.3. Bigarren atal honetan bildutako datuek bi joera islatzen dituzte berriz ere. Lehenik eta behin, <s>-ren ordezk <ss> erabiltzeak islatzen du posible zela bi grafemak trukatzea bokal artean; gainera, hitz berberean <-s-> zein <-ss-> erabili ahal izateak zalantzarako tarte gutxi uzten du, eta errazena da proposatzea poligrafia-kasua dela; hots, biek islatzen dutela hots berbera. Hartara, aldaera grafiko hutsak dira nire ustez. Bigarrenik, Mikoletaren eskuizkribuak idazlearen ezagutza edo hautu grafiko

gordetzailleak islatzen ditu berriz ere: deskribatutako alternantziak alternantzia eta frikari ahoskabeen aldeko neutralizazioa neutralizazio, oro har <ss> → <s> norabideko aldaketa gertatzen da, eta bokal arteko adibideak besterik ez ditut aurkitu, afrikatuen sailean bezala.

Lagintzat hartutako hiztegiak harago, maiztasun handiko zenbait aldaeraren azterketa kuantitatiboak berretsi egiten du ahoskabe/ahostun neutralizazioaren egoera aurreratua, bai eta zenbait aldaera grafiko hustzat jo beharra ere. Mikoletaren eskuizkribu osoa erabilia eta *decir~dezir* aldaerei dagokienez, hogeita bederatziz aldiz aurkitu ditut *decir*, *dice*... sortakoak, eta hamabost aldiz *dezir* sailekoak. Horrenbestez, aldaera zaharraren maiztasuna txikiagoa da kasu honetan (adibide guztien % 34). Aitzitik, *hacer~hazer* sortakoak azertuta, azkena (zaharragoa) ugariago agertzen da: *hace* bakar bat aurkitu dut eta *hazer* saileko hogeita lau adibide. Kasu honetan, beraz, aldaera modernoa erabat minoritarioa da (adibide guztien % 4).

Apikarien esparruan, Mikoletak sistematikoki jokatu zuen *cosa* hitza erabiltzean: hirurogeita hiru aldiz aurkitu dut *cosa(s)*, ez dago *cozza(s)*-ik eta *coza* adibidearen adibide bakar bat dago: seseoa islatuko luke, hiperzuzenketatzat joaz.

4.7.3.3.4.2.4. Afrikatu eta frikari zaharren adierazpen grafikoa aztertu ondoren ondoriozta daiteke Mikoletaren eskuizkribuan erabilera eta joera interesgarriak daudela hala ikuspuntu grafikotik nola fonetiko-fonologikotik. Alde batetik, aztertutako datuek erakusten dute egileak zenbait arau grafikori jarraikiz jardun zuela: kokagune edo hitz jakin batzuetan grafema batzuk oso gutxitan agertzeak edo ez agertzeak eta truke batzuetan norabide bakarra agertzeak pentsarazten didate hori. Beste alde batetik, bariazio grafikoak zirrikitu interesgarriak eta esanguratsuak uzten ditu, eta horietan sakonduz maila fonikoan gertatutako aldaketak ikus daitezke.

4.7.3.3.4.3. Seseoa Mikoletarenean

4.7.3.3.4.3.1. Erdi Aroko gaztelaniaren eta gaztelania modernoaren sistema fonologikoen arteko trantsizioa osatu zuten aldaketez gain, eremu batzuetan gertatutako berrikuntza batzuek interes berezia dute; izan ere, hizkeretan joera dibergenteak daude eta aldaki linguistikoak ezaugarritzeko eta bereizteko balio dute. Hego Euskal Herriko gaztelaniari dagokionez, seseoa ikertzea ezinbestekoa da:

El término seseo se refiere en este caso a la indistinción de los resultados de las antiguas predorsales africadas medievales y de las apicoalveolares, en un proceso que pudo ser en un principio *çeçeante* —en sentido lapsiano— para sus primeras etapas documentadas, aunque, en sincronía con la evolución del sistema consonántico castellano, la reducción desembocara en un

seseo, cuyas realizaciones podemos ahora comprender mejor a la luz de sus posibles paralelismos en el actual. (Isasi, Iribar & Túrrez 2012: 175)

Praktikan, beraz, seseoa islatzen duten testuetan <s> eta <ss> erabiltzen da <c>, <ç> eta <z>-ren ordeztu, edo <c>, <ç> eta <z> erabiltzen da <s>-ren eta <ss>-ren ordeztu. Ohikoa da iturri berak aukera bat eta bestea azaltzea, eta hori gertatzen da Mikoletarenean ere.

Lehenik eta behin, <s>-ren eta <ss>-ren aldeko seseo-kasuetan *vascuence* hitzaren hiru aldaera aurkitu ditut ozen ondoren: 12r *vascuence* eta 6r & 9v & 10v (birritan) *vascuenze* alde batetik, eta 3r *vascuense*, 4v *vascuensean* eta 10v *vascuenses* beste alde batetik. Honako adibide hauek bokal artekoak dira, non grafema arruntena <s> baita: 5r *alcusa*, 6r *coser* ‘cocer’, 6v (birritan) *envejeserse*, 7r *peses* ‘peces’, 7v *longanisa*, 8r *pescueso*, 9v *vasiar*, 9v *vasia*. Bestalde, <ss> du 7v *messer* aditzak. Hemen aztertutako laginetik harago, hitz bakar batek grafia bat baino gehiago izan dezake: cf. 14r *tasa* ‘taza’, baina 14r *taza* eta 14r *tazas* Minsheuren lanetik hartutako elkarrizketen atalean.

Bigarrenik, <c>, <ç> eta <z>-ren aldeko seseo-kasuetan, tarteka <z> agertzen da kokagune inplosiboan: 5v *boztezo*, 7r & 7v (lau aldiz) *mez* eta 9v *toz*.³⁰⁰ Bokal artean <ç> zein <z> agertzen dira: 5r *abraçar* ‘abrasar’ (nahiz eta ondo-ondotxoan 5r *cosa abrasada* ematen duen), 7r *graza*, 7r *graça*, 8r *coza* eta 12v *brazero* ‘brasero’. Bestalde, kasu batean <c> agertzen da <s>-ren ordeztu hitz hasieran: 6r *cidra*, *bebida* ‘sidra’.

4.7.3.3.4.3.2. Aurreko adibideek berdintzea islatzen dute etimologikoki txistukari hobikari lepokariak eta apikariak adierazten zituzten grafemen artean; zehazki, adibideak gutxi izan arren, <ç>-ren eta <z>-ren aldeko joera dago kokagune inplosiboan, eta <s>-ren aldekoa ozen ondoren eta bokal artean. Gainera, 14r *tasa* & 14r *taza* edo 5r *abraçar* & 5r *abrasada* (cf., halaber, 12v *brazero*) bezalako bikoteek eta 5r *coser* (‘cocer’, baina baita ‘hariz lotu’ ere) bezalako adibideak seseoaren bidez azaltzen dira errazen. Azken adibide hori bereziki interesgarria da; izan ere, egileak beharrezkotzat jo zuen aditz bat eta bestea bereiztea, nahiz eta grafikoki ez egin; zehazki, esangura argitzen duen hitz berri bat gehitu zion bigarren adierari: 5r *coser* ‘cocer’, baina 6r *coser*, *lienço*, etc.

4.7.3.3.4.3.3. Aurreko ataletan erabilitako argudiatze-ildoari jarraituta, agerikoa da Mikoletak grafema batzuk eta bestetzuk darabiltzala anbibalentziak, eta horien bidez

³⁰⁰ Mikoletaren hiztegitik kanpo, bost adibidetan agertzen da *vazc-*, *vascuence* eta *vascongada* hitzei loturik.

seseoa islatzen dela (hala espero zitekeen eremu bertsuko aurreko eta ondoko mendeetako lekukotasunen argitan). Bariazioa, beraz, ez da inondik inora idazlearen ezjakintasunaren edo hautu anarkikoen ondorio, Andaluzian bi norabideko seseoaren adibideentzat inoiz proposatu zenez (Alonso 1955). Hain zuzen ere, Andaluziako kasuak azaltzeko Guitartek erabili zituen argudioak baliagarriak dira Mikoletaren testuko <c>-ren zein <z>-ren aldeko seseo-kasuak hiperzuzenketatzat jotzeko:

Como existían previamente tres sibilantes: dental, alveolar y palatal, la pérdida de la oposición entre dentales y alveolares hizo que al fonema palatal se opusiera desde entonces un solo fonema; la distinción entre las sibilantes fue de “palatal-no palatal.” Esta última podía realizarse en una zona que iba de los dientes a los alvéolos, pues esto significa decir que ya no era distintiva la localización que antes se hacía en esta región. Por tanto, si había un solo fonema sibilante no palatal, es absurdo pensar que se realizaba con distinciones de localización dental y alveolar (aunque “se aplicaran mal”): esto equivale a sostener que se distinguía lo que no se distinguía. (Guitarte 1983: 90)

Aurreko azalpena sinesgarriagoa egiten zait, gaztelaniazko frikarien artikulazio-guneen arteko hurbiltasunetik eratorritako nahastean pentsatzea baino: ez dut uste Mikoletak gauzatze fonetiko ezberdinak ordenarik gabe islatzen dituenik. Egiantzekoagoa iruditzen zait pentsatzea idazleak ez zuela idatziz eman nahi izan tokiko hizkerako ahoskera-ezaugarri bat, eta horretarako arau(di) grafiko bereizle (eta, beraz, gordetzaille eta kultu) bat baliatu zuela. Ahalegin horrek, halere, grafiaz haragoko ondorioak ateratzeko zenbait zirrikitutxo utzi zituen: poligrafia eta hiperzuzenketak ditut bereziki gogoan grafiaren azpian zetzan sistema fonologikoa argitzeko. Mikoleta zuzenagotzat, jasoagotzat edo prestigiosotsuagotat jotzen zuen arau(di) grafikoari lotu bide zitzaion,³⁰¹ nahiz eta ez zuen erabateko sistematikotasunik lortu, era honetako kasuetan ohi denez:

Los documentos no son una copia fiel de la lengua oral, en los que automáticamente emerjan las características de una determinada lengua, pero, aún con este contratiempo, es posible detectar algunas variaciones gráficas que pueden estar relacionadas con la identificación de rasgos particulares de la lengua que se trasluce a través de la escritura. (Oyosa 2013: 305)

4.7.3.3.4.4. Ondorioak Mikoletaren erdal txistukariez

4.7.3.3.4.4.1. Mikoletaren lana trantsizio-garai batean idatzi zen; hots, aurreko mendeetan hasitako aldaketa batzuk hedatzen eta orokortzen ari ziren bitartean.

4.7.3.3.4.4.2. Eskuizkribuko gaztelania dela eta, ez da idazkera edo irizpide-hautaketa axolagaberik edo anarkikorik agertzen. Alonsok Madariaga kaligrafoari eginiko kritikez ari zela, hala zioen Mitxelenak: “para juzgar de su habilidad o inhabilidad para la distinción y descripción de sonidos, debe tenerse en cuenta la

³⁰¹ Hona iritsita, aztertu egin beharko litzateke zer leku dukeen seseoak Espainiako literatur testuetan “habla vizcaína” (cf. Etxague 2012) deitu izan denean.

totalidad de su testimonio, o sea no solamente lo que dice de los sonidos castellanos, sino también lo que dice de los vascos” (1954c: 370). Hain zuzen, ideia berori aplikatu behar zaio Mikoletari, eta euskaraz idaztean hartutako erabakiak “axolagabe” edo bestelakotzat jo aurretik, gaztelaniazko pasarteei ere begiratu behar zaie, idazlearen jakintza, ezagutza edo tradizioa norainokoa zen ikusteko.

Mikoletaren *Modo breve*-an agertzen den sistema grafikoak tradizio kontserbatzaile baten edo batzuen ezagutza islatzen du, eta hori ez da batere harritzekoa grafiaren eta idatziaren esparruan: “Una grafía puede distinguir artificialmente lo que en la pronunciación es igual, o bien se ha nivelado. Una distinción gráfica no indica forzosamente la existencia de una diferencia fonética” (Pensado 1983: 25).

Mikoletaren eskuizkribuari dagokionez, erabilera grafiko sistematikoek testua idatzi aurretik ondo ezagutzen ziren irizpide eta erabakiak islatzen dituzte: txistukaria adierazteko <ç> gordetzen da, eta <c> herskari belar ahoskabea emateko. Halaber, tradizio ortografikoaren bidez azaltzen den <z-> bakarra dago, eta ez dago <-c>-rik zein <-ç>-rik hitz amaieran.

Apikarien artean ez dut aurkitu <s>-ren ordezkari <ss>-rik, nahiz eta eremu bertsuko beste testu batzuek (bai eta Mikoletak berak Minsheuren lanetik hartutako elkarrizketek ere) aldaketa azaldu. Mikoletarenean <ss> → <s> gertatzen da, eta bokal artean besterik ez dago: ez dut <ss-> zein <-ss>-rik aurkitu hitz hasieran eta amaieran, hurrenez hurren.

Idazleak erabilitako eta aurreko ataletan deskribatutako arau grafikoekin batera, bokal arteko eta ozen ondoko hainbat kasutan ez dira gordetzen <c> eta <ç> vs. <z> eta <s> vs <ss> bereizketa zaharrak. Hain zuzen ere, hainbat kasutan (nahiz eta oro har norabide bakarrean gertatu) grafema batzuk eta bestetzuk kokagune (eta, areago, hitz) berberetan agertzeak islatzen du ahoskabeen eta ahostunen arteko oposizioa neutralizatuta zegoela Bilbon 1650 inguruan. Halaber, *decir~dezir* eta *hacer~hazer* aldaeren azterketa kuantitatiboak eredu kontrajarriak islatzen ditu, eta azalgaitzak dira ez bada proposatzen kasu batean neutralizazioa islatzen dela eta bestean neutralizazio hori ia guztiz ostentzen duen grafia zaharra edo gordetzailea erabili dela.

4.7.3.3.4.4.3. Seseoari dagokionez, berriz ere agertzen da Hego Euskal Herriko testuetako ezaugarri grafiko nabarmen gisa, eta aipatu denez, bi norabidetan gertatzen da: (a) <c>, <ç>, <z> → <s>, <ss> eta (b) <s>, <ss> → <c>, <ç>, <z>.

(a) kasuan ahoskera seseoduna agertzen da, eta (b) kasuko adibidetegia aldaera grafikoek osatzen dute: hiperzuzenketek. Azken batean, lepokari eta apikari zaharren

adierazpena aztertzean erabilitako argudio berberak dira hemengoak: idazleak arau orokorrako, zuzenago edo jasoago bat erabiltzearen alde egin zuen, nahiz eta ez zuen erabat lortu eta testuak tokiko hizkeran seseoa arrunta zela islatu. Hain zuzen, seseo-kasuak zuzentzeko (edo, zuzenean, hiperzuzentzeko) ahaleginak ahoskera seseodunak gizarte-maila batzuetan eta idatziz zukeen prestigio faltaren isla bide dira. Mikoletaren garaia aintzat hartuz, bilbotarrak bereizketa grafiko hutsa baliatu zuen idatziz, idazlari ikasien artean gertatu ohi zenez: “La población más selecta y cultivada utilizaría una norma lingüística mucho más inmovilista y tradicional” (Satorre 1989: 272).

4.7.3.3.4.4. Azken atal honetan Bilbo aldean 1650ean [θ] ebakerarik proposa daitekeen aipatuko dut. Hasteko eta behin, homofoniak saihesteko artikulazio-gunea aurreratzea eragin zuten prozesuak (frikatizazioa eta ahoskabetzea) hedatuta eta orokortuta zeuden Mikoletak bere lana idatzi zuenean, eta hala islatzen du testuak; horrenbestez, hortzartekotzea gerta zedin behar ziren baldintzak betetzen ziren. Horren argitan, pentsa liteke, Ulibarrirekin (2015) bat, /θ/ hain hedatuta zegoela non posible eta beharrezko baitzen <c>, <ç> eta <z> grafemak gordetzea (horrek, bide batez, euskal testuan <s>-k (ia) edozein txistukari adierazi ahal izatea azalduko luke baita Mikoletaren kasuan ere). Gaztelaniaren esparrutik irten gabe, halere, ikuspegi horrek badu arazo bat: Mikoletak argiro islatzen du Bilboko seseoa, eta aintzat hartu behar da seseoa darabilten hiztunek ez dutela hortzartekorik ahoskatzen. Hiperzuzenketa-kasuak ere oztopo dira; izan ere, 5v *boztezo*, 6r *graza*, 6r *cidra*, 8r *coza* edo 9v *toz* bezalakoetan ezin pentsa liteke hortzartekoa dagoenik. Seseoaren ebakera dela eta, berriz gogoratu behar da tarteko ahoskera bat (seseo/zizeoa, Lapesak [θ_s] gisara irudikatutakoa), existitu zela bai Penintsularen iparraldean, bai hegoaldean (Satorre 1989: 286), eta hizkeretan hortik eratorri zirela bai hortzartekoaren ebakera, bai ebakera seseantea.

Nire ustez, hispanistek behin eta berriz aipatzen duten kronologia berankorra eta Mikoletaren testuko sistema grafiko ez dira lagungarri Bilbo aldean [θ] ahoskatzen zela pentsatzeko. Ikusi denez, ordurako soildua zen Erdi Aroko txistukarien sistema, baina [θ]-ren hedatzea eta orokortzea (are sortzea ere) berankorragotzat daukat, hainbat hispanistarekin bat eta seseoarekiko banaketa aintzat hartuz.

4.7.3.3.5. Mikoletaren euskara: txistukariak

4.7.3.3.5.1. Frikariak

Frikarien sailean Mikoletaren eskuizkribuak ez du aparteko zailtasunik, ez eta grafia berezi edo ez arruntik ere. Zailtasunak poligrafia- eta polifonia-kasuak argitu nahi

direnean argitzen dira, bai eta neutralizazioa dagoenez ikusten saiatzean. Atal honetan, lehenik eta behin, kokagunez kokagune aztertuko ditut Mikoletak erabilitako grafemak, neutralizazioa errazen gertatzen den kokagunetik hasita.

(a) Etimologikoki bizkarkaria zegoen kasuetan ia bakar da <s> herskari aurretik, ondoko kontsonantea <t>, <p> zein <c, q> izan (halere, <st> multzoa da ugariena). Guztira herskari aurreko <s>-ren ehun adibidetik gora daude eskuizkribuan: 2r *elestunoc*, 5r *sorrostu*, 5r *bustin*, 6r *bustanna*, 6r *dustis*, 8r *basterra...*; 5v *escurra*, 6r *escondu*, 5r *esquerretati*, 9r *egusquia*, 10r *nigasco*, 12v *asquero*; 2v *espatea*, 7v *vaspia*, 9v *ospina*, 10r *saspi*, 13r *espadavil*, 13v *espadira*. Eskuizkribu osoan ez dut <zc>, <zq> zein <zp> multzorik aurkitu, eta <zt> bakarrak (9v *maztia*) hiperzuzenketa baten ondorio dirudi.

(b) Hitz amaieran ere <s> da grafia arruntena, luzaz: 2r *xaunagas*, 3v *a vis* ‘ha biz’, 4r *sagos*, 14r *es*, 13r *baricus*, 13v *betos*, 14r *erras*, 8r *es*, 14v *guilsas*, 14v *dagos*, 15r *baditus* eta abar. Aitzitik, oso gutxi izan arren, aurreko kokagunean baino ugarixeagoak dira <z>-k: 5r *yaz*, 5v *bolar - egaz eguin*, 6r *contigo - sugaz*, 6v & 14v *artez*, 10v (birritan) & 12v & 13r & 13v & 14r *leguez*.³⁰²

(c) Amaieran <z> duten hitzak oso gutxi dira <s> dutenen aldean (ehun bat), baina sorta honetan esanguratsua da: (a) adibideen kopurua aurrekoan baino handixeagoa izatea eta (b) amaieran <s> duten aldaera batzuk <z>-rekin ere agertzea, hala nola soziatiboko eta instrumentaleko markak, eta *legez* hitza.

Hitz hasieran errepikatu egiten da aurreko sortako eskema; izan ere, <s> duten formak askoz ugariagoak dira (hirurehunetik hurbil) gainerakoak baino: <z> eta <ç> duten hitzak gutxi dira proportzioan, eta are gutxiago geratzen dira mailegu modernoak edo gordinak bereizita:

- (i) Ondare zaharreko berba edo maileguak: 2v (birritan) *zuria*, 2v *zuriac*, 5v & 8r *zaguia*, 6r *zerua*, 7r *zayna*, 7r *zauria*, 8r *zyla*, 10v *zeloac*; 6v *çuritu*, 6v *çauala*, 7v & 8r *çeatu*, 12r *çerua*.
- (ii) Mailegu moderno edo gordinak: 12v *zapatac*, 12v (birritan) *çiertu*, 14r *çelestinac*, 14v *çiertuan*.

Hitz hasieran poligrafia aurki daieke zenbait kasutan <s> erabilienaren eta <z> eta <ç> ez hain erabilien artean. <z>/<s>-ri dagokionez, *zil* barbari loturik besterik ez

³⁰² 13r *tapiz* (gaztelaniaz ere *tapiz* dakar) ere ematen du, baina hemen bazter utziko dut, mailegatutako grafia izan baitaiteke.

dut aurkitu adibide bat: 8r *ombligo zyla, syla* dakartza Mikoletak bata bestearen ondoan, ez elako zuzenketarik edo zirrimarrarik gabe. Horren aurrean, Pagolak (2002: 205) *zil* hitza bi eratara ahoska zitekeela iradoki zuen, baina, baztertzeko aukera ez bada ere, ez luke zertan hala izan; izan ere, pentsa liteke hots bera adierazten duten bi grafema direla aurrekoak, hitz amaieran <-s> zein <-z> duten kasu-marketan bezala. Bestalde, <ç>/<s>-ri dagokionez, sei aldiz aurkitu dut *suri-* eta behin *çuri-*; behin *çauala* eta birritan *sabaldu*.

(d) Bokal arteko kasuek jarraitu egiten diote aurreko sortetako joerari salbuespenetan, eta <VsV>-dunak askoz ere ugariagoak izan arren, aurreko hiru sortetan baino sarriago agertzen dira <VzV> zein <VçV>.³⁰³ Hona hemen aurkitutakoak, berriz ere ondare zaharreko hitzak eta mailegu modernoak edo gordinak bereizita:

(i) Ondare zaharreko berba edo maileguak: 5r & 5v *bizarra*, 6r *azala* (baina 7r *asala*), 6v *arteza*, 6r *arguizaguia*, 6v *yzarra*, 8r *vizarra*, 8r *guizon* (baina 7v *guison*, 8r & 12v *guisona*, 13v & *guisonac*), 9v *azebaria*, 12v *orraziagas*, 12v *vaziña*; 4r *vaçina*, 5r *luçatu* (baina 7v *lusea*), 7r *yrapaçi*, 8v *orraçia*, 9r *açia*, 14v *guiçacume*, 27v *viçioa*.

(ii) Mailegu moderno edo gordinak: 2v *Xerezen*, 5r *azefraea*, 5r *gozotu*, 15r *cabezoe*, 5r *azucarea*, 6v *gozoa*, 12v *barnizadua*, 12r *azotaduen*, 13v & 14r *errazoea*, 13v *errazoeagas*, 14r *tazatan*, 14r (birritan) *taza*, 14r *azeytuna*, 14v *dozena*, 14v *gozo*; 9r *oraçionoe*, 12v *comparaçiñoayric*, 12r *meçedeorrec*, 12r *raçu*, 13r *pedaçuac*, 13r (birritan) *meçede*, 13r *meçedeoc*, 14r *palaçiora*, 14v *doçena*.

Aurrekoez landara, zenbait adibidetan <ss> ere badago: 5v *assea* ‘aza’, 7r *assurra*, 8r & 14r *messea*, 9v *aussoa*, 10v *sufriessasu*, 12v *bissarrau*, 14r *essarri*, 15r *esseyn*.

Aurreko adibide sortaz aritzean kontuan hartu behar da zerrendatutako hainbat elementu mailegu modernoak direla eta Mikoletarenean parez pare ageri direla erdal eta euskal formak hiztegian, poemen itzulpenean eta elkarrizketetan. Horrek, agerikoa denez, hitza ez ezik grafia ere mailegatzea ekar dezakeen hainbat kasutan. Eragin horren menpe jar daitezke, bada, arestiko *palaçiora*, *pedaçuac*, *cabezoe* edo *Xerezen*

³⁰³ Behin aurkitu dut <c> (13r *meçede*), baina akats txiki bat besterik ez bide da hitz beraren gainerako adibideen argitan.

bezalakoak. Aitzitik, azalbide hori ezin da beti automatikoki erabili, eta Mikoletaren gaztelaniak islatzen dituen bestelako fenomenoak ere aintzat hartu behar dira, inoiz euskal testua gaztelaniazkoa baino kontserbadoreagoa baita grafikoki: euskarazko *taza* ‘katilu’ aldaeraren <z> gaztelaniatik mailegatutzat jo liteke, baina gogoan hartzekoa da, seseoa tarteko, 14r *Por cuál tasa quiere vuestra merced beber* dakarrela Mikoletak berak, eta alboan 14r *Seyn tazatan aseguin dau edan*. Halaber gertatzen da elkarrizketetan aipatzen den izen berezi batekin: gaztelaniazko tradizioan *Ganassa* idatzi izan dena (cf. Vélez-Sainz 2000) *Ganaza* dakar Mikoletak gaztelaniaz, eta *Ganasa* euskaraz (Minsheuk –1599: 2– emandako *Ganasa*-rekin bat etorrita).

Frikari apikariaren adierazpenari dagokionez, ez dago gorabehera handirik, <s> grafema baita nagusi adibideen artean: 2r *sagarra*, 6r *sagardaoa*, 9r *sarea*; 3r *esaten*, 5r *arnasea*, 5v *besoa*; 5r *laster*, 8r *nescatoa* eta abar. Aurrekoarekin batera, bokal artean <ss> ere badago (5r *abbadessea*, 6r *assi*, 7r *françessea* eta abar). Aurreko kasuez landara, nolana ere den, arreta ematen du <ç> eta <z> agertzeak jatorriaren arabera frikari apikaria espero zitekeen adibide batzuetan, hiperzuzenketen itxura baitute; zehazki, <ç> bokal artean agertzen da, eta <z> herskari aurreko eta hitz amaierako adibide banatan: 5v *baçaça*, 5v *suritaçuna*, 6r *eroçi*, 8r *vçigui*; 7r *ynez eguin* ‘ihes egin’, 9v *maztia*.

4.7.3.3.5.2. Afrikatuak

Afrikatuak adierazteko funtsean frikariak adierazteko grafema berberak baliatu zituen Mikoletak, nahiz eta grafiaren historiarako aparteko interesa izan dezakeen digraforik ere badagoen.

Lepokarien sailean honako lau grafema hauek daude, maiztasun handienekotik eskasenekora aurkeztuta: <z>, <ç>, <c> eta <tç>. Hona hemen lauren adibideak: 5r *garraza*, 5r *orraza ta jostorraza*, 5v *coroza*, 6r *ycaza*, 6r & 10v *vioza*, 7r *ardaza*, 7v *mayaza*, 9r *azeguin*, 9r *gaza*, 9r *puza*, 9v *maza*, 10r *martizena*, 10v *bioza*, 13v *yzal*, 14r *vrgazi*; 8r & 10r *bederaçi*, 8v *amaraça*, 10r (birritan) *emereçi*, 10r *bederaçi-eun*, 10r *ogueyta emereçi*; 14v *emerecico*; 5r *burucorratça*.

Aurrekoekin batera, baina, bokal artean zein hitz amaieran <s> eta <ss> ere badaude jatorriz afrikatu lepokaria zegoen lekuan:

- (i) Bokal artean: 5v *asetic*, 5v *basuetan*, 6v *aseti*, 6v *yrasarri*, 7r *arrausa-goringoa*, 7v *ereyñosa*, 9v *asicoaldea*, 9v *asserengoa*, 10r *asserengo-guino*, 10v *xasu*, 12r *osic*, 12v & 13v (birritan) *lisate*, 12v *badeusas*, 12v *bassasacayti*,

13r *enessat*, 13r & 14r *basuc*, 13r *visisea*, 13r *enesat*, 13r *bassuoc*, 14v *basuac* ‘batzuek’, 14v *mayordomusat*, 14v *salasat*, 14v *guarda-ropasat*, 5v & 14v *basuetan*, 14v *dispenserusat*, 15r *bisuc*; 3r *ossa*, 9v *asserengoa*, 10r *asserengoguino*, 13r *enessat*, 13r *bassuoc*.

(ii) Hitz amaieran: 4r a *valis* & 14 *balis*, 7r *vgas semea*, 7r *vgas alabea*, 8r *vgas-ayta*; 12v *oss*.³⁰⁴

Apikarien sailean, bestalde, <s> eta <ss> dira arruntenak: 6r *ysua*, 6v *asotu*, 8v *ausa*, 9r *oseguin*, 9v *vsitu*, 9v *vsa*, 12v *esteusut*, 12v & 13r *esean*, 13v *esera*, 14r *aseguin dau*, 14r *eyten deusat...*; 12r *osseyn*, 12r *asso*, 12r & 12v *ecussu* ‘ekutsu’, 12r *asseguin*, 25 *iricassu*, 14r *assoari...* Alabaina, badirudi kasu batzuetan afrikatutasuna adierazteko ahalegina egin zuela Mikoletak (cf. Atutxa 2011: 31); izan ere, etimologikoki afrikatu apikaria zegoen kasuetan beste sailetan agertzen ez diren zenbait digrafo agertzen dira. Lehenik eta behin, <ts> dago: 5v *etsea*, 7v *ytsasoa*, 9v *atsoa*, 12r *ytsuric*. Bigarrenik, <zs> eta <sz>: 6v *vizsa* ‘bitsa’, 7v *ozsoa* ‘otsoa’, 9r *osza* ‘hotsa’.³⁰⁵

Adibideok begiratuta ikus daitekeenez, zenbait berba emateko hiru grafia baliatu zituen Mikoletak, eta hortik etorri zitzaion, besteak beste, Pagolaren (2002: 204) gaitzespena: cf. 6v *asotu*, 12r *asso* eta 9v *atsoa*.

Aurrekoez landara, kasu gutxi batzuetan <z> eta <ç> agertzen dira afrikatu apikariaren lekuan, beti bokal artean: 6r *auza* ‘hautsa’, 8v *mazorria* ‘mahats-orria’, 8r *eupaza* ‘aupatsa’, 9v *lozea* ‘lotsa’, 10r *biza* ‘bitsa’; 6r *yçutu* ‘itsutu’.³⁰⁶

4.7.3.3.6. Proposamena: Mikoletarenean badaude neutralizazio-zantzuak

Ulibarrik (2015: 315) azpimarratu bezala, zenbait idazlek euskaraz <s>-ren bidez ia edozein txistukari adierazi izana oztopo nabarmena da neutralizazioaren nondik norakoak aztertzean, kasu gehienetan ez baitago aukerarik bereizketa galdua zen ala ez erabakitzeke. Halaber, ikertzaileok oraintsu arte txistukariak adierazteko grafema batzuek eginiko irakurketa “literalegiek” irudi orokor (eta, tarteka, okerrak) ateratzeko besterik ez dute balio izan: testu batean afrikatu lepokaria adierazteko batzuetan <s> edo <ts> erabiltzea hiperzuzenketatzat jo daiteke (sistema grafikoko bestelako gorabeherak, testuaren luzera eta adibideen kopurua zein diren); aitzitik, erabilera

³⁰⁴ Beharbada bokal artean <VssV> erabiltzearen ondorioz; cf. 3r & 7r *ossa*, 12v *ossonegasco*.

³⁰⁵ Halere, esan bezala, ez dirudi kasu hauen atzean beti erabaki grafiko tinkorik dagoenik; cf. 9r *son* - *osza* baina 9r *sonar* - *oseguin*.

³⁰⁶ Aurrekoekin batera 9v *azeguin* aipatzen du Atutxak (2011: 32), baina kasu honetan ez da *atsegin*, *ezpada* (*h*)*atz* + *egin* ‘hazkatu’.

nagusia hori denean eta testu batean ez ezik beste batzuetan ere hala egiten denean, hiperzuzenketa-kasuez haragoko arrazoiak bilatu behar dira.

Mikoletaren kasua, bada, ez da hain bakana mendebaleko testuen artean; zehazki, Bilbo aldean XVII-XVIII. mendeetan dauden iturri gehienetan agertzen da <s> ia edozein txistukari adierazteko: ez da hala gertatzen *Enoj* zaharragoan, baina bai Basabilbasoren gutunean (1683), Barnetxearen euskal kantan (1763) eta Zolloko galdetegian (1770). Bilboz haragoko beste testu batzuetan ere agertzen da erabilera hori (cf. Andramendiko idatziak, Sevillako 1619ko bertsoak edo Arrasateko 1705eko udal-bandoa), baina ematen du Bilbori lotutako tradizio grafiko batez hitz egin daitekeela neurri batean eta eskueran dagoen informazioa oso eskasa dela ahaztu gabe.

Mikoletaren eskuizkribura itzulita, <s> zabal erabiltzeko joera dago, eta arestian esan bezala, Ulibarriren ustez (*idem*), <z> /θ/ adierazteko erreserbatua zelako izango litzateke hori horrela (orain, begiratu Ulibarri & Urgell 2019: 505). Proposamena oso egia-antzekoa egiten zait, eskueran ditudan datuekin, 1750az geroztiko testuetako kasuistika azaltzeko; izan ere, ordurako hedatua zitekeen hortzarteko fonema jende ikasiaren artean behintzat: horren alde egiten dute hispanisten lan guztiek, nahiz eta Euskal Herriko lekukotasunen azterketak falta ditugun. Besterik izan daiteke, ordea, hori proposatu ahal izatea XVII. menderako, eta are lehenagorako ere: gogoratzekoak dira Andramendiko estuetako edo IbarGC kronikako adibide goiztiarrak, non ez dirudien <z> edo <ç> hortzartekoa adierazteko gordeak zirenik, hispanista gehienek arabera ebakera hori berankorra baita (XVII-XVIII. mendeak). Mikoletaren erdal zein euskal datuei lotuta ere zenbait ñabardura gogorarazi behar dira: alde batetik, gaztelaniazko testuan grafia kontserbatzailea agertzen da, bai eta idazle kultu baten ahalegina ere tokian tokiko ebakera ustez ez prestigiotsua (seseoa) ostendu eta arau orokorrago bati atxikitzeko. Bilboko gaztelaniaz denaz bezainbatean, ezin froga daiteke hortzartekoa sortua/hedatua zenik.

Euskarazko pasarteei helduta ere, ezin esan daiteke grafia bakarra (<s>) zegoela eskura txistukariak adierazteko. Mikoletak berak herskari aurreko kokapenaz kanpo emandako <c>, <ç> eta <z> grafemek lepokaria adierazten bide dute, eta bilbotarraren kasuan horiek ez dira mailegu modernoetan bakarrik edo nagusiki gertatzen, beste testu batzuetan gertatzen denaren aurka (cf. ZolloGald). Euskal ondare zaharreko hitzetako adibideak gogoratu behar dira: Mikol 5r *yaz*, 5v *egaz equin*, 6r *sugaz*, 6v *artez*, 10v *leguez...*; 5v & 8r *zaguia*, 7r *zayna*, 7r *zauria*, 8r *zyla*, 6v *çuritu...*; 6r *azala*, 9v *azebaria*, 12v *orraziagas*, 7r *yrapaçi*, 9r *açia* eta abar.

Euskarazko sistema grafikoaren gako nagusietako bat <s>-k berak ematen duelakoan nago. Aurreko ataletan ikusi denez, Mikoletaren garairako oso aurreraturik edo erabat buruturik zegoen Erdi Aroko gaztelaniaren oposizioen galera. Halaber, uste dut ez dagoela arrazoi nahikorik irmo pentsatzeko hortzarteko /θ/ sortua zenik; baina, ez dut arazo linguistiko-kronologikorik ikusten [⁰_s]-ren bidez irudikatu izan den ebakera seseantea/zizeantea bazela proposatzeko, besteak beste, garai horretarako proposatu izan baita (cf. Satorre 1989: 286). Hain zuzen, ebakera hori ez litzateke hortzartekoa, ezta apikaria ere, hurbilago zegokeen euskal frikari lepokariaren ebakeratik apikariarenetik baino eta horrek azal lezake zenbait idazlek <s> hautatu izana euskal testurako; hartara, <s>-k lepokariak ere adierazi ahalko lituzke, bere defektibotasunean. Hori horrela izatera, 8r *omblig* - *zyla*, *syla* bezalako adibide batean ez legoke zertan pentsatu, Pagolak (2002: 204) bezala, aurreko aldaeretako bakoitzak ebakera bat islatzen duela: hots bera adierazteko poligrafia-kasua izan liteke, beste testu batzuetako aldaketek (cf. IbarGC kronikako hiztegitxoaren arteko aldeak, adibidez) ere islatzen dutenez.

Ondorioei begira, aurreko proposamenak zenbait daturen bestelako irakurketa dakar, baina ez du askorik aldatzen Ulibarriren (2015) eta Ulibarriren eta Urgellen (2018) proposamena: <s>-k euskal frikari lepokaria (ere) adierazi ahal izateak aurretik ere ezagun ziren zailtasunak dakartza, ez baitago ikusterik oposizioa galdua zenetz.

Mikoletaren euskaran neutralizazioaren zantzutzat jo daitezkeen datuak gutxi dira. Alde batetik, arestian aipatutako 8r *omblig* - *zyla*, *syla* edo *suri*- (6 aldiz) & *çuri*- (behin) zein 6v *çauala* & 6v *sauald* bikoteak daude, baina <s>-k lepokaria adieraz dezakeela onartuz gero, poligrafiak ez du biderik ematen irudikatutakoa apikaria ala lepokaria den argitzeko. Nolanahi ere den, testuan badaude hiperzuzenketaren itxurako kasu gutxi batzuk, non bokal arteko zein hitz amaierako grafemek ezin baitute apikaria adierazi: <ç> *pro* <s> dago bokal artean (5v *atolladero* - *baçaça*, *blancura* - *suritaçuna*, *comprar* - *eroçi*, *morder* - *vçigui*) eta <z> *pro* <s> silabaren buruan (9v *viña* - *maztia*, 7r *huir* - *ynez eguin*).

Aurreko adibideak hiperzuzenketak direla onartuz gero, frikarietan neutralizazioa aurreratuta zegoela pentsatzeko zantzuak leudeke; izan ere, oposizioaren galera bokal arteko kokapeneraino hedatuta egongo litzateke; hots, errazen gertatzen den testuinguruetatik harago. Hain zuzen ere, horren alde egiten du, nahiz eta argudio lausoagoa den, <z>, <ç> eta <c>-ren kokapenak: 9v *viña* - *mazti* adibideaz landara ez dut halakorik aurkitu herskari aurrean, non <s> baitago; aitzitik, <z>, <c> eta <ç> grafemen erabilera ugaritu egiten da oposizioaren galera beranduago gertatzen den

kokaguneetan: esan bezala kasu bakar bat dago herskari aurrean, baina gehiago dira, hurrenez hurren, hitz amaieran, hitz hasieran eta bokal artean.

Afrikatuei dagokienez, Pagolak ez zekusan neutralizazioa proposatzeko arrazoirik Mikoletaren testuko “nahaste grafiko”-en argitan: “Beraz, Micoletaren grafietatik jarrai daitekeena hauxe da afrikatuen sailean dauden nahaste grafikoek ez dutela agertzen desfonologizazioa gertatua zenik eta, agian, ezta bi hotsen arteko nahasketarik ere” (2002: 206). Aitzitik, zenbait adibide tentuz aztertzekoak dira: afrikatuak <s>-z edo <ss>-z adierazteak interpretazio ziurrak eragozten ditu, baina aurreko lerroetako logika bera aplikatuz, neutralizazioa sail horretan ere bazela erakutsiko lukete 8v *mazorria* ‘mahats-orria’, 8v *maz passea* ‘mahaspasa’, 9v *maza* ‘mahatsa’ zein 9v *lozea* adibideek. Horri loturik, Atutxak (2011: 32, 2013) hiperzuzenketatzat jo zituen afrikatua adierazten duten <s>-ak, baina adibideak ugariegiak dira, nire ustez, hautu grafiko batean ez pentsatzeko.

Aurreko guztiak aintzat hartuta, egia da ia edozein txistukari adierazteko <s> erabili izanak irakurketak oztopatu eta interpretazio sendoak eragozten dituela. Beste alde batetik, ordea, badaude neutralizazioaren zantzuak. Hemen egindako azterketak, nolana ere den, eta Ulibarriren (2015: 315) iradokizuna baieztatzen du, hein batean behintzat aldarazten eta apaltzen baitu txistukarien neutralizazioaz pentsatu izan dena: ezaugarri linguistikoen hedatze-ereduen tipologiak zertxobait gehiago argi dezake gaia (§5.2.4.1.2), baina Mikoletarenetik ziurtasunez erauz daitekeen datuak gutxi dira.

Ikuspegia Mikoletaren eskuizkribuaz altxatuta eta orokortuta, Bilboko euskararen XVII-XVIII. mendeetan neutralizazioa zegoela pentsarazten duten bestelako informazioak daude. Alde batetik, ez da ahaztekoa XVII. mendeko bertako *Enoj* kantan neutralizazioaren adibideak daudela herskari aurrean eta hitz amaieran (2 [est]aquidala, 9 estaquit, 11 estaucat, 12 gustia; 3 aditu jatas, 5 guichigas, 8 nigas, 13 yminiagas); beraz, zentzuzkoa da pentsatzea Mikoletaren hizkeran gutxienez beste horrenbeste (edo gehiago) gertatzen zela.³⁰⁷ Beste alde batetik, XVIII. mendean Larramendiren *HH*-ko azalpen hau gogorarazi zuen Pagolak:

³⁰⁷ Mikoletaren garaikide zen Fermín de Basabilbasok Joanes Callori Bilbotik Donibane Lohizunera igorritako gutuna ere aipatu zuen Hualdek (2010: 108), eta erabateko neutralizazioa proposatu (*bidalsen, suri, disut, lisensiarequin* eta *silar* aipatzen ditu). Lehen begi-kolpean ikusten da testuak ez dituela ez Bilboko, ez Mendebaleko morfosintaxia eta lexikoa islatzen (aurreko berba gehienak begiratzea besterik ez dago); baina, maila fonikoan besterik gertatzen zela uste du Hualdek; hots, <s>-ren hedadura hain zabalak neutralizazioa islatzen duela. Nire ustez, aldiz, grafiko hutsa ere izan liteke azalpena, Mikoletarentzat proposatutako azalpen berberari jarraikiz.

En el escribir no aciertan à distinguir el *za* del *tza*, y es confundir la pronunciacion y la significacion; por escribir *atzá* dedo, escriben *azá* berza. No lo hacen assi en los lugares inmediatos à Guipuzcoa, en que distinguen y pronuncian como se debe: y en que guardando el Dialecto Bizcaino, hablan muy dulcemente, y con gusto, como en Marquina, y Elorrio, y lo he experimentado. Aunque en Bilbao se habla mal, pero no es assi en sus cercanias, donde la propiedad y pronunciacion se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao, si en este punto se picaran algo mas de Bizcainos: ni en esto quiero decir que no ay en Bilbao quien sepa bien su Dialecto, pues se hallan algunos. (Larramendi 1745: xxviiij)

Testua zurrun irakurrita, Larramendik emandako adibideetan ez zuen berenberegi aipatu txistukari lepokarien eta apikarien arteko bereizketa, ezpada frikarien eta afrikatuaren arteko bereizketa grafikoa: afrikatuak grafikoki bereizi beharra aldarrikatzen ari zela dirudi, ez baitzituen *atsa* & *atza* edo *asa* & *aza* kontrajarri, ezpada *aza* eta *atza* (Uriarteren lekukotza berankoragoaz, begiratu §5.3.2.2 atalean esanak). Ebakera ere aipatu zuen tamalez adibiderik eman ez arren, baina errazena da pentsatzea Bilboko hizkera Bizkai sortaldekoarekin zein Bilbo aldekoekin alderatzean aipatutako aldeak neutralizazioari zegozkiola: euskararen sistema fonologikoa eta Lehen Euskara Modernoaren lehenengo hamarkadetako Bilbo aldeko zenbait lekukotasunetan (begiratu Sarriaren sermoiak frikari zein afrikatuetarako) neutralizazioa aurreratuta agertzen dela aintzat hartuta, aukerak ez dira askoz gehiago. Aipuaren erdialdean ematen den zehaztapenak, gainera, bat egiten du bai testuetan, bai zenbait azterlanetan adierazi izan denarekin; hots, Bizkaiko sortaldean txistukariaren bereizketak luzaroago iraun izanarekin (cf. §5.2.7.1). Puntu honetan argigarri iruditzen zait mende baten buruan Uriartek Bonaparteri igorritako gutun batean Markina aldeko euskarari buruz emandako zehaztapenak. Hala ziotson:

En cuanto a la pronunciación de la *z* como *s*, de la *ts* como de la *tz*, en Marquina e inmediaciones aún la gente del pueblo las distingue perfectamente. Distinguen *zu* = *tú* de *su* = fuego, *Atza* = *dedo* de *atsa* = *edor*. Pero en otros subdialectos no se distinguen y aún en Bermeo es imperceptible la distinción, de modo que Bermeo no debe contarse con Marquina, sino con los demás subdialectos. (Ruiz de Larrinaga 1957: 334-335)

Uriarte arrigorriagarrik Markinako euskara ezagutu zuen, ondo ezagutu ere, baina Larramendik mende bat lehenago adierazitakoen oihartzuna antzeman dakioko aurreko pasarteari, besteak beste *atza* & *atsa* aipatzen dituelako Uriartek, Larramendik *HH*-an bezalatsu (*aza* & *atza* aipatu zituen andoaindarrak eta grafiaz aritu hasiera batean, nahiz eta ondoren ahoskera hartu zuen hizpide).

4.7.3.4. Bizkai ekialdeko testuak (1650-1700)

4.7.3.4.1. Kapanaga

Kapanagaren obran neutralizazioaren zantzu gutxi daude, eta bereizketaren galeraren adibideak neutralizazioa errazen gertatzen den kokaguneetan metatzen dira:

gehienbat herskari aurrean eta, batez ere, <t> baino lehen; hain zuzen ere, *guzti* hitzari eta *gesto* aldaera arazotsuari loturik agertzen da <st> behin eta berriz:

Guzti: 7 & 20 *gustiz*, 25 *ori gustiori*, 35 *gustietan*, 36 *gustiena*, 38 *gustietaric*, 43 *gustien*, 35 *gustiac*, 80 *gustietan*, 98 *gustietaric*, 125 *gustiac*. Halere, *guzti* barbari nagokiolarik, askoz ugariagoak dira <z> duten adibideak: guztira hirurogeita bederatzi aurkitu ditut.

Gesto: 12 *gestoay*, 53 *gestocoac*, 69 (birritan) & 70 *gestoac*, 69 *gestoençat*, 70 (birritan) *gestoen*, 70 *gestoacaz*, 98 *gestoa*.

Aurreko bi hitzetatik kanpo <t> aurretik 48 *emasteacaz* eta 109 *emasteena* aurkitu ditut (baina bederatzi aldiz ageri da *emazte-*), bai eta 109 *irabasten* ere (azken horrek aurka ditu 132 *irabazten* eta 154 *irabazte*). [ez + aditz laguntzailea] egituran ere badago neutralizaziorik: 44 *estaucanac*, 49 *estabenac*, 51 *estauenac*, 65 *estireanac* bezalakoez ari naiz.

Bestalde, <c> aurretik daude -zko atzizkiari lotutako baten bat (7 *Clemenciasco*, baina aurka ditu hamabost -zko: 7 *negarrezco*, 7 & 13 –birritan– *misericordiazco*, 21 *graçiazco*, 61 *graziazco*, 79 *vorondatezco* eta abar), 112 *esconduriq* (aurka ditu 50 *Ezconduai*, 102 *ezcondua*, 103 *ezconduacaz*, 106 *ezconcea*, 113 *ezcondu* eta 112 *ezconetaco*) eta beharbada erdal formaren zordun den 12 *Pasco*.

Herskari aurreko kokagunetik kanpo, 147 *eguin eban asaldu ezquero* bitxia da, bokal artean <s> duen arren, herskari aurrean <z> duelako; gainera, ez dirudi asimilazioaren bidez azal daitekeenik. Bere bakantasunean, akatsa dela ere pentsa daiteke.

Bestalde, hitz berean dauden txistukariek eragin zezaketen asimilazioa honako hauetan: 52 *esasu* (bakarra da eta aurka ditu bost *esazu*, hamaika *esaçu(z)* eta *esacu* bat) eta sei aldiz *saserdote* (aurka ditu hogeita zazpi *sacerdote*). 141 *irasegui*-k bokal arteko neutralizazioa izan lezake, betiere <s> *pro* <x> ez balego (cf. *OEH*, s.v. *irazeki*).

Aurreko kasuei lehen begi-kolpean hiperzuzenketaren itxura duten hiru aldaera gehitu behar zaizkie; alde batetik, Atutxak (2011: 35) identifikatutako 80 *ezan* ‘esan’ eta 155 *ezquacaz*; bestalde, 60 *dispoçiziño* dago. Aitzitik, 80 *ezan* ez da *esan*-en ordezkotako hiperzuzenketa: *ezagun*-en ordezkotako dagoelakoa daukat, erdal pasartearen argitan: *Para que le cognoscamos - Ezan daigun dakar liburuak (ezagutu ~ ezaun*-en inguruan, cf. RS 158. *Ezaun adi ta axate ondo bizi* edo Lazarg B21:29-32 *Eguin eustan agrabioa / Amoreonec eçaunic / nay equion nic aren contra / oy ez neducan quexaric*).

Beraz, testuko hiperzuzenketa-kasua bakarra izan liteke (155 *ezquacaz*), nahiz eta bere bakantasuna dela-eta akastzat ere jo litekeen (hamabi aldiz aurkitu dut *escu-*).

Afrikatueta ez dut neutralizazio-zantzurik aurkitu Kapanagaren dotrinan.

Aurreko datuen argitan badirudi Durango aldean kokagune gehienetan mantentzen zela lepokarien eta apikarien arteko bereizketa XVII. mendearen erdialdean, nahiz eta herskari aurrean badiren oposizioaren galera islatzen duten kasuak: Egiaren kantako zein Kapanagaren testuko adibide gehienak kokagune horretan metatzen dira (eta Zumarragaren gutunean ere hala zen).

4.7.3.4.2. BertsBizk

Durango aldeko testu zaharragoekiko koherente (eta gordetzaile) da *Bertso bizkaitarrak* sorta: alde batetik, herskari aurrean daude galeraren adibidetzat jo daitezkeen kasu gehienak; bestalde, ikusten da XVII. mendeak aurrera egin ahala bereizketaren galera hedatzen ari zela Bizkaiko erdi-ekialdeko hizkera batzuetan, BertsBizk sortan herskari aurrean ez beste testuinguru batzuetan ere baitaude nahasteak.

BertsBizk sortan hainbatetan aurkitu dut <st>, <sp> edo <sc, squ>,³⁰⁸ hala izen arruntetan nola [ez + aditz laguntzailea] egituran. Hona hemen aurkitutako adibideak: 6-4 *gustian*, 8-3 *estitues*, 9-5 *esta*, 11-5 *estaquigula*, 12-3 *esta*, 19-3 *gustietan*, 20-6 *esta*, 23-7 *esteyo*, 31-3 *estau*; 1-5 *espaere*, 7-5 *espadaue*, 9-7 *espada*, 10-7 *espadosu*, 11-2 *espadaquizu*, 20-7 & 32-7 *espa*; 10-1 *Viscayan*, 12-4 *Viscayco*, 19-1 & 37-4 *Viscayari*, 19-1 *esquerra*, 19-6 *Viscayaren*, 25-6 *soldadusco*.

Ikusten denez, lehenbiziko sailak biltzen ditu adibide gehienak eta <sp> sortakoak urrienak; <sc, squ>-ko gehienak, berriz, *Bizkaia* izen berezian daude (halere, lau aldiz dago *Vizc-*). Dena den, hiru sailetan dago <z> herskari ahoskabearen aurretik: zortzi aldiz aurkitu dut <zt>, hamahiru aldiz <zc> edo <zq> eta bitan <zp>.

Hitz amaieran <-s> baino askoz ugariagoa da <-z> (hogeita zazpi eta lau aldiz agertzen dira, hurrenez hurren), baina badira itxuraz neutralizazioa islatzen duten aldaerak ere: 5-3 *legues*, 8-3 *estitues*, 12-3 *faltas* eta 3-4 & 26-7 & 28-4 & 38-2 *es. faltas* eta *es* gaztelaniaren eragina aintzat hartuta azal litezke beharbada, baina bigarrenari dagokionez, bederatzi aldiz agertzen da *ez*.

Hitz hasieran antzekoa da egoera: <z>, <c> eta <ç>-dunak dira erabat nagusi (hogeita hemeretzi aldiz <z->, sei aldiz <c-> eta hiru aldiz <ç->), baina badaude <s-> duten adibide gutxi batzuk ere: 19-4 *suen* (aurka ditu 11-7 & 26-6 *zuenzat*, 16-1 *Zuen*

³⁰⁸ Bazter utzi ditut arazotsu izan daitezkeen kasuak: 6-6 *Gastela*, 20-2 *dereste*, 32-4 *gueistoa*.

eta 22-3 *zuen*), 24-3 *senduen* (baina 4-7 *zenduzan* eta 13-6 *zenduz*), 31-6 *sein* (aurkako adibiderik gabe) eta 33-2 & 37-7 *su* (baina 24-3 *zuc*, 33-5 *zuri*, 36-6 *zugana*).

Orobat gertatzen da bokal artean. Ez dirudi honako aldaera hauek gaztelaniaren eraginez edo asimilazioaren bidez azal daitezkeenik: 10-1 *dosu* (baina 19-5 & 38-5 *dozu*, 22-4 & 35-3 *dozun*) 17-2 *deroesu* (baina 30-3 *daucazu*, 32-3 *deusazu*, 38-3 *dauczula*), 34-5 *ausoari* (aurkako adibiderik gabe), 35-6 *guisonac* (baina 20-2 & 21-5 *guizon*, 33-3 *guizonay*, 10-6 *guiçonac*, 38-2 *guiçonic*), 38-7 *disula* (aurkako adibiderik gabe).

Afrikatuetan ez dut neutralizaziotzat jo daitezkeen adibiderik aurkitu.

4.7.3.4.3. Zubia

Zubiaren dotrinan neutralizazio-kasutzat jo daitezkeen adibide gutxi daude, eta gehienek Bizkai ekialdeko eredu gordetzaila islatzen dute: inon egotekotan, neutralizazioa kokagune ahulenetan aurkitu dut, herskari aurrean (batez ere) eta hitz amaieran. Adibide argienak dira *guzti*-ri lotutako 419 *gustietatic*, 419 *gustien* eta 420 *gustioc*, eta horiekin batera daude beharbada gaztelaniaren grafiaren arabera emandako 419 *gracias* eta aurretik sabaikaria izan zezaketen 424 *deresten* eta 425 *gestoai*. Testua goitik behera arakatuta, bada, aise ikusten da herskari aurrean <z> duten aldaerak askoz gehiago direla: hamazazpi adibide aurkitu ditut. Hitz amaierako apikariari dagokionez, esan bezala, ez da baztertzekoa gaztelaniazko formaren eragina, adibide bakarra delako (laurogeita hamaika aldiz aurkitu dut -z amaieran). Halaber, ez da ahaztekoa testua kopia baten bidez ezagutzen dela, eta kopiagileak aldaketak egin bide zituela (ustez aldatutakoez; begiratu TAV 168).

4.7.3.5. XVIII. mendeko testuak

4.7.3.5.1. 1700-1750 bitartekoak

1700-1750 arteko testuetan gutxitan dira ugari bereizketaren galera isla dezaketen adibideak, eta hausnartzekoa da zeren ondorio den egoera hori: idazleen hizkeretan neutralizazioa egiazki hain aurreraturik ez egotearen ondorio ala idazleen hizkeran neutralizazioa arrunta izan arren idatziz islatu ez izanaren ondorio.

4.7.3.5.1.1. Bizkai sartaldean, Orozkoko 1739ko otoitzetako hizkera hurbilago dago VJesus-etik iparralderagoko *RS* eta Mikol testuetatik baino (Lakarra 1996: 132-133), baina nabarmena da, era berean, OrozOtoi-ko sistema gordetzailagoa dela VJesus-ekoa baino, bereizketa mantendu egiten delako oro har, herskari aurreko eta hitz amaierako kasu batzuetan izan ezik: 13 & 25 *gustiz*, 68 *gustiec* (aurka dute 18 *gustis*);

11 *eguizus*, 18 *guztis* (baina 13 & 25 *gustiz*, 27 *nogaz*, 32 & 51 *leguez*, 44 & 46 *gaguizuz*, 54 & 68 *doguz*, 58 *amudioz*, 59 *dusuguz*).

4.7.3.5.1.2. Bizkai sortaldean neutralizazioaren islatzat jotzeko moduko adibide gutxi daude 1730-1740ko hamarkadetan.

Arzadunen dotrinan oso gutxitan agertzen da <s> herskari aurrean etimologikoki lepokaria zegoen lekuan; baina, inon agertzekotan, kokagune horretan agertzen dira:³⁰⁹ 0 *gustiai*, 19 *Pascho*, 47 *cispuru*; aitzitik, aurkako adibideak (tartean, hitz berorien aldaerak) dira erabat nagusi: berrogeita hamar aldiz aurkitu dut *guzti*, 17 *cizpuruca* eta 39 *Pazcho* ere badaude, *emazte*, *gazte* eta *zazpi* dira aldaera bakarrak, [ez + aditz laguntzailea] egituran <zt> eta <zp> daude, eta -zko atzizkian ez dago <sc>-rik.

Hitz amaieran 52 *nas* eta 22 (birritan) & 46 (birritan) & 50 *nos* besterik ez ditut aurkitu, eta lehenengoari loturik daude bokal arteko 49 *nasala* ‘naizela’ eta 52 *nasana* ‘naizena’. Agerikoa da hala kasu batean nola bestean frikari sabaikaria despalatalizatu ondotik (*naiz* > *nax* > *nas*, *noiz* > *nox* > *nos* bestela ere ezaguna; cf. *FHV* §10.9) sortutako formak direla: “Arzadunen hizkeran ez dira frikari lepokariak apikari bilakatu *Refranes y sentencias* edo Mikoletaren lanean bezala, txistukari frikari sabaikaria da apikari bilakatu dena” (Atutxa 2013: 71).

Frikariatatik kanpo, afrikatueta 55 *deuzudaz* agertzen da (49 & 53 *deusudaz*-en eta **edutsi*-ren gainerako adizkien aurka). Halaber, 21 *ococeric* ikusita bokal arteko neutralizazioan pentsa liteke bat-batekoan, baina hedadura zabaleko aldaera lexikoa da, eta mendebaleko zein erdialdeko hizkeretan aurki daiteke (*OEH*, s.v. *kokots*).

4.7.3.5.1.3. Urkizuren lanean neutralizazioaren adibidetzat jo daitezkeen kasuak gehiago dira Arzadunen lanaren lehenbiziko edizioan baino; nolana ere den, gehienak metatzen dira herskari aurrean eta hitz amaieran.

Hona hemen herskari aurrean aurkitutakoak: 9 *Egubasten*, 14 *asturic*, 18 & 32 & 41 & 84 *gustien*, 20 & 21 *irabasten*, 21 *estaquizanac*, 22 & 32 *gustiagaz*, 25 *astu*, 26 *gustietan*, 27 *estabenac*, 29 *yrabasten*, 49 *lastanac*, 51 (birritan) *villostasun*, 51 *villostu*, 58 *eguasten*, 80 & 85 (birritan) *gustiz*; 9 & 28 *espada*; 8 & 13 & 52 & 53 *Aranzasco*, 16 *graciasco*, 24 *esconduzan*, 52 & 61 *Misericordiascoa*, 57 *amudioscoa*. Adibideak ugariago dira Arzadunen liburuan baino, baina proportzioan gutxiengoa izaten jarraitzen dute <z> gorde dutenen aldean; esate baterako, Urkizuren liburuan berrogeita hamasei aldiz aurkitu dut *guzti*, hamazazpi aldiz <zt> multzoa [ez + aditz laguntzailea] egituran

³⁰⁹ Kasu honetan ere bazter utzi dut 16 *guestoai*.

eta zazpi aldiz *ezpada*, eta beste hainbestetan *-zko* atzizkia <s>-rik gabe. Arestian zerrendatutako beste hitz batzuetan ere arruntagoa da lepokaria: zazpi aldiz aurkitu dut *laztan*, eta birritan *aztu*.

Herskari aurrean ez ezik, hitz amaieran ere badaude oposizioaren galeraren hainbat adibide, nahiz eta kasu batzuetan ezin den gaztelaniazko formaren eragina baztertu. Instrumentalari eta sozietiboari dagozkio 13 *burlas*, 17 *grazias*, 24 *tristezas*, 25 *zeugas*, 28 *agradezimentus*, 48 *flisinos*, 57 *interzesinoagaz*, 78 & 85 (birritan) *gozos*. Beste hauek *-z* pluralgileari dagozkio: 3 *daquizus*, 35 *libradugaguizus*, 35 *eguizus*. Hemen ere bereiztekoak dira despalatalizazioaren ondoren agertutako formak (begiratu lehenago Arzadunen *nas* eta *nos*-i buruz esanak): 3 & 21 & 28 *elzenas* ‘heltzen naiz’, 28 *astenas* ‘hasten naiz’, 4 & 28 & 32 *iños*. Hain zuzen ere, *nas* aldaerari dago loturik Urkizuren liburuan bokal artean aurkitu dudana <s> bakanetako bat: 3 *nasalaco* (29 & 30 *nazala* ere badago).

Aurrekoez landara, 15 *villosic*, 25 *jazusala*, 25 *deusasulaco* eta 48 *aflisinos* besterik ez ditut aurkitu. Aurka, 11 *oztazun*-en hiperzuzenketa aurki liteke, lehenengo txistukariak eragindako asimilazioa edo besterik gabeko akatsa ez bada, aurka baititu testuko gainerako *-(t)asun* guztiak.

Hitz hasieran *zeu* pertsona-izenordain indartuan dago <s->: 4 & 35 *seu*.

Afrikatuetan ez dut nahasterik aurkitu 13 *Gorpus*-ez landara, eta bakarra da lau *gorpuz*-en aurka. Gorago VJesus-eko adibidea azaltzeko baliaturiko logika berbera erabilia, *corpus*-en eraginari egotz dakioke adibidea.

Urkizuk zehatzago jokatu zuen 1740ko zortzikoak ematean, salbuespenik gabe bereizi baitzituen lepokariak eta apikariak bai frikarien sailean, bai afrikatuenean (Zuloaga 2015 [2018]: 189), horien inguruko kontzientzia eta kontrola zituela islatuz.

UrkizuKopl bertso-sortan legez, Elorrioko ziri-bertsoetan ondo bereizten dira txistukari lepokari eta apikariak, bi sailetan. Testuaren jatorria ikusita, ez da emaitza harrigarria; izan ere, atzera ere gogoratzekoak dira Larramendiren berbok: “en los lugares inmediatos à Guipuzcoa, en que distinguen y pronuncian como se debe: y en que guardando el Dialecto Bizcaino, hablan muy dulcemente, y con gusto, como en Marquina, y Elorrio, y lo he experimentado” (1745: xxviii).

4.7.3.5.2. 1750-1800 bitartekoak

XVIII. mendearen bigarren erdiko testuetan bi joera nagusi ikusten dira: alde batetik, neutralizazioa oso aurreraturik islatzen duten testuak daude; beste alde batetik, neutralizazioaren arrastorik ez edo arrasto gutxi dakartenak.

4.7.3.5.2.1. Gandararen Gabon-kantetan arrunta da <s> herskari aurrean; esate baterako, hemeretzi aldiz dakar *gusti* aldaera (hiru *guzti*-ren aurka), eta bestelako hitzetan ere ageri da <s> lepokariaren orde: Gand1757 2-4 *yastea* ‘janztea’, 7-3 *gastaea* (eta 2-4 *derist*), Gand1768 2-5 *lastanic* (eta 3-3 *oneresten*). [ez + aditz laguntzailea] egituran ere ohikoa da ezezko partikulako txistukaria <s>-z ematea: Gand1757 3-9 *estira*, 4-5 *esta*, 12-5 *estatoz*, GandAmaMait 4-2 *estalaco*, 4-3 *esta*, 5-5 *estaquianian*, GandArdo 1-7 *estauco*, 2-5 *estanian*, 2-4 *espadau*. Aurreko adibideei hiperzuzenketa bat gehitu behar zaie: Gand1757 9-8 *esteuzt*.

Herskari ahoskabearen aurrean <z> duten adibideei helduta, arestian aipatutako hiru *guzti*-ez gain (Gand1757 11-8 *guztioc*, Gand1768 2-3 *guztiz* eta 6-1 *guztiala*), honako hauek ere aurkitu ditut: Gand1764 7-7 *zorroztua*, 9-4 *eztia*, Gand1762 1-3 *buztarria*, 1-8 *pozturic*, 5-1 *bazcatzeco*, 6-2 *gustozco*, 6-3 & 8-4 *ezta*, 6-4 *bazterretan*, 6-6 *eztiñot*, 8-5 *ezpozu*, 9-1 *Jaungoicozco*, 9-5 *gustizco*, Gand1757 5-4 *gustizco*, 7-4 *aztu*, 12-3 *chitozcoac*. Neutralizazioa dagoela onartuta, neutralizazioa dutenen eta ez dutenen kopurua zenbatzeaz gain (lehenengo sailekoak dira nagusi, Gabon-kanta guztietako adibideak zenbatuz gero), komeni da aztertzea non agertzen diren adibide batzuk eta bestetzuk; izan ere, ematen du testu batzuetan besteetan baino gehiago zaindu zuela Gandarak txistukarien adierazpena: 1762ko Gabon-kantan, esate baterako, ez dut neutralizazio-zantzurik aurkitu, eta hamabi aldiz aurkitu dut lepokaria herskari aurretik; antzeratsu, GandAmaMait eta GandArdo sortetan aurkitu ditut neutralizazioaren adibideak, baina ez salbuespenik herskari ahoskabeen aurrean.

Herskari aurrean ez ezik, hitz amaieran ere badaude neutralizazioaren adibideak:³¹⁰ 7-4 *es*, 11-1 *sagos*, 11-3 *esposiagas*, 12-2 *dacargus*, 14-1 *gozus*, GandAmaMait 1-5 *icentaduagas*, 5-3 *escatuagas*, 6-4 *gachazus*, Gand1768 2-6 *zaitus*, 1-2 *es*. Nolanahi ere den, ingurune horretan askoz gehiago dira <-z> gorde duten adibideak: berrogeita hamabost zenbatu ditut guztira.

Aurreko inguruneetatik kanpo oso eskasak dira neutralizazioaren islatzat jo daitezkeen kasuak: Gand1757 11-1 *sagos* (baina Gand1764 testuan 8-7 *zagoz* agertzen

³¹⁰ Bazter utzi ditut despalatalizazioaren ondorioz sortutako aldaerak izan daitezkeenak; cf. Gand1762 6-3 *basen* ‘baizen’ eta 7-6 *banas*; Gand1757 6-1 *Enas*; GandArdo 1-1 *nas*.

da), eta Gand1768 4-3 *seusquneti*. Bokal artean Gand1768 3-6 *goso*a neutralizazioaren adibidetzat jo daiteke, Gandarak <xh>-en zein <x>-en bidez adierazi baitzituen frikari sabaikariak (cf. Gand1764 10-1 *ceuxhec*, 12-7 *Muxhilari*, Gand1762 2-2 *iñoxco*, 6-1 *beguixeoc* eta abar).

4.7.3.5.2.2. XVIII. mendearen erdialdean neutralizaziorik ez duten edo neutralizazioa oso eskas islatzen duten testuen artean nabarmentzen dira Kardaberatzen dotrina eta Olaetxearena. Lehenengoaz denaz bezainbatean, agerikoa da egilearen nortasunak, ezagutzak eta hizkera-ereduaren hautuak zuzeneko eragina dutela bereizketaren sistematikotasunean: Bizkaian edo Bizkaiko hainbat hizkeratan zabaldua bide zen txistukarien neutralizazioa, baina Kardaberatzek ez zuen ezaugarri hori baliatu jaurreriko euskara-moldean idatzitako dotrinan. Literatur hizkuntzaren eta bilatutako eredu linguistikoaren orokortasunaren argitan erraz ulertzekoa da irizpidea, areago Larramendik (1745) urte gutxi lehenago adierazitakoen eta bultzatutakoen ondoren eta Kardaberatzek *Eusqueraren berri onac* lanean grafiaz eginiko hausnarketa eta proposamenak aintzat harturik. Ez da ahaztekoa mendebaleko euskararen ezaugarri sistematikoa izan arren, txistukarien neutralizazioa ez dela inoiz onartu eta sistematikoki islatu *literatur bizkaiera*-ren testu moderno eta garaikideetarako (cf. §5.3.2.2) dialektologia-xedeak dituzten lanetatik harago.

4.7.3.5.2.3. Kardaberatzen dotrinan kokagune eta hitz jakin batzuetan metatzen diren adibide batzuek neutralizazioa ikustera eramanez dezakete irakurlea lehen begi-kolpean, baina adibideen azterketa zehatzak besterik erakusten du. Alde batetik, aintzat hartzekoa da sabai-aurreko txistukaria islatzeko Kardaberatzek ez <x> baina <ss> baliatu zuela askotan:³¹¹ 7 *Elessa*, 46 *guessoac*, 27 *noss*, 77 *issilic* eta abar. Kokagune batzuetan ageri diren <s>-ek ere sabai-aurrekoa islatzen dutela proposa daiteke; beraz, 27 *noss* zein 3 *guesoetaric* azaltzeko ez da zertan neutralizaziorik proposatu, 76 *esaminea* & 77 *examina* eta 85 *esaminetaco* & 86 *examina* bikoteek erakusten duenez. Uste dut bide beretik azal daitezkeela 27 & 47 & 56 (birritan) *noss*, 29 *nassan* eta, agian, 54 *errastu*;³¹² alegia, lepokari/apikari neutralizaziora derrigor jo gabe. Herskari aurretik <is>-k ere sabai-aurrekoa isla dezakeela onartuta, argudio berak balioko luke 47 & 64 *isten*, 59 *deristenac* zein 65 *deriste* eta 54 *gaisto* azaltzeko. Halere, adibide gutxi batzuek ihes egiten diote azalpen horri: 44 *pasco* edo 34 *gustietaric* dauzkat

³¹¹ Bakanago ageri dira bestelako grafia: 21 *escelente* (ziur asko gaztelaniazko ahoskerari loturik) edo 29 *cheago* ‘xeheago’ (beharbada Euskal Herriko erdialdeko *txe* aldaeraren eraginez; cf. *OEH*, s.v. *xehe*).

³¹² Halere, 16 *noz* eta 93 & 94 *nas* ere badaude.

buruan, baita 43 *centsuen* ‘zentzuen’ ere. Lehenengoan gaztelaniaren eragina dagoela pentsa daiteke, eta hirugarrena ohiko aldaera da Kardaberatzen testuetan (*OEH*, s.v. *zentzu*); beraz, hiruretarik *gusti*-k bakarrik islatuko luke oposizioaren galera.


4.7.3.5.2.4. Kardaberatzen neurri bateko jarraitzaile Olaetxeak gutxitan islatu zuen txistukarien neutralizazioa: Munitibar-Gerrikaitz aldekoa izanik, pentsa liteke neutralizazioa haren hizkerara iritsi gabea zela bere liburua idatzi zuenean, bereizketak luzeago iraun baitzuen Bizkaiko ipar-ekialdean (Markinaz, begiratu Rollo 1925: 6-7). Alabaina, zalantzarik ez dago: Olaetxeak eredu linguistiko zabalagoa landu zuen, eta egokiago begitantzen zait Olaetxea ezaugarria gaitzesten zuten egileen multzoan kokatzea, ez baitu bereizketaren galeraren adibiderik. Atutxak zioenez (2013: 72), neutralizazioa inon agertzekotan aldaera gutxi batzuetan agertzen da: *irabastea*, aipatzen du, baina iratxoa bide da, nik neuk <zt> aurkitu baitut.³¹³ Horrez gain, 19 *ezan bedi*-k ez du hiperzuzenketarik, testuak *izan bedi* esan beharko lukeelako, eta gainerakoan despalatalizaziotik eratorritako <s>-dun aldaerak besterik ez daude: eta 27 *nos*, 51 *inos* & 143 *nas* hitz amaieran, eta 35 & 141 *nasala* bokal artean.

4.7.3.5.2.5. Iturriza historialariak Andramendiko idazkiez eginiko bertsio modernizatuan sistematikoki bereizten dira grafikoki lepokari eta apikariak (baita frikari eta afrikatuak ere, Larramendiren proposamenei jarraituta). Hona hemen frikarietako zenbait adibide: 1-3 *ezcutari*, 1-6 *guztien*; 1-2 *dagoz*, 1-4 *ascogaz*; 2-3 *zorzi*; 1-3 *izanic*. Bestalde, afrikatuak dira hauek: 1-1 *emereci*, 1-6 *eguieutsen*, 1-8 *caltezat*, 2-2/3 *jaijatzaric*, 2-6 *batzaarrian*, 2-7 *eutseela*, 2-12 *atseguinez*. Nahasterik egotekotan, sabaikariaren eta apikariaren artekoa litzateke: 2-8 *eguieutxazan*; halere, hain kasu bakana izanik, erratatzat ere jo daiteke. Bestalde, ozen ondotik 1-3 *Onsalu* agertzen da behin eta 2-9 & 2-12 *Onzaluri* eta 2-12 *Onzalu* hirutan, baina aintzat hartzekoa da izen berezi horrek aldaera bat baino gehiago duela.

4.7.3.5.2.6. Zolloko auzi judizial baten kariatara Joseph de Aranzazugoitiaren Bilboko eskribau-etxean prestatutako galdetegiaren ezaugarri grafiko nabarmenena txistukarien adierazpena da.

Alde batetik, frikariak eta afrikatuak ez dira grafikoki ezberdintzen; beraz, puntu honetan testuak batago egiten du Hego Euskal Herriko ~1745 aurreko bereizketarik

³¹³ Atutxak berak ez du orrialde-zenbakirik ematen, baina aditz-izenarekin 87. orrialdean besterik ez dut aurkitu *irabazi* aditza; irudi hau dagokio:



ezarekin, Lehen Euskara Modernoko joera berriekin baino (Lakarra 1985: 242 eta hurrengoak). Arazo ezagun askoa da euskal testuen tradizioan (XVIII. menderako, begiratu Urgell 2018: §5.2.4), eta ozen ondoko txistukariak frikari gordetzen ala afrikatu bihurtuak ziren erabakitzea eragozten du berriz ere: cf. 3r *daiensat*, 3r *seinsuc*, 4r *ensutia*, 4v *auns*; 3v *sorsico*, 3v *amasorcigarreneguino*, 4v *amasorsi*.

Beste alde batetik, egileak <s> eta <ch> grafemak baliatu zituen gehienetan txistukariak adierazteko (azken hori afrikatu sabaikarirako baino ez). Hain zuzen ere, Zolloko galdetegiak bat egiten du mendebal zabaleko beste testu arkaiko, zahar eta moderno batzuetako erabilerarekin (cf. Andram, Mikol, DotrSerm eta *Gtour*, adibidez), <s> grafemaren bidez adierazten baitira /tʃ/ ez gainerako txistukariak, kokagunea edozein izanda. Hala gertatzen da bai apikari frikari eta afrikatueta (cf. 3r *beste*, 3r *osoan*, 3v *basoetan*, 4v *saldu*; 4r *eusasan*, 4r *eusen*, 4r *e[u]sela*), bai lepokari frikari eta afrikatueta (3r *gustiai*, 4v *ditus*, 3r *sanean*, 3r *ausiau*; 4v *balisela* eta 4v *declarasera*). Salbuespen gehienak gaztelaniatiko maileguetan eta izen propioetan metatzen dira: 3r *errelaciñoa*, 3r *errezibidu*, 3r *ynformaciñoetara*, 4r *donaciño-gaiti*, 4r *acienda*, 4r *gozetan*, 4v *errezibidu*, 4v *obligacio*, 4v *censura*, 4v *gozemenenac*; 3r *Ruiz*, 3r *Calzadaco*, 3r *Salazarregas*, 3r *Salazarrecoc*, 4v (birritan) *Ypiñazarrec*. Aitzitik, birritan agertzen dira <c> eta <z> ondare zaharreko hitzetan; zehazki, zenbakiei lotuta: 3v *amasorcigarreneguino* eta 4v *vederazi*.

Sabaikarrietan, Mikoletaren eskuizkribuan ez bezala baina *Dotrinazko sermoitegia*-n legez (Ulibarri 2015: §4.2.1.4), Zolloko galdetegiaren egileak <s> erabili zuen gehienetan /ʃ/ adierazteko: 3r *elesate* eta 3v *elasa*. Salbuespen bakarra *kaxa* hitzari dagokio, birritan agertzen baita sabaikaria <sh> digrafoarekin: 3r *cashetan* eta 3v *cashacaz*; <sh>-k geroztik izandako bilakaeraz, begiratu Urgell (1987a: 360-365 eta 2018: 608-209 eta 613) eta Ulibarri (2015: 316). Bestalde, Hego Euskal Herrian erabat ohiko izan da /tʃ/ adierazteko <ch> erabiltzea, Zolloko galdetegian bezala: 3r *Echachuco*, 3r *echea*, 3v *echi* eta abar.

Aurreko egoerak erabat zailtzen du, berriz ere, txistukarien neutralizazioaz ezer ziurrik baieztatzea: <z> eta <c> duten kasu gehienak mailegatutako hitzak izatea esanguratsua da, eta gaztelaniazko grafia gordetzailearen ondorio direla pentsarazten dit. Halaber, izen berezietako <z>/<s> txandaketak ononimoen idazkera fosilduari egotz dakizkioke. Euskal ondare zaharreko hitzetan, bestalde, <c> eta <z> duten adibide bakarrak zenbakiei lotuta agertzeak (3v *amasorcigarreneguino* eta 4v *vederazi*) zalantza eragiten dit, ez ote diren beste nonbait irakurrita ikasitako formak. Horiei loturik,

gainera, garaitiko adibideetan ez dago <z>-ren bidez adierazitako lepokaririk, 3v *amasorcigarreneguino*-rekin batera 3v *sorsico* eta 4v *amasorsi* baitaude; halaber, ez dut hiperzuzenketa-kasurik aurkitu.

Ulibarrik (2015: 138) *Dotrinazko sermoitegia*-n neutralizazio-zantzuak identifikatzeko erabilitako irizpideekin bat, neutralizazioaren adibide bakana 3v *gosadu* maileguan egon liteke (4r *gozetan* eta 4v *gozemenenac* formekin batera agertzen da euskal pasartean, nahiz eta gaztelaniazko testuan *goz-* besterik ez dagoen). Forma horretan oposizioa galdua zela dagoela onartuz gero, gogoan hartzekoa litzateke bokal arteko neutralizazio-kasu bat legokeela, eta, hortaz, pentsatzekoa litzateke neutralizazioa errazago gertatzen den kokaguneetan behintzat aurreratuago egon behar zuela oposizioaren galerak, nahiz eta testuak ez duen hori bermatzen eta ondorio larriegia den adibide bakar baten gainean eraikitzeko.

4.7.3.5.2.7. Barnetxeak *Catalin* (1783) antzerki-lanean txertatutako euskal kanta interesgarria da txistukarien neutralizazioaz aritzeko, bai kontu grafikoengatik, bai berrikuntza dago inguruneengatik. Lehenik eta behin, aurretik aipatutako gehienetatik bereizten da, frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizten baitira: <s> grafema ageri da frikari lepokariaren lekuan (1 *gustiac*, 2 *il sirian*, 2 *saspi*, 2 *sulora*, 4 *se*), eta afrikatu guztiak <cs> digrafoaren bidez ematen dira (1 *acsohac* ‘atsoak’, 2 –bost aldiz– *acso* ‘atzo’, 3 *acso*, 4 *acsoric*).

Hala sail bateko nola besteko adibideak begiratuta, aise ikusten da egileak sistematikotasunez jokatu zuela: <s> besterik ez dago frikarietarako eta <cs> besterik ez afrikatuertarako, baina adibideak gutxi dira eta zalantza eragiten dute; izan ere, datuen bi irakurketa egin daitezke: (a) testuan <s> besterik ez da agertzen, Mikoletaren eskuizkribuan eta Zolloko galdetegian bezala idazleak hori erabiltzen zuelako frikari lepokaria eta apikaria adierazteko; (b) frikarietan <s> agertzen da sistematikoki egilearen hizkeran apikariaren aldeko neutralizazioa gertatua zelako. Adibideen urritasunak eta erkaketak egiteko material gehiagoren faltak ez dute baten ala bestearen alde egiteko bermalekurik ematen. Beste alde batetik, Barnetxeak frikariak eta afrikatuak bereizi zituen (eta, ozen ondoren frikari ahoskatzen zela proposa liteke 2 *il sirian*-en argitan), baina lekuari eta garaiari lotutako susmoak susmo, testuak ez du argitzen nola ebakitzen ziren <s> eta <cs> horiek.

4.7.3.5.2.8. Idazle ikasia izanagatik, De la Quadrak ez zuen bere garaikide batzuek egindako ahaleginik egin txistukarien neutralizazioa ostentzeko, nahiz eta frikari eta afrikatuak grafikoki bereizi: “Txistukari apikari eta lepokariaren arteko

bereizketa galdua da eta otu ahala nahasten ditu <s>, <ss> eta <z>, <c> garaiko ohituren arabera (...) Afrikatuekin frikariekin bezala jokatzen du <ts> eta <tz> nahasiz” (Bilbao 1997: 255). Hain zuzen ere, egoera bera deskribatu zuen Atutxak:

Lepokari eta apikarien arteko nahasketa afrikatu eta frikarietan ikus daiteke, eta ingurune fonologiko guztietan daude horren adibideak: bokal artean (*messa, adierasoten*), hitz hasieran (*saspirac, suzendutia, seinbat*), hitz amaieran (*bategas, onezas, gracias*), herskari aurrean (*irabasteco, aspitic, gustijetan*) eta ozen ondoren (*norsuc*); afrikatueta bokal artean (*utzean, deutzala, atzeguinez*) eta hitz amaieran (*utz*). (2013: 73)

Txistukarien neutralizazioak De la Quadrarenean duen lekuaz zehaztasun gehiago bilatu nahian kristau-dotrinaren lehenbiziko hamahiru orrialdeak aztertu ditut. Bada, lagin horretako datuek berretsi egiten dituzte hala Bilbaoren nola Atutxaren baieztapenak, baina bada ñabardurarik egiterik ere, ingurune fonikoa zein den.

(a) Herskari aurrean lepokarien % 82 inguruk du <s>; beraz, % 18 inguruk gordetzen du lepokaria ingurune horretan. Salbuespenak zein diren begiratuta, gainera, datu esanguratsua lor daiteke: % 66 *ezkero* postposizioari dagozkio, eta gainerakoak [ez + aditz laguntzailea] egiturari. Ematen du joera hori lan osoan ageri dela, hirurogeita zortzi *ezquero*-ren aurka hiru aldiz aurkitu baitut *esquero*. Ez da nahiko tinko mantentzen den joera edo erabilera bakarra: *-zko* atzizkia oso salbuespen gutxitan aurkitu dut herskari aurrean <s> ez duela. Bestalde, 11 *aztian* ez hiperzuzenketatzen, baina <z> *pro* <r> akastzen jo behar da (11 *Sapatu Santuric Trinidad Santissimara aztian* dio testuko esaldi osoak).

(b) Hitz amaieran bestelakoak dira proportzioak. Zehazki, adibide guztien % 28 inguruk besterik ez dute neutralizazioa (% 72k gordetzen dute lepokaria, beraz). Neutralizazio-kasuak instrumentalari eta sozietiboari (2 & 11 –bitan– & 12 –bitan– *gracias*, 2 *sentimentus*, 2 *sispurus*, 7 *obligacinois*, 7 *desprecios*, 8 *devocinois*, 10 *bategas*, 11 –bitan– *onezas*)³¹⁴ zein pluralgileari (1 & 2 *gaizus*, 2 *eguiguzus*, 2 *eguizus*, 9 *deutzudas*) loturik ageri dira. Hitz amaieran <z> besterik ez duten hitzak ere badaude; esate baterako, *ez* partikulak <z> besterik ez du ondotik herskaririk ez duenean. Bestalde, despalatalizazioaren ondoren 9 & 10 *nas* dago, baina testu osoan ugariago da *naz*.³¹⁵

³¹⁴ Aintzat hartzekoa da, gainera, adibideetako batzuk mailegu gordinak direla eta gaztelaniazko formek ere eragina izan zezaketela: *gracias* zein *desprecios* bezalakoak ari naiz.

³¹⁵ Bi horiekin batera, *naiz* aldaera ere badago zazpi aldiz, Bilbaok (1997: 270) markatu bezala. Bestalde, gogoan hartzekoa da, nahasteak saiheste aldera eta kasu honetan ere edizio-gileari jarraituta (*idem*, 255), frikariak eta afrikatuak ondo bereizi arren De la Quadrak ez zuela grafema bereizik erabili txistukari frikari sabaikaria adierazteko; <is>, <iss> zein <iz> multzoak baliatu zituen, adibideotan ikusten denez: 5 *Eleizaco*, 6 *Eleiza*, 6 *Eleiziari*. Halakoak garbixe irakur daitezkeen arren, zalantza handiagoak sor litezke 7 *nois* edo 7 *isten* bezalakoaren aurrean, ahoskera ez palatala baina apikaria ere posible baita. Beste

Hitz hasieran ere parekoak dira proportzioak, % 28 inguruk baitute neutralizazioa, (% 72k gordetzen dute lepokaria, beraz, sail honetan). Adibideei eurei helduta, bildutako sortan behin eta berriz errepikatzen dira elementu batzuk: 11 (birritan) & 12 *sutunic* (testu osoan ez dago *zutunik*-ik), 6 (birritan) & 7 *saspi*, 3 (birritan) & 5 *saspirac*, 4 (birritan) & 5 & 6 & 7 (birritan) *saspigarrena* (testu osoan ez dut *zazpi* edo *zاسpi*-rik aurkitu), 1 & 8 *señatu* (ez dago *zeñatu*-rik) eta abar. Lepokaria besterik ez duten adibideak ere badaude, hala nola *zeure* izenordaina, sistematikoki ageri dena hasieran <c> zein <z> dituela.

Bokal artean inon baino eskasagoak dira neutralizazio-kasuak; zehazki, aztertutako laginean % 4ra ere ez dira iristen: 5 *gausa*, 5 *gausen*, 10 *zeuscusuna*, 12 *essagutu*. Halere, sail honetan badago hiperzuzenketarik: 4 *guizatazun* (beharbada asimilazioz), 11 *ezango*.

Arestian aipatutakoarekin bat, afrikatuen sailean hainbat dira aurkitutako neutralizazio-zantzuak, nahiz eta kasu honetan, afrikatu guztiak aintzat hartuta, gutxiengoa diren kopuruz. Bokal artean aurkitutakoak dira De la Quadra 2 *deutzeguzan*, 2 *eracutzi*, 4 *jatzi*, 5 *utzean*, 6 *Loratzuban*, 8 *deutzat*, 9 *deutzudaz*, 9 *utzuna*, 9 *deutzala*, 10 *erruquitzubac*, 11 (birritan) *arratzalde*, 11 *eutzan*, 12 *deutzugu*. Horiekin batera bada nahastetzat edo hiperzuzenketatzat jo daitekeenik ere: 5 *Bedratsigarrena*, 10 *bacoitsian*.³¹⁶ Hitz amaierako adibideak gutxiago dira, baina ingurunearen maiztasuna txikiagoa izateak ere badu eraginik: 6 *utz eguin*, 6 *utz eguinac*. Bi adibideok *huts* barbari dagozkiola eta, testu osoa arakatu dut bestelako aldaeren bila, baina *utz* bakar da De la Quadrarenean.

De la Quadraz aritzean gogoratzekoa da testua Bermeo aldeko hizkera imitatuz idatzi zuela, baina izatez bilbotarra zela, eta idazle jantzia. Hori aintzat hartuz, ezaugarri honetan behintzat ez litzateke jokabide zuhurra izango testuak islatzen duen bariazioa tokiko euskararen imitazio bikainari egozte, De la Quadra ez baitzen dialektologo eta bere xede nagusia ez baitzen tokiko euskaraeren berri ahalik eta fidelena ematea. Testua aztertuta pentsa daiteke imitatutako hizkera hartan txistukarien neutralizazioa oso aurreratuta zegoela, baina pentsatzen dut kokagunez kokaguneko adibideen gorabeherak, aldaeren arteko lehiak eta antzeko gaiak lotuago daudela idazlearen

horrenbeste gertatzen da *naz* & *nas* & *naiz* aldaerekin (gaur egun, dena den, *nai* erabiltzen da, bokal eta guzti; cf. Gaminde *et al.* 2012: 140).

³¹⁶ Azken kasu horretan afrikatu lepokariaren eta sabaikariaren artikulazio-guneen hurbiltasunak ere eragin zezakeen nahastea, Bizkaiko euskaran *bakotx* ‘bakoitz’ aldaera arrunta baita (§4.2.2.2.8).

beraren idazkerarekin.³¹⁷ Ingurune batzuetatik beste batzuetara aldea dago, eta neutralizazioa herskari aurrean besterik ez da nagusi, grafikoki behintzat. Halaber, hitz eta elementu batzuk sistematikoki ematen dira era batera edo bestera (neutralizazioarekin edo gabe), eta hiperzuzenketa-kasuak daude. Uste dut kasu honetan ezin hobeto islatzen dela tokiko hizkera imitatu nahiaren eta idatziaren eta idazlearen ezagutzaren arteko tentsioa.

4.7.3.5.2.9. De la Quadrarenean legetxez, *Errosariyo santuba* lanean tentsioa ikusten da idazlearen hizkeran oso aurreratuta bide zegoen neutralizazioaren eta idazlearen beraren ezagutza grafiko-linguistikoaren artean. Lagintzat liburuaren lehenengo hogeita hamar orrialdeak hartuta, frikarietan etengabe nahasten dira jatorrizko lepokaria <z>-z ematen duten formak neutralizazioa islatzen bide duten <s(s)>-dunekin; hain zuzen ere, kokapen guztietan aurki daitezke bata eta bestea; herskari aurrean: 1 *gustiyac*, 5 *egubastengan*, 27 *irabastea*; 5 *asquenian*, 6 *eguiyascoa*, 10 *adolesco*; 1 (hirutan) *saspi*; hitz amaieran: 6 & 9 *gaizus* ‘gaitzazu’, 18 *ansiyas*, 18 *dolores*; hitz hasieran: 1 *seinnecc*, 5 *sapatuban*, 26 *suzen*; bokal artean: 3 *balasso*, 8 *esarten* eta abar. Esan legez, ordea, sail horietan guztietan aurki daitezke aldaera zetadunak: 3 *Eztau*, 3 & 4 *Eztago*, 12 *guztiz*...; 3 *leguez*, 3 (birritan) *gustiz*, 4 *dituz*...; 3 *Ze*, 6 *zariana*, 8 *zenduzan*...; 7 *zaitudazalaco*, 26 *sagozana*, 29 *gayezala* eta abar.

Adibide eta kontra-adibideok ikusita, badirudi neutralizazioak ez zukeela hainbesteko indarririk bokal artean; izan ere, kokapen horretan urriak dira <Vs(s)V>-ren adibideak jatorriz lepokaria zegoen lekuan, eta ugari <VzV>-dunak.

Aurreko adibideekin batera aipatzekoak dira hiperzuzenketa-itxurako zenbait kasu: 1 & 5 *gozozoac* birritan agertzen da aztertutako ataletan, beharbada aurreko zetarekiko asimilazioz edo analogia grafikoz; bestalde, 25 *ezango* agertzen da, bai eta <sz> duen 15 *poszic* ere.

Afrikatueta ez dago lehia grafikorik: jatorriz afrikatu apikaria zuten forma guztiak ematen dira <tz>-z; hots, afrikatu lepokaria adierazteko (3 *bacoitza*, 5

³¹⁷ Horretan guztiz bat egiten dut, beraz, Atutxarekin: “De la Quadraren testuak frikari eta afrikatu apikari eta lepokariaren arteko nahasketa handia erakutsi arren, zaila egiten zaigu hizkera batekin identifikatzea; izan ere, bera bilbotarra zen, baina Bermeo inguruko hizkeraren lekukotzat jotzen da bere dotrina (...) hizkera Bermeokoa erabili bazuen ere, txistukariekin gauza bera gertatu izana zalantzan jartzen dugu. Izan ere, gure hizkuntzaren ezaguera fonologikoaren paradigmaman zein hots den posible eta zein inguruetan den posible dago zehaztua, eta hortik kanpo gure oharrenaren arabera moldatzen da (Oñederra 2004: 126-127). Beraz, De la Quadra bilbotarra izanik lepokari eta apikariaren arteko oposaketa galdua edo erdi galdua zela pentsa daiteke, eta Bermeo inguruan egiten zen –edo egiten ez zen– bereizketaz ohartzen bazen ere, bere hizkeran bezala ahoskatuko zituen txistukariak. Zoritxarrez, ezin dezakegu jakin nola idatzi zituen txistukariak, berak ahoskatzen zituen moduan edo Bermeo inguruan entzuten zituen moduan” (Atutxa 2013: 74).

martitzenian, 6 *viyotzac* eta abar) erabiltzen den digrafo berbera erabiliz. Hona hemen adibide sorta bat: 7 *deutzudaz*, 8 *deutzuguz*, 8 *eutzela*, 8 *deutzugu*, 10 *eutzanian*, 12 *erruquitzuba*, 13 *lotzari*, 14 *eutzezan*, 15 *eutzenian*. Badirudi, beraz, afrikatueta erabatekoa zela neutralizazioa, frikarietan ez bezala.

4.7.3.5.2.10. De la Quadraren garaikide izan zen Sarria sermolari etxebarritarra, eta haren testuetan indar biziz islatzen da txistukarien neutralizazioa, bai frikarien, bai afrikatuen sailetan, ingurune guztietan.

Frikarien sailean jatorriz frikari lepokaria zegoen hitzetan <z> eta <c> (gehienetan) eta <tz> eta <tc> (gutxiago eta erabat bakan, hurrenez hurren) agertzen dira askotan.³¹⁸ Hona hemen adibide andana bat: 27 *ezta*, 27 *eztagoala*, 32 *guztiz*, 38 *viztu*, 38 *eztaquiyeac*, 39 *eztozuna*; 1 *lutzetutiagaz*, 1 *potz*, 2 *osoagaz*, 6 *dituz*, 14 *erruz*, 27 *dagoz*; 1 *cer*, 3 *celan*, 4 *ceruac*, 13 *zeure*, 9 *cerbaist*, 27 *zarragoa*; 1 *ecerbere*, 3 *daiguzan*, 6 *humezurce*, 19 *daroazueta*, 21 *lutcian* ‘luzean’, 37 *gautza*. Alabaina, neutralizazioa kokagune guztietara hedatuta zegoela islatzen du, argi eta garbi, jatorriz lepokaria zegoen lekuan <s>, <ss> eta, kasuren batean, <ts> agertzeak. Adibideak ugari dira: 14 *postuten*, 6 *gastetazuneco*, 6 *econduacaz*, 8 *egusquiyan*, 9 *saspigarren*, 15 *espanacas*; 1 *venturas*, 1 *dagos*, 11 *cegas*, 20 *legues*, 29 *isates*, 31 *onegas*; 1 *sensunic*, 1 *siquinduten*, 9 *suritu*, 9 *saspigarren*, 23 *susco*; 1 *essagutu*, 2 *adierasoten*, 4 *ausiya*, 12 *erasso*, 34 *potsez*, 38 *ussenian*.

Berez lepokariari eta apikariari legozkien grafemak kokagune guztietan etengabe nahasirik agertzeak ez du zalantzarako tokirik uzten, eta bestelako gertakizunek ere neutralizazioan pentsarazten didate: hainbat berba agertzen dira grafia batekin zein bestearekin, nahiz eta proportzioak berben euren erabilera-maiztasunaren arabera aldatu; esate baterako, *guzti* & *gusti* aldaerak aurki daitezke; zehazki, berrehun bat *guzti* daude Sarriaren sermoitegi osoan, eta mila hirurehun eta berrogeita hamar *gusti* inguru.

Frikarien sailean <z>, <c>, <tz> zein <tc> grafiko hutsak direla berresten du, halaber, hiperzuzenketa-kasuen ugaritasunak. Zehazki, askotan agertzen dira <z> zein <tz> etimologikoki apikaria zegoen lekuetan (adibide gehienak herskari aurrean daude): 1 *eztalduten*, 3 *deuzcu*, 4 *eztututen*, 8 *azcogaz*, 8 *yracazten*, 9 *azco*, 12 *ezcubetan*, 18 *icuzten* (‘ikusten’, ez ‘ikuzten’), 19 (birritan) *ezcatu*, 20 *aztibacua*, 21 *uzti* ‘uste’, 22 *jauzten*, 22 *ozteranzian*, 22 *aberaztazun*, 23 *eztutu*, 31 *erozten*, 35 *aztun*, 37 *ozticopian*,

³¹⁸ Frikaria adierazteko <tz> eta <tc> erabiltzea digrafo horiek Larramendi ostean arian-arian izandako zabaltzearekin lotu izan da (cf. Ulibarri 2015: §4.3.2.1.1.1.1). Bestalde, badago bestelako multzo grafikoren bat ere, baina salbuespena da; cf. 6 *astziariyac* ‘azeriac’.

37 *bezte*, 37 *deuzcuz*; 1 *jolaz*, 1 *jolatz*, 21 *iguez* ‘ihes’; 14 *zalzallia*, 15 *zutu*, 21 *zenidiari*, 24 *zortu*, 30 *zartu* ‘sartu’; 2 *ezan*, 9 *ondazunac*, 9 *aziqeria*, 11 *atzi*, 15 *uzein*, 19 *maezuac*, 21 *azi*, 25 *nagozija*, 37 *guratz*, 37 *gautzaric*, 37 *jotziric*.

Afrikatuen sailean errepikatu egiten da, proportzioak proportzio, frikarien saileko fenomenologia. Alde batetik, afrikatu apikaria <s>, <ss> eta <ts> grafemen bitartez eman zuen Sarriak (beraz, puntu honetan ez zitzaion beti lotu frikariak eta afrikatuak bereizteko Larramendik eginiko proposamenari). Hona hemen adibide sorta bat, hitz amaierako eta bokal arteko kokaguneak bereizita: 6 *ots*, 32 *uts*, 37 *auts*; 1 *deutsuen*, 1 *sitsa*, 4 *assoen*, 6 *eracusi*, 23 *losa* ‘lotsa’, 37 *osac* ‘hotsak’ eta abar. Jatorriz afrikatu apikaria zegoen lekuan, aldiz, <z> eta <tz> ugari aurkitzen dira: 1 *averatz*, 1 *vildotz*, 39 *mingotz*; 1 *atzacabe*, 1 *dauzo*, 4 *atzeguïn*, 6 *eracutziric*, 23 *azoturic*, 25 *ozoen* ‘otsoen’, 35 *opetzi*, 36 *etzera*, 38 *itzuai* eta abar. Afrikatuen kasuan ere banakako azterketarako lagin gisa item lexiko bat hautatzen delarik, item hori zein den aldatzen dira proportzioak; esate baterako, *bildots* hitza beti da *vildotz* (hiru aldiz) edo *vildoz* (bost aldiz) sermoitegian.

Ozen ondotik dagoena frikari/afrikatu ahoskatzen zen argitzeke egonda ere, Sarriaren sermoietan aise ikusten dira neutralizazio-kasuak kokagune horretan (ugariagoak dira sudurkari ondotik): 11 *bolzia*, 34 *izalzua*; 1 *indarzu*, 22 *inderzu*. Horiekin batera lepokaria adierazten duten <s>-ak ere badaude: 1 *sensunic*, 1 *eransun*, 3 *ensutera*, 3 *aneco*, 6 *ansarguïnocoac* eta abar.

4.7.3.5.2.11. Bizkaiko ipar-ekialdeko XVIII. mende hondarreko testuetan ez dago txistukarien neutralizazioaren zantzu handirik. Hain zuzen ere, berriz gogoratzekoa da inguru hartan bereizketak gehiago iraun omen zuela

In Marquina, however, hardly any difference is made between these two sounds, the *z* having been changed more to the sound of *s*, and the *s* slightly softened.

There are words which are homonyms except for the difference between these two sounds and in such cases some speakers make a difference in pronunciation to avoid confusion.

The words of this kind which I have heard used with the above difference in pronunciation are: *atso* “vulgar name for married woman”, *atzo* “yesterday”; *ots* “noise, chattering”, *otz* “cold”; *su* “fire”, *zu* “thou”; *samarr* “fragment, short light straw, match”, *zamarr* “leather hood of the spindle, leather put on forehead of oxen”; *ats* “stench, itch”, *atz* “finger, sign”; *sorr* “lazy, indolent”, *zorr* “debt, fault”; *esan* “said, told”, *ezan* “contraction of *ez zan*, was not”; *sarrtu* “entered”, *zarrtu* “grown old”; *lats* “rough”, *latz* “pot-chain”; *ostu* “robbed, stolen”, *oztu* “cooled”.

Further a very thick *s* is always heard in the suffix *-tsu* e.g. *adoretsu* “of much courage”, and also when that suffix denotes the indirect object e.g. *diñotsu* “he says to you”. (Rollo 1925: 6-7)

4.7.3.5.2.12. GernikaGK testuaren grafiak islatzen du txistukarien neutralizazioa oso aurreraturik zegoela, nahiz eta idazleak ahalegin nabarmena egin zuen forma etimologikoak erabiltzearen alde. Hain zuzen ere, ahalegin horrek eragin zituen testu honen bereizgarri diren hainbat hiperzuzenketa, txistukari lepokariarekin zein apikariarekin aurki daitezkeen adibide-bikoteekin batera:

(i) Herskari aurrean aurkitu ditut 4-2 *gaste*, 4-5 *castañacas* (grafia mailegatua ere izan liteke), 10-1 *Zaspigarrena*, 10-8 *esta*, 22-8 *astuten*, 23-3 *zerbaist*,³¹⁹ 24-5 *esquero*, 25-1 *estot* eta 25-4 *escara*. Ordea, hamalau aldiz aurkitu dut <zt> multzoa, bi aldiz <zp>, behin <zc> eta bitan <zq>. Hiperzuzenketaren bat ere badago: 24-6 *ezpaldia*.

(ii) Hitz amaieran oso arrunta da <s>: 1-6 *dacardes*, 5-4 *contentus*, 13-2 *dirus*, 16-5 *es*, 17-4 *artos*, 20-7 *sopacas*, 21-2 *eznias*, 21-3 *daroazus*, 21-7 *zoas*, 23-4 *pensamentubagas*, 23-6 *gueiyenes*. Aurkako adibideak, aldiz, hogeita hamalau dira.

(iii) Hitz hasieran bestelakoa da egoera, <s-> bakarra aurkitu baitut lepokariaren ordeztu: 19-4 *sapichu*. Horri hiperzuzenketa bi gehitu behar zaizkio, halere: 23-7 *zabela* hitz hasieran eta 19-6 *zarsian* ‘sartzen’ ozen ondotik. Hitz hasierako garaitiko adibide guztietan <z> edo <c> daude.

(iv) Bokal artean bestelakoa da nahastea, neutralizazio-kasuez gain (12-2 *besela*), hiperzuzenketa-itxurako hainbat kasu ere badaudelako: 8-7 *gurazo*, 9-3 *deceo*, 12-1 *ezaten*, 13-7 *anditazuna*, 13-8 *ondazuna*, 16-8 *ezango*, 20-7 *egozi*, 25-4 *azerratuco*.

Afrikatuen sailean ere erabatekoa bide zen neutralizazioa, <tz> aurkitu baititut hala hitz amaieran nola bokal artean jatorriz afrikatu apikaria zegoen lekuetan: 4-3 *vildotz*; 5-2 *jatziric* ‘jaitsirik’, 20-5 *eutzan*, 25-5 *dirautzobet*, 26-6 *dirautzut*.

4.7.3.5.2.13. AbadiñoGK testuan oso aurreraturik dago neutralizazioa bai frikarietan, bai afrikatuetan. Halere, bereizketa gorde duten adibideak egon badaude, batez ere bokal artean.

Herskari aurrean <s> dute honako hauek: 2-1 *gustioc*, 2-1 *olagurasco*, 3-3 *sispuruca*, 6-8 *gustis*, 7-3 *gustijoc*, 7-6 *auspasturic*, 8-8 *lastanchu*. Ingurune horretan ez dut salbuespenik aurkitu. Hitz amaieran sozietiboko eta instrumentaleko marketan, eta -z pluralgilean dago neutralizazioa adibide batzuetan (4-8 *Pepegas*, 6-6 *olguras*, 7-6

³¹⁹ Aspaldi hala lexikalizatua.

dagos), baina salbuespenak ere badaude: 2-7 *nac* ‘naz’, 5-1 & 8-7 *eguinez*, 5-5 *duaz*. Hitz hasieran ia sistematikoki aurkitu dut <s>: 0 *Sorcico*, 1-4 *situben*, 2-8 *suben*, 3-3 *sispurua*, 6-8 *soraturic*. Salbuespen bakarra 3-5 *cerubac* da. Bokal artean, arestian aipatu bezala, badago neutralizazioaren adibideren bat (2-6 *esarri*), baina gehiago dira <z>-dunak: 1-8 *guizonac*, 3-4 *guenduzan*, 3-6 *gozuetan*, 3-8 *bazan*, 4-5 *guizon*, 6-2 *dozube*, 7-3 *guazan*, 7-8 *ezinic*.³²⁰ Nolanahi ere den, bi hiperzuzenketa harrapatu ditut: 3-2 *ozuetan* ‘osoetan’ eta 3-3 *azabac* ‘asabak’.

Afrikatuen sailean *atsegin* hitzean sistematikoki aurkitu dut <tz> digrafoa: 1-3 *atzeguín*, 2-4 *atzeguinen*, 5-8 *atzeguín*, baina 3-7 *eutsena* ere badago.

4.7.3.5.2.14. Bulda dela eta, nabarmentzekoa da Durango aldeko 1730-1740ko testuetan baino askozaz aurreratuago eta argiago agertzen dela neutralizazioa bai inguruneei dagokienez, bai adibideen kopuruari dagokionez.

Herskari aurrean ia sistematikoa da <s>, eta adibide gehienak *guzti*-ri loturik daude: 7 *gustijana*, 10 & 12 *gustiac*, 11 *gustijai*, 26 & 43 *gustien*, 30 *gustietaric*, 34 *gustijatic*, 40 *gustian*. Horiez gain, 41 *egubastena* ere badago. Bestalde, [ez + aditz laguntzailea] egituran <st> besterik ez dut aurkitu: 43 & 45 *estabenac*, 47 *estaucanac*, 56 *estaquiyela*, 58 *estauco*, 64 *esteutza*. Ezpainetakoaren eta belarraren aurretik gutxiago dira adibideak: 40 & 46 *esquero*, 64 *ostuscuagas*, 55 *espada*. <t> aurretik behin besterik ez dut aurkitu <z> (55 *ezta*), eta <p> aurretik 2 *Ezpeñeco* agertzen da behin hiperzuzenketarekin.

Hitz amaieran ere ia sistematikoa da <-s>. Hala ageri da sozietiboko eta instrumentaleko marketan (64 *ostuscuagas*, 8 *damuarijagas*, 23 *visitabagas*, 25 *irugas*, 25 & 31 *bigas*, 25 *Mariagas*, 30 *bategas*, 36 & 64 *dirubagas*, 48 *espiritualagas*, 59 *bacochagas*; 6 & 12 *vitartes*, 8 *berbas*, 26 *ones*, 37 *inoenas*, 39 & 50 *bitartes*, 62 *diruas*), -z pluralgilean (7 *baditus*, 10 *deuces*, 12 *ditus*, 27 & 60 *leiques*) eta ez partikulan (44 –birritan– & 45 *es*). Hitz amaieran bitan besterik ez dut aurkitu <-z>: 8 *aoz* eta 24 *paternosterragaz* hitzetan.

Hitz hasieran bestelakoa da egoera, adibide gehienetan <z->, <ç-> zein <c-> agertzen baitira. Zehazki, <s>-rekin 3 *señen* eta 49 *sein dan* aurkitu ditut. Aurka dituzte, aldiz, 15 *zeinzuc*, 17 *zenbat*, 23 *zeinzubetan*, 29 *zein*, 33 *zeinec*, 38 & 54 *zein*, 42 *zapatu*; 43 *çe*; 3-4 *ce gaitic ce*, 36 *cegaitic*, 36 *cedutzelaco* eta 50 *cerubetaco*.

³²⁰ Bokal artekoen sailera gehi liteke 3-5 *etsetzi* ‘esetsi’, *ez-etsi* etimologia onartuta (OEH, s.v. *esetsi*).

Bokal artean ere bietarik aurki daitezke (11 *duasan*, 22 *daosan*),³²¹ baina <z>, <c> edo <ç> duten adibideak askoz gehiago dira (zehazki, hogeita hamarretik gora): 2 *concedietan*, 4 *daucazalaco*, 5 *espacijuan*, 6 *vicitzan*,³²² 8 *ezin*, 10 *concedietan*, 12 *duazan* eta abar. Aurrekoekin batera, 54 *compocizinocua* aldaeran, beste testuren batean legez (cf. Kapan 60 *dispoçiziño*), asimilazioa gertatu dela proposa daiteke.

Afrikatuen sailean lepokariaren aldeko neutralizazioa gauzatu zela baieztatzeko adibide argiak ditu Bulda-k: oro har <tz> eta <tc> digrafoen bidez adierazten da lepokari afrikatua (6 *vicitzan*, 6 *erijotceco*, 8 *viotzeco*, 9 *viotzetic*, 15 & 41 & 55 & 56 *batzuc*, 31 *eriotzaco...*),³²³ eta horiek agertzen dira, halaber, jatorriz afrikatu apikaria zuten formetan. Jarraian ikusiko denez, adibide guztiak **edutsi*-ren forma jokatueta daude, 3. pertsonari dagokion datibo-markan (2 *deutzana*, 16 *deutza*, 36 *cedutzelaco*, 43 *deutzet*, 52 *dutzan*, 64 *esteutza*), eta bokal arteko afrikatu apikariak lepokariaren alde neutralizatuta zeudela islatzen bide dute.

4.7.4. Neutralizazioa Arabako testuetan

4.7.4.1. XVIII. mendea baino lehenagokoak

Arabako testu arkaikoetan egon badago neutralizazioaren zantzurik, baina adibideak gutxi dira eta errazen gerta daitezkeen kokaguneetan daude: herskari aurrean eta hitz amaieran. Horiez gain, Bizkaiko testuetan legez, zenbat kasutan ez dago argitzerik zer-nolako ebakera adierazten duten grafema batzuek, idazleen ezagutza zein hautu grafikoak zalantza-iturri edo interpretaziorako oztopo baitira.

4.7.4.1.1. Testu laburrak

4.7.4.1.1.1. 1600 aurreko testu laburren artean ez dago batasunik: alde batetik, MSículo, IacobGeb eta frJVict testuetan ez dut neutralizazioaren zantzurik aurkitu; beste alde batetik, Pozak zabal erabili zuen <s>: herskari aurrean, hitz amaieran, hasieran eta ozen ondotik aurkitu ditut *astu*, *es*, *nigas*, *sura* ‘zura’ eta *balsa* ‘beltza’; baina, erkagairik ezak eta adibideon datak ez du biderik ematen deskripzio grafikoez harago egiteko, izan baitaiteke <s> edozein txistukari adierazteko baliatu izana.

³²¹ Bulda-ren edizioa eman zuenean, Lakarrak (1985b: 1051) ez zuen baztertu *garizuma* eta *eliza* hitzetako <s>-ek /š/ adieraztea; beraz, aurreko zerrendatik kanpo utzi ditut 21 & 39 *garisimaco*, 22 *garisimati*, 44 *garisiman* eta 24 *elisetan*.

³²² Horrekin batera, merezi du 30 *bitzian* eta 31 *vitzizan* aldaerak aipatzea. Lakarrak (1985b: 1051, 7. oin-oharra) gogoratu zuenez, grafia horiek lekutuak dira bai Oikiako dotrinan, bai Frai Bartolomeren lanetan. Azken horretaz, begiratu Mitxelena (1978b: 406) eta Altzibar (1992: 523). Gerora, besteak beste Sarriaren sermoietan (Zuloaga 2010: 404) ere deskribatu da grafia hori.

³²³ 10 *deuces* eta 28 *berezat* ere badaude, baina lehenengoa “zalantzazko irakurketa izateaz gain bakarra da” (Lakarra 1985b: 1051, 7. oin-oharra).

4.7.4.1.1.2. ErrodZar testua transkribatzean txistukari gehienak <s>-ren bidez eman zituen Arriolabengoak (1996 eta 2008): 2 *estabe*, 9 *Gastelan*, 15 *urregorrisco*; 1 *dardos*, 2 *camporacos*, 5 *Abendañocogas*, 6 *ditus*, 4 *selan*, 4 *sindean*, 12 *saldi* & 14 & 15 *saldiac*, 12 *suriac*; 19 *echosu*; 13 *asean*. Horiekin batera, hiperzuzenketa dirudi 3 *çeculaco*-ko hasierako <ç>-k. Transkripzio horren argitan, ez bitxitasuna azpimarratu gabe, baina neutralizazioa aurreraturik (inon baino aurreratuago arabar testuen artean) zegoela interpretatu da inoiz (Mounole & Lakarra 2018: 418-419). Aitzitik, kasu honetan ere azalpen grafiko hutsa proposa daiteke; izan ere, transkripzioan <s> ematea Arriolabengoaren hautua izan zen, ez testuaren transkripzio zehatza. Hain zuzen, testuak dituen ese sigmatikoak <s>-ren bidez ematea arazotsua eta nahasgarria da:

El filólogo ha de poner un cuidado especial con las grafías subyacentes de lo que en la transcripción debe ser “s” o “z” (según los casos), pero normalmente es “s” en las ediciones documentales. El “cinco” (grafema semejante al número 5), la “sigma” y la “espiral”, según la terminología paleográfica, son los signos que originan el problema con “eses” que no son sino “zetas”. Tal encubrimiento ocasiona los “seseos” de documentos cuyo criterio de transcripción no sigue unas mínimas pautas. (Osés 1998: 201)³²⁴

1600az geroztik, Mendietari lotutako testuetan ondo bereizten dira txistukariak oro har: cf. Mendietakoa *bizcaitarrai*, *eguinezan*; Abendaño 1 *yzarragati*, 6 *Barriz*; Mendietakoa: *izumea*, *çumela*, *goçaeta*, *guizon*, *eguzquia*, *yza*, *çarra*, *acia açando*, *indazu*... Azken testu horretan *galeras* ‘arintasun’ eta *ainsta* ‘ahizpa’ ere badaude: Ulibarriren ustez (2013a: 182), lehenengoak *gal-irin*-ekin izan dezake lotura, baina *galdu* + *er(r)az* ‘erraz’ ere izan liteke (cf. *OEH* s.v. *galerraz*, Mikol 12v & 13v *erasti* eta egungo hizkera batzuetako *eras* aldaera –Zuloaga inprimategian-2-). Bigarrean, bestalde, neutralizazioaren zantzua dago herskari aurrean.

4.7.4.1.1.3. Urduñako hiztegitxoan antzekoa da egoera. Oro har, lepokari eta apikariak ondo bereizten dira bai frikarien, bai afrikatuen sailean: frikarietan *laztan eguin*, *laztan*, *ezteguac*; *çecorra*, *çuria*, *catac* ‘zatak’; *yçurra*, *acula* ‘azula, urdina’, *azac*, *bizarra* eta *auçoa* daude; afrikatuetan *onuz*, *beracaza*, *costorraza*; ozen ondotik *calzaiduba*, *barçuna*. Aitzitik, herskari aurrean *ustapicu* dago, bai eta hiperzuzenketaren itxura duten *eztu eguin* eta *ezturic* ere. Horiez gain, *cumacoa* ‘sumakoa’-k hiperzuzenketaren itxura du (<c> *pro* <s>), eta *erasle* aldaerak bat egiten du Mendebaleko tradizioarekin (*FHV* 234). Afrikatuen sailean <z>-ren aldeko joera dago, hori besterik ez baita agertzen zerrenda osoan: aipatuez landara, *mingaza* eta *jazi* daude.

³²⁴ Begiratu, halaber, Isasi (1999) Hego Euskal Herriko gaztelaniaz idatzitako testuetako gorabeheraz.

4.7.4.1.1.4. Arabako XVII. mendeko gainerako testuetan ez dago batasunik: Arabakotzat jo izan den Iturberen sortan ez dut neutralizazioaren adibide bakar bat ere aurkitu. Peyrasc testuak, aldiz, 1 *gustiz* eta 2 *gustien* dakartza herskari aurrean (aurka dute 3 *Vizcaitarrac*) eta 4 *esagueraan* bokal artean (baina aurka ditu 1 *Guiçon* eta 4 *diçuçan*). Afrikatu guztiak eta ozen ondoko txistukariak <ç> bidez emanak dira: 2 *goraçallea*, 5 *arguiçean*; 5 *ainçinatasun*.

4.7.4.1.1.5. Portalen testuak herskari aurrean eta hitz amaieran biltzen ditu neutralizazioaren adibideak: 45 *estaquiçula*, 77 *yrabasten* eta 37 *deyes*, 47 *guças*, 55 *digus*, 61 *arrosas*. Adibideak bakanak izanda ere, instrumentalean <-s> da bakar, baina aditzetan <-z> gorde dute 5 *çatoz* eta 13 *naiç* adibideek. Garaitiko kokaguneetan ez dut neutralizazioaren zantzurik aurkitu: 4 *ceure*, 14 *ceruan*, 37 *çan...*; 3 *eguiçu*, 7 *dezu*, 18 *guizonarençat...* Halaber, ez dut neutralizaziorik aurkitu ez afrikatuen sailean, ez ozen ondoko txistukarietan.

4.7.4.1.1.6. Sevilla1619 testuaren edizioa oharreztatzean, txistukarien neutralizazioa oso aurreraturik deskribatu zuen Ulibarrik: “badirudi egilearen hizkeran txistukarien neutraltzea oso aurreraturik zegoela, hala frikarietan nola afrikatuetan, eta hau harrigarria da, orain arte beranduagoko lekukoetan baino aurkitzen ez zen egoera baitugu honetan” (Ulibarri 2011b: 378). Hain zuzen ere, frikarien sailean <s> kokagune guztietan agertzen da, hitz amaieran izan ezik (43 & 65 & 81 *ez*, 50 *galçayruz*, 63 *galçayruscoez*, 84 *dituez*).³²⁵ Herskari aurrean sistematikoa da <s>: 25 *esteu*, 31 *gustia*, 47 *gustiaq*, 48 *espateaq*, 60 *ascoeaq*, 63 *galçayruscoez*. Hitz hasieran eta bokal artean, aldiz, salbuespenak daude. Hitz hasierako 5 *siran*, 7 & 29 *situan*, 9 & 41 & 93 & 106 *san*, 29 *sorci*, 34 *socondo*, 59 *sorrotsarequin*, 66 *sorrotsaq* eta 67 *sien* adibideen aurka daude 20 *ceruco*, 50 *zaldi*, 53 *ceban*, 89 *çan*, 90 *cerua* eta 99 *çara*. Bokal artean gutxiago dira salbuespenak: 25 *yssan*, 41 & 87 & 89 & 99 *yssandu*, 43 *yrabassi*, 60 *guessiac*, 105 *badessu*, 107 *dissut*, baina 18 *gauçea*, 81 *bayce*; gainera, hiperzuzenketa-itxurako 91 *çabel* ere badago.

Beste alde batetik, Ulibarrik (2011b: 378) harriduraz zekusan afrikatu lepokaria legokeen kasuan sarri agertzen direla <s>, <ss> eta <ts>-ak: 37 *gordessen*, 39 *venciseco*, 47 *rebatissen*, 50 & 68 *corpusac*, 59 *sorrotsarequin*, 64 *armassen*, 66 *sorrotsaq*, 69 *defendissen*, 101 *largassen*, 103 *adorassen*. Agerikoa denez, grafema eta

³²⁵ “*Millares* hitza litzateke hemen testu osoko neutraltzearen adibide, baina ezin dugu ahaztu inprentakoek izan dezaketen eragina testuan, eta posible izan daiteke hemen erdararen eragina izatea” dio Ulibarrik (2011b: 378, 11. oin-oharra).

digrafo horiek apikariaren eta lepokariaren adierazpena berdintzen dute (cf. 12 *atseguin* eta 107 *eracutsico*), nahiz eta lepokaria adierazteko <c>, <ç> eta <tc> gutxi batzuk ere egon, denak ere *gurutze* hitzari loturik: 74 *curuça*, 78 *curucea*, 79 *curuçan*, 85 *curuceaq*, 97 *curutcearen*.

Ulibarrik (2015) berak txistukarien adierazpenaz gerora emandako ikuspegiak testuaren edizioan esan zituenak berrirakurrarazten ditu: bakar ez den arren, badirudi <s>-k eta <ss>-k edozein txistukari, lepokaria zein apikaria izan, adieraz dezaketela testuan; hots, Sevilla1619 testuko <s> guztiak ez lirateke apikari, afrikatuena saileko adibideek argiro islatzen dutenez: Andramendiko izkribuetako, Mikoletaren testuko, Basabilbasoren gutuneko, *Dotrinazko sermoitegi*-ko zein Zolloko galdetegiko egoera bera edo bertsua islatzen du Sevillako sortak. Izan ere, <s>-k eta horren gainean eraikitako digrafoek apikaria zein lepokaria adierazten dutela onartuta, errazago azaltzen dira bai afrikatueta aldaera <s>-dunak lepokariaren lekuan, bai frikariaren sailean bereizketa gordetzea ez berba hasieran eta bokal artean baina amaieran.

Testuaren kokapen eta jatorri zehatza ezezaguna den arren, bestalde, Portalen euskararekiko lotura nabarmendu zuen Ulibarrik (2011b: 385), eta Portalena, Aldairen (2014) proposamen berria proposamen, Araba eta Nafarroa arteko lurretan kokatu izan da. Geolinguistikoki, bada, ez zirudien azalbide errazekoa testua hirigune batetik kanpokoa izanda bereizketaren galera beste inon baino indartsuago egotea; begiratu gorago ErrodZar testuaz esandakoak (§4.7.4.1.1).

4.7.4.1.2. Landucci

Landucciren hiztegiari helduta, Atutxak (2011: 16) zioen txistukariaren oposizioaren galeraren arrasto garbiak herskari aurrean besterik ez direla agertzen, eta horren erakusgarri eman zituen hala neutralizazioaren nola hiperzuzenketen adibide gutxi batzuk.

Herskari aurrean³²⁶ hitz batzuek sistematikoki dute <s>, hala nola *ezpata*, *pizti*, *iraztu*³²⁷ eta *eguzten* berbek eta hortik eratorriek: *espatasco ysgrimea*, *espada - espatea*, *espadero - espataria*, *espadado - espataz beteyc*; *ae - pistia*, *caça de aues - pistian caça*, *cresta de aue - pistian crestea*, *francolin aue - francolina pistia*, *molleja de aues - corrinco pistiana*, *nidal de aves - pistian afia*, *oxear aues - pistiac oxeadu*, *oxeo de aues - pistian osça*, *pico de aue - pistian picoa*; *rayo del cielo - çeruco yrastua*,

³²⁶ Seguritasun handiagoz aritzeko, bazter utzi ditut maileguaren kronologiak eta/edo gaztelaniazko formak baldintza zitzaketan aldaerak, hala nola *bisperas - vesperac*, *capullo de seda - sedasco capulloa*, *con sazón y tiempo - sazoyan ta temporan* eta abar.

³²⁷ Betiere jatorrian Mitxelenaren (FHV 547) etimologia onartuta: *oin + az(i) + -tu*.

relampago - *yrastua*, *relampaguear* - *yrastuca eguon*; *miercoles* - *eguastena* (behin bakarrik).

Herskari aurrean <s> sistematikoki duten hitzekin batera, badaude neutralizazioa isla dezaketen beste kasu batzuk ere, baina oro har <ç>/<z> dutenak ugariagoak dira: *manifiestamente* (*plaçan*) - *gustion aurrean* dago behin, baina hamazortzi aldiz zenbatu dut *guzti*; *agosto* (*mes*) - *abustuyla* eta *cosecha de mieses* - *abustua*³²⁸ daude, baina aurka dituzte *estio* (*parte del año*) - *abuçtuan*³²⁹ eta *estiuial cosa* - *abuçtuco gaucea*. Bestalde, hiztegiak *a man izquierda* - *esquerrerus* dakartza, baina <zq> dutenak dira arruntenak: *hazia la mano* - *yzquierda ezquerrerusç*, *izquierdo* - *ezquerra*, *izquierda mano* - *esqu ezquerra*, *izquierda cosa* - *gauça ezquerra*, *mano siniestra* - *ezquerra*; berebat, *granizar* - *escararr eguin* bakanaren aurka daude *granizo* - *ezcararra* (gain-gainean emana) eta *apedrear con granizo* - (C) *gazcararraquin joa*, eta *casadera moça* - *nezcato escongueya*-ren aurka daude *casarse* - *ezcondu*, *casado* - *ezcondua*, *casada muger* - *andra ezcondua*, *casamiento* - *ezconçea*, *casamentero* - *ezconcaria*, *casamentera* - *andra ezconçaria* zein *dote o casamiento* - *dotea edo ezconçea*; *arçobispo* - *arçepisticoa*, *arçobispal cosa* - *arçepisticoan gauçea*, *obispo* - *episticoa*, *obispal cosa* - *episticoan gaucea* baina *mitra de obispo* - *croçea epizticoana*.

Halaber, -zko atzizkian <s> agertzen da batzuetan: *alpargate* - *çapata ylariscoa*, *capullo de seda* - *sedasco capulloa*, *esgrima de espadas* - *espatasco ysgrimea*, *juegos de cañas* - *canasco jocuac*, *liuiana cosa* - *gauça pisu guchisco[a]*; alabaina, aurkako adibideak gehiago dira: *aflar cosa de yerro* - *burniazco gauçea afiledu*, *ballesta de azero* - *azerozco ballestea*, *blandon de çera* - *çerazco blandoea*, *boton de fuego* - *suzco votoya*, *caracol escalera* - *caracolezco escalerea*, *copo de lino o lana* - *quirrua eunezcoa edo vlezcoa*, *correa de quero* - *narruzco correa*, *cota de malla* - *cota mallazcoa* eta abar.³³⁰

Aurreko adibideren batek islatzen duenez, Landuccirenean bada arreta ematen duen eta txistukariekin lotura duen beste fenomeno bat: etimologikoki apikaria zuten hainbat kasutan <z> eta <ç> agertzen dira; hots, hainbat eta hainbat kasutan hiperzuzenketak daudela dirudi. Neutralizazio-kasu argiak dauden kokagune eta testuetan hiperzuzenketak egotea ez da bereziki harrigarria, baina Landuccirenean

³²⁸ Ez da adibide ziurra, tartean zuzenketa baitu eskuizkribuak: “s corrige z, o tal vez al revés” zioen Mitxelenak (1958: 272, 75. oin-oharra).

³²⁹ Kasu honetan ere zuzenketa bat dago tarteko: “ç corrige s” (Mitxelena 1958: 303, 120. oin-oharra).

³³⁰ Aurrekoetz gain, inoiz gutxitan badago <sc> digraforik frikaria adierazteko, oro har herskari aurrean; cf. *caminador* - *videsçcoa* eta *desabazar* - *asçtu eraguin*. Begiratu zehaztasun gehiago Atutxa (2011: 14) lanean.

adibideen kopurua da harrigarria, neutralizazio-kasutzat jo daitezkeenak baino gehiago baitira.³³¹ Sail honetan ere oso ohikoak dira bikoteak; alegia, batzuetan <s>-z ematen direnak <z> edo <ç> dutela ere agertzen dira. Hona hemen adibide sorta bat: *vezteri, competir con otro - competidu veztequin eta otras cosas - beçte gauça*,³³² baina *agena cosa - besten gauça, aun ay a otra p[ar]te - ta orra beste aldera, de corrillo en corrillo* (B) *batetiq eta bestetic, de villa en villa - villa vaterean bestera*, (B) *lecutica lecura, diuersamente* (C) *bestelan, ni uno, ni otro - ez bata ta ez bestea, ni a una parte ni a otra - ez alde batera ta ez bestera, ni en un lugar ni en otro - ez lecu batean, ta ez bestean, otro tanto aynbeste, otros tantos - aynbeste; escopir - tu eguin, (B) vel ystu baina escopetina - tua, (B) iztua; alcrevite piedra sufre - piedra çufrea baina piedra sufre - verde sufrea; biuda - çenarruaguea, (B) alarguna baina marido - senarra, maridar - senarr artu, maridable cosa - gauça senarr arçayten erraçã; callo de mano - ezcucu calloa baina 14 aldiz aurkitu dut esku zein hortik eratorriak; casadera moça - nescato escongueya baina (C) *nesca llouea - criada nescatoa, moçuela - nescatoa, moça de seruiçio - soldatazco nescatoa; encubridor - eztalguilea eta cobrir - eztaldu, encubrir - encubridu, estaldu; costurera - jozquina, baina coser jossi eta cosedura - jossitequoa.**

Lauzpabost hitzek ez dute aurreko polimorfismorik, eta <z>-z agertzen dira sistematikoki, nahiz eta aintzat hartu behar den bakanak direla: azalean birritan aipatzen da *ezqueraz* ‘euskaraz’, *antruejo - aratizteac* behin besterik ez dago,³³³ eta *erakutsi* aditza *eracusçi* sarreraren bidez ematen da (eta *enseñado - eracusçia*), baina aditz-izenaren markarekin *enseñança - eracuztea* dago.

Muzu aldaerak interpretazio-arazoak eragin ditzake: ‘mutur’ adierazteko erabiltzen denean (*hoçico como de puerco - muçua, vrdean leguezcoac*) <ç> pro <s> proposa liteke, baina ‘muki’ ere izan daiteke esanahia (*mocos de narizes - muçuac surretacoac, mocos - muçu onçia*; cf., halaber, Mikol 12v *de carámbanos - leyen moço-ena*). Hori dela eta, *alimpiar narizes - muçuac garuitu* esapidea batera nahiz bestera uler daiteke.

Halaber, *isusi* aldaera gorabeheratsua da hiztegian: *barrer - yçussi* eta *barredor yçusiten deuenta* ageri dira, baina bietan egin da <s(s)> → <ç> zuzenketa (Mitxelena

³³¹ Neurri batean gogora dakartzkidate IbarC kronikako hiztegitxoetakoak (cf. §4.7.3.1.3).

³³² Adibide hori dela eta, kasu Mitxelenaren oharrari: “No se ve bien si se ha corregido *beste* en *beçte* o al revés” (1958: 340, 176. oin-oharra).

³³³ *axuar de casa - eșçe treznea* ere badago, baina kasu honetan bestelakoa da azalpena (begiratu *FHV* 231).

1958: 254, 41. eta 42. oin-oharrak), eta *OEH*-k (s.v. *isusi*) lepokari afrikatutzat jotzen du (*itzusi*).

Herskari aurreko kasuez harago joan aurretik, zenbaitetan oker interpreta litezke herskari aurreko <s>-ak zuzenean apikaritzat jotzen badira. Zehazki, Bizkaiko testuez aritzean aipatutako hitz berez ari naiz, hala nola *gaizto*-z (Landucciren kasuan baita *gaizki* ere) edo *aizkora*-z. Lehen begi-kolpean pentsa liteke *angel malo* - *angueru gaystoa*-n ez dagoela palatalizaziorik eta <s>-k apikaria adierazten duela; aitzitik, *empeorar* - *gayxtoa* *eguin* ere badago; halaber gertatzen da *hacha de armas* - *armatacoa ascoea* eta *hacha de leña* - *axcorea egurretacoa* bikoteekin. Halakoak ikusita, ez da baztertzekoa kasu horietan behintzat <s> grafemak [ʃ] adieraztea. Bestelako kokaguneetan ere badaude paraleloak: cf. Land *bruxa* - *xorguina* eta *bruxo* - *xorguinoa* baina *hechizos* - *sorguineria*.

Txistukarien neutralizazioak Landuccirenean duen lekuaz aritzean oro har herskari aurreko adibideak aipatu izan dira: “galeraren arrasto garbiak herskari aurrean baino ez dira lekutzen” zioen Atutxak (2011: 16), eta herskari aurreko bi adibide (*ezcuco calloa*, *ezquinadua*) aipatu zituen Ulibarrik (2015: 41). Aitzitik, hiztegia zehatzago aztertuta, hitz amaieran eta bokal artean ere aurki daiteke zantzuren bat.

Hitz amaierako adibide bakanak instrumentalaren markari eta, are zehatzago, [-z *betea*] esapideari dagozkio gehienetan: *lodoso* - *loyes betea*, *neruiosa cosa* - *gauça çaynes betea*, *polvoroso* - *ausçes betea*, *empoluorado* - *ausçes vetea* (baina *çeniziento* - *ausçez vetea*). Esapideaz kanpo *enseuada cosa* - *gauça çias ganchitua* ere badago.

Bokal artean lepokari etimologikoaren lekuan <s> duten adibideak oso bakanak dira. Alde batetik, bi agertzen dira -*zain* atzizkiari loturik: *asnerizo* - *astasaya* eta *camellero* - *gamelu saya*, eta horien aurkakoak dira *hornero* - *labaçaya* eta *hornera* - *andra labaçaya*, *ganadero de ganado* - *amuaçaya* eta *harriero* - *mandaçaya*; gero, ez bokal artean baina ozen ostean dago *ansarero* - *aņçar saya*. Beste alde batetik, *izotz* hitzaren aldaerak daude: *yelo o elada* - *ysosça*³³⁴ eta *carambano* - *carranquea*, *yssosça*, baina *elada*, *o yelo* - *yçosça*, *carranquea*³³⁵ eta *elarse* - *ycosçtu*. Halakoak, nolana ere den, gutxi dira eta zuzenketak daude tarteko; beraz, kasu honetan ere gogora datozkit IbarGC kronikan ikusitakoak, eta ez nuke baztertuko kontu grafiko hutsak izatea.

Hitz hasieran ez dut adibide garbirik aurkitu: *gestos* (*hazer*) - *sinu eguin*, *sarten* - *sartaguia* zein *puchas* - *sopac*, *apurrac* bezalakoak aldaera zaharrak dira mendebalean

³³⁴ “Corregido por B en *yzosça*” (Mitxelena 1958: 317, 141. oin-oharra).

³³⁵ “ç corrige una s: *yçossa*” (Mitxelena 1958: 292, 106. oin-oharra).

(*OEH*, s.v. *zeinu*, *zartagin* eta *zopa*), eta gaztelaniazko formek erraz baldintza zitzaketen.

Afrikatueta ez dut neutralizazio-kasurik ikusi, Mitxelenarekin (1958: 211) eta Atutxarekin (2011: 15) bat.

4.7.4.1.3. Lazarraga

Lazarraga eskuizkribuko grafiak aztertu ondotik, hau baieztatu zuen Pagolak:

Fonologikoki sistema ongi gordetzen dela ageri da, ziurtasuna eta nahasketarik eza dira adierazgarrienak, baita posizio inposiboko <zt> taldean ere, hain aldakorra dena bestalde. Hala ere, badira zenbait nahasketa grafiko beti igurzkarien artean eta inoiz afrikarietan, «gausaric» hasieran eta gero zuzendua «gauçaric», «desesperanças» (nahiz eta <s> sigmatikoa bezala ere har daitekeen azken grafia hau), «azpertz» / «aspertz», «çufrietaco», «toleztaduric», «monezterio» edo jarraian datorren olerki zatiaren azken bertsoaren azken hitza: «Esaten yracastaçu / Axparreneco larrosachoac / geraçiea yndaçu / morroe galant estiraduac / oy defendidu naguçu / oy Gaztelaco erregue jauna / erreguiagaz ycasu». Kasu honetan, pasarte oso argia ez bada ere, “ycas çu” edo “ycasçu”, puntuarekin bat eginez, espero zitekeen. Edonola ere, agertzen diren kasuak, gutxi dira, ez denak hain garbiak eta ez dirudi aski direnik igurzkarien arteko nahasketa hasia zegoenik esateko. (2006: 548)³³⁶

Mounoleren (inprimategian) azterketa xeheak, bestalde, zehaztasun handiagoa ekarri du, eta erakutsi txistukarien neutralizazioaren fenomenoaren banaketa ez dela ausazkoa eskuizkribua osatzen duten materialen artean. Labur esanda, Lazarragaren beraren eta Bikuñaren testuetan ez dago nahaste handirik frikarietan, ezpada adibide bakan batzuk: Pagolak aipatutako A1:46 *desesperanças*-ekin batera A17:31 *esperanças* ere badakar Lazarragak, eta B8:4 *negarres* eta B8:8 *bearres* Bikuñak. Lehenengo biak erdal grafiaren eraginez emandako aldaerak izan daitezke. Azken bietan instrumentalaren markan agertzen da berez apikariari legokiokeen grafema. Kokagune horretatik kanpo, B22:27 *gustietati* besterik ez du aipatzen Mounolek ustez Lazarragak idatzitako testuetan, eta hala *Artzain-liburua*-n (AL:1154r & AL:1154v) nola A23 olerkian ageri den *çufri*- hasierak ez du zertan hiperzuzenketa izan, ezpada gaztelaniaren eragina; begiratu edizio gileek kasu horretaz eginiko oharra (Bilbao *et al.* inprimategian). Hiperzuzenketa izateko aukera handiagoak dituzte, itxuraz, B22:2 *monezterio* (baina B15:1 eta B15:30 *monesterio*) eta A23:54 *toleztaduric* aldaera bakanek, biak ere herskari aurrekoak.

Egoera bestelakoa da Sasiolaren poemetan, oposizioaren galerak aurreratuagoa baitirudi haren hizkeran.

³³⁶ Dударик gabe Lazarg testua 2010ean edo orduz geroztik finkatu izanak izan bide du eraginik hala kontu honetan nola beste batzuetan, baina gaur-gaurkoz ez dut eskuizkribuan aurkitu Pagolak aipatzen duen *azpertz* aldaerarik, ezpada *asper*- lau aldiz. Bestalde, *ycasu*-ri dagokionez, ez frikaria baina afrikatu apikaria proposatzea da errazena, *ikatsu* ‘ikas ezazu(e)’ (Bilbao *et al.* inprimategian); cf. Mikol 12r *ecussu* ‘ikus ezazu(e)’ bezalakoak.

4.7.4.1.4. Betolatza

Betolatzaren dotrinan herskari aurrean agertzen dira neutralizazio-kasutzat jo daitezkeen adibideak; zehazki, *guzti* (batez ere) eta *emazte* hitzei, *-zko* atzizkiari eta [ez + aditz laguntzailea] egiturari loturik. Hona hemen adibide-sorta bat: 2 *gustia*, 2 & 3 *gustiric*, 4 *gustien*, 5 & 5 & 7 & 11 *gustiz*, 10 *gustiez*, 11 *gustiay* (behin besterik ez dago <zt> hitz horretan: 9 *guztiaz*); 9 *emasteric*; 6 *misericiordiasco* (baina 12 *misericiordiazcoac*); 12 *estaquianari*. Herskari aurrean ematen du <zp> eta <zc> ~ <zq> multzoak hobeto gorde direla: 5 *azpian*, 6 *zizpuruac*, 7 (birritan) *çazpirac...*; 6 *negarrezco*, 9 *luxuriazco*, 8 *azquero...* Baina, puntu honetan hiperzuzenketa ikus liteke 5 & 8 *aldezcoatati* aldaeran.

Herskari aurreko kokagunetik kanpo 4 *gracias* besterik ez dut aurkitu.³³⁷ Hitz amaieran egonik ezin bazter liteke hor ere neutralizazioa egotea, baina egileak berak zein inprentako langileek gaztelaniaren eraginez sartua izan liteke, Mitxelenak (1955: 192) iradoki bezala.

4.7.4.1.5. Martínez de Ochoaren Gabon-kanta

Martínez de Ochoaren 1695eko Gabon-kanta elebidunean sistematikoki ematen da <s> jatorrizko lepoariaren lekuan herskari aurrean: 14 & 31 *lastana*, 18 *estonic*, 35 & 51 *gustiac*; aitzitik, bokal artean ondo gordetzen da bereizketa: cf. 16 *guacen*.

4.7.4.2. XVIII. mendeko lekukotasunak

XVIII. mendeko lekukotasunen artean (mendearen bigarren erdikoak dira denak), Gamizen olerkietan frikari apikariaren aldeko neutralizazioa dagoela dirudi. Adibide gehienak herskari aurrean bildu ditut: “Dabilcenchoac” 3-7 *esta*, 5-4 *estiac*, 5-6 *gustiac*, 6-3 *ezpazaiste*, 6-5 & 6-6 *zaiste*, 8-1 *urresco*, 9-4 *pistu*, 10-4 *zaistela*, 14-4 *espanac*; “Oñecochoa” 9 *estuzu*; “Euscaraz gaiztoetan”: 6-1 *gaisqui* (“Dabilcenchoac” 2-1 & 2-6 *gaizqui*-ren aurka), 7-3 *estegu*, 8-4 *aspiti*, 10-1 *Espadu*, 10-4 *zaistela*, 11-3 *espadagos*, 16-3 *gustiac*, 19-2 *gustiai*, 21-2 *estaquit* (halere, hogeita hamar bat aldiz aurkitu dut <z> herskari aurretik). Horiekin batera, hiperzuzenketatzat jo daitezkeen adibideak daude: “Dabilcenchoac” 1-3 & 2-2 *euzqueraz*, 6-8 *nazte*, 8-6 *azcatuta*, 12-2 *nazturic*, 13-1 *Ezcuac*, 17-6 *duztazu*; “Veste tunucho berribat” 13 *ycuzco*.

Hitz amaierako adibideak askoz urriagoak dira, eta “Euscaraz gaiztoetan” sortan biltzen dira: 3-4 *penas* (beharbada gaztelaniaren eraginez), 11-3 *espadagos*, 11-4 *gustos*

³³⁷ Hualdek (2010: 107) *partes* aipatzen du, baina 1596ko alearen faksimilean *partez* besterik ez dut aurkitu; ziur asko *gracias* aipatu nahi zuen, hitz amaierako neutralizazioaren adibide bakartzat jotzen baitu.

(beharbada gaztelaniaren eraginez), 13-2 *verris*, 17-1 *Esperanzas* (beharbada gaztelaniaren eraginez). Horien aurka 33 aldiz aurkitu dut <-z> kokagune horretan: “Dabilcenchoac” 1-1 *Erderaz*, 1-3 & 2-2 *euzqueraz*, 2-4 *bildurraz*, 3-3 *libertadeaz*, 7-3 *ifin bazadiz*, 14-5 *guztiz*; “Oñecochoa” 1-2 (bost aldiz) & 1-5 (bi aldiz) *ez*, 1-4 *negarrez* eta abar.

Bokal artean <ss> aurkitu dut behin (“Euscaraz gaiztoetan” 16-2 *vissia*), eta baliteke sabaikaria adieraztea, ez frikari apikaria, sorta horretan bertan 4-1 *vici* eta 4-4 *bizi* baitaude. Bokal artean, dena den, arreta ematen du *ezan* ‘esan’ aldaerak,³³⁸ hala agertzen baita sistematikoki. Behin-behinean hiperzuzenketatzat jo baliteke ere (edo, urrunago joaz, beharbada aditz laguntzailearekiko nahastetzat), aintzat hartzekoa da Euskal Herriko erdialdeko zenbait hizkeratan hala lekutu dela garai modernoagoetan: *ezango* bildu zuen Caminok (2000: 69) Donostian. Kakografiaren adibidetzat jo liteke, bestalde, “Euscaraz gaiztoetan” sortako 12-4 *zabaltazunaz*.

Hitz hasieran ere behin bakarrik aurkitu dut <s-> (“Euscaraz gaiztoetan” 22-2 *serbitzalea*) eta berori aipatzen du Atutxak (2013: 71); baina, gaztelaniaren eraginez emana izan daiteke. Bestalde, 14-3 *zudurra*, *ezan* bezala, ez da zertan hiperzuzenketatzat jo, Erdialdean aldaera hori baitago (*OEH*, s.v. *esan* eta *zudur*).

Afrikatueta birritan aurkitu dut <tz> bokal artean afrikatu apikariaren lekuan (“Dabilcenchoac” 1-4 *lotza*, 2-7 *lotzaric*). Bestalde, bere bakantasunean hiperzuzenketatitxurako forma dirudi “Euscaraz gaiztoetan” sortako 13-4 *itsulceco-k*.

Albeniz testuan badaude neutralizazioaren adibide batzuk herskari aurretik: 167 *gustitic*, 168 *estadin*; halere, testuan gehiago dira <z>-dunak: 167 *guztiai*, 168 *guztien*, 169 *eztut*, 169 (birritan), 170 *guztia*, 171 *eztavena*, 171 *ezteutzut*, 172 *guztiac*; 169 *ezpanaiz*, 172 *ezpalego*; 169 & 170 *eguiazcoa*.³³⁹ Nolanahi ere den, hiperzuzenketa batzuk ere badaude: 169 & 171 (hirutan) *ezcatcen*, 169 *deiztala*, 173 *ezcuetan*, 169 *deuztala*. Hitz amaieran bestelakoa da egoera, ez baitut apikariaren grafemarik aurkitu: 167 & 168 *zadiz*, 167 *angustiaz*, 169 & 170 & 172 *naiz*, 169 *ezpanaiz*, 171 *izanagaz*, 172 *ceñegaz*, 172 *ez*, 172 *onegaz*, 172 *dagoz*. Hitz hasieran eta bokal artean ere ez dut neutralizazioaren adibiderik aurkitu, baina *-tasun* atzizkiari loturik hiperzuzenketa-kutsua ageri dute 170 *ondazun* eta 172 *damutazun* adibideek, nahiz eta ahoskeraren isla

³³⁸ “Dabilcenchoac” sortako 16-2 *jotziza* akastzat jo zuen edizio gileak: “«Jotziza» errata bat da zalantzarik gabe, «josita»ren ordeztzat” (Goikoetxea 1998 [1982]: 514).

³³⁹ Beste testu batzuekin egin legez, kasu honetan ere ez dut neutralizaziorik proposatuko 167 *gaistoaren* bezalako adibide arazotsuetarako.

ere izan litezkeen. Bestalde, 170 *mecedeguilea* adibideak gaztelaniazko *merced*-en eragina isla lezake.

Afrikatuen sailean lepokariaren aldeko neutralizazio zantzu bakarrak **edutsi*-ren formetan daude: 169 *deutzat*, 171 *Ezteutzut* (Altuna 1995b: 95).

DotrSerm testuaz labur arituko naiz, Ulibarrik (2015: §4.2.1.4) zehatz deskribatu baititu iturriaren hizkeraren gorabeherak. Ulibarrik azaldutakoak laburbilduz, alde batetik, DotrSerm-en egileak <s> baliatu zuen txistukari guztiak adierazteko: frikari zein afrikatuak, apikari zein lepokari, zein sabaikari. Halere, <z> eta <c> ere ageri dira mailegu gordinetan eta mailegu zaharretan (horietako gehienek lotura dute Elizarekin edo erlijio-gaiekin), nahiz eta ondare zaharreko euskal hitz batzuetan ere agertu. XVIII. mendearen amaiera aldera Aiaran txistukarien neutralizazioa gauzatua zela bestelako adibide batzuek islatzen dute, ordea: funtsean, 7-78 *acusesiñoec* eta 45-159 *mortefiquesiñoec* bezalako mailegu moderno eta gordinetan <c> edo <z>-ren ordean <s> agertzea eta hiperzuzenketa-kasu pare bat aipatzen ditu Ulibarrik horren alde: “*Ecuci* eta *goze* hiperzuzenketek, bestetik, haren hizkeran txistukari frikarien arteko oposaketa galdua zela adierazten bide dute” (2015: 138). Argudioon ildotik, frikari eta afrikatuak grafikoki ez bereizteak dakartzan oztopoak oztopo, “*aberazac* (behin, vs. hamazazpi *aberas*) adibidea oposaketaren galeraren lekukotasuntzat har genezake” dio Ulibarrik (2015: 138).

4.7.5. Neutralizazioa Gipuzkoako testuetan

4.7.5.1. Gipuzkoako testu arkaiko eta zaharrak

4.7.5.1.1. Txistukarien neutralizazioa ezaugarri supradialektala izanik, egoki iritzi diot labur bada ere aro garaikidean lekutu den eremuetako testuak arakatzeari. Alde batetik, ikuspegi kronologikotik duten interesagatik, Gipuzkoako testu zaharrenak begiratu ditut; beste alde batetik, arreta berezia jarri dut Urola aldeko iturrietan eta Donostia aldekoetan, neutralizazioa eremu horietara eta are ekialderago hedatu baita gerora (*FHV* 231, Hualde 2010, Sagarzazu 2005, Atutxa & Zuloaga 2014, Zuloaga & Duhalde 2019).

4.7.5.1.2. Testu zaharrenen artean Miserere arkaikoan Deba ibarreko testu zaharrenetan baino ugariago agertzen da <s> herskari aurrean; hain zuzen ere, neutralizazioaren zantzutzat jo daitezkeen adibide gehienak kokapen horretakoak dira: 3

esquero, 23 *gustiac*, 25 *estet*, 34 *gusti*, 70 *esteçu*, 95 *gustian*. Horiekin batera 42 *es* eta 92 & 93 *bis* daude hitz amaieran, eta 79 *siteçen* hitz hasieran.

Afrikatueta neutralizazioa dagoen erabakitzeko adibideak urriegiak dira Miserere-an: afrikatu apikaria behin agertzen da (80 *vsoc*) neutralizazio-zantzurik gabe; bestalde, afrikatu lepokarian <ç> eta <z> daude bokal artean eta hitz amaieran (35 *Borra biça*, 37 & 74 *bioça*, 40 *desseaçalea*, 44 *bioz*, 68 *ofreçiçeric*, 72 *çureçat* eta abar); baina, bi berbatan <-s> ere badago: 14 *is* eta 75 (birritan) *bios*.

4.7.5.1.3. Lardizabalen 1655eko gutunean ere <s> aurki daiteke herskari aurrean: 2 *estezala*, 4 *espa*, 5 *estaguit*, 6 & 7 *gustiac*, 9 *espada*, 10 *estay*. Afrikatuen sailean lepokariaren aldeko neutralizazio-zantzua ikus liteke 7 & 8 *ezaiak* ‘etsaiak’ aldaeran baina adibide bakana da eta grafiko hutsa izan daiteke: cf. “emplea *tz* para la africada dorso-alveolar, pero parece que *z* vale tanto para moderno *ts* (*ezaiaq*) como para moderno *z* (*ezazu* etc.), empleando para éste último también ç, aunque con mucha menor frecuencia” (*ConTAV* 130).

4.7.5.1.4. Aurreko testuez landara, ez dut neutralizazio-zantzurik aurkitu Britainiako kantuan, frantziskotarren aginduan eta Etxaberen *Agur Maria*-n. Ekialderago, Isastiren *Salve*-ak *deyes* dakar behin, eta erretrauetan *gaisto* aldaera ageri da; nolana ere den, adibide bakanegiak dira ezer sendorik proposatzeko. Halaber, Elduaingo 1619ko bertso-sortan 2-14 *estic* agertzen da, baina bakana da (cf. 1-14 *eztuanean*, 2-17 *uztec* eta abar).

4.7.5.2. Deba ibarreko testu arkaikoak

4.7.5.2.1. Testu laburrak

4.7.5.2.1.1. Ematen du txistukarien neutralizazioa 1600. urteaz geroztikoa dela, oro har, Deba ibarrean; izan ere, testu arkaiko gehienetan ondo bereizten dira lepokari eta apikariak, salbuespenak salbuespen.

4.7.5.2.1.2. Beste testu garaikideen aldean, Sasiolaren olerkiak arazotsuak izan daitezke, Deba eta Mutriku aldeko XVI-XVII-XVIII. mendeetako testuetan (cf. MLastur, DebaSerGut, Arakistain zein ATxakarGut) neutralizazio-zantzuak ohiko izan ez arren, hainbatetan agertzen baita <s> frikari lepokari etimologikoaren lekuan. Mounolek (inprimategian) berak emandako adibideak dakartzat hona: B27:25 *estaguiçula*, B28:3 *çaytesque*, B29:5 *estagustanean*, B29:7 *estet*, B30:3 *lastanarequin*, B31:3 & B33:35 *gustiac*, B33:5 *lastan*, B33:18 *Guipuscoaco*, B33:20 *Gastelaco*; B27:16 & B27:17 *esin*, B28:2 *sure*, B28:4 *sacusquedan*. Horiekin batera, Mounolek hiperzuzeketatzat jotzen

ditu honako hauek: B30:25, B31:4 *naguci*, B31:6 *equci*, B33:13 *flordeliçac*, B33:15 *joci*.

Afrikatuei dagokienez, bi adibide bildu ditu Mounolek (inprimategian), sail horretan neutralizazioa frikarietan baino ahulago zegoela erakutsiz: B32:5 *dioçae* ‘diotsote’ eta B33:36 *onesçia* ‘onetsia’.

Aurreko adibideak batera ikusita eman lezake neutralizazioa oso aurreratuta zegoela Sasiolaren hizkeran; baina, aintzat hartu behar da Lazarg B26-B33 olerkietan agertzen diren adibide gehienetan ondo gordetzen dela bereizketa; are gehiago, <s>-z agertzen diren zenbait hitz <z>-z ere agertzen dira kokagune berean; cf. B27:4 & 8 *ecin*, baina 16 & 17 *esin*; B28:1 & 12, B30:19 eta B31:5 *laztan*, baina B28:11 *lastan*. Adibide guztiak kontuan hartuta, ematen du frikarietan herskari aurrean hasia zela bereizketa galtzen. Aitzitik, hortik kanpoko kokaguneetan oso bakanak dira adibideak, eta inoiz ez bakarrak; gainera, neutralizazioa oso aurreratuta egotera (bokal artera zabaldua, B27:16 & 17 *esin*-en argitan pentsa litekenez), azaldu egin beharko litzateke nolatan ez dagoen adibiderik hitz amaieran. Horrek guztiak, bada, zalantzapean jartzen du, nire ustez, herskari aurreko kokapenez gaindiko adibide gehienak neutralizazioa islatzea.

4.7.5.2.1.3. Ez dut neutralizaziorik aurkitu ArrasErrekII, DebaSerGut, MLastur, Akundia, Urrexola eta Oloso testuetan, eta Artazub testuko 3 *Bañes* abizena aldaera grafikoa bide da (cf. 5 *gucia*, 5 *çuci*, 6 *guztia*).

4.7.5.2.1.4. Rosabella testuan ere hitz amaieran ageri <-s> instrumental-markan: *ordugayches* (cf. ediziozile Altunak berak –2001: 75-76– aurkitutako paraleloa, Perutxo *çabilz orduachez*).

4.7.5.2.1.5. Sarasketa hiztegitxoan ez dago neutralizaziorik: “ohargarria da txistukari lepokari frikaria ederki bereizten zuela apikaritik (*orraztecoac*, *orraçiac*, *aça*), leku eta garai hartan espero genezakeenez, baina ez zuen afrikatuen adibiderik jaso” (Aginagalde & Urgell 2012: 26).

4.7.5.2.1.6. Sandailia-n badaude ziurtzat jo daitezkeen adibide gutxi batzuk, denak ere herskari aurrean: arazotsu izan daitekeen 3 *gaisto*-z gain (halere, kasu honetan ez du zertan arazotsua izan, B aldaeran 3 *gaizto* baitago, *apud TAV* 90),³⁴⁰ 12 *gasteluori*, 14 *Lascauarroen* eta 15 *Lascauarro* (*Lazkano* abizenari loturik) daude. Gainerako

³⁴⁰ Aitzitik, Mitxelenak “B” izendatutako aldaeran 10 *zirrarrres* eta (A 10 *zizarrez*) eta 16 *gavas* (A 16 *gavaz*) daude.

hitzetan ondo bereizten dira lepokaria eta apikaria: cf. 4 *Oñaztarra*; 11 *negarrez*, 12 & 13 *ez*; 5 *zuri*, 10 *zendalez*; 6 *Mendoza*, 17 *izarroc* eta abar.³⁴¹

4.7.5.2.2. Garibai

Garibairen erretrauei dagokienez, Atutxak (2011: 18) B47 *bustan-az* aipatu zuen herskari aurreko neutralizazioaren adibide bakartzat eta, hain zuzen ere, ohar bera egin zuten Zubiaurrek eta Arzamendik: “Ante oclusiva parece ser que «z» se pronunciaba «S», como recoge la grafía de B 47, p. 65.” (1976: 87). Horrekin batera aintzat hartzekoak dira A44 *buztanaç* eta A61 *buztana* aldaera lepokaridunak, baina A-ren kopiagilea gipuzkoarra zela ere gogoratu behar da. Bestalde, A11 *gastac* eta A58 & B9 *gustiac* (halere, A38 *guztia*) aurkitu ditut, denak ere herskari aurrean.

4.7.5.3. Deba ibarreko testu zahar eta modernoak

Deba ibarreko XVII. mendeko testuen artean testu arkaikoetan baino ugariago agertzen dira neutralizazioaren zantzuak, batez ere mendearen amaieran. Artean, badaude txistukari sail biak sistematikoki bereizten dituzten testuak, hala nola Amilletaren testua. Irure testuan behin besterik ez dut aurkitu apikariaren aldeko neutralizazio-zantzuak: 1 *espada*; baina, aurka ditu herskari aurrean 3 *azturic*, 5 *Eztet* eta 7 *ezquero*; hitz amaieran 3 *agaz*; bokal artean 3 *guciac*, 6 *içan*, 9 *içango* eta 12 *indaçu*; eta hitz hasieran 6 *çan*.

4.7.5.3.1. Arrasatekoak

Arrasateko ahapaldi laburra ikusita, pentsa daiteke txistukari frikarietan neutralizazioa burututa zegoela herskari aurrean; izan ere, 2 *gustiac* eta 5 *egusquia* agertzen dira. Horiez gain 1 *jasmin* aipa liteke, Landuccik dakarren aldaera bera eta erdialderagoko testuetan *jaz-* gorde duena (cf. Munibe *GavS* 18 *Jazmiñac*, Gamiz 12-1 *jazmiña*).

Bestalde, ArrasBand testuaren “irakurketa literalegia” egiteak okerbidera eraman gaitzake, <s> baitago kokagune gehienetan. Alabaina, testuaren beraren sistema grafiko osoa zehatz aztertuta, mendebaleko beste testu batzuetan agertzen den egoera bera islatzen dela ikusten da; zehazki, Mikoletaren eskuizkribuan, Zolloko galdetegian eta *Dotrinazko sermoitegia*-n agertzen den hautu edo tradizio grafiko bertsua islatzen du Arrasateko bandoak: <s>-k txistukari lepokari eta apikari guztiak adieraz ditzake, eta <z> gehienak mailegu modernoetara lotuta besterik ez dira agertzen (2 *zedula*, 3 *tterzioan*

³⁴¹ Ez dut 13 *estiquicha* sartu ez multzo batean, ez bestean, /ez + d/ proposa litekeen arren, bertso-lerroaren esanahia ezezaguna dela eta.

eta abar). Hona hemen frikarietako zenbait adibide: 3 & 5 & 9 & 13 *gustiac*, 22 *estaguien*, 26 *espabere*; 7 *orregas*; 3 *sirean*, 9 *sittuben*; 6 *ditesela*, 23 *edosein*, 25 *guisonic* (salbuespen da, ordea, 12 *ezpadira*). Hauek, bestalde, ozen ondokoak dira: 10 *biursen*, 13 *arseeco*, 13 *dabilsen*, 20 *dabilsenaq* (ozen ondokoetan ere <z> maileguetan besterik ez dago: 2 *provinzia*, 14 *sustanziadu* eta abar), ez bada ondokoak frikari gordetzen zirela eta frikarietan apikariaren aldeko neutralizazioa gertatua zela.

Arrasateko bandoaren egileak ez zituen frikariak eta afrikatuak bereizi, eta azken horien adibide ziurrak gutxi dira: 15 *adicen* dago behin, baina beste adibide batek <s> dakar: 15 *arcabuzeasen*.

Aurreko datuak esku artean, bada, ezinezko zait Arrasate aldeko testuotan neutralizazioa dagoen (eta, egotekotan, horren indarra zein den) ziurtasunez zehaztea; izan ere, <s>-ren erabilera zabalak ez du aukerarik ematen kontrasteak irudikatzeko eta aztertzeko.

4.7.5.3.2. Eibarkoak

Eibar aldeko iturrietan, EibKoplZah sortak herskari aurrean eta hitz amaieran ditu neutralizazioaren adibideak: 2 *gasteen*, 6 *gustioc*, 15 *estitu*, 24 *gustiti*, 25 *mirabaylesco* (herskari aurrean aurkako adibiderik ez); 18 *christobales*, 25 *daquis*, 26 *ditus* (baina 5 & 9 & 23 *leguez*). Hitz hasieran ez dut adibiderik aurkitu, baina 23 *Zua* ‘sua’ hiperzuzenketa esanguratsua da (1 *zuçedidu* ere agertzen da, baina ondoko kontsonantearrekiko asimilazioaren ondorio izan daiteke). Bokal artean, bestalde, oro har ondo gordetzen da bereizketa, baina 9 *goiseco* eta 23 *gaussa* ere badaude, neutralizazioa kokagune horretara hedatua zelako seinale. Ozen ondotik espero zitekeen 12 *volsearen*-ekin batera, 20 *lagunsát* ere badago, ozen ondotik lepokariaren lekuan <s> duela.

Afrikatuen sailean garbi bereizten dira lepokaria eta apikaria (8 *probacen*, 19 *aldasetican*, 21 *ocitu*).

Beste ezaugarri batzuk aztertzean gertatzen den bezala, txistukarien neutralizazioari dagokionez koherentzia eta jarraitutasuna ikusten dira EibKoplZah eta EibarKopl sorten artean. Zehazki, azken horretan ugariagoak dira neutralizazioaren adibideak: 4 *estaqui*, 15 *esconsaquia* eta 16 *estau* daude (salbuespen da 15 *ezconduba*), hitz amaieran 2 & 3 *jacus*, 6 *es* eta 12 *puntas* (azken hori beharbada gaztelaniaren eraginez) eta hitz hasieran 15 (birritan) *seyn*, 22 *sorziraq* eta, ziur asko, 14 *sorabedarrez* (Kaltzakorta 2010a: 24). Ozen ondoren <z> agertzen da lepokaria espero zitekeen kasuetan (13 *darabilza*, 22 *sorziraq*), 15 *esconsaquia*-n izan ezik.

Afrikatueta, bestalde, ez dago apikaria lepokari bihurtua zen ikusteko adibiderik, baina lepokaria <z>-z ematen da: 22 & 23 urtezen.

XVIII. mendearen erdialdeko Eibarko udal-ordenantzan oso aurreratua edo erabatekoa bide zen neutralizazioa bai frikarietan, bai afrikatueta. Frikarietan <s> da orokor: 1 *espada*, 1r (birritan) *esteila*, 1r *estaichala*, 1r *gustietacuac*, 1v *espadau*, 1v *esquero*,³⁴² salbuespenen batekin (1r-1 *eztaquichanic*, 2v-12 *azpichan*). Halaber, ugari dira hitz amaieran <-s> duten adibideak: 1r *eusqueras*, 1r *flogedades* (beharbada gaztelaniaren eraginez), 1r *instrumentubones*, 1r (birritan) *legues*, 1v *es* eta abar (baina 2r-9 *pensauaz* eta 2r-9 *leguez*). Adibideak urriagoak dira hitz hasieran eta bokal artean, baina, halere, egon badaude: 1r (birritan) & 2r *seina*, 1r *segaitic*, 2v *seinetan*; 1r *daucasana*, 2r *daucasala*, 2r *daucasana*, 1r *guison*, 2v *amasaspi* (bereizketa ondo gordetzen da, halere, *izan*-en forma jokatugabeetan eta 1v-4 *zergaiterren*, 2v-12 & 2v-13 *ceina* zein 1r-2 *datozanian*, 1r-2 & 1v-6 *edocein*, 1v-3 & 2v-12 *dagozan* edo 2r-10 *dagozanetatic* bezalakoetan). Bokal artean, gainera, 2v *nauci*-k hiperzuzenketaren itxura du, ahoskeraren isla ere izan daitekeen arren.

Afrikatuen sailean adibideak ez dira asko, baina bokal arteko zein hitz amaierako adibide bakanek erakusten dute neutralizazioa gauzatua zela: 1r *aberaza*, 2v *esaten deuzena*; 1v *oz eguiten* ‘hots egiten’.

Ozen ondotik 2r *dabilsanac*-ek neutralizazioa isla lezake, baina aintzat hartzekoa da sail honetan <s> dagoela lepokaria espero litekeen beste kasuren batean (2r *esconsac*) eta testuan bertan 1v-5 *dabilzanac* ere badagoela.

4.7.5.3.3. 1708ko sermoia (SermDom)

1708ko sermoian gutxi dira neutralizazioaren zantzuak, baina egon badaude. Herskari aurrean, testua irakurtzen hasita jarraian ematen du begira *gusti*- aldaera dela bakar (44 aldiz aurkitu dut, eta 8r *guzia* dago behin). Sail berekoak dira: 4v (birritan) & 9r *irabasten* (baina 9r *irabazietan* bokal artean), 4v (birritan) *susco* eta 4v *espata*, eta beharbada 9r *gaistoan*. Hitz amaieran badago *nox ~ nos* aldaeren arteko dantzarik, baina despalatalizazioaren ondotik sortua dugu berriz ere, eta hitz hasieran eta bokal artean ez dut neutralizazioaren arrastorik aurkitu, baina 4v *ezaten* esanguratsua izan daiteke, hala hiperzuzenketa gisa nola ahoskera-gai gisa.

³⁴² Sorta horietakoei loturik azaldu behar da 1r *pezquisa* aldaera. Behin-behinean hiperzuzenketatzat jo liteke, baina ez dirudi testuaren egileak neutralizazioa ostentzeko aparteko saiakerarik egin zuenik; beraz, akats hutsa izan liteke, gaztelaniaz ere ez baitu tradizioz: CORDEn begiratuta, birritan besterik ez dut aurkitu, ca. 1400 eta 1559ko obra banatan [Kontsulta-data: 2017/08/04]. Ordenantzen gaztelaniazko bertsiotan 2 *pesquisa* ageri da.

Afrikatuen sailean bokal arteko neutralizazioaren bat aurkitu dut: 1r *euzan* ‘eutsan’.

4.7.5.3.4. Barrutia

Barrutiaren antzerki-lanean oro har ondo bereizten dira lepokari eta apikariak, baina adibide batzuek ondo islatzen dute kokagune batzuetan behintzat neutralizazioa aurreratuta zegoela. Espero zitekeenarekin bat, herskari aurrean agertzen dira adibide gehienak: 1 & 11 & 12 –birritan– *gustia*, 1b *egusqui*, 3 & 5 & 10 (birritan) & 12 *gustiac*, 3 *gustiraco*, 4 *Zorigaistoan*, 5 *gustien*, 6 *gustiti*, 6 & 8 & 10 *gustian*, 6 *buscanz*, 6 *mispil*, 7 & 8 *gustiz*, 7 *espabere*, 8 *emaste*, 8 *araisteco*, 8 *asur*, 8 *gustioc*, 12 *gusti*, 12 & 13 *esquero*.

Hitz amaieran -z pluralgileari loturik ageri dira 5 *garbi erazazus*, 12 *adiezazus* eta 13 *Biurrezazuz*: azken horrek ez bide du ahoskera bete-betean islatzen, bitxia baita neutralizazioa bokal artean egotea eta ez hitz amaieran; bestalde, berba bera bestela irakurtzeko proposamena dakar Lakarrak (1983b: 155). Hitz hasierako <s-> bakanak 7b *serbitzen* eta 7 *serbitzeko* aditzari loturik daude, eta gaztelaniak eragindako erabilera izan daiteke, beste testu batzuetan proposatu bezala. Bokal artean ere bakanak dira <VsV>-ren adibideak lepokari etimologikoaren lekuan, baina egon badaude: 8 *dosu*, 8b *asur* eta 11b *Ugasabari* aurkitu ditut.

Afrikatuen sailean ondo gordetzen da bereizketa (337 *arrasaldeco*, 365 *eracusico*, 302 & 375 *xasi*, 431 *asegin* eta abar).

4.7.5.3.5. IsSagEsp

Deba ibarreko testuen artean IsSagEsp delakoak neutralizazioaren dozenaka adibide dakartza bere laburtasunean: testuaren modernotasunak baduke eraginik, baina IsSagEsp da Gipuzkoako mendebelako testuen artean neutralizazioa argiroen eta ugarien islatzen duen testua.

Frikarrietan ez dut <z>-rik aurkitu ez herskari aurrean, ez hitz amaieran: 1r *emastezat*, 1r *saspigarrenian*, 1r *gustiyac*, 2r *asquero*, 3r *egusquiya*...; 1r *poderiyoagas*, 1r *borondates*, 1r *legues*, 1r *frutias*, 2r *sugecinoas*, 3v *ures*.... Hitz hasieran ere hainbatetan aurki daiteke <s-> lepokariaren lekuan: 1r *sergaiti*, 1r *san*, 1r *situban*, 1v *ser*, 1v *seynsubec*, 1v *sertaco*...; aitzitik, *izan*-en iraganaldiko *zan* formaren aldaerak parez pare daude: bederatzi aldiz aurkitu dut *san*, eta zortzi aldiz *zan*. Horrez gain, 2v *zertara* eta 2v *zertan* ere badaude. Beste alde batetik, bokal artean ugari da <-s->: 1r *guisona*, 1r *visi*, 1v *egosen*, 1v *isan*, 2r *baysen*, 3v *naturalesaco*... Baina, kokagune

horretan ere badaude salbuespenak: 1r *izan*, 1v *escer ezeti*, 1v *gauza*, 1v *ezagutu*, 2r *ezarri* eta abar.

Aurreko adibideez gain, badaude hiperzuzenketa-itxurako zenbait kasu bai hitz hasieran, bai bokal artean: 1r *zenarra*; 2v *ezan*, 2v *ezaten*.

Afrikatueta argi islatzen dute neutralizazioa bokal arteko adibideok: 1r *lozaquetan*, 2 *aucico* ‘hautsiko’, 2v (birritan) & 3r (birritan) *euzan*. Horiekin batera 1v *basuc* dago behin. Hitz amaieran 1r *sayasz* eta 1v *zayaz* adibideek neutralizazioa bide dute, nahiz eta lehenengoaren grafia ezohikoa den; testuan bertan <sc> du *ezer* hitzak sistematikoki, eta *ezarri* behin ageri da <sz>-z.

4.7.5.3.5. Itziarko Ama Birjinaren omenezko testuetan grafikoki ondo bereizten dira, oro har, txistukari lepokari eta apikariak; are gehiago, testuetan ez erabat sistematikoki baina oro har bereizi egiten dira frikari eta afrikatuak, azken horiek <tz>, <tf> eta <tc> digrafoen bidez; aitzitik, tarteka badago hiperzuzenketa-zantzu bakanik, eta ez dut guztiz baztertzen ebakera fonetikoa islatzea, aldameneko Urolan eta Gipuzkoako kostaldean zegoen eta dagoen fenomenologiaren argitan: ItziarBerts 4 *ondazunac*; Aldazabal 2 *eztitazunac*, 3 *zavalzea*, 12 *edertazunez*, 13 *edertazun*.

4.7.5.4. Urolako testuak

4.7.5.4.1. XVII. mendearen hasieran, Azkoitiko *Sumario breve*-an neutralizazio-zantzuak aurki daitezke, batez ere herskari aurretik: 3 *askenengo* (baina 5 *azkenengo*), 12 *eskonduak*, 12 *emasteak*, 13 *gustiok*, 17 *irabasten*. Horiekin batera, bokal artean <s> dute 7 (hirutan) *erresadu*-k eta 7 *erresazeaz*-ek, eta hitz hasieran <s-> du 22 *serbizio*-k; nolana ere den, azken adibideok urriegiak dira ondorio sendorik ateratzeko. 22 *serbizio*, bestalde, gaztelaniaren eraginez azal liteke (halere, 5 *zerbiduko* eta 11 *zerbiziorakoz* ere baditu).

Adibide horiekin guztiekin batera, *Sumario breve*-a irakurtzen hasita berehala ematen du arreta jatorriz apikaria zegokeen lekuan <z> emateko joerak: behin-behinean eta ohiko azalbideei jarraituta hiperzuzenketatzat jo litezke, baina uste dut kasu honetan bestelako zuhurtziaz jokatu behar dela, Gipuzkoako zenbait hizkeratan behintzat lepokariaren aldeko neutralizazioa gertatu baita. Hona hemen zenbait adibide: 1 *zalbazioa*, 12 *espozea*, 16 *bizitadu*, 17 *bizitatzeaz*. Herskari aurrean ere badaude halakoak: 19 *siniztu*, 24 *adizkidea*. Garai eta leku beretan agertzen direla eta, izan liteke lepokariaren aldeko neutralizazioa frikarietan apikariaren alde zabaltzen ari zen neutralizazioaren aurreko erreakzio moduan sortu izana Urolako (eta Donostiako)

hiztun-erkidegoetan, hiperzuzenketak sortzen diren modu berean, eta gerora ebakera hori indartu eta orokortu izana:

One final possibility that, of course, cannot be ruled out here is the active rejection of the innovation through the use of hyperdialectalisms –dialect forms wich, apparently diverging from the incoming innovation, overextend the traditional conservative form, often to linguistic contexts where it had not been historically attested. (Britain 2012: 2041)

Afrikatueta 6 *arrazean*-ek isla lezake neutralizazioa. Kasu honetan deigarriagoa da, dena den, apikari lepokaria <s>-z (ozen ondotik) zein <ts>-z (bokal artean) adieraztea; cf. 13 *konsiliarioak*; 20 *batsuetako*, 20 *batsuetan*. Kasu honetan, beharbada hiperzuzeneketa <s>-ren eta <ts>-ren alde ditugu; izan ere, aurreko adibideok Urola aldean (baina ez bakarrik Urolan) lepokariaren alde gertatutako neutralizazioaren lehenengo adibideak izan daitezkeelakoan nago.

4.7.5.4.2. Maria Artzallus errezildarren 1622ko hirugarren gutunean ondo bereizten dira txistukari guztiak. Zalantza bakarra 3 *serbi deçaçula*-k eragin dezake (cf. *Sumario breve*-ko 5 *zerbiduko* eta 11 *zerbiziorakoz*, baina 22 *serbizio*), baina gaztelaniaren eraginari egotz dakioke <s-> hori.

4.7.5.4.3. Azpeitiko 1740ko gutunetan ondo bereizten dira, oro har, lepokari eta apikariak; beraz, hala testu-mota nola testuak islatzen dituen bestelako ñabardurak aintzat hartuta, ematen du neutralizazioa iritsi gabea zela Elosiaga auzora garai hartan. Inon egotekotan, lehenbiziko gutunean dago, 4 *gurazoac* adibidean eta lepokariaren alde: datua koherente da, gainera, aurretik eta ondotik lekututako neutralizazioarekin.

XVIII. mendearen bigarren erdian Urolako testu guztietan aurkitu ditut neutralizazioaren adibideak, idazleen eta lanen artean egon daitezkeen mailak maila eta aldeak alde.

4.7.5.4.4. Ezagun da eta tesi honetan behin baino gehiagotan berretsi da Peñafloidako kondea idazle ikasia zela eta hainbat hizkuntza-hautu kontziente egin zituela. Txistukariei dagokienez, gehienetan ondo bereizten dira lepokari eta apikariak haren testuetan, baina hainbat kasutan ez zuen neutralizazioa identifikatu edo, besterik gabe, neutralizazio-adibideek ihes egin zioten. *Gabonsariac* laneko frikarien adibide sorta bat da hau: 5 *bustan*, 6 *Ascoitico*, 11 *estute*, 11 *auspaz*, 19 *zausca*, 21 *gustietatic*; 4 *modus*, 20 *penas*, 22 *laguntzeas*; 14 *sori*; 4 *dessazula*, 5 *esazue*, 22 *essagutzer*, 25 *erassoco* ‘araziko’, 31 *esagutzen*, 32 *essagun*. Horiekin batera aintzat hartzekoak dira 7 *bezteac*, 24 *uztez*, 25 *iguez* ‘ihes’ bezalakoak: hiperzuzenketa zein lepokariaren aldeko neutralizazioa isla dezakete.

Afrikatueta ere badira lepokariaren aldeko neutralizazioaren adibideak Peñafloredaren lanetan; *GavS*, 18 *orritzu*, 32 *atzeguín*, 35 *etzai*; *BorrB* 1 *jatcitacoa* ‘jaitsitakoa’, 4 *atcedeten*, 5 *likitza*, 24 *amezetan*, 48 *lotzaric*, 49 *utceguiña*, 53 *amezetan*.

Ozen ondotik ematen du afrikatuak zeudela Peñafloredaren hizkeran, eta horietan ere agertzen da neutralizazioa; *GavS* 7 *jaquintzu*, 17 *indarzuac*.

4.7.5.4.5. *Gtour* antzerki-lanean indartsu islatzen da neutralizazioa. Frikarietan lepokaria oro har <c>-z eta <z>-z islatzen bada ere, kokagune guztietan aurki daiteke <s> (proportzioetarako, begiratu Etxeberria *et al.* 2007: 77 eta hurrengoak): 4 *saspi*, 4 *estaucasu*, 4 *disquit*, 4 *esquero*, 10 *estaigun*, 10 *estala*; 2 *ustes*, 2 *ascos*, 2 *estutes*, 4 *ascosas*, 9 *es*, 9 *saites*; 2 *sein*, 2 *subi*, 4 *savalac*, 6 *sure*, 8 *se*, 15 *suc*; 2 *baisic*, 2 *besin*, 4 *ascosas*, 4 *estaucasu*, 6 *ese*, 8 *eser*. Halaber, kasu batzuetan <z> agertzen da apikariaren lekuan: 3r *azcotan*, 3r *eizan*, 3r *luzetazun*, 3r *azco*, 4v *ozazuna*, 4v *ichazo*, 5v *naguziena*, 5v *edertazunac*, 5v *curiozuagua*, 6v *Parizin* ‘Parisen’, 5r *Lazay*, 10 r *icuzi* eta abar. Hartara, aurreko eta osteko materialen argitan espero zitekeenez, lepokariaren aldeko neutralizazioak ere aurreratua behar zuen. Hain zuzen ere, hizkera batean frikarietan bi norabidetako neutralizazioak (apikariaren eta lepokariaren aldekoak) gertatzeak eragotzi egiten du zehatz jakin ahal izatea norainokoa zen lepokariaren aldeko neutralizazioa, hiperzuzenketek ere forma bera izan ohi dutelako mendebalean.

Afrikatuak adierazteko, *Grand tour* lanaren idazleak ez zuen Larramendiren proposamena ezagutu edo aintzat hartu, eta aurreko tradizioaren bidetik aritu zen, grafema berberak baliatuta frikariak eta afrikatuak adierazteko. Neutralizazioari dagokionez, ez dirudi <z>-rik agertzen denik afrikatu apikaria adierazteko (<s> da grafia arrunta), baina Mendebaleko beste testu batzuetan deskribatutakoa gertatzen da *Grand tour*-ean ere: <s>-k afrikatu apikaria zein lepokaria adieraz ditzake. Etxeberriak eta bestek (2007: 78) bildutako adibideak dakartzat hona: *osac*, *asera*, *deisen*, *estranasen*, *igualaseco*, *juntasen*, *manteniseco*, *tratasen*, *basubec*, *basuc*. Ozen ondotik beste horrenbeste gertatzen da: *mantinseco*, *Pransiaco*. Nolanahi ere den, askoz gehiago dira <c> eta <z> duten adibideak: hamazazpi eta hogeita zortzi adibide aurkitu ditut hurrenez hurren.

4.7.5.4.6. XVIII. mendearen erdialdean idatzitako Loiolako dotrinan ez dira frikariak eta afrikatuak bereizten; baina, lepokari eta apikariak bai, bereizten dira. Zalantza eragin dezaketen kasu bakarrak instrumentaleko zenbait forma dira, baina Altuna edizio gileak ondo erakutsi zuen kasu horiek aurretik txistukari bat dagoenean azaltzen direla:

(...) emen -s erako instrumental horren ezaugarri bat nabarmendu nahi genuke: adibide gehienak aurretik txistukaria denean agertzen dira eta, horregatik, fonetikoki baldintzatuta daudela pentsa genezake. Esate baterako *jaquinas* (5), *milagros* (10, 35), *articuluas* (12), *onrras* (15)... baina horiek baino askoz ugariago *gracias* (1, 10), *guzis* (8, 11), *cerzas* (10), *naturalezas* (10), *escaces* (14), *icusias* (18), *gustias* (20), *esazus* (24), *paciencias* (25), *vizias* (25), *justicias* (26), *menosprecios* (27), *gusties* (28), *losas* (40). Alderantziz, instrumental atzizkia -z denean, gehienetan aurretik txistukaririk ez denean agertzen zaigu: *graciaz* (15), *gustiaz* (20)... baina beste adibide guztietan *jaquinaz* (5, 5, 5), *beraz* (7, 19), *partez* (9, 9, 11, 11, 35, 36, 36, 36, *doez* (10), *Infernuaz* (11), *berriz* (11, 12, 37), *gloriaz* (11), *Credoaz* (12), *virtutez* (18), *guichienaz* (24), *illaz* (25), *borondatez* (26), *bitartecoz* (28, 38), *eguiaz* (32), *obraz* (35, 38), *verriz* (37). Beraz ez gaude nafarreraren hizkera askotan den bezalako kasu baten aurrean: hemen ez bezala, nafarreraz -s instrumentala morfologizatua dago eta, ondorioz, sistematikoa da erabat. (Altuna 1995b: 617)

Hain zuzen ere, azalpen bera edo bertsua eman zien Altunak berak Gipuzkoako XVIII. mendeko beste testu batzuetako adibide bakanei:

Loiolako dotrinako egoerak baluke zerikusiren bat gipuzkerazko testu zahar zenbaitetan aurkitu ditugun -s instrumentalaren adibide urriekin, aurkitu ditugun guztiak goian deskribatu den ingurune fonetiko berean agertzen baitira. Otxoa de Arinengan *causas* (78, 154), Zegamako Dotrinan *itzas* (47v), Oikiako Dotrinan (lehenengo biak egileak zuzenduak) *gucis* (14), *guzis* (18), *engendratces* (23), etab. Azkoitiko sermoian ere bada -s instrumentalaren adibideren bat, morfologikoki -zaz atzizkera mugatua dirudiena: *zuzas* (53), *nizas* (55). Loiolako dotrinan aipatua dugu gorago *cerzas* (10). (Altuna 1995b: 617, 10. oin-oharra)

4.7.5.4.7. Azpeitiko 1786ko gobernu onerako aginduetan ere agertzen da apikarien aldeko neutralizazioaren adibideren bat. Frikarrietan hauek aurkitu ditut: 16 & 57 *vesperac*, beharbada gaztelaniaren eraginpekoa; 15 & 20 & 55 *mesa* (hau ere beharbada gaztelaniazko *misa*-ren eraginez), 41 *chusen*. Afrikatueta, berriaz, 15 & 56 *arratzaldetan* dago. Testu honetan ere argi ageri da apikaria lepokari gisa emateko joera zenbait kokagunetan: 15 *naguci*, 55 *nagucico*, 64 *ezan*; 66 *euzquerara*; 53 *zalzen*.

4.7.5.5. Donostia aldeko testuak

4.7.5.5.1. Lubieta

Eskueran dauden materialak alderatuta, Lubieta donostiarraren 1728ko lan argitaragabeak Gipuzkoako beste edozein testuk (are modernoagoak ere) baino anabasa handiagoa du txistukarien adierazpenean, eta hori oso datu esanguratsua da, beste lan batean ere aipatu legez (Atutxa & Zuloaga 2014), txistukarien neutralizazioaren hedatze-ereduez aritzeko. Donostiarraren hiztegiaren edizio kritikoa eginbidean dagoela eta, Bilbao edizioegileak (2011) argitaratutako lagineko testuak baliatu ditut hemen.

Txistukari frikarien sailean jatorrizko apikaria <s>-z ematen da gehienetan, hala ondare zaharreko euskal hitzetan (*estutu*, *escuetan*, *ecusi*, *laster*, *beste* eta abar) nola mailegu modernoetan eta izen berezietan (*Castillacoa*, *escrivaua*, *asustatu*, *señora*, *gustoso* eta abar); zehazki, adibideen % 72,38k du <s>. Gainerako % 27,62ak, berriaz, <z> edo <c> ditu jatorrizko apikariaren lekuan herskari aurrean, hitz hasieran eta bokal

artean: *nagucia*, *azco*, *ecuciaz*, *zudurra*, *edertazunez*, *bazurden*, *ondazun*, *lenguzu*, *bazerrian*, *ycaci*, *acicenai[s]* eta abar. Datuak are zehatzago begiratuta, ordea, informazio interesgarria azaltzen da: apikariaren lekuan <s> duten kasu gehienak (% 85,9) maileguak dira, eta gutxienak ondare zaharrekoak (% 14,1); aldiz, <z> edo <c> duten gehienak (% 84,3) ondare zaharreko euskal hitzak dira (salbuespen dira, beraz, adibideen % 15,7; cf. *vellícimoaq* –aldamenean *vellícimos* du–, *zereno*, *ocacio*, *afrentozoa* zein *espozarequin*). Beste alde batetik, jatorrizko frikari lepokariaren adierazpenean ez dirudi hitzen jatorriaren edo antzinatasunaren araberako banaketarik dagoenik; izan ere, adibideen % 69,26tan adierazten da berori <z>-ren edo <c>-ren bidez: *izan*, *zaitela*, *ditezela*, *norbaitezaz*, *eguzquia*, *ecuciaz*, *vicia*, *zuria*, *eizera*, *zan...*; *satisfaciocoa*, *alcabuz*, *servicioraco*, *voz*, *ciencia*, *aborrezitu*, *despreciacea...* Gainerako kasuetan (adibideen % 30,73), berriz, <s> agertzen da kokaguneen honako banaketa honekin: adibide guztien % 36,50 herskari aurrean (*zaitstela*, *dezasquiela*, *estet*, *estan*, *estagoen*, *estaquit*, *pisca*, *emastea...*), % 17,50 hitz amaieran (*nais*, *nois*, *reputacios*, *ezaguceas*, *es*, *beras...*), % 27 hitz hasieran (*suec*, *su*, *suriaq*, *segoen*, *ser*, *sergaitic*, *sebat...*) eta % 19 bokal artean (*guison*, *esin*, *desaquen*, *dixoasenean...*). Sail honetan ere, dena den, zenbait kasutan gaztelaniazko formen eragina egon daiteke euskal formetan: cf. gazt. *lesiones* ‘lecciones’ → *lesio* edo *tes* ‘tez’ → *tesari*.

Afrikatueta jatorrizko lepokaria <c>-ren eta <z>-ren bidez adierazten da adibide gehien-gehienetan (adibide guztien % 94,87): *ateracean*, *ozean*, *beaza*, *estimacen*, *bazuec*, *bazuec*, *guruce*, *zaizala*, *azo*, *iz*, *deriza*, *gozazen*, *atrevicea*, *enamoracea*, *tocacen* eta abar. Gainerako adibideetan (adibide guztien % 5,13), ordea, <s> dago: *escasen*, *perseguisen*, *procurasen*, *fñxisen*.

Jatorrizko afrikatu apikariaren lekuan bestelakoa da joera grafikoa; izan ere, aztertutako laginean behin bakarrik aurkitu dut <ts> (adibide guztien % 10): *eracutsi* dio testuak. Gainerako kasuak (% 90) ez dira ugari eta erdiak *arrats(alde)*-ri lotuak dira; baina, <z> eta <c> dituzte bokal artean: *aberaza*, *azoen*, *ezaietatic*, *arracean*, *arrazalde*, *loza* eta abar.

Ozen ondotik <c> eta <z> besterik ez daude aztertutako laginean hala mailegatutako formetan (*Provinciaco*, *carzeleroa*, *confianzacoa*, *ciencia*, *Franciara* eta abar) nola euskal ondare zaharrekoetan (*Andrearenzat*, *ninzaquela*, *orzaq*, *ninzan*, *belcetan* eta abar); beraz, Lubietarenean ere ez da frikariak eta afrikatuak bereizteko ahaleginik egiten. Adibide gehienetan lepokaria da jatorrizko kokagune horretan, hitz

batean izan ezik (cf. *descanzazera* eta *descanzua*), nahiz eta horretan ere <z> ematen den.

Lubietaren testu osoa ezagutu artean ezin izango dut ondorio zehatzagorik eta sendoagorik lortu, baina ematen du argitaratutako lagina nahikoa dela zenbait joera orokor irudikatzeko. 1728an grafia defektiboarekin lan egin behar izateak buruhaustek eragin bide zizkion Lubietari, aurreko eta ondoko beste idazle batzuei bezala; aitzitik, euskal txistukarien sistema estandarra edo jatorrizkoa erdal grafian eman behar izateaz haragoko gorabeherak islatzen ditu testuak.

Frikarietan bi joera ikusten dira: bietan nagusia da frikari lepokari zein apikariak <z>-ren zein <c>-ren bidez adierazteko joera; izan ere, <s> gehien-gehienak erdal maileguetan agertzen dira, eta horrek grafia ere mailegatu zela pentsarazten dit. Jatorriz frikari apikari izandakoak <c>/<z>-ren bidez adieraztea ez da hain harrigarria lepokarien aldeko neutralizazioaren adibidetzat joz gero; izan ere, Urolan XVII. mendeaz geroztik eta Donostiako egungo euskaran ere halakoak daude:

Berebat, txistukari igurzkarien bereizketa ez da aspaldi honetan betetzen donostiar kaletarren artean: *zoka loriya* ‘soka lodia’ (Kaia); *uzaya* ‘usaina’, *bazarriya*, *zemiak* ‘semeak’, *nauzik* ‘nausiak’ (Antigua); *zaldu* ‘saldu’, *ezango* ‘esango’, *bazerri*, *zaarra* ‘sagarra’, *Zalamanka* ‘Salamanca’ (Aiete); *zilikosis*, *zaardoteiya*, *bazarriya*, *zartu* ‘sartu’, *zegi aurea*, *azi* ‘hasi’, *Uzurbilkua* (Igeldo); *bazerriko* & *baserriyantzako* (Altza). M. Soroaren 1886ko adibideak ere adierazgarriak dira eta norabide berekoak gainera: <zamurtuko>, <azarre>, <azarratu>, <zaltzalliac> ‘saltzaileak’, <zartzen> ‘sartzen’. Ezaguna da hau guztia Donostia ondoko Pasaia Donibanen. (Camino 2000: 69-70)

Bigarren joera dela eta, adibideen kopuruari nahikoa deritzot zenbait kasutan frikari lepokaria apikariaren alde neutralizatua zela pentsatzeko: arestian emandako datuen arabera, <z> → <s> erako neutralizazioak ez zukeen alderantzizkoak bezainbesteko indarririk, baina Donostiako harresi zaharren barnean bazegoen (Atutxa & Zuloaga 2014: 30, 11. oin-oharra; Zuloaga & Duhalde 2019), adibideak hainbat testuingurutan errepikatzen baitira.

Afrikatuen kasuan aipagarri gutxi dago, adibideak ere eskasak direlako; nolana ere den, jatorriz apikari zena <z>-ren bidez ematea esanguratsua izan daiteke, gerora ere hala zabaldu delako Donostiako kaletarren artean:

Txistukari apikari afrikatua nekez entzun daiteke egun Donostian kaletarren ahoan; hurrengo herrietan, ordea, *ts* hotsa entzuten da (...) Donostian egoera konplexua da. Esaterako, *itzuzki* ‘itsuski’, *utza* ‘hutsa’ edo *itxuba* ‘itsua’ entzun ditugu guk Antiguan eta *itzazuan* edo *ausi* ‘hautsi’ Parte Zaharrean. Ibaetan uzkurxe ageri da: *utsik*, baina baita *itzaso* bizkarkariduna ere. Igeldon harroago dabil, inolaz ere: *igualtsuba*, *autsa*, *utsa*, *eantsi*... Ez dirudi kaletarren arteko nahastea oraingoa denik. M. Soroaren 1886ko antzerki batean <itsasora> aldaeraz gain <itzazuan> ageri da, eta baita hurrengo bi hauek ere: <itzuziya>, <baratzuriyak>. (Camino 2000: 69)

Aurrekoekin batera, gogoratzekoak dira afrikatu lepokari etimologikoaren lekuan agertzen diren <s>-ak: ezohiko erabilera grafikoa da, baina kasu onetan oso gutxi izatzeak (lau guztira) nahasteak edo hiperzuzenketak direla pentsarazten dit. Badago, gainera, afrikatu apikariaren aldeko neutralizaziorik Gipuzkoako kostaldean: *utsiko dut* ‘utziko dut’ jaso zuen Irunen Sagarzazuk (2005: 67).

4.7.5.5.2. Peperen eta Josefaren arteko gutuneria

Pepe donostiarraren eta Josefa altzarraren³⁴³ arteko maitasun-gutuneriak bi eredu grafiko islatzen ditu.

Josefaren gutunetan jatorrizko frikari lepokaria edozein kokagunetan askotan adierazten da <s>-ren bidez: 1 *gustiya*, 1 *estaquiyela*, 2 *estesu*, 2 *esconduco*...; 1 *esnais*, 1 *nais*, 1 *esqus*...; 1 *sure*, 1 *saude*, 1 *sergatic*, 2 *senidan*...; 1 *vadesu*, 1 *besela*, 2 *asiyendac*, 2 *ysingo*... Aitzitik, <z> duten adibideak ere ugari dira hala hitz hasieran nola bokal artean; lehenengo gutuneko adibideak dira 1 *zuc*, 1 *zu*, 1 *zeronec*, 1 *zaude*, 1 *zaudena*...; 1 *Jauza*, 1 *vaninduzuque*, 1 *daquizu*, 1 *naizun*, 1 *yzutu*... Horiekin batera badaude hala hiperzuzenketatzat nola lepokariaren aldeko neutralizaziotzat jo daitezkeen kasuak: 1 *zeriyo*, 1 *ezan* eta 1 *ecuci* bezalakoez ari naiz. Afrikatuen sailean, bestalde, arreta ematen du lepokaria adierazteko <ch> digrafoa erabili izanak: 1 *ecarcheco*, 1 *esconcheco*, 1 *aterachea*, 2 *obligachen*, 2 *bigalchera*, 2 *encargachen*, 2 *emezorchi* (bide batez, azken horrek ozen ondoko afrikatua islatzen du).

Peperen gutunetan hobeto gordetzen da bereizketa frikarietan (adibideak ugariagoak dira, baina aintzat hartzekoa da Peperen gutunak bost direla, eta Josefarenak bi). Halere, kokagune guztietan agertzen da <s> lepokariaren lekuan: 3 *estira*, 3 *esta*, 4 *egusquia*, 5 *estuela*...; 3 *banis*, 3 *es*, 5 *miñes*, 5 *atos*; 5 *segoan*, 5 *siñuquet*, 6 *soragarria*, 6 *sure*; 5 *besalacoa*, 5 *esangosu*, 5 *albadesu*, 7 *nisula*... Horiekin batera, Josefaren gutunetan baino ugariago ageri dira <c> eta <z> apikariaren lekuan: 3 *guzto*; 3 *cenarrai*, 6 *cartuta* ‘sartuta’; 3 *bizitatuco*, 4 *icuzi*, 6 *arroza*, 7 *osazuna*.

Afrikatuetan gehiago aldentzen da Peperen testua Josefarengandik, zenbaitetan agertzen baita jatorriz apikari zena <z>-ren zein <c>-ren bidez adierazita bai hitz amaieran, bai bokal artean: 3 *aberaz*, 3 *aberazac*, 5 *amezetan*, 5 *arracean*. Pepek,

³⁴³ Badirudi Satrustegi nahastu egin zela testua bigarrenez argitaratzean Maria Josefa Agirreren jatorria adieraztean; izan ere, lehenengo argitalpenean “de Alza” adierazi zuen (Satrustegi 1983: 5), baina bigarreanean “Maria Josefa Agirre, Altzokoa” dio (ETZ 111). Nahaste horren eta orain arte berrargitalpena erabili izanaren ondorioz, ni neuk ere Altzokotzat jo izan dut gutun-idazlea azken urteotan (begiratu Atutxa & Zuloaga 2014, adibidez), ez horri lotuta testuak azaltzen zuen arazoa aipatu gabe, ordea; izan ere, Altzon oraindik mantentzen da frikariaren arteko bereizketa, eta datu hori bateragaitza da Josefa Agirreren gutunetan islatzen den hizkera-ereduarekin.

gainera, grafema berberak erabili zituen frikariak eta afrikatuak adierazteko, baina ematen du ozen ondoren ere lepokariaren aldeko neutralizazioa zegoela: 3 *conzolarria* (halere, cf. 7 *consolarri*), 3 *penza*, 6 *penzamentu*.

4.7.5.6. Are erdialderago: berba bi Hondarribiaz eta Lapurdiko kostaldeaz

Tesi honetan aztergai dudan denbora-tartean gutxi dira Hondarribia eta Irun alderdiko testuak, baina Roque Jazinto Salazarrek 1778an idatzitako testuak ondo lekutzen du neutralizazioa zenbait inguruetan: Letamendiak eta Sagarzazuk (1992: 512-513) herskari aurretik, hitz amaieran (*ez* partikula, instrumentalaren -z marka), hitz hasieran eta bokal artean deskribatu zituzten apikariaren aldeko neutralizazio-adibideak frikarietan, bai eta hitz hasieran <z-> zein <s-> duten zenbait aldaera aurkitu ere. Bestalde, hiperzuzenketatzat jo zituzten *ezan*, *ekuzi-* & *ikuzi-*, *maizu-*, *ózazunaren* eta *zuba* (*idem*, 513); aitzitik, fenomenoak ez dirudi hiperzuzenketa grafiko hutsa, eta ondo lekutua da Gipuzkoako hainbat hizkeratan XVII-XVIII. mendeaz geroztik lepokariaren aldeko neutralizazio gisa.

Afrikatuetan ere apikaria lepokari ebakitzen zela islatzen dute zenbait adibidek: *erecuzi*, *lozas* eta *Jaquinzun* aipatzen dituzte Sagarzazuk eta Letamendiak (*idem*, 512), nahiz eta adibide urriak izan. Ondoko testu eta ikerlanek ikuspegi hori berretsi besterik ez dute egin: Hondarribian neutralizazioa da nagusi, Jaitzubian eta Irunen frikariak bereizten dira oro har, eta afrikatuetan neutralizazioa da nagusi hala Hondarribian nola Jaitzubian eta Irunen (Sagarzazu 2005: 67); begiratu, halaber, Zuloaga & Duhalde (2019) Hondarribia eta Irun aldeko, eta Lapurdiko kostaldeko hizkerek ezaugarri fonologiko batzuetan XVIII-XX. mendeetan izandako loturez.

Lapurdi dela eta, Atutxa & Zuloaga (2014) lanean ikuspegi orokorra eman nahi izan genuen txistukarien neutralizazioaren difusio-eredu orokorrez, arreta nagusiki Hego Euskal Herriko (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako, batez ere) guneeetan jarritz; aitzitik, ordukoan ez genuen baztertu txistukarien neutralizazioa Lapurdiko kostaldeko portu-herri nagusietara ere hedatu izana, alderdi hori aztertzeke utzi genuen arren:

Para finalizar, cabe mencionar que resultaría más que interesante estudiar si el fenómeno cruzó o ha cruzado en alguna ocasión el Bidasoa: teniendo en cuenta la fuerza con la que ese manifiesta en lugares como Donostia, Fuenterrabía o Irún, no debería extrañarnos demasiado que la confusión de las series de sibilantes se hubiera producido, en algún momento, en núcleos socioculturales labortanos importantes como San Juan de Luz/Ziburu. (Atutxa & Zuloaga 2014: 30)

Oraingoan ere ez dut askorik sakonduko Lapurdiko kostaldeko aurreko mendeetako zein egungo datuetan; izan ere, Hego Euskal Herriko testuetako sistema

grafikoa argitzeko gaztelaniaren tradizio grafikoak eta garaian garaiko sistema fonologikoak ezagutzea beharrezko den bezala da beharrezko frantsesaren tradizio eta erabilera grafikoak ezagutzea Ipar Euskal Herriko zenbait auzi argitzeko.

Mujikak (2002: 200) zioenez, Lapurdiko idazle klasikoaren artean badirudi kostaldekoetan arruntagoak edo ugariagoak direla herskari aurreko neutralizaziozantzuak; aitzitik, banan-banan eta tentuz ikertu beharko lirateke testu guztiak. Le Dauphin itsasontziko gutuneria editatzean, adibidez, txistukarien adierazpenaren interpretazioari loturik aurkitu zituzten ikertzaileek zailtasunik handienak:

Ezin ahantz, ordea, *Le Dauphin* gutuneria Hegoaldeko testuen analisitik bereizten duen faktore bat: frantsesaren ortografia. Batetik, frantsesak ahoskabe/ahostun oposizioa du, eta artikulazio guneari doakionean bi serie baizik. Beharbada hainbat gutunetan aurkitzen dugun <ss> digrafoa frantses grafiaren zordun da (txistukari ahoskabeetan du baliatzen): *ossassuna, ossaba, asserre* bezala *dossuna, essaguturic, darocussun* tankerakoetan ere. Bestetik, baliteke frantsesaren zenbait sekuentzia grafikok eragina ukan lezan Iparraldeko euskaldunengan. Adibidez, frantsesez *st* anitez aiseago agertzen da *zt* baino, eta horrek dudatan jar dezake *emaste, gastiga* bezalako en neutraltze kasuentzat hartzea. (Padilla-Moyano & Videgain 2015: 91)

Alderdi horiek aintzat hartuta, beraz, eta 1750 inguruko sistema eta tradizio grafikoak ezagutzen eta Le Dauphineko bertako gutun bakoitzaren sistema grafikoa sistematikoki deskribatzen diren arte behintzat, okerbiderako erraztasun besterik ez da izango testuetan agertzen diren grafemak Hego Euskal Herriko zein gaur egungo ikuspegietatik interpretatzea: Le Dauphineko 20. gutunak, Joannes d'Etcheverryk Donibane Lohizunetik igorritakoak, *estinat, estunala, dausquinat* eta *estun* ditu besteak beste, baina beste kokagune batzuetan ere oso arrunt da <s> (*Siburuco, bersea, Miselequin, basaquinat, beras, hamabors, sixaitanen, jsanen* eta abar) eta tentuz ikertu beharko da erabilera bakoitza ondorio larriagorik atera aurretik.

Lapurdiko kostaldeari eta Donibane Lohizuneri dagokienez, nolana ere den, lekukotasun berankorrago batzuk ziurragoak dira. XIX. mendearen bigarren erdian hala zioen Bonapartek: “Devant *t, z* se permute en *s* à S. J. de Luz, à Fontarabie et en nav. mér.: *dituste, dituste, tuste* ‘ils les ont’ (pour *dituzte*)” (1991 [1869]: 255). Halaber, Maitena Duhalde helarazitako Bonaparteren [BDV m/s Bv75] eskuizkribuan herskari aurreko neutralizazioen adibideak biltzen dira (*abustu* eta *abuztu, astal, astaparr, bestitu, emaste, emasteki, esti, ustaila; zaiste, zaituste, zaitustet, zatozte* eta *zatoste, baitzaiste & baitzaizte, etzaiste & etzaizte; estela, esten, estubela, estuben*, baina *ezta, eztu*). Aitzitik, XX-XXI. mendeen hasieran neutralizazioaren zenbait hondar besterik ez ditu bildu Duhalde berak:

Gure donibandarre adizkietan eta *ez* + adizki laguntzailea ingurunean lepokaria entzun diegu eta hala entzun zuen Koldo Artolak ere (in Yrizar 1997): *eztu, ezten, gaituzte, tuzte, zaizte*. Lexikoan

berriz, bakan entzun dugu apikaria eta horien artean gainera, maileguak ere baditugu: *emaztia*, *basterrian* (Azkaine), *bazter*, *gaziak* (Biriatu), *bazterrian*, *beztituak*, *emazte* (Donibane Lohizune), *bestituko*, *gaztena* ‘gazteena’ (Hendaia), *emazte*, *gazte* (Urruña), *austo* ‘abuztu’, *bazterrian*, *esti* ‘ezti’, *estula* ‘eztula’ (Ziburu). (Duhalde 2019: 160-161)

4.7.6. Laburpena txistukarien neutralizazioaz

Txistukarien neutralizazioaren historia behar bezala ikertzeko hainbat aldagai hartu behar dira kontuan, eta gehienak oztopo besterik ez dira ikertzailearentzat. Aurreko orrialdeetan ikusi ahal izan denez, eta gaiaren inguruko ikerketak dituen zailtasunetako batzuk aipatzearen, corpusaren txikitasunaren arazoak bete-betean jotzen du neutralizazioaren ikerketa: testuak zenbat eta laburrago, hainbat eta urriagoak dira adibideak, eta batez ere 1600 aurreko testuez aritzean ikusi den bezala, batzuetan testu bakar baten barruan ere ez dago sistema grafofonologikoaz argia lortzeko erkagairik. Corpusaren txikiak, gainera, emaitza bitxiak eman ditzake batzuetan: gerta daiteke testu jakin batean neutralizazioaren adibide gehiago egotea hitz hasieran edo bokal artean hitz amaieran edo bokal artean baino, eta egoera ez izatea neutralizazioaren indarraren edo bilakaeraren araberakoa, ezpada iturri jakin horrek dakarren adibidekopuruaren ondorio.

Euskaraz eta batez ere Hego Euskal Herrian (oso) berandura arte hizkuntzaren estandarizazio-prozesu orokor eta arrakastatsu baten faltan, idazleek erdal grafien sistemekin egin behar izan dute lan, eta hainbatetan esana da sistema horiek defektiboak direla euskal txistukariak adierazteko. Horrek zeregin larriak eransten dizkio euskal filologoari; izan ere, aztergai duen testuaren sistema grafikoaren eta horren azpian egon daitekeen sistema fonologikoaren nondik norakoak ulertuko baditu, euskarari dagozkionak ez ezik, erdal sistema grafikoa eta fonologikoa ere aztertu beharko ditu. Hala egin ezean, interpretazioak automatikoak, azalekoak eta okerrak izan daitezke: Andramendiko idazkiak, Mikoletaren eskuizkribua, Arrasateko 1705eko udal-bandoa zein Sevillako 1619ko bertsoak akritikoki irakurriz gero, neutralizazioa oso aurreraturik ikusiko eta deskribatuko da, oraintsu arte egin izan den bezala. Oro har txistukariak bereizten dituen baina neutralizazio-zantzuak dakartzan testu batean afrikatu lepokaria <s>-ren bidez adierazten bada inoiz, hiperzuzenketatzat jo daitezke adibide horiek; aitzitik, txistukari guztiak edo ia guztiak (afrikatu lepokaria barne) <s>-ren bidez adierazten badira, irakurketa ezin da itsu-itsuan egin, ez baitirudi azalpen fonologiko hutsa izan daitekeenik.

Begi-bistako eta zentzuzko ideiak dira aurrekoak, baina ez dirudi gurean horrekin guztiz kontsekuente izan garenik beti: Mikoleta dela eta, orain gutxi aldarazi

behar izan digu ikuspegia Ulibarrik (2015: 137), gaztelaniaren tradizio grafikoari eta aldaketa fonologikoei begiratuaz; halaber, aurkikuntzak eragindako bozkarioa bozkario, frantsesaren sistema grafikoaren historia zehatz ezagutu artean ez dugu ezer ziurrik jakiterik izango Le Dauphin itsasontziko gutunetako txistukariez (Padilla-Moyano & Videgain 2015: 91).

Txistukarien neutralizazioa ikertzeko, edozein arazo grafiko ikertzeko legez, iturri bakoitzaren azterketa grafematiko xehea egin behar da orokortasunetara jo baino lehen. Aztergai den eremuko iturri guztiak aztertu behar dira banan-banan, idazle bakoitzaren ohitura grafikoak sistematikoki aztertuta bakarrik lortzen baitira emaitza zehatzak. Testuen edizioak aurkeztean ohiko da neutralizazioa dagoenez aipatzea; baina, askotan ez dira aurkako adibideak aipatzen, eta horrek irudi okerra ematen du: Euskara Arkaikoan badaude neutralizazioak Bizkaiko testuetan, baina argi esatekoa da oro har askoz arruntagoa dela bereizketa gordetzea. Halaber, egile batzuen tradizio, ohitura edo hautu grafikoen artean dago <s>-k (ia) edozein txistukari adierazi ahal izatea: erabilera horrek ostendu egiten du bereizketa galduta dagoen ikusteko aukera, eta testu horiek bereiz aztertu behar dira; lan filologiko zehatzenak bakarrik aurki ditzake arrakala eta zirrikituak idazlearen sistema grafikoan eta, kasurik onenean, horietan sakonduz grafiaren azpian datzan sistema fonologikoaren berri izan ahalko du (Oyosa 2013: 294).

Txistukarien neutralizazioaren historiari heldu aurretik, bereiz aztertu beharreko zenbait testu edo testu-multzo aipatuko ditut.

4.7.6.1. Oraintsu arte, Euskal Herriko mendebaleko testu arkaikoak ikertzean lepokari etimologikoa <s>-ren bidez adierazita agertzen zenean neutralizazio-zantzia ikusi izan da. Nik neuk ere horrela egin dut atal honetan, Hualderen (2010) irizpideari jarraituta: oro har lepokariak eta apikariak bereizi arren kokagune batean (batez ere kokagune ahula bada; hots, neutralizazioa errazago gertatzen bada leku horretan) bereizketa mantentzen ez duten adibideak daudenean, kokagune horretan neutralizazio-zantzuak daudela proposatu dut; hala esan dut, adibidez, *RS* bildumaz edo Zumarragaren gutunaz aritzean. Aitzitik, testu batzuen kasuan arreta handiagoa behar da, eta nik neuk aztertutako corpusean IbarGC kronikak eta Landucciren hiztegiak alderdi grafikoa bereziki aintzat hartzea eskatzen dute.

IbarGC kronikan esanguratsuak dira Andramendiko idatziak eta kronikan bildutako bi hiztegitxoak. Andramendikoak direla eta, esana dut <s> zabal erabiltzen dela eta neutralizazioa kokagune guztietan burututa zegoela pentsaraz dezakeela;

aitzitik, garai linguistiko bereko gainerako testuekin alderatuta, susmagarria da egoera, ematen baitu neutralizazioa “aurreratuegi” dagoela. Nire ustez, 2-3 *saspi* eta 1-8 *caltasat* bezalako adibideek besterik islatzen dute: <s> (ia) edozein txistukari adieraztea idazlearen hautu grafikoa besterik da, eta ez dago arrazoi tinkorik testuan bereizketa neutralizaturik zegoela pentsatzeko. Uste dut horren alde egiten duela, halaber, aipatutako bi hiztegitxoetan ikus daitekeen egoerak; izan ere, lehenengo hiztegitxoan <s>-z ematen diren zenbait berbatan <ç> ezarri zen gerora; are gehiago, lepokari apikaria ere <ç>-ren bidez adierazten da batzuetan. Txistukariak adierazteko grafia bat edo bestea erabiltzeak gehiago dirudi testua ekoitzi edo zuzendu zuen eskuaren jabearen hautu grafikoa, idazlearen hizkeraren ezaugarri fonologikoa baino.

XVI. mendeko zenbait euskal idazlerentzat <s> eta <z>/<c>/<ç> grafikoki behintzat baliokide edo trukagarri izan zitezkeela onartuta, IbarGC kronikako adibideak ez ezik, Mendebaletik asagoko zenbait kasu ustez *bitxi* azal daitezke: Nafarroa Garaiko testu arkaiko eta zahar batzuetan agertzen diren <s>-ak ditut bereziki gogoan. Azken batean, Mendebaleko lekukotasunek zalantza gehiago eragin dituzte, denboran aurrerago neutralizazioa indartsuago bihurtu delako; aitzitik, begira ematen dute, adibidez, Amenduxen eresiko zenbait <s>-k:³⁴⁴ instrumentalekoak (6 *gutis*, 10 *aldias*, 12 *garitates*) bazter utzita, 4 *lusean*, 8 *gusia*, 11 *isanen*, 11 *estu*, 11 *estudan*, 14 *judision* eta 15 *gusiequi* agertzen dira, bai eta 8 *arreci* ere. Afrikatueta, gainera, 8 *ysuririk* ‘itzuririk’ bide dago (cf. TAV 104). Horietatik 11 *estu* eta 11 *estudan* herskari aurrekoak baztertu eta bokal arteko <s>-ak apikari irakurriz gero, idazlearen hizkeran neutralizazioa oso aurreraturik egon beharko luke, non eta Nafarroa Garaian 1564an. Irtenbide grafikoa proposatzea askoz ere ziurragoa eta sinesgarriagoa iruditzen zait.³⁴⁵

Landuccirenean antzeko egoera aurki daiteke tarteka, nahiz eta aintzat hartzekoa den ez zuela berriemaile bakar bat izan eta horrek testuan hizkera-eredu ezberdinak egotea eragin zuela. Hiztegia arakatzearan arreta eman du apikariaren lekuan <z> eta <ç> agertzeak. Hasiera batean herskari aurreko neutralizazioak eragindako hiperzuzenketatzat jo daitezke halakoak, baina Landuccirenean adibideen ugaria da deigarri, apikariaren aldeko neutralizaziotzat jo daitezkeenak baino gehiago baitira;

³⁴⁴ “Particularidades gráficas curiosas son (...) y la frecuente confusión de *s* y *ç* (*c*, *z*), en favor generalmente de la primera letra (pero *arreci*, v. 8, parece estar por *arresi* «muro, muralla» zioen Mitxelenak (TAV 104).

³⁴⁵ Beharbada kasu ezagunena da Amenduxena, baina Nafarroako hainbat testu laburretan agertzen den arazoa da txistukariaren interpretazioa: Bortzirietako zenbait esaldiz ari zela, hala azaldu zuen Reguerok: “txistukariaren nahasketa gertatzen da, baina ezin jakin benetan ahoskerari dagokion ala kontu grafikoa den: *suc*, *es* (1549), *ser* (1609), baina *galceagatic* (1549), *guezurra*, *çayo*, *mordaça*, *oçar* (1609)” (2017: 106). Begiratu, halaber, Santaziliak (2017, 2019) berriki argitaratutako pasarte laburrak.

gainera, badaude batzuetan <s> eta beste batzuetan <z> edo <ç> duten adibideak. Are gehiago, Mitxelenak (1958) hainbatetan adierazi zuen kasu horietako askotan zuzendu egin zela lehenengoz idatzitako txistukaria, eta aintzat hartu behar da hitz gutxi batzuetan <z> besterik ez dagoela apikaria adierazteko.

Aurreko guztiaren argitan, IbarGC kronikan bezala, pentsa daiteke Landuccirenean ere ez dagoela neutralizaziorik, kontu grafiko hutsa direla gorabehera horiek; aitzitik, azken kasu honetan ez dut neutralizazioaren aukera baztertzen, adibide gehienek ezaugarri bat partekatzen baitute: Andramendiko idatzietan edo oro har IbarGC kronikan ez bezala, Landucciren hiztegiko kasu gehienak herskari aurrean metatzen dira, eta kokagunearen errepikatze horrek grafiatik haragoko fenomenoak egon daitekeela pentsarazten dit.

4.7.6.2. Ulibarrik (2015: 137) esandakoak berreskuratuta, Euskal Herriko mendebaleko zenbait testutan <s> erabiltzen da txistukari guztiak edo ia guztiak adierazteko. Ulibarrik Mikoleta eta *Dotrinazko sermoitegi*-a zituen gogoan, eta <c>, <ç> eta <ç> grafemak hortzartekoa adierazteko erreserbatu izanarekin lotu zuen hautu grafiko hori. Nik neuk zertxobait aldatu dut proposamena Mikoletari dagokionez, hortzartekoari buruzko azalpena apur bat aldatuz eta gaztelaniazko siseo/zizeo-arekin lotuz (gogoratu Lapesak [^s_θ] gisara irudikatutako ahoskera) eta Mikoletarenean <s>-k euskaraz lepokaria (ere) adieraz dezakeela proposatuz. Ebakeraren inguruko uste horrek argia ematen du Mikoletaren hautu grafikoez, baina agerikoa da euskal lepokaria <s>-ren bidez adierazten bada ezinezko izaten jarraitzen duela bereizketa norainokoa zen zehazteak. Mikoletaren eskuizkribuan hala frikarietan nola afrikatueta neutralizaziorik bazela proposatzeko aurkitutako zirrikituak zirrikitu, ondoko mendean berriz azaltzen da arazoa.

Hispanistek aipatu izan duten kronologia berankorrarekin bat, XVIII. mendera ezkerre ez dut Ulibarrik hortzartekoari buruz aipatutakoa baino azalbide hoberik ikusten *Dotrinazko sermoitegi*-ko kasuistika azaltzeko; are gehiago, Mikoletarenean eta *DotrSerm*-en ez ezik, beste testu batzuetan ere (ia) edozein txistukari adierazten du <s> grafemak: Bilbori lotuak dira Basabilbasoren 1683ko gutuna, Rita Barnetxearen 1763ko euskal kanta eta Zolloko 1770eko galdetegia; ez Bilbokoak baina Bizkaikoak dira Andramendiko idazkunak eta IbarGC kronikako hainbat material; eta Bizkaitik kanpokoak Sevillako 1619ko bertsoak, Arrasateko 1705eko udal-bandokoak, Alzibarren 1772ko *Grand tour* antzerki-lanekoak eta *Dotrinazko sermoitegi*-koak. <s>-

ren bidez (ia) edozein txistukari adierazteko aukera, beraz, ez zaie leku eta garai bakar bati lotzen.

Aurreko fenomenoari loturik arreta eman ohi du afrikatu lepokaria <s>-z adierazteak. Hainbat testutan aurkitu dut, baina nire ustez testu horiek bi multzotan banatu behar dira:

(i) Adibide gutxi batzuk dituzten testuak, non hiperzuzenketek edo besterik gabeko hutsegiteek azal ditzaketen: Urkizu, Gamiz, Miser, EibarKoplZah, SumBrev, Lubieta, Barnetxea, De la Quadra, Sarria.

(ii) Apikari lepokaria <s>-ren bidez adierazten duten testuak: Andram, IbarGC, Sevilla1619, Mikol, Basabilbaso, ZolloGald, ArrasBand, *Gtour*, DotrSerm.

4.7.6.3. Txistukarien neutralizazioaren kronologia zehaztea aurretik aipatutako arazo grafematikoen menpe dago: ziurtzat jo daitezkeen adibideak aintzat hartuta, nolana ere den, fenomeno berankorra dirudi oro har.

Lan honetan erabilitako corpusaren arabera, Euskara Arkaikoan neutralizazioaren lehenengo zantzuak besterik ez daude: hots, adibideak egon badaude, baina neutralizazioa errazen gertatzen den kokaguneetan gertatzen dira gehienetan eta bereizketa gordetzen duten adibideak baino askoz gutxiago dira, Euskara Arkaikoan lepokariak eta apikariak bereiztea baita joera orokorra Euskal Herri osoan.

Bizkaiko testu arkaiko laburretan (Zumarragaren gutunean zein *RS* bilduman), beraz, fenomenoaren hasikinak besterik ezin dira aurkitu, arestian aipatutako adibide bakan eta isolaturen bat gorabehera: joera orokorra bereizketa gordetzea da. Hain zuzen ere, egoera hori ez dagokio Bizkaiari bakarrik: Arabako testuetan bereizketaren galeratzat jo daitezkeen kasuak herskari aurrean eta hitz amaieran metatzen dira, hurrenez hurren; aurreko azpi-atalean esan legez, hala gertatzen da Landuccirenean, bai eta Betolatzaren dotrinan, Lazarg eskuizkribuko Lazarragaren beraren testuetako adibide bakanetan eta Mendietaren lanetan ere. Gipuzkoako testuetan ere hori da egoera, oro har: Deba ibarreko adibide apurrak herskari aurrean metatzen dira, Lazarg eskuizkribuko Sasiolaren olerkietan izan ezik.

Hizkerari dagokionez testu berezia da Sasiolarena (begiratu Aldai 2013 eta, batez ere, Mounole inprimategian), eta ezaugarri gutxi batzuk hautatzea nahikoa da Lazarragarena ez bezalako euskara-moldea ikusteko. Txistukarien neutralizazioari dagokionez, arreta ematen du neutralizazioa hain aurreraturik egotea bai frikarietan, bai

afrikatuetan. Zehazki, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako garai bereko testuetan baino aurreratua agertzen da neutralizazioa; begiratu (§5.2.4.1.1.4) atala.

Euskara Arkaikoaz eta txistukarien neutralizazioaz aritzean bestelako ikuspegia, orokorragoa, erabili behar delakoan nago: gerora Mendebaleko euskararen ezaugarri fonologiko nabarmen bihurtu da txistukarien neutralizazioa, baina Euskara Arkaikoan arunt agertzen dira neutralizazioak errazen kokaleku ahulenetan, Bizkaian ez ezik, baita Araba eta Gipuzkoakoetan ere, eta Nafarroakoetan (Reguero 2017: §3.1.2.3). Besterik da, jakina, XVI. mendean geroztik neutralizazio horrek izandako bilakaera: badirudi Nafarroako hizkera batzuetan instrumentalera besterik ez dela zabaldu eta Mendebalean kokagune guztiak harrapatu zituela bizpahiru menderen buruan.

4.7.6.4. Euskara Zaharrea gehiago dira testuak Mendebalean, eta neutralizazioaren zantzu zirenak indarturik eta hedaturik agertzen dira 1600az geroztik. Zehazki, Bizkaiko XVII. mendean hasierako eta erdialdeko testuen artean Sorg1616 testu laburrean aurreratuta dago neutralizazioa, eta Bilbo aldeko *Enojaduric* kantak ere baditu adibideak herskari aurrean; halaber, Bizkai sartaldeko hizkera batzuetan behintzat indarra zuela dirudi: Mikol eta VJesus testuetakoak ditut gogoan, nahiz eta Orozkoko 1739ko otoitzak gordetzaileago izan (Lakarra 1996: 132-133). Bizkai sartaldean, aldiz, testuak gordetzaileago agertzen dira: herskari aurrean eta hitz amaieran agertzen dira adibide gehienak XVII. mendean amaierara bitartean, eta XVIII. mendean erdira bitarteko hamarkadetan ere adibideak ez dira ugari, besteak beste egile batzuek kontserbatzaile jokatzera erabaki baitzuten: Arzadun eta Urkizu erkatzea besterik ez dago berriz ere ikusteko lehenengoak bigarrenak baino gordetzaileago jokatu zuela; halaber, Urkizuren 1737ko liburuan neutralizazioaren adibideak daude, baina Urkizuren beraren 1740ko koplak landuetan bereizketa zurrun gordetzen da (begiratu §5.3.3.2.1 atala idazlearen hautuen eraginaz).

Bizkaitik kanpo, Urduña hiriko hiztegitxoan eta Portalen 1610eko olerkian badago adibiderik, baina Gipuzkoako mendebaleko testu gehienak gordetzaile dira oro har: Sasiolaren adibide ustez arkaikoez landara, Amilletak eta 1708ko sermoiak ondo mantentzen dute bereizketa, nahiz eta Eibarko 1685eko kopletan neutralizazio-zantzuak eta 1721ekoetan neutralizazio-kasuak egon, Barrutiaren testuan legez. Neutralizazioa, dena den, oso aurreratuta edo burututa zegoen Deba ibarreko gune batzuetan XVIII. mendean erdialdean: cf. Eibarko 1754ko udal-ordenantzak.

Are erdialderago, aipagarri dira *Sumario breve*-ko neutralizazio-kasuak, Urolako zaharrenak baitira; horiez geroztik, halere, neutralizazioa ez da sistematikoki islatzen,

beharbada ez zelako auzo guztietara iritsi: ez dut adibiderik aurkitu Azpeitiko 1740ko gutunean, adibidez. Gipuzkoako euskara zaharraz aritzean, nolana ere den, Lubietaren hiztegiak arreta berezia behar du: Bizkaitik eta Arabatik urrun dago Donostia bai geografikoki, bai linguistikoki; baina, neutralizazioa bete-betean hedatua zen 1720ko hamarkadaren amaieran (begiratu §5.2.4.1.2 atala difusio-ereduez), eta Peperen eta Josefaren 1761eko gutunek ere hala bermatzen dute.

1750az geroztik oro har bi multzotan banatu behar dira testuak, beste ezaugarri batzuk aztertzean gertatu den bezala. Alde batetik, bereizketaren kontzientzia eta ezagutza izanik (gogoratzekoak dira Larramendik *HH*-aren sarreran Bilboko ahoskerari eginiko kritikak), grafikoki ere eustea erabaki zuten idazleak daude, hala erabaki eta hautua nahiko zurrun gauzatzea lortu zutenak: Bizkaian Kardaberatz, Olaetxea, Iturriza, Apoitia aipa daitezke, bai eta Gandararen zenbait testu ere. Beste alde batetik, neutralizazioa islatu zuten idazleak eta, bereizketa egiteko ahaleginak ahalegin, neutralizazioa ostentzea lortu ez zutenak daude, hala nola De la Quadra, *Errosariyo santuba* lanaren egilea, Sarria eta Gernikako zein Abadiñoko Gabon-kanten egileak. Aurreko bi taldeei hirugarren talde txiki bat gehi dakieke, lehen esandakoaren ildotik: hautu grafikoen bidez bereizketa egiten zen ala ez erakusten ez dutenena: ZolloGald eta, behin-behinean, Barnetxea aipa daitezke.

Arabian, bestalde, neutralizazio-zantzuak aurki daitezke ekialdean (Albeniz eta Gamiz), baina ez dirudi galera mendebalerago bezain indartsu zegoenik; izan ere, adibide gehienak herskari aurrean eta hitz amaieran metatzen dira. Neutralizazioaren adibideekin batera, bestalde, aipatzekoak dira hiperzuzenketa-itxurako adibideak, non apikariaren lekuan <z> ematen baita: adibideak gutxi dira eta hiperzuzenketatzat jo daitezke, nahiz eta ez den ahaztekoa Gipuzkoako zenbait eremutan ordurako aurreratua zela apikari → lepokari norabideko neutralizazioa.

Arabako ipar-sartaldean <s>-ren bidez adierazi zituen txistukariak *Dotrinazko sermoitegi*-aren idazleak; baina, zenbait aldaera aztertuta Aiara aldean neutralizazioa aurreratuta zegoela ondorioztatu zuen Ulibarrik (2015: §4.2.1.4); emaitza, bestalde, espero izatekoa zen Mendietaren zein Urduñako hitz-zerrendaren datuen argitan.

Gipuzkoako mendebalean Eibarko 1754ko udal-ordenantzek ez ezik, IsSagEsp anonimoak eta Txakartegi mutrikuarraren gutunak ere oso aurreraturik dute neutralizazioa, baina Arakistainek ondo zaindu zuen bereizketa, arean erdialderagoko Loiolako dotrinaren egileak eta Azpeitiko 1786ko udal-aginduaren egileek bezala. 1750az geroztiko Urola aldeko testuetan, nolana ere den, neutralizazioa zabal islatzen

da: ez hain zabal Peñafloredarenean, nahiz eta adibideak egon, baina oso zabal *Grand tour* antzerki-lanean.

4.7.6.5. Frikarietan apikariaren aldeko neutralizazioa ez ezik, lepokariaren aldekoa ere aipatu beharrekotzat dut: beharbada fenomeno gerora ere ezaguna izan ez balitz hiperzuzenketatzat joko lirateke Gipuzkoako XVII-XVIII. mendeetako hainbat testutan apikariaren lekuan agertzen diren <z>-k edo <ç>-k; aitzitik, norabide horretan ere neutralizazioa gertatu dela jakinda, tentuz gordetzekoak eta aztertzeakoak dira gutxienez *Sumario breve*-az (1614) geroztik Urolako eta Donostia aldeko testuetan agertzen diren adibideak; izan ere, neutralizazioa islatzen dutelakoan nago.

Txistukari (ia) guztiak <s>-ren bidez adierazten dituzten idazleekin gertatzen den legetxez, (ia) edozein txistukari islatzeko <z> edo <ç> darabilten egileen kasuan zalantza eta oztopoa aurkitzen ditu ikertzaileak; izan ere, grafema hori orokortzen denean, ez dago apikari → lepokari neutralizazioak eta lepokari → apikari neutralizaziotik sortutako hiperzuzenketak bereizterik. Halakoetan, testuek aukera ematen duten heinean, azterketa kuantitatiboa lagungarri izan daiteke: afrikatu lepokaria <s>-ren bidez adierazten duten testuez aritzean esan bezala, adibideak asko ez badira hiperzuzenketatzat jo litezke; aitzitik, erabilera sistematikoa bada, zaila edo ezinezkoa da bereiztea.

4.7.6.6. Testuen azterketa grafematikoak argi erakusten du frikarien eta afrikatuen sailetan gorabehera eta ezberdintasunak daudela, eta neutralizazioari dagokionez bereiz aztertu behar direla, kronologia-gaietan aldeak baitaude. Are gehiago, afrikatuen adibideak gutxiago dira frikarienak baino, gutxiagotan agertzen baitira <ts>-dun hitzak <z>-dunak baino.

Afrikatuen saileko neutralizazioari dagokionez, txistukari (ia) guztiak <s>-ren bidez adieraztea erabaki zuten testuetan frikarietan agertzen zen arazo bera agertzen da; hots, maiztasunak eragin ditzakeen susmoak susmo, ez dago esaterik *bakoitsean* bezalako aldaera batean bereizketa galdu ondoko hiperzuzenketa dagoen ala idazleak lepokari afrikatua hala ematea erabaki zuen.

Kronologia dela eta, Bizkaiko lehenengo adibideak Sorg1616 testuak dakartza, nahiz eta filologikoki finkatu gabeko iturria den eta behin finkatuta datuak zertxobait alda litezkeen. Bizkaitik kanpo, berriz, Sasiolaren adibideak (B32:5 *dioçae*, B33:36 *onesçia*) lirateke zaharrenak, Lazarg eskuizkribura Lazarragak berak gehitu izan balitu, 1605ean hil baitzen Larreakoa. Horien ondoren, nolana ere den, Urduñako hiztegiak

ere badakartza (cf. *mingaza, jazi*), eta XVII. mendean bertan 7 & 8 *ezaiak* ditu Lardizabalek, eta 6 *arrazean Sumario breve*-ak.

Datu guztiak esku artean, badirudi afrikatueta neutralizazioan orokortzea berankorragoa dela, halere: XVII. mendearen erdialdean agertzen dira lehenengo adibideak Bizkai sartaldean (VJesus eta Mikol), non eta frikarietan aurreratuago baitzegoen neutralizazioa. Hain zuzen ere, joera horren alde egiten dute Bizkai sartaldeko testu zaharrek: afrikatueta adibideak agertu orduko (Euskara Zaharreko azken hamarkadak) beharbada ez Bizkai sartaldean bezainbat, baina aurreratuago zegoen neutralizazioa frikarien sailean.

Afrikatueta lepokariaren aldeko neutralizazioa XVII-XVIII. mendeetan zehar hedatu bide zen gehienbat, 1700az geroztiko hainbat testutan agertzen baita: Bizkaian, sartaldean (Sarria), erdialdean (De la Quadra, *Errosariyo*, GernikaGK) zein sartaldean (AbadiñoGK); Araban, ipar-mendebalean (DotrSerm) zein ekialdean (Albeniz, Gamiz); Gipuzkoako mendebalean Deba ibarraren erdialdean (EibarAgin) zein Urola aldean (GvS). Donostiako Parte Zaharrea ere indar bizia bide zuen neutralizazioak (Lubieta), eta mendearen amaiera aldera are ekialderago ere agertzen da, Hondarribia aldean.

4.8. Bokal bikoitzak

4.8.1. Ezaugarriaren deskripzioa

4.8.1.1. Orokortasunak

Hala egungo hizkeraren batean nola aurreko mendeetako testu batzuetan (eta, zehazki, ugariago lehenagoko testuetan egungo hizkeretan baino) bokal bikoitzak (<aa>, <ee>, <ii>, <oo>, <uu>) agertzen dira, nahiz eta ez dagoen ziur esaterik halakoak bokal luzeak edo geminatuak diren:³⁴⁶ “no está claro si debe interpretarse fonológicamente como cantidad larga o bien como geminación de las vocales” zioen Mitxelenak (*FHV* 91). Hori dela eta, atal honetan “bokal bikoitzak” izendapena besterik ez dut erabiliko.

Orokortasunekin jarraituta, euskararen dialekto gehienetan ez dago kontrasterik bokal luze edo geminatuena eta bakunena artean: salbuespen bakarren artean daude

³⁴⁶ Hualdek (1990: 274) esan bezala, ez euskalki tradizionala baina Euskara Batua ikasi duten hainbat hiztunek luze ahoskatzen dituzte hasperen grafikoak (alegia, <h>-k) bereizitako tinbre bereko bokalak. Hiztun horien ahotan ohikoak dira, beraz, *zahar* [za:r] & [sa:r], *lehen* [le:n] eta *mihi* [mi:] bezalakoak. Halaber, bokal geminatuak baliagarri dira euskara estandarrean zenbait oposaketa ezartzeko; cf. *atetan* mugagabea vs *ateetan* plurala (Hualde 1991b: 615).

Arbizuko euskara (Hualde 1990, 1991b) eta Gipuzkoako zenbait eremutakoa (Hualde & Gaminde 1997: 214, 220 eta 229; Agirrebeña *et al.* 2017: 31).

Garai historikoko lekukotasunek erakusten dutenez, Euskal Herriko mendebala gordetzaile izan da ezaugarri honetan (*FHV* 92); hots, garai historikoan behintzat arkaismotzat jo behar dira Euskal Herriko mendebaleko adibideak.

Beste alde batetik, ez ohi da zaila izaten bokal luze gehienen jatorria argitzea, nahiz eta kasu batzuetan gaia lehen begi-kolpean uste zitekeena baino konplexuagoa izan hala ikuspegi diakronikotik nola sinkronikotik.

4.8.1.2. Bokal bikoitzen jatorria

Ingurunea zein den, lau multzotan sailkatu izan dira euskal testuetako bokal bikoitzak Mitxelenaz geroztik (*FHV* 91-93), “bokal bikoitz” izendapenaren azpian hainbat jatorritako eta kronologiako fenomenoak bildu izan baitira:

- (i) Bokal arteko kontsonanteen galeraren ondokoak³⁴⁷
- (ii) Inflexiokoak
- (iii) Eratorpen-atzizkiei eta konposizioari lotutakoak
- (iv) Gaur egun (edo oraindik) azalbide etimologiko argirik ez dutenak

Aintzat hartu behar da multzo horietan sailkatzen diren adibide guztiek ez dutela iturburu eta iraupen bera. Zehazki, bokal bikoitzak eragiten dituen prozesua zein den, gutxienez bi geruza bereiz daitezke: zaharrenean daude tinbre bereko bokalak biltzean sortutakoak (izan tarteko kontsonante bat galdu delako, izan morfema-muga batean tinbre bereko bokalak elkartu direlako), eta berriagoan tinbre ezberdineko bokalak hiatoan bildu ondotik asimilazioz sortutakoak.

Adibideetara etorrira, geruza zaharrenetakoek ez dute aparteko azalpenik behar: *lehen* > *leen*, *semeen* (soz. pl.), *dabee* ‘dute’ edo *miraari* bezalakoak dira, non <VV> multzoa bakundu edo aldatu gabe gorde den. Berriagoei dagokienez, hiru aukera daude: (a) hiato zaharra gordetzea (*kantaetan* bezalako aldaeretan, kasurako), (b) tinbre ezberdineko bokalak asimilatzea (*kanteetan*) eta (c) bokal bikoitza bakuntzea (*kantetan*).

Lekukotasunen azterketari heldu baino lehen, aitor dezadan batzuetan ez dudala argi esaterik izan bi geruzetako zeinetan kokatu behar diren adibideak, bokal bikoitza gertakizun bati baino gehiagori egotz baitakioke. Esate baterako, *daukeen* ‘daukaten’

³⁴⁷ Honako galera hauek errepikatzen dira sarrien: VhV > VV; V/b, d, r, g/V > VV, VnV > ṼṼ > VV.

bezalako aldaera batean *dauke* + *-an* > *daukeen* izan daiteke prozesua, edo *daukee* pleonasmoduna + *-an* > *daukeen*. Beste horrenbeste gertatzen da *-ala* menderagailuarekin, lehenaldiko morfemarekin eta superlatiboaren atzizkiarekin, besteak beste.

4.8.2. Bizkaiko testuak

4.8.2.1. Euskara Arkaikoa

Bizkaiko testu zaharrenetan ohikoak dira bokal bikoitzak, nahiz eta inoiz ez diren bakar: zenbait lerrotatik gorako testu bakar batean ere ez dira agertzen sistematikoki, eta ohikoena da testuetan bakundutako aldaerak (ere) agertzea eta, are gehiago, aldaera horiek nagusi izatea.

RS bilduman *lar* hitzarekin gertatzen denak ondo islatzen du aipatu dudana: **lahar*-etik etor litekeela pentsatuta (proposamen arazotsua da, halere; cf. *EHHE* 447), bokal arteko hasperena galdu ondotik sortu bide zen 45 *Laarric* aldaera, baina kontra ditu 30 *larra*, 186 & 260 *larrac* eta 438 *lar*. Halaber, 22 *çarrago*, 399 *zaarra*, 465 *zaar[r]aren*, 475 *çarra*, 538 *zarrac* eta 396 *zaarza* daude, baina aurka dituzte 415 & 482 & 488 & 503 *zarra*, 24 & 355 *çarra*, 510 *zar[r]a*, 177 *zarrac*, 178 *zarrari*, 104 & 121 & 215 *çarrari*, 450 *zarraren* eta 486 *çartegua* (sei *aa* vs hamalau *a*, beraz; cf. *RS Andram* 2-7 *çarrac*). Bokal arteko sudurkariaren galeraren ondoren sortu bide da *RS* 400 *haar* ‘ar’ aldaera ere (<*(h)anar –Mitzelena 1950a: 11– eta < **na-naR* –Martínez-Areta 2007: 252-253–), eta dardarkariaren galerak eragin bide zuen *RS* 5 *abaaric* ‘panal’ aldaera (cf. *abaraska* ‘ezti-orraze’, *abauts* < *abara huts*).

<aa>-z landara, *RS* obran 558 *Ylbeeran*-ek eta 53 *queheric*, 360 *quehea* eta 364 *queheac* aldaerek³⁴⁸ besterik ez dute bokal arteko hasperena galdu eta tinbre bereko bokalak biltzearen ondoriozko bikoiztapenik (baina 473 & 507 *quea*; cf., halaber 194 *lenago*, 408 *lelengo*). <ii> dela eta, bokal arteko /r/ galtzetik sortu bide zen 182 *ciya* ‘ziria’. Era berean ulertzen dut sudurkaria galdu ondoko *RS* 271 *Miyac*, Bizkaiko testuetan Zumarragaren gutunean ere agertzen dena: frJZum 9 *miiocayti*.

Aparteko aipua merezi dute *RS* 101 *eros aala* aldaerak, non txistukari frikariaren disimilazioak eragiten baitu bokal bikoitza, eta 544 *Huhuñ[en]erean*-ek, non Bizkaiko 1600 aurreko <uu> bakarra agertzen baita, onarturik ordurako hasperenik ahoskatzen ez zela eta <h>-ak hiatoa markatzen duela (cf. Mitxelena 1979b).

³⁴⁸ *Kehe* aldaera horretako <h>-a grafikotzat besterik ez dut, Euskal Herriko mendebaleko XVI-XVIII. mendeetako gainerakoak bezala.

Izenaren flexioan bi multzotan sailka daitezke Bizkaiko lekukotasun zaharrenetako adibideak. Alde batetik, $a + a > ea$ gertatzen ez den kasuak daude: *RS 214 errecaac*, *451 marcaac*, *504 marraac*, frJZum 11 *gauçaac*; frJZum 1 & 22 & 29 *alaan*, 17 & 26 *edolaan* (baina frJZum 22 *gauçac*; *RS 20 celan*, 35 & 92 *Celangoa*, 77 *aldapan*, FrantzOrd 6 *pobreçan*).

Beste alde batetik, beste morfema batzuk gehitzearen ondorioz sortutakoak agertzen dira, non kasuak bereiztea komeni baita.

Lehenik, *-ok* artikulua hurbilari lotuta daude *RS gajooc* eta 3 *auçooc* (baina Plen1603 *areriocaz*).³⁴⁹

Bigarrenik, genitiboko markak sarri eragiten ditu bokal bikoitzak bai tinbre bereko bokalak biltzean, bai asimilazioaren ondorioz: *RS 51 Vrdeen*, 139 *besteençat*, 286 *Hurteen*, 286 *jaubeen*, 413 *gazteen*, 499 *bereen*, 523 *goseen* (pl.); 60 *laguneena*, 266 & 416 *anajeençat*, 458 *Andreen*. Nolanahi ere den, *-en* soildua dutenak gehiago dira: *RS 70 cucuen*, 115 *Harien* ‘ahariaren’, 153 *bestençat*, 180 *Ydiençat*, 207 *Deunguen*, 218 *pilotuen*, 254 *garien*, 264 *Lurren*, 271 *buruen*, 280 *garien*, 281 *Ator[e]n*, 301 *yrachoen*, 324 *suen*, 371 *jaunen* (pl.) & 550 *jaunen* (sg.), 385 *Arrien*, 473 *laguneneco*, 507 *andizurenen*, 516 *lagunen*, 520 *dollorren*.

Hirugarrenik, ablatiboan asimilazioak eragin du *RS 448 aurrereen* ‘delantero’, baina errefrau berean *osteyren* ‘postrero’ dago, eta bilduma berean 429 *loben baten* ageri da.

Laugarrenik, leku-kasu pluraletan *-eetan* baizik ez dut aurkitu: *RS 391 avereetan*.

Azkenik, *-(t)ar* atzikiari lotutako adibide bakanen bat aurkitu dut testu arkaikoetan; ArrasErreKI: 36 *arabaarric*.³⁵⁰

Aditzetan <ee> agertzen da *-ke* morfemari *-e* NORK pluralgilea gehitzean (*RS 54 leuquee*), pluralgilea birritan ezarri den adizkietan (frJZum 10 *esango dabee*) eta datibo-markaren ondotik NORK *-e* pluralekoa eranstea (frJZum 17 *emongo deusteet*). Bestalde, *RS 167 ereçan* adizkian bakuntzea gertatu bide da (< *ereezan* < *eraezan* < **era zezan*, azken hori *OEH*-ren arabera –s.v. *ero*–).

³⁴⁹ Aurreko lan batean (Zuloaga 2011b: 59 eta hurrengoak) artikulua hurbila eta *oo* > *o* bakuntzea aipatu nituen Plen1603 *areriocaz* forma azaltzeko (cf. *RS 270 areriocaz*), baina bestelako aukerak (hala nola armarría zizelkatzean eginiko akatsa izatea) ere ez dira zertan baztertu. Bestalde, errefrau horretako bertako *aguica* < *agiraka*-tik eratorria bada, eta ez *haginka*-tik, VrV > VV > V bilakabidea buruturik zegokeen garai hartarako.

³⁵⁰ 36 *arabaarric* horrek besterik ez ditu bokal bikoitzak, eta adibidea “Gomizec asco lagunic” izeneko pasartean dago. “Argui içarrac urten dau” pasartean, aldiz, ez dago bokal bikoitzik.

Konposizioan eta eratorbidean tinbre bereko bokalak (oro har, $-a + a- > aa$) elkartzean sortuak dira *RS 238 ataartean*, *292 ollaarra* eta *557 labaaldian*; baina, $\langle aa \rangle$ -rik gabe ageri da *164 & 248 gurari*.

4.8.2.2. Euskara Zaharra

4.8.2.2.1. XVII. mendean ere zabal agertzen dira bokal bikoitzak Bizkaiko testuetan, jaurreriaren mendebalekoak, erdialdekoak zein ekialdekoak izan.

4.8.2.2.2. Maitasun-kanta zaharren artean *Enojaduric*-en ez dago halako multzorik, baina BizkKant 1 *vioçeen* ‘bihotzaren’ eta BizkOlerk 16 *leenago* daude (halere, cf. *5 baquit*, *17 vaquiçu*; *4 alan*, *7 nolan* agertzen dira azken testu horretan). Halaber, Busturiko 1616ko testutxoan 1 *gausaac* eta 2 *ece etan* ‘etxeetan’ (baina 2 *gauçay*) agertzen dira. Egiaren kantan bokal bikoitz bat besterik ez dut aurkitu, eta ziur asko dardarkari aurrean arrunt sortutako beste bokal bikoitz batzuekiko analogiaz sortutako *146 çoor* (cf. *FHV 113-114*; *EHHE*, s.v. *zor*).

4.8.2.2.3. Bizkai sartaldeko testuen artean bariazio diatopikoaren ikuspegitik interesgarria da VJesus dotrinak eta Mikoletak azaltzen duten egoera; izan ere, bilbotarrarenean *loo* hitzean (zazpi aldiz) besterik ez dira agertzen bokal bikoitzak, eta VJesus-en hainbat testuingurutan aurki daitezke. Hona hemen testu horretako adibideak, Ulibarri (2010a: §3.1.1) lanari jarraikiz emanak:

(a) Bokal arteko kontsonanteen galeren ondorioz sortutakoen artean, $VhV > VV$ aldaketaren ondotik sortu dira *5 zaarrago* eta *10 beera*, $VnV > VV$ -ren ondotik *12 domeecaac* eta *12 domeeca*, eta $VdV > VV$ -ren ondorioz *6 siitequean* (bakarra da, *-idigordetzen* duten *15* adibideren aurka). Beste alde batetik, *5* (birritan) *bauco* eta *6 beuqué* aldaeretan bokal arteko kontsonantea galdu ondotik bokal bikoitzak sortu bide ziren, baina testuan bakunduta ageri dira jada.

(b) Deklinabidean absolutibo singularreko $a + a > ea$ disimilazioak eragiten ditu zenbait bokal luze: *11 Ordeea* (baina *11 ordeneetan*), *9* (birritan) & *13 & 16 graciie* (baina *14 gracies*, *16 graciegas*), *11 Hostiie* (baina *10 Hostie*), *14 Mariie* (baina *5 & 6 – birritan– & 8 & 14 –lautan– & 15 Marie*). Arau hori aplikatzen ez den kasuetan ia sistematikoki agertzen dira *-aak* eta *-aan*: *2 verbaac*, *2 & 16 obraac*, *4 gauzaac*, *12 domeecaac*; *3 & 4 elexaan*, *4 & 6* (birritan) & *7 & 9 & 12 celaan* & *14 zelaan*, *10 onaan*, *11 & 14 & 15 alaan* (baina *10 alan*), *11 mesaan*.

Genitiboan “*-a*, *-e* eta kontsonante amaiera duten hitzei genitibo singularra (**-aen*) ezartzen zaienean *-een* dugu” azaldu zuen Ulibarri (2010a: 54). Azalpen horrekin

bat egiten dute adibideok: 2 & 8 *podereen* ‘boterearen’,³⁵¹ 2 & 3 (birritan) *santeen* ‘santaren’, 2 *bandereen* ‘banderaren’, 3 *Aiteen* ‘aitaren’, 3 *semeen* ‘semearen’, 4 & 6 & 8 & 11 (birritan) *Iauneen* ‘jaunaren’, 5 & 6 *santissimeen* ‘santisimaren’, 8 *lurreen* ‘lurraren’, 10 *confessoreen* ‘konfesorearen’, 11 *errendentoreen* ‘erredentorearen’. Pluralean amaieran *-e* duen hitz batean aurkitu dut <ee>: 11 *tentaciñoen*, bai eta *hilak-i* loturik ere: 8 *hileen*.

Leku-kasuetako *-eta-* pluraletan ere arruntak dira bokal bikoitzak:³⁵² 3 (birritan) *deungueetaric*, 3 *deungueetarean*, 5 *purissimeetan*; 2 *genteetaric*, 16 *ocasiñoetaric*.

Ablatiboan *-een* ageri da adibide gutxi batzuetan: 3 *peligrureen baten*, 3 *deunguereen batec*, 10 *mortaleen bat* (baina 15 *accidenteren batec*).

Izenaren morfologiatik irten gabe, gogoratzekoa da aurreko oin-ohar batean labur aipatutako gaia: lehenengo graduko erakuslean hirutan agertzen da *-ee-* VJesus-en (13 *oneec*, 5 *oneetaric* eta 12 *oneetan*), eta beste horrenbestetan *-e-* soila (3 *onec*, 4 *honec*, 10 *honèc*).

(c) Aditzaren morfologiaren esparruan ere eragiten ditu bokal bikoitzak *-eta-* k;³⁵³ zehazki, *-adu* amaiera duten partizipioak aditz-izen bihurtzean hiato zaharra gorde ez denean: 2 *alisteetan*, 2 *siguiñeetan*, 6 *libreetaco*, 9 *aumenteetan*, 10 *confesseetan*, 10 & 13 *comulgueetan*, 11 *adoreetan*, 11 *ordeneetan*, 11 *celebreetan*, 12 (birritan) & 16 *confesseetaco*, 13 *encerreetan*, 15 *ameetan*, 16 *erreceetan*, 16 *aparteetaco*, 16 *emendeetaco*. Halaber gertatzen da *gorde* aditzean, amaierako berezko *-e* tarteko: 12 *gordeetan*.

Testuinguru horretatik kanpo, adizkietan bokal bikoitzak agertzen dira datibo-markaren eta *-an-en* artean, **-ea-* > *-ee-* bihurtuz (4 *irecasten jateena seiñay*, 11 *emayten jateena gaxoay*), *-de* eta *-e* pluralgile-aldaeren eta *-an* erlatiboaren artean (7 *contenietan daudeena*; 4 *dauqueenac*) eta adizkietan pluralgile bi elkarren ondoan agertzen direnean: 5 *dauquee*.

Konposizioan adibide bakarra dago bokal bikoitzekin: 13 *escaari*.

³⁵¹ Ulibarrik (2010a: 62) pluraleko formatzat du 2 *podereen* eta zalantza egin daiteke, genitiboaren markak singular/plural bereizketa lausotu baitezake; halere, garai bertsuko Kapanagaren dotrina testu paralelotzat harturik, singularra delakoa daukat: Kapan 6 *padeçio debaxo del poder de Ponçio Pilato*, euskaraz *padeçidu eban Ponçio Pilatosen podereen bean*.

³⁵² 5 *oneetaric*-ek beste azalbide bat izan dezake, *honeek* izan baitezake oinarrian.

³⁵³ Proporzio zehatzak ematen ditu Ulibarrik: “asimilatugabeko adibideak % 29 (11) dira, bokal bikoizdun aldaerak % 50 (19), eta dagoeneko bakundutako *-e-* soileko adibideak % 21 (8). Esate baterako, *konfesadu* aditzak hiru formen adibideak dauzka: hiru *konfesaeta-* (% 37), lau *confeseeta-* (% 50) eta *konfeseta-* bakar bat (% 12)” (2010a: 55).

4.8.2.2.4. Bizkaiko hego-sortaldean, Kapanagaren liburuan ugari agertzen dira bokal bikoitzak hainbat testuingurutan:

(a) Bokal arteko kontsonante-galerei dagokienez, VhV > VV dago³⁵⁴ 101 *Laarregui* (baina 51 *Larregui*, 55 *larreguiac*, 113 *Lar*) eta 93 *beera* aldaeretan (baina <ii> *bean*), eta ia beti *lehen* berban eta hortik eratorritakoetan (69 aldiz zenbatu dut *Leehasiera* –<i> *Leenagoco*, 118 *Leengo*, 118 *Leenago* eta abar– vs. *leC-* bakar bat –90 *lengo*–) eta *xehe*-ren formetan (<iii> *cheena*, 83 *cheetan*, 116 *cheeneen*, 126 *cheencheena*, baina 117 *cheagoac gaiti*). *Zahar* hitzak, aldiz, ez du bokal bikoitzik: 59 *zarrac*, 106 *çar*, 142 *çarreco*.

Bestalde, VnV > VV gertatu da 8 *Domeecac* aldaeran (baina aurka ditu 12 *Domequetan* eta 136 *Domecan*). Halaber, beste kasu batzuetan dardarkariaren eta belar ahostunaren galerak eragin du tinbre bereko bokalak elkarren ondoan agertzea, eta kasuren batean ez da bakuntzerik gertatu: 36 (birritan) & & 37 & 38 *Zeen* eta 45 *çeen* ‘zeren’, 115 *finbaacoa* (baina bederatzi *bako* ditu aurka).

Ba- partikularen ondotik bokal bakunduak besterik ez ditut aurkitu, nahiz eta inoiz *bada* > *baa* gertatu bide zen: 27 (hirutan) & 47 *ba* ‘bada’, 27 *Bauco* ‘badauka’, 40 & 49 & 54 *Bago* ‘badago’, 76 *Bacusu* ‘badakusazu’; 59 *beussagu* ‘badeutsagu, badiogu’, 94 *beben* ‘baeben, bazuten’, 27 *Bira* ‘badira’, 32 *Biñozu* ‘badiozu’.

(b) Deklinabidean berrogeita zazpi aldiz aurkitu dut *-aak* (<i> *ecsagunçaac*, <i> *armahac*, 14 *flaqueçaac*, 18 *Bienaventurançaac*, 19 *iabaac*, 25 *gauzaac*, 37 *penaac* eta abar) eta bederatzitan *-aan* (21 & 30 *santaan*, 39 *alabanzaan*, 64 *figuraan*, 94 *varaan*, 105 *personaan*,³⁵⁵ 124 *alabançaan*, 127 *platicaan*). Inesiboan, halere, badaude salbuespenak (32 *sepulturan*, 117 *ariman*, 130 *Elexan* eta abar), eta *nolan*, *zelan*, *alan* eta *beralan* hitzetan ez dut bokal bikoitz bakar bat ere aurkitu.

Absolutibo pluralari erantsitako kasuei dagokienez, zortzitan aurkitu ditut bokal bikoitzak sozietiboan (24 & 63 & 100 *obraacaz*, 33 *Arimaacaz*, 49 *vgaçabaacaz*, 98 *deungaacaz*, 104 *doncellaacaz* eta 105 *andraacaz*; baina 16 *Beguiacaz*, 16 *Belarriacaz*, 82 *euracaz*, 104 *animalacaz*, etab.), bitan motibatiboan (46 *criaturaac gaiti*, 113

³⁵⁴ Inoiz <h> bat ageri da bokal artean, baina grafikotzat daukat; hots, hiatoa hausteko edo markatzeko erabilera grafiko hustzat: [i] *armahac*, 56 *ofrendahau*; cf. Sevilla1619 55 *armahaq* eta Ulibarri (2011b: 374) zein Manterola (2015: 278) lanetako azalpenak.

³⁵⁵ Bokal arteko -g- galdu duen formatzat ere jo zitekeen, bizidunaz ari baita, baina esaldi berean *-etan* darabil bizidunekin: 105-106 *Ea contentu artu dabeenz ecusteagaz gauça eçañac bere personaan, andraetan, guiçonetan edo animalietan*.

gauçaac gati) eta behin baino ez datibo pluralean (57 *arimaay*, baina 98 *guiñarrabay*, 104 *andray*).

Artikulu hurbilari loturik daude beste hauek: 56 *ofrendahau*, 111 *deungaa*, 153 *figuraau*, 154 *arimaau*.

Genitibo singularrean dauden kasu guztietatik (berrehun eta laurogeita hamabost inguru, zalantza eragin dezaketen kasuak gorabehera) ehun inguruk dituzte bokal bikoitzak; beraz, gutxi gorabehera forma guztien heren bat dira bokal bikoiztunak. Zehazki, hiru ingurunetan agertzen dira bokal bikoitzak genitibo singularrean (Castaños 1957: 62): amaieran kontsonantea duten hitzetan (hogeita hamabost inguru: <i> *etorquiçuneen*, 15 *naguitasuneen*, 27 *gorpuceen*, 30 *guizoneen*, 82 *Vildurreena*, 116 *cheeneen* eta abar); amaieran -a duten hitzetan, asimilazioz (berrogeita hiru inguru: <i> *Illustrissimeen*, 17 *fortaleceena*, 28 *oneen* ‘onaren’, 33 *eriozeen*, 38 *elxeenac*, 53 *aziendeenac* eta abar); eta amaieran -e duten hitzetan (hogeita zazpi inguru: 6 *podereen*, 17 *piedadeena*, 22 *salvadoreen*, 39 *omnipotenteen*, 43 *fedeen*, 51 *iabeen* eta abar). Inprentan aldaketak/akatsak egin zitezkeela ahaztu gabe, Kapanagarenean bokal bikoitzek genitiboan bizi zuten atzerakada islatzen du aipatutako ingurune horietan hainbat salbuespen agertzeak: lehenengo eta hirugarren inguruneetan heren bat dira salbuespenak, eta bigarrenean parez pare daude bokal bikoitza duten eta ez duten aldaeren kopuruak.

Genitibo pluralean singularreko ingurune berberetan agertzen dira bokal bikoitzak (<i> *Gentileen*, 45 *eguiñeen*, 46 *iaquituneen...*; 81 *gauçeen*, 83 *Bienaventurançeen*, 106 *oneen...*; <i> *humeendaco*, 23 *besteen*, 35 *semeen...*), eta bokal bikoitzek gutxiengoa izaten jarraitzen dute.

Ablatiboan aipa dezadan 66 (birritan) *acereengo*. Ematen du prozesu berbera gertatu dela [-(*r*)en bat/batzuk] egituran (cf. Santazilia 2013: 266), eta horrek analogiara jo gabe (cf. Castaños 1957: 67) azaltzen ditu zenbait aldaera. 87-88 *doaçaneen baçuc*, 89 *Bestereen baçuc*, 96 *gariçumareen baten*, 98 *pecatureen baçuc* eta 106 *guiçoneen baçuc* formez ari naiz, egitura horretan bertan bokal bakarra duten adibideak nabarmen gehiago diren arren: 23 *neçesidaderen baten*, 89 *demporaren baten*, 93 *gauçaren bat*, 94 & 96 *mortalen bat*, 97 *andiren bat*, 97 *gachen bat*, 102 *andraren bategaz*, 104 *guiçonon bategaz*, 106 *andraren baçuc*, 107 *erremedioen baçuc* (bost <ee> vs. hamaika <e>, beraz).

Leku-kasu pluraletan ere ageri da -*eeta* aldaera hala *ae* > *ee* asimilazioaren ondotik (12 *Domequeetan*, 41 *elxeetan*, 50 *obreetan...*) nola tinbre bereko bokalak

biltzean (46 *oneetan*, 78 *Virtuteetarean*, 92 *besteetan...*).³⁵⁶ Alabaina, kopuruak aztertuta aldea ikusten da sail baten eta bestearen artean: gehiago dira *ae* > *ee* asimilazioaren ondotik sortutako formak (hamabost *-eeta* inguru vs. zortzi *-eta* inguru), *-e* + *e-* > *ee* bilkuraren ondorioz sortutakoak baino (hamar *-eeta* inguru vs. hamazortzi *-eta* inguru), eta egoerak bat egiten du aurreko hamarkadetatik zetorren joerarekin, argi islatzen baitu *-e* + *e-* bilkura zaharrea bokal bikoitza bakuntzeko joera, *ae* > *ee* berrikuntza modernoagoari dagokion indar biziagoaren aldean.

Lehenengo graduako erakusleetan bokal bikoitzak dituztenak dira ohikoenak absolutiboan: esaterako, hamabost aldiz aurkitu dit *oneec* eta behin *onec*. Aitzitik, bokal bikoitzen adibide bakarra aurkitu dut bigarren graduakoetan: 57 *orreetarean*.

Superlatiboko *-en* atzizkiak ere eragiten ditu bikoitzapenak, baina adibideak ez dira asko:³⁵⁷ 22 *oficio leelengoac eta principaleenac*,³⁵⁸ 70 *Erremedioric oneena*, 81 *consejuric oneena*, 83 *obraric oneenac*.

(c) Aditzaren morfologiaren esparruan hainbat kokagunetan daude bokal bikoitzak. Alde batetik, *-adu* duen adizkiren batean aurki daiteke <aa>-rik ([i] & 107 *cantaadu*, 127 *traçaadu*), baina hiru adibide horiek besterik ez ditut aurkitu (bide batez, cf. 126 *cantaduco*). Beste alde batetik, aurrekoarekin loturik, *-adu* duten aditzei aditz-izena sortzeko *-eta* gehitzen zaienean, deklinabidean bezala hainbatetan ageri da *-eeta* aldaera: hirurogei bat aldiz zenbatu dut <ee>, eta <e>-ren hogeita hamabost adibide inguru aurkitu ditut. Hona hemen sail banatako dozena erdi adibide: 43 *Adoreetan*, 58 *aconsejeetan*, 58 *useetan*, 61 *iustificuetan*, 62 *confesseetan*, 149 *sinifiqueetan*; 20 *confessetan*, 63 *obliguetan*, 93 *acusetan*, 111 *murmuretan*, 131 *adoretan*.

Halaber, *-eeta* aldaera da nagusi *-tu* partizipio-marka duten aditz gutxi batzuetan: sei aldiz *eskatu* aditzarekin (vs. bi *esketa-*), lautan *bedeinkatu*-rekin (vs. behin *bedeinketa-*), behin *jokatu*-rekin (aurkako adibiderik gabe) eta bitan *haserratu*-rekin (aurkako adibiderik gabe). *Gorde* aditzaren amaierako bokalaren eta aditz-izenaren hasierakoa biltzeak ere bokal bikoitza ekar zezakeen: 21 & 55 *gordeetaco*, 79 *gordeetan*

³⁵⁶ Pentsa daiteke hitz jakin batzuetan ihartutako moldeak direla; esate baterako, *-ae-* > *-ee-* hainbatetan errepikatzen da *gauza* berban (hamalau adibidetik seitan, nahiz eta 113 *gauçetaraco* ere badagoen); halaber, *-e* + *e-* > *-ee-* gehienak (*h*)*oneek*-i dagozkio (hamar adibidetatik sei, nahiz eta salbuespenak ugariagoak izan; zehazki, hamazazpi).

³⁵⁷ 126 *cheen cheena* bide beretik interpreta daiteke, baina superlatibokoa ez beste marka batzuk eranstea ere <ee> bikoitza du eta, horrenbestez, ez dago argi esaterik aldaera superlatiboari zein bestelako marka horiei edo VhV > VV bilakabideari egotzi behar zaion.

³⁵⁸ *principale* bide da oinarria (*OEH*, s.v. *printzipal*).

(baina [i] *gordetan*). Bakarra da, bestalde, 119 *amaetaan* aldaera, inesibo singularreko *-aan* aldaeraren arabera eratua.

Kapanagaren liburuko 30 *alçaatean* adizkiak Lazarraga eskuizkribuan du paralelo bat (AL:1147v *çaatean*). Bestalde, *-te* datibokoaren, *-ke* aspektu-markaren eta *-e* pluralaren ondotik *-e* ezartzen denean (pluralgilea bera) oso arrunta da <ee> agertzea. Hona hemen hiru testuinguru horietako zenbait adibide: 50 *aguinetan iatee*, 78 *emaiten deustee*; [i] *leuqueen*, 148 *bear eleuquee*; 19 *alcançaduco dabee*, 76 *dauquee*. Bestalde, *-an* eta *-ala* menderagailuen aurretik amaieran *-e* duen adizkia dagoenean, ohikoa da bokal-bikoiztea: 50 *zor dabeen*, 88 *balio ezebeen*, 89 *dericheen*, 115 *emon ezteusteen*; 29 *çor dabeela*, 68 *emaiten dabeelaco*, 89 *eguiten ebeela*, 106 *dauqueela*.

Adizkiei zehar-galderetako *-(e)netz* atzizkia *-e* pluralgilearen ondotik ezartzean ere oso arrunta da <ee> multzoa Kapanagarenean: hamazortzi aldiz aurkitu dut *-eenz* (91-92 *sinistu dabeenz*, 103 *garbaitu iaqueenz*, 103 *egon çeenz*, 113 *dauqueenz*, 102 *eguin deuseen*, 113 *eztauqueenz...*), eta hamasei aldiz *-enz*; beraz, nahiko parean daude aldaera bata eta bestea.

(d) *Jan* eta *edan* aditzetan zenbait aldiz dago <aa> bikoiztua, betiere morfemaren bat gehitzean (eta, gehienetan, aditz-izenetako *-te*): hiru aldiz aurkitu dut *iaateco*, behin *iaatecoa*, hirutan *iaaten* eta behin *iaaqui*; baina, horiek aurka dituzte 13 *iaten emaita*, 64 *iateco*, 127 *iatosteco* eta 132 *iaten*. *Edan*-i dagokionez, behin besterik ez dut aurkitu 127 *edaaten*. Gainerako formek <a> bakarra dute: 14 *edaten*, 51 *edanac*, 58 *edatea*, 74 *edateco*, 101 *edanagaz*.

Aditzaren eta *arazi* partikularen artean behin aurkitu dut asimilazioa: 43 *comuteeraçaiteco*.

Ez dut bokal bikoitzik aurkitu konposizio- eta eratorpen-prozesuei loturik.

(e) Ez du ematen isolatuta agertzen diren aldaera batzuek azalbide etimologikoa dutenik: analogiaz eratutako aldaerak, idazkera- zein inprenta-akatsak edo berba-banaketarik ezaren ondorio bide dira. Analogiari egozteko modukoak iruditzen zaizkit, esaterako, 33 *ondasuneetan*, 53 *bedeequeetanda* (*-eta* duten beste forma batzuen arabera sortuak) eta 104 & 107 *alaaco* (beharbada *alaan* aldaeraren arabera sortua); bestalde, inprenta-akatsa da 96 *restituciñooric* (pentsa liteke <o> *pro* <e> nahastu zirela, baina Kapanagarenean *-eta*, oro har, Durango aldeko testu zaharretan *-(i)ño* ez da arrunta) eta 122 *Daau* (hitz-banaketa, beste barik); hirugarrenik, ez diot azalbide logikorik aurkitzen 48 *naturaalac* aldaerari, baina mailegu gordinetako *-al* elementuari lotua dirudi.

4.8.2.2.5. 1650-1660az geroztik murriztu egiten dira bokal bikoitzak Bizkaiko testuetan, oro har eta Markinako XIX. mendearen hasierako idazle ikasien jokamoldea zein lurralde mugakide batzuetako (Oñati, adibidez) gertakizun linguistikoak gertakizun. Funtsean, gutxiago dira (testuak ere ez dira Kapanagarena bezain luzeak, egia esatera), eta hitz eta testuinguru jakin batzuetan fosildurik agertzen dira normalean.

BertsBizk eta Zubiaren dotrina begiratuta, esate baterako, eskasak dira adibideak. Bokal arteko VhV > VV galerak eragin ditu BertsBizk 1-4 & 29-6 *leen* eta Zubia 422 *leenago*, 423 *leen* (baina aurka ditu azpian aipatutako 421 *leleengo*, 421 & 422 & 425 *leelengoa*, 423 –birritan– & 424 *lenago*).

Lehen berban, *leⁿ/ae-* > *leⁿ/ee-* asimilazioa dago aipatutako hiru testuetatik bitan: Bulda 31 *leneengo* (baina 4 *lenengua* eta 65-66 *lenengo*), Zubia 421 *leleengo*, 421 & 422 & 425 *leleengoa*.

Bestalde, VrV > VV galerarekin eta *-ae-* > *-ee-* > *-e* asimilazio eta bakuntzearekin lot daiteke Zubia 424 *bereengoa* (cf. RS 128 *Ezcur berereango ciya*, 428 *Ciria da guextoa zur berereangoa*), eta VdV > VVk eragin du BertsBizk 29-6 *diite* (< *didite*; begiratu Lakarra –1984a: 132– eta cf. VJesus 6 *siitequean*).

Mendearen amaierako testuen artean absolutibo pluralean *-aak* bakarra aurkitu dut (BertsBizk 14-4 *balaac*),³⁵⁹ eta inesibo singularrean ez dut *-aan*-ik ikusi. Genitiboan BertsBizk 10-3 *alardeen*,³⁶⁰ eta Zubia 423 (birritan) *Virgineen* eta 425 *oneen* daude, baina adibide bakanak dira. Adizkietan asimilazioa dago behin *ba-* partikulan: Zubia 423 *galdu beeban*.

Konposizioan eta eratorpenean ez dut bokal bikoitzik aurkitu 1660-1700 arteko testuetan, eta analogiaz sortutakoa edo akatsa izan daiteke Zubia 423 *Trinidedeeco*a (cf. goragoko Kapan 104 & 107 *alaaco*).

4.8.2.3. Lehenengo Euskara Modernoa

4.8.2.3.1. XVIII. mendearen lehenengo hiruzpalau hamarkadetako testuetan ere antzekoa da egoera Bizkaian: adibide gehienak izenaren zein aditzaren morfologiaren esparrukoak dira, eta erro gutxi batzuetan fosilizatuta agertzen dira bokal bikoitzak.

4.8.2.3.2. Arzadunen testuan *lehen* berban behin baino ez da agertzen VhV > VV (29 *leen*), eta aurka ditu hogeita bat aldiz *lel-* eta bost aldiz *len-*. Ez kontsonate-

³⁵⁹ “13, 4 ilun aurkitzen dut: *balaac* ongi letorke, bestetan ere erabili izan balu horren moduko *a* bikoitzik” zioen Mitxelenak (1984: 387). Begiratu, orobat, Lakarra (1984a: 152)-ko oharra.

³⁶⁰ Bide batez, *alardeen* lau silabatan irakurri behar da, bertso-lerroak ohiko neurria beteko badu; begiratu Lakarrak (1984a: 132) neurria betetze aldera 29. ahapaldiko *len* > *leen* aldaketaz eta azaldutakoak.

galeraren baina asimilazioaren ondorio dira *leleengo* aldaeraren hogeitabi adibideak (24 *leleengo* besterik ez da salbuespen).

Izenaren morfologian ere oso gutxi dira bokal bikoitzak Arzadunenean. Erakusleen sailean lehenengo graduko erakusle pluralean zazpi aldiz agertzen dira bokal bikoitzak: 18 & 43 & 46 & 47 & 48 & 52 & 53 *oneec* (14 & 15 *onec* dira salbuespen). Deklinabidean, genitiboan besterik ez ditut aurkitu, eta denak daude *santa* eta *christiana* hitzei lotuak: 13 & 21 & 22 & 43 *santeen*; [azala] & 13 & 24 & 43 *Christianeen*. Halere, salbuespenik ere badago *santa* hitzaren genitiboan: 19 (birritan) *santenn* ‘santaren’.

4.8.2.3.3. Urkizuren 1737ko lanean bokal bikoitzen bi adibide besterik ez daude ([azala] *Nobleen* ‘noblearen’, 30 *tristeen* –gen. pl.–),³⁶¹ eta UrkizuKopl kopla-sortan ez dut adibiderik aurkitu.

Ugariago agertzen dira bokal bikoitzak Bizkai sartaldeko Orozkoko 1739ko otoitzetan. VhV > VV bilakabidea *lehen* hitzean bakarrik dago (32 *leelengoan* eta 49 *leelengoac*, aurkako salbuespenik gabe), eta gainerako adibideak deklinabidekoak eta aditz-morfologiakoak dira.

Deklinabidean 67 *Arimaac* absolutibo plurala, 13 *misericiosoóc* plural hurbila eta 10 *Alaàn* inesibo singularrak daude.

Genitiboari dagokionez, ia parean daude asimilazioaren ondorioz sortutakoak eta *-e + e-* bilkura sorburu dutenak. Hauek dira adibide guztiak: 25 *andieen*, 28 *Virgineen*, 71-72 *Ayteen*; 66 *eureen*, 73 *semeen*. Nolanahi ere den, genitiboan badira bokal bikoitzik gabeko aldaerak; zehazki, asimilazio-kate baten ondotik sortutako 22 *Jeincoen* eta 75 *Espiritu Santuen* aurkitu ditut.

Leku-kasuetan asimilazio-kate beraren ondorio dira <ee> duten adibide bakanak: 66 *peneetaric* eta 69 *llagueetan*.

Kasu lokatiboetako atzizki berorrek eragiten ditu zenbait bokal bikoitz aditz-izenetan. Adibide gehienak *-adu* duten aditzei dagozkie (7 *suspireetan*, 8 *erosteetan*, 27 *ácabeetan*, 53 *saludeetan*, 60 *slveetarren*), baina bada oinarrian *-tu* duenik ere (61 *esqueetan*).

4.8.2.3.4. XVIII. mendearen erdialdeaz geroztiko idazleen lanetan are gehiago gutxitzen dira bokal bikoitzak Bizkaiko testuetan, ipar-ekialdeko idazle batzuenetan izan ezik. Horrek ez du esan nahi eremu horrez kanpokoen lanetan ere ez daudenik,

³⁶¹ Gogoratu amaierako kopleetako <ii>-ak *-ijV* kontsonante epentetikoarekin lotu ditudala aurreko atal batean (§4.5.3.3.1); alegia, ez ditudala bokal bikoitzat jo.

baina adibideak gutxiago dira eta ingurune jakin batzuetan metatzen dira, aurreko hamarkadetako joerarekin bat eginik, fosilduta baleude bezala. Bestalde, idazleek hizkuntzaz eta idatziaz duten kontzientzia eta ezagutza gero eta sakonagoak hautu garbiak egitera eta, imitazio-nahiak nahi, tokian tokiko euskaratik aldentzera daramatza, usu idazleen hizkeren arteko aldeak areagotuta eta ikuspuntu etimologiko-historikotik forma azalgaitzak sortuta.

4.8.2.3.5. 1760ko hamarkadako idazleen artean, Kardaberatzek ez zuen bokal bikoitzik erabili Bizkaiko euskaraz emandako dotrinan, eta Gandararen Gabon-kantetan adibide bakarra aurkitu dut, “Ama maitegarriari bere jaiozan” testuan: 1-6 *humeenzat*.³⁶²

4.8.2.3.6. Olaetxearen dotrinan badaude bokal bikoitzak, baina ingurune oso zehatzetan biltzen dira. VhV > VV galdu ondotik, *lehen* berbak eta hortik eratorriek biltzen dituzte aldaera guztiak: behin aurkitu dut *leen*, hirutan *leenaz* eta hamalau aldiz *leenago* (aldiz, hirurogeita hamahiru aldiz aurkitu dut *lelengo* eta hamaika aldiz *lelengoa*).

Izenaren morfologiari loturik, adibide gutxi daude: 11 *besteen* eta 151 *senideen* daude (azken hori [-(r)en bat] egituran) bai eta -e duten hitzei superlatiboko marka gehitzean sortutakoak 19 *oneena*, 23 *escelenteena* eta 23 *admirableena* ere

Aditzaren morfologian ere bakanak eta oso mugatuak dira adibideak, gehienak *deseadu-ri -eta* gehitzean sortuak: 44 *deseetea*, 115 *ez deseetea*, 11 *deseetaco*. Horiez gain, 151 *dauquee* ‘daukate’ pleonasmoduna eta 118 *dauqueen modua* erlatibokoa daude.

Aurreko inguruneetatik kanpo 45 *presteeta* ‘prestaera’ dago eratorbidean asimilazioa gertatu ondotik, bai eta 86 & 89 *suuz* eta 157 *luurra* ere; hasiera batean azalbide etimologiko ilunekoak direla ematen du, baina dardarkari aurreko bikoitzea dagoke bietan; *su* dela eta, gogoratzekoa da *sur* aldaera zaharragoa (cf. *EHHE*, s.v. *su*).

4.8.2.3.7. XVIII. mendearen bigarren erdiko bigarren mailako testuen artean Iturrizak Andramendiko idazkiekin eginiko bertsioan hizkuntza-egoera zaharrago baten aztarnatzat jo daitezkeen aldaera gutxi batzuk daude, hala nola 7 *zaarrac* VhV > VV ondotik, 4 *baquaac* ‘bakeak’ absolutibo pluraleko aldaera eta etimologikoki

³⁶² Bide batez, bikoitz irakurri behar da bertso-lerroaren neurria 8 silabakoa izan dadin: *Jayo cinean / zori onean, / ceruetaco lorea: / Ceuxec isurten / dozu Adanen / humeenzat amore* dio ahapaldiak.

konposizioari loturik dirudien 6 *batzaarrian*.³⁶³ Egoera paradoxikoa da, halere, Andramendiko idazkien Ibarge-eko bertsoiak (zaharrak, alegia), 2-7 *çarrac* baitakar.

Ez dago bokal bikoitzik Zolloko galdetegian, Barnetxearen antzerki-laneko euskal testuan eta Gernikako eta Abadiñoako Gabon-kantetan.

4.8.2.3.8. 1800. urtera hurbildu ahala nabarmenagoa da zenbait idazlek bokal bikoitzen alde eginiko hautua. Hain zuzen ere, hautua estiloari edo hizkera literarioaren ereduari egozteko argudioen artean bi hauek aipa daitezke: (a) inguru bertuko idazleen artean alde nabarmenak agertzea; hots, idazle batzuen lanetan eskas eta beste batzuegan ugari agertzea bokal bikoitzak; (b) idazleek hiperzuzenketak, ezohiko formak eta azalbide etimologiko-historiko gaitzeko aldaerak baliatzea, bokal bikoitz etimologikoen inguruneak zabalduz eta/edo gaindituz.

4.8.2.3.9. Bermeo aldeko euskara imitatuta idatzi zuen De la Quadrak, eta harenean ere badaude bokal bikoitzak, baina egia esatera gutxi dira, sakabanatuta daude eta askotan gehiago dirudite aipatutako hautu estilistikoen zein idazlearen zalantzen ondorio.

<aa> taldeari dagokionez, zenbait adibide hiperzuzenketen ondorio izan zitezkeela proposatu zuen Bilbao ediziozileak (1997: 258), baina ez nuke baztertuko hiperzuzenketatzat jo daitezkeenekin batera erabilera zaharragoen arrastoak ere tartekatzea: beharbada hala nola *-aak* eta *-aan* dutenak, aurreko mendeetako testuetan zabal dokumentatzen direnak. Dotrinatik atereak dira 1-11 *campaac*; 1-11 *santaan*, 1-20 *banaan* & 1-35 *vanaan* adibideak (cf., halaber, *Exercicio*-etako 2-13 & 2-75 *santaan* eta 2-98 *culpaac*).

1-76 *hechaaz* & 1-78 *echaaz* aldaeretan *etxatu* ~ *etxadu*-ren adizkiei instrumental artikuluduna gehitzean <aa> gorde da, eta idazleak konposizioan identifikatutako elementuak markatu nahitik erator liteke *Exercicio*-etako 2-106 *vitaartu* ‘bitartetu’: gogoratzekoa da *bitaarte* aldaera arrunta dela XIX. mendearen hasierako bizkaitar idazle batzuen lanetan (*OEH*, s.v. *bitarte*).

Aurreko adibideez landara, De la Quadraren lanetan bakana da VhV > VV bilakabidea (1-14 *beeco* isolatua aurkitu dut), eta izenaren morfologiaren esparruko

³⁶³ Lekukotasun zahar ezagunena Oñatiko *bazaar* (1477) bide da, nahiz eta *bazierre* (1461) ere badagoen (Zumalde 1957: 97 eta 134 hurrenez hurren). XVI. mendearen hasieran *baçaharre* (gehienetan) eta *baçarre* ere badaude (cf. *EHHE*, s.v. *batzarre*); bestalde, “-zaar berrikuntza moduan ulertu behar da -ez zahar hipotesiaren aldeko datu gisa” (Lakarra et al. 2019: 87).

adibide gehienak *-ok* plural hurbilekoak, genitibokoak eta leku-kasu pluraletakoak³⁶⁴ dira. Arestian esan bezala, ordea, oso sakabanatuta daude.

Plural hurbilari loturik 1-11 (birritan) *oracinooc*, 1-48 *condiciñoocaz*, 2-59 *benetacoocgaitic*, 2-82 *Besooc* eta 2-93 *finbacooc* aurkitu ditut.

Genitiboan ugariagoak dira adibideak, baina kasu-markaren erabilera ugariagoari loturik dago egoera hori, proportzioan gutxi baitira genitiboan bokal bikoitza duten adibideak; zehazki, hogeita hamabi aldiz aurkitu ditut bokal bikoitzak genitiboan (singular, plural eta mugagabekoak zenbatuta), eta hogeita hamabi horietatik hogeita zortzi amaieran *-e* duten hitzetakoak dira (1-9 *confesoreen*, 1-34 *maiteen*, 1-56 *vorondateen*, 1-65 *erredentoreena*, 1-98 *traidoreen*, 1-102 *caridadeen*, etab.). Gainerako laurek *-a* dute amaieran: 1-65 *messeena*, 1-122 *doctrineena*, 2-87 *dongueena*, 2-93 *santeen*. Nolanahi ere den, halako aldaerek duten indar eskasaren erakusgarri da lagintzat hartutako lehenengo hamabi orrialdeetan dauden genitibo guztietatik (berrogeita hamahiru bat dira) bakar batek izatea <ee> bikoitza.

Leku-kasuetako *-eta* pluralean ere bakantasuna da bokal bikoitzen ezaugarri. Testu osoan hamaika adibide besterik ez ditut aurkitu: 1-16 *cruzeetan*, 1-70 (birritan) *laboreetatic*, 1-89 *ilabeteetan*, 1-110 *eguiteetan* & 1-123 *eguiteetatic*, 1-120 *nequeetan*, 2-42 *hecheetan*, 2-45 *unzeetatic*, 2-54 *messedeeetan*, 2-31 & 2-55 *erpeetatic*, 2-87 *unzeetatic*. Ingurune honetan, ikusten denez, hitz guztiek dute *-e* amaieran.

Deklinabide-marketatik kanpo, erakusle pluralen aldaera batzuek <ee> dute. Halakoek duten indarra neurtzeko dotrinaren atala begiratu dut, eta *oneec* & *onec* & *oneic* aldaerak ikusi ditut lehenengo graduko erakusle pluralari loturik (zortzi aldiz *oneec*, hogeita bi aldiz *onec* eta lau aldiz *oneic*), eta horien pareko *orreec* & *orrec* & *orreic* bigarren graduko erakusle pluralari loturik (sei aldiz *orreec*, behin *orrec* eta behin *orreic*).

Adjektiboei erantsitako *-egi* markak ere eragin ditzake bokal bikoitzak: 1-122 *luceeguijac*.

Aditzaren morfologiaren esparruan nabarmen gutxiago dira adibideak (hamar inguru), eta aipatutako *-eta-ri* loturik daude guztiak. *-a(d)u* oinarriari loturik daude 1-32 *peleetia*, 1-54 & 1-72 & 2-73 *deseetia*, 1-63 & 1-111 & 2-9 *deseetan*, 2-51 *gozeetia* & 2-63 *gozeetia*, eta *-n-ri* 1-27 *urteetia*.

³⁶⁴ Beste testu batzuetan ez bezala, halakoetan ez da <ae> > <ee> asimilaziorik gertatu De la Quadrarenean. Adibideak begiratuta ikusten denez, kasu guztiak dira amaieran *-e* + *-eta* bilkuran <ee> mantendu izanaren ondorio.

Aurreko kasu guztiekin batera, De la Quadrak hainbat aldaera harrigarri xamar eman zituen. Hala aurkeztu zituen Bilbaok: “Bokal bikoitzez amaitzen dira, arrazoi ezagunik gabe, zenbait hitz. Baina guztietan daude lekukotasunak hala bikoitzez nola bakunez” (1997: 264). Amaieran <ee> duten honako aldaera hauei buruz ari zen Bilbao: *urtee, gosee, obee, partee, tristee, eguitee, erpee, ordee, ustee, apartee, nequee, luzee*. Horietako baten bat *-eta-ri* (ere) loturik agertzen dela eta, ez dakit ez ote den halakoekiko analogian pentsatu behar aldaera bitxi horietako batzuk behintzat azaltzeko. Nolanahi ere den, azalbide hori izan ezin duten 2-29 *atoo* eta 2-98 *iragooco* ere badaude.

4.8.2.3.10. *Errosariyo santuba* liburuan ere badaude bokal bikoitzak, baina gehienak genitiboari eta lokatiboari lotzen zaizkie: 16 *erredentoreen*, 43 *magestadeen*, 44 *fede catholiqueen*, 44 *principeen*, 55 *benditeen*, 65 *neure maldadeen*, 71 *errequeen*; 89 *besteetan*, 89 *vesteetan* eta abar. Horiez landara, 12 & 56 & 68 & 72 & 92 *oneec* da sistematikoa, superlatiboan 67 *afligideena* dago, plural hurbilari loturik 50 *dolorosooc* agertzen da, eta aditz-izenari loturik 80 *emendeetan*.

Nolanahi ere den, testuan gehiago ematen dute begira hitz amaieran *-ee* duten aldaera batzuek; izan ere, ez dira ohikoak, eta *Errosariyo santuba* laneko hizkera De la Quadrarenarekin lotzen dute: 5 & 51 *urtee*, 55 *nequee* eta 69 *ustee* aldaerez ari naiz, zehazki (cf., grafiaren esparruko bat etortzeak direla eta, §4.2.3.4).

4.8.2.3.11. Bizkaiko ipar-sortaldeko garai hartako idazleen egoera arretaz aztertzekoa da, ezagun denez, Markina aldeko idazleak bokal bituen zale zirelako (Altzibar 1992: 417 eta hurrengoak). Esate baterako, Apoita bolibartarraren bederatziruunetan indar biziz agertzen dira, hainbat ingurunetan; 1800 aurretik Apoitaren euskara dago hurbilen Mogelek, Frai Bartolomek eta abarrek lehenetsitako erabileretatik:

- (i) Deklinabidean, genitibo pluraleko adibide ugari daude, erroko azken hotsa kontsonantea, *-a*, *-e* zein *-u* bokalak izan: 3 *guizoneen*, 8 *Gerubineen*, 9 *Serafineen*; 8 *berbeen*, 8 *obreen*; 3 *erregueen*, 5 *virtuteenac*; 4 *ainguerubeen*, 4 *santubeen* eta abar. Bestalde, *-eta-ri* lotuta daude 1 *obreetan*, 1 *berbeetan* eta 6 *santubeetara*, eta itxuraz analogiaz sortutako 1 *pentsamentubeetan* eta 6 *santubeetara*.
- (ii) Izenaren morfologiaren esparruko garaitiko adibideak erakusle pluralei dagozkie: 2 & 9 *areequin*, 3 (birritan) & 7 & 8 & 9 *oneen*, 6 *oneequin*, 6 *areen*.

(iii) Aditzetan *-eta* atzizkiak eragiten ditu bokal bikoitzak, oinarriak *-a(d)u*, *-e* edo *-tu* izan: [Sarrera] *logreetaco*, 1 *ameetan*, 1 *agradeetaco*, 2 *encargueetan*, 2 & *supliqueetan*, 4 *adoreetan*...; 1 *gordeetaco*; 1 & 3 & 5 & 6 & 7 & 8 *esqueetan*. Bestalde, analogiaz sortutakoaren itxura du 4 *sugeetauric* ‘gazt. *sujetado*’ aldaerak.

(iv) Konposizioan, *bitarte* eta *mirari* berben formetan aurkitu ditut bokal bikoitzak: [Sarrera] & 4 & 5 *bitarteco*, [Sarrera] *bitartecotzat*, 1 *bitartecotasunez*, 6 & 9 *bitarteco*; 8 *miraarigarritzco*.

Azkenik, aipa ditzadan asimilazioak sortutako 9 (birritan) *eroon* ‘eroan’ aldaera, azalbide etimologiko argirik gabeko 3 *luurreco*, 7 *ecerbeecerice*³⁶⁵ eta idazkera-akatsen zein idazlearen ziurgabetasunari egotz dakizkiokeen 7 *bustceen ebala*, 8 *erreguinaanian* eta 9 *ontasunee* kasuak.

4.8.2.3.12. Bizkaiko ipar-sortaldean osatzen ari zen hizkera-ereduarekin badu loturarik Bizente Sarria sermolari etxebarritarrek, Bizkai sortaldeko idazleen irizpideak aintzat hartu baitzituen bere lan batzuetan. Hemengo aztergaiari dagokionez, Sarria Bizkaiko mendebalekoa izanik eta aurretik iruzkindutako testuetako informazioaren argitan harrigarria da zenbat bokal bikoitz erabili zituen. Egoera bereziki harrigarria da inguruko idatzi garaikideetan bokal geminatuek izan duten leku eskasa gogoan hartuta. Ibilbide ezberdinekoak baina biak Nerbioi ibarreko idazleak izanik, Sarriaren eta Astigarraga basauriarraren sermoietako datuak erkatzean alde handiegia ikusi nuen orain urte batzuk, ondoko taulan ikus daitekeen moduan (Zuloaga 2010: 400).

1. taula. Bokal bikoitzen kopurua (Sarria vs. Astigarraga)

Bokal bikoitza	<aa>	<ee>
B. Sarria	± 30	± 480
J. I. Astigarraga	± 3	± 215

Erkaketa hori eta lehenagoko zein geroagoko inguru hartako egileen lanak aintzat hartuta, ez dirudi Sarriak erabili zituen bokal bikoitz gehienak grafiatik haragokoak direnik: 1750az geroztik Bizkaiko idazle batzuen artean ezarritako irizpideen eragina dakusat nik neuk Sarriaren erabilera horretan, nahiz eta horrek ez dakarren adibide guztiak automatikoki erabilera grafiko-estilistikoaren sortan sailkatu

³⁶⁵ VrV > VV bilakabidearen zein hitz-banaketaren bitartez azal liteke, baina lehenengo azalpenak *ee > e* bakuntzea ere gertatu izana eskatzen du.

behar direnik: hizkera-ereduaren hautuak eragindako kasuekin batera nahastuta egon daitezke fosilduta gordetako aldaerak.

(a) Datuei eurei helduta, bokal arteko kontsonanteen galeraren ondorioz sortutako aldaeraren bat arruntago ageri da bokal bikoitzez, bakunez baino; esate baterako, *laar-* aldaera hamabi aldiz aurkitu dut sermoitegian, eta aurka ditu sei bat *lar-*; halaber, hiru aldiz aurkitu dut *beeratu* aldaera eta behin hori oinarri duen 7 *beeratan*, 37 *beratu* salbuespen bakarrarekin; *ke* hitza behin aurkitu dut sermoitegian, eta bokal bikoitza du: 37 *quee*. Nolanahi ere den, gehienetan gutxiengoa dira aldaera bokal bikoiztunak: laurogeita hamar bat aldiz aurkitu dut *lehe-* > *lee-*, baina aurkako ehun eta berrogeita hamar *len-* ditu. Halaber, *zahar* > *zar* aurkitu dut behin (25 *zaarrian*), baina sei aldiz du *zar* aurka.

(b) Deklinabidean, *-aak* gutxi batzuk aurki daitezke (3 *ampulluaac*, 14 *gustiaac*, 23 *cantaac...*), bai eta plural hurbilak eragindako hamar bat adibide ere: 21 *confesiooc*, 22 *jocooc*, 27 *erregalooc*, 30 *agooc*, 30 *zorigaiztocooc...* Aitzitik, inesiboan ez dut *-aan-*ik aurkitu. Gainerako adibideak genitiboari eta kasu-lokatiboetako *-eta-*ri daude loturik, eta ez dira asko: hogeita hamahiru genitibo inguruk dute *-een* aldaera, eta hogeita lau bat kasutan agertzen da *-eeta* forma (aintzat hartzekoa da guztira hogeita hemeretzi sermoi direla). Hala kasu batean nola bestean atzizkiak oinarrian *-e* duten hitzei eranstean sortuak dira bokal bikoitzak: 1 *ceubeen*, 3 *erregueen*, 3 *confesoreena*, 7 *gentilidadeen*, 19 *semeen*, 25 *maldadeen*; 3 *urteetaric*, 6 *virtuteetan*, 6 *aldeetati*, 19 *ciudadeetan*, 22 *luzeetaco*, 35 *topeetara*. Amaieran *-e* ez duten kasuetan *-a* egon ohi da, baina adibideak askoz eskasagoak dira: 1 *peneen*, 1 *abazuzeen*, 3 *santeena*, 9 *gauseen*, 20 *Propheteen*, 29 *hembreen*; leku-kasu pluraletako *-eta-*n 2 *gauseetaraco* eta 2 *gauseetaric* besterik ez ditut aurkitu.

Superlatiboak ere eragiten ditu bokal bikoitzak, hala nola 3 *santeena* & 13 *santueenian* eta 11 *oneena* adibideetan.

(c) Aditzaren morfologiaren arloan aditz-izenetan badaude geminazio-kasuak: hamaika adibide aurkitu ditut *-eta* atzizkiari loturik (hamaika horietatik bederatzi *-a(d)u* partizipio-marka duten hitzetan daude (3 *peleetaco*, 11 *amateetaco*, 19 *deseetan* eta abar), eta gainerako biak *bete* aditzari dagozkio (12 *beteetaco*, 14 *beteetan*). Bestalde, zazpi adibide *-tze-*rekin: 23 & 25 & 35 *quenzeen*, 30 *galzeen* & 35 (birritan) *galceen*, 35 *arceen*, 37 *sarceeco*. Horiez kanpo, 7 *izateen* eta 7 *iracasteen* aurkitu ditut, beharbada analogiaz sortuak.

Beste alde batetik, *ba-* partikulako bokalaren asimilazioaren ondorioz sortutako bokal bikoitzak agertzen dira batzuetan, baina adibideak gutxi dira: 34 & 11 *beeguan*, 37 *beeban*, bokal soildua dutenak izanik arruntenak.

Gainerako adibideak morfema-mugetan sortutakoak dira. Guztira ehun eta hirurogeita hamabost bat aurkitu ditut: % 40 inguru pluralgile bikoitza duten kasuetakoak dira (1 *bauquee*, 1 *zaituezee*, 6 *zaree*, 11 *eguidazubee*, 23 *zaituezee*, 34 *zagozee...*), eta % 30 inguru datiboko morfemaren ondotik pluralgilea ezartzean sortutakoak (1 *deuzee*, 8 *dinozee*, 12 *baceunzee*, 19 *yaquee*, 22 *dirauzee*, 37 *euzeen...*). Horrenbestez, gutxi gorabehera adibideen % 70 dira bi sail horietakoak. Horietatik kanpo, bokal bikoitzak daude *-an* morfemaren aurretik, erlatiboko menderagailua zein lehenaldiko marka izan (1 *beuzeen*, 11 *cinzeen*, 37 *eijeen...*; 11 *cirauzeen*, 29 *leuqueen*, 37 *deutzeena...*), *-ala* menderagailuaren aurretik (12 *deuzeela*, 12 *dacuzeela*, 13 *deuzeela*, 30 *zareela*, 34 *dauqueela*, 34 *eutzeela...*) eta *-ke-* morfemaren ondotik NORK plurala ezartzean: 1 *zeitequeezan*, 12 *ceunquee*, 29 *leuqueen*, 37 *cenduquee...*

Adizki horietako bokal bituak egun Bizkaiko hizkera batzuetan bakandurik zein disimilaturik entzuten ditugun formen aurrekariak dira (*zaiteze* ~ *zaitezie*, *zarela* ~ *zariela*, *dauke* ~ *daukie* eta abar); alabaina, atal honen sarreran esandakoarekin bat etorritz, beti ez dago argi zeren ondorio den aldaera bakoitza. Añibarrok adizkietan pluraltasuna adierazteko erabili zituen <ee>-z ari zelarik, geminazio horrekin sortutako zenbait arazo agerrarazi zituen Urgellek:

NOR eta NOR-NORK adizkietan subjektua pluraleko 3. pertsona dela markatzen du, eta bi pertsonako iragangaitzean datiboa hura bera dela. (NOR)-NORI-NORK adizkietan, berriz, ergatiboa 1. edo 2. pertsona denean adierazten du (...), baina 3. pertsona denean ez du bereizten datibo ergatiboak singular ala plurala diren. (2001a: lxxxiii)

Ematen du beste horrenbeste gertatzen dela Sarriaren sermoietan. Honako hauek etxebarriarraren adibideak dira: 1 [*eraguiten*] *deuzee* ‘hark haiei’, 7 [*ematen*] *euzeen* ‘hark haiei’, 12 [*aguinduten*] *deuzee* ‘hark haiei’, 12 [*ifintzen*] *deuzeezan* ‘hark haiei’, 13 [*eguiten*] *badeuzee* ‘haiek hari’, 18 [*quenduten*] *deuzee* ‘haiek hari’, 19 [*ezcatuten*] *deuzee* ‘haiek hari’, 21 [*quenduten*] *badauzee* ‘hark haiei’, 23 [*iracaci*] *euzeena* ‘hark haiei’, 24 [*esango*] *deuztee* ‘hark niri’.

(d) Konposizioari lotutako hitzetan ere agertzen dira adibideak Sarriaren sermoietan. Alde batetik, *-(t)ar* atzizkiari loturik daude 1 *Persaarrac*, 1 *Chinaarrac* eta 3 *Cretaarrac*. Beste alde batetik, *-ari* atzizkiak eragin ditu bokal bikoitzak 13 & 14 *guraari* eta 14 *edaari* aldaeretan.

(e) Jatorri ilunekotzat jo izan diren 14 (birritan) *jaanari* ea 37 (birritan) *jaatera* aldaerak *jan* < **e-da-ban* bilakabidearen bidez azal daitezkeela aipatu dit Joseba A. Lakarrak aurrez aurre. Hartara, ohiko VCV > VV eskemaren araberrako galera legoke bietan. Bestalde, dardarkari aurreko bikoitzapena du *luur* ‘lur’ aldaerak, eta Sarriaren sermoietan ugari agertzen da: laurogeita bederatzi aldiz aurkitu dut. Azkenik, behin aurkitu dut *suu* aldaera: 18 *suuan* (cf. *EHHE*, s.v. *su* berbaren *sur* aldaera zaharragoaz).

4.8.3. Eremu mugakideetako testuak: Araba eta Deba ibarra

4.8.3.1. Bizkaiko eremu mugakideetan eta 1600 aurreko testuetan Bizkaikoaren antzekoa da egoera: bokal bikoitzak ez dira inon sistematikoak eta bakan agertzen dira han-hemen.

XVII. mendea baino lehenago, Arabako testuak bi multzotan bana daitezke bokal bikoitzei dagokienez: alde batetik, testu berritzaileagoak edo berritzaileenak daude, non bokal bikoitzak oso gutxi baitira; beste alde batetik, Lazarraga eskuizkribua dago, non ugariagoak baitira bokal horiek.

4.8.3.2. Testu laburrenetan eskas dira bokal bikoitzak, eta inflexioari daude lotuta: IacobGeb 2 & 4 *eguiia* (gogoratu §4.4.4.2.1 atalean emandako azalpen posiblea: *egia* + *-a* > *eguiia* > *egia*). Bestalde, ErrodZar eresian zalantza eragiten dit hitz batek: lan batzuetan 19 *arren*, *echosu orain osaba*, *bixeoc justa gaytean* ematen du Arriolabengoak (1996: 94, 2006: 225), baina gerora *bixooc* eman izan du (2008: 103; halaber Kalzakortak –2010b: 44–, Arriolabengoa iturri zuela).

4.8.2.3.3. Gasteizko eta inguruetako testuak berritzaile dira, oso: Landuccirenean bokal bikoitzen bi adibide besterik ez ditut aurkitu (begiratu Mitxelena 1958: §7): batetik, *cabra montesina* - *basaauça* konposizioan; bestalde, *jacinto piedra* - *aarri preçiadua jacintoa*. Azken horretan akatsa dagoelakoan nago, *ha harri preziadua* bezalako egitura batean pentsatzea baita bigarren aukera, baina egitura hori askoz beranduagokoa baita.

Betolatzaren dotrinan ez dut bokal bikoitzen adibiderik aurkitu.

4.8.2.3.4. Hizpide dudan ezaugarriari dagokionez, Lazarraga eskuizkribua da Arabako testu zaharretan gordetzailena: horretan ere ez dira sistematikoak, baina hainbat testuingurutan agertzen dira. Mounoleren (inprimategian) gramatika-deskripzioetik atereak dira sailkapen eta adibideok:

Kontsonanteen galeren ondorioz sortutakoak dira B23:20 *çaarçat*, AL:1134v & AL:1143v, AL:1144v, AL:1145v, AL:1151r, A7:17 *leen*, AL:1154r *leengo*, AL:1153r

& A25:41 *beera*, A10:7 *miiau*, A27a:41 & A27b:41 *miiric*; AL:1151v *baceequi*, A7:99 *ezpaceeguit* eta A26:59 *ceeguidan*.

Deklinabidean, absolutibo pluralari eta inesibo singularrari dagozkie hauek, hurrenez hurren: AL:1143r & AL:1153r *bervaac*, AL:1143v *donzellaac*, AL:1144v *erropaac*, A23:53 *capaac*, B20:12 *quexaac*; A7:107 *domecaan*, A24:27 *arcaan*, B5:83 *placaan*; B18:10 *coraçaacaz*.

Ergatibo pluralean ere behin agertzen da *-aac* disimilaziorik gabe: A21:11 *ayta-amaac*.

Artikulu hurbilak <oo> bikoitzapena eragiten du Lazarragarenean, beste testu batzuetan legez: A6:19 *isasoori*, A6: 15 *isasoorec*; AL:1143r *dolorosooc*, A8:24 *condiciooc*, A29:46 *dicipulooc*, B5:19 *çure lacooc*; B5:12 *virtuosooen*.

Halaber, leku-kasu pluraletan behin baino gehiagotan ageri da <ee>, *-eta* tarteko: AL:1145v *amoreetan*, AL:1146v *aldeetara*, AL:1153v *aldeetati*, A7:63 & A28:53 *portaleetan*.

Aditzetan, lehenengo silaban daude zenbait <aa>: AL:1147v *çaatean*, A6:2 *çaaquit*, A7:115 *gaacustenac*, A19:56 *ezpanaagui*. Alokutiboko formaren batek ere <aa> du (A25:45 *jaucaat*), eta *-ke* + *-e* bilkuran <ee> ere dago: AL:1153r *euqueen*. Azkenik, *jan-en* eta *izan-en* <aa> bikoizturik ageri da ondotik morfemaren bat (zehazki, Lazarragarenean aditz-izenetako *-te* baino ez) gehitzean: A17:30 *ıçaatea*, AL:1145v & AL: 1147r *ıçaaten*; A26:55 & B15:71 *jaaten*, A24:89 *jaateraco*. Azken aditz horren kasuan, arestian aipatutakoarekin bat, etimologikoa bide da bokal bikoitza Lakarrak proposaturiko **e-da-ban* etimologiaren argitan.

Konposizioaren eta eratorbidearen arloko bi adibide besterik ez daude, eta biak dira arazotsuak edo ilunak. Alde batetik, B2: 1 *erdeeraazco*-ko <ee>-a konposizioari egotz dakioke, baina ez dut azalbide etimologiko egokirik aurkitu <aa> azaltzeko (begiratu Bilbao *et al.* inprimategian eta Mounole inprimategian). Beste alde batetik, B29:72 & 94 & 97 *belaarri* aldaera konposizioari loturik azaldu izan da: “**bela-arri*, agian galdu den bokal arteko kontsonante batekin: **bela-garri*. *-l*-aren ordeztu beste kontsonante bat daukaten aldaerek arazo desberdin bat sortzen dute. Agian **beha-garri* proposatu dezakegu, eta *behatu* aditzarekin lotu” (Hualde 2005: 300); cf., ildo beretik, Mitxelena (1950a: 20) eta *EHHE*, s.v. *behatu*).

Laburbilduz, beraz, Arabako lekukotasun arkaikoetan gutxiengoa dira bokal bikoitzak, eta Lazarraga eskuizkribuan agertzen dira beste inon baino ugariago. Gasteiz aldeko testuak, aldiz, berritzaileagoak dira.

4.8.2.3.5. Euskara Zaharreko (1600-1745) testu laburretan ere oso bakan agertzen dira bokal bikoitzak Araban: MendietaKoa 1 *yruroguetaamasei* hitzen banaketa-kontua izan daiteke, eta horrez gain Sevilla1619 testuak 77 *armaaq* dakar absolutibo pluralean, eta Portalen olerkian <ee> bat dago, 29 *Probeen*, genitibo plurala, tinbre bereko bokalak elkartzean. Ez dut bokal bikoitzik aurkitu Iturberen eta Portalen testuetan, ez eta Urduñako hitz-zerrendan ere.

4.8.2.3.6. 1745 ondoko testuen artean DotrSerm mardulean daude bokal bikoitzak, baina ez Gamizen eta Albenizen testuetan.

Ulibarriri (2015: §4.2.1.5) jarraikiz, oso gutxi dira bokal arteko kontsonanteen galerek DotrSerm testuan eragindako bokal bikoitzak: *lehen* eta *zeren* hitzei lotutakoak besterik ez daude, horietan fosildu izan balira bezala.

Deklinabidean ere adibideak ez dira oso ugariak: behin ageri da *-aan* inesibo singularra (7 *demporaan*) eta lau aldiz *-eta* leku-marka pluralak eragindakoak: 4 *adisquideetan*, 21 *humeetan*, 25 *confesiñoetaco* eta 43 *miseriyetara*. Genitiboan proportzio hauek deskribatu zituen Ulibarririk (2015: 140) *-een* eta *-en* aldaeren artean, hitzaren amaiera zein den:

2. taula. Genitiboko *-een* eta *-en* aldaerak *Dotrinazko sermoitegi*-an

Aldaera	<i>-een</i>	<i>-en</i>
<i>-a</i>	135	93
<i>-e</i>	173	82

Ulibarririk dioenez, “egileak testuinguru hauetan baino ez zituen ondo bereizten (eta, ondorioz, islatzen) bokal bikoitzak, bertan luzaroen irauñ zutelako nonbait” (2015: 140).

Aipatutakoez landara, ablatiboan [*-reen bat/batzuk*] dago, mendebaleko beste testu zahar batzuetan bezala. Halaber, artikulua hurbilek zenbait bikoizte eragiten dituzte tinbre bereko bokalak biltzean: 3 *Jangoicoonec*, 98 *misteriyoonen*, 94 *preciosoonecas*; 71 *santaau* eta abar.

Aditzaren morfologiaren esparruan aditz-izenetan bokal bakuna da emaitza ohikoena, baina adizki gutxi batzuetan gehiago irauñ bide zuten bokal bikoitzek: *deseadu* (hogeita zazpi adibide), *enpleadu* (zortzi adibide), *peladu* (hiru adibide), *akarreadu* (hiru adibide), *faltadu* (adibide bat), *parkatu* (adibide bat) eta *paseadu* (adibide bat) aditzak aipatzen ditu Ulibarririk, eta *-eeta* eta *-eta* duten adibideen kopurua erkatu (2015: 141-142).

Aditz laguntzaileetan aurreko mendeetako ingurune berberetan ageri dira bokal bikoitz batzuk *Dotrinazko sermoitegi*-an. Honako hauek aipatzen ditu Ulibarrik (2015: 142): *dauquee, euqueela, deusees, leuquee, beequila*, nahiz eta bokal bikoitzik gabeko aldaerak ere badaudela-eta inoiz perpauz berean era batera zein bestera ager daitezkeela zehazten duen; cf. 403 *gure estaudela [demonioek kondenatuei] sartuco deusees sugueac eta sapoac aoti eta yango deuses guibelac eta viozac*.

Aurrekoetatik kanpo uzkurduren eta asimilazioen ondorioz gertatutakoak aipatzen ditu Ulibarrik (2015: 142): 60 *yminteeudesan*, 379 *eiteeben*; 22 *boteevela*, 394 *acabeesas*; 61 *verbeeiten*. Arazleetan ere gerta daiteke asimilazioa eta bokal bikoitzak gordetzea, adibide honetan bezala: 22 *boteerasaiteco*.

Konposizioaren arloa da guztietan ñabarrena Ulibarriren esanetan (2015: 141), eta asimilazioek are emankorrago egiten dute. Hitz-elkarketan 391 *enojaaldigas* & 194 *enojaaldigues*, 394 *aserraaldicas*; 212 *yostoorras* aipatzen ditu. Eratorbidean, aldiz, 325 *esebereetasune*.

Aurreko guztiez gainerakoak azalbide etimologikorik gabekoak dira, eta, egia esatera testuaren tamainak adibideen kopuruan eragina badu ere, harritzekoa da zenbat aldaera azalgaitz azaltzen diren bai deklinabide-markei loturik, bai adizkietan. Zerrendaturik ematen ditudan hauek aipatzen ditu Ulibarrik (2015: 143):

- (i) Deklinabidean: *Jaunéeu, diferenciyeeu; lecuaaic; tilinqueeric; suaac, profeteaac, aiteaac; egunaari; aoaan; dagoanaatan, egunaatan, saburdaatan; visisaaco; mendiyaatara; salduiteaagas, arguiyaagas; egunaataguiño; eguiyaacas*.
- (ii) Adizkietan: *deusees, ditueesanac, eguiyeela; dagoeena, diñoeena, equiyeen, eguiyeenean; estagoaala, eguiyeela*.
- (iii) Bestelakoak: *bareuena* eta *Magdaleena*.

4.8.4. Gipuzkoako mendebaleko testuak

4.8.4.1. Deba ibarrekoak

4.8.4.1.1. Deba ibarreko testuetako adibide zahar gehienak (1600 aurrekoak) Debagoienekoak dira, nahiz eta iparralderago ere baten batzuk agertu. Bestalde, lekukotasun gehienak $VhV > VV$ aldaketaren ondokoak eta deklinabidekoak dira.³⁶⁶

³⁶⁶ Garibai B28 *al ba aquio* eta A21 *alua aquio* bezalakoetan baldintzaren partikula (*ba-*) eta **edin*-en laguntzailea bereizita idazteak ez du gehiegi laguntzen ahoskera zein zen argitzeko, baina zentzuzkoa da pentsatzea *baaquio* ahoskatzen zela.

(a) Aipatu bezala, kontsonanteen galeren ondorioz sortutako guztiak VhV > VV galeraren ondorio dira: Garibai B36 *Naarra* ‘lahar’, B38 *çaarra*, A53 *miia* (baina B31 *miña*); MLastur 30 *leen*.

(b) Deklinabidean, absolutibo pluralean eta inesibo singularrean besterik ez ditut aurkitu bokal bikoitzak: Garibai B60 *Sara-ac*, B42 *Nolaango*, B42 *Alaango*; SarasketaHiz *chir[r]icaac*, *mycheletaac*, *cardaac*, *carducaac*. Ematen du, bestalde, Sandailia *oondaco* < *oendaco* ‘horiendako’ aldaeratik azaltzea dela errazena (cf. Lazarg *oec*, *oegaz*, *oen*, *oençat*, *oetan*, *oequin* aldaerak, *apud* Blanco & Krajewska inprimategian).

(c) Eratorbidean, *-(t)ar* atzizkiak ez du bokal bikoitzik eragiten ArrasErreII 3 *gurajarra* ‘guraiarra’ gentilizioan.

Aurrekoez gain, Garibai B31 errefracu azalpenean agertzen den *lataaguina* forma arazo-iturri da, ez baitu azalbide etimologikorik: “algunas geminaciones sin justificación etimológica (como Gar. Cc. 79 *lataaguina* ‘el colmillo’, traducido «la muela», de *bet-agina* < *begi* ‘ojo’)” zioen Mitxelenak (*FHV* 92).

Euskara Zaharrean (1600-1745) ugariagoak eta luzeagoak dira testuak Deba ibarrean, eta badirudi bokal bikoitzak batzuetan beste batzuetan baino hobeto gorde zirela; zehazki, Antzuola eta Bergara aldean kokatu izan diren Amiletaren testuak eta 1708ko sermoiak biltzen dituzte adibide gehienak.

4.8.4.1.2. Amilletaren dotrinari helduta, 1 *zaarrac*, 4 *Leenago*, 5 *Leenagoco*, 5 & 6 *Leenengoa* eta 6 *Leenengo* daude VhV > VV galeraren ondotik, eta gainerako adibideak deklinabidekoak eta adizkietakoak dira. Bestalde, Bizkaiko beste testu zahar batzuetan bezala, *bada* > *baa* > *ba* bilakabidea buruturik ageri da Amilletarenean: hamalau aldiz aurkitu dut *ba* ‘bada’, eta 4 *padecidu beeban* zein 5 *igo beeban* aldaerak agertzen dira, nahiz eta gutxiengoa izan; esate baterako, bost aldiz daude *bira* & *vira* aldaerak, eta behin 4 *boço* eta 5 *beusan*.

Deklinabidean, *-aak* eta *-aan* aldaerek biltzen dituzte adibide gehienak: 1 (birritan) *obraac*, 2 *Prophetaac*, 3 (birritan) *verbaac*, 5 *penaac*; 1 *santaan*, 4 *capaan*, 4 *jaijozaan*, 5 *sepulturaan*, 5 (birritan) *escumaan*, 6 *elizaan*, 6 *gloriaan*. Horietatik kanpo, genitiboan daude adibide bakan batzuk, denak ere pluralari loturik: 5 *areen*, 5 *ereen*, 6 *ileen*, 6 *fieleen*, 6 *ereendaco*.

Erakusle pluraletan ohikoak dira <ee> bikoitzak; zehazki, 3 (bost aldiz) & 6 (bi aldiz) *oneec* eta 4 (bi aldiz) & 5 & 6 *orreec* aldaerak aurkitu ditut.

Amaieran *-e* duten adjektiboei superlatiboko marka eranstea ere <ee>-ri eusten dio 4 *excelenteena* adibideak.

Aditzaren morfologiari helduta, aditz-izenetan 5 *arceen dau* besterik ez dut aurkitu asimilazioarekin.

Adizkietan Lazarragaren eta Kapanagaren absolutibo ondoko bokal bikoitz azaldu gabeak gogorarazten dituzte 4 *alzaatean*, 4 *aldaatean*, 4 & 5 *aliçaateque* adibideek; bestalde, 4 *jaaconac*, 4 *jaaco* eta 5 *jaateen* aurkitu ditut datiboko marka zaharraren ondotik.

Pluralgile eta menderagailuei dagokienez, bokal bikoitza du 6 *dabee* aldaera pleonastikoak, eta *-an* menderagailuaren zein iraganeko markaren aurretik bokal bikoitzak dituzte kasu gutxi batzuek (5 *satisfacidu ez ebeenac*, 6 *predicadu ebeen*). Beste horrenbeste gertatzen da *-ala* menderagailuarekin: 5 *dauqueela*, 5 *dacuseela*, 5 *gozacen dabeela* eta abar.

4.8.4.1.3. 1708ko sermoian ugariago eta ingurune gehiagotan agertzen dira bokal bikoitzak, nahiz eta VhV > VV bilakabidearen adibide guztiak *leenengo* eta *leenago* aldaeretan besterik ez ditudan aurkitu (bederatzi dira orotara, aurkako bi *len-en* aurka). Bestalde, behin ikusi dut VnV > VV, hain zuzen ere 9r *domeequea* adibidean.

Baldintzetako *ba-* partikula ondoko bokalak asimilatuta ageri da inoiz edo behin, tartean bokal arteko kontsonantea galdu ondoren: 6r *cumplietan ez voozu* ‘kunplitzen ez baduzu’. Horrekin batera, *buurtu* ‘bihurtu’ aldaera lexiko asimilazioduna arrunta da testuan: 6v *vuurtu*, 6v *buurzen* & 6v *vuurzen*.

Izenaren morfologiaren esparruan, absolutibo pluraleko *-aak* atzizki-aldaerak eta horri erantsitako markek biltzen dituzte adibide gehienak: 2v *tristezaaq*, 2v *alegriaaq*, 2v *penaaq*, 4r *riquezaaq*, 4v *dichaaq*, 6r *ugazabaaq...*; 2v *alegriaacaz*, 2v *consueloaacaz*, 4r *verbaacaz*, 5r *penaacaz*, 6r *criadaacaz*, 6v *alabaacaz...*; 3r *pecatuaacaiti*. Inesibo singularrean *-aan* duen adibide bakarra aurkitu dut (6v *coleraan*).

Gainerako deklinabide-kasuak direla eta, genitiboan ageri dira <ee> batzuk, gehienetan amaieran *-a* amaiera duten hitzetan: 2r (birritan) & 2v *arimeen*, 2v *peneen*, 6v & 7r & 9r *alabeen*, 6v *familieen*; bestalde, amaieran *-e* duten forma hauek gorde dituzte bokal bikoitzak pluralean: 6r *umeen*, 7r *semeen*. Nolanahi ere den, gutxiengoak dira genitiboan <ee> duten adibideak: hirurogeita hamabost bat genitibo-kasuren artean hamar batek besterik ez dute <ee>.

Leku-kasuetako pluraleko markak genitiboarenak baino adibide gehiago eragiten ditu: 4v (hirutan) *ateetan*, 4v *oneetatic*, 5r *deungueetariq*, 5r *esseetan*, 6v *echeetara*, 7r

(birritan) *deungueetan*, 8 *gauceetan*, 8v *vanidadeetan*, 9r *gauzeetan*, 9r *oneetaraco*, 9r *taberneetaraco*. Ikusten denez, ia erdi eta erdi dira amaieran *-a* eta *-e* duten formak.

Izenaren morfologiari loturik, 7r *sentenciaau* adibidea hitz-banaketari egotz dakioke, ez baita $a + a > ea$ gertatu, beste testu batzuetan ez bezala. Artikulu zaharren itxura dute, halaber, 7r *obligacinoonegaz* eta 8v *beneficioonecaitiq* adibideetakoek.

Erakusleetan arrunt agertzen dira bokal bikoitzak pluraleko formetan: 3r *trabajuoneeq*, 4v *oneetariq*, 3v *oneeq*, 8v *oneecaiti*, 9r *oneetaraco*; 6v *pesadumbreorreen*.

Aditz-izenetan *-eta*-rekin eratutakoetan oso ohikoa da bokal-bikoiztea asimilazioa gertatu ondotik. Guztira hirurogei adibide inguru bildu ditut, eta gehienak *-a(d)u* partizipio-markari daude loturik: 2r *obreetan*, 2v *erregañeetan*, 3r *alivietaco*, 4v *Pondereetan*, 5r *aparteetaco*, 6v *descuideetan* eta abar. Bestalde, *-tu* partizipioari loturik *begiratu* aditzaren formak ageri dira bokal bikoitzez: 2v & 5r (hirutan) *vequireetaco*, 5r & 7r *vegireetan*. Halaber, asimilazioa dago *-tze*-ren ondotik honako adizki hauetan: 6v *galceeco*, 6v *sarzedira*, 7r & 8v & 9r *galceen*.

Adizkietan pluralgilea birritan ezarrita sortutako aldaera pleonastikoak ugari (hirurogeita hamarretik gora) dira: 6r *vear dabee*, 9r *empleetan dabee*, 6v *erreprendietan dituztee*, 5r *vadauquee...* Bestalde, <ee> agertzen da datiboko markari pluralgilea gehitzen zaionean (4r *esaten ez deustee*, 8v *falta jatee...*). Halaber gertatzen da *-ke + -e* bilkuran (6v *neusquee*).

Menderagailuen inguruan ere sortzen dira bokal bikoitzak bai asimilazioaren ondoren, bai tinbre bereko bokalak bildu direlako. Honako hauek *-ala*-ri dagozkio: 2r *seguizen euseela*, 2r *errepertidu egu[i]eela*, 4v *eztabeela conseguiduco*, 6v *galdetu eusteela...*; beste hauek, aldiz, *-en*-i: 2r *padecietan even necesidadeaq*, *dauqueenai*, 2v *vear dabeen*. Fenomeno berbera gertatzen da lehenaldiko markarekin: 2r *obedecidu euseen*.

Beste testu zahar eta moderno batzuetan bezala, *edan* aditzaren formei bestelako morfema bat eranstean arrunt bikoizten da <aa>: 3r *edaatecoagaz*, 3r *edaateco*, 6v *edaaten*, 7r & 8v *edaatecoan*.

Aurreko inguruneetatik kanpo, Amilletaren dotrinan ez bezala, 1708ko sermoian aurkitu dut eratorbideari lotutako bokal bikoitzen bat, hala nola 2v *miraarico*.

Azalbide etimologikorik gabekoen artean dago 4r *ponderacinooriq*, eta kasu honetan ere ez dakit ez ote litzatekeen *ponderacinoeriq* aldatu behar (cf. Kapan 96 *restituciñooric*), nahiz eta Bergara/Antzuola inguruan aldaera hori ez lekutu.

4.8.4.1.4. Deba ibarreko 1600-1745 arteko gainerako testuetan hainbat testuingurutan agertzen dira bokal bikoitzak, baina ez Amilleta eta 1708ko sermoian bezain ugari, nahiz eta testuen luzerak ere eragina duen horretan. Hona hemen garai hartako testuetatik ateratako adibideak:

VhV > VV galeraren ondorioz sortuak dira EibarKoplZah 3 *beera*, Barrutia *Leen*, EibarKopl 18 *Leen*, 20 *Leenago*.

Deklinabideko adibide gehienak genitibokoak dira, hitzaren amaieran *-a* zein *-e* egon, hala tinbre bereko bokalak bildu eta soiltzeke geratu direlako nola tinbre ezberdinekoen artean asimilazioa gertatu delako: EibarKoplZah 2 *gasteen*, ArrasBand 6 & 22 *eureen*. Halere, badago bestelako adibide bakanik ere: ArrasBand 14 *ainbat lasterreen*, 4 *bideettati*.

Adizkietan oso gutxi dira adibideak. Lehenik, *-eta*-ri loturiko bokal bikoitza du Arrasateko udal-bandoko 10 *asentteetan* adibideak; bigarrenik, *-tze*-k eragiten du bikoitzapena testu bereko 13 *arseeco* adibidean. Hirugarrenik, *-ala* menderagailuari loturik dakar Barrutiak 86 *dezeela*.

4.8.4.1.5. Azalbide etimologikorik gabeen artean EibarKopZah-ko 25 *Palaciooac* besterik ez dut aurkitu.

4.8.4.1.6. Irureren lanean, Arrasateko ahapaldian eta Itziarko Ama Birjinaren omenezko XVIII. mendearen azken hamarkadetako testuetan ez dut bokal bikoitzik ikusi,³⁶⁷ eta data zehatzik gabeko IsSagEsp testuan ere gutxi dira adibideak: 4r *leen*, erroan, VhV > VV gertatu ondotik; 4v *arcean* inesibo singularrean; 1r *oneen eta gaizeen*, 2v *umeen* eta 4r *Noeen* genitiboan; 2v (birritan) *umeetara* leku-kasu pluralerako *-eta*-ri loturik eta halaber 1r *ameetaco* adizkian; 1r *euqueela -ala* menderagailuari loturik; eta 1r *jaateco* hainbat lekukotasunetan ohi bezala *jan* aditzari beste morfema bat erantsi ondoren.

4.8.4.2. Urola ibarrekoak

4.8.4.2.1. Urola inguruko testu zaharrenetan bokal arteko kontsonante bat desagertzeak eragindako bokal bikoitz gehienak VhV > VV gertatu ondokoak dira, eta *lehen* hitzari dagozkio (SumBrev 3 *leen*, ErrezilGut 1 *leen*). Horiekin batera, *-ae*- > *-ee*- asimilazioak eta tinbre bereko bokalen bilkuretan sortutakoak aurki daitezke: SumBrev 3 *sarzeen* eta 7 *eztebeenak*. Nolanahi ere den, beste hainbat hizkeratan bezala, ordurako

³⁶⁷ Azken horiek direla eta, Itziarko bertsoetan 2-1 *Peneen* dakar *Euskal Erria* aldizkariko 1887ko bertsoak eta, horri jarraikiz, *ConTAV*-ek; aldiz, Aldazabalen 1767ko bertsoan *Penen* argia da.

aurreratua bide zen bokal bikoitzak bakuntzeko prozesua, adibideak gutxi baitira (bide batez, Etxaberen *Ave Maria*-k 3 *vecatariac* dakar absolutibo pluralean).

4.8.4.2.2. Lehen Euskara Modernoan agertzen dira Urola inguruan beste edozein sasoitan baino bokal bikoitz gehiago, baina testuen luzerak eragindako ugaritasuna besterik ez da: Azpeitiko 1740ko gutunetan ez da bokal bikoitzik agertzen eta udalerrri bereko 1786ko udal-aginduan 34 *echeetara* eta 35 *urteeroco* besterik ez daude; aitzitik, *Gtour* antzerki-lanean hiru motatakoak daude: (a) VhV > VV galeraren ondokoak, *lehen* hitzari lotuak (4r *leenagotican*, 4r & 6r & 8v & 9v & 10v *leen*, 5r & 10v *leenago*, 6r *leendic*), eta VrV > VV ondoko 4r *icheen* ‘itxaron’ (baina 4r *icheteen*); (b) asimilazioaren ondorioz sortuak (2r *cireena*, 4r *sarzeen*, 6v *plazeetan*); (c) tinbre bereko bokalen bilkurak (5v & 6r *caleetan*).

4.8.4.2.3. Peñafloidaren testuetan hainbat adibide aurki daitezke. VhV > VV galeraren ondorioz sortuak dira *GavS* 18 *aariac* eta *BorrB* 16 *baau*; absolutibo pluraleko markari dagozkio *GavS* 6 *elizaac*, 6 *coplaac*, 8 *cantaac*, 10 *seguidillaac*, 33 *ezpataac*, 33 *lanzaac*, 34 *pistinaac* eta *BorrB* 8 *erriertaacgatic*; asimilazioz sortutakoa *GavS* 9 *gauzeen*; eta tinbre bereko bokalen bilkuraren ondoriozko *GavS* 21 *gasteenai*.

4.8.4.2.4. Larramendiren Azkoitiko sermoian 49 *loraa* ageri da absolutibo singularrean, bai eta *beraa* eta *minberaatu* ere, erdialdeko hizkeretan ohi bezala (*OEH*, s.v. *bera*); horiekin batera, tinbre bereko bokalen bilkurek eragin dituzte *doloreen*, *gaitzbagueena* eta *tristeena* bezalakoak, eta *orreec* erakusle plurala ere badago.

4.8.4.2.5. Loiolako XVIII. mendeko sermoi argitaragabeetan ere “Badira bokal bikoitzak ere, gehienbat deklinabidean *-a-z* nahiz *-e-z* hasten diren atzizkietan (leku kasuen eta genitiboaren pluralak), hala nola kontsonante baten galeraren ondorioz: *aिताac*, *circunstanciјаac*, *ugazabaac*, *echeetan*, *ateetan*, *alabeen*, *arimeetan*, *gorpuceen*, *beera*, etab.” (Segurola 2001: 259). Alabaina, Loiolako dotrinan oso urriak dira bokal bikoitzak: 35 *leen*, 37 *dauqueela*; cf. Altuna (1995a: §1.3.2).

4.8.4.2.6. Jatorri ezagun zehatzik ez badu ere, Misererean ageri diren zenbait ezaugarrik Gipuzkoako mendebalekoa edo hegoaldekoa dela erakusten dute ($a + a > ea$ disimilazioa eta **edun*-en adizkietako *-e-* erroa ditut gogoan). Bada, bokal bikoitzei dagokienez, aipatzekoa da adibide gehienak VhV > VV gertatu ondokoak direla: 8 *aaria*, 8 *chaala*, 89 & 90 *chaalcho*, 94 *leenean*. Horiez gain, 53 *bideen* besterik ez dut aurkitu.

4.8.4.3. Goierriko testuak

4.8.4.3.1. Goierriko testu zaharrenetan Gipuzkoako beste inguru batzuetakoetan baino hobeto gorde ziren bokal bikoitzak. Alde batetik, 1705eko Gabon-kantan 1 *olaan* dago inesibo singularrean; beste alde batetik, Otxoa Arinen dotrinan aurreko azpi-ataletan deskribatutako ingurune gehienetan aurki daitezke adibideak, oso gutxi izan arren:

- (i) Bokal arteko kontsonanteen galeren ondoren (VhV > VV eta VdV > VV): 45 *maats*, 6 *Leenengo* eta 6 & 7 & 12 & 15 *leenengoa*, 7 *leen*, 149 *leenaz*, 163 (bost aldiz) & 164 (bi aldiz) & 165 *hoostu*, 163 *hoostutcera*, 165 *hoostutcea*, 166 *hoostutceaz*; 41 & 142 & 144 *diite*, 138 *liitean*, 140 & 145 *liite*.
- (ii) Deklinabidean, absolutibo pluralean eta inesibo singularrean: 101 *faltaac*, 170 *onetaa[n]*.
- (iii) Asimilazioaren ondorioz (gehienetan, *-tzeen* aldaeran): 15 *arceen*, 37 *aizqueneengo*, 39 *galtceen*, 30 *quentceen*, 41 *galtceeco*, 143 *mercit[c]een*, 153 *sartceen*, 167 *quentceera*.
- (iv) Tinbre bereko bokalen bilkuretan: 16 *dabeela*, 56 *excelenteèna*, 156 *orreenen*.
- (v) Konposizioan: 20 *acabeerarican*.
- (vi) *Edan-i -te* morfema gehitzean: 72 *edaateco*.

4.8.4.3.2. Zegamako dotrinan gutxi dira bokal bikoitzak; zehazki, *lehen* hitzari dagozkio aurkitutako adibide guztiak: 6r & 7r *leen*, 17r *leenengo* eta 42r *leembitcicoa*. Horiekin batera, aintzat hartzekoa da testu horretan <h> grafikoak hiatoa markatzen duela zenbaitetan (Ondarra 1984: 8). Halere, gogoan hartzekoa da oraintsu arte behintzat Zegaman entzun zitezkeela bokal bikoitzak (Hualde & Gaminde 1997: 220).

4.8.4.4. Mendebal zabalaz haragoko testuak

4.8.4.4.1. Mendebal zabaletik kanpo, Gipuzkoako testu arkaiko eta zahar gutxitan aurkitu ditut bokal bikoitzak, baina testu horien tamainak zuzeneko eragina du agerrera falta horretan guztiak laburrak baitira eta laburtasun horrek bokal bikoitzak agertzeko inguruneen kopurua murrizten baitu. Ez dut bokal bikoitzik aurkitu Lardizabalen 1655eko gutunean, Beotibarko kantuan, Tolosako 1557ko ezkontza-zinean, Xanfarronen eta Juan Lazkanoren kantuetan, eta frantziskotarrek sorginkeriaren aurka prestatutako testuetan.

4.8.4.4.2. Iturri zaharren artean, Britainiako kantik 15 *debeela* dakar, eta Elduaingo ziri-bertsoek 6 *leen*. Bestalde, Isastiren *Salve*-an adibiderik ez dagoen arren, erretrauetan 22 *beraago*, 67 *olaa* eta 12 *olaac* daude.

4.8.4.4.3. XVIII. mendean adibideak ez dira askoz gehiago. Egia da Larramendiren euskal lanetan bokal bikoitzak aurki daitezkeela, baina gehienak *nahas-i* eta *ahal-i* daude lotuta; cf. San Agustin egunerako prestatutako sermoiko *naastu* eta *naazte*, “Ez gaude...” testuko *aalic*, “Euskara herriaren...” laneko *naasi* eta *naasiaz*, eta otoitz biren itzulpenetako *beraatia* eta *beraa*. Orobat, Burgosko dotrinan *ahal*-en formetan agertzen da <aa>: *aal*, *aaltia*, *aal*, *aalez*, *aaleguiñez* eta abar.

4.8.4.4.4. Lubieta donostiarraren hiztegiaren lagin argitaratuan ere oso eskasak dira bokal bikoitzak, eta tinbre bereko bokalak biltzearen ondorio: *verdeen*, *berdeena*, *besteen*. Egoera bera da, bide batez, hegoalderagoko Irazustaren liburuan, nahiz eta XIX. mendeko Hernialdeko eskuizkribu argitaragabe batean <aa> aurki daitekeen: *botaaaz*.

4.8.5. Laburpena bokal bikoitzez

4.8.5.1. Atal honen hasieran esan legez, *bokal bikoitz* deitu ohi diren guztiak ez dira jatorri eta garai bereko formak: bereiztekoak dira, alde batetik, bokal arteko kontsonante baten galerak eragindakoak eta, beste alde batetik, tinbre bereko bokalak elkartzean zein *a.e* > *e.e* asimilazioz gertatutakoak. Ikuspuntu historikotik lehenengoek aparteko interesa dute, zaharragoak baitira eta iragana berreraikitzeke aukera gehiago ematen baitituzte (cf. *edan* aditzari lotutako *edaa*- aldaerari jarraikiz Lakarrak proposatutako **e-da-ban*, adibidez).

Mitxelenari (*FHV* 91-92) jarraikiz, garai historikoan VCV > VV bilakabidetik sortutako bokal bikoitzak arkaismoak dira, ezer izatekotan; alegia, inoiz orokor izandako eta gerora galdutako erabilera baten arrastoak, han-hemen garai historikoko lekukotasunetara arte iraun zutenak/dutenak. Hain zuzen, bokal bikoitzen azterketa diakronikoak berretsi egiten du Caminok arkaismoen balio sailkatzaileaz ari zela adierazitakoa:

Dialektologian erabaki arealak hartzeko arkaismoak baliatzea zinez jokabide korapilatsua eta labainkorra da. Arkaismoek duten hedadura zein den alde zurretik jakitea, gauza ezina da. Arkaismoak geografian gandi han eta hemen ager daitezke, han edo hemen agertzeko duten aukerak ez dirudi inolako arauri jarraitzen dionik: ez dago arrazoi berezirik hizkuntza bateko arkaismoak honako edo halako leku jakinetan agertzeko, nonahi ager daitezke, han-hemenka barreiatuak, erarik aleatorioenean. (2008a: 235)

“Nonahi agertze” horrek zaildu egiten du, jakina, ezaugarriaren bilakabidearen ikerketa, gorabeherak eta egoera itxuraz kontraesankorrak agertzen baitira etengabe.

Kronologiari dagokionez, argi dago lehenengo testuak agertu orduko bokal bikoitzak bakuntzeko prozesua aurretua zela, oro har, mendebal eta erdialde gehienean: testu arkaikoetan ohikoa da iturri bakar batean bokal bikoitzak dituzten aldaerak aurkitzea bokalak bakundurik dituztenekin batera; are gehiago, testu gehienetan azken horiek dira nagusi, erabileraren atzerakada islatuz. Nolanahi ere den, Bizkaiko testuei nagokielarik, esan daiteke 1650-1660ra bitartean nahiko zabaldurik zeudela, jaurerriaren sartaldean, erdialdean eta sortaldean agertzen baitira: Euskara Arkaikoan eta XVII. mendearen amaierara bitarteko Euskara Zaharrea zuten indarraren erakusgarri dira, besteak beste, erroan bokal arteko kontsonante bat galdu ondotik agertzea hainbat berbatan (cf. *RS*-ko *abaa*, *ilbeeran*, *kee*, *laar*, *leen*, *miiak*, *zaar*, *zii...*), absolutiboko eta inesiboko *-aak* eta *-aan* aldaerak (cf. Kapan *etsaguntzaak*, *armaak*, *flakezaak*, *jabaak*, *gauzaak*, *penaak*; *santaan*, *figuraan*, *platikaan...*) zein azalbide etimologiko (oraindik argirik gabekoak (cf. *edaaten* edo dardarkari aurreko *haar*, *luur* zein *zoor* monosilaboak).³⁶⁸

XVII. mendearen bigarren erditik aurrera agerikoa da bokal bikoitzen indargalera: 1660-1750 bitarteko testuetan, oro har, erroetako bokal bikoitzak fosilduta ageri direla ematen du (batez ere *lehen* hitzean), gaitzagoa da *-aak* eta *-aan* aurkitzea, eta gehienbat deklinabideko, eratorbideko zein adizkietako asimilazioen (*-ae-* > *-ee-*) eta tinbre bereko bokal-bilkuren ondorioz sortutakoak agertzen dira. Egoera hori are nabarmenagoa da Lehen Euskara Modernoaren sasoian, gerora aipatuko ditudan salbuespenak salbuespen (begiratu §5.1.5.1.4).

Bizkaitik kanpo antzekoa da kronologia: Araban, XVI. mendean Lazarragak eta XVII.ean Sevilla1619 testuek badituzte zenbait bokal bikoitz arestian aipatutako inguruneetan, baina Gamizen eta Albenizen testuetan ez ditut aurkitu; DotrSerm testuak, ordea, badakartza batzuk.

Gipuzkoako mendebalean eta hegoaldean antzekoa da egoera: Euskara Arkaikoan eta Euskara Zaharreko lehenengo hamarkadetako testuetan agertzen dira adibideak, baina denboran aurrera egin ahala murriztu egiten dira bai adibideen kopurua, bai bokal bikoitzak dituzten inguruneak: Peñafloidak edo Otxoa Arinek testu zaharrago batzuek baino adibide gehiago dituzte, baina testuen tamaina aintzat hartuta aise ikusten da adibideak egiazki gutxi direla. Halaber gertatzen da are erdialderagoko eremuetan ere: Donostiako eta Beterriko XVI-XVII. mendeetako testurik ez dago, baina

³⁶⁸ Azken sorta horretara gehi liteke *suu*, aintzat hartuta *sur* aldaera ere baduela (cf. Lakarra 2009: 561).

gogoan hartzekoak dira Isastiren errefracuetako adibideak eta inguru horietako XVIII. mendeko testuetan adibideak oso bakanak direla.

4.8.5.2. Markina inguruko testuak direla eta, XVIII. mendearen azken hamarkadetan idazle batzuek gerora *literatur bizkaiera* deitu izan dena eraikitzeke edo eraiki nahian eginiko hautuek zaildu egiten dute informazio fidagarria ateratzea bokal bikoitzek tokiko euskaran zuten lekuaz. Nolanahi ere den, Aipoita bolibartarraren bederatziruurenetan agertzen da jada urte gutxiren buruan “Markinako eskola”-ko idazle nagusiek bokal bikoitzen alde egin behar zuten hautua.

Badirudi zalantzarik gabea dela XX. mendearen hasieran Markinan bokal bikoitzak entzun zitezkeela. Hala zioen Azkuek Bonaparteren proposamen bat kritikatu aurretik:

Es muy posible que el egregio príncipe haya fundado esta aserción en vocablos como *gonaak*, *neskaak*, *arebaak*, *domekaak*, *emakumaak*, *gaztañaak*, *masustaak*, *kerizaak*, etc., que son ciertamente de uso común en la variedad marquina. Vocablos como estos, que tienen una *a* como terminación orgánica, dan siempre lugar al hiato en esa comarca. (1926: 18)

Ematen du XX. mendean zehar desagertu zirela bokal bikoitzak Markina aldean; izan ere, aurreko adibide bera erabiltzearen, ez dut *-aak*-ik aurkitu Rollorean (1925) paradigmatan, eta hau baieztatu zuen Baraiazarrak Markinako euskarari buruzko lan batean: “Pluralean, gaur egun, «a» biak bakundu egin ohi dira, «a» bakarra izatera etorritik. Idazle zaharretan ia beti biak agertzen dira, horretan Prai Bartolome izanik nabarmenena: «alabaac»” (1986: 157 eta 164). Hartara, Markinako euskarak gordetzailer jokatu zuen ezaugarri honetan.

XIX. mendeko bizkaitar idazleei dagokienez, gorabeherak handiak dira. Alzibarren (1992: 417 eta hurrengoak) azterketa zehatzak erakusten duenez, idazle batzuek (J.A. eta J.J. Mogel, eta Frai Bartolome) bokal bituak adieraztearen alde egin zuten; beste batzuek (Astarloa), aldiz, ez zuten beharrezkotzat jo eta ez zituzten sistematikoki adierazi. Are gehiago, beste ezaugarri batzuekin gertatu bezala, erabileraren bultzaitzaileek ez zuten beti sistematikoki jokatu, eta, testua zein den, murriztu edo ugaritu egiten da bokal bikoitzen kopurua. Horrez gain, ezagun da erabiltzearen aldeko hautua egin zutenek, tokiko hizkeran erabiltzen bide ziren formak oinarri hartuta, bestelako aldaerak sortu zituztela analogiaz.

Aurrekoa dela eta, zaila da jakitea zein zen bokal bikoitzen indarra Markina aldean 1800ean edo 1820ko hamarkadan; aitzitik, nahiko argi dago XIX. mendea baino lehen ere “Markinako ereduak” lortu zuela beste eremu batzuetako idazleak erakartzea, nola beste ezaugarri batzuekin hala bokal bikoitzekin ere: Sarria, De la Quadra eta

Iturriza ditut gogoan (§5.3.3.2.3.2), neurri batean behintzat beste testuekiko konparazioak islatzen baitu arestiko hiru idazle horiek “Markinako eredu”-ra makurtzea erabaki zutela ezaugarri honetan.³⁶⁹

³⁶⁹ XIX. mendean, Añibarrok eta Zabalak Markina aldeko idazleen hobespenak onartu zituzten (Urgell 2018: 615).

5. Datuen irakurketa eta eztabaidarako gaiak

5.1. Kronologia-gaiak

5.1.1. Sarrera

Atal honetan kronologia ardatz hartuta aurreko ataletan bildutako datuen irakurketa egingo dut eta eztabaidarako zenbait gai proposatuko ditut. Hemen ezaugarri ezaugarri arituko naiz, bakoitzaren lekukotasun zaharrena zein den edo zein izan daitekeen zehaztuko dut, eta ezaugarria dagokion lehenengo agerrera edo dokumentazioa zaharragoa izan daitekeelakoan nagoenean, hala proposatuko dut, tarteka ezaugarri batzuen arteko kronologia erlatiboa ere proposatuz.

Alde batetik, euskal testu historikoak berankorrek izanik espero zitekeenarekin bat, Euskara Arkaikoko lehenengo testuak agertu orduko zabal agertzen dira berrikuntza batzuk, sortutako, eraldatutako zein galdutako ezaugarriak izan: Erdi Aroan sortutako berrikuntzak dira, eta horien jarraipena egiteko, tesi honen helburu eta aztergai behinenetik kanpo badago ere, onomastikari buruzko datu-base eta ikerketek emandako informazioa baliatu dut geografia linguistikoak ematen dituen interpretazio-bideekin batera. Halaber, tesi hau dialektologia diakronikoaren esparrukoa izanik, ezin utzizkoa zen hemen landutako ezaugarri zaharrenek Euskara Batu Zaharrekiko eta horren zatiketetik duten loturaz eta eraginaz jardutea. Hala egin dut §5.1.3 eta §5.1.4 ataletan, Erdi Aroan sortutako ezaugarriek izan dezaketen balio sailkatzaileaz proposamena egin ondotik.

Beste alde batetik, Erdi Aroaz geroztiko berrikuntzak aztertu ditut: XV. mendean geroztik sortutako edo gehienbat ordutik hedatutako berrikuntza eta galeren ibilbidea aztertu dut 1800. urtera bitartean, iraganaz argi gehiago lortzeko XIX. edo are XX. mendeko datuen bat erabiltzea lagungarri izan denean hala eginda. Aurrekoen osagarri eta kronologia-gaiei loturik, eremu txikiko zenbait ezaugarri *salient*-en kronologia berankorra agerian utzi nahi izan dut agerian. Ondoren, aztertutako berrikuntzak

Lakarraren (1997a) periodizazio-proposamenarekin bat egiten duten aztertu dut, eta zenbait testuk kronologiari dagokionez dakartzaten gorabeherak aipatu ondoren, aldaketa-proposamena dakart Bulda-ren datazioaz.

5.1.2. Erdi Aroko berrikuntzak: sortutakoak eta galdutakoak

5.1.2.1. Hasperenaren galeraz

Hainbatetan aipatu izan da erabat galdu aurretik ezaugarri linguistikoek luzaroan iraun dezaketela han-hemen arkaismo legez, eta zailagoa dela arkaismoen bilakaera historikoa eta hedadura geografikoa segurtasunez deskribatzea. Birgogoratzekoak dira, horri loturik, Caminoren hitzok: “ez dago arrazoi berezirik hizkuntza bateko arkaismoak honako edo halako leku jakinetan agertzeko, nonahi ager daitezke, han-hemenka barreiaturik, erarik aleatorioenean” (2008a: 235).

Hego Euskal Herrian hasperenaren galeraren diakronia ikertzean ezin argiago ikusten da hori. Izan ere, galera-prozesua luzea izan zen, eta konbentzioz azalpenak errazteko aipatu ohi diren mendeak mende, ez dago data bakar bat ematerik: Euskara Arkaikora ezkerreko Ipar Euskal Herrian eta eremu mugakideetan ez besteetan hasperenik ez zela pentsatu izan da oraintsu arte, baina Manterolak (2015: 300-301, 341 eta §7.3.1.2) Beriainen erakusleez eginiko irakurketak ikuspegi hori aldarazi du.

Oro har eta eremua zein den, badirudi Hego Euskal Herriko hizkera gehienetan X. mendetik XV. mendera bitartean galdu zela hasperena. Ematen du galera lehenago gertatu zela Nafarroan (II-X. mende bitartea aipatu zuen Mitxelenak –1981a: 536–, baina hasperena Mitxelenak berak formulatutako Euskara Batu Zaharrerako proposatu behar da), eta indartsuago iraun zuela mendebalean. Salaberri Zaratiegik (2018: 322-323) dioenez, ordea, oraindik bada zer azterturik Bizkaian eta Gipuzkoan, eta azterketa horiek egin gabe ezer baieztatzeak okerbidera besterik ez garamatza.

Reguerok (2013: 435) irudikatutako maparen arabera, XI. menderako galdua zen hasperena Nafarroa eta Gipuzkoa gehienez; aitzitik, Salaberri Zaratiegik (2018: 322-323) emandako datu batzuek erakusten dute Gipuzkoan Erdi Aroaren amaierara arte iraun zuela. Bizkaian nahasia da egoera, baina jaurren ere aurki daitezke forma itxuraz hasperendunak XIII-XIV. mendeetan, nahiz eta horien aldaera batzuk <h>-rik gabe ere agertu: idazkera bata eta bestea zeren zordun den (tokiko hizkera, eskribauaren idazkera-ohitura edo ezagutza...) aztertu arte ezingo da ondorio fidagarririk lortu hasperenaren iraupenaz eta adibide berankorrek islatzen duten ezaugarriaren indarraz

eta hedaduraz, baina baieztatu daiteke hasperenaren galera-prozesua luzea izan bide zela, x. mendetik Euskara Arkaikora bitartekoa, eremua eta hizkera zein den.

5.1.2.2. Erdi Aroko onomastikaz: (*h*)*uri* & (*h*)*iri*, *barri* & *berri*, *baltz* & *beltz*

Ezagun denez, x-xi. mendeetako lekukotasunak agertu orduko arrunt dira mendebaleko onimoetan (*h*)*uri*, *barri* eta *baltz* aldaerak: Donemiliagako agirietako *Ulibarrilior* (952), *Nunno Balza* (984), *Essavarri* (1025) eta *Nunno Falzahuri* (1078) bezalako adibideek osatzen dute lekukotasun zaharrenen multzoa, eta gaitza da ezer ziurrik baieztatzea x. mendea baino lehenagoko egoeraz. *u-* : *i-* isoglosaz ari zela gainerako biak baino zaharragoa izan zitekeela aipatu zuen Mitxelena, baina baieztapena susmo edo aieru hutsa zela zehaztu zuen jarraian (1981a: 537),³⁷⁰ eta hala izango dira neureak ere, ezinbestean. Izan ere, bestelako datuen faltak eta ezaugarrien arruntasunak (§4.1.3 eta §5.1.3.3) ez dute aukerarik ematen kronologia absolutuez aritzeko edo kronologia erlatiboak berreraikitzeke. *u-* : *i-* oposizioaz ari naizela, dena den, onomastikako (*h*)*uri* aldaeraz ariko naiz, ez **eu* diptongo zaharrago batetik eratorritako *uzen* edo *urten* saileko aldaerez, horien kronologia eta hedadura beste bat baita (cf. §4.1.4).

Lakarrarekin (2011: 161) bat, isoglosok ez dute balio Aitzineuskara Modernoaren inguruko ezagutza areagotzeko, eta Euskara Batu Zaharraren ondokoak izan behar dute nahitaez. Are gehiago, ez nuke esango x. mendea bera baino askoz lehenagokoak direnik; ez, behintzat, vi-vii. mendeetakoak, nahiz eta era honetako baieztapenek ere espekulaziotik duten beste inondik baino gehiago.

Hizkuntzak berak erakusten du mendebalean sasoi batetik aurrera zabalduak eta sistematizatutako aldaera askeez gain forma zaharragoak (eta orokorrak edo komunak) ere badaudela; forma zaharren gordailu izan ohi den konposizioak erakusten du *-bel* eta *-iri* bazirela (eta *badirela*) Euskal Herriko mendebalean ere; cf. Lakarra (2011: 161, 7. oin-oharra) *ubel*, *gibel*, *sabel* eta enparatuz (begiratu, halaber, *RS 464 Erroyac miqueari vspelça*) eta Lakarra *et al.* (2019: xxxvi, 47. oin-oharra) *ageri* & *agiri* eta *Agirre-z* (eta ez **aguri-z*). Aurrekoen landara, *barri* : *berri*-ko fenomeno delatzen eta, horietan *berri* ‘ez zahar’ dagoen gorabehera, gogoratzekoak dira *Berriatua*, *Berriz* eta *Gerrikaitz* bezalako toponimoak Bizkaian (cf. Mitxelena 1953: 71 eta Salaberri

³⁷⁰ Gogoratzekoa da bai Mitxelenaren garaikide batzuek, bai, harrigarriroago, azken orduko ikertzaileen batek aldaera zahartzat jo dutela (*h*)*uri*; zehazki, hala erromatarren garaiko edo aurreko leinu zaharrekin nola erromatarren garaiko ustezko euskara dialektalarekin lotu izan da (cf. Caro Baroja 1946: 217 eta hurrengoak, Merino-Urrutia 1962: 14 eta Aznar 2017: 40, hurrenez hurren).

Zaratiegi 2011: 155), non ingurunea egokia izan arren ez den $e > a$ gertatu, bai eta *Gernika & Garnika* bikotea ere: bigarren aldaera XIV. mendeaz geroztik bakarrik azaltzen da dokumentazioan (*EODA*, s.v. *Gernika*).

Ezaugarrien hedadura geografikoak erakutsiko luke, halere, X. mendean sortuak ere ez direla; hots, neolinguisten laugarren irizpidea aintzat hartuta, eremu zabal batean erabiltzen diren aldaerek aukera gehiago dituzte zaharrak izateko. Besterik da antzintasun hori zenbaterainokoa den zehaztu ahal izatea, baina X-XI. mendeetan aldaera askeak Bizkaian, Araban, Errioxa-Burgosen, eta Gipuzkoako eta Nafarroako mendebalean agertzen direla ikusita, zentzuzkoa da pentsatzea hedadura hori lortzeko denbora-tarte bat behar izan zutela.

Ebro ibaitik hegoaldera dauden datuak lagungarri izan daitezke muga kronologikoak zehazteko. Mitxelenak (1976b: §11) historialariek erabilitako bi ikuspegiak jaso zituen: batzuen arabera X. mendea baino askozaz lehenago gertatu zen hegoalderanzko lekualdatzea;³⁷¹ beste batzuen arabera oso modernoa izango litzateke, X. mende ingurukoa. Lekualdatzearen data zehatzik ematerik ez badago ere (“No faltan momentos, ni siquiera siglos, en que estos movimientos son imaginables” zioen Mitxelenak –1976b: 376–), bi hipotesien erdibidea proposatu zuen erreteriarrik (*idem*), eta migrazio-uhin bat baino gehiago gerta zitekeela gogorarazi. Hain zuzen ere, horren aldeko ikerketak aurkeztu ditu Petersonek (2009), bi migrazio-uholde bereiziz: bat VIII. mendearen bigarren erdian gertatu zen, eta bestea XI. mendetik aurrera, egonkortasun-garai baten ondotik.

Aurrekoak oro aintzat hartuta, tentuz bada ere uste dut X. mende aurretikorako proposa daitekeela atal honetan iruzkindutako ezaugarrien sorrera eta hedatzea, nahiz eta hiruren kronologia ere ez bide den berbera: $e > a$ aldaketa (*h*)uri : (*h*)iri baino modernoagozat jo beharrekotzat daukat, XI. mendean eta hurrengoetan Arabako zein Bizkaiko zenbait toponimotan aurki daitezkeen salbuespenen argitan; demagun VIII. menderako bazela (*h*)uri mendebalean, eta IX-X. mendeetan sortu zirela *barri* eta *baltz*, adibidez, beharbada gune batean baino gehiagotan eta beregainki, aldaketa hain da arrunta.

³⁷¹ Aznarrek (2017), ordea, ez du bat egiten Mitxelenak eta gerora Petersonek (2009, 2011) deskribatutako migrazioen inguruko proposamenarekin. Aznarren ustez, euskaldunak aspaldirik bizi izan ziren egungo Euskal Herriatik hegoalderago, eta iparralderagoko ezaugarri linguistikoekiko konbergentzia giza harremanak egituratu zituzten “arau bertikal”-en arabera gertatu zen. Argudio historikoetan sartu barik, nabarmentzekoa da (hemen aztergai dudan) hizkuntzaz egindako proposamenetako batzuk ez direla zalantzezko irakurketetan oinarritutako hipotesi ahulak baino, horietatik ateratako ondorioak larriak, ikuspegi pankronikoaren arabera eta egungo ikerketa-ildo nagusien aurkakoak izan arren.

Datu ziur bakarrak begi-bistakoak dira, dena den: mendebaleko hiru aldaerek Euskara Batu Zaharraren ondokoak izan behar dute, eta hiruren hedadura zabal xamarra zen X-XI. mendeetarako.

5.1.2.3. $a + a > ea$ disimilazioaz

5.1.2.3.1. Azken bi mendeotan mendebaleko euskara ikertzeaz arduratu diren dialektologiariek aparteko garrantzia edo lekua eman diete *bokal eufonia* deitu izan direnei, eta horiekin batera aipatu izan da $a + a > ea$ disimilazioa ere (*Raa* zeritzon De Rijkek 1970ean), nahiz eta berrikuntza horren berezitasuna eta garrantzia apartekoak izan bai hizkuntza-egiturei dagokienez, bai kronologiari dagokionez.

Aurretik ere esan legez, $a + a > ea$ formularen bidez irudikatu ohi den disimilazioa ez da bat eta bakarra; gutxienez bi bereizi behar dira: balio morfonologikoa duena (Mendebalari dagokionez, artikulua mugatuari lotua; cf. Oñederra 2005 eta Manterola 2015) eta balio fonetiko hutsa duena. Hain zuzen ere, bereizketa hori egitea berebizikoa da hainbat nahaste saihesteko eta, gainera, bereizketa hori eginda hobeto ulertzen dira zenbait gertaera. Kronologiaz denaz bezainbatean, artikuluari lotutako disimilazio morfonologikoa adizkietakoa baino zaharragoa dela defendatzen dut tesi honetan, gerora (§5.2.3.1) aipatuko ditudan funtzio-, hedadura- eta sistematikotasun-gaiak direla eta.

Bizkaiko euskararen bokal-interakzioez eginiko lanean $a + a > ea$ disimilazioak muga nabarmen bat zuela adierazi zuen De Rijkek (1970): amaieran bokal irekia duen berba bati artikulua mugatua eranstea disimilazioa sortzen da, baina ez da hori gertatzen berba barnean:³⁷² *zahar > zaar > zar* gertatu da mendebalean, ez *zahar > zaar > **zear*. Halakoetan emaitza zaharrena soilteza da, Lakarrak (2011: 210, 143. oin-oharra) *ári < aari*-rako azaltzen duen legez. Lakarrak berak aurrez aurre aipatua dit *gaztaea*-ren bilakabidea, kontsonante sudurkaria galdu ondoren³⁷³ ez baitagu **gaztea*-rik, ezpada *gaztaa*, eta horri artikulua gehituta *gaztaea*; berranalisiaren bidez azaltzekoa litzateke *gaztae* mugagabea (cf. *EHHE*, s.v. *gazta*).

Kronologia absolutuari dagokionez, toponimiara jotzea ezinbestekoa da berriz ere: XV. eta XVI. mendeetakoak dira disimilazioaren bidez azaltzen diren *-agea* eta *-etea* aldaerak Araban (Manterola 2015: §II.7). Horiez gain, Manterolak berak (2008: 374-

³⁷² Salbuespen dokumental bakarra, beste azalpenik ezean, jada behin baino gehiagotan aipatutako Lizarraldeko *Leartza* toponimoa litzateke, Erdi Aroko agirietan *Laharça & Laharça & Laarça* baita.

³⁷³ Gogoratzekoa da Aintzineuskara Modernoaren eta Euskara Batu Zaharraren artean (edo horren zatiketa baino lehen) kokatu izan duela Lakarrak (2011: §4 eta 219, 2017: 81) bokal sudurkariaren sorrera.

376, 2015: 196-197) disimilazioaren bidez azaldu izan ditu *Elhorzahea* (1025) eta *Havaunzia* (1089) arabarrak ere, eta Salaberri Zaratiegik (2018: 312) Errioxako *Garci Olhea* (1156) gehitu du adibide zaharrenen zerrendara, XI-XIII. mendeetan *aa* gordetzen zuten toponimo gutxi batzuekin batera (*idem*, 321). Beraz, kasu honetan XI. mendearen hasieran dago disimilazioaren lekukotasun zaharrena, baina disimilazioa artikulua erabilerari lotuta dagoela ikusita, fenomenoaren sorrera denboran atzerago eramaterik ere badago. Erakusle → artikulua definitu gramatikalizazio-prozesurako proposatu izan den kronologia lagungarri da dataziorako:

(i) Mitxelenak (1981a) v-vi. mendeak aipatu zituen Euskara Batu Zaharrerako, eta oro har onartzen da dibergentzia-prozesuak orduz geroztikoak direla.

(ii) Erakusle → artikulua gramatikalizazioa euskaraz hizkuntza erromantzeetan gertatu zen garai bertsuan (VIII. mendetik aurrera; cf. Lapesa – 2000 [1961]–) gertatu zela³⁷⁴ ere aspaldirik onartzen da euskalarien artean (*MorfVasc* 269, Trask 1997: 1999, *FHV* 311, Azkarate & Altuna 2001: 11, Hualde & Ortiz de Urbina 2003: §3.1.2.3, Martínez-Areta 2013: §7.2.3, Manterola 2015: §2.1, Lakarra 2017: 122-123, Lakarra 2018: 96).

Horrenbestez, zentzuzkoa da pentsatzea disimilazioa *post* VIII eta *ante* XI sortutako eta (neurri batean behintzat) hedatutako berrikuntza dela; alegia, artikulua bera sortu eta denbora-tarte erlatiboki laburrean hasi zela hedatzen: VIII-IX. mendeetan (IX.a aipatzen du Lakarrak –2011: 210, 143. oin-oharra–). Ez dakit noizko proposa daitezkeen zehazki Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketa larriak, baina Mitxelenaren kronologia (v-vi. mendeetan kokatu zuen *euskaroa*) aintzat hartuta, zaharra izanagatik badirudi mende horietatik urrun xamar (bizpahiru edo hiruzpalau mende?) geratzen dela disimilazioaren sorrera; hartara, ez litzateke lehenengo mailako zatiketa edo banaketa izango (cf. §6.4.1).

5.1.2.3.2. Ezaugarriari buruzko berriazko atalean erakutsitakoarekin bat, *a + a > ea* disimilazio morfonologiko nagusiari loturik bestelako fenomeno batzuk ere sortu dira, eta horien kronologiak berankorragoa izan behar du.

-e > -a berreraiketa analogikoa Euskara Arkaikoa baino lehen sortutako berrikuntza dela argi dago, lehenengo lekukotasunak agertu orduko zabal agertzen baita

³⁷⁴ Artikulua zaharragoa delako proposamenez eta proposamen horiek dituzten arazo larriez, begiratu Manterola (2015: § 2.1.3.2 eta § 5.1.2).

Bizkaiko testuetatik Nafarroako XVI-XVII. mendeetako toponimiaraino (toponimia gordetzaile izan ohi dela gogoan izan behar da, gainera). Hedadura zabal hori ikusita, disimilazioa sortu ezker arian-arian sortutako eta zabaldutako formak direlakoan nago, demagun X-XI-XII. mendeetaz geroztikoak, nahiz eta orduko adibiderik ez dagoen (cf. bi menderen buruan Bizkaian 1464an agertzen den *Andre Ansa de Çeberyio & Andrransa de Çeberyio* bikotea, *apud* Salaberri Zatariegik 2018: 314).

Kasu honetan ere bereizi egin behar dira berrikuntza sortzea eta berrikuntza hedatzea: berranalisia hitz batzuetan sistematikoki agertzeak eta beste batzuetan polimorfismoa edo berranalisirik ez egoteak argi islatzen du berranalizatutako aldaera guztiak ez zirela aldi berean sortu, eta/edo egile guztiek ez zutela berdin jokatu; azken batean, tradizio idatzi luze eta sendo baten faltan eta egile bakoitzak zuen ezagutzaren arabera errazago gerta zitezkeen berreraiketa analogiko espontaneoak, gaur egungo hiztun arrunten artean gertatzen den legetzez.

-ia + a > -iea-ri dagokionez, ez dut erabat ziur esaterik (a) sasoi batean Mendebal osoan zabaldutako eta gerora soildutako bilakabidea den (hala balitz, Arabako testuak gordetzaile izango lirateke) edo (b) Arabako sasoi bateko euskararen berrikuntza izan zen (hala balitz, Arabako testuak berritzaile izango lirateke) eta hala kronologikoki nola geografikoki sortu izan diren berrikuntza beregainen sorta osatzen duten testuetako adibideak.

Lehenengo hipotesiak XVI-XIX. mendeen arteko lekukotasun falten arazoa du; alegia, testuak eta ezaugarria agertzeko baldintza egokiak izan arren, 1800era bitartean ez dut adibiderik aurkitu Arabatik kanpo edo Arabako lurrekin lotura estua izan duten eremu mugakideetatik kanpo.³⁷⁵ Aitzitik, Frai Bartolomen lanetan aurki daitezke *ostiija* eta *eguiija* bezalakoak (cf. *FHV* 93, 12. oin-oharra), nahiz eta adibide gehienak azken berba horretan metatzeak eta markinar idazle garaikideen artean puntu honetan dauden desberdintasunek Frai Bartolomen hautua izan zitekeela pentsarazten didaten (cf. Altzibar 1992: 446-447 eta §5.3.2.4). Nire ustez, Arrietako (Bizkaia) euskara darabilen gaur egungo hiztun gazte batek *giie* ‘gida’ edo *tranbiie* ‘tranbia’ esatea ez da hiztun horren euskara Euskara Arkaikoarekin lotzen duen arkaismoa; forma

³⁷⁵ VJesus Bizkaikotzat jo nuen behin-behinean (Zuloaga 2013), baina ezaugarri batzuek Aiaraldeko euskararekin duten lotura agerikoa da; alegia, Bizkaikoa izatekotan, Aiaraldeko euskara arabarrarekin lotura hertsia duen herri edo ibar batekoa izango litzateke (Nerbioi ibarra aipatu nuen orduan). Bestalde, aintzat hartu behar da Frai Bartolome eta Bizkaiko ipar-ekialdeko beste egile modernoren batek darabiltzaten *eguiija* bezalakoak estilo-hautuen ondorioz sortutakotzat jo ditudala (§5.3.2.4), arestian aipatutako arrazoi bertsuak direla eta: bestelako lekukotasunik egon ez arren idazle moderno batzuen lanetan sistematikoki agertzea, adibide gehienak berba jakin batzuetan metatzea eta abar.

kronologikoki beregaintzat ditut bata eta bestea: hain arrunt izan ez bada ere, euskaraz badago aukera $-ia + a > -iea$ bihurtzeko, eta hizkera batzuetan hala gertatu da, izan XVI. mendeko Arabako euskara, izan XXI. mendeko Arrietako hizkera. Hartara, Arabakoak tokiko berrikuntzat ditut, Euskara Arkaikoa baino lehen Mendebalean orokor izandako aldaeren arrastotzat.

Adizkietako disimilazioei dagokienez, balio morfonologikoa dutenetatik bereiztekoak direla esana dut behin baino gehiagotan: *direan* & *diran*, *doean* & *doan* edo *daroeala* & *darovala* bezalako bikoteetan ez dago disimilazioaren bidezko bereizketa morfologikorik: disimilazioa gertatu zein ez gertatu esangura berbera da, eta *izan*, *joan* eta *eroan* adizkietako disimilazioak balio morfoloikoa dutenak baino berriagoak direlako daukat.

Agerikoa da adizkietako disimilazioen lehenengo adibideak ez direla artikulu definituarekin lotutakoak bezain zaharrak, nahiz eta adizki batzuetakoek behintzat Euskara Arkaikoa baino lehenago sortuak izan behar duten, lehenengo testuak agertu orduko han-hemen agertzen baitira: *RS 315 direanac*, frJZum 11 *eztirean*, Lazarg AL:1153r *direala* zein Garibai A39 *direala* aipa daitezke mendebal zabalean 1600 baino lehen.

Halakoak izenaren morfologiaren esparruko disimilazioak baino berriagoak direla pentsatzeko arrazoi nagusiak izaera (fonetikoa izatea eta ez morfoloikoa) eta neolinguisten laugarren irizpidea dira: artikulu mugatuari lotutako disimilazioa ez bezala, adizkietako disimilazioaren eremua txikiagoa da eta murriztapen gehiago izan ditu historikoki. Bizkaian arestian aipatutako hiruretan eta *egon* eta **edun*-en adizkietan agertzen dira (zehazki, azken biak Bilbo aldeko testuetan): *RS* bilduman *izan*, *joan* eta *eroan*-en aldaera disimilaziodunak agertzen dira, eta adibideak aurkitu ditut aztertutako garai guztietan. Araban, aldiz, eremua murriztagoa da: XVIII. mendeko erdi-ekialdeko testuetan ez dut disimilaziorik aurkitu. Halaber, Gipuzkoako mendebaleko ibarretan Bizkaian baino eskasago agertzen da: Deba ibarreko testu arkaiko eta zaharretan urriak dira disimilazioak (eta Amilletarenean eta Barrutiarenean *joan*-en adizkietan besterik ez dira gertatzen), baina *egon* badaude; are erdialderago, *ordea*, ez dut alerik aurkitu Urolan eta Goierrin.

Nire ustez, banaketa geografiko orokor horrek eta (lurraldea zein den) adizkiz adizkiko murriztapenek berretsi egiten dute adizkietako disimilazioa kronologikoki bereiz sailkatu eta ikertu beharra: berankorragoa izatearekin batago egiten du hedadura txikiagoa eta ez hain tinkoa izateak, eta hurrengo atal batean (§5.2.3.1) proposatuko

dudanez, aldaeron difusioa azaltzeko arreta ez Araban baina Bizkaian jartzeak ere errazago azal ditzake banaketa-gaiok. Horiek guztiak aintzat hartuta, Erdi Aroaren azken mendeetan sortutako aldaerak direla uste dut.

5.1.2.4. *Vjz > Vjx* eta *Vjtz > Vjtx* palatalizazioaz

Diptongoko bokalerdiak eragindako palatalizazioaren lehenengo lekukotasunak aurkitzeko, aurreko ezaugarriekin gertatu bezala, testu idatziak baino lehenagoko iturriak arakatu behar dira. Funtsean Erdi Aroko toponimia begiratu behar da, eta horrek muga lexikoak eragiten ditu, zailagoa baita toponimoetan *baizen*, *iritzi* edo *goiz*-en aldaerak aurkitzea. Toponimian errazago (edo ugariago, behintzat) agertzen dira afrikatu palatalizatuak dituzten berbak, hala nola (*h*)*atx* eta (*h*)*aretx*.

Orain arte aipatutako Erdi Aroko berrikuntzetako batzuk egiazki zaharrak dira: lehen lekukotasunak X-XI. mendeetakoak dira, eta badago arean zaharragoak (ez ordea, Euskara Batu Zaharraren –ez eta horren lehenengo zatiketen– garaikoak) direla pentsatzeko argudiorik. Bokalerdiak eragindako palatalizazioaren adibide zaharrenak, ordea, berriagoak dira, Erdi Arokoak izanik ere.

Reja-ko *Hassarte*-k (1025) ez du zertan arazo formalik izan, nahiz eta Salaberri Zaratiegiren (2015b: 113-114) zalantzak aintzat hartzekoak diren, *hatsegin* eta *haserre* < *hats*-en argitan. Hartara, XI. mendean egon liteke palatalizazioaren lehenengo adibidea, baina proposamena arazotsua da kronologikoki, Reja-ko adibide palatalizatu bakarra bailitzateke: *Harizavalleta*, *Haiztara*, *Hazpurua*, *Haizcoeta* eta *Haizpilleta* dakartza Reja-k, azken hori *Hassarte* agertzen den multzo berean, *Harrahia*-ri loturik (cf. TAV 32).

Aldaera despaltalizatuak ere lagungarri izan daitezke fenomenoaren *ante quem* data emateko, eta egindako bilaketek arestian aipatutako kronologia berresten dute: esate baterako, *Aresti* deitura, *Arexto* (edo *Arexti*) zen 1390ean eta 1438an, eta azken urte horretan agertzen da lehenengoz *Aresti* aldaera *EODA* datu-basean (s.v. *Aresti*). Halaber, Araban 1454an *Axparrena* zena XVIII. mendean *Azparrena* & *Asparrena* agertzen da dokumentazioan (*EODA*, s.v. *Asparrena*).

Ezaugarriaren deskripzioa ematean aipatu legez (§4.2), aldaera palatalizatuak XIII. mendean geroztik dira zalantzarik gabeak Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan: ondoko ondoko garaietako lekukotasunak daudenean trantsizioa ikusten da forma komun zaharragoen eta mendebaleko berrien artean, eta aldaketa hori XII-XIII. mendeen artean gertatu bide zen: Reja-ko *Haizcoeta* eta *Hazpurua* (1025) *Axcoeta* eta *Axpuru* ziren

1257an eta 1262an, hurrenez hurren (begiratu Salaberri Zaratiegi 2018: 313 adibide gehiagoren berri izateko); halaber, 1051ko *Sancte Marie de Izpea* toponimo bizkaitarra *Axpee* bihurtua zen 1388an, eta Gipuzkoako egungo *Aretxabaleta*-k ez zuen palatalizaziorik XII. mendean (*Harizaualleta & Harizaballeta*; cf. *EODA*, s.v. *Aretxabaleta*). Hiru eremuetako kronologiak bat egiten du, beraz, eta badirudi Erdi Aroko azken mendeetako (*post* XII) berrikuntza izan zela palatalizazioa.

3. taula. Zenbait toponimoren bilakabidea XI-XIV. mendeen artean³⁷⁶

Toponimoa (gaur egun)	XI-XIII. mendeak	XIII-XIV. mendeak
<i>Axkoeta</i> (Araba)	<i>Haizcoeta</i> (1025) [TAV]	<i>Axquoeta</i> (1257) [Salaberri Zaratiegi 2015b]
<i>Aretxabaleta</i> (Araba)	<i>Harizaualleta</i> (1025) [TAV], <i>Harizaballeta</i> (1135) [Salaberri Zaratiegi 2015b]	<i>Harechavaleta</i> (1258), <i>Arechavaleta</i> , <i>Harrachavaleta</i> (1381) [Salaberri Zaratiegi 2015b]
<i>Axpe</i> (Bizkaia)	<i>Izpea</i> (1051) [TAV]	<i>Axpee</i> (1388) [Salaberri Zaratiegi 2018] ³⁷⁷
<i>Aretxabaleta</i> (Gipuzkoa)	<i>Harizabaleta</i> (1200-1300) [EODA]	<i>Arechavaleta</i> (1319, 1390) [EODA]
<i>Ezcaray</i> (Errioxa)	<i>Haizcara & Hazcarahy</i> (1124~1154) [Becerro galicano]	<i>Escaray</i> (1312 & 1494), <i>Ezcaray</i> 1335 [Aznar 2017]

5.1.3. Mendebaleko euskara Erdi Aroan

5.1.3.1. Erdi Aroko ezaugarrien balio sailkatzaileaz

Atal honetan aurreko atalean aipatutako Erdi Aroko ezaugarrien balio sailkatzaileaz hausnartuko dut, eta hauek izan dira neure buruari egin dizkiodan galdera nagusiak:

- (i) Zein ezaugarrik balio du eta zeinek ez du balio Euskal Herriko mendebalean eremu dialektal bat irudikatzeko?

³⁷⁶ Taulak ez ditu jasotzen toponimo bakoitzak dokumentu eta kartulario zaharretan dituen agerraldi guztiak, ezta mendez mendeko bilakabide osoa ere: lagin txiki bat besterik ez da, XI-XII. eta XIII-XIV. mendeen artean gertatutako aldaketa kronologikoki

³⁷⁷ Begiratu 127. oin-oharrea esandakoa.

- (ii) Zer-nolako tasun eta ñabardura estrukturalak hartu behar dira kontuan ezaugarri horiei garrantzi handiagoa edo txikiagoa emateko?
- (iii) Zer kronologia dute ezaugarri horiek Erdi Aroan?
- (iv) Zer-nolako lotura kronologikoa izan dezakete Euskara Batu Zaharrarekin?
- (v) Ezaugarri zaharrenetarik ez badira, balio ote dute bereizketa dialektal berankorrakoak proposatzeko?

5.1.3.2. Hasperenaren galera

Leskienek hizkuntza indoeuroparrak sailkatzeko finkatutako irizpide nagusiaren mugak aipatu ditut lehenago ere (§2.3.1.4 eta §2.3.2.1), baina berrikuntzen izaerari lotutakoak gogoratzekoak dira hemen: ikuspegi kronologikotik berrikuntzez ari naizenean garai linguistiko jakin batekiko ezaugarri berriez ari naiz, nahiz eta horrek ez duen esan nahi ezaugarri berri horiek guztiak berdinak direnik. Berrikuntza guztien izaera ez da bat eta bera, eta izaera horrek gorabeherak eta eztabaidak eragin izan ditu. Familia italo-zeltikoari buruzko errebisio-lan batean *berrikuntza positiboak* eta *berrikuntza negatiboak* bereizi zituen Watkinsek (1966: 30-31), eta azken horiei ere lekua egin behar zitzaizela proposatu zuen; halaber, berrikuntza partekatuei ez ezik, arkaismo partekatuei ere begiratu behar zitzaizela aldarrikatu zuen, egitura linguistiko sinkroniko bereko osagai baitira berrikuntzak eta arkaismoak. Berrikuntzez denaz bezainbatean, halere, ez dirudi metodologikoki maila berean koka daitezkeenik ezaugarri baten sorrera eta ezaugarri baten galera:

La perte d'une forme ou d'une catégorie est en effet faiblement discriminante, car elle participe d'une sélection où seules deux options sont possibles: perte ou conservation (...) En revanche, la création ou la transformation d'une forme ou d'une catégorie est nettement discriminante, car elle ne se résume pas à une sélection entre deux possibilités. (Petit 2007: 23)

Ildo horretatik hasperenaren galeraren balio sailkatzailerik ezaz edo ahulaz aritu da beren-beregi Lakarra:

Adibidez, G[oi] N[afarrera]-k /h/-a x. menderako galtzea berrikuntza dugu, bai, baina horregatik ez digu asko balio dialekto hori gainerakoetarik bereizteko; gorde edo galdu, aukerak % 50ean baitziren; are gutxiago, *h*-gabeko aldameneko erromantzearen eraginez izan bada galera, Mitxelenak iradoki bezala. (2011 : 173)³⁷⁸

Horien argitan, metodologikoki arazotsua da Erdi Aroko euskararen eremu dialektalak bereizteko ezaugarrien artean hasperena erabiltzea (cf. Reguero 2013:

³⁷⁸ Begiratu, bide batez, Lakarrak berak pasarte horri loturik dakarren aipua: “[In evaluating features] they may represent an innovation diffused into both languages from a source external to both; this situation is also not of any use in establishing a subgroup (Bowern & Koch 2004: 10).

434),³⁷⁹ areago X-XV. mendeen arteko agiritan [+ hasperena] : [- hasperena] bezalako oposizioak ez egonik, ezpada itxuraz hasperena erritmo ezberdinetan galtzen ari ziren hizkerak, zeintzuen artean eremu berritzaileak eta gordetzaileak egon baitziren lauzpabost mendez.

[+ hasperena] : [- hasperena] ereduko oposizio garbixea garai historikorako besterik ezin daiteke irudikatu; hots, hasperena arkaismotzat joaz, Ipar Euskal Herriko hizkerak gordetzaile izan dira (eta ekialderen daudenak oraindik ere badira), nahiz eta Ipar Euskal Herri osoan ere ez den hasperena gorde: denboran aurrerago, hasperena galduago agertzen da Lapurdin eta Nafarroa Beherean (§4.1.2). Hego Euskal Herrian, bestalde, gogoratzekoa da Beriainen lanetan morfologizazioa edo lexikalizazioa gertatu dela dirudiela Manterolaren (2015) datuen arabera.

arazotsua da galeraren deskripzioa bera: oraintsu arte pentsatu izan den legez Iruñeritik hasi bazen, ez da aise azaltzen nolatan aurki daitezkeen arrastoak Beriainen lanetan XVII. mende hasieran, morfologikoak izanik ere.

Zenbait eremutako (Bizkaia eta Gipuzkoa, gehienbat) dokumentazioaren ezagutza falta, ezagutzen den dokumentazioan agertzen diren gorabeherak (horrek fidagarritasun-auzietan duen eraginarekin) eta ezaugarriaren beraren izaera (berrikuntza negatiboa izateak, alegia) gogoan izanda, behin-behinean behintzat sailkapen dialektalak egiteko ezaugarri ahultzat eta arriskutsutzat dut hasperenaren galera (areago Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, Nafarroan nafar erromantzearekiko ukipenaren ondorioz legetxez, erromantzearekiko ukipenak eragin bazuen hasperenaren galera (§4.1.2).

5.1.3.3. (*h*)iri, *barri* eta *baltz* aldaerak

Leskien hatsarrearen mugen artean aipatu izan dira ikertzaileek ikuspegi atomista erabiltzea batetik (cf. Hamp 1966: 118), eta konbergentziak bakarrik erabiltzea bestetik (cf. Watkins 1966: 31-32). Esan nahi baita, hurrenez hurren (a) azpi-talde linguistiko bat definitzeko ezaugarri bat aurkituta ezaugarri hori nahikotzat jotzea filiazio linguistikoa frogatzeko eta (b) konbergentzia ez ezik dibergentzia ere egon daitekeela (eta, are gehiago, joera edo ezaugarri dibergenteak ugariagoak eta sakonagoak izan daitezkeela) gogoan ez hartzea.

³⁷⁹ Caminok (2013), adibidez, ez zuen hasperenaren galera erabili filiazio linguistikoen bila Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko euskarak aztertu eta alderatu zituenean.

Atal honetan aipatutako ezaugarriez aritzeko, argigarri da Mitxelenak esandakoa: “Ya por los siglos X-XI eran manifiestos los contrastes (...) occid. *baltz, barri* / or. *beltz, berri*, con una divergencia insignificante, si no hubiera cobrado importancia gracias a la escasez del material utilizable” (1981a: 546; letra etzanak neureak dira [EZ]). Hots, Euskal Herriko mendebaleko Erdi Aroko euskarari begiratzean (*ia*) *bestarik ez dagoelako* aipatu zituen Mitxelenak aldaera horiek, bai eta Euskara Batu Zaharraren ideia gehiegi garatu gabe zuelako eta dialektoen ikuspegi pankronikoak, kontzienteki zein inkontzienteki, indar betea zuelako; nolanahi ere den, dakidala ildo beretik jarraitu izan da gerora ere (Aldai 2014: §2.1.1, Zuazo 2012: §2.1 eta §2.2, Reguero 2013: §2.1).

Hemen iruzkindutako aldaerak nagusiki mendebalekoak direla ez da zalantzarik, eta eremu tinkorik eratzeotan mendebalean erazten dutela ere ez da zalantza-gai; aitzitik, Mendebala unitate linguistiko zabalago batetik (Euskara Batu Zaharra edo Euskara Batu Zaharraren eta Mendebaleko Euskara Zaharraren arteko egoera linguistiko bat, demagun) bereizteko hautu atomistegia ez ote den galdetzerik ere badago, batez ere ezaugarri horiek erabiltzen badira Erdi Aroan eremu dialektal bat irudikatzen. Mendebaleko euskararen isoglosa bereizgarri zaharrenetarik direla ezin uka dezaket, baina *Ba ote dira behar bezain esanguratsu?* galdera egitea zilegi bezain beharrezko da.

Mendebala bereizten hasia zela pentsatzeko aukera ematen dutela ez dut ukatzen, baina eremu dialektalez aritzeko pisu handiagoko ezaugarriak behar direlako daukat. Mitxelenak *u-* : *i-* bereizi zuen, ezein bereizteotan, aurrekoen artean; orain badakigu *u-* guztien jatorria ez dela bera, eta bereizi egin behar direla, gutxienez, (*h*)*uri* eta **eu* diptongo zaharrago batetik eratorritakoak (cf. Lakarra *et al.* 2019: xxxvi, 47. oin-oharra);³⁸⁰ jatorri-ezberdintasun horrek azalduko luke, bide batez, *u-* duten aldaeren hedadura dauden ezberdintasunak. Nolanahi ere den, konposizioaz landara aldaera sistematikoa da (*h*)*uri*, eta ez ditu, adibidez, *barri*-k dituen arazoak: ez dago (*h*)*iri* forma askerik X-XIV. mendeetako toponimian (cf. *Gernika & Garnika* bikoteak, edo *Berriatua*, *Berriz* eta *Gerrikaitz* bakarrak), eta ez dago (*h*)*uri*-rik Euskal Herriko erdi-ekialdean (cf. *bardin*-ez esandakoak, adibidez). Ezaugarriek, gainera, ez dute eragin larririk hizkuntza-egituretan, eta dardarkari aurrean *e > a* irekitzea guztiz arrunta da tipologikoki.

Dibergentzia- eta konbergentzia-joerei dagokienez, Leskien hatsarraz aritzean aipatzen den arazoaren alderantzizkoa dakusat nik neuk ezaugarrien erabileran:

³⁸⁰ Birgogoratzekoa da kasuren batean **eu > ei > i* ere gertatu dela Mendebalean, hala nola *itxi* ‘utzi’ aditzean (cf. Lakarra 2011: 188, 92. oin-oharra).

berrikuntza partekatuak aurkitzean ezaugarri dibergenteak ahaztearen arriskua aipatu izan da hizkuntzalaritza indoeuroparrean, eta zalantza dut berba-gai ditudan ezaugarriekin aurkako ez ote den gertatzen; alegia, berrikuntza dibergente horiek aurkituta ez ote diren gainerako ezaugarri konbergenteak edo, Meiden (1975) terminologia erabiliz, *arauak* (edo *arau komunak*) ahazten; ez ote zaien hiru ezaugarrioi behar baino garrantzi handiagoa ematen eta, horrekin bat, ez ote den banaketa dialektal sakon bat irudikatzen azaleko bariazio arrunta besterik ez dagoen lekuan.

Reguero (2013 eta 2015b) lanetan zuzen-zuzenean hala aipatuta aurkitu ez badut ere, balirudike gogoan zuela Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketa(k) mendebalean gertatu zirela: zioenez, ekialdeko euskara ez zen Euskara Batu Zaharretik bereizi, eta Goi Erdi Aroaren hasieran erdi-ekialdeko euskarari kontrajartzen zaion eremu dialektal handia zekusan mendebalean (*idem*, 442). (*h*)uri, *barri* eta *baltz* aldaeren kronologia aintzat hartuta, egia da hurbilago diruditela Euskara Batu Zaharretik Euskara Arkaikotik baino; baina, arestian esandakoarekin bat, pentsatzen dut bai fonologiari loturik (Euskal Herriko mendebalaz, begiratu §4.4.6; ekialdeaz, begiratu Camino 2011: §8 eta §9, Lakarra 2011: §5.2), bai fonologiaz gaindi badaudela garrantzi handiagoko ezaugarriak.

5.1.3.4. Disimilazio morfonologikoa

Kronologikoki gutxi gorabehera (*h*)uri, *barri* eta *baltz*-en garaikidetzat jo badaiteke ere (Euskara Batu Zaharreko lehen zatiketen ondoko baina XI. mendea baino lehenagoko berrikuntzen artean sailkatzekotzat, behintzat), $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoa³⁸¹ bereiz landu behar da zatiketa eta banaketa dialektal zaharrez hitz egitean: ez dirudi Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketari lotzen zaionik, baina Mendebaleko Euskara Zaharraren definitzaile izateko baldintza guztiak betetzen dituelakoan nago, azken urteotan defendatu izan denarekin bat (cf. Lakarra 2011: 210-211, Zuloaga inprimategian-1, eta Lakarra 2018: 221). Zehazki, definitzailetzat ez ezik, *definitzaile zahar eta iraunkor nagusi*-tzat jo behar dela uste dut, nahiz eta horrek ez duen esan nahi bakarra denik: ezaugarri-sorta zabalagoa proposatu zuen Aldaik (2014; §2.6.4.2), eta *egin* aditz laguntzailea eta **ezan*-en datiboko osagarri zuzenarekiko komuntadura falta aipatu zituen Lakarrak (2011: 210, 2018: 221, 271. oin-oharra).

³⁸¹ Aurreko ataletan esandakoarekin bat, kasu honetan bazter utziko ditut bai adizkietako disimilazioak, bai $a + a > ea$ disimilazioaren ondoren eta ondorioz sortutako bestelako fenomenoak ere.

Nik neuk aurreko atal eta azpi-ataletan ezaugarri batzuez eta bestetuz emandako azalpenen argitan, inork esan lezake $a + a > ea$ mendebaleko euskararen (edo, zehatzago, Mendebaleko Euskara Zaharraren) ezaugarri definitzaile nagusizat jotzea ikuspegi eta erabaki atomistegia dela; hots, nik neuk *barri*-ri garrantzia kentzeko erabilitako argudioa bestela darabildala edo ahaztu egin dudala hemen. Aitzitik, oso bestelako baldintzak betetzen ditu disimilazio morfonologikoak.

Oinarrizkoenetik hasita, disimilazioa berrikuntza da, berrikuntza positiboa eta hedadura zabalekoa. Hori baino gehiago ere bada, ordea: XX-XXI. mendeetako ikertzaileek (cf. Petit 2007: §II) Leskien hatsarrez aritzean aipatutako muga eta zehaztapen larrienak gainditzen ditu, eta hizkuntzalaritza historikoan eta dialektologian hizkuntzak eta dialektoak sailkatzeko (begiratu §2.4.3.2 atala) erabili ohi diren irizpideak bete-betean betetzen ditu:

- (i) Berrikuntza positiboa da, kontrajarri egiten baitaio $a + a > aa > a$ bilakabide komunari hitz-errotik kanpo: artikulua mugatuari loturik, singularraren markatzaile da eta forma mugagabearekiko bereizketa dakar; beraz, hizkuntza-egituran sakon errotua da.
- (ii) Morfonologiaren esparruari dagokio, ez lexikoari; ez da, *barri*, *baltz* edo *u*- legez, berba jakin batzuetan bakarrik agertzen.
- (iii) Zaharra da, Mendebaleko euskara ziurtasunez definitzeko erabil daitekeen zaharrenetarikoa.
- (iv) Lekukotasun zaharrenez harago, Erdi Aroaz geroztik mendebal zabaleko iturri garaikideetan ondo dokumentatua da.
- (v) Ondoz ondoko eremu mugakideetan hedatu da: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako mendebalean.
- (vi) Mendebaleko hizkeren ezaugarri eksklusiboa da singularra disimilazioaren bidez markatzea; ezaugarri bateratzailea ere bada, beraz.
- (vii) Euskal Herriko mendebala bete-betean besarkatzen duen ezaugarri bateratzailea da, baina era berean banatzaile ere bada, Euskal Herriko mendebala erdi-ekialdetik bereizten baitu.
- (viii) Hedadura zabalekoa eta sistematikoa da: salbuespenak bakanak dira, eta oro har testuinguru sintaktiko edo testual zehatzetan metatzen dira erdialderagoko formekiko lehia dagoen eremuetatik kanpo.

(ix) Ezaugarriak ez du fidagarritasun-arazo berezirik eragiten: gramatika-egituretan sakon txertatuta egonik, mendebaleko idazleek ezin izan dute aldagai estilistikoa balitz bezala erabili (ezaugarri *indicator*-a da, ez *marker*-a),³⁸² baina disimilaziorik ez dagoen eremuetako idazleek bai, disimilazioa erabili dute mendebal(erago)ko euskara imitatzean; cf. Larramendiren Azkoitiko sermoia edo Kardaberatzen *ca.* 1762ko dotrina.

Aurreko guztiak aintzat hartuta, tesi honetan aztertutako ezaugarrien artean $a + a > ea$ disimilazioa Mendebaleko Euskara Zaharra sailkatzeko ezaugarri esanguratsuena dela pentsatzen dut (cf. §6.4.1).

5.1.3.5. Bokalerdiak eragindako palatalizazioa

Bokalerdiaren ondoko frikari eta afrikatu lepokariaren palatalizazioa arrunki aipatu izan da mendebaleko euskararen ezaugarrien zerrendetan, eta euskararen zatiketa dialektalari buruzko lanetan ere aipatu izan da Erdi Aroko datuen artean. Alabaina, palatalizazio hau ez da arestiko ataletan aipatutako ezaugarriak bezain zaharra, ez eta ezaugarri zaharragoren bat bezain sistematikoa ere.

Alde batetik, berrikuntza positiboa da, erlatiboki zaharra, ondo eta orekaz dokumentatua garai jakin batetik aurrera. Gainera, Bizkai osoan eta Arabako erdi-mendebalean sistematikoa dirudi, baina item lexiko jakin batzuetan baino ez da agertzen, lexikalizaturik. Gainera, Bizkaiaz eta Arabako erdi-mendebalaz gaindi beste eremu batzuetan (besteak beste, Euskal Herriko beste muturrean, hala nola Zuberoan eta Erronkarin; cf. *bakotx* eta *gatx* aldaerez esanak) ere badaude adibideak, euskararen barnean arrunt xamarra izan dela erakutsiz.

Horrekin guztiarekin ez dut esan nahi ezaugarri garrantzitsua ez denik, baina neurria ahalik eta ondoena hartu behar zaiola azpimarratu nahi dut: Erdi Aroaren azken mendeetan (*post* 1200 halako ziurtasun batez) lekututako berrikuntza da, banaketa dialektala bi, lau edo sei mende lehenago baino aurreratuagoa zegoenekoa; hain zuzen ere, mendebaleko lurrei dagokienez $a + a > ea$ -k definitzen zuen eremu zabalaren barnean zatiketak gertatzen hasiak zirenekoa da (cf. Lakarra 2017: 82), eta beharbada arestiko disimilazioarenak ez bestelako indar grabitatorioen menpekoa (§5.2.3.2). Hori guztia dela eta, Erdi Aroko dialektalizazio-prozesuan ezaugarri berankorra da: mendebaleko euskara ezaugarritzeko baliagarri da, zenbait aldaera palatalizatu

³⁸² Variables (...) which are subject to stylistic variation as well as class, sex and/or age variation are referred to as *markers*. Variables (...) which are not involved in systematic stylistic variation are called *indicators*” (Chambers & Trudgill 1988 [1980]: 83-84).

mendebalean besterik ez baitaude eta palatalizazioak mendebalean baitu inon baino indar handiagoa; baina, ez du balio zatiketa eta banaketa dialektal zaharrenez aritzeko.

5.1.4. Mendebaleko Euskara Zaharrerantz

Atal zein tesi honen helburua ez da Euskara Batu Zaharraren zatikatze dialektala goitik behera argitzea: azken urteotan aurrerapen nabarmenak egin dira (cf. §2.6.3 eta §2.6.4), baina oraindik ere langai larriak daude aztertzeko bai Aitzineuskara Modernoa → Euskara Batu Zaharra norabidean berreraiketaren bidez, bai Euskara Batu Zaharra → Erdi Aroko Euskara norabidean x-xv. mendeetako zein euskara historikoko datuen banaketa dialektala zehatz aztertuz. Atal honek, hain zuzen ere, bigarren esparru hori du jomuga.

Lan honen sarreran aipatu legez (§2.4.3.1), dialektologiari (edo dialektologoei) arbitrariotasuna egotzi izan zaie hainbatetan, dialektoak definitzeko eta sailkatzeko irizpideak ez baitira beti partekatuak (cf. Coseriu 1957: 137, Davis 1977: 25, Veny 1985: 38).³⁸³ Are gehiago, zenbait azterketa irakurtzean ikertzaileak ustezko malgutasun hori baliatzen ote duen eta datu linguistikoak bere aurreiritzi, uste edo nahietara makurtzen ez ote dituen galdetzea zilegi da; hots, zenbait sailkapen eta zatiketa ez ote diren ikertzailearen ideologiaren edo aurre-juzkuen arabera nolabait linguistikoki justifikatu gabe geratzen, edo ez ote diren argudioak gehiegi malgutzen. Jakina, datuek ezaugarrien banaketaren eta banaketa horren eragileen gaineko hipotesiak sortzea eskatzen dute; baina, hipotesi horiek datuekin eta filosofikoki egiaztatu behar dira (Williamson 2004: 105).

Euskara Batu Zaharraren zatiketa dela eta, Zuazoren ustez mendebaleko euskara bereizi zitekeen lehenbizi Euskara Batu Zaharretik, eta bereizketa Nafarroako Erresumaren zatiketarekin lotu zuen:

(...) el dialecto occidental es con mucho el más divergente, el que mayor número de cambios lingüísticos ha producido. Eso parece indicar que fue, tal vez, el primero en desgajarse del resto de los dialectos. Es posible que el alejamiento de Álava y Vizcaya del Reino de Navarra, y su acercamiento al Reino astur, en el siglo VIII, y, más tarde, al Reino de Castilla, tenga algo que ver con este hecho. (2010a: 192)


Lanerako hipotesi izan daiteke Nafarroako Erresumaren zatiketak eragina izan zuela Erdi Aroko euskararen dibergentzia-dinamiketan; baina, arrazoi linguistiko zehatzik eman ez izana kritikatu izan zaio Zuazori (begiratu Lakarra 2018: 220, 270.

³⁸³ Ustez subjektibotasun-arazo horiek zuzentzera eta gainditzera etorritako azterketa kuantitatiboek ere ez dute helburua lortu eta, areago, hizkuntzalaritza historikoak azterketa kualitatibo ondo funtsatu eta arrazoituen bidez kontrolpean zituen bestelako arazoak “aske” utzi eta eragin izan dituzte sarritan.

oin-oharra), bai eta ikuspuntu historikotik hala Asturiasko nola Nafarroako erreinuei lotutako azalpenek oso helduleku ahulak izatea ere (begiratu González de Viñaspre 2011: xxix-xxxi).

Beste alde batetik, mendebaleko euskararen aldaketa linguistiko gehiago gertatu izanak (ez dakit halako kuantifikazio zehatzik egin den inoiz, baina hala izanda ere) ez du zertan erakutsi zatiketa dialektala zaharrago dela eremu horretan: aldaketa horietako bakoitzaren (egiturazko aldaketena, gutxienez) kronologia berreraiki beharko da egiazki jakiteko zer den zahar eta zer moderno, gehitutako aldaketa horietako asko ez VIII-XII. mendeetakoak baina XVI., XVIII. edo XIX. etakoak baitira: ez da ahaztekoa Erdi Aroan *gipuzkera*-z berba egitea arazotsua dela, adibidez, hemen aztertutako $a + a > ea$ disimilazioa edo *egin*-en gramatikalizazioa ez direla dialekto moderno(ago)ek funts komun zaharrago batetik (Mendebaleko Euskara Zaharra) hartutako berrikuntza zaharrak baino.

Euskara Batu Zaharraren dialektalizazioa dela eta, azken hamarkadotako beste lan batzuek ekialdean jarri dute arreta: egungo Zuberoa eta Erronkaribar ez ezik, lur-eremu zabalagoa hartuko zukeen eremu batez aritu dira Camino (2011) eta Lakarra (2011), eta inguru hartan ikusi dute lehenengo zatiketa, ezaugarri esanguratsu batean oinarrituz: /l/ eta /n/ ondoko herskari ahoskabeak, batek (Camino 2011: 140) arkaismotzat eta besteak (Lakarra 2011: §5.2) berrikuntzat jo baditu ere. Proposamen horrekin bat, honako zuhaitz hau proposatu zuen Lakarrak (2011: 213):



23. irudia. Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketak (Lakarra 2011: 213)

Mendebalaz denaz bezainbatean berehala datozkigu gogora, Mitxelenaz (1981a) geroztik behintzat, (*h*)*uri*, *barri* eta *baltz* bezalako aldaera zahar askoak, eta tarteka gogoratzen tarteka ahazten zaigun besteren bat, hala nola *bildur & beldur* bikotea.³⁸⁴ Horien balio sailkatzaileaz aritzean, halere, *besterik ezean*, *tira*, *baina arruntegiak dira* ideia mitxelenarrarekin bat egin dut, azken batean item lexiko jakin batzuetan ihartu baitira, konposizioan eta are kasuren batean dokumentazio historikoan forma zaharra gordeta gainera, bilakabide arruntak dira bai beste hizkuntza batzuetan, bai euskaran bertan: tipologikoki arrunt edo natural diren prozesuak dialekto edo hizkuntza baten definitzailatzat jotzea hautu okerra da.

Hala ezaugarrien kronologiaz eta bilakaeraz nola izaeraz emandako datuen argitan ez dut zalantza teoriko-metodologikoetarako tarte handirik ikusten: dialektoak, hizkuntza-eremuak eta hizkuntzak sailkatzean zenbat ezaugarri erabili behar diren erabakitzea eztabaida-gai klasiko eta ezaguna da (§2.4.3.2), baina Euskara Batu Zaharraren ondoko zatiketez aritzean mendebalean ez dut ezagutzen garai eta leku berean edo bertsuetan aurreko baldintza guztiak $a + a > ea$ disimilazioak bezain zurrin betetzen dituen beste ezaugarririk. Erdi Aroko euskara hobeto ezagutzeak eta Euskara Batu Zaharraren berreraiketan sakontzeak argi gehiago ekarriko dute auziaz, baina bitartean Lakarrak (2011: 203, 2017: 82, 2018: 218) *Mendebaleko Euskara Zahar* deitutakoa³⁸⁵ definitzeko eta eremu linguistiko hori garaitikoetatik bereizteko egokiena iruditzen zait. Schleicherren zuhaitzaren eredia baliatuko banu, beraz, $a + a > ea$ disimilazioa kokatuko nuke Erdi-Mendebaleko Euskara Zaharraren ondotik, Mendebaleko Euskara Zaharraren lehenengo edo gorengo adabegian (§6.4.1).

5.1.4.1. Mendebaleko Euskara Zaharraren eta gainerako euskal hizkeren arteko lehenengo zatiketarako $a + a > ea$ disimilazioaz gain beste ezaugarri esanguratsurik ere

³⁸⁴ Mendebaleko euskararen fragmentazio dialektalaz egindako lan batean, ezaugarrien geruza zaharrago edo zaharrean tesi honen aztergaietatik kanpo geratutako beste batzuk aipatu zituen Aldaik (2014), (*h*)*uri*, *barri* eta *baltz*-ekin batera: mendebaleko **daugu* vs. ekialdeko *dugu*, ergatibo pluraleko *-ak* & *-ek*, datibo pluraleko *-ai*, *-a*- erroa *izan*-en adizkietan eta *-ko* & *-go* prospektiboa. Aldaik berak lan horren ondorioetan (Aldai 2014: 236) aipatzen dituen zenbait zailtasun eta arazo konpontzeko ezinbestekoa da aldaeretako batzuk berrikuntza ala arkaismoa diren argitzea eta berrikuntza erdi-mendebalean edo erdi-ekialdean gertatu diren ebatzea. Halaber, lagungarri izan daiteke zenbait kasutan Meidena (1975) bezalako eredu bat aplikatzea, arkaismoak eta berrikuntzak ez ezik hizkuntzaren eremu gehienez arunt ziren arauak ere bereiziz, eremu aski zabalak baititu hizpide. Halaber, geruza ezberdinetan kokatutako zenbait ezaugarri ez *Mendebaleko euskara* bati oro har baina Euskara Batu Zaharraren ondoren gertatutako banaketa edo zatiketa ezberdinei egozte (zuhaitzaren irudiaren barnean adabegi ezberdinak erabiltzea/proposatzea, hala nola Erdi-Mendebaleko Euskara) lagungarri izan daiteke ustezko zenbait arazo gainditzeko. Bestalde, tesi honetan aztertutako ezaugarriez gain, ergatiboaren bilakabidea, *-tza* & *-tz(e)* aldaerak eta *-dui* & *-di* & *-doi* aldaerak ere aztertu zituen Reguerok (2013, 2015b).

³⁸⁵ Hots, Lakarraren eskemei jarraikiz, Erdi-Mendebaleko Euskara Zaharra bitan adarkatuta Euskal Herriko mendebaleko eta erdialdeko eremu zabalak hartzen duen eremua.

erabili ote daitekeen galdetzea oso zentzuzkoa da, beste ezaugarri batzuk ere Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan agertzen direla aintzat hartuta. Hain zuzen ere *egin* laguntzailea eta objektu pluralarekiko komunztadura eza aipatu dira izangaien artean (Lakarra 2011: 210),³⁸⁶ eta horien izaeraren, datazioaren eta hedaduraren azterketa laburra egingo dut hurrengo lerroetan, $a + a > ea$ -rekin batera multzoka daitezkeen argitzen saiatzeko.

Euskara Arkaikoa baino lehen hala *egin* aditz laguntzaileak nola objektu pluralarekiko komunztadura faltak izandako hedadura argitzea zaila da Erdi Aroko lekukotasunik agertu ezean: geografiaren iragazkia erabiltzea ezinbestekoa da ezaugarriok XV-XVI. mendeak baino lehen izandako indarra eta bilakaera neurtzen saiatzeko eta unitate dialektalak sailkatzeko izan dezakeen balioa haztatzeko.

5.1.4.2. Komunztadura faltaren hedadura geografikoa zabala da: Bizkaian ez ezik, Gipuzkoako mendebaleko eta hegoaldeko testuetan ere aurki daiteke, bai eta Arabakoetan ere (Zabala 1848: 52, Bähr 1925: 98-99, *MorfVasc* §II: 772, Azkue 1935: 77, Lakarra 1986c: §5.21, Lakarra 1996: §2.5, 2011: 212, 145. oin-oharra, Mounole & Lakarra 2018: 445).³⁸⁷ Aitzitik, ez da eremu osoan gertatzen: Arabako testuen artean, adibidez, ez dago adibiderik Betolatzaren dotrinan, eta Lazarragarenean zenbait kasutan indarrez agertzen bada ere, komunztadura ondo gordetzen da aditza **edun* denean (Zuazo 2012: 137, Mounole inprimategian). Hedatu den eremuetan, bestalde, ez da bakar; hots, komunztadurarik gabeko egiturekin batera komunztadura gorde dutenak ere aurki daitezke tarteka. Ezaugarria, beraz, eksklusiboa da mendebal zabal batean, baina ez da ezaugarri sistematiko eta erabat bateratzailea.

Gorabehera horiek guztiek lotura bide dute ezaugarriaren beraren izaerarekin: berrikuntza negatiboa da, galera, eta sailkapen linguistikoak egitean halakoak (ere) erabiltzeko *egin* diren aldarrikatzeak aldarrikatze, ahulagoak dira (besteak beste arestian azaldutako gorabeherak islatzen dituztelako) filiazio linguistikoak ezartzeko; cf. Lakarrak berak hasperenaren galeraren balio sailkatzzaileaz esandakoak (§5.1.3.2), nahiz eta kasu honetan ezaugarriaren eremua ez den Hego Euskal Herri osoa.³⁸⁸

³⁸⁶ Lakarrak proposatutakoak aztertuko ditut hemen garaitiko guztiak aztertzeko leku faltaz eta Lakarrarena baita, dakidala, Euskara Batu Zaharraren zatiketaz egin den hausnarketa aurreratuena eta sakonena.

³⁸⁷ Egungo mugez datu zehatzagoak bildu zituen Zuazok: “Goierrikoetatik, Amezketan, Arama, Bedaio, Itsasondo eta Ormaiztegi aipatuko zituen Yrizarrek (1981, I, 38) sg./pl. ezberdintasuna zuzen egiten den herrien artean. Yrizarrek berak II. liburukian dakartzan adibideei so eginez, badirudi Lazkao ere erantsi egin beharko litzaiokeela zerrenda horri. Erdibidean omen dago Zaldibia eta, antza, baita Ataun bera ere” (1989: 30).

³⁸⁸ Lakarrak berak ez du baztertzen komunztaduraren galeraren adibideak berrikuntza beregain paraleloak izatea (cf. 2011: 212, 145. oin-oharra).

5.1.4.3. *Egin* laguntzaileaz denaz bezainbatean, Euskara Arkaikoaz geroztik³⁸⁹ da arrunta Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoa gehieneko testuetan iragankor *irrealis*-etan, baina **ezan* orokorraren adibideak ere ez dira falta mendebalean (Mitxelena 1960a: 698, Etxaide 1984: 601, Lakarra 1986c: §5.14, 1996: 152, 157 eta §2.3, 2011: §4.6), nahiz eta Euskara Arkaikora orduko *fase sparita*-n egon eta laguntzaileen artean banaketa morfosintaktikoa agertu:³⁹⁰

XVI. mendea baino lehenagoko euskararen lekukotasun den *RSen* [aditzoina + **ezan*] egitura da nagusi iragan burutua eta agintera bezalako testuinguruetan (294 *erra cizan uria* ‘erre zuen hiria’, 194 *uler ezac lenago*); halaber, Arrasateko erreketaren kantuetan perifrasi hori baizik ez da. XVI. mende akabuko Lazarragaren testuan, berriz, [partizipioa + *egin*] egitura da arruntena (AL1142r *ençun eguien guztiai emun eioan tristeza andia* ‘entzun zuten guztiei eman zien tristeza handia’, 1152v *esan ce eguidaçu berva oriec* ‘ez itzazu esan hitz horiek’). Hori hala izanagatik, XV. eta XVI. mendeetako mendebaldeko testu guztietan, [partizipioa + *egin*] baizik ez daiteke erabil ahaleran eta geroaldian (...) eta laguntzaile hirupertsonal gisa (...) Salbuespenak salbuespen, XVIII. menderako, [aditzoina + **ezan*] perifrasi mendebaleko hizkeretatik desagertuko da. (Mounole & Lakarra 2018: 433)³⁹¹

Nire ustez, *egin*-en gramatikalizazioaren kronologia berankorragoak ($a + a > ea$ -renak baino, behintzat) azal ditzake errazen XVI-XVIII. mendeen artean ikertzailearen begien bistara gertatzen diren gorabehera eta indartzeak; alegia, pentsatuaz berankorra eta Mendebaleko Euskara Zaharraren berrikuntzetan azkenetarikoa dela, XIII-XIV. mendeetan sortua eta orduz geroztik arian-arian hedatua.

Egin-en hedadura ez mendebaleko hiztunen hautu, baina berrikuntza legez azaltzeko, Meiden (1975) eredu baliatu zuen Lakarrak: “B[izkaiera] Z[aharra]k E[uskara] B[atu] Z[ahar]-aren norma eta berrikuntza hartu du eta B[izkaiera] M[oderno] berrikuntza hutsarekin gelditu da, norma galduaz” (2011: 176; cf. §2.4.5). Kasu honetan, gainerakoetan bezala, ezaugarriaren izaera eta datazioa da erabakiak hartzeko gakoa: XIV-XVI. mendeak baino lehen **ezan* ~ *egin* oposizioaz argia eman dezakeen adibiderik ez egoteak hedadura geografikoan oinarritutako eta Euskara Arkaikoaz geroztiko lekukotasunen arabera interpretazioak ezinbesteko egiten ditu.

Egin-en erabilera berrikuntza positiboa da, eta eskusiboa erdi-mendebal zabalean; XVIII. mendeaz geroztik bakar (eta, beraz, sistematiko) da Bizkaian eta oro har Arabako euskaran,³⁹² bai eta Gipuzkoako hainbat hizkeratan ere: sartaldean eta

³⁸⁹ Zehatz datatutako adibide zaharrena Martín Ibáñez Labierukoarena da (1398): 3 *Nor ete çan çuri losa ygorrosi eguiçuna?*

³⁹⁰ Gutxi dira *egin* laguntzailea erabiltzeko testuinguru aproposa agerturik hori ez dakarten testuak, denak ere Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak: MLastur, ArrasErrek, Henao, BizkOlerk, Etxaberen *Ave Maria*, IsastiSalve, ItziarBerts eta Lardizabalen gutuna aipatzen ditu Mounolek (2007: 137).

³⁹¹ Perifrasi bilakaeraz, begiratu, halaber, Mounole (2007) eta (2018).

³⁹² Ipar-sartaldean *Dotrinazko sermoitegi*-ak 45-70 *acabeesasu* du: “Hau noski, aurreko testuetan ikusitakoaren harira dator, Barrutiaren eta Albenizen egoera bertua erakusten duelako, eta erakusten digu

hegoaldean gehienbat, nahiz eta are sortalderago ere aurki daitekeen adibiderik Lehen Euskara Modernoan: Mendibururen lanetan [aditzoina + *egin*] dago, “bakanki eta subjuntiboan bakarrik (*barka dagizula*) bada ere” (Urgell 2018: 623).

Hedadura aski zabaleko ezaugarria da, beraz, indikatiboaz gaindiko *egin*-en erabilera, eta horrek zer pentsa ematen du, neolinguisten laugarren irizpideari jarraikiz, bere antzinatasunaz. Aitzitik, Euskara Arkaikoan eta Zaharrea mendebalean dagoen **ezan* ~ *egin* lehia ere oso gogoan hartzekoa da kronologia-gaiak berreraikitzean. Ematen du, Aldairekin (2014: 233) bat, kasu honetan kontrajarri egiten direla ezaugarrien zahartasuna zehazten saiatzeko erabilitako bi irizpide, hedadura zabalarena eta sistematikotasuna; izan ere, *egin* laguntzailearen hedadura oso handia da, baina ez zitzaion **ezan*-i gailendu (erlatiboki) oso berandura arte.

Egoera horren aurrean, bi azalbide ikusten ditut:

- (i) *Egin*-en gramatikalizazioa eta hedatzea egiazki zaharra da, demagun $a + a > ea$ disimilazioaren garaikidea-edo; baina, erabat nagusitzeko (hots, lehian **ezan* garaitzeko eta berau desagerrarazteko) sei-zortzi mendeko denbora-tartea behar izan zuen, azken garaietako **ezan*-en adibideak *fase sparita*-n zegoen arkaismoarenak izanik.
- (ii) *Egin*-en gramatikalizazioa eta hedatzea egiazki zaharra da, baina ez $a + a > ea$ disimilazioa bezain zaharra,³⁹³ ez IX-X. mendeetako, ezpada, demagun, XIII. eta XIV. mendeetako: ordukoa izanik ere denbora nahikoa (bizpahiru mende) izan zuen eremu zabal batean **ezan* ordezkatzeko, eta **ezan*-en adibideak *fase sparita*-n zegoen arkaismoarenak izanik, lekukotasun historikoek eurek erakusten dute lehiaren azken fasea.

Hala hedadura-gaiak nola **ezan*-ekiko banaketa funtzionalaren iraupena aintzat hartuta, bigarren ikuspegia begitانتzen zait sinesgarriagoa; begiratu §5.2.2.3 atalak kronologia horrek Mendebaleko Euskara Zaharraren iraupenarekiko dituen ondorioez.

XVIII. mendeko sartaldean ere galdua zen **ezan*-ek arrastoak bazituela aginteran fosildurik” (Ulibarri 2015: 197).

³⁹³ Sisematikotasuna eta eskusibotasuna direla eta, *egin*-i lotutakoak morfologiaren esparruko prozesu eta ezaugarriak izanik, harrigarria izango litzateke lege fonetiko eta erregela fonologikoetan aurkitu ohi den sistematikotasuna eta zurruntasuna aurkitzea *egin*-en lekukotasunetan.

5.1.5. Garai historikoko ezaugarriak

5.1.5.1. Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera

5.1.5.1.1. Bokal sudurkarien galera

Euskara Batu Zaharraz geroztik Hego Euskal Herrian hasperenaren historia galera baten historia den legez, galera baten historia da bokal sudurkariena XVI. mendeko testuez geroztik; gogoratzekoa da Lakarrak (1997a: 516) bokal sudurkarien galera aipatu zuela Euskara Arkaikotik Euskara Zahar eta Klasikora bitarteko trantsizioaren ezaugarri definitzaileen artean, eta azken urteotan agertutako datuek ere ez dute ikuspegi orokor hori aldarazi: Lazarraga eskuizkribuak eta Sarasketa hiztegitxoak, adibidez, Euskara Arkaikoaren corpusa osatu dute Euskara Arkaikorako espero zitezkeen bokal sudurkariekin. Bestelakoak dira *Dotrinazko sermoitegi*-ko lekukotasunak: ez da horietan bokal sudurkarietara lotutako prozesu edo berezitasun ezezagunik mendebalean orain arte ezagutzen ez zen aldaeraren bat gehitzeaz harago (cf. Ulibarrik –2015: §4.2.1.6– identifikaturiko *mai ~ maiñean* bikotea); sudurkaritasuna islatzen duten adibide horien kronologia da ezohikoa, sermoi-bilduma XVIII. mendearen amaierakoa eta, arkaismoak arkaismo, Lehen Euskara Modernoko dinamiketan bete-betean sartua izanik. Ulibarrik (2015) aurkeztutako bikoteek aukera ematen dute pentsatzeko mendebaleko bazter-hizkera batzuetan luzaroago iraun zutela sudurkariak.

5.1.5.1.2. Ozen ondoko txistukariak

Ez dut errepikatuko, ezagun askoa baita eta aipatua baitut jada, zer-nolako arazoak eragiten dituen Hego Euskal Herriko idazleek nabarmen berandura arte txistukari frikariak eta afrikatuak bereizi ez izanak. Kronologiari dagokionez, ezinezkoa da ozen ondoko txistukarien ebakeraren hizkeraz hizkerako deskripzio zehatza ematea: alde batetik, abiaburu orokorra eta arkaikoa zein zen irudika daiteke; beste alde batetik, testuak eta bereizketa grafikoak ugaritzen diren sasoiaren egoera bestelakoa zela ikusten da. Bestela esanda, Euskara Arkaikoan ozen ondoko txistukariak frikari ebakitzen zirela aipatu izan da (cf. Mounole & Lakarra 2018: 418) hiru irizpideri jarraikiz: (a) Landuccirenean frikari eta afrikatuak bereizten direnean, ozen ondoren frikarietara dagokien grafia ematen da; (b) *RS*-n afrikatu zalantzarik gabekoetarako erabiltzen diren zenbait grafia ez dira inoiz ozen ondoren agertzen; (c) Leizarragak frikariak eta afrikatuak bereizi zituen grafikoki, eta ozen ostean frikariaren grafia erabili zuen. Bi muturretako testuak izanik, beraz, badirudi orokorra zela ozen ondoko frikari-ebakera Euskara Arkaikoan (lehenagoko garaian legetzez, beraz), hiru testuren (nahiz eta ez

diren nolanhikoak) arabera Euskal Herri osoan edo gehienez zer gerta zitekeen baieztatzea arriskutsua bada ere.

Aurreko (a) eta (b) irizpideak baliatuta, bada, Euskal Herriko mendebalean frikari-ebakerak luzaroan iraun zuela ematen du. (b)-tik hasita, afrikatu zalantza gabekoentzat gordetako grafemak ez ditut ozen ondotik aurkitu Garibairenean, Mikoletarenean eta Kapanagarenean; beraz, badirudi frikari-ebakera gorde zela Euskara Zaharraren lehenengo hamarkadetan. XVIII. mendean, ordea, afrikatu-ahoskera hedatu bide zen: ez dago bilakabidea ziur irudikatzekeko datu askorik, baina Lehenengo Euskara Modernoko lehenengo urteez geroztik ugari aurki daitezke behin-behinean afrikatuak adierazten dituzten grafiak frikariak adierazten dituztenekin nahastean ozen ondoren; halakoak aurkitu ditut bai Bizkai sartaldean (Sarria), bai De la Quadraren testuetan eta horretatik *Errosariyo santuba*-n; Olaetxeak, aldiz, grafikoki bereizi zituen frikariak eta afrikatuak, eta ozen ondoren frikarien grafemak erabili: tradizio zaharragoa ezagutzen zuen eta edan zuen edo puntu honetan frikariak gordetzen zituen hizkeraren bat eredutzat jo zuen ez dakit. XVIII. mendearen amaierarako, nolahi ere den, argia da afrikatuen aldeko aldaketa: jaurerri osoko testuetan aurki daitezke hainbat adibide, ebakera hori indarrez zabaldu zelako erakusgarri.

Datu eskas eta hainbatetan zalantza-eragile horien argitan, bada, pentsa liteke ozen ondoko afrikatu ebakera Euskara Zaharrean zehar sortu edo hedatu zela mendebalean, itxuraz, hurrago XVIII. mendearen hasieratik XVII.aren hasiera edo erdialdetik baino.

5.1.5.1.3. Txistukarien neutralizazioa

Mendebaleko euskararen kontsonantismoaren esparruko berrikuntza historiko garrantzitsuena da txistukarien neutralizazioa. Arestian erakutsi eta aipatu legez, fenomeno historikotzat jo behar da *stricto sensu*; alegia, XVI. mendea baino lehenagoko adibide bakanez egin daitezkeen oharrak ohar, gehienbat data horren ondotik indartutako eta hedatutako aldaketa dela erakusten du corpus historikoak.

Mendebaleko testu arkaiko batzuetan (*RS*, frJZum, Land eta Betol, adibidez) aurki daitezke neutralizazio-zantzuak, baina bilakabidea oso mugaturik agertzen da: lehenik, inon egotekotan, frikarien sailean agertzen da argiro; bigarrenik, neutralizazio-zantzutzat edo adibidetzat har daitezkeen kasuak lepokari/apikari bereizketa gorde dutenak baino askozaz gutxiago dira; hirugarrenik, adibideak neutralizazioa errazen

gertatzen den kokaguneetan daude, esan nahi baita gehienak herskari aurrean (eta, bereziki, /t/ aurretik) eta gutxi batzuk hitz amaieran.

Neutralizazioa, beraz, ahula eta bakana da 1600 baino lehen mendebalean, eta ezin esan daiteke eremu horretako eskusiboa denik: Euskara Zaharra baino lehen paretsu agertzen dira adibideak Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako sartaldeko zenbait testutan, bai eta erdialderago ere, hala nola Nafarroan. Herskari aurretik frikari lepokari ~ apikari bereizketa neutralizatzea arrunta izan bide da euskaraz, nahiz eta gerora (Euskara Zaharraz geroztik) mendebaleko hizkeretan neutralizazio hori beste kokagune batzuetara zabaldu eta orokortu egin den. Nafarroako Erdi Aroko datuak argigarri dira berriz ere.³⁹⁴

Herskari aurrean ere -z- dugu euskaraz Erdi Aroan, zenbaitetan, Nafarroan bereziki, hortz-hobikari bihurtu bada ere: *Badoztayn* (N, 1143), *Badoçtain* (1199), *Badostain* (XII. m.; salbuespena da, alabaina, garai honetan), *Badostáin* orain; *Mari Ezteveiz* (N, XIII. m.), baina *Esteve* (N, XIII. m.); *Eluira Garceyz Bazterreco* (N, 1330) eta *Johan Basterreco* (*ibid.*). (Salaberri Zaratiegi 2018: 329)

1600. urteaz geroztik bestelakoa izan da egoera: badirudi Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera bitarteko trantsizio-urteetan hasi zela garatzen txistukarien neutralizazioa Euskal Herriko mendebalean inon baino gehiago, eta Euskara Arkaikoa ezker indartu eta hedatu besterik ez da egin harik eta gaur egungo neutralizazio erabatekora iritsi den arte.

1600-1650 denbora-tarteko lekukotasunen argitan ezin esan liteke neutralizazioa erabat buruturik zegoenik, baina (a) kokagune guztietara hedaturik agertzen da; (b) Bizkaiko sartaldean (VJesus, *Enoj*, Mikol...), erdialdean (Sorg1616) zein sartaldean (EgiaKant, Kapan) aurki daitezke adibideak (ez, ordea, indar berarekin eremu guztietan); (c) frikarietako adibideei afrikatuen saileko lehenengo adibide argiak gehitu behar zaizkie.

³⁹⁴ Inoiz Ipar Euskal Herriko XVII-XVIII. mendeetako idazleen <st> multzoak ere aipatu dira neutralizazioaren zantzua izan daitekeelakoan: mendebaleko eta erdialdeko datuen argitan ez litzateke harrigarri izango (Lapurdikoko kostaldeaz, begiratu Duhalde 2019 eta Zuloaga & Duhalde 2019), baina tentuz erabiltzekoak dira: “Ez da argi txandaketa horiek apikariaren aldeko neutralizaziorik salatzen ote duten; izan ere, gogoan izan behar da idazle horiek oro frantses ortografia sistema daukatela eredutzat, eta horretan <s> grafema erabiltzen dela bizkarkaria adierazteko. Gainera, frantsesez –inguruko erromantzeetan bezala– <z> grafema oso urria da silaba eta hitz bukaeretan, eta <s>, berriz, oso ugaria. Bestela erranik, ezin dugu baztertu txandaketa horien oinarrian arazo grafiko hutsa izatea” (Mounole & Gómez 2018: 499); begiratu, halaber, Padilla-Moyano & Videgain (2015: 92).

1650az geroztik ezaugarriak hedatzen jarraitu zuen eta ondo lekutua da Bizkaitik kanpo ere (adibidez, Urduñan, Eibarren, Azpeitia aldean eta Donostian),³⁹⁵ baina Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernora bitarteko trantsizioa arazotsu izan daiteke datuen interpretazioari dagokionez; izan ere, Bizkaian behintzat XVIII. mendearen hasierako idazle batzuek arau bereizlearen alde egin eta neutralizazioa ostendu zuten (begiratu, adibidez, Arzadunen eta Urkizuren datuak, eta Urkizuren 1737ko liburuari eta 1740ko koplei dagozkienak, hurrenez hurren; §5.3.2.2).

Lehenengo Euskara Modernoan hizkuntzaren ezagutza aktibo eta zabalagoa agertzeak ondorio positiboak eta negatiboak izan zituen. Bigarreni dagokienez, idazle batzuek eredu bereizlea hautatu izanak ez du zirrikiturik uzten neutralizazioa norainokoa zen ikusteko; esate baterako, Olaetxearen dotrinako hizkuntza-eredu orokor eta tinkoak ez du aukerarik ematen bere sorterriko eta inguruetako euskararen neutralizazioa norainokoa zen ikusteko eta aztertzeko. Lehenengoei dagokienez, ~1730/1750az geroztiko testuak gutxienez bi multzotan (hizkuntza-eredu landua vs. hizkuntza herrikoia edo lokalagoa, *grosso modo* azalduta) banatzeko aukera izateak bigarren multzoko testuen bidez tokian tokiko hizkerari buruzko informazio leialagoa edo fidagarriagoa lortzeko bidea ematen du. Bigarren multzo horretan sartzekoak dira ahaleginak ahalegin sistema grafiko tinkorik erabiltzea lortu ez zuten idazleak, bai eta zenbait hautu grafiko sistematizatzea lortu arren neutralizazioaz berba egitea ahalbidetzen duten arrakalak utzi zituztenak ere.

1750 ondoko testuek oso aurreraturik edo buruturik azaltzen dute neutralizazioa. Bizkai osoan aurki daitezke adibide garbiak, bai eta Bizkaitik kanpo ere: Araban (mendebalean ekialdean baino indartsuago; cf. DotrSerm vs. Albeniz eta Gamiz), Gipuzkoako mendebalean (Deba ibarra eta Urola aldea) eta erdi-ekialdeko kostaldean (Donostian eta Hondarribian, adibidez); azken horietan, gainera, badirudi lepokariaren aldeko neutralizazioa dagoela XVII. mendeaz geroztik.

Laburbilduz, beraz, txistukarien neutralizazioaren lehenengo zantzuak Euskara Arkaikoan aurki daitezkeen arren, funtsean Euskara Zaharrean garatutako berrikuntza da: 1600-1750 denbora-tartea aipa daiteke, 1750az geroztik indar biziz agertzen baita hala Bizkaiko nola Arabako eta Gipuzkoako zenbait hizkeratan: idazle ikasien andana baten hautu grafikoak hautu, beste hainbat testuk erakusten dute XVIII. mendearen

³⁹⁵ Fonetikoki, halere, neutralizazioa ez da eremu guztietan berdin gauzatu eta hedatu: apikariaren aldekoa da nagusi Mendebalean, baina Gipuzkoako hizkeretan (Urolan, kostaldean eta Donostia aldean, adibidez) lepokari ere ebakitzen dira jatorrizko frikari apikariak.

bigarren erdira orduko gaur egun aurki dezakegun egoera linguistikoa sortua zela; horrek, nolana ere den, ez du esan nahi mendebalean bertan eremu gordetzailerik egon ezin zitekeenik: Rollorek (1925: 6-7) arabera, Markina aldean bereizketa erabiltzen zen berba batzuetan homofonia saihesteko XX. mende hasieran. Halaber, gogoratzekoa da aurreko mendeetako zenbait idazle ikasik bereizketaren alde egitea erabaki zutela: “los autores que escriben en vizcaíno en el siglo XIX o XX están reflejando sus conocimientos ortográficos al distinguir ese de zeta” zioen Hualdek (2010: 105), eta tesi honetan proposatzen dut 1730eko hamarkadara arte atzeratu daitekeela, gutxienez, kronologia hori (§5.1.7 eta 5.3.3.2.1).

5.1.5.1.4. Bokal bikoitzen datazioaz

Mendebaleko eta erdialdeko testu historikoetan agertzen diren bokal bikoitzak inoiz arau orokor izandako egoeraren hondarrak dira: “se puede extrapolar, aun cuando falten éstos, al menos la presunción de que estas hablas vizcaínas continúan en este punto un estado de cosas más antiguo que todas las demás variedades de la lengua” (*FHV* 93). Euskara Arkaikora ezkerreko, beraz, arkaismo ziren, eta mendebaleko eta erdialdeko testuek oro har erakusten duten bilakaera arkaismo horren galerarena da; cf. Erdi Aroko zenbait datu esanguratsu Reguero (2017: 544) eta Salaberri Zaratiegi (2018: §2.1.1) lanetan. Bokal bikoitzen galera-prozesua, nolana ere den, ez zen berehalakoa izan (cf. Aginagalde & Urgell 2012: 24): dirudienez, hiruzpalau mende behar izan ziren erabatekoa izateko, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hizkera batzuetan oraindik gordetzen edo oraintsu arte gorde izan dira (begiratu Azkue 1926: 18; *FHV* 91, 6. oin-oharra; Hualde & Gaminde 1997: 214, 220 eta 229; Zuazo 2010a: 54; Apalauza 2012: 213, Agirrebeña *et al.* 2017: 31).

Mendebalean bokalak bakuntzeko prozesua aurreratuta agertzen da oro har XVI. menderako; beraz, eremu batzuetan behintzat galera-prozesuak goragotik etorri behar zuten, nahiz eta aintzat hartu behar den bokal bikoitzak ez direla beti sistematikoki adierazi: “hay pruebas de que la inconsecuencia se debe a mero descuido en la notación de una particularidad que los autores no creían muy importante y que tenía que resultar chocante a los lectores de otras zonas” zioen Mitxelenak (*FHV* 91) Lehenengo Euskara Modernoko gorabeherez aritzean. Arrazoi bata zein bestea tarteko, *RS* bilduman, Lazarg eskuizkribuan eta Miserere arkaikoan, esate baterako, hainbatetan agertzen dira bokal bikoitzak lexemetan bokal arteko kontsonante bat desagertu ondoren, morfema-mugetan eta eratorbide-elkarketan; aitzitik, bokal bikoitzak ez dira sistematikoak testu eta eremu

guztietan, eta lehenengo testuetarik da arrunt bakuntzea duten adibideekin batera agertzea (Bizkaiko eta Arabako testuetan behintzat); are gehiago, *RS* bilduman, adibidez, ugariago dira bakuntzea duten adibideak, eta Gasteiz aldekoetan (Land, Betol) arreta ematen du adibiderik ezak.

Soiltzeko joerak joera, Euskara Zaharraren lehenengo hamarkadetan ere zabal aurki daitezke bokal bikoitzak Euskal Herriko mendebalean eta erdialdean: Sevillako 1619ko bertsoetan badaude, VJesus dotrinan hainbat jatorri dituzte eta Kapanagarenean parekoa da egoera, nahiz eta soildutako aldaerak ere agertu, arestian aipatutakoaren arabera espero zitekeenez. Halaber, XVI. mendean Gasteiz aldekoetan legetxez, arreta ematen du Mikoletaren eskuizkribuan *loo*-z gain bokal bikoitzik ez agertzeak.

XVII. mendearen azken hamarkadetan aldaketa sumatzen da Bizkaiko testuetan: tradizioz pentsatu izan da jaurreriaren sortaldean hobeto gorde izan direla, baina 1665az geroztiko testu batzuetan (BertsBizk, Zubia, Bulda) adibideak eskas dira eta oro har berba jakin batzuetan fosildurik daude. Hain zuzen ere, egoera horrek jarraipena du Bizkaian Euskara Zaharraren azken hamarkadetan: bokal bikoitzak gutxi dira Arzadunen dotrinan, eta are gutxiago Urkizuren liburuan. Adibide gehienak, gainera, berba edo aldaera jakin batzuetan metatzen dira: *leen* berban, (*h*)*oneek* erakuslean eta, batez ere, *ae* > *ee* asimilazioaren bidez sortutako forma berrietan edo morfema-mugako *-e + e-* bilkuran. Gipuzkoako mendebaleko testuak gordetzailago izan dira historikoki, baina horietan ere bokal bikoitzen ahultzea ikus daiteke Lehen Euskara Modernora hurbildu ahala.

Lehen Euskara Modernoaren lehenengo hamarkadetan, aurreko datuen argitan espero zitekeenarekin bat, oso eskas agertzen dira VCV > VV-tik sortutako bokal bikoitzak mendebalean. Oro har item lexiko jakin batzuetan metatzen dira, eta ugariagoak dira asimilazioz zein tinbre bereko bokalak biltzean morfema-mugetan eta berbaren amaieran sortutakoak.

Salbuespen bakarra Bizkaiko ipar-sortaldeko idazle batzuen testuak dira, baina horien artean *cum mica salis* aztertu beharreko ezaugarria da; izan ere, Markinako eskolako idazle batzuek bokal bikoitzak erabiltzearen aldeko hautu kontzientea egin zuten (Altzibar 1992: 417 eta hurrengoak) eta, are gehiago, XVIII. mendearen amaieraz geroztik Bizkaiko (gutxienez) beste eremu batzuetako zenbait idazleren testuetako bokal bikoitzak ere Markinako eskolako idazleen eraginari egotz dakizkioke; (§5.3.2.4) atalean arituko naiz zehatzago horiei buruz.

1750az geroztiko idazle ikasieneen lanetan gutxi dira bokal bikoitzak, gehienak *lehen* berbari eta erroei morfemak eranstea tinbre bereko bokalak batzeari lotuak. XVIII. mendearen amaieran Bizkaiko ipar-sortaldeko idazleen artean agertzen dira jaurerriko beste inon baino indartsuago; baina, gogoan hartzekoa da ez dagoela XVI. edo XVII. mendeetako testurik Markina aldean eta, horrenbestez, haztatu egin behar dela zein neurritan izan daitezkeen Mogelen, Frai Bartolomeren eta besteren bokal bikoitzak Markina aldeko euskararen isla, idazleen hautu estilistikoa edo horien bien nahastea. Neurri batean behintzat berandura arte galdu-gordean iraun zutela pentsatzeko argudioak XX. mendearen hasieran aurki daitezke: Rollok (1925) ez zuen halakorik transkribatu Markinako euskarari buruzko monografikoan, baina Azkuek (1926: 18) *-aak* absolutibo pluraleko kasuak aipatu zituen Markinarako.

Bizkaitik kanpoko lurralde mugakide zenbaitetan bokal bikoitzen arrastoak aurki daitezke: Aiara aldeko *Dotrinazko sermoitegia* bilduman, esaterako, adibideak daude fosildutako zenbait item lexikotan, izenaren eta aditzaren morfologiaren esparruan, eta konposizioan; badaude, gainera, azalbide etimologiko garbirik gabeko hainbat aldaera. Bestalde, Oñatiko *ca.* 1800-1805eko eskuizkribuetan indar bizia dute bokal bikoitzek, eta Izagirrerren (1970) Arantzazu/Oñati aldeko lexikoiak bermatuko luke Gipuzkoako hego-mendebalean gutxienez Bigarren Euskara Modernora arte gorde zirela.

5.1.5.1.5. Beheko bokalaren asimilazioaren kronologiaz

Beheko bokalaren asimilazioa berrikuntza zaharra da, *stricto sensu*; izan ere, Euskara Zaharraren garaian agertzen da lehenengoz: Mitxelenak (*FHV* 51) VJesus-en kokatu zituen ezaugarriaren adibide zaharrenak, eta azken hamarkadotan aurkitutako testuek ez dute data hori aldarazi. Ulibarriren (2009) datazio-lan zehatzari jarraikiz, badakigu Euskal Herriko adibide zaharrenak (VJesus) *ca.* 1640koak direla, Euskara Zaharrekoak bete-betean, eta Euskal Herriko mendebaleko muturrekoak.

VJesus-eko adibideek, halere, hori baino gehiago erakusten dute. Testu horretan aparteko indarra du asimilazioak: gerora deskribatu izan den kokaguneetan agertzen da (cf. Hualde 1991a), bai eta gerora asimilaziorik izan ez duten zenbait morfematan ere (hala nola *-ago* graduatzailea; cf. Zuloaga –2013: 606–), eta hain da indartsu non bereizketa morfologikoak neutralizatzen dituen. Pentsatzekoa da, horrenbestez, berrikuntza arean lehenago sortu zela, XVII. mendearen lehenengo hamarkadetan-edo. VJesus-eko datuak ondoko mendeetakoekin alderatzean, halaber, harrigarria da zer-

nolako indarra duen berrikuntzak testu horretan: zaila da 1750-1800 baino lehen ezaugarria horren indartsu aurkitzea.

Ezaugarriak 1640tik gaur egunera bitartean Bizkaian izandako bilakabide kronologikoa deskribatzea zaila da orokortasunetatik harago. Hutsunez beteriko historia da beheko bokalaren asimilazioarena, besteak beste hainbat idazlek ezaugarri hori baztertzea erabaki zutelako. Dena den, ezaugarriak gaur egun duen hedadura ikusita, argi dago XVII. mendearen hasieraz geroztik hedatu besterik ez dela egin. Hedatze hori mailakatua izan dela dirudi, zenbait mende behar izan dituela egungo egoerara iristeko: ez dut adibiderik aurkitu Apoitaren testuetan, adibidez; izan ere, Bizkaiko ipar-sortaldera XIX. mendearen bigarren erdiaz geroztik iritsi zela ematen du (Zuloaga 2017a); dakidala, Rollo (1925) monografikoak lekutzen du lehenengoz beheko bokalaren asimilazioa Markinan, Hualdek (2000: 16) aipatu legez.³⁹⁶

Beheko bokalaren asimilazioa hedadura zabaleko ezaugarri supradialektal bihurtu da denborak aurrera egin ahala: gaur egun Hego Euskal Herrian oso zabal agertzen da, lekuan leku agerrera-testuinguruak eta indarra aldatzen badira ere; Bizkai osoan, Arabako iparraldeko hizkeretan, eta Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait hizkeratan du indarra (begiratu *EHHA*-ko 1053. eta 1118. mapak, adibidez). Hedadura hori, ordea, moderno xamarra da: 1750az geroztik besterik ez dut aurkitu Euskal Herriko erdialde zabalean: ziurgabetasuna edo zalantza eragiten duten kasuak baztertuta, XVIII. mendearen amaierakoak dira Gipuzkoan aurkitu ditudan adibide zaharrenak: Berastegiko 1763ko errezeta batean eta Alzibar azkoitiarraren *Gtour* (1772) antzerki-lanean agertzen dira, eta ez sistematikoki, ez eta ugari ere.

Nafarroari dagokionez, kronologiak bat egiten du Gipuzkoakoarekin. Reguerok (2015: 596) 1750ean dakusa etena, aurretik ez baitu alerik aurkitu eta orduz geroztik agertzen eta ugaritzen baitira adibideak arestian aipatutako herri eta ibarretako testuetan.

Beheko bokalaren asimilazioaren eta beste bokal-eufonia batzuen arteko harremanaz eta kronologia erlatiboaz, begiratu (§5.1.5.1.6.3) atala.

³⁹⁶ Lan honen irismenetik eta aztergaitik kanpo geratzen da Azkuek gidatutako *Erizkizundi irukoitzea* (Echaide 1984), baina horko bi mapa begiratu ditut eta ematen du XX. mendearen hasieran bazirela asimilaziorik gabeko aldaerak zerabiltzaten hiztunak. Zortzigarren mapak (*foruak* hitzaren aldaerak) asimilazioa dakar bai Bermeo aldean, bai Markinan; beraz, ingurune horretan behintzat izan bazen. Aitzitik, bederatzigarren mapak (*garrafoia* hitzaren aldaerak) bestelako irudia dakar: asimilaziorik gabeko aldaerak besterik ez daude Bermeon eta Mundakako itsasadarraren inguruan (baita, harrigarriro, Gernikan ere), eta Bizkaiko ipar-sortalde gehienez (Eako *garrapoie* aldaera da salbuespena).

5.1.5.1.6. Bokal eufonia nagusien kronologiaz

5.1.5.1.6.1. Berrikuntza bakoitzaren kronologiaz

Tesi honen (§4.5) atalean aztertutako fenomeno guztien kronologia ez da bat eta bera, baina agerikoa da Euskal Herriko mendebaleko testuetan joera bateratuak ikus daitezkeela zenbait garai historikotan, ikuspegia zertxobait orokortuz gero. Hori dela eta, lehenik eta behin labur gogoraziko ditut erdiko bokalen igotzeei eta bi kontsonante epentetikoei lotutako mugarri kronologikoak, eta ondoren joera kronologiko bateratu horiek zein diren azalduko dut.

5.1.5.1.6.1.1. $e \rightarrow i / _V$ igotzearen lehenengo lekukotasuna zein den argitzea ez da aise: argi dago Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan lehenengo testuak agertu orduko indarra zuela, eta Aymeric Picauden hiztegian ere badagoela azpimarratu dut, bide batez *eliçara*-ko *-ara* absolutibo singularreko markatzat jotzeko eta testuko hizkeraren jatorria Pirinioetatik hur kokatzeko arrazoi bat gehituaz. Mendebalaz denaz bezainbatean, XI. mendearen amaieran legoke lehenengo adibidea (beraz, Euskal Herri osoko zaharrena ere izango litzateke), Manterolak (2015: 199) identifikatutako *Havaunzia*-ri loturik. Hain adibide bakana izateak eta Araban XVII. mendearen amaierara arte parekorik ez aurkitzeak zalantzak eragiten dizkit, halere, ez ote den zegokion eskribauaren akatsa izango, edo ez ote den *-aia* bezalako aldaerekin lotuta egongo.³⁹⁷

Euskal Herriko mendebalean badaude zenbait adibide bakan Euskara Arkaikoan: IbargeC kronikako *gabyan*, Ana Urrutiaren gutuneko *liquiala* eta Sasiolaren *dirian* gogoratu behar dira, baina funtsean, lehentxeago zein geroxeago gertatu, Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernora bitartean hedatutako ezaugarria da $e \rightarrow i$ Bizkaian eta Araban. Urduñako hiztegitxoak *pujiguia* dakar behin, baina 1700az geroztik ugaritzen dira adibideak gerora *bizkaiera* delakoari eman izan zaion eremuan: ez dago adibiderik Eibarko 1685eko kopletan, baina badaude hiribildu bereko 1721ekoetan. Halaber, ezaugarria sistematikoa da Bulda-n (begiratu, halere, §5.1.8eko datazio-proposamena).

1700-1750 denbora-tartean ezin esan daiteke ezaugarria sistematikoa zenik: alde nabarmenak daude idazle batzuen testuetatik beste batzuenetara, eta polimorfismoa arrunta da; areago, trantsizio-egoeraren erakusgarri da zenbait idazleren lan errimadunetako (Barrutia eta Urkizu, adibidez) *-ea* & *-ia* puntua.

1750era hurbildu ahala ugariago agertzen dira adibideak, eta zenbait idazlek 1750az geroztik bokal-igotzea ostentzeko eginiko ahaleginak ahalegin, Lehen Euskara

³⁹⁷ Begiratu Aznarrek Errioxa aldean bildutako ustezko adibideez 119. oin-oharrean esandakoak.

Modernoko lehenengo hamarkadotan zabal agertzen da ezaugarria bai Bizkaian gerora ezagutu den eremuetan, bai Arabako iparraldeko hizkeretan (DotrSerm, Gamiz, Albeniz). Halaber, Deba ibarreko testuetan indar biziz agertzen da 1750 aldera (Eibarko udal-ordenantzak) zein ondoko testuetan (IsSagEsp, ATxakarGut, BergUdalOrd; are Arakistainek Larramendiri igorritako gutunean ere).

Urolako lehenengo adibideak mendebaleragokoak baino berankorragoak dira, ordea: 1750az geroztikoak (ez dut adibiderik ikusi, adibidez, Azpeitiko 1740ko gutunetan), eta orduz geroztik ere bikoiztasuna ikusten da idazleen artean: Peñafloidak aldaera zaharrari eutsi zion gehienetan, baina *Grand tour*-ean eta Azpeitiko 1786ko udal-ordenantzan zabal asko agertzen da aldaketa.

Berankortasunarena ez dagokio Urolari bakarrik: ez dago adibiderik Donostiako XVII-XVIII. mendeetako testuetan (Lubieta eta Pepe eta Josefa donostiarren arteko gutuneria), baina bai Gipuzkoako ipar-ekialdean eta Lapurdiko kostaldean, hala nola Le Dauphin corpusean (cf. Padilla-Moyano 2015). Balirudike Donostiak XVIII. mendearen amaieraz geroztik egin zuela bat inguruko hizkerekin ezaugarri honetan; cf. Etxegarairen bertso-sorta zaharrenak (Zavala 1964) eta Zuloaga & Duhalde (2019) lana.

Nafarroan ere pareko dinamikak agertzen dira: Elizalderen eta haren izebaren arteko gutunerian (*post* 1677) badago adibiderik, baina 1750ean dakusa etena Reguerok (2015: 596), orduz geroztik ugaritzen baitira igotzearen adibideak.

Laburbilduz, beraz, eremu eta hizkera batzuetan aurretik agertzen diren aldaera bakanak aldaera, Hego Euskal Herrian Euskara Zaharraren azken hamarkadetan hedatu zen $e \rightarrow i / _V$, eta hedatze hori nabarmen bizkortu 1750az geroztik, idazle ikasi batzuen gordezaletasuna gordezaletasun.

5.1.5.1.6.1.2. $o \rightarrow u / _V$ aldaketa $e \rightarrow i / _V$ baino berankorragoa izan zen bai Euskal Herriko mendebalean, bai mendebaletik kanpo. Kasu honetan Euskara Arkaikoko adibide bakanak errimari lotuak dira edo bestelako azalbideak izan ditzakete, eta ez dut bilakabidearen adibide argirik aurkitu XVII. mendearen amaierara arte: BertsBizk sortan *-oa* & *-ua* puntua dago, zenbait urteren buruan Barrutiaren antzerkilanean legetxez. $o \rightarrow u / _V$ berrikuntzaren lehenengo adibide ziurrak, beraz, Euskara Zaharraren erdialdekoak dira gehienbat, baina 1750 aurretik oso bakan agertzen dira bai Bizkaian, bai Bizkaitik kanpo: Barrutiaren beraren adibide eskasei Urkizuren baten bat gehi dakieke, baina Arzadunen dotrinan eta Deba ibarreko testuetan ez dago adibiderik, ez eta Arabako testuetan ere.

Lehenengo Euskara Modernoaren lehenengo urteetan ugarixeago agertzen dira adibideak (indartsu, adibidez, Eibarko 1754ko udal-ordenantzan eta IsSagEsp anonimoan), baina ez $e \rightarrow i / _V$ bezain hedaturik: ez dago adibiderik, esate baterako, Bermeo aldeko testuetan edo ATxakarGut laburrean. XVIII. mendearen bigarren erdian Bizkai sortaldean hedatuta zegoela zalantzarik gabea da, halere: adibideak agertzen dira ipar- nahiz hego-sortaldean (Apoita, Iturriza, AbadiñoGK). Bizkai sartaldean, Sarriaren sermoietako adibideek ez dute loturarik tokiko hizkerarekin, besteak beste eremu horretan $o \rightarrow u / _V$ ez delako inoiz gertatu: Durango/Markina aldeko idazleen eredu linguistikoa imitatu izanaren zordun dira Sarriaren adibideak (§5.3.3.2.3.1 eta §5.3.3.2.3.2).

Deba ibarretik eskuin $e \rightarrow i / _V$ -z aritzean deskribatutako egoeraren parekoa agertzen da: Urolako adibide zaharrenak 1750az geroztikoak dira; Peñafloidak gutxi batzuk ditu, baina hizkera herrikoitik hurbilago idatzitako *Grand tour* antzerki-lanean eta Azpeitiko udal-aginduan ugari agertzen dira. Halaber, Donostiako XVIII. mendeko testuetan ez dago adibiderik (sistematikoa da, aitzitik, XIX. mendearen bigarren erdiko lekukotasunetan), baina apur bat ekialderago XVIII. mendetik bertatik badaude adibideak Hondarribiko 1778ko erlijio-testuan eta Le Dauphin gutunerian, besteak beste (ez dago adibiderik, ordea, Urruña eta Hondarribia arteko 1680ko gutunetan).

Nafarroaz denaz bezainbatean, Elizalderen eta haren izekoren arteko eskutitzetan leudeke lehen adibideak kasu honetan ere (*post* 1677), eta Lehen Euskara Modernoa ezkerro ugaritzen dira.

Aurreratu bezala, beraz, badirudi gerora ere lekutu den eremuetan $e \rightarrow i / _V$ -ren garaikide izan zela $o \rightarrow u / _V$ neurri batean, baina hedatze-prozesua mantsoagoa edo mugatuagoa izan zela XVIII. mendean behintzat, beranduago onartu zela idazleen artean edo beranduago iritsi zela zenbait eremutako hizkeretara.

5.1.5.1.6.1.3. Bokal eufonien atalean aztertutako lau ezaugarri nagusietatik bakar batek pairatu du gainbehera- eta galera-prozesu bat azken mendeotan: *-ubV* epentesiak; garaitiko hirurek (bokal igotzeek eta hurrengo atalean hizpide izango dudak *-ijV* epentesiak) sistematiko izaten jarraitzen dute XVIII-XIX. mendeaz geroztik hedatu diren hizkeretan.

-ubV-ren lehenengo agerraldiari dagokionez, zaharra da: Abendañoren aienean agertzen da behin (*ditubala*), nahiz eta Mendietaren gainerako testuetan ez dagoen adibiderik. Nolanahi ere den, Aiara aldeko euskara zaharrean indarra zuen, Urduñako XVII. mendeko hiztegian ere bi adibide baitaude. Euskal Herriko mendebaleko adibide

zaharrenak dira horiek: Bizkaiko testuetan ez dut aldaera epentesidunik ikusi XVIII. mendera arte (Bulda), eta oso urriak eta lokalizatuak dira 1750era bitartekoak: bat ere ez dut irakurri Arzadunen dotrinan eta Urkizuren erlijio-liburuan, baina azken horren amaieran agertzen diren kopletan badago adibiderik. Bizkaitik eskuin badirudi Deba ibarrean kronologia bertsua proposatu behar dela: ez dago epentesirik Eibarko 1685eko kopletan, baina bai Arrasateko 1705eko udal-bandoan eta Eibarko bertako 1721eko kopletan.

Lehenengo Euskara Modernora hurbildu eta garai horretan aurrera egin ahala azaltzen dira adibide gehienak bai mendebalean, bai erdialdean. Euskara-eredu orokorragoa hautatu zuten idazleen (Kardaberatz, Olaetxea) dotrinen lehenengo edizioetan ez da agertzen, baina XVIII. mendearen amaierako beste idazle batzuen lanetan arrunt dira Bizkai osoan.

Durango/Markinako idazleek euren testuetan behintzat sistematizatutako ezaugarria dela aintzat harturik (horrek ez du ukatzen, jakina, Markina aldean epentesia arrunt izan zitekeenik), arreta handiz aztertzeak dira XVIII. mendearen azken bizpahiru hamarkadetako lekukotasunak: eremu bereko edo bertsuko testuen erkaketak argia eman dezake idazleen hautuez, idazle bakar batek urterik urte ekoitzitako testuetan agertzen den bariazioak eman dezakeen legez; ereduez eta literatur hautuen eraginaz, begiratu (§5.3.3.2.3.1 eta §5.3.3.2.3.2) atala.

Gipuzkoan eta Nafarroan kronologia bertsua agertzen da: Eibarko 1754ko udal-ordenantzan zabal erabiltzen da epentesia, eta 1750az geroztik indarra du Urolako testuetan, izan idazle ikasiagoen testuak, izan tokiko euskaratik hurbilago idatzitakoak. Arabako ipar-ekialdean ere denbora-tarte horretan daude epentesiaren adibide bakanak, Albenizenean baina ez Gamizenean, ez eta Aiaraldeko *Dotrinazko sermoitegi*-an ere (cf., ordea, aurretik aipatutako *ditubala* Abendañoren aienean eta Urduñako hiztegiko adibide pare).

Erdiko bokalen igotzeaz aritzean azaldutako egoera errepikatzen da Donostialdean: Donostiako testuetan ez dago *-ubV*-rik XVIII. mendean, baina Donostiatik eskuineko kostaldean aspaldirik dira ezagun: Urruña eta Hondarribia arteko 1680ko gutunerian, Etxeberri Dorreren (1677) liburuan, *Le Dauphin* corpusean zein Hondarribiko 1778ko erlijio-testuan aurki daitezke adibideak, bestek beste.

Nafarroaz denaz bezainbatean, Euskara Zaharrekoak dira adibide zaharrenak, XVII. mendearen amaierakoak; baina, ugaritu Lehen Euskara Modernora hurreratu ahala

eta batez ere 1750az geroztik ugaritzen dira: gogoan hartzekoa da Sakanako euskarari gaur egunera arte gorde direla (Zuazo 2010b: 46-47).

5.1.5.1.6.1.4. *-ijV* epentesia ez da *-ubV* bezain zaharra, baina lehen esandakoarekin bat, luzaroago iraun du: sistematikoa da hedatu den hizkeretan.

Euskal Herriko mendebalean *-ijV*-ren adibide zaharrenak Buldakoak dira, testua benetan 1701ekoa izatera, eta Euskara Zaharraren azken hamarkadetan gutxi dira adibideak, *-ubV*-renak baino nabarmen gutxiago: bat ere ez dut aurkitu Arabako testuetan, eta Deba ibarreko XVIII. mende hasierakoetan ere ez dut adibiderik aurkitu. Arzadun bizkaitarrak ez zuen epentesirik eman, baina Urkizu herrikidearen liburuaren amaierako kopletan badaude adibideak.

Bizkaian eta Gipuzkoan Lehen Euskara Modernokoak dira *-ijV* epentesiaren adibide gehienak: eredu orokorrak bilatuz idatzi zuten idazleak (Kardaberatz, Olaetxea) eta gerora ere epentesirik izan ez den eremuetako testuak (OrozOtoi, adibidez) bazter utzita, indar handiagoz edo gutxiagoz arrunta da epentesia Bizkai sartaldean (Sarria, ZolloGald), erdialdearen iparraldean (De la Quadra, *Errosariyo santuba* –sistematikoago De la Quadrarenean baino–, GernikaGK, Gandara –1768tik aurrera–) eta sortaldean (Apoita, Iturriza, AbadiñoGk). Denbora-tarte berberetan agertzen dira epentesiaren adibide bakarrak Araban: XVI-XVIII. mendeetako testuak arakatuta *Dotrinazko sermoitegia*-n besterik ez ditut aurkitu, eta Ulibarri edizilogileak (2015: 259) ez du baztertzen idazlearen hautu estilistikoa izatea.

Gipuzkoako mendebaleko adibide zaharrenak ere Lehen Euskara Modernoko hasierakoak dira: Eibarko 1754ko udal-ordenantzan aurkitu ditut, eta IsSagEsp anonimoan zein Arakistainen laukoetan ere badaude; berankorrago dira, ordea, Urola aldekoak: 1750az aurreragokoak eta hizkera landuagoa islatzen duten testuez (Peñaflorida, LoiolaDot) kanpokoak; *Grand tour* lanean hainbat adibide daude, nahiz eta sistematikoak ez izan, eta Azpeitiko 1786ko udal-ordenantzan indar bizia du epentesiak.

Gipuzkoan erdialderago, gainerako eufoniak baino lehenago agertzen da *-ijV* Donostia aldean: kasu honetan ere ez dut adibiderik ikusi Lubietaren lagin argitaratuan, baina Pepe eta Josefa maitaleen arteko gutunetan badaude batzuk. Puntu honetan, bada, Donostia kontrajartzen zaio Hondarribia aldeari, azken horretako 1778ko erlijio-testuan ez baitago *-ijV*-ren adibiderik.

Dakidala, *-ijV* epentesiaren adibide zaharrenak Lapurdiko kostaldekoak dira: Perusquiren testukoak (1664) zein Etxeberri Dorreren lanekoak (1677); badaude,

halaber, *Le Dauphin* corpusean, baina ez XVIII. mendean Donibane Lohizunetik Berara igorritako gutunetan: balirudike ezaugarriak lurralde erlatiboki txikia zirtzilikatzen zuela, edo egile batzuek ez zutela islatu.

Nafarroako testuetan arreta ematen du lehenengo lekukotasunetarik hurrengoetara dagoen hutsunea: ezaugarri hau ere Elizalderen eta haren izebaren arteko gutunerian agertzen da lehenengoz, XVII. mendearen amaieran; ugaritu, aldiz, 1750az geroztik ugaritzen da, erdialde eta mendebal zabalean legetxez.

5.1.5.1.6.2. Ikuspegi orokorra: joera bateratuak

Arestiko puntuetan deskribatutako mugari eta joera kronologikoen artean bat-tortze nabarmenak daude; funtsean, Euskara Arkaikoa baino lehen eta are Euskara Arkaikoa bertan dauden adibideak oso banakak eta sakabanatuak dira, baita arazotsuak ere zenbait kasutan. Halere, gehienak ez dira Bizkaiko iturrietan agertzen, ezpada Arabakoetan eta Gipuzkoako mendebalekoetan. Adibideok egiazki aztertutako ezaugarrien aldaera badira, ematen du jaurerria gordetzaile izan zela berandura arte, aurrak adibideren bat gorabehera (cf. IbarC kronikako *gabyan*).

Kronologiari nagokiolarik, ezaugarri guztiek partekatzen dute muga bat: Euskara Zaharraren bigarren erdiaz geroztik (XVII. mendearen amaiera edo XVIII.aren hasiera ezkerre) ugaritzen dira mendebalean oro har, eta puntu honetan arreta ematen du Buldak, hemen aztertutako bilakabideak ezohiko indarrez agertzen baitira testu horretan: ez da arrunt erdiko bokalen igotzeak eta kontsonante epentetikoak halako indarrez agertzea 1750-1780 baino lehen (begiratu §5.1.8 atala Bulda-ren bestelako datazio-proposamen baterako). Hain zuzen ere, Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernora bitarteko trantsizio-urteetan areago ugaritzen dira fenomeno guztiak bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, bai Nafarroa Garaian: 1750az geroztik nabarmen errazagoa da berrikuntza baten edo bestearen lekukotasunak aurkitzea, idazle zenbaitek eredu zaharragoa gorde arren.

Hizpide ditudan berrikuntza batzuek mendebaleko hizkeretan izandako bilakaera kronologikoa argi ikus daiteke zenbait testu erkatuta.³⁹⁸ Adibide gisa bost testu alderatuko ditut; alde batetik, Andramendiko idatzien bi bertsio: IbarC kronikakoa eta Iturriak emandakoa; beste alde batetik, Eibarko 1685eko eta 1721eko koplak zaharrak,

³⁹⁸ Dakidala, egiteke dago Arzadunen, Kardaberatzen eta Olaetxearen dotrinen berrargitalpenen konparazio sistematikoa, XVIII-XIX. mendeetako hizkera-ereduez hainbeste argi eman lezakeena; nolana ere den, gaiak zertxobait arduratu direnek oro har hemen aipatutako berrikuntza fonologikoak gero eta indar biziagoz agertzeko joera nabarmendu izan dute (cf. Altzibar 1991c, 1992: 50-51, 476 eta §5.3.2.3.1 atala).

eta 1754ko udal-ordenantza. Koadrook argiro erakusten dute eufonien indartzea eta hedatzea XVIII. mendean:

4. taula. Andramendiko idatziak (IbargC vs. Iturriza)

Ezaugarria	IbargC (XVI-XVII. mendeak)	Iturriza (XVIII. mende amaiera)
<i>e → i</i>	–	+
<i>o → u</i>	–	+
<i>-ijV</i>	–	+
<i>-ubV</i>	–	+
<i>Rui</i>	–	–

5. taula. Eibarko koplak zaharrak eta udal-ordenantza

Ezaugarria	EibarKoplZah (1685)	EibarKopl (1721)	EibarAgin (1754)
<i>e → i</i>	–	+	+
<i>o → u</i>	–	+	+
<i>-ijV</i>	–	–	+
<i>-ubV</i>	–	+	+
<i>Rui</i>	–	–	–

Gipuzkoako erdialdeko eta ekialdeko testuek, nolahi ere den, aparteko azterketa behar dute; izan ere, badirudi hiatoetako fenomeno batzuk beranduago gertatu zirela zenbait eremutan: gogoan hartzekoa da ez dudala aztergaien adibiderik aurkitu Urolan 1750 baino lehen, eta Donostia gordetzaileraren zela, oro har, XVIII. mendearen amaierara edo XIX. mendearen hasierara arte: Hondarribia eta Irun aldeko, eta Lapurdiko kostaldeko (ez, halere, barnealderagoko –Sarako, demagun–) euskararen artean konbergentzia handiagoa egon da aipatutako ezaugarriotan, Donostia gordetzaileraren aurka (Zuloaga & Duhalde, 2019).

Nafarroako testuetan agertzen diren adibideek ere aurreko ikuspegi kronologikoa bermatzen dute: XVII. mendearen amaiera-amaierakoak dira hiatoetako fenomenoon adibide zaharrenak, eta Lehenengo Euskara Modernoan ugaritzen dira bai adibideak dakartzaten testuak, bai testu horietako adibideen kopurua.

5.1.5.1.6.3. Bilakabideen arteko kronologia erlatiboaz

Aurreko atalean hiatoetako bilakabideen artean ikus daitezkeen joera kronologiko bateratuez aritu naiz, eta atal honetan zenbait arauen arteko lotura kronologiko erlatiboaz arituko naiz, bakoitzaren lekukotasun dokumentatu zaharrena

zein den gorabehera. Zehazki, De Rijkek zenbait araturen artean XX. mendearen erdialdean ezar zitekeen ordena kronologikoa hartuko dut aintzat:

We now have six rules: *Raa* (and its variant *Rao*), *Riy*, *Ruw*, *Rea*, *Roa*, *Rui*. Inspecting this sequence of rules, we see that their order of application is not indifferent. There is a critical ordering relation between *Raa* and *Rea*; *Riy* and *Rea*; *Ruw* and *Roa*; *Rea* and *Rui*; *Roa* and *Rui*. (1970: 158)

5.1.5.1.6.3.1. $e \rightarrow i / _ V$ eta $i + V > ijV$ bilakabideen arteko loturaz

Bonaparteren (1862: 32) azalpenei jarraikiz, hizkera batean $e \rightarrow iV$ igotzea eta $-ijV$ epentesia daudenean, bigarrena zaharragoa dela baieztatu zuen De Rijkek (1970: 159, 1998 [1981]: 215). Bilakabideen arteko antolakuntza kronologiko horrek azaltzen du ikuspuntu diakronikotik, hain zuzen ere, euskaraz ezohiko izatea *semea* > *semia* > *semiya* bezalako bilakabideak. Inoiz agertzekotan, lekukotasun oso modernoetan agertzen dira, hala nola Holmerrek (1968: 98) Mundakan jasotako *etxiya* ‘etxea’ aldaeran edo Arretzek (1994: 248, 256) Basaurin bildutako adizki batzuetan: *saridxie* ‘zarete’, *dakidxie* ‘dakite’. Beraz, salbuespen oso modernoak salbuespen, epentesia eragiten duen goiko bokala bigarrenkari denean ez da oro har epentesirik sortzen, eta horrek erakusten du $e \rightarrow i$ igoera gertatu orduko gertatua zela $i + V > ijV$ aldaketa.

Nire corpuseko testuak arakatuta, Bonaparteren eta De Rijken baieztapenak berretsi besterik ezin ditut egin, Bizkaiko testuetan ez baitut epentesia eragiten duen <i> bigarrenkaririk aurkitu. Besterik da, jakina, idazleen esku-hartzeak zein neurritan eragin duen ezaugarri bata zein bestea indar biziagoz agertzea. Bizkaiko testuez denaz bezainbatean, hauetan aurkitu ditut bi bilakabideak: Urkizu, Gandara, GernikaGK, De la Quadra, *Errosariyo santuba*, ZolloGald, Apoita, Iturriza, AbadiñoGK, Sarria, Bulda.

Datu horien argitan, beraz, Bizkai osoan edo gehienez izango litzateke $-ijV$ epentesia $e \rightarrow i$ baino zaharragoa; izan ere, lekukotasunak dauden eremu guztietako testuak daude zerrenda horretan.

Beste testu hauetan $e \rightarrow i$ agertu arren, ez dago epentesirik: Arzadun, UrkizuKopl, Elorrioko ziri-bertsoak. Hurrengo atal batean (§5.3.3.2.1) defendatuko dudanez, epentesirik eza idazleen hautuen ondorio bide da.

5.1.5.1.6.3.2. $o \rightarrow u / _ V$ eta $u + V > ubV$ bilakabideen arteko loturaz

Logika bera ezar dakioke $o \rightarrow u$ igotzearen eta $-ubV$ epentesiaren arteko harremanari. Euskal Herriko testuren batean <u> bigarrenkariak epentesia eragiten

du,³⁹⁹ baina Bizkaian aztertu ditudan testuetan ez dut era horretako kasurik aurkitu (begiratu, halaber, Bonaparte 1862: 35). Are gehiago, epentesia sortu zen hizkera batzuetan (Orozkokoan, esate baterako) ez da $o \rightarrow u$ aldatu.

Honako testu hauetan agertzen dira bai bokal-igotzea, bai hiatoa hausteko kontsonante epentetikoa: Bulda, Urkizu, Apoita, Iturriza, AbadiñoGK.

Sartaldeko/erdialdeko beste hauetan, berriz, epentesia agertzen da, baina ez dago bokal igotzerik: De la Quadra, ZolloGald, Sarria, GernikaGK.

Bertso bizkaitarrak sortan aurreko guztietatik bereizten da, $o \rightarrow u$ igotzea agertzen den arren, ez baitago epentesirik.

Kasu honetan ere, horrenbestez, epentesia $o \rightarrow u$ ixtea baino zaharragoa litzateke Bizkai gehiengan.

5.1.5.1.6.3.3. $a \rightarrow e / \{i/u\} (C) _$ eta gainerako bilakabideen arteko loturaz

Beheko bokalaren asimilazioaren bilakabideari buruzko datuak urriak eta arazotsuak izan arren, zenbait datu interesgarri islatzen dituzte tokian tokiko hizkeren egituratze-moldeez. Zehazki, Bizkaiko hego-mendebalean bi patroi agertzen dira XVII-XVIII. mendeetan.

Alde batetik, “patroi gordetzailea” aipa daiteke, eta VJesus eta OrozOtoi testuetan islatzen da. Bi testu horietan, $a + a > ea$ -z gain, beheko bokalaren asimilazioa besterik ez da agertzen hemen landutakoen artean; alegia, gerora gertatu diren bilakabideak bilakabide, *Rui* zaharragoa izango litzateke. Orozkon hala bermatzen du, bide batez, gaur egun $a + a > ea$ ingurunean goiko bokalen ondotik $e \rightarrow i$ bihurtzeak, baina *i* horrek bokal irekia ez ixteak; alegia, *kinpullia* bezalako aldaerak agertzen dira, ez ***kinpullie*. Testu bietan *Rui* bokal-igotzeak eta epentesiak baino zaharrago izateak lotzen ditu, besteak beste, VJesus eta OrozOtoi testua. Halaber, sistema gordetzaile horrekin bat egiten du *Dotrinazko sermoitegi*-ko euskarak, Aiaraldea iparralderagoko (edo Orozko hegoalderagoko) lurrekin lotuz.

Beste alde batetik, “patroi berritzailea” agertzen da, non $a + a > ea$ eta *Rui* ez ezik, beste bilakabide fonologiko batzuk ere sortu baitira; are gehiago, bilakabide horiek *Rui* baino zaharragoak lirateke testu horietan, *Rui* aplikatzeko moduko testuinguruak sortzen direnean (adibidez, $e \rightarrow i$ bokal-igoeraren ondorioz) *Rui* aplikatu egiten delako.

³⁹⁹ Zehazki, Satrustegik (*ETZ* §47) transkribatutako Zugarramurdiko bi testu oso berankorretan (1875) *Jaungoicubac*, *gogubac*, *artecubac*, *San Francisco Salescubac*, *ondoriyuba* zein *elizacubac* bezalakoak agertzen dira. Tokiko hizkeran halakoak posible izan zitezkeela ukatu gabe, uste dut aintzat hartzekoa dela testuon egilea Elizondon jaio eta Lesakatik pasea zela. Ez dakit ibilbide biografiko horrek eta/edo tokiko hizkerako ezaugarri bat imitatu nahiak eragindako hipererabilerak ez ote diren.

Bizkai sartaldean ZolloGald galdetegia (4r *siriela*, 4r *diriela*...) eta Sarriaren sermoiak (1 *escu-escueriegaz*, 24 *arrain-gausiegaz*...) daude patroï berritzailearen barnean.

Aurretik adierazitakoak aintzat hartuta, hortaz, Bizkai sartaldeko (Bilboko eta Nerbioi ibarraren iparraldeko) patroï berritzaile horretan honako hau litzateke bilakabideen ordena:

- (i) $a + a > ea$
- (ii) Kontsonante epentetikoak (-*ijV* testu bietan; -*ubV* Sarriaren sermoietan bakarrik)
- (iii) $e \rightarrow i$
- (iv) $a \rightarrow e / \{^i/u\}$ (C) _

Bizkai sartaldek kanpo, Nerbioi ibarreko patroï berritzaile hori agertzen da Bulda-n: 56 *jaubiec* bezalako adibideak oso bakanak dira, baina *Rui* $e \rightarrow i$ gertatu ondotik aplikatu dela erakusten dute; bestalde, arrazoituta geratu da zergatik diren -*ijV* eta -*ubV* zaharragoak $e \rightarrow i$ eta $o \rightarrow u$ baino, gainerako testuetan bezala Bulda-n ere. Patroï berritzaile horrekin bat egiten du, halaber, Amoroto1754 armarriak, *bier* gertatua baita.

5.1.6. Gehigarri bat eremu txikiko berrikuntza eskusiboez

Badira Bizkaiko euskaran dialektologoei ez ezik hiztun arruntei ere arreta ematen dieten fenomenoak: oro har eremu txikikoak dira, eta herri zehatz batean edo herrian eta gehienez ere inguru hurbilenean besterik ez dira erabiltzen; baina, berrikuntza eskusiboak dira, eta tokiko euskara gainerakoetatik bereizten dituzten ezaugarri nabarmen edo *salient*-ak dira askotan bai hizkerako hiztunentzat, bai beste hizkera batzuetako hiztunentzat: batzuk eta bestetzuk ezaugarri horien berezitasunaren jakitun dira. *Buruin* edo *ord(u)in* entzuteak Orozko aldera garamatza, *emontzuie*-k ‘eman dizu(e)te’ Bermeora, *neure semé*-k ‘neure semea’ edo *etxera nó*-k ‘etxera noa’ Uribe Kostara, *alabí*-k ‘alaba, abs. sg.’ edo *ormí*-k ‘horma, abs. sg.’ Ondarroara, eta abar.

Badirudi, gainera, zenbait kasutan tokiko hiztunek harrotasunez eusten dietela ezaugarri horiei, kontzientzia etnolinguistikoa dutela eta besteak beste gainerako bizkaitar hiztunengandik bereizteko erabiltzen dituztela, beste eremu batzuetakoek hizkera-molde horien inguruan duten pertzepzioa pertzepzio. Ezaugarri nabarmen edo bereizgarri dena, *salient* dena, estereotipatze-bidean jartzen dute hiztunek: “Variables

which have an especially high level of awareness associated with them are called *stereotypes*” (Trudgill 1986: 10).

Hiztunek hizkuntza-ezaugarri horien inguruan duten pertzepzioa gorabehera, askotan azken orduko bilakabideak besterik ez dira: modernoak eta, zenbait kasutan, oso modernoak. Hori dela eta, tesi honen corpusean ez ditut aztertu era horretako fenomeno gehienak ez baitziren existitzen: hemen erakutsiko dudanez, batzuk behintzat oso berriak dira, eta oso eremu txikikoak. Atal honetan Orozkoko, Uribe Kostako eta Ondarroako berrikuntza banaz arituko naiz, labur.

5.1.6.1. Orozkoko euskararen bereizgarri nabarmenetako bat da (§4.5.4.2) atalean aipatutako $-u + aC > -ueC > -u(i)C$ asimilazio-katea, *buruin*, *orduin*... eragin dituen. Asimilazioak, agerikoa da, beheko bokalaren asimilazioaren ondoko izan behar du, harez geroztik pauso bat harago eman baita; hortaz, goizenik *ca.* 1640koa izango litzateke, nahiz eta hain zaharra dela pentsatzeko arrazoi objektiborik ere ez dagoen: Aiaraldeko testuek ez dakarte adibiderik Lehenengo Euskara Modernoa baino lehen, eta Orozkoko 1739ko otoitzetan ere ez dago. Dakidala, adibide zaharrenak *Dotrinazko sermoitegi*-koak dira, XVIII. mendearen amaierakoak (Ulibarri 2015: 138).

5.1.6.2. Uribe Kostako eta Mungia aldeko zenbait herritako eta auzunetako euskararen ezaugarri eskusiboa da $-a$ artikulua mugatua eranstea bokal-asimilazioa gertatzea (Hualde & Bilbao 1992: 57, Zuazo & Goiti 2016: 17): $/a/$ ez bestelako bokalekin gertatu da, tinbre bereko bokal bikoitza edo luzea sortuz lehenengo, eta horrela disimilatu ondoren azentudun soilduz: *seme + a > semee > semé*, *mendi + a > mendie > mendii > mendí*, *lepo + > lepoo > lepó*, *esku + a > eskue > eskuu > eskú*. Halaber, amaieran $-a$ zuten berbetan asimilazioa $a + a > ea$ disimilazioaren ondoren gertatu da, erdiko bokalaren alde (alegia, *alaba + -a > alabea > alabee > alabé*). Erroan $-oa-$ duten aditzetan ere gertatu dira asimilazioa eta soiltzea: *yon* ‘joan’, *yóteko* ‘joateko’ eta *eron* ‘eroan’, *éroteko* ‘eroateko’.

Aurretik esan legez, ezaugarria nabarmen edo *salient* askoa da hizkera hori entzuten dutenentzat, hiztun arruntek uste baitute mugatzailerik gabe egiten dutela berba Bizkaiko ipar-sartaldean. Uribe Kostako euskara linguistikoki definitzeko ezaugarri egokia da asimilazioa: sistematikoa, hizkuntza-egituretan sakon txertatuta eta eremuaren bateratzailea da. Kronologiaz denaz bezainbatean, ordea, oso berria da. Plentziako hizkera ingurukoetatik bereizteko zailtasunei aurre egin ezinik ibili zen XIX. mendean J. A. Uriarte. Hala ziotson Bonaparteri gutun batean: “Luego enviaré los tres Catecismos: el literario de Marquina, el de Plencia y el de Arrigorriaga. El distinguir al de Plencia

del de Arratia me va costando mucho” (Ruiz de Larrinaga 1958: 421). Azken batean, hiatu-eraketa fenomenoari garrantzi handia eman zioten bai Zabalak, bai Bonapartek, eta horietan bereizi gabe omen zegoen Uribe Kostako hizkera ingurukoetatik: “En todos los pueblos, a saber: Larrabezúa, Zamudio, Derio, Lujua, Sondica y todos los pueblos hasta Plencia con sus alrededores son iguales a Arratia” (Ruiz de Larrinaga 1957: 332).

Azkueren *Erizkizundi irukoitza* begiratuta, honako datu hauek erauzi ditut eremu hartarako:

6. taula. Bokal-eufoniak Uribe Kosta eskualdean (EI)

Herria	<i>a + a</i>	<i>e + a</i>	<i>i + a</i>	<i>o + a</i>	<i>u + a</i>
Plentzia ⁴⁰⁰	<i>arrebie</i>	<i>luze</i>	<i>egi</i>	<i>besoa</i>	<i>eskue</i>
Lemoiz	<i>arreee</i>	<i>luzee</i>	<i>egie</i>	<i>besoo</i>	<i>eskue</i>
Urduliz	<i>arriba</i>	<i>luze</i>	<i>egie</i>	<i>besoo</i>	<i>eskuu</i>
Gorliz	<i>arrabe</i>	-	<i>egii</i>	<i>besoo</i>	<i>eskuu</i>
Barrika	<i>arriba</i>	-	-	<i>besoo</i>	-
Getxo	<i>arrabe</i>	-	-	<i>besoo</i>	<i>eskuu</i>
Berango	<i>arrabea</i>	<i>luzee</i>	-	<i>besoo</i>	<i>eskuu</i>
Leioa	<i>arrabe</i>	<i>luzee</i>	<i>egi</i>	<i>besoo</i>	<i>eskuu</i>
Laukiz	<i>arrabe</i>	-	-	-	<i>eskuu</i>
Gatika	<i>arreee</i>	-	-	-	<i>eskuu</i>
Maruri-Jatabe	<i>arrabe</i>	<i>luzee</i>	<i>egii</i>	<i>besoo</i>	<i>eskuu</i>

Datuok begiratuta, bada, erraz ikusten da polimorfismoa: kasuren batean forma zaharragoak gorde dira (cf. Berangoko *arrabea*, Urdulizko eta Lemoizko *egie* edo Lemoizko *eskue*), hainbatetan bokal bikoitzak agertzen dira (batez ere bokala *o* eta *u* denean: Plentziako adibide arazotsuak kenduta, Lemoizko *eskue* da salbuespen bakarra) eta tarteka aldaera asimilaziodun bat dago (cf. Gorlizko, Getxoko, Leioako eta Laukizko *arrabe*, Urdulizko *luze* edo Plentziako *egi*). Polimorfismo bizi horrek argiro erakusten du 1920ko hamarkadan oraindik ere sortu gabea zela gerora (gaur egun) ezagutu dugun egoera, osatzen ari zela forma soilduak nagusitzeko eta sistematizatzeko bidea oraindik.

5.1.6.3. Ondarroako euskaran /u/ ostean eta hiatuetan erdiko bokalak igo ondoren gertatu da asimilazioa: *alabí* ‘alaba, abs. sg.’, *lusí* ‘luzea’, *egixe* ‘egia’, *basí* ‘baso, abs. sg.’ eta *eskú* ‘eskua, abs. sg.’ dira sistematiko, eta hondar urteotan Ondarroatik barnealdera hedatzen ari dira asimilazio horiek; Markina aldeko gazteen artean arrunt edo gero eta arruntago entzuten dira, adibidez. Bada, aurreko puntuan

⁴⁰⁰ *Erizkizundi irukoitz*-ean bertan jotzen dira zalantzazkotzat Plentziako emaitzak; cf. “las respuestas en parte son dudosas” Echaide (1984: 43).

egindako ariketa bera egin dut, eta *Erizkizundi irukoitz*-etik erauzita koadro batera bildu ditut Ondarroatik Markinara bitarteko zenbait herritako datuak:

7. taula. Bokal-eufoniak Ondarroa eta Markina arteko herrietan (EI).

Herria	<i>a + a</i>	<i>e + a</i>	<i>i + a</i>	<i>o + a</i>	<i>u + a</i>
Ondarroa	<i>arrebie</i>	<i>luzie</i>	<i>eguiye</i>	<i>besue</i>	<i>eskue</i>
Berriatua	<i>arrebie</i>	<i>luzie</i>	<i>eguidxe</i>	<i>besue</i>	-
Etxebarria-Markina	<i>arrebie</i>	<i>luzie</i>	<i>egixe</i>	<i>besue</i>	<i>eskue</i>
Markina	<i>arrebie</i>	-	<i>egixe</i>	-	-

Ondarroa-Markina aldeko datuetan ez da ikusten Uribe Kostako datuetan agertzen zen polimorfismoa: Markinan bertan XX. mendearen amaierara / XXI.aren hasierara bitartean gordetako bilakabideak ziren arrunt, *i* ondoko epentesiaren ebakera fonetikoa gorabehera gaur egun Bermeon eta Durangon aurki daitezkeenak. Ez dago Ondarroan gaur egun beste hiztun batzuentzat hain deigarri egiten den ezaugarriaren arrastorik 1920ko hamarkadan bildutako datuetan.

5.1.7. Ezaugarrien kronologiaz eta Lakarraren periodizazioaz

5.1.7.1. Orain dela bi hamarkada “Suponemos que todo el mundo estará de acuerdo en que así como el concepto cronología es básico para la lingüística histórica, así también el de periodización lo es para el establecimiento de la historia de la lengua” idatzi zuten Gorrotxategik eta Lakarrak (2001: 428), eta badirudi euskal diakronistek arrazoa eman dietela bete-betean; izan ere, Lakarrak berak (1997a: 516) euskararen aro historikoak sailkatzeko proposatutako periodizazioa onartua ez ezik, zabal erabilia ere bada, nahiz eta ezaugarrien historiaz aritzean mendeak sarri aipatu ohi diren oraindik ere, besteak beste denbora-tarte laburragoak izateak zenbait alderdi zehaztasun handiagoz lantzea ahalbidetzen baitu.

Ahal izan zuen guztietan ezaugarri intralinguistikoetan oinarritutako periodizazioa aurkeztu zuen Lakarrak lehenengoz, “zirriborro gisa bada ere” (1997a: 516). Orduz geroztik, mugari kronologiko batzuk zertxobait lekualdatuta eta beste batzuk mantenduta, funtsean indarrean egon da (cf. Gorrochategi & Lakarra 2001, Gorrotxategi *et al.* 2018: 16-17 eta Lakarra *et al.* 2019: §11.1). Hain zuzen ere, sailkapen berriena denez, *EHHE*-n baliatzen denari jarraituko diot hemen. Hala aurkezten da, eta tesi honetan ere izendapen horiek erabili(ko) ditut, oro har:

- (i) Aitzineuskara Zaharra (Aitzineuskara Modernoa baino lehen)

- (ii) Aitzineuskara Modernoa (Kristo aurreko azken mendeak)
- (iii) Akitaniera (I-IV. mendeak)
- (iv) Euskara Batu Zaharra (VI-IX. mendeak)
- (v) Erdi Aroko Euskara (X-XV. mendeak)
- (vi) Euskara Arkaikoa (1400-1600)
- (vii) Euskar Zahar eta Klasikoa (1600-1745)
- (viii) Lehen Euskara Modernoa (1745-1890)
- (ix) Azken Euskara Modernoa (1891-1968)
- (x) Euskara Batua (1968-)

Lakarra (1997a) lanetik Lakarra *et al.* (2019) lanera bitartean egin diren egokitzapenak dira Aitzineuskara Zaharra eta Aitzineuskara Modernoa (ez zen Aitzineuskara Zaharrik lehenengo sailkapenean), eta 1997an Erdi Aroko Euskarak barne biltzen zuen denbora-tarte luzea orain Euskara Batu Zaharraren eta Erdi Aroko Euskararen artean banatzea. Horiez gain, Euskara Arkaikoaren muga leheneratu zuten Mounolek eta Lakarrak (2018: §1.1), XVI. mendeko historialarien lanetan zein errehabildumetan agertzen diren materialak ez XVI. mendekoak baina gutxienez mende bat lehenagokoak zirela argudiatuz.

5.1.7.2. Gainerako hizkuntzetakoa legetxez, euskararen historiaren eta historiaurrearen periodizazioan ezarritako mugak konbentzioz ezarritakoak dira; inork ez luke esperoko hizkuntza bat urtebeteko edo urte biko denbora-tartean aldatzea: garaiaren eta tartean dauden ezaugarrien arabera aldaketa-prozesua mantsagoa edo bizkorragoa izan, zenbait urte edo hamarkadako trantsizioen bidez gertatu ohi diren aldaketetan oinarrituta irudikatu ohi dira periodizazioak. Proposamenak, gainera, orokorrak izaten dira: euskara osoa edo ezagutzen den euskara osoa hartzen dute kontuan, joera bateratu orokorrak erabiltzen dira, ez dialekto bakoitzaren espezifikitateak, horrek ezinezko egingo bailuke periodizazio-saio orokor bat proposatzea. Hori dela eta, ikergai interesgarria da aztertzea noiz egiten duen bat dialekto bakoitzak periodizazio-proposamen orokorarekin, horrela dialekto gordetzailleak eta berritzaileak bereiz bailitezke, besteak beste.

Nafarroako euskarari buruz aritzean periodizazio-saio bat egin zuen Reguerok, eta zioenez, goi-nafarreraren periodizazioak bat egiten du Lakarraren periodizazio-proposamenarekin (Reguero 2017: 683 eta hurrengoak). Azpi-atal honetan, bada, tesi honetan landutako mendebaleko euskararen ezaugarriek periodizazio estandarrekiko

duten kokapen kronologikoa aipatuko dut, Euskara Batu Zaharretik / Erdi Aroko Euskaratik Lehen Euskara Modernora (zehazki, 1800. urtera) arteko denbora-tartea erabiliz.

5.1.7.3. Erdi Aroko Euskarak denbora-tarte luzea hartzen du bere baitan, bost mende ingurukoa. Zalantzarik gabe, epe horren barnean etenak edo azpi-garaiak ez bereizteko arrazoen artean daude materialen urritasuna eta homogeneousutasuna, bai eta eskueran dauden materialak xede horretarako sistematikoki ustiatu ez izana. Hemen aztertutako ezaugarriei dagokienez, badirudi Mendebaleko Euskara Zaharrari loturik gutxienez bi azpi-garai bereizi behar direla Erdi Aroan.

Lehenengo azpi-garaia zaharrena da, eta Euskara Batu Zaharretik Erdi Aroko Euskarara bitarteko mendeak hartuko lituzke. Funtsean, zenbait data zehatz aipatzearen, VIII-IX. mendeetatik XI-XII. mendeetara bitarteko garaia litzateke, non Mendebaleko Euskara Zaharraz eta horren zatiketaz hitz egitea ahalbidetzen duten ezaugarriak baitaude: Euskara Batu Zaharraren lehenengo zatiketez geroztik sortuak dira, eta X-XI. mendeetan lekutzen dira lehenbizikoz; garrantzitsuena $a + a > ea$ da nire ustez, baina hor kokatzekoak dira, halaber, $(h)uri$, $barri$ eta $baltz$ bezalako aldaerak.

Bigarren azpi-garaiak Erdi Aroko azken mendeak hartuko lituzke: XI-XV. mendeak: sasoi horretan kokatzekoak dira, nire ustez, bokalerdiaren ondoko txistukarien palatalizazioa, $egin$ aditz laguntzailearen erabilera *irrealis*-etan, $a + a > ea$ disimilazioarekin lotutako fenomeno bigarrenkariak (hala nola $-e > -a$ berreraiketa), adizkietako disimilazio foniko hutsa eta hasperenaren galera.

Tesi honen aztergaien irismenetik kanpo geratzen badira ere, garai horretakoak izan daitezke, halaber, Euskara Arkaikoko lehenengo testuak agertu orduko indarrean zeuden beste ezaugarri batzuk, hala nola aditz-izenetako *-eta* atzizkia (Urgell 2006: 944-945), objektu zuzenarekiko komuntaduraren galera, Bizkaian **eutsi* aditz laguntzailea NOR-NORI-NORK sailean (bakar da Bizkaian, nahiz eta Araba osoko testuetara zabaldua agertu),⁴⁰¹ eta beharbada **edun*-en erroetan $au > o$ bilakabidea Bizkaian (baina ez Araban; cf. Mounole inprimategian). Bigarren azpi-garai horretan ere denbora-tarteak

⁴⁰¹ Gerora *bizkaiera* deitu izan den eremuko testu zaharretan bi adibide aipatu izan dira: MLastur 11 *Edegui dio almeneari erdia* eta Iturbe 11-4 *eman dio osticu*. Horiei Lazarg eskuizkribuko zenbait adibide gehitu behar zaizkie (A27a: 9-12 *ez diçu emun lecuric*, A7:71-74 *erançun cidan: Catalin*), eta RS *Arloteari emayoc ar(r)auça, escatuco dyc zoça* aipatu zuen Lakarrak (1986c: 658-659); baina, erretrau horretan bada erretrau ez Bizkaikoa baina erdialderagokoa dela pentsatzeko arrazoirik, $-i(n)$ - erroko adibidearen bakantasanaz gain ez baitakar *ar(r)auçea* disimilaziodunik erdal itzulpena “el huevo” izanda ere (cf. §4.4.2.2.1); cf., halaber, *emayoc*-en harira Ariztimuñok (2015c: 87 eta 92) norabide berean proposatutakoa. Hartara, mendebalean eskas askoak dira $-i(n)$ - errokoak lehenengo testuak agertu orduko, eta garai historikoan bat ere ez legoke Bizkaian.

luzeak dira, eta pentsa liteke *egin* aditz laguntzailea garaiaren hasieran (edo aurreko garaiaren amaieran) gramatikalizatu eta hedatzen hasi zela, hain da zabala historikoki hartu izan duen lurraldea; ezaugarriak azterketa xehea behar du, nolana ere den, emaitza sendogorik lortzeko.

Bigarren azpi-garai honetako ezaugarriak berriagoak lirateke, beraz. Aurrekoek baino hedadura txikiagoa dute edo hedatu diren eremuetan ez dira beranduagora arte sistematizatu; are gehiago, badirudi aipatutako azken sortako zenbait ezaugarri esanguratsu behintzat Mendebaleko Euskara Zaharraren barneko zatiketa berriago bati dagozkiola zeinetatik kanpo geratuko bailirateke, adibidez, Gipuzkoa gehieneko (Deba ibarretik eskuin zeuden hizkerak, behintzat) eta Nafarroako mendebaleko hizkera “mendebaltarrak”.

5.1.7.4. Erdi Aroko Euskara eta Euskara Arkaikoa funtsean garai bera zirela baieztatu zuen Lakarrak (1997a: 516), eta tesi honetan aztertutako ezaugarriek ez diote horri kontra egiten. Hainbat ezaugarriren lekukotasun zaharrenez eta bilakabide kronologikoaz aritzean aipatu dut ideia bera: lehenengo testu arkaikoak agertu orduko delako ezaugarria sortua eta, kasu batzuetan, eremu jakin batean hedatua zen. Honako ere balio dute, beraz, Erdi Aroko euskararen azken mendeetan sortutako berrikuntzek eta gertatutako galerek.

5.1.7.5. Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrerako mugarri kronologikoa 1600. urtean kokatu zuen Lakarrak 1997an, eta hortxe mantendu da hogeitaz buruan: aoristorik eza, bokal sudurkarien galera, adizkietako uzkurdurak, aditz sintekikoen ugaritasuna eta mendebalean gordetako *-rean* (ablatiboa) / *-ti* (prosekutiboa) bereizketarekin batera, txistukarien neutralizazioaren hastapenak aipatu zituen (Lakarra 1997a: 516).⁴⁰²

Euskara osoari begira mugarri zentzuzkoa dela pentsatzen dut, baina argi dago mendebaleko euskara gordetzaile izan zela garaien arteko trantsizioan: ablatiboaren eta prosekutiboaren arteko bereizketa gordetzeaz landara, aoristoko forma zaharkituak ere agertzen dira jaurreko sartaldean eta sortaldean ~1650era arte (EgiaKant, Kapan);⁴⁰³ halaber, bokal sudurkarien arrastoak aurki daitezke Mikoletarenean eta, batez ere,

⁴⁰² Gerora, batez ere berrikuntza positiboak lehenetsiz baina zenbait berrikuntza negatibo ere aintzat hartuz, Mounolek (2016) Euskara Arkaikoa eta Zaharra bereizteko hogeita hamalau ezaugarri bildu ditu, horietatik hogeita zortzi aditzaren morfologiari lotuak, hiru sintaxiari, bi fonologiari eta bat izenaren morfologiari.

⁴⁰³ Kapanagarenean forma perifrastikoak *Credo*-an agertzen dira, fosilduta baleude bezala, eta trinkorik ere bada (cf. 20 *Cerren bay neguian pecatu gravemente*), nahiz eta gutxi eta ez VJesus-en eta Mikoletaren eskuizkribuan bezain aberats.

sudurkaritasuna sistematikoki adierazi ez zuen arren, Kapanagaren dotrinan. Ablatiboko *-rean*-en eta horren gainean eraikitako *-reanik* pleonastikoaren adibideek luzaroago iraun zuten, ordea: 1700az geroztik zekuskien Lakarrak zaharkiturik (1984b, 1996: 161).

Euskara Zahar eta Klasikoko berrikuntzen artean txistukarien neutralizazioa sartu beharra bermatu du tesi honetan egindako azterketak, aurreko mende eta garai linguistikoan zantzu edo kokagune ahulenetako adibide zirenak orduan indartsuago eta hedatuago (bai kokaguneei, bai testu eta eremuie dagokienez) baitzeuden. Horiek in batera aipatzekoa da beheko bokalaren asimilazioaren agerrera indartsua ~1640 inguruan: VJesus-en duen indarra ez da nolana hikoia, eta pentsa liteke zenbait urte bazirela asimilazioa sortu zenetik. Galeren artean, berriz, goragotik zetorren bokal bikoitzen soiltzea nabarmen aurreratu zen Euskara Zahar eta Klasikoan, eta eremu batzuetan luzaroago iraun zezaketen arren, XVIII. mendearen hasieraz geroztik iharturik agertzen dira adibideak. Hala espero zitekeen, egia esatera, erro barnean VCV > VV > V soiltzea aspaldirik izan baita arrunt baita mendebalean ere (gogoratu *ahari* > *aari* > *ári* lakoak).

5.1.7.6. Euskara Zahar eta Klasikotik Lehen Euskara Modernorako trantsizioa literatur hizkuntzaren bilakaerarekin lotu zuen Lakarrak: “lexiko zainduagoa, eratorpenaren ugalketa, maila jasoagoa eta sintaxi periodo zabalagoak ditugu hegoaldean” (1997a: 517). Etena 1745ean kokatu izana ere ez da ausazkoa, Larramendiren irudia funtsezkoa baita Hego Euskal Herrian literatur hizkuntzez aritzean.

5.1.7.6.1. Mendebaleko testuei dagokienez, 1745az geroztiko data bete-betean da egoki eredu landuagoetarako trantsizio-garaia irudikatzen: orduz geroztik argitaratu ziren Kardaberatzen eta Olaetxearen dotrinak (baita berrargitaratu ere), Gandararen kantak, De la Quadraren lanak eta *Errosariyo santuba*, Gernikako eta Abadiñoako Gabon-kantak, eta abar. Halaber, Bizkaiko euskara estandarren inguruko kezka eta eztabaida (irudikatua bada ere) ez da XIX. mendearen hasierakoa, ezpada XVIII.aren bigarren erdikoa (cf. Urgell 1985, Altzibar 1992: 476, Zuloaga 2010, Ulibarri 2015: §4.3.3.2, Zuloaga 2016 eta hemengo §5.3.3). Are gehiago, Bizkaian mugarri kronologikoa 1745etik 1730era aurreratu litekeela defendatuko dut hurrengo atal batean (§5.3.3.2.1).

Bizkaitik kanpo ere hizkuntzaren kontzientzia aktiboa agertzen da eremu mugakideetan: *Dotrinazko sermoitegi*-ko zenbait hautu eta eragin ez ezik, aintzat

hartzekoak dira Oñatiko eskuizkribuak ~1800-1805 aldera, eta arean erdialderago Peñafloidako kondearen eta Loiolako dotrinaren, eta garai eta inguru bertuko *Grand tour*-aren eta Azpeitiko 1786ko udal-aginduaren arteko aldeak.

5.1.7.6.2. Lehen Euskara Modernoaren sorrera, aurreko datuek erakusten dutenez, nazioartean eta batez ere soziolinguistika historikoaren esparruan *language history from (and of) above* ereduaren arabera definitua da; hots, idazle ikasiagoak edo hizkuntzaren inguruko kontzientzia handiagoa zuten idazle, testu inprimatu eta gramatizazio- eta estandarizazio-proiektuen eraginaren arabera definitzen da garai berria, jakintza eta kontzientzia linguistiko hori besteak beste hautu eta ohitura linguistikoen bidez islatzen delako.

Aurreko ikuspegiarekin batera, azken hamarkada eta erdian beste ikuspegi bat ere landu da edo lantzeko aukera sortu da, nagusiki Europan eta hizkuntza germanikoei (baina ez horiei bakarrik) loturik: *language history from (and of) below* deitutakoa (Elspeß 2005); hots, obra kanonikoez harago, ustez garrantzi eskasagoko testuetan eta, batez ere, eguneroko hizkeretatik hurrago idatzitakoetan (hala nola dokumentu pribatuak: gutunak, egunerokoak zein bidaiak-kaierak) arreta berezia jarri da, hizkuntzaren historia ez idazle handien eta obra inprimatuen bidez berreraikitze, ezpada jende xehearen hizkuntzaren historia emateko.

Euskarari dagokionez, egia da halako bereizketa baten arabera sistematikoki eta garai oso baterako lan egitea ezinezkoa dela, oso gutxi direlako euskaraz idatzitako *ego document*-ak (cf. Van der Wal & Rutten 2013) eta literalki corpus barik geratuko ginatekeelako ia; aitzitik, *beheitiko* ikuspegia kasu eta testu jakin batzuk aztertze erabil daiteke 1750az geroztik: orain urte gutxira arte ezagutzen ez den Le Dauphin bildumak horretarako aukera ematen du, adibidez (cf. Padilla-Moyano 2015, Padilla-Moyano & Zuloaga 2018, Krajewska & Zuloaga 2018).

Tesi honetan aztertutako corpusari dagokionez, argi dago 1745az geroztiko testu batzuk tokian tokiko hizkeretatik hurbilago idatzi zirela, baita *ego document* izan gabe ere, eta hurbiltasun hori neurtzeko ezaugarri esanguratsuen artean daude hiatotako bokalen interakzioak: behin baino gehiagotan esan legez, Lehen Euskara Modernoan ugaritzen dira halakoak testuetan, testuen generoa edozein izanda ere; beraz, Lehen Euskara Modernoa intralinguistikoki hezurramitzen duten ezaugarrien artean aintzat hartzekoak dira, gutxienez, $e \rightarrow i$ eta $o \rightarrow u$ bokal-igotzeak, $-ijV$ eta $-ubV$ kontsonante epentetikoak eta eremu txikiagoetan (herriak, ibarrak, eskualdeak) bakarrik hedatzen hasten diren berrikuntza lokal eta eskusiboak (§5.2.7.2).

Beraz, Lehen Euskara Modernoan bi joeratako ezaugarriak nahasten dira, eta joerok ez daude maila berean. Alde batetik, eufoniek, eremu txikiagokoak zein zabalagokoak izan, informazio gehiago ematen dute tokiko hizkerez, eremu txikiko dialektalizazio-prozesuez eta hizkera dialektalak edo herrikoiak baliatzearen alde egin zuten idazleek. Beste alde batetik, eratorpena aberasteak, sintaxi eta lexiko landuagoak edo eredu/sistema linguistiko jakin baten aldeko hautu kontzienteez sasoian sasoiko moda eta joera supradialektal eta/edo estandarizatzaileez ematen dute informazio gehiago.

5.1.8. Proposamena *Bulda*-ren datazioaz

5.1.8.1. Hizkuntzen historia berreraikitzeke corpus historikoetan jarraitutasun kronologiko koherenteak ez dira arau. Askotan koherentzia kronologikoa ikusten da eremu jakin bateko testuen artean, eta horrek bidea ematen du ezaugarrien edo hizkeren bilakaera diakronikoa berreraikitzeke: Eibarko 1685eko eta 1721eko koplak-sortak, eta 1754ko udal-ordenantza bata bestearen ondoren aztertuta koherenteak dira emaitzak; halaber, eufonia bokalikoei dagokienez oso koherente agertzen da Urolako euskara, 1750az geroztik besterik ez baitaude zenbait erregela.

Arazoak gainerako datu eta testuen argitan espero zitekeen koherentzia hausten denean edo espero ez diren emaitzak agertzen direnean azaldu ohi dira, ordea. Are zehatzago, arazoak handiagoak dira testu bat “espero zitekeena” baino berritzaileago denean, gordetzaileago denean baino.

Barnetxearen 1763ko euskal kantuan ez XVIII. mendean baina XVI.lean arrunt ziren ezaugarri batzuk agertzen dira: aditzoina partizipioaren ordez, *(h)æk* ‘haiek’ eta *ze* ‘ez’ aldaerak, ezeztapenaren [aditz nagusia + *ez* + aditz laguntzailea] sintaxia eta *enparatu* ‘salbatu’ berba aipatu nituen edizioa atontzean (Zuloaga 2018 [2013]: §4.2.2). Era horretako kasuetan, testu-generoak berak hizkuntza fosiltzea eta arkaismoak gordetzea errazten duen begiratu ohi da, otoitz, kanta edo errexitatuak diren, adibidez.

Testu-generoaren bidez azaldu ezin direnean, idazleek aurreko garaietako testuak irakurriaz ikasitako forma zahar edo zaharragoren bat atsegin, erabili eta zabaldu egin zutela pentsa liteke: horrela azal daiteke, adibidez, nolatan berreskuratu zuten Gipuzkoako zenbait idazlek *a.e* hiato zaharra, *ae* > *ee* > *e* soilduaren ordez (Urgell 2018: 616).

Aurreko argudioak erabiltzeko aukerarik ez dagoenean, ikertzaileak ezinbestean gogoratu behar du arkaismoek nonahi eta noiznahi agertzeko joera dutela; beraz, ez dela

ezinezko duela hiruzpalau mende indarrean egon ondotik galdutako ezaugarri baten arrastoak aurkitzea hiruzpalau mende horien buruan: bokal sudurkarien galera XVI-XVII. mendeetan kokatu izan da mendebaleko testuetan,⁴⁰⁴ baina *Dotrinazko sermoitegi*-aren azterketa filologiko zehatzaren bidez zenbait arrasto aurkitu zituen Ulibarrik (2015: §4.2.1.6). Halaber, aoristoaren galera Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera bitarteko trantsizioan kokatu izan da, gutxi gorabehera: Leizarraga eta Materra kontrajarri izan dira, eta azken horren lehen edizioaren aurkikuntzak ez du ikuspeirik aldatu, ez baitakar adibide bakar bat ere (Haranbururenean, halere, badaude adibide fosildu bi *Credo*-an). Mendebalean, Betolatzaren dotrinan ere ez dago adibiderik, baina Bizkaian 1650era arteko testuetan badaude adibideak; are gehiago, Bilbon eta ipar-sartaldean XX. mendean ere bildu da adibide iharturik (Zabala 1848: 56, Azkue 1935: 85, Gaminde 1995b: 449, Aldai 2008).

Ziurgabetasunak askoz handiagoak dira testu jakin bat bere garaikideak baino berritzaileagoa denean (Betolatzarena, adibidez) edo gainerako hizkeretan oro har galdutako ezaugarriekin batera gainerako hizkeretan dokumentatu gabeko edo eskas dokumentatutako berrikuntzak arrunt direnean (Barrutiarena, adibidez). Kasu horien zergatia zein den bete-betean azaltzea eta azalpena frogatzea ez da erraza. Thomasonek (1993: 483 eta hurrengoak) zioenez, batzuetan egiten ditugun galderen erantzunak ez daude eskueran, tartean informazio asko galdu edo falta delako. Halakoetan erabil daitezkeen datuak ez dira hipotesi ziurrak egiteko behar bezain indartsuak, eta hobe da ahulezia eta gabezia horiek aitortuta jardutea.

5.1.8.2. Bokal-eufoniei buruzko atalean behin eta berriz errepikatu da datu bat: Nafarroan zenbait berrikuntza lehenengoz Elizalderen eta haren izebaren arteko gutunerian agertzen diren legetxez, Bizkaian Bulda-koak dira zenbait bilakabideren lehenengo agerraldiak; are gehiago, lehenengo agerraldiak Bulda-koak ez direnean ere testu horretan gainerako garaikideetan (gutxienez, Lehenengo Euskara Modernora bitartekoetan) baino askoz indartsuago agertzen dira; erabat sistematikoak izatera iritsi gabe, indar bizia dute eta idazlearen hizkeran sistematikotasunetik oso hurbil egon behar zuten, egiazki sistematikoak ez baziren.

Egoera horrek halako arazo kronologiko bat sortzen du, 1701ekoa izatera ematen baitu Bulda denboraz kanpoko edo ez dagokion garaikoa dela: mende erdi eta garai

⁴⁰⁴ Halere, idazle/inprimatzaile gehienek sudurkaritasuna grafikoki adierazi ez izanak ziurgabetasuna eragiten du halako baieztapenen inguruan, adierazpen grafikoaren faltak ez baitakar, nahitaez, bokal sudurkarien falta.

linguistiko berriago baterako trantsiziora itxaron behar da zenbait ezaugarri hain indartsu aurkitzeko. VJesus-en antzekoa da egoera beheko bokalaren asimilazioari dagokionez, baina badakigu ezaugarria orokorrago ez agertzeari loturik ez dagoela kronologia-arazorik, ezpada ezaugarriaren inguruko halako ikuspegi gaitzesle bat, zenbait mende iraun zuena; zenbait testutako hiperzuzenketek eta adibide bakanek, nolana ere den, ezaugarria egon bazela erakusten dute (cf. §5.3.2.1).


Buldarako proposatu izan den data, 1701. urtea edo XVII. mendearen bigarren erdia,⁴⁰⁵ ez da ausazkoa, testuan bertan jasotzen baita adierazpen hau (Lakarra 1985b: 1050): “Juan Pedro Anda (?) / 1701, años, tiene este / Escrito, 1701”.⁴⁰⁶ Horren aurrean logikoena da pentsatzea testua urte hartan idatzi zela beranduenez, eta hori erabat ukatu ere ezin dut egin; aitzitik, uste dut testuko ezaugarri jakin batzuen kronologia orokorra zein den aztertuta testua ez XVII. mendearen bigarren erdikoa, ezpada XVIII.aren bigarren erdikoa dela, gutxienez. Testu bat geografikoki kokatzeko ingelesek *fit technique* deitutakoa erabiltzen den legez, teknika berbera erabil daiteke testu bat kronologikoki kokatzeko, eta kasu honetan badaude Lehenengo Euskara Modernora begirarazten didaten zenbait ezaugarri.

Grafiaren esparruan gogoratzekoa da txistukari frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizten direla, eta bereizketa horretan <tz> digrafoa erabiltzen dela lepokaria adierazteko (cf. 2 *deutzana*, adibidez). Egia da digrafo hori agertzen dela mendebaleko testuren batean XVIII. mendean baino lehen (baina ez askoz lehenago; cf. Zubia 420 *uiotzean*, 420 *atzoric*), baina Lehen Euskara Modernora arte ez da Buldan bezain sistematikoki erabiltzen (erdialderagoko testuez, begiratu Lakarra 1985a: 243 eta hurrengoak).

Bestalde, eta digrafo berari lotuta, frikari lepokaria adierazteko <tz> agertzen da tarteka Bulda-n (cf. 6 *bitzian*, 31 *vitizian*), eta horren pareko adibideak Lehen Euskara Modernoan agertzen dira: Buldaren beraren edizioan Oikiako dotrinako adibideak aipatu zituen Lakarrak (1985b: 1051, 7. oin-oharra; bide batez, Seguroiak berriki erakutsi duenez, aurretik ezagutzen genuen bertsoa gutxienez 1784ko kopia bat da), eta

⁴⁰⁵ “Orijinal hau 1701eko data horren aurretikoa dugu, XVII. mendearen bigarren zatikoa, segurki” zioen Lakarrak (1985b: 1045).

⁴⁰⁶ Hona hemen Lakarraren ediziotik ateratako argazkia:



Juan Pedro Anda.
1701, años, tiene este
Escrito, 1701.

horiei gaineratu behar zaizkie *Dotrinazko sermoitegi*-ko, Sarriaren sermoietako, Gernikako 1801eko Gabon-kantako eta Frai Bartolomeren lanetako adibideak, hurrenez hurren eta besteak beste. Frikari lepokaria adierazteko <tz> erabiltzea azaltzeko saiakerak ez dira inoiz erabat asebetegarriak izan,⁴⁰⁷ baina Ulibarrik Altzibarren (1992: 523) ideien ildotik aipatutakoa sinesgarria begitantzen zait: “Honen parean, sistema berriaren [frikariak eta afrikatuak bereizten dituen sistemaren] asimilazioak dakarren beste ezaugarri bat litzateke frikari/afrikatu oposaketaren hiperzuzenketa grafikoak” (Ulibarri 2015: 249). Beraz, frikari lepokaria adierazteko <tz> erabiltzea azaltzeko proposamenak batago egiten du Larramendiz geroztiko testuekin (cf. Lakarra 1985a: 243 eta hurrengoak, eta Urgell 2018: §5.1.1).

Maila linguistikoan, hiatoetako bilakabideen indarrak arreta ematen du: $e \rightarrow i / _V$ (1 *Buldia*, 1-2 *urtian urtian*, 3 *Erregiai*, 5 *confesoriac...*) eta $o \rightarrow u$ (1 *Erromacuac*, 4 *lenengua*, 5 *espacijuan*, 13 *precetocua...*) sistematikoak edo ia sistematikoak dira, hain zuzen $-ijV$ epentesia legetxez (6 *Plenarija*, 7 *gustijana*, 14 *jaijeguna*, 34 *gustijatic...*); bestalde, sistematikoa ez bada ere, $-ubV$ -ren adibideak ugari dira (3 *buruba*, 6 *peligruban*, 17 *barauba*, 23 *visitaubagas*). Aurrekoez landara, maila fonikoan txistukari frikari eta afrikatuen neutralizazioa oso aurreratuta edo burututa agertzen da, eta ezkutatzeko ahaleginak ahalegin, beheko bokalaren asimilazioak ere indarra zuen idazlearen hizkeran.

Buldaren jatorria Bizkai sartaldez kanpo bilatu behar dela argi dago: 67-68 *alan euquico dabe cuidadua bacoachac euren echetan* agertzen da testuaren amaieran, eta aditz laguntzaileko NORK pluralgileak erakusten du testuaren jatorria Bermeo, Zornotza eta Arratiatik eskuin bilatu behar dela, $-de$ zaharra espero baitzitekeen edozein garaitan testua Bizkai sartaldekkoa izatera (Zuloaga inprimategian-1).

Beheko bokalaren asimilazioak aparteko garrantzia du testua kokatzean, halaber: idazlearen hizkeran bazegoela zalantzarik gabea da, hiperzuzenketak tarteko. Bada, Markina aldera XIX. mendean edo orduz geroztik iritsi zela aintzat hartuz gero, ezin liteke inguru hartako testua izan. Halaber, beheko bokalaren asimilazioak baztertu egiten du testua Deba ibarrekoa izan daitekeelako ideia. Bi horietatik kanpo Durangaldean pentsa liteke, baina datuak ez datoz bat Arzadunen eta Urkizuren lanekin: Arzadunena bazter liteke, badirudielako gordetzaille jokatu zuela (cf. §5.3.3.2.1);

⁴⁰⁷ “El caso de Fray Bartolomé de Santa Teresa es más extraño en varios aspectos, aunque nunca haya sido comentado, que yo sepa. Dejo a un lado la cuestión de la geminación gráfica (...) o sus *vitzi* (= *bizi*) o *irabatzi* (= *irabazi*), cuya razón se me escapa” zioen Mitxelenak (1978b: 406).

aitzitik, *Rui*-k berak aldendu egiten du Urkizuren testuetatik, 1737ko liburuaren amaierako kopletan bestelako fonetismoei lekua egin zien arren ez baita *Rui*-rik agertzen.

Maila fonologikoan ez ezik, morfologikoan ere bada ezaugarri aipagarririk.⁴⁰⁸ Denborari eta lekuari lotuta *-rik* agertzen da ablatiboan (5 *egunerik*, 30 *gustietaric*), baina esparru horietatik kanpo *-tik* berria besterik ez dago:

Markatzekoa da, testua laburra izan arren, ez dela *-REAN* edo *-REANIK* erideten (...) XVII. mendean Kapanagak, VJek, Zubia-Lezamizek, Mikoletak eta Domingo de Egiaren kantak eta XVIII. ean –neurri txikiagoan– Barrutiak, Arzadunek, Urkizuk edo Gandarak duten usadioaren kontra. (Lakarra 1985b: 1053; begiratu, zehatzago, Lakarra 1984b)

Aipu horren ondoren Markinako euskara aipatzen du Lakarrak, ablatiboaren marka inguru hartan lehenago galdu zela gogoraraziz, eta Amilletaren dotrian ere *-tik* besterik ez dagoela aipatzen du (*idem*).

Aurreko erkaketaren arabera, Bulda kokatzeko aukerak ez dira asko: Amilletaren hizkerakide izatea baztertzekoa da: *-tik* nagusi izatean bat datoz testuan, baina Amilletarenean ez dago Buldan agertzen diren fonetismo guztien arrastorik, ez eta txistukarien neutralizazioaren arrastorik ere. Halaber, *Rui* Bizkaiko ipar-sortaldean berankorra bada, zail da onartzea, eskueran ditugun datuekin behintzat, 1701ean indartsu zegoenik. Beharbada Bizkaiko erdi-sortaldeko hirigune edo herri txikiago bateko euskara islatzen du, edo hegoalderagokoa: Otxandio aldekoa, adibidez.

Testua ez 1701ekoa baina Lehen Euskara Modernokoa dela pentsatuta, arestian aipatutako arazoetako batzuk behintzat konponduko lirateke:

- (i) Bereizketa eta gorabehera grafikoek bat egingo lukete garai linguistiko berberean beste idazle batzuen lanetan aurkitzen denarekin.
- (ii) Errazago azalduko litzateke zergatik dauden hain indartsu hiatuak zenbait fenomeno eta txistukarien neutralizazioa: 1750az geroztik Bizkaian ez ezik Hego Euskal Herri osoan (gogoratu Urola ibarreko, Donostiako zein Nafarroako testuez esandakoa, adibidez) ere nabarmen ugaritzen, sistematizatzen edota islatzen dira fenomenook idatziz.
- (iii) Beharbada ez Markinarako bertarako, baina (ipar-)sortalderako 1701erako onartzen garestiago dirudienak onargarriago ematen du XVIII.

⁴⁰⁸ Lexikoan ere aipa liteke baten bat: 44 *ostanceco* dakar behin Buldak, baina aldaera uzkurduradun hori ezohikoa da Bigarren Euskara Modernoa baino lehen, antza denez: XIX. mendearen bigarren erdia baino lehenagoko adibide bakarra Buldakoa da, idazle zaharragoen lanetan *osterantzeko* & *osterantxeko* & *osteruntzeco* & *osterontzeco* & *osterentzeco* gisako aldaera osoagoak agertzen baitira (*OEH*, s.v. *osterantzeco*).

mendearen bigarren erdirako: Amorotoko 1754ko armarrarian *bier* ‘behar’ agertzen dela gogoratu behar da (nahiz eta *ogia* ere badagoen), gerora (1784) zuzendu eta *biarra* eman zen arren.

(iv) Aurrekoaren ildotik, bilakabideen kronologia erlatiboaz aritzean (§5.1.5.1.6.3) “patroi berritzaile” deitutakoan kokatu dut Bulda, *Rui* berriagoa bailitzateke $e \rightarrow i$ igoera baino: Bizkai sartaldean Zolloko galdetegia eta Sarriaren sermoiak aipatu ditut, eta erdi-ekialdean Bulda eta Amoroto1754: maila honetan hizkera-eredu berberekoak dira.⁴⁰⁹

Hona ekarritakoa aintzat hartu beharreko proposamen bat baino ez da, jakina. *Contra factum non valet argumentum* dio esaera zaharrak, eta horri atxikitzen natzaio, ezinbestean, ikerketa-lan honetan. Aitzitik, Buldaren kasuan *factum* hori (Buldaren sinadura) beste era batera interpreta baliteke, ez testuaren sorrera-datazio gisara behintzat, uste dut erraz(ago) onartuko genukeela testuaren berankortasuna; datu linguistiko hutsak eskuan (sinadura hori ez balego) ez dut uste inork oztoporik ikusiko lukeenik testua 1750az geroztikoa dela pentsatzeko; sinadura, ordea, hor dago: 1701eko testu baten kopia modernizatua izan liteke beharbada, edo 1701ean erdaraz idatzitako bulda baten itzulpen modernoagoa, baina horiek datu linguistikoek eragindako aieruak besterik ez dira momentuz. Datozen urteotan Markina aldeko testu zaharragoren bat agertzeak edo Juan Pedro Anda⁴¹⁰ nor zen ezagutzeak eman lezake argi gehiagorik gaiaz.

⁴⁰⁹ Horren alde egingo luke, halaber, Bulda-ko 21 *garisimaco* ‘garizumako’ aldaerak (*OEH*, s.v. *garizuma*).

⁴¹⁰ Abizenaren irakurketa ez da ziurra, eta Lakarrak (1985b: 1045) ez du *Andu* edo *Arriola* izatea baztertzen. Nik neuk, azpiko *tiene* berbaren <t>-aren argitan, *Artola* eta *Astola* ere ez ditut baztertzen. Bizkaiko 1600-1900 bitarteko erregistro sakramentaletan zenbait bilaketa egin ditut deitura horiekin, baina bataio-agirietan behintzat ez dut inor aurkitu.

5.2. Geografia-gaiak

5.2.1. Sarrera

Aurreko atalean alderdi kronologikoaz arduratu naiz eta honetan alderdi geografikoaz arduratuko naiz. Funtsean, bi esparru izango ditut aztergai: hedadura-gaiak eta difusio-gaiak. Aurreko ataletan deskribatutako ezaugarriek duten hedadura geografikoa zehaztuko dut, eta hedadura hori oinarri hartuta ondorioak eta proposamenak erauziko ditut bi gaiari buruz: ezaugarrien arteko kronologiari eta ezaugarrien difusio-ereduei buruz. Izan ere, bi alderdi horiek aztertuta hobeto berreraiki daitezke iraganeko egoera eta dinamika linguistikoak.

Atal honetan nagusiki geografia-gaiez arituko banaiz ere, tesi honetan behin eta berriz esana eta erakutsia dut aldagai geografikoa eta kronologikoa bereiztea erosotasun-kontu hutsa dela, ikergaien konplexutasuna apur bat argiago aurkeztu nahian egindako bereizketa. Aldagai geografikoak lotura hertsia du aldagai kronologikoarekin, eta hemen aurreko atalean legez, hainbatetan aipatuko ditut uztarturik.

Lehenik eta behin Erdi Aroko berrikuntzen hedadura-gaiak aztertuko ditut. Alde batetik, Mendebaleko Euskara Zaharra defini dezaketen ezaugarrien sorlekuaz, hedadura zabalaz eta hedadura hori eragin duten difusio-ereduez arituko naiz. Halaber, hedadura- eta difusio-gaiei loturiko zenbait proposamen ekarriko ditut eztabaidara, Erdi Aroko foku berritzaileez eta eremu dialektalak bereizteko ezaugarrien baliagarritasunaz hausnartzeko. Beste alde batetik, hedadura txikiagoko zenbait berrikuntza izango ditut berbagai: *Mendebal Muturreko Euskara* definitzeko balio dezaketenez. Hain zuzen, horien aitzakian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskararen arteko loturak izango ditut hizpide, eta arreta berezia jarriko dut Mendebaleko Euskara Zaharraren barneko zatiketan, zatiketa hori eragin zuten ezaugarrien sorlekuetan, hedaduran eta difusioan, eta gorabehera historikoek horietan izan zezaketen eraginean.

Bigarrenik, garai historikoko (Euskara Arkaikoaz geroztiko) fenomenoak izango ditut aztergai. Alde batetik, berrikuntzek besarkatutako eremuez eta horien difusio-ereduez ariko naiz: XVI. mendeaz geroztik zurrigo egin daitezke zenbait proposamen, eta nazioartean difusio-gaiei buruzko literaturan agertzen diren eredu nagusietarik batzuk euskaraz gertatutako fenomeno eta bilakabideak azaltzeko erabili beharra defendatuko dut, baieztapen orokor eta soilegietatik harago egiteko. Beste alde batetik, eremu gordetzaile eta berritzaileez ariko naiz: lehenik eta behin, Bilbok mendebaleko euskararen egituraketa geolinguistikoa izan zezakeen eraginaz eta Bilboko bertako

euskararen izaeraz eta bilakabideaz arituko naiz; ondoren, hemen aztertutako ezaugarrien araberako joera gordetzaileak eta berritzaileak landuko ditut.

5.2.2. Mendebaleko Euskara Zaharra: ezaugarrien sorlekuez eta difusio-ereduez

Erdi Aroan sortutako berrikuntzen artean bat lehenetsi dut eten kronologikoak irudikatzeko eta erabaki arealak hartzeko: $a + a > ea$ disimilazio-erregela, ez hitz barnean baina amaieran $-a$ duten berbei artikulu mugatua eranstea sortutakoa (§5.1.3.4). Nioenez, hori da tesi honetan aztertutako ezaugarrien artean esanguratsuen banaketa dialektal zaharrez hitz egiteko eta Mendebaleko Euskara Zaharra goragoko entitate linguistikoetatik bereizteko; izan ere, ezaugarri horrek gaintu egiten ditu hizkuntzalaritza historikoan zein dialektologian etenak irudikatzeko eta lotura linguistikoak frogatzeko erabili ohi diren irizpideak, eta aipatu ohi diren murriztapen eta arazoak.

Atal honetan disimilazioaren hedadura- eta difusio-gaiak aztertuko ditut lehenbizi: hondar urteotako proposamenak aztertuko ditut eta ezaugarriaren difusio-eredua zein izan zen argitzen saiatuko naiz. Horrekin batera, ezaugarriarekin lotutako bi fenomenoren ($-e > -a$ eta $a + a > aa > a$) inguruan proposatu direnak berrikusiko ditut, eta bestelako proposamena egingo dut.

Beste alde batetik, labur bada ere, *egin* aditz laguntzailearen gramatikalizazio-prozesua eta hedadura $a + a > ea$ -rekin lotu behar dela proposatuko dut. Nire ustez, biak dagozkio Mendebaleko Euskara Zaharrari. Berebat, zenbait aldaera lexikok (*(h)uri*, *barri* eta *baltz*, eta **eu- > u-* aldaketa izan duten aldaera batzuk) Mendebaleko Euskara Zaharreko bigarren edo hirugarren mailako isoglosak irudikatzen dituztela proposatuko dut.

Azkenik, proposamen bat egingo dut Errioxako euskararen agertzen diren ezaugarrien difusio-ereduaz.

5.2.2.1. $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoa

5.2.2.1.1. Sorleku geografikoa

5.2.2.1.1.1. $a + a > ea$ disimilazio-erregelaren mugak egonkor mantendu dira Erdi Aroaren azken mendeez geroztik, gutxienez:⁴¹¹ Euskara Arkaikorako eta

⁴¹¹ Dialektologia dinamikoaren beharrez aldarrikatzen duen lan batean Hualdek hautatutako adibideak ez dirudi, beraz, oso egokia: “posible da bizkaiera edo mendebaldeko euskalkiaren sorkuntza singularreko /a+a/ > /ea/ disimilazioarekin identifikatzea (...) Bere eremu geografikoa dela-ta, hala ere, aldakuntza

Zaharrerako irudika daitezkeen mugak eta gaur egun euskara dialektala gorde duten eremuetakoak bat datoz, oro har; euskara dialektala galdu den inguruetan, bestalde, Erdi Aroko zein XVI-XVII. mendeetako onomastikak ikuspegi hori berresten du.

Euskara Arkaikoaz geroztiko testuak eta onomastika arakatuta, salbuespenak errazago gertatzen diren kokagune morfosintaktikoez eta jokamolde bereziko berbez harago (cf. §4.4.2.2.1 atala), disimilazio-erregela sistematikoa da Bizkai osoan eta Araban, eta tarteka agertzen diren eta salbuespen-kasu arruntenen arabera argiro azaldu ezin izan ditudan adibide bakanak adibide, baita Gipuzkoako mendebal zabalean (Deba ibarrean eta Urolan –Azkoitia eta Azpeitia aldean behintzat–, baina ez Debatik eskuin geratzen den kostaldean eta kostaldetik hurreko lurretan; cf. Oikia aldeko testuak eta BretKant) eta hegoaldean (Goierrin) ere. Halaber, araua (ia) sistematikoki agertzen da Arabako ekialdean, eta Arabaren eta Nafarroako mendebalaren arteko lurretan ere badago, bai Burundan, bai Ameskoa eta Lana aldean (Salaberri Zaratiegi 1998: 52-53).

Muga horiek guztiz bat egiten dute ezaugarriaren egungo hedaduraz emandako deskripzioekin:

Hauxe da mendebaleko euskararen araurik esanguratsuen fonologia alorrean. Bertako agiririk zaharrenetarik hasita gauzatzen da eta euskalki horren ohiko eremutik kanpo ere zabaldu da: Urolaldeko alderdi batean (Itziar, Azkoitia, Azpeitia, Errezil), Goierrin eta Nafarroako Burunda ibarrean. Araban ere bazen antzina; baita Araba ondoko Ameskoa eta Lana ibar nafarretan ere. (Zuazo 2017: 18)

Are gehiago, mugak inorantz aldatzekotan zabaldu egin beharko liritekeela dirudi: adibideak eskasak eta isolatuak izan arren, gogoratzekoak dira Mitxelenak (*FHV* 94) aipatutako *azkuria* eta *minberia* Errenterian (begiratu, halaber, 150. oin-oharrean aipatutako kasuak), eta Isastiren 52 *Illunbeco jostea, arguitaco lotsea* errefracua, nahiz eta azken horrek ez duen zertan Gipuzkoako sortaldekoa izan.⁴¹²

5.2.2.1.1.2. Disimilazio-erregelaren kronologiaz aritzean aipatu dut Mendebaleko Euskara Zaharra goragoko unitate batetik bereizteko berrikuntza eta

berriagoek erakusten digutena ikusita, ez dugu pentsatu behar gaur egun arauak dituen muga geografikoak zaharrak direnik. Guztiz alderantziz, XVII. mendean arau honek markatzen zuen isoglosa eta gaurregun aurkitzen duguna oso desberdinak izan daitezke” (2015: 149).

⁴¹² Adizkietako disimilazioa deskribatzean esan legez, Gipuzkoako *gera* eta *zera* aldaerak analogia eta berranalisia eskatzen dituen azalpenarekin lotu izan dira: “**gara-en/la* > *gare(n/la)*, and through vowel metathesis > *gera*, probably favored by the form *dira*” (Aritzimuño 2013: 419). Halere, Lakarrak aurrez aurrekoan gogorarazi didanez, prozesu bertsua proposa liteke *a + a* > *ea* oinarri hartuta; hots, *garean/la* > *gare(an/ala)* > *gera* eta *zarean/la* > *zare(an/la)* > *zera*. Horren arabera, zuzenean dokumentatutakoa baino nabarmen zabalagoa izango litzateke *a + a* > *ea* disimilazioa, baina proposamenak arazo kronologikoa du: Euskara Arkaikora ezker behintzat ez dago *a + a* > *ea* disimilaziorik Deba ibarretik eskuin, eta Deba ibarrean ere bakanak dira adibideak. Hartara, pentsatu beharko litzateke XV-XVI. mendeak baino lehen hedatua zegoen disimilazio fonetikoa galdu zela Gipuzkoan, egoera zaharragoaren arrastoa utziz *gera* eta *zera* adizkietan.

aldaketa egokia dela, zuhaitzean Mendebaleko Euskara Zaharra bereizteko adabegian kokatzeko modukoa. Alderdi geografikoari begira, beraz, $a + a > ea$ morfonologikoaren hedadura legokioke tesi honetan *mendebal zabal* izendatu dudan unitate linguistikoari: Euskal Herriko mendebalean Erdi Aroan (X. mendea baino lehentxeago?) gertatutako zatiketa dialektal zaharren artean kokatzekoa da, nahiz eta ez gaituen Euskara Batu Zaharrera eramaten. Ardatz kronologikotik ardatz geografikorako jauzian, halere, zenbait ñabardura hartu behar dira aintzat.

Difusio-gaiez gerora arituko naiz, baina azken urteotan hainbatetan proposatu da ezaugarria Gasteiztik edo Arabako lautadatik hedatu zela (Urgell & Lakarra 2008, Zuazo 2010a: 168 eta hurrengoak, 2012: §3.1, 2014: 50 eta hurrengoak, 2019: 55),⁴¹³ nahiz eta adostasuna ez den erabatekoa edo ñabardurak egin behar diren. González de Viñaspreren ustez, ez du uste Gasteiz mendebaleko euskararen foku izan zenik XI-XII. mendeetan, eta are gutxiago aurreko mendeetan:

La primera mención de Gasteiz data del año 1025, en el documento de la Reja de San Millán, como una aldea más de las que conformaban la merindad de *Malizhaeza*. Pagaba tres rejas a modo de impuesto, lo que permite calcular su población, gracias al documento apócrifo del conde Fernán González de Castilla (...) Concluyó que la Álava representada en la Reja tendría unas 4.280 casas o fuegos y contaría con alrededor de 21.000 habitantes. De todos esos corresponderían a Gasteiz 30 fuegos (un 0,70% del total de Álava), y contaría con 150 habitantes (el 0,71% del total). Después, Gasteiz siguió siendo una aldea hasta que recibió el fuero y se constituyó en villa el año 1181, diecinueve años antes de ser tomada por las fuerzas castellanas. Por tanto, no tenía una población con masa crítica suficiente para ser, por sí sola, un foco de innovación e irradiación dialectal. (González de Viñaspre 2011: xxxiii)

Aurreko ikuspegia zentzuzkoa eta ulergarria da, baina ez dut uste nahikoa denik Gasteiz foku berritzaile izan zenik ukatzeko. $a + a > ea$ disimilazioa Gasteiz aldeko euskarari loturik irudikatu behar da, baina horrek ez dakar ezaugarriak bat-batean hedatu behar zuenik gerora lekutu den eremu guztietara. Berrikuntzek denbora-tarte bat behar izaten dute hiztun hartzailegaien artean arrakasta izateko eta hizkuntza-aldaketa dakarren difusioa lortzeko, eta denbora-tarte hori erabat ezberdina izan daiteke,

⁴¹³ Egia esatera, Bizkaiko euskararen (edo *bizkaiera*-ren) zenbait ezaugarri Arabatikoak zirelako ideia ez da berria: “Sin embargo creería que la relación entre el *euskera* vizcaíno y lo que fue el *euskera* alavés habría que plantearla a la inversa. Para esto hay que tener como presupuesto la época en que la lengua vasca llegó a su mayor densidad en el actual territorio alavés, o por lo menos cuando se hablaba por too su centro geográfico... Según esto soy del parecer que el vascuence alavés no era vizcaíno sino que cuando el *euskera* prevalecía en Álava el *bizkayera* pertenecía al *euskera* alavés. Estimo que, al revés de la situación actual, Álava resultaba ser entonces más centro que periferia, y zona probablemente de mayor densidad demográfica, etc. (...) la máxima expansión del vasco configuraba una situación lingüística que presuponia como núcleo central, por el occidente de Euskalerría, a la Llanada alavesa irradiando hacia la Rioja y Bureba por el sur, hacia Lausa y Mena por el Oeste y hacia Vizcaya y sus colaterales de la cuenta del Deva y Encartaciones por el Norte” (Sasia 1976: 133-134). Sasiak bere hipotesia frogatzeko ezaugarri linguistikorik aipatu ez izanari egozten dio hipotesiaren oihartzun handirik eza Zuazok (2012: 44).

ezaugarria zein den. Zuhaitzaren ereduak bat-bateko etena irudikatzen du, baina zatiketa linguistikoak ez ohi dira bat-batean gertatzen:

The most serious defect [of the tree model] is probably the fact that the imagery used seems to imply that languages entered as nodes on a sub-branch of the tree are discrete entities, comparable to individuals in the human world, while it is a characteristic of language development that it is always gradual and without abrupt breaks. (Winter 1973: 136-137)

Azken batean, azalpen horrek agerian uzten du, berriz ere, *dialektologia dinamikoa* (Ogura 1990, Ogura & Wang 2004, Hualde 2015, Camino 2016) bezalako kontzeptuen beharrezana Schleicherren eta Schmidten erduei datzekien mugak gainditzeko: zuhaitzaren metaforaren bidez Mendebaleko Euskara Zaharra bereizi ahal izateak ez dakar *Mendebaleko Euskara Zahar* horrek gerora izan duen hedadura eta tinkotasuna zituenik IX-X. mendeetan (hots, etena irudikatzen den garaian). Galdera zilegia da noiz irudikatu beharko litzatekeen eten hori, berrikuntza sortu eta arrakasta lortu zuen garaian bertan, hedadura murriztagoa izanik, ala behin arrakasta izanda halako hedadura eta egonkortasun bat lortu zituenean. Eredu konbinatu bat baztertu eta lehenengo aukeraren alde eginda, *Mendebaleko Euskara Zaharra* Gasteiz aldeko edo Arabako euskara izan zitekeen, baina ez Bizkaikoa eta Gipuzkoako mendebalekoa, adibidez, non ez *-ea* baina *-aa* gordeko baitzen, hegoaldetiko berrikuntza iristeke. Bigarren aukeraren alde eginda, ordea, zaila da inoiz etenik irudikatzea, ezaugarriak ez baitira (edo ez baitute zertan) egonkor iraun menderik mende. Badago aurrekoei gehitu beharreko beste bat: noiz arte iraun zuen *Mendebaleko Euskara Zahar* deitutako hizkuntza-entitateak? Noiz eta nondik zatitu zen entitate hori?

5.2.2.1.1.3. Berrikuntza bat non sortu zen argitzea ez da beti zeregin erraza, eta are gutxiago orain dela hamar-hamaika mende gertatutako aldaketa batez aritzean. Sasiak (1976: 133-134) Arabako lautada aipatu zuen aspalditxo, eta orduz geroztik Gasteiz aipatu izan da gune berritzailatzat: Zuazok dioenez (2019: 54), XI. mendearen bigarren erdiaz geroztik Gasteiz izan zen Euskal Herriko mendebaleko biztanleria-gune nagusia: González de Viñasprek (2011: xxxiii) zioenez Arabako biztanleriaren % 0,70 besterik ez zuen biltzen Gasteizek, baina difusio-ereduetan eragina izan ohi dute, gune bateko biztanle-kopuruak ez ezik, biztanleriaren banaketa geografikoak (Ba ote zegoen gune bakar batean hainbeste biztanle biltzen zituen gunerik Araban?) eta biztanleria-guneen kokagune geostrategikoak (Ba ote zegoen Araban ezker eta eskuin, hego eta ipar zihozten (doazen) bideen pareko bidegurutzerik?).

Niri neuri ere $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoa Arabako lautadatik hedatu zela pentsatzea ezaugarriaren hedadura azaltzeko proposamen errazena eta sinesgarriena

iruditzen zait: “A circular configuration around a town, for example, is ascribed to borrowing from that town, due to the prestige of the city, and to contact between its citizens and the inhabitants of surrounding villages” (Gerritsen & Van Hout 2006: 2288).

Euskalari diakronisten artean lehenago ere aipatu izan da aukera hori, aintzat harturik berrikuntza Arabako lurralde mugakideetan gertatu dela eta lurralde mugakide horietarako guztietarako sarbide geografiko erraza dagoela Arabako lautadatik abiatuta: “la influencia ejercida por cada centro urbano es directamente proporcional a su masa de población e inversamente proporcional a la distancia que lo separa” (Hernández-Campoy 2001 [1999]: 283).

Azkarate & Solaun (2009) artikuluari jarraikiz egin zuen Zuazok arestian aipatutako proposamena, eta lan hori irakurrita argi dago 1181ean hiribildu gisa fundatu baino lehen ere gune garrantzitsua zela Gasteiz. Kokagune estrategikoan egoteaz gain,⁴¹⁴ VII-VIII. mendeek geroztik etengabe populatutako bizilekua izan da, eta tokiko indusketetan egindako aurkikuntzek erakusten dute hala X. mendea baino lehen nola ondoren aparteko garrantzia izan zuela: kokagunea, hasieratik eta belaunaldiz belaunaldi etengabe agertzen diren botere-adierazleak, kokalekuaren barneko hierarkiazioa, lursail handiak eta harri-masak mugitzeko ahalmena, biltegiratze-ahalmen handia, erregistratutako egitura siderometalurgikoak, eskualdeaz gaindiko merkatuetan luxuzko zeramika-produktuak erosteko ahalmena eta Irango hego-mendebaleko Fars eskualdeko VIII. mendeko *dirham* baten aurkikuntza aipatzen dituzte Azkaratek eta Solaunek (2009: 424-425), besteak beste, lekuaren garrantzia azpimarratzeko.

Beharbada Gasteiz ez zen Arabako biztanleria-gune garrantzitsu bakarra eta aurkikuntza arkeologikoen besterik erakutsiko dute datozen urteotan, baina ikuspuntu geolinguistikotik nik neuk ez dut ikusten Gasteiz baino hedagune errazagorik Araban X. mendearen inguruan. Besterik da Gasteiz aldean sortutako berrikuntzak berehala zabaldu ote ziren: ez dago zertan pentsatu Gasteiz aldean IX., X. edo XII. mendeetan sortutako berrikuntza bat berehala hedatu zenik, eta gerora (demagun, XVI. edo XVIII. mendeetan) izan duen hedadura atoan lortu zuenik; begiratu §5.2.2.3 atala *egin*-ek historikoki **ezan*-ekiko izandako banaketa funtzionalez.

⁴¹⁴ “[Gasteiz] se asienta sobre un otero que se eleva en el centro de una altiplanicie de 800 kilómetros cuadrados que conocemos genéricamente con el nombre de «Llanada alavesa». Esta loma –emplazada en un estratégico cruce de caminos entre el norte cántabro-pirenaico, la depresión del Ebro y la meseta castellana– tiene planta oval con su eje longitudinal orientado en dirección norte-sur” (Azkarate & Solaun 2009: 405).

5.2.2.1.1.4. Hizkuntza-aldakortasunari buruzko azterlanetan behin baino gehiagotan errepikatu denez (Coseriu 1973: 78 eta hurrengoak, Milroy & Milroy 1985: 347, Milroy 1992b: 169, Philips 2006: 125), berritzea ez da aldatzea, eta aldatzea ez da hedatzea.⁴¹⁵ Ogurak eta Wangek (2004: 152) diotenez, hizkuntza-aldaketa arrakastatsuak eremu lokalean zabalduz eta finkatuz hasi ohi dira, eta horrekin bat egin dute, adibidez, Hovartek & Hovartek Ozeanian (1997, 2001, 2002) egindako ikerlanek: inora hedatu baino lehenago, berrikuntzak foku berritzailearen hurreko lurretan hedatu eta sendotu zirela erakusten dute. Horiek aintzat hartuta, beraz, baliteke urrunago zabaldu baino lehen disimilazio-erregela Gasteiz inguruetan (Arabako lautadan eta hurbileko eremuetan) hedatu eta egonkortu izana.

Aurreko ikuspegiak gainditu egingo luke González de Viñasprek (2011: xxxiii) Gasteiz foku berritzailetzat jotzeko ikusitako arazoa: ez da zertan pentsatu (eta ez dirudi errealista denik, egiazki) Gasteizko XI. mendeko ~150 bizilagunek ezer esporta zezaketenik zuzenean Bizkaira eta Gipuzkoara: jaurren eta probintziara zabal hedatu aurretik askozaz ere handiagoa izan zitekeen Araban $a + a > ea$ zerabilen hiztun-komunitatea; ez behar bada ~21.000 arabarrek (guztiak edo gehienak) osatutakoa, baina 2.000, 5.000 edo 10.000 arabar hiztunek osatutako komunitate baten indar demolinguistikoan pentsatzea sinesgarriagoa egiten zait hirikako difusio-eredu hierarkikoa zurrun aplikatzea anakronismo hutsa bide den garaiko difusio-prozesuak azaltzeko.

5.2.2.1.1.5. Kokagune eta hedadura geografikoari lotutako irizpideek ez ezik, hizkuntza-ezaugarri edo erabilera historiko batzuek ere Gasteiz foku izatearen alde egiten dute:

- (i) Lehenik eta behin, fenomenoaren deskripzioan *hipererabilera* deitu ditudan adibide zahar guztiak agertzen dira Araban edo Arabarekin lotura hertsia zuten lurraldeetan: Landucciren hiztegiko, Errodrigo Zaratekoaren testuko, VJesus-eko zein Sevillako 1619ko bertsoetako adibideak bildu ditut.

⁴¹⁵ Halaber, bariazioa ez da aldaketa: “Not all variability and heterogeneity in languages structures involves change, but all change involves variability and heterogeneity” (Weinreich *et al.* 1968: 188); “variation is the synchronic face of change, and change is nothing more than diachronic variation. Indeed, the historical record, along with studies of change in progress, make it clear that there is no such thing as change without variation: all changes pass through periods of time during which outgoing and incoming forms coexist in variation in the speech community. However, the evidence also suggests that change is not an inevitable outcome of variation” (Guy 2011: 179); begiratu, berebat, Wolfram & Schilling-Estes (2003: 715).

(ii) Bigarrenik, Lazarraga eskuizkribuan agertzen diren gramatikalizazio-kasu batzuk ez ditut beste inon aurkitu: *gura arren* > *gurearren* bezalakoez ari naiz; testuan badaude, gainera, *a.o* > *e.o* bilakaera izan duten aldaerak (A25:31 *doncelleoni*): ezaugarria ez da Arabako eskusiboa (cf. De Rijk 1970: 151) eta analogiak zein berranalisiak azal lezakete (§4.4.4.2.2), baina ez dut beste inon ikusi XIX. mendea baino lehen.

(iii) Bestalde, artikulatu hurbilari lotutako *guela au* > *gueleau* bilakabidea ez da Arabako eskusiboa (cf. Bulda 16 *au buldiau*, adibidez) eta arrunta da erakuslearen gramatikalizazioari loturik, baina kasu honetan ere ez dut beste adibiderik aurkitu XVIII. mendea baino lehen.

(iv) Laugarrenik, badirudi mendebaleko euskaran zailagoa izan dela disimilazioa gertatzea amaieran *-ia* zuten berbei artikulatu mugatua eranstea (*historia* > *historiea*); aitzitik, Arabako euskara arkaikoan inon baino errazago gertatzen bide zen, disimilazio-erregelak indar betea zuela erakutsiz: Lazarraga eskuizkribuan, Jacob Gebarakoaren testuan eta Landucciren hiztegian aurkitu ditut adibideak, bai eta Arabatik hurreko VJesus-en ere. Horiez geroztiko adibide bakanak Markina aldeko XIX. mendearen hasierako idazleen testuetan daude, berba jakin batzuetan metatuta (cf. Altzibar 1992: 417 eta hurrengoak).

(v) Bosgarrenik, Arabako toponimian (eta, zehatzago, Gasteiz aldekoan) lekutu dira inon baino lehenago eta ugariago *-agea* eta *-etea* aldaera disimilaziodunak, eta horiei gehitzekoak dira Arabako lautadako *Elhorzahea* (1025), Errioxako *Garci Olhea* (1156) eta, behin-behinean, *Becerro galicano*-ko *Havaunzia* (1089) arazotsua.

Aipatu bezala, arestiko fenomenoetako batzuk ez dira Arabako eskusiboak, baina ~1650 baino lehen horiek guztiak lurralde bakar batean edo horren ingurumarietan metatzea esanguratsua da; nire ustez, disimilazio-erregelak zuen indarraren erakusgarri da bai ezaugarri horietako batzuen hedadura arabar eskusiboa, bai ezaugarrien konbinazio hori Araban eta lurralde mugakideetan metatzea.

5.2.2.1.2. Difusio-ereduez

5.2.2.1.2.1. *a + a* > *ea* disimilazioaren difusio-eredua zein izan zen argitzeko irizpideak, datuak eta tresnak oso mugatuak dira. Gutxi ezagutzen da aldaketa sortu bide zen garaiko mikroegitura sozialez eta aintzat hartu beharko liratekeen faktore geografiko, historiko, ekonomiko eta kulturalaz: “While current models often work with

large amounts of data and rather highly populated areas we only have very little historical data available” (Bergs 2006: 26).

5.2.2.1.2.2. Berrikuntzaren hedadura nagusiki grabitate-ereduen bidez azaldu nahiko banu, adibidez, ezingo nuke eredia bere horretan baliatu, ez baitago zehatz esaterik zein den biztanleria-gune bakoitzaren kontzentrazio demografikoa, eta lurraldearen egitura soziodemografikoaz ere informazioa falta baita XIX. mendera arte.

Beste alde batetik, ez da ahaztekoa historikoki biztanleria-gune garrantzitsu izan diren ibar, eskualde, hiri eta hiribilduak ez direla betidanikoak: Bizkaiko hiribildu zaharrenak XII. eta XIII. mendeetan fundatu ziren, eta gainerakoak XIII. eta XIV. mendeetan. Zentzuzkoa da pentsatzea mende horiek baino lehen gerora hiribilduak sortu ziren ingurumariak garrantzitsuak izan zirela, hala inguruetako populazio-dentsitatea handiagoa zelako nola horietatik hur merkataritzari loturiko bide nagusiak igarotzen zirelako. Bestalde, egungo egoeraren ezagutzak etengabe kutsa lezake ikuspegi historikoa: Gernika, Mungia eta Durango hiribilduak dira, eta gaur egun eskualde-buru izanik nabarmena da ardatzen dituzten eskualdeetan eta Bizkaiaren beraren barne-egituran duten garrantzia; aitzitik, horiekin batera badaude hainbesteko garrantzi demografikorik hartu ez duten beste hiribildu batzuk, hala nola Areatza, Errigoiti, Gerrikaitz eta Ugao: egungo garrantzi apalagoa ezin da iraganera automatikoki proiektatu.

5.2.2.1.2.3. Berrikuntzaren zabalkundea nagusiki uhinen teoria klasikoaren bidez azaldu nahiko banu, oztopo geografikoak eta sozialak hartu beharko nituzke aintzat, baina oztopo geografikoen irizpidea ere ezingo nuke automatikoki aplikatu, beharbada garai modernoan oztopo denak ez zuelako zertan oztopo izan orain mende batzuk, eta alderantziz.

5.2.2.1.2.4. Oztopo geografikoez aritzean hainbatetan aipatu ohi dira erreka-ibaiak eta mendialdeak, oro har errazagoa izan baita jendearentzat eremu lau eta orografia errazekoetan mugitzea horiek zeharkatzea baino: albanieraren banaketa dialektal nagusia Shkumb ibaiak eratzen du: hegoan *tosque* aldakia eta iparrean *guègue* aldakia daude (Polák 1963: 387); halaber, errekek berebiziko eragina izan omen dute Camp de Tarragonako lurraldearen banaketa tradizionallean, eta horrek izan du islarik tokiko hizkuntzan ere (Recasens 1985). Kasu batzuetan, ibaiak ez dira muga linguistiko izan harik eta agintari politikoek muga geografikoak muga politiko-administratibo bihurtu dituzten arte: Harnischen (2010: 281) arabera, hori gertatu zen Inn ibaiaren inguruan, Europa erdialdean. Aitzitik, ibaia zein den, aurkakoa ere gerta daiteke:

Danubio ibaia komunikazio-bide izan da, bere inguruko lurralde eremu fokal bihurtu ziren eta berrikuntzak bertatik hedatu izan dira historikoki (Trudgill 1990).

Erreka-ibaiei jarraikiz komunikazio-bide garrantzitsuak eraiki dira, eta mendialdeak ez dira beti bereizle izan, topagune eta igarobide ere izan dira: Euskal Herriko ekialdean goi-mendietako artzaintza aipatu zuen Caminok (2011: 99) artzainen udako topagune gisa, eta Bizkaiko Nerbioi ibarraren mendialdean ibarrean bertan ez dagoen batasun linguistikoa aurki daiteke zenbait ezaugarritan, XX. mendearen erdialdera arteko basoko langintzaren eta artzaintzaren dinamiken ondorioz.

5.2.2.1.2.5. Berrikuntzak hedatzea eragozten duten oztopoez aritzean, bestalde, azken hamarkadotan gehiago nabarmendu da alderdi soziolinguistikoa, tokiko hiztun-erkidegoei eta hizkuntza-jarrera eta -pertzepzioei loturik (Bailey *et al.* 1993: 366, Horvath & Horvath 2001: 52-53).

Zuzeneko lekukotasunik ezean, ordea, aieru hutsa da XIV., X. zein VIII. mendeko hiztunen erkidegoez eta hizkuntza-jarrez esan daitekeena hala euskarari nola inguruko hizkuntzei dagokienez.

5.2.2.1.2.6. Arabako lautadatik beste eremu batzuetarako difusioaz aritzeko ez dut eredu jakin baten alde zurrin egingo. Nire ustez, uhinen teoria orokorregia da, azken emaitza irudikatzen baitu prozesua baino gehiago. Grabitate-ereduez berba egiteko informazioa, berriz, urriegia da, eta euskarriak ahulegiak. Eskueran dagoen informazioarekin arreta bi alderditan jarri behar delakoan nago: alde batetik, zentzuzkoa iruditzen zait komunikazio-bide nagusien bidezko difusioa proposatzea, berrikuntzaren lehenengo difusiorako behintzat; beste alde batetik, XII-XIII. mendeaz geroztik lurraldeak tinkotu eta (ber)egituratu zituzten hiribilduen sarea aintzat hartu behar delakoan nago, hierarkizazioa eragin baitzuen hiribilduen alde (cf. Arizaga 1994: 10).

Difusioaren lehenengo garaietarako, behintzat, bat egiten dut Bergsek Erdi Aroko ingelesaren zenbait ezaugarriren banaketa azaltzeko proposatutako ikuspegiarekin:


Both phenomena (...) did not spread in normal waves or in an axis that lies vertical to the road. Instead, they must have traveled along the road first and then, in a second step, into the neighboring countryside. Diachronically, such a process appears as a line first, and only later does it turn into waves and bubbles. Synchronically, however, at a later stage, we only see the area afflicted, and not how this state of affairs came to be. (Bergs 2012: 27)

Eredu horri *human thread* edo *giza hari* deitu zion Bergsek:

These 'human threads' represent the actual way(s) and path(s) of traveling speakers, i.e. carriers of certain linguistic features (...) People had to spend the night somewhere; they had to get food and drink. They talked to people on the way. In other words, there must have been some sort of

human thread that runs from one city to another, and it is not surprising that people may have picked up new linguistic forms, just like new fashions or viruses, from these travellers. (Bergs 2012: 22-23)

Ikuspegiaren osagarri, gainera, bidez bideko difusio-eredua islatzen duen honako mapa hau eman zuen:



24. irudia. Komunikazio-bideen bidezko difusioa (Bergs 2012: 27)

Arabako bide nagusien sare zaharra zein modernoa aintzat hartuta eta ikuspegi zabala baliatuta, ez da zaila Gasteiz aldetik iparraldera zein ekialdera hedatzen diren ibar eta bideak ikustea, eta berrikuntza linguistikoak bide horiek halako maiztasun batekin ibiltzen zituzten pertsonekin batera lekualdatzen irudikatzea, bai eta Arabatik iparralderantz lekualdatutako biztanleriarekin ere:⁴¹⁶

Los desplazamientos son constatables desde finales del siglo IX. A Juicio de José Ángel García de Cortázar, los efectivos humanos procedentes de la Llanada alavesa se dejaron notar especialmente en el Duranguesado y en la margen izquierda de la ría de Gernika (...) Esos poblacionales no serían nuevos. Según diversos autores, antes de finales del siglo IX, la vertiente cantábrica ya habría sido zona de retaguardia para la población alavesa que buscaba refugio, huyendo primero de las penetraciones visigodas a finales del VI y, a partir del VIII, de las incursiones musulmanas (...) El paso desde la Llanada alavesa al Duranguesado se hacía, por tanto, a través de Ubarrundia, comarca que dará muestras tempranas de ocupación del espacio, y también de diferenciación social y económica. (González de Viñaspre 2011: xxxv)

5.2.2.1.2.7. Arabako lautada eta Nafarroako Sakana batzen dituen bide artezak berez iradokitzen du zein zen komunikaziorako bide errazena Gasteiztik sortaldera: erromatarrek sortutako eta historikoki etengabe ustiaturiko *Ab Asturica Burdigalam* (Astorga ↔ Bordele) galtzada, Araba eta Nafarroa lotu eta lotzen dituen. Hain zuzen, horren inguruan dago egituratuta Gasteiz/Barrundia/Dulantzi/Agurain/Asparrena aldeko biztanleria-sarea Araban:

⁴¹⁶ Bide-sarearekin bat, orografiak ere errazten bide zuen bide horiek ibiltzea: “La similitud de las hablas del oriente alavés y del occidente navarro ha sido puesta de manifiesto por Patxi Salaberri. Sin embargo, creo que debe relativizarse la trascendencia de dicho hecho en relación a los límites episcopales, pues esas áreas son más bien un *continuum* geográfico, sin accidentes orográficos notables que hayan podido condicionar especialmente su interrelación, por lo que la transición dialectal se produciría gradualmente, siguiendo la tendencia constatada en Álava en dirección oeste-este, es decir, sin grandes concentraciones de isoglosas. Ese decrecimiento paulatino de características dialectales occidentales lleva a que en el euskera de Améscoa Baja predominen los rasgos propios del navarro meridional” (González de Viñaspre 2011: xxxii).

El itinerario comprendido entre *Veleia* (Iruña-Álava) *Pompaelo* (Pamplona-Iruña) atraviesa en líneas generales las tierras de la llamada Llanada alavesa, siguiendo primero, el curso del río Zadorra y luego en dirección oeste-este toma el curso del río Araquil para llegar hasta Pamplona. Esta ruta ha tenido un significado especial en la configuración de este territorio (...) Los testimonios arqueológicos son los indicios más claros de su antiguo trazado, ubicándose los principales restos materiales de época romana, ciudades y pequeños núcleos rurales, en las proximidades de la ruta jalonando su trazado. Son tierras que conservan testimonios de asentamientos romanos imperiales algunos de ellos muy próximos o sobre antiguos núcleos indígenas, así encontramos, por ejemplo, los casos de *Veleia*, *Suessatium* y *Tullonium*. (Magallón 1997: 212-213)

5.2.2.1.2.8. Aurreko bideari loturik azal daiteke, halaber eta zati batean behintzat, ezaugarria Gipuzkoako hegoaldera hedatu izana; zehazki, erromatar galtzada zaharretik iparralderantz jotzen duten bide zaharrak hartu behar dira aintzat: izan egungo Olazti/Altsasuraino eta handik iparraldera joaz, izan Aizkorri mendialdean barrena.


Lehen begi-kolpean Aizkorri mendialdeak oztopo orografikoa eman dezake, baina azken urteetan egindako indusketa-lanek (Moraza & Ceberio 2008, Moraza 2009, Moraza *et al.* 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, Tapia *et al.* 2016) besterik erakutsi dute aurretik ere ezagutzen zen Lizarrate / San Adrián kobazulo natural landuaren eta Aizkorriko galtzadaren inguruaz. Brontze Aroko aztarnak aztarna, badirudi Erdi Aroan ere igarobide garrantzitsua izan zela, Arabako lautadaren eta Gipuzkoaren arteko (eta, horrenbestez, Gaztelaren eta Frantziaren arteko) lotunea izan baitzen; are gehiago, indusketa arkeologikoen ~XII. mendeko eta 300 bat pertsona biltzeko ahalmena zuen gaztelua ez ezik, defentsarako egiturak eta herrixka bat ere bazeudela erakutsi dute: bizitokiez gain, biltegiak, abereentzako tegiak, ostatua, baseliza zahar baten arrastoak eta hilerri bat azalarazi dituzte, besteak beste. Aizkorri mendialdea, halaber, artzaintza-gune zabala eta garrantzitsua izan da tradizioz.

Ematen du, beraz, tartean igarotako mendeak mende, ez dela kasualitatea $a + a > ea$ disimilazioa indartsuago agertzea Goierri hegoaldeko hiribildu, herri eta auzoetan, eta ezaugarri linguistikoen arteko lehia agertzea Beasaindik iparraldera, Ordizia aldean (cf. OArin vs. ZegamaDot zein egungo egoera; cf. §4.4.3.1.4): lehenengoak hurbilago daude Aizkorritik eta Arabako lautadatik eta hiztunen arteko interakzio-potentzialak (cf. Hernández-Campoy 2001 [1999]: 283) erraz azal dezake batasun linguistikoa.

Gipuzkoako mendebalaz denaz bezainbatean, Aramaio ↔ Arrasate zein Barrundia/Ganboa/Landa ↔ Leintz ibarra bideetatik ere erraz heda zitekeen berrikuntza iparralderantz orografiak markatutako haranetan gora Debaraino, tartean ezker-eskuin hedatuz, Oñati, Urretxu eta Zumarragarantz hegoaldean eta Itziar eta Lastur ingururantz iparraldean. Deba ibarretik (Arrasate ↔ Bergara) zein Urretxu eta Zumarraga aldetik

Azpeitia eta Azkoitia aldera berrikuntza eredu berari jarraikiz hedatu zela pentsa liteke: gogoratu behar da Arrasate ↔ Getaria bitarteko merkataritza-harremanak bideratzen laguntzeko sortu zela Azkoitia hiribildua, eta gizaldi hartan bertan fundatu zela Azpeitia mugakidea ere. Inguru hartako dinamika sozioekonomikoak hobeto ezagutu beharko lirateke, nolani ere den, segurtasun handiagoz berba egiteko: eremua zabala da, eta ikusi egin beharko litzateke nora begira bizi izan diren eta nondiko eragina bildu izan duten garairik garai azpeitiarrek, azkoitiarrek, errezildarrek, zestoarrek, getariarrek eta zumaiarrek, adibidez.

5.2.2.1.2.9. Arabatik Bizkairako ibilbidea ez da zaila: Pisoraca (egungo Pisuegra, Palentzian) eta Flaviobriga (egungo Castro-Urdiales, Kantabrian) Enkarterrin barrena lotzen zituen erromatar galtzada bazter utzita,⁴¹⁷ erromatarrez geroztik baliatu izan diren bi bide nagusi aipatu dituzte historialariek (cf. Arizaga & Martínez 2006: 43). Alde batetik, hegoaldeko bidea dago, Nerbioi ibaiaren inguruan antolatutakoa, Meseta eta Bilboko itsasadarra lotzen dituena.⁴¹⁸ Beste alde batetik, hego-ekialdeko sarbideak daude, Arratia zein Mañaria errekei jarraikiz eratutakoak:



25. irudia. Hegoaldetiko sarbide nagusiak (Arizaga & Martínez 2006: 43)

Erdi Aroko merkataritza-harremanek, transhumantziek eta hiribilduen fundazioek bideok sendotu eta zabaldu besterik ez zituzten egin: Balmaseda (1199) eta Lanestosa (1287) ondoren fundatutako lehenengo hiribilduak Bermeo (1236) eta

⁴¹⁷ Bizkaiko mendebaleko albo-eremu txikia ukitu arren, bideak eragin nabarmena izan zuen lurraldean eta nahikotzat jo izan da egungo Bizkai aldeko lurraldeak erromatarren sareetan txertatuz jatzeko; erromatarren garaiko portu nagusia Flaviobrigakoa izan zela ematen du, Bilbo, Bermeo eta Gernika aldean aurkitutako aztarnak bigarren mailako kokagune apalagoak zirela islatzen baitute (begiratu Magallón 1997: §5).

⁴¹⁸ “El paso Sur es practicable a través del curso del Nervión, el cual, en cierto modo, introduce la costa cantábrica hasta el reborde de la meseta. Desde Orduña el camino descendería hasta Zarátamo y de ahí hasta la ría. Esta fue la ruta preferida para la comunicación de Bilbao con el interior peninsular en la Edad Media” (Arizaga & Martínez 2006: 43).

Otxandio (1239-1254) izan ziren: bata kostaldean eta bestea jaurerriaren hegoaldean daude, eta badirudi itsasorako irtenbidea eta merkataritza-harremanak sendotu nahi izan zirela XII. mendez geroztik.⁴¹⁹ Hain zuzen ere, merkataritza-bide horiek sendotzearekin eta antolatzearekin lotu izan da XIII-XIV. mendeetako hiribilduen fundazioa, bai eta, XIV. mendearen erdialdeaz geroztik, zenbait eremu babestu beharrekin ere:

Kostaldekoko hiri gehienak fundatzeko arrazoiak ekonomikoak dira gehienbat. Beste edozein hirigunetan bezala, produkzio eta kontsumoko ondasunen zirkulazio bide bat sortzeaz gainera, ez da ahaztu behar portu horiek garrantzi handia hartzen dutela daukaten arrantza iharduera indartsuari esker, aspaldi samarretik alturako arrantza eta baxurakoa biak batera erabiltzen baitituzte. (Arizaga 1994: 15)

Esta oleada de fundaciones se debe poner en relación con el proceso urbanizador de siglos anteriores⁴²⁰ y con la explotación económica del Camino de Santiago (de San Juan Pie de Puerto a Pamplona y Estella). Algo que presenta en común dicho proceso urbanizador es que las fundaciones se hicieron en lugares estratégicos,⁴²¹ en encrucijadas de caminos que comunicaban con Castilla o junto al mar, y para su población se contó con contingentes de campesinos de los territorios cercanos, con artesanos y mercaderes transpirenaicos, con judíos y con monjes de las órdenes religiosas. (Echenique & Pato 2019: 189)

Hona hemen Bizkaiko hiribilduen kokagunea eta fundazioen kronologia erakusten duen mapa:

⁴¹⁹ Cf. “Su [Ubarrundiarena] situación estratégica junto a la antigua vía que comunicaba la Llanada alavesa con la vertiente cantábrica ha sido determinante en su devenir histórico. Así, el camino fue jalonado en la Baja Edad Media –con fines eminentemente mercantiles– por la villa de Legutiano (1333), en el límite de Álava, y la de Otxandío (1236-1254), a las puertas de Bizkaia” (González de Viñaspre 2011: xxv).

⁴²⁰ Cf.: “En síntesis recientes realizadas en el País Vasco se han reunido suficientes elementos arqueológicos para sugerir que el siglo VIII representa un momento clave en la creación de redes de aldeas medievales, con frecuencia a partir de la densificación de asentamientos ya existentes. Aunque conocemos la existencia de algunas aldeas y granjas de los siglos VI y VII, solamente a partir del siglo VIII asistimos al proceso de formación de una red densa de aldeas que parcela el territorio rural vasco, imponiéndose como la forma hegemónica de ocupación y explotación del espacio. Este sistema se vincula con la maduración en términos políticos y socioeconómicos de nuevas élites que se encuentran tras este movimiento de gran calado, que imponen una nueva lógica de organización del campesinado” (Quirós 2011: 185).

⁴²¹ Horri loturik Mendrakako auzo-eliza zaharra aipatzen dute Echenique eta Patok (2019: 189, 21. oinoharra) gerora Elorrio fundatuko zen kokagunetik kilometro bira dagoena. Gogoratzekoak dira, halaber, Finagako San Martin baseliza eta nekropolia: egungo Basauriko mendialdean zeuden (baseliza oraindik ere badago), Bilbotik bospasei kilometrora (cf. García Camino 2002: 61-78).



26. irudia. Bizkaiko hiribilduen fundazio-datak (Arizaga & Martínez 2006: 23)

Hizkuntza-gaiei dagokienez, guztiz bat egiten dut Echenique eta Patoren (2019) ikuspegiarekin: lurraldearen antolamenduan gertatutako aldaketek eragina izan behar izan zuten baita maila linguistikoan ere: hiribilduak fundatzeak, bide-sareak (ber)antolatzeak eta zenbait lotura sendotzeak lagungarri izan behar izan zuen jaurerri barruan zein jaurerritik kanpo ezaugarri dialektalen zabalkunderako.

5.2.2.1.2.10. Aurreko orrialdeetan $a + a > ea$ disimilazioaren distantzia luzeko difusioa izan dut berbagai, baina horrek ez du esan nahi hedatzeko joera nagusiekin batera txikiagoak, mikrodialektalak, sortu ez zirenik. Bergsek (2012: 27) bidez bideko hedatze-eredua azaltzeko emandako irudian *Step 2* gisa bereizten den difusioa da bigarren mailako difusioa; hots, bide nagusiko dinamiken eraginpean bide nagusi horren inguruko eremu txikiagoetan gertatutakoa. Maila horretako hedatzean tokiko hiztun-erkidegoek izaten dute eragina, eta erkidego txiki horiek erabakigarriak izan ohi dira berrikuntza hedatzeko edo ez hedatzeko. Horren argitan, beraz, pentsatzekoa da bidez bideko hedatze-eredu nagusiarekin batera bide nagusi horien inguruan bizi ziren edo bide nagusi horiekin harremana zuten hiztun-erkidegoetara ere zabaldu zela berrikuntza, auzotasun-efektu hutsez, eta hori ere lagungarri izan zela ezaugarriak lurralde zabalagoa har zezan.

5.2.2.1.2.11. Orain arte $a + a > ea$ -ren sorlekuan jarri izan da arreta handiena, eta gehienez ere zein lurraldetara hedatu den aipatu izan da, oro har: Bizkaira, Gipuzkoako Goierriara zein Ameskoara hedatu dela aipatu da, adibidez. Aitzitik, inor gutxi arduratu da ezaugarriaren mugen artean dauden aldeak azaltzen saiatzeaz. Arabatik

iparralderagoko eta ekialderagoko hizkerai dagokienez, berrikuntza Arabatik zabaldu zela frogatzeko aipatu ohi dira eremu horiek, ustez behintzat errazago iritsi bailiteke berrikuntza bat Gipuzkoako Goierriara, Burundara eta Ameskoara Arabatik, Bizkaitik baino. Aitzitik, disimilazio-arauak garai historikoan duen hedadura begiratuta, agerikoa da eremu batzuetan beste batzuetan baino urrunago iritsi zela; zehazki, Bizkai osoko euskaran agertzen da, jaurreriaren sartaldetik sortalderaino eta hegoaldeetik iparraldeko kostalderaino.

Bizkaitik kanpo, ordea, egoera ez da hori: Arabaren ondotik berrikuntza hedatuena agertzen den lurraldea da Bizkaia, eta, nire ustez, bien arteko harreman sarriagoak eta estuagoak azal lezake egoera hori, zati batean behintzat: Gasteiz bera ez dago egungo Bizkaia/Araba mugatik urrun, Araba iparraldetik hiru sarbide natural egoteak eta behetik gorako merkataritza-harremanek erraztu bide zituzten, zalantzarik gabe, lurraldeen arteko harremanak. Beste alde batetik, aurretik azaldutakoarekin bat, VIII. mendean geroztiko lurralde-antolamenduak eta, batez ere, XII. mendean geroztik zenbait hiribildu fundatzeak eta horietarako eta horietatik bide-sareak hobeto egituratzeak eta sendotzeak zenbait eremutako egitura espaziala tinkotzea ekarri behar izan zuten, eta pentsatzen dut egoera berri horrek eragina izan behar izan zuela jaurreriaren egitura geolinguistikoa. Ez dakit Arabatik Bizkaiko itsasadar eta kostaldera zihoazen bideak nahikoa diren $a + a > ea$ erregela jaurreriko ukuilu guztietara heldu izana azaltzeko edo hedadura erabatekoa berankorragoa izan zen, baina bide zaharrak nahiko izan ez balira, argi dago bide horien inguruan Bizkai hegoaldean, erdialdean zein iparraldean egituratutako hiribildu eta bideek lagun zezaketela, XII-XIII. mendeen geroztik, hedatze horretan.

5.2.2.1.2.12. Nafarroari dagokionez, ez dirudi berrikuntza gehiegi barneratu zenik: Arabarekin eta Gipuzkoako hegoaldearekin lotura eta harreman sarria izan duen Burundako euskaran agertzen da, baina ez hortik eskuin; halaber, apur bat hegoalderagoko lekutzen denean, Arabarekin muga egiten duten ibarretan lekutzen da, ez Lizarraldetik eskuin edo ipar-eskuin. Banaketa geografiko horrek azalpena eskatzen du, baina kasu honetan ere datu linguistikoak zein bestelakoak hutsuneak ez du tarte handirik uzten proposamen sendorik egiteko. Egoera aipatu egin behar da behintzat, eta zenbait azalpen posible zirriboratu, ezen bestelako daturik ezean, ez dut aparteko arrazoirik ikusten, distantziak eragindako higaduratik harago, berrikuntza Getxora eta Bermeora hedatzeko, baina ez Tolosara edo Irurtzunera.

Ikuspegi linguistikotik arrazoi bat bururatzen zait berrikuntza Nafarroako mendebalean heda ez zedin, baina onomastek baieztatu edo ezeztatu beharko duten hipotesia besterik ez da: disimilazio-erregela Gasteiztik eskuin Arabako lautadatik Nafarroarantz hedatu zenean Nafarroako mendebaleko hizkera batzuetan $a + a > aa > a$ bakuntzea hitz errotik kanpora (artikulua eransten den morfema-mugara) hedatuta egotea; alegia, Nafarroako mendebalean bakuntzea erroaz kanpo zaharragoa izatea disimilazio-erregela baino. Hala izatera, disimilazio-erregelak ez zukeen hedatzeko aukerarik izango, baina hipotesi hori frogatzeko azterketa toponimiko zabala egin beharko litzateke.⁴²² Bokal-soiltzea Iruñetik zabalduko berrikuntza zaharren artean aipatu izan da (Zuazo 2010b: 167, 2019: 51, Reguero 2017: 676), baina nik neuk ez dut uste horri eusteko argudio sendorik dagoenik (begiratu §5.2.2.2 atala horretaz).


Aurreko argudio linguistikoak Nafarroako eremu baterako balio lezake beharbada, baina ez dirudi Gipuzkoarako baliagarri denik; izan ere, berrikuntzak eremu zabala hartzen du Gipuzkoan, baina oso berandura arte aurki daitezke bokal bikoitzak: Isastiren errefracuez gain aipatuak ditut lehenago ere xx. mende hasieran *Erizkizundi irukoitz*-ean Orendainen eta Itsasondon bildutakoak, eta mende beraren azken urteetan Zumaian, Getarian, Aian eta Zarauzko baserri-aldean (Hualde & Gaminde 1997: 214, 220 eta 229; Agirrebeña *et al.* 2017: 31) jasotakoak. Halaber, berrikuntza Goierriara iritsi zen, baina hegoaldeko herrietan du inon baino indar handiagoa, eta Ordizian, adibidez, gutxienez Otxoa Arinen garaiaz geroztik tartekatu egiten dira aldaera disimilaziodunak eta soilduak ageriko araurik gabe.

Egoera azaltze aldera, arrazoi estralinguistikoetan pentsa liteke; zehazki, lurraldearen antolamenduaren eraginean, nahiz eta kasu honetan ere aierua den informazio ziurra baino gehiago: izan liteke Gipuzkoako barne-antolamenduak aukerarik eman ez izana berrikuntza gehiago heda zedin, hiribildu gehienak kostaldean eta Azpeititik eta Ordiziatik ezker daudelako,⁴²³ edo Donostia (1180), Getaria (1209) eta

⁴²² Cf.: “Nafarroari bagagozkio, toponimoek erakusten dutenez, Erdi Aroan Nafarroan baziren tarteko kontsonante bat galtzearen ondorioz sortutako bokal luzeak (Reguero 2012a, 2012b): *Zaarra* (Leire, 1055, 1085), *Arteeta* (Iratxe, 1087), *Insauspeeco* (Iratxe, 1203), *Ceea* (Iratxe, 1210), *Laarça* (Iratxe, 1218), *Beengoa* (Galar, XIII. mende). Testu luzeagoak agertzen direnerako, ordea, lehenago luzeak ziratekeen bokalak soildurik agertzen zaizkigu. XVI. menderako bokal bikoitz horiek bakandu zirela dirudi” (Reguero 2017: 544). Salaberri Zaratiegik (2018: 312) berriki aipatutako beste zenbait toponimotan, aldiz, soiltzea Erdi Aroan gertatua da: *Orti Donamaria Aldeco*, *Sanso Lavaldeco* (XIII. m.), *Soracoîç* (1229), *Olaga* (1232), baina *Meçalorr* (1290).

⁴²³ Zehazki, Zarautz/Azpeitia/Ordizia aldetik eskuin geratzen dira Orio (1379), Usurbil (1371), Donostia (1180), Tolosa (1256), Hernani (1256/1380), Erreterria (1320) eta Hondarribia (1203). Lerro horretatik ezker, berriz, Mutriku (1203), Deba (1343), Zumaia (1347), Zestoa (1383), Elgoibar (1346), Eibar (1346), Soraluze (1343), Elgeta (1335), Azkoitia (1324), Bergara (1368), Urretxu (1383), Arrasate (1260), Segura

Zarautz (1237) hiribildu zaharretako hitzunen erkidegoak berrikuntza ez onartzeko nortasun linguistiko nahikoa izan zutelako. Sorlekutik urrundu ahala higatu eta ihartu bide zen ezaugarria, arrunt denez, eta Bizkaiko barne-dinamikek bizkortu egin zuten, baina Gipuzkoakoek ez. Barne-dinamikak direla eta, ondoren agertzen mapak Gipuzkoako hiribilduak azaltzen ditu, bai eta bakoitzak jasotako forua ere: gezien norabideak zer pentsaturik asko ematen du, hirien arteko lotura juridiko-administratiboak irudikatzen dituzten gezi askok datuen argitan irudika daitezkeen lotura eta eten linguistikoak ere irudikatzen baitituzte.



27. irudia. Gipuzkoako hiribilduak eta bakoitzak jasotako forua (Arizaga 1994: 13)

5.2.2.1.3. Gehiago difusio-ereduez: Errioxa, Burgos eta birkokatze linguistikoa


Erdi Aroko euskararen mugak aipatzen direnean, besteak beste hizpidera ekarri ohi da Errioxako eta Burgosko onomastika. Historialariek⁴²⁴ migrazioekin lotu izan dute euskararen presentzia eremu horretan, eta Mitxelenak (1976b) zehaztu legez, migrazio horiek inondikoak izatekotan iparraldetikoak izan ziren: Arabakoak (edo Bizkaikoak).

(1256) eta Leintz-Gatzaga (1331). Horren kariatara, hau azaldu zuen Arizagak: “Fundazioen prozesua orokorki aztertuta, harrigarria da ikustea Gipuzkoako hiri gehienak, hamalau, hain justu ere, eta Bizkaiko eta Arabako asko eta asko, XIV. mendean eratu zirela, hau da, maila orokor batean demografiaren uzkurdura eta atzerakada garbia izan zen garai batean. Gertaera horri interpretazio hain eman zaio, ez dela hain zuzen demografiaren dinamika orokorraren barruan gertatu den salbuespen-fenomeno bat, baizik eta, egon bazegoen baina sakabanatuta bizi zen populazio bat finkatzeko prozesu bat bezala interpretatzen da, espazioa okupatzeko sistema eta bizitzeko sistema aldatzen dituen populazio bat, tradiziozko formak utzi eta forma hiritar berria hartzen duena, alegia” (1994: 17).

⁴²⁴ Bada salbuespenik, halere; cf. 119. oin-oharrean Aznarren ikuspegiak esandakoak.

Azken urteotako ikerlanek ere ikuspegi hori sendotu dute, eta zehaztasun kronologiko gehiago ekarri dituzte. Petersonen (2009) arabera, bi migrazio-uholde nagusi gertatu ziren: lehenengoa, zaharrena, VIII. mendearen bigarren erdian; bigarrena, baretze-garai baten ondoren, XI. mendean.

Migrazioei lotuta kronologia horrek zer pentsatua ematen du Errioxan agertzen diren Mendebaleko Euskara Zaharraren ezaugarriez. Gasteizen eragin-esparruaz azpiko irudian uhinen eredua islatu zuen Zuazok (2012: 43), Gasteiztiko ezaugarri guztiak batera eta dinamika berberen gorpolean hedatu izan balira bezala; aipatua dut, ordea, irudikatze hori (uhinen irudia, azken batean) orokorregia dela hizpide ditudan prozesuak irudikatzeko, ezer islatzekotan prozesuen azken emaitza islatzen duela.



28. irudia. Arabaren eragin-esparrua (Zuazo 2012: 43)

5.2.2.1.3.1. Errioxako euskara dela eta, gogoratu egin behar da ezaugarri linguistikoen dispersioa bi eratakoa izan daitekeela, ezaugarriak hedatu edo birkokatu egin daitezkeela:

Relocation diffusion, it is argued, is the result of the actual movement of speakers from A to B, carrying the innovation with them from A, and “implanting” it in the new location B. Expansion diffusion, meanwhile, is the result of everyday contacts and interactions passing innovations on from one speaker to another. (Britain 2012: 2032-2033)

Hori aintzat harturik, Arabatik Errioxara zabalduko ezaugarri batzuen difusio-ereduak ez luke zertan bat etorri Arabatik iparraldera edo ekialdera zabaldukoen difusio-ereduarekin; alegia, azken horietan hedatzea legoke, hiztunik hiztun, bidez bidez, ibarrez ibar eta hiribilduz hiribildu. Errioxako migrazioek, ordea, birkokatzean pentsarazten didate: are gehiago, birkokatzea ez litzateke bakarrik hizkuntza-

ezaugarriena izango, hizkuntza hori zerabilten hiztunena, populazioarena, izango litzateke. Kasu horretan, beraz, difusioaz berba egiteko ez da zertan bilatu berrikuntza hegoaldera zabaltzen duen gune berritzaile bat eta hegoalde horretan berrikuntzaren eremu hartzaile bat: migrazioen hipotesia onarturik, Errioxa Garaian garairik zaharrenean (VIII. mendearen erdialdea baino lehen, demagun) ez legoke beste hizkuntza- edo hizkera-eredu bat zerabilen hiztun-erkidegorik; hiztun erkidegoa iparraldetik jaitsi zen, hizkuntza-aldaki eta guzti.

Birkokatze-kasua, beraz, demolinguistikoa izan zen hizpide dudan kasuan. Ezaugarri linguistikoen difusioari buruzko literaturan *birkokatzea* aipatzen denean oro har migrazioei lotuta aipatu ohi da, bai eta ezaugarria jatorrizko eremutik desagertzea ekar dezakeela ere, besterik gabe hiztunek eremu hori uzten dutelako beste norabait joateko. Hizpide dudan kasuan berrikuntza-gunea (Araba) ez zen hiztunik gabe geratu: populazioaren zati batek besterik ez zuen jo hegoaldera, eta, horrenbestez, berrikuntzak indarrean jarraitu zuen bere sorlekuan ere. Zehatz jokatzeko, beraz, eta funtsean emaitza bera den arren (Arabaren sortutako berrikuntza bat eremu horretatik kanpoko beste eremu batera iritsi da), hedatze-prozesua azaltzeko bestelako ñabardurak hartu behar dira aintzat.

5.2.2.1.3.2. Ezaugarri linguistikoen kronologia are zehatzago ezagutzea lagungarri izango litzateke bai Errioxaren historia linguistikoa ezagutzeko, bai Arabatik hedatutako ezaugarrien difusioa zehazki nolakoa izan zen argitzeko: izan liteke ezaugarriak lehenengo uholdeari lotuta iritsi izana, izan liteke uholde bakoitzean ezaugarri jakin batzuk iritsi izana, eta izan liteke ezaugarriak bigarren uholdeari lotuta iritsi izana.

Hiru aukera horietarik lehenengoa bakarrik baztertuko nuke: Salaberri Zaratiegik (2018: 312) *Garci Olhea* (1156) adibidea eman du Errioxan. Bada, lehenengo migrazio-uholdea VIII. mendearen bigarren erdian gertatu bazen (Peterson 2009: 365), ez dut uste disimilazioa uholde horrekin lekualdatu zenik, goizegi iruditzen baitzait: IX-X. mendeak aipatu ditut ezaugarriaz aritzean eta, horrenbestez, bigarren uholdeari lotuago ikusten dut. Horrek ere ez du baztertzen, nolana ere den, berrikuntza IX-X. mendeetan zehar Errioxan ezarrita zeuden hiztunen eta Araban bizi zirenen arteko hartu-emanen bidez hedatu izana.

Errioxa Garaiko euskara mendebaltiarren ezaugarritzat jo ohi diren aldaera lexikoen antzinatasuna zehaztea ere zaila da: balirudike 947. urteko *Zufiuri* aldaera dela zaharrena eta beharbada VIII. mendearen amaierako migrazioekin lot liteke, baina

hapax-a da eta Petersonek (2009: 356-357) arazotsutzat jo du, *-uri* (& *-ori*) duten toponimoen gainerako lekukotasunak XI. mendekoak direlako. Aitzitik, Burgosen badaude *Margaluli* (867), *Ulascori* (962) eta *Nafarruri* (971). Hartara, beharbada ez Errioxakoak, baina Burgosko euskarak IX-X. mendeetan zuen aldaera hori lot liteke lehenengo migrazio-uholdearekin, eta horrek *ante quem* data ziurtatuko luke IX. mendean.

Zenbait kasutako zalantza-gaiak zalantza gai, arestian aipatutako ezaugarri guztiek Mendebaleko Euskara Zaharrarekin lotzen dituzte Burgosko eta Errioxako lekukotasunak, ez erromatarren garaiko banaketa dialektalekin, Aznarrek (2017) proposatutatu legez, ez ondoko banaketa eta zatiketekin. Lehenengo mailako ezaugarrien artean batez ere $a + a > ea$ disimilazioak lotzen ditu aipatutako hizkerak Mendebaleko Euskara Zaharrarekin, eta beste horrenbeste egiten dute bigarren mailako isoglosa lexikoek, (*h*)*uri*-k, *barri*-k eta *baltz*-ek islatutakoek, zehazki. Ezaugarri horiek guztiak maila berean egon ez arren, denak lotzen zaizkio Mendebaleko Euskara Zaharrari. Beste alde batetik, Burgosko eta Errioxako material zaharrenen (eta irakurketa ziurrekoen) artean ez dut Mendebal Muturreko Euskarari egotz dakioken berrikuntza berankorragorik aurkitu (ez dut $V_j(t)_z \rightarrow V_j(t)_x$ -rik aurkitu, esate baterako, X-XII. mendeetan, iparralderagoko datuen arabera espero zitekeenarekin bat).

5.2.2.2. Foku berritzaileak zalantzapean

Hondar urteotan euskalkien edo ezaugarri linguistikoen jatorrian eta bilakabidean arreta handiagoa jarri izanak ekarpen esanguratsuak ekarri ditu euskalkien historiaz, baina zenbait inertzia oker ere sortu ditu: kronologiaren arazo larrienen artean daude analisi eta proposamen anakronikoak, eta geografia linguistikoaren esparruan dago aldaketa- eta hedatze-prozesu konplexuak eredu teoriko orokor eta berdintsu gutxi batzuekin azaldu nahia.

Ezaugarri linguistiko nagusien jatorria bilatzean hiriak eta zenbait eremu aipatu izan dira, eta fokutzat jotako leku edo eremu bakoitzarekin lotu dira zenbait ezaugarri linguistiko handiko berrikuntzak direlakoan. Hain zuzen, zenbait hautuk behin eta berriz erakusten dute ikertzaileek difusioa (eta difusioa bakarrik) izan dutela gogoan, baina kasu batzuetan badirudi ez dutela kontuan hartu ezaugarrien nolakotasuna dela-eta ez dela fokurik behar zenbait ezaugarriren hedadura azaltzeko, hedadura hori zabala izanda ere. Azpi-atal honetan horren bi adibide emango ditut, biak ere $a + a > ea$ disimilazioari lotuak.

5.2.2.2.1. Gasteiz eta $-e > -a$ berranalisia

5.2.2.2.1.1. Ustez Gasteiztik hedatu ziren ezaugarriez aritzean, Arabako euskarari buruzko liburu monografikoan ikuspegi zabala erabili zuen Zuazok (2012: 43): $a + a > ea$ handik zabaldu zelako ideiarekin bat, disimilazio horren ondorioz sortutako $-e > -a$ berranalisia ere Arabatik hedatutako berrikuntzat jo zuen.

$a + a > ea$ disimilazioa Arabako lautadan sortu eta handik hedatu bazen, zentzuzkoa da pentsatzea lehenbiziko $-e > -a$ berranalisiak inguru hartan bertan gertatuko zirela, disimilazioa bera sortu eta gutxira. Aitzitik, ez dut uste kasu honetan $-e > -a$ -rentzat foku hedatzaile bat bilatu behar denik: disimilazio-erregela gertatu den hizkera guztietan berdindu dira *tabernea* eta *labea*, eta fenomeno arrunt askoa da egoera horren aurrean hitzunik oinarriak nahastea eta berranalizatzea.

5.2.2.2.1.2. Corpusaren homogeneousotasuna homogeneousotasun, testuek (§4.4.4.1.2) ondo islatzen dute egile batzuetatik beste batzuetara dagoen aldea, aipatutakoaren adierazgarri dena: berreraiketaren hedadura ez da bera berba eta morfema guztietan, eremua eta idazlea zein den. Egoera aldakorra da gaur egun ere: “Aldatzen diren hitzak ere, gainera, ez dira beti berberak leku guztietan. Bizkaian hartu du indarririk handiena (...) Leku batzuetan besteetan baino indartsuagoa da, eta gaztelaniatik hartutako maileguetan ere gauzatzen da” (Zuazo 2017: 19).

5.2.2.2.1.3. Ezinezkoa da, beraz, arau horren arabera eremurik irudikatzea eta eremu horien arteko lekuz lekuko difusioa islatzen eta azaltzen duen difusio-eredurik aurkitzea. Aldaketa poligenetikoa da $-e > -a$, eta poligenesi hori hainbat kasutan behintzat ez dago euskalkien edo hizkeren menpe: idiolektoari lotutako ezaugarria da, hitzun bakoitzak erroa identifikatzeko duen gaitasunaren arabera, nahiz eta maiztasun handiko zenbait berbatan lexikalizatu bide zen sasoi batetik aurrera.

Aurrekoak aipatuta, beraz, ez dago zertan X-XII. mendeetako Gasteiza jo (ez eta beste inora ere) $-e > -a$ handik hedatu zela proposatzeko: $a + a > ea$ hedatu den hizkeretan berranalisia gertatzea fenomeno arrunta da are gaur egun ere, eta eremu batzuetan⁴²⁵ indar gehixeago edo gutxixeago izan, idiolektoek ere eragin nabarmena dute aldaeren erabileran.

5.2.2.2.2. Iruñea eta $a + a > aa > a$

Euskalkien bilakaerari buruzko lanetan Euskal Herriko Antzinateko hiri garrantzitsuena Iruñea izan zela aipatu izan du Zuazok:

⁴²⁵ Esate baterako, Barrutiaren (1996, 2000) ikerlanei jarraikiz berreraiketak Bermeon eta Mundakan aparteko indarra duela nabarmendu du Zuazok (2017: 19).

Pamplona es, sin duda, la ciudad vasca más importante de la antigüedad. Ya para el siglo VI se había constituido allí un obispado (véase Larrea 2006), y fue un importante centro de comunicaciones desde fecha muy temprana: la calzada romana que enlazaba Burdeos con Astorga pasaba por Pamplona. Más tarde, el camino de Santiago pasó también por esta ciudad y, en definitiva, Pamplona mantuvo su hegemonía dentro de Vasconia hasta el siglo XIV aproximadamente. (Zuazo 2010a: 166)

Funtsean, Sasiaren aspaldiko lanean aurki daitekeen ideia bertsua da aurrekoa:

Ya con anterioridad [a Vitoria-Gasteiz / a la Llanada alavesa] la Iruña navarra había sido otro núcleo expansivo de evangelización por el centro del país, cuando todo el núcleo navarro todavía antes conociera otra experiencia irradiadora hacia todas las tierras vasconizadas quizás por Navarra y reunidas más tarde bajo el influyente centro de su rey “el Mayor”, época de la máxima irradiación vasca llevada a cabo por Pamplona. A nivel de expansión lingüística puede decirse que Álava fue también actora de un fenómeno semejante respecto de la parte occidental de Vasconia. (1976: 134)

Idea nagusia bera edo bertsua izan arren, Zuazok (2012: 44) proposamena ezaugarri linguistikoen bidez jantzi izana aldarrikatu du ekarpen gisa, eta atal honetan, hain zuzen, Iruñetik hedatu omen zen berrikuntza bat izango dut hizpide: $a + a > aa > a$ soiltzeaz arituko naiz labur, bistan denez, aldaketa hori kontrajarri egiten baitzaio tesi honetan aztertutako $a + a > ea$ disimilazioari.⁴²⁶

Zuazoren (2010a: 167, 2019: 51) esanetan, amaieran *-a* duten hitzei artikulua gehitzean soiltzea izan da emaitza (*luma + a > luma* aipatzen du), eta soiltze hori Euskal Herriko erdialdeko hainbat eremutan gertatu dela zehazten du; zehazki, Nafarroa Garai gehiengoa (ez Zaraitzun eta Erronkaribarren, ez eta mendebaleko zenbait ibarretan ere), Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Gipuzkoako ekialdean. Nafarroa Garaiko testu arkaiko eta zaharrak azertu ondoren, ikuspegi hori berretsi zuen Reguerok neolinguisten laugarren irizpideari jarraikiz:

Oro har, ezaugarri batek zenbat eta hedadura handiagoa izan, orduan eta zaharragoa izateko aukera handiagoa du. Hortaz, ezaugarri bat Nafarroan, Lapurdin eta Gipuzkoan agertzen bada, Nafarroan bakarrik agertzen diren ezaugarriak baino zaharragoa izango da. Bestalde, uste izatekoa da, antzina Iruñea edo Nafarroako erdigunea foku izan bazen, bertan sortuak izan edo bertatik hedatuak izan daitezkeela erdigunean agertzen diren berrikuntza asko. Beraz, horiek aztertzeak Erdialdeko Euskara Zaharraren eta goi-nafarreraren kronologia egiten lagun dezake. (Reguero 2017: 675-676)

Nire ustez, ordea, hor aipatutako irizpideen aplikazioa arreta handiz egin behar da, ezaugarri bakoitzaren izaera, kronologia eta hedadura ahalik eta zehatzen aztertuta

⁴²⁶ $a + a > aa > a$ soiltzeaz landara *-te* alomorfo plurala aditzetan eta aditz-izenetako *-tzen* aipatzen ditu Zuazok (2010a: 167-168 eta 2019: 50-51). Reguerok, bestalde, bi multzo bereizi zituen: hedadura zabalekoak eta hedadura txikiagokoak. Lehenengo multzoko ezaugarriak Erdiguneko Euskara Batu Zaharraren garaiarekin lotzekotzat ditu, eta hauek dira: (i) $a + a > aa > a$ soiltzea, (ii) aditz-izenetako *-tzen*, (iii) *-te* alomorfo plurala aditzetan, (iv) ergatiboko *-ek* marka, (v) *-en* prospektiboa, (vi) *izandu* eta *egondu* sailko partizipio pleonastikoak, (vii) **edun*-en adizkietan *da(d)u- > du-* bilakaera, (viii) *-i(n)-* erroa. Bigarren multzokoak Iruñearen indarra apaldu ostekotzat ditu: (i) *o-e / e-o > o-o*, (ii) *oa- > goa-/gwa-*, (iii) *-on* bukaera, (iv) instrumentaleko aldaera apikaria, (v) *-zki* pluralgilea *eduki* aditzean, (vi) adizki pleonastikoak *izan* aditzean eta (vii) *Dative flag* edo datibourrekoa (Reguero 2017: 675-679).

ezer orokortu baino lehen. Neolinguisten laugarren hatsarrea, gainerakoak legez, ez da araua, ezpada hainbatetan betetzen den egoera bat, baina hizkuntza guztietan salbuespenak dituen (§2.4.4.2). Halaber, dialekto batean baino gehiagotan agertzen diren ezaugarriak ondo haztatu behar dira ikuspuntu genetiko eta diatopikotik: izan litezke dialekto batean sortu, dialekto horren ezaugarri bateratzaile izan eta beste azpi-dialekto edo hizkera batzuetara hedatutako berrikuntzak, baina izan daitezke bilakabide komun, arrunt, poligenetiko eta beregainak, denborak aurrera egin ahala gutxi edo asko hedatu direnak, uhartetxoak edo eremu tinko zabalak irudikatzen dituztenak. Zabalera hori, ordea, ez da zahartasunaren ondorio: gehiago dagokio hasieran sorleku isolatu izandako guneen artean gerora konbergentzia-dinamikak gertatu izanari (begiratu §5.2.4.3 atalean eufonien hedatze-ereduez proposatutakoa).

5.2.2.2.2. Azpi-atal honetako aztergai zehatzera etorrira, $a + a > aa > a$ soiltzea ez da zertan Iruñetiko berrikuntzat hartu: neolinguisten laugarren hatsarrearen salbuespen bat izango litzateke. Funtsean, bi argudio argi ikusten ditut gauzak bestela azaltzearen alde.

Alde batetik, Iruña Antzinateko hirigune berritzaile eta berrikuntzen hedatzaile indartsuena bazen, harrigarri egiten zait hala Nafarroako ipar-ekialdeko ibarretan (Zaraitzu eta Erronkaribar) nola ipar-mendebalean eta are hurbilagoko Burundan ez soiltzea baina bestelako erregelak izatea arau. Nafarroa Garaitik kanpo, eta Zuazok Gipuzkoako ekialdean soiltzea gertatu dela aipatu arren, soiltze hori modernoa da. Testu zahar bat besterik ez aipatzearen, Isastiren errefracuetan⁴²⁷ 12 *olaac* eta 67 *Olaa* agertzen dira. Halaber, $a + a$ bilkuratik kanpo bokal bikoitzen arrastoak aurki daitezke Nafarroa Garaiko XVI-XVIII. mendeetako testuetan.⁴²⁸

Badirudi erdialde zabal batean bokal bikoitzak gorde dituzten zenbait eremu egon zirela edo daudela, eta horiekin tartekatzen direla soiltzea arautzat dutenak. Nire ustez, ezaugarriaren hedadura zatikatu horrek eta Iruñeritik erlatiboki hur dauden

⁴²⁷ Bide batez, Reguerok (2017: §2.2.19.3) goi-nafarrerarekin lotzen ditu, Bonapartek XIX. mendearen bigarren erdian Lezoko euskararekin egin legetzez.

⁴²⁸ Reguerok aipatzen ditu Goizuetako 1753ko sermoietako *gazteena*, *dulceetara*, *pobreen* eta abar, eta Gipuzkoa gertu egotearekin lotzen du fenomeno: “Agian Gipuzkoatik duen gertutasunari zor zaio 1753ko Goizuetako sermoian (...) agertzen diren bokal bikoitzak” dio (2017: 545). Nolanahi ere den, aintzat hartzekoak dira honako hauek: (a) adibide horietako bokal bikoitzak morfemak gehitzean tinbre bereko bokalak biltzean sortuak dira, ez kontsonante baten galeraren ondokoak (beste kronologia batekoak dira, beraz) (b) Zuazoren usteen aurka, horrek bermatu egingo luke bokal bikoitzen iraupena Gipuzkoako lurralde mugakideetan; baina (c) arkaismoa gorde izanak ez luke batasun linguistikorik frogatuko, areago arkaismo hori beste hainbat lekutan aurki badaiteke.

eremuetan bokal bikoitzak berandura arte gorde izanak zalantzape larrian jartzen du gune bakar batekiko difusioaren irudia eta gune hori Iruñea delako ideia.

Beste alde batetik, ezaugarriaren beraren izaera aintzat hartu behar da, eta horren argitan ez dago zertan pentsatu foku berritzaile batetik hedatu zenik. Elkarren ondoan dauden tinbre bereko bi bokal soiltzea bilakabide arrunt askoa da, eta euskalki guztietan gertatu da hitz-erroan hiatoak hausteko are mendebalean ere (§4.4.2.1). Horrenbestez, fenomeno arrunt askoa izanik, aukera asko ditu berrikuntza beregaina izateko, ez inondik hartua eta hedatua izatekoa: “There is a conviction that some changes are “trivial” *per se* –this is particularly said of sound changes, and we are asked to distinguish striking, out-of-the way sound changes (perhaps changes subject to an unusually whimsical conditioning) from run-of-the mile ones” zioen Hoenigswaldek (1966: 11), eta bereizi behar hori etengabe gogorarazi dute gai arealez arduratu diren hizkuntzalariek; cf. Campbell (1985).

5.2.2.2.2.2. Laburbilduz, hemen aipatutako bi aukeren artean ($a + a > ea$ eta $a + a > -a$) lehenengoa da berezia edo ez-arrunta, lehenengoak behar du aparteko azalpena eta lehenengoa lotzen zaio foku berritzaile jakin bati. Bigarrenak islatzen duen fenomeno arrunta da euskaraz eta ez dago zertan Iruñera jo hedagune berritzaile baten bila; bilakaeraren arruntasunak, banaketa geografiko etenak eta ustezko hedagunetik hurbil aldaera zaharragoek indarrean iraun izanak, gainera, azken aukera hori bazterrarazten didate.

Ezaugarri jakin horren azterketarekin ez dut baztertu nahi Iruñea inoiz berrikuntzen hedagune izan zenik eta Nafarroako zein beste eremu batzuetako euskararen eraginik izan zuenik;⁴²⁹ aitzitik, hori proposatzeko ezaugarriak xeheki aztertu behar dira baieztapen orokorrak eta larriak egin aurretik. Izan ere, lanerako abiapuntu egiantzekoa irudi dezaketen ideien frogagarri hartzen bada gehiegi haztatu gabeko ezaugarrien hedadura geografiko modernoa, (ia) guztiak dira okerbidean sartzeko aukerak.

⁴²⁹ Cf. “Iruñeko erresumaren garaia X. mende hasiera da, Iruñea *civitas* erromatarrean, apezpikuaren eta aristokraziaren kokagune den hiria: *militēs pampilonenses*; ondotik hartuko du, XII. mendean Nafarroako erreinuaren izena. Garai hartatik honat bederen, teoriarik erdigune horrek hizkuntza-eragina ukan duela proposatu beharko genuke, hirian euskararen garrantzia ahalizten zen arte, bederen. Nolanahi ere den, Iruñea ez da hain hiri handia izan, hizkuntza aldetik esleitzen diogun balizko eragin hori ez dakigu xuxen zenbaterainokoa izan zen; erregearen gordea Erriberrin bizi izan zen usu, ez Iruñean. Demografiaren bezainbatean, nafar gehienak ibarretan bizi ziren, ez hiriburuan; esate batera, XVI. mendean 2.000 biztanle inguru zituen Iruñeak, XVIII. mendearen hasieran 8.000 eta 1783an 15.000. Madozen arabera 1848an 15.745 biztanle zeuden bertan. Baina honetan guztian erlatiboa izan ohi da errealitatea eta ikusi behar da ea ba ote zegoen Nafarroa euskaldunean hiriburuari demolinguistikoki edo sozio-ekonomikoki aurre egin ziezaiokkeen beste gune bat, eta erantzuna ezezkoa dela dirudi” (Camino 2013: 100).

5.2.2.3. Lehenengo mailako beste ezaugarri bat: *egin* aditz laguntzaileaz

5.2.2.3.1. Euskalkiak (eta, horrenbestez, euskalki horiek hezuramitzen dituzten ezaugarriak) betidanikoak edo oso antzinakoak direlako ikuspegiak nahasteak besterik ez ditu eragin. Mitxelenak (1960a) aspaldi aldarrikatu legez, gainerako euskaldunena adina da bizkaitarrena *ditu* aditz laguntzailea, eta bizkaitarrena adina gipuzkoarrena da indikatiboaz gaindiko *egin* laguntzailea:

Si nos remontamos algo en el pasado, los cantares medievales y los textos del siglo XVI nos demuestran que formas del verbo auxiliar como *ezak* eran usadas en Vizcaya al lado de *egik*. Después, al parecer, han dejado de utilizarse en aquella región. Está claro de todos modos que, de dos posibilidades, el vizcaíno y una parte del guipuzcoano se quedaron con una, en tanto que otros guipuzcoanos, con el conjunto de los vascos más orientales, prefirieron la otra, limitando el empleo de *egin* a distintas funciones. (Mitxelena 1960a: 698)

Mitxelenaren esanak esan, luzaroan iraun du *egin* Bizkaikoa edo *bizkaiera*-rena delako ikuspegia: halakotzat jo zituen, esate baterako, Zegamako dotrinako *barca eguizcuzu*, *barca eguizguzu* eta *barca deguigula* sailekoak Ondarra (1984: 10)⁴³⁰ edizogileak, baina “azalpen hau G[ipuzkera]ren historiaz dakigun apurraren aurka doa eta G[ipuzkera] Z[ahar]eko testuen lekukotasunaren mesprezu nabarmena dugun” (Lakarra 1986c: 658).

Aurrekoari loturik, Ondarrari kritika dakarkion artikulu hartan bertan funtsezko galderak egin zituen Lakarrak:

Baina zergatik dateke “bizkaíno” edo “Bizkaiko” (hitzon adiera hertsian) *egin* G[ipuzkeraz]ko lehendabiziko testuetarik **ezan* baino ugariago eta erabilera zabalago batean edireiten badugu? Nola “kutsatu” diete bizkaitarrek gipuzkoarrei aditz laguntzaile oso bat? Ez ote da zuzenago *egin* laguntzailea ere **ezan* adinbat G[ipuzkerazkoa] dela ezagutzea? (*idem*)

Azken urteotan hala aditz laguntzaileen gramatikalizazioaz (cf. Mounole 2007, 2018 [2011]) nola euskal dialektologia diakronikoaz (Lakarra 2011: §3.2) egin diren ikerketei esker nabarmen aurreratu da *egin*-en nondik norakoen ezagutza.

Hasteko eta behin, argiago dakigu ezin direla parez pare jarri Mitxelenak aipatutako *ditu* & *dauz* eta **ezan* & *egin* (Mitxelenak ere bazekien, jakina). Ezer izatekotan, *ditu* eta **ezan* komunak dira, beste euskalkienak bezainbat Bizkaiko, Arabako edo mendebaleko euskararenak: Euskara Batu Zaharrera jo behar da horien jatorria aurkitzera. *Dauz* eta *egin*, bestalde, dialekto jakin baten (baina ez dialekto beraren) berrikuntzak dira, ez komunak baina eremu jakin banatakoak: *dauz* adizki modernoa da, Bizkaiko euskararen sortua eta *hiperbizkaiera*-ri (Mitxelena 1981a: 527)

⁴³⁰ Larramendik baliaturiko ikuspegi bera da, baina aintzat hartu behar da 1745eko ikuspegia dela, ezein izatekotan, Larramendirena: “Me suena muy a gusto *ecarri deust*, *demon deustat*, *otzitu jataz*, que en Guipuzcoa son *ecarri dit*, *eman diot*, *oztu zazquit*” (1745: xxjx).

lotua XIX. mendeaz geroztik. [Partizipioa + *egin*] perifrasi, berriz, berrikuntza zaharra da⁴³¹ eta ezin zaio *bizkaiera*, *arabera* edo *gipuzkera*-ri lotu: ezeri lotzekotan, horien aurrekari izandako hizkuntza-egoerari lotu behar zaio, eta horretatik hartu bide zuten gerora sortutako euskalkiek: Bizkaian eta Araban ez ezik, Gipuzkoako testu zaharretan ere arrunt da *egin* hiru osagaiko adizkietan, eta banaketa egoera linguistiko komun zaharrago baten zordun bide da:

Adizkiak bi osagai (*nork-zer*) ala hiru (*nork-nori-zer*) izan, kontuak aski ezberdin zihoazen; halaber, adizkia singularrekoa edo anitzezkoa zen erro berezia hartu ohi zuen. Zehatzago, bi osagaiko adizkietarako *egin* zein **ezan*-en formak hauta zitezkeen *nor* singularra bazen; *nor* anitza bazen **ezan*-enak erabili ohi ziren, eta *egin*-enak hiru osagaikoetan. (Lakarra 1996: 183)

Euskal diakronistekin bat (Mounole 2007: 116, Urgell & Lakarra 2008, Lakarra 2011: 176), Mendebaleko Euskara Zaharrari lotzen zaio *egin*-en gramatikalizazioa, duen hedadura zabala dela eta:

Egin-en kasuan fiteago egiten da erabiltzen ez duten testuen zerrenda, erabiltzen dutenena baino. XV-XVI, XVII eta XVIII. mendeetako bizkaiera, arabera eta gipuzkerak erabiltzen dute, eta nahiz eta haren erabilpenak murrizagoak izan XVI. mendean, XVII eta XVIII. mendeetan baino, euskalkien arteko batasun horrek erakusten du haren sortze eta gramatikalizazio prozesuak XVI. mendea baino aise lehenagokoak direla. Gainera, erran behar dugu **ezan*-en kasuan ez bezala, *egin* erabiltzen ez duten testuak biziki laburrak direla eta hortik ezin dela ondorioztatzen ahal laguntzaile horren erabiltzeko ezintasuna. Beste manera batez erranik, ez dugu aurkitzen, ez Bizkaian, ez Araban, ezta Gipuzkoan ere testu luzerik non ez den batere erabiltzen. (Mounole 2007: 109)

Mendebaleko Euskara Zaharra bereizteko *egin* erabiltzeak zalantzak eragin ditzake, ez baita hizkuntza-egoera hura definitzeko proposatutako $a + a > ea$ disimilazioa bezain sistematikoa: disimilazioak bezainbesteko lurraldea edo are gehiago hartzen du *egin*-ek, baina **ezan* komunarekin lehian agertzen da Euskara Arkaikoan eta Euskara Zaharrean. Nire ustez, lehia horrek bi azalbide ditu, eta elkarren osagarri dira: *egin*-en gramatikalizazioaren kronologia berankorragoa, eta [aditzoina + **ezan*] eta [partizipioa + *egin*] perifrasiaren banaketa funtzionala eta lehenengoa zenbait esparrutan ihartu izana. Azken hori nabarmena da aginteran, Arabako eta Bizkaiko testuetan luzaroago iraun baitzuen XVIII. mendera arte (cf. DotrSerm 45-70 *acabeesas* XVIII. mende amaieran).

5.2.2.3.2. Gaur egun Arabako euskaraz dakiguna jakinda, *egin*-en sorlekua aurkitzeko erraz erabil daiteke $a + a > ea$ -ren jatorria azaltzeko logika bera; hortaz, badirudi errazena dela Gasteiz jotzea hedagunetzat, berriz ere handik abiatuta hobeto

⁴³¹ Horrela sortua, gainera: “*Egin* laguntzailearekin egiten den perifrasi, berriz, ikusi dugun bezala, partizipioarekin erabiltzen da nagusiki eta aditzoina salbuespen gisa agertzen zaigu egitura horretan. Horrek bultzatzen gaitu pentsatzera [partizipioa + *egin*] gisa sortu, hedatu, erabili zela, tarteka, **edin* eta **ezan*-en egiturekilako presio analogikoengatik aditzoina egokitu zitzaizolarik” (Mounole 2007: 88).

azaltzen baita ezaugarria Bizkaira, Gipuzkoara eta Nafarroa Garaiko mendebalera iritsi izana. Halaber, foku berritzailea Gasteiz izanik, hobeto azaltzen da XVI. menderako **ezan*-en emankortasuna eta nagusitasuna galdua egotea, bai eta **ezan* Bizkaiko testu arkaikoen artean ipar-sartaldekoetan (Arabatik urrutien daudenetan) hobeto gorde izana ere (cf. Mounole 2007: 102-103 eta ArrasErreki testua, Bizkaiko ipar-sartaldekoa, **ezan* besterik ez duena bere laburtasunean).

Gipuzkoa dela eta, corpusaren berankortasunak eta asimetriotasunak ez du aukera handirik ematen XVI. mendeko Gipuzkoa osoko egoera zein zen ikusteko, baina XVIII. mendearen hasieraz geroztiko testuek hiru eredu islatzen dituzte Mounoleren (2007: §3.1.4) azterketa xehearen arabera:

- (i) Goierri aldean indartsu zebilen *egin* ordurako, NOR-NORK zein NOR-NORI-NORK sailetan, objektua singularra zein plurala izan. Salbuespen bakarra agintera da, non **ezan*-en adibideak gehiago diren, nahiz eta oso paretsu dauden baten eta bestearen kopuruak: hemeretzi aldiz dago **ezan*, eta hamazazpi aldiz *egin*.
- (ii) Oikiako dotrinan eta Irazustaren dotrinan mugatuago agertzen da *egin*: NOR-NORK sailean **ezan* besterik ez dago, NOR-NORI-NORK-en *egin* eta **ezan* dauden arren.
- (iii) Kardaberatzek **ezan* besterik ez zuen erabili sail batean eta bestean.

Lakarrak (1996: 185) *egin*-en erabilera hegoaldeetik iparraldera eta mendebaleetik ekialdera zabaldu zela proposatu zuen, eta Mounoleren azterketak hori baieztatzen du: “Iduri luke kasu honetan ere mendebaleetik ekialderako gradazio batez mintza gaitezkeela, zenbat eta mendebalerago *egin* gehiago erabiltzen baita (bipertsonal eta hirupertsonal gisa), edo zenbait eta ekialderago gutiago)” (2007: 101). Azken batean, badirudi Arabatik hurrago dauden eremuetan iparralderago eta ipar-ekialderago baino indar handiagoa zuela *egin*-ek, eta horrek bat egiten du ezaugarriaren jatorriaz *egin* diren proposamenekin; ez da ahaztekoa, bide batez, Gasteiztik urrutien dagoen Bizkaiko eremuetako batean, Butroe aldean, kokatu behar dela ArrasErreki, eta horretan, bere laburtasunean, **ezan* besterik ez dagoela.

5.2.2.3.3. Ikuspuntu geografikotik **ezan/egin* lehiak badu bestelako interesik ere. Aipatu dudanez, berrikuntza zaharra da, baina ez zaharrenetarikoa; ez, adibidez, *a + a > ea* morfonologikoa bezain zaharra. Aitzitik, Mendebaleko Euskara Zaharrari lotu beharrekotzat daukat, eta horrek unitate linguistiko horren iraupenaz ere ematen ditu lorratzak: gutxienez XIII-XIV. mendeetara arte iraun zuela pentsa liteke, eta *egin*-en

zabalkundea Gasteiztik hedatutako berrikuntza zabalenetan azkena edo azkenetarikoa izan zela.

Kronologikoki, gainera, proposamen hori koherentea da XIII-XIV. mendeetan beste ezaugarri batzuei loturik ($a + a > ea$ adizkietan, bokalerdiaren osteko txistukarien palatalizazioa, **edutsi* laguntzailea) islatzen den barne-zatiketarekin: egia da *egin* oso zabal hedatu zela eta are ondoko mendeetan zabaltzen jarraitu zuela, baina egia da, halaber, Bizkaiko eta Arabako euskararen artean batasun handiagoa ikusten dela, garai batera arte behintzat, Gipuzkoak (ziur asko ez eremu batzuek, hala nola Goierrik) luzaroago eutsi baitzion **ezan*-i. Banaketa horrek, bada, mende horietan beste ezaugarri batzuek garbiago markatzen duten bereizketa islatzen du: Mendebaleko Euskara Zaharraren barnean Mendebal Muturreko Euskara bereizi edo bereizten hasi beharra.

Egin-en gramatikalizazioa eta hedatzea ezin dira Mendebal Muturreko Euskararekin lotu, askozaz ere gehiago zabaldutako berrikuntza baita are lehenengo testuak agertu orduko; aitzitik, zabalera handi horren barnean dauden dinamikak ez dira berberak: Mendebaleko Euskara Zaharraz hitz egin daiteke oraindik Erdi Aroko azken mendeetan, baina garai hartan bertan bereizi zen Mendebal Muturreko Euskara, eta *egin*-ek, lurraldean zabal eta kronologian luzaro hedatutako ezaugarria izanik, bi horien berreraiketarako informazio esanguratsua ematen du.

5.2.2.4. Bigarren mailako zenbait isoglosa: aldaera lexikoak

Hizkuntzak, hizkuntza-eremuak eta dialektoak lotzeko eta sailkatzeko lexikoa erabiltzea arazotsutzat jo izan da hainbatetan:

Dans l'*Avant-propos* (1922: 6) de la seconde édition des *Dialectes indo-européens* (1908), Meillet fait observer qu'il «importe [...] de distinguer les aires de système phonétique et grammatical des aires de vocabulaire commun». Le domaine du lexique, en effet, est plus étroitement lié aux contacts culturels entre les civilisations que le domaine phonétique ou morphologique et par conséquent est moins approprié à établir une parenté dialectale. (Petit 2007: 24)

Azken batean, hizkuntzaren barnean gutxien egituratutako esparrua da lexikoarena, eta errazago geratzen da bariazio sistematikoaren eragileetatik kanpo (Francis 1983: 20). Bauerrek zioenez, “Change in vocabulary, or lexical change, is, by its very nature, unsystematic. Even the best descriptions of lexical change very easily end up with lists of examples and anecdotes, without any overview possible” (1994: 28). Halaber, bariazio-ikerketeki begira isoglosen garrantzia estrukturalaren arabera eginiko eskalan lehenengo lekuan (azalekoenean) kokatu zuten lexikoa Chambersek eta Trudgillek (1988 [1980]: 115), eta euskalaritzan ere antzeko iritziak eman izan dira:

(...) uno tiene la impresión de que los componentes del léxico se distribuyen dentro de una familia de dialectos como los genes de una población: a veces se tiene la impresión de que se están extrayendo bolas de una urna. Y, aunque las coincidencias de vocabulario den testimonio de contacto entre dialectos, estas coincidencias, lo mismo que las divergencias, no tienen por qué ser antiguas. (Mitzelena 1976b: 210)

Hemengo aztergaiei dagokienez, Erdi Aroko aldaera lexikoei buruz aritzean Caminok *aldaera lexikalizatu ez sistematikoak* deitutakoez ari naiz:

Alde bateko hitzetik bestekora jotzeko ez dago hizkuntzaren gramatikan erregularra den biderik, ez dugu bilakabide sistematiko bat baliatzeko aukerarik aldaera batetik bestera iristeko eta beraz, hiztunak ezin jakin du beste hiztun baten aldaera horren berri, edo aldaera horretara iristeko bide sistematiko baten berri, non eta harreman interlektal usuagatik, ez duen aldi oro entzuten edo buruz ikasten, baina bere aldaeratik bestearenera iristeko mekanismo gramatikal sistematiko eta errepikatu bat falta du. (Camino 2009: 382)

Item lexikoen deskripzioa ematean (§4.1.3 eta §4.1.4) zein kronologiaren ikuspuntutik etenak irudikatzen duten balioaz aritzean (§5.1.3.3) aipatu dut nire ustez orain arte behar baino garrantzi handiagoa eman zaiela, izan ikertzaileek ez dutelako ezaugarri gehiagorik edo hoberik aurkitu X. mende inguruan banaketa dialektalak deskribatzeko, izan kontzienteki edo inkontzienteki gogoan euskalkien betikotasuna edo aparteko antzinatasuna zerabiltelako eta ikuspegi horren aldeko argudio baliagarritzat jo dituztelako.

Aitzitik, (*h*)*uri*, *barri* eta *baltz* lako aldaera lexikoetan aldaketa arruntak gertatu dira, aldaketa linguistiko horiek ez dira sistematizatu eta item jakin batzuetan lexikalizaturik besterik ez dira agertzen. Beharbada horiekin batera sailkatu beharko lirateke, bide batez, hedadura bertsua dutela eta, **eu* diptongotik eratorritako *urten* (**eurten* < **eorten* < **egorten*) eta *ule* (< **eule* < **eole* < **enole*) aldaerak ere.⁴³² Izan ere, Euskara Arkaikoaz geroztik behintzat eremu bertsua⁴³³ hartzen dute (cf. *OEH*, s.v. *irten* eta *ile*, eta *EHHA*-ko 1767. eta 2062. mapak).⁴³⁴

Hedadura-gaiak direla eta, aipatutako bost aldaeretatik bat ere ez da $a + a > ea$ bezainbeste hedatu: zati batean behintzat irudikatzen duten eremua hurbilago dago Mendebal Muturreko Euskararentzat proposa daitezkeen mugetatik Mendebal Zabaleko Euskararentzat proposa daitezkeenetatik baino: ez dago (*h*)*uri*, *barri* edo *urten*-ik Deba ibarretik eskuin, ez Urolan, ez Goierrin, ez Sakanan, nahiz eta hegoalderago, Lizarrako

⁴³² **eCo* / **eCu* > **eu* diptongotik (*urten* < **eorten* < **egorten* eta *ule* & *ile* < **eule* < **eole* < **enole*; cf. *EHHE*, s.v. *irten* eta *ile*) eratorritako aldaeren arteko kronologiaz, begiratu (Lakarra 2011: §4.3 eta §4.4).

⁴³³ *Urten* aldaera arazotsua da, egia esatera, Landucciren hiztegian *salir* - *hirten* eta *salida* - *hirtetea* ematen baitira, ez *urten*.

⁴³⁴ *EHHA*-ko bi mapa horien argitan, gaur-gaurkoz behintzat txikiagoa da *ule*-ren esparrua: ez du halakorik ematen Debarrean eta Bergaran; bestalde, aintzat hartu behar da Bizkaiko hego-sartaldeko *ulle* (& *ulla*) aldaera; cf. “Baliteke *ulle*-ren sabaikaria *ille*-ren eraginengatik azaldu behar izatea” (Lakarra et al. 2019: 179).

merindadean, *barri*-ren lekukotzak *berri*-ren lekukotzekin nahastean agertzen den (cf. EODA, s.v. *Etxabarri*⁴³⁵ eta hemengo §4.1.3).

Crowleyk irizpide hertsia ezarri zituen Ingeles Zaharrean eremu dialektalak irudikatzeke: “Names alone are insufficient to establish dialect criteria for Old English” (1986: 103), eta kasu honetan ere uste dut toponimoetako aldaera lexikoen balioa eskasa dela: goitik beherakoan eten bat irudikatzeke modukotzat ez ditudan legetxez, ez ditut Mendebaleko Euskara Zaharra geografikoki mugatzeko modukotzat ere; gehienez ere, garrantzi handiagoko ezaugarrien (disimilazioa bera eta bokalardiaren osteko txistukarien palatalizazioa, adibidez) osagarri iruditzen zaizkit, X. mendearen inguruan Euskal Herriko mendebalean isoglosa zenbait bazirelako frogara, baina ez muga eta eremu dialektalen definitzaile. Antzeko ikuspegia baliatu zuen Birnbaumek “Mazedoniera Zaharra”-ren existentzia ukatzeko eta mazedoniera modernoa Bulgariara Zaharraren ondorengo dela defendatzeko:

Yet nobody questions, of course, that some isoglosses characteristic of the two languages are ancient, indeed Late Common Slavic date. However, such isolated features (...) do not by themselves constitute a sufficient basis for the identification of separate, independent languages. (Birnbaum 1985: 13)

Ez dut ukatzen, beraz, isoglosa horiek zaharrak direnik eta X. menderako irudika daitezkeen bakanenetakoak direnik; baina, ez dut uste zatiketa dialektalez berba egiteko balio dutenik.

5.2.3. Mendebaleko Euskara Zaharretik Mendebal Muturreko Euskara Zaharrera

Aurreko atalean proposatutakoarekin bat, Mendebaleko Euskara Zaharraren sorrerarekin eta iraupenarekin lotu behar dira $a + a > ea$ disimilazioa eta *egin* laguntzailea. Egoera linguistikoak, ordea, ez dira betierekoak, eta Erdi Aroan bertan bestelako berrikuntza batzuek halako eten bat irudikatzen dute: Erdi Aroko azken mendeekin lotu beharrekotzat ditut eta hori irudikatzen duten ezaugarriek ez dute arestiko biek bezainbesteko hedaturarik: kanpoan geratzen dira Urola eta Goierri Gipuzkoan, eta Sakana aldea Nafarroan. Hain zuzen ere, Mendebaleko Euskara Zaharrak hartzen zuen eremuaren sartaldean dute indar handiena, eta bat etor daitezke Lakarrak (2011) *Mendebal Muturreko Euskara* deitutako egoera edo entitate linguistikoarekin.

⁴³⁵ *Etxabarri*-ren adibide zaharrenak, halere, *berri* du EODA-ko datuen arabera (*Essabarri* [1079]), nahiz eta hogei urteren burukoa den *Essabarri* (1099) iturri bereko datuen arabera.

Atal honetan bi ezaugarri aurkeztuko ditut: $a + a > ea$ disimilazioa adizkietan eta bokalerdiaren ondoko txistukarien palatalizazioa. Horien osagarri, tesi honetako aztergaietatik kanpo geratu arren, zenbait ohar egingo ditut **e(d)utsi* aditz laguntzaile hirupertsonalaren hedaduraz eta kronologiaz.

5.2.3.1. $a + a > ea$ disimilazioa adizkietan

Ezaugarriaren deskripzioaz aritzean (§4.4.4.3) aipatu dut adizkietako disimilazioa bereizi egin behar dela singularra markatzen duen disimilaziotik, nahiz eta bietan erregela bera izan: $a + a > ea$. Adizkietako disimilazioek ez dute inolako funtzio morfologikorik, eta kronologikoki berriagoak direla proposatzen dut tesi honetan. Hori proposatzeko arrazoi nagusia, hain zuzen, hemen zehatzago aztertuko dudana hedadura da.

Artikulu mugatuari lotutako disimilazioa (*gonea, alabea*) eremu zabalera hedatu zen: berrikuntza horrek definitzen du linguistikoki, behin baino gehiagotan aipatu izan denez, Mendebala edo Mendebaleko Euskara Zaharra; are gehiago, berrikuntzaren hedadura lagungarri izan da ez Bizkaitik baina Arabatik zabalduko fenomeno izan zela proposatzeko.

Irizpide berberei eutsita, bada, badirudi proposamenak bestelakoa izan behar duela adizkietako disimilazioaz aritzean; izan ere, hedadura ez da inondik inora ere bera:

- (i) Bizkaian agertzen dira inon baino zabalago eta inon baino indartsuago izan, *joan* eta *eroan*-en adizki disimilaziodunak testu zaharrenetarik: *RS-k*, *VJesus-ek* eta *Kapanagak* hirurak dakartzate, eta laburtasuna dela-eta hiruretako bakar bat agertzen den testuetan ere aldaera disimilaziodunak dira sistematiko (cf. *ArrasErreI*, *IbargC*, *frJZum*, *Sorg1616*, *BizkKant*, *EgiaKant*, *Zubia*, *BertsBizk* eta *abar*). Bilbo aldean, bestalde, Mikoletaren eskuizkribuak *euea* ‘zuen’ dakar singularrean,⁴³⁶ eta *Enojaduric* eta Mikoletak berak *-za + a > ea* dute *egon*-en (*Enoj 7 egoceana*, *Mikol 4r gagosea*) adizkiei loturik.⁴³⁷
- (ii) Araban lurraldea zatiturik agertzen da, eta zatiketa bertikala eta horizontala irudika daitezke. Alde batetik, badirudi lurraldearen iparraldean bakarrik agertzen direla aldaera disimilaziodunak: *Lazarg* eta *DotrSerm*

⁴³⁶ Hasiere batean analogikotzat jo liteke, baina ikuspegi arazotsua da, oro har alderantzizkoa izan ohi baita aruntago.

⁴³⁷ **ezan*-ekin lotzekoa balitz, horretan ere balegoke, *-tza + an* bilkuran, Borja Ariztimuñok aurrez aurrekoan diostanez; cf. *Mikol 12r conta ninçean*.

testuetan hiru adizkietan aurki daitezke (DotrSerm-en *-io- erroari lotutako baten bat ere badago), Abendañoren aienean *joan*-en adizki bat eta ErrodZar arkaikoan *eroan* eta *joan*-enak. Gasteiz aldean Landucciren hiztegiak disimilaziorik gabe dakartza *joan*-en bi adizki (*aurrera doana* eta *gurdiakin doana*).⁴³⁸ Beste alde batetik, ekialdeko testuetan eta Araba/Nafarroa mugaldeen kokatutakoetan (Portal, Sevilla1619, Albeniz, Gamiz) ez dago aldaera disimilaziodunik.

(iii) Gipuzkoan are mugatuago agertzen dira aldaera disimilaziodunak: ez dago $a + a > ea$ -rik Urolako eta Goierriko testuetan, eta Deba ibarrean oso ñabarra eta nahasia da egoera. Zuazok zioenez, “[disimilazioa] ahulagoa izan da Deba ibarrean Bizkaian baino, eta oso litekeena da, gainera, hizkera batzuetara sekula ere iritsi ez izana, esate baterako, Antzuolara” (2006a: 1007).

Lehenik, *izan*-en disimilazioak aurkitu ditut Garibairen errefrauetan (A23 errefraua Bizkaikoa izan daiteke, halere), Sasiolaren olerkietan, Eibarko 1685eko kopletan, Arrasateko 1705eko udal-bandoan eta kokagune zehatzik gabeko 1708ko sermoian eta IsSagEsp testuan. Alabaina, ez dago adibiderik Rosabellan, Itziarko Ama Birjinaren omenezko bertsoetan, Barrutiarenean eta Amilletarenean; gainera, Sasiolarenean eta IsSagEsp modernoagoan disimilaziodunak eta disimilaziorik gabeak daude, eta Eibarko 1685eko kopleta adibideak adibide, hiribildu bereko 1754ko udal-ordenantzetan ez dago alerik. Bigarrenik, *joan*-en disimilazioak Sasiolarenean, Barrutiarenean eta Amilletarenean daude, baina ez Garibairen errefrauetan. Hirugarrenik, ez dut *eroan*-en disimilaziorik aurkitu Deba ibarrean.

Aurreko datuen argitan, pentsatzen dut adizkietako disimilazioa bereiz aztertu behar dela; $a + a > ea$ morfonologikoak garai berean (eta gerora) hartzen zuen esparrua baino txikiagoa da adizkiena: eremutik kanpo geratzen dira Urola, Goierri, Burunda eta Arabako erdi-ekialdea (dirudienez, Gasteiz bera barne), eta Deba ibarrean ere alde nabarmenak daude idazle batzuen eta bestetzuen hizkeren artean. Egoera horren aurrean adizkietako disimilazioak modernoagoa izan behar duela uste dut neolinguisten laugarren printzipioari jarraikiz, hedadura ere askoz txikiagoa delako; lehenengo testuak agertu orduko bazegoen, ordea, eta horrek murriztu egiten du dataziorako denbora-tarea:

⁴³⁸ Blanca Urgellek diostanez, *aurrera doana* A eskuarena balitz bezala dauka, baina *gurdiakin doana* beste esku batek egin izan daiteke (cf. *-kin* soziatiboan); zehazki, C eskuarena izan daitekeelakoan dago.

Erdi Aroko azken mendeetan (XIII-XIV. mendeetan, demagun) sortutako berrikuntzatzat dut.

Hedadura geografiko horrek besterik ere islatzen du, gainera: disimilazio morfonologikoaren sorgunea azaltzeko irizpide berberak erabiliz ezin proposa nezake, edo ez dut horretarako argudio nahikorik bildu behintzat, adizkietako disimilazioa Gasteiztik hedatu zenik. Gasteiztik hedatzera, Landucciren hiztegian espero izatekoa litzateke, bai eta Arabako lautadako testu berankorragoetan eta Gipuzkoako mendebalekoetan ere, gutxienez.⁴³⁹

Inork proposa lezake ezaugarriaren birkokatze bat gerta zitekeela unerren batean; alegia, Gasteiz aldetik hedatutako ezaugarria Gasteiztik bertatik desagertu zela gerora, baina hori proposatzeko argudio sendorik ere ez dago: proposamena aieru hutsa izan ez dadin ezaugarriak Gasteizen lekutua egon beharko luke lehenik eta behin.

Gasteiz berrikuntzaren zirkuituan egongo balitz ere, berrikuntzaren fokua beste nonbait bilatu behar dela pentsatzen jarrai liteke, disimilazioak Araban eta Gipuzkoan duen hedaduraren murriztapenak ikusita. Nire ustez, Bizkaira begiratu behar da Arabara baino gehiago.

Hori pentsatzeko arrazoi linguistikoak direla eta, disimilazio morfonologikoaz aritzean Gasteiz lehenesteko argudio-bide berari helduz, badirudi jaurerrian beste inon baino indartsuago egon dela disimilazioa historikoki: Bizkaian ez dirudi murriztapenik dagoenik eta *izan*, *joan* eta *eroan*-en sistematikoak edo ia sistematikoak dira; aintzat hartu behar dira, gainera, **edun*-en eta *egon*-en aldaerak, baina Bilboko testuetan agertzen dira bakarrik.

Arrazoi estralinguistikoen esparruan adizkietako disimilazioaren hedadura zabala nabarmendu behar da: adibideak jaurerriaren sortaldean zein sartaldean agertzen dira lehenengo testuetarik. Bizkaitik kanpo inon agertzekotan, gainera, eremu mugakideetan agertzen dira: Araban, erdi-mendebalaren iparraldean baino ez; Gipuzkoan, Deba ibarrean baino ez, eta murriztapen nabarmenekin, berrikuntzak inoiz arrakastarik lortu izan ez balu bezala eta, lortzekotan, zati batean eta denbora-tarte batez

⁴³⁹ Joseba A. Lakarrak aurrez aurre iradokitzen didanez, beste aukera bat litzateke proposatzea $a + a > ea$ fonetiko huts izatetik morfologiko izatera igaro izana eta toki batzuetan (disimilazioa gorde den lekuetan) desgramatikalizazioa gertatu izana; cf. 412. oin-oharrean *gera* bezalako adizkiez egindako proposamena disimilazioaren galerarekin (zehazki, galera gertatu aurreko egoeraren arrastoak izatea ez du baztertzen Joseba A. Lakarrak).

bakarrik lortu izan balu legez (gogoratu Eibarko 1685ko koplen eta 1754ko udal-ordenantzen arteko aldea).⁴⁴⁰

Nire ustez, fenomenoaren hedadura errazago azaltzen da Bizkaitik abiatuta: XIII-XIV. mendeen artean sortu zen jaurerriko hiribilduen sare nagusia aurretik sendotze-bidean zegoen sarearen gainean, eta ordurako finkatua eta tinkotua zen lurralde-antolamendua: errazagoa da ezaugarriaren hedatze-prozesuan lagungarri izan zitezkeen hiriguneak eta bideak aurkitzea, eta horien artean eta horietatik hedatu izana disimilazioa. Arabarekiko bide-lotura bertikalek lagun zezaketen, gainera, berrikuntza Arabako iparraldera hedatzen.

Aurrekoak esanda eta arreta Bizkaira itzuliz, berrikuntza-fokua zein izan zitekeen da erantzun beharreko hurrengo galdera, nahiz eta erantzuna ematea ez den batere erraza; ez dago ezaugarriaren lehenengo faseen jarraipena egiteko daturik, eta baztertu ere ezin da baztertu tarte batean egoera multifokal bat egon izana. Nolanahi ere den, Bilbora begiratzeko arrazoirik badago: Urgellek (2006: 945) mendebaleko epizentro berritzat jo zuen 1315az geroztiko Bilbo, eta inoiz ikuspegi horren aurka egin bada ere (cf. Aldai 2008: 405, Zuazo 2010a: 182-183, 2019: 60; begiratu, halaber, hemengo §5.2.5.1, §5.2.5.2 eta §5.2.5.3 atalak Bilboko euskararen izaera linguistikoaz), hizpide dudan ezaugarriaren foku berritzaile izan zela pentsa daiteke.

Adizkietako disimilazioez hitz egitean oro har *izan*, *joan* eta *eroan* aipatu ohi dira, aditz horien formetan baitira ohikoago edo ohikoen disimilazioak; aitzitik, Bizkaiko testu bik beste adizki batzuetan ere badakartzate adibideak, eta biak dira Bilbo aldekoak. *Enoj* eta Mikol testuez ari naiz: bietako adibideak azal litezke analogiaren bidez beharbada, baina Bilbon metatzen dira, eta hori esanguratsua da geolinguistikoki, ez baitut jaurerrian (ez eta jaurerrietik kanpo ere) parekorik aurkitu.⁴⁴¹

5.2.3.2. Bokalerdiaren ondoko palatalizazioa

Onomastikari esker, bokalerdiaren ondoko txistukarien palatalizazioaren bilakabide historikoa ikustea erlatiboki errazagoa da: lehenengo testu arkaikoak agertzen direnerako irudika daiteke ezaugarriaren banaketa geografikoa, baina Erdi Aroko onomastikak aukera ematen du berrikuntza nahiko zehatz datatzeko (§4.2.1.2).

⁴⁴⁰ Gaur egungo egoeraz, begiratu Zuazoren aipu hau: “Adizki horiek ez dira Deba ibar osokoak. Eremutik kanpo dago Debarrena. Aramaion, berriz, *joan*-en adizkietan sartzen da *-i-*, baina ez *eroan*-enetan, nahiz eta *daroi* ‘daramate’ (eta *darue*) esaten den. Dena dela, *daroi* adizkia berezia da; gainerakoena baino zabalagoa da horren eremua” (Zuazo 2006b: 60).

⁴⁴¹ Esan bezala, *Dotrinazko sermoitegi*-an **-io-* erroko bi adizki disimilaziodun daude, *diño* eta *diñoana*.

Aipatu legez, badirudi Araban ez ezik Bizkaian eta Gipuzkoan ere XIII. mendekoak direla palatalizazioaren adibide zaharrenak, nahiz eta Gipuzkoan palatalizazioa duten toponimoak oso mugatuak izan: *Aretxabaleta* herriaren izena da nabarmenena (cf. §5.1.2.4); tamalez, Arrasateko Udala auzoaren gaineko mendiaren izenaren lekukotasun zaharrena modernoa da euskaraz, XVII. mendekoa (*EODA*, s.v. *udalatx*), baina egungo hiztunen artean ezagun da *Udalatx* ~ *Udalaitz* bikotea, nondik begiratzen zaion: Elorrio aldetik ala Deba ibarretik (Arrasaten bertan bietarik entzun daitezke, Eskoriatzan eta Aretxabaletan legez).

Berrikuntza “hain zehatz” datatzeko daturik egongo ez balitz ere datazio-proposamen bertsua egiteko arrazoirik egongo litzateke, aldaera palatalizatuen hedadura ez delako mendebal linguistikoaren definitzailetzat jotako $a + a > ea$ -rena edo *egin*-ena bezain zabala.⁴⁴² Euskara Arkaikoaz geroztiko testuen bidez ondo-antzean irudika daiteke aldaera palatalizatuen hedadura:

- (i) Bizkaian sistematikoa da palatalizazioa aztertutako berbetan, bai txistukari frikarian, bai afrikatuan. Testuetan badaude lehen begi-kolpean palatalizaziorik gabekotzat jo litezkeen adibideak, baina (a) bakanak dira, (b) aldaera palatalizatuz inguratuta daude eta (c) testu jakin batzuetan metatzen dira gehienbat; beraz, askoz errazagoa da pentsatzea aldaera grafikoak direla, ez arkaismoak.
- (ii) Araban aldaera palatalizatuak arrunt askoak dira Euskara Arkaikoaz geroztik Aiara eta Gasteiz aldeko testuetan, eta Lazarg eskuizkribuan; aitzitik, Larreakoaren testuan gorabeherak daude: aldaera palatalizatuak dira arruntenak eta, zenbait berbatan, bakarrak (cf. *elixa*, *gox*, *(h)axe*, *nax*, *nox* edo *(h)atx*, adibidez). Halaber, polimorfismoa ere badago: *baxen* eta *baizen* biak ditu, afrikatuetan *erexi* & *ereitzi* eta *gatx* & *gaitz* dituen legez. Hain zuzen ere, Landucciren hiztegiko A eta B eskuen arteko ezberdintasun bera da (cf. Mitxelena 1958: 217). Ematen du Bizkai zein Gasteiz aldean baino ahulxeagoa zela palatalizazioa idazlearen hizkeran, eta halako trantsizio bat zegoela Arabako ekialdearekin, halako *mixed dialect* bat (Trudgill 1983), azken eremu horretan ez baitut aldaera palatalizaturik aurkitu.

⁴⁴² Nolanahi ere den, gogoratu behar da neolinguisten printzipioak ez direla salbuespenik gabeko arau, ezpada hainbatetan betetzen diren printzipio orokorrak. Gerta liteke garai berean eremu beretik abiatutako berrikuntza biren hedadura berbera ez izatea (Wolfram & Schilling-Estes 2003: 722).

(iii) Gipuzkoako mendebalean etena Deba ibarrean agertzen zen: agertzekotan ibar horretan agertzen dira adibideak, ez erdialderago (Urolan eta Goierri), hedadura zabalagoko *bakotx* bezalako aldaeraren batean ez bada. Deba ibarrean, aitzitik, palatalizazioa ez da inoiz zabal eta sistematikoki gertatu: Zuazoren arabera, “Leintzen eta Aramaion egiten da bustidura. Ermuan, Eibarren, Elgetan eta Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetan, berriz, denetarik dago (...) Gainerako hizkeretan ez dago bustidurarik, baina denetan esaten da *atxur* ‘aitzur’ eta ia denetan *keixa* ‘gerezia’” (Zuazo 2006b: 66).

Funtsean, ezegonkortasun hori aurreko testuetan aurki daitekeen berbera da: ez dut aldaera palatalizaturik aurkitu Deba eta Mutriku aldeko testuetan, Eibarko XVII-XVIII. mendeetako testuetan batzuetan badago baina beste batzuetan ez (begiratu, egungo hizkerez, Oñederra 1990: 25), eta hala Amilletaren nola Barrutiaren lanetan ez dago: Deba ibarraren inguruko testuen artean ArrasErrekII laburrean eta Garibairen errefracuetan besterik ez ditut aurkitu, azken horretan betiere B eskuizkribuan. Bestalde, kokagune ezagunik gabeko XVIII. mendeko 1708ko sermoian zein IsSagEsp testuan ez dago joera bateraturik: azken horretan ez dago palatalizaziorik, eta lehenengoan tarteka agertzen da.

Aurreko datuen argitan aldaera palatalizatuen hedaturaren muga orokorrak, garai historikoan behintzat, Deba ibarraren erdi-hegoaldetik, eta Larreatik eta Gasteiztik eskuin kokatu behar dira. Debagoiena eta Barrundia trantsizio-eremutzat har daitezke ezaugarri honetan, mendebalerago indartsuago edo sistematiko zen erabilera tarteka besterik ez baita agertzen.

5.2.3.2.1. Palatalizazioaren jatorriari dagokionez, Zuazoren (2010a: 176, 2012: 89, 2019: 57) ustez Gasteiztik abiatutako berrikuntza izan liteke, hedadura txikiagoko berrikuntza gasteiztarra, nahiz eta ez duen horren aldeko aparteko argudiorik ematen. Proposamena, dena den, koherentea da Gasteizek XIII-XIV. mendeetan izan zezakeen eraginaren indarrak eta esparruaz aipatu izan denarekin. Urgellek dioenez, ordurako ahulduta zegokeen hiriaren eragin-ahalmena, eta Barrundia/Oñati aldea izango litzateke Gasteizen azken eragin-esparruetako bat:

-keta no ha llegado tan lejos, sino que se ve reducida a una zona muy concreta, tal vez la que formara parte de la zona de influencia principal de este dialecto, o –tal vez mejor– la más lejana a lo que se perfila como el nuevo epicentro occidental: el Bilbao posterior a 1315. Esto encajaría, por otra parte con la situación cada vez más débil y marginal del euskera alavés. (Urgell 2006: 945)

Ahulezia horrek erraz(ago) azal zezakeen berrikuntza Goierriara, Urolara edo Araia ingurura iritsi ez izana, eta are Barrundia aldean ere polimorfismoa agertzea zenbait berbatan; baina, ez da ahaztekoa *egin*-en hedadura zabalaz baina kronologia berankorraz esandakoak.

5.2.3.2.2. Zaila da palatalizazioa non sortu eta nondik hedatu zen ziur esatea: Reja-ko *Hassarte*-n balego, hori izango litzateke adibide zaharrena eta pentsa liteke Arabako euskararen berrikuntza izan zela, gerora Euskal Herriko beste eremu batzuetara hedatua; aitzitik, adibidea zalantzakoa eta bakana da, eta aurka ditu Reja-ko gainerako adibideak. Bestalde, argi dagoena da XIII. mendean sortua zela, bai eta Arabatik kanpo hedatua ere (cf. *Aretxabaleta*, adibidez).

Alde batetik, pentsa liteke berrikuntza ez Araban baina Bizkaian sortu zela, Bilbon edo erdi-hegoaldeko hiribildu-sarean, adibidez, adizkietako disimilazioez aritzean proposatu bezala, eta iparraldetik hegoaldera hedatu zela: bai Gasteiza, bai Durangotik Eibar aldera, bai Otxandiotik Aramaio aldera, adibidez. Bizkaitik kanpo, bestalde, grabitate-ereduetan pentsatuz azal liteke nolatan zegoen ezaugarria indartsuago Gasteizen Barrundia aldean baino, grabitazio-indarra handiagoa baita biztanle ugari metatzen dituzten gunetan. Hartara, Bizkaian Erdi Aroaren amaieran sortutako berrikuntzetako bat izan liteke hizpide dudan palatalizazioa.

Beste alde batetik, Urgellek (2006: 945) beste ezaugarri baterako emandako azalpenarekin bat, pentsa liteke Gasteiztik abiatutako azken berrikuntzetako bat izan zela. Horrek errazago azalduko luke aldaketa Bizkaira ez ezik Barrundiara, Deba ibarraren hegoaldera eta Oñatira ere iritsi izana, baina azaldu egin beharko litzateke nolatan agertzen den hedatuago Bizkai osoan eta ez Gasteiztik hurrago dauden eta zuzeneko sarbidea duten beste eremu batzuetan (ezta, dirudienez, Errioxan ere). Berriz ere grabitate-ereduetan pentsatuz, beharbada Bizkaiko erdi-hegoaldeko hiribilduen sareak erraztu zezakeen berrikuntzaren difusioa eta ezarpena bai hegoaldean, bai iparralderago. Nolanahi ere den, Bizkaitik hedatutako berrikuntza izatea ere ezin dut baztertu: horrek errazago azalduko luke zergatik dagoen jaurerri osoan hedatuta; hala izatekotan, Gasteiza heda zitekeen lehenengo, eta handik ekialderantz ondoren. Gipuzkoara, bestalde, Ermuan, Elorrioren Otxandio-Aramaion barrena iritsi zitekeen.

Aurrekoekin batera, ezaugarriaren beraren izaera gogoratu behar da: berba jakin batzuetan lexikalizatutako aldaketa da, ez erregela edo bilakabide emankorra lehenengo testuak agertzen direnerako. Lehenik eta behin, beraz, argitu egin beharko litzateke zer zabaldu zen egiazki, arau emankor gerora ihartu bat ala palatalizazio ihartua zuten

aldaera lexikoak. Erdi Aroko onomastikaren hustuketa sistematiko batek eman lezake argirik, baldin eta erkagai diren lurraldeetako batean aldaera palatalizatuak lehenago agertuko balira edo, zer esanik ez, toponimoen bidez berba bakoitzaren hedaduraren ikuspegi kronologiko koherentea berreraiki ahalko balitz.

Euskara Arkaikoaz geroztiko lekukotasunek argi uzten dute ikuspuntu geografikotik batasuna Bizkaiaren eta Arabako erdi-mendebalaren artean dagoela, Bizkaiak eta Arabako erdi-mendebalak bi horiek eta Gipuzkoak baino batago egiten dutela ezaugarri honetan XIII. mendean geroztik; beraz, ezaugarri honetan Bizkaiaren eta Arabaren artean sendagoak dira loturak. $a + a > ea$ -k zein *egin*-ek lortutako hedadura zabala urruti dago txistukarien palatalizazioak hartzen duen eremutik: kanpo geratzen dira Goierri, Urola eta are Debarrena eta Debagoieneko zenbait eremu Gipuzkoan, eta Larreatik eta Gasteiztik eskuin dauden lurraldeak Araban; beraz, badirudi berrikuntzak ezer irudikatzen mendebaleragoko unitate linguistiko bat irudikatzen duela; nire ustez, Mendebal Muturreko Euskara definitzeko ezaugarri aproposa da; hots, Mendebaleko Euskara Zaharraren barneko zatiketa irudikatzen du, adizkietako $a + a > ea$ -k legez.

5.2.3.3. Gehigarri bat: **edutsi*-ren hedaduraz

5.2.3.3.1. NOR-NORI-NORK saileko aditz laguntzaileak sarri aipatu izan dira banaketa dialektal orokorrean hitz egitean, eta zenbaitetan **edutsi* (mendebala) / *-i-* (erdialdea) / **eradun* (ekialdea) banaketa aipatu bada ere, hala aurretik ezagutzen ziren testuen berrirakurketak nola testu berrien agerrera argiro erakusten dute banaketa hori soilegia ez ezik, okerra ere badela. Aldaeren hedadura eta Euskara Arkaikoaz geroztik duten banaketa aintzat hartuta, gainera, ikuspuntu diakronikotik ezin dira guztiak maila berean jarri.

Aditz laguntzaile hirupertsonalak eta euskalki guztiak (aldaki zahar eta modernoak bereiziz) aintzat hartuta, honako eskema hau proposatu zuen Lakarrak (2011: 198):

8. taula. Aditz laguntzaileen bilakabidea euskalki zahar eta modernoetan

	BZ	BM	A	GZ	GM	LZ	LM	ZZ	ZM
<i>*eradun</i>	-	-	+	+	-	+	+	+	+
<i>-i-</i>	(+)	-	+	+	+	+	+	+	+
<i>eutsi</i>	+	+	+	-	-	-	-	-	-

Lakarrari berari (*idem*) jarraikiz, beraz, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hizkerek gorde egin dute egoera zaharrena, eta gainerakoetan zenbait berrikuntza positibo eta negatibo gertatu dira. Berrikuntza positibo nabarmenena mendebalean (Bizkaia eta Araba) gertatu da, **edutsi*-ren gramatikalizazioarekin: *RS*-ko adibidea ez Bizkaikotzat baina kanpokotzat joaz, ez dago *-i*- errorik Bizkaiko testuetan, ez eta **eradun*-ik ere. Horrek, Bizkaian halakorik inoiz izan ez dela ondorioztarazi lezake, baina halakorik ezin da baieztatu, ez jaurrerian baina eremu mugakideetan (cf. MLastur) agertzen baitira adibideak: Euskara Batu Zaharrerako proposatu beharrekotzat dirudite gainerako euskalkietako informazioaren argitan, nahiz eta XV-XVI. mendeetara orduko galduta egon. Erdi Aroko berrikuntzen artean sailkatzekoak dira **edutsi*-ren gramatikalizazioa Bizkaian eta Araban, eta **eradun*-en eta *-i*-ren galerak Bizkaian. Mendebaleko euskararen barnean, beraz, Arabako euskara eta Gipuzkoako euskara zaharra lirateke gordetzailen, lehenengoak ez baitzituen galduak *-i*- eta **eradun* (**eradutsi*)⁴⁴³ XVI. mendearen amaieran, eta bigarrenak ere bietarik baititu are XVIII. mendean, **edutsi* hedatu gabe.

5.2.3.3.2. Euskara Batu Zaharrerako **eradun* eta *-i*- proposatu behar badira, galdera da zein ote zitekeen egoera Mendebaleko Euskara Zaharrean; alegia, **edutsi* proposatu behar den Mendebaleko Euskara Zaharrerako ala horren gramatikalizazioa eta garaitiko bien galera ondoko beste zatiketa bati dagokion.

Hedadura-gaiak direla eta, uste dut argudio sendoagoak daudela **edutsi*-ren gramatikalizazioa Mendebaleko Euskara Zaharraren barne-zatiketekin lotzeko; zehazki, Mendebal Muturreko Euskararekin.

Alde batetik, argi dago **edutsi*-ren hedadura ez dela $a + a > ea$ edo *egin*-ena bezain zabala.

Arabako testuetan bikoiztasuna ikusten da, eremua zein den: Landuccik ez dakar adibiderik, baina Betolatzarenean **edutsi* besterik ez dago. Badirudi muga edo trantsizioa Gasteiztik eta Barrundiatik eskuin zegoela: Lazarragak egoera zaharragoa islatzen du, **edutsi*, **eradutsi* eta *-i*- baititu;⁴⁴⁴ **eradutsi* itxuraz kausatiboaren adibideak gutxi dira, baina **edutsi*-renak eta *-i*-renak ugari, eta ez dirudi arau berezirik dagoenik bata ala bestea erabiltzeko (Mounole & Lakarra 2018: 432). XVIII. mendean,

⁴⁴³ Honetaz, dena den, begiratu hurrengo oin-oharra.

⁴⁴⁴ Borja Ariztimuñok aurrez aurrekoan diostanez, bestela ere irakur litezke Lazarragaren datuak: **eradun* eta **eradutsi* bereiziz, azken horrek ez bailuke zertan izan **edutsi*-rekiko analogiaz erakitako **eradun* bat, ezpada **edutsi*-ren kausatiboa, **eradun*-en bezain gramatikalizaturik ez legokeena eta erdi-ekialdeko **eradun*-ekin zuzeneko loturarik ez lukeena, nahiz eta horrek ez duen zertan automatikoki pentsarazi **eradun* komuna izan ez zenik.

halaber, **edutsi* eta *-i-* txandatzen dira Arabako ekialdean, Albenizen eta Gamizen testuetan.

Ez dago **edutsi*-rik Gipuzkoa gehiengan (ez Urolan, ez Goierriin, ez eta horietatik eskuin), eta Gipuzkoako sartalde muturrean ere Debagoiengan eta erdialdean besterik ez da agertzen: MLastur testuan **edutsi* eta *-i-* agertzen dira (11 *Edegui dio almeneari erdia* baina 14 *Peru Garciac eguin deuscu laburto*, 26 *Mandatariac eguin deust gaxtoto*, 33 *Mondr[a]goeri artu deusat gorroto*), Iturbe elgoibartarrarenean legez (9 *salua eguin deusa*, 10-4 *eman dio osticu*). Gogoratzekoa da, bestalde, mendebal zabalean kokatu beharreko Gipuzkoako Miserere arkaikoan **eradun* agertzen dela objektu pluralarekin,⁴⁴⁵ garairako (eta are Euskara Zaharrerako; cf. Mounole & Gómez 2018: 467) espero zitekeenarekin bat.

Bizkaian agertzen da inon baino tinkoago eta zabalago **edutsi*: bakar da jaurerri osoan XV. mendez geroztik.

5.2.3.3.3. Arestian deskribatutako banaketak beste ezaugarri batzuen gogorarazten dit: esan bezala, **edutsi*-ren hedadura urrun dago $a + a > ea$ disimilazioak eta *egin*-ek dutenetik; aitzitik, Arabako banaketak batago egiten du bokalerdiaren ondoko palatalizazioarekin (etena edo trantsizioa Lazarragaren hizkeran eta/edo hortik eskuin), adibidez. Sistematikotasunari begira, bestalde, batasuna eta lotura handiagoak dira Bizkaiaren eta Arabako erdi-mendebalaren artean: horretan ere batago egiten dute **edutsi*-ren eta palatalizazioaren hedadurak, aditz laguntzailea Araba ekialdean zabalago badabil ere.

**edutsi*-k duen hedadura dela eta, Erdi Aroaren azken mendeetan (XIII-XIV. mendeetan, demagun) sortutako berrikuntza dirudi, eta ezer irudikatzen ez den Mendebaleko Euskara Zaharraren barne-zatiketa irudikatzen du: kanpo geratzen zaizkio Gipuzkoako lur gehienak, eta XVI. mendeko Araban forma zaharragoekiko lehian agertzen da. Hori dela eta, Mendebal Muturreko Euskarari lotuago dakusat, mendebal muturrean sortu bide baitzen eta mendebal muturrean baitu beste inon baino bizi-ingar handiagoa: XVI. mendeko testuetan inon izatekotan, mendebal muturreko testuetan da bakar; hots, mendebal muturrean hedatu da eta ordezkatu ditu **eradun* eta *-i-* (ustez) komunak.

5.2.3.3.4. Berrikuntzaren sorlekua ziurtasunez argitzea zaila da, argudioak baitaude bai Bizkaian kokatzeko, bai Araban kokatzeko. Lehenengoari dagokionez,

⁴⁴⁵ Gaur egun ere erabiltzen dira Gipuzkoako zenbait alderditan behintzat **eradun*-en adizkiak; cf. *di(u)zku* lako adizkiak Urola aldean, adibidez.

lehenengo testuez geroztiko bakartasuna eta sistematikotasuna aipa daitezke; alegia, Bizkaian indar betea izatea, Deba ibarrean edo Arabako erdi-ekialdean ez bezala. Bigarrenari dagokionez, hobeto azalduko luke nolatan iritsi zen berrikuntza Bizkaira, Debagoienara eta Arabako ekialdera, baina harrigarri xamarra izan daiteke Arabako lautadatik hedatutako berrikuntza bat Barrundian indartsuago ez agertzea. Azken batean, bokalardiaren ondoko palatalizazioaz aritzean deskribatutako egoera bera errepikatzen da, zalantza eta arazo bertsuekin, eta proposamena ere bera edo bertsua izan daiteke: Arabako lautadatik zabalduko berrikuntza izan liteke, Bizkai hegoaldeko hiribilduen eta bide-sareen bidez sartua jaurrean, eta hiribildu eta bide-sare horien bidez indartua eta tinkotua; baina Bizkaitik hedatutako berrikuntza ere izan liteke: Gasteiza lehenengo eta handik ekialderantz ondoren eta ez hain indartsu hedatutakoa, adibidez.

5.2.4. Garai historikoko berrikuntzak

5.2.4.1. Txistukarien neutralizazioa eta difusio-eredu hierarkikoa

5.2.4.1.1. Neutralizazioaren gertalekuak

5.2.4.1.1.1. Ezaugarri linguistiko bati buruz hitz egitean erosotasunez edo oharkabean sistematikoa balitz bezala hitz egiten da askotan, gerta zitekeen aldiro gertatuko balitz bezala. Ildo horretatik, Euskal Herriko mendebaleko euskararen txistukarien neutralizazioaz berba egitean frikari lepokari guztiak apikari eta afrikatu apikari guztiak lepokari bihurtu izan balira legez egiten da berba askotan: ikuspegi horrek balio lezake egungo euskarari buruz hitz egiteko, baina denboran atzera egin ahala garaian garaiko bilakabidearen ñabardurak eta gorabeherak izan behar dira gogoan.

1600. urtea baino lehenagoko, 1650eko eta 1800eko txistukarien neutralizazioaz aritzean, adibidez, ez naiz ari indar eta hedadura bereko fenomenoaz: lehenengo kasuan frikarietan eta gehienbat kokagune ahulenetan⁴⁴⁶ Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan (gutxienez) gertatzen zen fenomenoaz ari naiz; bigarrenean frikarietan eta kokagune ahulenetan ez ezik, Bizkaiko eta Gipuzkoako hizkera batzuetan afrikatuetan eta beste kokagune batzuetan ere bazen fenomenoaz; hirugarrenean Euskal Herriko

⁴⁴⁶ Funtsean, kokagune inplosiboan, herskari aurretik eta hitz amaieran, Echeniquek eta Plak gaztelaniarako azaldu legez: “Desde el margen implosivo de sílaba o final de palabra, posición más proclive al cambio fonético, los fenómenos de ensordecimiento y fricativización afectaron posteriormente a la sibilante ubicada entre vocales (VC → VCV), resultado de un proceso de irradiación fonética” (2013: 92).

mendebal zabalean eta Gipuzkoako kostaldean hedatutako eta gerta zitekeen kokagune guztietara zabaldutako fenomenoaz.

Dialektologiaz eta ezaugarrien balio sailkatzaileaz aritzeko, beraz, garaia oso kontuan hartu behar da: txistukariei nagokiela, bereizketaren galera ez da lehenengo testuak agertu orduko sistematikoki eta zabal agertzen den ezaugarri eskusiboa. Ezaugarriaren indar eta hedadura historikoez zehazten dute ezaugarriak berak garairik garai izan dezakeen balio sailkatzailea: gaur egungo eta oro har gutxienez XVIII. mendearen amaieraz geroztiko Bizkaiko eta Gipuzkoako mendebaleko hizkerak sistematikotasun erabatekoz barne biltzen dituzenez, mendebaleko euskararen ezaugarri bereizgarri ere bada. Alabaina, ez da mendebaleko ezaugarri eskusiboa, Gipuzkoako kostaldean barrena Lapurdiko kostalderaino hedatu baita; beraz, beste ezaugarri batzuekin konbinatuta mendebaleko euskara definitzen duen ezaugarri supradialektala da neutralizazioa Lehen Euskara Modernoaz geroztik.

5.2.4.1.1.1. Neutralizazioaren kokaguneak eta hedadura Euskara Arkaikoan

Euskara Arkaikotik Lehenengo Euskara Modernora bitarteko testuak arakatzean ikusi denez, garairik garai ez ezik, eremuz eremu ere aldatzen da txistukarien neutralizazioaren indarra. Tradizioz, neutralizazioaren hasiera Bizkaiko mendebalean eta, are zehatzago, Bilbon kokatu izan da (bereziki *FHV*-z geroztik, *VJesus* eta *Mikol* testuei loturik); halere, ezaugarria deskribatzean zein 1600 aldeko adibideez aritzean erakutsi legez, bereizketaren galera ez datzekio leku bakar bati. Txistukarien neutralizazioaren sorrera multifokala izan zela dirudi, nahiz eta galeraren norabide geografikoa, hemen azalduko dudanez, funtsean mendebala → erdialdea izan zen.

Euskara Arkaikoan herskari aurreko (eta, batzuetan, hitz amaierako) frikarien neutralizazioaren banaketa geografikoak ondorio argi bat islatzen du: galera arrunta zen kokagune ahulenetan bai Euskal Herriko mendebalean, bai erdialderago (Gipuzkoan eta Nafarroan), bai Ipar Euskal Herriko zenbait testutan. Hain zuzen, egoera komun edo orokorrago horretatik abiatuta hobeto azaltzen da euskalkien arabera neutralizazioa gehiago edo gutxiago garatu izana: Nafarroa Garaian galera instrumentalean sistematizatu izana,⁴⁴⁷ beharbada herskari aurreko neutralizazioaren ondoren eta

⁴⁴⁷ Cf. “Nahiz XVII. mendean instrumentaleko atzizkia Nafarroan apikari egiten den, ez da adibide guztietan honela, bai baita -z ere: 1609ko olerki batean *nigarres* eta *eguinez* dugu; dena den, gogoan izan dezagun aldaera apikaria XIII edo XIV. mendetik lekukotzen dela. Uitzin ere 1506ko ezkon-zin batean *dudanas* eta *duquedanas* adibideak ageri dira” (Camino 2013: 113).

ondorioz,⁴⁴⁸ eta Euskal Herriko mendebalean heda zitekeen kokagune guztietara hedatu izana.

Aurrekoari loturik, tentuz bereizi behar dira adibide arkaikoak: testu batean bakanak direnean, nahiz eta bakantasunaren arrazoia testuen laburra izan, 1600 aurreko egoera orokorrarekin batera multzokatzekotzat jo ditut; aitzitik, testu batean nahasteak kokagune ahulenetan ugariagoak badira edo/eta hiperzuzenketak badaude, zentzuzkoa iruditzen zait pentsatzea ondoko hamarkada eta mendeetako bilakabidearen lehenengo fasea agertzen dela kasu horietan: kokagune ahulenetan bada ere, bereizketaren galera indartzen hasia zela.

5.2.4.1.1.2. Arabako euskara

Mendebaleko testu zaharrenen artean Landucciren hiztegiak arreta ematen du frikarien neutralizazioari dagokionez. Egia da gehienetan ondo gordetzen dela bereizketa, baina adibideen maiztasunaren irizpideari jarraituta (cf. Hualde 2010: 105), badirudi herskari aurrean neutralizazioa aurreraturik zegoela; bai, gutxienez, beste hizkera batzuetan baino aurreratuago. Gasteiztik hur, halaber, Betolatzarenean gutxiengoa dira bereizketaren galera duten kasuak, baina hiperzuzenketarik ere badago (Lazarg eskuizkribua hainbat luzeagoa izanda, ez dago hiperzuzenketarik Sasiolaren pasarteetan baizik). Halaber, Martínez de Ochoaren XVII. mendearen amaierako Gabonkantan argi islatzen da bereizketaren galera herskari aurretik, <s> besterik ez baitago jatorrizko lepokaria adierazteko, bokal artean ez bezala.

Arabian, nolana ere den, ipar-mendebaleko eremuez gaindi eta Lehen Euskara Modernoa baino lehen neutralizazioa ez da inon agertzen Bizkaian bezain aurreraturik: Gamizek eta Albenizek badituzte herskari aurreko frikarien eta bokal arteko afrikatuen adibideak, baina ez garai bereko (ez frikarietan behintzat) Bizkaiko testuetan bezain aurreraturik. Besterik da *Dotrinazko sermoitegia*: <s>-ren erabilera zabalak eragiten dituen arazoak arazo, bereizketa galdua zela iradokitze zantzuak aurkitu zituen Ulibarrik (2015: 138), eta horri loturik gogoan hartzekoa da XVI-XVII. mendeetan Aiaraldean badaudela adibideak kokagune ahulenetan (Mendieta eta UrduñHizt).

5.2.4.1.1.3. Bizkaiko euskara

Bizkaiko testu zaharrei helduta, argi ikusten da sartaldean bereizketaren galera jaurreriko beste eremu batzuetan baino lehenago gertatu zela: alde batetik, sartaldeko

⁴⁴⁸ Ez da ahaztekoa, nolana ere den, gaztelaniaz ere kokagune horretan gertatu zirela sistema zaharreko frikari/afrikatu eta ahostun/ahoskabe oposizioen galerak, eta gerora hedatu zirela horiek bokal artera; cf. 446. oin-oharra.

testu guztietan agertzen dira neutralizazioaren adibideak; beste alde batetik, denboran aurrerago egin ahala bereizketaren galera kokagune gehiagotan eta ugariago agertzen da. *RS*-ko zantzuen ondotik, XVII. mendean neutralizazioa hedaturik erakusten dute VJesus-ek eta Sorg1616 testuak, eta Bilbo aldeko testuetan ere ikus daiteke (*Enoj*, Mikol), orain arte uste izan dena bezain aurreratuta ez bada ere. Dena den, gerora ere gogoraraziko dudanez, Bizkaiko sartalde osoak ez du eremu bat eta bakarra balitz bezala jokatzeko: aldeak daude ibar batzuetatik beste batzuetara: Orozkoko 1739ko otoitzetan neutralizazioa errazen gertatzen den kokaguneetan besterik ez daude adibideak.

Ezaugarri honetan berritzaile den Bizkaiko sartaldeari sartaldea kontrajartzen zaio; zehazki, Durango aldeaz egin daiteke berba, inguru hartako testu zaharrak baitaude. Hain zuzen ere, Zumarragaren gutuna eta mende edo mende eta erdi beranduagoko *Egiaren kanta* zein Kapanagaren dotrina alderatuta, bereizketaren galera ezer gutxi aurreraturik agertzen da mende baten buruan; 1537an eta 1656an egoera bertsua zela dirudi, neutralizazioak ez zuela aurrerapen handirik egin Durango inguruan; izan ere, adibideak herskari aurrean metatzen dira, eta metatuko XVII. mendearen amaierara arte gutxienez: herskari aurrekoak dira Zubiaren testuko adibide gehienak, nahiz eta Bizkai sartaldekotzat dudan *Bertso bizkaitarrak* sortan ugarixeago agertu.

Aurreko deskripzioak bat egiten du, bada, neutralizazioaren norabideaz eman izan den irudiarekin; alegia, bereizketa sartalde → sartalde norabidean hedatu izanarekin, eta XVIII. mendeko zenbait datuk ere hori berresten dute: Urkizuren 1737ko liburuko neutralizazio-adibide gehienak herskari aurrean eta hitz amaieran daude; aitzitik, Elorrioko ziri-bertsuetan ondo bereizten dira lepokaria eta apikaria 6 *es* 'ez' bakanean izan ezik (eta testuan 10 *ez* ere badago).

Eremukako aldeak alde eta aldaketen erritmoak erritmo, Euskara Zaharraren eta Lehen Euskara Modernoaren arteko trantsizio-urteetara arte ez dago egoera orekaturik ikusterik Bizkaian: neutralizazioak aurrera egin zuela ez da zalantzarik XVIII. mendearen bigarren erdiko lekukotasunen argitan, baina hainbat idazleren hautuek eragotzi egiten dute neutralizazioa norainokoa zen ikustea: sistema grafiko bereizlea hautatu zuten Arzadunek, Olaetxeak, Iturrizak eta Apoitak, adibidez; bestalde, (ia) txistukari guztiak <s>-ren bidez adierazi zituen Zolloko 1770eko galdetegia prestatu zuen eskribauak. Kasu batean zein bestean, beraz, ez dago jakiterik norainokoa zen zehazki bereizketaren galera.

Horren berri izateko, garai eta inguru bertsuko idazleen lanak alderatu behar dira (begiratu §5.3.3.2.1 atala). Informazio ziurrena, halere, sistema grafiko bereizle bat ezarri nahi arren hori lortu ez zuten idazleek islatutakoa da: Sarriaren sermoiek eta Gernikako eta Abadiñoako Gabon-kantek argiro islatzen dute neutralizazio burutua XVIII. mendearen amaieran / XIX. mendearen hasieran Bizkai gehiengan, nahiz eta Markina aldeko baserri batzuetan berba-bikote batzuetan behintzat bereizketa homofonia saihesteko gorde omen zen XX. mendearen hasierara arte (Rollo 1925: 6-7).

Aurreko egoera ikusita, Bermeoko euskararen ere neutralizazioa oso aurreraturik edo buruturik espero zitekeen, baina De la Quadraren lekukotasuna ez da egokiena hori frogatzeko, ez baitzen bermeotarra, ezpada bilbotarra. Bere testuko txistukariez aritzean esandakoarekin bat, uste dut kokagunez kokaguneko adibideen gorabeherak eta aldaeren arteko lehiak zerikusi handiagoa izan zutela idazlearen hautu grafikoekin: Bizkaiko sartalde-erdialdean (gutxienez) aurreraturik edo buruturik zegokeen neutralizazioa, eta De la Quadrak tarteka besterik ez bide zuen islatu eremu zabal horretako egoera linguistikoa, tarte horiek neutralizazioa islatzeko behar bezain handiak izan arren. Aurrekoari loturik, *Errosariyo santuba* liburuak ere oso aurreratuta du neutralizazioa.

5.2.4.1.1.4. Gipuzkoako euskara

5.2.4.1.1.4.1. Gipuzkoako testuen artean ere aldeak ikusten dira, eremua zein den. Gerora bereizketa gorde duten eremuak eta herskari aurreko adibide bakanak besterik ez dituzten testu arkaikoak bazter utzita, interes berezia dute mendebaleko eta kostaldeko lekukotasunek.

5.2.4.1.1.4.2. Deba ibarreko testu arkaiko eta zaharretan bakanak dira, oro har, neutralizazioaren adibideak XVIII. mendea baino lehen: Garibairen A eta B bildumetan herskari aurrean daude adibide gutxi batzuk, Irureren testuan eta Arrasateko XVII. mendearen amaierako ahapaldian legetxez.

Bestalde, Debako garai bertsuko testuen artean bi joera agertzen dira: alde batetik, ez dago neutralizazio-zantzurik Debako seroraren gutunean eta Milia Lasturkoren eresian; beste alde batetik, neutralizazioa aurreratuta zegoen Sasiolaren hizkeran: Mounoleri (inprimategian) jarraikiz, frikarietan kokagune ahulenetan ez ezik, bokal artean eta berba hasieran ere badaude adibideak, bai eta hiperzuzenketak ere herskari aurrean eta bokal artean. Afrikatuetan, bestalde, lepokariaren aldeko neutralizazioa dago adibide bitan. Testua egiazki Lazarragak kopiatu bazuen, Sasiolaren

olerkietan legoke Euskal Herriko mendebaleko beste inon baino aurreratuago txistukarien neutralizazioa ~1600 inguruan.

Aipatutako hiru testuak Deba aldekoak izanik, beharbada hiribildua vs. auzoak edo itsasaldeko auzoak vs. barnealdeko auzoak bezalako oposizioetan pentsatu behar da azalpenen bila;

Nire ustez XVIII. mendekotzat (eta beharbada Arakistainen eskukotzat) jo behar diren Itziarko Ama Birjinaren omenezko bertsoetan ere ez dago neutralizaziorik, baina hautu grafiko-linguistikoen argitan eta balizko egilea nor zen susmatuta, egoera idazlearen beraren ezagutzari eta hautuei egotzi behar zaielakoan nago.

Debatik kanpo, Eibar aldean aurreraturik agertzen da neutralizazioa XVII. mendearen amaieraz gerotik: Eibarko 1685eko kopletan frikarietan herskari aurreko eta hitz amaierako adibideez gain, bokal arteko zenbait ere badaude, baita, beharbada, hiperzuzenketa-zantzuak ere hitz hasieran. Hiribildu bereko ondoko hamarkadetako testuek, gainera, joera berritzaile hori berretsi besterik ez dute egiten: 1721eko kopletan aurreraturik agertzen da bereizketaren galera, eta 1754ko udal-ordenantzan buruturik. Eibartik hegoaldera Amilletaren testua gordetzaile da, ondo bereizi baitzituen txistukariak, baina Barrutiarenean neutralizazio-zantzuak daude frikarietan herskari aurretik, hitz amaieran eta bokal artean.

5.2.4.1.1.4.3. Urolako testuetan, mendebalerago legez, Euskara Zaharraren garaikoak dira neutralizazioaren lehenengo zantzuak; zehazki, aurkitu ditudan zaharrenak *Sumario breve*-koak dira: adibide gutxi eta tarteka arazotsuak izan arren, badirudi bereizketaren galera gertatua edo gertatzen hasia zela herskari aurrean eta bokal artean, eta afrikatuetan ere neutralizazioaren adibideren bat dago. XVII-XVIII. mendeetan Urolan neutralizazioa indartu zela ez dago zalantzarik: Azpeitiko Elosiaga auzoko 1740ko gutunetan ondo gordetzen da bereizketa, baina 1750az gerotiko testuetan arruntak dira neutralizazioaren adibideak, baita idazle ikasiagoen artean ere (begiratu Peñafloidaren adibideak, *Grand tour*-ekoak eta Azpeitiko 1786ko udal-agindukoak, adibidez).

Frikarietan apikariaren eta afrikatuetan lepokariaren aldeko neutralizazioekin batera, garai bertsuan agertzen dira gerora ere ezagutu den lepokariaren aldeko neutralizazioa frikarietan.⁴⁴⁹ Zehazki, Urolan *Sumario breve*-koak dira adibide

⁴⁴⁹ Cf. “Hay también, sin embargo, otras neutralizaciones más locales. Así, en Azpeitia y Azkoitia encontramos “zezeo” con zeta dental, mientras que en partes de Gipuzkoa: *ts* se confunde con *tx*” (Hualde 2010: 98).

zaharrenak, eta *Grand tour* antzerki-lanean ugari agertzen dira mende eta erdiren buruan.

5.2.4.1.1.4.4. Gipuzkoako mendebalaz gaindi, arreta nabarmena ematen dute Donostiako XVIII. mendeko testuek, txistukarien neutralizazioa oso aurreratuta edo burututa dagoela baitirudi. Egia esatera, Donostian txistukarien neutralizazioa agertzea ez da ezustekoa, kostaldeko hizkerari buruzko monografikoetan behin baino gehiago aipatu baitira neutralizazio-fenomenoak (cf. Agirretxe *et al.* 1998: 52, Camino 2000, Sagarzazu 2005, Agirrebeña *et al.* 2017 eta abar). Ezusteko handiagoa da, ordea, Lubietaren hiztegian neutralizazioa aurreratuago egotea Bizkaiko garai linguistiko bereko (Euskara Zaharraren bigarren erdia edo azken hamarkadak) zenbait eremutako (gogoratu Durango aldeko testuez esanak) hizkeretan baino.

Lubietarenean frikarietako neutralizazioan gerta zitezkeen bi ebakerak gurutzatzen dira: apikariarena eta lepokariarena, eta biek dute indarra. Corpusean sartutako laginak, gainera, informazio interesgarria ematen du batzuen eta bestetzuen banaketaz. Alde batetik, jatorrizko apikaria <s>-z duten adibideen % 85,9 maileguak dira, eta gainerakoak ondare zaharrekoak; aitzitik, <z> eta <c> dutenen % 84,3 ondare zaharreko euskal hitzak dira. Badirudi, beraz, apikarietako <s> mailegatutzat jo daitekeela, eta ondare zaharreko berbetan hedatua zela lepokariaren aldeko neutralizazioa. Beste alde batetik, jatorriz lepokaria zegoen kasuetan ez dago hitzen jatorriaren edo antzinatasunaren araberrako banaketarik: gehienetan (% 69,26) <z> edo <c> agertzen dira, baina heren batean (% 30,73) <s> agertzen da, eta heren horretatik erdiak baino gehixeago (% 54) herskari aurrean eta berba amaieran daude.

Afrikatuei dagokienez, neutralizazioa oso aurreraturik zegoen: adibideak ez dira asko, baina % 90ek <z> edo <c> dute; badira, gainera, zenbait hiperzuzenketa, denak ere *-tzen* atzizkiari loturik, non <s> agertzen baita jatorrizko apikari lepokariaren lekuan, eta kontu grafikoa baino gehiago izan daitezke Irungo datu modernoagoen argitan (cf. Sagarzazu 2005: 67).

Lubietta donostiarraren datuak ez dira isolatuak: Donostian bertan neutralizazioen indarra islatzen du Pepe eta Josefa maitaleen arteko gutuneriak, bai eta XIX. mendeko antzerki-idazle eta bertsolarien testuek ere; egungo euskarari buruz, begiratu Camino (2000: §4.1.11 eta §4.1.12)

5.2.4.1.1.4.5. Donostiako datuek ez ezik, Hondarribikoek ere argiro islatzen dute neutralizazioaren supradialektaltasuna: Bonapartek XIX. mendearen bigarren erdian deskribatutako dialektoen sailkapenak XVIII. mendearen amaierarako ere balioko balu,

gutxienez hiru euskalkitan egongo litzateke ez kokagune ahulenetara bakarrik baina heda zitekeen kokagune guztietara hedatutako neutralizazioa: *bizkaiera*, *gipuzkera* eta *iparraldeko goi-nafarrera* deitutakoen zenbait azpi-euskalki edo hizkeretara bai, behintzat. Izan ere, Hondarribiko 1778ko predikuak kokagune guztietan eta hala frikari nola afrikatuetan dakartza neutralizazioaren adibideak, eta, are gehiago, lepokarien aldeko neutralizazioa ere Donostiatik eskuin hedatua zela erakusten du (Letamendia & Sagarzazu 1992: §3.1.3.1).

Aurrekoez landara, ez dirudi Lapurdiko kostaldean neutralizazioa Hondarribian edo Donostian bezain aurreraturik egon denik, baina gogoan hartu behar dira Bonapartek (1869: 255) XIX. mendean Donibane Lohizune aldean deskribatutakoak: neutralizazio-zantzuak zeuden herskari aurrean (begiratu Duhalde 2019: 160-161). Hain zuzen ere, informazio hori bat dator Mujikak (2002: 200) deskribatutakoarekin: lapurtar idazle klasikoen artean kostaldean ugariago islatzen da neutralizazioa herskari aurretik.

5.2.4.1.2. Neutralizazioaren norabidea eta difusio-eredua

5.2.4.1.2.1. Aurretik aipatu legez eta Mitxelenarekin (*FHV* 232) bat, txistukarien neutralizazioa oro har mendebaletik ekialdera zabaldu da, nahiz eta ikuspegi orokor horri hainbat zehaztapen egin behar zaizkion. Gogoan hartu behar da Mitxelenak berak Bilbo jo zuela fenomenoaren sorlekutzat, Mikoletarenean aurreraturik baitzekusan; orduz geroztik agertutako testu batzuek eta ezagutzen ziren iturrien berrirakurketek, aitzitik, argi gehiago eman dute berrikuntzaren sorlekuez eta difusioaz, norabidea funtsean mendebala → ekialdea izan arren.

5.2.4.1.2.2. Hasteko eta behin, ez dirudi bereizketaren galera foku berritzaile bakar bati lotu behar zaionik, ezpada hasiera batean fenomeno multifokala izan zela: Euskara Arkaikoan eta are Euskara Zaharraren lehenengo hamarkadetan kokagune ahulenetan bereizketa galtzea ez zen mendebaleko euskararen ezaugarri eksklusiboa, baina XVI. mendeko eta XVII.aren lehenengo erdiko zenbait testuk aurreratuago islatzen dute bereizketaren galera, (a) kokagune ahulenetan adibideak ugariago direlako, (b) hiperzuzenketak dituztelako zein (c) kokagune ahulenez gairiko adibideak ere badituztelako.

Kokagune ezaguneko testuak bakarrik hartuta, foku batez baino gehiagoz berba egiteko aukera ematen dute Landuccik Gasteizen, *Enojaduric*-ek eta Mikoletak Bilbon, Sorg1616-k Busturin, Sasiolak Deban eta *Sumario breve*-ak Azkoitian. Denbora-tarte berean oso aintzat hartzekoak dira beste testu batzuk, nahiz eta oso laburrak edo jatorri

ezagun zehatzik gabeak izan; cf. UrduñHizt eta VJesus. Halaber, gogoan hartzekoak dira garai berean bereizketa ondo gordetzen duten testu luzeagoak, hala nola *Egiaren kanta*, eta Kapanagaren eta Zubiaren dotrinak. XVII. mendearen azken hamarkadetan eta XVIII.aren lehenengoetan bi foku berri gehitu behar dira, gutxienez, biak ere Gipuzkoan: Eibar eta Donostia.

Banaketa geografiko horren argitan zaila da pentsatzea neutralizazioa foku bakar batetik eta uhinen ereduaren arabera hedatu zenik: eredu hori aplikatuta, bereizketaren galerak aurreratuago egon beharko zukeen, hurbiltasun-hatsarre hutsagatik, Durangon Eibarren baino, adibidez, eta zer esanik ez Orozkon edo Durangon Donostian baino. Nire ustez, txistukarien neutralizazioaren hedadura hobeto azaltzen da eredu konbinatu bat erabiliz: alde batetik, eta distantzia ertain-luzeetarako grabitate-guneen ikuspegia baliatuz; beste alde batetik, distantzia laburretarako, kutsadura bidezko hedatzean pentsatuz.

5.2.4.1.2.3. Grabitate-ereduan oinarritutako analisi zurruna egiteko datu nahikorik ez badago ere, argi ikusten da patroi horren gidalero nagusiak erabil daitezkeela txistukarien neutralizazioari lotutako gorabeherak azaltzeko: grabitate-ereduak errazago azaltzen du zergatik gertatzen zen neutralizazioa elkarrengandik urruti xamar zeuden zenbait hiriguneren artean eta zergatik diren neutralizazio-zantzuak apalagoak bi hirigune horien arteko zenbait lurraldetan. Funtsean, ereduarekin lan egin dutenek behin baino gehiagotan erakutsi dute biztanleria-dentsitate handiena duten hiriguneak izan ohi direla berrikuntzen sorleku eta eremu linguistikoki eredugarriak (begiratu §2.4.4.3 atala). Berrikuntzen iturburu izan ohi dira hiri, hirigune eta eskualdeburuak:

On average, urban centres play a more active role in the spatial diffusion of linguistic phenomena than does their rural hinterland. The driving force behind the impact of urban centres is to be found in a number of social factors that sociolinguistics has focused on more than classic dialect geography has done (...) The denser the network in which the individual participates, the less he/she will be exposed to external influences and (hence) the more conservatively he/she will behave. On average social networks are less dense in urban centres than in rural communities. (Taeldman 2005: 276)

Grabitate-ereduak edo eredu hierarkikoak, egin zaizkion kritikak kritika, hobeto azaltzen du *Atlas Linguistique de la France*-ko datuen azterketak erakutsi zuena:

El centro de expansión es casi siempre París y sus alrededores; de allí, las palabras se difunden por diversas vías al resto de la nación. Cuanto más estrechos son los lazos entre este centro y una región cualquiera más favorables son las condiciones para la expansión lingüística. (...) Intervienen también otros factores de orden cultural que deciden a menudo la suerte de las palabras en sus migraciones. Un centro de cultura está más dispuesto a aceptar las innovaciones lingüísticas procedentes de la capital que una localidad sin importancia cultural (...) Así se

explica, por ejemplo, por qué la región circundante de la ciudad de Burdeos, aunque situada lejos de París, y en cierto modo aislada geográficamente (constituye, por tanto, un «área periférica» o lateral, para usar una expresión que se ha hecho habitual en la terminología lingüística), modifica sensiblemente su habla bajo la influencia de la lengua literaria, mientras que las regiones entre París y Burdeos, o más cercanas a la capital, conservan todavía muchas de las características de sus hablas locales. (Jordan 1967: 263-264)

Azken batean, biztanleria gehiago biltzen duten hirien arteko harremanak estuagoak izan ohi dira bai ikuspuntu politiko-administratibotik, bai ekonomikotik, bai soziokulturaletik: jende gehiagok jo behar izaten du horietara landa-eremura edo demografikoki bigarren, hirugarren zein laugarren mailan dauden herri edo auzoetara baino, hirietan eskaintzen baitira zerbitzu gehiago eta hirietan eskaini baitaitezke zerbitzu gehiago: “denser populations communicate more with one another than do residents of sparsely populated areas” (Wolfram & Schilling-Estes 2003: 728); “Además, la movilidad tanto social como espacial de los hablantes provoca una mayor exposición al fenómeno de la acomodación lingüística y, consiguientemente, de la transmisión de las innovaciones surgidas del cambio lingüístico” (Hernández-Campoy 2001 [1999]: 329).

5.2.4.1.2.4. Grabitate-ereduak baliatu dituzten ikerlan gehienek bi ezaugarri dituzte: egungo hizkuntzak edo dialektoak dituzte aztergai, eta urbanizazio-prozesu bizia pairatu duten edo hierarkia urbano nabarmenak dituzten herrialdeetan errazago aplikatu dira (§2.4.4.3). Trudgillek (1974) grabitate-ereduen proposamena geografiaren esparrutik (sozio)linguistikara eraman zuenean Paris, Stuttgart, Kolonia, Berlin, Kopenhagen, Bergen, Stavanger eta Kristiansand izan zituen hizpide eta aztergai, eta inork pentsa lezake Euskal Herria (edo, are murrizago, Euskal Herriko mendebala eta kostaldea) eremu horien pareko aztergaitzat hartzea ezegokia dela, ez baitago Euskal Herrian horien pareko hiririk eta hierarkia urbanorik. Aitzitik, eskala-kontua baino ez da: grabitate-eredua arrakastaz aplikatu izan da eremu txikiagoetan, hala nola Murtzian (Hernández-Campoy 2004, 2008):

Gipuzkoako hirien azalera Gaztelako naiz Europako hirigune batzuenarekin alderatzen badugu, inolako zalantzarik gabe, hemengoei “aglomerazio ñimiño” dei diezaiekegu. Gipuzkoako hiri gehienek esparru harresitua ez da zazpi hektareara ere iristen. Hala ere, kontuan hartu behar dugu, lege aldetik, hiri txiki hauek, ehun, berrehun edo lauhun hektareatako hiri handien ezaugarri berdinak dituztela. Tamainaz txikiagoak izateak ez du esan nahi bertako biztanleen askatasunak eta eskubideak txikiagoak zirenik. (Arizaga 1994: 28)

Euskal Herriari dagokionez, halaber, badago informazio historiko interesgarriak hiribilduak vs. landa-eremua kontrajartzeari loturik:

Hiria, ordea, hori baino gehiago da. Erdi Aroko hiria irmo eraikitako barruti harresitu baten gisara ageri da eta harresi horrek lurralde bat bereizten du, zuzenbide berezia eduki ohi duena,

eta zuzenbide berezi hori, hastapen gisa besterik ez bada ere, hiritar guztien arteko berdintasun modernoaren iragarpena da. Hiri barruan erakunde bat dago gizartearen agintaritze eramateko, kontzejua edo udala, alegia, eta bertako biztanleen ezaugarria ekonomi iharduera ezberdin askotan aritzea da, landa mundukoek ez bezala, horiek nekazaritzan bakarrik aritzen baitziren. (Arizaga 1994: 9)

Hiribildu jakin batera joaz, Eibarri loturiko azalpenok argigarri askoak dira, batean eta bestean berandura arte dinamika ezberdinak bizi izan direla erakusten dutelako:

Formada la villa, no todos los habitantes de las inmediaciones se resignaron á encerrarse entre los muros (...) Bien que cuando se dijera Eibar, se entendiera todo Eibar, el comprendido dentro de las murallas y el que se espaciaba fuera de ellas. Pero que no se hablara de los solares altivos y libres cuando se dijera *la villa*. Ellos no eran *la villa*; *la villa* eran los del centro. Cuando se quisiera hablar de todos en general, se diría «la villa y su jurisdicción» ó bien «la villa y su tierra». Ellos eran *jurisdicción, tierra* de Eibar, pero no eran *la villa* de Eibar: ese nombre quedaba para los resignados á la esclavitud de un círculo de piedras.

Y no solo en cuestión de nombres cifraban los solariegos eibarreses la existencia de la libertad, no. Llevaban las ideas al terreno de los hechos, y si un año las personas que habían de regir al pueblo eran designadas por los vecinos que moraban «dentro del cuerpo de la villa» en manos de quienes se depositaría la dirección de los poderes locales. Y cuando el clarín enemigo sonaba en las orillas del Bidasoa, allá acudían prestos los eibarreses, sí, pero elegidos con la debida distinción: unos de la calle, de la montaña otros. La variedad dentro de la unidad. Dos libertades con las manos enlazadas. (Mujika 1910: 6-7)

5.2.4.1.2.5. Euskal testuetara etorrira, txistukarien neutralizazioari loturik, bi arrazoik pentsarazten didate grabitate-ereduan: (a) adibideak agertzen diren lekuen sakabanaketak eta (b) leku horietako gehienak hiribildu edo eskualde-buru izateak: Atutxa & Zuloaga (2014) lanean azaldutako ideiarekin bat, beraz, hasiera batean multifokala izan zitekeen bereizketaren galera, baina biztanleria-gune handienetan aurreratu zen, eta horietatik hedatu.

Eskema hierarkikoak, dena den, ez du sistematikoki bat egiten biztanleria-guneen izaerarekin: kasuren batean neutralizazioa aurreraturik agertzen da, nahiz eta neutralizazio aurreratu hori ez den hiribildu bateko iturrietan agertzen: Sorg1616ko adibide goiztiarrak ditut gogoan, adibidez, Busturia bost auzo biltzen dituen elizatea baita, ez hiribildu baten inguruan ardaztutako herria. Busturin gertatzen zena hobeto ulertzeko, Busturiko bertako datuez gain, lagungarri izango lirateke garai bereko Bermeoko eta Gernikako datu demolinguistikoak zehatz ezagutzea; nolahi ere den, aintzat hartzekoa da Busturia kokagune estrategikoan zegoela eta dagoela: Mundakako itsasadarrean, Gernika eta Bermeo artean, Bizkai barnealdetik itsasora zihoazen eta doazen bideen bidegurutzean.⁴⁵⁰

⁴⁵⁰ Cf. “Occasionally, a change may reach a smaller city before a slightly larger area, perhaps for geographic reasons, such as difficult terrain, or for social and demographic reasons, such as high concentration of a certain social class in a given city” (Wolfram & Schilling-Estes 2003: 725).

Beste kasuren batean, badirudi hiribildu izateak ez zekarrela bereizketaren galera garai berean sistematikoki hedatzea; Elorrion, adibidez, Eibarren baino beranduago galdu bide zen bereizketa: XVIII. mendeko ziri-bertsoetan adibide bakarra dago, eta gogoratzekoa da Larramendiren (1745: xxvii) azalpena, Bizkaia/Gipuzkoa mugaldean eta Markinan eta Elorrion “muy dulcemente y con gusto” hitz egiten zela eta *aza* eta *atza* bereizten zirela zioena. Horrek, halere, ez du zertan eredu hierarkikoaren aurka egin, zenbait hirigune gordetzailer ere izan baitaitezke (Taeldman 2005: 208). Horri loturik azaldu beharko lirake, halaber, Markinan XX. mende hasieran homofonia saihesteko txistukari frikarietan bereizketa gordetzen zuten berba-bikoteak.

5.2.4.1.2.6. Esan bezala, difusio-eredu hierarkikoetan hiriguneak eta hiriak izan ohi dira foku berritzaile, horietan metatzen baita berrikuntzaren arrakasta errazago berma dezakeen biztanleria gehiago eta horietan sortutako berrikuntzak prestigiotsuagoak izan ohi baitira. Hiribildu eta hiriei, beraz, herri txikiagoak, landa-eremua eta baserri-auzoak kontrajartzen zaizkie: hiribilduan sortzen den berrikuntza bigarren edo hirugarren mailako (biztanleria gutxiagoko) gunetara hedatzen edo “jaisten” da, eta landa-eremura eta baserri-auzoetara zabaltzen da ondoren. Gutxi izanagatik, historikoki badaude goitik beherako difusio hori islatzen duten zenbait adibide txistukariei loturik:

- (i) Kasu ezagunena orain dela hogeitun urte azaldu zuen Lakarrak (1996: 132-133), Bizkai sartaldekoko testuak erkatu zituenean. Hain zuzen, txistukarien neutralizazioari dagokionez, VJesus-en (ca. 1640) Orozkoko 1739ko otoitzetan baino aurreratuago dago neutralizazioa, nahiz eta otoitzak mende bat beranduagokoak izan; tamalez, oraindik behintzat ez dago VJesus nongo testua den zehatz esaterik, baina badirudi ez dela Orozkotik urrun kokatzekoa (Ulibarri 2010, Zuloaga 2013). Bestalde, garai bertsuan Mikoletaren eskuizkribuak antzeko egoera islatzen du: berriz ere mende bateko tartea egon arren, Mikoletaren eskuizkribuan ikus daitezkeen zantzuek islatzen dute neutralizazioa aurreratuago zegoela bilbotarrarenean Orozkoko 1739ko otoitzetan baino.
- (ii) Antzuolako Amilletaren dotrinan zurrun gordetzen da lepokari/apikari bereizketa: herskari aurrean ere ez dut aurkitu neutralizazio-zantzurik. Aitzitik, Eibarko koplek kokagune ahulenez gaindiko adibideak dakartzate garai bertsuan. Kasu honetan ez dira kontrajartzen hirigune bat eta landa-eremua, ezpada hirigune bat eta elizate bat; kokagunea eta bilakabide sozioekonomikoa direla

eta, badirudi Eibar garrantzitsuagoa eta garatuagoa izan dela historikoki Antzuola baino. Nolanahi ere den, Eibar eta Antzuola artean Bergara dago, eta izango zukeen eraginik inguruko euskararen egituratze geolinguistikoa, baina ez dut ezagutzen hori aztertzeko garai hartako testurik: Zumaldek (1986) argitaratutakoa 1780ko hamarkadakoa da, eta badirudi ez duela Bergarako euskara islatzen (Zuazo 2006a: 1006); txistukariei dagokienez, ondo bereizten dira apikari eta lepokariak bi sailetan, *adizquidetasunaz* bezalako adibideren batean izan ezik.

(iii) Urolan ere arreta ematen du ~1750 ondoko testuetan neutralizazioa islatu arren, apur bat lehenagoko 1740ko gutunerian bereizketa ondo gordetzea are kokagune ahulenetan ere: neutralizaziotzat jo daitekeen kasu bakarra lepokariaren aldekoa da (1 *gurazoac*). Kasu honetan, bada, lehenengo bi gutunen idazlea nor eta nongoa zen hartu behar da aintzat: Maria Josefa Altzaga, azpeitiar handiki-familiakoa, etxea ez Azpeitian bertan, ezpada Elosiaga auzoan zuena, Urrestillara bidean. Ematen du berrikuntza iritsi gabea zela landa-eremura.

(iv) Aipatuko dudan azken kasua Debari dagokio: Sasiolaren testuetan aurreratuta agertzen da neutralizazioa, Debako gainerako testuetan ez bezala. Kontrajartze hori auzokakoa izan daitekeela aipatu dut lehen, nahiz eta kasu honetan ziurgabetasunak handiagoak diren: sasiolatarrak Deba hiribilduari loturik bizi zirela ez da zalantzarik, besteak beste hiribilduan mantentzen delako euren dorretxe izandakoa eta hala hiribilduan nola inguruko herrietan zenbait kargu izan zituztelako (Urkizu 2005).

Ana Urrutiak 1596an idatzitako gutunean ez dago neutralizaziorik eta badakigu Debakoa zela, baina ez nongoa zehazki. Halaber, Milia Lasturkoren eresia bere ahizpak kantatu omen zuen Arrasaten (*TAV* 74), eta horretan ere ez dago neutralizaziorik. Ahizpa ere Lasturkoa izatera, atal honetan hizpide dudan ereduak errazago azalduko luke testu arkaiko horien arteko aldea, pentsatuz hiribilduan aurreratua zegoela neutralizazioa, barnealdeko landa-eremuko auzoetan ez bezala. XVIII. mendean Itziarko Ama Birjinaren omenez idatzitako bertso-sortetan eta Aldazabalen liburuan, bestalde, idazleen hautuek azaltzen bide dute neutralizaziorik eza; alegia, bereizketa nahia eta nahi lortua izan izana.

5.2.4.1.2.7. Neutralizazioa eredu hierarkiko bati jarraikiz hedatu zelako ideia ez da berria, egia esatera. Soziolinguistek grabitate-ereduak formulatu eta difusio-eredu gisa ezagutarazi baino lehen hainbatetan eman izan dira eredu hori islatzen duten deskripzioak, baita Euskal Herrian ere.

Markinako euskararen deskripzioan, homonimia saihesteko apikari/lepokari bereizketa gordetzen zuten zenbait berba-bikote aipatu zituen Rollok, eta, areago, zehaztu egin zuen bereizketa hori Markina inguruko herritxo eta baserrietan gordetzen zela, ez Markinako kaleetan bertan: “What has been said about the difference between *s* and *z* refers only to the inhabitants of small villages and farms in the hills and even then only to the oldest inhabitants. In the streets of Marquina and amongst the rising generation very little difference if any is heard” (Rollo 1925: 7).

Hain zuzen ere, pareko informazioa eman zuen Mitxelenak Gipuzkoaz ari zela, nahiz eta, tamalez, ez zuen herri zehatzik aipatu: “[La neutralización] gana terreno en Guipúzcoa, sobre todo en las poblaciones de alguna importancia: no es infrecuente que la distinción se mantenga bien en los caseríos vecinos cuando se ha perdido en el casco de la población” (FHV 231) eta “[La neutralización] sigue propagándose hoy en día por Guipúzcoa, extendiéndose desde las poblaciones importantes a las pequeñas y desde el casco urbano a la población dispersa de los caseríos” (1968: 345).

5.2.4.1.2.8. Donostiako eta Hondarribiko XVIII. mendeko hizkeretan neutralizazioak zeudela ere ez da datu berria, aspalditxo argitaratu baitziren Pepe eta Josefa maiteminduen arteko gutuneria eta Roque Jazinto Salazarren predikua. Alabaina, Lubietaren testuaren aurkikuntzak are nabarmenago egin du Donostia eta Hondarribia aldeko euskara aztertzeak duen interesa txistukarien neutralizazioaren difusio-eredua argitzeko, oraintsu arte ustez indartsuago egon den eremutik urrun baitaude bi gunek, eta are urrunago egon behar baitzuten XVIII. mendean.

Gipuzkoako *hinterland*-ari dagokionez, Urolako hiribilduek harreman sarria izan zuten bai Gipuzkoako kostaldeko hiribildu hurbilenekin (Deba, Getaria, Zarautz), bai Donostiarekin, besteak beste merkataritza-harremanak tarteko: esate baterako, Maria Josefa Alzaga azpeitiarrak 1740an bere koinatu Josef Jerobi donostarrari euskarazko gutunak idaztean kontu ekonomikoak zituen mintzagai nagusi: “Gogoan hartzekoa da, halaber, idazten duena negozioetan ari den emakume burges bat dela, Azpeitiko familia

aberats bateko kidea, eta gutunaren hartzailea Donostiako merkataria ezaguna dugula” (Madariaga *et al.*, 2009: 10).⁴⁵¹

Bizkaiko eta Gipuzkoako egitura geolinguistikoa mendebalek ekialderantz zabaldu bide zen neutralizazioa: Bilbotik Donostiara zuzenean, adibidez, difusioa pibot-funtzioa bete zezaketen hiribilduen (kostaldekoak eta Urolakoak, esaterako) laguntzarekin.

5.2.4.1.2.9. Aurrekoez landara, beste gertakizun nabarmenago eta garrantzitsuago batek ere lotzen ditu Urolako eta Donostiako hizkerak: frikarietan forma neutralizatuak lepokari ebakitzeak. Izan ere, ebakera hori ez da Bizkaitik zabalduko berrikuntza, ezpada Gipuzkoan bertan Euskara Zaharrea sortutakoa: ezaugarria deskribatzean aipatu dudanez, lotura izan dezakete bi ebakerek, apikarien aldekoa mendebalek ekialderantz hedatu eta horren aurrean hiztunek lepokarien aldeko hiperzuzenketak sortu, hedatu eta egonkortu bazituzten. Neutralizazioaren berrikuntza, beraz, historikoki eta arian-arian bestela gauzatu da Deba ibarretik eskuin. Urolako eta Donostiako (eta are Hondarribiko, 1778ko testuko adibideak ez hiperzuzenketa isolatutzat –Letamendia & Sagarzazu 1992: 513– baina lepokariaren aldeko neutralizazioaren dinamiken menpekotzat jotzen badira) hizkerak biltzen ditu lepokariaren aldeko neutralizazioa, eta Gipuzkoa barnean dinamika propio bat islatzen du: *Grand tour*-ean eta Lubietaren testuan item lexiko berberei loturik agertzen dira jatorrizko apikariaren lekuan <z> edo <c> duten aldaerak: ondare zaharreko euskal hitzei gehienetan (adibideen % 84,3 Lubietarenean eta % 86,96 *Grand tour*-ean).⁴⁵²

Lepokariaren aldeko neutralizazioa non sortu zen erabakitzea zaila da, erkaketa-lanerako ez baitago *Sumario breve*-aren testu garaikiderik Donostian. Lepokari-ebakera ez da txistukariaren neutralizazioa gertatu den eremu guztietan hedatu, ezpada azpi-eremu tinko batean, eta horrek foku bat bilarazten dit. Aukerak, funtsean, bi dira: alde batetik, Donostia; beste alde batetik, Urolako hiriguneak, Azpeitia eta Azkoitia.

Donostia dela eta, Caminok aurrez aurre gogorarazi bezala (cf. Atutxa & Zuloaga 2014: 29-30, 9. oin-oharra), gogoan hartu behar da egungo Donostia ez dela orain dela mende eta erdiko Donostia. Gogoan hartu behar da hiriak historikoki gaskoien eragin handia izan duela, Gipuzkoako hiriburua Tolosa izan zela 1854ra arte,

⁴⁵¹ Gogoratzekoa da gutun horietan ez dagoela mendebalerago zabalduko zegoen neutralizazioaren adibiderik, baina behin agertzen dela 4 *gurazoac* berba, Urolako dinamika linguistikoen argitan espero zitekeenarekin bat.

⁴⁵² Mende eta erdi lehenagoko *Sumario breve*-an (1614) ez dago halako banaketarik ikusterik: adibideen erdiak maileguz daude lotuta (1 *zalbazioa*, 5 *zerbiduko*, 12 *espozea*...) eta beste erdiak ondare zaharreko berbei (16 *gaizozen*, 19 *siñiztu*, 24 *adizkidea*...).

Donostiako Parte Zaharreko harresiak 1860ko hamarkadan eraitsi zirela eta horrek guztiak bereizketa eta beregaintasuna eman ziela bai Parte Zaharrari, bai egungo Donostia osatzen duten auzoei. Harresien barnean bilduta egon arren, garrantzia historiko nabarmena izan du Donostiak: Gipuzkoako hiribildu zaharrena da (Nafarroako Antso Jakitunak 1180 aldera fundatua), eta haren forua hartu zuten bai Gipuzkoako kostaldeko herri gehienek (Mutriku, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orrio eta Hondarribia), bai barnealdeko zenbaitek (Usurbil, Hernani, Errenteria); begiratu §5.2.2.1.2.12 ataleko azalpenak eta mapa.

Ikuspuntu linguistikotik aintzat hartu behar da ez dirudiela Gipuzkoako barnealdera begira behintzat Donostia foku hedatzaile izan denik eta aparteko eragin linguistikorik izan duenik: XVIII. mendearen bigarren erdian ez Donostian baina eremu mugakideetan arunt ziren zenbait erregela fonologiko (tesi honetan landutako eufonia nagusiak, adibidez) Donostiara zabaldu gabeak zeudela dirudi, XIX. mendean zehar hedatu eta sistematizatu zirela (Camino 2000: 69-70, Zuloaga & Duhalde 2019); aitzitik, txistukarien neutralizazioaren dinamikak ez du erregela horiekin bat egiten: Lubietaren hiztegiak argiro islatzen du bai neutralizazioa afrikatu eta frikarietan, bai frikarietan neutralizazioa euskal ondare zaharreko berbetan nagusiki leporari gauzatzen zela.

Urolako hiribilduei dagokienez, gogoan hartu behar da Donostia baino beranduago fundatu zirela eta sinergia demolinguistiko eta sozioekonomikoak kostaldera begira gertatu izan direla batez ere, Azpeititik eta Azkoititik Zestoara eta Getarira (ez da ahaztekoa hiribilduon fundazioak Arrasatetik Getarirako merkataritzabidea sendotzea zuela helburu, besteak beste). Nortasun nabarmeneko guneak dira biak, eta garrantzi historiko nabarmenekoak (XIX. mende hasieran Azpeitin ezarri ziren Gipuzkoako korregidorea eta bere epaimahaiak, eta aurreko mendeetan probintziako gobernuaren bizilekua eta batzarlekua aldian-aldian hileka aldatzen zelarik, Tolosa, Donostia, Azpeitia eta Azkoitia artean aldatzen zen); aitzitik, ez dirudi Urolako hiribilduok hurreko lurretatik haragoko eragin linguistiko handirik izan dutenik: $a + a > ea$ badute, adibidez, iparralderago ez bezala, eta txistukarien neutralizazioaren eredu (frikarietan leporarien alde) ez dute hedatu ez hegoalderantz, ez mendebalerantz.

Aurreko guztiak gogoan harturik, sinesgarri begitantzen zait Donostia jotzea Gipuzkoako fokutzat, eta leporariaren aldeko neutralizazioa handik beste hiribildu eta portu batzuetara hedatu zela pentsatzea, Azkoitiara eta Azpeitira alde batetik, eta itsasaldera beste alde batetik (itsaso linguistikoaz, begiratu hurrengo azpi-atala). Horrek

ez du baztertzeko dena den, gerora bigarren eta hirugarren mailako difusioak gertatu izana, betiere probintziaren iparraldean eta mendebalean.

5.2.4.1.2.10. Orain arte aipatutako eremu gehienak lurraldearen barnealdeari lotutakoak izan dira: Bizkai, Araba zein Gipuzkoa barnealdeko hiribildu, elizate eta auzoak izan ditut hizpide oro har, eta ezaugarria gerora ezagutu den lurralde osora hedatu baino lehen biztanleria-gune handienetan neutralizazioa aurreratuago egon zela erakutsi uste dut bai hiribilduetako bertako adibideen bidez, bai zenbait eremutan hiribilduetako testuak inguruetako landa-eremuko testuekin alderatuta. Txistukarien neutralizazioaren difusioaz aritzean, ordea, ezinbestekoa da beste eremu bat ere aintzat hartzea: itsasoa.

Mapa linguistikoak hartzen direnean, lurraldea bertan amaitzen dela-eta arrunta izaten da azkenengo arreta-gunea kostaldeko herriak izatea. Horiez haraindi “itsasoa besterik ez dago”, amaitu egiten da lurraldea eta irudi lezake eten erabatekoa gertatzen dela, itsasoaren bestaldean beste herrialde, kultura, hizkuntza eta abarrak daudelako, ezer egotekotan. Aitzitik, Kahanek artikulu klasiko batean adierazi zuenez, itsasoak ez du zertan bereizle izan, konbergentzia-eremu ere izan daiteke: “Linguistically speaking, the sea is medium and contents of diffusion at the same time” (1951: 287). Itsasoaren inguruan egituratutako bizimoduak itsasoko kultura sortzea eta tinkotzea dakar, kulturalki halako batasun bat sortzea kostaldean eta itsasora begira bizi diren biztanleria-guneen artean, baina hori baino gehiago ere badakar: lan- eta merkataritza-harremanek portuz portu sortutako harreman eta loturak, linguistikoki (ere) difusioa eta batasuna eragin dezaketenak. Kahanek berak hiru dimentsioko fenomenotzat jo zuen itsaso bidezko difusioa: denboraren, espazioaren eta indarraren arabera; cf. “the stronger, culturally or politically, the focus, the denser the diffusion; the weaker the focus, the weaker the diffusion; the same focus may be strong at one time, weak at another; the same focus may be strong in relation to one region and, at the same time, weak in relation to another” (1951: 288). Lurralde barnealdeko aipatu izan diren dinamiken parekoak proposatu zituen Kahanek itsasaldeko, bere lanean Mediterraneo adibide zuela.

Aurrekoari loturik, ez dirudi txistukarien neutralizazioa Bizkaitik Lapurdiko kostaldera iritsi izana, leku batzuetan indartsuago eta beste batzuetan ahulago iritsi bazen ere, lurraldearen barnealdeari begira bakarrik azal daitekeenik. Gipuzkoan bertan mendebalaz kanpo neutralizazioa kostaldeko herrietan bakarrik garatu izanak garbi erakusten du hori: kostaldeko herrietan edo kostaldeko herriekin lotura izan dutenetan

hedatu da neutralizazioa, ez barnealdean; ez Beterrin, Tolosan edo Goierriin, adibidez. Lapurdi dela eta, lekukotasunen artean gorabehera handiagoak dauden arren, badirudi egoera bera errepikatzen dela: inon agertzekotan, kostaldeko hirigune nagusian (Donibane Lohizune) agertzen ziren/dira adibideak, ez Saran edo Uztaritzen.

5.2.4.1.2.11. Gipuzkoako lekukotasunen artean arreta handiena Donostiak ematen du; Lubietaren testuak, zehazki. Hemen egindako azterketaren bidez erakutsi uste dut donostiarrarenean bi neutralizazio gurutzatzen zirela frikarietan; alegia, apikariaren aldekoa zenbait kasutan eta lepokariaren aldekoa ugariago (eta euskal ondare zaharrekoetan eta afrikatueta ia sistematikoki). Are gehiago, frikari lepokariaren aldeko neutralizazioa Donostiatik aldetik hedatu zela pentsarazten didaten zenbait argudio aurkeztu ditut, baina kasu honetan ere uste dut itsasora begiratu behar dela, *hinterland*-ari lotutako azalpenen osagarri. Caminok aurrez aurrekoan zioenez, itsasoarekin loturarik izan ez duten Donostiako auzoetan (hala nola herri-izaerari eutsi dion Igeldon) ondo gorde da txistukarien bereizketa (gogoratu gorago Deba hiribilduaren eta barnealdeko auzoen arteko ezberdintasunez aipatutakoa).

Lurraldearen barnealdera begira ez ezik, ezker-eskuin dituen portu-herriekiko ere izan zitekeen Donostia berritzaile eta hedatzaile; zehazki, neutralizazioa mendebaleragotik (Bizkaitik) iritsi zela onartuta, pibot-funtzioa bete zezakeen, inondik jasotako berrikuntza inora heda zezakeen hala berrikuntza jaso zela nola berrikuntzaren hedadura areagotuz: Taeldmanek aipatutako hirien tipologian bigarrenarekin egingo luke bat Donostiak, inondiko berrikuntza hartu eta zabalduko bailuke, era berean konbergentzia eta dibergentzia eraginez: “urban dialects can *adopt* an innovation produced in another (larger) town or in another region enjoying greater social prestige before the surrounding rural areas do. In this case the process has both a *convergent* and *divergent* effect” (Taeldman 2005: 269). Portuaren bidez berrikuntza har zezaketen donostiarrek, bai eta hedatzen lagundu ere: portuz portuko difusioa gertatu zela erakusten du neutralizazioak Gipuzkoako kostalde osoan (eta ez barnealdean) duen hedaturak, eta Donostiako portuak lagungarri izan behar izan zuen, adibidez, neutralizazioak Hondarribira iritsi zitezen.

Are gehiago, Lapurdiko kostaldeko herrien artean Donibane Lohizune aipatu zuen Bonapartek neutralizazio-gaiez aritzean; hots, Lapurdiko kostaldeko hirigune nagusia eta arrantza-jarduera bizikoa. Horrekin guztiarekin loturik, Maitena Duhaldek diostanez, Lapurdiko kostaldean elkarrizketatutako berriemaile arrantzaleek Hondarribiko eta Donostiako portuak aipatu izan dizkiote Gipuzkoaz aritzean.

Aurrekoak onartuta ere, pibot-funtzio “hutsa” baino gehiago ere bete zuen Donostiak nire ustez: mendebaleragotik hartutako neutralizazioa beste hiribildu eta eremu batzuetara zabaldu bide zuen, baina tasun garrantzitsua gaineratuz: frikari lepokariaren aldeko neutralizazioa. Azken hori Donostian sortu bazen, Donostiak pibot “hutsa” baino gehiago izan behar zuen Gipuzkoako egitura geolinguistikoan: gune berritzaile eta sortzailea era berean.

5.2.4.1.2.12. Aurreko guztia kontuan hartuta, beraz, Donostian txistukarien neutralizazioan gertatzen den fenomenologia difusio-eredu konplexuekin lotu behar da.

Barnealdeko lurretara begira eredu hierarkikoaren irudikatze eta azalbideen bidez hobeto ulertzen da bai “neutralizazio klasikoa” (apikariaren aldekoa frikarietan eta lepokariaren aldekoa afrikatuetan) Donostiaraino iritsi izana, bai beharbada horren aurreko erreakzio hiperzuzentzaile baten ondorioz neutralizazioa frikari lepokariaren alde makurtu eta Donostiatik hori hedatu izana hala barnealdeko zenbait eremutara nola kostaldeko zenbait herritara.

Eredu konplexu eta konbinatu horrek hobeto azaltzen du: (a) nolatan dauden apikariaren eta lepokariaren aldeko neutralizazioak Urolako eta Donostia aldeko XVII-XVIII. mendeetako testuetan; (b) zergatik lotzen zaion txistukarien neutralizazioa kostaldeari Gipuzkoan (eta, adibide bakanetan bada ere, Lapurdin); (c) nola gailendu den frikari lepokariaren aldeko neutralizazioa Gipuzkoako eremu bateratu batean (Urolan, Donostian eta kostaldeko zenbait herritan).

5.2.4.2. Beheko bokalaren asimilazioa eta hierarkiaren aurkako difusioa

5.2.4.2.1. Beheko bokalaren oso testu gutxitan agertzen da; besterik da, jakina, zergatik islatzen den hain testu gutxitan, kontuan hartuta VJesus-ek ~1640 aldera oso indartsu islatzen duela asimilazioa (cf. §4.6.2.1.1).

Euskara Zaharreko berrikuntza da *Rui*, eta Euskara Zaharrean kokagune zehatz ezaguna duten testuekin ezer gutxi irudika daiteke bere hedadura geografikoaz: Orozkoko otoitzek dakarte 1739an, baina ez dago alerik VJesus-ek gairik XVII. mendeko testuetan, ez nagusietan, ez laburrenetan. Lehen Euskara Modernoan ere gutxi dira lekukotasunak eta Bizkai sartaldean metatzen dira gehienbat: Zolloko galdetegikoak eta Sarriaren sermoietakoak ditut gogoan. Jaurerriaren sartaldetik kanpo, bestalde, adibide bat dago Amorotoko 1754ko armari batean.

Beheko bokalaren asimilazioa ez da Ipar Euskal Herriko hizkeretara zabaldu (cf. *EHHA*-ko 1053. eta 1118. mapak), eta Hego Euskal Herrian Bizkaitik kanpo aurkitu

ditudan adibide guztiak Lehen Euskara Modernokoak dira, berankorrek: Altzibar azpeitiarraren *Grand tour* antzerki-lanean (1772) badaude adibide bakan batzuk, eta erdialderago Berastegiko 1763ko errezetan aurkitu ditut adibideak. Nafarroa Garaia dagokionez, gerora *goi-nafarrera*-ri zein *hego-nafarrera*-ri emandako lurraldeetan ere 1750az geroztikoak dira, izatekotan, adibideak (Reguero 2017: 39, Zuloaga 2017a: 22).

5.2.4.2.2. Aurreko datuak eskuan zaila da berrikuntzaren historia berreraikitzea edo irudikatzea, adibideak oso eskasak direlako eta sakabanatuta daudelako; nolana ere den, badira arreta ematen duten bi egoera: (a) Hego Euskal Herri osoan 1750~1800 aurreko adibide gehienak Bizkaiko hego-mendebalekoak eta horren mugakide Aiarakoak dira; (b) 1750 baino lehenagoko eta jatorri ezaguneko testu gehienak ez dira biztanleria-gune nagusietan edo ertainetan ekoitziak: ez dago adibiderik Bilbon, Durangon, Bermeon edo Gernikan, esate baterako. Hiribilduetako testuetan agertzekotan, berrikuntza hedatuago zegoen garaietan agertzen dira, XVIII. mendearen bigarren erdiaz geroztik: Bilbon eta Azkoitian, adibidez, 1770ean eta 1772an, hurrenez hurren.

Rui arauaren kasuan arriskutsua da, nire ustez, neolinguisten laugarren printzipioari heldu eta ezaugarriak XIX. mendeaz geroztik Euskal Herri osoan izan duen hedaduraren araberrako berreraiketa-proposamenak egitea. *EHHA*-ko 1053. eta 1118. mapen argitan, inork pentsa lezake ezaugarria Arabatik zabaldu zela, $a + a > ea$ -ren kasuan legetxez, horrek erraz(ago) azalduko bailuke, lehen begi-kolpean, ezaugarria Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan agertzea. Aitzitik, Gipuzkoako erdi-ekialdean eta Nafarroan berrikuntzaren lekukotasun zaharrenak 1750az geroztikoak izanik, ez dirudi hipotesi sinesgarria denik, ordurako ahulduta baitzegoen Arabako euskara.⁴⁵³

Ezaugarriaren hedadura supradialektal fragmentarioa eta aldaketaren izaera aintzat hartuta, egungo egoera hainbat lekutan eta hainbat garaitan gertatutako berrikuntza beregainen ondorio dela pentsatzen dut; hots, uste dut iraganean are

⁴⁵³ Ideia berori beste lan batean (Zuloaga 2017a: 27) aurkeztu nuenean, ohargileetako batek gogorarazi zizkidan Landazuri (1730-1805) arabar historialariaren azalpenak: zioenez, Arabako lautadan ohikoa zen euskara bere aurreko belaunaldiko hiztunen ahotan (Landazuri 1973-1979). Nire ustez, nolana ere den, ez da nahastu behar eremu batean euskarak luzaro edo sendo iraun izana berrikuntza jakin bat hedatzeko ahalmenarekin: zail egiten zait Arabako lautadan XVIII. mendearen bigarren erdian berrikuntza bat $a + a > ea$ ezaguna baino are urrunago hedatzeko bizi-indarra izan zezakeen gunerik aurkitzea; ez dirudi garai zaharragoetarako aipatu izan den Gasteizek leku hori bete zezakeenik ordurako, eta ez hirigune jakin batean baina Arabako lautadan oro har pentsatzeak ere ez dirudi sinesgarria; izan ere, ez dago beheko bokalaren asimilaziorik Albenizen testuan eta Gamizen olerkietan, ez eta Arabarekin muga egiten duten eta aurreko mendeetan Arabako euskararen eragina hartu zuten Gipuzkoako hegoaldeko zenbait eremutan, hala nola Oñatin.

fragmentarioagoa zatekeela ezaugarriaren eremua, eta denbora igaro ahala hiztunen arteko harremanek zenbait eremutan ezaugarriaren hedadura zabaldu eta tinkotu zutela.

5.2.4.2.3. Tesi honen mugarri kronologikoa 1800. urtean jarri badut ere, beheko bokalaren asimilazioaren bilakabide historiko-geografikoa irudikatzeko lagungarria da XIX. mendeko idazle, gramatikari eta dialektologoen bildutako informazioari begiratzea; beraz, ezaugarri honekin salbuespena eginda, horiek ere aintzat hartuko ditut.

XIX. mendearen hasieran *literatur bizkaiera* izendapenarekin ezagutzen den hizkera-ereduak liburu inprimatuen bidez finkatu zituzten idazleen lanei begiratzea lagungarri da zenbait ezaugarriaren bilakabidea argitzeko. Ezagunak dira Juan Antonio Mogelek Pedro Antonio Añibarroren hizkera-ereduarekiko deskribatutako ezbedintasunak: “Ac [Añibarrok] dino *maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, cristinaua...* nic [Mogelek] barriz Marquina inguruan leguez *maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, cristinauba*” (Mogel 1803: 5). Bestelako aipagai batzuk oraingoz bazter utzita, nabarmendu egin nahi dut eibartarrak aipatutako fonetismoen artean ez dagoela *Rui* araurik, Añibarroren *Gramatica bascongada* lanaren hitzaurreko azalpenetan berrikuntza horren adibiderik ez dagoen legetxez:

Mucha parte de Bizcaya, algunos pueblos rayanos suyos, y en las cinco Villas de Navarra poponen una *b* a la *U* de nombres, y conjugaciones: como *Cerua, ceruba; zuec, zube;* *deutsue, deutsue,* y una *j* herida al *ia*, v.g. *arguia, arguija; oguiu, oguija*, pero como en lo restante del pays bascongado no se inovan sus radicales, omitiré dichas *b*, y *j*, siguiendo lo más común, y general; pues sería mucha molestia el haber de repetir por una sola letra tantas dicciones: v.g. el haber de poner segunda vez: *cendubezan, deutsuebezan*, y después de haber dicho: *cenduezan, deutsuezan*. Tampoco desquiciaré de su rayz la mudanza que en dichos pueblos hacen trocando la *e* en *i*, como *bete, betia; orde, ordia*: y la *o* en *u* como *Jangoico, Jangoicua, cuarena; oso, osua*: pues sobre no haber necesidad de mudar estas letras que el uso ha introducido, es más natural, y más fácil de no mudar, y alterar estas letras. (Villasante 1967 [Añibarro ca. 1820]: 13-14)

Mogelen azalpen eta testuetatik ondoriozta daiteke 1800 inguruko Markina aldeko euskaran ez zegoela beheko bokalaren asimilaziorik, eta *Peru Abarca*-ren hitzaurrean (Mogel 1881 [ca. 1802]: 20) argiro islatzen da idazlearen gaitzespena. Añibarroren euskarari dagokionez, ordea, Urgellen (1985, 2001b) lanek erakutsi dute *Rui* araua bazegoela Arratiako euskaran XIX. mendearen hasieran: areatzarrak bazuen ezaugarriaren berri eta, are gehiago, erabiltzetik ez erabiltzera igaro zen.

Juan Mateo Zabalak (1848) Bizkaiko hizkerak eufonia bokalikoaren arabera lautan bereizi zituenean (Markinakoa, Arratiakoa, Erdikoa eta Orozkokoa), ez zuen *Rui* araua aipatu Markina aldeko euskarari buruz hitz egitean, baina bai, zuzenean edo zeharka, garaitiko hizkerez aritzean. Zehazki, Arratiako euskararen bereizgarrien artean aipatu zuen beheko bokalaren asimilazioa:

La segunda clase de efonias es la arratiana. Los de esta merindad pronuncian al natural las cuatro vocales dichas; pero mudan en *e* la *a* monosilaba ó final de diccion siempre que la vocal precedente sea *i* ó *u* v.g. Lo que se dice en pronunciacion natural “*dira, nintzan, deutsat, deuat*” se dice en arratiana “*dire, nintzen, deutset, deuet*”. Lo que en natural “*eguin dau, eldu da, etorri naz*” es en arratiana “*eguin deu, eldu dek, etorri nez*”. Y mudada una vez la mencionada *a* en *e*, se conserva así, aunque deje de ser final ó monosílaba por añadirsele otras sílabas v.g. “*nintzelaco, deutsedaz, deuegu, eguin deuenean, eldu dena*”. (Zabala 1848: 55)

Bizkai erdialdeko euskaran ere indarrean zegoen asimilazio-araua: “Por tercera clase de eufonia cuento las del centro é interior de Vizcaya, que consisten en cambiar la *e* y la *i* como los marquineses, y la *a* como los arratianos. v.g. natural “*geunkean, daguian*”: central “*gueunkien, daguiyen*” (*idem*).


Orozko aldeko euskarari buruz aritzean, Zabalak ez zuen hain zehatz jokatu hizpide dudan arauari dagokionez: “Ultimamente los de Orozco y pueblos limítrofes usan de las mismas eufonías que los del centro” (*idem*) azaldu zuen, baina beste ezaugarri batzuk nabarmendu zituen gehiago.

Zabalaren azalpenak irakurrita, ematen du Bizkai gehienez zabaldua zegoela beheko bokalaren asimilazioa, Markina aldean izan ezik. Durangoko eta Bizkaiko ipar-mendebaleko euskara ez zituen beren-beregi aipatu, baina pentsa liteke lehenengoak erdialdekoarekin egiten zuela bat (cf. Bonaparte 1863), eta bigarrenak Arratiakoarekin.

Bonaparte ondareko material-andanaren artean informazio interesgarria ematen dute XIX. mendearen azken hamarkadetan printzearentzat prestatutako dotrinek. Beheko bokalaren asimilazioari dagokionez, Pagola *et al.*-ekin (1992: 985 eta hurrengoak) bat etorritz, Bizkai sartaldeko dotrina gehienek islatzen dute *Rui*, nahiz eta hizkera batzuk beste batzuk baino berritzaileago agertu. Zehazki, *a + a* bilkuratik sortutako disimilazioak *ea* izaten jarraitzen du Arratian, *ia* bihurtua zen Bermeon eta Orozkon (eta, Bizkaitik kanpo, Laudion), eta, asimilazioz, *ie* Gernikan eta Arrigorriagan. Antzekoa zen egoera *e + a* bilkuran: Arratiako eta Plentziako hizkerak ageri dira gordetzaileen *ea* mantenduta, eta Gernikakoa eta Arrigorriagakoa berritzaileen, erdiko bokala igota eta *Rui* aplikatuta *ie* aldaerarekin; tartean daude Bermeoko eta Laudioko *ia*-k. Bokal-bilkura *i + a* denean batasun handiagoa dago Bizkai sartaldeko testuen artean: hizkera batzuetan kontsonante epentetikoa agertzen da, baina *Rui* araua dago eremu osoan, Bermeon izan ezik (*ija* du hango dotrinak), hala morfema-mugan nola hitzen enborrean. *u + a* bilkuraren emaitza aurrekoaren antzekoa da: hizkera batzuetan *-ubV* epentesia agertzen da, baina Bizkai sartaldeko hizkera guztietan dago *ua* > *ue* ixtea, Bermeoko euskaran izan ezik (*ua* dakar hango dotrinak).

Bizkaiko ipar-ekialdean ahulago zegoen araua: ez da agertzen Markinako dotrinetan, baina Lekeitiokoan nagusi da $u + a$ biltzen direnean. Emaizta hori erabat harrigarria egiten zait, aintzat harturik Bonapartek berak ez zuela *Rui* inguru hartako euskararekin lotu (1862: 40 eta ca. 1868, *apud* Elordui 1995: 442-443) eta Lekeitio dela gaur egun ere (Gaminde 2007: 25) *Rui* araua aplikatzen ez duen Bizkaiko herri bakanetako bat. Honako aldaera hauek aipatzen dituzte dotrinaren edizio gileek: *discipulue, creitue; mundue & mundua; exemplua, ceruan*.

5.2.4.2.4. *Rui* arauaren eta beste bokal-eufonia batzuen arteko ordena erlatiboa gogoratu behar da hemen (begiratu §5.1.5.1.6.3.3 atala). Kronologia-gaiez aritzean aipatu bezala, arauen arteko ordenari loturik gutxienez hizkera-eredu bi bereiz daitezke Bizkaiko testuen artean: gordetzaila eta berritzaila. Lehenengo ereduko hizkeretan *Rui* zaharragoa da Erdiko bokalaren igoera baino, eta Orozko eta Aiara aldeko testuek horrekin egiten dute bat, VJesus-ekin batera. Bigarren ereduko hizkeretan, bestalde, Erdiko bokalaren igoera zaharragoa da *Rui* baino: Bilbo aldeko testuei dagokien eredua hori, bai eta Bulda-ri eta Amorotoko armarriko lekukotasunari ere.



29. irudia. *Rui* arauaren eta beste eufonia batzuen arteko interakzioaren araberako eremuak

Arauen ordena horri jarraikiz, hain zuzen, *Rui* araua hego-mendebaletik ipar-ekialdera hedatu zela proposatu zuen De Rijk: “*Rui* seems to have been propagated from South to North and from West to East” (1970: 48). Ikuspegi horrekin erabat ados egonda ere, berriz ere orokorregia suertatzen da berrikuntzaren hedadura azaltzeko. Nire ustez, kasu honetan ere hiriguneen eta landa-eremuen arteko datuak kontrajarrita

zehatzago azaltzen dira fenomenoaren hedadura eta banaketa diatopikoa. Bizkaiko datuak baliatuko ditut hori erakusten saiatzeko, ugariagoak baitira Gipuzkoan eta Nafarroan baino.

5.2.4.2.5. Txistukarien neutralizazioaren bilakabidea azaltzean aipatu dut neutralizazio-prozesua lotuago agertzen dela hiribildu eta eskualde-buruekin, landa-eremuko bizitokiekin baino. Hain zuzen ere, hori aintzat harturik, neutralizazioa difusio hierarkiko baten bidez gertatu zela proposatu dut; hots, lehenbizi biztanleria-gune nagusietan gertatu eta hedatu zela, eta ondoren zabaldu zela elizate txikiagoetara eta baserri-auzoetara.

Beheko bokalaren asimilazioari dagokionez, bada, bi eremu soziodemografiko horiek kontrajarrita azaltzen dira berriz, baina beheko bokalaren asimilazioaren banaketa bestelakoa da; zehazki, alderantzizkoa, 1750 baino lehenagoko lekukotasunak lotuago agertzen baitira landa-eremuarekin, hirigune edo biztanleria-gune garrantzitsuekin baino. Egia da Lehen Euskara Modernoaz geroztik zenbait hirigunetako testuetan ere agertzen dela *Rui*, hala nola Bilbon eta Azpeitian; baina, XIX. mendeko idazle, gramatikari eta dialektologoen datuek berresten dute oso mailakatua eta berankorra izan zela hedatze hori: Bilbon berriagoa da araua Orozkon baino, esate baterako, eta Bermeora eta Markinara Gernikara baino beranduago iritsi zen. Halaber, Durango hiribilduan oso modernoa bide da asimilazioa, hala Bonaparteren nola Azkueren datuetan *alabia*, *semia*, *begija*, *olloa*, *burua* eta *arrebía*, *luzia*, *egidxa*, *besua*, *eskua* ematen baitira, besteak beste (Azkue 1926: 25).

Datu horiek guztiek islatzen dutena da oro har eredu eta foku berritzaile eta hedatzaile izaten diren dentsitate demografiko eta prestigio handiagoko guneek ez dutela eragin bizirik izan ezaugarriaren difusioan, difusio hori hiri(bildu) → herri/auzo hierarkiaren aurka gertatu dela; hain zuzen ere, hierarkiaren aurkako difusio-ereduak azaltzen du hobeto beheko bokalaren asimilazioa.

Oklahomako ingelesaren zenbait ezaugarriaren difusio-eredua aztertzean Guy Baileyk eta bestek aurkitutako egoera bertsua da *Rui*-ri dagokiona:

The form diffuses outward from the rural areas of intense use, gradually becoming dominant throughout the southeastern part of the state and in the area near the Panhandle and quite common elsewhere. It also becomes dominant in the metropolitan areas, first in Oklahoma City after World War II and later in Tulsa (among those born after 1962, more than two-thirds use the form). What is particularly significant about the diffusion of *fixin to* is that it seems to be contagious rather than hierarchical: it seems to spread outward from areas of intense concentration much like waves in a pond when a rock is thrown into the water. Although the urban hierarchy would seem to be irrelevant here, a closer look at urban/rural distributions shows

that the pattern of diffusion is actually contrahierarchical rather than simply contagious. (Bailey *et al.* 1993: 374)

Hierarkiaren aurkako kasu-ikerketak aurkeztu direnean, Baileyk eta bestek (1993) egin legez, oro har ezaugarrien prestigioarekin eta hiztun-erkidegoen identitatearekin lotu izan da difusioa: “Los casos de difusión contrajerárquica conllevan la consolidación, y casi exaltación, de las normas de habla tradicionales, mientras que los de jerárquica tienden a reflejar la imposición de normas de hablas externas” (Hernández-Campoy 2001 [1999]: 308). Balirudike, beraz, hiriguneetan halako erresistentzia bat egon daitekeela edo dagoela landa-eremuko ezaugarri linguistiko batzuekiko: halakoak askoz errazago eta garbiago ikusten dira hizkuntza arautzeko eta estandarizatzeko tradizio luzea duten kasuetan, baina *Rui*-ren kasuan ere antzeko azalpena proposa daiteke, ez baitu ematen historikoki prestigiorik izan duenik idazleen artean (§5.3.2.1).

5.2.4.2.6. XX. mendeko ikertzaileen lekukotasunak (Rollo 1925, *FHV*, Mitxelena 1968) txistukarien neutralizazioaren difusio-eredua berresteko baliagarri diren legez, lagungarri da XX-XXI. mendeen artean *Rui* hedatzen ari den eremuetan egindako zenbait monografikotako informazioa.

Alde batetik, Bizkaiari dagokionez, gogoan hartzekoa da lau hiribildutan jaurerri osoan agertzen ez diren murriztapenak daudela. Gaminderi (2007: 25-26) jarraikiz, Lekeitio eta Ermuan ez dago *Rui*-rik, eta Elorrion eta Mundakan ere ez da sistematikoa: lehenengoan ez da aplikatzen -V# kokagunean, baina bai -VC dagoenean,⁴⁵⁴ bigarren kasua oso bestelakoa da, Mundakan emakumeek eutsi dietelako gehienbat asimilatu gabeko formei. Lekuan lekuko gorabeherak gorabehera, laurak dira hiriguneak.

Beste alde batetik, beheko bokalaren asimilazioa ez da Deba ibarreko euskararen ezaugarri izan, eta gaur egun ere ez da hala; aitzitik, arian-arian zabaltzen ari da, hain zuzen, hemen adierazitako hierarkiaren aurkako ereduari jarraikiz:

Hego Euskal Herriko eremu zabalean $a \rightarrow e$ egiteko joera dago i eta u bokalen ostean: *ogia* → *ogie*, *laguna* → *lagune*. Deba ibarrari dagokionez, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako baserri auzoetan, Aramaion eta Mallabian gertatzen da. Baita Markinatik gertu dagoen Eibarko Aginaga auzoan (...) eta, inoiz edo behin, Bergarako Elosua, Osintxu eta Angiozar auzoetan ere (...). Eibarko eta Bergarako kalean, ostera, a da nagusi. Baita Leinzko hiru herrietako gazte kaletarren jardunean ere, baina adineko jendeak a nahiz e biak esaten ditu. Araua, beraz, atzeraka doa Deba ibarrean.

⁴⁵⁴ Zehazki, -Vn aipatzen du Gaminderi (2007: 25); hots, *etxia* eta *basua* baina *etxien* eta *basuen*, Debagoieneko zenbait hizkeratan legez.

Dena dela, herri denetan daude hitz bereziak. Antzuolan, esate baterako, nahiz eta gehienbat *a* bere horretan gorde, *behintzet* ‘behintzat’, *bieldu* ‘bidaldu’, *biherko* ‘beharko’, *bihetz* ‘behatz’, *die* (eta *dia*) ‘dira’, *ikeratu* ‘ikaratu’, *iketx* ‘ikatz’, *izen* ‘izan’, *maietz* ‘maiatz’, *Oñeti* ‘Oñati’, *ugeri* ‘ugari’... esan ohi dira (Larrañaga 1998).

a → *e* egiteko joera berri samarra da Deba ibarrean. Ez da agertzen XIX. mendea baino lehenago izkribuetan eta, Aramaioko hizkera dela eta, hauxe esan zion Pedro Luis Herranek Jose Antonio Uriarte, Bonaparteren laguntzaileari, 1862ko uztailan (in Ruiz de Larrinaga 1957: 439): herri horretan *eskua*, *burua*, *angerua* ‘aingerua’, *liburua*, *semia* ‘semea’, *basua* ‘basoa’, *otsua* ‘otsoa’ esaten zirela; *a*-rekin, beraz, beti.

Gertakaria berria delako, ziurrena, ez du Leintz-Gatzagan indarrrik hartu. Mendian gora joanda, Leintzko gainerako herrietatik bereiz samar dago Gatzaga, eta bere bakardadeak eragotzi du, beharbada, araua han hedatzea. Bere bakardadea izan daiteke, era berean, Oñatira iritsi ez izanaren arrazoia edo, bestela, bilakaera hori dotorea ez delakoan gaitzestea, Bergaran-eta gerta zitekeen bezala. (Zuazo 2006b: 57-58)

Zuazoren azalpenek aurretik emandako ikuspegia berresten dute: inon egotekotan, auzoetan dago indartsu *Rui*, ez Eibarko edo Bergarako kaleetan. Halaber, bilakaeraren ustezko dotorezia faltaren pertzepzioak bat egiten du aurreko mendeetako idazleek berrikuntza baztertzeko izan duten ikuspegiarekin, bai eta hierarkiaren aurka hedatu izan diren ezaugarrien inguruko pertzepzioarekin ere.

5.2.4.3. Berrikuntza beregain paraleloez: bokal-eufoniak⁴⁵⁵

5.2.4.3.1. Bergsekin (2006: 5) bat, berrikuntzak espazio geografikoan gaindi hedatzen direlako ideia azpian ikuspegi jakin bat datza: berrikuntzak ez direla aldi berean hainbat lekutan sortzen. Horren ordez, espazioan gutxi gorabehera koka daitezkeen gune berritzaileak izan ohi ditugu gogoan, eta horietan sortutakotzat jotzen ditugu berrikuntzak. Andersenek, ordea, orain hiru hamarkada deskribatu zuen *spread without diffusion* edo *difusiorik gabeko hedatze* izeneko eredua, konparatisten artean eta hizkuntzalaritza arealean ezagun ez ezik beldur-iturri ere bazena:

There are internally motivated innovations which arise independently of any external stimulus. These too have an areal dimension and may appear to spread merely because they arise in different places at different times. Where such innovations arise in contiguous localities, they may be difficult to distinguish from cases of diffusion. But it is important to discriminate between the observational notion of spread and the explanatory notion of diffusion. (Andersen 1988: 54)

5.2.4.3.2. Azpian agertzen den mapa *EHHA*-ko 1040. mapa da, eta hiatuotako *-e* + *a* bilkuraren emaitzak erakusten ditu:

⁴⁵⁵ Denak elkarrekin aipatu ohi badira ere, atal honetan bokal-eufoniez aritzean *e* → *i*, *o* → *u* eta *-ijV* eta *-ubV* bakarrik izango ditut hizpide; izan ere, *a* + *a* → *ea*-k zein beheko bokalaren asimilazioak aparteko tratamendua behar dutelakoa daukat, eta bereiz aztertu ditut aurreko ataletan.

Berrikuntza paraleloak ditugunean, ez ditugu erkidego espezifikoa finkatzeko moduko berrikuntza eskusibotzat hartzen, ez ditugu dialektoen sailkapena proposatzean froga-balioa duten berrikuntzat jotzen: berrikuntza beregain edo paraleloak dira, elkarrekin erlaziorik ez duten bi berrikuntza, berdinak dira, baina ez dira bat eta bera. Ziurtasunez dakigu kolokalitatean ez dutela loturarik eta kronologian ere loturarik ez dutela pentsatu beharko da, aurkakoa erakusten ez den artean bederen. Bi gertakariren emaitza berdinarekin aitzinean gaude, horregatik pentsatu ahal izan dugu fenomeno bera izan zitekeela, baina batak ez du bestearekin erlazio zuzenik edo interferentziarik izan. (Camino 2008a: 218)

5.2.4.3.3. Nire ustez, $e \rightarrow i$ eta $o \rightarrow u$ bokalen igoeren eta $-ubV$ eta $-ijV$ kontsonante epentetikoaren hedadura errazago azaltzen da han-hemen lau fenomenoak denboran urrunago zein hurrago gertatutako berrikuntza paralelo beregaintzat jota. Hori pentsatzeko arrazoiak agerikoak dira: aldaketa arruntak dira, ohikoak eta maiztasun handikoak; gainera, ez dira (beti) ondoz ondoko lurraldeetan agertzen, tarteka eremu edo uharte isolatuak eratzen dituzte forma zaharragoak gorde dituzten hizkeren artean.

Jatorri poligenetikoa izateak eta ezaugarriaren hedadura azaltzeko Andersen *difusiorik gabeko hedatze*-ra jotzeak ez du esan nahi foku berritzaile egon ez denik: kontua gehiago da foku berritzaile horiek beregainak izan direla, ageriko zein sakoneko loturarik gabe. Difusio-eredu klasikoaren eskemara joaz zaila da, aurreko ezaugarriekin ez bezala, azalpen koherentea aurkitzea berrikuntzok espazioan duten hedadurari, ez baitago joera edo eredu bakar bat:

Some of them, as has been shown above, seem to move quite uniformly as areas defined by proper isoglosses, other hop from one city to another, yet others can be traced along the highways and byways, *and yet another group shows no such patterns at all.* (Bergs 2006: 23; letra etzana neurea da [EZ])

Erdiko bokalen igotzeak eta kontsonante epentetikoak non sortu edo agertu izan diren aztertzean arreta bereziz jokatu behar da, lehen begi-kolpean irudi bailezake hiribilduei (edo nagusiki hiribilduei) lotutako fenomenoak direla. Halakorik ezin uka dezaket bete-betean eskueran ditudan datuekin, baina gogoratu behar da ikuspegi horretan ere berebiziko eragina dutela bai kronologiak, bai corpusaren jatorriak. Izan ere, tesi honetarako bildutako corpusean Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernorako trantsizio-urteetan edo Lehenengo Euskara Modernoaren lehenengo hamarkadetan agertzen dira berrikuntza horiek, eta garai hartako testu gehienak hiribildu edo/eta eskualde-buruetoak dira Bizkaian eta Deba ibarrean. Gipuzkoan, gogoratzekoa da lau berrikuntza horiek lehenago hedatu zirela hurreko zenbait eremutan Donostian baino: XVIII. mendearen erdialdean Urolan, Lasarten, Hondarribian, Goizuetan, Bortzirietan eta Lapurdiko kostaldean arrunt ziren zenbait berrikuntza ez dira Donostiako garai bertsoetako testuetan agertzen, nahiz eta indar beteak duten XIX. mendearen hasieraz geroztik (cf. Etxegararen bertsoetako adibide andana) eta zer

esanik ez 1850 ondoren (cf. bertsolari eta antzerki-idazleen lanetatik erauzitako datuak Camino 2000 lanean).

Bizkaian, bestalde, esanguratsua da Mungiak agertzen duen egoera. Eufoniei dagokionez, Mungia hiribilduak ez du eredu bateraturik ezartzea edo zabaltzea lortu, eta auzunea zein den aldatzen dira erabilerak (Gaminde 2001: 15-17). Zuazok eta Goitik horri lotuta diotenez, “antzeko egoera daukagu Tolosan. Hura ere hiri hazia izan da, baina haren iparraldeko herrietan (Hernalde, Anoeta, Irura, Billabona) eta hegoaldekoetan (Ikaztegieta, Alegi, Altzo, Lizartza) berbeta desberdinak egiten dira” (2016: 156).

5.2.4.3.4. Arauen arteko interakzioari dagokionez, kronologia-gaiez aritzean aipatutako aplikazio-ordenaz harago ez dirudi aparteko informazio askorik lor daitekeenik, ez baitirudi arau bat egoteak beste bat(zuk) egotea dakarrenik: egia da Euskal Herriko mendebalean gaur egun *-ijV* epentesia duten hizkerak $e \rightarrow i$ ere badutela, baina ikuspegi diakronikoak erakusten du batak ez dakarrela bestea, hain zuzen ere zenbait hizkeretan epentesia bokal-igotzea baino lehen sortu zelako (§5.1.5.1.6.3.1) eta gaur egun badaudelako bokal-igotzea duten baina epentesirik ez duten hizkerak. Halaber, $o \rightarrow u$ dagoen hizkeretan $e \rightarrow i$ ere badago hainbatetan, baina Bizkaiko sartaldean $e \rightarrow i$ egonda ere ez dago $o \rightarrow u$ -ren arrastorik. *-ubV* epentesiak ere ez du arauen arteko loturarik islatzen: $o \rightarrow u$, $e \rightarrow i$ eta *-ijV* gertatu ez den hizkeretan lekutu izan da, eta mendebaleko hizkera gehienetatik desagertu da, gainera.

5.2.4.3.5. Sailkapen linguistikoak egiteko berrikuntza paralelo beregainak zein paralelo beregain izateko aukera dutenak erabiltzea okerbidea da edo, onenean, arrisku handiko bidea. Argi dago bokal-eufonien bidez zenbait azpi-eremu bereiz daitezkeela, baina oso bereizketa mugatua da, ezer izatekotan; ez du balio Bizkaiko eta Zuberoako euskaren batasunaz berba egiteko, eta eremu txikiagoetan ere arazotsua da, oso:

Zenbait bilakabide foniko hain dira naturalak, non leku eta garai batean baino gehiagotan gerta baitaitezke era beregainean: *ei* diptongoa monoptongatu eta *e* bilakatzen da sanskritoan, unbroan eta zeltan: berrikuntza positiboa da, bai, baina gertatzeko duen aukera handiak erakusten digu ez duela harreman dialektalik adierazten edo frogatzen, ezaugarri gehiagotan bat etorri beharko lukete hizkuntzok harreman dialektal bereziaz mintzatu ahal izateko; hartara, balizko harremanaren alde ez litzateke ezaugarri komun bakoitza mintzatuko, ezaugarri guztiak hizkuntzotan elkarrekin agertzea litzateke frogaren funtsa. (Camino 2008a: 218)

Bizkai sartaldeko eta sortaldeko hizkerak bereizteko ezaugarriak aztertzean, hiatotako $e \rightarrow i$ eta $o \rightarrow u$ eta *-ijV* aipatu zituen Zuazok (2014: 184, 2017: 70-71), gehituaz sartaldean ez dela bigarrena gertatzen. Hain zuzen ere, gaur egungo hizkerez (eta gaur egungoez bakarrik) aritzean, bigarrena bereiz liteke, Bizkai sartaldean eremu

tinkoa osatzen duelako (Zuloaga inprimategian-1). Beste biak sartalde/sortalde bereizketari loturik erabiltzea arazotsu da: Zuazok berak (*idem*) aipatzen duenez, $e \rightarrow i$ -k eta $-ijV$ -k $o \rightarrow u$ -k bezainbesteko eremua hartzen dute sortaldean, baina sartaldeko zenbait hizkeratan ere sistematikoak dira: Mungiako zenbait auzo, Gamiz-Fika zein Bakio aipa litezke, bai eta, are nabarmenago, Bilboko eta Nerbioi ibarraren iparraldeko euskara ere.

Hizkeren eta testuen sailkapenerako, ikuspegi orokorra baliatuta datazio-gaien ikuspegitik balio sailkatzaile handiagoa dute bokal-eufoniek; izan ere, joera bateratuagoa da kronologian geografian baino: oro har Lehen Euskara Modernoari lotzen zaizkio, eta pentsatzekoa da eufonia horiek dakartzan testu batek aukera gehiago dituela XVIII. mendekoa edo are 1750az geroztikoa izateko. Garai horietan hain dira arrunt eta zabal, non zaila baita hizkerarik sailkatzea horien bidez: Bulda 1750az geroztikoa dela pentsarazten didate eufoniek, baina ez dira nahiko testua hizkera zehatz batekin lotzeko (§5.1.8).

5.2.4.3.6. Bokal-eufonien balio sailkatzailea oso murrizta da, oro har: garai batetik aurrera zuzeneko loturarik gabeko hainbat lekutan agertzeak nabarmen murrizten ditu edozein hizkera horien arabera sailkatzeko aukerak, eta, dialektologia-lanetan sistematikoki aipatzen eta deskribatzen badira ere, filiazio linguistikoak argitzeko eta bereizketa lektalak egiteko beste ezaugarri batzuekin konbinatu behar izaten dira.⁴⁵⁶

5.2.4.3.7. Bizkaiari dagokionez, badirudi erdi-sortaldean izan dutela inon baino indar handiagoa, nahiz eta aztertutako ezaugarrien isoglosak bat ez etorri: $e \rightarrow i$ sistematikoa da Mungiatik, Txorierritik eta Arratiatik ezker kokatutako testuetan, baina horietatik eskuin ere badago, Bilboko eta Nerbioi ibarraren iparraldeko testuetan; $o \rightarrow u$ inon agertzekotan, Mundakako itsasadarretik eta Zornotzatik sortaldera agertzen da, oso berandura arte, testuetan, nahiz eta gerora erdialderago ere hedatu den itsaso kontrari: Bermeoraino iritsi da; $-ijV$ epentesiaren banaketa $e \rightarrow i$ -renaren antzekoa da testuetan: erdialdeko (Bermeo, Gernika) zein sortaldeko (Durango, Markina) testuetan arrunt agertzen da, baina Bilbon eta Nerbioi ibarraren iparraldean ere badago; $-ubV$ ere ezker-erdialde-eskuin agertzen da jaurrerian, nahiz eta ezaugarri horren lekukotzak *cum mica salis* lantzekoak diren, XVIII. mendearen amaieraz geroztik markatzaile estilistiko baitira (begiratu Altzibar 1992: 475 eta hurrengoak eta §5.3.2.3 atala).

⁴⁵⁶ Ezein bereiztekotan, $-ijV$ bereiz liteke kasu batzuetan eta betiere egungo hizkerari loturik, ebakera fonetikoa ez baita bera leku guztietan.

5.2.4.3.8. Gipuzkoari dagokionez, $e \rightarrow i$ zabal agertzen da Deba ibarrean, batez ere edo sarriago Eibarko eta Debako testuei loturik (lehenengoan XVIII. mendetik eta bigarrenean XVI.etik); halaber, arrunt da Azpeitia/Azkoitia aldeko testuetan, eta Hondarribia eta Irun aldekoetan, baina ez Goierrikoetan (espero izatekoak ere ez ziren, gaur-gaurkoz ere *e.a* zaharrari eusten baitiote) eta Beterri eta Tolosaldekoetan, adibide bakanak adibide. $o \rightarrow u$ ere arrunta da Gipuzkoako sartalde osoko testuetan (Eibarkoetan eta Azpeitia/Azkoitia aldekoetan nabarmenago), bai eta Hondarribia/Irun aldekoetan ere, baina ez Beterri eta Tolosaldekoetan. *-ijV* epentesiaren banaketa aurrekoenaren parekoa da lurraldearen sartaldean, baina ez ipar-sortaldean: Eibarko eta Azpeitia/Azkoitiko testuetan agertzen da, baina Hondarribiko 1778ko platikak ez dakar nahiz eta Donostiako 1761eko maitaleen arteko gutunerian agertu. *-ubV*-ren hedadura, aitzitik, erdiko bokalen igotzearen parekoa da: Deba ibarrean Eibarren agertzen da, Urolan Azpeitia/Azkoitia aldean eta Gipuzkoako ipar-ekialdean Hondarribia/Irunen, baina ez XVIII. mendeko Donostiako testuetan.

5.2.4.3.9. Araban inon baino urriago agertzen dira bokal-eufoniak, baina corpusaren bakantasunak eta hizkuntzaren galerak berak eragindako egoera izan daiteke horren arrazoi nagusia; alegia, Lehen Euskara Modernoaz geroztik testu gutxi egotea, euskarak berak aurreko mendeetatik hegoaldeetik iparraldera pairatutako lurralde-galeraren ondorioz. Horrekin esan nahi dut Araba ez dela zertan Bizkaia eta Gipuzkoa baino gordetzaileagotzat jo: besterik gabe, eufonia horiek ugaritu ziren garairako euskarak atzerakada nabarmena pairatua zuen Araban.

Nolanahi ere den, eufoniak aurki daitezke lurraldearen bi muturretan: Aiaran eta Araian. Lehenengo dela eta, gogoratzekoak dira Mendietaren eta Urduñako hiztegiaren *-ubV* epentesiak, eta azken horretako $e \rightarrow i$ zein *Dotrinazko sermoitegi*-ko $e \rightarrow i$ eta *-ijV* (azken hori hautu estilistikoa, beharbada; cf. Ulibarri 2015: 259). Bigarrena dela eta, Albenizek $e \rightarrow i$ eta *-ubV* ditu, baina Gamizen olerkietan ez dut aurkitu aipatutako eufonietako bat ere. Arabari begira ezer nabarmentzekotan, 1800 aurreko testuetan $o \rightarrow u$ igoeraren adibiderik eza nabarmendu beharko litzateke.⁴⁵⁷

5.2.4.3.10. Bokal-eufonien ikerketa lotuago dago herri, ibar edo eskualde jakin bateko eremu txikiko fenomenoek: eufoniek ez dute balio sailkapen dialektal nagusiez berba egiteko. Aitzitik, badaude oso gogoan hartu beharreko bi gai.

⁴⁵⁷ Bizkaiko hego-sortaldearekin (Durango eta Otxandio aldeak) zein Leintz ibarrarekin harreman sarriak izandako lurraldeetan sistematikoki erabiltzen da: Aramaio (Ormaetxea 2006) eta Legutio (Carrera & García 2005) ditut gogoan.

Alde batetik, kontuan hartu behar da eufoniak sortzez poligenetikoak eta multifokalak izan arren, denborak aurrera egin ahala hiztun-sareen bidez berrikuntza horiek egonkortu eta zabaldu egin direla; alegia, poligenetismoaren ikuspegitik hasiera baterako foku beregain eta isolatuak badaude ere, gogoan hartu behar da hiztunen arteko harreman sarriek foku horien arteko konbergentzia eragin ahal izan dutela gerora, hasiera batean A-n eta B-n (baina ez A-ren eta B-ren arteko eremuan, adibidez) isolaturik zegoen ezaugarria A eta B arteko eremura ere hedatu ahal izan dutela, eta, horrenbestez, garai jakin batetik aurrera A-k eta B-k ezaugarri horri dagokionez eremu bateratu homogenea osatu ahal izan dutela. Hala azal daiteke, nire ustez eta adibide bat ematearren, $e \rightarrow i$ -k Bizkaian eta Gipuzkoan duen hedadura: testuen argitan proposa daiteke berrikuntza Azpeitia, Deba, Eibar, Durango eta Markinan sortu zela, adibidez, data edo garai ezberdinetan sortu eta indartu arren; gerora, bada, eremu horietako hiztunen arteko harremanek ekarri bide zuten hasiera batean gune txiki batzuei lotutako berrikuntza zena inguruetara hedatzea, eta arian-arian gertatutako hedatze horren bidez azkenean eremu zabalago eta tinkoago bat sortzea.

Beste alde batetik, egia da bokal-eufonien ikerketa herri, ibar edo gehienez ere eskualde jakin bateko eremu txikiko fenomenoaren ikerketa dela oro har, eufoniek ez dutela balio sailkapen dialektal nagusiez berba egiteko, askozaz baliagarriagoak direla herri edo ibar batetik bestera dauden aldeak bilatzeko. Aitzitik, arestian azaldutakoarekin bat, dena delako eufonia batek eremu zabalagoa hartzen duenean, bereizle izateko indarra har dezake.

Bizkaiko euskara dela eta, $e \rightarrow i$, $-ijV$ eta $-ubV$ berrikuntzak ezin dira erabili eremu zabal garbiak bereizteko, baina egoera bestelakoa da $o \rightarrow u$ -ri dagokionez: ezaugarri supradialektala da, ikusi legez, eta arian-arian Gipuzkoako kostalde eta mendebal osoan ez ezik, Bizkai sortalde guztian ere hedatu da: kostaldetik Bermeoraino (hiribildua barne) hedatzen da, Markinatik ezker Gernikarantz egin du, eta Durangotik ezker Zornotzako mendebaleko auzoetan aurki daiteke (Zuloaga inprimategian-1). Alabaina, Bizkai sartaldean ez dago adibiderik ez aurreko mendeetako testuetan, ez egungo hizkeretan: ez dirudi jaurerriaren sartaldeko hizkeretan inoiz existitu denik XVIII. mendearen amaieran Durango/Markina aldeko idazleen hautuak eta hizkeraredua(k) imitatu zituzten idazleez harago. Hauxe da bilakabideari gaur egun dagokion eremua:



31. irudia. EHHA-ko 1067. mapa [-o + a (-o bukaera + absolutibo singularra)]

Beraz, kasu honetan hasiera batean multifokal izandako berrikuntza batek eratutako eremu linguistiko tinko supradialektalak ez du balio dialekto bat definitzeko (bestelako konbergentzia-eremu sendoagoak erakusten dituzten ezaugarriak baitaude), baina balio du dialekto jakin baten barnean azpi-dialekto bat ezaugarritzeko, batez ere eremu bertsuko beste berrikuntza bereizle batzuekin bat egiten badu, eta kasu honetan hala da.

Bizkaiko euskaran sartaldeko eta sortaldeko azpi-euskalkiak bereizteko proposamen batean lau ezaugarri esanguratsu aipatu eta deskribatu nituen (Zuloaga inprimategian-1): sartaldeak *-de* alomorfoa gorde izana **edun*-en adizkietako NORK adierazteko, adlatiboaren aldaerak, soziatiboaren aldaeren konbinazioa, eta *o* → *u* bokal igotzea. Zehazki, *-de* aldaerak eremu tinkoa bateratzen du Bermeo eta Otxandiotik ezker (*-e* dago erdi-ekialdean), eta gainerakoetan *-rantza* & *-(r)u(n)tz*, *-gaz/- (a)kaz* & *-gaz/-kin* eta *o = o /_V* & *o* → *u /_V* aldaera-bikoteak daude, lehenengoak sartaldean eta bigarrenak sortaldean. Bada, *-de* kenduta, atal honetan aipatutako *o* → *u* ez ezik, Bizkaian sartaldea eta sortaldea bereizteko balio duten aldaeren artean sortaldekoak (*-(r)u(n)tz* eta *-kin*) supradialektalak dira.

Era horretako fenomenologia ez da ezezaguna Euskal Dialektologiaren esparruan:

Antzera gertatu da Euskal Herriko ekialdean ere: Zuberoako, Erronkariko, Zaraitzuko, Amikuzeko eta Bardozeko euskaran, supradialektalak eta bateratzaileak diren ezaugarri franko ezagutu ditugu. Euskal Herriko erdigunean ere berdin: Nafarroa Garaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko alderdi batzuetako euskaran lotura hertsia supradialektal ugari ageri zaigu, beren baitara berrikuntza bateratu ugari bildu dutelako. (Camino 2009: 170)

5.2.5. Mendebaleko eremu linguistikoez eta aldaketen norabideez

5.2.5.1. Bilboko euskararen izaeraz eta Bizkaiko foku berritzaileez

5.2.5.1.1. Bilboko euskarak Bizkaiko zein mendebaleko euskararen egituratzean izandako eraginaz ezer gutxi esan da, eta are gutxiago zehatz ikertu. Funtsean, bi ikuspegi kontrajarri azaldu dira: Urgellen (2006: 945) arabera, XIV. mendeaz geroztik zenbait ezaugarriren (aditz-izenak zituen orduan aztergai) berrikuntza-foku izan zitekeen Bilbo; Zuazoren (2010a: 182, 2014: 55, 2019: 60) ustez, ordea, Bilboko euskara gordetzailea izan da nagusiki, eta sasoian sasoiko egoera soziolinguistikoek eragin ei dute aparteko eraginik izan ez izana Bizkaiko eta mendebaleko euskararen.

Nik neuk batago egiten dut Urgellen ikuspegiarekin (cf. Atutxa & Zuloaga 2014, Ariztimuño *et al.* prestatzen), bai datuek, bai ezaugarrien difusioari buruzko estandarrek erakusten dutenagatik. Atal honetan, bada, Bilboko euskararen izaera eta Bilbok Bizkaian eta mendebalean izandako kokapen geolinguistikoa izango ditut hizpide: hau ez da hain zabala izan daitekeen ikergai bat agortzeko eta guztiz ebazteko lekua, baina zenbait ideia gogoan hartzea baitezpadakoa da okerbideak saihesteko eta iraganeko errealitate (sozio)linguistikoaz irudi egiantzekoagoa izateko.

5.2.5.1.2. Bilboren eragina apala izan delako ideia Zuazok garatu du azken urteotan inork baino gehiago, eta hark esanak aztertuko ditut hemen nagusiki. Zuazok (2010a: 181-186, 2014: 49 eta hurrengoak, 2017: 10, 2019: 60) emandako ideia nagusiak dira hauek (darabilen terminologia mantendu dut):

- (i) Bizkaiko biztanleria-gune nagusiak Oiz eta Sollube mendialde-inguruak izan ziren Antzinatean (García Camino 2002), eta ziur asko horiek izan ziren berrikuntza linguistiko bizkaitar nagusien fokuak; zehazki, Durango-Zornotza-Gernika-Bermeo ardatzean eta Gasteiz kostaldearekin lotzen duen bidearen inguruan dauden eremuak.
- (ii) Bilboren handitasuna berankorra izan zen, XIV. mendeaz geroztikoa, eta ordurako mendebaleko euskara osatuta eta finkatuta (egituratuta) agertzen da.
- (iii) Iraganen moda linguistikoak mantso hedatzen ziren; beraz, pentsatu behar da mendebaleko euskara zenbait mende lehenago sortu zela.
- (iv) XVIII-XIX. mendeetarako gaztelania oso hedatuta zegoen Bilbon, eta Bilboko euskararen gainbehera aski lehenago hasia bide zen.

5.2.5.1.3. Nire ustez, ikuspegi-arazoa dute Zuazoren proposamenaren zenbait puntuk; zehazki, tarteka anakronismo-zantzuak daude, historia berreraikitze ahalegina

egiten baitu garai oso diferenteetako datuak (historikoak zein linguistikoak) erabiliz. Zuazok (2010a, 2014, 2019: §2) bat egiten du Mitxelenaren (1981a) Euskara Batu Zaharraren ideiarekin, eta besarkatzen duten eremuaren arabera bereizten du zenbait ezaugarriren kronologia; alabaina, gogoan hartu behar da VI-XII. mendeetatik Zuazok *mendebaleko euskara* deitzen duen euskalkira⁴⁵⁸ bitartean hainbat mende igaro zirela, eta mende horietan nabarmen aldatu zela euskara. *Mendebaleko euskara* izendapena erabiltzea garairik garai *mendebaleko euskara* zer izan den zehaztu barik nahaste-iturri da (§1.2), bertsio modernoenean *bizkaiera*-ren pareko baita *mendebaleko euskara* hala ezaugarritz nola hedaturaz; baina, ezaugarri eta hedadura horiek ez ziren berberak hiru, sei edo hamar mende lehenago.

5.2.5.1.4. Lehenengo puntutik hasita, arestian VI-XII. mendeak aipatu izana ez da ausazkoa: García Caminoren (2002) ikerlanean Bizkaiko indusketa arkeologikoak eta biztanleria-guneen azterketa egiten dira; zehazki, VI-XII. mendeen artekoak dira aztergai, eta horiekin lotzen ditu Zuazok berrikuntza linguistiko bizkaitar nagusien fokuak:

Probablemente fueron esos mismos los focos de donde partieron las principales innovaciones lingüísticas vizcaínas, más concretamente, desde el eje formado en torno a las localidades de Durango, Amorebieta, Gernika y Bermeo, localidades situadas a lo largo de una vía de comunicación importante, que unía Vitoria con la costa. (2010a: 182; begiratu, halaber, 2019: §3)

Ezin uka dezaket Bizkaiko euskararen egituratze-prozesuan egungo Durango, Gernika eta Bermeo aldeek berebiziko eraginik izan zezaketenik, baina ez dakit zein berrikuntza heda zitezkeen zehazki Sollube eta Oiz mendialdeetatik Bizkai osora garai hartan.⁴⁵⁹ Bizkaiko berrikuntza zaharrenen artean (i) *-io-ren adizkietako kontsonante berrezarria (*dĩō* → *diño*), (ii) adlatiboko *-rantza* aldaera, (iii) **edun*-en adizkietako *-o-* (*dot*, *dozu*), (iv) aditz-izenetako *-tuten* aldaera, (v) *-txo* → *-txu* aldaera eta (vi) erakuslea izenaren aurretik jartzea (*honeek gauzok* ‘gauza hauek’) aipatzen ditu Zuazok (2014: 55-58), baina horiek ez dira VIII-XI. mendeetakoak: (i), (iv) eta (vi) Euskara Zaharrekoak dira,⁴⁶⁰ (iii)-rako ez dirudi **da(d)ut* > *dot*, **da(d)ugu* > *dogu...* diptongo-

⁴⁵⁸ Funtsean, Bonaparteren *bizkaiera* eta Araban gerora galdutakoa: “‘Mendebaleko euskara’ deituko dudana Bizkaiko alderdi euskaldunean, Gipuzkoako Deba ibarrean eta Arabako Aramaio eta Legutio udalerrietan erabiltzen da gaur egun. Dirudenez, Araba guztia ere eremu horretakoa zen antzina; baita, beharbada, Burgosko eta Errioxako alderdi euskalduna ere” (Zuazo 2017: 9).

⁴⁵⁹ Bide batez, lauhun urteko denbora-tartea da, historialariek gutxienez bi garaitan bereizi izan dutena: VIII-XI eta XII.etik aurrerakoa: “La Alta Edad Media vizcaína ofrece una fácil subdivisión en dos partes: la primera, abarcaría desde el siglo V, aproximadamente, hasta mediados del siglo XI (...) La segunda parte de la Alta Edad Media vizcaína nos llevaría de mediados del siglo XI a fines del XII” (García de Cortázar 1973: 7).

⁴⁶⁰ (vi) dela eta, bereizi egin behar dira, gainera, [erakuslea + izen-sintagma + *-au/-ori/-ok*] eta [erakuslea + izen-sintagma + *-a/-ak*] egiturak: lehenengoa Euskara Zaharrekoa da (cf. VJesus 10 *honèc circumstancie*

murrizketarako hain urrun joan behar denik Lazarragaren, Landucciren,⁴⁶¹ *RS*-ren eta Betolatzaren polimorfismoaren argitan; (ii)-ren eta (v)-en hedadurak ere aldaeron berritasuna islatzen du: inon erabiltzekotan, Bizkai barruan erabiltzen dira, eta (ii) erdi-sartaldean bakarrik (Zuloaga inprimategian-1).

Ezaugarriok Bizkai erdialdean sortuak izango balira, beraz, ez lirateke García Caminok (2002) hizpide dituen komunitateek sortuak eta ez lukete ezelako loturarik izango Erdi Aroko zatiketa dialektal nagusiekin.

5.2.5.1.5. Biztanle gehienak inoiz Sollube eta Oiz inguruan bildu izana datu garrantzitsua da Bilbo aldearen pisu demolinguistiko txikiagoaren alde hitz egiteko; baina, nago ikuspuntu historikotik ere osatu egin behar dela zenbait datu. García Caminoren (2002) azterketa sakonaren helburuetako bat da argitzea non zeuden Bizkaiko biztanleria-gune nagusiak Antzinate Berankorraren ondoren eta hiribildu nagusien fundazio-garaia baino lehen; hots, aipatutako VIII-XII. mendeen artean. Dentsitate demografikoa eta biztanleria-gune eta -sareak berreraikitze iraganeko bizilekuen arrastoak erabili ohi dira, eta horien argitan bai, ematen du Erdi Aroan biztanleria gehien egungo Durango eta Gernika-Bermeo aldeetan metatzen zela (cf. García Camino 2002: 534). Aitzitik, bizilekuenak ez ezik, bestelako elementuen arrastoak ere erabili ohi dira berreraiketa-lan horretan, hala nola adbokazioak, elizen hondarrak eta arrasto arkitektonikoak, nekropoliak, hondar funerarioak eta gaztelu-gotorlekuak.⁴⁶²

Bizkaikoei begiratuta (García Camino 2002: 530-534), Oiz eta Sollube inguruetan⁴⁶³ halako ugari daude, baina ingurumari horietatik kanpo ere behin eta berriz agertzen dira Gorbeia eta Ganekogorta mendiguneetan,⁴⁶⁴ Bizkai sartaldean. Goi Erdi Aroan, beraz, ezin hitz egin daiteke Sollube-Oiz eremuaz bakarrik: beste eremu

bioc, Kapan 25 *ori gustiori*), eta bigarrena XVIII. mendearen amaierakoa (cf. DotrSerm 134 *au lecue*, Sarria 1 *oneic gustiyac*, *Errosariyo* 61 *há sentenciya afrentosoa*). Biak dira gutxiengoak zein bere garaian.

⁴⁶¹ Landucciren *dut* formak direla eta, begiratu Aldairen proposamen hau: “La monoptongación en -u- de *e(d)un* en Vitoria parece tratarse de un fenómeno mucho más tardío. (Aproximadamente ya de los siglos XV o XVI)” (Aldai 2014: 225).

⁴⁶² Cf. “Estas referencias de diversa naturaleza, que permiten completar el mapa de distribución del poblamiento de Bizkaia en la Edad Media, parecen estar reflejando realidades complementarias bajo puntos de vista diferentes, al mostrar todas ellas la existencia de asentamientos territorialmente consolidados” (García Camino 2002: 170).

⁴⁶³ Baina egoera nabarmen aldatu zen mendialde batean eta bestean garai batetik bestera: “En este sentido se ha de reconocer el peso mayoritario del macizo del Oiz en la alta Edad Media, frente a la tenue ocupación del Sollube que, por el contrario, presentaba mayor presión en época romana ” (*idem*, 296).

⁴⁶⁴ Cf. “Para concluir, recordaremos las características de las necrópolis conocidas en el territorio entre los siglos VI al VIII: topográficamente ocupan las terrazas de las laderas montañosas de tres zonas de Bizkaia englobadas en las estribaciones de los macizos de Ganekogorta, Sollube y Oiz, y en ocasiones ocupadas incluso con los mismos fines desde el siglo IV” (*idem*, 248).

batzuetan ere biztanleria-gune garrantzitsuak egon ziren, eta Sollube eta Oiz inguruetan egoera ez zen bera. Hemen, nolahi ere den, hizkuntza-ezaugarriak interesatzen zaizkit gehien, eta oraindik ere ez dut ikusten, hurrengo puntuetan zehaztuko dudanez, zein izan litezkeen VIII-XII. mendeetan Sollube-Oiz aldetik heda zitezkeen berrikuntzak.

5.2.5.1.6. Zuazok mendebaleko euskararen datazioaz emandako ikuspegia ere harrigarria egiten zait. Zioenez, “para esa época [XIV. mendea] el dialecto occidental se encontraba ya perfilado y consolidado” (2010a: 182). Are gehiago: “Teniendo en cuenta la lentitud con la que en épocas pasadas se extendían las modas lingüísticas, hemos de suponer que su origen se remonta necesariamente a varios siglos antes” dio (*idem*). Hots, Zuazok gogoan duen *mendebaleko euskara* sortua zegokeen XIV. mendea baino lehen, nahiz eta ez duen data zehatzik aipatzen.

Ez dakit zein den *moda linguistikoak* iraganean mantsoago hedatzen zirelako ideiaren funtsa, are garai zaharrenetarako ditugun ebidentziek denetarik islatzen baitute, espero zitekeenez, ezaugarriaren arabera (cf. XII. eta XIII. mendeetako datuak bokalerdiaren ondoko palatalizazioari dagokionez edo aoristoaren galera orokorrari buruzkoak, esate baterako).

Alde batetik, inkoherentea da dialektoa XIV. menderako finkatuta zegoela esatea eta ondoren dialekto horren ezaugarriak deskribatzean ematen diren ezaugarrietako asko data hori baino askozaz modernoagoak izatea: *mendebaleko euskara* XIV. menderako finkatua bazen, *mendebaleko euskara finkatu* horretatik kanpo geratzen dira, adibidez eta hemengo aztergaietatik irten gabe, txistukarien neutralizazioa eta kontsonante berrezarriak bokal sudurkariak zeuden lekuetan.

Beste alde batetik, data hori baino lehenagotzat zein data horretakotzat jo daitezkeen berrikuntza batzuek ez dute bat egiten Zuazok gogoan duen *mendebaleko euskara*-ren eremuarekin: $a + a > ea$ disimilazioaren eta *egin* aditz laguntzailearen hedadura ez da **edutsi*-rena eta bokalerdiaren osteko txistukarien palatalizazioarena, ez eta *-txu* txikigarriarena ere; lehenengoak unitate linguistiko zabal bati dagozkio, bigarrenak unitate horren zatiketa bati eta azkenak beste azpi-zatiketa bati.

Bizkaiko egungo euskarak edo *bizkaiera*-k ezaugarri horiek guztiak ditu, baina Zuazok aipatu ohi duen *mendebaleko euskara ca. X. mendeaz* geroztik eta gaur egunera arte ezaugarri bereizleak metatu dituen euskara da, ez XIV. menderako egituratuta zegoen dialektoa: XIV. mendean existi zitezkeen Mendebaleko Euskara Zaharra, Mendebal Muturreko Euskara eta geroragoko *mendebaleko euskara*-ren aurrekari izandako bestelako zatiketak (tesi honetatik kanpo geratutako alderdi morfologikoak

argi gehiago eman lezake horiei buruz, zalantzarik gabe), baina horiek definitzeko ezaugarri linguistikoak aipatu behar dira, eta banan-banan aztertu behar dira bakoitzak eskaintzen dituen aukerak.

5.2.5.2. Bilboko euskararen ustezko gordetzailetasunaz

5.2.5.2.1. Bilboko euskarara itzulita, hiribilduko euskarak zenbait edo hainbat arkaismo esanguratsu gorde ditu, baina, dakidala, gordetako ezaugarri horiek ez dira Bilbon bakarrik gorde: Bizkai sartaldearen eremu zabalagoetan ere gorde dira, ezaugarria zein den. Bereziki esanguratsu egiten zaizkit oraintsu arte iraun duten aditzaren morfologiaren esparruko arkaismoak, beste ikertzaile batzuek ere aipatutakoak, hala nola aoristo perifrastikoaren aleak (Gaminde 1995b: §4, Aldai 2008), **edun*-en adizkietako *-de* pluralgilea (Zuloaga inprimategian-1)⁴⁶⁵ eta *-te* alomorfoa aditz-izenetan (Urgell 2006: 924).

Era horretako arkaismoen argitan, Bilboko euskara gordetzaile(ago)tzat jo izan da, eta ildo horri jarraikiz baztertu zuen Zuazok mendebaleko euskararen sorreran eta bilakabidean aparteko eraginik izan izana. Aitzitik, kasu honetan ere eremu zabalagoa hartu behar da aintzat: Bizkai sartaldeko (ezen ez Bilboko bakarrik) euskara Euskal Herriko gainerako hizkeren aurka izan da gordetzaile ezaugarri zehatz horietan, ez Bizkaiko edo mendebaleko euskararen barne-dinamiken barnean bakarrik. Azken mendeotan behintzat bazter-eremu batean egon da Bilbo, eta hainbatetan aipatutako eta berretsitako ideia da neolinguisten lehenengo bi hatsarreek bildutakoa: arkaismoak bazter-eremuetan gorde ohi dira, erdigunean sortzen diren berrikuntzek zailtasun handiagoak baitituzte azken bazterretaraino iristeko.

XIV. menderako mendebaleko euskara egituratuta zegoela aipatzeaz gain, XVIII-XIX. mendeetako itzal handiko zenbait idazlek egindako iruzkinak ere aipatu izan ditu Zuazok (2010a: 182), gaztelaniaren eraginez Bilboko euskara gainbeheran zegoela erakutsi nahian. Zehazki, aurretik ere (§4.7.3) aipatutako Larramendiren *HH*-ko aipu hau gogorarazi zuen:

Aunque en Bilbao se habla mal, pero no es assi en sus cercanias, donde la propiedad, y pronunciacion se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao, si en este punto se picaran algo mas de Bizcainos: ni en esto quiero decir, que no ay en Bilbao quien sepa bien su Dialecto, pues se hallan algunos. (Larramendi 1745: xxjx)

⁴⁶⁵ **edun*-en adizkiak aipatuta ere, aintzat hartzekoa da *-de* alomorfoa inoiz Euskal Herri osoan orokor izandakoa dela; begiratu Trask (1995: 231), Lakarra (2013a: 293) eta Ariztimuño (2015b: 50), eta egungo *daude*, *dirade* beste euskalki batzuetan, nahiz eta mendebalean ere **edun* ez beste adizki batzuetako adibideak aurki daitezkeen: cf. Egiaren kantako *ecardeçan* (birritan) eta, Mendebal zabalagoan, Sevillako 1619ko bertsoetako *dacarde*.

Eta Mogelen beste hauek ere hainbatetan aipatu izan ditu (Zuazo 1987: 941-942, 2005: §1.4, 2010a: 182, 2019: 60-61):

Liburu berau ipintzea uste det Vizcaico eusqueran ere. Ez daquitenac uste dute Vizcai gucian esaten dala: *Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten*. Bilbotarren erdi erdera erdi eusquera daucate Vizcai gucico euscaratzat. Ez da ordea ala. Eztitsuagoac dira guiputzen itzac; baña itzen eusqueratasun, garbitasun, ta eusquera legueen aldetic, ez dio ecer zor Vizcaicoac. (Mogel 1800: xiv-xv)

Es precisa confesar ingenuamente, que está menos alterada en lo comun de Vizcaya (no hablo de Bilbao, porque parece que aqui se esmeran en sacar un *tercium quid* de la lengua castellana, y la bascongada, como alla algunas Israelitas con la hebrea, y la Babilonica. (Mogel, *apud* Villasante 1987: 90)

Aurreko aipuek aparteko interesa dute soziolinguistika historikoaren ikuspegitik, Lehen Euskara Modernoan garaiko idazle nagusietarik bik Bilboko euskarari buruz zuten ikuspegia islatzen baitute. Halere, hasteko eta behin, ez dirudi biak parekoak direnik: Larramendik ahoskera (txistukarien neutralizazioa?) zuen gogoan, eta Mogelek lexikoa. Bestalde, Larramendik zein Mogelek izan zezaketen ikuspegi garbizaletik aztertu behar dira aipuok: Bilboko lekukotasunen argitan, XVIII., XIX. zein XX. mendeko bilbotar batek ez luke esango ez *toroa*, ez *manzania* (bide batez, ezta *jaaten* bokal bikoiztunik ere XIX. mendean): “Mogelena, beraz, gehiegikeria eta trufa dateke, bere markinatartasunaren harrotasuna kontrastez nabarmentzeko modua” (Saiz & Ros 2001: 75-76).

Aipu horiek ez dira, nire ustez, Bilboren eragin ezaren erakusgarri: gehienez ere idazle garbizale bik (XVIII. mendean eduki zitekeen garbizaletasunarekin) Bilboko euskaraz zuten irudia islatzen dute. Egia da ordurako (eta are aurreko menderako, IbarraC kronikaren arabera; cf. Arriolabengoa 2008: 40) Bilbo hiri elebiduna zela ordurako, baina ez da ahaztekoa lehenago ere aipatutako ideia bat (§2.3.1.3.7): Euskara Zaharrera arte, gutxienez, eta beharbada arean beranduragora arte, Bilbo ez da izan Bizkai sartaldeko euskararen azken muga (cf. Saiz & Ros 2001, Mounole & Lakarra 2018: 365 eta Mounole & Gómez 2018: 476).

Bilboren balizko foku-izaera dela eta, bi alderdi hartu behar dira kontuan: (a) XIV. menderako ez bezala, Lehen Euskara Modernorako bai, sortuak ziren gerora *bizkaiera*-tzat jo izan den dialektoaren ezaugarri gehienak; (b) Larramendik gaitzesten zituen ahoskera-gaiak txistukarien neutralizazioari balegozkio, Bilbo mendebaleko berrikuntza baten partaide zela erakutsiko luke; alegia, gaitzestekotzat jotako ezaugarria besteak beste Bilbon/Bilbotik hedatu zela eta, horrenbestez, bazukeela eraginik jaurrerian.

5.2.5.2.2. Bilboren izaera gordetzaileaz edo berritzaileaz aritzeko biderik artezena eta egokiena da hiribilduko bertako testuak aztertzea eta beste batzuekin erkatzea. Halaber, arkaismoez eta berrikuntzez berba egitean ezinbestekoa da gogoan hartzea zer zen berezitasun eta zer zen komun garaian garai: “El Aoristo Perifrástico, objeto de estudio del presente trabajo, es uno de esos arcaísmos que aparecen en gran proporción tanto en la colección de refranes de 1596 como en el manuscrito de Mikoleta” zioen Aldaik (2008: 405).

Begi-bistakoa da Gamindek Bizkai sartaldeko Bilboko zenbait auzotan XX. mendean bildutako aoristoak arkaismo direla,⁴⁶⁶ eta arkaismotzat jo daitezkeela, neurri batean, Mikoletaren adibideak; aitzitik, *RS*-ren hizkera-ezaugarriak (ahoskerari ez beste mailei dagozkienak, behintzat) XV. mendekoak direla onartuta (Mounole 2018 [2011]), errefrau-bildumako aoristoak sasoiko arautzat jo behar dira Meiden (1975) terminologian: *aoristo* deitutakoa arrunta zen Euskara Arkaikoan.

Beste alde batetik, ezaugarrien maiztasuna aintzat hartu beharra aldarrikatu behar da. Bilbon XX. mendearen amaieran hiztun bati edo gutxi batzuei aoristoaren adibideak bildu izanak ez dakar Bilboko hizkera dialektala darabiltenek aoristoa sistematikoki darabiltenik. Aldaik (2008) zehatz argitu zuenez, aoristoa zerabiltenek *egin* zerabilten lehenaldian, nagusiki hirugarren pertsonetan eta ez forma bakar gisa. Azken horretan egin nahi dut indar: Gamindek Bilboren eta Nerbioi ibarraren arteko baserri-auzoetan (jatorrizko Bilbo zen Alde Zaharretik lau zapabost kilometrora), aoristoaren zenbait adibide ihartu bildu zizkien berriemaile bakan batzuei (Gaminde 1988, 1994). Horrek, jakina, ez dio apartekotasunik kentzen ezaugarriari eta ezaugarria gorde izanari, baina neurri hobea edo errealistagoa ematen dio fenomenoari. Niri neuri arriskutsua iruditzen zait aoristoaren adibide horiek direla-eta Bilboko euskara *arcaizante*-tzat jotzea (Zuazo 2010a: 183) oro har: aoristoak gorde izana Bizkai sartaldearen bazter-izaerari dagokio, ez da Bilbok eskusiboki atxikitako arkaismoa: “NOR-NORI sailean sarrien agertzen dira Lemoizen hasita Erandioko Arriaga auzoraino itsasertzetik” (Gaminde 1995b: 549).

5.2.5.2.3. Testuak direla eta, *Enojaduric* kantak, Mikoletaren eskuizkribuak eta Joseph Aranzazugoitiak Bilboko eskribau-etxe batean 1770ean prestatutako galdetegiak aukera ona ematen dute hiribilduko euskararen izaeraz hausnartzeko. Ez ditut hemen

⁴⁶⁶ Ihartuak eta disfuntzionalak, dira, nolana ere den (begiratu, halaber, aoristoa Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera bitartean galdutakotzat jo arren, Haranederren –menpeko esaldietan– zein Mendibururen –datiboan– lanetan –eta, zehatzago, otoitzetan– aurki daitezkeen arrasto ihartuak).

bakoitzaren ezaugarri linguistikoak xehakatuko (cf. hurbilketa bana Ariztimuño *et al.* prestatzen eta Zuloaga & Antequera 2019 lanetan), baina testuok ezagututa, ezin esan dezaket Bilboko euskara Bizkaiko eta mendebaleko dinamiketarik kanpo ibili denik edo Bizkaiko beste edozein eremu baino (askoz) gordetzaileagoa izan denik, oro har.

XVII. mendearen erdian gogoan hartzekoak dira zenbait berrikuntza positibo zein negatibo: Mikoletarenean ez dago bokal bikoitzik; *au* > *eu* diptongo-aldaketaren bat dakar; adizkietako *a + a* > *ea* disimilazioa sistematikoa eta, beste inon ez bezala, **edun* eta *egon* aditzetara (eta, agian, **ezan*-en adizki batera) hedatuta dago zenbait kasutan, bakanak izan arren; berrezarria du bokal sudurkarien ondoko kontsonantea; abiatua du txistukarien neutralizazioa; txistukarien disimilazioen adibideak ditu; *-tzako* du destinatiboan; lehenengoz dokumentatzen du *-tuten* aldaera aditz-izenetan; *-n*-ren galera du adizkietan eta abar.

XVIII. mendearen bigarren erdiko galdetegi administratiboa Lehen Euskara Modernoko testua da bete-betean: ez du aparteko gordetzailetasunik edo berezitasunik islatzen. Agertzen diren arkaismo gehienak (adibidez, *-de* NORK pluralgilea **edun*-en adizkietan, aditz-izenetan *-te*-ren bat edo *zein* ‘ez dadin’ erabiltzea) gaur egunera arte iritsi dira eta eremu zabalagoa dute Bizkai sartaldean. Bestalde, eremu zabalekoagoak zein txikiagokoak izan, Bilboko euskararen bizitasuna eta Nerbioi ibarraren iparraldeko euskararekiko lotura islatzen dute garaiko berrikuntzek: *e* → *i* bokal-igotzea, *-ijV* kontsonante epentetikoa, beheko bokalaren asimilazioa, [erakuslea + izen-sintagma + *-au/-ori/-ok*] egitura, *hatan*-en gramatikalizazioa *-an*-en partez (4r *ausiyatan* ‘auzi hartan’), soziatiboko eta instrumentaleko sinkretismoa, *-mintu* aldaera, aditz-izenetako *-eta* atzizkia zein *eban* > *eben* ‘zuen’ ereduko asimilazioak aipa daitezke, besteak beste.

Hain zuzen ere, azken berrikuntza horien bidez irudika daitezkeen filiazio azpi-dialektalei begira, Nerbioi ibarraren iparraldeko hizkera bera agertzen da (cf. Zuloaga & Antequera 2019: §7). Fokua Bilboko euskararen jartzean halako isolamendu bat hartzen du ikergaiak, baina atomismoaren arriskua saihestu eta tokian tokiko hizkeren eta aldirikoen arteko loturak aintzat hartu behar dira lurraldearen antolamendu geolinguistikoaz era errealistagoan berba egin ahal izateko.

Bilboren gordetzailetasuna izatekotan ez hiribilduarekin baina Bizkai sartaldearen bazter-izaerarekin lotu behar delakoan azken ariketatxo bat egingo dut; zehazki, Aiaraldeko *Dotrinazko sermoitegi*-an agertzen diren arkaismo nabarmenen zerrenda hartuko dut (Ulibarri 2015), eta Mikoletarenean eta Zolloko galdetegian

daudenekin alderatu, testu baten eta bestearen gordetzailetasuna alderatzeko. Hona hemen konparazioaren emaitza:

9. taula. Bilboko euskararen gordetzailetasunaz, konparazio-taula

Ezaugarria	Mikoleta (1653)	DotrSerm (ca. 1770)	ZolloGald (1770)
Bokal sudurkariak	+ (behin)	+	-
Ablatiboa: <i>-rean</i>	+	+	-
<i>-tzaitte</i> aditz-izenetan	+	+	-
<i>-ite</i> aditz-izenetan	+	+	+
Aditzoina	-	+	-
* <i>ezan</i> aditz laguntzailea	+	+	-
<i>jakin</i> aditz laguntzailea	-	+	-
Hurbiltze-adlatiboa: <i>-no</i>	-	+	-
<i>l-</i> aurrizkia	-	+	-
Aoristoa	+	+	-
<i>Ze(d)in</i> 'ez dadin'	-	+	+

Aztertutako hizkeren izaerari buruzko ondoriorik atera baino lehen zenbait zehaztapen egin behar dira: aditz-izenetako *-ite*, aoristoak eta *ze(d)in* oraindik ere entzuten dira Bizkai sartaldean; beraz, nahiz eta testuren batean ez agertu, kasu honetan (ere) ebidentzia negatiboa ez da ezaugarriaren faltaren erakusgarri. Bestalde, zerrendatutako ezaugarrien artean badaude Euskal Herriko mendebalean Araban bakarrik lekututakoak (*jakin* eta *-no*); beraz, ez da harrigarri Bilboko testuetan horien alerik ez egotea.

Laburra izan arren, kronologiaren ikuspegitik esanguratsua iruditzen zait konparazioaren emaitza: zerrendatutako ezaugarriak arkaismotzat jo daitezke sasoi batetik aurrera, baina ez bete-betean Mikoletaren sasoirako. Periodizazio-gaiez aritzean esan legez (§5.1.7), Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrerako trantsizioa 1600. urtean kokatu zuen Lakarrak (1997a: 517), eta arestian aipatzen diren zenbait ezaugarriren galera eta bilakabidea aipatu horren erakusgarri, baina ezaugarri horietako batzuek luzaroago iraun zuten Euskal Herriko mendebalean, bazter-kokagunea dela-eta espero zitekeenez; ez dira Bilboko euskarari (bakarrik) datxezkion ezaugarri gordeak: eremu zabalagokoak dira.

Erkaketa-koadro horretan arreta ematen duena da Mikoletaren sasoiaren arrunt(ago) ziren zenbait ezaugarri *Dotrinazko sermoitegi*-an agertzea ehun eta hamazazpi urte geroago, beste garai linguistiko batean: Aiaraldeko euskara gordetzail

agertzen da erkaketan, Bilboko euskara baino hainbat gordetzaileago. Izan ere, Mikoleta eta Zolloko galdetegia erkatuta, nabarmena da bilakabidea: Lehen Euskara Modernorako arkaismo izango lirakeen ezaugarri gehienak desagertuak ziren 1770eko Bilbon.

5.2.5.2.4. Azken orrialdeetan eztabaidara ekarritako datu eta ikuspegiak ideia argi bat defendatzen dute: ez dago arrazoi sendorik Bilbo Bizkaiko hirigune linguistikoki estrategikoen artean ez kokatzeko, ez eta berrikuntzen foku edo/eta inon sortutako eta inondik hartutako berrikuntzak hedatzeko pibot funtsezkotzat ez jotzeko ere.

Argi dago Mendebaleko Euskara Zaharreko berrikuntza nagusiak ez zirela Bilbon sortu, baina Mendebal Muturreko Euskara hezurmamitzen duten zenbait ezaugarri Bilbon sortuak edo/eta Bilbotik zabalduak izan litezke aparteko arazorik gabe: gogoratu adizkietako $a + a > ea$ -z proposatutakoa, eta bokalerdien ondoko palatalizazioaren, **edutsi*-ren zein (are) *egin*-en hedadurak iradokitzen duten lotura sendoagoa.

Horiez gain, aintzat hartu beharko litzateke sozietiboko *-gaz/-kaz* bikotea bakar dela garai guztietako testuetan Bizkaiko erdi-sartaldean (halere, egoera bera islatzen du Betolatzak eta, *-kin* ere baduen arren, Lazarragak ere hainbateta; begiratu §6.4.1.6 atala), eta beste horrenbeste gertatzen dela norabide-adlatiboko *-rantz(a)* aldaerarekin: Zuazok (2010a, 2014) ez ditu bi horiek aipatzen,⁴⁶⁷ baina Bizkaiko berrikuntzak Sollube-Oiz eremu zabaletik zabaldu izan balira, bitxia izango litzateke hortik eskuin eta hurbil dauden Bizkaiko eremuetako batzuetara (Mundakako itsasadarretik eskuin dagoen kostaldea, eta Markina eta Durango aldeak) zabaldu ez izana. Nire ustez, horien hedadura errazago azaltzen da Bilbotik zabaldu zirela proposatuta: Durangok Bizkai sartaldearekin egiten du bat bi aldaera horietan,⁴⁶⁸ eta hori ere ez da zaila azaltzen Erdi Aroaz geroztik Mañaria eta Ibaizabal ibaien ibilguari lotutako bideak aintzat hartuta (begiratu §5.2.2.1.2.9 ataleko mapa).

Eremu txikiagoko berrikuntzei dagokienez, Bilboren alde egiten dutela uste dut: Zuazok (2010a: 185, 2019: 62) *au > eu* bilakabidea aipatzen du Bizkai erdialdekotzat eta modernotzat, baina sartalde muturrekoak eta uste baino hiruzpalau mende lehenagokoak dira adibide zaharrenak: *RS-k 380 eusi* ‘adausi’ dakar eta Mikoletak 9r

⁴⁶⁷ Aitzitik, *-rutz* aldaera aipatzen du Arabako lautadatik hedatutakoen artean (Zuazo 2014: 52).

⁴⁶⁸ Beharbada ez Durangalde osoak, ordea, Kapanagaren dotrinak *-kin* aztoragarri bat baitakar: 62 *Graça, zeinequin parcaetan iacuçan culpa igaroac*.

regüeldo - eupaza (< *aho + pats*). Bestalde, Nerbioi ibarraren iparraldean gertatutako zenbait berrikuntza fonologikok halako uharte berritzaile bat sortzen dute Bizkai sartaldean, eta Bilboko euskarak horrekin egin du bat XVIII. mendearen amaieraz geroztik, gutxienez (cf. Zuloaga & Antequera 2019: §7): pentsa liteke Arrigorriaga edo Basauritik hedatutako berrikuntzak direla, baina Bilbotikoak izatea ere ezin da baztertu.

5.2.5.3. Azken gogoetak difusioaz eta Bilboz

Berrikuntzen bilakabideari ikuspegi geografikotik begiratzean oro har bi alderdi aztertu ohi dira: berrikuntzaren hedadura eta berrikuntza hori nondik eta nora hedatu den. Euskal dialektologia diakronikoan ezer gutxi landu da azken puntu hori, eta landu denean berrikuntzen sorlekuan jarri izan da arreta: ezaugarriak non sortu ziren argitzeko proposamenak egin dira, eta horrek ekarri du aurrerapenik eta ikuspegi-aldaketa sakonik; besteak beste, mendebaleko euskararen egituratze zaharraz zegoen ikuspegi tradizionala irauli da, eta Arabaren eragina lehenetsi. Berrikuntzen sorlekuak aurkitzeak, ordea, ez du dena azaltzen: $a + a > ea$ Gasteiztik abiatu izanak azaltzen du zergatik iritsi zen berrikuntza Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxara, baina ez du azaltzen zergatik ez zen iritsi Gipuzkoako kostalde gehienara eta zergatik hedatu zen Bizkai osora; halaber, ez da zentzuzkoa pentsatzea txistukarien neutralizazioa Bilbotik zein Gasteiztik zuzenean hedatu zenik Hondarribira.

Oro har, sorlekua aurkitu (uste) izanak sorleku horietara bideratu du ikertzaileen arreta bete-betean, baina ezaugarrien hedadurari buruzko proposamenek ez lukete sorlekuan bakarrik oinarritu behar: berrikuntzak sorleku horretatik nora, noiz eta nola hedatu ziren ere aztertu eta azaldu behar da ahal den heinean. Gasteiz abiapuntu izateak azaltzen du $a + a > ea$ -ren hedadura, baina ez dirudi zentzuzkoa pentsatzea Gasteizko euskarak eragin zuzena izan zuenik Berangokoan, Zamudiokoan, Morgakoan edo Berrizkoan.

Berrikuntzen difusioa aztertzeaz luzaroan arduratu direnek bestelako alderdi bat ere nabarmendu dute, eta ezaugarrien sorlekua difusioaren ardatz bakar bihurtzen duten ikuspegiak errefusatu dituzte:

Linguistic features (just as certainly very many, if not most, cultural features) are not diffused, nor do they diffuse, but given the proper circumstances, they are adopted as speech habits by members of outside speech communities. The picture customarily presented by linguistic geography of a diachronic type is in the nature of a photographic negative: it reverses the active and the passive sides in the transmission process, thereby replacing the proper notion of relatively free, and often even playful, selection by its very opposite, that of imposition by outside forces. (Winter 1973: 137)

Euskal Herriko mendebalaz ari naizela, aurreko ideiarekin ez diot ezelako garrantzirik kendu nahi Gasteizen eragin zaharrari, ezta gutxiago ere; aitzitik, Gasteiz zenbait berrikuntza estrukturalen sorleku izateagatik beste gune batzuk bigarren mailakotzat jotzearen eta horiei garrantzia kentzearen ideia edo joeraren aurka egin nahi dut. $a + a > ea$ disimilazioak lurraldez lurralde duen hedaduraz aritzean aipatutakoari jarraikiz, ezin da berrikuntza horrek Bizkaian aspaldirik dituen sistematikotasuna eta hedadura azaldu Bizkaiko bide-sare eta biztanleria-guneek egituratutako eta baldintzatutako espazioa kontuan hartu gabe. Aldaketa Gasteizen gertatu zen, eta handik hedatu; aitzitik, jaurrean berrikuntza hori hartzeko *prest* eta, areago, berrikuntza hori indartzeko eta jaurreko azken ukuiluraino errebotatzeko *prest* zeuden hiztun-komunitate egituratuak zeudela pentsatzea ezinbestekoa da. Aurreko adibideari eutsiz, beraz, $a + a > ea$ Gasteiztik abiatu zen, baina Bizkaiko hiztunek lortu eta bermatu zuten berrikuntzaren arrakasta inondik iritsitakoa onartuz, euren hizkuntzan integratuz eta, areago, indartuz (gogoratu adizkietako disimilazioez esandakoa):

In still other instances, patterns may be more complex, with some features showing characteristics of both contagious and hierarchical diffusion (...) or with an area of late adoption eventually becoming the area of heaviest concentration (...) in a kind of geographical hypercorrection. (Bailey *et al.* 1993: 385; letra etzana neurea da [EZ])

Taeldmanek bereizitako hiri-intsularitateen artean, beraz, ezaugarri horri dagokionez bigarren motatakoak izango lirake Bizkaikoak: berritzaileak, inondik hartutako berrikuntza jaso, integratu eta erreplikak eragin zituzten neurrian, era berean konbergentzia- eta dibergentzia-prozesuak eraginez (Taeldman 2005: 269). Bizkaiko hiriguneen artean, bada, Bilbo gainerakoekin batera sailkatu behar da puntu honetan. Bilbo ez da izan berrikuntzei uko egiten dien hiribildu kontserbadorea, dibergentzia bakarrik eragiten duena: era horretako hiribilduetan aurre egiten zaie berrikuntza exogenoei luzaroago, eta halakoetan tokiko nortasunari (nortasun linguistikoari, kasu honetan) eutsi nahiak eragin izan du gordetzailetasuna (cf. Goosens 1998, Sandøy 1998, Kerswill 2002a, 2002b). Aurreko atalean azaldutako argudio linguistikoak bestela interpretatu beharri maila soziolinguistikoan halako kontraesan bat gehitu behar zaio, beraz: ez dago arrazoi objektiborik pentsatzeko bilbotarrek euren hizkerari eutsi nahi izan ziotelako gorde zituztela aditz aoristoak edo zenbait alomorfo arkaiko.

Bilboko euskararen izaera mendebaleko euskararen bazter-kokagunearen testuinguruan azaldu behar da: bazter-hizkera delako gorde ditu zenbait arkaismo esanguratsu, inguru zabaleko hizkerek gorde dituzten legez; bestalde, Erdi Arokoak zein Lehen Euskara Modernokoak izan, inondik hedatutako berrikuntzak arazorik gabe hartu

izan ditu Bilboko euskarak, eta beste batzuen sorleku eta hedaleku ere izan da: Arabako eta Bizkaiko euskararen arteko lotura estuagoak (Mendebal Muturreko Euskararen sorrera eragin zutenak) edo mendebaletik ekialderantz zabaltzen diren ezaugarrien hedatzea Bilbo aintzat hartu gabe azaltzea irrealia iruditzen zait.

Bada aipatu beharreko beste ideia bat ere: foku berritzaile zaharrez aritzean, zentzuzkoa da, egin izan den bezala, sasoiari sasoi hirigune garrantzitsuenak (soziopolitikoki, kulturalki eta abar) zein diren aintzat hartzea; aitzitik, tarteka balirudike erreleboka aldatu direla indar grabitatorioak: Iruñea eta Gasteizen artean lehenengo, Gasteizen eta Bizkaiko erdigunearen edo Bilboren artean ondoren, adibidez. Alegia, badirudi, eta inpresio hutsa izan daiteke, hirigune garrantzitsu izan direnen indarra apaldu arte beste hiriguneez ezer gutxi sortu edo eragin ahal izan dutela. Kontuak, ordea, konplexuagoak izan ohi dira egiazki: A hirigunea B hirigunea baino handiagoa edo garrantzitsuagoa izateak ez dakar B-k ezer sortu edo eragin ezin duenik harik eta A-ren indarra apaldu den arte. Dialektologian oinarrizko ikuspegia da muga dialektalak eta isoglosen muga edo ertzak eragin-indarrek talka egiten duten eremuetan agertzen direla, besteak beste.

5.2.6. Gehiago mendebaleko eremu berritzaile eta gordetzaileez

5.2.6.1. Mendebalean gordetako ezaugarriez: bokal sudurkariak eta bikoitzak

5.2.6.1.1. Azpi-atal honetara ekarritako bi ezaugarrien artean bokal sudurkarien iraupena eta eremua zehazten da zailena, ezaugarria deskribatzean aipatutako arazo grafikoengatik; hots, dirudenez Madariagari jarraitu zioten Garibai eta Kapanagaz landara (Madariagaren eredugarritasunaz, begiratu Ulibarri & Urgell 2019: §6) gainerako idazleek ez zituztelako bokal sudurkariak grafikoki adierazi eta horrek testuetan agertzen diren formetan sudurkaritasunik dagoen erabakitzera behartzen duelako ikertzailea.

Euskal Herriko mendebalari dagokionez, bokal sudurkariak Euskara Arkaikora arte iraun izana ez da harrigarria, Mitxelenak (*FHV* 38) argiro ikusi baitzituen Madariagaren eta Garibairen azalpenetan. Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera bitarteko trantsizioaren ezaugarrien artean aipatu zuen Lakarrak (1997a: 516; cf. orobat Lakarra *et al.* 2019: §11.1) bokal sudurkariak galera; beraz, ez da harrigarri izan azken hamarkadan aurkitutako testu arkaikoetako zenbait aldaera azaltzeko bokal sudurkariak proposatu izana (Lazarg eta SarasketaHiz ditut bereziki gogoan). Bereziagoa da, jada

aipatu legez, Ulibarrik (2015: §4.2.1.6) bokalon arrastoak aurkitu izana XVIII. mendearen amaierako *Dotrinazko sermoitegi*-an.


Ikuspuntu geografikotik mendebaleko euskara bazterreko euskara izateak ekarri du bokal eta diptongo sudurkariak luzaroago gorde izana, gaur egun Euskal Herriko beste muturrean gordetzea ekialdeko euskararen bazterreko hizkera izateari egotz dakioken legez.⁴⁶⁹ Hain zuzen, bazter-eremu zabal den Mendebal Muturreko Euskararen barnean are bazterragoko hizkera da Aiaraldekoa, eta horrekin lotu behar da, Ulibarrik (2015: § 4.4.3) egin legez, hala bokal sudurkariak nola bestelako arkaismo esanguratsu batzuek inguru hartako hizkeran Lehen Euskara Modernora bitartean iraun izana. Mendietak, nolana ere den, *ainsta* aldaera dakar *Aerario*-an (Ulibarri 2013a: 182-183, 9. oin-oharra), kontsonante konpentsatorio eta guzti, XVI. mendean.

Euskal Herriko mendebala aintzat harturik, badirudi garai nabarmen zaharragoetan komun izandako ezaugarria Mendebal Muturreko Euskarari loturik zegoela, gehienbat, Euskara Arkaikotik Lehen Euskara Modernora bitartean Euskal Herriko erdi-mendebalean. Halako baieztapenak egitea ezin arriskutsuagoa da esku arteko ikergaia arkaismoa izanik, baina orain arteko adibideak inguru horretan metatu dira gehienbat: ekialderen geratzen direnak Lazarraga eskuizkriburako proposatutakoak dira.

Ondoren agertzen den mapan markatu ditut bokal sudurkariak dituzten eta jatorri ezagun(xe)a duten testuen jatorria. Gris ilunez markatu ditut XV-XVIII. mendeetako adibideen jatorria, eta gris argiz Aiara, horkoak (*DotrSerm*) baitira adibide berrienak:⁴⁷⁰

⁴⁶⁹ Hizkera bat *bazter hizkera*-tzat jotzean ere ezinbestean hartu behar da aintzat alderdi historikoa: ez du ematen Aiaraldea inoiz Euskal Herriko erdigunea izan denik, baina hizkuntzen hedatze- zein galera-prozesuen ondorioz gerta daiteke hizkeren kokagune geolinguistikoa aldatzea: Aiaraldearen ingurumari linguistikoa ez zen berbera XVI. mendean (hegoalderago behintzat baziren euskaldunak) eta XIX.ean, galerak hegoaldeetik iparraldera hedatzen jarraitzen zuenean. Bestalde, ez dira nahastu behar *bazter hizkerak* eta *hizkera isolatuak*. Askotan gerta daiteke hizkera bat bazter batean egotea, geostrategikoki esanguratsu ez den eremu batean, eta horrek ekar diezaioke halako isolamendu bat, jende gutxiago joaten delako hara edo bide gutxiago igarotzen direlako inguru horretatik; aitzitik, Aiaraldeari dagokionez hori ez da egoera: bazter-hizkera da Aiarakoa eta ematen du hala izan dela menderik mende; baina, Arabatik Bizkairako bide nagusietako batek, Gaztela eta Bilbo eta Bizkaiko kostaldea Urduñan barrena biltzen dituena, Aiaraldea zeharkatu du historikoki, eta hala egiten du gaur egun ere.

⁴⁷⁰ ArrasErreI eta RS gogoan hartuta markatu ditut Bilbotik itsasora eta Mungiara bitarteko herriak, eta gogoan hartu behar da Mikoletak sudurkaritasunaren arrastoren bat gordetzen zuela (7v *lau,a* baina 14r [birritan] *launti* ‘lautik’).



32. irudia. Bokal sudurkarien lekukotzak XVI-XVIII. mendeen artean

Aurreko irudiak erakusten duenez, ez dago eremu bateraturik ez Bizkaian, ez Araban, ez Gipuzkoako mendebalean. Aitzitik, zuriz geratutako herri gehienetan arrazoa ez da bokal sudurkaririk ez dagoela, ezpada bokal sudurkaririk dagoen aztertzeko testuak falta direla eta testuak daudenean sudurkaritasuna ez dela markatzen. Euskara Arkaikorako behintzat ez dut aparteko arazorik ikusten pentsatzeko grisez markatutako herri edo eremuen artekoak ere grisez eman zitezkeela; alegia, bokal sudurkariak arrunt izan zitezkeela Mendebal Muturreko Euskara osoan (gutxienez).

5.2.6.1.2. Aurreko atalean bokal sudurkarietz aritzean esan legez, ez da harritzekoa mendebalean gorde izana ustez aurreko garaietan komun izandako bokal bikoitzak: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zati bateko bazter-euskarak luzaroago gorde zituen beste hizkera eta euskalki batzuetan lehenengo testuak agertu orduko galdutako aldaerak:

Bokal bakunketa dugu mendebaldeko eremutik kanpo Juan de Amenduxen eresian (*honrrac*, GN, 1564; *TAV* § 3.1.18), Tolosako paskinetan (*gauçac*, G, 1619; *TAV* § 3.1.25), Alesonen kopletan (*obrac*, GN, 1666; *TAV* § 3.1.28), Isastiren errefracuetan (*gaztac*, GN?, c. 1620; *TAV* § 3.3.3; RIs 12 *olaac*-i buruz, cf. sing. *Olaa* RIs 76) eta Itziarko andramariren bertsoetan (*animak*, XVII. mn.; *ConTAV*, 1. oh), besteak beste. (Aginagalde & Urgell 2012: 24, 53. oin-oharra)

Bokal bikoitzak bakundu zituzten gainerako hizkeren aurrean gordetzailer izan zen, beraz, Euskal Herriko mendebala; zehatzago, Bizkai sortaldea eta Gipuzkoa sartaldea aipatu zituen Mitxelenak (*FHV* 91), eta horren alde aipatu Markina eta

Durango aldeko testuak (Kapanaga, astarloatarak, Mogel, Frai Bartolome), eta Oñati aldekoak bereziki (Garibai, *RS* eta Oñatiko eskuizkribua).

Neurri batean Mitxelenak aipatutakoarekin ados egon arren, azken mende erdian testu horiei buruzko ezagutza nabarmen aurreratu da, eta bestelakoak ere agertu dira; beraz, zenbait aldaketa egin beharko lirateke: behinik behin, astarloatarren, Mogelen eta Frai Bartolomeren lekukotasunak eta eragina astiro eta literatur bizkaieraren eredua finkatu nahiari loturik aztertu behar dira (cf. Altzibar 1992: 417 eta hurrengoak), *RS*-ren kokaguneaz oso bestelako informazioa dugu Lakarraren (1996) edizioaz geroztik eta nahiz eta funtsean hizkera-eredua bera izan, bi dira, ez bat, Oñatiko eskuizkribuak. Horiei guztiei gehitu egin behar zaizkie hainbat bokal bikoitz dakartzaten testu aurkituak, hala nola Lazarraga eskuizkribua (Bilbao *et al.* inprimategian) eta Sarasketa hiztegitxoak (Aginagalde & Urgell 2012).

Hain zuzen ere, Sarasketa hiztegitxoaren hizkuntza-azterketari loturik emandako deskripzioan zehatzago ikusten da bokal bikoitzen eremukako banaketa Euskara Zaharretik gaur egungo hizkeretaraino, testu nagusiak aintzat harturik eta laburrak eta adibide bakanak dakartzatenak baztertuta:

1. Eremu zabala zeukakeen Euskara Arkaikoan: Zumarragak (Durango, 1537), *RS*-k (Bilbo?, 1596) eta Lazarragak (Larrea, 1567-1602), bai, aldizka Ibarguen-Cachopin kronikaren hiztegitxoak (Ibarruri/Muxika?, c. 1600), baina ez Landuccik (Gasteiz?, 1562).
2. Anitzez urriagoa Euskara Zaharrean: Kapanagak (Mañaria, 1656) eta *Viva Jesus*-ek (Bizkaiko hego-sartaldekoa, c. 1640) bai, baina Mikoletak (Bilbo, 1653), Zubiak (Durango, 1691), Arzadunek (Durango, 1731) eta Urkizuk (Durango, 1737) ez, esate baterako.
3. Oraindik ere Bizkaiera Klasikoan badugu, Markinako eskolako idazleen artean bereziki (Altzibar 1992: 428-430).
4. Gaur egun leku gutxi batzuetan gorde da: Oñati, Zumaia, Zegama eta Legazpin (Hualde & Gaminde 1997). (Aginagalde & Urgell 2012: 24)

Testu-zerrenda hori zertxobait osatzearren, Euskara Arkaikoan Deba ibarreko testuetan gutxi eta sakabanaturik agertzen diren zenbait adibide (Garibai, MLastur eta Sarasketa hiztegitxoak bera) aipa daitezke, eta Euskara Zaharrean Amilletak eta 1708ko sermoiak badituzte. Lehen Euskara Modernoan Gamizek eta Albenizek ez dute adibiderik, baina Oñatiko eskuizkribuetan ugari agertzen dira. Bizkaian, bestalde, ebazten zaila da zer neurritan eman zitzaketen markinar idazleen eraginpean bokal bikoitzak Sarriak, egileak eta Apoitak (beharbada, baita De la Quadrak eta *Errosariyo santuba*-ren egileak ere).

Bestalde, Deba ibarretik eskuin dauden eremuak begiratuta, adibideak aurkitu ditut *Salmo miserere* arkaikoan, *Sumario breve*-an (Azkoitia, 1614), Errezilgo 1622ko

gutunetan eta XVIII. mendearen bigarren zenbait testutan: *Grand tour*-ean eta Peñafloidaren lanetan Urolan, eta 1705eko Gabon-kantan eta Otxoa Arinen dotrinan Goierrin. Halere, bereiztekoak dira VCV > VV ostean sortutakoak (bakan agertzen dira, eta berba edo morfema berberetan behin eta berriz) eta modernoagoak, tinbre bereko bokalak biltzean zein asimilazioz sortutakoak.

Datu horiek guztiak aintzat hartuta, egia da Mitxelenak aipatutako eremuko zenbait hizkeratan luzaroago iraun zutela/dutela bokal bikoitzek, baina ez nuke Bizkai sortalde eta Gipuzkoa sartalde osoa bakarrik joko gordetzailatzat. Beharbada kasu argiena Oñatikoa da, gaur egunera arte iraun baitute. Durango aldean Bilbon edo Gasteizen baino gehiago iraun zutela ere ez da zalantzarik, Kapanagarenean ugari agertzen baitira; aitzitik, garai bertsukoa eta jaurreriaren beste muturrekoa da VJesus, eta azken horretan ere askotan daude bokal bikoitzak (Ulibarri 2010a: §3.1.1). Gainera, Durango aldean laster gertatu bide zen galera: *Egiaren kanta*-k adibiderik ez duela ahaztu gabe, gogoratzekoa da ez dagoela bokal bikoitzik Zubiaren dotrinan, ez eta Arzadunen eta Urkizuren liburuetan ere.

Egoera horrek iradokitzen didana da Euskal Herriko mendebala gordetzaile izan zela erdialderagoko eta ekialdeko euskalkien aldean, Mitxelenarekin bat (*FHV* 91): Euskara Zaharrera bitartean gutxi gorabehera Mendebaleko Euskara Zaharrak hartzen zuen eremu bertsuan eta harago aurki daitezke (gogoratu Isastiren erretrauetako 12 *olaac* eta 67 *olaa* eta §5.2.2.2.2 atalean $a + a > aa > a$ soiltzeaz aipatutakoak); aitzitik, mendebalaren barnean eremu gordetzaileak eta berritzaileak nahasten dira garai berean, eta zaila da egiazki eremu zabal bateratsuez berba egitea: VJesussek ugari ditu eta Mikoletak ez, eta egoera errepikatzen da, hurrenez hurren, Lazarraga eta Landuccirekin, adibidez.

Bizkaiera klasiko deitu izan denaren aurretikoko adibideak ere tentuz aztertzeak dira, ziur asko markinar idazleen hautu estilistikoen eraginetik baitute beste inondik baino gehiago (begiratu §5.3.3.2.3 atala).

5.2.7. Euskara Zaharreko eta Lehen Euskara Modernoko zatiketez

Euskal Herriko mendebala bazter-eremua izate hutsagatik (espero zitekeenez) erdialderagoko hizkeren aurrean gordetzaile ere badela onartuta, aipatzekoa da Mendebalaren beraren barnean eremu gordetzaileagoak zein berritzaileagoak daudela. Atal honetan berrikuntzen ikuspuntutik begiratuko diet mendebalaren barneko zatiketei; zehazki, tesi honetan aztertutako garai historikoko berrikuntzak non sortu eta nora

hedatu ziren gogoraraziko dut, eta horren arabera bestelako ezaugarriei buruzko azterketekin osatu beharreko zenbait joera aipatuko ditut. Lehenengo multzo batean Euskara Zaharreko berrikuntzak (txistukarien neutralizazioa eta beheko bokalaren asimilazioa) aztertuko ditut, eta bigarrenean Lehen Euskara Modernokoak (eufoniak).

5.2.7.1. Txistukarien neutralizazioa eta beheko bokalaren asimilazioa

5.2.7.1.1. Ezaugarria zein den, aldatu egiten da eremu jakin bat gordetzailatzat edo berritzailatzat jotzeko aukera: Bizkai sartaldea euskararen ezker-bazterrean dago eta horrek hainbat arkaismo esanguratsu gordetzea eragin du; baina, ezagun da bazter-eremuak berrikuntzen sorleku ere izan daitezkeela, eta kasu horretan bazter-eremu gordetzaila zabalago baten barneko gune berritzaile izan daitezke: “Areas which have been designated as relic areas with respect to one linguistic innovation may very well be innovative, focal areas when another language change is brought into focus” (Wolfram & Schilling-Estes 2003: 723); adibidez, “full /j/-loss in England is geographically peripheral but is actually an innovation” (Chambers & Trudgill 1988 [1980] 183-184).

Tesi honetan aztertutako bi ezaugarrik argiro islatzen dute aipatutako egoera: txistukarien neutralizazioak eta beheko bokalaren asimilazioak. Izan ere, jatorri poligenetikoa jatorri, datuek erakusten dute Bizkai sartaldean sortaldean baino indartsuago zeudela XVII. mendean, eta horrek sorlekua edo sorlekuetako bat inguru hartan bilatzera narama.

5.2.7.1.2. Txistukarien neutralizazioa multifokala izan bide zen, nahiz eta gero eredu hierarkiko baten bidez hedatu hala lurralde barnetik nola itsasotik. Mendebalari dagokionez, badirudi sartaldeko hiriguneetan indartsuago agertzen dela: 1600 baino lehen Gasteiz (Landucci) eta Deba aipa daitezke, Euskara Zaharrean Urduña, Busturia, Bilbo, Eibar eta Azkoitia, eta Lehen Euskara Modernoan Gernika, Bermeo, Durango, Eibar, Donostia eta Hondarribia.

Banaketa kronologikoak eta diatopikoak behin baino gehiagotan islatzen dute hedatzearen norabidea: mendebaletik ekialderantz hedatzea izan zen joera orokorra; beraz, badirudi Bizkaiko eta Arabako sartaldeko hirigune batzuk behintzat berritzaileago izan zirela sortaldekoak baino: Bizkaian gogoratzekoak dira Zumarragaren eta Kapanagaren testuetan egoera bertsua dagoela tartean mende bat egon arren, Markinako baserrietan XX. mendearen hasieran homofonia saihesteko gordetzen zela bereizketa zenbait berba-bikotetan, eta Elorrio aldean XVIII. mendearen erdialdera arte behintzat bereizketa gorde zela. Gipuzkoan, bestalde, lurraldearen barnean Eibar eta

Azkoitia berritzaile dira, eta landa-eremua (Lastur) zein elizate txikiagoak (Antzuola) gordetzaile. Kostaldeko hiribilduak berritzaile dira, ordea: Deba, Donostia eta Hondarribia aipatu behar dira, eta azken bi horiei, Debari legez, barnealdea (Beterri, Tolosaldea, Nafarroako ipar-mendebala) kontrajartzen zaizkie. Horiekin lotura bide du Donibane Lohizuneko kasuistikak, joera bera islatzen baitu: inon agertzekotan Donibane Lohizunen agertu izan dira neutralizazio-zantzu indartsuenak, ez Lapurdi barnealdean.



33. irudia. Txistukarien neutralizazioa lekukotzen den hiribilduak

5.2.7.1.3. Beheko bokalaren asimilazioaren lekukotasunak askozaz gutxiago dira XIX. mendea baino lehen eta hierarkiaren aurkako difusioa islatzen dute, oro har. Aitzitik, kasu honetan ere, De Rijk (1970) aipatu legez, difusioa mendebaletik ekialdera gertatu zela dirudi; zehazki, hego-mendebalean agertzen da indartsuen, Orozko aldean, eta badirudi handik iparraldera (cf. Sarriaren sermoiak Nerbioi ibarrean eta Zolloko galdetegia Bilbon XVIII. mendearen amaieran) zein erdi-ekialdera hedatu bide zen: Bermeora eta Markinara ez zen XIX. mendera arte iritsi, eta Lekeition, Ermuan eta Elorrioren (denak ere Bizkai sortaldeko hiribilduak) ez dago edo oraintsu arte ez da *Rui-rik* egon, Deba ibarreko baserri-auzoetan legetxez. Badirudi, beraz, bigarren ezaugarri honetan ere Bizkai sortaldea gordetzaileago izan zela Bizkai sartaldean sortutako berrikuntzekiko.

5.2.7.2. Eufoniak

5.2.7.2.1. Eufoniez aritzean behin baino gehiagotan aipatu legez, bokal-igotzeak zein kontsonante epentetikoak fenomeno poligenetikoak dira, garai ezberdinetan sortuak baina garai bertsuan (XVIII. mendean aurrera egin ahala) ugarituak eta hedatuak. Halaber, aipatua dut hasiera batean berrikuntza-foku txiki ziren lekuetako biztanleen harremanen bidez konbergentzia-dinamikak sortu bide zirela, eta horien bidez hasiera batean eremu isolatu zirenak elkarrekin lotu eta eremu bateratu zabalagoak sortu zituztela. Fenomeno lokalak dira, beraz, lokalenetarikoak, eta horregatik erabili izan dira sistematikoki tokiko hizkeren buruzko monografikoetan: ez dute balio dialektoak irudikatzeko, baina bai ibar eta herrien arteko ezberdintasunak markatzeko.

5.2.7.2.2. Euskal Herriko mendebalean Bizkai sartaldea gordetzaille izan da (eta da), oro har, hemen aztertutako eufoniei dagokienez. Eremu gehienez *e.a* edo hortik eratorritako aldaera asimilaziodunak gorde dira, eta hizkera batzuetan gehienez ere testuinguru jakin batean gertatu da bokal-igotzea: Arratian eta Orozkon *i* eta *u* bokalen ondoren, ez bestelakoetan. Kontsonante epentetikoei dagokienez, *-ijV* ez da ohikoa Bizkai sartaldean (Mungia aldetik, Larrabetzutik eta Zornotzatik eskuin agertzen da), eta hego-sartaldeko testuetan *-ubV*-ren adibideak badaude ere,⁴⁷¹ ez dirudi inoiz sistematikoa izan denik.

Eufonia horiei dagokienez, beraz, eremu gordetzailatzat jo daiteke Bizkai sartaldea. Salbuespena eremu txiki bat da: Nerbioi ibarraren iparraldea, barne hartzen dituen Bilboko zenbait auzo, Etxebarri, Basauri, Arrigorriaga, Zaratamo eta ibarraren mendialdeko auzuneak. Eremu txiki hori halako uharte berritzaile bat da, hizkera mugakide guztiei kontrajartzen zaiena, *e* → *i* eta *-ijV* sistematikoak baititu XVIII. mendearen amaieraz geroztik (*-ubV*-ren adibideak ere aurki daitezke mende horretako eta XIX.eko testuetan).

⁴⁷¹ Orozko eta Baranbio aldean XX. mendearen bigarren erdira arte iraun zutela gogoratu behar da.



34. irudia. Nerbioi ibarra: Bizkai sartaldeko eremu berritzailea

Bizkai erdialdean Gernikako eta Bermeoko hizkerak ere berritzaile agertzen dira bi ezaugarri horietan XVIII. mendez geroztik; bestela ere hala espero zitekeen ondoko mendeetako datuen argitan, sistematikoak baitira $e \rightarrow i$ eta $-ijV$. Bermeon, ordea, $o \rightarrow u$ sistematikoa da gaur egun, baina berrikuntza berria bide da, XVIII. mendearen amaierako testuetan ez baitago horren adibiderik: badirudi kostaldeari jarraikiz ekialdeko beste berrikuntza batzuk baino sartalderago iritsi dela (Zuloaga inprimategian-1).

Aurreko ataleko (§5.2.7.1) ezaugarriez aritzean aipatu dut aztertutako ezaugarrietan Bizkai sartaldea berritzaileago agertzen dela sartaldea baino Euskara Zaharrean. Lehen Euskara Modernoko eufoniei dagokienez, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da: $e \rightarrow i$, $o \rightarrow u$ eta $-ijV$ eremu osokoak dira Lehen Euskara Modernoaz geroztik, eta horiei $-ubV$ gehitu behar zaie, nahiz eta markinar idazle klasikoen hautuek horrekikoak *cum mica salis* lantzea eskatzen duten. Aurreko lau berrikuntzak Markinatik Durangora bitarteko testuetan aurki daitezke 1750az geroztik, eta tokiko hizkerak erdialderagoko eremu mugakideekin lotzen dituzte.

5.2.7.2.3. Bokal-eufoniek Bizkaiko testuetan duten lekuaz berba egitean XIX. mendearen hasiera-hasierako “Markinako eskola”-ko idazleak aipatu izan dira, edo “Markinako eufoniak” zuzenean, Juan Mateo Zabalaren izendapenarekin bat. Aurretik aipatu dut zenbait berrikuntzatan bat egiten zutela Bizkai sartaldeak eta Gipuzkoa sartaldeak, eta adibide gisa aipatu ditut eufonien bilakabidea. Puntu honetan, bada, interesgarri da Gipuzkoako mendebaleko egoera aztertzea, inguru hartan, Bizkaian Markina eta Durango legez, Deba eta Eibar berritzaile baitira.

Hain zuzen, Eibar foku berritzaile nabarmena da eufoniei dagokienez, hemen aztertutako laurak indartsu agertzen baitira XVIII. mendearen erdiaz geroztik. Bada, alderatze soil batek erraz asko azaleratzen du “Markinako sistema” hori Mogelen sorteri Eibarren XVIII. mendearen erdialdean bertan zegoen berbera dela. Eibarko udal-ordenantzako datuak Apoitaren testuekin, eta Zabalaren deskripzioekin alderatzen ditut hemen:

10. taula. Eufoniak Eibarren eta Bizkaiko ipar-sortaldean (XVIII-XIX).


Ezaugarria	EibarAgin (1754)	Apoita (1778)	Mogel (<i>Peru Abarca</i>) (1881 [ca. 1802])	Markinakoak, <i>apud Zabala</i> (1848)
$e \rightarrow i$	+	+	+	+
$o \rightarrow u$	+	+	+	+
-ijV	+	+	+	+
-ubV	+	+	+	+

Egoera harritzekoa ere ez da, jakina, tartean Bizkaia/Gipuzkoa lurralde historikoen muga politiko-administratiboa egon arren, Markina ↔ Elgoibar/Eibar harremana joria izan baita. XIX. mendearen hasieran berbera zen egoera (Mogel 1881 [ca. 1802]: 18), baina Eibarren txistukarien neutralizazioak aurrera egin eta XIX. mendearen bigarren erdian *Rui* araua Markina aldera zabaldu izanak bereizi zituen bateko eta besteko hizkerak maila fonologikoan.

Gipuzkoan bertan, erdialderagoko hiribildu eta eremu zabalak berritzaile agertzen dira, baina han ere ez dago joera bateraturik: Azpeitia eta Azkoitia aldeko testuetan ekialderago $e \rightarrow i$, $o \rightarrow u$, -ijV zein -ubV elkarrekin aurki daitezke 1750az geroztik, baina Donostian berankorrakoak bide dira bokal-igotzeak, XIX. mendearen hasierakoak-edo: ez ditut aurkitu Pepe eta Josefa maitaleen gutunetan, baina bai Etxegarairen bertsoetan (1813-1853) eta orduz geroztiko lekukotasunetan. Aitzitik, Gipuzkoako ipar-ekialdea (Irun/Hondarribia) berritzaile agertzen da hainbatetan, Lapurdiko kostaldea bezala, eremu bateratu bat osatuz Donostia gordetzaileagoaren aurka (Zuloaga & Duhalde 2019). Gipuzkoako hegoaldean Goierriko euskara gordetzaile da aipatutako eufoniei dagokienez.

5.2.7.2.3. Bizkaiko eta Gipuzkoako mugaldeko Markina eta Eibar arteko konbergentzia ez da harritzekoa, bien arteko harremanak ugari izan baitira historikoki, Elgoibarrekikoak legethez. Hain zuzen ere, antzeko konbergentzia-fenomenoa ikus daiteke Bizkaiko hego-mendebalean eta Arabako ipar-mendebalean, Orozko eta Aiara

artean. Are gehiago, markatuagoa da Bizkaia/Araba arteko lotura, ez baita egiten hemen aipatutako eufonia supradialektalen bidez (lotzekotan, *-ubV*-k bakarrik lotzen ditu Orozkoko eta hegoalderagoko hizkera), ezpada inguru hartan sortutako eremu txikiko berrikuntza eskusiboen bidez: *-io-* > *-(i)u-* *Dotrinazko sermoitegia*-n agertzen da eta Orozkoko 1739ko otoitzetan ere badaude horren zantzuak, eta *-u + aC* > *-ueC* > *-uiC* asimilazioaren adibide zaharrenak ere Aiaraldeko sermoitegi mardulekoak dira: ez da ahazteko Orozkoko lurrek garai luzea eman zutela (1507-1785) Aiara-ko jaun-en menpe (cf. Ulibarri 2015: 85).



35. irudia. Markina & Eibarren eta Aiara & Orozkoren lotura linguistikoak

5.3. Idazleen hautu eta joerez

5.3.1. Sarrera

Aurreko ataletako datuen irakurketari eta eztabaidari buruzko hirugarren eta azken atal honetan bariazio estilistikoa eta Bizkaiko euskararen estandarizazioa izango ditut aztergai. Kronologiari eta geografiari dagokiena legez, bariazio estilistikoaren esparrua oso zabala da (cf. Hernández-Campoy 2016, 2018, 2019; Hernández-Campoy & Cutillas-Espinosa 2010, 2012), eta hemen datu ziurragoak dauden garai historikoa izango dut hizpide nagusi: XVIII. mendea oro har eta Lehen Euskara Modernoa; are zehatzago, *literatur bizkaiera* deitu izan denaren aurreko hamarkadetako testuak, idazleen hautuek eragindako intra-bariazioa (cf. Bell 1984, 2001, 2014; Coupland 2007; Schiegg 2018, 2019), eta Bizkaiko euskararen estandarizazio-joerak izango ditut berbagai.

Alde batetik, garai historikoko zenbait ezaugarriren inguruko gorabeherak izango ditut hizpide; izan ere, eskueran dagoen informazioa esanguratsua da eta aukera ematen du idazleek belaunaldiz belaunaldi zenbait berrikuntza gerora orokorturen inguruan zuten pertzepzioa berreraikitzeke, eta pertzepzio horren eta ezaugarrien bariazioaren eta erabileraren arteko korrelazioa ikusteko. Zehazki, beheko bokalaren asimilazioa, txistukarien neutralizazioa, hiatoetako bilakabideak eta bokal bikoitzak izango ditut hizpide: lehenengo biak ostentzeko ahalegina Lehen Euskara Modernoaz geroztikoa dela erakusten saiatuko naiz, eufoniak ardatz hartuta Lehen Euskara Modernoaren hastapenetatik finkatzerako (cf. Urgell 2018) trantsizio-urteak eta eredu kontrajarriak azalduko ditut, eta bokal bikoitzen erabilera zabala XIX. mendeko idazle eta idazkerekin lotuko dut, oro har.

Beste alde batetik, XVIII. mendean Bizkaiko euskararen idatzi zuten zenbait idazleren lanak aztertuko ditut, arestian aipatutako mugarri kronologikoen eta euren idatzietan islatzen dituzten hizkera eta hautuen arabera non kokatu erabakitzeke. Zehatzago, Bizkaian Lehen Euskara Modernoaren hasiera Arzadunekin eta Urkizurekin lotuko dut, euren lanetan hartutako zenbait erabakiren kariatara; halaber, *eredu gordetzaille* deitutakoan kokatuko ditut Kardaberatz eta Olaetxea, eta erabil zitzaketen iturriekin lotuko ditut. Behin finkatze-urteetara ezkerro (~1780), hizkera-ezaugarri jakin batzuen (funtsean, eufoniak) araberako joera berriez ariko naiz, arreta berezia jarriaz mendearen azken urteotako *predikazio-garai*-an eta *predikazio-gararai*ko euskara-n (cf. Ulibarri 2015). Eredu (azpi)dialektalaren aldeko hautuen indartzea aztertuko dut, eta

“Markinako eskola”-ren kide fundazional izango ziren egileen eragina zenbait kasutan behintzat XVIII. mendearen amaierara aurreratuko dut, Bizente Sarria sermoilariaren testuen argitan.

5.3.2. Zenbait ezaugarri zehatz

5.3.2.1. Beheko bokalaren asimilazioa

5.3.2.1.1. Beheko bokalaren asimilazioaren bilakabide gorabeheratsua ulertzeko ezinbestekoa iruditzen zait idazleek ezaugarria garairik garai nola hautematen zuten aintzat hartzea; hots, idazleen hautu eta erabilera bereziek ezaugarriaren beraren inguruko pertzepzioaz islatzen dutena berreraikitzea.

Behin baino gehiagotan aipatu legez, Euskara Zaharreko berrikuntza da *Rui*, edo Euskara Zaharrean lekutzen da lehenengoz, VJesus-en (ca. 1640). Harrigarriena ez da data eta leku horietan agertzea, ez eta indar biziz agertzea ere: harrigarriena da halako indarrez lekutu ondoko mende eta erdian gutxitan berragertzea eta, agertzekotan, apalago agertzea. Diakronistek hainbestetan landu edo gainditu beharreko arazoa azaltzen da, beraz, berriz ere: ebidentzia negatiboaren interpretazioarena. Hickeyk (2004: 216) galdetzen zuenez, nahikoa al da hiztun-erkidego baten hizkera biltzen duen corpus historiko batean ezaugarri bat ez egotea ezaugarri hori existitu ez zela baieztatzeko, bereziki idazleek tokiko hizkerarekiko leial jokatu bazuten eta gaur egun bizirik dauden ezaugarriez ari bagara?

Rui-ri dagokionez, testuak ondoz ondo aztertuta balirudike indarra galdu zuela berrikuntzak, baina datu modernoek aurkakoa erakusten dute; hots, idazkietan arrasto askorik utzi gabe hedatzen jarraitu zuela, XIX. mendean eta gaur egun hainbat hizkeratan agertzen baita hala Bizkaian nola Arabako iparraldean, Gipuzkoako hainbat hizkeratan eta Nafarroa Garaiko zenbaitetan. Ebidentzia negatiboak ematen dituen aukerak haztatu beharra etengabe dabil ikertzailearen gogoan beheko bokalaren asimilazioa aztertzean, eta kasu honetan argia da ondorioa: ebidentzia negatiboa ez da ezaugarria ez zegoelako seinale, ezpada idazleek forma supradialektalak hautatuta baztertu izanaren adierazgarri.

5.3.2.1.2. Bestela ere espero zitekeenez, berrikuntzak indar bizia du islatzen duten egileen hizkeran: VJesus-en bertan, erroetan tradizio luzeko izen propioak zein azken orduko mailegu modernoak ukitzen ditu (cf. 8 *Piletosen*, 3 & 11 & 15 *confianza*), homografiak eragiten ditu (cf. 8 & 9 *gure* ‘gura’) eta, ikuspuntu gramatikaetik are garrantzitsuago dena, zenbait bereizketa morfologiko neutralizatzen ditu (cf. 4

Eranzuten deucet ‘erantzuten diot’). Egoera hori zenbaitetan errepikatzen da XVIII. mendeko testuetan: pertsonaia erlijiosoen izen propioak eraldatuta agertzen dira Orozkoko 1739ko otoitzetan, Sarriaren sermoietan eta *Dotrinazko sermoitegi*-an; *Rui*-k homografiak eragiten ditu testu horietan, Zolloko galdetegian eta Bulda-n; bereizketa morfologikoen neutralizazioa dago VJesus-en, Orozkoko otoitzetan, Bulda-n, Zolloko galdetegian, Sarriaren sermoietan eta *Dotrinazko sermoitegi*-an; eta klitikoetan ere gertatzen da *Rui*, murriztapenak murriztapen, VJesus-en, Sarriaren sermoietan eta *Dotrinazko sermoitegi*-an. Arestikoekin batera, zenbait hizkeratan aldaera asimilatuen neurriko forma analogikoak ere sortu ziren; hots, *a*-ren ordean *e* duten aldaerak, nahiz eta aurretik bokal itxirik ez egon (begiratu Urgell 2001b: lxxviii).

5.3.2.1.3. Aurreko testuek (eta Amorotoko 1754ko armari batek) ezaugarri bat partekatzen dute: Bizkaiko eta Arabako gainerako testuei kontrajartzen zaizkie, garaitikoez ez baitute *Rui*-rik. Aitzitik, berrikuntza dakarten testu guztiak ez dira zertan batera multzokatu, ematen baitu egileen jokabidea ez zela bat eta bera izan kasu guztietan.

Orain dela berrehun edo hirurehun urteko idazle batek gogoan zer zerabilen jakitea gaitza da, idazleak berak zuzenean aipatu ez bazuen behintzat; aitzitik, beheko bokalaren asimilazioak duen indarraren argitan, ez dut aparteko arazorik ikusten pentsatzeko VJesus-en prestatzaileak ez zuela inolako ahaleginik egin berrikuntza ostentzeko, eta antzera pentsa daiteke Orozkoko 1739ko otoitzen idazleaz zein Sarriaren eta *Dotrinazko sermoitegi*-ko sermoien egileez: hain hedaturik eta ugari agertzen da berrikuntza, non tokiko hizkeratik hurreko egoera islatu behar baitute testuek, baita Amorotoko 1754ko armariaren kasuan ere, ez baitago zertan itxaron tokiko euskararen ezohiko zen ezaugarri bat agertzea era horretako euskarri batean.

Beste alde batetik, testu batzuetako hiperzuzenketek idazle batzuen asmo ostentzailea uzten dute agerian: arau orokor eta estandarrago batekin bat egin nahia, fonetismo lokal hori baztertzeko edo gainditzeko nahia. Badirudi kronologiak eta garai linguistikoek eragina izan zutela horretan, ostentze-nahiaren lehen zantzuak Lehen Euskara Modernokoak baitira:

- (i) Lehenik, hiperzuzenketa-kasutzat jo daitezkeen adibideak daude; cf. Bulda-ko 1-2 *concedietan deutzana onei erreñuboi* eta 65 *izana ta apolidua*, eta Zolloko galdetegiko 4v *eta alan prebenietan yaque daquianay*.

(ii) Bigarrenik, oso esanguratsua iruditzen zait Zolloko galdetegiko adibide gehienak aditz-morfemetan metatzea: zailagoa da adizki bateko morfemaren jatorrizko forma zein den jakitea, hedadura zabaleko edo tradizio luzeko hitz eta izenen jatorrizko forma (edo orokorragoa) ezagutzea baino.

(iii) Hirugarrenik, esanguratsua iruditzen zait Amоротoko 1754ko armarrarian *bierra* zena 1784an *biarra* bihurtu izana: badirudi inork zuzendu edo zuzenarazi zuela denbora-tarte horretan.

5.3.2.1.4. Auzi honetan lagungarri dira XIX. mende hasierako idazle kanonikoen zenbait iritzi eta jokamolde, aurreko hamarkadetako testuetan ikusitakoarekin bat egiten baitute neurri batean.

Badirudi Markinako 1800eko euskarari ez zegoela beheko bokalaren asimilaziorik; baina, egoera bestelakoa zen Arratian, kokapen geografikoa eta ezaugarriaren difusio-norabidea aintzat hartuta espero zitekeenez.

Pedro Antonio Añibarroren euskarari dagokionez, Urgellen (1985: 99, 2001b: §4.2.1) lanek erakutsi dute *Rui* araua bazegoela Arratia inguruko euskarari XIX. mendearan hasieran: aretzarrak bazuen ezaugarriaren berri eta, are gehiago, erabiltzetik ez erabiltzera igaro zen. Hona hemen *Escu-liburu*-ko lehenengo eta bigarren edizioak (1802-1821) alderatu ondoren ondorioztatutakoak:

Euskalki ezberdinetako zenbait hizkeratan ematen den lege honen lekuko da A: 46 *dauquedezan*, 126 *dauquen*, 174 *dauquezuz*, 188 *urquemendira*, 188 *nequeturic*, 12-21(2)-179 *arime*, 192 *Veronique*, 193 *arimeco*, 19 *bier*, 19 *citelac*, 34-41 *citel*, 21 *ezttauquet*; Bn aldiz *euskera* (1-4-8, baina 8(2) *euscaldun*) eta *citelac* (46-92, baina 205-217 *cial*) solteen alboan 196 *Beronica*, 197 *Beronicac*, 22 *bihar*, 25-42 *ezttaucat*, 194 *necatunic*, 130 *daucadala*, 120 *daucadaz*, 52 *daucadazan*, 184 *daucazuz* ditugu. Horrela bere Areatzako hizkeraren ezaugarri hau utzirik eredu zabalenari lotzen zaio. (Urgell 1985: 99)

Guero *guero*-ren itzulpenean ere aldeak atzeman zituen Urgellek atal batzuetatik beste batzuetara: “*arimeco*-ren adibideak C eta batez ere D ataletan agertzen dira, baita *arimaco*-ren alde-aldean agertu ere, aldaerak txandakatzea estilo-lana bailitzan” (2001b: lxxvii); “badirudi aditzaren arloan erne ibili zela Añibarro, C ataletik aurrera, itxidurak eta haren ondorenek eraginik izan ez zezaten, aditza aztertu ondoren ziurrenik neutraltzeek argitasuna edo ulergarritasuna kalte zezaketela gogoan izanik” (*idem*, lxxix).

Aurreko hamarkadako testu batzuetan azaltzen diren zalantza eta erabaki kontzienteak agerikoagoak dira Añibarroren lanetan. Alde batetik, aretzarraren lanen izaerari dagozkion arrazoiengatik (hainbat testu dira, batzuk luzeak, eta egilearen idazkeran hautuak eta bilakabidea ikusteko aukera ematen dute). Beste alde batetik,

garaiari dagozkion arrazoiak daude: Bizkaiko euskararen eredu literarioak sortzen eta finkatzen ari ziren garaiko idazle eta testuak dira. Azken horri egotzi zizkion Urgellek, hain zuzen ere, *Geroco guero*-n ageri diren zenbait hiperzuzenketa (*ceduca*, *leuca* eta *abar*): “baliteke zalantza handiko garai honetako erakusgarri ez eze, ezaugarri ere izatea” (2001b: lxxix).

Juan Antonio Mogeli dagokionez, *Rui* gaitzesten zuen, ez baitzuen bere testuetan islatu eta, are gehiago, zuzenean baztergarritzat jo baitzuen:

Lo que se debe pedir á todo vizcaino, es la claridad en el corte, la pureza en las voces, instruyéndose de los mismos rústicos, atendiendo sus locuciones incorruptas, y el que se quiten los abusos introducidos, como son el decir *egunien egunien*, *astien astien*, *zarien* y otras semejantes trastornando la *a* en *e* contra el gusto general y la regla. (Mogel 1881 [ca. 1802]: 20)

Mogelek aipatutako “pureza de las voces” horri jarraituta, ematen du beheko bokalaren asimilazioa ezaugarri usteltzat jotzen zuela, korrupzio linguistikotzat. Aurretik emandako datuen argitan, gainera, badirudi ikuspegi hori atzerago eraman daitekeela denboran, eta Lehen Euskara Modernoko lehenengo hamarkadetara arte luzatu, gutxienez. Beharbada are aurrerago ere eraman liteke eta horrela azaldu nolatan ez dagoen *Rui*-rik VJesus-ez gaindiko XVII. mendeko beste testu batzuetan, baina ez dago halakorik baieztatzeko daturik.⁴⁷²

Nire ustez, bi faktorek dute funtsezko eragina ezaugarriaren erabileran, eta biek dute lotura zuzena Lehenengo Euskara Modernoarekin.

Alde batetik, idazlearen ezagutza eta kontzientzia linguistikoa hartu behar dira aintzat. XVIII. mendeaz geroztik hainbat idazlek erakusten dute hizkuntzaren ezagutza zabala, eta *hizkuntzaren ezagutza* aipatzen dudanean barne- zein kanpo-ezagutzaz ari naiz: idazleek hobeto ezagutzen dituzte hizkuntzaren osagaiak, baliabideak eta egiturak, eta hobeto ezagutzen dituzte hala beste testu batzuk nola beste euskalki batzuk.⁴⁷³ Horrek ezagutza handiagoa eman bide zien, eta inguruko hizkuntzen (gogoratzekoa da, Hego Euskal Herriko idazleez ari naizela, Real Academia Española 1713an sortu zutela) eta euskararen beraren (garai hartan ezinutzizkoak dira Larramendiren ekarpena eta 1746an Zarauzko frantziskotarren komentuaren sorrera; cf. Urgell 2001b: §2.1)

⁴⁷² Gerora ere ez dirudi *Rui*-k “ospe onik” izan duenik, besteak beste garaian garai hautatu diren eredu arrakastatsuek araua baztertu izan zutelako: XIX. mendearen bigarren erdian eta amaieran Bonaparte printzeak eta Sabino Aranak hautaturiko bizkaiera-eredutik kanpo zegoen *Rui*, eta XXI. mendearen hasieran Labayru Ikastegiak emandako bizkaieraren jarraibide-lanetan (cf. Arejita *et al.* 2001) ere *Rui*-rik gabeko Añibarro-Zabala eredu orokorraren alde egin da, oro har, nahiz eta Bizkai osoko ezaugarria izan.

⁴⁷³ Euskalkietan arian-arian sortutako tradizioa ere aurreko mendeetan baino luzeagoa zen, jakina: zer irakurri eta non begiratu gehiago zuten idazleek denborak aurrera egin ahala, eta aintzat hartzekoa da Lehen Euskara Modernoan ugari egin zirela euskal testuen itzulpen intradialektalak (Ibarluzea inprimategian).

gramatizazio-prozesu modernoek hizkuntza idatziaren eta landuaren kontzientzia areagotu behar izan zuten. Bizkaiko euskal idazle modernoek, beraz, bazuten nora begiratu eta nondik edan, eta ezagutza eta ikuspegi zabalago horiek ahalbidetzen zien hausnarketa egitea idatziz eman beharreko edo eman zitezkeen forma osoagoez/orokorrageoz/jatorrageoz. Horrekin lotzen dut, adibidez, arestian aipatutako Zolloko galdetegiko adibide gehienak aditzaren morfologiaren esparruan metatzea: errazagoa da ikustea *ikesi*-ren edo *gauze*-ren aldaera orokor eta jatorrizkoak *ikasi* eta *gauza* direla, *deutsegu* ‘diogu’ bezalako forma batean $a \rightarrow e$ gertatu dela jakitea baino.

Beste alde batetik, berrikuntzaren beraren hedadurak aparteko ikusgarritasuna eman behar zion erregelari. Bizkai osoan orokortu baino lehen markatuagoa izan behar zuen *Rui* zuten eta ez zuten hizkeren arteko aldeak jaurerriko hizkeren artean; gogoratu erregela fonologikoen esparruan Markinako eta Eibarko euskarak bat egiten zutela, baina *Rui* agertu izanak bereizi zuela lehenengoa bigarrenetik, gaur egun Bizkaiko eta Deba ibar gehieneko hizkerak bereizten dituen legez. Mogeli zein markinar idazleei are baztergarriagoa iruditu behar izan zitzaizen beheko bokalaren asimilazioa, erdialdeko hizkeretan (eta Mogelen beraren sorterri Eibarkoan) jatorrizko formak gordetzen zirelako eta Markinara iritsi gabea zelako, dirudienez.

5.3.2.1.5. Hemen aurkeztutako datu eta argudioak laburbilduz, beraz, beheko bokalaren asimilazioaren prestigio falta nabarmena ikus daiteke Lehen Euskara Modernoari loturik: XVIII. eta XIX. mendeetako hainbat idazlek ez zuten besterik gabeko ezaugarri dialektaltzat jo, ezpada arau orokorragoa eta jatorragoa urratzen zuen korrupzio linguistikotzat, eta hori garaian areagotutako ezaugutza eta kontzientzia linguistikoari lot dakioke alde batetik (eta nagusiki), eta berrikuntzak berak zuen hedadurari beste alde batetik.

5.3.2.2. Txistukarien neutralizazioa

5.3.2.2.1. Txistukarien neutralizazioaren bilakabideaz bi baieztapen egin daitezke halako ziurtasun batekin Euskal Herriko mendebalaz berba egitean: (a) Euskara Zaharrea hasi zen hedatzen, eta (b) XIX. mendearen amaierarako sistematikoki hedatua zen jaurerri osora.

Aurreko denbora-mugarrien arteko hedatze-prozesua konplexua izan zen, §5.2.4.1 atalean ikusi legez: badirudi hiribilduetan lehenago burutu eta handik zabaldu zela inguruetara, eta lurraldea eremu berritzaileen eta gordetzaileen artean zatitu zela. Txistukarien adierazpen grafikoak ez du beti bat egin bereizketa galdu edo gorde

izanarekin, ordea, eta Lehen Euskara Modernoko zenbait idazleren testuek islatzen duten intra-bariazioak arau bereizle eta orokorragoaren alde egin nahi izana islatzen du.

5.3.2.2.2. XIX. mende hasierako idazleak lehenagoko garaien argigarri dira berriz ere: “los autores que escriben en vizcaíno en el siglo XIX o XX están reflejando sus conocimientos ortográficos al distinguir ese de zeta” zioen Hualdek (2010: 107), eta horrekin bat egiten du Alzibarrek (1992: 505 eta hurrengoak) egilez egile egindako azterketa xehean.

XIX. mendearen hasierako bizkaitar idazleen testuak bi multzotan bana daitezke bereizketaren galerari dagokionez: galera islatu zutenak eta galera islatu ez zutenak (edo galera ez islatzeko ahalegin nabarmena eginda euren helburutik hurbil geratu zirenak). Lehenengo multzoan aipa daitezke orain artean bigarren mailan egon izan diren egileen testuak, hala nola Alzibarrek (*idem*) aipatutako Iturriaga ugaotarraren sermoiak eta azken hamarkadan ezagutarazitako Astigarraga basauriarrarenak (Etxebarria & Apraiz 2007, Zuloaga 2011a). Bigarren multzokoak literatur bizkaieraren izen handiak dira: Añibarro, Mogel, Frai Bartolome zein Zabala, nahiz eta multzo horretatik kanpo geratzen diren astarloatarrak.

Bereizketa grafikoa gordetzeari dagokionez, literatur hizkeraren / idazkeraren ikuspegitik bigarren multzoa da interesgarriena, idazle kanoniko horiek euskara idatzian txistukari-sailak bereiztea araua zelako egin baitzuten (Alzibar 1992: 505). Aitzitik, gogoan hartzekoa da egile horien gaztaroko testuetan edo testu goiztiar batzuetan neutralizazioaren adibideak daudela: Añibarroren eta Mogelen hasierako sermoiak (XVIII. mende amaierakoak) aipatzen ditu Alzibarrek (*idem*, 505 eta 513), eta Añibarroren hasierako zein ondoko idazkeraz eta hautuez zehaztasun handiagoak eman izan ditu Urgellek (cf 2001b: §2.3 atal argigarria).

Bizkai sortaldeko idazleei dagokienez, badirudi neutralizazioa Bizkaiko gainerako eremuetan baino nabarmen beranduago sistematizatu zela;⁴⁷⁴ aitzitik, Moglek txistukariak “zuzenen eta erregulartasun edo iraunkortasun handienaz” (Alzibar 1992: 509) bereizi bazituen ere, bai haren testuetan (gaztaroko platika laburretan sarriago; cf. Alzibar 1991b), bai Juan Jose Mogelenetan, bai Bizenta Mogelenetan, bai Frai Bartolomerenetan zalantza ikusten da herskari aurrean, eta

⁴⁷⁴ Gogoratu Jose Antonio Uriartek Bonaparte printzeari esandakoa, Larramendik *HH*-an Bilboz esandakoa gogorarazten duena: “En cuanto a la pronunciación de la *z* como *s*, de la *ts* como de la *tz*, en Marquina e inmediaciones aún la gente del pueblo las distingue perfectamente. Distinguen *zu* = *tú* de *su* = fuego, *Atza* = *dedo* de *atsa* = *edor*. Pero en otros subdialectos no se distinguen y aún en Bermeo es imperceptible la distinción, de modo que Bermeo no debe contarse con Marquina, sino con los demás subdialectos” (*apud* Ruiz de Larrinaga 1957: 334-335).

hainbatetan agertzen da <s> kokagune horretan jatorrizko lepokariaren lekuan egileen testuetan. Bizkai sortaldeko idazleen artean Durangoko hizkeran neutralizazioak bestelako indarra zuela islatzen dute astarloatarren testuek, jatorrizko frikari lepokaria kokagune guztietan aurki baitaiteke <s>-ren bidez adierazita, eta tartean markinarren artean ezohikoago diren hiperzuzenketa-kasuak ere baitituzte (*idem*, 512).

5.3.2.2.3. Aurreko gertaerek estandarizazio-prozesu bat islatzen dute. *Rui*-z aritzean proposatutakoarekin bat, forma etimologikoen eta supradialektalen aldeko hautua egin zuten aipatutako idazle kanonikoek, gaztaroko lanetako adibideak adibide eta kokagune ahulenetan indartsuago bide zegoen neutralizazioak eragindako salbuespenak salbuespen.

XIX. mendeko egileen hautu eta joerak aipatu ondoren, interesgarria da XVIII. mendeko idazle eta testuei begiratzea, 1800az geroztiko joera horiek aurretik ere ba ote zeuden eta, egotekotan, noizdanik zeuden argitzen saiatzeko. Kasu honetan ere bigarren joera (bereizlea) da interesgarriena literatur hizkuntzaren ikuspegitik; izan ere, neutralizazioa islatzen duten testuen egileen hizkeran neutralizazioa zegoela pentsatzea besterik ez daukat.

Nire ustez, Mogel eta Añibarroren obra onduetan agertzen den irizpide bereizlearen aitzindari nabarmenenak dira Kardaberatz eta haren jarraitzaile Olaetxea, eta Kardaberatzen irizpidea ez zait batere harrigarri egiten: gipuzkoarra zen, Euskal Herrian predikazio-lanetan aurrera eta atzera ibilitakoa, Larramendiren ondorengo, eta hizkuntzaren (eta euskalkien) ezagutza paregabekoaren jabe. Idazle “orotarikoa” izanik halakoa zuen ikuspegia ere, eta hizkera- eta idazkera-eredu orokorragoen alde egitea aurreikus zitekeen. Hori da, hain zuzen, hernaniarraren dotrinan agertzen dena, sistematikoki bereizten baitira txistukariak, bere garaian Euskal Herriko mendebaleko (eta bereziki Bizkaiko) hainbat hizkeratan aurreratuta zegoen neutralizazioa baztertuz: “Erri gucietaco modura, ta gucien gustora libru baten escripticea, ecin izango dan gauza da” zioen Bizkaiko euskara oinarri hartuta idatzitako dotrinan (*ca.* 1762: 114).

Olaetxeak ere eredu orokorra hautatu zuen, bai eta tinko testuratu ere, ez baitago neutralizazio-zantzurik bere dotrinan. Puntu horretan, beraz, arestian aipatutako Mogel, Añibarro eta abarren aitzindarien artean dago, bai eta, era berean, Kardaberatzen jarraitzaileen artean ere (kasu honetan eredu aitortua da, gainera; cf. Olaetxea 1763: 167).

Dakidala, ez dago Olaetxearen sorterri Gerrikaitzeko testu zaharrik eta pentsa liteke, Bizkaiko erdi-ekialdeko (Gernika eta Markina arteko) herria izanik, bere

euskararen ondo(xe) bereizten zirela txistukariak; nolana ere den, fenomenoaren berri izan behar izan zuen Laukarizen eginiko hamarkada eta erdian (non, bide batez, bere dotrina prestatu baitzuen).

Hainbat ezaugarri linguistikoren azterketak erakusten duenez, Olaetxea idazle ikasia zen; gutxienez, hizkera-eredu orokorrako baten alde egin eta eredu horri orrialdez orrialde tinko eusteko behar bezain ikasia. Horren argitan, bada, ez dut uste neutralizazioa Gerrikaitzera hedatuta egoteak zein bereizketa gordetzeak berebiziko eragina izango zukeenik idazlearen hautuei begira: arau supradialektala edo estandarra vs. lokala eta dialektala kontrajartzen dira nire ustez, ez dialekto baten barneko ezberdintasunak islatzea ala ez islatzea.

5.3.2.2.4. Iturriza historialari berriztarra dela eta, erakutsia dut Andramendiko idazkiez emandako bertsio berrituan sistematikoki bereizten zirela txistukari lepokari eta apikariak. Berrizkoa izanik, ez da zalantzarik (cf. astarloatarren lekukotzez zein Abadiñoako 1804ko Gabon-kantzez esandakoak) idazlearen hautuen zordun dela bereizketa, nahiz eta agertzen diren irizpide grafikoek (hala nola <ts> eta <tz> digrafo “larramenditarren” erabilera afrikatueta) erakusten duten kasu honetan ere dikotomia ez zela hainbeste hizkera berritzailea (neutralizazioa) vs. hizkera gordetzailea (bereizketa), ezpada ezaugarri dialektal lokalen adierazpena (neutralizazioa) vs. arau ortografiko supradialektala (bereizketa).

Iturrizaren kopia baten bidez dira ezagun, hain zuzen, Apoita bolibartarraren bederatzuurrenak, eta horietan oro har ondo bereizten dira txistukari frikari zein afrikatuak, nahiz eta tarteka <s> agertzen den herskari aurrean lepokaria adierazteko. Pentsa liteke Iturriza kopiagilearen eragina egon daitekeela testuan, baina Andramendiko idazkien bertsioaren eta Apoitaren bederatzuurrenen artean badaude zenbait ezberdintasun grafiko nabarmen: Andramendikoetan <z>-k adierazten du *-tzat* markaren afrikatua (1 *caltezat*), eta bederatzuurrenetan <tz> dago sistematikoki (0 *bitaartecotzat*, 0 *beticotzat*, 0 *niretzaco*, 1 *guardacotzat*, 1 *defensoretzat*, 6 *gubernadoretzat*); Andramendikoetan ez dago afrikatu apikaria adierazten duen <s>-rik, baina bederatzuurrenetan badago (2 & 4 & 8 *deusut*); Andramendikoetan <x>-k adierazten du sabaiaurreko frikaria (2-1 *Elexiaren*), baina bederatzuurrenetan <s> erabiltzen da (2 *elasa*, 5 *elisiaren*, 3 *irisigui*, 9 *irisiguiten*); Andramendikoetan ez dago <tc>-rik afrikatu lepokaria adierazteko, baina bederatzuurrenetan badago (7 *Bijotceco*).

Horiek aintzat hartuta, Iturrizak Apoitarenak moldatu gabe kopiatu zituela pentsatzen dut. Bereizketa grafikoari dagokionez, nolana ere den, Markina aldeko XVIII. mende amaierako idazle ikasi batentzat espero zitekeen bereizketa agertzen da.

5.3.2.2.5. Aurretik esanak laburbilduz, beraz, Bizkaiko XIX. mendeko idazle kanonikoen txistukarien adierazpen grafiko bereizleak aurrekariak ditu 1760ko hamarkadan: Kardaberatz eta Olaetxea elkarrekin aipatzekoak dira. Horien ondotik, Iturrizaren kasua ere gogoratzekoa da: Larramendiren proposamenak ezagutzen zituen historialariak, eta idazkera-irizpide jasoak erabili zituen, txistukariak sistematikoki bereiziz. Apoitaren kasua izan liteke zalantzazkoagoa, gutxi gorabehera Mogelen gaztaroko idazkien egoerarekin egiten baitu bat bere bederatziumenaren sistema grafikoak: oro har bereizlea da, baina aintzat hartu behar da Bolibarkoa zela eta inguru hartan beranduago arte ez zela hedatu neutralizazioa.

5.3.2.2.6. Lehenengo Euskara Modernoaren hasiera ez 1750ean baina 1730eko hamarkadan kokatuz gero (begiratu §5.1.7) txistukarien bereizketa grafiko kontziente edo bilatuaren lehenengo lekukotzak ordurako proposa daitezkeelakoan nago.

Txistukarien neutralizazioaren hedatze-norabideaz aritzean esan dut, Mitxelenarekin (*FHV* 232) bat, Bizkai sartaldean sortaldean baino lehenago gertatu zela, eta sartaldetik sortaldera hedatu zela arian-arian: Durangoko eta inguruetakoko testuak gordetzailerik dira Euskara Zaharrean; zehazki, Zumarraga, Kapanaga eta Zubia alderatuta emaitza bera edo bertsua agertzen dela aipatu dut, bai eta XVIII. mendearen hasierakoetan ere ez dela aurreraturik agertzen, adibide bakan batzuetatik kanpo. Hautu grafiko eta linguistikoez aritzean, bada, interes berezia du Arzadun eta Urkizu alderatzeak, bi-biak baitziren durangarrak, nahiz eta bigarrena belaunaldi bat gazteagoa izan (1675ean jaio zen Arzadun, eta 1704an Urkizu; are gehiago, lehenengoak sinatu zuen bigarrenaren jaiotza-agiria; begiratu Altzibar 1992: 51, 62. oin-oharra).

Arzadunen dotrinaren lehenengo edizioan oso bakanak dira neutralizazioaren zantzuak: frikarietako hiru-laurak herskari aurrean agertzen dira, eta ziurtasunez afrikatuaren neutralizaziotzat jo daitezkeen adibide bakarra ikusi dut. Esan daiteke, beraz, Arzadunen testua gordetzailerik dela bereizketaren galerari dagokionez.

Urkizuren 1737ko liburuan ugariago agertzen dira adibideak, eta horrek neutralizazioa aurreratuago zegoela pentsaraz lezake. Izan ere, belaunaldi batean neutralizazioa aurreratuago egoteak baduke logikarik kronologiaren ikuspegitik, nahiz eta hala ere murriztapen handiekin agertu: herskari aurrean eta hitz amaieran metatzen dira adibide gehienak, bakanak dira bokal arteko neutralizazio-kasutzat jo daitezkeenak

eta afrikatuetan ondo gordetzen da bereizketa grafikoa. Nire ustez, ordea, kasu honetan adina edo denbora ez dira azalbide posible bakarra: pentsatzen dut Durango aldeko hizkeran Arzadunek eta Urkizuk neutralizazioaren adibide gutxi ekartzea idazleen euren hautuen ondorio ere izan daitekeela. Horrek azalduko luke leku bereko eta garai bertsuko bi idazleren artean dagoen aldea (eufonien kasuan are nabarmenagoa da; begiratu §5.3.3.2.1 atala). Aitzitik, gako nagusietako bat Urkizuk berak ematen duela uste dut: 1737ko liburuko adibideek idazleari ihes egin ziotela onartuta, hobeto ulertzen da nolatan ez dagoen neutralizazioaren zantzurik hiru urteren buruan Urkizuk berak argitaratutako zortzikoetan (Zuloaga 2015 [2018]: 189), eta hizkera-eredu orokorragoaren alde egiten da, tokiko fonetismoei tarterik utzi gabe.

Nire ustez, Arzadunen eta Urkizuren arteko lanen, eta Urkizuren beraren 1737ko eta 1740ko testuen artean dauden aldeak idazleen irizpide bereizlearen arabera azaltzea koherentea da bai garaiarekin, bai ezaugarriaren bilakabidearekin: Durango aldean XVII. mendearen erdialdean eta amaiera aldean neutralizazioa murrizta zela erakusten dute testuek; baina, XVIII. mendean zehar nabarmen egin behar izan zuen neutralizazioak aurrera, XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran Abadiñoko Gabon-kantan zein Pablo Pedro Astarloaren testuetan edozein kokagunetan agertzen baitira (hiperzuzenketa eta guzti). Ez da ahaztekoa, halaber, zer-nolako indarra zuen neutralizazioak garai bertsuan Bizkai sartaldean, Eibarren eta are Donostian. Horrek guztiak ez du erakusten norainokoa zen txistukarien neutralizazioa Durangon, tokiko testuek eurek erakusten ez dutenez; baina, hemen aurkeztutako ideiarekin (idazleen irizpide bereizlea) alde egiten duelakoan nago.

5.3.2.2.7. Aurrekoak esanda, beraz, pentsatzen dut Bizkaiko euskararen txistukariak grafikoki bereizteko hautu kontzientea 1730eko hamarkadara arte aurreratu behar dela, gutxienez: Lehenengo Euskara Modernoaren hasierara. Arzadun eta Urkizu parez pare jarrita, lehenengoa gordetzaileago agertzen da: sistematikoago jokatzea lortu zuen, Urkizuk 1740ko zortzikoetan bezain sistematiko.

5.3.2.3. Bokalk eufoniak

Literatur bizkaieraren barneko idazleen hautu eta korronteez berba egitean sarrien aipatu diren fenomenoak izan ohi dira hiatoetako bokalk-bilkuretan gertatzen diren aldaketak, arrunki *eufonia* deitutakoak, joera gordetzaileagoak (eta supradialektal edo orokorragoak) eta berritzaileagoak (eta intradialektal edo lokalagoak) bereizteko balio baitute: Astarloaren (1803), Añibarroren (Villasante 1969 [Añibarro *ca.* 1820]),

Mogelen (1803) zein Zabalaren (1848) lanetan beren-beregi aipatzen diren ezaugarri eta hautuak dira, eta idazle horien hautu eta hizkera-ereduekin lotu izan dira batez ere literatur bizkaieraz aritzean. Gogoan hartzekoa da, gainera, eredu berritzaile eta lokalak izan zuela arrakasta handiena XIX. mendean zehar: “las más célebres son las marquisesas, llamadas por el señor Astarloa vizcaínas” zioen Zabalak (1848: 54), Markinako eredu hartu zuen Bonaparte printzeak literatur bizkaieraren eredutzat (Urgell 1985: 74, 2018: 656) eta eredu horri atxiki zitzaion Sabino Arana gizaldiaren amaieran.

Eufonien kronologiaz eta hedaduraz aritzean aipatu legez, ordea, berrikuntza horiek Lehen Euskara Modernoaren lehenengo testuetatik agertzen edo ugaritzen dira Hego Euskal Herrian, eta gerora hizkera-ereduak bereizteko izandako garrantziaren argitan, interesgarri iritzi diot XVIII. mendeko datuetan sakontzeari.

5.3.2.3.1. Dotrinen lehenengo edizioak eta berrargitalpenak

Tesi honen corpora osatzeko testu argitaratuen lehenengo edizioak erabili ditut, baina ezagun da zenbait liburuk arrakasta handia lortu zutela eta denbora-tarte erlatiboki laburrean behin eta berriz argitaratu zirela (begiratu Vinson 1983 [1898], Bilbao 1970-1996, Altzibar 1992 eta Rementeria 2018); horrenbestez, ondoz ondoko edizioen erkaketak interes berezia du sasoiari sasoiko joera eta moden berri izateko, eta hurrengo azpi-ataletan konparazio txiki bat egingo dut eufoniak aztergai hartuta; zehazki, Arzadunen, Kardaberatzen eta Olaetxearen dotrinen lehenengo edizioak eta ondoko zenbait berrargitalpenen hasierako pasarteak erkatuko ditut, bilakabideen norabidea ikusteko eta eten kronologikoak zehazteko.

5.3.2.3.1.1. Martin Arzadun: *Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera* (1731)

Martin Arzadun durangarraren dotrina lan xumea da tamainaz, eta lehenengo edizioaren ale ezagun bakarra Julio Urkixo funtsekoa da. Zubiarenaren (1699 [1691]) ondoren eta Kardaberatzena (*ca.* 1762) baino lehen Bizkaiko euskarari argitaratutako dotrina ezagun bakarra da, eta bigarren edizio ezaguna ia hogeita hamar urteren buruan kaleratu zen, 1758an,⁴⁷⁵ “euskara-modu zabalago batera aldatua” (Altzibar 1992: 50), baina inprenta-akatsuz josita (Urkixo 1907: 87). Gerora hainbat edizio izan ditu Arzadunen dotrinak, baina ez dirudi XVIII. mendean beste batzuk bezain arrakastatsu gertatu zenik; izan ere, berrargitalpen ezagun gehienak XIX. mendekoak dira; zehazki,

⁴⁷⁵ Rementeriararen arabera, birritan argitaratu zen 1758an: “Urte beratan agertutako argitalpen hau ia bardina da; tipografia aldaketa batzuk ditu” (2018: 35).

mendearren bigarren erdikoak: 1819, 1830, 1841, 1855, 1856, 1861, 1869, 1873, 1890, 1895, 1900 eta 1905ekoak aipatu zituen Altzibarrek (*idem*, 50-51), eta hamazortzi berrargitalpenen berri jaso du Rementeriak (2018: 34-37).

Eufoniei dagokienez, dotrinaren XVIII. mendeko argitalpenek eredu gordetzailea islatzen dute sistematikoki: 1731kotik 1758kora egin zen aldaketa esanguratsurik (cf. Urkixo –1907: 88– uzkurdura osatuz eta Lakarra –1984b: 180– ablatiboko markez, adibidez), baina ez hiatoetan. Ondoren agertzen den koadroak liburuaren bost ediziotako lehenengo atalen erkaketa biltzen du;⁴⁷⁶ zehazki, bost hiato bereizi ditut, sailkapenak errazteko: *e.a* hiatoa, sortzetikoa zein $a + a > ea$ disimilazioaren ondorioz sortua izan; *e.e* hiatoa, erdiko bokalak jatorrizkoak zein asimilazioz sortuak izan; *i.V* hiatoa; *o.V* hiatoa; *u.V* hiatoa. Hona hemen erauzitako datuak:⁴⁷⁷

11. taula. Arzadunen dotrinen argitalpenen konparazioa

	Arzadun (Gasteiz, 1731)	Arzadun (Iruñea, 1758)	Arzadun (Bilbo, 1819)	Arzadun (Bilbo, 1830)	Arzadun (Bilbo, 1841)
<i>e.a</i>	13 señaleagayti	17 señaleagayti	[7] señale[a]gayti	5 señale[a]gaiti	5 señale[a] gaiti
	13 icenean	17 icenean	[7] icenian	5 icenian	5 icenian
	13 criadoreagan	17 criadoreagan	[8] criadoreagan	6 criadoreagan	6 criadoriagan
	13 virgineagañic	18 virgineagañic	[8] Virgineaganic	6 virginiaganic	6 virginia ganic
	14 bean	18 bean	[8] vean	6 bean	6 beian
	14 egunean	18 egunean	[8] egunean	6 egunian	6 egunian
	14 arterean	19 artetic	[8] artetic	6 arteric	6 arteric
	14 arean	18 arean	[8] areañ	6 arean	6 areañic
	14 catholiquea	18 catholiquea	[8] catoliquea	7 catoliquea	7 catoliquia
	14 vicicea	18 vicicea	[9] vicicea	7 vicicea	7 vicicia
	14 divinidadeari	18 divinidadeari	[9] divinidadeari	7 divinidadeari	7 divinidadari
	14 santeari	18 santeari	[9] santeari	7 santeari	7 santiari
	14 divinidadeari	19 divinidadeari	[9] Divinidadeari	7 divinidadeari	7 divinidadari
	14 aytea	19 aytea	[9] -	7 -	7 Jaungoico baten
	15 semea	19 semea	[9] semea	8 semia	8 semia
	15 criadorea	19 criadorea	[9] criadorea	8 criadorea	8 criadoria
	15 salvadorea	19 salvadorea	[10] salvadorea	8 salvadorea	8 salvadoria
	15 glorificadorea	19 glorificadorea	[10] glorificadorea	8 glorificadorea	8 glorificadorea
	15 humanidateari	19 humanidateari	[10] humanidateari	8 humanidateari	8 humanidadiari
	15 virgineagañic	19 virgineagañic	[10] virgineaganic	9 virginea ganic	9 virginia ganic
	15 semea	19 semea	[10] semea	9 semea	9 semia
	15 eriocea	19 eriocea	[10] eriocea	9 eriocea	9 eriocia

⁴⁷⁶ Edizioetako hiru XIX. mendekoak dira, tesi honetako corpusaren muga kronologikoez haragokoak, baina hizkeraren eredu-aldaketa noiz gertatu zen ikusteko beharrezkoak dira Arzadunen kasuan, eta horregatik hartu ditut aintzat. Zehazki, honako atal hauek erabili ditut lagin gisa (lehenengo ediziotik hartu ditut izenburuak): “Doctrina christianeem oracinoac”, “Articulac”, “Pater nosterra”, “Ave Maria”, “Salve erreguina” eta “Amar mandamentuac”.

⁴⁷⁷ Arzadunen edizioen artean aldaketa nabarmenak daude tarteka: hiatoetako fenomenoez harago, kasu-marketan (*-rean > -tik*, adibidez) eredu berriagoa agertzen da 1758az geroztik, tarteka genero femeninoa bereizten da (*bedeinkatua* zena *bedeinkatea* bihurtuz, esate baterako), artikulatu mugatua zuten forma batzuek ez dute artikulurik edizio batzuetan, lexiko-ordezkapenak daude, eta abar. Kasu batzuetan, edizioz edizio agertzen diren aldaketek aukera ematen dute eufonien bilakabidea aztertzeke, baita, inoiz, berbak aldatzen direnean ere. Beste kasu batzuetan, aldiz, ez dago horretarako modurik. Era horretako gorabeherak zelanbait markatzeko, letra etzanez eman ditut aldaketaren bat izan arren edizioetako batean eufoniak aztertzea ahalbidetzen dituzten adibideak (adibidez, *arterean* baina *artetik* dagoenean); bestalde, lexikoaren aldaketak aztergai den eufonia ikusteko aukerarik ematen ez duenean, <-> ikurra eman dut orrialdearen ondoren (adibidez, edizio batean *aytea* zena gerora *Jaungoiko* bihurtu denean).

	15 egunean 15 <i>arterean</i> 16 egunean 16 gurea 16 vorondatea 16 lurrean 16 egunean eguneangoa 16 <i>gacherean</i> 16 betea 16 <i>Bedencatea</i> 17 artean 17 <i>amea</i> 17 vicicea 17 dulzurea 17 gueurea 17 Ea 17 gueurea 17 <i>piadosea</i> 17 santea 18 <i>honreari</i> 18 ametea 18 ganean 18 eguitea 18 gordetea 18 honretea 18 iltea 18 eguitea 18 onstutea 18 ezartea 18 esatea 18 desietea 18 desietea 18 <i>ametan</i> 18 ganean	20 egunean 20 <i>artetic</i> 20 egunean 20 gurea 20 borondatea 20 lurrean 21 egunean eguneangoa 21 <i>gachetatic</i> 21 betea 21 <i>Bedencatea</i> 21 artean 21 <i>amea</i> 21 vicicea 21 dulzurea 21 gueurea 22 Ea 22 gueurea 22 <i>piadosea</i> 22 santea 22 <i>honrrari</i> 23 ametea 23 ganean 23 eguitea 23 gordetea 23 honretea 23 iltea 23 eguitea 23 onstutea 23 ezartea 23 esatea 23 desietea 23 desietea 23 <i>ametan</i> 23 ganean	[11] egunean [11] <i>arteric</i> [11] egunean [11] gurea [11] borondatea [11] lurrean [11] egunean eguneangoa [12] <i>gachetaric</i> [11] vetea [12] <i>Bedeincatua</i> [11] artean [13] <i>ama</i> [12] vicicea [12] dulcurea [12] gueurea [13] Ea [12] gueurea [14] <i>piadosa</i> [13] santea [14] <i>honrari</i> [13] ametea [13] ganean [13] eguitea [13] gordetea [13] honretea [13] iltea [13] eguitea [13] ostutea [13] ezartea [13] esatea [15] desietea [15] desietea [15] <i>ametan</i> [16] ganean	9 egunian 9 <i>arteric</i> 10 egunean 10 gurea 10 borondatea 10 lurrean 11 egunean eguneangoa 11 <i>gachetaric</i> 11 betea 11 <i>Bedeincatua</i> 11 artean 11 <i>ama</i> 12 vicicea 12 dulsurea 12 gueurea 12 Ea 12 gueurea 13 <i>piadosa</i> 12 santea 13 <i>honrari</i> 14 ametea 14 ganean 14 eguitea 14 gordetea 14 honretea 14 iltea 14 eguitea 14 ostutea 14 esartea 14 esatea 14 desietea 15 desietea 15 <i>ametan</i> 15 ganean	9 egunian 9 <i>arteric</i> 10 egunian 10 guria 10 borondatia 10 lurrian 10 egunian eguniangua 11 <i>gachetaric</i> 11 betia 11 Bedeincatia 11 artian 12 <i>ama</i> 12 vicicia 12 dulsuria 12 gueuria 12 Ea 12 gueuria 13 <i>piadosa</i> 13 honriari 14 ametia 14 ganian 14 eguitia 14 gordetia 14 honretia 14 iltia 14 eguitia 14 ostutia 14 esartia 14 esatia 14 desietia 15 desietia 15 <i>ametia</i> 15 ganian
<i>e.e</i>	13 Christianeem 13 santeen 13 aytien 13 semien 18 desietea 18 desietea 18 <i>oneec</i>	17 Christianeen 17 santeen 17 aytien 17 semien 23 desietea 23 desietea 23 <i>onec</i>	[7] Christianeen [7] santeen [7] aytien [7] semien [15] desietea [15] desietea [15] <i>onec</i>	5 cristianeen 5 santeen 5 aitian 5 semien 14 desietea 15 desietea 15 <i>onec</i>	5 Cristianien 5 santien 5 aitian 5 semien 14 desietia 15 desietia 15 <i>onec</i>
<i>i.V</i>	13 arerioataric 13 Jayo 13 Maria 14 Poncio 14 viciac 14 araguien 14 pertenebietan 14 pertenebietan 14 pertenebietan 15 jayo 15 Maria 15 jayo 15 jayaqueran 15 jayo 15 beccatarioc 16 juyzioco 16 viciac 16 gloria 16 Maria 16 Maria 16 graciaz 17 guztien 17 Maria 17 becatariocgaiti	17 arerio[e]taric 18 jayo 18 Maria 18 Poncio 18 viciac 18 araguien 18 pertenebietan 19 pertenebietan 19 pertenebietan 19 jayo 19 Maria 19 jayo 19 jayaqueran 19 jayo 19 becatarioc 20 juycioco 20 viciac 20 gloria 21 Maria 21 Maria 21 graciaz 21 guztien 21 Maria 21 becatariocgaiti	[7] arerio[e]taric [8] jayo [8] Maria [8] Poncio [8] viciac [9] araguien [9] pertenebietan [9] pertenebietan [10] pertenebietan [10] jayo [10] Maria [10] jayo [10] jayaqueran [10] jayo [10] becatarioc [11] juicioco [11] viciac [11] gloria [12] Maria [12] Maria [12] gracias [11] guztien [13] Maria [13] becatarioc gaiti	5 areriotaric 6 jayo 6 Maria 6 Poncio 6 viciac 7 araguien 7 pertenebietan 7 pertenebietan 8 pertenebietan 9 jayo 9 Maria 9 jayo 9 jayoqueran 9 jayo 9 becatarioc 10 juicioco 10 viciac 10 gloria 11 Maria 11 Maria 11 gracias 11 gustien 11 Maria 12 becatarioc gaiti	5 arerijuetaric 6 jayo 6 Maria 6 Poncio 6 viciac 7 araguien 7 pertenebietan 7 pertenebietan 8 pertenebietan 9 jayo 9 Maria 9 jayo 9 jayoqueran 9 jayo 9 pecatarioc 10 juicioco 10 viciac 10 gloria 11 Maria 11 Maria 11 gracias 11 gustien 11 Maria 12 pecatarioc gaiti

5. Datuen irakurketa eta eztabaidarako gaiak

	17 eriozaco 17 misericordiazcoa 17 deyez 17 viortu 17 misericordiazco 17 beguioc 17 Maria 18 pertencietan 18 guztien 18 jayac 18 araguiazco 18 testimonioric 18 desietea 18 guztien	21 eriozaco 21 misericordiazcoa 21 deyez 22 biortu 22 misericordiazco 22 beguioc 22 Maria 22 pertencietan 23 guztien 23 jayac 23 araguiazco 23 testimonioric 23 desietea 23 guztien	[13] eriozaco [13] misericordiazcoa [13] deyez [13] biortu [13] misericordiazco [12] beguioc [14] Maria [14] pertencietan [14] guztien [14] jayac [14] araguiazco [15] testimonioric [15] desietea [15] guztien	12 eriosaco 12 misericordiazcoa 12 deyez 12 biortu 12 misericordiasco 12 beguioc 13 Maria 13 pertencietan 14 guztien 14 gayac 14 araguiasco 14 testimonioric 14 desietea 15 guztien	12 eriosaco 12 misericordiazcoa 12 deyez 12 biortu 12 misericordiasco 12 beguioc 13 Maria 13 pertencietan 14 guztien 14 jayac 14 araguiasco 14 testimonioric 14 desietea 15 guztien
<i>o.V</i>	13 oracinoac 13 arerioetaric 13 Jaungoycoa 13 Credo 13 poderosoagan 14 poderosoen 14 comuninoa 14 parcacinoa 14 erresurrecinoa 14 Christoen 14 poderosoagan 15 passinoa 15 dagoala 15 poderosoen 16 gaistoai 16 eguneangoa 16 tentacinoan 17 Jaungoycoen 17 misericordiazcoa 17 Jaungoycoen 17 Christoen 18 Jaungoycoen 18 Jaungoycoen 18 proximoen 18 Leleengoa 18 Jaungoycoa 18 iñoen 18 iñoen 18 Jaungoycoa 18 proximoa	17 oracinoac 17 arerio[e]taric 17 Jaungoycoa 17 Credo 17 poderosoagan 18 poderosoen 18 comuninoa 18 parcacinoa 18 erresurrecinoa 18 Christoen 19 poderosoagan 19 pasinoa 20 dagoala 20 poderosoen 20 gaistoai 21 eguneangoa 21 tentacinoan 21 Jaungoycoen 21 misericordiazcoa 22 Jaungoycoen 22 Christoen 22 Jaungoycoen 22 Jaungoycoen 22 proximoen 23 Leleengoa 23 Jaungoycoa 23 iñoen 23 iñoen 23 Jaungoygoa 23 proximoa	[7] Oracinoac [7] arerio[e]taric [7] Jaungoycua [7] Credo [7] poderosoagan [8] poderosoen [9] comuninoa [9] parcacinoa [9] erresurrecinoa [9] Cristoen [9] poderosoagan [10] pasinoa [11] dagoala [11] poderosoen [11] gaistoai [12] eguneangoa [11] tentacinoan [12] Jaungoycoen [12] misericordiazcoa [13] Jaungoycoen [13] Cristoen [13] Jaungoycoen [13] Jaungoycoen [13] progimoen [14] Leleengoa [13] Jaungoycoa [13] iñoen [13] iñoen [13] Jaungoycoa [14] progimoa	5 oracinoac 5 areriotaric 5 Jaungoicoa 5 Credo 5 poderosoagan 6 poderosoen 7 comuninoa 7 parcacinoa 7 erresurrecinoa 7 Christoen 8 poderosoagan 9 pasinoa 9 dagoala 9 poderosoen 10 gaistoai 11 eguneangoa 11 tentacinoan 11 Jaungoycoen 12 misericordiazcoa 13 Jaungoycoen 13 Cristoen 13 Jaungoycoen 13 Jaungoycoen 14 progimoen 14 Leleengoa 14 Jaungoycoa 14 iñoen 15 iñoen 15 Jaungoycoa 15 progimoa	5 oracinoac 5 arerijuetaric 5 Jaungoicua 5 Credua 5 poderosuagan 6 poderosuen 7 comuninoa 7 parcacinoa 7 erresurrecinoa 7 Cristoen 8 poderosoagan 9 pasinoa 9 dagoala 10 poderosuen 10 gaistoai 10 eguniangua 11 tentacinuan 11 Jaungoycoen 12 misericordiazcoa 13 Jaungoycoen 13 Cristoen 13 Jaungoycoen 13 Jaungoycoen 14 progimuen 14 Lelengua 14 Jaungoycoa 14 iñoen 15 iñoen 15 Jaungoycoa 15 progimua
<i>u.V</i>	13 santuen 13 ceruen 13 santuagañic 14 crucificadua 14 sepultatua 14 infernuetara 14 ceruetara 14 santuagan 14 santuen 14 peccatuen 14 Articulua 14 articuluac 14 santua 15 santuen 15 infernuetara 15 santuenac 15 santuari 15 ceruetara 16 cituezalaco 16 mandamentuac 16 ceruetan 16 erreñua	17 santuen 17 Ceruen 18 santuagañic 18 crucificadua 18 sepultadua 18 infernuetara 18 ceruetara 18 santuagan 18 santuen 18 peccatuen 18 Articulua 18 articuluac 19 santua 19 santuen 19 infernuetara 19 santuenac 20 santuari 20 ceruetara 20 cituezalaco 20 mandamentuac 20 ceruetan 20 erreñua	[7] santuen [8] ceruen [8] santuaganic [8] crucificadua [8] sepultadua [8] infernuetara [8] ceruetara [8] santuagan [9] santuen [9] pecatuen [9] Articulua [9] articuluac [9] santua [10] santuen [10] infernuetara [10] santuenac [10] santuari [11] ceruetara [11] cituezalaco [11] mandamentuac [11] ceruetan [11] erreñua	5 santuen 5 ceruen 6 santua ganic 6 crucificadua 6 sepultadua 6 infernuetara 6 cerubetara 6 santuagan 7 santuen 7 pecatuen 7 Articulua 7 articulubac 8 santua 8 santuen 9 infernuetara 9 santuenac 9 santuari 9 ceruetara 10 cituzalaco 10 mandamentuac 10 ceruetan 10 erreñua	5 santuben 5 ceruben 6 santuba ganic 6 crucificaduba 6 sepultaduba 6 infernubetara 6 cerubetara 6 santubagan 7 santuben 7 pecatuben 7 Articuluac 7 articulubac 8 santuba 8 santuben 9 infernubetara 9 santubenac 9 santubari 9 cerubetara 10 citubezalaco 10 mandamentubac 10 cerubetan 10 erreñuba

16 ceruan	20 ceruan	[11] ceruan	10 ceruban	10 ceruban
16 <i>Bedencatea</i>	21 <i>Bedencatea</i>	[11] <i>bedeincatua</i>	11 <i>Bedeincatua</i>	11 <i>bedeincatia</i>
17 bedencatua	21 bedencatua	[11] bedeincatua	11 bedeincatua	11 bedeincatuba
17 frutua	21 frutua	[11] frutua	11 frutua	11 frutuba
17 orduan	21 orduan	[12] orduan	12 orduan	12 orduban
17 desterraduoc	22 desterraduoc	[12] desterraduoc	12 desterraduoc	12 desterraduboc
17 desterruau	22 desterruau	[13] destierro au	13 destierro au	13 destierrubau
17 bedecatua	22 bedecatua	[13] bedeincatua	12 bedeincatua	13 bedeincatuba
17 prometimentuac	22 prometimentuac	[13] prometimentuac	13 prometimentuac	13 prometimentubac
18 Mandamentuac	22 mandamentuac	[13] mandamentuac	13 mandamentuac	13 mandamentubac
18 Mandamentuac	22 mandamentuac	[13] mandamentuac	13 mandamentuac	13 mandamentubac
18 provechuari	23 provechuari	[13] provechuari	13 provechuari	14 provechubari
18 burua	23 burua	[14] burua	15 buruba	15 buruba

Altzibarren datuen arabera, 1841eko edizioaz geroztik Arzadunen dotrina “markinar idazleek eta erabili ohi zituzten «eufonia bokaliko» deitu izan direnetan ematen zaigu” (1992: 51).

Oro har, XVIII. mendeko edizio biek eredu gordetzaileari jarraitzen diote eufoniei dagokienez: Euskara Zaharrekoari, Kapanagaren dotrinakoari (Ariztimuño 2015a: 25 eta Arejita 2018: 248). Salbuespen bakarra dira genitiboak eta adizkiak: horietan $e \rightarrow i$ agertzen da 1731tik bertatik. Bestalde, XIX. mendeko edizioen artean hemen aztertutako lehenengoan (1819) aurrekoetan ez bezalako aldaerak agertzen dira inoiz; zehazki, $e \rightarrow i$ igoeraren adibideren bat dago genitiboaz kanpo (cf. [7] *icenian*), bai eta $o \rightarrow u$ -ren bat ere (cf. [7] *Jaungoycua*). Halakoak ugaritu egiten dira 1830eko edizioan (batez ere $e \rightarrow i$ –cf. 5 *icenian*, 6 *virginiaganic*, 8 *semia*, 9 *egunian*–, baina badago $o \rightarrow u$ -rik ere: 15 *Jaungoicua*). Halaber, *-ubV* epentesiaren adibide bi aurkitu ditut aztertutako laginean (7 *articulubac*, 10 *ceruban*, 15 *buruba*). 1841eko edizioan askozaz indar handiagoa dute berrikuntza horiek: $e \rightarrow i$ sistematikoa da ia, $o \rightarrow u$ -ren adibideak ugari dira (baina sistematikotasunetik urrun daude, halere), eta *-ubV* epentesia sistematikoa da. Altzibarrekin bat, 1841eko edizioa hurbilago dago Markinako sistematik, baina dotrinaren berrargitalpenak azaltzen duen hizkera ez da bete-betean mende hasierako “Markinako eskola”-ko idazleena bezain zurruna eta sistematikoa: $o \rightarrow u$ -ren adibideak adina salbuespen daude, eta *-ijV* epentesiaren adibide bakarra aurkitu dut (5 *arerijuetaric*); azken hori bakarra da, beraz, aztertutako bost laginetan.

Aurreko datuek bi joera nabarmentzen dituzte.

Alde batetik, Arzadunek eredu tradizionalari jarraitu zion bere dotrina prestatzean: Euskara Zaharraren hainbat elementu gordetzen ditu durangarraren testuak, baina Lehen Euskara Modernoarenak ere agertzen dira; trantsizio-garai bateko idazlea da Arzadun, eta eredu gisa erabili zuen Kapanagarena, edo Kapanagarena gutxienez (Zubiarenak ez dakar berrikuntzarik eufonien arloan). Hizkuntzaren eredu landua da Arzadunena, bere

ezagutzarekin eta posizio sozialarekin bat datorrena: irizpide linguistikoetan zurrun jokatu zuen eredu tradizional-gordetzailearen alde.

Beste alde batetik, 1758ko argitalpenaren prestatzaileak hizkuntza “eguneratu” zuen zenbait puntutan behintzat, eta zenbait kontutan eredu orokorrago baten alde egin. Eufoniei dagokienez, aitzitik, 1819ko dotrina gordetzaile da oraindik, $e \rightarrow i$ ez beste berrikuntzetan 1830koa den legetxez; eredu-aldaketa nabarmena 1841ekoan gertatzen da Markinako sistemaren alde, baina ez sistematikotasunez: ez dira islatzen markinar klasikoek idatziz emandako fonetismo guztiak (ez dago -ijV-rik, adibidez), eta islatzen direnean ez dira sistematikoki islatzen.

5.3.2.3.1.2. Agustin Kardaberatz: *Dotrina cristiana edo cristinau doctrinea* (ca. 1762)

Kardaberatzen kasua berezia da hein batean, idazlea gipuzkoarra izanik Bizkaiko euskara erabilia baina “gipuzkerazko hitz zenbaiten kutsuz” (Altzibar 1992: 64) idatzi baitzuten tesi honen corpusean sartutako *Dotrina cristiana edo cristiñau doctrinea* (ca. 1762) eta corpusetik kanpo utzitako *Jesus, Maria, ta Joserren devociñoco libruchoric atararico devociño batzuc* (1764) lanak. Bizkaiko euskara, nolahi ere den, ez zitzaion arrotz Kardaberatzi: gaztaroan Bilbon bizitzeaz gain, jaurrerian herririk herri ibili zen hainbat urtez sermoigintzan: Elorrio, Lekeitio, Mungia, Bakio, Erandio, Munitibar, Zornotza, Berriz eta Markinako misioak aipatu zituen beren-beregi Akesolok (1989 [1971]), eta Bizkaian bisitatu gabeko herri gutxi utzi zituela gaineratu; begiratu Kardaberatzen beraren berbok: “Aimbeste milla anima edo guizon ta andrerequin igaroco oguei ta aimbest urteetan provincia oietan misioetan jardun bear izan det; eta egunoro ta gueiago admiratu izan nau gucietaco ta ez guchiago Bizcaico itzeguiteco era ta armoniac” (1761: 13).

XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik euskarazko dotrinen beharrezana zekusan Kardaberatzek eta badirudi beharrezan hori larriagoa zela Bizkai aldean:

Aita Mendibururen zelo andiac Nafarroaco erara liburu eder provechuzco asco atera dituen bezala, Jaincoaren ontasunari escatcen diot, *Bizcaico biotz nobleren bati, angó era, ta dialectoan, ceruco dotrina, ta eemploen libruac ateratceco, arren argui celoz, ta gogoz bete bat eman diozala*. Alper alperric leiatcea da: animen oneraco, Bizcaico, Nafarroaco, ta Guipuzcoaco iru dialectoetan escribitcea, guztiz premiazco, ta gauza chit bearra da. Gure izquierda, beste bien erdicoa bezala, Nafarroan, baita Bizcaian ere gueiena aditcen da. (Kardaberatz 1761: 63; letra etzana neurea da [EZ])

Badirudi berehalako erantzun baten faltan-edo Kardaberatzek berak heldu ziola beste inork baino lehenago kristau-dotrina Bizkaiko euskaran prestatzeari, 1762 aldera

argitaratu baitzuen arestian aipatutako liburua.⁴⁷⁸ Ondoko adibideek erakusten dutenez, Kardaberatzen hizkera kontserbatzailea da eufoniei dagokienez, Kapanagaren eta Arzadunen ildokoa: “Kardaberatzek ezagutzen zituen kristau doktrina bi horiek, baina batez ere Kapanagaren Ripalda-ren bertsioari jartzen dio arreta, beren-beregi aipatzen duela, baina hala ez balitz ere, idazkeran paralelismo argiak ditu Durango aldeko idazleekiko” (Arejita 2003: 112). Hala idatzi zuen Kardaberatzek *Jesus, Maria, ta Joseren devociñoco libruchoric atararico devociño batzuc* lanean irakurleentzat eginiko oharrean:

Eun da zazpi urte da, gure Aita Ripalda famaduaren dotrina, licenciadu Capanaga Mañarico sacerdote jaunac Bizcaico eusqueran atara ebalá. An dacust celan emeco gure modura verba asco usetan ta acabetan dituan. An dacust celan ederto baten diñoan: *Curutce santearen, aitearen ta semearen, Jaungoicoaren, Aita gurea, gure, zure, aitea ta semea*, ta besteac: eta laburrago ta obeto escribietan ta usetan dira. (Kardaberatz 1764: 4-5)

Aurrekoak esanda, aipatu egin behar da Kardaberatzen dotrinari dagokionez ca. 1762ko edizioak baino arreta handiagoa eragin duela hori oinarri hartuta 1783an kaleratu zen bertsioak;⁴⁷⁹ hala erakusten dute, behintzat, bigarren horri buruz egin diren lan monografikoek (cf. Altzibar 1991b, 1991c, Arejita 1994).

Kardaberatzen dotrinaren 1783ko edizioa Tolosan agertu zen egilea bera hil ondoren, eta arreta gehiago erakarri izanaren arrazoia 1762kotik 1783ra dauden ezberdintasun nabarmenak dira: “Orain urteten dau eusquera apaindubaguan” dio portadak, eta Juan Antonio Mogeli egotzi izan zaio dotrinaren egiletza.⁴⁸⁰

1783ko dotrinak, behin eta berriz esan bezala, Kardaberazena apaintzeko asmoa du, lexikoan nahiz morfologian, hitz ordenan eta grafian (...) Asmoa esan dugu, berori beti lortzen ez dukeen arren. J. A. Mogelen aurreko sermoi edo platikekin konparatuz gero, aldaketa batzu nabari dira dotrina honetan, batzu Kardaberazean beraren eraginez. (Altzibar 1991b: 624)

Kardaberatzen 1762 edo inguruko testu orijinala guztiz aldatua –erizpide argi eta garbiz– agertzen da hogeit bat urte ozta igaro zirelarik. Ez soilik lexikoan: grafia, deklinabide-atzizki, adizki eta hitzen ordenan ere bai. Ondorioz, beste edizio desberdin bat gertatzen da 1783koa. Aldaketon helburua berariaz adierazia dago izenburuan: “Orain urteten dau eusquera apaindubaguan”. Dena dela, ohargarria iruditzen zait, ordura arteko bizkaierazko idazlanetan bederen, euskara modu apaindu baten bilaketa eta erizpide agerketa hain garbia. (Altzibar 1991c: 261).

Sin embargo, tanto en su título como en el texto, la edición de 1783 coincide totalmente, salvo pequeños detalles, con las ediciones posteriores con autoría reconocida de Moguel, el cura de Markina. Es muy significativa esta observación de la portada interior: “Orain urteten dau eusquera apaindubaguan”. No cabe duda de que fue Moguel el autor de esa versión y del

⁴⁷⁸ Liburuak ez dakar inprentaren eta urtearen aipamenik, baina Urkixoren eta Dodgsonen ustez Iruñeko Antonio Castillaren inprimategian 1762an aterea izan zitekeen (cf. Altzibar 1991c: 261).

⁴⁷⁹ 1762ko testua 1906an berrargitaratu zen Baionan, “orriz orri” eta 1783ko aldaketak aintzat hartu barik, Dodgsonen ardurapean (Rementeria 2018: 39).

⁴⁸⁰ J. A. Mogel hil eta urtebetera argitaratu zen *Christinaubaren jaquinbidea* (1805) Gasteizen, F. Larunberen inprimategian, Mogelek berak sinatua, nahiz eta “1783an Kardaberazean izenagaz argitaratu zen testu bera da, aldaketa txikiak gorabehera” (Arejita 2018: 251).

“eusquera apaindubagua” de su redacción, cuyo texto resulta completamente diferente del texto de la edición de Kardaberaz de 1762. (Arejita 1994, *apud* Arejita 2018: 249)

Hain zuzen ere, Kardaberatzen dotrinaren *ca.* 1762ko bertsiotik 1783ko bertsiora aldaketa sakonak egin ziren: atal eta tesi honetan maila fonikoari dagozkionak besterik ez ditud aztergai, baina Altzibarrek (1991b, 1991c) eta Arejitan (1994, 2018) beste hainbat mailatan ere atzeman zituzten. Altzibar (1991c) lanean aipatzen dira hauek, besteak beste:

– Grafia:

- $ea, ia, oa, ua \rightarrow ia, ijV^{(a, e, o, u)}, ua, ubV^{(a, e, o)}$ ⁴⁸¹
- $iV^{(a)} \rightarrow jV; tcV^{(e, i)}$
- $\rightarrow tzV^{(e, i)}$
- $ss /š/ \rightarrow \langle s \rangle /š/$
- $iñV \rightarrow inV$
- $VbV \sim VvV$ arteko aldaketak

– Morfologia:

- Genitibo singularreko $-en \rightarrow -aren$ ⁴⁸²
- *Nor* $\rightarrow zein$ bihurtzeko joera
- *Egin* aditz-laguntzailearen $-gui-$ erroa $\rightarrow -i-$
- **edin, izan* eta *egin* laguntzaileetan $-ke$ alegiazkoa desagertu egiten da zenbaitetan 1783ko edizioan
- Aditz-izenetan $-ete, -etea, -etan, -etara, -etaco/-tcera, -teco \rightarrow -t(d)utia, -t(d)uten, -t(d)uteco, -t(d)utera$
- *Emon* aditzari $-te$ gehitzean $-ite \rightarrow -te$
- Aditz trinkoak ugaritzen dira 1783ko edizioan
- [partizipioa + *eroan*] perifrasiak ohikotasuna adierazten du 1783ko edizioan, *ca.* 1762koan ez bezala
- **edutsi*-ren adizkietan $deuste- \rightarrow deutse-$

– Hitz-ordena

- Galderetan galdetzaileak eta aditza aurreratzeko joera dago 1783ko edizioan
- Erantzunetan galdegaia perpausaren hasieran kokatzeko joera dago 1783ko edizioan
- Kausazko perpausetan ere aditza aurreratzen da, eta *zerren-en* ondoren kokatzen da ondoren

– Lexikoa

- Erdaratiko hitzen orde, hainbatetan erabiltzen dira euskal hitz jatorrak
- Bestelako aukera lexikoak txertatzen dira *edo*-ren bidez, edo berba eta perifrasi baliokideak ematen dira

⁴⁸¹ Lehenengo puntu hau egokiagoa litzateke fonetika-fonologian sailkatu, grafiatik haragoko aldaketa baita.

⁴⁸² Gogoratu egin behar da Kardaberatzek (1764) berak une batetik aurrera $-en$ eta $-aren$ bereizi beharra aldarrikatu izana, nahiz eta *ca.* 1762ko dotrinan halakorik ez egin sistematikoki.

– Berba jakin batzuk ordezkatu egiten dira, eta berba batzuen beste aldaera batzuk ematen dira

Aurreko aldaketa-sortak bermatzen du Altzibarrek ondorioztatutakoa: “Ondorioz, 1783.eko edizioak, euskara-modu polikituago bat eskaintzeko asmoa agertzen duena, beste dotrina edo testu desberdin bat gertatzen da” (1992: 65).

Kardaberatzi lotutako azpi-atal honetan, bada, aurrekoan egin legez, bokal-eufonien bilakabidea besterik ez dut aztertuko. Zehazki, parez pare jarriko ditut *ca.* 1762ko eta 1783ko dotrinak, bakoitzak hiatoetan zer islatzen duen erakuste aldera:⁴⁸³

12. taula. Kardaberatzen dotrinaren argitalpenen konparazioa

	Kardaberatz (Iruñea, ca. 1762)	Kardaberatz (Tolosa, 1783)
<i>e.a</i>	3 sarrerea	[3] sarrerria
	3 atareteagaiti	[3] ateratiarren
	3 bear	[3] biar
	3 <i>santigueta</i>	[3] <i>aitiaren</i>
	4 bularrean	[3] bularrian
	4 santearen	[4] santiaren
	4 señaileagati	[4] señaia gaiti
	4 Aitearen	[4] aiti[a]ren
	4 semearen	[4] semiaren
	4 icenean	[4] icenian
	5 gurea	[4] guria
	5 gurea	[4] guria
	5 borondatea	[4] borondatia
	5 lurrean	[4] lurrian
	5 egunean eguneango	[4] egunian eguniango
	5 betea	[4] betia
	5 bedincatea	[4] bedeincatia
	5 artean	[5] artian
	6 <i>aita Jangoico guciz poderoso</i>	[5] <i>guztia daiquian aita Jangoicuagan</i>
	5 <i>criadoreagan</i>	[5] <i>eguillia</i>
	6 <i>Virgiña gaudic</i>	[5] <i>virginiagandic</i>
	6 bean	[5] beian
	6 <i>Crucificadua</i>	[5] <i>Curutzian josija</i>
	6 <i>beatua</i>	[5] <i>enterraduba</i>
	6 egunean	[5] egunian
	7 <i>guztic poderosoen</i>	[5] <i>guztia daiquianaren</i>
	7 <i>catoliquea</i>	[6] <i>guztientzacua</i>
	7 salvea	[6] Salvia
	7 bicitcea	[6] vicitzia
	7 gurea	[6] gueuria
	7 Ea	[6] Ea
	7 gurea	[6] gueuria
	8 <i>berea</i>	[6] -
	8 <i>beata</i>	[6] -
	8 santea	[6] santia
	8 gaitean	[6] gaitian
	8 onreari	[7] onrriari
	8 <i>amaetea</i>	[7] <i>maite izatia</i>

⁴⁸³ Honako atal hauek aztertu ditut lagin gisa: “Christiñau doctrinaraco sarrerea”, “Aita gurea”, “Credoa”, “Salvea”, “Jangoicoaren legueco aguinde, edo mandamentuac dira amar”, “Fedeco articuluac dira amalau”. Bestalde, letra etzanak erabili ditut, Arzadunen dotrinetako adibideak eraztean legez, edizio batetik bestera aldaketa esanguratsuak agertzen direnean eta horrek eufonien lekukotzan eragina duenean.

	8 eguita 9 <i>santificaetea</i> 9 <i>onrete</i> 9 iltea 9 eguita 9 onstutea 9 ezartea 9 esatea 9 <i>deseet[e]a</i> 9 <i>deseetea</i> 9 <i>deseetea</i> 9 <i>amadutean</i> 9 <i>ganean</i> 9 <i>amadutean</i> 10 semea 10 <i>criadorea</i> 10 salvadorea 11 <i>glorificadorea</i> 11 virgineaganic 11 <i>salvaetarren</i> 11 <i>semea</i> 11 eriotzea 12 egunean 12 <i>penea</i>	[7] eguita [7] <i>gordetia</i> [7] <i>lotsia gordetia</i> [7] iltia [7] eguita [7] ostutia [7] ezartia [7] essatia [7] <i>gura izatia</i> [7] <i>gura izatia</i> [7] <i>gura izatia</i> [8] <i>maite izatian</i> [8] - [8] <i>maite izatian</i> [9] semia [10] <i>eguillia</i> [10] salvadoria [10] <i>glorija-emolia</i> [10] virginiaganic [10] <i>salvetiarren</i> [10] - [10] erijotzia [11] egunian [11] -
<i>e.e</i>	4 <i>deungueetatic</i> 9 <i>deseet[e]a</i> 9 <i>besteen</i> 9 <i>deseetea</i>	[3] - [7] - [7] - [7] -
<i>i.V</i>	3 guztic 3 bio[z] 3 arguien 3 arerio 3 becoquian 4 arerioetatic 5 oguia 5 <i>baia</i> 5 Maria 5 Maria 5 graciaz 5 guztien 6 Maria 6 eriotzaco 6 <i>Criadoreagan</i> 6 graciaz 6 jaio 6 Maria 6 Poncio 6 <i>crucificadua</i> 6 becatarioc gaiti 7 <i>guztic poderosoen</i> 7 biciac 7 <i>Ellesa Santa Catoliquea</i> 7 araguiaren 7 <i>erresurreciñoa</i> 7 deiez 7 - 7 - 7 biurtu 8 - 8 Maria 8 - 8 gucien 9 <i>jai egunac</i> 9 araguiazco 9 <i>testimonio</i> 9 guztien	[3] guztic [3] vijotz [3] arguijaren [3] arerijo [3] becoquijan [4] arerijuetatic [4] oguija [4] <i>baña</i> [4] Maria [4] Marija [4] graciaz [4] guztien [5] Marija [5] erijotzaco [5] <i>guztia</i> [5] graciaz [5] jaijo [5] Marija [5] Poncio [5] <i>curutzian josija</i> [5] peccatarijoc gaiti [5] <i>guztia daiquianaren</i> [5] vicijac [6] <i>Elisa ama santa guztientzacua</i> [6] araguijaren [6] <i>barrija</i> [6] deiez [6] <i>andria</i> [6] <i>gueuria</i> [6] biurtu [6] <i>erruquiorra</i> [6] Marija [6] aguin sarijen [7] guztien [7] <i>jaijac</i> [7] <i>araguiuzco</i> [7] - [8] guztic

	<p>9 - 10 eguiazcoen 10 - 11 glorificadorea 11 <i>graciaz</i> 11 jaio 11 Maria 11 jaio 11 jaiakeran 11 jaio 11 eriotzea 11 - 11 pecatarioc 12 <i>gutziz poderosoen</i> 12 bicia 12 gloria</p>	<p>[8] <i>gueijago</i> [9] eguijazcuaren [10] <i>guztien</i> [10] gloria-emolia [10] - [10] jaijo [10] Marija [10] jaijo [10] jaijotzan [10] jaijo [10] erijotzia [10] andijac [10] pecatarijoc [11] guztia daijanaren [11] <i>vici</i> [12] gloria</p>
<i>o.a</i>	<p>3 <i>devociñoa</i> 3 lenengoa 3 Jangoicoac 4 <i>guestoetarie</i> 4 aoan 4 Jangoicoac 4 Jangoicoac 4 <i>guestoetarie</i> 4 Jangoicoa 5 <i>tentaciñoan</i> 6 Jangoicoaren 6 Credo 7 <i>poderosoen</i> 6 <i>Elessa santa catoliquea</i> 7 comuniñoa 7 <i>parcaciñoa</i> 7 - 7 - 7 <i>erresurreciñoa</i> 7 <i>beticoa</i> 7 <i>gozoa</i> 8 gozoa 8 Jaungoicoaren 8 Jangoicoaren 8 Jangoicoaren 8 urcoaren 8 <i>Lenengoa</i> 9 <i>aita, eta ama</i> 8 Jangoicoa 8 <i>banoan</i> 10 - 10 - 10 eguiazcoen 10 Lenengoa 10 - 11 <i>pasiñoa</i> 12 dagoala 12 <i>poderosoen</i> 12 <i>guestoai</i></p>	<p>[3] <i>devocinoia</i> [3] Lenengua [3] Jaincuac [3] <i>deunguetatic</i> [3] auan [3] Jaincuac [3] Jaincuac [4] <i>deunguetatic</i> [4] Jaincua [4] <i>tentacinoian</i> [5] Jaincuaren [5] Credua [5] <i>guztia daiquianaren</i> [6] <i>Elisa ama santa guztientzacua</i> [6] <i>comuninoia</i> [6] <i>parcacinoia</i> [6] <i>Jaincuac</i> [6] <i>Jaincuac</i> [6] - [6] - [6] - [6] gozua [6] Jangoicuaren [7] Jangoicuaren [7] Jaincuaren [7] - [7] <i>Jangoycua</i> [7] <i>gurassuai</i> [8] Jangoicua [8] <i>alperric</i> [9] <i>fedecua</i> [9] <i>fedecua</i> [9] eguijazcuaren [9] Lenengua [9] <i>daijan</i> [10] - [11] daguala [11] - [11] - <i>dongai</i></p>
<i>o.o</i>	7 misericord[i]azcooc	
<i>u.a</i>	<p>3 santuagaz 3 pecatuen 3 <i>santigueta</i> 4 santuaren 5 ceruetan 5 erreinua 5 ceruan 6 bedincatua 6 frutua 6 orduan</p>	<p>[3] santubagaz [3] pecatubaren [3] <i>aitiaren eguitera</i> [4] santubaren [4] cerubetan [4] erreinuba [4] ceruban [5] bedeincatuba [5] frutuba [5] orduban</p>

6 Ceruaren	[5] cerubaren
6 santuaren	[5] santubaren
6 <i>podoren</i>	[5] aguindubaren
6 <i>Crucificadua</i>	
6 <i>beatua</i>	[5] <i>curutzian josija</i>
6 infenuetara	[5] <i>enterraduba</i>
6 ceruetara	[5] infenubetara
7 santuagan	[5] cerubetara
7 santuen	[6] santubagan
7 pecatuen	[6] santuben
7 deserrituac	[6] pecatuben
8 bedeincatua	[6] erbestetuboc
8 <i>berea</i>	[6] bedeincatuba
8 <i>mandamentuac</i>	[6] -
9 <i>urcoa</i>	[7] <i>agindubac</i>
8 <i>santuaz</i>	[9] <i>proximua</i>
9 burua	[9] -
10 <i>articuluac</i>	[9] buruba
10 [S]antuari	[9] -
10 santua	[9] santubari
11 -	[9] santuba
11 <i>santuen</i>	[10] <i>sortuba</i>
11 -	[10] <i>santuba ganic</i>
11 infenuetara	[10] <i>citubala</i>
11 santuen	[10] infenubetara
11 santuen	[10] santubaren
12 <i>cituala</i>	[10] santuben
12 ceruetara	[10] -
12 cituezan	[11] cerubetara
12 santuac	[11] citubelaco
12 etcituezan	[11] santubac
12 -	[11] etzitubelaco
	[11] <i>infernuba</i>

Aurreko datuek argiro islatzen dute bi argitalpenen arteko eredu linguistikoaren aldaketa: aurretik aipatu legez, 1762koa eredu gordetzailari dagokio; eufonietan batago egiten du Lehen Euskara Modernoa baino lehenagoko testuetan agertzen den egoerarekin. 1783ko edizioan, aldiz, Lehen Euskara Modernoan arian-arian ugaritzen diren bokal-igotzeak eta kontsonante epentetikoak indartsu agertzen dira.

Hain zuzen ere, $e \rightarrow i$ eta $o \rightarrow u$ igotzeak sistematikotzat jo daitezke: aztertutako laginean [6] *Ea* interjekzioan besterik ez dut aurkitu salbuespen bat, eta 1762an *-iño* zirenak 1783koan *-iño* izateak $o \rightarrow u$ -ri dagokionez aldaera erkaezinak eragiten baditu ere, halakoetatik kanpo gerta zitekeen kasu guztietan aurkitu dut $o \rightarrow u$.

Kontsonante epentetikoei dagokienez, *-ubV* sistematikoa da bokal itxia bigarrenkaria ez denean ([3] *santubagaz*, baina [9] *proximua*); aitzitik, *-ijV* epentesia ez da hain sistematikoa. Egia da indar bizia duela eta zabal agertzen dela, baina Alzibarrekin (1991c: 262) bat, *guzti* berban ez da agertzen: [3] *guztiac*, [5] *guztia*, [5] *guztia*, [8] *guztiac*, [6] *guztientzacia*, [10] *guztien*. Halaber, [6] *deiez* eta [6] *biurtu* berbek ez dute epentesirik, eta *Maria* izen propioak oro har epentesia duen arren, badago epentesirik gabeko adibiderik ere: [4] & [5] & [6] *Marija*, baina [4] *Maria*.

Juan Antonio Mogelen egiletza dela eta, testuko hizkera hurbil dago 1800 ondoko urteetan eibartar markinartuak bere lan nagusietan erabiliko zuen hizkera-eredutik. Mogelen beraren izenarekin 1805ean (egilea hilda zegoen ordurako) argitaratutako dotrinarekiko aldeak txikiak dira, eta batez ere hautu lexikoei dagozkie (cf. Arejita 2018: 251). Mogelen hizkera dela eta, aspaldirik da ezagun bere lehenengo testuetan agertzen den eta geroko lan kanonikoetan erabili zituen ezaugarri linguistikoak ez direla beti berberak, intra-bariazioa dagoela testuz testu eta garairik garai.

Mogelen gaztaroko idazkiak direla eta, Altzibarrek (1991b: 623) hiruzpalau maila bereiz zitezkeela aipatu zuen: (i) hasiera-hasierakoa, (ii) Mendibururen eta Kardaberatzen liburuetan ikasitakoa testuratzten hasi zenekoa eta (iii) 1783ko dotrinakoa, non egindako hautuak aurreko testuetan baino sistematikoagoak diren. Hartara, 1783ko dotrina prestatu orduko zenbait irizpide argi zituen Mogelek, idazle helduagoa baitzen: txistukariak bereizi zituen, eufoniak sistematizatu eta sistematikotasunez testuratu zituen, kasu-marka eta alomorfo batzuen arteko polimorfismoa desagerrarazi zuen, eta sistema grafiko tinkoagoa islatu zuen; aitzitik, XVIII. mendearen amaierako testuotan oso bakanak dira bokal bikoitzak, eta ez da <p> sistematizatzen <f>-ren ordeztan (cf. Altzibar 1991b: 624). Zubi-testua da, hein batean, 1783ko dotrina, belaunaldi zaharragoak ibilitako bideen eta emandako irizpideen, eta “Markinako eskolak”, Mogel buru, XIX. mendearen hasiera-hasieran finkatuko zuen ereduaren artekoa.

5.3.2.3.1.3. Bartolome Olaetxea: *Doctrina cristianeana* (1763)

Olaetxearen *Doctrina cristianeana* da hona ekarritakoen artean XVIII-XX. mendeetan sarrien berrargitaratutako dotrinetako bat: 1763-1920 denbora-tarteko hogeiki edizioen berri dakar Rementeriak (2018: §7). Egilea bera bizi zela lanaren bospasei berrargitalpen egin ziren, nahiz eta edizioz edizio materiala erantsi zitzaion lanari, “Lehenengo argitalpena gehien baten Dotrinea zana, azkenean Dotrinea eta Eleiz- edo Debozino-liburu ia erdiz erdi izateraino” (Rementeria 2018: 42).

Olaetxearen dotrinaren lehenengo edizioa Kardaberatzenaren kide da garaiari ez ezik, edukiari eta (neurri batean behintzat)⁴⁸⁴ eredu linguistikoari dagokienez ere: “un tomo en 8º de doctrina cristiana y varias prácticas y ejercicios piadosos, sacados de las obras de dicho Cardaberaz en vascuence poco puro, pero que conserva la hermosa

⁴⁸⁴ Cf.: “[Kardaberatzen] jarraitzaile izateak, noski, ez du zertan adierazi Olaetxeak Kardaberaz ereduari atxiki zitzaionik, bizkaieraz beste maila batean idazteko arreta jartzean agian bai izan zen eredugarria hernaniarra; baina Kardaberazek darabilen euskara ez da Olaetxearena: honen adibide argi bat genitibo singularrean dugu” (Ulibarri 2015: 240, 248. oin-oharra).

colocación del original” deskripzioa eman zuen Juan Mateo Zabalak (1856: 6). Hain zuzen ere, Olaetxeak berak bere dotrinan aipatua zuen Kardaberatz: “Confesiñoe generala, nai particularra eguiteco modu erraza dauco iminita eusqueraz Aita Agustin Cardaberaz misionista celoso eta jaquitunac bere exercicioetaco liburu ederretan” (1763: 129).⁴⁸⁵ Horren harira, azpimarratzekoa da Ulibarrik nabarmendutako datu bat, Olaetxearen irakurketez eta euskararen ezagutzaz informazio interesgarria ematen baitu: “Kardaberazen Ejerzizioen liburuko (1761) aitortza orokorra gipuzkeraz argitaraturik dago, eta, beraz, hemen ikus dezakegu bizkaitar batek gipuzkerazko liburu bat gomendatzen duela” (2015: 241, 249. oin-oharra). Bestalde, euskara-moldea dela eta, Olaetxeak Bizkaiko erdi-sartaldeko euskara-eredua erabili izana (baita horren arrastoek ondoko edizioetan irautea ere) nabarmendu du Arejitak (2018: 248).

Ikertzaileen aipuak aipu, Olaetxeak argi azaldu zuen Bizkaiko herri guztietan irakurtzeko moduko testua zela berak prestatutakoa, eredu orokor bati jarraikiz prestatu zuela: “Yzan arren barriz eusqueraz au gueien Vizcaian usetan dana, eta vizcaitar guztia erraz iracurri, eta entendiduco davena, alambere erri guztietaco modura, eta guztien gustora onelango liburu chicar baten ecin escribidu lei” (1763: 167).

Olaetxearen dotrinaren berrargitalpenak direla eta, lehenengoan artean zalantzak daude kopuruaren eta dataren inguruan. Rementeriak (2018: 42) 1770eko dotrina bat aipatzen du, Vinsonen bibliografia-saioko eranskinetako informazioarekin bat; aitzitik, tartean datazio-akatsen bat ez ote dagoen zalantzatan nago. Izan ere, Vinsonek dotrinaren portada deskribatzean <1770> esaten du (cf. Vinson 1983 [1898]: 586), baina portadaren transkripzioaren frantses itzulpenean <1780> aipatzen da. Badago tartean akats bat egon zela pentsatzeko bestelako arrazoirik ere: “Orain irugarrenez imprimidu da” esaten da alearen azalean, eta esapide berori dago 1780ko dotrinaren azalean; hots, nahastea argitu egiten da pentsatuaz 1770ean ez zela bigarren argitalpenik egon, eta 1770ekotzat jo izan dena egiazki 1780koa eta dotrinaren hirugarren berrargitalpena izan zela (1780koa du hirugarrentzat, halaber, Altzibarrek –cf. 1992: 66–).

Beste alde batetik, bigarren berrargitalpenak ere zalantzak eragiten dizkit. Oraintsu arte 1774koa jo izan da bigarren argitalpentzat (cf. Altzibar 1992: 66): Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-n dotrinaren erreferentzia ikusia zuela-eta hirugarren argitalpentzat eman zuen Rementeriak (2018: 42), baina ale ezaguna da, Eusko

⁴⁸⁵ Bigarren edizioan, aldiz, liburuaren amaierako edukietara igortzen da irakurlea: “Confesinoe generala, nai particular[r]a eguiteco modu erraza, eta bai norzuc dagozan obligauta generalmente euren pecatubac confesetara, liburuchu onen acabuban dago, an icus bedi” (Olaetxea 1775: 83).

Legebiltzarreko funtsekoa, eta azala falta du; beraz, argitalpen-data ere ez dago ikusterik. Nire ustez, ez 1774kotzat baina 1775ekotzat joko balitz, zenbait arazo argituko liriateke kasu honetan ere. Alde batetik, bai edukiz, bai morfologiaz bat dator 1775eko berrargitalpenarekin: Rementeriararen arabera 1774koa eta 1775ekoa ia berdinar dira, baina baieztapena espekulazio hutsa besterik ez bide da, horren aurretxoan aipatzen baitu ez duela 1774koaren alea ikusterik izan: “Argitalpen hau ez dot esku artean izan, baina hurrengoaren ia bardina dala emoten dau” (2018: 44). Beste alde batetik, 1763tik 1780ra bitartean argitalpen bakarra egon izana batago dator 1780koaren azaleko baieztapenarekin: aurretik aipatutako “Orain irugarrenez imprimidu da”.

1763tik 1780ra beraz, hiru argitalpen leudeke: lehenengoa, 1763koa bertakoa; bigarrena, 1775ekoa; hirugarrena, 1780koa.

Atal honetan lau argitalpen alderatu ditut: 1770ekoa eta 1785ekoa ezin lorturik, erkagai hartu ditut 1763koa, 1774kotzat jotzen dena (eta nire ustez 1775ekoa izan daitekeena), 1780koa eta 1787koa. Horiez gain, ondorioetarako 1794ko dotrina laburtuko datuak ere aintzat hartu ditut, Olaetxea hil aurreko urtean argitaratu baitzen.

Bokal-eufoniei dagokienez, eta Arzadunen eta Kardaberatzen dotrinen berrargitalpenen argitan espero zitekeenez, denboran aurrerago, testua hurbilago dago Markinako idazleen sistematik. Hona hemen aipatutako berrargitalpenen datuak.⁴⁸⁶

13. taula. Olaetxearen dotrinen argitalpenen konparazioa

	Olaetxea (Gasteiz, 1763)	Olaetxea (Gasteiz, 1774~1775)	Olaetxea (Gasteiz, 1780)	Olaetxea (Tolosa, 1787)
<i>e.a</i>	4 eguneango	4 eguneango	5 eguneango	3 eguniango
	4 bear	4 bear	5 bear	3 biar
	4 Crutceae	4 Crutceae	5 Crutciaen	3 Crutciaen
	4 señalear	4 señalear	5 señalear	3 señalear
	4 bear	4 bear	5 bear	3 biar
	4 santeaen	4 santeaen	5 santiaen	3 santiaen
	4 señalear gaiti	4 señalear gaiti	5 señalear gaiti	3 señalear gaiti
	4 Aiteaen	4 Aiteaen	5 Aitiaen	3 Aitiaen
	4 semeaen	4 semeaen	2 semiaen	3 semiaen
	4 icenea	4 icenea	5 icenia	3 icenia
	5 artean	5 artean	6 artian	4 artian
	6 galdutea	5 galdutea	6 galdutia	4 galdutia
	6 bicicea	5 bicitcea	6 bicitcia	4 bicitcia
	6 santissimea gaiti	5 santissimea gaiti	6 santissima gaiti	4 santissima gaiti
	6 gurea	5 gurea	6 guria	5 guria
	6 borondatea	5 borondatea	7 borondatia	5 borondatia
	7 lurraen	5 lurraen	7 lurrian	5 lurrian
	7 eguneango	5 egunean eguneango	7 egunian eguniango	5 egunian eguniango
	7 betea	6 betea	7 betia	5 betia
	7 bedeñcatea	6 bedeñcatea	7 bedeñcatia	5 bedencatia
	7 artean	6 artean	7 artian	5 artian
	8 criadoreagan	6 criadoreagan	7 criadoriagan	6 criadoriagan

⁴⁸⁶ Honako atal hauek erabili ditut lagin gisa: “Eguneango cristinauaen exercicio”, “Paternosterra”, “Ave Maria”, “Creadoa”, “Salvea”, Jangoicoaen legueco mandamentuac” eta “Elexa santaco mandamentuac”.

5. Datuen irakurketa eta eztabaidarako gaiak

	8 virginea ganic 8 poderaen 8 bean 8 egunean 8 catoliquea 8 comuniñoa 8 parcaciñoa 9 Salvea 9 bicitcea 9 dulzurea 9 gueurea 9 ea 9 - 9 gueurea 9 <i>clementissima</i> 9 santea 10 onreari 10 ametea 10 ganean 10 eguitea 10 santifiqueta 10 onrete 10 iltea 10 eguitea 10 ostutea 10 ezartea 10 esatea 11 deseetea 11 deseetea 11 enzutea 11 urtean 11 confesetea 12 comulguetea 12 santeac 12 davenean 12 eguitea 12 paguetea 12 aitea 12 semea 13 criadorea 13 salbadorea 13 glorificadorea 13 Umanidadeari 13 virginea ganic 13 semea 13 artean 13 jaiatcean 13 eriotcea 13 pasiñoa 13 salbetearren 14 egunean 14 penea	6 virginea ganic 6 poderaen 6 bean 6 egunean 6 catoliquea 8 comuniñoa 8 parcaciñoa 7 Salvea 7 bicitcea 7 dulzurea 7 gueurea 7 ea 7 - 7 gueurea 7 <i>clementissima</i> 7 santea 7 onreari 7 ametea 7 ganean 8 eguitea 8 santifiqueta 8 onrete 8 iltea 8 eguitea 8 ostutea 8 ezartea 8 esatea 8 deseetea 8 deseetea 8 enzutea 8 urtean 8 confesetea 9 comulguetea 9 santeac 9 davenean 9 eguitea 9 paguetea 9 aitea 9 semea 9 criadorea 9 salbadorea 9 glorificadorea 9 Humanidadeari 9 virgineaganic 9 semea 9 artean 9 jaiatcean 9 eriotcea 9 pasiñoa 10 salbetearren 10 egunean 10 penea	8 virginia ganic 8 poderaen 8 beian 8 egunian 8 catoliquia 8 comuniñoia 8 parcaciñoia 8 Salvea 8 bicitcia 8 dulzuria 8 gueuria 8 ea 8 - 8 gueuria 8 <i>clementissima</i> 9 santia 9 onriari 9 ametia 9 ganian 9 eguitia 9 santifiquetia 9 onretia 9 iltia 9 eguitia 9 ostutia 9 ezartia 9 esatia 9 desietia 9 desietia 10 enzutia 10 urtean 10 confesetia 10 comulguetia 10 santiac 10 davenian 10 eguitia 10 paguetia 11 aitia 11 semia 11 criadoria 11 salvadoria 11 glorificadorea 11 Umanidadiari 11 virginiaganic 11 semia 11 artian 11 jaiatcean 11 eriotcia 11 pasiñoia 11 salbetearren 12 egunian 12 penia	6 virginia ganic 6 poderaen 6 beian 6 egunian 6 catoliquia 6 comuniñoia 6 parcaciñoia 6 Salvia 6 bicitcia 6 dulzuria 6 guria 7 ea 7 <i>andria</i> 7 gueuria 7 - 7 santia 7 onriari 7 ametia 7 ganian 7 eguitia 7 santifiquetia 7 onretia 7 iltia 7 eguitia 8 ostutia 8 ezartia 8 esatia 8 desietia 8 gura izatia 8 enzutia 8 urtian 8 confesetia 8 comulguetia 8 santiac 8 davenian 8 eguitia 8 paguetia 9 aitia 9 semia 9 criadoria 9 salvadoria 9 glorificadorea 9 Umanidadiari 10 virginiaganic 10 semia 10 artian 10 jaiatcian 10 eriotcia 10 pasiñoia 10 salbetearren 10 egunian 10 penia
<i>e.e</i>	6 leenago 11 besteen 11 leenago	5 leenago 8 besteen 8 leenago	6 leenago 9 besteen 10 leenago	4 leenago 8 besteen 8 leenago
<i>i.V</i>	4 Maria 4 biotza 4 arerioetatic 4 biotcetara 5 guztia 5 biotz 5 Graciac 5 andia 5 criadu 5 <i>beneficio</i> 5 guztziac gaiti	4 Maria 4 biotza 4 arerioetatic 4 biocetara 5 guztia 4 biotz 4 Graciac 4 andia 4 criadu 5 <i>beneficio</i> 5 guztziac gaiti	5 Maria 5 biotza 5 arerioetatic 5 biotcetara 5 guztia 5 biotz 6 Graciac 6 andia 6 criadu 6 - 6 guztziac gaiti	3 Marija 3 biotza 3 arerioetatic 3 biotcetara 3 guztija 4 bijotz 4 Gracijac 4 andija 4 crijadu 4 - 4 guztijac gaiti

	6 guztiac 6 guztietaric 6 gracia 6 guztiac 6 guztiac gaiti 7 oguia 7 baia 7 Maria 7 Maria 7 graciaz 7 guztien 7 Maria 7 becatarioc gaiti 7 eriotzaco 8 criadoreagan 8 graciaz 8 jaio 8 Maria 8 Poncio 8 biciac 8 araguaiaen 9 misericordiaen 9 deiez 9 biortu 9 misericordiazco 9 Maria 10 pertenevietan 10 guztien 10 jaiegunac 10 testimonio 11 guztien 11 jaiegunetan 11 eriotzaco 12 primiciac 12 <i>pertenevietan</i> 12 eguiazcoaen 13 criadorea 13 graciaz 13 jaio 13 Maria 13 jaio 13 jaiatcean 13 jaio 13 becatarioc 14 biciac 14 gloria	5 guztiac 5 guztietaric 5 gracia 5 guztiac 5 guztiac gaiti 5 oguia 6 baia 6 Maria 6 Maria 6 graciaz 6 guztien 6 Maria 6 becatarioc gaiti 6 eriotzaco 6 criadoreagan 6 graciaz 6 jaio 6 Maria 6 Poncio 6 biciac 7 araguaiaen 7 misericordiaen 7 deiez 7 biortu 7 misericordiazco 7 Maria 7 pertenevietan 7 guztien 8 jaiegunac 8 testimonio 8 guztien 8 jaiegunetan 8 eriotzaco 9 primiciac 9 - 9 eguiazcoaen 9 criadorea 9 graciaz 9 jaio 9 Maria 9 jaio 9 jaiatcean 9 jaio 10 becatarioc 10 biciac 10 gloria	6 guztiac 6 guztietaric 6 gracia 6 guztiac 6 guztiac gaiti 7 oguia 7 baia 7 Maria 7 Maria 7 graciaz 7 guztien 7 Maria 7 becatarioc gaiti 7 eriotzaco 7 criadoreagan 7 graciaz 7 jaio 7 Maria 8 Poncio 8 biciac 8 araguaiaen 8 misericordiaen 8 deiez 8 biortu 8 misericordiazco 8 Maria 9 pertenevietan 9 guztien 9 jaiegunac 9 testimonio 10 guztien 10 jaiegunetan 10 eriotzaco 10 primiciac 11 - 11 eguiazcoaen 11 criadorea 11 graciaz 11 jaio 11 Maria 11 jaio 11 jaiatcean 11 jaio 11 becatarioc 12 biciac 12 gloria	4 guztijac 4 guztietaric 4 graciaj 4 guztijac 4 guztijac gaiti 5 oguija 5 baia 5 Maria 5 Marija 5 graciajaz 5 guztijen 5 Marija 5 becatarijoc gaiti 5 eriotzaco 6 criadoriagan 6 graciajaz 6 jaijo 6 Marija 6 Poncio 6 bicijac 6 araguijaen 6 misericordijaen 6 deiez 7 biurtu 7 misericordijazco 7 Marija 7 pertenevietan 7 guztijen 7 jai egunac 8 testimonio 8 guztijen 8 jai egunetan 8 eriotzaco 8 primicijac 9 - 9 eguiazcuaen 9 crijadoria 9 graciajaz 10 jaio 10 Marija 10 jaijo 10 jaiatcian 10 jaio 10 becatarijoc 10 bicijac 10 glorija
<i>o.V</i>	4 exercicioa 4 Jangoicoa 4 Jangoicoa 5 Cristoen 5 preciosoaagaz 5 <i>accinoe</i> 6 pasinoeco 6 <i>accinoe</i> 7 tentacinoean 7 Jangoicoaen 8 Credo 8 poderosoen 8 comuniñoa 8 paracacinoea 8 erresurrecinoea 8 beticoa 9 gozoa 9 Jangoicoaen 9 Cristoen 10 Jangoicoaen	4 exercicioa 4 Jangoicoa 4 Jangoicoa 5 Cristoen 5 preciosoaagaz 5 <i>accinoe</i> 5 pasinoeco 5 <i>accinoe</i> 6 tentacinoean 6 Jangoicoaen 6 Credo 6 poderosoen 7 comuniñoa 8 paracacinoea 7 erresurrecinoea 8 beticoa 7 gozoa 7 Jangoicoaen 7 Cristoen 7 Jangoicoaen	5 exercicioa 5 Jangoicoa 5 Jangoicoa 6 Cristoen 6 preciosoaagaz 6 - 6 pasinoeco 6 - 7 tentacinoian 7 Jangoicoaen 7 Credo 8 poderosoen 8 comuniñoa 8 paracacinoea 8 erresurrecinoea 8 beticoa 9 gozoa 9 Jangoicoaen 9 Cristoen 9 Jangoicoaen	3 exerciciva 3 Jangoicua 3 Jangoicua 4 Cristoen 4 preciosoaagaz 6 - 4 pasinoeco 6 - 5 tentacinoian 5 Jangoicuaen 6 Credo 6 poderosuen 6 comuniñoa 6 paracacinoea 6 erresurrecinoea 6 beticua 7 gozua 7 Jangoicua 7 Cristoen 7 Jangoicuaen

5. Datuen irakurketa eta eztabaidarako gaiak

	10 Jangoicoaen 10 proximoaen 10 Lelengoa 10 Jangoicoa 10 banoan 11 proximoen 11 Jangoicoa 11 proximoa 11 Lelengoa 11 erresurreciñoetan 12 eguiazcoaen 12 - 13 pasñoia 14 dagoala 14 poderosoan	7 Jangoicoaen 7 proximoaen 7 Lelengoa 7 Jangoicoa 8 banoan 8 proximoen 8 Jangoicoa 8 proximoa 8 Lelengoa 9 erresurreciñoetan 9 eguiazcoaen 9 <i>Lelengoa</i> 9 pasñoia 10 dagoala 10 poderosoan	9 Jangoicoaen 9 proximoaen 9 Lelengoa 9 Jangoicoa 9 banoan 9 proximoen 10 Jangoicoa 10 proximoa 10 Lelengoa 10 erresurreciñoetan 11 eguiazcoaen 11 <i>Lelengoa</i> 11 pasñoia 12 dagoala 12 poderosoan	7 Jangoicuaen 7 proximoaen 7 Lenengua 7 Jangoicua 7 banuan 8 proximuena 8 Jangoicua 8 proximua 8 Lelengua 8 erresurreciñoetan 9 eguiazcuaen 9 <i>Lelengua</i> 9 pasñoia 10 daguala 10 poderosuaen
<i>u.V</i>	4 cristinauaen 4 cristinauac 4 bedeñcatua 4 santuaen 5 sua 5 santuetaric 6 merecimentuacaz 6 ceruetan 6 erreñua 7 ceruan 7 bedencatua 7 frutua 7 orduan 8 ceruaen 8 <i>espirituaen</i> 8 euan 8 crucificadua 8 enterradua 8 infernubetara 8 ceruetara 8 <i>espirituaen</i> 8 santuen 8 pecatuen 9 desterraduoc 9 <i>desterruau</i> 9 bedeñcatua 10 mandamentuac 10 probechuari 10 santuagaz 11 buruac 11 mandamentuac 12 articuluac 12 santuari 13 santua 13 Lelengoa 13 santuaen 14 infernubetara 14 santuaen 14 santuen 14 ceruetara 14 mandamentuac 14 cituelaco 14 ezcituezalaco	4 cristinaubaen 4 cristinaubac 4 bedeñcatuba 4 santubaen 4 suba 5 santubetaric 5 merecimentubacaz 5 cerubetan 5 erreñuba 5 ceruban 6 bedeñcatuba 6 frutuba 6 orduban 6 cerubaen 6 <i>santubaen</i> 6 euan 6 crucificaduba 6 enterraduba 6 infernubetara 6 cerubetara 6 <i>santubagan</i> 6 santuben 7 pecatuben 7 desterraduboc 7 <i>desterrubau</i> 7 bedeñcatuba 7 mandamentubac 7 probechubari 8 santubagaz 8 burubac 8 mandamentubac 9 articulubac 9 santubari 9 santuba 9 Lelengoa 9 santubaen 10 infernubetara 10 santubaen 10 santuben 10 cerubetara 10 mandamentubac 10 citubelaco 10 ezcitubezalaco	5 cristinaubaen 5 christinaubac 5 bedeñcatuba 5 santubaen 5 suba 6 santubetaric 6 merecimentubacaz 6 cerubetan 7 erreñuba 7 ceruban 7 bedeñcatuba 7 frutuba 7 orduban 7 cerubaen 7 santubaen 8 euan 8 crucificaduba 8 enterraduba 8 infernubetara 8 cerubetara 8 <i>santubagan</i> 8 santuben 8 pecatuben 8 desterraduboc 8 <i>desterru au</i> 8 bedeñcatuba 9 mandamentubac 9 provechubari 9 santubagaz 10 burubac 10 mandamentubac 10 articulubac 11 santubari 11 santuba 11 Lelengoa 11 santubaen 11 infernubetara 11 santubaen 11 santuben 12 cerubetara 12 mandamentubac 12 citubelaco 12 ezcitubezalaco	3 cristinaubaen 3 christinaubac 3 bedeñcatuba 3 santubaen 3 suba 4 santubetaric 4 merecimentubacaz 5 cerubetan 5 erreñuba 5 ceruban 5 bedeñcatuba 5 frutuba 5 orduban 6 Cerubaen 6 santubaen 6 euan 6 crucificaduba 6 enterraduba 6 infernubetara 6 cerubetara 6 <i>santubagan</i> 6 santuben 6 pecatuben 7 desterraduboc 7 <i>desterru au</i> 7 bedeñcatuba 7 mandamentubac 7 probechubari 7 santubagaz 8 burubac 8 mandamentubac 9 articulubac 9 santubari 9 santuba 9 Lelengua 9 santubaen 10 infernubetara 10 santubaen 10 santuben 10 cerubetara 10 mandamentubac 10 citubelaco 10 ez citubelaco

Aurreko datuek bi garai islatzen dituzte hizkera-ereduari dagokionez: 1763tik 1780ra bitartekoa, eta 1780az geroztikoa. Alegia, 1763ko lehenengo edizioak eta 1774ko berrargitalpenak Kardaberatzen eta Arzadunen eredu gordetzailarekin egiten

dute bat lau eufonietatik hirutan: 1774ko dotrinak *-ubV* du sistematikoki, 1763koak eta Kardaberatzen *ca.* 1762koak ez bezala. Eufonien esparruan 1763ko eta 1774ko edizioak bereizten dituen ezaugarri bakarra epentesi horren erabilera da, beraz.

1780ko edizioan aurrekoen eta ondokoaren arteko trantsizioa ikusten da; alde batetik, *e* → *i* bilakabidea erabat nagusi agertzen da, baina salbuespen gutxi batzuk aurki daitezke (cf. 5 *eguneango*, 5 *bear*, 8 *Salvea*, 10 *urtean*); halaber, 1774koarekin bat, *-ubV* epentesia sistematikoa da 1780koan. Aitzitik, ez dut *o* → *u* eta *-ijV* aldaketan adibiderik aurkitu; beraz, bi horiek sor zitezkeen hiatoetan eredu zaharra agertzen da.

1787ko edizioaren prestatzaileak Markinako eskolako idazleen sistema islatu zuen eufoniei dagokionez, nahiz eta kasu batzuetan salbuespenak agertu: *e* → *i* sistematikoki agertzen da, *o* → *u* ia sistematikoa da (cf. 6 *Credoa*, 7 *proximoaen*), eta epentesi biak agertzen dira; *-ubV* sistematikoa da, eta *-ijV* oso zabal agertzen da, nahiz eta zenbait kasutan aldaera epentesidunak eta epentesirik gabeak agertzen diren: cf. 3 *biotza* baina 3 *bijotcetara*, 6 *criadoriagan* baina 9 *crijadoria*, 10 *jaiio* baina 10 *jaijo*, 5 *Maria* baina 3 & 5 & 6 & 10 *Marija* eta abar.

1794ko dotrina ez dut erkaketa-gaien artean sartu, ez delako aurreko dotrinen berrargitalpena, ezpada kristau-dotrinen laburpen bat. Hizkera-eredua, nolahi ere den, eta aurrekoen arabera espero zitekeenez, berritzailea da. Azaleko bertako berbak dira *dotrinia*, *erretoriac*, *zanian*, *biar*, *etsian*, *urtian*; *Cristinauben*, *mutilchubac* eta *daijen*.

5.3.2.3.2. Ikuspegi orokorra eufoniez

Arzadunen, Kardaberatzen eta Olaetxearen dotrinen lehenengo eta hurrengo argitalpenen erkaketa sistematikoa langai interesgarria bezain beharrezkoa da Lehen Euskara Modernoaren eta literatur bizkaieraren ur sakonak ezagutzeko. Aurreko azpi-ataletan egindako erkaketa-lanek aspaldiriko ideia hori berresten dute, eta bokal-eufonien kronologiari zein idazle eta garai bakoitzari buruzko datu esanguratsuak azalarazi dute.

Bizkai aldeko euskarari dagokionez, Lehen Euskara Modernoan bi aro bereizten dira 1800. urtea baino lehen, banaketak ezartzeko irizpide legez eufonien bilakabidea hartuta.⁴⁸⁷ Garai linguistiko horren hasiera-data 1730era aurreratu daitekeela onartuta,

⁴⁸⁷ Eufonietara mugatzen ditut hemengo laburpen-oharrak, horiek aztertu baititut; nolahi ere den, edizioz edizio erkaketa sistematikoa falta den arren hainbat ikertzailek zuzenean zein zeharka aipatu eta erakutsi dutenez eta dotrinak irakurrita atzematen denez, eredu-aldaketa eufoniez haragokoa da: bestelako ezaugarri grafiko eta fonikoez gain, morfologia, sintaxia eta lexikoa ere ukitzen du.

1730etik 1780ra bitartekoa izango litzateke lehenengoa, eta 1780tik aurrerakoa bigarrena.

Lehenengo aroa gorpuzten dute Arzadunen eta Urkizuren testuek, eta Kardaberatz eta Olaetxearen dotrinen lehenengo edizioek. Eufoniei dagokienez gordetzailetasuna dute ezaugarri, eta, are zehatzago, gordetzailetasun kontzientea edo bilatua, ziur asko Bizkaiko euskaran eskueran zituzten testu nagusiek (Kapanaga aipatu dut behin baino gehiagotan, baina Zubiaren dotrina ere aintzat hartu beharko litzateke) eredu hori islatzen zutelako eta jasoagotzat jotzen zutelako;⁴⁸⁸ gogoratu, azken horri dagokionez, Urkizuren jokamoldea 1737ko liburuko kopleto hizkerarekin, eta 1740ko kopletoan *i.a* ahoskatzen bide zena idatziz *e.a* eman izana. Eredu gordetzaileak indarrean iraun zuela erakusten dute bitarteko argitalpenek ere: Urkizuren 1740ko kopleto eta Arzadunen dotrinaren 1758ko argitalpena gogoratu behar dira, bai eta Olaetxearen dotrinaren bigarren argitalpena ere, 1774~1775 aldekkoa, nahiz eta horretan, aurrekoetan ez bezala, *-ubV* egon badagoen.


Bigarren aroa 1780az geroztikoa da, eta “Markinako eskola”-ko idazleekin du lotura. Data erlatiboa da, jakina, arazorik gabe onar baitaiteke Olaetxearen 1774~1775eko berrargitalpenean *-ubV* agertzea eredu linguistikoaren aldaketa-zantzua dela; baina, 1780 ondoko edizioetan ugaritu egiten dira “markinar eufoniak”: aldaketa hori islatzen du Olaetxearen dotrinaren 1780ko hirugarren berrargitalpenak, eta paradigmatikoa da dirudienez Mogelek prestatutako Kardaberatzen dotrinaren 1783ko argitalpena, non Mogelek berak urte gutxiren buruan bere lan nagusietan sistematikoki emango zituen ezaugarrietako batzuk sistematikoki agertzen baitira. Eredu berritzailearekin bat egiten dute, halaber, Olaetxearen dotrinaren 1787ko argitalpenak eta 1794ko dotrina laburtuak.

Lehen Euskara Modernoaren barneko azpi-periodizazio horrek bat egiten du Urgellek Hego Euskal Herriko lekukotasunak kronologikoki hiru azpi-garaitan sailkatzeko erabilitako aroekin: “Aurkezpena erraztearren, Hegoaldeko lekukotasunak hiru azpigaraitan banatu dira, *Hastapenak* (1745-1783), *Finkatzea* (1783-1840) eta *Erpina* (1840tik aurrera)” (Urgell 2018: 583). Nik proposatutako aldaketa bakarra da *Hastapenak* aroa 1730era aurreratzea: *Hastapen*-etatik *Finkatze*-rako trantsizioaz aritzean Kardaberatzen dotrinaren 1783ko berrargitalpena zuen gogoan Urgellek (*idem*,

⁴⁸⁸ Gogoratzekoa da, dena den, XVII. mendea ez dela XVIII.a eufoniei dagokienez; hots, eskueran dauden datuen arabera, errazena da pentsatzea Kapanaga batek *e.a*, *e.e*, *i.a*, *o.a* eta *u.a* hiatoak horrela eman zituela bere hizkeran (eta Bizkaiko gainerakoetan) ere hala zirelako, ez bi ereduren (gordetzaile bat eta berritzaile bat) artean hautatu zuelako.

585), bi hamarkadaren buruan literatur bizkaieraren eredu nagusiak tinkotuko eta finkatuko zituzten idazleen lehenengo lan eta zirriborroekin loturik.

Hona hemen aztertutako XVIII. mendeko dotrinen arteko loturak eta eredu-aldaketak islatzen dituen eskema:



36. irudia. Arzadunen dotrinatik (1731) Olaetxearen dotrina laburtura (1794)

Hala aurreko ataletan nola azken honetan emandako datuek erakusten dutenez, “eufonia” izendapenaren pean sartu ohi diren berrikuntza guztien kronologia eta hedadura ez da bera, eta badirudi hizkera literarioaren ikuspegitik ere idazleek ez zituztela guztiak berdin hautematen.

Alde batetik, Olaetxearen dotrinen berrargitalpenen erkaketak erakusten du $e \rightarrow i$ bokal-igotzea lehenago agertzen dela $o \rightarrow u$ igotzea baino: lehenengoa arrunt da bigarren edizioan, baina ez dago bigarrenaren alerik hirugarren ediziora arte. Egoera edo hautu horren orokortasuna ziurtasunez erabaki ahal izatea bestelako auzia da, ordea: egoera bera aurkitu dut De la Quadraren testuetan, baina izan liteke Bermeo aldeko euskaran $o.a$ hiaoa mantentzea XVIII. mendearen amaieran, Bermeoko euskaran gerora ez bezala.

Beste alde batetik, Ulibarrirekin bat, “lekukotasunek erakusten digute *-uba* bederen bizkaieraren bereizgarritzat jo izan zela Bizkaitik kanpo: Larramendik eta Kardaberazek bizkaitarren hizkeraz hitz egiterakoan behintzat horrela jokatu zuen” zioen Ulibarririk (2015: 256). Horrekin bat egiten dute Bizkaiko testuek: bi epentesi antihiatikoen artean badirudi errazago eman zitzaiola sarbidea *-ubV-ri*, *-ijV-ri* baino. Atzera ere erkatutako dotrinetara joaz, gogoratzekoa da Arzadunen 1841era bitarteko berrargitalpenetan ez dagoela *-ijV-rik*, eta Olaetxearen lehenengo lau argitalpenen artean laugarrenak (1787) besterik ez duela *-ijV*, nahiz eta *-ubV* bigarren ediziotik sistematikoki agertu. Mendebaleko beste testu batzuetan ere hala gertatzen da: Urkizuren 1737ko liburuan *-ubV* agertzen da baita prosazko pasarteetan ere, eta Peñafloidaren lanetan ere *-ubV* arruntagoa da *-ijV* baino, adibidez.

5.3.2.4. Oharra bokal bikoitzez

5.3.2.4.1. Bokal bikoitzen iraupenaz (begiratu §5.1.5.1.4 atala) ari zela, Euskara Zaharreko adibideekin batera astarloatarrak, Mogel eta Frai Bartolome aipatu zituen Mitxelenak (FHV 91), eta horien argitan bokal bikoitzek besteak beste Markina aldean luzaroago iraun zutela proposatu zuen. Aitzitik, kasu honetan ere ez dago guztiz argi esaterik idazle horien testuetan agertzen diren bokal bikoitzak neurri batean behintzat tokiko hizkeraren isla diren ala idazleen hautuen zordun diren.

Alde batetik, uste dut zenbait kasutan errazagoa dela proposatzea idatziz emandako formek oinarri fonetikoa dutela; alegia, Oñatin are beranduagora arte legez, adibidez, Markina aldeko XIX. mendearen hasierako tokiko euskara dialektalak bokal bikoitzak zituela. Nire ustez, horrela errazago azaltzen dira *edaan*, *jaan* edo *zoor* bezalako aldaerak (non etimologiarekin lotuta baitaude bokal bikoitzak), bai eta hainbat

testu zahar eta arkaikok dakartzaten *-aak* absolutibo plurala eta *-aan* inesibo singularra ere.⁴⁸⁹

Beste alde batetik, ez da ahaztekoa garai hartako idazle ikasienak direla arestian aipatutakoak, hizkuntza-osagaien zein etimologiagintzaren beraren inguruko hausnarketa egina zutela eta forma osoagoak horren arabera moldatuak zituztela hizkuntza idatzirako zenbait irizpide.⁴⁹⁰ Horri loturik, bokal bikoitzak neurri batean analogikoki hedatu izana ez da baztertzekoa, Altzibarrekin bat: “Mogelen bokal biltze honek, hitz gehienetan, Markinan garai hartan –edo, batzutan, aitzinago– ahoskatu bezala jaso nahia adierazten du, analogiaren eragina ere kontuan hartu behar dugularik” (1992: 419). Frai Bartolomeren pasartetxo hau ere argigarria da:

Iracurlaac icusico davee Icasiquizun oneetan, verba batzuc dagozala bitutaco letriagaz: *aa, ee, ij, arimaan, dautseen, jadiichi...* Beste batzuketan verbac eurac, ta euretaricuac letra bacarragaz: *poltsan, dave, eguija...* Euscal erri guztietaraco zetara oba dan jaquin ezac, bijetara imini eraguin ditu. Esan legui: verbiaren luce laburra, ascotasuna, ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala letra bitubagaz. Menturaz ascoc erichico deutsa astun baina verbeeta guztien gacha da au. Urrenguan entzungo da jaquitunen erichija. (Madariaga 1816: 278)

Aukera batek ez du bestea kentzen, beraz: zenbait kasuren argitan zentzuzkoena da pentsatzea Markinako euskarak bazituela bokal bituak XIX. mendearen hasieran, gerora kokagune jakin batzuetan ere izan dituen legetxez; aitzitik, literatur hizkuntzari datxekion eztabaida-gaia gehiago da bokal bitu horiek idatziz adieraztea ala ez adieraztea, eta sistematiko ez zen ezaugarria hedatu edo/eta sistematizatu izana:

Juan Antonio Mogel bera izan zen, Añibarro ez bezala, bokal bituak erregularitasun batez bizkaiera literarioan erabiltzea hautatu eta bultzatu zuena XVIII. mende bukaeran edo XIX.aren hasieran, beroriei buruzko aipamenik egin ez arren. Hautapen hau bere idazkera finkatuaz joan ahala egiten du. Lehen sermoietan (*ca.* 1772-1778) bokal biturik ere ez dago, ezta 1783ko dotrinan. (Altzibar 1992: 418)

Are gehiago, Juan Antonio Mogelen testuetan baino ugariago agertzen dira bokal bikoitzak haren ondoko Frai Bartolomeren eta Juan Jose Mogelen idatzietan (Altzibar 1992: 420), eta Añibarroren *Escu-liburua*-ren bigarren edizioan ugarituta eta hedatuta agertzen dira (cf. Urgell 1985: 100-101).

5.3.2.4.2. Lehenengo Euskara Modernoko bokal bikoitzen islapenaz aritzean, nire ustez “Markinako eskola”-ko idazleen hautuen eragina hartu behar da kontuan. Hala proposatu nuen orain zenbait urte (Zuloaga 2010: §2.1.2) Bizente Sarriaren sermoiak aztertzean; izan ere, harrigarri begitandu zitzaidan (eta zait) inguru bertsuko

⁴⁸⁹ Horren alde egiten dute, gainera, Azkueren XX. mende hasierako lekukotasunek (Azkue 1926: 18-19 eta 24).

⁴⁹⁰ Cf.: “Badirudi, bada, Fr. Bartolomeren zat bokalen luzapenak hitzaren osotasun eta ulerkortasunarekin duela zerikusia, bizkai-euskararen berezitasuna izanik” (Altzibar 1992: 420).

testuekin alderatuta halako zenbat agertzen diren Etxebarrikoaren testuetan. <aa> eta <ee> bakarrik hartuta eta Juan Ignazio Astigarraga basauriar mugakidearen sermoietako egoerarekin alderatuta, datuok atera nituen ordukoan:

Datuek arreta ematen dute, hain da handia eremu bereko eta garai bertsuko idazleen arteko aldea. Egoera argitze aldera, Sarriaren bokal bikoitzak grafiko hutsak direla pentsatzea iruditzen zait errazena, bai eta Sarriak beste idazle batzuen (“Markinako eskola”-koen, nire ustez) eraginpean erabili zituela ere. Izan ere, Sarriaren sermoietan ezaugarri nabarmen markatua da bokal bikoitzen erabilera, eta beste maila batzuetan ere atzeman daitekeen eraginarekin bat (§5.3.3.2.3.2), errazagoa iruditzen zait pentsatzea ezaugarri honetan garaiko “joera markinarrek” markatu izana.

Aurreko ikuspegia ezin aplika daiteke sistematikoki jaurerri osoko testuetan: Nerbioi ibarrekoetan errazagoa da aplikatzea, garai bertsuko (eta are aurreko eta ondoko) testuak baitaude, eta errazagoa baita erabilera edo joera orokorra nork (Sarriak, kasu honetan) hausten duen ikustea.

Arazotsuagoak dira, ordea, De la Quadra bezalako idazleak eta, inguru bertsutik ez irtetearren, *Errosariyo santuba*-koak: Bilbao edizilogileak (1997: 258) hiperzuzenketatzat jo zituen lehenengoko <aa> eta <oo> bokal bikoitzak, baina zenbait kasutan Bermeo aldean gordetako aldaera arkaikoak izatea ez nuke baztertuko. Ulibarrik, bestalde, hirugarren aukera bat proposatzen du testuko ustezko hiperzuzenketak azaltzeko: “De la Quadra bilbotarra izanik, bermeotarrek eskaturik bertoko hizkeran idazten bide zuenez, kasu honetan hiperzuzenketak Bermeoko hizkerarekin zituen zailtasunak adieraz ditzakete, eta ez besterik” (Ulibarri 2015: 261, 273. oin-oharra). Era horretako erabilera eta hautuak giroaren (oro har) ala markinar idazleen (zehatzago) zordun diren erabakitzerik ez dut, Nerbioi ibarrean ez bezala, ez baitago leku bereko eta garai diferenteetako testurik erkaketa-lanerako.

5.3.3. Ikuspegi orokorra XVIII. mendeaz: literatur bizkaieraren aitzindarietz

5.3.3.1. Atarikoak

5.3.3.1.1. XVIII. mendea mende konplexua da euskararen historiari eta, batez ere, Hego Euskal Herriari dagokionez: gizaldi horren lehenengo erdian gertatu zen Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernora bitarteko trantsizioa, Larramendik euskararen gramatizazioa lortu zuen euskararen apologiaren, gramatikaren eta hiztegiaren bidez, *literatur gipuzkera* deitu izan denaren oinarriak ezarri ziren eta literatur bizkaieraren

aurrekaritzat jo daitezkeen zenbait joera eta lan agertu ziren. Ikuspuntu estralinguistikotik hizkuntzaren historian eragina izan zuten gorabehera politikoen gorpulean hartutako erabakiek, hala nola josulagunak kaleratzeak (1767) eta euskaraz libururik ateratzea debekatzeak (1766). Halaber, baitezpadakoa da aintzat hartzea mendean aurrera egin ahala bai erlijio-ideiak zabaltzeko, bai aurreko egoerek eragindako arazoetarako saihebidetarako aurkitzeko sermoigintzak izandako gorakada.

Azken atal nagusi honetan ez naiz XVIII. mende osoaz arituko: nagusiki Lehen Euskara Modernoaz ariko naiz; hots, ~1730az geroztiko idazle eta lanez, eta horien arteko lotura eta ustezko eraginez.

5.3.3.1.2. Urgellek (2018: 583) hiru aro ezberdintzen ditu Hego Euskal Herriko Lehenengo Euskara Modernoko lekukotasunen artean: *Hastapenak* (1745-1783), *Finkatzea* (1783-1840) eta *Erpina* (1840tik aurrera). Tesi honetako corpusaren denboramugak aintzat hartuta, atal honetan *Hastapenak* eta *Finkatzea* deitutako azpi-garaiak izango ditut hizpide, arreta Bizkaiko testuetan jarritz. Kronologia dela-eta, lehenengoaren hasiera-data 1730era aurreratzeko proposamena egin(go) dut, eta bigarrenaren azterketa 1800. urtean etengo dut, literatur bizkaiera hezur-mamitzen duten lan kanonikoak agertu aurretxoan (horien berri izateko, begiratu Altzibar 1992, Urgell 1985, 1987a, 2001b eta 2018).

5.3.3.2. Lehen Euskara Modernoaren hastapenez

Garai linguistikoen arteko mugarrak erlatiboak besterik ezin daitezke izan, oro har, garaiak ezaugarritzeko ezaugarri linguistikokoak erabiltzen direnean behintzat. Lehen Euskara Modernoari dagokionez, “funtsean literatur hizkuntzaren bilakabideari” lotu zitzaion Lakarra (1997a: 517), Hego Euskal Herriko testuetako lexiko zainduagoari, eratorpenaren ugalketari (cf. Sarasola 1997), hizkuntza-maila jasoagoari eta sintaxi-aldi zabalagoi.

Lakarrak 1745. urtea hautatu izana ez da ausazko erabakia: *Hiztegi hirukoitza* kaleratu zen urte hartan burutu zuen Larramendik bere egitasmo nagusia, euskararen gramatizazioa ekarri zuena: “hau da, lehenengoz argitaratzea lortu baitzen hizkuntza deskribatzeko, irakasteko eta lantzeko oinarrizko lanabes biak (gramatika eta hiztegia), bai eta horrelakorik merezitzeko argudioak ere (apologia)” Urgell (2018: 549). Halaber, orduz geroztikoa da, nagusiki, Larramendik beste euskal idazle batzuegan teorikoki zein praktikoki izandako eragina.

Urgellek berak zioenez, Lehen Euskara Modernoaren hasiera “ zertxobait aurrera liteke haren lehen lanak –apologia (1728) eta gramatika (1729)– irten ziren urteetara” (*idem*), eta nik hala egingo dut hemen, Bizkaiko bi idazleren lanak, Arzadunenak eta Urkizurenak, Euskara Zaharretik Lehen Euskara Modernoaren hasierakotzat joaz.

5.3.3.2.1. Hastapenez: Arzadun eta Urkizu

5.3.3.2.1.1. Oro har, *literatur bizkaiera* aipatzen denean XIX. mende hasierako idazleak erabiltzen dira gogoan, eta “printzipioz, eta oro har, ez dirudi gure artean hedatutako sistema kanonikoak dioena zalantzan jartzeko arrazoirik dagoenik” (Salaberri Muñoa 2004: 90). Zehazki, Añibarroren eta Mogelen testuak, eta hizkerareduak jotzen dira eredu kanonikotzat: “Añibarro y Moguel, como iniciadores y padres del vizcaíno literario, aunque grandes amigos entre sí, disentían sobre el modo concreto y forma de escribir en este dialecto” zioen Villasantek (1979 [1961]: 207), eta zehaztaperen gehiago eman zituen Urgellek *literatur bizkaiera* zer izan zen argitzeko:

Euskalki honek ez du erdiesten XIX. mendearen hasiera arte dagoeneko lapurterak «Sarako eskola»ren bitartez XVII. mendean eta gipuzkerak XVIII. mendearen bigarren zatian lortua zuena, literatur euskalkitzat ezagutua izatea, alegia (...) Literatur euskalkitzat onartua izan zedin bezanbateko arrakasta bizkaierarentzat XIX. mendearen hasieran emango zen idazle taldeak eskeini zion. Talde hau, zalantzarik gabe, aurreko mendean Larramendiren lanarekin Gipuzkoan agertzen den euskararekiko arduraren Bizkaiko oihartzuna dugu, Mogel eta Añibarro ditugularik mugimendu honen sortzaile eta partaide garrantzitsuenak. (Urgell 1985: 58)

XIX. mendea baino lehen Bizkaian zein Euskal Herriko mendebal zabalean bestelako dozenaka testu ere badaudela ezagun da, baina literatur bizkaieraren bilakabideaz eta (batez ere) aurrekarietaz aritzeko bereizketa egin behar da: “literatur bizkaieraren bene-benetako aurretikoak eliza katolikoaren eskutik etorri ziren, hark markatutako premia-egitarauetatik, eta ez bizkaieraz idatzitako bestelakoetatik” (Salaberri Muñoa 2004: 90). Salaberri Muñoaren ikuspegiarekin bat etorriz, beraz, literatur bizkaieraren aurrekariak aztertzean bazter uztekoak dira erlijio-gaiez gaindiko testuak: bazter uztekoak dira *RS*, Landucci, Garibai, Mikoleta, Egiaren kanta edo Zolloko galdetegia, eta horrek nabarmen murrizten du aurrekarietaren corpusa.

Euskal Herriko mendebal zabala hartuta, Calahorrako 1602ko sinodalen aurretik argitaratu zen Betolatzaren dotrina (1596) Bilbon, eta ondoren etorri ziren VJesus eta Kapanagaren dotrina XVII. mendearen erdialdean, eta Zubiarena amaieran. Tartean zenbait (edo hainbat) liburu gal zitezkeela ahaztu gabe, ez dirudi Pedro Mansok 1602an agindutakoa bete zenik,⁴⁹¹ hain dira urriak gaur egunera arte iritsitako obrak.

⁴⁹¹ “Y porque es conuiniente que cada Prouincia tenga la doctrina Christiana impressa en lengua paterna: y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del señorío de

Bizkaiko Euskara Zaharra aztertu nahirik jaurreko testuekin corpusa osatzean berehala ikusten da Durango aldean ugariago metatzen direla, euren bakantasunean, testu inprimatuak. Erliioari lotutako lanak bakarrik aintzat hartuta,⁴⁹² aipatutako Kapanagaren eta Zubiaren dotrinak daude, bai eta Arzadunen eta Urkizuren liburuak eta koplak ere. Salaberri Muñoak zioenez, beraz, “tradizioa, hanka bakarrekoa izanik ere, sortua zegoen bizkaieraz” (2004: 91), nahiz eta inoiz “Durangoko eskola” izendatutakoak inoiz ez zuen erdietsi, ezta hurrik ere, “Markinako eskola” deitu izan denak lortutakoa.⁴⁹³

Zer dela eta, bada, ez dugu hitz egiten “Durangoko eskola”z edota zergatik ez zen Durango aldeko hizkera literatur bizkaieraren oinarritzat hartu?

Erantzuna ezin da izan bakarra, soilik haien euskara kaxkar eta landugabeak eman diezaigukena, adibidez. Horrekin batera edo horren aurretik ditugu edizio, ale kopuru edo zabalkundearena bezalakoak. Dakigunez, soilik Arzadunen dotrinak izan zuen benetazko bizitza luzea testu bezala; besteak ez ziren berriz argitaratu eta –orain arte ditugun datuetarik– badirudi gainera Durangotik hurbil zabalduko ale gutxi batzuetako tirada baino ez zutela izan. Bestalde, Ripalda edo Astetearen itzulpen labur eta hertsu batzuek, beregainki zabarkeriaz eta erdarakadaz beterik zirenean, ezin lor zezaketen beren hizkerarentzat inongo ospe ez ezagutzarik. (Urgell 1985: 73)

Ez dirudi “Durangoko eskola”-ren inguruko pertzepzioa askorik aldatu denik azken hamarkadotan (Arejitak, adibidez, “eskola apala” –2003: 111– zeritzon),⁴⁹⁴ nahiz eta ñabarduraren bat egin daitekeen zabalkunde-gaiez.

Alde batetik, Kapanagaren dotrinak bestelako arreta behar duelakoan nago: dotrinaren ale bat esku artean izan duenak badaki lan xumea dela bai tamainaz, bai asmoz; aitzitik, esanguratsua iruditzen zait, Arejitarekin (2003: §7.3) eta Salaberri Muñoarekin (2004: 91) bat, mende pasatxoren buruan Kardaberatzek (1764: 4-5) mañariarraren lana (gor)aipatzea eta eredugarritzat jotzea: aurretik aipatu legez, lana

Vizcaya, Prouincia de Guipuzcoa, y Alaba. Estatuymos y ordenamos, que los señores obispos nuestros successores, hagan imprimir cada año Cartillas de la doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, según el vso de las dichas Prouincias, para que los curas tengan Cartillas en la lengua propia de cada Prouincia, que Nos assi lo hemos comenzado a hazer en nuestro tiempo. Y los Visitadores tengan quenta de executar lo que se les encarga en el capitulo antecedente. Y las que se imprimieren en Vazquence, tengan también la Doctrina en Romance” (*apud* Urkixo 1923: 335-336).

⁴⁹² Bazter uzten ditut, beraz, Zumarragaren gutuna, Egiaren kanta, astarloatarren lanak, Abadiñoako 1804ko Gabon-kanta eta XIX. mendeko sermoiak (Aramaió & Sarrionandia 1985).

⁴⁹³ Izendapenak izendapen, Bizkaian ez zen *eskola*-rik egon, *stricto sensu*, ezta gerora ere: “Egitan ez eskola bata [Arratiakoa], ez bestea [Markinakoa], ez dira hizkera horien ordezkari leialak, ezta hurrik eman ere, bizkaiera idatzi estandarra izateko lehian ibili ziren bi eredu landu xamar baizik” (Urgell 2018: 655; begiratu, halaber, Urgell 2001b: xxvi).

⁴⁹⁴ Kapanagaren dotrinaren edizio faksimilaren aurkezpena egitean mañariarraren euskara berbaigai hartuta, berriz, goraipamen nabarmena egin zuen: “Bizkai euskarak duen hizkuntza-altxorrik ederrenetarikoa dugu Kapangaren dotrina (...) Kapanaga maisua zen idazten, eta jatorrizko gaztelaniazko Ripaldaren testuaren edukia osorik ematen badu ere, idazleari euskaraz darion estiloan isurtzen du eduki hori, entzulea ere kontuan duela” (Arejita 2008: vii).

ezagutu ez ezik, hernaniarrak erabili ere egin zuela agerikoa da.⁴⁹⁵ Halaber, Ariztimuñok kidetasun linguistiko handiagoak ikusi ditu Arzadunen eta Kapanagaren dotrinetako *Aita gure*-en artean, Kapanagaren eta Zubiaren eta Zubiaren eta Arzadunen *Aita gure*-en artean baino (cf. Ariztimuño 2015a: 25, 31 eta 35-36): badirudi hala Arzadunek nola Kardaberatzek eredu izan zutela Kapanagaren dotrina hala zenbait pasarteren iturri gisa nola hizkuntza-eredu gordetzaileago bati atxikitzeko.

Beste alde batetik, egia da hala Arzadunen nola Urkizuren lanek ez zutela, itxuraz behintzat, berebiziko arrakastarik edo eraginik izan argitaratu eta jarraian: esana dut Arzadunen dotrinaren berrargitalpen gehienak XIX. mendekoak direla eta XVIII.eko berrargitalpen bakarra egilea hil ondotik egin zela, 1758an. Urkizuren euskarazko liburua ere ez zen berrargitaratu, baina gogoan hartzekoa da gizaldiaren bigarren erdiko zenbait ediziotan Urkizuren liburu horren amaierako koplak agertzen direla berrargitalpen batean baino gehiagotan (cf. Akesolo 1982 eta Altzibar 1992: 52).⁴⁹⁶

5.3.3.2.1.2. 1730. hamarkadako Durango aldeko idazleen hizkera aztertzeo iturri bakarrak dira Arzadunen dotrina eta Urkizuren liburua eta koplak; aitzitik, leku bereko eta garai bertuko idazleak izateak badu interesik erkaketa-lanari begira. Izan ere, testuok erkatzean behin baino gehiagotan aipatutako ezberdintasunak agertzen dira:

Tesi honetan landutako fonologiaren esparruan argi dago Arzadunek hizkera-eredu zahar eta orokorragoari (supradialektalari, halaber) begira prestatu zuela bere liburua, Kapanagaren ereduari begira neurri batean behintzat. Arejitaren ustez, “Asmo handiz ondu eta inprimatutako dotrinea da berau. Ezin ukatu aurreko euskerazko dotrinen barri badaukala, eta berariaz Kapanagarena ondo ezagutzen dauela” (2018: 248).

Egindako hautu linguistikoetan zurrin jokatu nahi izan zuen Arzadunek, eta lan osoan koherentziaz jokatzeko lortu zuen: txistukarien neutralizazioaren zantzurik ere ez dago durangarraren dotrinan; nire ustez, egileak bereizketa grafikoaren alde egin zuelako. Bestalde, bokal-eufonietan kontserbatzaile jokatu zuen oro har: ez dago *-ubV*

⁴⁹⁵ Urgellekin (2005: §12) bat, zoritxarrez Larramendik ez zuen esku artean erabili zituen Hego Euskal Herriko dotrinen argibide zehatz askorik eman: Arzadunena aipatu zuen beren-beregi *Corografía*-n, eta beste batzuen arteko adibidetzat hartzen zuela adierazi, besteak zein ziren zehaztu barik: “No he visto libro ni tratado en este dialecto sinó algunos catecismos” (1881 [1754]: 266). Halaber, *Hiztegi hirukoitz*-ean “como se puede ver en algunos Cathecismos” zioen (Larramendi 1745: xxviii) Bizkaiko dialektoaz aritzean, zehaztapen gehiagorik eman gabe.

⁴⁹⁶ Hala aurkezten dira, adibidez, Olaetxearen dotrinaren 1787ko edizioan: “Ama Virginia Errosarijocuaren canta eder au iminten da emen, mutilchubac escolaric etsera datozanian, ganaduben zain soluan dagozanian, eta aen billa basuan dabilzanian cantau daijen. Uxala beste canta loi asco arima galzaigarriac onan quendu al baleitez. Alan della bada arren bai” (195).

eta $-ijV$ epentesirik, ez dago $o \rightarrow u$ bokal-igotzerik eta $e \rightarrow i$ duten adibide bakarrak genitibo-markari eta adizkietako disimilazioei lotuak dira.

Urkizuren 1737ko hautuek bermatzen dute Arzadunek gordetzaile jokatu zuela: ezaugarrien deskripzioa ematean aipatu bezala, $e \rightarrow i$ duten adibideak ugariagoak (eta arestian aipatutako testuinguruez kanpokoak) dira, $o \rightarrow u$ ere badago, epentetikotzat jo daiteke $\langle iiV \rangle$ eta $-ubV$ epentesia ere lekutzen du. Txistukarien neutralizazioari dagokionez, adibideak Arzadunen dotrinan baino ugariagoak dira Urkizurenean, Urkizuk dakartzan adibideak proportzioan oso gutxi izan arren.

Urkizuri loturik, dena den, testuen bidez ondo mugatu daitekeen intra-bariazio linguistikoak ematen du arreta. 1737ko liburua prosaz idatzita dago, baina amaieran hainbatetan aipatutako kopla-sorta dakar. Bada, kopla horietan agertzen diren zenbait eufonia ez dira prosazko pasarteetan (liburu ia osoan, beraz) agertzen: $e \rightarrow i$ eta $o \rightarrow u$ kopletan bakarrik aurkitu ditut, bai eta $\langle iiV \rangle$ ere. Zalantzarik gabe, Urkizuk kutsu herrikoiagoa eman nahi izan zien amaierako koplei, tokiko hizkeraren zenbait ezaugarri leku eginez.

Urkizuren 1740ko zortzikoek ere idazlearen hautu orokorrak islatzen dituzte: durangarrak eredu gordetzaile-orokorrera itzuli nahi izan zuen, eta $o \rightarrow u$ eta $-ijV$ baztertu egin zituen ($-ubV$ bi aurkitu ditut, eta pentsa liteke ihes egin ziotela). Are deigarriagoa eta esanguratsuagoa da, dena den, $e \rightarrow i$ -ren inguruko jokamoldea: ostendu egin nahi izan zuela islatzen dute $-ea$ & $-ia$ puntuek; hots, Durangon $i.a$ ahoskatzen zena $e.a$ zaharragoaren bidez eman nahi izan zuen Urkizuk, berriz ere eredu gordetzaile-supradialektalarekin batago.

5.3.3.2.1.3. Aurreko azpi-ataletan azaldutakoekin ez ditut okertzat jo nahi aldeztu aurretik literatur bizkaieraren ereduen sorreraz esan direnak, ezta urrundik ere. *Literatur bizkaiera* deitu izan denaren aurrekari zaharretan sakondu nahi izan dut, XVIII. mendeko zenbait idazleren hautu kontzienteak azalaraziz, eta nabarmendu hautu horiek ukitzen dituzten ezaugarri linguistikoetako batzuk izan zirela gerora literatur bizkaieraren bi eredu nagusien bereizgarri. Eufonien erabileraren arabera eredu gordetzaile eta (supra)dialektala vs. berritzaile eta (azpi)dialektala ditut gogoan, zehazki.

Kronologia-gaiez aritzean esandakoaren arabera (§5.1.7), Arzadun eta Urkizu Lehen Euskara Modernoaren hastapenetan kokatzea egokiago iruditzen zait; alegia, garai linguistikoaren hasiera 1730eko hamarkadara mugitzea bizkaitar idazleen kasuan. Zalantzarik gabe, Arzadunek eta Urkizuk ez zuten geroko beste idazle batzuek

bezainbesteko ezagutza linguistikorik: urrun zeuden Kardaberatz, Mogel edo Añibarroengandik, baina idazle garaikide gehienak zeuden urrun (bai Bizkaian, bai Bizkaitik kanpo) Kardaberatz, Mogel eta Añibarroengandik.

Neurri batean Kapanaga zaharragoari jarraitu zion Arzadunek, tartean igarotako hamarkadek ekarritako berrikuntza morfosintaktikoak berrikuntza, eta horretan bat egingo zuen hiru hamarkadaren buruan Kardaberatzek. Bestalde, durangarren lanen zabalkundea dirudenez mugatua izan arren (cf. Urgell 1985: 73, 16. oin-oharra), XVIII. mende erdialdeko idazleek izan zuten Arzadun eta Urkizu durangarren berri: Larramendik lehenengoa aipatu zuen, bigarrenaren 1737ko koplak berreskuratu ziren 1780az geroztiko zenbait liburutarako eta Kardaberatzen idazkeran Durango aldeko idazleekiko “paralelismo argiak” (batez ere Kapanagarekikoak, halere) zekuskien Arejitak (2003: 112).

Tesi honetan emandako datuen argitan, agerikoa da 1730eko hamarkadako durangar idazleek geroko literatur ereduaren bidez finkatuko ziren bi joeren arteko hautu bera egin zutela eufoniei zein txistukariaren bereizketari dagokienez. Arzadunek eta Urkizuk gordetzaile jokatzearabaki zuten, ezaugarri lokalak baztertuz eta, erabiltzekotan, testuinguru eta testu-genero jakin batera mugatuz. Hala, idazle zaharren eta predikazio-garaikoen arteko lotura edo katebegitza jo behar direlako daukat, ondokoa bezalako segida batean, aztertutako ezaugarrien arabera eta idazle batzuetatik bestetuetara zenbait edo hainbat alderditan dauden aldeak alde: [Kapanaga]⁴⁹⁷ → Arzadun & Urkizu → Kardaberatz → Olaetxea → [Añibarro] → [Zabala].⁴⁹⁸

Arzadun eta Urkizuren hautuek islatzen duten kontzientziak batago egiten du Lehenengo Euskara Modernoko hasierako hamarkadetan hedatu eta sendotuko ziren joera eta ildoekin, Euskara Zaharrekoekin baino; hartara, Lehen Euskara Modernoaren hastapenak 1730era aurrera daitezke Bizkaian, eta, horrenbestez, baita (edo are) Gipuzkoan ere, ez *HH*-ari baina Larramendiren beraren apologiari eta gramatikari loturik, Urgellek (2018: 549) aipatutakoarekin bat.

⁴⁹⁷ Kortxete artean aipatzen dut Kapanaga, arazotsua izan baitaiteke kronologiari begira: Arzadunek eta Kardaberatzek mañariarraren lana ezagutu eta erabili zuela ziurra izan arren, aintzat hartu behar da lan honetan literatur bizkaieraren eredu aritzeko baliatutako berrikuntzetako batzuk XVIII. mendean geroztik hedatu zirela mendebalean, eta, horrenbestez, ez luke zentzurik halakoak idazle zaharragoen hautu linguistiko-estilistikoei egozteak, ez baitago daturik tokiko hizkeran existitzen zirela pentsatzeko.

⁴⁹⁸ Kasu honetan, agerikoa denez, eufonien alorrean eredu gordetzaile-supradialektala hautatu izanagatik jarri ditut Añibarro eta Zabala katearen azken muturrean, ez hautu hori Kapanagari, Urkizuri edo Olaetxeari zor ziotelako. Urgellek (1985) erakutsi zuenez, euskal testuen ezagutza sakonari, Larramendiren lanei eta Bizkaitik kanpo bizita eta ibilita bereganatutako esperientzia eta ikuspegi orokor eta irekiari jarraikiz hautatu zuen Añibarrok hizkera eredu orokorra, supradialektala, ez (azpi)dialektala, lokalista eta murriztailea.

5.3.3.2.2. Hastapenetatik finkatzera: Kardaberatz eta Olaetxea

5.3.3.2.2.1. Literatur bizkaiera XIX. mendearen hasierako idazleekin lotzeak ez du pentsarazi behar bat-batean sortutako hizkuntza-eredua izan zenik: “delako literatur hizkera hori ez da ere behin eta betikoa, ez hazi ez aldatu Zeusen burutik jada osorik atera Minerva berri bat” zioen Urgellek (1985: 113) *Escu-liburua*-ren lehenengo bi edizioen arteko alde nabarmenak aztertu ostean, Añibarroren 1821eko liburuko hautuak ikasketa-, lantze- eta fintze-lanarekin lotuaz (Juan Mateo Zabalaren eraginaz –ezen ez egiletzaz– begiratu Urgell 2001b: §2.3.5).

Beste alde batetik, balirudike literatur bizkaiera XIX. mendearen hasieran kokatu izanak atzendu edo lausotu egin duela Bizkaiko XVIII. mendeko idazleen inguruko ikuspegia. Orainsu arte gehiago landu izan dira bakar(tu)rik edo isolaturik ibili izan balira bezala: garaiari buruzko ikerlanak ere ez dira asko, eta zentzuzkoa ere bada arreta handiagoa eman izana Mogel, Añibarro edo Frai Bartolome lako idazle kanoniko eta konplexuei, hain dira aberats euren testuak askotariko alderdiak ikertzeko.

Azken hamarkada eta urteotan XVIII. mendeko hizkera-ereduen eta idazleen arteko elkarreraginaren azterketak piztu dute interesik. Altzibar aspaldixeago konturatua zen besteak beste Añibarroren eta Mogelen hizkera-ereduak bereiztean aipatu izan diren⁴⁹⁹ eufonien inguruko hautuak XIX. mendea baino lehen gertatu zirela:

«Eufonia» zahar eta beste euskalki literarioekiko bateratzaile direnon hausketa Juan Antonio Mogel eta Añibarrok beren liburu ospetsuak argitaratu baino lehentxoago gertatu zen, eta berorietan eufonien sistema desberdin eta elkarren kontrakook finkatuta agertzen badira, artean beren zalantzak izan zituzten. (Altzibar 1992: 476)

Bestalde, Arejitak (2003) eta Salaberri Muñoak (2004) literatur bizkaieraren aitzindari betea zekuskien Kardaberatzengan, eta Kardaberatzen 1783ko dotrinaren karietara aipatua zuen, aspaldiago, Altzibarrek:

1783ko edizioaren moldaketa J. A. Mogeli egozteak zenbait ondorio interesgarri dakar. Batetik, bizkaiera literarioaren lehen saioa gertatzen da, egile horren aitzindaritzaren sendotzen eta denbora aldetik aurreratzen duelarik. Bestetik, markinarra gipuzkeraz argitaratzen hasi omen zelako uste eta topikoa desegiten du hein batez. (1991c: 276)

Beste alde batetik, ez da ahaztekoa Larramendik Añibarro batengan izandako eragina, Urgellek (1985: §2) argiro eta zabal azaldutakoa. Azken hamarkada eta erdian, gainera, sermoigintzan arreta berezia jarri izanak XVIII. mendeko euskararen

⁴⁹⁹ Orduko idazleek eurek aipatu zituzten jada: “Icusico da ez ditugula bardin erabaguiten berbaac aiatatu dodan neure adisquide onec eta nic, ta emendi ateraco da cetan daguan Bizcaico eusqueriaren desbardintasuna. Ac dino *maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, cristinaua*... nic barriz Marquina inguruan leguez *maitia, neuria, gozua, buruba, cristinauba*” (Mogel 1803: 5).

bilakabidearen ikuspegia osatzen lagundu du, baina horretaz hurrengo puntuan (§5.3.3.2.3) arituko naiz.

5.3.3.2.2.2. Larramendiren lanek eta eraginak hizkuntza-aro berria eragin zutelako zalantzarik ez dago, nahiz eta eragin horren ikerketan ere zereginik franko dagoen oraindik: ez da ahaztekoa, esate baterako, Zarauzko komentuaurren sorrera-data dela-eta Urgellek iradokitakoa: “Zarauzko komentua 1746an bilakatu zen misiolari mintegi, Hego Euskal Herrian predikatzeko euskaldunak hazteko ageriko asmoarekin. Data esanguratsua izan liteke, Larramendiren bultzadaren ondorio zuzen edo zeharkakoa ez ote den pentsarazteko adinakoa” Urgellek (2001b: xviii).

Eragina maila teoriko(ago)ra mugatu zein maila praktiko(ago)an gertatu, zalantzarik gabea da andoaindarraren egitasmo gauzatua berebizikoa izan zela ondoko hainbat idazleren edo idazle gehienen lanetan neurri batean edo bestean arian-arian hedatzen ari zen hizkuntza landuagoa lortzeko: Larramendi bera zuzenean aipatzen duten idazleak ez ezik, ugari dira andoaindarraren bereizketa grafikoak (cf. txistukari frikari eta afrikatuez esandakoak, adibidez) aplikatzen dituztenak, haren hiztegitiko berbak darabiltzatenak zein morfosintaxi landuagoa eta konplexuagoa azaltzen dutenak. Gipuzkoan, gainera, ugariago dira probintziako beste eskualde batzuetakoak izan arren Beterriko euskararari begira jartzen diren idazleak (begiratu §4.5.2.2.4 eta §5.3.3.3 atala Urolako idazle modernoez).⁵⁰⁰

Larramendiren eraginaz eta ondorengotza intelektualaz berba egin ohi denean, Mendiburu eta Kardaberatz aipatu ohi dira:

La acción proselitista del P. Larramendi en pro del euskera no tardó en dar sus frutos en vida misma del autor de *El imposible vencido*. En efecto, dos Padres jesuitas que se dedicaban a la predicación y al ministerio de las almas, se decidieron a agregar el apostolado de la pluma al de la palabra. Fueron éstos los PP. Cardaberaz y Mendiburu. Y de no haber ocurrido la expulsión y más tarde la supresión de la Compañía, es de creer que otros más hubieran continuado la labor comenzada por éstos. (Villasante 1979 [1961]: 145)

Mendiburu gehiago lotu izan da Gipuzkoa-Nafarroarekin, inguru hartan ibili baitzen sarrien, eta, arrazoi beragatik, Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin lotu izan da Kardaberatz. Hain zuzen ere, badirudi Kardaberatzen eragina oraintsu arte uste (edo,

⁵⁰⁰ Gogoratzekoa da, halaber, Bizkaiko eremu batzuetan behintzat gipuzkera erabili zela: “Gauza bi alere onen gañean ciertoac dira. Bata bizcaitarrac berac, ascoc beñizat, gure dialectoan berenean baño predicatcea naiago dutela, eta Bizcaico predicadore asco gurean predicatcera oitu edo eguin dirala” (Kardaberatz 1761: 13). Aitzitik, gogoan hartzekoak dira, XIX. mende hasieran Mogekek bizkaitarrendatik *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac* (1800) gipuzkeraz argitaratua zuela-eta jasotako kritikak, eta horiei erantzuteko hiru urteren buruan prestatutako *Confesio ona* (1803).

gutxienez, aipatu) izan den baino garrantzitsuagoa izan zela XVIII. mendearen amaierako eta XIX.aren hasierako idazleentzat.

5.3.3.2.2.3. Kardaberatzi leku nabarmena eman diote azken urteotan Arejitak eta Salaberri Muñoak literatur bizkaieraren aurrekarien artean:

Eta misioaren ostean, beste leku askotan bezala, Jesusen Bihotzaren Kofradia sortu zuen [Kardaberatzek]. Baina Kardaberazen eraginik handiena Markina-Xemeingo elizgizonetan erne zuen euskaltzaletasuna izan ei zen. Harako “Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du” aldarria Markinara ere horrela heldu bide zen. Kofradiak apaizei eskatzen zien betebeharra, hileroko elizkizunean ordu laurdeneko hitzaldia egitea zen. Markinan hitzaldiok euskaraz egiten zirela, bertan gorde diren sermoietatik dakigu. Urkiza batena da zaharrena, 1778koa. Ondoren J. A. Mogelen mordotxoa dator, batzuk goizetikoak (1775-80 ingurukoak) eta beste batzuk berandukoak (1800 ostekoak). Eta beranduagoetan Juan Jose Mogel ilobarenak mordo galanta. Markinako hiri eta inguruetarik irten ziren XIX. mendearen lehen hereneko idazle garrantzitsuak: Mogel osaba-ilobez gainera (Juan Jose eta Bizenta), Frai Bartolome karmeldarra, eta Astarloa anaia biak ere, Durangon errotu izan baziren ere, aitatatik markinarrak ziren eta han igaro izan zuten haurtzaroa, gerora ere lokarri sendoak izango zituztelarik.

Honekin guztionekin esatera natorrena da, Kardaberazen hazia dagoela Markinako euskara piztualdiaren oinarrian. (Arejita 2003: 109; letra etzana neurea da [EZ])

Kardaberazi zor diote, hein handi baten –eta Mendibururi bezainbatean edo seguruenik gehiago esango dugu–, hurrengo belaunaldiko idazleek euskaraz idazteko –berariaz erlijio gaien eremuan– duten gaitasuna. Hura izan da XIX. mende hasierako idazle klasikoen eskolaren aitzindari, XVIII. mendean bertan Ubillos frantziskotarra ahaztu gabe, zeinek 1785ean *Christau doctriñ berri-ecarlea* publikatu baitzuen Tolosan. Agirre Asteasuko eta Juan Antonio Mogel dira jarraitzaile hurbilenetarikoak. (Arejita *idem*, 121)

Horrenbestez, tradizioa, hanka bakarreako izanik ere, sortuta zegoen bizkaieraz. Eta ondo gogoratuko zen horretaz *literatur bizkaiera plazaraziko zuen aitzindari nagusia* (...) Beraz, erabilera zabala(goa), sistematikoa(goa) eta tematikoki anitza(goa) baino ez zitzaion falta bizkaierari letra larriko Tradizio bilakatu ahal izateko. (Salaberri Muñoa 2004: 91-92; letra etzana neurea da [EZ])

[Kardaberatz] izan zen literatur bizkaierak izan zuen lehendabiziko aitzindaria Astete horrekin eta handik bi urtera hiriburu berean kaleratutako *Jesus, Maria ta Joserren devociñoa liburuchoric atararico devociño batzuc* delakoarekin (176 orrialdekoa). (Salaberri Muñoa *idem*, 98)

Kardaberatz idazleen sustatzaile eta suspertzaile gisa irudikatzen da, beraz, *Eusqueraren berri onac* liburuaren azken orrialdean egindako deiarekin bat. Are gehiago, Bizkaian zekusan hutsunea bete zuen *ca.* 1762ko dotrinaren eta 1764ko liburutxoaren bidez: aurreko belaunaldiaren eta ondokoaren arteko zubi-lanak egin zituen, eta neurri horretan da literatur bizkaieraren idazle kanonikoen aitzindari.

Kardaberatzen hizkuntza-eredua dela eta, aipatua dut behin baino gehiagotan eredu landu eta supradialektal bati lotu zitzaioa. Harritzekoa ere ez da, jakina, ikuspegi irekiko eta ibilbide eta jakintza linguistiko zabaleko idazle gipuzkoarra izanik, eta Bizkaiko euskara lantzeko eskueran izan zitzakeen testuetan ere eredu gordetzailea edo zaharra egonik: ez da ahaztekoa Kapanagaren dotrina berariaz aipatu zuela. Jarraitzaile hurrekoenen artean aipatu izan da lehenengo Olaetxea (1763ko dotrinari loturik,

zehazki), eta eredu orokor eta gordetzaile horretan ere ondoko Añibarroren aurrekari bat irudika daiteke. Aitzitik, 1767an josulagunak Espainiatik kanporatzeak eta Olaetxearen eredu-aldaketek (cf. §5.3.2.3.1 eta §5.3.3.2.2) etena ekarri zuten, eta eredia zenbait urtez bigarren mailara baztertu Añibarrok berrartu arte. Azken horri loturik, egia da, Arejitak (2003: 113) dioenez, Mogelek Kardaberatzen jarraitzailetzat jo zuela bere burua *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac* lanean:⁵⁰¹

Uste det berriz liburu onetaco eusquera izango dala aditua Guiputz gucian, Vizcaico erri ascotan, ta Naparroa gueiengan. Cardaverasen liburuac aditzen errazagoac dira Euskal-errietan Mendibururenac baño. Onec itz asco artu ditu Napar eusqueratic, ta nola urruti dauden bata bestea gantic Naparroa, ta Vizcaia, ez ala Guiputzac (bada oec erdian daude) errazago eguiten zaie Vizcaitarrai aditzea Cardaverasen itzquera guiputz utsecoa, Mendibururen guiputz-naparra baño. Au ez da esatea, Mendibururen eusquera ederra ez dala; da eguiatz ta itzac garbiago ta eusqueratsuagoac Cardaverasen liburuetaoac baño; ala ere onénac lecu zabalagoan aditzen dira esan dedan arrazoia gatic. Nic ere oni jarraitu diot aleguinez arrazoi beragatic. (Mogel 1800: xiii-xiv)

Alabaina, hainbatetan aipatua (cf. Altzibar 1991b, 1991c) eta hemen ere erakutsia (§5.3.2.3.1.2) dut Kardaberatzen dotrinaren bigarren edizioa prestatzean Mogelek ez zituela erabili 1800eko aipu horretan nabarmentzen dituen ezaugarri edo irizpideak: errazagoa izan zekioken hernaniarraren eredu orokorragoari eustea, baina errotik berritzea erabaki zuen, eta euskara (azpi)dialektala hautatu, (supra)dialektalaren orde. 1767an kanporatua ez ezik, 1770ean hila ere bazen Kardaberatz, eta arestian aipatutako eredu-aldaketa eginbidean zegoen hamarkada horren bigarren erditik aurrera. Kardaberatzen dotrinaren 1783ko edizioa da, hain zuzen ere, eredu-aldaketa horren erakusgarri inprimatu nagusia: Mogelek prestatu bide zuen 1783ko edizioa, eta hamarkada biren buruan bere lan inprimatu nagusien bidez finkatuko zuen hizkeraren zenbait ezaugarri sistematizaturik agertzen dira jada:

Mogelen beraren goiz-beranduetako idatzien arteko hizkera alderdiko diferentziok gorabehera, badira ezaugarri batzuk, testuok edonoizkoak dirala be, ezagun egiten dabenak Mogelen egiletasuna. Euskerazko testuari astiro oharzteza nahikoa da, horrezaz jabetzeko: hizkerari, eta berariaz lexikoari. (Arejita 2018: 249)

1783ko dotrina birmoldatuari berariaz lotu behar zaio, beraz, Urgellek (2018: 583) Lehenengo Euskara Modernoaren barnean bereizten duen bigarren aroa, *Finkatzea* izenekoa eta Urgellen beraren esanetan 1840ra bitartean luzatuko litzatekeena: aurreko tradizioarekiko etena eragin zuen 1783ko lanaren hizkera-ereduak, eta garbiro erakusten du Mogelek eta “Markinako eskola”-k (cf. §5.3.3.2.3.2) 1800az geroztik sustatutako

⁵⁰¹ Kardaberatz ez ezik, Larramendi, Mendiburu, Ubillos eta lapurtar idazleak ere irakurri zituela erakusten du Mogelek (Urgell 1985: 70).

euskara-ereduko zenbait ezaugarri esanguratsuren aldeko hautua nabarmen lehenago egina zela.

5.3.3.2.2.4. Olaetxea ez zen josulaguna, ez zuten erbesterratu eta Kardaberatz baino nabarmen beranduago hil zen, 1795ean. Arestiko informazioekin loturik eta bere dotrinen lehenengo berrargitalpenei dagokienez, dotrinaz dotrina agertzen diren aldaketak egileak berak egin zituela pentsatzea da errazena. Hartara, bigarren edizioaz (1774~1775) geroztik hizkuntza-eredua aldatzen hasi zela ikusten da: Moglek 1783ko dotrinan erabiliko zuenera hurbiltzen hasi zen, dirudienez garai hartan gehien hedatutako eredia baitzen. Olaetxeari, gainera, neurri batean behintzat ez zitzaizkion zertan arrotz egin hainbatetan aipatutako fonetismoak: Laukarizen egun ere ez dira arrunt (cf. Gaminde 2001: 15), baina hala Mungia aldeko zenbait auzunetan nola (are garrantzitsuago dena) Olaetxearen sorterri Gerrikaitzen sistematikoak dira.

5.3.3.2.3. Predikazio-garaia eta “Markinako eskola”-ren eragina

5.3.3.2.3.1. Predikazio-garaiko gorabehera eta ereduez

5.3.3.2.3.1.1. Azken hamarkada eta erdian sermoien eta sermoigintzaren ikerketak emaitza interesgarriak eman ditu. Etxebarriak (2005) frantziskotarren artxiboetako katalogoa egin zuen, eta handik bi eta lau urtera argitaratu ziren, hurrenez hurren, 1708ko Gipuzkoako sortaldekotzat jotako sermoia (Etxebarria 2007) eta Bizkai sartaldeko bi sermoilariren lanak: Juan Ignazio Astigarragarenak (Etxebarria & Apraiz 2007) eta Bizente Sarriarenak (Etxebarria 2009);⁵⁰² azken bi horien hizkera dela eta, begiratu Altzibar (1993b) eta Zuloaga (2010 eta 2011a). Sermoigintzaren esparruko ekarpen esanguratsuen, nolahi ere den, *Dotrinazko sermoitegia*-ren edizioari (Ulibarri 2015) lotzen zaio: orain arte lekutu gabeko edo eskas lekutatutako hizkuntza-aldiera berezian dago idatzita (oso arkaizantea zenbait ezaugarritan, baina berritzailea eta Orozko/Aiara aldeko euskararekiko konbergentea beste batzuetan), Lehen Euskara Modernoko idazleen iturriez eta elkarreraginez informazio interesgarria erauzi du edizioegileak, eta, hemengo gaietarako are interesgarriago dena, Ulibarrik *predikazio-garai*⁵⁰³ eta *predikazio-garaiko euskara* deitutakoez gehiago jakiteko aukera eman du.

⁵⁰² Aurretik, Villasantek (1996, 2000) Juan Mateo Zabalarren sermoien transkripzioa eman zuen. Bestalde, Ulibarrik prestatze-bidean ditu Salazar zolloarraren eta Iturriaga ugaotarraren sermoien edizioak; bihoazkio nire eskerrak transkripzioen kopia bana helarazi izanagatik.

⁵⁰³ Egiakzi, Urgelli zor zaio izendapena: cf. “Gutxienez hiru zio bildu ziren euskaltzaletasun moderno hori zabal zedin: linguistikoa (hizkuntza duintzea), erlijioso-pedagogikoa (herri euskalduna hezi beharra) eta politikoa (foruen defentsa). Honen bilakaeran abanguardiak hiru une bereiz daitezke: predikazio aldia (Larramendi), herriaren «berraurkitze» aldia (Humboldt, Mogel, Iztueta) eta batasun aldia (Xaho, Abadia, Bonaparte)” (Urgell 2018: 550).

Sermoigintzak hazkunde eta zabaltze nabarmena pairatu zuen XVIII. mendean:

El sermón durante toda la Edad Moderna, fue una de las formas más directas de influir en la mentalidad popular. Su objetivo era instruir a los fieles en las verdades de la fe católica, que se veían amenazadas desde la Reforma. La Iglesia, lo consideró el instrumento más apropiado para transmitir su concepción del hombre y del mundo, de ahí que traten aquellos temas más relevantes para los eclesiásticos del momento en que fueron escritos. (Fernández *et al.* 1983: 35)

Hazkunde horrek eragin nabarmena izan zuen Hego Euskal Herrian ere (xeheetasunetarako, begiratu Ulibarriren –2015: §4.3.1– hurbilketa historikoa), eta euskal sermoigintzaz aritzea oro har XVIII. mendearen erdialdeaz eta Larramendiren lan nagusien argitalpenez geroztiko misiolarien langintzaz aritzea da, 1708ko sermoi dominikala bezalako adibide goiztiarrago bakanen bat adibide. Horri loturik, ezinbestekoa da gogoratzea Zarauzko komentua “misiolari mintegi” (Urgell 2001b: xviii) izateko sortu zela 1746an, josulagunen komunitateari frantziskotarrena gehituaz: Ulibarrik (2015: 238) dioenez, josulagunak erbesteratzeak (1767) frantziskotarrek sermoigintzaren monopolioa izatea ekarri zuen. Halaber, garai bertsuan (1766) debekatu zuen Arandako kondeak euskarazko liburuen argitalpena (hain zuzen ere, Kardaberatzek San Ignazio Loiolakoari buruz idatzitako lan baten kariatara), eta nabarmen zailagoa izan zen euskaraz liburu xumeez haragoko ezer argitaratzea harik eta Mogelek Mariano Luis Urquijo bilbotar ministroaren bidez *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac* argitaratzeko baimena lortu zuen arte (cf. Urgell 2018: 597-598). XIX. mendea baino lehenagoko gatazka militarrek ere izan zuten eraginik: Frantziaren eta Espainiaren arteko Konbentzio Gerrak gogor astindu zuen Zarauzko komentua, adibidez (Altuna 2003: 110).

5.3.3.2.3.1.2. Ulibarrik dioenez, badago XVIII. mendearen bigarren erdiko eta XIX.aren hasierako idazleak lotzen dituen testu-genero bat: sermoigintza; are gehiago, “liburuetakoa baino lehen, eta horrekin batera, beste literatura mota bat izan zen, sermoigintzak sorturikoa” (Ulibarri 2015: 242). Hain zuzen ere, *predikazio-garaia* egituratzen du sermoigintzak, eta, berriz ere Ulibarrirekin (*idem*) bat, XIX. mendearen hasieran argitaratuko ziren liburu kanonikoen aurrekari edo hastapentzat jo daiteke XVIII. mendearen amaierako sermoigintza:

Sermogileek erabaki linguistiko eta estilistikoak hartzen ziharduten, eta bizkaieraz hitz egin eta idazteko modu bat hedatzen ari zen, beharbada frantziskotarrek oso bereziki hedatu zutena beren misioaldietan, eta XIX. mendeko literatur bizkaiera “azaleratu” (i.e. argitaratu zena). (Ulibari 2015: 288)

Gogoratzekoak dira, horri loturik, Mogelen eta Añibarroren gaztaroko sermoietatik *Confesino ona*-ra edo *Peru Abarca*-ra zein *Escu-liburua*-ren lehenengo bi edizioetara edo *Guero* *guero*-ren itzulpena dauden jauziak.

Predikazio-garaiko euskararen ezaugarriari dagokienez, Lehenengo Euskara Modernoko joera orokorren artean daude. Ulibarrik (2015: §4.3.2.2) genitibo singularraren aldaera osoagoa erabiltzeko hautua (-*aren* eta ez -*en*, Kardaberatzen – 1764: 4-5– proposamenarekin bat),⁵⁰⁴ eufoniak arrunt erabiltzea (baina ez guztiak; cf. §5.3.2.1 atalen *Rui*-z esandakoak) eta bokal bikoitzak islatzea edo/eta ugaritzea nabarmendu zituen (begiratu, halaber, Urgell 2018: §8.3).

5.3.3.2.3.1.3. Predikazio-garaiak eta orduko euskaraz berba egitean ez da mugimendu bateratua eta homogenea irudikatu behar, jakina: Kardaberatzen jarraitzailetzat jo ohi den Olaetxea, adibidez, tradizio zaharragoari atxiki zitzaion genitibo-markari dagokionez, *Dotrinazko sermoitegi*-an bertan ez dira txistukari frikari eta afrikatuak grafikoki bereizten, Añibarroren lehenengo testuetan agertzen diren zenbait eufonia (eta are *Escu-liburua*-ren lehenengo edizioan tarteka agertzen diren *Rui* eta neutralizazio-zantzuak) gerora desagertu ziren legetxez ugaritu ziren Mogelen ~1780az geroztiko lanetan eibartarraren hasierako idazkietan ez zeudenak, eta Sarriaren sermoietan nabarmen aldatzen da bokal bikoitzen kopurua sermoiaren hizkera-ereduaren arabera.

Gorabeherak gorabehera, Bizkaiko XVIII. mendearen amaierako testu nagusietan Ulibarrik aipatutako joerak agertzen dira: hizkuntzaren beraren ezagutza sakonagoaren (eta ezagutza hori barneratzeko erreferentziazko material gehiago egotearen) ondorio dira hautu batzuk, eta sermoien testu-generoari berari egotz dakizkioke beste batzuk. Sermoiena genero berezia da. Izan ere, sermoiak testu idatziak dira, baina ahoz irakurtzeko edo azaltzeko idazten dira; hots, ahozko jarduna eta transmisioa dituzte jomuga, eta horrek ahozkotasunera hurbiltzen ditu ezinbestean.

Sermoiak idatziak izateak eta are argitaratzeko prestatu izanak leialtasun- eta fidagarritasun-arazoak eragin ditzake,⁵⁰⁵ baina ez dirudi euskal predikariak zenbait ezaugarritan tokiko ohituretatik gehiegi aldendu zirenik: hainbestetan aipatu diren

⁵⁰⁴ 1764 baino lehen, Urkizuren 1740ko kopletan aurrekari bat dago, berriz ere, durangarrak ondo bereizi baitzituen singularreko -*aren* eta pluraleko -*en*, eta mugagabeen ere -*r*- eman baitzuen: cf. 63 *miseriaren*, 48 *iñoren*, 7 *Durangorenzat*, 8 *ondasunen*, 26 *serafinem* eta abar.

⁵⁰⁵ Cf. “The most easily accessible type concerns written-to-be-spoken productions, i. e. speeches and sermons (...) however, these are usually ‘polished’ for publication and only very rarely present a verbatim transcription of the actual delivery. Crucially, they are also monologic in character, while the majority of naturally occurring speech is dialogic” (Claridge 2008: 247).

Markinako eufonien sistemak Markina (eta Eibar) aldeko euskara zuen oinarri; beraz, erabat betetzen da Fabb-en (2010) *garapenaren teoria*; alegia, literatur hizkuntzara eramaten diren ezaugarriak hizkuntza erreal eta herrikoitik hartzen direla dioena. Besterik da euren hizkeretan halakorik egon ez arren inon ikasita edo giroak bultzatuta halakoak darabiltzaten egileen kasua, hala nola Añibarro gazteenarena: kasu horretan ere bete egiten da garapenaren teoria, *-ijV* edo *-ubV* epentesiek oinarri fonetikoak baitzuten euskaraz; baina, ñabardura egin behar da, ez baitirudi horiek Arratiako euskarari zegozkionik.

Eufoniak ugaritzea, hain zuzen ere, sermoigintza ugaritzearekin lotu beharrekoa dela dirudi. Izan ere, eufoniak erabiltzeak halako hurbiltasun-kutsua eman behar zion predikarien euskarari: gogoratzekoa da Urkizuk 1737ko liburuaren amaierako kopletan metatu zituela eufoniak, dirudenez, kutsu herrikoia emateko.

5.3.3.2.3.1.4. Lehen Euskara Modernoaren eta predikazio-garaiaren barnean urte batzuetatik aurrera arestian aipatutako etena gertatu bide zen: Lehen Euskara Modernoaren hastapenetatik finkatzerako trantsizioa. Finkatze horren hasierako urteetako (~1780) testu inprimatuek eta eskuizkribu (orduan) argitaratugabeek irizpide eta hautu bertsuak islatzen dituzte (begiratu §5.3.3.2.2 atala): hur daude Mogelek XIX. mendearen lehenengo urteetan finkatuko zuen eredutik, eta harritzekoa ere ez da, aldaketaren erakusgarri nagusia Kardaberatzen dotrinaren 1783ko bertsioa izanik; cf. “aurrerantzean besteak albo utzirik, bere baitan murgilduaz hazten doa Mogel eta bere jarraitzaileen literatur bizkaiera (...) bere herrikoa hartu zuen, gorago esan bezala, hangoaren ezaugarri fonetikoak ere mandenduaz, are inoiz usadio orokorraren kontra zihozela jakin arren” (Urgell 1985: 71).

Predikazio-garaiaren urteetan, literatur bizkaiera hezur-mamitzen ari zen urteetan, gerora Mogelek eta Astarloak finkatuko (eta hertsatuko) zituzten irizpideak eta ikuspegia nagusitu ziren: “badirudi Markinako sistema apurka-apurka bizkaieraren bereizgarritzat jotzeraino hedatu zela XVIII. mende hartako hizkuntza giroan” (Ulibarri 2015: 256). Ezagun da, gainera, Lehen Euskara Modernoaren amaierara arte eredu horri idazle gutxi kontrajarri zitzaizola arrakastaz: Añibarro eta Zabala aipatu ohi dira, baina gogoan hartu behar da lehenengoaren lan gehienak argitaratu gabe geratu zirela, eta bigarrenaren sermoiak ere XX. mendearen amaieran editatu zirela lehenengoz (Villasante 1996, 2000).

5.3.3.2.3.2. “Markinako eskola”-ren hasierez eta eraginez: B. Sarria

Bizente Sarriaren sermoietako hizkera aztertu nuenean (Zuloaga 2010) argi ikusi nuen etxebarritarren testu batzuetako eredu bere sorterriaren inguruko hizkeratik hurbilago zegoela, baina beste batzuek batago egiten zutela “Markinako eskola”-koek XIX. mende hasieran finkatutako eredu linguistikoarekin. Ondorio horri halako kutsu anakronikoa hartu nion behin-behinean, Sarriaren sermoiak XVIII. mendearen amaierakoak baitziren (1804an Ameriketara abiatu zen bere sermoien kartapazio eta guzti,⁵⁰⁶ eta ez zen Euskal Herrira itzuli): hala egiaztatu nuen markinar idazleen eredu eta eragina ez XIX. mende hasierakoa baina XVIII. mendearen amaierakoa zela.

Kasu honetan badirudi *markinar idazleen eredu*a azpimarratzea garrantzitsua dela. Predikazio-garaiko hizkera-ereduez ari zela, giroari egotzi zion Ulibarririk Sarriaren sermoietan eufoniak agertzea, Sarriaren kasuan markinar idazleen ustezko eragina baztertuz:

Eufoniok bizkaieraz *idazteko* orduan erabili beharreko ezaugarria izateraino helduko zen; eta gure hipotesia zuzena bada, lehendik zetorren idazte ohitura hau XIX. mendean sorturiko literatura argitaratura heldu zen eta horregatik idazle zenbaitek sasoiko moldeen arabera erabiliko zituzten eufoniak, eta ez dugu zertan ekialdeko hizkera baten eragina antzeman behar (cf. Zuloaga 2010: 399, 15. oh.). (Ulibarri 2015: 258)

Neurri batean ados egon ninteke Ulibarriren baieztapenarekin, baina neurri batean bakarrik. Etxebarriko seme batek ez luke zertan inongo euskaratik edan *e.a > i.a* edo *-ijV* emateko, tokiko hizkeran ere bazeudelako (garai hartan agian ezta *-ubV* emateko ere): giroa halako fonetismoak aldatzearen aldekoa bazen, bere hizkeran bizi-bizirik zeuden fenomenoak testuratu besterik ez zuen egingo. Horiei gehi ziezazkiokeen Bizkai sartaldean arrotz ziren *o.a > u.a* zein bokal bikoitzak, adibidez, ezaugarri edo markatzaile estilistiko hustzat; aitzitik, Sarriaren sermoiek (ca. 1790-1804) gehiago erakusten dute.

Eufonien esparrutik irtenda, Sarriaren sermoi batzuen eta Markina aldeko (edo “Markinako eskola”-ko idazleen) euskararen arteko lotura nabarmena da fonologian ez ezik, kontu grafikoren batean eta maila morfologikoan ere. Hona hemen Zuloaga (2010) lanean deskribatutako bi eredu linguistikoak (sartaldekua Sarriaren sorlekukoari dagokio, eta sartaldekua “Markinako eskola”-ko idazleei):

⁵⁰⁶ Gorde ere han gordetzen dira, Kaliforniako Berkeley Bancroft Library eta California State Library (Sacramento) liburutegietan.

14. taula. Bizente Sarriaren euskara-ereduak: Nerbioi ibarrekoa eta Markinakoa

Sartaldeko ereduak	Sortaldeko ereduak
1) <i>-ijV</i> kontsonante epentetikoaren grafia: <y>	1) <i>-ijV</i> kontsonante epentetikoaren grafia: <j>
2) Bokal bikoitz gutxi	2) Bokal bikoitz ugari
3) <i>e</i> → <i>i</i> bai	3) <i>e</i> → <i>i</i> bai
4) <i>o</i> → <i>u</i> ez	4) <i>o</i> → <i>u</i> bai
5) <i>-ijV</i> bai	5) <i>-ijV</i> bai
6) <i>-ubV</i> gutxi	6) <i>-ubV</i> ugari
7) Gazt. <i>-ción</i> & <i>-sión</i> > eusk. <i>-zino</i>	7) Gazt. <i>-ción</i> & <i>-sión</i> > eusk. <i>-zinoe</i> , <i>-zinoi</i>
8) Ablatiboan <i>-tik</i> gutxi	8) Ablatiboan <i>-tik</i> ugari
9) * <i>edun</i> -en adizkiak: <i>daude</i> , <i>eduen</i> ereduak	9) * <i>edun</i> -en adizkiak: <i>dabe</i> , <i>eben</i> ereduak
10) * <i>edin</i> -en adizkiak: asimilazio ugari	10) * <i>edin</i> -en adizkiak: forma osoagoak

Sortaldeko ezaugarri-multzoa hartuta eta ezaugarri horien *simultanea presenza* eta *particolare combinazione*-a non gerta zitekeen aztertuta, Bizkaiko ipar-sortaldea besterik ezin da aipatu; hots, Sarriak XVIII. mendearen azken hamarkadetan Markina aldeko euskararen ezaugarri-konbinazio bat baliatu zuen, eta horrek erakusten du *Confesino ona* edo *Apología de la lengua bascongada* baino lehen ere markinar idazleek (zehazki) eredugarri izan behar izan zutela Bizkaiko beste idazle batzuen begietara. Predikazio-garaiko hizkuntzak erraztutako hizkuntza-ereduaren barnean, nago “giroak” bezainbat edo gehiago eragin zuela “giro” jakin hori XVIII. mendearen amaieraz geroztik Markina aldetik bultzatu izanak.

Sarriak eredu hori non eta norengandik ikas zezakeen aztertzean, gakoa frantziskotarren Bilboko komentu zaharrean bilatu behar dela uste dut: egonaldia egin zuen han Sarriak, hain zuzen ere Frai Pedro Astarloa komentuan zegoela. Zalantzarik gabea da elkar ezagutu zutela, eta Astarloak ordurako eginak zituzkeela hainbat hausnarketa hizkuntza- eta estilo-gaiez: hain zuzen ere, Astarloak 1816-1818 artean argitaratutako *Urteco domeca...* mardulean islatu zituen arestian aipatutako ezaugarri eta hautuak.

Altzibarren ikerketek aurretik ere erakutsia zuten Frantziskotarren Bilboko komentuaren garrantzia euskal gaietarako:

Baina gure hizkuntza eta beronen zabalpenari lotua ere agertzen da komentu hori. Bertan egon ziren salgai, adibidez, [Astarloa] idazlearen obrak, *Urteco Domeca*-ren bigarren tomoko azalak dioenez: “Salcen da lenengo liburubagaz, Bilboco San Franciscuco atarte edo porterijan”. Bestalde, bertan idatzi eta kantatu ohi ziren aspalditik gabon kantak, Jaundone Iakue-ko Eliza Nagusiak bezala argitaratuak izan zirenak. (1992: 236)

Bilbon kantatutako Gabon-kanta zaharrena ere (1755) San Frantzisko komentuari loturik dago (Irigoién 1977, Zavala *et al.* 2012); baina, ez dago Bizkaiko euskararen idatzia, ezpada erdialderagoko eredu batean. Besterik dira 1790eko hamarkadaren erdialdean argitaratutakoak, horietan ere islatzen baita Bizkai sortaldeko

egileen eragina. Altzibarren ustez (1992: 237), Astarloak zerikusi zuzena izan zuen orduko Gabon-kantekin, izan egile gisa (Juan Antonio Mogelen eta Bizenta Mogelen eskuak ere badakuski), izan sustatzaile gisa. Halaber, XIX. mendearen hasierako hamarkadetakoa Bilbo aldeko Gabon-kantek lotura zuzena dute aipatutako komentuekin eta Astarloekin (cf. Altzibar 1992: 238 eta hurrengoak).

1767 eta 1833 arteko egoera soziala, kulturala eta erlijiosoa kontuan harturik, eta *diskurtso zibilizatzaile* deitu duenaren kariatara, ondorio bertsuetara iritsi da Javier Esteban Ochoa de Alda historialaria berriki argitaratutako lan sakonean: “la centralidad que pareció ocupar el convento de San Francisco de Bilbao en la difusión de este discurso civilizador es capital” (2018: 318). Are gehiago, “Abandoko taldea” deitu duen idazle-taldearen jarduna zuzenean lotzen du komentuko kide eta dinamikekin:

El vínculo entre el auge de textos vascongados con los momentos de funcionamiento del convento es incontestable. No parece casual que uno de los mediadores más valiosos del grupo de Abando, Pedro José Astarloa, fuera guardián del mismo desde 1804 hasta su supresión en 1808 y desde 1814 hasta su muerte en 1821, justo antes de que el convento fuera de nuevo disuelto. (Esteban Ochoa de Alda 2018: 319)

5.3.3.3. Bizkaiko eta Gipuzkoako XVIII. mendeko joera kontrajarriez

Aurreko ataletan ikusitakoarekin bat, Lehen Euskara Modernoaren finkatze-garaitik aurrera hizkera-eredu lokalista joan zen nagusitzen, Kardaberatzek, hasierako Olaetxeak eta aurreko durangarrek zuten ikuspegia baztertuta. Hemengo aztergai nagusia Bizkaiko testuak diren arren, ez da pentsatu behar halakoak Bizkaiko idazleen artean bakarrik gertatu zirenik; azterketa sistematikorik ez dakarren arren, interesgarriak dira, egin dakizkiekeen ñabardurak ñabardura, Altzibarrek (1992: 475, 613. oin-oharra) Otxoa Arin, Peñaforida, Palacios eta bestez aipatzen dituen zenbait joera.

Mendebal zabalean, Urolako testuek eredu lokalistagoaren eta orokorragoaren arteko dikotomia bera islatzen dute garai bertsuan; alegia, testu batzuetan oso ohikoa da, adibidez, tokiko fonetismoak agertzea, eta beste batzuetan baztertzea da joera. Joera hori, halere, Deba ibarreko testu batzuetan ere atzematen da. Ondoko koadroak islatzen ditu aipatutako erabilerak.⁵⁰⁷

⁵⁰⁷ Testu gehienak Urolakoak dira, denbora-tarte laburrean hainbat erkagai agertzen direlako xviii. mendean bertan; horiei, baina, Barrutiarena eta Aldazabalena gehitu diet, zeinak bere aldetik interes berezia dutelako: Barrutiak, hizkera-sailkapenerako dituen zailtasunengatik; Aldazabalenak, Deba ibarrekoa izan arren Beterrira edo literatur gipuzkerara (edo ez Gipuzkoako mendebaleko hizkeretara, behintzat) begira idatzitako testua delako.

15. taula. Eufonien erabilera Gipuzkoako mendebaleko zenbait testu modernotan (1737-1786)

	Barrutia (ca. 1711-1720)	Azkoitiko sermoia (1737)	Azpeitiko gutunak (1740)	Loiolako dotrina (xviii)	Oikiako dotrina ([1759] 1784)	Loiolako sermoia (xviii)	Munibe (1762, 1764)	<i>Grand tour</i> (1772)	Azpeitiko udal-agindua (1786)	Aldazabal (1768)
<i>e → i</i>	+ (batzuetan)	-	-	-	-	-	+ (behin)	+	+	-
<i>o → u</i>	+ (oso bakan)	-	-	-	-	-	+ (oso bakan)	+	+	+ (azalean)
<i>-ijV</i>	-	-	-	-	-	+ (batzuetan)	-	+	+	-
<i>-ubV</i>	+ (behin)	-	-	-	-	+	+ (batzuetan)	+	+	-
<i>Rui</i>	-	-	-	-	-	-	-	+	-	-

Gainerako testu guztiekin alderatuta (izan Deba ibarrekoak, izan Urolakoak), Barrutiaren testua berritzaile agertzen da eufonietan, nahiz eta oraindik urrutixe dagoen Deba ibarrean zein Urolan 1750az geroztik hizkera-eredu herrikoia erabiltzearen aldeko hautua erakusten duten egile edo testuen ezaugarrietatik: zenbait berrikuntzaren adibide bakanak daude, baina ez dira orokortu eta sistematizatu; are gehiago, balirudike tarteka aldaera berriak ostentzeko ahalegina egin zuela, zenbait bertso-lerrotako puntuetan forma zahar eta berriek errimatu egin behar baitute. Barrutiaren hizkeraren sailkapena arazo-iturri izan da eta oraindik ere bada, hainbat garaitako elementuak eta joerak nahasten baitira. Hemen aztertutakoei dagokienez, testuko adibideen bakantasuna koherentea da sasoi hartan hedatzen ari ziren berrikuntzen agerrera-maiztasunarekin (cf., hurrenez hurren, Eibarko 1685eko eta 1721eko koplak-sortak); halaber, forma zahar eta berriekin eratutako errimak aurki daitezke *Bertso bizkaitarrak* sortan eta Urkizuren 1740ko kopletan, kronologikoki ez oso urrun Barrutiak bere lana idatzi zuenetik.

Urolako 1750 aurreko testuetan ez dago fonetismo berrien adibiderik eta kasu guztietan ez da erraza hori zeren ondorio den zehaztea, edo ez dago zertan arrazoi bakar batean pentsatu: pentsa liteke Azpeitiko 1740ko gutunek ez dakartela halakorik Elosiaga auzoan erabiltzen ez zirelako, adibidez, baina Azkoitiko sermoian ez agertzea Larramendiren hautu kontzientea izan daiteke.

Idazleen hautuen eragina askoz argiago ikusten da 1750az geroztik, bikoiztasuna agertzen baita; oro har, erlijio-testuak eta Peñafloredaren lanak gordetzaile dira edo gordetzaile izan nahia islatzen dute: daudenean, bakan daude Muniberen testuetan; ugarixeago agertzen den bakarra *-ubV* da. Testu landuak dira Peñafloredarenak, linguistikoki ez lokalistikoki, Larramendiren zein Kardaberatzen ikuspegi orokor eta

supradialektalari begira idatzitakoak oro har. Hain zuzen, idazlearen ezagutzaz eta hautuez jabetzeko nahikoa da *Grand tour* lan garaikidearekin alderatzea: tokiko hizkerari buruzko informazio interesgarri askoa ematen duen arren, literatur hizkeraren ikuspuntutik testu erabat apala eta landu gabea da *Grand tour*, idazlearen ahozko euskararen transkripzio hutsa diruditen pasartez jositakoa, testu-generoak (antzerki-lana da) horretan izan zitzakeen eraginak eragin.

Idazleen hautuak oso nabarmenak dira Aldazabalen 1768ko liburua irakurtzen delarik: eufonia gehienak azalean metatzen dira, eta testu barnean zurrun eusten zaie aldaera zahar eta hedatuagoi. Tesu landua da, eta hainbat ezaugarritan Debako euskararekin baino lotura estuagoak ditu Beterri aldekoarekin, Larramendiren lanekin (cf. *jakiunde* lako neologismoen erabilera) edo *literatur gipuzkera*-rekin. Debako XVI. mendeko zenbait testuren argitan (Sasiola, 1596ko gutuna) $e \rightarrow i$ igotzea zein txistukarien neutralizazioa oso aurreraturik (edo erabat sistematizaturik/buruturik) espero izatekoa zen XVIII. mendearen amaieran, baina ez dago halakorik Aldazabalenean. Ñabardura txiki horietatik harago, hizkuntza-maila guztietan da agerikoa Gipuzkoako erdi-ekialdeko euskararen hautua (begiratu Zuloaga prestatzen-1).

Idazle gipuzkoar moderno ikasiek, agerikoa denez eta beharbada Larramendiren itzalpean ezin zitekeelako bestela izan, hizkera-eredu landua eta goratua baliatu zuten: “XVIII. mendeko idazleek ez dute beste maisurik Larramendi baizik” zioen Urgellek (2001b: xxii), eta Gipuzkoako mendebaleko idazleen artean tokiko (azpi)dialektoak gainditzeko saiakera islatzen da (Peñafloridarena da aztertutako kasuen artean argienetako bat). Bestalde, tokiko dialektoaren ezaugarriei eusten zieten idazleek ere ez zituzten guztiak islatu; euren jakintza eta gaitasun linguistikoaren arabera, ahal bezain orokor jokatu zuten: Loiolako dotrinak $a + a > ea$ izatea ez da harritzekoa inguru hartarako prestatutako testua izan bazen. Halaber, txistukarien neutralizazioaren adibideak daude zenbait kokagunetan; baina, neutralizazio hori ez da *Grand tour*-ean bezain zabal islatzen, eta azken horretan etengabe agertzen diren fonetismo lokalik ere ez dago Loiolako testuan.

XVIII. mendearen azken urteetan Larramendiren, Mendibururen eta Kardaberatzen eredu irekiagoak eta orokorragoak Bizkaian baino arrakasta handiagoa izan zuen Gipuzkoan, eta horrek euskalki literario bateratuagoa lortzea ahalbidetu zuen, Bizkaian ez bezala: “Literatur gipuzkera lapurtera bezain bateratua ez bada izan, bizkaiera gipuzkeraren mailara ere ez da iritsi segurki” (Urgell 1985: 72). Birgoratzekoa da, hona iritsita, Mogelek berak ez zuela hautu bera egin gipuzkeraz

eta bizkaieraz idaztean: “1800ean Mogelek bere ama-euskalkia utzita gipuzkeraz idaztea deliberatu zuenean bazekien *zein gipuzkeratan* idatzi behar zuen, alegia, Larramendi, Mendiburu eta Kardaberatzen gisan” (Urgell 2018: 655).

6. Ondorioak

6.1. Iturrien eta ezaugarrien azterketaz: Filologia

Dialektologoak eklektizismoz jokatu behar izaten du nahitaez (§2.1.1). Are zehatzago, dialektologia historikoa egin nahi duenean, bere jardunak bi zutabe izan behar ditu; alde batetik, filologia zehatza egin behar du datuak behar bezala egiaztatu, finkatu eta irakurtzeko; beste alde batetik, aztergai dituen ezaugarri, fenomeno eta alderdiez beren-beregi arduratzen diren arloetako teoria eta joera estandarrak ezagutu eta erabili behar ditu, datuen irakurketa sendoa eta koherentea egiteko.

6.1.1. Dialektologo diakronistaren iturri nagusi izan behar duten testuak dagokien testuinguruan kokatzen eta finkatzen ditu Filologiak, eta testuok erakusten dituzten ezaugarri linguistikoen ezagutza sakona ematen du. Tesi honetan arreta berezia jarri dut iturrien tratamenduan: edizio kritiko estandar edo kalitatezkoztat jo zitezkeen kasuetan horiek baliatu ditut, faksimilak ere eskura izan ditudan arren; halakorik ez zegoen kasuetan jatorrizko iturrietara jo dut sistematikoki, kasu guztietan jatorrizko testuak ikusterik izan ez dudan arren (§3.4.2). Iturrietara jotze horrek, hain zuzen ere, inoren transkripzioetan, berrargitalpenetan edo faksimiletan zeuden akatsak, irakurketa okerrak edo “txukunketak” zuzentzeko aukera eman dit, bai eta bestelako irakurketak proposatzekoa ere, hainbat oin-oharretan erakutsi bezala. Jatorrizko eskuizkribuak kontsultatuz argitutako bi kasu aipatuko ditut hemen aipatutakoen adibide gisa:

- Bokal sudurkariei dagokienez, Garibairen B eskuizkribua hainbat urtez galdutzat jo zela eta, Michelen (1847) eta harenetik edan zuen Urkixoren (1919) transkripzioak baliatu izan zituzten XX. mendeko bigarren erdiko ikertzaileek (§4.3.3). Michelek, baina, sudurkaritasuna adierazteko <n> eta <ñ> emanak zituen Garibairen eskuizkribuan halakorik ez zegoen lekuetan: B eskuizkribuan marra bat agertzen da bokalen gainean (*m̃a*, *Arrāy ac*, *Arrāyña...*), ez <n>. Irigoienek (1997 [1990]) zein Urkizuk

(1989) (eta arestikoen bidetik Pagolak –1998– zein Ariztimuñok –2018–) emandako *ygũny* & *yguny* aldaerarik ere ez dago eskuizkribuan: *ygũy* dio testuak egiazki. Halaber, Mitxelenak MLastur-en emandako *ardao*-ri txapela falta zaio (*ardãõ*), A27 errefracu *ardao*-ri legez (*ardaõ*). Kasu honetan gorabeherak grafikoak dira, eta ez dute aldarazten bokal sudurkariei buruzko ikuspegia, Garibaik beren-beregi aipatu baitzituen; baina, berebizikoak dira euskal grafiaren historia fidagarria eratzeko eta XVI. mendeko gramatizazio-lanen eragina neurtzeko (cf. Ulibarri & Urgell 2019).

– Beheko bokalaren asimilazioari dagokionez, 1708ko sermoi dominikalean halakorik ez dagoela argitu dut (§4.6.2.3.1). Testua Bergara/Antzuola aldean kokatu zuen Etxebarria (2007) ediziozileak eta bitxia zen, inguruko testu guztiekin alderatuta, sermoian *Rui*-ren zenbait adibide agertzea; izan ere, Deba ibarreko testuetan araua ez da arrunt, gaur egun ere baserri-auzo batzuetatik kanpo arrunt ez den legez. Eskuizkribura joaz eta ustezko adibideak banan-banan aztertuta, bada, zenbait kasutan ediziozilearen irakurketa-akatsak zirela erakutsi dut, eta beste kasuren batean idazlearen beraren idazkera-akatsa edo nahastea zegoela tarteko. Batera edo bestera irakurri, ondorioa larria da ezaugarriaren hedaduraren eta bilakabidearen ikuspegitik; izan ere, historikoki zein gaur egunera arte egon ez den hizkera batean kokatzen zuen ezaugarria.

6.1.2. Testu, egile, garai eta leku jakin batean zein ezaugarri linguistiko espero zitekeen eta zein ez erabakitzea ez da eragiketa matematikoa; corpusaren ezagutzak ekarri dizkit, ezerk ekartzekotan, halako susmoak:

– Orain argi ikusten dut fonetikaren ikuspegitik *aua* ‘ahoa’ edo *juan* ‘joan’ bezalakoetan ez dela zertan $o \rightarrow u / _V$ aldaketa proposatu, [awa] zein [jwan] ebakerak proposatuta ere azal baitaitezke. Aitzitik, ezberdintasunaz corpora ezagutu ahala jabetu nintzen, arazotsu baitzen, adibidez, Landuccik *agua* ‘ahoa’ izan arren $o \rightarrow u / _V$ -ren bestelako adibiderik ez izatea, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko XVI-XVII. mendeetako zenbait testutan legez. Azaleko emaitza berdina da idatziz ematen denean, baina fenomenoak ez da bera.

– Aymeric Picauden testua Pirinioetan kokatzeko arrazoi sendoagoa aurkitu izana Nafarroa Garaiko testuen ezagutza orokorragoari (cf. Reguero 2017) zor diot: *eliçera*-k asko laguntzen zuen, jakina, horretan artikulua mugatua irakurtzeko aukera aspaldirik aipatua baitzen (cf. TAV §2.2.12). Aitzitik, dakidala inoiz ez da baztertu forma horretan ez artikulua baina adlatiboko marka egotea, eta horrek zalantza eragin izan du. Bada, testu bereko *er[r]eguia* ‘erregea’ eta Nafarroako testuetan $e \rightarrow i / _V$ oro har Lehen Euskara Modernoan ugaritzen dela ikusita proposatu dut *-ara* eta $e \rightarrow i / _V$ ezaugarrien konbinazioak Pirinioetako hizkeraren batekoa izan behar duela, inguru hartan lehenengo testuetarik agertzen baitira bai bata, bai bestea.

– Tesi honetan orain arte ~1701ekotzat jo izan den Bulda 1750az geroztikoa edo are beranduagokoa dela proposatu dut (§5.1.85.1.8), nahiz eta eskuizkribuan bertan aipatzen den 1701. urtea. Horretarako irizpide nagusia corpusaren ezagutzan oinarritu dut: testuan agertzen diren zenbait erregela fonologiko (bokal-igotzeak, kontsonante epentetikoak eta *Rui*) ez dira ohiko 1750 baino lehen, eta are gutxiago denak batera eta Bulda-n duten indar biziarekin. Datazio berankorrerako lagungarri izan da, halaber, frikari eta afrikatuak grafikoki bereizten direla ikustea eta, areago, afrikatu lepokaria tarteka <tz> digrafoaren bidez adierazten dela egiaztatzea.

6.1.3. Euskal Filologiaren esparruan (eta batez ere Hego Euskal Herriko iturriei dagokienez) nabarmena da grafiaren deskripzio zehatz eta zabal baten hutsunea, eta ohikoa izan da euskal idazleen grafia euskararen lehenengo testuetarik gramatizatua balego legez lantzea, inplizituki bada ere. Euskal idazleen alfabetizazioa erdaretan egiten zela aintzat hartuta, ordea, tesi honetan arreta berezia jarri nahi izan dut Mikoletaren eskuizkribu arazotsuan.

Filologia hispaniarraren esparruan hutsunez beteriko ikerketa-esparrua da Urrezko Mendeko erreboluzio fonologikoarena: aldaketa nagusiak ezagutzen dira, baina ez dira hainbeste ezagutzen noiz eta nola gertatu ziren aldaketok eremuz eremu. Mikoleta inoiz idazle axolagabetzat jo izan dela ikusita (cf. Pagola 2002), haren gaztelaniaren sistema grafikoa aztertu dut (§4.7.3.3.4), eta zenbait ondorio esanguratsu atera ditut Mikoletaren ezagutzaren zein Bilboko gaztelaniaren inguruan (§4.7.3.3.3):

- Mikoletaren gaztelanian oso aurreratuta edo burututa zeuden Erdi Aroko sistema zaharreko txistukari afrikatuen eta frikarien, eta ahoskabeen eta ahostunen arteko bereizketen neutralizazioak.
- Aitzitik, Mikoletak eredu grafiko gordetzailea erabili zuen gaztelaniaz idaztean: arau tradizionalak ezagutzen zituen, ondo ezagutu ere; beraz, bilbotarraren grafia axolagabetzat jotzea gehiegikeria iruditzen zait.
- Neutralizazioon ondorioz Penintsularen iparraldeko gaztelanian /θ/ hortzartekoa sortu bazen ere, Mikoletaren garaian halakorik ez zegoela proposatu dut: alde batetik, hispanistek fenomeno are berankorragotzat jo izan dutelako; beste alde batetik, Mikoletarenean *seseo* deitu izan dena agertzen delako eta horrek ez diolako tarterik uzten hortzarteko ebakerari.
- Mikoletaren eskuizkribuan euskaraz <s>-k (ia) edozein txistukari adierazi ahal izatea arazo nabarmena da: tradizioz automatikoki lotu izan da txistukarien neutralizazioarekin, baina azalpena hankamotz geratzen da, ez baititu azaltzen *-sen* ‘-tzen’ bezalako aldaerak (afrikatuetakoa adibideak, alegia).
- Aurrekoaren argitan, neutralizazioaren ordeztu grafiko kontzientea dela uste dut, Ulibarrirekin (2015) bat etorritz. Hautu hori, gainera, ez da Mikoletarena bakarrik: mendebaleko (eta are Bilboko) beste testu batzuetan ere aurki daiteke: Andram, IbarraC, Sevilla1619, Basabilbaso, ZolloGald, ArrasBand, *Gtour* eta *DotrSerm* ere aipatu ditut §4.7.6.2 atalean.
- Ulibarriren ustez, <z>, <c> eta <ç>-k /θ/ adierazten zutelako erabili zuten zenbait euskal idazlek <s> (ia) edozein txistukari adierazteko. Bada, <s>-k apikaria zein lepokaria adieraz zitzakeela onartzen dut, baina /θ/-ren aukera baztertuta bururatzen zaidan aukera bakarra da pentsatzea <s> lepokariaren alofonotzat jo zutela, beharbada Lapesak aipatutako erdibideko [θ_s] ebakerekin loturik; [θ_s] ebakera arrunta izan ei zen Gaztelan eta Toledon (Satorre 1989: 286), eta ebakera fonetiko hori euskarazko frikari lepokaritik hurbilago egoteak sortu edo eman zezakeen aukera zenbait idazlek (edo idazketa-tradizio edo -eskolak) <s>-ren bidez euskal lepokaria adierazi ahal izateko.

- Aurreko ikuspegiaren ildo beretik azal litezke, beharbada, Landucciren hiztegian (§4.7.4.1.2) egiten diren zuzenketak zein IbarGC kronikako (§4.7.3.1.3) hiztegitxoetan lehenengo <s>-z ematen dena gero <ç> edo <z>-z ematea, batzuek eta bestetuek balio bera izango balute bezala; halaber, tesi honetan aipatu besterik ez ditut egin, baina agian azalpen beraren bidez argi litezke Nafarroako testu arkaikoetan agertzen diren gorabehera grafikoetako batzuk (gogoan ditut, bereziki, Amenduxen kantua eta prozesuetako euskal pasarteak).
- Aurreko ikuspegiak ez ditu azaltzen, halere, Lehenengo Euskara Modernoko adibideak: Ulibarrik /θ/-ri loturik emandako azalpena baliagarria izan liteke XVIII. mendearen amaierarako, hala nola *Dotrinazko sermoitegi*-rako eta ZolloGald testurako.
- Mikoletaren euskal txistukariei dagokienez, <s>-k apikari zein lepokariak adierazi ahal izateak oso tarte estua uzten du neutralizazioa aztertzeke; aitzitik, zenbait bikotek (5v *baçaça*, 5v *suritaçuna*, 6r *eroçi...*; 6r *auza*, 8v *mazorria*, 9v *lozea...*) eta batez ere hiperzuzenketatzat jo litezkeen zenbait kasuk neutralizazioa bazela pentsarazten didate, oraintsu arte uste izan den bezain aurreratua zegoen esaterik ez dagoen arren.

6.2. Ondorioak kronologiaz

6.2.1. Aztertutako ezaugarrien kronologiaz

6.2.1.1. Tesi honetan aztertutako ezaugarri zaharrenak Erdi Aroko zenbait aldaera lexiko dira; zehazki, *barri* eta *baltz*, eta (*h*)*uri*. Hiruren artean (*h*)*uri*-k dirudi zaharrena, Errioxako eta Burgosko IX. eta X. mendeetako toponimian agertzen baita, eta horrek Arabatik VIII. mendearen bigarren erdian abiatutako migrazioekin lotzen baitu (§5.2.2.1.3). *Barri* eta *baltz*, berriz, X-XI. mendeetan lekutzen dira lehenengoz, nahiz eta duten hedadura zabala dela-eta lehenxeagotzat (IX. mendea?) jo daitezkeen.

6.2.1.2. Hemen aztertutako Erdi Aroko berrikuntzen artean $a + a > ea$ ere zaharrenetarikoa da: XI. mendearen hasieran agertzen da lehenengoz Arabako toponimian (eta aldaera disimilaziodunak ez dira bakar) eta mende baten buruan Errioxakoan, baina artikulua mugatuaren gramatikalizazioarekin lotutako ezaugarria

izanik, aurretik sortu zela proposa liteke, IX-X. mendeetan (*post* VIII eta *ante* XI, edozein kasutan).

6.2.1.3. Tesi honetako aztergai nagusietan beren-beregi aztertu ez arren, §5.2.2.3 atalean ezaugarri (mor)fonologikoen osagarri emandako deskripzioarekin bat, *egin* aditz laguntzailearen gramatikalizazioa Erdi Aroaren azken mendeetakotzat (XIII-XIV. mendeak?) jo dut hala **ezan*-ekiko banaketa nola hedadura zabala aintzat hartuta.

6.2.1.4. Adizkietako $a + a > ea$ disimilazioa aurreko disimilazioaren eraginpean sortutakotzat daukat, baina berankorragoa bide da, eremu geografiko nabarmen txikiagoa hartzen baitu. Lehenengo adibideak Euskara Arkaikoko testuetakoak dira, baina XV-XVI. mendeetan duen hedadura zabala aintzat hartuta, Erdi Aroaren amaieran sortu zelakoa daukat (XIII-XIV. mendeak?).

6.2.1.5. Bokalerdiaren ondoko palatalizazioa Erdi Aroko onomastikan agertzen da, baina ez dirudi berrikuntza zaharrenetakoa denik: XI. mendean ez dut adibiderik aurkitu Bizkaian, Araban, Gipuzkoan eta Errioxan begiratutako toponimoetan, baina XIII. mendean sabaikaritzea badago toponimo berberetan. Halaber, ezaugarriaren hedaduraren irizpidearekin bat, Erdi Aroko azken mendeetakoa dela ematen du (< XIII. mendea).

6.2.1.6. Hasperenaren galera prozesu luze eta malkartsua izan zen, eta ziurtasunez berba egiteko aztertu eta ustiatu beharreko iturrien inguruko ezagutza ez da behar bestekoa (Mitzelena 1982a: 411, Salaberri Zaratiegi 2018: 322); aitzitik, oro har onartua da Nafarroa Garaian lehenago galdu zela: nafar erromantzearen eraginarekin lotu zuen Mitxelenak galera (§4.1.2), eta X. menderako gertatutzat jo, nahiz eta Manterolak (2015: 300-301, 341, §7.3.1.2) azken arrastotzat dituen Beriainen zenbait adibide morfologiko.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan badirudi galera berankorragoa izan zela, eta gaztelaniaz ere hasperena galdu izanaren eraginpekoa: badirudi Euskara Arkaikoaren ateetan galdu zela guztiz hasperena Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Erdi Aroaren azken hiruzpalau mendeetan zehar. Kronologia horrek bat egiten du, hain zuzen ere, gaztelaniazko hasperenaren galerarekin, eta horren eraginpean azal daiteke euskal hasperenaren galera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskaretan.

6.2.1.7. *Egin* aditz laguntzailearen kasuan legez, **edutsi* aditz laguntzailearen lehenengo adibideak Euskara Arkaikokoak dira, eta hedaduraren eta sistematikotasunaren irizpideak baliatu behar dira kronologia erlatiboa proposatzeko. Horien arabera, bada, **edutsi*-ren gramatikalizazioa Erdi Aroaren azken mendeetako

(XIII-XIV?) berrikuntzat daukat; **eradun* eta *-*i-* zahar eta ustez komunak ordeztu bide zituen **edutsi*-k.

6.2.1.8. Erdi Aroan gertatutako aldaketa linguistikoak berreraikitzea eta kronologia erlatiboan bidez bada ere antolatzea ez da beti erraza, hainbatetan ondoko garaietako (XVI. mendetik aurrerako) materialak eta banaketa dialektalak besterik ezin direlako erabili lehenagoko garaietako egoera linguistikoak bereizteko. Euskal Herriko mendebalari dagokionez, nolana ere den, Euskara Batu Zaharraren ondoren bi garai bereizi behar dira gutxienez:

– Lehenengo garaia zaharrena da, VIII. eta XI-XII. mendeen artekoa. Hemengo aztergaiei dagokionez, ordukoa da $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoa eta ordukoak dira bigarren mailako aldaera lexikoak; orduan banatu bide zen *Mendebaleko Euskara Zahar* deitutakoa goragoko unitate batetik. Garai hartan Araba (Gasteiz eta Arabako lautada) zen mendebaleko euskararen ardatz, eta aipatutako mendeetan eta hurrengoetan handik hedatu bide ziren garaiko berrikuntza esanguratsuenak. Nire ustez, *egin*-en gramatikalizazioa izango litzateke *Mendebaleko Euskara Zaharra*-ren berrikuntza zabalenetan azkena.

– Bigarren garaia Euskara Arkaikoaren aurrekoa da, XII edo XIII-XV. mendeen artekoa: sasoi horretarako proposatu behar dira aurrekoak baino eremu linguistiko txikiago txikiagoa besarkatzen duten ezaugarriak, zuzenean lekukotuak ($Vj(t)z \rightarrow Vj(t)x$) zein ondoren bakarrik lekukotuak ($a + a > ea$ adizkietan, **edutsi*, erro bereko erakusleak...) izan. Mendebaleko Euskara Zaharraren barnean zatiketa gertatu zen arian-arian mende horietan, eta *Mendebal Muturreko Euskara* sortu.

6.2.1.9. Bokal sudurkarien sorrera * $VnV > \tilde{V}\tilde{n}V > \tilde{V}\tilde{V}$ prozesuarekin lotzen da (Egurtzegi 2014: 148), eta azken pauso hori Aitzineuskara Modernoaren eta Euskara Batu Zaharraren artean kokatu zuen Lakarrak (2011: §4.4). Mendebaleko euskara dela eta, beraz, luzaroan iraundako ezaugarria dira bokal sudurkariak: hala zuzeneko lekukotasunak (Madariaga, Garibai, Kapanaga) nola gerora berrezarritako kontsonanteak aintzat hartuta, arrunki proposa daitezke XVI. mendeko hizkeretarako, eta XVII.eko zenbaitetarako. Azken adibide ziurrak *Dotrinazko sermoitegi*-koak dira, XVIII. mendearen amaierakoak: arkaismotzat jo behar dira behin-behinean, baina aintzat hartu behar da sudurkariak ez adieraztea dela joera nagusia garai guztietako testuetan, eta horrek fenomeno ostendu zezakeela eta eremu gehiagotan iraun zezaketela.

6.2.1.10. Txistukarien neutralizazioaren bilakabidean hiru aro bereiz daitezke:

- Lehenengoa Euskara Arkaikoari dagokio, eta ez dirudi neutralizazioa mendebalean beste inon baino askoz aurreratuago zegoenik: kokagune ahulenetan (herskari aurrean eta berba amaieran) adibideak aurki daitezke hala Arabako eta Bizkaiko nola Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko testuetan, nahiz eta Landuccirenean ugariagoak diren herskari aurrean; badirudi, beraz, arrunt zela, Hego Euskal Herriko euskaran behintzat, kokagune horietan tarteka neutralizazioa gertatzea. Gerora hedatuko zen neutralizazio-prozesuaren aurrekaria baino gehiago, kokagune ahulenetan gertatutako eta tipologikoki arrunt den neutralizazioa gertatzen zen, tarteka, Euskara Zaharreko testuetan.
- Bigarren aroa Euskara Zaharrarekin batera agertzen da, eta mendebalean arian-arian neutralizazioa indartzeari eta hedatzeari dagokio: kokagune ahulenetako adibideak ugaritu egiten dira XVII. mendean geroztik zenbait eremutako testuetan, eta hamarkadetan aurrera egin ahala horietan sistematizatzeaz gain, beste kokagune batzuetara ere hedatzen dira: neutralizazioak gaitzago gertatzen diren hitz hasierara eta bokal artera, zehazki. Bestalde, neutralizazioaren adibideak garbi agertzen dira frikari zein afrikatuetan.
- Hirugarren aroa burutze-aroa da, eta Lehenengo Euskara Modernoari eta, are zehatzago, XVIII. mendearen bigarren erdiari dagokio. Ordurako neutralizazioa burututa agertzen da Bizkaiko zein Gipuzkoako mendebaleko hainbat testutan (ez, ordea, Arabako ekialdekoetan) hala frikarietan nola afrikatuetan. Bereizketaren erabateko galera eremu zabaletan orokorra zen ordurako, nahiz eta eremu gordetzaileak oso berandura arte egon (Markina aldeko baserrietan XX. mendearen hasierara arte) eta 1730eko hamarkadaz geroztiko idazle-talde batek (Arzadun, Urkizu, Kardaberatz, Olaetxea, Mogel, Añibarro...) bereizketa grafikoari eutsi zion (§5.3.2.2).

6.2.1.11. Ozen ondoko txistukarien ebakera garairik garai zein izan zen zehaztea eta ikuspegi orokorra ematea zaila da, oro har Larramendiren aurreko idazleek ez zituztelako frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizi (cf. Lakarra 1985a, Urgell 1987a: 359 eta 2018: 608). Nolanahi ere den, hautu grafiko jakin batzuen banaketa ikusita

(funtsean, afrikatu izan behar dutenak adierazteko erabilitako grafemak inoiz ez agertzea frikarietan eta ozen ondoren), kasu honetan ere hiru garaiz bereiz daitezkeela dirudi.

- Lehenengo garaian frikari ebakitzen bide ziren ozen ondoko txistukariak: kronologian askozaz goragotik datorren ebakera da.
- Bigarren garaia Euskara Zaharrari dagokio: XVIII. mendearen hasieran afrikatu-ebakeraren zantzuak eta adibideak aurki daitezke zenbait testutan.
- Hirugarren garaia burutzeari dagokio, eta Lehen Euskara Modernoari (eta batez ere 1750az geroztiko testuei) lotzen zaio: nahaste grafikoek islatzen dute afrikatu-ebakera arrunt zela hizkera gehienetan.

6.2.1.12. Beheko bokalaren asimilazioa edo *Rui* Euskara Zaharreko berrikuntza da, bete-betean. VJesus-en (ca. 1640) indar betez agertzen dela eta, zentzuzkoa da pentsatzea XVII. mendearen lehenengo hamarkadetan sortu zela. Euskara Zaharretik gaur egungo euskarara asimilazioak ez du gainbeherarik izan, baina testuen bidezko jarraipena egitea zaila da; izan ere, idazleen hautuek (§5.3.2.1) zaildu egiten dute non zegokeen (eta non ez) argitzea. Lehen Euskara Modernoan, nolana ere den, hedatuago agertzen da Bizkaian ez ezik, Hego Euskal Herriko hainbat hizkeratan ere: berrikuntza poligenetikoa da, eta XVIII. mendearen erdialdetik (eta areago 1775etik edo 1850etik) hurrago, ugariago agertzen da Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko testuetan. Egungo hedadura zabala, nolana ere den, oso modernoa da: Bizkaian, adibidez, badirudi XIX. mendearen bigarren erdian hedatu zela erdi-ekialdeko hiribilduetara.

6.2.1.13. *Bokal bikoitzak* izendapenaren barnean askotariko eta bereizi beharreko bokal bikoitzak multzokatu ohi dira, erosotasunez; aitzitik, ikuspegi diakronikotik behintzat oso aintzat hartu behar da bokal bikoitz guztien jatorria, kronologia eta bilakabidea ez direla berberak. Oro har, bi sail nagusi bereizi behar dira, jatorria zein den: alde batetik, bokal arteko kontsonante baten galerak eragindakoak daude, eta horiek dira interesgarriagoak ikuspuntu diakronikotik; beste alde batetik, tinbre bereko bokalak elkartzetik edo hiatoan $a.e > ee$ asimilazioa gertatzetik sortutakoak daude. Ikuspegi kronologikotik zenbait ideia bereizi behar dira mendebalean bokal arteko kontsonante baten galerak eragindako bokal bikoitzei dagokienez:

- Alde batetik, bereizi egin behar dira erro barrukoak eta erroz kanpokoak: Euskal Herriko mendebalean, gainerako euskalkietan legez,

VCV > VV galerak gertatzen direnean soiltzea da hiatoa hausteko aukera zaharrena, eta hortik dator $a + a > ea$ disimilaziorik eza erroetan: *zahar > zar* gertatu da baita mendebalean ere, ez **zear* (De Rijk 1970). Besterik da, ordea, beste euskalki guztietan (-*ea* eta -*ara* sortu ez direnetan) erro barruko bakuntze hori kanpora ere atera dela, Mendebalean ez bezala.

– Beste alde batetik, Euskal Herriko erdi-mendebala bokal bikoitzetan gordetzaile izan dela aipatzean, noiz eta zein eremurekiko gordetzaile izan diren zehaztu behar da: erdialdean soiltzea orokortu zenetik aurrera jo litezke arkaismotzat mendebal zabaleko bokal bikoitzak. Areago, VhV > VV > V bezalako katea batean forma zaharrena hasperena gorde duten hizkeretan dago: izan orain(tsu) arte hasperena gorde duten Ipar Euskal Herriko hizkerak, izan Erdi Aroaren amaierara arte hasperenari eutsi zioten Hego Euskal Herriko hizkerak.

– Bokal bikoitzen adibideei dagokienez, galera mailakatua (eta, zehatzago, eremukakoa eta garaikakoa) agertzen da Euskara Arkaikoaz geroztik: RS-n gutxiengoa dira VCV > VV lako bokal bikoitzak, eta XVI. mendean geroztiko testuetan areago urritzen dira, eremu eta testu jakin batzuetan izan ezik; areago, Lehenengo Euskara Modernora hurreratu ahala ihartuta legez agertzen dira, berba gutxi batzuetan (hala nola *lehen > leen*) behin eta berriz, eta Euskara Zaharraz geroztik ugaritu egiten dira *ae* zaharraren ondotik asimilazioz sortutako *ee*-ak.

6.2.1.14. Erdiko bokalen igotzeek eta kontsonante aintihiatikoez izaera eta joera bat partekatzen dituzte: fenomeno poligenetiko beregainak dira, eta Hego Euskal Herrian Lehen Euskara Modernoan ugaritzen dira; XVIII. mendean aurrerago, indartsuago agertzen dira, batez ere 1750etik aurrera:

– $e \rightarrow i$ /_V-ren adibide zaharrena arazotsua da, ustez Araban agertzen baita XI. mendean: *Havaunzia* (*Becerro Galicano*, 1089). Arazotsua dela diot, Araban ez baitut halakorik ikusi XVII. mendearen amaierara arte: *hapax*-a dirudi Erdi Aroko eta Euskara Arkaikoko materialen artean, eta ez dut baztertzeko eskribauaren akatsa edo -*aia* epentesiarekin lotutako nahastea/bilakabidea izatea. Garai historikoan, bestalde, XVI. mendean badago adibide bakanen bat Debako testuetan zein IbarGC kronikan, baina ugaritu (alegia, testuetan sarriago eta testu gehiagotan agertu)

Lehen Euskara Modernoan ugaritzen da Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako testuetan.

– $o \rightarrow u / _V$ -ren adibideen kronologia parekoa da: Euskara Arkaikoan badago adibide bakanen bat (kasu honetan errimari loturik), Euskara Zaharrean XVII. mendearen amaieran eta XVIII.aren hasieran ere badaude adibide gutxi batzuk, baina 1730etik (eta, batez ere, 1750etik) aurrera ugaritzen dira Hego Euskal Herri osoko testuetan.

– $-ubV$ da kontsonante antihiatikoen adibide ziur zaharrena Hego Euskal Herriko testu historikoetan: mendebalari dagokionez, Aiara aldean adibideak daude XVI-XVII. mendeetan (cf. Abendañoaren *ditubala* eta Urduñako hiztegiko *ustapicuba*, esate baterako). Ugaritu, ordea, XVIII. mendean ugaritzen dira adibideak, batez ere mendearen bigarren erdian. Ezaugarri honen erabilera ere tentuz aztertu behar da XVIII. mendearen amaieraz geroztik, literatur hizkeretan beste eufonia batzuk baino aiseago eta lehenago onartu baitzen (§5.3.2.3.2), eta are Bizkaiko euskararen ezaugarritzat jo ere (Ulibarri 2015: 256). Nolanahi ere den, bilakabide osoa aintzat hartuta, sasoi batetik (XVIII. mendetik bertatik) aurrera atzera egin zuela argi dago: Gipuzkoako eta Sakanako eremu batzuetan besterik ez da erabiltzen gaur egun.

– $-ijV$ epentesiaren lehenengo adibideak aurreko hiru berrikuntzenak baino modernoagoak dira, XVII. mendearen amaierakoak Nafarroa Garaian (Reguero 2017: 549) eta 1737koak (Urkizu) Bizkaian. Aitzitik, $-ubV$ ez bezala, $-ijV$ agertu den hizkera guztietan sistematizatu da, eta gerora ere sistematikoki iraun du.

– Hizkera jakin batean aurreko berrikuntza bat baino gehiago agertzen denean, aukera dago bien arteko kronologia erlatiboa irudikatzeko, testuek halakorik erakutsi ez arren.

– $-ijV$ eta $e \rightarrow i / _V$ dauden hizkeretan lehenengoa da zaharragoa, eta hortik dator ***semija* ‘semea’ bezalako aldaerarik eza.

– Halaber, $-ubV$ eta $o \rightarrow u / _V$ dauden hizkeretan lehenengoa da zaharragoa, eta hortik dator ***astuba* ‘astoa’ bezalako aldaerarik eza.

– Aurreko arauen eta *Rui*-ren arteko kronologia erlatiboari dagokionez, ez dago eredu bakar bat ezartzerik; gutxienez bi eredu aurkitu ditut Bizkaiko testuetan (§5.1.5.1.6.3):

- i. Lehenengo eredua *eredu gordetzaile* deitu dut, eta *Rui* zaharragoa da aipatutako lau eufoniak baino; hortik dator, adibidez, hizkera berean *ogie* baina *andria* erabiltzea.
- ii. Bigarren eredua *eredu berritzaile* deitu dut, eta arauen ordena alderantzizkoa da (alegia, *Rui* da berriagoa); hortik dator, adibidez, hizkera berean *diriela* ‘direla’ eta *gauziegaz* ‘gauzarekin’ erabiltzea.

6.2.1.15. Aurreko erregela orokorrez gain, hainbat eskualde, ibar eta herritan aurki daitezke bestelako berrikuntza eskusiboak, tokian tokiko hizkeraren bereizgarri direnak eta bertako hiztunen zein kanpokoek belarrietara ere nabarmen izan ohi direnak. Hemen adibide legez aztertu ditut *-obV* epentesia, *-u + aC > -ueC > -uiC* eta *-io- > -(i)u-* aldaketak, eta Uribe Kostako eta Ondarroako asimilazioak. Ikuspegi kronologikotik, bada, argi dago horiek guztiak (oso) modernoak direla: lehenengo sortako adibide zaharrenak XVIII. mendekoak dira, eta bigarrenekoak XX.aren hasierakoak. Ordukotzat jo beharrekotzat ditut, beraz, eremu lektal txikiak edo txikiak (auzoak, herriak edo [azpi-]eskualde eta ibarren eremuak) ezaugarritzen dituzten ezaugarri (sarritan) eskusiboak, gaur egun tokikoan tokiko zein bestelako hiztunentzat nabarmen edo *salient* direnak.

16. taula. Mendebaleko berrikuntzen joera kronologiko orokorrak⁵⁰⁸

Ezaugarria	E. Aroa			Euskara Arkaikoa	Euskara Zaharra		Lehen Euskara Modernoa	
	VIII-X	XI-XII	XIII-XV	1400-1600	1600-1680	1680-1730	1730-1750	< 1750
<i>(h)uri</i>	x							
<i>barri, baltz</i>	*	x						
<i>a + a > ea</i> (morfonol.)	*	x						
<i>a + a > ea</i> (adizkiak)			*	x				
<i>Vjz > Vjx</i> <i>Vjtz > Vjtx</i>			x					
<i>egin-en gramat.</i>			*	x				
<i>*edutsi-ren gramat.</i>			*	x				
Hasperenaren galera		*	x					
Bokal sudurkarien galera					*			
Txistukarien neutralizazioa				*	x			
Ozen ondoko frik. > afrik.						x		
<i>Rui</i>					x			
Bokal bikoitzen ihartze orokorra			*	*	x			
<i>e → i/_V</i> ⁵⁰⁹						x		
<i>o → u/_V</i>						x		
<i>-ubV</i>						x		
<i>-ijV</i>						*	x	
Berrikuntza lokalak								x

⁵⁰⁸ <x> ikurrak berrikuntza bakoitza noiz indartzen / orokortzen den adierazten du. <*> ikurra erabili dut, bestalde, zuzenean lekutu ez arren nire ustez berrikuntza proposa daitekeen garai zaharragoetarako.

⁵⁰⁹ Hala honetan nola hurrengo hiruretan fenomenoak noiz ugaritzen diren adierazi dut, ez lehenengo agerraldia(k).

6.3. Ondorioak geografiaz

6.3.1. Berrikuntzen sorguneez eta hartzaileez

6.3.1.1. Tesi honek azken urteotan (cf. Urgell & Lakarra 2008, Zuazo 2010a eta 2012, 2019, Aldai 2014) hedatutako ideia bat berresten du: Euskal Herriko mendebaleko euskararen zenbait ezaugarri estrukturalak duten hedadura errazago azaltzen da Gasteiz aldean sortu eta handik hedatu zirela proposatuz; alegia, Erdi Aroan mendebaleko euskaratzat jo zitekeen unitate linguistikoaren (Mendebaleko Euskara Zahar) ezaugarri dialektal garrantzitsuen fokua Gasteizen eta Arabako lautadan kokatuta: ideia horrek, agerikoa denez, oraintsu arte Arabako euskararen izaeraz, egitura geolinguistikoaz eta eraginaz zegoen ikuspegia (edo ikuspegiarik eza) aldarazten du (cf. Camino 2019).

6.3.1.2. Aurreko ideia onartuta ere, foku berritzaile horren indarraldiaren iraupena erlatiboki besterik ezin daiteke mugatu: ikerketa arkeologikoen demografiaz eta bizilekuaren garrantziaz eman dituzten datuen arabera, are hiribildu gisa fundatu aurretik ere kokaleku geostrategiko garrantzitsua zen Gasteiz, eta hala izaten jarraitu bide zuen Erdi Aroaren azken mendeetan ere. Hartara, izaera eta garrantzi horrekin lot daiteke Gasteizen (eta, horri loturik, Arabako lautadaren edo Arabako lautadaren zati baten) itzala hizkuntzaren esparruan X-XIV. mendeen artean.

6.3.1.3. Euskal Herriko erdi-mendebalean ez dago (edo ez da aurkitu) Arabakoaren pareko egitura demografikorik (kokagune garrantzitsu nagusi bat eta bigarren, hirugarren... mailako biztanleria-guneak) hain antzina. Bizkaiko hiribildu zaharrenak XII-XIII. mendeetan fundatu ziren jaurerriaren barnealdeko ibarretan eta Bermeon; hain zuzen, azken hori Bizkaiko buru izan zen harik eta 1300. urtean Bilbo fundatu zen arte. Gipuzkoan ere XIII-XIV. mendeetakoak dira hiribildu gehienek fundazioak: salbuespena Donostia da, mende bat lehenago fundatu baitzen, eta gogoan hartu behar da Gipuzkoako kostaldeko herri gehienek eta barnealdeko gutxi batzuek Donostiako forua hartu zutela.

Bizkaian eta Gipuzkoan Bermeo, Bilbo eta Donostiaz gainerako hiribilduak denbora-tarte erlatiboki laburrean (bi mende) fundatu eta egituratu izanak zaildu egiten du jaurerriko eta probintziako XIII-XIV. mendeetako foku berritzaile zehatzez berba egin ahal izatea, hedadura zabaleko ezaugarriak hizpide hartzen direnean behintzat; gehienek ere arian-arian sortutako hiribilduen sarean eta hiribilduak sortu aurretik inguru bertseuek zuketean garrantziarekin lot daitezke hedadurari buruzko interpretazioak.

6.3.1.4. Aurrekoarekin loturik, hiribilduak sortu aurretik besteak beste migrazioei eta merkataritzari eta langintza tradizional zaharrei lotutako harremanen eta hiribilduak sortu ondoren horien indar grabitatorioekin lotzekotzat ditut bai Arabatiko berrikuntzen hedadura, bai Mendebaleko Euskara Zaharraren barneko zatiketen geografia.

Alde batetik, gogoratu egin behar da gune fokal jakin batean sortutako berrikuntzak inguru hurbiletara hedatu ohi direla lehenbizi, eta inguruetara hedatuta indarra areagotzearekin batera zabaldu ohi direla, zabaltzekotan, urrunagoko beste eremu batzuetara; alegia, ez da zertan pentsatu, eta ez dirudi errealista denik hala egitea, Gasteizek zuzenean eragin zuela Mungian, Markinan edo Urretxun. Errealistagoa da pentsatzea Gasteizen sortutako berrikuntzak Arabako lautadan eta bereziki Gasteizekin hartu-eman estuagoa izan zuten hiztun-erkidegoen artean hedatu zirela lehenbizi, eta ondoren, arian-arian eta bidez bidez zabaldu zirela zenbait norabidetan (cf. González de Viñaspre 2011: xxxiii, Camino 2019 eta hemengo §5.2.2.1.2 eta §5.2.2.1.4).

Beste alde batetik, nabarmendu egin nahi dut berrikuntza baten difusioaren arrakasta gune hartzaileek bermatzen dutela: Gasteizek ezin zituen ezaugarriak zuzenean hedatu Berango, Busturia edo Lekeitiora; aitzitik, horietaraino iritsi izana errazago azaltzen da Gasteizen eta horien artean dauden hiriguneen sareari begiratuta: sare horretako adabegiak berritzaile ziratekeen, inondik hartutako berrikuntza bere egin eta inora hedatzeko lagungarri.

Beste alde batetik, ezaugarri estruktural zaharrenean sorlekua Gasteiz izateak ez dakar X-XV. mendeetan Euskal Herriko mendebaleko gune berritzaile bakarra Gasteiz zenik: zalantzarik gabe, besterik egotekotan ez litzateke izango Gasteiz bezain garrantzitsua eta indartsua nahi bada, baina XII-XIII. mendeen osterako proposatutako bestelako berrikuntza batzuen ($a + a > ea$ adizkietan, **edutsi*-ren gramatikalizazioa, bokalerdien ondoko txistukarien palatalizazioa...) hedadura berdintsu) azal litezke Gasteiztik abiatuta zein Bilbotik eta azken horri lotutako sare batetik (Bilbo ↔ Bermeo ↔ Durango?) abiatuta. Zer esanik ez berrikuntzek jaurerriaren mugak zeharkatzen ez dituztenean, izan Erdi Arokoak, izan modernoagoak, zein bere kronologiarekin: cf. norabide-adlatiboko *-rantza* aldaera, Zuazok (§2.6.4.1) aipatutako *-txu* eta *-tuten* aldaerak, **edun*-en adizkietan *-o-* nagusitu izana, kontsonanteen berrezarpena sudurkariak zeuden lekuetan, txistukarien neutralizazioa eta abar.

6.3.1.5. Bizkaiko berrikuntza-fokuei dagokienez, datuek ez dute erakusten historikoki Bilbo hiri gordetzailea izan denik. *Gordetzaile*-tzat jotzean adierazi nahi

bada antzinatean ez zuela Gasteizek bezainbesteko garrantzirik izan edo Gasteiztiko hedadura zabaleko berrikuntzaren parekorik sortu ez zuela-eta ezin dela Mendebaleko Euskara Zaharraren epizentro nagusitzat jo, ados nago; aitzitik, *gordetzaile* etiketa bestelako kokaguneez aritzeko erabili ohi da: berrikuntzarik sortu ez eta inondikoak ere nekez hartzen dituztenez aritzeko (§2.4.4.3). Bilbo bigarren mailako gunea izan zitekeen Erdi Aroaren azken mendeetan eta ordutik garai modernora arte; baina, mendebaleko euskararen (hala zaharraren nola mendebal-muturrekoaren) egituraketan gunea aktibo eta berritzailea izan zelako ideiarene alde egiten dute, nire ustez, hiriarri buruzko datu sozioekonomikoek eta dinamika linguistikoek:

- Alderdi sozioekonomikoari dagokionez, Erdi Aroan hegoalderagoko lurrak (Araba, Gaztela) kostaldearekin Bizkaian barrena lotzen zituzten bide nagusi guztiek Bilborekin ere bazuten lotura; are gehiago, María López de Harok Urduñatik Bermeorako bidea Bilbon barrena egin beharra xedatu zuen 1310ean. Bestalde, Bilbo aldeko meatzaritza eta itsasadarrarari lotutako jarduera ekonomikoa hiribilduaren beraren fundazioa baino zaharragoak dira.
- Alderdi linguistikoari dagokionez, indar gehiago egingo dut argudioetan:
 - Bilboko euskara modernoan agertzen diren arkaismoak ez dagozkio Bilbori bakarrik: Bizkai sartaldeko hainbat eremutan aurki daitezke, eta Euskal Herri osoari begira bazter-eremuen izaerarekin lotu behar dira; alegia, Bilbo ez da (ez iraganean, ez XX. mendean) uharte gordetzailea izan Bizkai euskararen egitura geolinguistikoan: aldameneko ibar eta hiriguneetako dinamika berritzaile eta gordetzaileen partaide izan da.
 - Bilboko euskara modernoan arkaismotzat jo daitezkeen ezaugarriak ez dira beti arkaismo izan: aoristoa, adibidez, arrunta izan da Bizkaiko zenbait testutan Euskara Zaharrera bitartean. Egun arkaismotzat jo daitezkeen ezaugarriek, beraz, ez zuten zertan arkaismo izan XVII. mendean, eta are gutxiago XV.ean edo XIII.ean, Mendebaleko Euskara Zaharraren barnean berrikuntzak zabaltzen eta zatiketak gertatzen ari ziren garaian.
 - Bilboko XVII. eta XVIII. mendeetako testuek ez dute hizkera bereziki gordetzailerik erakusten: Aiaraldeko *Dotrinazko sermoitegia*-k Mikoletak ez dituen hainbat ezaugarri zahar ditu, adibidez, nahiz eta ia

mende eta erdi beranduagokoa izan. Bizkaikotzat jo daitezkeen berrikuntza guztiak agertzen dira Mikoletaren testuan; adibidez, *-tuten* bilbotarraren eskuizkribuaren agertzen da inon baino lehenago, eta zenbait adizkitako $a + a > ea$ disimilazioak Bilbo aldeko testuetan besterik ez ditut aurkitu.

– Larramendiren eta Mogelen kritikak eta karikaturizazioak bazter utzita, garai modernoagoko iturrietan agertzen den Bilboko euskara ere bizia da, eta sasoiko joerekin egiten du bat: Aranzazugoitia eskribauaren galdetegian badaude zenbait ezaugarri zahar, baina Bizkai sartaldeko beste eremu batzuetan ere aurki daitezke; bestalde, agertzen diren berrikuntza batzuek bete-betean kokatzen dute testua Lehen Euskara Modernoko dinamiken menpe.

– Bilboko euskara modernoak Nerbioi ibarraren iparraldekoarekin du lotura handiena; beraz, atomismoa saihestu behar da hiriguneko euskararen lekukotasun modernoak aztertzean: Nerbioi ibarraren iparraldeko hizkerak Bilbokoa barne biltzen zuen 1750az geroztik gutxienez, hizkera horrekin lotuta aztertu behar da, eta hizkera horretan ez dago arkaismo eksklusibo berezirik; are gehiago, fonologiaren esparruan inguruetakoa (Txorierri, Arratia eta Zeberio, Orozko...) hizkerak baino berritzaileagoa da.

6.3.2. Ezaugarrien difusio-ereduez

Tesi honek dialektologiaren eta geografia lingustikoaren esparruak bete-betean jotzen dituela eta, ahalegin berezia egin nahi izan dut ezaugarrien hedadura ez eredu orokorren bidez (edo ez horien bidez bakarrik, behintzat) baina azken hamarkadotan geolinguistikaren (§2.4.2) arloan deskribatu direnen bidez azaltzeko. Aztertutako ezaugarriek, hain zuzen ere, eredu nagusiez aritzeko aukera eman didate.

6.3.2.1. Errioxako eta Burgosko euskara dela eta, migrazioekin lotutako birkokatze linguistikoa proposatu dut (§5.2.2.2); alegia, lehenengo migrazio-uholdeari lotuta behintzat ez dela uhinen teoria baliatu behar, ordukoan ez baitzen difusio epidemikorik gertatu *stricto sensu*: Arabatik hegoalderantz jo zuten arabarrek (bir)populatutako eremuetara eurek eramane zuten euskara, *birkokatze* deitu ohi dena gertatu zen, hiztunek ez baitzuten inongo euskarara hedatu Arabako ezaugarri

linguistikorik. Horri loturik, migrazioon artean bi geruza bereizi izan dituzte historialariek: Petersonek (2009, 2011) defendatzen duenez, lehenbizikoa VIII. mendearen bigarren erdian gertatu zen (eta, horri loturik, begiratu, Errioxako *Zufiuri* [947] arazotsuaz gain, Burgosko *Magaluli* [867], *Nafarruri* [971] eta *Ulascori* [962] toponimo *-uri*-dunak); bigarrena, bestalde, egonkortasun-garai baten ondoren, XI. mendean.

Kronologiaren eta banaketa dialektalen ikuspuntutik, Mendebaleko Euskara Zaharrari lotutako lehenengo ($a + a > ea$) zein bigarren eta hirugarren (aldaera lexikoak, $e \rightarrow a /_r...$) mailako ezaugarriak agertzen dira Errioxako eta Burgosko euskal materialetan (ez, aldiz, Mendebal Muturreko Euskarari lotutakoak, hala nola $V_j(t)z \rightarrow V_j(t)x$ –ez irakurketa ziurra eta dokumentazio zaharrena duten kasuetan, behintzat–).

6.3.2.2. Garai zaharrenetarako (hiri eta hiribilduak sortu aurreko garaiak, nahiz eta horiek sortu ezker ere eredu ez den agortutzat eman behar) bidez bideko difusioan jarri dut arreta; izan ere, zaila da bestelako eruedetan pentsatzea, eta anakronismoetan sartzeko arriskuak handiak dira, oso. Ezaugarri linguistikoen difusioak lotura zuzena du hiztunen mugikortasunarekin eta hiztun-sareen arteko harremanekin; beraz, hemen landutako garai zaharrenetarako, ezinbestekoa iruditzen zait lurraldeak historikoki lotu izan dituzten bideen eragina lehenestea, izan erromatarren garaiko galtzadak (*Ab Asturica Burdigalam*, Araban), izan merkataritza-harremanekin lotutakoak (Arabatik Bizkaiko eta Gipuzkoako *hinterland*-era zein kostaldera zihoazenak).

Bideekin eta lurraldeen hiribildu-sareen antolamenduarekin lotu dut ezaugarri zaharreneen hedadura (§5.2.2.1.2), eta gogorarazi dut lehen begi-kolpean oztopotzat jo litezkeen elementu orografikoek ez dutela zertan hala izan (cf. Aizkorri mendialdeaz edo errekez esanak, adibidez). Harreman sozialek eta ezaugarri linguistikoen pertzepzioak ere berebiziko garrantzia dute berrikuntzen difusioa arrakastatsua izan dadin, baina eskueran dauden datuekin ezinezkoa da horien inguruko proposamen ziurrik eta sendorik egitea.

6.3.2.3. Itsasoa muga linguistiko nabarmena izan daiteke herrialdeen eta (batez ere) hiztun-komunitateen artean; aitzitik txistukarien neutralizazioaren hedadura aztertzeak besterik ere izan daitekeela erakusten du (§5.2.4.1.2): itsasoa konbergentzia-eremu ere bada Euskal Herrian, badago *itsaso linguistiko* bati buruz berba egiterik, lurraldearen barnealdeari neurri batean kontrajartzen baitzaio; arrantzaleen portuz portuko harremanak lagungarri izan daitezke berrikuntzen bidezko konbergentziak eragiteko, eta hala erakusten du txistukarien neutralizazioak Gipuzkoako eta Lapurdiko

kostaldeetan duen banaketak: neutralizazioa portu-herrietan eta horiekin harreman sarria izan duten eremuetan aurreratu da bereizketak gorde dituzten barnealde(rago)ko lurren aurka.

6.3.2.4. Txistukarien neutralizazioaren azterketak, hain zuzen ere, uhinkako ikuspegia baino difusio ohikoagoa azalerazi du: *eredu hierarkiko* deitu ohi dena; alegia, foku berritzaileen indarra foku horietako masa demografikoarekin zuzenean lotzen duena: berrikuntza linguistikoak lehenago hedatzen dira masa demografiko bertsua duten guneen artean, eta ur-jauzia balitz bezala, dentsitate demografiko txikiagoko eremuetara zabaltzen dira ondotik, oro har hierarkiari jarraikiz.

Txistukarien neutralizazioaren hedadura eredu geolinguistiko horren arabera azaltzen da ondoen, adibideak oro har etengabe agertzen baitira hiribilduetako idazleek idatzitako testuetan eta datu modernoek ere hori erakusten baitute. Txistukarien neutralizazioaren difusio-eredu hierarkikoaren alde argien egiten duen iturri garrantzitsuenetarikoa, garrantzitsuena ez bada, Lubieta donostiarraren hiztegia da; izan ere, oso aurreraturik agertzen da neutralizazioa bai apikarien alde, bai, gerora ere arrunt izan denarekin bat, lepokariaren alde.

Euskara Zaharrean neutralizazioa indartsu zegoen eremutik (Bizkai sartaldea) ehun bat kilometrotara dagoen Donostian neutralizazioa are Bizkaiko beste eremu batzuetan (hego-mendebalean zein sortaldean) baino aurreratuago egoteak fokukako difusioaren alde egiten du ezin argiago; baina, neutralizazioaren gauzatze fonetikoaren argitan, prozesu eta difusio-eredu konplexuetan pentsatu behar da nahitaez. Pentsa liteke Donostiak beregainki berritu zuela, berrikuntza poligenetikoa eta lokabea gertatu zela, aintzat harturik Lubietaren testuan euskal ondare zaharreko berbetan lepokariaren aldeko neutralizazioa dela arrunt, Donostiako egungo euskaran legez (Camino 2000: 69-70). Alabaina, ez da ahaztekoa apikariaren aldeko neutralizazioa ere badagoela, denboran arean atzerago eginda Urolan XVII-XVIII. mendeetan orekatuagoa dirudiela ebakera biek islatzen dituzten adibideen proportzioa eta txistukarien neutralizazioa (kokagune ahulenez haragoko neutralizazioa, behintzat) ondoz ondoko lurraldeetan gertatzen dela Gipuzkoan.

Donostiako (eta Gipuzkoako erdi-mendebaleko) neutralizazioetan bi geruza bereizita errazago azal liteke egoera. Nire ustez, lehenengo aro batean mendebaletik erdialderantz hedatutako “neutralizazio klasikoa” iritsi zen Donostiara Bilbotik zuzenean eta itsasoko zein *hinterland*-eko hiribilduetatik; bigarren aro batean, berriz, “neutralizazio klasikoa”-ren aurkako joeraren hiperzuzenketa sor zitekeen (hots,

jatorrizko apikariaren lepokari-ebakera), eta arian-arian hedatu Donostiatik bertatik, eremu tinkoa sortuz Gipuzkoan. Hartzaile ez ezik, berritzaile eta hedatzaile ere izango litzateke, beraz, Donostia.

Eredu hierarkikoetan oinarritutako azalpenak konplexuak izan ohi dira, difusioa ere fenomeno konplexua baita: ez da ahaztu behar eredu hierarkikoa ez dela beste eredu batzuen baztertzaile; are gehiago, arrakastaz deskribatu izan denean, beste eredu batzuekin batera konbinatuta deskribatu izan da: behin gune garrantzitsu batera iritsita, gune horren hurrengo inguruetara epidemikoki edo kutsaduraren bidez hedatu izan dira berrikuntzak.

6.3.2.5. Aurreko atalean aipatutako eredia da ohikoena eta, esan legez, ur-jauzi baten bidez irudikatu izan da: goitik behera gertatzen da difusioa, hirietatik hiriguneetara, hiriguneetatik herrietara, herrietatik auzoetara eta auzoetatik etxe sakabanatuetara. Aitzitik, gerta liteke berrikuntza ez hiri edo hiriguneetan baina herri edo landa-eremuetan sortzea eta aipatutako ur-jauzian behera egin beharrean gora egitea: *hierarkiaren aurkako eredu* deritzo difusio-mota horri, eta hemen aztertutako ezaugarrien artean badirudi beheko bokalaren asimilazioa azaltzeko aproposena dela.

Rui-ren banaketa azaltzeko hierarkiaren aurkako eredia proposatzeko arrazoi nagusia txistukariez aritzean aipatutakoaren aurkakoa da: nahiko berandura arte ez dago *Rui* asimilaziorik hiri eta hiriguneetan; bakanak dira 1750 baino lehen ezaugarriaren berri dakarten testuak, eta gehienak herrietakoak edo landa-eremuetakoak dira. XIX. mendeko datuek ere ikuspegi horren alde egiten dute: (oso) berandu iritsi bide zen Gernika, Bermeo, Durango eta Markina hiribildu eta eskualde-buruetara.

6.3.2.6. Azkenik, eufoniek jatorri poligenetikoko ezaugarrien adibide bikaina ematen dute: hain dira ezaugarri arruntak non historikoki hainbat leku eta garaitan gertatu diren. Erdiko bokalen igotzeek zein *-ujV* kontsonante epentetikoak duten hedadura modernoaren argitan lehen begi-kolpean pentsa liteke inondik inora zabaldutako ezaugarriak direla; alabaina, aurreko mendeetako testuetan erraz ikusten da gehiago direla elkarrekin lotu gabeko fenomeno beregainak, eta arruntasunak azaltzen du aurrekoa. Bilboko, Eibarko, Azpeitiko, Donostiako eta Hondarribiko hizkerak, beraz, ez dituzte *e* → *i/_V*-k edo *-ijV*-k lotzen: kasu honetan ez dago txistukarietarako erabilitako azalpen berbera erabiltzerik; horietako bakoitzean berrikuntza beregain berdina gertatu da, baina ez bera: prozesu gutxi gorabehera paraleloek emaitza berdinak edo bertsuak dituzte, eta horregatik egiten da berba *difusiorik gabeko difusio*-az halakoetan (Andersen 1988: 54).

Eufoniok ez zaizkio dialekto bakar bati lotzen: supradialektalak dira, aise gainditzen dituzte dialektoen mugak eta sortu diren lekuen inguruetara zabaltzean eta inguru horietan paraleloki sortutako bilakabide berdinekin lotzean, eremu zabalagoak irudika daitezke. Are gehiago, halako batean beste eremu bati edo batzuri kontrajartzen zaien eremu zabal, tinko eta bateratu bat eratuz gero, azpi-dialekto edo hizkeren ezaugarri definitzaile izan daitezke: Bizkai sartaldean ez dagoen baina sortaldetik Gipuzkoa eta Nafarroaraino iristen den $o \rightarrow u/_V$ proposatu dut Bizkai sortaldeko euskara definitzeko ezaugarrien artean, adibidez (cf. Zuloaga inprimategian-1).

6.4. Erdi Aroko zatiketa eta banaketa dialektalez

6.4.1. Mendebaleko Euskara Zaharra

6.4.1.1. Erdi Aroan dialekto zabal bat bereizi behar da Euskal Herriko erdi-mendebalean: Lakarrak (2011) *Mendebaleko Euskara Zaharra* deitutakoa, egungo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (edo Gipuzkoa gehiena) barne biltzen zituen, eta Nafarroa Garaiko mendebaleko ibarretaraino iristen zena. Dialekto zabal hori, hain zuzen ere, gerora *arabera*, *bizkaiera* eta *gipuzkera* deitu izan direnen aurrekari izan zen: horren barne-zatiketetatik sortu ziren inondik sortzekotan arestiko hirurak gerora; horrenbestez, ikuspegi eta deskripzio pankronikoak saihestuko badira, ezinbestekoa da Mendebaleko Euskara Zaharra hezuramaitzen zuten ezaugarriak eta ondoz ondoko garaietan gertatutako zatiketak irizpide estandarren arabera haztatzea.

6.4.1.2. Ikuspegi historikoz ari den dialektologialariak zatiketa zaharrenen bila diharduela aipatu dut (§2.3.1.2), eta tesi honetan aztertutako mendebaleko ezaugarri zaharrenak lau izan dira: *(h)uri*, *barri* eta *baltz* aldaerak, eta $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoa. Lehenengo hirurak aspaldirik aipatu izan dira gaiari buruzko bibliografian, baina hemen baztertzekotzat jo ditut: argi dago ezaugarri zaharrak direla, baina zatiketa/banaketa dialektal sakonak hiru aldaera lexikoren gainean eratzea ez da irizpide sendoa, eta are gutxiago hirurak ezin direnean kronologikoki askoz goragotik etorri, tartean fenomeno tipologikoki arruntak dituztenean.

(h)uri-ri loturik *u-* : *i-* banaketaz hitz egin ohi da erosotasunez-edo, baina gaur-gaurkoz dakigunaren arabera, banaketa edo oposizio horrek kronologia ezberdineko zenbait prozesuren emaitzak irudikatzen ditu, ez mendebalean edo/eta mendebaletik

kanpo garatutako arau fonetiko bat. (*h*)*uri* dela eta, **her* erroari lotutako (*h*)*iri*-ren disimilazioz azaldu izan da azken urteotan (Lakarra 2010: §IX, 2018: 68, Lakarra *et al.* 2019: xxxvi-xxxvii). Bestalde, Lakarraren beraren proposamenei jarraituta, *u-* : *i-* oposizioa duten aldaera-bikoteetako asko Euskara Batu Zaharrerako proposa daitekeen diptongo zaharrago batetik eratorriak lirateke (< **eu*), nahiz eta diptongotik eratorritako forma guztiak ez diren garai berekoak eta ezin diren, euren horretan, multzo berean sartu ez jatorriari, ez kronologiari, ez hedadurari dagokienez: geruza zaharrenean leudeke **eu* > *u* izan dutenak (cf. *urgatzi*), ondoren *u-* : *i-* oposizioa eragin dutenak (baina, ez dira guztiak batera multzokatzekoak; cf. *urten* eta *untxaur* aldaeren hedadura, adibidez), eta azkenik alderantzizko egoera (*i-* : *u-*) islatzen dutenak (cf. *itxi* ‘utzi’ Mendebalean).

Mitxelenak konbentzimendu handirik gabe aipatu zituen aldaerok: VIII-X. mendeez aritzeko bestelako ezaugarriarik ez zekusalako aipatzen zituela azaldu zuen, ez ezaugarri dialektal esanguratsuak zirelako. Zatiketa eta banaketa dialektalez aritzeko, ordea, segurtasun handiagoa behar da, eta are gehiago zatiketa eta banaketa horiei dialektalizazio-prozesu sakonak lotzen bazaizkie. (*h*)*uri*, *barri* eta *baltz* aldaeren muga edo isoglosak zaharrak dira, baina ez dute sakontasun handirik, arruntak edo arrunt xamarrak dira (begiratu §2.3 eta §2.4.4 atalak): dialektoak existitu aurretik ere bariazioa eta maila apalagoko isoglosak zeudekeela ez da ahaztu behar.

Aurrekoari loturik, aintzat hartu behar da erdi-ekialdean lehenengo testuak agertu orduko badagoela zenbait berrikuntza esanguratsu: ozen ondoko herskari ahoskabeak aipatu zituzten Lakarrak (2011) eta Caminok (2011) eta dialektalizazio-prozesuaz aritzeko ez da ahaztekoa glosetako *dugu* aldaera. Arean beranduago, bestalde, erdi-ekialdeko berrikuntzak bide dira *-ek* ergatibo plurala, beharbada partizipio prospektiboko *-en* eta aditz-izenetako *-tze*, eta ez da ahaztekoa Picauden testuan *e* → *i* / *_V*-ren adibide bat dagoela *-ara*-ren adibide batekin batera. Aurreko ezaugarrien azterketa ez dagokio tesi honi eta etorkizuneko ikergai legez besterik ez ditut hona ekarri nahi; nolana ere den, guztiak dira aldaera lexikoak baino esanguratsuagoak dialekto-sailkapenerako eta hizkuntzaren historiarako, eta erdi-ekialdeak ere dialektologia historikoaren ikuspegitik arreta behar duela erakusten dute.

6.4.1.3. Arestiko hiru aldaera lexikoak baztertuta, *a + a > ea* disimilazio morfonologikoa bakaturik geratzen da ~X. mendeko ezaugarrien artean, baina bere bakartasunean aurreko hirurek eta ondoko hainbatek baino balio sailkatzaile (askoz) handiagoa du: berrikuntza positiboa, sistematikoa eta hedadura zabalekoa da. Hedadura

zabal hori, gainera, ondoz ondoko eremuek ematen diote, eta eremu horiek bateratu eta erdi-ekialdekoetatik bereizten ditu disimilazioak. Halaber, ondo dokumentatua da eta ez du fidagarritasun-gorabeherarik eragiten. Tesi honetan aztertutako ezaugarri guztien artean dialekto bat (eta banaketa dialektal bat) irudikatzeko erabil zitekeen ezaugarri sendoena da; beraz, Mendebaleko Euskara Zaharraren banaketa $a + a > ea$ disimilazioarekin lotu behar da; beharbada ez horrekin bakarrik, baina, argiro, horrekin ere bai.

Aurreko ikuspegiak ondorio sakonagoak ditu. Disimilazio morfonologikoa artikulu mugatuarekin lotuta dagoela aintzat hartuta, VIII. mendeaz geroztiko berrikuntza izan behar du. Halaber, erro barnean $aCa > aa > a$ gertatu ostekoa izan behar du, kokagune horretan ez baitago disimilaziorik (bide batez, gainerako euskal hizkera gehienetan erro barneko soilteza errotik kanpora ere hedatu izanak nabarmentzen du Mendebaleko disimilazioaren berezitasuna). Lehenengo adibideak XI. mendearen hasierakoak direla ikusita, *post* eta *ante quem* datak begi-bistakoak dira: VIII-XI. mendeetan sortutako berrikuntza delakoa daukat. Horrek ondorio are sakonagoa du euskararen dialektalizazio-prozesu zaharrez aritzeko: *Euskara Batu Zahar* esaten bazaio V-VI. mendeetako hizkuntza-egoera bateratuagoari, zaila da pentsatzea eta onartzea egoera hark 400-500 urteko egonkortasuna izan zuela eta 400-500 urte horiek igarota lehenengo banaketa mendebalean gertatu zela. $a + a > ea$ disimilazioak berankorregia dirudi lehenengo mailako zatiketez aritzeko; beraz, (a) aldaera lexikoak baztertuta eta (b) $a + a > ea$ -ren datazioa ikusita, ez dut argudio argi nahikorik ikusten pentsatzeko Euskara Batu Zaharra mendebaletik hautsi zenik; ez, behintzat, arestiko ezaugarriak eta muga kronologikoak erabiltzen badira.

6.4.1.4. Aurreko ikuspegiak batago egiten du Caminok (2011) eta Lakarrak (2001) proposatutakoarekin Zuazok (2010a, 2012, 2019), Reguerok (2013), Aldaik (2014) eta Abaituak (2019) proposatu edo iradokitakoarekin baino. Nik neuk hemen egindako azterketaren arabera ez dut esaterik zein ezaugarriren arabera zati zitekeen lehenengoz Euskara Batu Zaharra, baina mendebalean X-XI. mendeetan aurkitu eta VIII-X. mendeetarako proposa daitezkeenak apalegiak edo berankorregiak iruditzen zaizkit: $a + a > ea$ -k gehiago islatzen du, nire ustez, mendebalaren eta mendebala eta erdialdea biltzen zituen unitate handiago baten arteko banaketa, adibidez.

6.4.1.5. Mendebaleko Euskara Zaharra mugatzeko balio dezaketen ezaugarrien artean disimilazio morfonologikoa aztertu dut tesian, baina horrek ez du esan nahi erabil zitekeen ezaugarri bakarra denik. Morfologiaren esparruan hainbat ezaugarri izan

daitezke lagungarri Mendebaleko Euskara Zaharra definitzeko, eta horietako bat izan dut hizpide (§5.2.2.3): *egin* aditz laguntzailearen gramatikalizazioa. Oso hedadura zabaleko berrikuntza da, eta $a + a > ea$ -k besarkatzen dituen hizkeretatik haraxeago doaz bere mugak garai historikoan. Hedadurari dagokionez, beraz, ezaugarri zaharren artean kokatzekoa da, Mendebaleko Euskara Zaharrari lotzekoa. Aitzitik, corpus historikoak argi erakusten du *egin* ez dela forma bakarra eremu horietan, Euskara Arkaikoan eta Zaharrean lehian agertzen baita **ezan*-ekin are Bizkaian ere (gogoratu, gainera, ArrasErreki testuan, Bizkaiko ipar-sartaldean, bakar dela **ezan*; cf. Mounole & Lakarra 2018: 360-361). Horren argitan zalantza *egin* liteke *egin*-i legokiokeen garai linguistikoaz, baina gakoa kronologian dagoelakoan nago: Mendebaleko Euskara Zaharreko ezaugarria izan arren, ez du zertan IX-X. mendeetako izan, $a + a > ea$ baino berriagoa izan daiteke, eta berritasun horrek azalduko luke, zati batean behintzat, zergatik ez den bakar lehenengo testuak agertzen direnean. Mendebal zabaleko testuetan hiru osagaiko adizkietan (NOR-NORI-NORK) *egin* erabiltzea (cf. Lakarra 1996: 183ko azalpena eta adibidetegia) jatorri komun zaharrago baten seinale gisa interpretatu behar delakoa dut.

XIII-XIV. mendeetako berrikuntzat jotzen da *egin*-en gramatikalizazioa, eta horrek lortzak ematen ditu Mendebaleko Euskara Zaharraren iraupenaz. Hain zuzen, Mendebaleko Euskara Zaharrean sortutako hedadura zabaleko azken (edo azkenetariko) berrikuntza dela uste dut: hedadura zabala du, baina Erdi Aroaren amaiera aldekoa da eta zenbat eta mendebalerago hainbat eta indar handiagoa izateak (alegia, Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino indartsuago egoteak) Mendebal Zabaleko Euskararen Erdi Aroaren amaieran gertatzen hasia zen barne-zatiketa islatzen du; zelanbait, Mendebal Zabaleko Euskararen azken garaiaren eta Mendebal Muturreko Euskararen lehenengo garaien arteko trantsizioa erakusten du *egin*-ek.

6.4.1.6. Morfologiari loturik erdi-mendebala eta erdi-ekialdea bereizteko beste ezaugarri batzuk aipatu izan dira (cf. §2.6.4.1 eta §2.6.4.2), baina horien banaketa modernoa ez ezik, jatorria eta bilakabidea ere ondo ezagutu eta berreraiki behar dira ondorio larriagoak atera baino lehen. Horrekin ez dut esan nahi Mendebaleko Euskara Zaharrarekin lotu ezin direnik; alderantziz, horien azterketa xehea Mendebaleko Euskara Zaharra definitzeko lagungarri izan daitekeelakoan nago. Hemen lau gogoraraziko ditut ditut, labur:

- Ergatibo pluraleko *-ak* & *-ek* aldaeren mugak hainbatetan aipatu dira, euskara bitan zatitzen baitute. Lehenengoa erdi-mendebal zabalean

agertzen da lehenengo testuez geroztik, Araban, Bizkaian, Gipuzkoa gehienez eta are Nafarroako mendebalean, Lizarraldearen eta Iruñerriaren artean (Reguero 2017: §3.2.1.7); beraz, hedadura oso zabaleko aldaera da *-ak*. Manterolaren (2015: §5.2.5.2 eta §5.2.5.3) arabera, *-ak* & *-ek* aldaeren artean lehengoa da zaharrena, eta absolutibo plurala oinarri hartuta sortu zen; *-ek*, aldiz, erakusleei (*zuek*, *haiek*...) loturik azaltzen du Manterolak (*idem*, 573; cf., halaber, mendebaleko zenbait testutako *guek* aldaera). Ikuspegi horretatik berrikuntza ez legokioke mendebal zabalari (ezta Iruñeari ere) eta erdi-ekialdean bilatu beharko litzateke foku berritzailea. Nolanahi ere den, kasu honetan *-ak* & *-ek* Euskal Herria historikoki ezker-eskuin bereizi izan duen aldaera-bikotea izanik, pasiboki Mendebaleko Euskara Zabala mugatzeko ere balio lezake banaketak edo, alderantziz begiratuta eta arkaismo sailkatzaileez esandakoekin bat (§2.3.2.2), Mendebaleko Euskara Zaharraren arkaismo bateratzailetzat jo liteke. Halere, ondorio sakonagoak atera aurretik isoglosa bakoitzaren banaketa eta bilakabide diakronikoa irudikatu behar dira ahal bezain zehatz, arreta berezia jarriaz erdialde zabalean.

– Manterolarekin (2015: §5.2.7.6) bat, datibo pluraleko forma zaharra *-ei* bada eta Euskal Herriko mendebal zabalean *aei* > *ai* gertatu bada erakusleak berregituratu ondoren deklinabidean gramatikalizatuta (ez dakusat aurkakoa pentsatzeko arrazoirik), mendebal zabaleko berrikuntza izango litzateke *-ai*, Mendebaleko Euskara Zaharrarekin lotzekoa, nahiz eta ez dirudien $a + a > ea$ bezain zaharra denik edo izan behar duenik.

– Partizipio prospektiboko *-ko* & *-go* vs. *-ko* & *-en* vs. *-ko* & *-(r)en* ere behin baino gehiagotan aipatu dira, lehenengoa erdi-mendebalarekin eta bigarrena erdialdearekin eta hirugarrena ekialdearekin lotuz. Erdi-mendebaleko dokumentu historikoetan ez dagoenez *-en-ik* eta *-n-z* amaitutako aditzetan *-go* dagoenez, mendebaleko berrikuntzat jo izan da *-ko* & *-go* sistema, eta gordetzailatzat ekialdekoa. Behin-behinean arrazoizko iruditu dezakeen azalpen hori mantsoago eta sakonago aztertu behar da, ordea. Izan ere, erabat alderantzizko irakurketa egin liteke, eta proposatu Euskal Herriko mendebaleko lekukotzetan ez dagoela *-en-ik* inguru hartan inoiz ez delako egon; alegia, *-ko* zaharragoa delako *-en*

baino, eta azken hori ekialdeko edo erdi-ekialdeko berrikuntza bat delako (begiratu aurretik ergatibo pluraleko *-ak* & *-ek* aldaerez esandakoa). Horri loturik, aintzat hartu behar da Nafarroa Garaian badaudela, gutxi izanagatik, *esango*, *egingo* eta *izango* lako formak (cf. Reguero 2017: §3.2.2.9). Halaber, Gipuzkoatik eskuin eta Zuberoatik ezker geratzen diren hainbat testutako lekukotzak nahasiagotzat jo zituen Padilla-Moyanok (2017: 427): badirudi eremu zabal horretan ereduaren arteko lehia zegoela, eta aztertu egin behar da partizipio prospektiboko marken araberrako etena ez ote den Nafarroan barnealderago egin behar, eta ez Mendebal Zabaleko Euskararekin baina beste garai eta egoera linguistiko batekin lotu. Gramatika historikoaren ikuspegitik ere gogoratu egin behar da *-(r)en* genitiboaren gramatikalizazioari lotzen zaiola, eta formalki aldaera berriak direla genitibo *-n*-dunak.

– *Izan*-en adizkietan *-a-* vs. *-e-* agertzeak (*dan* vs. *den*, *dala* vs. *dela*) erdi-mendebalaren eta erdi-ekialdearen artean etena dakarrela aipatu izan da, baina aurreko mendeetako testuak begiratzen direnean ikusten da aldaeren banaketa oso nahasia dela; besteak beste, badaude, oso bakanak izan arren, *-e*-ren zenbait adibide Bizkaiko testu zaharretan (Mikol, Kapan), eta ugari dira *-e*-dunak Gipuzkoako testuetan: *-a-* vs. *-e-* isoglosak menderik mende ahal bezain zehatzen non egon diren, mugitu diren eta mugitzekotan nondik norantz mugitu diren argitu beharko litzateke, argitu ahal izatekotan, ondorio larriagorik atera baino lehen.

– Euskal Herriko mendebalean eredu eransleari jarraikiz absolutiboaren gainean eratzen da, garai historikoan behintzat, sozietiboko *-gaz* marka (Manterola 2015: §5.2.1). Hain zuzen ere, kasu-marka hori da Mendebaleko kasu-marka nabarmen eta ezagunenetarikoa, nahiz eta XVI. mendeaz geroztiko testuetan (nagusiki) Bizkaitik kanpo duen banaketa hainbatetan ñabarrak zaildu egiten duen zenbait alderdi argitzea. Bizkaian inon baino eremu tinkoagoa osatzen dute *-gaz* & *-akaz* markek singularrean eta pluralean (*-kin* bakarra aurkitu dut 1700 baino lehen, eta *-gaz* (sg.) & *-kin* (pl.) bikotearen lehenengo lekukotzak XVIII. mende amaierakoak / XIX. mende hasierakoak dira jaurrean), eta Bizkaitik eskuin lehian agertzen da pluralean *-kin*-ekin (lehia, dena den, Deba ibarrean gertatzen da, ez Gipuzkoan erdialderago, non *-kin* besterik ez

dagoen). Araban Betolatzaren testuak (Zuazo 1998b: 78) eta Lazarraga eskuizkribuko hainbat adibidek (Mounole inprimategian) bat egiten dute Bizkaiko banaketarekin, Landucciren hiztegiko zenbait adibidetan *-az < -gaz* isla dezakete (beraz, ez litzateke zertan *-kin* bakarrik ikusi, Mitxelenak 1958an legez) eta lurraldearen ekialdean ere (Albeniz, Gamiz) badaude *-gaz-en* adibideak; aitzitik, hala Gasteizko nola ekialderagoko lekukotasunetan (Land, Lazarg, Albeniz, Gamiz) *-kin* (eta Gamizenean baita *-ki* ere) agertzen da. Banaketa ñabar horrek, bestelako azterketa sakonen faltan, ikuspegi nahasia eragiten du: Zuazok (2012: §1.4) proposatu legez, *-gaz-en* jatorria Araban kokatzeak erraztu egingo luke kasu-markaren hedadurari buruzko azalpena; baina, horren inguruko zalantzak eragiten dizkit Bizkaian (erdi-sartalde zabalean, gutxienez) Araban baino nabarmen tinkoago agertzeak (*-kin* bakarra ~1780 baino lehen). *-gaz* eta *-kin* marken arteko banaketa edo bereizketa funtzionalik aurkitu/proposatu ezean, geruza kronologiko ezberdinetan bila liteke, beharbada, azalpena, eta bi aukera bururatzen zaizkit, hipotesi huts badira ere:

(a) *-gaz* Mendebaleko Euskara Zaharreko berrikuntza zaharra da, hurbilagokoa x. mendetik xv.etik baino, demagun, eta lehenengo testu arkaikoen erakusten dutena da *-kin -gaz* ordeztan ari zela, erdialdetik mendebalera hedatuz, gerora ere Deba ibarrean eta Bizkai sortaldeko zenbait hizkeratan gertatu den legez (cf. Zuloaga inprimategian-1)

(b) *-gaz* Erdi Aroko berrikuntza berankorragoa da (XIII-XIV. mendeetako, esate baterako), Mendebaleko Euskara Zaharreko azkenetarikoa edo Mendebal Muturreko Euskararena, eta testu arkaikoen erakusten dutena da eremu tinkoagoa sortzen duela Bizkaiko eta Arabako erdi-sartaldean; aldiz, hala Bizkai sortaldetik nola Arabako erdialdetik (Gasteiztik bertatik) eskuin egin ahala *-gaz -kin-en* mesedetan indarra galtzen ari zela erakutsiko lukete testuek, $V_j(t)z \rightarrow V_j(t)x$ edo **edutsi*-ren gramatikalizazio-eredu kronologiko eta geografikoarekin bat etorritz.

6.4.1.7. Aurreko azpi-puntuetan aipatutako ezaugarriek hasieratik (§2.1.1) aipatutako ideia gogorarazten dute: dialektologialariak ezinbestean baliatu behar du teoria linguistikoa eta ezinbestean ezagutu behar ditu garaian garai eskueran dauden datuak ondorio larriagoak ateratzeko: morfologiaren arloan zer den berri eta zer den zahar erabakitzeko gramatika historikora, tipologiara eta berreraiketara jotzea funtsezkoa da (horiek ere badute zer hartu, jakina, dialektologiaren esparrutik); ezaugarrien egungo banaketa lagungarri izan daiteke zantzuak ematen dituen heinean, baina hortik harago egin behar da eta ezaugarriak ez hain argi edo erabat nahasita agertzen diren eremuetan nahaste hori zeren zordun izan daitekeen aztertu behar da.

Bestalde, ezaugarri dialektal zaharrak direla eta, ez da zertan espero denek (ezta garai eta leku bertuetan sortutakoek ere) hedadura bera izatea, hori ez baita inon gertatzen; aitzitik, erdialde zabalean isoglosek banaketa ñabarra dutenean edo ustez mendebaleko berrikuntza zahar direnak Nafarroan (oso) barrura sartzen direnean, aztertu egin beharko da zein neurritan dauden egiazki lotuta isoglosok mendebala vs. erdi-ekialdea bezalako banaketa batekin, beste geruza baten (adibidez, mendebala eta erdialdea vs. ekialdea) zantzu edo arrasto ere izan bailitezke. Euskara Batu Zaharretik bereizitako lehenengo euskara ekialdekoa izan bazen, eta hipotesi hutsez ari naiz, mendebala eta erdialdea batuta irudikatzen berrikuntza positiboak ere bilatu beharko dira.

6.4.1.8. Besteak beste $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoak eta *egin*-en laguntzaile-gramatikalizazioak irudikatzen duten dialekto zabalera itzulita, argi dago Mendebaleko Euskara Zaharraren epizentroa Gasteizen edo Arabako lautadan kokatu behar dela, azken urteotako ikuspegiarekin bat. Funtsean, Bizkaian, Araban (eta, Arabari loturik, Errioxa Garaian) eta Gipuzkoa gehienean edo osoan zegokeen hedatuta, nahiz eta ekialdeko mugak lausoagoak diren. Sorgunearekiko distantziak eta erdialderago (Iruñean?) bestelako foku(ren) bat egoteak moteldu edo geldiaraz zitzakeen Arabatiko berrikuntzak Gipuzkoako ekialdean eta Nafarroako mendebalean, eta eremu horretan nahastu egiten dira mendebaleragoko eta erdi-ekialderagoko formak: mendebaleko batzuk beste batzuk baino urrutixeago iristen dira, baina muga hain urrun ez duten batzuen zantzurik ere aurki daiteke gerora ezaugarria galdu den eremuetan. Ondoko mapak Mendebaleko Euskara Zaharraren hedaduraren irudi orokorra eman nahi du, eta Arabatiko bi berrikuntzaren ($a + a > ea$ eta *egin*) hedadura zabala irudikatzen balio du:



37. irudia. Mendebaleko Euskara Zaharraren hedadura ustezkoa

6.4.1.9. Tesi honetan aztertutako ezaugarri fonologikoak Mendebaleko Euskara Zaharraren garaian zein egoeratan zeuden aztertuta, gerora Euskal Herriko mendebalean ezagutu den dialektoaren oso bestelako irudia lortzen da. Garairik zaharrenean $a + a > ea$ zen bereizgarri nagusia, bokal sudurkariak arruntak ziren, ozen ondoren frikari ebakitzen ziren txistukariak, hasperena zegoen eta bokal bikoitzek indar handiagoa zuten. Bestalde, txistukari apikari eta lepokariak bereizten ziren, $Vjz > x$ eta $Vjtz > tx$ sailtako palatalizazioak gertatu gabeak ziren, ez zegoen $e \rightarrow i$ zein $o \rightarrow u$ eta $-ubV$ eta $-ijV$ aldaketarik, ez eta beheko bokalaren asimilaziorik ere. Areago, morfologiaz zerbait esatearren, ergatiboan $-ak$, datiboan $-ei$ eta partizipio prospektiboan $-ko$ & $-go$ zeuden, baina ez erro bereko erakuslerik eta $egin$ eta $*edutsi$ laguntzailerik, ez eta dot aldaera nagusiturik ere.

6.4.1.10. Aurreko zerrendak ez du erabateko zehaztasun-nahirik; gehiago da aldaketa linguistikoaren dinamikotasunaz eta dialektalizazio-prozesuaz jabetzeko zerrendatzea, hurrengo ikerketek egiaztatu eta areago osatu beharko dutena. Hor aipatzen diren ezaugarrietako asko ez bide ziren X. mendean existitzen, baina menderik mende agertzen joan ziren, Mendebaleko Euskara Zaharra bera gorpuzten eta sendotzen lehenengo, eta horren barneko lehenengo zatiketak eragiten gerora.

6.4.2. Mendebal Muturreko Euskara Zaharra

6.4.2.1. Mendebaleko Euskara Zaharrak eta horren epizentro Gasteizek luzaroan izan zituzten euren eraginpean egungo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurrak, bai eta Nafarroako mendebaleko zenbait ibar ere: hedadura handieneko berrikuntzetan azkena edo azkenetarikoa *egin*-en gramatikalizazioa izan bazen, Mendebaleko Euskara Zaharraren iraupena lau zapabost mendekoa izan zela onartu behar da, XIII-XIV. mendeetara bitartekoa, halakoez aritzean data absolutuak ematea aieru hutsa bada ere.

Aurretik aipatutakoarekin bat, *egin*-en konplexutasun funtzionalak eta diatopikoak Mendebaleko Euskara Zaharraz ez ezik, horren lehenengo barne-zatiketa ere ematen ditu zantzuak. Luzea eta mailakatua izan zen *egin*-ek **ezan* erabat ordezkatzeko prozesua, eta prozesu horretan atzematen diren zenbait zantzu baliagarri dira XIII-XIV. mendez geroztik (beharbada goragotik ere etor zitezkeen joerarik) azpi-zatiketa batez aritzeko: Lakarraren (2011) terminologiarekin bat, *Mendebal Muturreko Euskara*-ren sorrera Erdi Aroaren azken mendeetan kokatu beharra proposatzen dut.

6.4.2.2. Lan honetan berariaz aztertutako bi ezaugarri fonologikok balio dute Mendebal Muturreko Euskara definitzeko: bokalerdiaren ondoko txistukarien palatalizazioak alde batetik eta adizkietako $a + a > ea$ disimilazioak beste alde batetik. Batera multzokatzeko arrazoi nagusia baten eta bestearen hedadura geografikoa da: bien eremu historikoa geratzen da urrun $a + a > ea$ morfonologikoarenetik, *-ai* datibo pluralarenetik, *-ak* vs. *-ek* ergatibo-markenetik zein *egin*-enetik, besteak beste. Funtsean, Bizkaiaren (jaurreirian euskara lekututa dagoen eremu guztien, behintzat) eta Arabako erdi-mendebalaren arteko batasun hertsia islatzen du Erdi Aroko zatiketa berankorrak.

Aipatutako ezaugarri zabalen aldean, $V_j(t)z > V_j(t)x$ berrikuntzaren eremua nabarmen txikiagoa da: ez da Arabako ekialdera iristen eta Deba ibarrean agertzekotan Debagoienean agertzen da, non aldaera palatalizatuak eta palatalizaziorik gabeak txandakatu egiten baitira. Halaber, aurrekoa baino apur bat murriztagoa da adizkietako $a + a > ea$ disimilazioaren eremua: ez dut adibiderik aurkitu Arabako ekialdeko eta Sakanako testuetan, ezta Landucciren hiztegian ere, nahiz eta eskuek eta adibideen urriak izan dezaketen eraginik azken horretan; nolana ere den, Arabako adibide garbiak lurraldearen iparraldean eta erdi-mendebalean agertzen dira. Bestalde, Deba ibarrean ere oso mugatuta agertzen dira aldaera disimilaziodunak: agertzekotan asistematikoki agertzen dira adibideak testuetan, eta ez Araban eta Bizkaietan duten aditzen arabarako banaketa berarekin.

Arabako euskaraz egindako lanetan hiru eremu bereizi izan ditu Zuazok (1989, 1999, 2012): mendebalekoa, erdialdekoa (tartekoa) eta ekialdekoa. Hemen proposatutako Mendebal Muturreko Euskaraz aritzean, bada, funtsean Zuazok Araban berezitatuko mendebaleko (eta, zati batean, erdialdeko) eremuko ezaugarrien eta Bizkai osokoen konbergentzia dut gogoan, bai eta Deba ibarrean hegoaldetik iparraldera irudika daitekeen behetik gorako ziria ere. Eremitik kanpo geratzen dira, beraz, Sakana aldea eta Araban Barrundiatik eskuineko lurraldeak, eta Goierri, Urola, kostaldea eta Debarrena Gipuzkoan.



38. irudia. Mendebal Muturreko euskararen hedadura ustezkoa

6.4.2.3. Aurreko ezaugarrien lagungarri edo osagarri aipatu dut **edutsi*-ren gramatikalizazioa, antzeko eredu geolinguistikoa islatzen baitu: bakar da Bizkaiko testuetan eta Arabako erdi-mendebalean, baina erdi-ekialdean laguntzaile zaharragoekiko lehian agertzen da historikoki; halaber gertatzen da, hain zuzen ere, Gipuzkoako mendebalean: ez dago **edutsi*-rik Urolan, eta Deba ibarrean barnean Debagoienean agertzen da; Debarrenean **-i*-rekiko lehian dago Euskara Arkaikoan eta Zaharrean.

6.4.2.4. Ohi den legez, arestiko ezaugarrietako bakoitzak muga bereziak ditu, baina hiruren eredu geolinguistikoa bera dela dirudi. Funtsean, bi ezaugarri ditu eredu geolinguistikoko berri horrek: alde batetik, mugak Mendebaleko Euskara Zaharrarenak baino askoz txikiagoak dira; beste alde batetik, batasun handiena Bizkaiaren eta

Arabako erdi-mendebalaren artean gertatzen da: horretatik eskuin forma edo aldaera zaharragoekiko lehian agertzen da Mendebal Muturreko Euskara. Ekialdeko mugak direla eta, nolana ere den, nabarmenagoa da Araban Gipuzkoan baino ekialderago egin zutela Mendebal Muturreko Euskararen berrikuntzek: azken horretan Deba ibarrean agertzen dira inon agertzekotan, ez hortik eskuin; Araban, aldiz, ez dago aldaera palatalizaturik eta $a + a > ea$ disimilaziorik Albeniz eta Gamizen adizkietan, baina **edutsi*-ren adibideak bai, badaude.

6.4.2.5. Aurreko ideari loturik, uste dut ezaugarrien banaketa geografikoa azaltzeko modu errazena dela proposatzea Erdi Aroko azken bizpahiru mendeetan Gasteizek foku berritzaile garrantzitsu izaten jarraitu zuela: horrela hobeto azaltzen da <L> itxurako hedadura (Gasteiz L-aren erpinean kokatuta). Beste alde batetik, halere, Gasteiztiko berrikuntzak hartzen, indartzen eta hedatzen bide ziren Bizkaian, eta epelago jasotzen ziren bai Deba ibarrean, bai Arabako erdi-ekialdean. Zenbait ezaugarriren banaketaz eta hedadura murrizagoaz aritzean Gasteizen gainbehera edo ahulaldia aipatu izan da arrazoiaren artean: ez dut ukatuko denboran aurrera egin ahala berrikuntzak zabal hedatzeko ahalmena arian-arian gal zezakeela Gasteizek; baina, arreta harrera-gaietan jarriaz beste azalbide osagarri batzuk ere proposa daitezke Erdi Aroaren azken mendeekin lotuta. Hala Bizkaian nola Gipuzkoan hiribilduen fundazioak eta sareak XII-XIV. mendeen artean egin eta tinkotu ziren, horrek beste foku batzuk sortzea ekarri bide zuen eta egoera horrek eragina izan bide zuen mendebal zabaleko euskararen egitura geolinguistikoa. Zehatzago esanda:

– Ez dirudi Gasteizek ~X. mende aldera “foku lehiakide”-rik izan zuenik mendebal zabalean; hartara, errazagoa bide zen sortutako berrikuntza estruktural batzuk behintzat urrun hedatzea: lehiakide izan zitekeen foku hurrekoena Iruñea bazen, horren eraginpean (ere) azal liteke zergatik iristen ziren Gasteiztiko berrikuntzak Bizkaiko kostaldera edo Urolara, baina ez Nafarroako mendebaleko lehenengo ibarretatik barrurago edo Donostiara (hiribildua Nafarroako erreinuaren itsas portu gisa fundatu zuen Antso Jakitunak XII. mendean).

– Erdi Aroaren azken mendeetan (XIII-XIV. mendeetan, demagun), aldiz, hiriguneen fundazioak ekarritako eraldaketak izango zukeen eraginik ezaugarri linguistikoen difusioan: Bilboren fundazioak, hiribilduen arteko loturak eta merkataritza-bideak bestela antolatzeak eta sendotzeak... bestelako indarra eta nortasuna eman zien hala Bizkaiari nola

Gipuzkoari, eta beharbada lehenengo urte edo hamarkadetan Gasteizen pare egon ez arren, horren “lehiakide”-ak sortu ziren Iruñea baino askoz ere hurbilago: Gasteizen sortutako berrikuntzak finkatu eta areago hedatu zituztela esan dut hainbatetan, baina beste berrikuntza batzuk ere sortu ziren mende horietan, eta hortik datozkit niri neuri lehen azaldutako zenbait zalantza: **edutsi*-ren eta *-gaz*-en gramatikalizazioak Gasteizen sortutako berrikuntzak izan litezke, baina adizkietako $a + a > ea$ edo bokalerdien ondoko palatalizazioa Araban ala Bizkaian sortu ziren ez dut ziur esaterik. Denbora-tarte erlatiboki laburrean (bizpahiru mende) hainbat hirigune indartu izana aintzat hartuta, logika berari jarraikiz azal liteke zergatik ez ziren hedatu Bizkaitik kanpo ustez jaurrean sortutako berrikuntza batzuk: eremu ez oso zabal batean foku berritzaile bat baino gehiago zegokeelako, zein bere grabitazio-indarrarekin; grabitazio-indar horiek, gainera, hainbatetan aldatu bide ziren agintariek gune batzuen mesedetan eta bestetzuen kaltetan komunikazio-bideek nondik igaro behar zuten xedatu ahala.

6.4.2.6. Mendebaleko Euskara Zaharraren ezaugarriez (batzuez, behintzat) §6.4.1.9 atalean emandako azalpenen ildotik, bestelako egoera bat proposatu behar da Mendebal Muturreko Euskaraz aritzean; funtsean, Mendebaleko Euskara Zaharraren ezaugarriek indarrean jarraitu zuten (egun ere jarraitzen duten legez), baina bestelako berrikuntzak sortu ziren Erdi Aroaren azken mendeetan. Mendebal Muturreko Euskaran, beraz, sistematikoak ziratekeen $a + a > ea$ disimilazioa, ozen ondoko txistukarien frikari-ebakera, bokal sudurkariak, txistukari frikari eta afrikatuen bereizketa orokorra, bokal bikoitzen ugaritasuna, *egin* laguntzailea, ergatibo pluraleko *-ak* marka zaharra, datibo pluraleko *-ai* marka, partizipio prospektiboko *-ko* & *-go* markak (ez *-(r)en*)... Beste alde batetik, Mendebal Muturreko Euskararen garairako proposatu behar dira hasperenaren gainbehera eta galera; bokal-igotzerik, *-ijV* eta *-ubV* epentesirik eta beheko bokalaren asimilaziorik eza; *a.e* hiato asimilaziorik gabea; *Vj(t)z* → *Vj(t)x* palatalizazioa; erro bereko erakusleen erabilera, **edutsi*-ren gramatikalizazioa; aditz-izenetan *-te* indartzea eta *-(k)eta* atzizkia hedatzea; *-o-* nagusitzea **edun*-en adizkietako erroan...

§6.4.1.10 atalean Mendebaleko Euskara Zaharraz aritzean esan legez, aurreko zerrendak ez du erabateko zehaztasuna bilatzen, eta hurrengo ikerketek egiaztatu eta areago osatu beharko dute. Xedea gehiago da aldaketa linguistikoaren dinamikotasunaz

eta dialektalizazio-prozesuaz jabetzea, gerora *bizkaiera* zein *mendebaleko* euskara deitu izan den dialektoa betierekoa ez dela azpimarratzea eta Erdi Aroan Euskal Herriko mendebalean bi aro bereiz daitezkeela proposatzea: zaharrena, hedadura zabalenera zenbait ezaugarri lotutakoa, eta berriagoa, bestelako zatiketa-eredu bat irudikatzen duena XIII-XIV. mendeetara ezkerreko. Lehenengo testuak agertzen direnerako euskalkiak (edo zenbait euskalki) sortuta zeudelako ideia ez da berria; baina, horrek ez du pentsarazi behar (a) aldi eta modu berean sortu zirenik, eta (b) XV-XVI. mendeetako iturrietan agertzen diren ezaugarriak geruza kronologiko berberetakoak direnik. Begiratu §1.3 ataleko azken mapa, Mendebaleko Euskara Zaharraren eta Mendebal Muturreko Euskararen ustezko hedadurak biltzen dituen, eta erkatu atal bereko 5. eta 6. mapekin (Bonaparte), oraindik ere XIV. zein XVI. mendeetarako sailkapen dialektal modernoan izendapenak (eta, areago, ikuspegiak) baliatzearen arazoez.

6.4.2.7. Azpi-atal hau itxi aurretik, azken urteotan aipatu bai baina agian behar bezainbeste azpimarratu ez den ideia bat gogorarazi nahi dut, hona ekarritako datuek, arestiko puntuetan aipatutakoek, horren alde egiten baitute nabarmen. Euskalkien mapa eman aurretik izandako irizpide- eta ikuspegi-aldaketak gorabehera, Deba ibarreko euskara (Debagoienekoa, behintzat) *bizkaiera*-ri esleitu zion Bonapartek (1863), eta hala egin izan da orduz geroztik ere, izan izendapen horrekin, izan *mendebaleko euskara* deituta Zuazoren 1998ko lanaz geroztik. Halaber jokatu izan da Arabako iparraldean XIX. mendeaz geroztik dialektoa gorde zuten/duten eremuekin: Bizkaikoarekin lotu izan dira, askotan ia ikuspegi eta sailkapen “dialektal federalista” batean sartuz, Aranak (1896) eta haren jarraitzaileek Bonapartek sailkapena egin eta hamarkada gutxira aldarrikatuko zuten. Hona iritsita, bada, gogoratzekoak dira Garretten eta Lakarraren berbok:

It is a truism that the discovery of Indo-European and the foundation of the academic field of linguistics were substantially fuelled by nationalism. I suggest that the nationalist ideologies lurking behind our field refract the same sociological forces that shaped its object of study. Our conception of Indo-European emerged from the analysis of national literatures and cultural traditions, and the canonical branches of the family emerged through the creation of national identities. On the view of Indo-European dialectology I have sketched, the existence of Greek is a by-product of the formation of what we may call Greek national identity. (Garrett 1999: 7)

Ikerketa monografiko eta patxadazkorik merezi lukete Garretten iradokizunok euskal dialektologia sinkronikoan eta diakronikoak izan ahal duten paralelismoez eta azaldu ahalko lituzketen hainbat fenomeno bitxi “gure-gureez”. Ikustekoa litzateke, demagun, zerk bultzatuko gintuzkeen Goierriko euskara edo Urolakoa XIII. mendean gipuzkeratzen hartzerantz, Hernani eta ekialdeagokoarekin, eta ez Hegomendebalekotzat edo Araba-iparraldekotzat, Araia eta Oñati aldekoarekin, hurrenez hurren. (Lakarra 2011: 181)

Tesi honetan aurkeztutako banaketa dialektalek eta ezaugarriek ideia bat berresten dute: Gipuzkoako mendebaleko euskara ez da Bizkaiko euskararen zordun, ez da *bizkaiera* edo *bizkaiera*-ren parekotsat jo izan den *mendebaleko* euskara eta ez da Bilboren menpeko euskara. Deba ibarreko euskararen ezaugarriak eta mugak hobeto ulertzen dira Bizkaiko eraginpetik aterata eta Mendebal Muturreko Euskararekin eta, bereziki, Arabako euskararekin lotuta; begiratu Lakarra (2017: 61) laneko mapa.

Badirudi Bonapartez geroztiko garai eta sailkapenetan “bakarturik” ez geratzeko sailkatu izan direla Deba ibarreko eta Arabako iparraldeko euskara Bizkaikoari loturik, baina hala jardutean ahaztu egin izan da Araban ere bazela euskara dialektala, eta “bakartasun” hori Arabako euskara galdu ondoren gertatu dela, gertatzekotan. Sailkapen (azpi)dialektal modernoak oso bestelakoa izango litzateke, nire ustez, hala “Gipuzkoako bizkaiera”-ri nola “Arabako bizkaiera”-ri dagokienez, Arabako lautadan euskara dialektala gorde izan balitz. Izan ere, aurreko mendeetako iturriak ikertzean eremu batzuetan eta bestetuetan agertzen diren filiazio eta joerek indarreanago eta agerianago iraungo zuketean.

Deba ibarreko ezaugarri “mendebaltiar” zahar eta estruktural gehienak Arabatikoak dira edo Arabatik hedatu zirela pentsatuz hobeto azaltzen dira; alegia, egokiagoa da Deba ibarreko euskara historikoki Arabakoarekin lotzea, Bizkaikoarekin baino. Mendebal Muturreko Euskararen ezaugarriak begiratzea besterik ez dago hegoaldean zabal den baina iparraldeanago estuago agertzen den ziri-itxurako eremu linguistikoa (funtsean, Debagoiena vs. Debarrena kontrajartzen dituena) ikusteko. Halaber, beste lan batean erakutsi legez (Zuloaga inprimategian-1) kasu-sistemako zenbait aldaeraren hedadura aztertzen delarik, lotura handiagoak agertzen dira Arabaren eta Deba ibarraren artean, Deba ibarraren eta Bizkaiairen artean baino.

6.4.3. Erdi Arotik euskalki modernoetara

6.4.3.1. Aurreko ataletan esandakoen argitan garbi dago Erdi Aroaren azken mendeetan eta Euskara Arkaikoaren hastapenetan konplexua zela egituraketa linguistikoa mendebal zabalean. Argitaratze-bidean dauden eta datozen urteotan mendebala ez ezik erdialde zabala ere aintzat hartu beharko duten ikerlanek emango dute argi gehiago gaiaz, baina Arabako testuek eta batez ere Lazarraga eskuizkribuak hainbat gako ematen dituztela dirudi.

Alde batetik, egoera linguistikoa zaharragoen ezaugarriak ditu Lazarragak: eremu oso zabaleko ezaugarriak dira, euskara osoan komun izandakoak eta mendebaleko beste

eremu batzuetan berrikuntzen edo hautuen bidez eraldatuak edo galduak (cf. **edun*-en adizkien oinarrietako polimorfismoa, adibidez). Ezaugarri horietako zenbait Mendebaleko Euskara Zaharrari dagozkiola ez da zalantzarik, baina hori baino geruza zaharragoen arteko estratifikazioa ere egin beharko litzateke; demagun, Erdi-Mendebaleko Euskara Zaharrekoak (inoiz halakorik izan bazen) edo Euskara Batu Zaharrekoak zein diren bereizteko (cf. Lazarraga eskuizkribua aurkitu arte Euskal Herriko erdi-ekialdean bakarrik lekutuak ziren formak).

Beste alde batetik, Mendebaleko Euskara Zaharraren eta Mendebal Muturreko Euskararen berrikuntzak agertzen dira eskuizkribuan (cf. $a + a > ea$, txistukarien palatalizazioa bokalerdiaren ondoren zein *egin*-en eta **edutsi*-ren gramatikalizazioa, adibidez), bai eta dirudienez Araban bertan sortutako eta orain arte behintzat Arabatik kanpo lekutu gabeko zenbait forma, hala nola *jakin~jagin* aditz laguntzaileak.

Larramendiz geroztik hainbatetan jo izan da Arabako euskara dialekto nahasitzat, dirudienez beste eremu batzuetako ezaugarriak nahasten zirelako bertan. Dialektoak lurraldeen mugekin hertsiki lotzen dituen ikuspegia saihestuta eta Bizkaiko, Gipuzkoako zein Nafarroako dialektoak betidanikoak ez direla onartuta, aitzitik, bestelakoa izan beharko luke ikuspegiak: Arabak ez ditu nahasten Bizkaiko eta Gipuzkoako formak; Arabak gerora Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan nagusitu ziren berrikuntza edo hautuak nagusitu aurreko egoera erakusten du tarteka: berrikuntza horiek burututa edo hautuak egin gabe zeudeneko egoera. Bestela esanda, Arabako euskararen *deut*, *dot*, *det* eta *dut* daude (cf. Mounole inprimategian), baina ez dira inondik hartuak edo inondikoak hartuta nahastuak. Horietako bakar bat nagusitu aurreko egoera zaharragoa islatzen dute Arabako testuek (eta, batez ere, erdi-ekialdekoek). Mitxelenarekin (1958), Lakarrarekin (2004) eta Zuazorekin (2012) bat, Arabako euskarak (eta ezaugarri gordeei dagokienez batez ere erdi-ekialdekoak) bazuen beregaintasun dialektala lehenengo testuak agertu orduko.

6.4.3.2. Eremu geografiko batean berrikuntza-sorta bat nagusitzea eremu hori definitzeko nahikoa izan ohi da, baina eremu hori eremu dialektaltzat jotzeak badu bigarren ondorio larri bat ere: eremutik kanpo geratzen den lurraldea pasiboki definitzen, mugatzen edo deskribatzen da. Mendebal Muturreko Euskarak Bizkai osoa, Araba eta batez ere Debagoiena barne biltzen dituela esatean entitate dialektal zahar bat definitzen da; baina, entitate hori Mendebaleko Euskara Zaharraren barneko zatiketa bat dela onartzen bada, Mendebal Muturreko Euskara kontrajartzen ari gatzaizkie Mendebaleko Euskara Zaharrak barne hartzen zituen erdi-ekialdeko eremuei:

Gipuzkoako Urola eta Goierri, Arabako erdi-ekialdeari eta Nafarroako mendebaleko zenbait ibarri.

Aurrekoarekin lotuta daude, hain zuzen ere, ikuspegi historikotik gerora *gipuzkera* edo *erdialdeko euskara* deitu izan den dialektoa mugatzeko arazoak. Garaia zein den, *gipuzkera* gehiago da beste dialekto batzuk definitu ondoren geratzen dena, aspaldirik euskararen arau komun izan ziren ezaugarrien eta zenbait isoglosa oro har modernoren konbinazioak eratutako *continuum*-a. Zuazok (2014: 79 eta hurrengoak) egungo *erdialdeko euskara* definitzeko emandako hamalau ezaugarrietatik gehienak (edo guztiak) jo daitezke erlatiboki modernotzat edo oso modernotzat. Zaharrentzat jo litezkeenak ere garai historikoan edo horretatik oso hur sortutakotzat jo behar dira: Gipuzkoako [x] ahoskera gaztelaniaren eraginez sortua bada, gaztelaniaz XVI-XVII. mendeetako erreboluzio fonologikoaren ostekoa izan behar du; halaber, **edun*-en adizkietako *-e-* formak ez bide dira bereziki zaharrak Lazarragaren polimorfismoaren argitan, eta *izan*-en adizkietako *gera* bezalakoak ere beste dialekto batzuetan sortutako aldaerek baino berriagoak izan behar dute *gare*-tik abiatutako metatesiz sortu badira (Ariztimuño 2013: 419 eta hemengo 412. oin-oharra).

Are modernoagoak, “azken ordukoak” dira *nor* izenordainaren ordeaz *zein* erabiltzea (Gipuzkoan XIX-XX. mendeetako testuetan ugaritzen da; cf. *OEH*, s.v. *zein*) eta *al* partikularen erabilera (XVIII. mendearen amaierakoak dira lehen adibideak, eta XIX.aren erdialdean ugaritzen da; cf. *OEH*, s.v. *al*).

6.5. LEMaren hastapenez eta *literatur bizkaiera*-ren aurrekariez

6.5.1. Euskal tradizioaz aritzean Larramendi aipatu ohi da, euskararen aldeko apologia, gramatika eta hiztegia argitaratuta aurreko (eta, hainbat urtez, osteko) inork ez bezalako ekarpena egin baitzion euskarari: idazleei idazteko tresnak emateaz gain, Larramendiren garaiaz geroztik hamarkadaz hamarkada agertzen den kontzientzia eta ezagutza linguistikoa ezezagunak ziren, tamaina horretan behintzat, Euskal Herrian. Larramendiren aurreko testuak direla eta, ordea, zail da ezer erabat argi ikustea idazle jakin batek tokiko euskararen edo tokiko euskara (oso) landuan idatzi zuen erabaki behar denean, batez ere corpusa osatzen duten lanak xumeak, sakabanatuak eta argitaragabeak direnean, Euskal Herriko mendebalean gertatzen denez.

6.5.2. Arestian aipatutako Larramendirekin lotu izan da Lehen Euskara Modernoaren hasiera; zehazki, 1745ean kokatu zuen Lakarrak (1997a). Data zentzuzkoa

da, 1745ean burutuzat jo baitaiteke Larramendiren asmoa (cf. 1746an bertan Zarauzko frantziskotarren komentua sortu izana sermoigintza-eskola legez). Nire ustez, ordea, eta hizkuntzen historiaren periodizazioetan ezarri ohi diren datak ezinbestean erlatiboak izan ohi direla ahaztu gabe, uste dut egokiagoa dela data hori 1730era aurreratzea, bai Gipuzkoako, bai Bizkaiko testuetarako gutxienez.

Aurrekoa proposatzeko arrazoi nagusia Lehen Euskara Modernoaren izateari berari dagokio: hein handi batean sermoilari eta idazleen kontzientzia eta ezagutza linguistiko handi(ago)ak ezaugarritutako garai luzea da, eta kontzientzia eta ezagutza horren araberrako hautuak aurkitu ditut Bizkaiko 1730eko bi idazleren lanetan, besteak beste: Arzadun eta Urkizu durangarren lanetan.

Arzadun Urkizu baino zaharxeagoa izan arren, baten eta besteen testuen artean agertzen diren ezberdintasun batzuk ez adinari baina idazle bakoitzaren hautuei egoztekoak direla uste dut. Baten eta bestearen lanak alderatuta, ikusi dut Arzadunek eredu kontserbatzailea baliatu zuela, oro har, txistukarien neutralizazioari eta eufoniei dagokienez:

- Arzadunen dotrinan ondo gordetzen da lepokarien eta apikarien arteko bereizketa, eta eufonien artean $e \rightarrow i / _V$ besterik ez da agertzen testuinguru jakin batzuetan.
- Urkizu garaikidearen testuetan, berriz, interesgarri da 1737ko liburuko prosazko pasarteak eta amaierako koplak alderatzea: alde batetik, neutralizazioaren adibideak, bakanak izan arren, ugariagoak dira Arzadunenean baino; beste alde batetik, are deigarriago dena, idazlearen hautu kontzientea islatzen du amaierako kopletan agertzen diren eufoniak prosazko pasarteetan ez agertzeak: genero herrikoiagotzat zuelako-edo, zenbait eufoniarik leku egin zien Urkizuk bere kopletan.
- Halaber, Urkizuren 1737ko liburua (prosazko pasarteak eta koplak barne hartuta) 1740ko koplekin alderatuta, argi dago azken horietan eredu landuago eta orokorrago baten alde egin zuela: batago egiten du 1737ko prosazko pasarteekin bertsozkoekin baino; izan ere, txistukariak ondo bereizteaz gain, 1737ko kopletan baziren $o \rightarrow u / _V$ eta $-ijV$ eufoniarik ez dago 1740koetan. Are deigarriago da zenbait kasutan $e \rightarrow i / _V$ gertatua zen arren idazleak $e.a$ eman izana: errimetan gertatzen dira halakoak tarteka, eta idatziz behintzat eredu zaharragoari eusteko nahia erakusten dute. Erabilera hori ez da, bide batez, Urkizuren eskusiboa:

Bertso bizkaitarrak sortan zein Barrutiaren lanean ere aurki daitezke halakoak, arian-arian ugaritzen ari ziren eufoniei idatziz hainbeste lekuri egiten ez zitzaielako seinale.

6.5.3. Aurreko datuen argitan, Arzadunen eta Urkizuren testuetan agertzen diren ezaugarri linguistiko esanguratsu batzuk behintzat ez dira zertan Durangoko euskara zaharrarekin lotu: idazleen euren hautuen zordunago bide dira. Hautu horiek, bestalde, eredu kontserbadore edo gordetzaile baten alde egiten dute, eta harritzekoa ere ez da, Arzadunen pasarte batzuek Kapanagaren dotrina baitute iturri (§5.3.3.2.1), eta Durango aldean eredu askoz gehiagorik ez zegokeelako orduan (Zubiaren dotrina?). Arzadunen lehenengo (1731) eta bigarren (1758) dotrinen artean zenbait puntutan dagoen aldea ere (morfologian nabarmena da ablatiboko *-rean* zaharra berriturik agertzea; cf. Lakarra 1984b) Arzadunen eredu gordetzailearekin lot daiteke neurri batean; ez da ahaztekoa bigarren argitalpena idazlea hil ondoren prestatu zela.

Hori guztia dela eta, hasieran aipatu legez, egokiago ikusten dut Arzadun eta Urkizu Bizkaian Lehen Euskara Modernoaren hastapenekin lotzea: Euskara Zaharreko zenbait ezaugarri agertzen dira bien lan xumeetan, baina horietako batzuk idazleen hautu gordetzaileekin lotu behar dira, eta hala batak nola besteak islatzen dute hautu jakin batzuk egiteko kontzientzia eta ezagutza linguistiko nahikoa.

6.5.4. Ulibarrik (2015) *predikazio garai* deitutakoan literatur bizkaieraren aitzindari nabarmena ikusi zuten Arejitak (2003) eta Salaberri Muñoak (2004): Kardaberatzek Bizkaiko euskara imitatuz *ca.* 1762an emandako dotrina. Arzadunek eta Urkizuk baino euskara askoz landuagoa baliatu zuen, eta harritzekoa ere ez da garaiko idazle handiena edo handienetarikoa zela aintzat hartuta; aitzitik, hemen aztertutako alderdien artean interesgarrienetarikoa da aurreko bien bide beretik jotzea erabaki zuela: ez zuela leku edo eremu jakin bateko euskara aukeratu, ezpada eredu landu eta orokorragoa, supradialektala hainbat puntutan, jende gehiagok ulertzeko modukoa. Horretan, beraz, bat egin zuen Arzadunekin eta Urkizurekin, bai eta eredutzat berenberegi aipatutako Kapanagarekin ere: Gipuzkoako euskarak Larramendi buru hartutako norabide bera ezarri nahi izan zuen Bizkaian, gerora Añibarrok egingo zuen legez, eta badirudi izan zuela arrakastarik, Bartolome Olaetxeak 1763an argitaratutako dotrinatxoan ere hizkera-eredu bera (gordetzailea eta orokorra, alegia) agertzen baita, idazle baten eta bestearen hautuak hautu.

6.5.5. Lehen Euskara Modernoaren barnean Urgellek (2018) *hastapena* deitutako azpi-garaietan, beraz, eredu gordetzailea eta orokorra izan zen nagusi: *hastapen*

horiek 1730era ekarrita Arzadunen lanaren lehenengo bi edizioak eta Urkizuren testuak sartuko lirateke (salbuespen bakarra dira 1737ko liburuko koplak, neurri batean) lehenengo urteetan, eta Kardaberatzen eta Olaetxearen dotrinaren lehenengo edizioak (ca. 1762 eta 1763) ondoren. Hastapen horietako idazleek Kapanaga izan zuten neurri bateko eredu eta aurrekari (Arzadunek eta Kardaberatzek beren-beregi aipatzen dute), baina ereduaz bazterturik geratu zen ondoko urteetan, harik eta Añibarrok XIX. mendearen hasieran berreskuratu eta landu zuen arte.

6.5.6. Gutxi gorabehera 1780ra bitartean indarrean egondako eredu gordetzailagoa aldatzea idazle batzuen irizpide-aldaketak ekarri zuen. Sermoigintzari loturiko predikazio-garaian gero eta leku gehiago egin zitzairen tokian tokiko hizkeren ezaugarriei tarteka, eta joera hori liburu inprimatuetara ere iritsi zen 1780ko hamarkadan, Urgellek (2018: 583) Lehen Euskara Modernoaren *finkatze-garaia* deitutakoan. Hain zuzen ere, sasoi horretan paradigmaticoa da Kardaberatzen dotrinaren lehenengo ediziotik 1783kora dagoen aldea; azken hori Mogekek prestatu zuen eta hizkuntza-eredua bestelakoa da, oso: euskara (azpi)dialektala agertzen da, ez orokor edo (supra)dialektala, lexiko landuagoa eta morfosintaxi eraldatua (begiratu Altzibar 1991c).

1783ko dotrinak berebiziko garrantzia du literatur bizkaieraren lan aitzindarien artean, hala Mogekek nola markinar idazleek XIX. mendearen lehenengo hamarkadetan sustatuko zuten eredu lokalistagoa eta hertsiaagoa agertzen baita Mogekek dotrinaren bigarren edizioan. Hautua sasoiko giro orokorrago batekin lotzekoa dela zioen Ulibarrik (cf. Ulibarri 2015: §4.3.2.2.2), ez Mogelen hautu hutsekin. Hori ukatu gabe, ordea, Kardaberatzen dotrinaren 1783ko bertsio eraldatuan agertzen diren lanketa eta irizpide sendoei tinko eutsi zien Mogekek hala lan hartan bertan nola hurrengo hamarkadetan idatzitakoetan, eta “giro orokor” hura Bizkaian behintzat neurri batean “Markinako eskola”-k sustatu zuela azpimarratu behar da: “ohargarria iruditzen zait, ordura arteko bizkaierazko idazlanetan bederen, euskara modu apaindu baten bilaketa eta erizpide agerketa hain garbia” (Altzibar 1991c: 261).

Maila batean eredu herrikoi landua edo “markinarra” XVIII. mendearen amaieratik bertatik sustatu zelako erakusgarri ona da Olaetxea; izan ere, eredu berrira makurtu zen arian-arian bere dotrinaren 1774~1775eko, 1780ko eta 1787ko argitalpenetan, eta 1794ko bertsio laburtuan, eta gogoratzekoa da Añibarroren gaztaroko zenbait testutan ere agertzen direla gerora eredu orokorrago baten alde baztertutako zenbait fonetismo.

6.5.7. Aurreko puntuarekin bat, Ulibarrik predikazio-garaiko hizkuntza-giroarekin lotu zuen lokalismoak ugaritzea, baina ez da zertan pentsatu irizpide hori berez, “giroari” lotuta eta erreferente zehatzik gabe gertatu zenik: Etxebarriko Bizente Sarriaren sermoiak (*ca.* 1790) aztertzean erakutsi legez, gerora “Markinako eskola” edo “Markinako hizkera-eredua” osatuko eta finduko zuten idazle batzuen zuzeneko eraginarekin lotu behar dira zenbait irizpide eta hautu linguistiko, eta, hona iritsita, komeni da gogoratzea markinar idazleek finkatuko eta sustatuko zituzten ezaugarrietako batzuk (eufoniak, besteak beste) ondo finkatuta agertzen direla Mogelek 1783an prestatutako dotrinan.

Sarriaren kasuan hori ondorioztatzeko eufoniak bakarrik erabiltzea arriskutsu izan zitekeen, azken batean Etxebarrin eta inguruetan bai orduan, bai gerora eufonia horietako batzuk ($e \rightarrow i/_V$ eta $-ijV$ bai, behintzat) indarrean egon baitira eta pentsa bailiteke tokiko hizkeretan zegoena idatziz jarri besterik ez zuela egin Sarriak. Alabaina, erakutsitakoarekin bat (§5.3.3.2.3.2), Etxebarrikoaren sermoi batzuetan agertzen den euskara-ereduak eufonietan ez ezik beste ezaugarri batzuetan ere egiten du batago Markinako ereduarekin: “Markinako eredua” sortua zen XVIII. mendearen azken hamarkadetarako, eta Mogelen eragina ez ezik Frai Pedro Astarloarena ere azpimarratu behar dela dirudi, Sarriak hura ezagutu zuelako garaiko kultur bizimodurako hain garrantzitsua izan bide zen Bilboko frantziskotarren komentuan.

6.6. Hemendik aurrerakoak

6.6.1. Ezin uka dezaket tesi hau egin ahala ikasi besterik ez dudala egin: ikasi ustez ezagutzen nituen testuez eta ezagutzen ez nituenez, ikasi testuok aztertze moduez eta ikasi aztertutakoak interpretatzeko bideez. Ikasitakoak ikasita, ordea, estutu bezainbat pozten nau ikerketa-gai eta -arlo honetan oraindik ibiltzeko bide luzea dagoela ikusteak: gai bat hurretik lantzea izan ohi da norberak gaiak zer gutxi dakien ikusteko modu onena.

Tesi honi dagokionez eta atariko sarreran esandakoarekin bat, asmo zabalago baten barnean kokatu behar da; mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikoa osatzea da helburua, eta horretarako zenbait ikerbide eta langai argi ikusten ditut.

6.6.2. Aztergaiei dagokienez, hemen ezaugarri (mor)fonologikoez esandakoak beste hizkuntza-maila batzuetako ezaugarrien azterketarekin osatu behar dira; zehazki,

mendebaleko euskararen morfologian, izenarenean eta aditzarenean, sakondu behar da. Tesi honetan ezaugarri fonologikoez emandako azalpenak osatzeko erabili ditut tarteka zenbait ezaugarri morfologiko: horiek, bada, osagarri legez erabiltzetik erdigunera ekarri behar dira, zeinek zein eredu geolinguistiko berresten, zein ukatzen eta zein eraldatzen duen ikusteko, eta garaian garaiko egoera linguistikoen ikuspegi osoagoa izateko. Mendebaleko euskararen morfologia ikertzea da buruan darabildan hurrengo pausoa, beraz, eta ikuspegi osoagoz berreraikitzen eta deskribatzen jarraitzea mendebaleko euskararen bilakabidea, eta euskara horren eta beste batzuen arteko hartu-emanak.

Tesi hau eginbidean nuela, bestalde, ikerketan aurrerago, argiago ikusi dut Euskal Herriko erdialde zabala aztergai hartzen duen beste lan baten beharrezana: Donostiako, Beterriko, Nafarroa Garaiko, Lapurdiko kostaldeko eta barnealdeko dinamika linguistiko historikoak zein diren aztertzea eta horiek mendebaleragoko eta ekialderagoko eremuetako datuekin erkatzea berebizikoa da Euskara Batu Zaharraren ondoko zatiketa eta banaketa zaharrez argia lortzeko.

6.6.3. Iturriei dagokienez, euskal testuen corpusarekin lan egin duen edonork ikusi ahal izan du muga eta arazoak ez dagozkiola beti corpusaren txikitasunari, homogeneousatasunari eta desorekari: zenbait testuren egoera bera da arazo, transkripzio edo edizio fidagarriak falta baitira oraindik, eta horiek gabe egindako azterketa ahulagoa eta ezegonkorragoa baita. Badut asmorik, beraz, nire ustez lehentasunez egin beharko lirakekeen testuen edizio gintzan aritzeko; azken batean, edizioa da azterketa zuzenatarako oinarri, eta azterketak, era berean, aberastu egiten du edizio gilearen lana.

Edizioez harago, beste alde batetik, Erdi Aroko datuak osatzeko onomastikaren esparruko datu-base eta lanak sistematikoki arakatu eta aztertu behar dira: onomastika bigarren mailako iturri izan ohi da dialektologia historikoko ikerketetan tokiko hizkerak aztertzeko testuak daudenean; baina, Erdi Aroko euskal lekukotasunen izaera aintzat hartuta, ezinbestekoa da garai hartako onomastikaz datu gehiago erauztea, tesi honetan proposatutako banaketa kronologiko eta geografikoak berresteko edo zuzentzeko, eta bestelakorik proposa daitekeen ikusteko.

6.6.4. Azterketarako ikuspegi eta tresna teoriko-metodologikoei buruzko oharra egingo dut azkenik. Dialektologia eta hizkuntzalaritza historikoa ibilbide luzeko diziplinak dira, eta azken mende eta erdian hainbat proposamen egin dira, ikuspegia eta garaia zein zen, datu dialektalak eta historikoak biltzeko eta interpretatzeko. Hainbatetan kontrajarri ere egin dira ikuspegi horiek, eta gatazkak sortu dira ikergaien

muga-ertzetan; aitzitik, tesi honen bidez erakutsi uste dut euskal dialektologia diakronikorako baliagarri direla, neurri batean edo bestean, ezaugarriak edo aztergaiak zein diren, azken mende eta erdian garatutako (azpi)diziplina eta ikerketa-arloak: filologia, hizkuntzalaritza historikoa, tipologia, onomastika, hizkuntzalaritza areala, geografia linguistikoa, geolinguistika eta soziolinguistikaren zenbait ikuspegi aintzat hartu gabe oso bestelakoak ziratekeen, edo ez ziratekeen, hemen egindako azterketak eta lorturiko emaitzak.

7. Erreferentziak

7.1. Laburdurak

<i>ConTAV</i>	<i>Contribución al estudio...</i>	Sarasola (1983)
<i>EAEL</i>	<i>Euskalerriko atlas etnolinguistikoa</i>	Egaña <i>et al.</i> (1983-1990)
<i>EHHA</i>	<i>Euskal Herri Hizkeren Atlasa</i>	Euskaltzaindia (2008-)
<i>EHHE</i>	<i>Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa</i>	Lakarra <i>et al.</i> (2019)
<i>EI</i>	<i>Erizkizundi irukoitza</i>	Echaide (1984)
<i>EKC</i>	<i>Euskal Klasikoen Corpora</i>	http://www.ehu.eus/ehg/kc/
<i>EODA</i>	<i>Euskal Onomastikaren Datutegia</i>	https://www.euskaltzaindia.eus/es/onomastica
<i>ETZ</i>	<i>Euskal Testu Zaharrak I</i>	Satrustegi (1987)
<i>ETZBB</i>	<i>Euskal testu zaharren Bilduma Berria</i>	Gómez <i>et al.</i> (prestatzen)
<i>FHV</i>	<i>Fonética histórica vasca</i>	Mitxelena (1961)
<i>HH</i>	<i>Hiztegi hirukoitza</i>	Larramendi (1745)
<i>MorfVasc</i>	<i>Morfología vasca</i>	Azkue (1925)
<i>OEH</i>	<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>	Mitxelena & Sarasola (1987-2005)
<i>TAV</i>	<i>Textos arcaicos vascos</i>	Mitxelena (1964a)

7.2. Bibliografia

- Abaitua, J., 2019, "Patrones geolingüísticos, áreas dialectales y cronologías absolutas del EHHA", *Fontes Linguae Vasconum* 126, 286-322.
- Aginagalde, B. & Urgell, B., 2012, "XVI. mendeko mendebaldeko lekukotasun berri bat: Sarasketa hiztegitxo", *ASJU* 46:2, 13-29.
- Agirre, P., 2001, "Belapeireren grafiak", *ASJU* 35:1, 299-361.
- Agirrebeña, A., Sarasua, A. & Zabaleta, M., 2017, *Getaiko euskera*, Getaria: Getariako Udala.
- Agirretxe, L., Lersundi, M., Olaetxea, O., 1998, *Pasaiako hizkera*, Pasaia: Pasaiako Udala.
- Aikhenvald, A. & Dixon, R. M. W. (arg.), 2001, "Introduction", in A. Aikhenvald & R. M. W. Dixon (arg.), *Areal Diffusion and Genetic Inheritance. Problems in Comparative Linguistics*, Oxford: Oxford University Press, 1-26.
- Aitchison, J., 2004 [1991], *Language change. Progress or decay?*, Cambridge: Cambridge University Press.

- Akesolo, L., 1989 [1971], “Kardaberaz eta Bizkaia”, berrarg. in *Idazlan guztiak*, Zornotza: Karmel Sorta I, 52-72.
- _____, 1982, “Amaseigarren mendeko euskerazko «miserere» bat”, *Karmel* 166, 37-47.
- Akinvaso, F. N., 1982, “The literate writes and the nonliterate chants: written language and ritual communication in sociolinguistic perspective”, in W. Frawley (arg.), *Linguistics and Literacy*, New York: Plenum Press, 7-36.
- Alarcos, E., 1950a, *Fonología española*, Madril: Gredos.
- _____, 1950b, “Apuntaciones sobre toponimia riojana”, *Berceo* 16, 473-492.
- _____, 1965, “Representaciones gráficas del lenguaje”, *Archivum* 15, 5-58.
- _____, 1990, “De nuevo sobre los cambios fonéticos del siglo XVI”, in M. Ariza, A. Salvador & A. Viudas (arg.), *Actas del I Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española*, Madril: Arco/Libros, 47-59.
- Aldai, G., 2008, “Últimos restos del aoristo perifrástico en el euskera de Bilbao”, *Fontes Linguae Vasconum* 109, 405-417.
- _____, 2012, “Sobre el origen de Martín Portal, autor de la poesía premiada en Pamplona en 1610”, *Fontes Linguae Vasconum* 114, 93-118.
- _____, 2013, “Sasiola vs. Lazarraga: Acerca del euskera del texto de Estibaliz Sasiola”, *Lapurdum* XVII, 7-29.
- _____, 2014, “Hacia una periodización de la fragmentación del euskera occidental”, *Fontes Linguae Vasconum* 118, 221-245.
- Aldazabal, P. J., 1768, *Ama Virgina santissima Yciarcuaren bederatziurrena*, Tolosa: Fermin Huarte.
- Alinei, M., 2004, “The problem of dating in linguistics”, *Quaderni di semantica: rivista internazionale di semantica teorica e applicata*, 25:2, 211-234.
- Allières, J., 1981, “La dialectologie basque”, in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 103-113.
- Alonso, A., 1955, *De la pronunciación medieval a la moderna en español*, Madril: Gredos.
- Altuna, F., 1995a, “Loiolako dotrina (XVIII. mendea)”, *ASJU* 29:2, 611-649.
- _____, 1995b, “Acto contriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren arabarazko eskuizkribua (1778)”, *ASJU* 29:1, 83-132. Berrarg. in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko Legebiltzarra: Gasteiz, 519-523.
- _____, 2001, “Rosabella. 1550. urteko komedian lau esaldi euskaraz”, *ASJU* 35:1, 271-280.
- Altuna, P. & Lakarra, J. A., 1990, *Manuel Larramendi. Euskal testuak*, Andoaingo Udala: Donostia.
- Altuna, P. & Zulaika, E. (arg.), 2004, *Agustin Kardaberaz. Eusqueraren berri onac (1761). Edizio kritikoa*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Altuna, B., 2003, *Euskaldun fededun*, Irun: Alberdania.
- Altzibar, X., 1982, “Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide”, *Euskera* 27, 457-494.
- _____, 1986, “Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)”, *Euskera* 31, 17-45.
- _____, 1990, “Peru Abarca-ren kopiak eta lehen edizioa”, *ASJU* 24, 871-887.

- _____, 1991a, *.Gabonsariak. El borracho burlado*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- _____, 1991b, “J. A. Mogelen hasierako idazkera: hiru platika eta 1783ko dotrina”, *ASJU* 25:2, 623-650.
- _____, 1991c, “Kardaberazzen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa”, in J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum* (ASJU-ren gehigarriak 14), Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 259-276.
- _____, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: nortasuna, idazlanak, grafiak*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- _____, 1993a, “Durangaldeko Andremari- eta Gabon-kanta zahar batzuk zortzikoan”, *Litterae Vasconicae* 6, 35-55.
- _____, 1993b, “1800 aurretikoko euskarazko sermoiak Ameriketean, aita Bizente Sarria frantziskotarrarenak”, in R. Basurto (arg.), *Homenaje a Francisco de Abrisketa. Frantzisko Abrisketari omenaldia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herriko Bolibariana Elkarte, 361-391
- _____, 1996, “Humboldt, Astarloa eta Mogel”, *RIEV* 41, 587-596.
- _____, 1997, *Pedro Paulo Astarloa (1752-1806)*, Durango: Durangoko Arte eta Historia Museoa.
- _____, 1999, “Fraibartolomeren liburueta euskara”, *Karmel* 225, 199-229.
- _____, 2004, “Dotrina, erretorika eta erudizioa Mogelen erlijio liburueta”, *Lapurdum* 9, 23-38.
- _____, 2008, “Bizenta Mogelen gabon kantak eta 1828ko bertsoak”, *Bidebarrieta* 19, 25-104.
- _____, 2013, “Bizkaiko euskal idazleen gizarte ikusmoldea (1800-1833)”, *Bidebarrieta* 24, 20-31.
- Alvar, M. (arg.), 1996, *Manual de dialectología hispánica. El español de España*, Bartzelona: Ariel.
- Andersen, H., 1975, “Towards a typology of change: bifurcating changes and binary relations”, in J. M. Anderson & C. Jones (arg.), *Historical linguistics*, Amsterdam: North-Holland, 17-60.
- _____, 1988, “Center and periphery: adoption, diffusion, and spread”, in J. Fisiak (arg.), *Historical dialectology. Regional and social*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 39-83.
- _____, 1989, “Understanding linguistic innovations”, in L. E. Breivik & E. H. Jahr (arg.), *Language change. Contribution to the Study of its Causes*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 5-19.
- Anderson J. A. (arg.), 1982, *Language Form and Linguistic Variation. Papers dedicated to Angus McIntosh*, Amsterdam: John Benjamins.
- Apalauza, A., 2012, *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*, Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Aragues, I., 2003, *Y tú, ¿cómo dices...? Vocabulario actual de Pamplona*, Iruñea: Iruñeko Udala.
- Aramaio, I. & Sarrionandia, J. (1985), *Durangoko euskaraz lau sermoi (XIX. mendea)*, Durango: Gerediaga.

- Arana, S., 1896, *Lecciones de ortografía en euskera vizcaíno*, Bilbo: Tipografía de Sebastián de Amorrortu.
- _____, 1915 [1897], “La inscripcion euzkerica de Butron”, *Revista Euzkadi* 13, 321-324.
- Arana, A., 2006, *Hegoaldeko Goi-nafarrera: Iruñeko aldaera. Hiztegia*, Donostia: Hiria.
- Arcocha-Scarcia, A., 2008, “*Linguae Vasconum Primitiae*-ren peritestalitateaz eta euskararen gramatizazioaren primiziaz”, *ASJU* 42:2, 1-68.
- Arejita, A., 1983, “Domingo Egikori gorazarre kantua”, *Litterae vasconicae* 2, 139-181.
- _____, 1988, “Domingo Heguiari kantua. Textoa eta lexikoa”, *Litterae vasconicae* 4, 7-51.
- _____, 1991, “XVII. mendeko bizkaiko amodio-kantu ezezagun bat: *enojaduric*”, *Litterae Vasconicae* 5, 9-20.
- _____, 1993, “1801. urteko Gernikako Gabon-kanta bat”, *Litterae vasconicae* 6, 9-34.
- _____, 1994, *La obra de Juan Antonio Moguel*. Deustuko Unibertsitateko doktoretzatesi argitaragabea. Zuz.: Alfonso Irigoien.
- _____, 2003, “Agustin Kardaberaz: zenbait hizkera-ezaugarri eta bizkaieraren iturriak”, in E. Pérez Gaztelu & E. Zulaika (arg.), *Agustin Kardaberaz. Hirugarren mendeurrena (1703-2003)*, Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 91-124.
- _____, 2008a, *Exposición breve de la doctrina christiana (Doctrina Christiñauena). Geronimo de Ripalda. Martín Ochoa de Capanagac eusquerara biurtua* (argitalpen faksimila), Bilbo: Labayru Ikastegia & BBK Fundazioa.
- _____, 2008b, “Lazarragaren lexiko eta gramatika zehetasunez”, in H. Knörr (arg.), *Jean Haritschelhar-i omenaldia (Iker 21)*, Bilbo: Euskaltzaindia, 59-93.
- _____, 2018, “Bizkaierazko dotrinen liburuari atze-oharrak”, in J. M. Rementeria, *Euskerazko dotrinak. I. Bizkaieraz*, Bilbo: Labayru Ikastegia, 242-262.
- Arejita, A. & Alberdi, M., 1985, “Amilletaren dotrinea”, *Litterae vasconicae* 3, 9-68.
- Arejita, A. & Bidart, A., 2010, “Elorrioko ziri-bertso batzuen izkribu hondarrak XVIII. mendean”, *Litterae vasconicae* 11, 265-275.
- Arejita, A., Elejabeitia, A., Isasi, C. & Otaegi, J. (arg.), 2002, *Bilbao. El espacio lingüístico. Simposio 700 aniversario / Bilboren 700. urteurrena. Hizkuntzagunea. Sinposioa*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Arejita, A., Manterola, A. & Oar-Arteta, S., 2007, *Euskararen geografia historikoa*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Arejita, A., Oar-Arteta, A. & Legarra, H., 2001, *Bizkai euskeraren jarraibide liburua*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Arin, J. & Arruabarrena, J., 1989, *Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak*, Donostia: Kriseilu.
- Ariza, M., 1989, *Manual de fonología histórica del español*, Madril: Síntesis.
- _____, 1994, *Sobre fonética histórica del español*, Madril: Arco/Libros.
- Arizaga, B., 1994, *Gipuzkoako hiri zaharrak*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Arizaga, B. & Martínez, S., 2006, *Atlas de villas medievales de Bizkaia*, Bilbo: BBK & Eusko Ikaskuntza.

- Ariztimuño, 2013, “Finite Verbal Morphology”, in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction [Mikroglottika 5]*, Frankfurt am Main: Peter Lang, 359-427.
- _____, 2015a, “Euskararen dialekto zaharrak aztertze saioa: aitagureen *mithridates* baten deskribapena”, in G. Aurrekoetxea, J. M. Makazaga & P. Salaberri (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, Bilbo: UPV/EHU, 21-40.
- _____, 2015b, “Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)”, in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen duzu zertzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU, 49-70.
- _____, 2015c, “Axularren *-(k) aio* aditz-bukaeraz: datibo(-ikurraren) eta denbora-aspektu-moduen historiarako gaiak”, in I. Epelde (arg.), *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun (Lapurdum-en ale bereziak 3)*, Baiona: Iker UMR5478, 81-113.
- _____, 2018, “SENI eta LOHI (sudurkari galduaren bila)”, in J. A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi (ASJU 52: 1/2)*, 19-31.
- Ariztimuño, B., Manterola, J. & Zuloaga, E., prestatzen-1, *Mikoletaren edizio kritikoa*.
- Ariztimuño, B. & Uribe-Etxebarria, O., prestatzen-1, “Istoria sagraduco esplicacio labur bat (edizioa)”.
- Árnason, K., 1999, *The Phonology of Icelandic and Faroese*, New York: Oxford University Press.
- Arretxe, J., 1994, *Basauriko euskara*, Basauri: Basauriko Udala.
- Arriolabengoa, J., 1996, “Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan”, *ASJU* 30:1, 71-98.
- _____, 2006, *Iburguen-Cachopín kronika. Edizioa eta azterketa*, UPV/EHUko doktorego-tesiarene bertsio argitaragabea (begiratu Arriolabengoa 2008). Zuzendaria: J. A. Lakarra dok.
- _____, 2008, *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ascoli, G. I., 1876, “Paul Meyer e il franco-provenzale”, *Archivio glottologico italiano* 2, 385-395.
- Atutxa, U., 2011, *Txistukarien neutralizazioa mendebaleko euskaran XVI-XVIII mendeen bitartean*, UPV/EHUko master-tesi argitaragabea (begiratu Atutxa 2013). Zuz.: Iñaki Camino dok.
- _____, 2013, “Txistukarien neutralizazioa mendebaleko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean (lehen hurbilketa)”, in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 61-75.
- Atutxa, U. & Zuloaga, E., 2014, “La neutralización de las sibilantes en vasco: una perspectiva diacrónica”, in F. Jiménez, A. Jimeno, A. de Lucas & N. Celayeta (arg.), *Variación geográfica y social en el panorama lingüístico español*, Iruñea: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Navarra, 21-32.
- Atwood, E. B., 1986 [1963], “The methods of American Dialectology”, berrarg. in H. B. Allen & M. D. Linn (arg.), *Dialect and Language Variation*, San Diego: Academic Press, INC, 63-97.

- Aurrekoetxea, G., 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro* 5, 59-109.
- _____, 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, Leioa: UPV/EHU.
- _____, 1996, "Hizkerak banatzeko ezaugarriez", *ASJU* 30:1, 127-144.
- _____, 2009, "Euskalkien dialektotasunaz", in R. Etxepare, R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre - Festschrift for Bernard Oyharçabal* (*ASJU* 43:1/2), 119-136.
- Aurrekoetxea, G. & Videgain, X. (arg.), 1992, *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak* (*Iker* 7), Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 2004, *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan* (*ASJU*-ren gehigarriak 49), Bilbo: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, G., Videgain, X. & Iglesias, A. (arg.), 2004, "«Bourciez» bildumako euskal atlasa (BBEA) 1. Lexikoa", *ASJU* 38:2, 1-309.
- _____, 2005, "«Bourciez» bildumako euskal atlasa (BBEA) 2. Gramatika", *ASJU* 39:1, 1-277.
- Azkarate, M. & Altuna, P., 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Donostia: Elkar.
- Azkarate, A. & Solaun, J. L., 2009, "Nacimiento y transformación de un asentamiento altomedieval en un futuro centro de poder: *Gasteiz* desde finales del siglo VII d. C. a inicios del segundo milenio", in J. A. Quirós (arg.), *The archaeology of early medieval villages in Europe*, Bilbo: UPV/EHU, 405-425.
- Azkue, R. M., 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*, Paris: Paul Geuthner.
- _____, 1925, *Morfología vasca*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1926, "Observaciones acerca de la obra *Langue basque et langues finnoises* del Príncipe L. L. Bonaparte", *Euskera* 3/4, 17-36.
- _____, 1935, "Evolución de la lengua vasca", *Euskera* 1/2, 57-120.
- Aznar, E., 2017, *Tierras, gentes y voces. El legado del euskera riojano*, Iruñea: Pamiela.
- Azurmendi, J. M., 1996, *Ataungo euskara*, Lazkao: Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia & Udaleko Kultur Batzordea.
- _____, 1998, *Zegamako euskara*, Lazkao: Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia & Udaleko Kultur Batzordea.
- Babel, M., Garrett, A., Houser, M. J., Toosarvandani, M., 2013, "Descend and diffusion in language diversification: a study of Western Numic dialectology", *International Journal of Americal Linguistics* 4, 445-489.
- Bach, A., 1934, *Deutsche Mundartforschung*, Heidelberg: Carl Winter Verlag.
- Bailey, G., Wikle, T. & Sand, L., 1991, "The focus of linguistic innovation in Texas", *English World Wide* 12, 195-214.
- Bailey, G., Wikle, T., Tillery, J. & Sand, L., 1993, "Some patterns of linguistic diffusion", *Language Variation and Change* 5, 359-390.
- Baraiazarra, L., 1986, "Markina-Xemeingo euskara aztertzen", *Euskera* 31:1, 143-169.
- Barrutia, E., 1996, *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*, Bilbo: UEU.
- _____, 2000, *Bizkaiko arrantzaleen hiztegia*, Bilbo: Labayru Ikastegia & BBK.
- Bartloi, M., 1925, *Introduzione alla Neolinguistica (Principi – Scopi – Metodi)*, Geneva: L.S. Olschki.

- Bauer, L., 1994, *Watching English Change*, Londres & New York: Longman.
- Baxter, W. H., 1992, *A handbook of Old Chinese phonology*, Berlin: De Gruyter.
- Baxter, W. H. & Sagart, L., 2014, *Old Chinese: A new reconstruction*, Oxford: Oxford University Press.
- Bähr G., 1925, “Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)”, *Euskera* 3, 73-114.
- Bédmar, M. E., 2006, “Problemas de edición de textos manuscritos modernos: la puntuación”, in L. Pons (arg.), *Historia de la lengua y Crítica textual*, Madril: Lingüística Iberoamericana, 127-180.
- Bell, A., 1984, “Language style as audience design”, *Language in Society* 13, 145-204.
- _____, 2001, “Back in style: Reworking audience design”, in P. Eckert & J. Rickford (arg.), *Style and sociolinguistic variation*, Cambridge: Cambridge University Press, 139-169.
- _____, 2014, *The guidebook to sociolinguistics*, Malden: Wiley-Blackwell.
- Bergs, A., 2005, *Social Networks and Historical Sociolinguistics. Studies in Morphosyntactic Variation in the Paston Letters (1421-1503)*, Berlin & New York: De Gruyter.
- _____, 2006, “Spreading the word: patterns of diffusion in historical dialectology”, in M. Filppula, J. Klemola, M. Palander & E. Penttilä (arg.), *Topics in Dialectal Variation: Selection of Papers from the Eleventh International Conference on Methods in Dialectology*, Joensuu: University of Joensuu Press, 5-30.
- _____, 2012, “The Uniformitarian Principle and the Risk of Anachronisms in Language and Social History”, in J. M. Hernández-Campoy & J. C. Conde-Silvestre (arg.), *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Oxford: Blackwell, 80-98.
- Bertoni, G. & Bartoli, M., 1925, *Breviario di neolinguistica*, Modena: Società tipografica modenese.
- Bidegain, M., 1967, “Textos vascos antiguos: crónica”, *ASJU* 1, 179-195.
- Bilbao, J., 1970-1996, *Eusko bibliographia*, Donostia: Auñamendi.
- Bilbao, G., 1997, “De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak. I. *Doctrina christinaubarena*”, *ASJU* 31:1, 247-336.
- _____, 1998, “De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II)”, *ASJU* 32:1, 165-229.
- _____, 2013, “Textos arcaicos vascos 50 urte geroago”, in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 717-728.
- , 2011, “Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian”, in J. A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 621-649.
- Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B., inprimategian, *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*.
- Birnbaum, H., 1985, “Divergence and convergence in linguistic evolution”, in J. Fisiak (arg.), *Papers from the VIth International Conference on Historical Linguistics*, Poznan: John Benjamins & Adam Mickiewicz University Press, 1-24.

- Birnbaum, H. & Puhvel, J. (arg.), *Ancient Indo-European Dialects*, Berkeley & Los Angeles: University of California Press.
- Blake, N. (arg.), 1992, *The Cambridge History of English Language. Volume II: 1066-1476*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Blanco, M., 2006, *Aproximación a la cronología de las transformaciones funcionales de labiales y sibilantes del español*, Santiago: Universidade de Santiago de Compostela.
- Blanco, E. & Krajewska, D., inprimategian, *Lazarragaren hiztegia eta adizkitegia*.
- Blažek, J., 2007, “From August Schleicher to Sergei Starostin: On the development of the tree-diagram models of the Indo-European languages”, *Journal of Indo-European Studies* 35, 82-110.
- Bloomfield, L., 1973 [1933], *Language*, Londres: Allen & Unwin Ltd.
- Blust, R., 1999, “Subgrouping, circularity, and extinction: Some issues in Austronesian comparative linguistics”, in E. Zeitoun & P. Jen-kuei Li (arg.), *Selected Papers from the 8th International Conference on Austronesian Linguistics*, Taipei: Academica Sinica, 31-94.
- Bonaparte, L. L., 1862, *Langue basque et langues finnoises*, Londres: [l. g.].
- _____, 1863, *Carte des Sept Provinces Basques montrant la Délimitation actuelle de l'Euscara: et sa division en dialectes, sous dialectes et variétés*, Londres: Stanford's Geographical Establishment.
- _____, 1991 [1869], *Le verbe basque en tableaux*, Londres: [l. g.].
- Bonfante, G., 1947, “The Neolinguistic Position (A reply to Hall's criticism of Neolinguistics)”, *Language* 23:4, 344-375.
- Borrego, J., 1996, “Leonés”, in M. Alvar (arg.), *Manual de dialectología hispánica. El español de España*, Barcelona: Ariel, 139-158.
- Bowern, C. & Koch, H., 2004, “Introduction: Subgrouping methodology in historical linguistics”, in C. Bowern & H. Koch (arg.), *Australian languages. Classification and the Comparative Method*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 1-15.
- Bradley, T. G., 2011, “Mid front vowel lowering before rhotics in Ibero-Romance”, in J. Herschensohn (arg.), *Romance Linguistics 2010: Selected papers from the 40th Linguistic Symposium on Romance Languages (LSRL), Seattle, Washington, March 2010*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 63-78.
- Britain, D., 1997, “Dialect contact and phonological reallocation: «Canadian Raising» in the English Fens”, *Language in Society* 26:1, 15-46.
- _____, 2004 [2002], “Space and Spatial Diffusion”, in J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of Language Variation and Change*, Oxford: Blackwell, 603-637.
- _____, 2010, “Contact and Dialectology”, in R. Hickey (arg.), *The Handbook of Language Contact*, Oxford: Blackwell, 208-229.
- _____, 2012, “Innovation Diffusion in Sociohistorical Linguistics”, in J. M. Hernández-Campoy & J. C. Conde-Silvestre (arg.), *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Oxford: Blackwell, 451-464.
- Brugmann, K., 1967 [1886], *Einleitung und Lautlehre: vergleichende Laut-, Stammbildungs- und Flexionslehre der indogermanischen Sprachen*, Berlin: De Gruyter.

- Bryant, D. & Moulton, V., 2004, "Neighbor-Net: An Agglomerative Method for the Construction of Phylogenetic Networks", *Molecular Biology and Evolution* 21:1, 255-265.
- Busse, W. G. (arg.), 1992, *Anglistentag 1991. Düsseldorf. Proceedings*, Tübingen: Max Niemeyer Verlag.
- Bussmann, H., 1998 [1996], *Routledge Dictionary of Language and Linguistics*, Londres & New York: Routledge.
- Bynon, Th., 1979 [1977], *Historical Linguistics*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Cable, Th., 1990, "Philology: Analysis of written records", in E. C. Polomé (arg.), *Research Guide on Language Change*, Berlin & New York: De Gruyter, 97-106.
- Callary, R. E., 1975, "Phonological Change and the Development of an Urban Dialect in Illinois", *Language in Society* 4, 155-169.
- Camino, I., 1998, "Zer dago dialektologiaren gibelean?", in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, Iruñea: UEU, 111-144.
- _____, 2000, "Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko", in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 51-81.
- _____, 2003, *Hego-nafarrera*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- _____, 2004a, "Irizpide metodologikoak egungo Euskal Dialektologian", *Euskera* 49:1, 67-102.
- _____, 2004b, "Nafarroa Behereko euskara", *Fontes Linguae Vasconum* 97, 445-486.
- _____, 2008a, "Dialektologiaren alderdi kronologikoaz", *Fontes Linguae Vasconum* 108, 209-247.
- _____, 2008b, "Nafarroa Behereko euskara zaharra", *ASJU* 42:1, 101-170.
- _____, 2009, *Dialektologia tradizionaletik euskalkietara tradizioan gaindi*, Donostia: Elkar.
- _____, 2011, "Ekialdeko euskararen iraganaz", in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJU-ren gehigarriak 69)*, 87-153.
- _____, 2013, "Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia", in R. Gomez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 77-140.
- _____, 2014, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnha aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782). Edizioa eta azterketa (ASJU 47:1 & Euskararen lekukoak 27)*, Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- _____, 2016a, *Amiküze eskualdeko ^heskuara*, Bilbo: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- _____, 2016b, "Ahoskera hiztunik hiztun eta eskualderik eskualde", *Euskera* 60:2, 409-450.
- _____, 2016c, "Dialektologia dinamikoa eta isoglosen gora-beherak". *Monumenta Linguae Vasconum. III. Jardunaldiak* jardunaldian aurkeztutako lana (Gasteiz, 2016/12/20).
- _____, 2019 (inprimategian), "An overview of Basque Dialects", in C. Kees de Bot, L. Grenoble, P. Lane & U. Royneland (arg.), *Linguistic minorities in Europa online*, Berlin: De Gruyter.

- Campbell, L., 1985, "Areal linguistics and its implications for Historical Linguistics", in J. Fisiak (arg.), *Papers from the VIth International Conference on Historical Linguistics*, Poznan: John Benjamins & Adam Mickiewicz University Press, 25-56.
- _____, 1988, "Syntactic change in Finnish dialects", in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 85-110.
- _____, 2004 [1998], *Historical linguistics. An introduction*, Edinburgh: Edinburgh University Press.
- _____, 2011, "La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?", in J. A. Lakarra J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 23-40.
- Cano, R., 1988, *El español a través de los tiempos*, Madril: Arco/Libros.
- _____, 2013 [2004], "Cambios en la fonología del español durante los siglos XVI y XVII", in R. Cano (koord.), *Historia de la lengua española*, Madril: Ariel, 825-857.
- Caro Baroja, J., 1943, *Los pueblos del norte de la Península Ibérica*, Madril: CSIC.
- _____, 1946, *Materiales para una historia de la lengua vasca en relación con la latina*, Salamanca: Universidad de Salamanca.
- _____, 1973 [1958], "Los estudios geográfico-históricos sobre el País Vasco y la dialectología", in J. Caro Baroja, *Estudios vascos*, Donostia: Txertoa, 285-307.
- Carrera, I. M. & I. Garcia, 2005, *Legutiano aldeko euskara*, Gasteiz: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia.
- Carrillo-Linares, M. J. & Garrido-Anes, E., 2009, "Middle English Word Geography: External Sources for Investigating the Field", in M. Dossena & R. Lass (arg.), *Studies in English and European Historical Dialectology*, Berlin: Peter Lang, 135-156.
- Castaños, 1957, "El genitivo en vizcaíno antiguo", *BAP* 13, 60-69.
- Chambers, J. K., 2002, "Dynamics of dialect convergence", *Journal of Sociolinguistics* 6:1, 117-130.
- Chambers, J. K. & Trudgill, P., 1988 [1980], *Dialectology*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Chambon, J.-P. & Greub, Y., 2002, "Note sur l'âge du (proto)gascon", *Revue de Linguistique Romane* 66, 473-495.
- Claridge, C., 2008, "Historical corpora", in A. Lüdeling & M. Kytö (arg.), *Corpus Linguistics. An International Handbook*, Berlin & New York: De Gruyter, 242-259.
- Colman, F., 1988, "What is in a name?", in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology. Regional and social*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 111-137.
- Conde-Silvestre, J. C., 2007, *Sociolingüística histórica*, Madril: Gredos.
- Coseriu, E., 1957, "La geografía lingüística", berrarg. in E. Coseriu, 1991 [1977], *El hombre y su lenguaje*, Madril: Gredos, 103-158.
- _____, 1973, *Sincronía, diacronía e historia. El problema del cambio lingüístico*, Madril: Gredos.

- _____, 1991 [1977], *El hombre y su lenguaje*, Madril: Gredos.
- Coupland, N., 2007, *Style: Language Variation, and Identity*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Cowgill, W. C., 1966, “Ancient Greek Dialectology in the light of Myceanean”, in H. Birnbaum & J. Puhvel (arg.), *Ancient Indo-European Dialects*, Berkeley & Los Angeles: University of California Press, 77-95.
- Crowley, J. P., 1986, “The Study of Old English Dialects”, *English Studies* 2, 97-112.
- Crowley, T., 1992, *An Introduction to Historical Linguistics*, Oxford: Oxford University Press.
- Crystal, D., 2008 [1980], *A dictionary of Linguistics and Phonetics*, Oxford: Blackwell.
- Davis, L. M., 1977, “Dialectology and linguistics”, *Orbis* 26, 24-30.
- De Castro-Arazola, V., Cavirani, E., Linke, K. & Torres-Tamarit, F., 2015, “A typological study of vowel interactions in Basque”, *Isogloss* 2015: 1/2, 147-177.
- Dees, A., 1988, “Propositions for the study of Old French and its dialects”, in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 139-148.
- De Hoz, J., 2005, “Epigrafas y lenguas en contacto en la Hispania antigua”, *Paleohispanica* 6, 57-98.
- De Rijk, R. P. G., 1998 [1969], “Is Basque an S.O.V language?” in *De Lingua Vasconum: Selected Writings (ASJU-ren gehigarriak 43)*, 13-37.
- _____, 1970, “Vowel interaction in Bizcayan Basque”, *Fontes Linguae Vasconum* 2, 149-167.
- _____, 1998 [1981], “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”, in *De Lingua Vasconum: Selected Writings (ASJU-ren gehigarriak 43)*, 211-224.
- Dench, A., 2001, “Descent and diffusion: the complexity of the Pilbara situation”, in A. Aikhenvald & R. M. W. Dixon (arg.), *Areal Diffusion and Genetic Inheritance. Problems in Comparative Linguistics*, Oxford: Oxford University Press, 105-133.
- Dixon, R. M. W., 1997, *The rise and fall of languages*, Cambridge: Cambridge University Press.
- _____, 2001, “The Australian linguistic área”, in A. Aikhenvald & R. M. W. Dixon (arg.), *Areal Diffusion and Genetic Inheritance. Problems in Comparative Linguistics*, Oxford: Oxford University Press. 64-104.
- Dodgson, E. S., 1907, “Inscripciones éscaras de Vizcaya”, *Boletín de la Real Academia de la Historia* 50, 225-226.
- Dossena, M. & Lass, R., 2004, *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Bern: Peter Lang.
- _____, 2009, *Studies in English and European Historical Dialectology*, Bern: Peter Lang.
- Douglass, W. A., E., R. W. & Jacobsen, W. H. (arg.), 1977, *Anglo-american contributions to Basque studies: essays in honor of Jon Bilbao*, [Reno]: Don D. Fowler.
- Drinka, B., 1990, “The chronology of phonological change”, in E. C. Polomé (arg.), *Research Guide on Language Change*, Berlin & New York: De Gruyter, 107-136.

- Duhalde, M., 2019, “Donibane Lohizuneko eskararen ahoskera: Louis-Lucien Bonaparteren inkestak”, in I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, Bilbo: UPV/EHU, 151-163.
- Echaide, A. M. (arg.), 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Echenique, M. T., 2012, “Notas sobre pronunciación de la lengua castellana en textos antiguos”, in V. Béguelin-Argimon, G. Cordone & M. de la Torre (arg.), *En pos de la palabra viva: huellas de la oralidad en textos antiguos. Estudios en honor al profesor Rolf Eberenz*, Berna: Peter Lang, 269-287.
- _____, 2013 [2004], “La lengua vasca en la historia lingüística hispánica”, in R. Cano (arg.), *Historia de la lengua española*, Madril: Ariel, 59-82.
- _____, 2013, “Fuentes y vías metodológicas para el estudio de la pronunciación castellana a través de su historia. De Amado Alonso al siglo XXI”, in M. T. Echenique & J. Satorre (arg.), *Historia de la pronunciación en lengua casellano*, Valentzia: Tirant Humanidades, 31-59.
- Echenique, M. T. & Pato, E., 2019, “Aportaciones renovadas a las relaciones léxicas entre el vasco y el latín romance”, in I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. Oñederra irakaslearen omenez*, Bilbo: UPV/EHU, 175-195.
- Echenique, M. T. & Pla, F. P., 2013, “Reconstrucción fonética y periodización a la luz de la métrica y rima”, in M. T. Echenique & J. Satorre (arg.), *Historia de la pronunciación en lengua casellano*, Valentzia: Tirant Humanidades, 63-106.
- Echenique, M. T. & Satorre, F. J. (arg.), *Historia de la pronunciación en lengua castellana*, Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Edlund, A. C., Ashplant, T. G. & Kuismin, A., 2016, *Reading and Writing from Below. Exploring the Margins of Modernity*, Umea: Umea University & Royal Skyttean Society.
- Egaña, M., Artola, K., Arbelaitz, J. J., Leizaola, F., 1983-1990, *Euskalerriko atlas etnolingüistikoa*, Donostia: Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Egurtzegi, A., 2011, “Euskal metatesiak: abiaburu bat haien ikerketarako”, *ASJU* 45:1, 1-79.
- _____, 2013, “Phonetics and Phonology”, in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction [Mikroglottika 5]*, Frankfurt am Main: Peter Lang, 119-172.
- _____, 2014, *Towards a phonetically grounded diachronic phonology of Basque*. UPV/EHUko doktoretza-tesi argitaragabea. Zuz.: Joseba A. Lakarra dok. eta J. Blevins dok.
- Elordui, A., 1995, “Bonapartek osaturiko bizkaieraren sailkapenak: iturriak eta erizpideak”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6) (ASJU-ren gehigarriak 28)*, 433-463.
- Elorza, J., 1977, “Oinatiko Arrazola etxeko manuskritoak”, *Euskera* 22, 179-197.
- Elspaß, S., 2005, *Sprachgeschichte von unten. Untersuchungen zum geschriebenen Alltagsdeutsch im 19. Jahrhundert*, Tübingen: Niemeyer.
- _____, 2012, “The Use of Private Letters and Diaries in Sociolinguistic Investigation”, in J. M. Hernández-Campoy & J. C. Conde-Silvestre (arg.), *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Oxford: Blackwell, 156-169.

- Emeneau, M. B., 1980 [1978], *Language and linguistic areas*, Stanford: Stanford University Press.
- Enguita, J. M., 2013 [2004], “Evolución lingüística en la Baja Edad Media: aragonés, navarro”, in R. Cano (arg.), *Historia de la lengua española*, Madril: Ariel, 571-612.
- Ensunza, A., 2013, “Gandara eta De la Quadra: Gernikako eta Bermeoko euskara XVIII. mendean”, *Euskalingua* 22, 6-12.
- _____, 2015, *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*, UPV/EHU defendatutako doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Gotzon Aurrekoetxea dok.
- Epelde, I., 2003, *Larresoroko euskara*, UPV/EHU defendatutako doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Koldo Zuazo dok.
- _____, 2011, “Lapurdiko itsasegiko euskararen ahoskera: Donibane Lohizune”, in J. A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 307-321.
- _____, (arg.), 2011, *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJU-ren gehigarriak 69)*, Bilbo: UPV/EHU.
- _____, (arg.), 2015, *Euskal hizkera eta dialektok gaur egun (Lapurdum-en ale bereziak 3)*, Baiona: Iker UMR5478.
- Erdozia, J. L., 2006, “Arabako ekialdea eta Sakanako continuumaren azterketa diakronikoa”, *Fontes Linguae Vasconum* 102, 233-254.
- Esparza, J. M., 2011, *Mapas para una nación. Euskal Herria en la cartografía y en los testimonios históricos*, Tafalla: Txalaparta.
- Esteban Ochoa de Alda, J., 2018, *Discursos civilizadores: escritores, lectores y lecturas de textos en euskera (c. 1767-c. 1833)*, Madril: Sílex.
- Etxague, J., 2012, “El transfondo lingüístico y cultural del *habla vizcaína*”, in B. Camus & S. Gómez Seibane (arg.), *El Castellano del País Vasco*, Bilbo: UPV/EHU 21-43.
- Etxaide, J., 1984, “-(e)za aditzerroa datiboko aditz-jokoetan autoreetan zehar”, *Euskera* 29, 601-730.
- Etxebarria, J. M., 1991, *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Zornotza: Ibaizabal.
- _____, 2016, *Gorbeia inguruko etno-ipuñ eta esaundak II*, Bilbo: Euskaltzaindia & Deustuko Unibertsitatea.
- Etxebarria, N., 2005, *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XIX)*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- _____, 2007, “1708ko eskuizkribu argitaratubakoa bizkaieraz: edizinoa eta hizkerearen azterketa”, *Euskalingua* 11, 67-94.
- Etxebarria, N., 2009, *Bizente Sarria (1767-1835). Sermoitegia*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Etxebarria, N. & Apraiz, A., 2007, *Juan Ignazio Astigarraga (1783-1853). Sermoitegia*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Etxeberria, G., Aginagalde, B., Aldekoa, I. & Ugarte, J. L., 2007, “Joaquín de Alcibar-Jauregi eta Acharan (1746-1810) eta *Grand tourra* (1772)”, *Egan* 2, 35-113.

- Etxeberria, P. & Knörr, H. (arg.), 2005, *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia* (Iker 15), Bilbo: Euskaltzaindia.
- Etxepare, R., 2013, “Basque spatial cases and the ergative-absolutive syncretism”, in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 187-211.
- Etxepare, R., Gómez, R. & Lakarra, J. A. (arg.), 2009, *Beñat Oihartzabali gorazarre - Festschrift for Bernard Oyharçabal* (ASJU 43:1/2), Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Euskaltzaindia, 1991, *Euskal gramatika. Lehen urratsak I*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1999, *Euskal Herriko hizkuntz atlasa: ohiko mintzamoldeen antologia*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 2008-, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fabb, N., 2010, “Is literary language a development of ordinary language?”, *Lingua* 120, 1219-1232.
- Fernández, B. & Salaburu, P. (arg.), 2015, *Ibon Sarasola, gorazarre*, Bilbo: UPV/EHU.
- Fernández, C., Rosado, D. & Marín, F., 1983, “La sociedad del siglo XVIII a través del sermonario. Aproximación a su estudio”, *Cuadernos de Historia Moderna y Contemporánea* 4, 35-57.
- Fernández Alcaide, M., 2006, “Variación sintáctica y edición de manuscritos: ejemplos en la documentación indiana”, in L. Pons (arg.), *Historia de la lengua y Crítica textual*, Madril: Lingüística Iberoamericana, 181-194.
- Fernández de Palomares, V., 2007, *Valdegovía y su entorno. Páginas de historia y documentación*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Fisiak, J., 1982, “Isophones or Isographs? A Problem in Historical Dialectology”, in J. A. Anderson (arg.), *Language Form and Linguistic Variation. Papers dedicated to Angus McIntosh*, Amsterdam: John Benjamins, 117-128.
- _____, (arg.), 1988, *Historical Dialectology. Regional and Social*, Berlin: De Gruyter.
- Fox, A., 2007 [1995], *Linguistic Reconstruction. An introduction to Theory and Method*, Oxford: Oxford University Press.
- Frago, J. A. (1977), “Para la historia de la velarización española”, *Archivum* 28, 219-225.
- _____, (1981), “Nueva contribución a la historia del reajuste fonológico español moderno”, *Cuadernos de Filología, II Studia linguistica hispanica* 2, 53-74.
- _____, (1985), “De los fonemas medievales /š, ž/ al interdental fricativo /θ/ del español moderno”, in *Philologica Hispaniensia in honorem Manuel Alvar*, Madril: Gredos, 205-216.
- Francis, W. N., 1983, *Dialectology. An introduction*, Londres & New York: Longman.
- François, A., 2014, “Trees, waves and linkages. Models of language diversification”, in C. Bowerman & B. Evans (arg.), *The Handbook of Historical Linguistics*, Londres & New York: Routledge, 161-189.
- Gaminde, I., 1983, “Orozkoko aditza”, *Fontes Linguae Vasconum* 42, 37-96.
- _____, 1984, *Aditza Bizkaieraz*, Iruñea: UEU.
- _____, 1988, *Bilbo berbaz berba*, Bilbo: Bilbo Berreuskalduntzeko Koordinakundea.
- _____, 1994, *Bilboko Larraskituko euskaraz: lexikoa eta testuak*, Bilbo: Bilboko Udala.

- _____, 1995a, “Gipuzkeraren azentuaren azteketa akustikoa”, *Fontes Linguae Vasconum* 69, 297-321.
- _____, 1995b, “Plentzia aldeko euskararen zenbait ezaugarri morfosintaktiko”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6) (ASJU-ren gehigarriak 28)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 547-551.
- _____, 2001, *Mungia barbarik berba*, Bilbo: Mungiako Udala.
- _____, 2002, “Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan”, *Euskalingua* 1, 4-14.
- _____, 2007, *Bizkaian zehar. Euskararen ikuspegi orokorra*, Bilbo: Mendebalde Kultur Alkartea.
- Gaminde, I., Romero, A. & Legarra, H., 2012, *Gramatika eta hizkuntza bariazioa Bermeon*, Bilbo: Erroteta.
- García Camino, I., 2002, *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII. La configuración de la sociedad feudal*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- García de Cortázar, J. A., 1973, “La Rioja alta en el siglo X. Un ensayo de análisis cartográfico sobre los comienzos de la ocupación y explotación cristiana del territorio”, *Príncipe de Viana* 34, 309-335.
- _____, 1983, *Vizcaya en la Alta Edad Media*, Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa.
- Garibai, E., 1628 [1571], *Los quarenta libros del compendio historial...*, Bartzelona: Sebastián de Cormellas.
- Garigorta, J. R. & Gaminde, I., 1986, “XVIII. mendeko otoitz batzu”, *Enseiucarrean* 2, 61-65.
- Garmendia, L. & Etxabe, K., 2004, *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*, Ordizia: Ordiziako Udala & Hitzaro Euskara Elkartea.
- Garrett, A., 1999, “A New Model of Indo-European Subgrouping and Dispersal”, in S. Chang, L. Liaw & J. Ruppenhofer (arg.), *Proceedings of the 25th annual meeting of the Berkeley Linguistics Society*, Berkeley: Berkeley Linguistics Society, 146-156.
- _____, 2006, “Convergence in the Formation of Indo-European Subgroups: Phylogeny and Chronology”, in P. Forster & C. Renfrew (arg.), *Phylogenetic methods and the prehistory of languages*, Cambridge: McDonald Institute for Archaeological Research, 139-151.
- Geisler, H. & List, J.-M., 2013, “Do Languages Grow on Trees? The Tree Metaphor in the History of Linguistics”, in H. Fangerau, H. Geisler, T. Halling & W. Martin (arg.), *Classification and Evolution in Biology, Linguistics and the History of Science: Concepts, Methods, Visualizatio*, Stuttgart: Franz Steiner Verlag, 111-124.
- Gerritsen, M. & Jansen, M., 1980, “The Interplay of Dialectology and Historical Linguistics: Some Refinements of Trudgill’s Formula”, in P. Maher (arg.), *Proceedings of the 3rd International Congress of Historical Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins, 11-38.
- Gerritsen, M. & Van Hout, R., 2006, “Sociolinguistic developments as a diffusion process”, in U. Ammon, N. Dittmar, K. K. Mattheier & P. Trudgill (arg.), *Sociolinguistics. An International Handbook of the Science of Language and Society*, Berlin & New York: De Gruyter, 2288-2299.

- Giacalone Ramat, A., Mauri, C. & Molinelli, P., 2013, “Synchrony and diachrony”, in A. Giacalone Ramat, C. Mauri & P. Molinelli (arg.), *Synchrony and Diachrony. A dynamic interface*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 1-23.
- Giddens, A., 1984, *The Constitution of Society: Outline of the Theory of Structuralism*, Cambridge: Polity Press.
- _____, 1991, *Modernity and Self-identity*, Cambridge: Polity Press.
- Goikoetxea, I., 1982, *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*, Bilbo & Gasteiz: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia. Berrarg. in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 513-516.
- Goldberg, A. E., 1995, *Constructions: A construction grammar approach to argument structure*, Chicago & Londres: University of Chicago Press.
- Goldsmith, J. (arg.), 1993, *The Last Phonological Rule: Reflections on Constraints and Derivations*, Chicago: University of Chicago Press.
- Gómez, R., Gorrotxategi, J., Lakarra, J. A. & Mounole, C. (arg.), 2013, *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU.
- González de Viñaspre, R., “Apuntes sobre la lengua vasca y la historia de Ubarrundia”, in E. Martínez de Madina (arg.), *Toponimia de Vitoria III. Ubarrundia de Vitoria*, Bilbo: Euskaltzaindia, xxv-xli.
- Goosens, J., 1988, “Zur Lage des Niederdeutschen und ihrer Erforschung”, *Michigan Germanic Studies* 12, 1-20.
- Gooskens, C., 2005, “Travel time as predictor of linguistic distance”, *Dialectologia et Geolinguistica* 13, 38-62.
- Gorrotxategi, J., 1987, “Andres de Poza y el euskera”, *ASJU* 21:3, 661-681.
- _____, 2012, “Euskaratiko osagaiak gaztelaniaren lexikoan”, in I. Igartua (arg.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 103-150.
- Gorrotxategi, J., Igartua, I. & Lakarra, J. A. (arg.), 2018, *Euskararen historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Gorrotxategi, J. & Lakarra, J. A., 2001, “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco”, in F. Villar & M. P. Fernández (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamanca: Universidad de Salamanca, 407-438.
- Greenberg, J., 1978, “How does a language acquire gender markers?”, in J. Greenberg, J. H. Ferguson & E. Moravcsic (arg.), *Universals of Human Languages* 3, Standford: Standford University Press, 47-82.
- Grootaers, L., 1942, “De aangeblazen *h* in het oosten van het land”, *Verslagen en Mededelingen van de Koninklijke Vlaamse Academie* 1942:1, 217-225.
- Guitarte, G., 1983, “Las supuestas tres etapas del seseo”, in *Siete estudios sobre el español de América*, Mexiko: Universidad Nacional Autónoma de México, 63-98.
- _____, 1992a, “Cecear y palabras afines”, in M. Ariza & R. Cano & J. M. Mendoza & A. Narbona (arg.), *Actas del II Congreso Internacional de historia de la lengua española (Sevilla, 1990)*, Madril: Pabellón de España, 127-164.
- _____, 1992b, “La teoría de la *ç* como mezcla de seseo y ciceo”, *Scripta Philologica in honorem M. Lope Blanch*, Mexiko: UNAM, 285-328.

- Guy, G. R., 2011, "Variation and change", in W. Maguire & A. McMahon (arg.), *Analysing Variation in English*, Cambridge: Cambridge University Press, 178-198.
- Haas, M., 1969, *The Prehistory of Languages*, Haga & Paris: Mouton.
- Hägerstrand, T., 1952, "The Propagation of Innovation Waves", *Lund Studies in Geography (Human Geography 4)*, Lund: Gleerup.
- _____, *Innovation Diffusion as a Spatial Process*, Chicago: University of Chicago Press.
- _____, 1969, *Diffusion of innovations*, Chicago: University of Chicago Press.
- Hall, R. A., 1946, "Bartoli's 'Neolinguistica'", *Language* 22:4, 274-283.
- Hamp, E., 1966, "The position of Albanian", in H. Birnbaum & J. Puhvel (arg.), *Ancient Indo-European dialects*, Berkeley & Los Angeles: University of California Press, 97-121.
- _____, 1977, "On some questions of areal linguistics", *Berkeley Linguistics Society* 3, 279-282.
- Harnisch, R., 2010, "Divergence of linguistic varieties in a language space", in P. Auer & J. E. Schmidt (arg.), *Language and Space. An International Handbook of Linguistic Variation. Theories and Methods*, Berlin & New York: De Gruyter, 275-295.
- Hernández-Campoy, J. M., 2001 [1999], *Geolingüística. Modelos de interpretación geográfica para lingüistas*, Murcia: Universidad de Murcia.
- _____, 2003, "Geolinguistic patterns of diffusion in a Spanish region. On the case of the dialect of Murcia", *Estudios de sociolingüística. Linguas, sociedades e culturas* 4:2, 613-652.
- _____, 2004, "Requisitos teórico-metodológicos para el estudio geolingüístico del dialecto Murciano", *Tonos Digital* 8, 273-331.
- _____, 2008, "Los modelos de gravedad y la mediación de la difusión del cambio lingüístico", *Revista de Filología* 30, 83-109.
- _____, 2016, *Sociolinguistic Styles*, Malden/Oxford: Wiley-Blackwell.
- _____, 2018, "Sociolinguistic patterns of stylistic variation: motivations and mechanisms", in M. B. Hernández, M. Brito & T. Monterrey (arg.), *Broadening Horizons. A Peak Panorama of English Studies in Spain*, Santa Cruz de Tenerife: Universidad de La Laguna, 31-62.
- _____, 2019, "Stylistic Variation in Historical Sociolinguistics: Motivations, Mechanisms and Patterns". HiSoN Summer School udako ikastaroan emandako saio magistralak. Lesbos, 2019/07/14-2019/07/21.
- Hernández-Campoy, J. M. & Conde Silvestre, J. C. (arg.), 2012, *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Oxford: Wiley-Blackwell.
- Hernández-Campoy, J. M. & Cutillas-Espinosa, J. A., 2010, "Speaker Design Practices in Political Discourse: A Case Study", *Language and Communication* 30, 297-309.
- Hernández-Campoy, J. M. & Cutillas-Espinosa, J. A. (arg.), 2012, *Style-Shifting in Public: New Perspectives on Stylistic Variation*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.

- Hickey, R., 1999, "Ireland as a linguistic area", in J. P. Mallory (arg.), *Language in Ulster (Ulster Folklife 45)*, 36-53.
- _____, 2004, "Standard Wisdoms and Historical Dialectology: The discrete use of historical regional corpora", in M. Dossena, R. Lass (arg.), *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Bern: Peter Lang, 199-216.
- Hidalgo de Cisneros, C. & Largacha, E. & Lorente Ruigómez, A. & Martínez, A., 1986, *Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya; Cuadernos legales, capítulos de la hermandad y fuero viejo (1342-1506)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Hock, H. H., 1991, *Principles of Historical Linguistics*, Berlin & New York: De Gruyter.
- Hock, H. H. & Joseph, B. D., 1996, *Language history. Language change and Language Relationship*, Berlin & New York: De Gruyter.
- Hockett, C. F., 1958, *A modern course in linguistics*, New York: McMillan Company.
- Hoenigswald, H. M., 1966, "Criteria for Subgrouping of Languages", in H. Birnbaum & J. Puhvel (arg.), *Ancient Indo-European Dialects*, Berkeley & Los Angeles: University of California Press, 1-12.
- Holmer, N. M., 1968, "Apuntes vizcaínos", *ASJU* 2, 87-141.
- Hovart, B. & Hovart, R., 1997, "The geolinguistics of a sound change in progress: /l/ vocalisation in Australia", in Ch. Boberg, M. Meyerhoff & S. Strassel (arg.), *A selection of papers from NWAWE 25*, Philadelphia: University of Philadelphia Press, 109-124.
- _____, 2001, "A multilocality study of a sound change in progress: the case of /l/ vocalisation in New Zealand and Australian English", *Language Variation and Change* 13, 37-58.
- _____, 2002, "The geolinguistics of /l/ vocalisation in Australia and New Zealand", *Journal of Sociolinguistics* 6, 319-346.
- Hualde, J. I., 1990, "Vowel lengthening in Basque", *Folia Linguistica* 24:3/4, 269-288.
- _____, 1991a, *Basque Phonology*, Londres & New York: Routledge.
- _____, 1991b, "Sincronía y diacronía de las vocales geminadas en vasco", in J. A. Lakarra & I. Ruiz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrvm (ASJU-ren gehigarriak 14, 2 liburuki)*, 615-624.
- _____, 1999, "Vowel interaction and related phenomena in Basque and the nature of morphophonological knowledge", *Cognitive Linguistics* 10:1, 33-56.
- _____, 2000, "Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar", in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 11-25.
- _____, 2005, "Azentua eta etimologia", in Euskaltzaindia (arg.), *Nerekin jayo nun: Txillardegiri omenaldia (Iker 17)*, Bilbo: Euskaltzaindia, 297-303.
- _____, 2010, "Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano", *Oihenart* 25, 89-116.
- _____, 2015, "Dialektologia dinamikoa", in I. Epelde (arg.), *Euskal hizkera eta dialektok gaur egun (Lapurdum-en ale bereziak 3)*, Baiona: Iker UMR5478, 125-153.

- _____, 2017a, “Erronkarieraren garapen fonologiko dialektalaz”, in A. Ensunza & A. Iglesias (arg.), *Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara*. Bilbo: UPV/EHU, 175-194.
- _____, 2017b, “Soinu aldakuntzen kronologiaz”, *Fontes Linguae Vasconum* 124, 277-297.
- _____, 2018, “Miecha”, in J. A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi (ASJU 52: 1/2)*, 345-351.
- Hualde, J. I. & Bilbao, J., 1992, *A Phonological Study of the Basque dialect of Getxo (ASJU 21:1)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, J. I. & Gaminde, I., 1997, “Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue”, *ASJU* 31:1, 211-245.
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (arg.), 2003, *A Grammar of Basque*, Berlin & New York: De Gruyter.
- Humboldt, A., 1925 [1801], *Diario del viaje vasco*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Hyman, L., 2002, “Is There a Right-to-Left Bias in Vowel Harmony?”, *9th International Phonology Meeting* biltzarrean aurkeztutako lana. Interneten eskuragarri: <http://www.ai.mit.edu/projects/dm/featgeom/hyman-VHdirectionality.pdf> [Azken kontsultaren data: 2019/06/29]
- _____, 2008, “Directional asymmetries in the morphology and phonology of words, with special reference to Bantu”, *Linguistics* 46, 309-350.
- Ibarluzea, M., inprimategian, “Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz”.
- Ibarra, O., 1995, “Ultzamera”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6) (ASJU-ren gehigarriak 28)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 553-558.
- Ibisate, A., 1998, “Fórmula de juramento en euskara en Álava en el siglo XVI”, in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 191-198.
- _____, 2001, “Frasen en euskara desconocidas, en una comedia impresa en 1550”, *ASJU* 35:1, 263-272.
- Idoate, C. & Villanueva, J. J., 1981, “Unas ordenanzas de Vera en vascuence”, *Fontes Linguae Vasconum* 37, 275-281.
- Igartua, I., 2008, “La aspiración de origen nasal en la evolución fonética del euskera: un caso de rhinoglottophilia”, *ASJU* 42, 171-189.
- _____, 2011, “Historia abreviada de la aspiración en las lenguas circumpirenaicas” in Euskaltzaindia (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena*, Bilbo: Euskaltzaindia, 895-918.
- _____ (arg.), 2012, *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.
- Iordan, I., 1967, *Lingüística románica*, Madril: Ediciones Alcalá.
- Irigoién, A., 1958, “Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaino literario”, *Euskera* 3, 105-132.
- _____, 1977, “Bilbo eta euskara”, *Euskera* 34:2, 385-425.
- _____, 1981, “Palabras y topónimos vascos de Briones”, *Homenaje a Odón de Apraiz. Odon de Apraizi omenaldia*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 149-156.

- _____, 1984, “Bizkaian -o + -a elkarketa -oa egiten den eremuko hitz mailegatu arruntak azken -o eta -u bokalei dagozkiela, azentua ere gogoan harturik”, *Euskera* 29:2, 537-594.
- _____, 1986, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- _____, 1997 [1976], “Consideraciones históricas en torno al genitivo posesivo vasco”, in A. Arejita (arg.), *Alfonso Irigoien. Opera selecta*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 177-179.
- _____, 1997 [1981], “Haur ola ziriola”, in A. Arejita (arg.), *Alfonso Irigoien. Opera selecta*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 131-170.
- _____, 1997 [1990], “Etimología del nombre vasco del vascuence y las vocales nasales vascas descritas por Garibay”, in A. Arejita (arg.), *Alfonso Irigoien. Opera Selecta*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 199-207.
- Iribar, A. & Isasi, C., 2008, “El seseo vasco: nuevos datos para una vieja cuestión”, *Oihenart* 23, 241-258.
- Isasi, C., 1999, “Seseo, «ese» sigmática y edición de textos vascos”, *Fontes Linguae Vasconum* 81, 227-240.
- _____, 2006a, “A vueltas con el seseo y otras cuestiones de fonética y morfología en documentación vizcaína”, in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask / R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz (ASJU 40:1/2)*, 531-546.
- _____, 2006b, “Seseo vizcaíno en documentos del siglo XVIII”, in J. J. de Bustos & J. L. Girón (arg.), *Actas del VI Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española*, Madrid: Arco/Libros, 2461-2471.
- Isasi, C., Iribar, A. & Moral del Hoyo, C., 2009, “Una transferencia vasca: el seseo de hablantes vizcaínos y guipuzcoanos”, *Oihenart* 24, 201-235.
- Isasi, C., Iribar, A. & Túrrez, I., 2012, “Seseo vasco. Nuevos aportes”, in B. Camus & S. Gómez Seibane (arg.), *El castellano del País Vasco*, Bilbo: UPV/EHU, 173-190.
- Ivić, P., 1962, “On the Structure of Dialect Differentiation”, *Word* 18:1-3, 33-53.
- Ives, S., 1971 [1950], “A Theory of Literary Dialect”, in J. V. Williamson & V. M. Burke (arg.), *A Various Language*, New York: Holt Reinhart & Winston Inc, 145-177.
- Izagirre, K., 1970, “El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes”, *ASJU* 4, 3-248.
- Jacques, G. & List, J.-M., 2019, “Save the Trees: Why We Need Tree Models in Linguistic Reconstruction (and When We Should Apply Them)”, *Journal of Historical Linguistics* 9:1, 128-166.
- Jacobsen, W. H., 1977, “The Basque locative suffix”, in W. A., R. W. E. Douglass & W. H. Jacobsen (arg.), *Anglo-american contributions to Basque studies: essays in honor of Jon Bilbao*, [Reno]: Don D. Fowler, 164-168.
- Jahr, E. H., 1988, “Social dialect influence in language change: the halting of a sound change in Oslo Norwegian”, in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 329-335.

- Jardin, N., 2000, "Uses and abuses of anachronism in the history of the sciences", *History of Science* 38, 251-270.
- Jauregi, O., 2007, *Euskararen silaba: egitura eta historia*, UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: M. Lourdes Oñederra dok. eta J. A. Lakarra dok.
- Jauregi, O. & Epelde, I., 2013, "Hasperenaren galera Iparraldeko euskarari", in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 245-262.
- Jimeno, J. M. & Salaberri Zaratiegi, P., 1994, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona/Iruña*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Johnstone, B., 2010, "Language and geographical space", in P. Auer & J. E. Schmidt (arg.), *Language and Space. An International Handbook of Linguistic Variation. Theories and Methods*, Berlin & New York: De Gruyter, 1-18.
- Jurado, M., 2011, "Caracterización de sibilantes fricativas vascas y su percepción en el sistema fonético español", *ASJU* 45:1, 81-137.
- Kahane, H. R., 1951, "The sea as a medium of linguistic diffusion", *Italica* 28, 287-291.
- Kalyan, S. & François, A., 2018, "Freeing the Comparative Method from the Tree Model: A Framework for Historical Glottometry", *Senri Ethnological Studies* 98, 59-89.
- _____, 2019, "When the waves meet the trees: A response to Jacques and List", *Journal of Historical Linguistics* 9:1, 67-176.
- Kalzakorta, X., 1999, "Sebastián Antonio de la Gandararen euskal lanak", *Euskera* 44:1, 129-209.
- _____, 2010a, "1721. urteko Eibarko koplak zaharrak", *Litterae Vasconicae* 11, 9-33.
- _____, 2010b, "Ibarguen-Cachopin kronikako «Errodrigo Zarateko» gaur eguneko tradizioa eta literatura kulturala aztergai", *Oihenart* 25, 41-62.
- Kandori, T., 1968, "Study of dialects in Japan", *Orbis* 17, 47-56.
- Kardaberatz, A., ca. 1762, *Dotrina cristiana edo Cristiñau dotrinea*, Iruña: [l.g.].
- _____, 1764, *Jesus, Maria ta Joseren devociño libruchoric atararico devociño batzuc*, Iruña: Antonio Castillo.
- Keel, W., 1982, *Atomic Phonology and Phonological Variation*, Tübingen: Gunter Narr.
- Kerejeta, M. J., 1991, "Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610", in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 161-183.
- Kerexeta, J., 1992, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Kerswill, P. E., 2002a, "Salience as an explanatory factor in language change: evidence from dialect levelling in urban England", in M. C. Jones, & E. Esch (arg.), *Contact-induced Language Change. An Examination of Internal, External and Nonlinguistic Factors*, Berlin: De Gruyter, 81-110.
- _____, 2002b, "Dialect recognition and speech community focusing in new and old towns in England: the effects of dialect levelling, demography and social networks", in D. Long & D. Preston (arg.), *A Handbook of Perceptual Dialectology*, Amsterdam: John Benjamins, 175-206.

- Kitson, P., 2004, "On Margins of Error in Placing Old English Literary Dialects", in M. Dossena & R. Lass (arg.), *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Berlin: Peter Lang, 219-239.
- Knörr, H., 1985, "Una traducción de Uriarte al vascuence alavés: la *Bula Ineffabilis* de 1864", in Euskaltzaindia (arg.), *Piarres Lafitte-ri omenaldia (Iker-2)*, Bilbo: Euskaltzaindia, 279-315.
- _____, 1998, "Simón Martínez de Ochoa: *Villancico*", in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 503-510.
- Knörr, H. & Zuazo, K. (arg.), 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Kökeritz, H., 1953, *Shakespeare's Pronunciation*, New Haven: Yale University Press.
- Krajewska, D., 2017, *Euskararen sintaxi diakronikorantz: egitura konplexuak*. UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Joseba A. Lakarra dok. & Javier Ormazabal dok.
- Krajewska, D., Zuloaga, E., Santazilia, E., Ariztimuño, B., Uribe-Etxebarria, O. & Reguero, U., 2017, *E. Materra: Do(c)trina christiana (1617 & 1623). Edizioa eta azterketa (ASJU 51:1/2 & Euskararen lekukoak 28)*, Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Krajewska, D. & Zuloaga, E., prestatzen-1, "Zein eta soziolinguistika historikoa". UPV/EHUko eskuizkribua.
- Kytö, M., 2011, "Corpora and historical linguistics", *Revista Brasileira de Linguística Aplicada* 11:2, 417-457.
- Labov, W., 1972, *Sociolinguistic patterns*, Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- _____, 1972b, "Some principles of Linguistic Methodology", *Language in society* 1, 97-120.
- Lacombe, G., 1924, "La langue basque", in A. Meillet & J. Vendries (arg.), *Les langues du monde*, Paris: Librairie Ancienne Édouard Champion, 319-326.
- Lafon, R., 1957, "L'expression de la comparaison en basque", berrarg. in *Vasconiana*, Bilbo: Euskaltzaindia, 649-666.
- Laing, M., 2004, "Multidimensionality: Time, Space and Stratigraphy in Historical Dialectology", in M. Dossena & R. Lass (arg.), *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Berlin: Peter Lang, 49-93.
- Laing, M. & Lass, R., 2006, "Early Middle English Dialectology: Problems and Prospects", in A. Van Kemenade & B. Los (arg.), *The Handbook of the History of English*, Oxford: Blackwell, 417-451.
- _____, 2013, "Introduction", in M. Laing (arg.), in *A Linguistic Atlas of Early Middle English (1150-1325). Version 3.2*, Edinburgh: The University of Edinburgh. Lana Interneten kontsulta daiteke: <http://www.lel.ed.ac.uk/ihd/laeme2/laeme2.html> [Azken kontsultaren data: 2016/06/13].
- Lakarra, J. A., 1981, "Barrutiaren edizio kritiko baterako", *ASJU* 15, 121-156.
- _____, 1983a, "Oharrak zenbait arkaismoz", *ASJU* 17:1, 41-68.
- _____, 1983b, "Barrutiaren edizio kritiko baterako", *ASJU* 15:1, 123-156.
- _____, 1984a, "Bertso bizkaitarrak (1688)", *ASJU* 18:2, 89-183.

- _____, 1984b, “Bizkaiera zaharreko ablatiboaz”, *ASJU* 18:1, 161-193.
- _____, 1985a, “Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia”, *ASJU* 19:1, 235-282.
- _____, 1985b, “XVII. mendeko bulda bat bizkaieraz”, in J. L. Melena (arg.). *Symbolae Lvdoxico Mitxelena septvagenario oblatae*, Gasteiz: Aitzinate-Zientzien Institutua & UPV/EHU, 1045-1054.
- _____, 1985c, “-ø/-tu bizkaiera zaharrea”, *Litterae Vasconicae* 3, 281-292.
- _____, 1986a, “XVI. mendeko bizkaierazko erretrauz: I. Garibairen bildumak”, *ASJU* 20:1, 31-65.
- _____, 1986b, “Bertso bizkaitarrez gehixeago”, *ASJU* 20:1, 243-247.
- _____, 1986c, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20:3, 639-682.
- _____, 1987, “Oikiako dotrina (1759)”, *ASJU* 21:2, 515-564.
- _____, 1990 [1989], “Epílogo”, in L. Michelena & I. Sarasola, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos (ASJU-ren gehigarriak 11)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 353-362.
- _____, 1996, *Refranes y sentencias (1596). Edizioa eta ikerketak*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1997a, “Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri”, *ASJU* 31:2, 447-535.
- _____, 1997b, “Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa”, *ASJU* 31:2, 537-616.
- _____, 1997c, “Hizkuntza eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L’interpret ou Traduction du François, Espagnol & Basque (~1620)*”, *ASJU* 31:1, 1-66.
- _____, 2003, “Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción”, *ASJU* 37:1, 261-391.
- _____, 2004, *Juan Perez Lazarragakoren eskuizkribua (XVI. mendea). Lehen hurbilketa*, Madril: Edilán-Ars Libris.
- _____, 2005, “Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco”, *Palaeohispanica* 5, 407-470.
- _____, 2009, “Forma canónica y cambios en la forma canónica de la lengua vasca: hacia los orígenes del bisilabismo”, *Paleohispanica* 9, 557-609.
- _____, 2010, “Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica (con un apéndice sobre ‘hiri’ y otro sobre ‘bat-bi’)”, *Veleia* 27, 191-238.
- _____, 2011, “Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz”, in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJU-ren gehigarriak 69)*, Bilbo: UPV/EHU, 155-241.
- _____, 2012a, “Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan”, in I. Igartua (arg.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 17-74.
- _____, 2012b, “Teoría de la raíz monosilábica y reconstrucción del protovasco: algunos aspectos y consecuencias”, in J. A. Lakarra & J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 652-699.

- _____, 2013a, “Protovasco: comparación y reconstrucción... ¿para qué y cómo? (por una vascológia autocentrada, no ensimismada)”, in E. Blasco, P. Francalacci, A. Nocetini & G. Tanda (arg.), *Iberia e Sardegna. legami linguistici, archeologici e genetici dal Mesolitico all’Età del Bronzo*, Florentzia: Mondadori Education, 127-150.
- _____, 2013b, “Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa”, in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra eta C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 275-234
- _____, 2017, “Basque and the Reconstruction of Isolated Languages”, in L. Campbell (arg.), *Language isolates*, Londres & New York: Routledge, 59-99.
- _____, 2018, “Euskararen historiaurrea”, in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 23-229.
- _____, 2019, “IStik ASra eta gibelera biraka; bidai diakroniko eta geografiko luzexka baten prestalanak: 1. Hainbat arrazoi Elak berreraikitze”, *Euskal Filologiaren adarrak* 2 jardunaldian aurkeztutako txostena. Gasteiz, 2019/10/30.
- Lakarra, J. A., Gorrotxategi, J. & Urgell, B. (arg.), 2011, *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU.
- Lakarra, J. A. & Hualde, J. I. (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask / R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz (ASJU 40:1/2)*, Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Lakarra, J. A., Manterola, J. & Segurola, I., 2019, *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. & Ruiz Arzalluz, I. (arg.), 1991, *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum (ASJU-ren gehigarriak 14)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- _____, 2015 (arg.) *Luis Michelena. Obras Completas* (15 liburuki), Donostia & Gasteiz: JUMI, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Lakarra, J. A. & Ulibarri, K., 2019, “*Refranes y sentencias* (1596): itzulpen baten bidaia”, “Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena: eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak” jardunaldian aurkeztutako txostena.
- Lakoff, G., 1993, “Cognitive phonology”, in J. Goldsmith (arg.), *The Last Phonological Rule: Reflections on Constraints and Derivations*, Chicago: University of Chicago Press, 117-145.
- Lamikiz, X., Padilla, M. & Videgain, X. (arg.), 2015, *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757) (Lapurdum-en ale bereziak 2)*, Baiona: Iker UMR5478.
- Landazuri, J. J., 1973-1979, *Historia general de Álava*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Lapesa, R., 2005 [1942], *Historia de la lengua española*, Madril: Gredos.
- _____, 1984, *Manual de historia de la lengua española*, Madril: Gredos.
- _____, 2000 [1961], “Del demostrativo al artículo”, berrarg. in R. Cano & M. T. Echenique (arg.), *Estudios de morfosintaxis histórica del español*, Madril: Gredos, 367-381.

- Lapuente, L., 1975, "Toponimia Amescoana", *Fontes Linguae Vasconum* 21, 393-410.
- Larramendi, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del bascuenze en España*, Salamanca: Eugenio Garcia de Honorato.
- _____, 1745, *Diccionario trilingue del castellano, vascuence y latín*, Donostia: B. Riesgo y Montero.
- _____, 1882 [1754], *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipuzcoa*, Bartzelona: Imprenta de la viuda é hijos de J. Subirana.
- Larrañaga, J., 1998, *Antzuolako hizkera*, Antzuola: Antzuolako Udala.
- Larrañaga, J., 2018, "El primer *Ayta gure* y las naos de Plasencia", On line argitalpena: Grupo de Etnografía del Museo Plasencia de Butrón: <https://etnoplentzia.com/argitalpenak.php?idPost=19> [Azken kontsultaren data: 2019/11/03]
- Lass, R., 2004, "Ut custodiant litteras: Editions, Corpora and Witnesshood", in M. Dossena & R. Lass (arg.), *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Berlin: Peter Lang, 21-48.
- Latxaga, 1983, *Actto para la Noche Buena. Pedro Ignazio de Barrutia. 1682-1759*, Tolosa: López Mendizabal.
- Lekuona, M., 1956, "Gabon-kantak", *Egan* 5/6, 9-44.
- Lekuona, J. M., López de Luzuriaga, J. I. & Narbaiza, A., 1992, *1685eko koplak zaharrak*, Eibar: Eibarko Udala.
- Leskien, A., 1876, *Die Declination im Slavisch-Litauischen und Germanischen*, Leipzig: Fürstlich Jablonowski'sche Gesellschaft.
- Leonard, S. P., 2011, "Relative linguistic homogeneity in a new society", *Language in Society* 40, 169-186.
- Letamendia, J. A. & Sagarzazu, Tx., 1992, "Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778)", in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak (Iker 7)*, Bilbo: Euskaltzaindia, 497-533.
- Líbano, A., 1998, "Diacronía de las alternancias gráficas navarro-aragonesas: las sibilanes medievales", in J. M. Blecua, J. Gutiérrez & L. Sala (arg.), *Estudios de grafemática en el dominio hispano*, Salamanca: Universidad de Salamanca, 135-148.
- Lichtenberk, F., Vaid, J. Chen, H. C., 2011, "On the interpretation of alienable vs. inalienable possession: A psycholinguistic investigation", *Cognitive Linguistics* 22:4, 659-689.
- List, J. M., 2014, *Sequence Comparison in Historical Linguistics*, Düsseldorf: Düsseldorf University Press.
- List, J. M., Pathmanathan, S., Hill, N. W., Baptiste, E. & Lopez, P., 2017, "Vowel purity and rhyme evidence in Old Chinese reconstruction", *Lingua Sinica* 3:5, 1-17.
- Lloyd, P. M., 1987, *From Latin to Spanish (I): Historical phonology and morphology of the Spanish language*, Philadelphia: American Philosophical Society.
- López de Gereñu, G., 1958, "Voces alavesas", *Euskera* III, 173-367.
- Lopez-Mugartza, J. K., 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Bilbo & Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.

- Lowe, K. A., 2009, "On the Plausibility of Old English Dialectology: The Ninth-Century Kentish Charter Material", *Folia Linguistica Historica* 22:1-2, 67-102.
- Luraghi, S., 1995, "Las lenguas anatolias", in A. Giacalone Ramat & P. Ramat (arg.), *Las lenguas indoeuropeas*, Madril: Cátedra, 237-304.
- Mackey, W. F., 1988, "Geolinguistics: Its Scope and Principles", in C. H. Collins (arg.), *Language in Geographic Context*, Clevedon & Philadelphia: Multilingual Matters LTD, 20-46.
- Madariaga, P., 1565, *Libro subtilissimo intitulado Honra de Escrivanos*, Valentzia: Iuan de Mey.
- Madariaga, Fr. B. (Fra Bartolome Santa Teresa), 1816, *Jaungoicoaren amar aguidubeetaco lelengo bosteen Icasiquizunac*, Iruñea: Rada.
- Madariaga, A., 1996, "Placentia de Butron-Plentzia", in A. Madariaga, G. Mayor, J. M. Hormaza, R. Benguria & J. Camara (arg.), *Plasentia de Butron-Plencia-Plentzia. Apuntes*, Bilbo: Plentziako Udala eta BBK Fundazioa.
- Madariaga J., Azpiazu, J. A., Elortza, J., 2009, "XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk", *Fontes Linguae Vasconum* 110, 5-45.
- Magallón, A., 1997, "La red viaria romana en el País Vasco", *Isturitz* 8, 207-231.
- Maiora, F., 2011, *Reino de Navarra. Euskera: injurias, coplas, frases*, Iruñea: egilearen argitalpena.
- Makazaga, J. M., 2010, *Elgoibarko ahozko euskara*, Bilbo: Euskaltzaindia & UPV/EHU.
- Malkiel, Y., 1971, "Derivational Transparency as an Occasional Co-Determinant of Sound Change. A New Causal Ingredient in the Distribution of -c- and -z- in Ancient Hispano-Romance", *Romance Philology*, 25:1, 1-52.
- Mańczak, W., 1988, "Bartoli's second norm", in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 349-356.
- Manterola, J., 2006, "-a euskal artikulua definituaren gainean zenbait ohar", in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask / R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz (ASJU 40:1/2)*, Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 561-676.
- _____, 2008, "Euskarazko artikulua Erdi Aroko agiri bilduma batean", *Oihenart* 23, 371-379.
- _____, 2009, "Euskal artikulua euskalki eta autoreetan", *Oihenart* 24, 237-256.
- _____, 2012, "The Basque articles -a and bat and recent contact theories", in C. Chamoreau & I. Léglise (arg.), *Dynamics of contact-induced language change*, Berlin: De Gruyter, 231-263.
- _____, 2015, *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*, UPV/EHU defendatutako doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Joseba A. Lakarra dok.
- Markey, Th. L., 1990, "The development of standard language (koine) and dialect: Language split and dialect merger", in E. C. Polomé (arg.), *Research Guide on Language Change*, Berlin & New York: De Gruyter, 47-69.
- Martínez Alcaide, M. J., 2010, *La fijación ortográfica del español: norma y argumento historiográfico*, Berna: Peter Lang.

- Martínez-Areta, M., 2007, *El consonantismo proto-vasco*, Bilbo: UPV/EHU.
- _____, 2009, “The category of number in Basque: II. Prehistorical and typological aspect”, *Fontes Linguae Vasconum* 111, 249-280.
- _____, 2013, “Demonstratives and Personal Pronouns”, in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction [Mikroglottika 5]*, Frankfurt am Main: Peter Lang, 283-321.
- _____, (arg.), 2013, *Basque and Proto-Basque. Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction [Mikroglottika 5]*, Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Martínez de Madina, E., 2012, “La toponimia en las estribaciones de los Montes de Vitoria: reflejo de unión entre Treviño y la Llanada”, in R. González de Viñaspre & R. Garay (arg.), *Viaje a Íbita. Estudios históricos del Condado de Treviño*, Gasteiz: Trebiñuko Konderriko Udala, 505-520.
- McIntosh, A., 1963, “A new approach to Middle English Dialectology”, *English Studies* 44:1-6, 1-11.
- McIntosh, A., Samuels, M. L. & Benskin, M., 1986, *A Linguistic Atlas of Late Mediaeval English*, Aberdeen: Aberdeen University Press. Interneten kontsultagai: <http://www.lel.ed.ac.uk/ihd/elalme/elalme.html> [Azken kontsultaren data: 2016/04/13].
- Meid, W., 1975, “Probleme der räumlichen und zeitlichen Gliederung des Indogermanischen”, in H. Rix (arg.), *Flexion und Wortbildung*, Wiesbaden: Reichert, 204-219.
- Meillet, A., 1908, *Les dialectes Indo-Européens*, Paris: Librairie Ancienne Honoré Champion, Editeur.
- _____, 2001 [1925], *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan*, Bilbo: UPV/EHU.
- Melena, J. L. (arg.), 1985, *Symbolae Lvdivico Mitxelena septvagenario oblatae*, Gasteiz: Aitzinate-Zientzien Institutua & UPV/EHU.
- Mendiguren, X., 1987, “El borracho burlado-ko euskararen azterketa (1764)”, *ASJU* 21:1, 135-162.
- Menéndez-Pidal, R., 1968 [1923-1926], *Orígenes del español*, Madril: Espasa-Calpe.
- Merino-Urrutia, J. B., 1962, *El vascuence en La Rioja y Burgos*, Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.
- Michel, F., 1847, *Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne*, Paris: Franck.
- Mikoleta, R., 1653, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, Londresko British Museumeko bibliotekako eskuizkribua. Signatura: [Harl. 6.314//Brit. Mus.//R. de Micoleta. Biscayan Grammar and Dialogues].
- Milroy, J., 1992a, “Middle English Dialectology”, in N. Blake (arg.), *The Cambridge History of English Language. Volume II: 1066-1476*, Cambridge: Cambridge University Press, 156-206.
- _____, 1992b, *Language Variation and Change*, Oxford: Blackwell.
- Milroy, L., 1980, *Language and Social Networks*, Oxford: Blackwell.

- _____, 2004 [2002], “Social Networks”, in J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of Language Variation and Change*, Oxford: Blackwell, 549-572.
- Milroy, J. & Milroy, L., 1985, “Linguistic Change, Social Network and Speaker Innovation”, *Journal of Linguistics* 21:2, 339-384.
- Minsheu, J., 1599, *Pleasant and delightfull dialogves in Spanish and English, profitable to the learner, and not unpleasant to any other reader*, Londres: Bolland.
- Mirones, E., 2009, “Mehe: un apellido vasco escrito en aljamía hebraico-navarra”, *Fontes Linguae Vasconum* 110, 117-123.
- Mitxelena, K., 1950a, “De fonética vasca. La aspiración intervocálica”, berrarg. in *OC VII*, 3-20.
- _____, 1950b, “Sobre el estado actual de la cuestión del genitivo vasco en *-en*”, berrarg. in *OC VII*, 197-200.
- _____, 1953, *Apellidos vascos*, berrarg. in *OC IX*, 1-235.
- _____, 1954a, “Textos vascos antiguos. Un catecismo vizcaíno del siglo XVII”, berrarg. in *OC XI*, 371-380.
- _____, 1954b, “Las escrituras apócrifas de Andramendi”, berrarg. in *OC XI*, 207-223.
- _____, 1954c, “A. Alonso, *De la pronunciación medieval a la moderna en español*, Madrid 1955”, berrarg. in *OC I*, 367-375.
- _____, 1955, “La doctrina cristiana de Betolaza (1596)”, berrarg. in *OC XI*, 187-204.
- _____ (& Agud, M.), 1958, “N. Landuchio, *Dictionarium linguae cantabricae* (1562)”, berrarg. in *OC XII*, 199-378.
- _____, 1960a, “Guipuzcoano y vasco”, berrarg. in *OC VII*, 697-700.
- _____, 1960b, “Prólogo a E. de Arriaga, *Lexicón bilbaíno*”, berrarg. in *OC VIII*, 15-17.
- _____, 1961a, *Fonética histórica vasca*, berrarg. in *OC VI*.
- _____, 1961b, “Judíos de Guevara y vascos de Oñate”, berrarg. in *OC XI*, 53-65.
- _____, 1961c, “Euskal literatura eta... adarrak”, berrarg. in *OC XI*, 83-86.
- _____, 1962, “Sobre la lengua vasca en Álava durante la Edad Media”, berrarg. in *OC V*, 403-418.
- _____, 1963, *Lenguas y protolenguas*, berrarg. in *OC I*, 1-98.
- _____, 1964a, *Textos arcaicos vascos*, berrarg. in *OC VI*, 1-197.
- _____, 1964b, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, berrarg. in *OC V*, 1-115.
- _____, 1964c, “Notas y apostillas [A I. Zumalde, «Algunas palabras vascas del siglo XVI»]”, berrarg. in *OC XI*, 251-260.
- _____, 1964d, “Unas cartas del siglo XVII”, berrarg. in *OC XI*, 351-361.
- _____, 1966, “En torno a Pedro de Madariaga”, berrarg. in *OC XI*, 125-129.
- _____, 1968, “Lat. *s*: el testimonio vasco”, berrarg. in *OC I*, 343-358.
- _____, 1969, “Notas lingüísticas a *Colección diplomática de Irache*”, berrarg. in *OC IX*, 163-529.
- _____, 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, berrarg. in *OC VIII*, 29-191.

- _____, 1971a, “Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos”, berrarg. in *OC XI*, 327-350.
- _____, 1971b, “Toponimia, léxico y gramática”, berrarg. in *OC IX*, 275-308.
- _____, 1972, “Etimología y transformación”, berrarg. in *OC VII*, 93-108.
- _____, 1974, “El elemento latino-románico en la lengua vasca”, berrarg. in *OC V*, 305-336.
- _____, 1976a, “La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas”, berrarg. in *OC I*, 197-213.
- _____, 1976b, “Onomástica y población en el antiguo Reino de Navarra”, berrarg. in *OC V*, 361-377.
- _____, 1977 [1969], *La lengua vasca*, berrarg. in *OC IV*, 13-66.
- _____, 1977, “Notas sobre compuestos verbales vascos”, berrarg. in *OC VII*, 269-300.
- _____, 1978a, “Iztueta, testigo político de su época”, berrarg. in *OC XI*, 473-478.
- _____, 1978b, “Para la historia de la ortografía vasca”, berrarg. in *OC XI*, 403-409.
- _____, 1978c, “Apostillas a L. Villasante, *Estudios de sintaxis vasca*, Oñate 1978”, berrarg. in *OC VII*, 411-423.
- _____, 1979a “Vizc. *a-* con temas demostrativos”, berrarg. in *OC VII*, 213-234.
- _____, 1979b, “La letra *h* en los *Refranes y sentencias* de 1596”, berrarg. in *OC XI*, 159-167.
- _____, 1981a, “Lengua común y dialectos vascos”, berrarg. in *OC VII*, 517-543.
- _____, 1981b, “Patxi Altunari erantzunez”, berrarg. in *OC X*, 329-339.
- _____, 1982a, “Sobre la lengua vasca en Álava durante la Edad Media”, berrarg. in *OC V*, 403-418.
- _____, 1982b, “Mendibururen hizkeraz hitz bi”, berrarg. in *OC XI*, 473-478.
- _____, 1984, “Ad experiendum”, berrarg. in *OC XI*, 381-399.
- _____, 1986, “Contra *Lekobide*”, berrarg. in *OC XI*, 229-250.
- _____, 1987, “Rectificaciones y enmiendas de *Palabras y textos*”, berrarg. in *OC X* (hainbat orrialdetan sakabanatua).
- _____ & Sarasola, I., 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mogel, J.A., 1880, *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*, Iruñea: Ezquerro.
- _____, 1881 [ca. 1802], *Peru Abarca*, Durango: J. de Elizalde.
- _____, 1803, *Confesino ona*, Gasteiz: Larumbe.
- Monteano, P., 2017, *El iceberg Navarro*, Iruñea: Pamiela.
- Montes, J. J., 1982, *Dialectología general e hispanoamericana. Orientación teórica, metodológica y bibliográfica*, Bogotá: Instituto Caro y Cuervo.
- Montgomery, M., 1995, “The Linguistic Value of Ulster Emigrant Letters”, *Ulster Folklife* 41, 26-42.
- Montoya, E., 2003, *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*, UPV/EHU defendatutako doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Koldo Zuazo dok.

- Morala, J. R., 2009, “Toponimia e isoglosas históricas. Leonés y castellano”, in D. Corbella & J. Dorta (arg.), *La investigación dialectológica en la actualidad*, Santa Cruz de Tenerife: Gobierno de Canarias, 151-171.
- Moraza, A. & Ceberio, M., 2008, “Tunel de San Adrián o Paso de Lizarrate”, *Arkeoikuska*, 416-428.
- Moraza, A., 2009, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate: III Campaña”, *Arkeoikuska*, 391-400.
- Moraza, A., Ceberio, M. & García, M., 2010, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate: III Campaña”, *Arkeoikuska*, 386-390.
- Moraza, A., Ceberio, M. & Bruce, J., 2011, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate”, *Arkeoikuska*, 389-396.
- Moraza, A., Ceberio, M. & Tapia, J., 2012, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate”, *Arkeoikuska*, 309-317.
- _____, 2013, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate”, *Arkeoikuska*, 322-326.
- _____, 2014, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate: VIII campaña”, *Arkeoikuska*, 366-369.
- _____, 2015, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate: IX campaña”, *Arkeoikuska*, 354-357.
- _____, 2016, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate: X campaña”, *Arkeoikuska*, 381-384.
- _____, 2017, “Tunel de San Adrián o paso de Lizarrate: XI campaña”, *Arkeoikuska*, 393-396.
- Morrison, D., 2010, “Review of the book *Sequence Alignment: Methods, Models, Concepts, and Strategies*”, in M. S. Roseberg (arg.), *Systematic Biology* 359:3, 363-365.
- Mounole, C., 2004, “Zubererazko herskarién azterketa akustikoa”, *ASJU* 38:1, 207-248.
- _____, 2007, “Perifrazi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria”, *ASJU* 41:1, 67-138.
- _____, 2011, “XVI. mendeko euskal aditza: Lazarraga eta gainerakoak parez pare”, in J. A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 127-148.
- _____, 2016, “Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrera berrikuntzen xendran”, *Monumenta Linguae Vasconum III. Jardunaldiak* jardunaldietan aurkeztutako lana. Gasteiz, 2016/12/21.
- _____, 2018 [2011], *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique* (ASJU 48), Bilbo: UPV/EHU.
- _____, inprimategian, *Lazarragaren eskuizkribuko gramatika*.
- Mounole, C. & Gómez, R., 2018, “Euskara Zahar eta Klasikoa”, in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 469-541.
- Mounole, C. & Lakarra, J. A., 2018, “Euskara Arkaikoa”, in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 345-468.
- Mujika, G., 1910, *Monografía histórica de la villa de Eibar*, Irun: Viuda de B. Valverde.

- Mujika, J. A., 2002, *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*, Bilbo: UPV/EHU.
- Mujika, S., 1914, “El obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis”, *RIEV* 8:2, 185-229.
- Murugarren, L., 1984, “Una plática del Goyerri”, *ASJU* 18:2, 185-197.
- Navarro, R., 2016, *Segundas celestinas*, Madril: Fundación José Antonio de Castro.
- Navarro Tomás, T., 1923, “Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica”, in Eusko Ikaskuntza (arg.), *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 39-56.
- N'Diaye, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Haga & Paris: Mouton.
- Nieuwenhuijsen, D., 2008, “La posesión inalienable en español y su traducción en varias lenguas germánicas y románicas”, *Hermēneus* 10, 139-165.
- Octavio de Toledo y Huerta, A. S., 2006, “*Varia lectio* y variación morfosintáctica”, in L. Pons (arg.), *Historia de la lengua y Crítica textual*, Madril: Lingüística Iberoamericana, 195-263.
- Ogura, M., 1990, *Dynamic dialectology. A Study of Language in Time and Space*, Tokyo: Kenkyusha.
- Ogura, M. & Wang, W. S., 2004, “Dynamic Dialectology and Complex Adaptive System”, in M. Dossena & R. Lass (arg.), *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Berlin: Peter Lang, 137-170.
- Ohala, J., 1993, “The phonetics of sound change”, in C. Jones (ed.), *Historical Linguistics: Problems and Perspectives*, Londres: Longman, 237-278.
- Oihenart, A., 1638, *Notitia utriusque vasconicae*, Paris: Sebastianum Cramoisy et Gabrielem Cramoisy.
- Ondarra, F., 1984, “Zegamako *Doctrina Christiana* (1741)”, *ASJU* 18:2, 3-62.
- _____, 1987, “Dos pláticas en vascuence del siglo XVIII”, *Fontes Linguae Vasconum* 50, 281-316.
- _____, 1990, “Irun eta Hendaian emandako bi euskal prediku (1831-1832)”, *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria* 7, 7-38.
- _____, 1991, “Irun eta Oiartzungo bi testu (1832-1834)”, *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria* 9, 103-132.
- _____, 1993, “Hemezortzigarren mendeko bertsoak”, *Fontes linguae vasconum* 64, 531-553.
- Ondarra, F. & Unzueta, A., 1997, *Fr. Migel San Frantziskorena (Zuzaeta) / Fr. Jose Jesus-Mariarena (Arakistain). Idazlanak*, Markina-Xemein: Karmel.
- Ong, W., 2002 [1981], *Orality and Literacy*, Londres & New York: Routledge.
- Oñederra, L. 1990, *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*, Bilbo: UPV/EHU.
- _____, 2004, *Fonetika Fonologia hitzez hitz*, Bilbo: UPV/EHU.
- _____, 2005, “Fonologiaren mugak: *alabea* eta *birjinak elexan*”, in P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia*, Bilbo: Euskaltzaindia, 379-397.
- Orduna, G., 1990, “La edición crítica”, *Incipit* 10, 17-43.
- Ormaetxea, J. L., 2006, “Aramaioko hizkera”, *Fontes Linguae Vasconum* 101, 5-42.

- Ormaetxebarria, I., 1957, “Nombres propios y apellidos en Oñate. Consideraciones histórico-lingüísticas”, *BRSVAP* 13:1, 114-136.
- _____, 1959, *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, Zarautz: Itxaropena.
- Orpustan, J. B., 1999, *La langue basque au Moyen Age: IXe-XVe siècles*, Baigorri: Izpegi.
- Osés, C., 2013, “Sibilantes en la documentación medieval guipuzcoana”, in J. M. Blecua, J. Gutiérrez & L. Sala (arg.), *Estudios de grafemática en el dominio hispánico*, Salamanca: Universidad de Salamanca, 199-210.
- Ostler, N., 2008, “Corpora of less studied languages”, in A. Lüdeling & M. Kytö (arg.), *Corpus Linguistics. An International Handbook*, Berlin & New York: De Gruyter, 457-483.
- Oyosa, A. E., 2007, “Representación gráfica de las sibilantes en el siglo XVI: diferentes normas gráficas”, *Anuario de Letras* 45, 25-51.
- _____, 2013, “Consideraciones sobre grafemática en el ámbito hispánico”, *Anuario de Letras* 1, 273-348.
- Ozaeta, A., 1992, “Arrasateko testu zahar bi”, *ASJU* 26:3, 793-800.
- Padilla-Moyano, M., 2011, *Kadet eta Bettiriño*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 2013, “(Des)genitibizazioaren historiaz gehiago: genitibozko subjektu iragangaitzak (ISGEN) ekialdeko euskarari”, in R. Gómez & J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 383-404.
- _____, 2015, “A new view of basque through eighteenth-century correspondence”, in E. Torgersen, S. Hårstad, B. Mæhlum & U. Røyneland (arg.), *Language Variation - European Perspectives V*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 169-182.
- _____, 2017, *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI - XIX. mendeak*. Doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Blanca Urgell dok. & Beñat Oihartzabal dok.
- Padilla-Moyano, M. & Videgain, X., 2015, “Edizioaren aurkezpena”, in X. Lamikiz, M. Padilla-Moyano & X. Videgain (arg.), *Othoi çato etchera (Lapurdum-en ale bereziak 2)*, Baiona: Iker UMR5378, 87-92.
- Padilla-Moyano, M. & Zuloaga, E., 2018, “Is it possible to undertake a history of Basque from below?”, *Making Waves in Historical Sociolinguistics* biltzarrean aurkeztutako lana. Leiden, 2018/05/31-2018/06/01.
- Pagola, R. M., 1991, *Dialektologiaren atarian*, Bilbo: Gero.
- _____, 1998, “Fonemak eta grafemak: bokal sudurkarien inguruan”, in I. Túrrez, A. Arejita & C. Isasi (arg.), *Studia Philologica. In Honorem Alfonso Irigoien*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 163-173.
- _____, 2002, “Bilboko euskara XVII. mendean: Micoletaren euskaraz ikasteko metodoa”, in A. Arejita, A. Elejabeitia, C. Isasi & J. Otaegi (arg.), *Bilbao. El espacio lingüístico. Simposio 700 aniversario / Bilboren 700. urteurrena. Hizkuntza-gunea. Sinposioa*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 201-218.
- _____, 2006, “Lazarraga eskuizkribua: grafiak, hotsak eta hitzak”, *Oihenart* 21, 539-561.
- Pagola, R. M., González, S. & Iribar, I., 1992, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: bizkaiera*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

- Paul, H., 1891, *Principles of the history of language*, Londres: Longmans, Green & Co.
- Penny, R. J., 2009 [1972], “The re-emergence of /f/ as a phoneme of Castilian”, berrarg. in *Zeitschrift für Romanische Philologie* 88, 463-482.
- _____, 1990, “Labiodental /f/, Aspiration and /h/-Dropping in Spanish: The Evolving Phonemic Values of the Graphs *f* and *h*”, in D. Hook & B. Taylor (arg.), *Cultures in Contact in Medieval Spain*, Londres: King’s College, 157-182.
- _____, 1993, *Gramática histórica del español*, Madril: Ariel.
- _____, 2013 [2004], “Evolución lingüística en la Baja Edad Media: evoluciones en el plano fónico”, in R. Cano (arg.), *Historia de la lengua española*, Madril: Ariel, 593-612.
- Pensado, C., 1983, *El orden histórico de los procesos fonológicos*, Salamanca: Caja de Ahorros & M. P. de Salamanca.
- Perea, M. P., 2007, “Dialectalization or the Death of a Dialect: The Case of the Catalan Subdialect Spoken in the Costa Brava”, *Dialectologia et Geolinguistica* 15, 77-89.
- Pérez-Gaztelu, E., 2002, “Aldi, bide, kide, erdi-atzizkiak?” in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk (ASJU-ren gehigarriak 44)*, 525-535.
- Peters, H., 1988, “On the state and possible aims of Middle English word geography”, in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 397-416.
- Peterson, D., 2009, *Frontera y lengua en el Alto Ebro, siglos VIII-XI*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos.
- _____, 2011, “Toponimia vasca en la documentación conservada en San Millán de la Cogolla: dos estratos diferenciables”, in J. A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 115-125.
- Petit, D., 2007, “Archaïsme et innovation dans les langues indo-européennes”, *Mémoires de la Société de Linguistique de Paris* 15, 13-55.
- Petyt, K. M., 1980, *The Study of Dialect. An introduction to Dialectology*, Boulder: Westview Press.
- Pilch, H., 1988, “Dialectology in historical grammar”, in J. Fisiak (arg.), *Historical dialectology. Regional and social*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 417-442.
- Philips, B. S., 2006, *Word Frequency and Lexical Diffusion*, Hampshire: Palgrave MacMillan.
- Pinker, S., 1989, *Learnability and cognition: The acquisition of argument structure*, Cambridge, Massachussets & Londres: MIT Press.
- Polanco, F., 2003, “Análisis grafemático de las sibilantes dentales en algunos documentos del País Vasco”, *VI Congreso Internacional de Historia de la Lengua biltzarrean aurkeztutako komunikazioa* (Madril, 2003ko irailaren 29tik urriaren 3ra).
- Polák, V., 1963, “Les origines de la différenciation dialectale en Albanie”, *Orbis* 12, 381-92.
- Polomé, E. C. (arg.), 1990, *Research Guide on Language Change. Trends in Linguistics*, Berlin & New York: De Gruyter.

- Pons, L., 2006, "Introducción: La Historia de la Lengua y la historia de las transmisiones textuales", in L. Pons (arg.), *Historia de la lengua y Crítica textual*, Madril: Lingüística Iberoamericana, 69-125.
- Poza, A., 1587, *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas en que, de paso, se tocan algunas cosas de la Cantabria*, Bilbo: Matías Marés.
- Quirós, J. A., 2011, "Las iglesias altomedievales en el País Vasco. Del monumento al paisaje", *Studia historica, Historia medieval* 29, 175-205.
- Rauch, I., 1990, "Evidence of language change", in E. C. Polomé (arg.), *Research Guide on Language Change*, Berlin & New York: De Gruyter, 37-70.
- Recasens i Vives, D., 1985, "Contribució a l'estudi de les àrees dialectals de transició", in A. Moll (arg.), *XVI Congrés Internacional de Lingüística i Filologia Romàniques*, Bartzelona: Moll, 539-555.
- Reguera, I., 2012, "La brujería vasca en la Edad Moderna: aquelarres, hechicería y curanderismo", *RIEV* (Cuadernos - 9), 240-283.
- Reguero, U., 2012a, *Erdi Aroko euskara: dialektalizazioaren hastapenatarantz*, UPV/EHUko master amaierako lan argitaragabea.
- _____, 2012b, "Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik", *ASJU* 45:2, 63-160.
- _____, 2013, "Euskararen dialektalizazioaren hastapenatarantz: konbergentzia eta dibergentzia prozezuak Erdi Aroan", in R. Gómez & J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 431-444.
- _____, 2015a, "Mendebalaren eta ekialdearen artean: goi- nafarrera zaharraren azterketa diakronikorantz", in B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*, Bilbo: UPV/EHU, 587-598.
- _____, 2015b, "El euskera medieval: hacia una explicación de la dialectización del euskera", in C. J. Álvarez, B. Garrido & M. González (arg.), *Jóvenes aportaciones a la investigación lingüística*, Sevilla: Alfar, 433-448.
- _____, 2017, *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak*, UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Ricardo Gómez dok.
- Rementeria, J. M. (arg.), 2008, *Dotrina Christiana. Aita Esteve Materre*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- _____, 2018, *Euskerazko dotrinak. I. Bizkaieraz*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Riad, T., 2014, *The Phonology of Swedish*, New York: Oxford University Press.
- Rico, F. (arg.), 2014 [1987], *Lazarillo de Tormes*, Madril: Cátedra.
- Rijk, R. P. G. de, 1970, "Vowel interaction in Bizcayan Basque", *Fontes Linguae Vasconum* 5, 149-167.
- _____, 1998 [1981], "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera", in *De lingua vasconum: selected writings. Rudolf P. G. de Rijk* (ASJU-ren gehigarriak 43), Bilbo: UPV/EHU, 211-224.
- Ringe, D., 2006, *From Proto-Indo-European to Proto-Germanic*, Oxford: Oxford University Press.
- Rissanen, M., 1989, "Three problems connected with the use of diachronic corpora", *ICAME Journal* 13, 16-19.

- _____, 1990, “On the happy reunion of English philology and historical linguistics” in J. Fisiak (arg.), *Historical Linguistics and Philology*, Berlin & New York: De Gruyter, 353-369.
- _____, 1992, “A Diachronic Corpus of English Texts: New Openings and Old Problems”, in W. G. Busse (arg.), *Anglistentag 1991. Düsseldorf. Proceedings*, Tübingen: Max Niemeyer Verlag, 261-275.
- _____, 2008, “Corpus linguistics and historical linguistics”, in A. Lüdeling & M. Kytö (arg.), *Corpus Linguistics. An International Handbook*, Berlin & New York: De Gruyter, 53-68.
- Rodríguez Adrados, F., 1997 [1952], *La dialectología griega como fuente para el estudio de las migraciones indoeuropeas en Grecia*, Madrid: Ediciones Clásicas.
- Rogers, E. M., 1962, *Diffusion of Innovations*, New York: MacMillan.
- Rollo, W., 1925, *The Basque dialect of Marquina*, Amsterdam: H. J. Paris.
- Romaine, S., 1982, *Socio-historical linguistics*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Rona, J. P., 1958, *Aspectos metodológicos de la dialectología hispanoamericana*, Montevideo: Universidad de la República.
- Ros, A., 2011, “Nerbioi goieneko euskararako material gehiago: XVII. mende amaierako Urduñako berba zerrenda bat”, *ASJU* 45:1, 387-402.
- Ross, M., 2013, “Contact-Induced Change in Oceanic Languages in North-West Melanesia”, in A. Aikhenvald. & R. M. W. Dixon (arg.), *Areal Diffusion and Genetic Inheritance. Problems in Comparative Linguistics*, Oxford: Oxford University Press, 134-166.
- Rotaetxe, K., 1978, *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Durango: L. Zugaza.
- Ruiz de Larrinaga, J., 1954, “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, con notas bio-bibliográficas”, *ASJU* 1, 35-106.
- _____, 1957, “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *BAP* 13:4, 397-443.
- _____, 1958, “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte (conclusión)”, *BAP* 14:3, 397-443.
- Sáez Rivera, D. M., 2006, “Crítica textual, historiografía lingüística e historia de la lengua”, in L. Pons (arg.), *Historia de la lengua y Crítica textual*, Madrid: Lingüística Iberoamericana, 265-300.
- Sagart, L., 2015, “East Formosan and the PAN palatals”, *13th International Conference on Austronesian Linguistics* biltzarrean aurkeztutako lana (Taipei, 2015/07/18-22). Interneten eskuragarri: http://ical13.ling.sinica.edu.tw/Full_papers_and_ppts/July_20/G-92_ppt.pdf [Azken kontsultaren data: 2019/07/22]
- Sagarzazu, T., 2005, *Hondarribiko eta Irungo euskara*, Irun: Alberdania.
- Saiz, E. & Ros, A., 2001, “Barakaldo eta Enkartzioen historia linguistikoaz”, *Litterae Vasconicae* 8, 47-117.
- Salaberri Zaratiegi, P., 1991, “Toponimia, dialektologiaren ikerbide”, in Euskaltzaindia (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak*, Bilbo: Euskaltzaindia, 619-645.

- _____, 1994, *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1996, “Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan. Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez”, *Fontes Linguae Vasconum* 72, 223-234.
- _____, 1998, “Arabako euskararen kokaguneaz” in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, Bilbo: UEU, 49-87.
- _____, 1999, “Reseña: Orpustan, J. B.: *La langue basque au Moyen Âge (IX-XV siècles)*”, *RIEV* 44:1, 185-218.
- _____, 2000, “Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan”, in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 221-251.
- _____, 2011, “Pirinioetako euskal toponimoak: direnak eta diratekeenak”, in Euskaltzaindia (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1019-1049.
- _____, 2012, “Euskararen ekialdeko mugak, Hegoaldean”, *Fontes Linguae Vasconum* 114, 145-158.
- _____, 2015a, “Nola erabili onomastikaren ekarpenak dialektologia ikerketan”, in I. Epelde (arg.), *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun (Lapurdum-en ale bereziak 3)*, Baiona: Iker UMR5478, 237-271.
- _____, 2015b, *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*, Gasteiz: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia.
- _____, 2018, “Euskara Erdi Aroan”, in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 287-344.
- Salaberri Muñoa, P., 2004, “A. Kardaberaz eta J. A. Mogel: literatur bizkaieraren lehen uneak testuen argitan”, *Egan* 56:1/2, 89-107.
- Salaburu, P., 1984, *Hizkuntzaren soinu egitura*, Bilbo: UPV/EHU.
- Salazar, B., 2001, *Ugaoko euskara*, Bilbo: Ediciones Beta.
- Sánchez Méndez, J. P., 2013, “Historia de la pronunciación hispanoamericana. Avances, problemas y premisas para su investigación”, in M. T. Echenique & F. J. Satorre (arg.), *Historia de la pronunciación en lengua castellana*, Valentzia: Tirant lo Blanch, 527-600.
- Sánchez-Prieto, P., 1996, “Problemas lingüísticos en la edición de textos medievales (Sobre la relación entre crítica textual e historia de la lengua)”, *Incipit* 16, 19-54.
- Sánchez Prieto, B., 1998, *Cómo editar los textos medievales. Criterios para su presentación gráfica*, Madril: Arco/Libros.
- Sandøy, H., 1998, “The diffusion of a new morphology in Norwegian dialects”, in P. Auer (arg.), *Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe (Folia Linguistica 32:12)*, 83-100.
- Santazilia, E., 2013, “6. Noun Morphology”, in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction [Mikroglottika 5]*, Frankfurt am Main: Peter Lang, 223-281.
- _____, 2015, “Artxibora itzultzearen garrantziaz: Maria Angela de Txakartegiren XVIII. mendeko Mutrikuko gutuntxoak”, Charles Videgainen omenaldian argitaratzeko.
- _____, 2017, “*Orye, lagunac*. Euskara nafarraren aztarnak XVI. mendeko hiru sorginkeria auzibidetan”, *RIEV* 62:2, 375-406.

- _____, 2019, “*Ala ffede, bada!* Euskal testu berri gehiago Nafarroako XVI. mendeko justizia-auzibideetan”, *Uztaro* 108, 29-51.
- Santazilia, E. & Zuloaga, E., 2018, “Zer (ez) dakigun Iruñean egiten zen euskarari buruz”, in I. Azkona & R. Jimeno (arg.), *Iruñeko historia. Hiriaren ibilbidea historian barna*, Iruñea: Iruñeko Udala & Pamiela, 475-505.
- Sarasola, I., 1975, *Euskal literatura numerotan*, Donostia: Kriseilu.
- _____, 1983, “Contribución al estudio y edición de *Textos arcaicos vascos*”, *ASJU* 17, 69-212.
- _____, 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20:1, 203-215.
- _____, 1997, “Euskal hitz altxorraz”, *ASJU* 31:2, 617-642.
- Sasia, J. M., 1976, “En torno al euskera alavés”, *Boletín del Instituto americano de estudios vascos* 105: 72-70, 106: 131-137, 107: 174-184.
- Satorre, J., 1989, “c, ç y z en la zona de Valladolid en el paso del siglo XVI al XVII”, *Anuario de estudios filológicos* 12, 267-290.
- Satrustegi, J. M., 1983, “Epistolario vasco del siglo XVIII”, *ASJU* 17, 5-24.
- _____, 1987, *Euskal testu zaharrak I*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1992, “Cuatro promesas matrimoniales en euskera del siglo XVI”, *Fontes Linguae Vasconum* 59, 55-70.
- Saussure, F., 1971 [1916], *Curso de lingüística general*, Buenos Aires: Editorial Losada.
- Schiegg, M., 2018, “Factors of Intra-speaker Variation in Nineteenth-century Lower-class Writing”, *Neuphilologische Mitteilungen* 2018:1, 115-134.
- _____, 2019, “Language History and Linguistic Flexibility *from below*”. HiSoN Summer School udako ikastaroan emandako eskola magistrala. Lesbos, 2019/07/14-21.
- Schleicher, A., 1848, *Zur vergleichenden Sprachengeschichte*, Bonn: König.
- _____, 1853, “Die ersten Spaltungen des indogermanischen”, *Allgemeine Monatsschrift für Wissenschaft und Literatur* 3, 786-787.
- _____, 1861-1862, *Compendium der vergleichenden grammatik der indo-germanischen sprachen*, Weimar: Hermann Böhlau.
- Schmidt, K. H., 1872, *Die verwandtschaftsverhältnisse der indogermanischen sprachen*, Weimar: Hermann Böhlau.
- Schmidt, J. E., 2010, “Language and space: The linguistic dynamics approach”, in P. Auer & J. E. Schmidt (arg.), *Language and Space. An International Handbook of Linguistic Variation. Theories and Methods*, Berlin & New York: De Gruyter, 201-225.
- Schneider, E. W., 2004 [2002], “Investigating Variation and Change in Written Documents”, in J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of Language Variation and Change*, Oxford: Blackwell, 67-97.
- Segurola, K., 2001, “Paperaren ur-markak”, *ASJU* 35:1, 215-240.
- _____, 2005, “XVIII. mendeko autore ezezagun bat”, *Lapurdum* 9, 243-282.
- _____, 2013, “Oikiako Dotrinak. F. Antonio Agirre Gabiria (Marin 1728-Oikia 1805)”, *Lapurdum* 17, 223-253.

- Senn, A., 1966, "The relationships of Baltic and Slavic", in H. Birnbaum & J. Puhvel (arg.), *Ancient Indo-European Dialects*, Berkeley & Los Angeles: University of California Press, 139-151.
- Solin, H. & Salomies, O., 1994, *Repertorium nominum gentilium et cognominum Latinorum*, Hildesheim, Zürich & New York: Olms & Weidmann.
- Southworth, F. C., 1990, "Synchronic manifestations of linguistic change", in E. C. Polomé (arg.), *Research Guide on Language Change*, Berlin & New York: De Gruyter, 25-36.
- Stein, D., 1987, "At the crossroads of philology, linguistics and semiotics: Notes on the replacement of th by s in the third person singular in English", *English Studies* 68:5, 406-432.
- Sterelny, K., 1983, "Linguistic Theory and Variable Rules", *Language and Communication* 3:1, 47-69.
- Taeldman, J., 2005, "The influence of urban centres on the spatial diffusion of dialect phenomena", in P. Auer, F. Hinskens & P. Kerswill (arg.), *Dialect Change. Convergence and Divergence in European Languages*, Cambridge: Cambridge University Press, 263-283.
- Tapia, J., Cubas, M., Ceberio, M., Moraza, A., Agirre, J., Alonso, E., Álvarez, E., Areso, P., Armendariz, A., Castaños, P. M., Castaños, J., Etxeberria, F., Garmendia, J., Herrasti, L., Iriarte, M. J., Pérez, D., Uriz, A. & Zapata, L., 2016, "San Adrián: un nuevo yacimiento de la Edad del Bronce en el norte de la península Ibérica", *Munibe Antropologia – Arkeologia* 67, 363-375.
- Thomason, S. G., 1993, "Coping With Partial Information in Historical Linguistics", in H. Aertsen & R. J. Jeffers (arg.), *Historical linguistics 1989. Papers from the 9th International Conference on Historical Linguistics*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 485-496.
- Thomason, S. G. & Kaufman, T., 1988, *Language Contact, Creolization, and Genetic Linguistics*, Berkeley: University of California.
- Tieken-Boon van Ostade I. M., 2000, "Sociohistorical linguistics and the observer's paradox", in D. Kastovski & A. Mettinger (arg.), *The history of English in a historical context*, Berlin & New York: De Gruyter, 331-461.
- Trask, L., 1995, "On the history of the Non-Finite Verb Forms in Basque", in J. I. Hualde, J. A. Lakarra eta R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 207-234.
- _____, 1997, *The History of Basque*, Londres: Routledge.
- Trudgill, P., 1974, "Linguistic Change in Dialect Geography", *Language in Society* 3:2, 214-246.
- _____, 1982, "The Contribution of Sociolinguistics to Dialectology", *Language Sciences* 4:2, 237-250.
- _____, 1983, *On dialect. Social and Geographical Perspectives*, Oxford: Blackwell.
- _____, 1986, *Dialects in contact*, Oxford: Blackwell.
- _____, 1990, "Dialect geograpy", in E. C. Polomé, (arg.), *Research Guide on Language Change*, Berlin & New York: De Gruyter, 257-271.
- Txillardegui, 1984, *Euskal azentuaz*, Donostia: Elkar.

- Txillardeggi & Aurrekoetxea, G. (koord.), 1987, *Euskal dialektologiaren hastapenak*, Bilbo: UEU.
- Uhlenbeck, C. C., 1947, “Les couches anciennes du vocabulaire basque”, *Eusko Jakintza* 1, 543-581.
- Ulibarri, K., 2008, “Orozkoko euskararen azterketa diakronikorantz hurbiltze bat”, *ASJU* 42:1, 191-207.
- _____, 2009, “Viva Jesus dotrinaren azterketa bibliografia materialaren arabera”, in R. Etxepare, R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre* (*ASJU* 43:1/2), 861-872.
- _____, 2010a, “Viva Jesús dotrina: edizioa eta azterketa”, *ASJU* 44:2, 41-154.
- _____, 2010b, “Euskal testu corpusa osatzen: J. P. Ulibarriren «Egunare eusquerazcoa erderascotic itzuliya»”, *ASJU* 45:2, 71-113.
- _____, 2011a, “Jose Paulo Ulibarriren lan bat: «Gaboneco osaste edo berba neurtuac, vizcaytarrentzat. 1826. garren urtian»”, *Litterae vasconicae* 11, 241-264.
- _____, 2011b, “1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak: «Cancion en lengua Vascongada o Vizcayna que contiene la sustancia deste Sermon»”, *ASJU* 45:1, 361-385.
- _____, 2013a, “Un nuevo texto para la historiografía vizcaína: *Aerario de la hidalguia y nobleza española y plaza de armas de Vizcaya* por Francisco Mendieta, ayalés”, *Oihenart* 28, 173-191.
- _____, 2013b, “Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara”, in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 511-532.
- _____, 2015, *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*, UPV/EHU defendatutako doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Blanca Urgell dok.
- _____, 2018, “Mendieta eta bere etimologietako euskara”, in J. A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi* (*ASJU* 52:1-2), 751-772.
- Ulibarri, K. & Urgell, B., 2019, “Euskararen gramatizazioaren hasikinak XVI. mendean: Pedro Madariaga eta euskal hotsak”, in I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, Bilbo: UPV/EHU, 493-512.
- Urgell, B., 1985, “Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*”, *ASJU* 19:1, 65-117.
- _____, 1986, “Egiaren kantaz I: testua eta iruzkinak”, *ASJU* 20:1, 75-148.
- _____, 1987a, “*Esku-liburua*-ren grafi aldaketak (1812-1821)”, *ASJU* 21:2, 357-388.
- _____, 1987b, “Mitxelena eta euskal testu zaharrak”, *Egan* 3-6, 133-136.
- _____, 1995, *Francisco Ignacio Lardizabal. Testamentu Zarreko Kondaira I*, Donostia: Kriseilu.
- _____, 2000a, “Euskal edizioen historiaz (I): 1936 arteko ediziozintza”, *Euskal testuen historiaz eta edizioaz (I)*, UPV/EHUko Udako Ikastaroetako hitzaldia (2000/07/04).
- _____, 2000b, “Euskal edizioen historiaz (II): Gerra osteko ediziozintza”, *Euskal testuen historiaz eta edizioaz (II)*, UPV/EHUko Udako Ikastaroetako hitzaldia (2000/07/04).

- _____, 2000c, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*. UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Joseba A. Lakarra dok.
- _____, 2001a, “Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian”, *ASJU* 35:1, 107-183.
- _____, 2001b, *Fr. Pedro Antonio Añibarro. Geroko gero. Edizio kritikoa (Euskararen lekukoak 22)*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 2002, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren eranskina: saio bat hiztegitzaren testukritikaz*, Donostia: JUMI & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- _____, 2005, “Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiaranzko hurbilketa bat”, *Lapurdum* 10, 247-286.
- _____, 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco”, in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.). *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask* (*ASJU* 40:1/2), 921-948.
- _____, 2013, “Euskal Filologia. Zer (ez) dakigu 25 urte beranduago?”, in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 533-570.
- _____, 2018, “Lehen Euskara Modernoa”, in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.). *Euskararen historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 549-657.
- Urgell, B. & Lakarra, J. A., 2008, “Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz”. Baionako Iker ikergunean (UMR5478 CNRS) aurkeztutako lana. 2008/12/12-13.
- Uribe-Etxebarria, O., 2008, “*Euskerazko doktrinia Anzuelako berba moduan (1825)*”, *ASJU* 42:2, 139-209.
- Urkijo, N., 1994, *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*, Bilbo: UEU.
- Urkixo, J., 1905, “Un catecismo vascongado de 1759”, *Revue de Linguistique et Philologie Comparée* 38, 249-272.
- _____, 1906, “Un catecismo vascongado de 1759 (suite)”, *Revue de Linguistique et Philologie Comparée* 39, 45-67 & 102-120 & 164 & 176.
- _____, 1907, “Notas de bibliografía vasca. 1. El catecismo de Arzadun”, *RIEV* 1, 84-89.
- _____, 1919, *El refranero vasco I: Los refranes de Garibay*, Donostia: Martín, Mena & Cía.
- _____, 1923, “Cosas de antaño. Las sinodales de Calahorra (1602 y 1700)”, *RIEV* 14, 335-352.
- Urkizu, P., 1989, “Garibairen eskuzkribu galdu bat (1592)”, *Mundaiz* 38, 33-85.
- _____, 2005, “Euskal poesia-idazleen artean lehen anderea: Maria Estibaliz de Sasiola (Deba 1550 - 1611)”, *Lapurdum* 10, 287-302.
- _____, 2009, “Un texto olvidado del s. XVII: *Sumario brebea*”, *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* 14, 207-217.
- Urrizola, R., 2006, “Tres cartas en euskara escritas por un ferrón de Bera”, *Fontes Linguae Vasconum* 102, 255-270.
- Van der Wal, M. & Rutten, G., 2013, *Touching the Past. Studies in the Historical Sociolinguistics of Ego-documents*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Van Reenen, P. & Schøsler, L., 1988, “Formation and evolution of the feminine and masculine nominative singular nouns in Old French *la maison(s)* and *li charbons*”,

- in J. Fisiak (arg.), *Historical dialectology. Regional and social*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 505-545.
- Van Reenen, P., Rem, M. & Wattel, E., 2009, "The Localization of Medieval Texts of Unknown Provenance", in M. Dossena & R. Lass (arg.), *Studies in English and European Historical Dialectology*, Berlin: Peter Lang, 19-66.
- Van Valin, R. D. Jr. & LaPolla, R., 1997, *Syntax*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Vélez-Sainz, J., 2000, "El *Recueil Fossard*, la compañía de los Gelosi y la génesis de *Don Quijote*", *Bulletin of the Cervantes Society of America* XX-2. On line kontsutagai:
<http://www.cervantesvirtual.com/servlet/sirveobras/12937864241298281865624/p0000003.htm>> Azken kontsultaren data: 2017/08/23].
- Veny, J., 1985, *Introducció a la dialectologia catalana*, Bartzelona: Enciclopèdia Catalana.
- _____, 1991, "Fronteras y áreas dialectales", in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak*, Bilbo: Euskaltzaindia, 197-245.
- Villasante, L. (arg.), 1967 [ca. 1820], *Fr. Pedro A. de Añibarro. Gramatica bascongada* (ASJU-ren gehigarriak 6), Donostia.
- _____, 1979 [1961], *Historia de la literatura vasca*, Oñati: Arantzazu.
- _____, 1996-2000, *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1987, *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina cristiania* (Juan Antonio Moguel ta Urquiza). *Edizio kritikoa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Vinson, J., 1983 [1898], *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Voss, M., 1988, "Old English glossaries and dialectology", in J. Fisiak (arg.), *Historical dialectology. Regional and social*, Berlin, New York & Amsterdam: De Gruyter, 601-608.
- Watkins, C., 1966, "Italo-Celtic revisited", in H. Birnbaum & J. Puhvel (arg.), *Ancient Indo-European Dialects*, Berkeley & Los Angeles: University of California Press, 29-50.
- _____, 2001, "An Indo-European Linguistic area and its Characteristics: Ancient Anatolia. Areal Diffusion as a Challenge to the Comparative Method?", in A. Aikhenvald & R. M. W. Dixon (arg.), *Areal Diffusion and Genetic Inheritance. Problems in Comparative Linguistics*, Oxford: Oxford University Press, 44-63.
- Webster, W., 1881, "The early Basque Vocabulary", *Revue de Linguistique et Philologie Comparée* 14, 125-126.
- Weinreich, U., 1954, "Is a structural dialectology possible?", *Word* 10, 388-400.
- Weinreich, U., Labov, W. & Herzog, M. I., 1968 [1958], "Empirical Foundations for a Theory of Language Change", in W. P. Lehmann & Y. Malkiel (arg.), *Directions for Historical Linguistics*, Austin: University of Texas Press, 95-195.
- Whitney, W. D., 1867, *Language and the Study of Language*, Londres: Trübner.
- Wiese, R., 2001, "The unity and variation of (German) /r/", in H. Van de Velde & R. van Hout (arg.), *R-atics*, Brusela: Études et Travaux 4, 11-26.

- Williams, C. H., 1988, "An Introduction to Geolinguistics", in C. H. Collins (arg.), *Language in Geographic Context*, Clevedon & Philadelphia: Multilingual Matters LTD, 1-19.
- Williamson, K., 2004, "On Chronicity and Space(s) in Historical Dialectology", in M. Dossena & R. Lass (arg.), *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Berlin: Peter Lang, 97-136.
- Winter, W., 1973, "Areal linguistics: some general considerations", in T. A. Sebeok (arg.), *Current Trends in Linguistics 11: Diachronic, Areal and Typological Linguistics*, Haga: De Gruyter, 135-147.
- _____, 1990, "Linguistic reconstruction: The scope of historical and comparative linguistics", in E. C. Polomé (arg.), *Research Guide on Language Change*, Berlin & New York: De Gruyter, 11-21.
- Wolfram, W. & Schilling-Estes, N., 1998, *American English. Dialects and variation*, Oxford: Blackwell.
- _____, 2003, "Dialectology and linguistic diffusion", in B. Joseph & R. Janda (arg.), *Dialectology and linguistic diffusion*, Oxford: Blackwell, 713-735.
- Yarza, V., 2015, "Notas sobre toponimia de origen romano en Bizkaia", *Fontes Linguae Vasconum* 120, 345-384.
- Yrizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología en lengua vasca*, Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Zabala, J. M., 1848, *El verbo regular vascongado*, Donostia: Ignacio Ramón Baroja.
- _____, 1856, *Noticia de las obras vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, Donostia: Ignacio Ramón Baroja.
- Zamora Vicente, A., 1974, *Dialectología española*, Madril: Gredos.
- Zarate, M., 1976, *Influencias del vascuence en la lengua castellana, a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri - Gran Bilbao*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Zavala, A., 1964, *Jose Vicente de Echegaray. Festara (bere bertso guztien bilduma)*, Tolosa: Auspoa.
- Zavala, A. & Kaltzakorta, X. & Esnal, P., 2012, *Bilboko Gabon-kantak*, Donostia: Auspoa.
- Zenbait egile, 2011, *Abadiñoko toponimia: ahozko iturburuak, iturri dokumentalak eta bibliografikoak*, Abadiño: Abadiñoko Udala.
- Zuazo, K., 1987, "Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerez", *ASJU* 21:3, 927-950.
- _____, 1988a, *Euskararen batasuna (Iker 5)*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1988b, "Bizkaieraren ezaugarriez gehiago", *ASJU* 22:2, 367-377.
- _____, 1989, "Arabako euskara", *ASJU* 23, 3-48
- _____, 1998, "Euskalkiak, gaur", *Fontes Linguae Vasconum* 78, 191-234.
- _____, 1999, "Arabako euskararen kokagunea", *Fontes Linguae Vasconum* 80, 165-184.
- _____ (arg.), 2000, *Dialektologia gaiak*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- _____, 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Donostia: Elkar.
- _____, 2005, *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkar.

- _____, 2006a, “Deba ibarreko euskara zaharra”, in J. A. Lakarra, & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask / R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* (ASJU 40:1/2), Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 1005-1029.
- _____, 2006b, *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*, Eibar: Badihardugu Kultur Elkartea.
- _____, “Euskalkien jatorriaz eta bilakaeraz”, *Zazpika* astekaria, 2007/12/07.
- _____, 2008, *Euskalkiak, euskararen dialektoak*, Donostia: Elkar.
- _____, 2010a, *El euskera y sus dialectos. Origen, evolución y propuestas de futuro*, Irun: Alberdania.
- _____, 2010b, *Sakanako euskara. Burundako hizkera*, Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- _____, 2012, *Arabako euskara*, Donostia: Elkar.
- _____, 2014, *Euskalkiak*, Donostia: Elkar.
- _____, 2015, “Arabako euskararen gaineko ikerketak”, in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Edirenen duzu zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU, 643-660.
- _____, 2017, *Mendebaleko euskara*, Donostia: Elkar.
- _____, 2018, “Deba ibarreko euskara”, in J. A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica* (ASJU 52:1/2), Bilbo: UPV/EHU, 899-908.
- _____, 2019, *Standard Basque and its Dialects*, Londres: Routledge.
- Zuazo, K. & Goiti, U., 2016, *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara*, Bilbo: UPV/EHU.
- Zubiaur, J. R., 1990, *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*, Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- Zubiaur, J. R. & Arzamendi, J., 1976, “El léxico vasco de los refranes de Garibay”, *ASJU* 10:1, 47-144.
- Zulaika, J. M., 2015, “Un manuscrito inédito del siglo XVIII: el Vocabulario Pomier”, *Monumenta Linguae Vasconum. II. Jardunaldiak* jardunaldietan aurkeztutako lana. Gasteiz, 2015/05/13.
- Zuloaga, E., 2010, “Nerbioi ibarreko euskara XVIII. eta XIX. mendeetan (I): Bizente Sarriaren bizkaierazko sermoiak”, *ASJU* 44:2, 393-435.
- _____, 2011a, “Nerbioi ibarreko euskara XVIII. eta XIX. mendeetan (II): Juan Ignazio Astigarragaren sermoi-bilduma”, *ASJU* 45:1, 235-276.
- _____, 2011b, “Bizkaiko jauntxoenginguruko herri-literaturaz: Plentziako 1603ko hiru esaera zahar eta *Refranes y sentenciasen* jatorria, eta proposamen bat Arrasateko erreketaren kantuez”, *ASJU* 45:2, 53-69.
- _____, 2013, “Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta *Viva Jesús* testuaren jatorriaz”, in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 593-610.

- _____, 2016, “Idatziaren fidagarritasunaz eta literatur bizkaieraren sorreraz”, *Monumenta Linguae Vasconum III. Jardunaldiak* jardunaldietan aurkeztutako lana. Gasteiz, 2016/12/21.
- _____, 2017a, “Beheko bokalaren asimilazioaren historiarako: mendebaleko datuak”, *Fontes Linguae Vasconum* 123, 167-199.
- _____, 2017b, “*Geography vs. style* in the history of central Basque”, *International Conference on Language Variation and Change in Europe (ICLaVE) 9* biltzarrean aurkeztutako txostena. Malagako Unibertsitatea, 2017/06/08.
- _____, 2018 [2013], “Euskal kanta bat 1783ko antzerki-lan batean”, *ASJU* 47:2, 315-328.
- _____, 2018 [2015], “Diego Lorenzo Urkizuren 1740ko zortzikoak”, *ASJU* 49:1/2, 179-201.
- _____, 2018, “Iraganaren azterketak dialektologian osa ditzakeen hutsunez”, *Journée sur la variation linguistique* jardunaldian aurkeztutako txostena. IKER UMR5478, 2018/07/10.
- _____, inprimategian-1, “Bizkaiko euskararen barne-egituraketaz”.
- _____, inprimategian-2, “Bizkai sartaldeko *continuum* lexikoez”.
- _____, prestatzen-1, “Arakistain eta Aldazabal: Itziarko Ama Birjinaren omenezko euskal testuak XVIII. mendean”.
- Zuloaga, E. & Antequera, J. A., 2019, “Bizkai sartaldeko agiri judizial bat (1770). Edizioa eta azterketa”, *Fontes Linguae Vasconum* 128, 123-172.
- Zuloaga, E. & Duhalde, M., 2019, “Linguistic features across political borders: the case of Basque dialects in France and Spain” *10th International Conference on Language Variation and Change (ICLAVE - 10)* biltzarrean aurkeztutako lana. Leewarden, 2019/06/26-28.
- Zuloaga, E. & Krajewska, D., 2018, “Authors in sociohistorical context”, *Making Waves in Historical Sociolinguistics* biltzarrean aurkeztutako lana. Leiden, 2018/05/31-2018/06/01.
- Zumalde, I., 1957, *Historia de Oñate*, Donostia: Imprenta Provincial.
- _____, 1986, “XVIII. mendeko testu euskeriko bat”, *RIEV* 31, 933-941.